Elizanburuk dakarren lehen aldi urrun samarretik Daskonagerrek dakarren lehen aldi hurbilera mugako gorabeheretan aldaketak nabaritzen diren arren, arriskuak lasaitasuna eta larritasunak iseka ordezkatu dutelako, istorioaren muina leku berean kokatu dute: mugaren pasabideetan. Alegia, ez dute azpimarratzen hainbeste mugarria bera, nola muga horretan dauden pasabideak. Mugan pasabideak daudelako igarotzen dira ardiak eta, ondorioz, eragiten saratar eta zugarramurdiarren arteko liskarrak. Mugan pasabideak daudelako dabil Ganix muga horretan alde batera eta bestera.

---

<sup>20</sup> Bozas-Urrutiak J. Vinson jarraituz dioenez, behin batez Daskonagerrek, Baionako notarioak, ikusi zuen Ganix bere bulegoan sartzen “zaharturik, ezindurik, miseria gorritan, bere ondasunetarik azken hondarrak baituran ipinteko asmotan zetorrela. ‘Merezi gabeko’ zorigaitz hartaz urrikaldua, Daskonagerre jaunari bururatu zitzaion Ganixen kondaira liburu batean idatzi ta gero kontrabandixta zahararren probetxuan saltzea” (268. or.).

## 5. Ondorioak

XIX. mendeko euskal narratibak Mendebaldeko Pirinioetara begiratu zue-  
nean bertan gertaturiko istorio batzuen berri emateko, denbora-ardatz zabala  
jarri zuen ikusmiran: legendazko iraganetik iragan historiko hurbilenera zi-  
hoan tartea, hain juxtu. Gauzak honela, XIX. mendeko narratiba Mendebalde-  
ko Pirinioetan bizi izandako aldaketa batzuk islatzera heltzen da.

XIX. mendearen azken herenean kontatutako istorioek erakusten dute,  
aditzera ematen dituzten gertaeren denbora gertaerok argitaratzen dituzten  
garaira hurbildu ahala, apalduz doazela azaldutako gestak. Aro Modernoa bai-  
no lehenagokoak ziren garaietan kokatu zituztenean jazoerak gesta epikoa  
bakarrik atzeman zuten Auñemendi mendietan: pertsonaiek abian jarritako  
ekintzek giza komunitatearentzat onuraren bat eskuratzea zuten jomuga, al-  
diz, Aro Modernoan edo geroagoko denboretan kokatu zituztenean jazoerok,  
pertsonek abian jarritako ekintzek gizabanako soilaren onura bilatzen dute.

Aro Modernoa baino aurreragoko garaietan kokatzen diren istorioetako  
pertsonek edo jarrerak komunitatearentzat ongiren bat lortzea dute  
jomuga: dela aske bizi izanaz jarraitzea, dela sinesmen erlijioso “benetakora”  
erakartzea...

Aro Modernoan egiten du agerrera mugarrak. Mugarridun Pirinioak aur-  
kezten dituztenean, muga horretako pasabideek eragindako gorabeheretara  
biltzen dute arreta gunea. Gorabehera horietan beti dago lehia eta lehia horretan  
garaile ateratzea da helburua; izan ere, muga pasabideak daudenez, pa-  
sabide horiek zeharkatzeak arauak urratzen ditu. Garaipenaz gozatzen duena,  
lehenik eta behin, lehia irabazi duen gizabanakoa da, Sarako auzapeza izan  
zein Ganix kontrabandista izan. Lehia irabazi duena mandatarari denean, man-  
datu emaileak ere goza dezake garaipenaz, baina bigarren maila batean. Edo-  
zein modutan, ez da bilatzen guztien ongia, baizik eta on partikularra. Muga-  
rri horretan Sarako auzapezak bere hazienda zaintzea du xede eta ahal badu  
handitzea; Ganix kontrabandistak mugak jarritako debekuaren gainetik igaro-  
tzea. Debekuaren gainetik igarotzea, lehenbizi kontrabandistaren mesedetan  
da, baita mandaturen bat betetzen ari denean ere, nahiz eta mandatu emaileak  
ere irabazirik izango duen eskatutakoa eskuratzean. Honela bada, inoiz ez da  
gaintitzen on partikularren bilaketa mugarridun Pirinioetan.

Denboraren hariak pertsonaiek egindako gesten maila apaltzea badakar  
ere, XIX. mendeko kontalariak aldaketarik gabe gordeko dute Pirinioetan  
kokatu zituzten gertaerak protagonizatzeke pertsonaia berezietz baliatzea. Per-

tsonaia nagusi guztiak legendazkoak edo historikoak dira eta hauetan ez dago ohikotasunaren gurpilaren jira-biran bizi den pertsonaia nagusi arruntik. Batek, Euskal Herria sortu zuen, beste batek, “Aurrera mutillak” deiadarra eginaz, aurre egin zion “Karlo-Manen jendeari”, hurrengoak kristautasunaren garaipena ekarri zuen Auñemendira eta, azkenik, abilezia apartaren jabe direnek beren trebezia erakusten dute.

Azken finean, badirudi, gertaera-lekuaren mailan leudekeen pertsonaiak hautatzera jotzen dutela: pertsonaia bereziak, apartak, leku berezi baterako. Izan ere, lekua bera ere, berezia da edo berezi ikusten dute pertsonaiek. Hala, Ararateko mendietatik zetorren Aitorrek Pirinioak aukeratu zituen bizileku eta hilobi; *Auñemendiko Loreako* zenbait pertsonaiek “Euskal Mendia” deitzen dute. “Euskal mendi” hori da, hain zuzen ere, kanpotik datozkion berrikuntzei oztoporik handiena jartzen diena: “fede zarretik” kristau federa igaro ezinik dabilta bertako bizilagunak, gainontzeko euskaldunak igaro eta gero. Pirinioak leku berezi moduan ikustea ez da lehen aldi urrun batean —dela legendazkoa, dela historikoa— bizi izan ziren pertsonaietara mugatzen, lehen aldi hurbilekoek ere ikuspegi bera baitute. Daskonagerrek honako hitz hauek jartzen ditu Burrunba kapitainaren ahotan:

La princesse de Beira est chez Ganich. Dans quelques heures l’un et l’autre seront en notre pouvoir.

Soldats: vous ne faillirez pas à votre devoir; songez que du haut de ces Pyrénées quarante siècles vous contemplant! (74. or.).

Burrunba kapitainarentzat ez daude edonon, gizaldiak igarotzen ikusi dituen leku batean baino eta horregatik ez litzateke egokia huts egitea. XIX. mendeko kontalariek ere, Auñemendira begiratu zutenean, beren egitekoan hutsik egiten ez zuten pertsonaia nagusiak aurkitu zituzten.

# ***Clovis* pastoralaren eskuizkribuak**

ANE LOIDI GARITANO<sup>1</sup>

Euskaltzaindiaren Hiztegegintzako lankidea

Lan honen helburua gaur ezagutzen ditugun Clovis erregeari buruzko Zuberoako pastoralen<sup>2</sup> eskuizkribuen ikuspegi ahalik eta osoena ematea da. Guztira, XVIII eta XIX. mendeetako hamar eskuizkribu dira hemen aipatuko ditugunak; behean ikusiko dugunez, lau dira eskuizkribu nagusiak, eta gainerakoak horietatik egindako kopiak eta itzulpen bat dira. Paris, Bordele, Baiona eta Donostiako liburutegietan eta Mauleko bilduma pribatu batean daude gaur ezagutzen ditugun zortzi aleak eta horiei buruz jardungo dugu batez ere. Txosten honen helburua da dagoena deskribatzea, aurrerago egin litekeen edizio kritiko oso baten oinarria jartzea eta edizio horretarako ere baliagarri izan litekeen stemma ahalik eta osoena ematea. G. Hérellek (1928, 124-128) egin zuen eskuizkribuen deskriptiotik abiatuz, batzuen eta besteen arteko loturak argitzen saiatuko gara.

## ***Clovis*: trajeria ezaguna**

Zuberoako pastoral zaharrez zerbait irakurri duen edozeinentzat trajeria batzuk ezagunago dira beste batzuk baino. Nahiko buztan luzea ekarri dute *Saint Jacques* eta *Jeanne d'Arc* pastoralen eskuizkribuen datek,<sup>3</sup> esaterako, bai-

---

<sup>1</sup> Mila esker Gidor Bilbaori eta Beñat Oyharçabali lan honi egindako ohar aberasgarriengatik.

<sup>2</sup> Lan honetan *pastoral* eta *trajeria* izendapenen arteko bereizketarik ez dugu egingo. Berdin erabiliko ditugu bata zein bestea, inolako bereizketarik gabe.

<sup>3</sup> Gure ustez ondo frogatua utzi du B. Oyharçabalek (2004, 199-201) 1834 dela *Saint Jacques* pastoralaren eskuizkribuan irakur daitekeen data bakarra eta K. Seguirolak (2002) ere argi erakutsi du *Jeanne d'Arc* pasterala 1793ko ur marka daraman paperean idatzia dagoela eta, beraz, testua ezin izan litekeela ez 1712koa ez 1723koa. Ez dugu horretaz Oyharçabalek eta Seguirolak esandakoa egokiago esaterik lortuko eta, beraz, kontu hori itxia dago guretzat. Aipatutako artikulu argigarri horien ondoren ere Urkizuk (2007, 25, 26) honela aipatzen ditu bi



na agian bi horiei ere aurrea hartzen die gure oraingo sujetak. Buchonek (1839) Jean Pierre Saffores Atarratzeko zapatari eta pastorgilearen etxean, beste hirurogeita hamar bat eskuizkriburen artean, *Clovis* pastoralaren 1500eko eskuizkribu bat ikusi zuela aipatzen du eta berak erosi zuela. Asko idatzi dute horren inguruan ondorengo ikerlariak; Badék (1843) aipatzen du, Hérellek (1926) artikulu berezi bat eskaini zion<sup>4</sup> eta azken aldian, datu horren aldeko eta kontrako iritzia eman dutenak, P. Urkizu (2007) eta B. Oyharçabal (2004) izan dira. Ez dakigu guk ere benetan zer adierazi nahi ote zuen Buchonek datu horrekin edo zertarako eman zuen horrela, baina arrazonomenduetan bat gatoz erabat Oyharçabalekin, hau da, XVIII. mendera arte pastoralei buruzko ezelako lekukotasun fidagarriak ez izanda nekez pentsa dezakegula mende eta erdi lehenago horrelako lan baten lekukotasun isolatu bat izan litekeenik.<sup>5</sup>

Kontuak kontu, gure ustez Oyharçabalek esandakoetatik urrutiago eramango ez gaituzten jardunetan sartu gabe, pastoral honek izan duen oihartzuna islatu nahi genuen bakarrik. Goikoaren moduko eztabaidetan sartu gabe Fr. Michelek ere lan bat baino gehiagotan aipatu zuen *Clovis* pasterala. Lehenengo, lehen peredikuko zortzi ahapaldi kopiatu zituen (1847, II 256 oin-oharra); geroago, A. Oihenarten poemei urte berean egindako edizioaren hitzaurrean (LXIX. orrialdeko oin-oharra), berak duen eskuizkribuan azaltzen diren pertsonaia eta aktoreen zerrenda ematen digu; eta azkenik, *Le Pays Basque* lan aipagarrian, pastoralei eskainitako atalean, ia hamar orrialde eskaintzen dizkio *Clovisi* (1857, 66-75). Orrialde horietan, lehen peredikuan kontatzen dena ematen digu frantsesez (tartean bertako hiru ahapaldiren itzulpen zehatzagoa) eta testu osoaren laburpena egiten digu gainera, testuko sei aha-

---

eskuizkribu horiek: “El que aparezca la fecha de 1634 *perfectamente clara* [azpimarra gurea da] en la pastoral de *Saint Jacques*” eta “Tras la pastoral de *Saint Jacques*, vendrían en orden cronológico la de *Jeanne d’Arc* [...] ya que según nota de Georges Lacombe es de 1712, y es *le plus ancien connu*, el más antiguo conocido”. Bigarren aipu honen ondoren K. Seguirolaren artikulua aipatzen du baina, hala ere, ez du lerro bat gorago esandakoa ezetzatzen.

<sup>4</sup> Hérellek zalantzak erakutsi baldin bazituen ere, eta Buchonen ondorengoen artean galdetuta eskuizkribuaren bila egindako ahaleginek emaitza onik eman ez bazuten ere, badirudi sinesten zituela artxibaliariaren hitzak eta, froga handiegirik gabe, benetan garai hartako eskuizkributzat zuela Buchonek aipatutakoa.

<sup>5</sup> Urkizuk (2007, 22), Oyharçabalen arrazonomenduen kontrako inolako frogarik gabe, eta aldeko froga bakarizat artxibaliariaren hitzen fidagarritasuna aipatzen duela, benetan eskuizkribu hori izan zela aditzera ematen du: “Como es difícil de dudar de la competencia paleográfica del inspector general de los Archivos y Bibliotecas de Francia que publicó *La collection de chroniques nationales et françaises du xve et xvième siècle* (1824-1829) no nos queda sino lamentar la pérdida del manuscrito.”

paldi kopiatuaz. Aipatu ditugun liburuen datak ikusita, beraz, zuzenean euskaraz kopiatuak zati labur bi bakarrik badira ere, esan dezakegu, Vinsonek 1891an Antiokiako San Julianen pastorala osorik argitaratu aurretik, *Clovis* pastorala izan zela moldeko letretan azaltzen lehenengoa, liburu berean 87. orrialdean argitaratu ziren *Napoleon* pastoralaren bi ahapaldiekin batera.<sup>6</sup>

Hérelle ohartu zen Fr. Michelek erabili zuen Clovisen alea ez zela berak ondoen ezagutzen zuen Bordeleko eskuizkribuaren erabat berdina, Fr. Michelek egiten zuen kontaketa, hasieran Bordelekoarekin bat bazatorren ere, berak ezagutzen zuena baino luzeagoa baitzen.<sup>7</sup> Zuzen zebilen Hérelle, ez zen Bordeleko eskuizkribua Fr. Michelek erabili zuena; bai, ordea, berak (1928, 125) aipatzen duen aleetako bat: Félix Larrieu mediku zuberotarraren bildumako alea, hain zuzen ere. Garbi dago Hérellek esku pribatuetan gordetzen ziren eskuizkribuen berri, gehienetan, jabeek emandako azalpenei esker zekiela bakarrik, baina berak ez zituela ikusi.<sup>8</sup> Liburutegietan zeudenak (horietako batzuk berak egindako emaitzak dira) ikusiak eta aztertuak zituen, eta askotan, Léopold Irigaray zuberotarraren laguntzari esker, ulertu eta interpreta-tuak ere bai. Baina argi dago ez zuela ikusi *Clovis* pastoralarentzat berak aipatzen dituen eskuizkribuen arteko bat: Larrieu medikuaren alea. Beherago ikusiko dugunez, eskuizkribu horretan dago Fr. Michelek (1847, II LXIX) argitaratu zuen pertsonaia eta aktoreen zerrenda, Hérellek berak ere behin baino gehiagotan aipatu duena.<sup>9</sup> Beraz, Larrieuren bilduman zegoen 1799ko eskuizkribuaren bukaerako aktoreen zerrenda ikuste hutsarekin ohartuko zen ale hori zela Fr. Michelek eskuartearen erabili zuena.

Orain badakigu, beraz, zein zen Fr. Michelek *Clovis* pastoralaren berri emateko erabili zuen alea eta baita non den ere. Gaur egun Mauleko Marie-Laure Peyrot anderearen etxean dira Larrieu medikuaren bilduma osatzen zuten liburu eta eskuizkribuetako batzuk eta horien artean da guri dagokigun

<sup>6</sup> Handik aurrera ere eskuizkribuetan daude Zuberoako pastoral zahar gehienak, xx. mende hasieran A. Leonek (1909) eta Saroihandyk egindako zatikako argitalpenak eta azken urteetako edizio bakanak salbu (azken urteetako edizioetarako ik. bibliografia).

<sup>7</sup> "Ici [Bordeleko eskuizkribuaren laburpenaren ondoren dator oharra] s'arrête le texte abrégé du ms. de Bordeaux. Le ms. analysé par Francisque Michel contenait en outre ce qui suit: [...]" Hérelle 1928, 127.

<sup>8</sup> Honela dio Hérellek berak: "Pour ceux qui n'ont point passé entre nos mains, nous avons été obligé de nous contenter des renseignements que les détenteurs des cahiers ont eu l'obligeance de nous fournir. Dans un petit nombre de cas, nous n'avons pu obtenir aucun renseignement" (Hérelle 1928, 9).

<sup>9</sup> Ikus Hérelle 1910, 16-17 eta 1923, 35.

hau ere.<sup>10</sup> Eskuizkribua ikusi eta berehala konturatu ginen ale horixe zela Fr. Michelek erabili zuena, gu baino azkarragoa izan zen de Souhy jaunari esker. Eskuizkribuari, koadernatzerakoan, aurrean erantsita geratu zaizkion orrietako batean honako oharra idatzi zuen: “Cet exemplaire me vient du fond Larrieu de Montfort l’Amaury. En 1847 il appartenait à Francisque Michel (voir preface de l’édition des proverbes basques d’Oihenart p. LXIX)”. Ezagutzen zuen, beraz, Oihenarten olerkien hitzaurreko Fr. Michelen aipua eta jabetu zen berak eskuartearen zuen eskuizkributik kopiatua zela.<sup>11</sup> Aipatutako orrialde horretatik aurrera egin eta testua irakurtzen hasi ginenean,<sup>12</sup> berriz, ohartu ginen ordurako ezagutzen genuen Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian gordetzen den Cl. d’Andurainen bildumako eskuizkribuaren “berdin-berdina” zela, beherago ikusiko dugunez. Bagenekien, beraz, nondik kopiatua behar zuen izan Hérellek XIX. mende bukaerakotzat duen eskuizkribuak.<sup>13</sup> Ordurako, aztertuak genituen gaur ezagutzen ditugun beste eskuizkribuak ere, eta eginak genituen batzuen eta besteen arteko loturak.

Duen historia dela eta guretzat *Clovisen* eskuizkribuetan harribitxi den hori, Hérellek ondoen ezagutzen zuena zelako guztietan ezagunena egin den Bordelekoa eta gaur ezagutzen ditugun gainerako guztiak non dauden, noizkoak diren eta elkarren artean dituzten loturak azaltzen saiatuko gara hurrengo lerroetan.

---

<sup>10</sup> B. Oyharçabalen doktore tesi lan bikaina berrirakurtzen ari ginela, erdi kasualitatez konturatu ginen Larrieuren liburutegiko hainbat ale Pierre de Souhy mauletarraren etxean zirela: “La bibliothèque du Docteur Larrieu appartient pour l’essentiel aujourd’hui à M. de Souhy” (Oyharçabal 1991, 16). Pierre de Souhyk, Peyrot anderearen aita zenak, 1941ean F. Larrieu mediku euskaltzalea hil zela jakin zuenean, hura bizi zen Paris inguruko Montfort l’Amauryra jo zuen haren liburutegia ahal zuen neurrian behintzat salbatzera. Alabak kontatu zigunez, ez zen lan erraza izan de Souhy jaunarena, Bigarren Mundu Gerra bete-betearen baitzen, baina ahal izan zituen guztiak Maulera ekarri zituen.

<sup>11</sup> Beherago ikusiko dugunez, Hérellek egiten duen deskripzioan eskuizkribu hori koadernatu gabe dagoela aipatzen du. Larrieuk berak geroago edo de Souhy jaunak koadernatuko zuten. Goian aipatu dugun Fr. Michelen aleari buruzko oharraz gain, orrialde berean, goienean, Hérellek eskuizkribu honentzat ematen duen deskripzioa kopiatzen du de Souhy jaunak, eta, “cahier sans couverture” kopiatu ondoren, “aujourd’hui [hui] relié” gehitu du kako artean.

<sup>12</sup> Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Peyrot andereari, 2004ko ekainean, eskuizkribua ikusteko eta argazkiak ateratzeko Gidor Bilbao irakasleari eta bioi eman zizkigun erraztasunengatik.

<sup>13</sup> Larrieuren bildumako alea ezagutu aurretik ere bagenuen susmoa Cl. d’Andurainen aleak eta Fr. Michelenak loturaren bat izan behar zutena, gaur Baionako Erakustokiko Liburutegian dagoen aleak, aktoreen zerrendarik ez baldin badakar ere, 1799ko data baitakar jatorritzotik kopiatuta. Fr. Michelek aipatzen zuen data zen, beraz, baina ezagutzen genuen eskuizkribua XIX. mendekoa zen. Larrieu bildumako alea azaldu zenean erraza izan zen lotura.

## Eskuizkribuak banan-banan

Gaur egun ezagutzen ditugun *Clovis* pastoralaren eskuizkribu guztiak Hérellek (1928, 124-128) aipatu zituen jada. Ikusiko dugunez, Hérellek gaur ezagutzen ditugunak eta besteren bat ere aipatzen du. Eskuizkribuen deskripzioa banan-banan egiteko, beraz, hark dakarrena kopiatuko dugu lehenengo, eta ondoren guk esateko duguna erantsiko dugu; gaur gordetzen ez ditugunetatik hasiko gara, horiek baitira esateko gutxien dutenak eta, gero, banan-banan, elkarrekiko loturak eginaz aipatuko ditugu beste guztiak. Hérelleren testua kopiatu dugun lekuan gure izendapena tartekatuko dugu kako artean (ikus beherago stemma).

J. Héguiaphal [G]. Cahier cartonné; papier réglé de moyen format. Copie exécutée en 1899 par L. Irigaray d'après le ms. de V. Stempf.

Ez dakigu ondo gaur egun non diren errejent ugari eman duen familia honen eskuizkribuak. 1980ko hamarkadan, haren oinordekoen etxean izan ziren Gidor Bilbao eta Charles Videgain ikertzaileak zenbait pastoralen eskuizkribuak mikrofilmazten, eta orduan ikusi ahal izan zuten eskuizkribuen zerrendan (22 izenburu zahar eta 12 berri) ez zegoen *Clovis* izenekorik (bai, ordea, *Saint Julien d'Antioche*). Dena den, Hérellek esaten digunez, L. Irigarayk Stempfen aletik egindako kopia da; beraz, Pariseko liburutegian gordetzen den eskuizkribuaren oso antzekoa behar zuen izan.

V. Stempf [E]. Cahier sans couverture; papier pelure, 41 pages. Copie faite d'après le ms. de Bordeaux.

Eskuizkribu honen berririk ere ez dugu gaur. Hérellek (1928) hiru pastoraletan aipatzen ditu Stempfen kopiak: Clovisenean, Antiokiako San Julianenean (aurrerantzean *SJ*) eta *La Jérusalem délivrée* izenekoan. Vinsonek, *SJ* pastoralara argitaratzeko, V. Stempfek Bordeleko liburutegiko aleari egindako kopia baliatu zuen. Beherago ikusiko dugunez, Bordeleko eskuizkribuak *Clovis* pastoralara jasotzen du lehenengo 16 orrietan eta *SJ* 17.etik 51.era. Baliteke, beraz, Vinsonek gorde izana trajeria bien kopiak, baina gaur Lacomberen liburutegiarekin batera gordetzen diren Vinsonen paperen artean ez dago horrelako alerik.<sup>14</sup> Goiko atalean esan dugunez (ikus hurrengo atalean Pariseko

<sup>14</sup> Vinsonen liburutegi eta artxiboaren zati bat Lacombe eosi zuen eta gaur egun Oloso Dorrea Sorrerakundea da Lacomberen artxiboaren jabea. Artxibo horren kopia digitalizatu bat

aleari buruz esango duguna) eskuizkribu hau erabili bide zuen Irigarayk ere bere kopiak egiteko.

Paris n° 133 [F]. Demi reliure en chagrin; papier très fort, 290 sur 210 mm.; 63 feuillets à une colonne. Copie exécuté en 1899 par L. Irigaray, d'après le ms. de Bordeaux.

Pariseko Liburutegi Nazionalan (aurrerantzean BNP) gordetzen da gaur egun ere eskuizkribu hau, *Celt et Basque* izeneko eskuizkribuen funtsean, 133. zenbakiarekin. Hérelleren aipuan ikusi dugun bezala zutabe bakarrean idatzita dago eta, 1900eko kopia izaki, egoera onean; letra garbi eta irakurterrazez idatzia da.<sup>15</sup> Hérellek 63 orri aipatzen ditu; guk, oraingoz, Gasteizen Euskal Herriko Unibertsitateko Koldo Mitxelena liburutegian dagoen mikrofilmaren bitartez bakarrik ikusi ahal izan dugu eta bertan idatzitako azken orrialdea 61. orriaren atzealdea da. Hain zuzen ere azkenengo orrialde horretan irakurri duguna aipatu nahiko genuke hemen. Hérelleren aipuan “Copie exécuté en 1899 par L. Irigaray, d'après le ms. de Bordeaux” jartzen baldin badu ere, badirudi eskuizkribu hau egiterakoan V. Stempfek egindako kopia erabili zuela Léopold Irigarayk. Honela dio azken orrialdeko oharrak (BNP 133, 61v):

La présente pastorale intitulée *Clovis* a été copiée pour Mr. Georges Hérelle, correspondant honoraire du Ministère de l'Instruction Publique, sur une autre copie appartenant à Mr. V. Stempf, laquelle a été elle-même prise sur un manuscrit de la Bibliothèque de Bordeaux, par moi soussigné, Léopold Irigaray de Licq-Atherey. Tardets, le 15 avril 1900.

Goian ikusi dugunez, Héguiphalen bildumako alea ere Irigarayk kopiatua da; beraz, badirudi eskuizkribu honen bi kopia behintzat egin zituela Hérelleren kolaboratzaileak: orain aipatzen ari garen hau Hérellerentzat<sup>16</sup> eta bestea Héguiphalentzat.

---

bada Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan eta handik jakin ahal izan dugu bilduma horretan ez dagoela bila genbiltzan eskuizkribua.

<sup>15</sup> Kopia aski modernoa eta bigarren mailakoa izanik garrantzi gutxiakoa dela pentsa liteke, baina eskuizkribu honen balioa ere ez da txikia. Jatorrizkoa XVIII. mendekoa izanik eta kopia ia XX. mendekoa, badu testu honek hizkuntzako aldaerez eta, oro har, zubereraren eboluzioaz, erakustekorik. Ikusi ahal izan dugunagatik kopia ez da jatorrizko testuaren erabat berdina eta adierazgarria izan liteke alor horretan.

<sup>16</sup> BNPen dagoen ale hau Hérellek emandakoa da; hasiera-hasieran, Hérelleren sinadura eta guzti, honako oharra du eskuizkribuak: “Offert à la Bibliothèque Nationale par le soussigné: G. Hérelle”.

Bordeleko eskuizkributik —esan bezala, Stempfen kopia bitarteko dela— *Clovis* pastoralari dagozkion 16 orrietatik kopiatutakoaz gain, baditu eskuizkribu honek beste zortzi ahapaldi ere. Iturritzat hartutako eskuizkribuak<sup>17</sup> lehen perediku bakarra du bi pastoralentzat eta ez du azken peredikurik. Perediku horrek egiten du, hain zuzen ere, pastoral bien arteko lotura. Berez erabat beregain diren bi pastoral dira, baina 1770eko eskuizkribuan kopiatutakoak elkarren jarraian emateko prestatu ziren eta horregatik *SJ* pastoralari dagokion lehen peredikuan badira Clovisi dagozkion ahapaldi batzuk. Ahapaldi horiek dira hain justu ere L. Irigarayk bere kopiaren lehenengo orrialdeetan kopiatutako zortziak.<sup>18</sup> Goian aipatu dugun idatzitako azken orrialdearen aurrekoan, 61. orriaren aurrealdean, pastoreko pertsonaien zerrenda dator. Bordeleko eskuizkribuan, zerrenda hori *SJ* pastorekoarekin batera dator, haren jarraian. Kasu honetan *Clovisi* dagozkionak bakarrik kopiatu dira, bakoitzari dagokion ahapaldi kopurua ondoan dutela; guztira 17 pertsonaia.<sup>19</sup> Ahapaldiak banaka zebakitu gabe daude, baina bukaeran “Total 580 vers” dio, jatorrizkotik kopiatuta.

Bayonne n° 120 [J]. Cahier cartonné. Traduction française de *Clovis*, faite par Léopold Irigaray sur le ms. de Bordeaux.

Nahita jarri dugu eskuizkribu honen deskripzioa Pariseko alearen ondoren. Eskuizkribu honek jasotzen duena L. Irigarayk egindako *Clovis* pastoralaren frantseseko itzulpena da. Guztira zebakitutako 90 orri dira, aurrean zebakitu gabeko beste bi orri dituela. Honela dio lehenengo orrian:

Traduction de la pastorale de *Clovis*. Traduction faite par Léopold Irigaray. mss. 3 de Bordeaux (texte abrégé). À la fois, quelques fragments de *Jeanne d'Arc*.

Eskuizkribua irekita, eskuineko orrialdeek Bordeleko eskuizkribuaren itzulpena dakarte, zutabe bakarrean, ahapaldiak bina lerrotan banatuta; ezke-

<sup>17</sup> Ikus beherago “Bordeaux 3” eskuizkribua.

<sup>18</sup> Hirugarren orrian, “Prologue” izenburuaren azpian, honela idatzi du Irigarayk: “(Observations). La pastorale de *Clovis* devait être jouée après celle de *St. Julien*, quoique les 16 feuillets où elle se trouve dans le manuscrit n° 3 de Bordeaux, précèdent le *St Julien*. Elle n’avait donc pas de prologue spécial. Mais voici le passage du prologue de *Saint Julien* où est aussi analysé aussi [sic] le sujet de *Clovis*”.

<sup>19</sup> Zerrendan bikoiztutako pertsonaia falta dira. Alegia, aktore berak pertsonaia bat baino gehiago jokatu behar duenean, elkarren ondoan aipatzen dira pertsonaia guztiak. Kasu honetan, baina, Bordeleko eskuizkribuan aipatzen diren “bikoitz” guztiak *SJ* pastoralari dagozkie, eta horregatik ez ditu Irigarayk zerrendan sartu.

rreko orrialdeetan, berriz, oharrak, iruzkinak eta laburpentxoak datoz tinta gorritz idatzita. Bukaeran, BNPko aleak dakarren moduan, “Total 580 vers” dio, eta, ahapaldi kopuruaren ondoren: “Tardets, le 20 juillet 1900. Irigaray”. Azken-azkenengo orrialdean pertsonaien zerrenda dator, BNPko alekoaren berdin-berdina.<sup>20</sup>

J. de Urquijo [D]. Cahier sans couverture; 1646 versets. Ex-libris daté: J.-P Busson, 1858.

Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian gordetzen da Julio Urkixo hizkuntzalari handiaren liburutegia, eta bilduma horretan dago gaur egun ere 1858ko data daraman eskuizkribua. Nahiko egoera onean dago oro har, baina, jositako orri nagusiez gain, han-hemen tartean erantsitako orritxo ugariz osatua da.

Alde batetik, lehen eta azken peredikua barne dituela, pastoralaren testu nagusia jasotzen duten orrialdeak daude. Lehenengo bi orrialdeak zembakitu gabe daude, baina, hortik aurrera, 64.era arte orrialdeka zembakitua dago eskuizkribua. Lehen peredikuak zembakitu gabeko bi orrialdeak eta zembakitutako lehenengo biak hartzen ditu (guztira 75 ahapaldi). Trajeriaren testu nagusia zembakitutako 3.orrialdetik 63.erako orrialdeetan dago; orrialde horretako lehenengo zutabearen amaieran bukatzen da “fini” batekin. Azken peredikuak guztira 25 ahapaldi ditu, 63. eta 64. orrialdeetan. Azkenengo ahapaldiaren ondoren dator ex librisa: “Fait par Jn. Pierre Busson. Tardets le 10 février 1858. Composé de 1645 vers”.<sup>21</sup>

Eskuizkribua osatzen duten plegu nagusiez gain, baditu, esan bezala, erantsitako hainbat orritxo ere (16 guztira). Testu nagusian, tarteka, buruz behera

---

<sup>20</sup> *Clovis* pastoralaren itzulpena dakarten orrien ondoren beste pasarte labur batzuk daude batera koadernatuta. *Jeanne d'Arc* pastoralaren lehen eta azken peredikuen hainbat ahapaldi dira eta Hérellek pastoral horri dagokion zatian (1928, 134) aipatzen ez dituenetz, egokia iruditu zaigu hona ekartzea: lehenengo bi orrialdeetan *La pucelle d'Orleansen* lehen peredikuaeren zortzi ahapaldi, hurrengo lau orrialdeetan *Jeanne d'Arc* pastoralaren azken peredikuaeren 16 ahapaldi, eta, azkenengo hiru orrialdeetan, berriz ere *La pucelle d'Orleansen* zortzi ahapaldiak (ondoan gorritz idatzita “recopié par Leopold Irigaray” dio).

<sup>21</sup> 1400 jartzen du azpian eta gainetik zuzenduaz idatzita dago 1645. Bussoni buruz oraingo ez dakigu Vinsonek eta Hérellek aipatzen dutena besterik. Pastoralen egile (“auteurs”) edo moldatzaileez (“arrangeurs”) mintzatzean 1875ean hil zela Busson aipatzen du lehenengoak (1883, 20): “J.P. Busson de Tardets (mort en 1875)” eta bigarrenak, berriz, pastorgileen zerrenda batean, zer eta noiz eman zuen: “Busson fit représenter *Nabuchodonosor* à Tardets en 1857 et *Clovis*, même lieu, en 1858” (Hérelle 1923, 164).

jarritako *V* baten antzeko markak daude, erantsitako orritxo horietara bidaltzen gaituztenak. Orritxo horietan, frantsesezko ohar batzuen bitartez, aditzera ematen da bertako ahapaldiak testuaren zein zatitan eta nola txertatu behar diren.<sup>22</sup> Erantsi beharreko orritxo horietan daudenak eta testu nagusikoak batuta 1419 ahapaldi zenbakitu ditugu guk gure transkripzioan; lehen eta azken peredikukoekin batuta, 1519 ateratzen zaizkigu, eskuizkribuan bertan ematen denarekin bat ez datorren zenbakia, beraz.

Aipatutakoaz gainera, 1etik 4ra zenbakitutako bi orri ditu eskuizkribuak testu nagusiaren aurretik. Lehenengoa, batez ere, aski hondatua dago, berau baita, beste azalik ezean, eskuizkribuaren aurreko azala. Orrialde horietan sataneriak datoz bi zutabetan idatzita, eskuizkribu honetan nahiz besteren batean txerta litezkeenak.<sup>23</sup> Guztira 66 ahapaldi zenbatu ditugu sataneria horietan. Laugarren orrialdearen bigarren zutabearen barrenean, berriz, *Clovis* pastoralara jokatzeko beharrezko den eszenako tresneriaren zerrenda dator.<sup>24</sup> Testu nagusian bezala, bi orri hauekin batera ere bada erantsitako beste orri bat, hiru aldiz errepikatzen den bi ahapaldiko Jainkoaren gorazarrezko kanta edo otoitz bat jasotzen duena.<sup>25</sup>

Bayonne n° 51 [I]. Fragment de 2 feuillets, 320 sur 215 mm. Liste des rôles et indications pour la mise en scène.

Baionako Udal Liburutegian (aurrerantzean BMBa) zenbaki hori daramana elkarrekin koadernaturako hainbat eskuizkribu dituen liburuiki bat da. Guztira zazpi pasarte dira, Hérellek sinaturiko hasierako orri batean aipatzen den bezala:

<sup>22</sup> Hona, adibidez, 17. orrialdean txertatu beharreko pasarte batek dakarren oharra: “Augmentation de Nicete et Godolene. Faire parler Niceta après que Godolene aura fini de parler et avant la bataille du page 17.”

<sup>23</sup> Eskuizkribuak berak baditu, bestela ere, satanei dagozkien ahapaldiak bakoitza bere lekuan txertatuak. Horregatik diogu ez direla ezinbestean pastoral honetarako idatziak. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian, eskuizkribu honen digitalizazioan, ez dira orrialde horien argazkiak sartu.

<sup>24</sup> Inolako oharrik gabe dator zerrenda; ez du berariaz esaten *Clovis* pastoralerako denik, baina aipatzen diren elementuak beharrezkoak dira hurrengo orrialdeetan datorren testua egoki jokatzeko. Besteak beste “cintura eta khatia Remiren estecatceco” aipatzen da: *Clovis* bataiatu zuen Reimseko apezpikua zen Remy, pastoreko pertsonaien artean dagoena.

<sup>25</sup> Honela dio bi ahapaldiko kantuak: *Adoratcen çutugu, aita, / Trinitateko Gincoua, / erre-guen erre-guia eta / ispiritu divinoua. // Khiristieg oroq lurrian / çutie adoratcen / eta ber guisan aingurieq / celietan ouhouratcen.*



I. Rôle de satans dans *Charlemagne*, II. Liste des acteurs de *Clovis*, III. Fragments de *St. Jacques* (mss. B), IV. Prologues joints de *Nabuchodonosor* et d'*Astiage*, V. Fragment de *Napoleon*, VI. Sept rôles de *Saint Roch*, VII. Hymne final.

Guri dagokiguna, beraz, alde batetik, *Clovis* pastoralaren pertsonaien zerrenda eta berau jokatzeko oharrak jasotzen dituen zatia da. Goiko Hérelleren aipuan ikusi dugun bezala, bi orrialde besterik ez dira; eta, oraingoan ere, arrazoi jakin bategatik ezarri dugu atal hau Bussonen eskuizkribuaren ondoren. Bien arteko loturei buruzko aipurik inon aurkitu ez baldin badugu ere, ziur esan dezakegu bi orrialde horiek 1858ko eskuizkribua kopiatu zuenak berak idatzi zituela. Letrakera berdina da bietan eta, ez hori bakarrik, banan-banan zehazturik eta deskribaturik datoz 1858rako prestatutako trajeriaren jeltaldia. Alegia, beste aleen kontaketarekin ez bezala, eskuizkribu honetako hariarekin eta jeltaldiekin erabat bat dator zerrenda horretako testua. Beraz, Donostiako liburutegian gordetzen den eskuizkribua eta BMBa 51ko testu zatia elkarrengandik gaur daudena baino hurbilago izan ziren noizbait. Bigarrena lehenengoaren osagarri izan zen eta 1858ko otsailaren 10ean Atarratzen *Clovis* jokatu zenean errejentak arizaleak gidatzeko erabili zuen eskema da. Eskuizkribuan bertan bada Hérellen eskuz idatzitako ohar bat; honela dio oharrak:

C'est une liste des acteurs dans la pastorale de *Clovis*, avec l'indication de ce qu'il doivent faire. Les acteurs énumérés dans cette liste sont beaucoup plus nombreux qu'ils ne le sont dans mon manuscrit de *Clovis*; en effet, mon manuscrit a dû être abrégé pour une représentation double. Au surplus, Léopold Irigaray a entendu dire à Héguiaphal que la pastorale de *Clovis* était très longue.

Ikusten denez, beraz, Hérelle ez zen jabetu Bussonen aleari dagokion zerrenda dela bi orrialde horietakoa; izan ere ordurako Julio Urkixoren eskuetan zen 1858ko alea eta Hérellek ondoen ezagutzen zuena Bordeleko 1770eko alea zen.<sup>26</sup>

Bilduma bereko zazpigarren zatiak ere badu Bussonen eskuizkribuarekin harremanik. Hérelleren hitzekin kopiatu dugun "Hymne final" hori, goian 1858ko eskuizkribuari erantsia aipatu dugun otoitz hori bera da. Oraingo honetan ere otoitza hiru aldiz kopiatua dago, eskuinean gorriz idatzitako Hé-

<sup>26</sup> Esan dugu gorago ere Hérellek ez zituela gehienetan bere begiz ikusi bilduma pribatuetan ziren eskuizkribuak.

relleren ohar bat eta beltzez itzulpena dituela.<sup>27</sup> Argigarria iruditu zaigu Hérel-leren oharra: bere ustez, kantua hiru aldiz koptatzea gero hiru zatitan ebaki ahal izateko da. Honela, zati bakoitza aktore bati emango zitzaion eta denek ikasteko aukera izango zen. Bussonen eskuizkribuan erantsita dagoen kopia hirukoitza ere, bilduma honetan jasotakoa bezala, horretarako prestatua izango zen. Edozein trajeriaren bukaeran kantatzeko moduko otoitza da, *Clovis* pastoralarekin lotura berezirik ez duena.

Musée Basque n° 20 [C]. Cahier sans couverture; papier vergé 305 sur 205 mm.; 19 feuillets à 2 colonnes. Noms de interlocuteurs eta didascalies écrits à l'encre rouge. Complet; environ 800 versets. XVIII<sup>e</sup> siècle.

Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian (aurrerantzean BMBBa) Campan-Latsague deitu bildumakoa da eskuizkribu hau, 1926an, beste hainbatekin batera, Erakustokiko liburutegiari eginiko emaitza. Goian kopiatu dugun aipuan Hérellek XVIII. mendekoa dela dio, baina inolako dataren aipamenik ez du eskuizkribuak berak. Barruko orriak oro har nahiko egoera onean baldin badaude ere, lehenengo bi orriek eta azkenak zati bana falta dute; goienean eta gainerakoan ere bada pipiak egindako zulorik. Hérelleren deskripzioan aipatzen den bezala, 19 orri ditu guztira (1etik 19ra orrika zenbakituta), eta tinta gorritz idatzita daude pertsonaien izenak eta testu oharra. Lehen eta azken peredikua (azken hori amaitu gabe) eta testu osoa jasotzen ditu eskuizkribuak; gure kontuen arabera: LP 77 ahapaldi, trajeria 692 ahapaldi eta AP 11 ahapaldi. Guztira, beraz, bi zutabetan idatzitako 780 ahapaldi. Dena dela, esan bezala, azken peredikua amaitu gabe dago. Ez dirudi eskuizkribuak orririk falta duenik, baina kopiaturik dagoen azken peredikuko azkenengo ahapaldiak bi lerro bakarrik ditu eta argi ikusten da kontaktaren laburpena ez dela horretan bukatzen.<sup>28</sup> Bi lerroko ahapaldi hori eta horren aurrekoa, gainera, marraz erdi ezabatuta daude.

Gehiegi aztertu ez baldin badugu ere, badu eskuizkribu honek beste be-reizgarri bat ere: errima bertsolerro bikoitietan bakarrik eman beharrean, ba-dirudi bertsolerro guztietan egiten saiatzen dela, batzuetan oso pobrea izanik

<sup>27</sup> Emanaldiaren bukaeran Jainkoa laudatzeko kantatu ohi ziren horrelako otoitzak. Hérellek berak ere horixe aipatzen du kantuaren ondoan ezarritako oharrean: “C’est peut-être un chant *final*. Cela arrive souvent, on l’a fait à Licq lors qu’on a joué *Jean de Calais*. Ce chant (pour remercier Dieu) se chante avant le ‘dernier sermon’”.

<sup>28</sup> “Aurelianus ordian / jouaitera herabe cian”. Horrela bukatzen da eskuizkribua. Ikusten den bezala, ahapaldia bukatu gabe dago eta kontaktan ere oraindik Aurelianus ez da Agabundusengana joan Clotillisen eskua eskatzera; beraz, jokatutakoaren laburpena ez da bukatu.

ere. Hona, adibide modura, adierazgarri diren lehen peredikuko 7. eta 9. ahapaldiak:

Bata beçain erregue cen bestia,  
ceren beiccen by anajen phartia,  
bena Agabondusec eraguin desordria  
eta erho eracy bere anaia.

Clotillis ere han cen ordian  
bere aita amen presentcian,  
houra conservatu urhan cian  
bestiac hileracy cutienian.

Eskuizkribuarekin batera bada Hérelleren eskuz idatzitako ohar bat honako hau dioena: “Cette pièce n’a aucun rapport avec l’autre pastorale intitulée *L’Histoire de Clovis*”. Hérellek (1928, 128) eskuizkribu hau beste guztien-gandik bereizita aipatzen du; “Baptême de Clovis” izeneko atalean sartzen du eskuizkribu hau bereizi, eta “Histoire de Clovis” izenekoan besteak. Gai honi beheratxoago helduko diogu.

Bordeaux n° 3 [A]. Feuillet 1-16. Cahier sans couverture; papier vergé 255 sur 190 mm.; 16 feuillets à 2 colonnes. Rédaction abrégée. Complet; 580 versets comptés par le copiste. Copie daté de 1770 (À partir du f° 17 commence *St Julien d’Antioche*).

Bordeleko Udal liburutegian (aurrerantzean BMBo) 1695 zenbakia dararamaten eskuizkribuek osatzen dute Zuberoako pastoralen bilduma, eta bilduma horretan III zenbakia darama orain aipatuko dugun eskuizkribuak. Guztira bi zutabetara idatzitako 51 orri dira, orrika zenbakituak. Guzti horietatik lehenengo 16 orriak dira *Clovis* pastoralari dagozkionak<sup>29</sup> eta gainerako guztiak *Sji* dagozkio. *SJ* pastoralari dagokin zatian ez bezala, lehenengo 16 orrietan, zutabeka, ahapaldiak zenbatu ditu kopiatzaileak; orrialde bakoitzean, ezkerreko eta eskuinteko zutabeen azpian,<sup>30</sup> unean uneko ahapaldi kopuru osoa zehazten du. Dena dela, badirudi azken zenbaketa osoa ez dela zehatza; bukaeran “total 580 vers” dio 16. orriaren atzealdean, baina orrialde horretan hiru ahapaldi besterik ez

<sup>29</sup> XVIII. mendeko beste pastoral batzuen eskuizkribuekin batera argitaratu du P. Urkizuk zati hori (2007, 416-464).

<sup>30</sup> Hainbat orrialdetan zutabe biak batera zenbatu ditu, baina gehienetan zutabe bakoitzaren azpian zehazten du ordura arteko kopurua.

daude eta aurreko zenbaketan (aurreko orrialdearen barrenean) 567 dio. Guk guztira 567 ahapaldi kopiatu ditugu transkripzioan.<sup>31</sup>

Gorago ikusi dugun bezala, honen kopia zuzena zen Stempfek egindakoa, eta kopia haren kopia, berriz, Irigarayk egindakoak. Irigarayk egindako itzulpena ere eskuizkribu honetako testuarena da.

Eskuizkribu honek idatzita duen lehenengo orrialdean pertsonaien zerrenda eta bakoitzari dagokion ahapaldi kopurua dator: “Les compagnies, ou il seront aussy marqués les doubles emplois,<sup>32</sup> sont cy bas nomez et joint avec leurs autres parties”. Horren guztiaren azpian, zati bat falta duela,<sup>33</sup> eta, beraz, osorik irakurri ezin dela, dator ex librisa:

Simon Dalchurut  
[Charritte] de Bas[...]  
[...] janvier 1770.

Eskuizkribu honen kopiatzaile edo moldatzaileari buruz beste leku batean aritu garenez (ik. 2003-2004, 472-476) ez dugu hemen luze jardungo, baina aipatu bai aipatuko ditugu eskuizkribuan, Simon D’Alchurritez gain, azaltzen diren beste izenak. 16. orrialdearen atzealdean, *Clovis* pastoralaren bukaeran, elkarren gainean idatzita datoz Simon D’Alchurrit eta Etchebarne Bernard. Hau da, *Simon* utzi eta *D’Alchurrit*-en gainean *Etchebarne* eta ondoren *Bernard* idatzi du azken honek. Urkizuk (2007) egin duen argitalpenean Bernard Etchebarne bakarrik aipatzen da, baina guri ez zaigu erabat zuzena iruditzen. Aurreko lanean aipatu genuen bezala, iruditzen zaigu Alchurruten kopiaren jabe egin zela Etchebarne. Eskuizkribu honetako 51. orriaren atzealdean azaltzen den Jacques Oyhenart ere, urte batzuk geroago, eskuizkribuaren jabe izan zen.<sup>34</sup>

Badu eskuizkribu honek aipatu nahiko genukeen beste gauza berezi bat ere. 11. orriaren atzealdeko 4. ahapalditik aurrerakoa eta 12. orria oso

<sup>31</sup> Urkizuren (2007, 416-464) transkripzioan ere 567 ahapaldi dira.

<sup>32</sup> Goian ikusi dugu Irigarayk bere kopian eta itzulpenean *Clovis* pastoralari dagokion pertsonaiak bakarrik kopiatu zituela.

<sup>33</sup> Horixe da, hain justu, eskuizkribuan zatia falta duen orri bakarra.

<sup>34</sup> Eskuizkribuak eskuz esku nola pasatzen ziren maiz aipatu izan da eta ziur aski azterketa egokia merezi duen gaia da. Goian aipatu dugun Fr. Michelen alearen istorioa ere antzekoa da, nahiz eta ale horrek ez duen jabeen izenen arrastorik gorde. Eskuizkribuen artean dauden kutsatzeak ere (batetik bestera kopiatutako zati osoak) errazago azaltzen dira horrela. *S*jen gure edizioan erakutsi genuen bezala, horrela baliatu zuen J. Oihenart pastoralgileak *S*/ pastoralara Savoiaiko Zelestinarena idaztean (ik. Loidi 2004, 13-15).

osorik, gainontzeko testutik ezberdina den letrakera batekin idatzia dago. Loidi 2004 lanean *SJ* pastorealean azaltzen diren esku edo letrakera ezberdinei buruz jardun genuenean ere, aipatu genuen ez dela erraza esaten beste esku bat den zati hori idatzi duena, ala, besterik gabe idaztaldi axolagabea goa edo narrasagoa den. *SJ* pastoralari dagokion zatian, guztira, letrakera nagusiaz gain, bost zati ezberdin bereizi genituen. Horietan guztietan C ize-nez izendatu genuenaren berdina iruditzen zaigu aipatzen ari garen zati honetakoa. Oro har eskuizkribu honetako testua oso irakurterraza bada ere, zati honetako letra da arazo gehien ematen duena; bereziak dira, esaterako, hitz hasieretako *e* larria eta zenbait *r*.<sup>35</sup>

Ale honi dagozkion kontuak oraingoz bukatzeko, testuaren osotasunari dagokion ohartxo bat egin nahiko genuke. Zalantzarik ez dago pastoral oso bat dela, hasi eta bukatu, eskuizkribu honek lehenengo 16 orrietan jasotzen duena. Hala ere, badirudi testu luzeago baten laburpen edo moldaketa izan litekeela. Testu hau, prestatu ere, *SJ* pastoralarekin batera, emanaldi berean emateko prestatu zen, eta, beraz, bigarren zati hori luzeegi gera ez zedin laburtua dirudi. Ez du gainera sataneriei dagokien zatirik ere. Goian Hérelleren deskripzioan ere ikusi dugu “Rédaction abrégée” aipatzen duela.<sup>36</sup> Dena den, aipatzen ari garen eskuizkribuek elkarrekin duten harremana aztertzen hasten garenean itzuliko gara kontu honetara.

Dr. Larrieu [B]. Cahier sans couverture; papier vergé, 175 sur 100mm. Complet. XVIII<sup>e</sup> siècle.

Eskuizkribu hau da, guk ezagutzen ditugunen artean, gaur egun ere bilduma pribatu batean gordetzen den *Clovis* pastoralaren ale bakarra. Orain arte ikusi dugun bezala, Hérelleren garaian bilduma pribatuetan ziren beste eskuizkribuetako batzuk gaur egun edonorentzat irekita dauden liburutegietan

<sup>35</sup> Gure transkripzioarekin gehiegi erkatu ez baldin badugu ere, iruditzen zaigu zati hori izan dela Urkizuri (2007) ere lan gehien eman diona; guk *socori* ('sokorri') eta *socoriçaliac* irakurtzen dugun lekuan, esaterako, *suri* eta *surizaliak* dakar 413 eta 417. ahapaldietan; eta, beste bakar bat aipatzeagatik, 435. ahapaldiaren gure irakurketa eta Urkizurena jarriko ditugu parez pare, gurea ezkerretara eta Urkizurena eskuinetara:

Hulent ady, fripoua,  
eta colpu houni gog[o]ua eman;  
ciek socori neçacie,  
Apolom eta Barلمان.

Huilen adi, fripua,  
eta kolpu surini (?) gogua eman,  
ziek sokorri nuzie  
Apolon eta Barلمان.

<sup>36</sup> Ik. BMBa 51ri dagokion atalean horri buruz ezarri dugun Hérelleren oharra.

dira. Eskuizkribua oso egoera onean dago, txukun koadernatua.<sup>37</sup> Guztira zutabe bakarrean idatzitako zenbakitu gabeko 168 orri dira. Testua ere oso txukun kopiatua dago eta didaskaliak kopiatzerakoan ere kontu handia izan dela ikusten da: pertsonaien lehenengo agerraldiak, adibidez, gurutze batez markaturik daude, aurrean zenbaki bat dutela, 1 eta 2 zenbakia daramaten Clovis eta Aurelianekin hasi eta 42. zenbakia daraman Arcadierekin buka. Testuko oharrek, gainera, G, D edo M letra larri bat dute alboan, oholtzara ateratzeko edo ezkutatzeko aldea adieraziz.<sup>38</sup> Tarteke, gainera, zenbait eszena jokatzeko arizaleek oholta gainean hartu beharreko lekua adierazten duten irudi antzekoak ditu. Aberatsa eta argia da, beraz, oholta gaineko mugimenduak eta abar adierazten.

Orrialde guztietan, zutabe bakoitzaren barrenean ahapaldien zenbaketa ematen da eta bukaeran guztira 1460 ahapaldi zenbatzen ditu (kenketa batean 1508ri ezabatutako 48 kendu ondoren lortzen den emaitza). Guk testu nagusian 1405 ahapaldi zenbatu ditugu; beraz, lehen peredikuko 80 eta azken peredikuko 21ekin batuta, guztira, 1506, marraz ezabatuta daudenak barne. Ahapaldien zenbaketaren ondoren dator kopiatzailearen izena: J.C. D'Etchebers.<sup>39</sup> Hurrengo orrialdearen hasieran, "Lun. 13 may 1799 ont joué cette piece par les citoyens et citoyennes cy bas nommes" pertsonaien zerrenda, parean paper bakoitza jokatuko duen aktorearen izena duela (guztira 25 arizale). Ez da oso ohikoa pertsonaien zerrendetan aktoreen izenak ematea, Hérellek ere aipatzen duenez,<sup>40</sup> guk geuk *Clovisen* zerrenda honetaz gain garai bertsukoa (1793koa) den *Edipa* pastoralekoa bakarrik ezagutzen dugu.<sup>41</sup> Are ez ohikoagoa da zerrendan ikusten denez arizaleak gizonetako eta emakumezkoak izatea, denak nahasi.<sup>42</sup> Kontu hori

<sup>37</sup> Goian aipatu dugunez Hérellek "cahier sans couverture" dioen arren, geroztik koadernatua dago.

<sup>38</sup> Badirudi G[anche], D[roite] eta M[ilieu] adierazteko ezarriak direla. Esaterako "Hermitte jalquy eta belharica"-ren ondoan *M* dago, "Aurelian eta Clovis jalquy"-ren ondoan *G*, "Molier eta Sigebert jalquy" *D*; bada, hala ere, Clovis-en ondoan azaltzen den *D*-rik ere.

<sup>39</sup> Fr. Michelek (Oihenart 1847, LXIX) *J.C. d'Etchebery* kopiatzen du.

<sup>40</sup> "Ces listes ne nous apprennent rien sur les acteurs eux-mêmes; car, en réalité, les noms qu'elles donnent ne sont pas ceux des acteurs, ce sont seulement ceux des personnages de la pièce" (Hérelle 1923, 41).

<sup>41</sup> Ik. Bilbao 1996, 252. Zerrendan pertsonaiak eta aktoreak ez datoz elkarren parean. Aktoreen zerrenda hasieran dago eta pertsonaiena, berriz, bukaeran.

<sup>42</sup> Goian ikusi dugunez, Fr. Michelek (*ib.* LXIX) zerrenda hori osorik kopiatu zuen. Hérellek ere (1910, 16-17) jasotzen du, Fr. Michelen zerrenda aipatuaz, nola Clotilda eta Florindaren rola jokatu zutenak bi emakume izan ziren eta gizonetakoak jokatu zituztenak, berriz, gizonak. Aipuan eskuizkribuan azaltzen diren iraultza garaiko "citoyenne" eta "citoyen" izendapenak erabiltzen ditu. Ik. Hérelle 1923, 35 ere.

ere nahiko arrotza da pastoraletan,<sup>43</sup> aro modernora arte emakume arropaz jantzitako gizonak egin izan baitituzte emakumezkoen paperak; badira, bestela, emakumeek bakarrik egindako lanak ere.<sup>44</sup>

Cl. D'Andurain [H]. Cahier sans couverture; papier quadrillé, 200 sur 150 mm.; 167 feuillets à une colonne. XIX<sup>e</sup> siècle.

Eskuizkribua gaur egun Baionako Erakustokiko Liburutegian, 29 zenbakiarekin gordetzen da. Clément D'Andurain idazle euskaltzalea hil zenean,<sup>45</sup> haren arrebak, Malartic-eko Bizkontesak, gorde zituen eskuizkribuak eta, ondoren, 1935ean Baionako Euskal Erakustokiari eman zizkion.

Kopia nork egina den ez dakigu, baina zerbaitegatik jarri dugu hau ere leku honetan. Argi eta garbi Larrieu medikuaren bildumako eskuizkribuaren kopia da ale hau, itxura guztien arabera XIX. mendearen azken aldekoa, nahiz eta dakarren data bakarra jatorrizko testutik kopiatua den: “J.C. d'Etchebers (représentée le 13 mai 1799)”. Kopia egin duenak hori ere zintzo-zintzo kopiatu du, gainerako xehetasun guztiak bezala. Goian didaskaliei buruz esan duguna eskuizkribu honetan ere berdin-berdin kopiatua dago eta jatorrizko alean marraturik dauden ahapaldiak hemen ere kopiatu eta marraz ezabatu dira. Kopiatzaileak, azkenengo orrialdean, ahapaldien zenbaketa osoa ematean, ez ditu marratutakoak zenbatu: “1460 vers, sans ceux qui sont rayés”. Guztira, zutabe bakarrean idatzitako eta zenbakitu gabeko 167 orri laukidun ditu; zenbakituta daudenak orri horiek multzoka osatzen dituzten 14 pleguak dira.

### **Eskuizkribuen arteko harremanak: bertsioak, aldaerak eta kopiak**


Gaur egun ezagutzen ditugun eskuizkribu guztien aurkezpena egin ondoren, beraz, horiek guztiek elkarren artean duten erlazioa argitzen saiatuko

<sup>43</sup> Agian, pastoral hau jokatu zen Frantziako Iraultzaren garaian bederen, arruntagoa izan zitekeen aktoreen artean gizonetzko eta emakumezkoek nahasi parte hartzea. Dirudienez, oso arrunta izan ez zena garai hartan, ez behintzat hasierako urteetan, erregeei buruzko pastoralak jokatzeko izan zen. Hérellek (1910, 11) dioenez iraultzaren hasierako urteetako etsaikeria politikoak goxatuz joan ziren eta 1798an *Godofredo Bouillongoa* eta hurrengo urtean *Clovis* jokatu ziren.

<sup>44</sup> Hona Hérellek (1923, 149) aipatzen dituenak: “Les seules pièces jouées par les filles dans les 18 représentations connues sont: *Hélène de Constantinople*, 9 fois; *Geneviève de Brabant*, 3 fois; *Sainte Engrâce*, 2 fois; *Sainte Marguerite*, 1 fois.”

<sup>45</sup> Gerla Handian, Verduneko bataila ezagunean hil zen, gazterik, Clément D'Andurain idazle zuberotarra. Euskaltzalea eta langile handia izan zen, Euskaltzaleen Biltzarreko kide zen eta *Üskaldunak Ibañetan* izeneko pasterala idatzi eta argitaratu zuen Justin de Menditterekin batera 1906an.

gara. Izan ere goian ale batzuen inguruan esan dugu beste zeinen kopia diren, baina bada hori baino gehiago ere. Ahalik eta argien emate aldera, goian aipatu ditugun guztiak eskema batean irudikatzetik hasiko gara:



Goiko irudian ikusten denez, beraz, *Clovis* pastoralaren hiru bertsio nagusi eta ezberdin daudela esan dezakegu. Hiru bertsio horiek V. eta VI. mendeen artean Frantziako lehenengo errege kristaua izan zen Clovisen historia kontatzen digute modu batera edo bestera, historia bera izanik, pasarte batzuetan antz gehiago eta besteetan gutxiago dutela. Guztietan kontatzen da Clovisek Clotildarekin ezkontzeko duen gogo, konbertitzeko Clotildaren eskaria eta Clovisen hasierako ukoa. Guztietan San Remi Reimseko artzapezpikua da Clovis bataiatzen duena. Beherago ikusiko dugunez, mirari batzuk ere errepikatzen dira bertsio ezberdinetan.

Istoria beraren hiru bertsio direla esan dezakegu eta horietako bertsio bategi, ezagutzen ez dugun X eskuizkribuan jatorria duenak, bi aldaera nagusi eta aldaera horien hainbat kopia dituela. Goiko ataletan adierazi dugun bezala, Parisen gordetzen den L. Irigarayren kopiak (F) garbi esaten du BMBBo-ko (A) eskuizkribuari Stempfek egindako kopiaren (E) kopia dela, eta Cl. d'Andurainen



bildumako eskuizkribuak (H) ere ez du iruzkin handirik behar kontu horretan: hitzez hitz eta xehetasun guztietan Larrieuren bildumako (B) jatorrizkoarekin bat dator (ezabatutako ahapaldiak ere jatorrizkoan bezala marratuta daude). Ez gara, beraz, kontu horretan gehiago luzatuko, eta geratzen zaizkigun lau aleen arteko erlazioetan sakonduko dugu gehiago datozen lerroetan.

Eskeman jarri dugun bezala, bertsio beraren aldaera dira Bordeleko alea (A) eta Larrieu bildumakoa (B). Orain arte emandako datuekin nekez pentsa liteke A alea bestearen kopia denik, izan ere, ikusi dugun bezala, 1770ekoa da A eta 1799koa B. Kontrakoa, ordea, teoriarik ez da ezinezkoa, alegia, B izatea Aren kopia osatua eta luzatua (gogora 567 ahapaldi bakarrik dituela Ak, eta Bren testu nagusiak, berriz, 1405). Guk, ordea, uste dugu oso zaila dela aukera hori ere eta horixe azaltzen saiatuko gara. Ez da erraza testuak aurrez aurre eman gabe hori guztia azaltzea eta ez dugu lan honetan testuak sartzeko leku handirik, baina ahalik eta argien azaltzen saiatuko gara: A alean 567 ahapaldietan kontatzen denak 570 bat ahapaldi hartzen ditu Bn, baina bi zati horietan guztira 400 bat ahapaldi dira berdinarik. Alegia, berez laburragoa den eskuizkribuan pasarte batzuk bestean baino luzeago dira eta alderantziz. Guztira Bn ez dauden 168 ahapaldi daude An, eta An ez dauden 170 daude Bn. Trajeriaren hasiera, adibidez, adierazgarria da; bietan berdina den lehenengo ahapaldia Ako 11.a eta Bko 39.a dira:

- A 11 Aurelian, princessa haren berry  
 çucq behar deitaçu jakin  
 eta lehen beno lehen  
 deligenta eguin.
- B 39 Eta princessa haren berry  
 çuq behar deitaçu jaquin,  
 eta lehen beno lehen  
 deligentcia eguin.

Ahapaldi horren aurrekoa moldatzaile bakoitzak bere modura eman du; laburrago Akoa eta luzeago Bkoa. Oso argigarria da aipatuko dugun aurre-ragoko pasartearen: Clovis kristauaren eta Jule aleman paganoaren arteko elkarrizketan, A 443 eta B 457 dira berdinarik diren azken biak:

- A 443 Bena behar duq bestela  
 jouan beste horieky,  
 habororiq bicitcia  
 mundian eztuq merechy.

B 457 Bena behar duq bestela  
 jouan beste horiequy,  
 habororiq bicitcia  
 mundian eztuq merechy.

Ikusten denez, Clovisen mehatxuzko hitzak dira, eta mehatxu horren aurrean, hurrengo zortzi ahapaldietan Juleren konbertitzea eta bien adiskidantza dator An. Bn, berriz, oso bestelakoa da jarraipena; ahapaldi bakar batean konbertitzeari uko egiten dio Julek eta horrek bien arteko bataila eta Juleren heriotza ekarri du. Bigarren eskuizkribu horretan, satanen agerraldia dator jarraian, 461-473 ahapaldietan, eta atzera berriz A 452 eta B 474tik aurrerako pasarte berdina da eskuizkribu bietan. Ikusten denez, jatorrian testu bera izanik ere hainbat pasartetan bide ezberdinak hartu dituzte moldatzaile biek eta batzuetan istorioa bera ere aldatzen da. A eskuizkribuaren bukaera, Clovisen bataioaren ondoren dator, *Te Deuma* kantatu ondoren; hiru lis loreak ekarri ditu Gabriel aingeruak, eta, Frantziako errege guztien marka izango den lore hirukoitzak zer adierazten duen azalduta, Jainkoa goratuz bukatzen da trajeria. B eskuizkribuan ere pasarte hori nahiko antzekoa da, baina, bataiatu eta *Te Deuma* kantatu ondoren (kantua bera ere kopiatua dator, A eskuizkribuan ez bezala), Bulgifer eta Satanen bost ahapaldiko eten bat dago. Satanerriaren ondoren dator lis lorearen pasarte.

576. ahapalditik aurrera ia beste mila ahapaldi ditu B eskuizkribuak. Behan, beste eskuizkribuekin antzeko duena aipatzeko, ondo etorriko zaigunez, hona, labur esanda, amaierara arte kontatzen duena: Clovis eta Alariq-en arteko gerrak; Clovisen eritasuna eta San Severinen miraria; Severinen ehorzketa; Clovisen heriotza eta hiletak;<sup>46</sup> Clotildaren eliza eraikitze ahalegina eta igel-tseroei ardoa emateko egindako miraria; Clotildaren heriotza semeen aurrean; hil ondoko mirariak, itsua eta elbarria sendatuz; Clotildaren hiletak;<sup>47</sup> tartetan eta bukaeran, zenbait sataneria (goian ere aipatu dugu Ak ez duela sataneriarik). Gainera dituen mila ahapaldi horiek ikusita bakarrik ere nekez egiten zaigu B Aren kopia dela pentsatzea. Beste guztia erabat berdina balitz ere, moldatzaileak berak sortuak beharko lukete gainerako horiek guztiak eta

---

<sup>46</sup> Eskuizkribu honi dagokion atalean aipatu dugu oholta gainera mugimendu eta antolaketa berri oso zehatza ematen duela; Clovisen heriotzaren ondoren, esaterako, horrelako irudikapen bat dator. 1223. ahapaldiaren ondoren, Clovisen gorpua irudikatuz lauki luze handi bat dago, haren aurrean San Remi (erdian), eta ezker-eskuin gainerako pertsonaia guztiak zerrendaturik daudela: Gabriel eta Raphael aingeruak aurrean alde banatara, Florinda eta Clotilda bigarren, alde banatara hauek ere, eta jarraian beste guztiak.

<sup>47</sup> Clovisenaren antzeko irudia dago Clotildarentzat 1390. ahapaldiaren ondoren.

ez dugu esango hori ezinezkoa denik, baina bai jatorrizkoa A ez den beste batek behar duela izan. Goian esan dugun bezala argi dago A luzeagoa den eredu batetik kopiatu eta moldatua dela, besteak beste sataneriak ezabatuaz. Ez zaigu iruditzen, beraz, Bren iturburu izan zitekeenik. Bientzat jatorrian beste bat pentsatzea, berriz, erabat zilegi iruditzen zaigu. Jatorrizko horretatik, esan bezala, 400 bat ahapaldi berdin gorde dituzte biek eta bakoitzak bere modura moldatu eta aldatu ditu beste batzuk.

Beste bi eskuizkribuetan kontatzen dena, istorio bera izanik ere, beste modu batera kontatua da. C eskuizkribua, A bezala, Clovisen bataioarekin bukatzen da eta, ordura arte, baditu beste bertsioekin bat datozen hainbat pasarte, ezberdin kontatuak badira ere: A eta Bn bezala, Clovisek Clotildarengana bere asmoen berri ematera bidaltzen duenean Aurelian, hau pobre jantzian joaten da beste pobre batzuekin nahasi; bertsio bietan Aurelianek muin ematen dio eskuan Clotildari eta horri esker lortzen du harekin hitz egitea. Clovis eta Clotildaren lehenengo haur jaio berriaren heriotzaren berri ere, Dn ez beste bertsio bietan ematen da eta Clovisek, artean konbertitu ez denak, Clotildaren fedeari botatzen dio errua. Clovisen bataioaren kontaktetan ere bertsio bi horietan (A, B eta C eskuizkribuetan) uso bat da bataiatzeko olio sakratua *fiola* edo *empola* batean dakarrena. C eskuizkribuan hasieratik berezien gertatzen direnak hainbat pertsonaiaren izenak dira: beste guztietan Clotilda dena Clotillis da Cn; Clovisen kontseilaria den Aurelian, berriz, Aurelianus da eskuizkribu honetan; Clotildari Clovisekin ezkontzeko baimena ematen diona, Gundebant osaba da A eta Bn, Agabondus osaba Cn eta Gothumar neba Dn.

D eskuizkribuan, berriz, badirudi Clovis konbertitzea eta Clotildarekin ezkontzea bigarren mailan geratzen dela<sup>48</sup> eta pisu handiagoa dutela batzuen eta besteen arteko gerrek eta Clotildaren eta Martinian hermitainaren mirariak. Clotildak, aingeruak ekarritako makilatxoaren laguntzarekin, iturritik igeltseroentzako ardoa isurtzea lortu du. Martinianek, berriz, baditu hiru mirari gutxienez: Anael aingeruaren bitartez kartzelalditik ihes egin du (uso batek eman dio jaten han izan den artean ere), burua moztuta hil ondoren artzainari agertu eta hitz egin dio eta, artzainak Pariserraino eraman ahal izan dezan, haren ardientzat harripetik ura ateratzea lortu du.

Bertsio ezberdinak direla esan dugu, baina oro har istorio bera kontatzen dutela denek; horregatik, ezberdin kontatu arren, hainbat pasadizotan bat eginguten dute eskuizkribuek. Horrela gertatzen da C eta D eskuizkribuetan, gaixo-

---

<sup>48</sup> Clovis pertsonaia bera ere 364. ahapaldiaren aurretik ez da agertu ere egiten.

tasunak sendatzeko milaka haurren odoletan bainatzea erremediotzat aipatzen denean. Hogei mila haur dira D eskuizkribuan eta bertako pertsonaia diren Gundiochus eta Gothumarren gaitza sendatzeko erremedio bezala aipatzen da; C eskuizkribuan, berriz, hiru mila dira hil beharreko haurrak eta Konstantinoplako enperadorearen legena sendatzeko erremedio bezala proposatu zela kontatzen du San Remik. Goian aipatu dugun Clotildaren miraria ere B eta D eskuizkribuetan dator: bietan langileak haserre dira ardorik gabe lan egin behar dutelako eta Clotildak, iturritik batean (B) eta haitzetik bestean (D), ardoa ateratzea lortu du.

Ez dugu oraingoz lan hauen iturrien bila saio handiegirik egin<sup>49</sup> eta lan honetan, gainera, leku faltaz, ez dugu horretaz jardungo, baina ezberdintasunen jatorria erabilitako iturrietan izango da neurri batean; besteak beste, pertsonaien izenetan dagoen aldea ere hortik etor liteke. Goian, pertsonaia nagusien izenetan dagoen aldea bakarrik aipatu dugu, eta batez ere izen beraren aldaerak dira aipatutakoak, baina bigarren mailako pertsonaien izenak ere ezberdinak dira batzuetan bertsio batetik bestera.

Ikusitakoak ikusita, beraz, goian egin dugun stemmari eutsiko genioke guk eta ez guke Hérellek egiten duen moduan, C eskuizkribua bereziko. Bereiztekotan, badirudi Bussonen testua (D) dela ezberdinagoa, baina ikusi dugun bezala horrek ere istorio bera du oinarrian eta hainbat pasadizotan bat egiten du beste bertsioekin. Urkizuk (2007, 80-81) berriki egin duen bereizketa ere ez zaigu egokia iruditzen; bertan, gaizki ulertu ez badugu, Bordelekoa jartzen du alde batean (horren kopia diren Irigarayren bi kopiekin batera) eta beste biak (BMBa 20 eta Urkixorena) beste aldean (Larrieuren bildumakoa aipatu egiten badu ere, ez du horri buruzko iruzkinik egiten, eta Andurainena ez du aipatzen):

A [BMBBa 20] eta E [J. Urkixo] batetik eta B [Irigaray], C [Heguiaphal] eta D [BMBo 3]-k bestetik bi istorio ezberdin aurkezten dute, batek Klobisen bataiatzea eta kristautzea eta honen batailak infidelei besteak.

---

<sup>49</sup> Hérellek berak ere aipatzen duenez, G. Parisek argitaratutako *Les miracles de Nostre Dame*-n “Miracle de Clovis” atalean (VII. liburukia 194-277) kontatzen denak, eta batzuetan elkarrizketen itxurak berak ere bai, antz handia du A eta B eskuizkribuetako testuarekin, baina Clovisen bataioari dagokion pasartearekin bukatzen da hori ere, eta, esan dugunez, Bko testua askoz luzeagoa da. Gainera, C eskuizkribuaren iturria beste bat dela dirudien arren, badira han ere “Miracle de Clovis” deituarekin bat datozen xehetasunak: goian aipatu ditugun Aurelianeke Clotildari eskuan muin egitea eta olio sakratua uso batek ekartzea, esaterako. Iturrien azterketa zehatza ez da, beraz, kontu erraza.

Bukatzeko, eta eskuizkribuen arteko erlazioa ondo azaldua geratu delakoan, *Clovis* pastoralaren edizio egoki baten premiaren garrantzia aipatu nahiko genuke. Bat baino gehiago dira bertsio eta kopia ezberdinak dituzten XVIII eta XIX. mendeetako pastoralak<sup>50</sup> eta horietan guztietan euskal literaturako gainerako generoetan ez ohikoa den aberastasuna dagoela iruditzen zaigu. Gai beraren inguruan, eta askotan iturri bertsuak erabiliaz, idatzitako bertsio ezberdinak dira maiz, eta eskuizkribu zaharragoetatik egindako kopiak dira bestetan; testu kritikarako aberastasun handia, beraz. Horixe da *Clovis*-en kasuan ere gertatzen dena: hiru bertsio ezberdin jasotzen dituzten testuak ditugu alde batetik (X, C eta D) eta bertsio beraren aldaera direnak bestetik (A eta B maila batean eta horien kopia diren F eta H bestean). Aldaeretan ere, testu beraren bi kopia ezberdin aztertzeko aukera dugu batetik A eta Brekin; jatorrizkoa ezagutzen ez badugu ere bada lana bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertzen. Bestetik, berriz, A nahiz B jatorrizko direla, horietatik egin diren kopietara dagoen jauzia ere aztergai dago. Oraingoz ikusi ahal izan dugunagatik, H kopia oso fidela da B jatorrizkoarekiko; baina F izendatu dugun kopiaren hizkuntza aldaerek A jatorrizkoa idatzi zenetik mende bat eta gehiago igaro izanaren arrastoa erakusten digute. Aztergai bikaina, beraz, XVIII. mendetik XIX.aren amaierara<sup>51</sup> (ia XX. mendekoa da F kopia) zubererak izan duen aldaketa ikusteko.

Aldaerak, ezberdintasunak eta literatura balioa aztertu ahal izateko, beraz, eskuizkribu guztien berri ematen duen edizio egoki bat egitea beharrezko iruditzen zaigu eta lan horretan jarraituko dugu.

### Aipatutako bibliografia

Badé, J., 1843, “Un échantillon du théâtre populaire des basques”, *L’observateur des Pyrénées*, urriak 12, 13, 15, 22, 27, 29, Paue.

Bilbao, G., 1996, “Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa* pastorala (1793)”, *ASJU* XXX-1, 239-332, Donostia.

---

<sup>50</sup> Eskuizkribu ugari dituzten beste pastoral batzuen izenburuak aipatzeko *Le patriarche Abraham, Roland, Hélène de Constantinople* edo *Mustapha le Grand Turc* izenda ditzakegu hemen.

<sup>51</sup> F kopiatik A jatorrizkora, urteen tarteaz gain, badirudi E izena eman diogun Stempfén kopia ere tarteko dela. Hizkuntzazko aldaerez gainera, pentsa liteke, beraz, irakurketa okerrek eragindako aldaerak ere bikoiztuak izan litezkeela.

- Buchon, J.A.C., 1839, "Représentation d'un mystère dans le Pays Basque", *Mémorial des Pyrénées*, urriak 31 eta azaroak 2, Pau.
- D'Andurain, Cl., 1906, *Uskaldunak Ibañetan. Trajeria hirur phartetan*. Baiona.
- Hérelle, G., 1910, "Pastorales basques pendant la Révolution" *RIEVIV*, 5-17.
- , 1923, *La représentation des Pastorales à Sujets Tragiques*, Baiona.
- , 1926, "Une pastorale de l'an 1500", *RIEVXVII*, 17-19.
- , 1928, *Répertoire du théâtre tragique. Catalogue analytique*, Baiona.
- Léon, A., 1909, *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Étude historique et critique*, Paris.
- Loidi, A., 1996, "Santa Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi eskuizkribu", *ASJUXXX-2*, 497-603, Donostia.
- , 2004, "Antiokiako San Julianen Pastoral (1770)", *ASJUXXXVIII-1* (2004), 1-133, Donostia.
- Fr. Michel, 1847, *Histoire des races maudites*. Bi liburuki.
- , 1857, *Le Pays Basque*.
- Oihenart, A., 1847, *Proverbes basques*. Fr. Michelen edizioa.
- Oyharçabal, B., 1991, *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne*, *ASJU*-ren gehigarriak, XVI, Donostia.
- , 2004, "Place de Sainte Elisabeth de Portugal (1750) dans l'histoire des tragédies traditionnelles en langue basque", *Lapurdum IX*, 181-214.
- Saroihandy, J., 1927, *La pastorale de Roland*, Baiona.
- Segurola, K., 2002, "Jeanne D'Arc Pastoralaren Eskuizkribua: Le plus ancien connu?", *Lapurdum*, 7, 313-326.
- Urkizu, P., 1997, *Jundane Jakobe handiaren trageria*. Errenteriako Udala.
- , 2007, *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición*, UNED, Madrid.
- Vinson, J., 1883, *Le Folk-lore du Pays Basque*, Paris.
- , 1891, *Saint Julien d'Antioche, pastorale en langue basque publiée conformément à un manuscrit appartenant à la bibliothèque de la ville de Bordeaux*, Bordele.



# Martin Zalacain abenturazalea.

## Intertestualitatea Pirineotako literaturetan

LOURDES OTAEGI IMAZ

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordea

Martin Zalacainek ehun urte bete ditu 2009ean<sup>1</sup>. Gutako gehienok nera-be aroko irakurketek egin gaituzte barojazale eta Aingeru Epaltzak dioenez, liburuaren irakurle euskaldunek identifikazio azkar eta bizia sentitzen dugu liburuko paisaia eta pertsonaiekin, oso hurbilekoak zaizkigulako eleberri honetako leku eta egoerak. Haietako kantuak eta hizketa moduak geureak sentitzen ditugu, eta gainera, hain ezagunak zaizkigun lekuetan kokaturiko gertakariak adin berean irakurri ditugun Salgari, Verne, Jack London, Oliver Curwood, Walter Scott edo Mark Twainen liburuek sortzen ziguten lilura abenturazale bera sortu digute.

Zalacain ardatz hartuta eginiko azterketa intertestualak liburu hark abentura eleberri anglosaxoiekin duen harremana argitzera eramango gintuzke lehen urrats batean<sup>2</sup>. Arlo hori aski aztertua dagoenez, gure kasuan esparru murriztagoko intertestualitatearen berri emango dugu, Zalacainek Mendebaldeko Pirineotako abenturazaleekin duen harremana, alegia.

Jakina denez, Julia Kristevak (1978) hedarazi zuen intertestualitatearen kontzeptua Mikhail Bakhtinen teoria dialogikoaren testuinguruan finkatuz eta semiotikaren esparruan garatuz. Testu orok aurreko testuekiko elkarrizketan dihardu eta haiei “erantzuten” die, elkarrizketa batean bezala mintzatzen da haiekin eta berearen bidez entzunarazten du lehengoan ahotsa. Literaturaren teoriaren arloko ekarpen interesgarri honek, halere, adiera ezberdinak hartu ditu geroztik. Hortaz, Kristevak eman zion adieran, testuak beste testuen

---

<sup>1</sup> Askoren artean, *Pío Baroja: creación, conocimiento y vida* Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruña, 2007.

<sup>2</sup> Martínez Palacio, Javier (ed.): *Pío Baroja, el escritor y la crítica*, Taurus, Madrid, 1974. (Selección de artículos y estudios en torno a Baroja: Leon Felipe, Azorín, J. Uribe-Echevarria, Alfonso Reyes, C. J. Cela, J. Ortega y Gasset, Juan Benet, Birute Ciplijauskaite, Gonzalo Sobejano, José Alberich, etc.).



zatiak bilbatuz eraikitzen direnez, testu literario ororen oinarrian dagoen prozeduratzat jotzen da intertestualitatea eta egileak beste egileen testuen absortzio eta antzaldatze prozesua berritzen du beti, gehiago edo gutxiago. M. Riffaterrek aldiz, intertestualitatea irakurlearen ikuspuntutik harturik aztertu du, idazlan batek eta aurreko beste testuen artean nabaritzen duen harremanaren hautemate prozedura berritzen baitu irakurleak ere.

Genettek, berriz, “Palimpsestes” (1982) izeneko saioetan harreman transtestual ezberdinak bereizten ditu eta intertestualitatea horietako bat da soilik: “aldi berean aurkezten diren testuen kopresentzia, testu bat irakurtzean ezinbestez beste testu bat ere presente egonarazten duena”. Testuartekotasun horren agertze biderik arruntena aipamena da, komatxo eta guzti agertzen zaiguna ala komatxorik gabeko zehar apamen edo alusioa, zeina ulertu ahal izateko beharrezkoa den zeharka aipatzen den beste testua ezagutzea. Genettek transtestualitate mota hori izendatzeko darabilen termino tekniko zehatza da intertestualitatea eta honela definitzen du B testu batek (hipertestuak) lehenagoko beste testu A batekin (hipotestuekin) duen harremana. Bigarren mailako testua deritzo berriari, aurretiko batetik eratorria den testua delako eta haren hipotestu gisa eratzen delako.

Xehetasun handietan sartu gabe, abiapuntutzat har genezake, Genettek egiten duen moduan, intertestualitate orokorra eta aldebatekoa bereiz daitekeela. Generoarengatik, gaiarengatik edo azken zentzuarengatik aurretiko testu bati atxikiak diren bigarren mailako testuen eta haren jatorrizkoen arteko harremana da testuartekotasun orokorra. Adibidez, Sofoklesen “Antígona”ren aipamen zuzena eginez hasi zuen Gabriel García Marquezek bere “La Hojarasca” narrazioa eta testuaren ardatzaren gaia huraxe bera da: ehortzi gabe usteltzen utziz, komunitatearen aurka jokatu denari emandako hil ondoko zigorraren moralitatea. Aldebateko testuartekotasuna, aldiz, testu baten pasarte jakin batzuk aurreko beste testu batzuekin dituzten paralelotasunek osatzen dute, hala nola, pertsonaietan, ideia edota gai jakin batzuk darabiltzanean, edota lehendik beste pertsonaia batzuek erabilitakoak darabiltzanean, eta abar.

Kontzeptu honek irakurketaren teoria berria ekarri du eta gaur egun onartzen da irakurleak ez dituela beste gabe diskurtso literarioaren adierazia eta adierazlea elkartzen modu librean; zeren erreferenteeiko lotura mediatizatua baitago sarritan, Genettek hipotestu deitu duen beste testu batek zubi egiten duelarik adieraganaino iristeko. Idazleak adierazteko gogoak eraginda idazten du eta alde aurretik idatziriko testuen gainean idazten du nahitara ala oharkabean. Berez, horretaz dihardu Genetteren “palimpsesto” kontzeptuak ere: aurretik idatzirikoaren ondoan eta aldean idazten du idazleak eta horrek guztiak

mediatizatzen du bere testuaren irakurketa. Intertestualitate hori aipamenen edo zehar aipamenen bidez egiten da, barne elkarriketaren bidez, baina parodia edota ironiaren bidez ere bai, sarri. Testuaren originaltasunaren balorazio erromantikoaren absolututasuna zalantzan jartzen duen ikuspuntu berri honi esker, literaturaren teoria modernoan kritika eta historia klasikoan “iturriak” edo “eraginak” moduan aurkezten ziren harremanak, gaur egun harreman dialogikotzat interpretatzen dira eta eragin handia izan du aldaketa honek literaturaren teorian. Kritika literarioak ere diskurtsoaren analisiak egitean obraren gaien, egituraren, estiloan, erregistroan... arakatzen ditu harreman intertestual esanguratsuak, funtsezko direlako hura interpretatzeko, literatur mezuak literaturaren esparruan “irakurri” ahal izateko eta ez komunikazio arruntaren esparruan.

Genero bakoitzaren diskurtsoak intertestualitate orokor nabaria eraikitzen du, irakurle guztiek itxaropen atalaseak eraikitzen baitituzte generoak identifikatzerakoan. Horregatik, erraztasun osoz nabarmentzen du Barojaren Zalacainen irakurleak arestian aipaturiko XIX mendeko abentura liburu ingelesekin duen harreman generikoa. Abentura kontakizunen azpigeneroari eraxeitzen zaizkion itxaropen berak iradokitzen dizkio irakurleari, hark antzinateko bidaiari mitikoa den Odiseoren oihartzunak dakartzkion gisa berean. Aurrerago zehaztuko dugunez, *regressio ad infinitum* luzean baina ez batere ezkutukoan topa daitezke Barojak Itakako erregearen kontakizunari eginiko alusio intertestualak, Ricardo Senabre irakaslearen azterketa zehatzek garbi erakutsi zuten<sup>3</sup>.

Testuartekotasun generikoaren arloan, Barojak abentura generoaren estrukturari eta gaiari eutsi arren, estiloan eta erregistroan eragindako moldaketen poderioz, liburuaren alde heroikoak erlatibizatu egiten dira. Hala, protagonistak heroi baten zenbait traza hartzen baditu ere, erakusten du barne inkoherentziarik, badu irrazionala den jokamolde jolasti eta burugaberik, hezur haragizko gizakietatik hurbilago den pertsonaia bilakatzen duten ezaugarri erakargarriki humanoak. *Bildungsroman* erako formazio aroan dagoen pertsonaiaren ezaugarriak ere baditu Zalacainek eta bikoiztasun generiko berean kokatzen diren *Huckelberry Finn-en abenturak*-en kideko hurbila sumatzen dugu. Barojak egiten duen pertsonaia abenturazale eta heldugabearen absorzio intertestualak eraldaketa maitagarria hartzen du, gure oroimenean norta-

---

<sup>3</sup> *Zalacain el aventurero*-ren Espasa-Calpe-ren 1997ko edizioaren hitzaurrea non Francisco Rodríguez Adrados helenistaren aipamenak eginez frogatzen duen liburuak Ulisesi eginiko aipamen zuzen eta zeharkakoak.

sun iraunkorra irabaziz. Agian Mark Twain-ek bezala, bere idazlanari ez motibo jakinik, ez moralik eta ez korapilo egituraturik eman nahi izan ez ziola susma genezakeelako<sup>4</sup>.

*ZALACAIN EL AVENTURERO* (1909) izan zen Barojaren lehenengo arrakasta komertzial nabarmena eta 1926an egin zen bertsiio zinematografikoa, berak aktore gisa parte hartu zuelarik. Zalacainen fortunak harritu egi-ten zuen Baroja:

“Hay gentes del País Vasco que cuando pasan por algún sitio salvaje, abrupto, de la frontera, dicen: —“Por ahí andaría Zalacaín”. Es curioso que una novela mía, escrita en un par de meses, haya llegado a tener cierta influencia, que se haya comentado en la aldeas, y al mismo tiempo en la Sorbona de París, y que, en cambio, otros libros míos de más empeño no hayan podido conseguir ni lo uno ni lo otro”. (Pío Baroja, “La intuición y el estilo”, *Desde la última vuelta del camino*, en *Obras completas*, VII, Madrid, Biblioteca Nueva, 1978, 2ª ed., p. 1081).

Urbiako Martín Zalacainen bidez islatzen du egileak XIX mendeko aldaketa aro nahasiaren aurrean hartzen duen mundu ikuskera, akzioko gizonaren kosmobisioa, erdiz Barojak euskal herritarrez zuen pertzepzioaren proiektzioa dena, eta erdiz, bere zaletasun filosofikoen haurra dena. Nietzsche-ren bitalismo biologikoaren eragina garbia da Zalacainen: Bizitza modu intentso eta dinamikoz gozatzeak soilik merezi du. Barojarentzat bizitza salbaia da eta errealitatea kaos nabarmena, ez dago hori zuzenduko duenik. Bere eleberrietako logika aktantzialak ere kaosa, anabasa ematen du aditzera, horregatik ez da liburu honetako akzioaren norabideaz galdetzea zilegi, zurrumbiloa bera, aktibitate zentzugabe hori bera da ikusarazi nahi zaiguna ziurrenik. Bizitza bera, aktibitate, aldaketa eta mugimendua den neurrian absolutuaren adierazpenik garbiena da Barojarentzat, berezko balioa du eta hori da instintiboki sinesten duena Zalacainek: bere maila biologikoan, instintiboan eta irrazional-lean sinesten duen gauza bakarra da.

Barojak Zalacainen pertsonaia sortzean, erreferentzia literario hurbila Ramuncho izan bide zuen, Baroja literatura frantsesaren jarraitzaile baitzen eta

---

<sup>4</sup> Honako ohartarazpena egin zuen egileak liburuaren lehen edizioan (1885) PERSONS attempting to find a motive in this narrative will be prosecuted; persons attempting to find a moral in it will be banished; persons attempting to find a plot in it will be shot. BY ORDER OF THE AUTHOR. [Auzitara joko da narrazio honetan ziorik aurkitu nahi duen edonoren aurka; zigortua izango da juzku moralik aurkitu nahi duen edonor eta tiroz hila izango da korapilorik aurkitu nahi dion edonor. Egilearen aginduz]

bere liburutegia aztertzean, hainbeste irakurri zuen Lotiren eleberrietatik hamar ale aurkitu baitzituen Jose Alberich-ek, “La biblioteca de Pio Baroja” (1961) artikuluan dioenez. Argumentuek kide-tasunik dutenik ere ezin da ukatu, bereziki maitasun istorioari dagokionez. Barojak Ramuntxo ezagutzen zuen eta Ganix kontrabandista karlista ere bai ziurrenik, kantu, bertso edo kroniken bidez. Baina haiez guztiz bestelakoa egin zuen. Erreferentzia hurbilez ezagutzen zituen leku eta garaietan kokatu zuen. Izan ere, historia liburuez ongi hornitzeaz gain, bere aitak, Serafin Barojak 1876an idatzirik “Crónica de la guerra carlistas” izenekoez baliatu zen, Alberich-ek haren liburutegiko dokumentuak ikusita ondorioztatu zuenez.

Are gehiago diosku artxibategiko material horiez aztertuta, Serafin Barojaren kronika horiek antz handia dutela Baroja semeak liburua idazteko erabili zuen estiloarekin. Itzeako liburutegiko kronika haietan, “El Tiempo” egunkariaren txataletan Pio Barojak markatutako ohar topografikoak, estrategia, bataila eta borroken oharrak ikus daitezke, eta haien artean, paisaien eta ezagututako pertsonen deskripzioak oso modu atseginean kontatuak, xehetasunez eta freskotasunez adieraziak. Serafinen estiloan, tartekako zertzelada dramatikoek pizten dute arreta, eta kontakizuna, arina, mugitua eta interesgari bilakatzen dute, tarteka pertsonaia bitxiak, elkarriketak, txisteak eta kantuak sarrarazten dituelarik. Caro Barojaren iritziz, Piok aitaren kronika bitxi haiek eskuartean erabili zituen Zalacain idaztean, zeren gertakari guztiak Donostia eta Nafarroako mendebaldean eta Baiona artean gertatzen baitira, bai kroniketan eta bai eleberrian<sup>5</sup>.

Neurri handi batean Barojak Zalacainen pertsonaian proiektatu zuen bere haur ameskeria zenbait, “un sueño cándido y heroico, infantil y brutal”, zeinetan bere burua ikusten zuen karlista soldadu talde bateko buruzagi, errespetuz eta beldurrez hartua, herrietako neskatxen liluratzaile; herrian sartu, mendean hartu eta apaizarekin eta herriko jauntxoekin bazkaritan ibili ondoren, berriro ihesi alde egiten duena bere mutilekin<sup>6</sup>. Barojaren Zalacainek pikaro

<sup>5</sup> A.A.V.V. *Los Baroja, memoria y lección*, Kutxa, Impr. Itxaropena, Zarautz, 1998.

<sup>6</sup> Ikus “Los vascos” narrazioa in *Fantastías vascas*, 1945. Es un sueño guerrero, un sueño de hombre de selva. Yo me veo por los montes de Guipuzcoa o Navarra al frente de una partida, viviendo siempre en acecho, en una continua elasticidad de la voluntad, atacando, huyendo, escondiéndome entre las matas, haciendo marchas forzadas, incendiando el caserío enemigo. Yo me veo de cabecilla, con cuarenta o cincuenta hombres, entrando en la aldea a caballo, la boina sobre los ojos, el sable al cinto, mientras las campanas tocan en la iglesia ( ) Pienso en el placer de huir por los senderos húmedos, monte arriba, y en el placer de descansar en una borda, sobre una cama de hierba seca (10).

abenturazalea edota pertsonaia mota epiko bat zuen eredutzat, Ulises “azeria”, azkarkeria mota guztien egile zen heroi mitikoa. Abentura eleberri ingelesekin ez ezik, Odiseorekin ere identifikatzen du, zenbaitetan alusio edo zehar aipamenez, hala nola nerabegaroko basurdeen ehizaren pasadizoan bezala, eta beste batzuetan aipamen argiaz Bellarekin Estellan geratzen den denboran aipamen esplizittoa eginez, Zirzeren besoen erakarmenarekin alderatzen baitu, edo beti zain duen emaztegai leial Catalina, Peneloperen parekoa, zain utziz.

Ez zituen Barojak Zalacain eraikitzeke paradigma klasikoaren elementuak soilik erabili. Epikatik errealmorantz hurbiltzen duten urratsak ematen ditu, esaterako, hurbilenik zuen Pierre Lotiren hamabi urte lehenagoko Ramuntcho pertsoniarekin kideko zuen pobrea izatea, kontrabandoan aritzea bizibidetzat eta pelotari jokoan trebetasuna. Maitasunean, berriz, moja joandako neskatxa bat bahitzeko egitasmoak dituzte biek, maitasun ukatua. Alde askotatik ordea bi pertsonaien jarrerak oso ezberdinak dira, kontrabandoan Zalacainek askoz abentura gehiago jokatzeko dituzte esku artean. Halere, kontrabandisten lirikarik ez da agertzen liburu horietan, ez dago Santiago Aizarnak oroitzen duen Sergiusz Piasecki idazle poloniarren *El enamorado de la Osa Mayor*<sup>7</sup> eleberrian agertzen zituenak bezalako pasarte lirikoak: gau izarratuetan bide bakartuetan joatea eta bideari begira eginiko hausnarkeak, ezinezko ametsak trumilka heltzen direla bide errebueltetan... Zalacain bizitza afektibo murrizta duen pertsonaia da, guraso eta emaztearekin, justukoa, halere afektu iraunkorrek adierazten ditu: leial eta hitzekoa da Tellagorriekin eta Ubide kontrabando lagunarekin zer esanik ez. Gainerakoan, betizu da gizarte auzietan, ez du inor aintzakotzat hartzen eta ez du inoren beharrik, ez eskolarik, ez elizarik, ez gizarterik... Aingeru Epaltzak dioen moduan, Zalacain ez da haurrentzako eredu baten gisan sortua:

“El personaje de Zalacain no era como los de la mayoría de las novelas de aventuras que había leído hasta el momento. No era un héroe 100%. Era un personaje que a veces hacía cosas absurdas, como la de colocar un trapo en una muralla que defiende el enemigo por una apuesta de borrachos. No era el único aspecto que lo convertía en un tipo de poco fiar. Zalacain era un mercenario. Ideológicamente es liberal, pero se hace rico vendiendo armas y pertrechos a los carlistas. Por otra parte, tampoco se distingue por la fidelidad a su amada, y su

---

<sup>7</sup> 1935ean argitaratua. Piasecki narratzaile bizia eta oldartsua da, Wladek bere pertsonaia bezala “Vivíamos como reyes. Bebíamos vodka a chorros. Nos amaban muchachas hermosas. No reparábamos en gastos. Pagábamos con oro, plata y dólares. Lo pagábamos todo: el vodka y la música. El amor lo pagábamos con amor, y el odio con odio”.

propia muerte, ya en Arnegi, el último día de la guerra, tiene algo de grotesca. Un personaje con el que en suma, me resultaba imposible identificarme del todo. Y es que Baroja me está mostrando un héroe mucho más lastrado con todas las complejidades y las taras del alma humana”.

Zalacainek badu gainera bere jarrera ausart horren oinarri den ezaugarria, biziki garrantzitsua Barojaren zaletasun eta barne-barneko gurariak ezagutzen dituenarentzat<sup>8</sup>: Martinek jatorri noblea du, guztiz behartsu bizi bada ere, eta heroiei dagokien moduan, aitzinetik iragarria da haren destinoa. Iñaki Bazán-ek “La influencia de *Las Bienandanzas e Fortunas* de Lope de García de Salazar en la obra de Pío Baroja”<sup>9</sup> artikulua interesgarrian frogatzen du Pío Barojak XIX mende bukaerako idazle fueristek bezala Lope García de Salazar-en testuetan bilatu zuela sarritan antzinako euskal herriari buruzko informazioa eta oinarria:

“En lo que se refiere a Pío Baroja, hay que indicar que, paradójicamente, a pesar de su posicionamiento anticarlista, antibizkaitarra (comienzos del nacionalismo sabiniano), anticatólico, republicano radical y crítico con el fuerismo intransigente de corte tradicionalista y retrógrado, fue un entusiasta de la novela histórico-legendaria. En *Zalacaín el aventurero* se narran las andanzas de Martín Zalacaín que tienen como telón de fondo la segunda guerra carlista (1872-1876) y su enfrentamiento con Carlos Ohando. El protagonista comenzará valiéndose de la carlistada para dedicarse al contrabando y terminará ayudando a los liberales contra los partidarios del pretendiente don Carlos. En uno de los capítulos de la obra se recurrirá a la inestimable fuente de Lope García de Salazar. Concretamente en el libro primero, donde se habla de la infancia del héroe, se incluye un capítulo, el quinto, titulado: “*De cómo murió Martín López de Zalacaín, en el año de gracia de mil cuatrocientos y doce*”. Aquí Baroja nos introduce en la lucha de bandos de la Edad Media.”

Hain zuzen ere, Martín López de Zalacaín-i buruzko kronika bat aipatzen du herriko idazkariak liburaren lehen zatia bosgarren kapituluan:

“del cronista Iñigo Sánchez de Ezpeleta acerca de cómo fue vertida la primera sangre en la guerra de los linajes, en Urbía, entre el solar de Ohando y el de Zalacaín, y supone que estas luchas comenzaron en nuestra villa a fines del siglo xiv o a principios del xv”.

---

<sup>8</sup> Jose Guimónek idatzirik *Baroja en el diván, aproximación psicoanalítica a su vida y obra* (Eneida, Madrid, 2006) liburuan jaso dago Itzeako armarría eta bere familiaren iragan historikoa eta genealogia nahiz tituluak biltzeko egin zituen peskisak.

<sup>9</sup> Ikus [www.euskonews.com/0066zbbk/gaia6603es.html](http://www.euskonews.com/0066zbbk/gaia6603es.html)

Hitz horien ondoren erantsi zuen kronika alderatzen du Iñaki Bazanek Lope García de Salazar-en kronika historikoarekin eta antzekotasun nabariak aurkitzen ditu: López de Salazarrek aipaturiko izenen erabilera egiten du Barojak, zenbait datu aldatuz bada ere. Errealismoa ematearren, kronikaren transkripzio paleografiko bat ere moldatzen du, Ezpeletaren kronika apokrifoaren erdiaroko grafiaz idatziz. Honela jaso du Iñaki Bazanek, García de Salazarren kronikarekin alderaturiko atala:

“Enemistad antigua señalada avya entre el solar d’Ohando, que es del reino de Navarra, e el de Zalacain, que es en tierra de la Borte. E dicese que la causa della foe sobre envidia e a cual valia mas, e ficieron muchos malheficios e los de Zalacain quemaron vivo al senyor de Sant Pedro en una pelea que ovyeron en el llano del Somo e porque no dexo fijo el dicho senyor de Sant Pedro casaron una su fija con Martin Lopez de Zalacain, home muy andariego.”

Kronika horrek Zalacainen historian duen garrantzia guztiz aipagarria da. Kontakizun epikoetan ohi den legez, bost mende lehenagoko kronika horren bidez iradoki egiten baita Zalacaini berari gertatuko zaiona, hots, Ohando etxeko alabarekin ezkonduko dela eta ohandotarrek traizioz hilko dutela. Gisa horretan aurreratzen edo iragartzen du Barojak protagonistaren jatorri noblea eta etorkizun heroikoa<sup>10</sup>. Ez da inolaz ere esanahirik gabekoa liburuaren lehen

---

<sup>10</sup> Hala dio Iñaki Bazanek “La influencia de *Las Bienandanzas e Fortunas* de Lope de García de Salazar en la obra de Pío Baroja” artikuluan: “El conocimiento de *Las bienandanzas...* por parte de Pío Baroja era una cuestión sencilla de explicar si se tiene en cuenta su afición por los libros antiguos y que en 1884 M. Carrión había publicado una edición prologada por A. Trueba. En su obra *El País Vasco*, publicada en 1953, Baroja alude en reiteradas ocasiones a Lope García de Salazar, indicando el interés que tiene para conocer las épicas luchas de los linajes vascos: “En el libro del célebre banderizo vizcaíno Lope García de Salazar, titulado *Historia de las buenas andanzas y fortunas, hay también un magnífico documento de las luchas de los linajes vascos. Se ve que nuestros buenos antepasados eran de lo más feroces que imaginarse cabe. Se asesinaban familias enteras con verdadero entusiasmo. Lope García de Salazar cuenta luchas épicas entre ellas una sostenida a principios del siglo XV por un señor de Alzate contra mosén de Saint Pée, metidos los dos adversarios en el río Bidasoa*”. Esta alusión remite directamente a los dos episodios narrados por García de Salazar en el libro XXII e inmediatos al de Pedro López de Amesquita, que sirve de base para retratar al imaginario Martín López de Zalacain. En otro pasaje de *El País Vasco*, Baroja refiere que los “*Alzates* [linaje de la comarca de Vera de Bidasoa] fueron banderizos influyentes, y de ellos habla Lope García de Salazar en su obra de *Las bienandanzas y fortunas, en el Libro XXII. Se les ve intervenir en las luchas de los linajes de Guipúzcoa, y, al parecer, unas veces son amigos de los Oñez y otras de los Gamboas*”. Ahora bien, sobre esta temática también utiliza como fuente un libro que posee en su biblioteca titulado *Juan de Alzate*, y donde se menciona al primer Alzate, un tal Martín López de Alzate, que en 1383, junto con otros compañeros suyos,

paratestua den azpitutuluak eskaintzen digun informazioa izan ere, kronika zaharren tankera erantsi nahi izan baitzion Barojak bururen buru liburua: *Historia de las buenas andanzas y fortunas de Martín Zalacaín el Aventurero*, Lope Garcia de Cortazarrek 1571an hasi eta 1576an amaituriko *Bienandanzas e Fortunas* ospetsuaren oihartzunak ekarraraziz. Haren estilo soiltasuna, gertakarien kontakizun azkarra eta era bateko eta besteko materialen nahasketa erreal-fantasiatsuaz XVI. mendeko kronikagileari eginiko omenaldia da, Iñaki Bazanek frogatzen duenez, geroko beste zenbait liburutuan egingo zuen gisa berean.

Zalacaini jatorriz dagokion nobleziaz eta ausardiaz gainera, Teillagorrik hezten eta prestatzen du borrokarako, iraupenerako eta beldurra gainditzeko. Hala egingo da oso gazterik kontrabandista ausarta eta, bigarren gerra karlista sortzen denean, mertzenario argia. Nortasunez, erabakimen handikoa izatea da lehen ezaugarria, zer egin behar duen pentsatzeko astirik hartu beharrik ez izatea. Ekintza bera maite du, eta egonean “usteldu” egiten dela iruditzen zaio. Honelaxe adierazten dio Briones generalari hirugarren ataleko laugarren kapituluaren kokatzen den protagonistaren ideien adierazpen bakarrenetakoa:

“Pues yo estoy vivo, eso sí; pero la misma vida que no puedo emplear se me queda dentro y se me pudre. Sabe usted, yo quisiera que todo viviese, que todo comenzara a marchar, no dejar nada parado, empujar todo al movimiento, hombres, mujeres, negocios, máquinas, minas, nada quieto, nada inmóvil...”.

Briones generalak “Extrañas ideas” erantzuten duen bezala, Jose Ortega y Gasset filosofoak Zalacainen izaerari erreparatuta honakoa esan zuen: “Es característico de los hombres de acción la carencia de vida interior”, zoriontsu izateko aski baitute “funcionar vitalmente”<sup>11</sup>.

Antzeratsu margotu zituen Felix Urabayen idazle nafarrak<sup>12</sup> kontrabandista baztandarrak ere XIX. mende bukaeran. Baztandarraren bizimoduaren ezaugarritzat jotzen zituen kontrabandoa, pilota jokoa eta kantua, eta hiruzeharitu zen 1924ko *El Barrio maldito*<sup>13</sup> narrazioan nahiz 1928ko *Los centauros del Pirineo* eleberrian, lirikotasunez agertzen zituelarik paisaia eta herri nafarta-

---

mató a un acotado huido de la hermandad de Guipúzcoa. Significativo nombre y suceso en relación a la historia de Martín López de Zalacaín.”

<sup>11</sup> “Ideas sobre Pio Baroja” in Jose Ortega y Gasset, *Obras Completas*, Alianza/Revista de Occidente, 1985.

<sup>12</sup> Ultzurrun (Nafarroa) 1883), Madrid (1943). Kazetari eta maisu liberala.

<sup>13</sup> Liburuaren edizio ederra egin zuen Pamiela editorialak 1988an, irudiez osaturik.



rrak. Ez zuen ezkutatu ordea euskal herrietako gizarte egitura bidegabean ondorio zela beste bizibiderik atera ezin zutenek egiten zutela kontrabando lana. Bere pertsonaiek gehienbat Barojaren pertsonaiaren izpiritu gogoratzen dute. Baztandarrez mintzo dela honela dio Urabayenek Zalacainez ari balitz bezala:

“El baztanés lleva la acción en los pies, le cuesta entender cualquier idea si va envuelta en algo de retórica, maneja bien las monedas, pero con los vocablos se hace un taco”.

Urabayen aipatuz gero, ezin utz aipatzeke, bestalde, Jean Baptiste Constantin zuberotarra ere, bere esku trebez idatzirik heldu baitziren euskal irakurleengana Haritchabalet erretorearen kontrabando pasadizo ernagarriak (1926). Atharratzeko seme argi hark asmatutako eta burututako azkarkerien artean, karabineroen aurre-aurrean eginiko kontrabando lanak ere badaude, bereziki gogoangarria delarik Drunda baserriko kafearen pasadizio ospetsua<sup>14</sup>. Halere, Haritxabalet eta bere kideak kontrabando ttipian (kafea, tabakoa, etabar) aritzen dira, eta osatzen duen anekdotarioa Pernando Amezketarraren azkarkerien parekoa da. Bide nabar esanik, Pernando Pio Barojaren liburuan agertzen da, euskal literaturako pikaroetan enblematikoena ez dago halabehar hutsez Zalacain-en narrazioetan txertatua. Hitzei irudi zinematografikoak erantseko, gogora dezagun, azkenik, kontrabandista bizkorren irudiaren iraupena luzearen isla dela Orson Welles zinemagileak 1955 eta 1967 artean BBC telebista britaniarrentzat egin zuen *The basques land* erreportaia (1957). “Euskaldunak zer dira?” galderari erantzuten dio bi irudi nagusirekin, lehena kontrabandozaleena, bere herria muga batek erdibitzen duenik gezurtatzen duten gaueko langileak, eta bigarrena, Ameriketara joandako artzaina<sup>15</sup>.

Espainiako Guda Zibilaren osteko idazleetan gaiak erromantizismoa galdu eta errealismorantz jotzen du. Baroja eta Urabayenen ikusmoldetik urrunduz, kontrabandistaren bizimoduaren alderdi dramatikoari arreta gehiago jartzen hasiko dira idazleak eta gizarte nekazari tradizionalaren kritikan gauzatuko da aldaketa. Eleberrigintza berriko kontrabandistak miseriatik atera ezinik dabiltzala aukeratzen dute kontrabandoa, aurrekoek bezalaxe, eta “aberasteko bide azkarra” bada ere, garesti pagatzen dute.

Zalacainek sorturiko tipo literarioaren aintzidariak ikutu idealista erromantikoaren itzaletatik datoz, ondorengoek, aldez, errealismorantz egingo

<sup>14</sup> Jon Etxaidek *Joanak joan* eleberrian zehaztasunez jaso zuen pasadizoa (1955).

<sup>15</sup> Julio Medem-ek *La pelota vasca* (2003) filman sartu zituen erreportaiaren zenbait zati.

dute, errealismo zikinerainoko bikababidean aurreratuz, Barojaren narradore bizi, entretenitu eta guzietarikoarekin buruz buruko lehian edo haren itzaletik aldendu nahirik. Inork ezin dio, nolana ere, Barojaren bazterrik gabeko narrazio-ibaiaren emariari eutsi. Ez da zaila Jesus Mari Lasagabasterrekin bat egitea eta onartzea Baroja izan zela,

“un creador de mundos de ficción en los que una serie amplísima de personajes vive la peripecia humana de una manera activa, plena y reflexiva”.

Giza tipoak eraikitzen ditu Barojak, eta ez arketipoak, baina irakurleen oroimenean luzaroan irauteko indarra dute. Bere pertsonaia horiek dira bere ekarpenik baliotsuena<sup>16</sup>. Bere ingurune naturalean kokatuta aurkezten du, eta modu azkarrean karakterizatzen ditu, lehor. Alfonso Reyes idazleak esan zuen moduan, Barojaren liburuak “se leen deprisa, en suspenso, acarreado por el río de la vida”. Baroja kontalari trebea da, ongi daki zer interesatzen zaion irakurleari. Gonzalo Sobejanoren iritziz espero ez dugun aldetik eramaten du narrazioa, eta diskurtso ia kolokiala hobesten du, erretorikari lepoa bihurtuz. Horrela, testu soila, erraza eta hurbila eraikitzen du, elkarrizketa giroan kontatua bezala, baina guztiz efektiboa suertatzen da. Interesa galdutakoan, utzi egiten dio pertsonaiari eta historiari. Horregatik dirudi ez duela borobiltzeko ahaleginik egin.

Birute Ciplijauskaiték, Barojaren estiloaz idatziriko artikuluan, Barojaren humorismoaz dihardu, pertsonaien pare-parean, ez gorago eta ez beheago kokatzearen ondorio dena. Distantzia batean geratzen da, haiekin enpatizatu gabe, ez baitu XIX mendeko eleberririko errealista ohikoen parekorik idatzi nahi. Gizakia bere oihanean bizi den piztia bezala aurkeztu nahi zuen, egiantzekotasunaren izenean. *Memorias*-etan zioena oroitu besterik ez dago:

“Nosotros no buscamos el delinear la figura, grande y destacada, con una línea fuerte que lo separe del medio en que vive, sino que queremos hacerla vivir en su ambiente”.

Ciplijauskaitek dioten moduan, perspektiba funtsezkoa zaio Barojari eta horretarako erabiltzen ditu digresioak: pertsonairen inguruko natura edo herriaren deskribzioak hausnartzeko eta perspektiba berreskuratzeko balio diote narratzaileari, pertsonaiari gehiegi atxikitzeko joerari uko egiteko, eta per-

<sup>16</sup> Lasagabaster, Jesus Maria: *Las literaturas de los vascos*, Deusto, Donostia, 2002. (Recopilación).

tsonaiak bizitutakoak hausnartzeko ingurune errealean. Distantzia emozional horrek dakar haren testuen aldakortasun atsegina, garaikide zituen abangoardiak bezalaxe, Barojak jokoaren morala aplikatzen baitio narrazioari: pertsonaiak medio naturalean dituen aukera errealak hotz erakusteko distantziari eutsi behar dio, horretarako da humorea, ironia, disgregazioa, pertsonaia txiki eta axola gutxiko pasadizoak sartzea... Dramatikotasun gehiegizkoa ekiditen du horrela; anbiguetatea eta disoziazioa istorioarekiko, eta fragmentarismo efektua, berriz, mugimendu azkarrak eta saltoak emanez denboran, lekuetan pertsonaietan, narratiba modernorantz mugitzen ari dela erakusten dute eta XIX mendeko errealdismotik urruntzen<sup>17</sup>.

Kronotopoari dagokionez, Barojaren Zalacainek harreman zuzena du bere aurretik idatziak ziren kotrabandistei buruzko zenbait narrazioekin zehazki aipaturik, Ganix de Macaye (*Les echos du pas de Roland*, J. B. Dasconaguerre, 1867) eta Ramuntchorekin (*Ramuntcho*, Pierre Loti, 1897). Lehen, pertsonaia historikoa izan zen, bigarrena aldiz, fikziozkoa, osoki hala izan ez bazen ere. Ganix de Macaye kontrabandista izan zen, Jean Batiste Daskonagerren gertakarien narrazio puztuak goraiapatua bere indarrean, zuhurtasunean eta idealismoan<sup>18</sup>. Frantsesez argitaratu zen lehenik, *Les Echos du pas de Roland*, par J. B. Dasconaguerre, membre du Conseil général des Basses-Pyrénées. Traduit du basque (Paris, 1867). Urte berean agertu zen espaineraz ere *Ecos del paso de Roldán* (Baiona, 1867) Bermingham donostiarrak itzulita, eta handik bost urtera, Bizente Manterolak moldatuta *Un drama en la frontera: Episodio de guerra civil, 1834* (Madrid, 1872). "Euskal Esnalea" aldizkariaren orrietan (1918) ere eman zen ezagutzera, gerraosteko beste zenbait edizioz gain<sup>19</sup>.

<sup>17</sup> Aipaturiko egileen artikuluen bilduma: Martínez Palacio, Javier (ed): *Pío Baroja, el escritor y la crítica*, Taurus, Madrid, 1974.

<sup>18</sup> Donibane Lohitzunen sortua zen Daskonagerre. Lege ikasketak egin zituen Parisen, aldi berean jakintza, historia, literatura eta hizkuntzak ikasiz. Han zegoela, Chateaubriand'en ilobarekin eta Malakoff'eko dukearekin zeukan adiskidetasunari esker, orduko frantses idazlerik Ospetsuenekin hartu-emanen sartu zen eta *Atheka-gaitzeko oihartzunak* idazterakoan eredu gertatu zitzaizkion. Ikasketak amaitu ta sorlekura itzuli zenean, Labastide-Clairencen eta Baionako notario izan zen. Politikan ere aritu zen, Kontseilu jeneraleko gizon, au da, diputadu aukeratu zuten, beste zenbait ohoreren artean. Beste lan bat ere idatzi zuen Daskonagerre'k: "Le Golfe de Gascogne" (Paube, 1880). Gaia: alkar izkera, euskaldunen jatorria, 69 atsoitz eta abar. Baita beste au ere: "Récit basque" (Baiona, 1883); Ameriketara zihozten euskaldunen aurka egina.

<sup>19</sup> Frantsesez eta gaztelaniaz euskaratik itzulia zela esanagatik, ez zen hala gertatua. Daskonagerre berak ez baitzuen horretarako euskarazko prestakuntzarik. Larreguy apezak itzuli zion, zatiz, geroago Edmond Guibertek osatu zuen eta J. Vinsonek burutu zuen itzulpena.1870ean

Lehen gerra karlista hasi zelarik, Belzunzeko kondeak Ganix, Jean Anchordoqui kontrabandistarengana jo zuen Beirako printzesari Pirinioetako muga zeharkatzen lagun ziezaion eta hala Londresetik On Karloseekin poderez eginiko ezkontza bermatzeko. Gertakizun historikoa karlisten lehen-gudaldikoa da, 1833ko udazkenekoa. Frantziako gobernuaren aginduz Beirako printzesa atzitu behar zen; Ganixek, ordea, iruzur egin zien agintariei eta karlistenganaino eraman zuen printzesa. On Karlosek, esker onez, bizi izateko lain eskaini zion lehenengotan, baina gero, 1839tik aurrera, behartsu ikusi zuen Ganixek bere burua. Daskonagerre notarioarengana jo behar izan zuen orduan bere azken ondasunak bahituran jartzera eta honela jakin omen zituen idazleak gora behera guztiak. Argigarri da egileak liburuaren 14. atalean, *Akabantza* deritzanean azaldu zuen ikuspuntua, gerraren nondik-norakoa agertzearekin batera, Ganixek diskrezioa eta eramapena goresten baititu:

“Eta, egun batez, errumes ahalketua, hebaindua eskasiez eta pairamenez, hiltzera doa, nihork urrikaldu gabe, adixkide esku bat etorri eskasian azken orenera ino gordetzea bilatu duen beharraren arintzerat. Holakoa da, bada, liburu huntan argitarat ezagutaraztea bilatu dudan gizonaren zortzea; irakurtzaileak barka dezadala baldin hemen egin badituz zenbait solas alegera oroitzapen mingarrien auzo. Ganixek joko eman zituen don Karlosen zerbitzuan zituen guziak eta prestamuz utzi karlisten armadari laurogoi eta hamar mila libera diru. Holako dirutze batez gabetzak kordokan eman zuen haren izatea, etzen halere errenkuratu ez eta behinere berearen galdetzen hasi, hartaz baliatu zireneri. Egia bada ere, don Karlosek agindu ziozkan Ganixi urteko emezortzi ehun libera; baina agintza hori alfer gelditu zen Ganixentzat deus ondoriorik gabe. Eta karlist eta kristinoen gerla akabatuz geroz, hautsi ziren Ganixen karlistekin lokarriak; baina gelditzean don Karlosen lagunekin haren hariak, etzitzen galdu bere herritarren amodioa eta, guziez ongi ikusia aitor hoberenak zituen bazter guzietan. Nihori ezbaiztuen ematen bere beharren berri, guziek aisean zaukaten zela.”

Erregu batez bukatzen du Daskonagerrek bere hitzaldia “espainol ospatuak; don Karlosen alde izan edo zaretenak”; “euskaldun ene herritar maite,

---

atera zuen Lamaignere inprimategian ohar honek lagundurik: “Norbaitek galdegiten balu zertako hain sarri iguriki dugun hau inprima-arazi gabe, ihardetsiko ginioko iduri zitzaukula Itzultze frantsesa errexi eta lasterrago saldu ginukela. Denek badakite saltze horren progotxu guziak karitatezko obra batentzat emaitekoak zirela”. Lehendik ere Guibert apezak kantatuak zituen bertotan Ganixen bizitza gorabeherak eta ezagunak ziren euskal giroan. Lapurdiko Makeako kontrabandista ospetsuak etxea muga mugan zeukan antza denez eta bere bizitza guztia mugaldeak igaro nahirik zebiltzane mesedeak egiten igaro omen zuen. Ez zuen diruagatik egin, idealismoagatik baizik, eta karlisten alde jokoan jarri zituen bizi eta etxea.

bihotz on eta kartsuak” ditu hartzaile bere mezuak. Narrazioak erakutsi du “Ganixen arima ederra”, “on Karlosen alde eta erlijioaren alde () zuen banderaren azpian lagun on, saririk gabe, ibili den gizona”. Ganixen nortasuna eredu da Daskonagerreren eskuetan, fededuna, mendi eta oihanen erdian hazia, egiazko euskalduna, “egiazko ohore, leihaltasun eta kalapuaren mirail berezia”. Daskonagerreren Ganix bilakatu da euskal literaturan lehen kontrabandista erromantikoa, ezaugarri fisiko edo psikologiko pertsonaletatik harantago, ideologia karlista baten arabera eraikia nabarmen: sinesmen erlijioso eta mundu ikuspegi tradiziozale baten defendatzailea eta, antzinako erregimenaren alde, egitate heroikoetaraino iristerainoko leiala.

RAMUNTCHO (Pierre Loti, 1897). Duela mende bateko Euskal Herriaren irudia islatu zuen *Ramuntchok*, artzainen eta kontrabandisten giroan Ramuntxoren eta Gaxuxaren arteko maitasun istorioa kokatuz. Zalacain idatzi zen garaian Ramuntxo dagoeneko opera gisa aurkeztua zen Gabriel Piernéren musikaz Pariseko Odeónen, Kadizen eta Madrilén. Toribio Alzagaren euskarazko itzulpenak eta arregloek bizitasun berria eman zioten testuari eta argumentu gehiagoz korapilatu. Pelikula bat ere egin zuen Rene Barberisek 1937an.

Julien Viaud idazle frantsesak, Pierre Loti ezizenez ezagunagoak, 1891an ezagutu zuen Euskal Herria, Bidasoako muga zaintzen zuen Javelot itsasuntziaren komandante izendatu zutenean. Bidasoan “manalari” egon zen, beraz, itsasuntzian, lehenik urte bat (1891), eta bigarren aldian, 1894-1897 artean, orduan idatzi zuen *Ramuntcho*. Ordurako argitaratuak zituen, besteak beste *Aziyadé* (1879), Istambulen giroturiko nobela erromantikoa, Tahitin giroturiko *Le Mariage de Loti* (1880), nahiz Britainian kokaturiko *Pêcheur d’Islande*, (1886) eta *Madame Chrysantème* (1887) Japonian. Lotiren ospea handia zen Frantzian bezala Ingalaterran. Bere liburuek salmenta handiak egiten zituzten, garaiko idazlerik onenetan aipatua zinez eta Frantsesaren Akademikoa izendatu zuten 1891z geroztik. Proust-ek bere idazle gogokoena zela aitortua zuen eta Henry Jamesek “a remarkable genius” (1893) zela baitetsi. Bere garaian literatura exotikoaren egiletzat zuten, baina bere ospea lehen mundu gerlaz geroztik aski gutxitu zen, exotismoaren eta orientalismoaren bolada joandakoan. Itsasuntziko ardurek eraman zuten Loti urruneko lurraldeetara eta giro exotikoetan kokaturiko fikzio-istorioak izan ziren bere liburu estimatuenak: galtzear zeuden paradisuak islatzen zituen bere eleberri horietan, giro exotikoak europar kolonialismoaren eraginpean galtzear.

Literatura frantsesean, mende bukaerako idazletzat sailkatzen da Loti, zibilizazioaren dekadentzia adierazten duen eta haren konszientzia duen

idazle belaunaldiaren kideko. II. mundu gerraz geroztik ordea, eta exotismoaren zaletasuna galtzarekin batean, behera egin du haren estimazioak, harik eta Roland Barthesek “idazle trabestista” izendatu zuelarik *Aziyade* eleberria aztertzen zuen saioa idatzi zuen arte (*Nouveaux*, 1, 402). Hark iradoki zuen orduz geroztik kritika postokolonialaren iritzi aski hedatua dena, hots, garaiko zentsura moralaren zirrikituez baliatu zela Loti maitasun homosexuala zeharka iradokitzeke. Hala esan zuen zehazki Roland Barthesek<sup>20</sup>, Lotiren trabestismoak aukera eskaintzen ziola bere burua objektu deskribagarri bihurtzeko, “en objet descriptible — et non en sujet introspectible”. Ispilu baten markoan kokaturik, Loti ez dago disfrazatua, antzaldatua baizik, aktore da “dans un *tableau vivant*”, klixex osatua, nahi bada, baina irudimenean bizia. Ildo beretik, Suzanne Lafont-ek ere “Les suprêmes clichés de Pierre Loti”<sup>21</sup> artikuluan aztertu du haren eleberrietako lekuen eta egoera topikoen sail zabala. Halere, exotismo mota horren erakarmena gaur egun eraginkor ez bada ere, ez dago esaterik hori eta horrenbestez agortua denik Lotiren liburuen irakurketa. Lafontek, Barthesek bezala, gatazka ikusten du Lotiren obran modernitatearen etorreraren eta klixex erromantikoen artean. Bere pertsonaiek hautematen dute mundu exotiko hori nostalgiaz eta malenkoliaz galtzera doan “ezberdintasuna” dela, zibilizazioak bereganatuko duen mundu eder eta galkorra, baina ez du galduko denaren aldeko aukera erromantikoa egiten iraunarazteko, erremedio-rik gabe mendebaldeko multzo homogeneo horretan sartzean gertatuko den galera deitoratzen du, beste gabe.

Pierre Lotiren *Ramuntchoren* arrakastak zerikusi handia du garaiko literatura exotikoaren zaletasunarekin, urrutirako bidaiak gaur egun bezain arruntak ez ziren garaian gizarte eta bizimodu bitxietan kokatzen ziren istorioak irakurtzeko gustuarekin. Koldo Izagirrek ‘Tristes Topiques’ artikuluan jarrera kritikoa agertzen du euskal herritarren kanpo-irudian eta auto-irudian eragin-

---

<sup>20</sup> Roland Barthesen iritiz, Julien Viaudek “Pierre Loti” pertsonaiaren moztorra hartzean nortasun krisia adierazten zuen eta bere herrialdeko erakunde moralei, bere kulturari eta herraldari ihes egin nahi zien. Maite zuen beste bat zela fantaseatzea eta moztorrotzea, argazkietan turko otomanoz, itsas marinelez, albanoz edota dervish-ek apainduta erretratatzeko Barthes, (R., “Pierre Loti: *Aziyadé*.” *Le Degré zéro de l’écriture* suivi de *Nouveaux essais critiques*. Paris: Seuil, 1972. 170-187) [http://ae-lib.org.ua/texts/barthes\\_nouveaux\\_essais\\_critiques\\_fr.htm](http://ae-lib.org.ua/texts/barthes_nouveaux_essais_critiques_fr.htm) [Azken ikustaldia: 2011/02/22] Testuinguru historiko hartan bere lana, eta haren ondokoa den Proustena bereziki, adierazgarritzat hartzen ditu kritika mota batek, interes bereziaz aurkitu dute besteak beste Claude J. Summers-ek (1995) “the gay and lesbian literary heritage”, deitu duen korronteak hain zuzen ere.

<sup>21</sup> Toulouse: Presses Universitaires du Mirail, 1993.

dako ondorioez diharduela<sup>22</sup>. Artikuluaren izenburuko sintagmak aitzindari handi bati deitzen dio, Claude Levi-Strauss-ek idatziriko titulu bereko liburuari, non kexu egiten baitzuen etengabeko arrakastadun “armchair travel books” edo besaulkiko bidaia liburuez. Izagirrek bidaia liburu horietako informazio topiko andana luzearen kalteak eta anekdoten artean txertaturiko klizeak saltasen ditu, informazio kontrastaturik gabe eta ikuspuntu kolonizatzaileaz eginak direlako. Zehazki, euskaldunei buruz atzeritik etorririko bidaiariak emandako irudiaren kalteak salatzen ditu, bereziki euskal arimaren idealizazioak eraginiko kalteak<sup>23</sup>. Izagirreraren iritziz, euskaldunen ikuspegi erromantikoa da Lotik eskaintzen duena, guztiz menderatu gabeko den izpiritu edo arima independentearen adierazle, guzia purotasuna, ingenuitatea eta hitz urritasuna dena; ikasi ezin daitekeen hizkuntza mintzo, bere xokoan duintasunez eta harrotasun sinple batez bizi den herriaren paradigma. Ramuntxoren esentzialismo salaketa hori gora behera, ordea, ezin esan, halere, *Ramuntcho* literarioki bere exotismoan agortzen denik, eta hala ematen du adizteraz haren obraren inguruan kritika literarioak erakutsi duen interesak.

*Ramuntcho* eleberriak, Lotiren gainerako liburuek bezala, ez du argudio korapilorik eraikitzen eta, leku komunez josia iruditu arren, bere narrazio eta deskripzioak nahiz zenbait pertsonaia, iraunkor gertatu dira. Piarres Larzabalentzat, garaiko euskal herritarrentzat ezagun ziren adabakiz jositako nortasun asmatuak<sup>24</sup> dira eleberri honetako Ramuntcho, Gaxuxa eta gainerakoak. Larzabalen “Pierre Loti eta gu” artikuluan *Ramuntchori* buruz<sup>25</sup> dioe-

<sup>22</sup> Izagirre, K; “Tristes Topiques” in D. Laborde (ed.), *La Question Basque*. Paris: L’Harmattan, 1998.

<sup>23</sup> “Âme basque. Cent ans ont passé depuis ce temps où Pierre Loti se pâmait de mélancolie en entendant, dans sa promenade bucolique du soir à Hendaye, le tintement lointain d’une cloche. Depuis, nous avons enfin appris que ce “je ne sais quoi” de mystérieux était une simple fiction, un état d’âme purement littéraire. Nous sommes basques avec le chemin de fer et aussi, oui Monsieur, avec toute la part d’imbécillité de la civilisation moderne. Cette “âme basque” illusoire est morte, définitivement. Pour les compatriotes et les lettrés qui, à la manière de Pierre Loti, recherchaient des “essences” de basquitude, la perte est irréparable. Leurs paysages, leurs coutumes, leur pureté raciale... tout a changé, parfois violemment.”

<sup>24</sup> Thomas J.D. Armbrecht-ek idatzia da “The nostalgia of nowhere: Pierre Loti’s utopian spaces” artikuluan lekuen eta pertsonaien utopismoa azpimarratu da: Although none of what Loti wrote can be considered a commonplace book in the genre-specific sense, his anecdotal reinforcement of popular conceptions about cultures and places makes clear the importance of topoi in his work. “Loti’s self-constructed identities corresponded no more closely to reality than did his work”. Publication Date: 01-DEC-03

<sup>25</sup> Gure Herria, 1960, 225-241. aipaturiko *Ipuin eta ixtorio 1930-1964* liburua Piarres Xarritonek osaturiko *Piarres Larzabalen idazlanak (V)* liburuan bildua da, Elkar, 1996.

na bereziki egokitzen zaio gure xedeari. Lehenik, liburuak nazioartean izandako arrakasta handiaren lekukotza ematen du Lartzabalek, “Ez dut uste izan den gizonik, ez batasunik, liburu horrek bezenbat, lur zabalean, Eskual Herriari aipamen eman dionik”. Baina galdera egiten dio bere buruari Lotik euskaldunetz emandako irudiaren xehetasunak, onartzen ote ditugun edo ez. “Loti eta gure axala” atalean dioenez, Lotik “ontsa ditu senditzen gure mendi eta erreken sasoinak, gure itsasoaren ibilerak, gure pilota, dantza eta elizako urratsak”, baina Euskal Herriko azalaz ongi mintzatu bada ere, “ez daiteke erran xuxen eman duela, gure barneko berri”. Larzabalen iritziz, oker hartzen ditu gure “barneko moldadurak, eta are gutiago erlijioeak emaiten dauzkunak”. Lotiren izaera sentimentalak eta “nexka aireak” eragozten omen zioten euskaldun “zimenduz adimendutsu” haiek egoki islatzea: “Loti-k kondatzen du, gau batez, kontrabandako bidea hartu aintzin, Ramuntcho eta bere ama, luzaz egon zirela goxoki, matela matelaren kontra”, ez zaio hori sinesgarri eta ez beste zenbait pasarte ere, bukatzeko dioela:

“Ramuntcho pilotari eta kontrabandixta azkarra, hola ‘marikotillun’ bilakatu?...”

Bestalde, Lartzabalen iritziz, Lotik muga jakinak ditu euskaldunen izpiritua atzemateko, sendotasuna eta fedea eskas baitzitu<sup>26</sup>: Loti-k, “Ramuntcho’-n, gure erlijioeko usaiak eta sinesmenak, zaharkeria batzu direla” da auzia. Ezinezko zaio Gaxuxaren bikoiztasuna ere egunez serora eta gauzez maitale Ramuntxorekin. Ez sinestekoa deritzo Gaxuxaren amaren erra ere Ramuntxo eta Frantxitaren kontra. Horiek kondairaren ahuleziak dira Larzabalentzat, inuzentekeriak eta benetako fedea eta bizitze kristauaren berri ez duenaren fantasiak. Baina bereziki ahula “Ramuntxoren jite lehun, guri, zilinga” da, “ez da Eskualdun pilotari kontrabandixta batena, bainan bertze nornahirena eta bereziki Loti-rena”. Gorputzez, Ramuntxo “edozoin pilotari gazte” bezalakoa da, bere gazte urtetan, soldaduska egin ondoren maitasuna eskuratzeko itxaropena galduta Ameriketara joango da, etorkizuna eraikitzeko helburuz. Barnez, ordea, Larzabalen iritziz, Lotik Ramuntxori bere baitako sentimenduak erantsi dizkio:

<sup>26</sup> Larzabalen iritziz, Jules Viaud familia protestantekoa zen eta errepublikazalea. Apaltasunean hazia eta izenik gabeko jatorri horretarik heldu zitzaion nabarmendu nahia eta arrakastaz lortu zuen bere luma trebeari esker. Baliteke haurretako gabeziak ordaindu nahi izatea heldutasunean, bai bere nortasuna mozorrotuz eta bai fisikoki apainduz, gimnasia eginez, jantzia, zapata, ibilera eta zainduz modu nabarmenean. Bere amari biziki atxikia zen eta hala dio Larzabalek:

“Loti, bere ‘emaxte’ moldekin eta zeraman bizi berduratuarekin ez zen denen gogoko”.



“Bera zen bezala du Ramuntxo tindatzen: amakari, barnez eri, lehun, dudakari. Ramuntxori, Loti-k eman dio beraz gure axala, bainan bere mamia”.

Larzabalentzat ezinezko da pertsonaia hori kontrabandista azkarra izatea aldi berean. Izan ere, mugaren zaindari den untziko komandanteak kontrabandoa kirol arriskugarritzat aurkezten du eta horretan dabilenak sendoa izan behar, gaulana egingo badu, aurkari baititu bi etsai gogor: batetik karabinero espainolen tiroa eta bestetik eguraldi gaixtoen segadan bizia galtzeko perila. Baina Ramuntxo gaztea ez bezalako “benetako” kontrabandistak badira liburuan: Florentino, Iraola eta beste batzuk. Guzien buru da Itsua esaten dioten bat, “elizako xantre eta giltzaina, adinik gabeko gizon bat, bizarra kendua, bisaia iduri pudaz moztua, matelak sartuak, matraila larri, gorputzez gora eta zabal, bularra lodi, begiak barne, kopeta zimurrez bete”<sup>27</sup>. Larzabalen iritziz, Itsua kontrabandista batzuen eta besteen ezaugarriak hornitu zuen Lotik:

“urte hetan, Argibelekoa zen xantre Azkainen, eta ‘xantretarrak’, kontrabandixta eza-gutuak ziren. Bertzalde, Ottarrek bazuen adixkide bat, kontrabandixta nausi fama-tua, arras Loti-ren erranen trakakoa. Igantzitarra. Izena zuen Agustin Arrieta. Bai-nan, denek deitzen zuten ‘Galo Okerra’ edo ‘Galo Itsua’, begi bat baitzuen trebesa. Hamalauueko gerlan, Galok, Frantziako armada Hants lagundu zuen, zaldiak hunar-rat pasatuz, eta hortakotz, gerla ondoan, Hendaian, medailaz saristatu zuten.”

Pertsonaia hori da kontrabandista zinez, eta ez Ramuntxo gaztea, haren barneko ardurak ez dute antzik ez Itsuarekin eta ez Barojak hamar urteren buruan sortuko duen Zalacainekin. Ramuntxo haiek ez bezalakoa da, Larzabalen iritziz, “sobera amakari, barnez eri, lehun, dudakari” den pertsonaia hori ordea, bere buruarekiko eta gizartearekiko gatazka eta deserosotasuna bizi duen pertsonaia da: ezkongabeko ama baten seme bakarra da.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko desegokitasuna da Lartzabalek per-sonaiari egiten dion kritikaren zioa, lehenago Izagirrek euskal irudi koloniza-tuaren izenean eginikoa oroitarazten du. Ezin uka ordea beste alde kritiko batetik interesik piztu duenik Ramuntxoren pertsonaiak. Hala, eleberriko pertsonaien barne egitura aztertu du berriki Violeta Garcia Deustuko Uniber-

---

<sup>27</sup> Santiago Aizarnak “Ramuntxo, el hijo del extranjero” itzulpen liburuaren hitzaurrean esaten du gutxi izan direla kontrabandoaren gaiaz eta mugako pasadizo horien gainean egin den garapen literarioa, agian legez kanpoko aktibitate hori geografiaren zailtasunak, bi mugakoen komunitate kideetasunak eta funtzionarien eroskeria dela medio burutzen delako, gehienetan odolezko gertakari edo krimenik eragin gabe, baina tarteka gauzak okertu eta Ramuntxoko Itxuak berak ere krimena egiten du karabineroak ganibetaz kolpatuz, agian hilak utziz.

tsitateko irakasleak “Pierre Loti o la fabulación del Yo” artikuluan<sup>28</sup>. Lotiren beraren nortasun ezaugarriak sumatzen ditu Ramuntxorengan. Garcia irakaslearen iritziz, ezinezkoa zitzaien Lotiri bizitza eta obra bereiztea, eta bere liburuetan eta narrazio autobiografikoetan beti sumatu omen daiteke egunkari intimoko anotazioen islada zuzena<sup>29</sup>. Irakaslearen iritziz, Ramuntxo ezinezko maitasun baten istorioa da ingurune fisiko exotiko batean kokatua, izan ere, Euskal Herria, *Pêcheur d’Islande* eleberriko Britainia bezalatsu, modu exotikoan aurkezten du Lotik, paisaiak eta herriak, pilota partidak, prozesioak, mugalariekin eginiko ibilaldiak... Denak Lotiren egunkarian daude, eta bere nobeletan ere bai. Esate baterako, Ramuntxo eta Gaxuxaren azken topaketa komentuan, Lotiren egunkariko 1893ko abuztuaren 28ko notazio batean dago oinarritua: Méharingo komentuan, Otharre Borda pilotaria eta Loti haren arreba Gracieuse bisitatu zuten egunari buruz dioela:

“Elle est toute jeune, la petite nonne, vingt ans à peine, environ huit ans de moins que son frère ; à présent, elle se tient debout, auprès de lui qui est assis, et pose sa main frêle sur son épaule puissante ; elle ressemble à une jeune sainte de quelque tableau des primitifs”. (Moulis, 1965: 76<sup>30</sup>).

Violeta Garciaren iritziz, Lotik bere barne-munduarentzat esanguratsu zen fikzio sendagarri bat proiektatu bide zuen liburu honetan. Izan ere, Rocheforten, Julien Viaud-ek Marie Crucita Gainza neskatxa euskaldunarekin ezkontzaz kanpoko familia osatua zuen, eta bere semeen etorkizuneko gizarte-korapiloa islatu zuen eleberrian. Ezkontzaz kanpo hiru semeak, Raymond, (Ramuntcho), Edmond eta Léonek aitarekiko eta gizartearekiko biziko zuten gatazkaren proiektzioa egin zuen. Gisa berean, haurtzaroko esperientzia pertsonalen hainbat elementu angustiarri ere Ramuntxoren amaren pertsonaiari lotu zituen fikzioan, bere ama guziz maitatuarekiko atxikimendu hautsiezina eman zuen aditzera eta aitarena behar zuen lekuan zeukan hutsune nabarmena ere bai. Horri esker, pertsonaiek pertsonaia errealean bizikizunak islatzen dituzte eta sufrimendu psikologikoaren adierazle ez topikoak dira: bere semeek izango duten eta berak haurretan izan zuen aitaren hutsunea identifikatzen dira. Bat etorri behar Lar-

<sup>28</sup> *Thélème. Revista Complutense de Estudios Franceses* 2003, 18 21-36.

<sup>29</sup> Pierre Lotiren egunerokoak xehe-xeheak ziren, antza, eta gertakarien narrazioarekin batean, telegramak, oharra, fotografiak, sarrerak biltzen zituen oroigarri gisa. Haren atal hautatuak argitaratu zituen Samuel Viaud-ek bera hil ondoren *Journal intime 1878-1881* eta *Journal intime 1882-1885*.

<sup>30</sup> MOULIS, A. 1965 “Genèse de *Ramuntcho*”, en *Annales de la Faculté des Lettres de Toulouse, Littérature*, XII.

tzabalekin Ramuntxok nabarmen falta dituela pertsonaia heroikoa izateko ezaugarri psikologikoak, baina, ordainez, gatazka psikologikoa bizi duen pertsonaia ahularen barne-mundua islatu du, gizarte-egitura eta balore mundu antzinakoaren sarean atzitua, irtenbiderik gabekoa: errebelatzen ez den baztertuarena. Izan ere, izakera zintzo eta isilekoa da Ramuntxo, oso amaren ondoko, baina bere borneyan, zergatik ez dakiela, harantzagoko lurren, *ailleurs* horien deia entzuten du, ez da harritzeko. Lotiren beraren hitzen adierazten dute garbi:

“C’est qu’il était, lui, Ramuntcho, un mélange de deux races très différentes et de deux êtres que séparait l’un de l’autre, si l’on peut dire, un abîme de plusieurs générations. Créé par la fantaisie triste d’un des raffinés de nos temps de vertige, il avait été inscrit à sa naissance comme ‘fils de père inconnu’ et ne portait d’autre nom que celui de sa mère. Aussi ne se sentait-il pas entièrement pareil à ses compagnons de jeux ou de saines fatigues”.

Lotik arrazen izpirituaren errealitate biologiko eta psikologikoan sinesten du, berak aurkezten duen euskaldun arrazaren esentzia tradiziozale eta kristau, zintzo eta xaloa da, gero Barojak Zalacainen pertsonaian bilduko duenaz guziz bestelako. Baliteke aurrez-aurre jartzeko sortua izatea Zalacain hain ausarta, bizia eta pikaroa. Baina Ramuntxoren marka aitarik gabeko haurra izatea da, garai nahasiko gizon errefinatu baten kapritxoz sortua. Horregatik, Ramuntxo gaztearen lotsaria, liburuan zehar iradoki bakarrik egiten dena, lehertu egiten da halako batean, aita horren erreferentzia eta irudia konkretatzean. Liburuko gune garrantzitsua da ama hil ondoko gauean aurkitzen baititu aita ezagunagabearen gutun-sortan datorren izen-abizenak:

“Suivait une indication de rue et de numéro, qui lui fit mal à lire sans qu’il pût comprendre pourquoi, qui lui fit monter le rouge aux joues ; puis le nom de cette grande ville, dans laquelle il était né... Les yeux fixés, il restait là, ne regardant plus... Et tout à coup, il eût l’horrible vision de ce ménage clandestin: dans un appartement de faubourg, sa mère, jeune, élégante, maîtresse de quelque riche désœuvré, ou bien de quelque officier peut-être!”.

Violeta Garcia irakaslearen iritziz, seme horren etorkizuna fikzionatzean Lotik helburu katartiko bat bilatu zuen: huts egin zion bere aitarekiko mendekua eta beregan bildutako kulpabilitatearen liberazioa erdiestea. Gutunen artean aurkitu duen aitaren argazkia ikustean gorputz hartzen du lehen aldiz aita horrenganako gorrotoak:

“Elle eut à peine une appréciable durée, cette entrevue silencieuse, unique et suprême, avec son père. Au feu aussi l’image ! Il la jeta, d’un geste de colère et de

terreur, parmi les cendres des dernières lettres, et tout ne laissa bientôt plus qu'un petit amas de poussière noire, éteignant la flambée claire des branches”.

Ondorioz, suak garbitzen du bekatuaren eta desohorearen oroimena eta bere amaren izen ona ere suak garbitzen eta mendekatzen du. Lotik bere barruko fantasmekiko epaia egiten du: bere semeek atera egingo dute beren bizitzetatik eta Lotik berak ere bere aita atera egin nahi luke bere bizitzatik, harekikoak kitatu, haren erruz heldu baitzen Viaud familiarentzat desohorea herri diruak lapurtzeaz eta oker erabiltzeaz salatua izan zenean eta emazteen eta semen etorkizuna ohoregabetu zuenean. Lotik *Franchita*, Ramuntxoren amarengan, Crucita amorantearen eta Nadine amaren ohorea garbitu nahi zuen. Aitaren abizenik gabeko haur horien gorrotoa liberatu behar zuen eta horretarako suak aita ohoregabearen oroimena erre zezan utzi behar zuen, amentzat izen ona berreskuratuz, semen ekimenez. Iraganarekikoak kitatu eta *ailleurs* horietarantz joko du, azkenik Ramuntxok, Lotik berak egin zuen moduan:

“Au fond de son âme de grand garçon inculte, recommence, pour le faire davantage souffrir, le combat de ces deux sentiments d’homme trop affiné, qui sont un héritage de son père inconnu; un attachement presque maladif à la demeure, au pays de l’enfance, et un effroi de revenir s’y enfermer, quand on sait qu’il existe par le monde de si vastes et libres ailleurs...” (832).

Ramuntxo pertsonaia, topikoa iruditu ala ez, argitasun, edertasun eta indar prototipo bat baino gehiago da, ez da klixe bat gehiago. Larzabalek esan bezala euskaldun kontrabandistaren arketipoa izateko sobera dudati eta hausnarketari, ez da eredu hutsa eta bai, ordainez, gatazka moderno baten adierazle: bere gizartearen araua hautsi beharraren eta ezinaren aurrean jarririko gazte ahuldua. Interesgarria da honen harira Emilia Pardo Bazanek espainierazko itzulpenaren hitzaurrean esandakoa, Ramuntxo mundu ikuskera guztiz katolikoa darion eleberria zela. [Ikus Pierre Loti, *Ramuntxo*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973]

### 3. MARTIN ZALAKINEN OINORDEKOTZA

Barojaren Zalacain zaintsua eta piztia kontrajartzen zaio Ramuntxoren ezinari eta ahultasun induzituari. Martinek ez baitio gizarte mailaketari eta moralari men egingo: antzeko zereginetan nahastua bada ere, jarrera ezberdina izango du erabat, Ramuntxok ez bezala bahitu egingo du maite duen neskatxa komentutik ateraraziz, eta jazarri egiten zaio gizarte aruari. Ez hori bakarrik,

aberastu egingo da gerrako bi bandoen beharrak zerbitzatuz eta dibertsio apur bat ere lortuko du, errebelamendu hutsez, haren jatorriaren nobleziak ematen dion ausardiak jarrera ludiko eta autokonplazienteak ere bidezko egiten baititu. Horrelakoa nahi zuen Barojak: Bizitza salbaiak agintzen du beragan eta ez du arau moralaren zamak itotzen, Ramuntxoren zintzurra tinkatzen duen gizarte gaitzespenak ez du menderatzen. Kristau moralaren auzia da nagusi, bizitzaren indarrarekin lehian. Zalacainen pertsonaiak ezaugarri nabariak ditu, heroi gazte ausart eta noblearenak.

Pertsonaia honen intertestualitatea suma daitekeen gudaosteko zenbait euskal eleberritan, baina hark bezala, pertsonaia nagusiaren bizitzaren eta heriotzaren aurreko ikuspuntua liburuaren ardatz bilakatzen duen bakarra Bernardo Atxagaren *Sara izeneko gizona*-ko Martin Saldias espian mamituko da. Aitzitik, gaia errealismoaren esparrura eramanez tratatuko duten idazleen artean aldiz, pertsonaien ekintzak ez du hausnarketa bitalean hartuko ardatza, haren premia eta ezinaren arteko lehian baizik. Hala dira aipagarri Robert Laxalt-en *A cup of tea in Pamplona* (1985) edota A. Lertxundik *Tobacco days*. Bernardo Atxagaren zenbait pertsonaietan, aldiz, norbere baloreak, norbere moralaren printzipioak jarriko ditu auzitan jarduera honek. Arlo pribatuan bilatzen ditu zio nagusiak: norbere arimaren pasioak dira auzigai.

*KAFEA HARTZEA IRUÑEAN* (1986) hobeki ezagutzeko, azal dezadan Robert Laxalt kaliforniarak *A cup of tea in Pamplona* (1985) eleberraren aurretik, 1957an bere aita zuberotarraren ibilera amerikanoak kontatuz *Sweet Promised Land* ospetsua argitaratu zuela, euskaraz *Dominique* (1988) izenburuaz argitaratu zena. Iparrameriketean euskaldunek nortasun berezia izatea lortu zuen lehen liburu haren bidez; amerikar literaturan euskaldunen lehen isladapen adierazgarria eman zuen eta haren arrakastaren ondorioz ospatu zen lehenengo Renoko Mendebaldeko Lehen Euskal Festivala (Nevada) 1959an abian jarri zuen euskal ikasketen esparrua Estatu Batuetan, 1967an finkatua Nevadako Unibertsitateko Basques Studieseko Programaren bidez. Laxalt bilakatu zen Ameriketako euskaldunen munduaren interprete literarioa. Gero, Euskal Herrira eginiko bidaiak eta egonaldietan oinarrituz, gizarte nekazari herritarraren erretratu literario ez topikoak osatu zituen *In a Hundred Graves* (1972) eta aipagai dugun *A Cup of Tea in Pamplona* (1986) liburuetan<sup>31</sup>.

---

<sup>31</sup> *A Cup of Tea in Pamplona* (1985), euskaraz, *Kafea hartzea Iruñean* (1986) itzulitakoa eta gerora idatziriko *The Basque Hotel* (1989), 1980etako Pulitzer sarirako hautagai izan zirela, kalitate literarioaren aitormen gisa.

Kaliforniarraren ikuspegiaren berritasuna formulatzeko, gogoan hartu behar da gizarte indibidualista batetik datorrenaren begiradak Euskal Herri tradizionalako bizimoldea distantzia batetik ikusten duela, lilurarik gabe. Daskona-gerrek, Lotik, Barojak edo Urabayenek ezaugarritzat izandako ikuspuntu idealistatik, lirikoari, epikoari edo sentimentalari uko egiten dio erabat. Laxaltek narrazio gihartsuaren bidez aurkezten ditu pertsonaiak bere gorrian, sobredimentsiorik gabe. *Kafea hartzea Iruñean* narrazioan erabaki okerra hartu duen gizon baten hondoratzea kontatzen da, suspentse zentzu egokiz kontatu ere, protagonistaren patu ilunaren auresentipenak ereiten baititu trebetasunaz liburu osoan zehar, amaiera etsikorra iragarritz. Ez da harritzeko liburuak hainbat edizio ezagutu izana, gazteei gomendaturiko irakurketen artean sartu baita, eta horretan A. Lertxundiren *Tobacco days*-en kideko da (1986). Kontrabandoaz dihardu honek ere, teknika aldetik zinematografiaren eragin handiaz eta pertsonaiaren ezaugarriak eleberri genero "beltza"ren esparrura lerratzen direla. Laxalt edo Lertxundiren narrazio zimel eta betelanik gabekoetan aurrekoetako osagai epiko edo lirikoak, ludikoak edota kostunbristak erabat desgertuak dira. Ez dago erromantizismoaren arrastorik, ez abenturazalerik, protagonistak diru-goseak beharturik hurbiltzen dira bizitza gogor horretara eta euskal gizarte egitura tradizionalaren kritika iradokitzen dute.

*SARA IZENEKO GIZONA* (1996). Bernardo Atxagaren liburu honen protagonista Martin Saldias espioi karlistak Barojaren pertsonaiarekin ahaide-tasun nabarmenak ditu, nahitara ekarritako identitate antzekotasunak, agian bien arteko aldeak hobeki nabarmenarazteko. Haren izen bera edukitzea da horren lehen zantzu intertestual adierazgarria, baina horretaz gain, sakoneko izpiritu noble eta independente beraren jabe da Saldias. Zalacainen irradiazioa jasotzen du, Zalacainen kideko da nortasunaren aldetik, gerra karlisten testuinguruarengatik eta ekintzarako ausardiarengatik eta odol hotzagatik. Bestalde, Sara izenez estaltzen du bere benatako nortasuna eta Martin Zalacain Zaro izeneko Iparraldeko herrian bizi da emaztearekin, deskripzio zehatzei erreparatuta, aho batez Sara herriaren mozerro arina besterik ez dela suma daitekeena. Saldias ardo komertzianten baten itxuraz joaten da Irurtzuneraino, Zalacain Estellara bezala. Bestalde, Zalacainen eleberrian bezala, gerrate karlista honetan parte hartzen duten lejitimista frantsesen presentzia nabarmena da bi eleberrietan: Barojarenean, Cathelineau generala, Haussonville konde jatun eta atsegina eta Barrot kondea; Atxagarenean Bordelais eta Lacost dira, baina bereziki Barrez, Saldiasen aurkaria.

Saldias espioiaren inguruko abenturak aitzinagotik idatziak bazituen ere, 1990an Euskadi Irratirako idatziriko gidoieta bat baitzen, 1996an eman

zuen argitara liburu gisa. Garai beretsukoa da Atxagaren hitzaurre interesgarriaz argitaraturiko Barojaren *Zalacain el aventurero* liburuaren edizio berritua (Millenium, 1999). Hitzaurre horretan adierazten du Barojak Zalacainen protagonistarengan Ulises heroi mitikoaren dohainak kokatzean adierazi zuen barneko nostalgia bat: gerlari greko eta troiarren jokabidearen gidari ziren kualitate moralen mira egiten omen zuen. Atxagaren iritziz, Euskal Herriko nekazari herrietan aurkitzen zuen Barojak antzinateko mundu hartako bertuteen oihartzunik, Madriliko edota Bilboko hiritar bizitzan gailentzen ziren bizimoduan ez bezala.

Gazteentzako abentura eleberri baten trazak dituzte bi liburuek eta “generoko liburuek” balira bezala hartu izan dira, baina Ricardo Senabrek frogatu bezala, Zalacainek heroi baten ziklo mitikoa osatzen du, bizitzaren aurreko jarrera baten adierazbide: akzioko gizakiarena. Atxagaren Martinek, aldiz, abentura trazak izan arren, beste tornu bat hartuko du, beste modu bateko heroiarena. Ekintza gizona izan arren, gerraren miserien inguruko hausnarke-ta egin eta alde egiteko hautua egiten du. Martin Saldias Martin Zalacainen ifrentzu hausnarketaria da, heriotzaren alde ilunari errespetuz begiratzen dio-na, hala etsaien nola laguneren heriotzari. Paralelotasunak badira, baina ezberdintasunak hobeki agertarazteko eginak dirudite. Esate baterako, nabarmenak dira barojazalearentzat egoera eta jarreraren arteko paradigmak, besteak beste, Zalacainek Santa Kruz apaizarekin topo egiten duenean ez dio hark beldurrik eragiten, ez Don Carlos erregegaik errespeturik. Saldias, aldiz, Zumalacarregi jeneralaren lilurak erakartzen du, eta lehenik, errespetuz eta ondoren iluntasunez begiratzen dio. Gerra eta heriotzaren alderdi ez heroikoaren gaia da liburuaren jomuga eta tonu beretsukoak dira, Barojaren liburuan zehar gerlako pasadizo ez epikoez eta absurduak duten presentziarekin. Martin Zalacainekin Urbian elkartzten den atzerritarrak dioen moduan: “¿Pobre país! ¿Cuánta brutalidad! ¿Cuánto absurdo!” labur daiteke Barojak gerla karlistez duen ikuspuntu ezkorra.

Hortaz, ezberdintasunak antzekotasunak bezain esanguratsuak dira, izan ere, Atxagak Zalacainekin bilatu duen intertestualitatea ez da istorioaren kontestualizazio historiko-literarioaren behar bat soilik. Saldiasek Zalacainen beharra du bere nortasuna, jarrerak eta erabakiak behar bezalako sakontasuna har dezaten, perspektiba eta oihartzuna izateko irakurlearengan, honek Saldias Barojaren pertsonaiaren akorduarekin senidetu dezan; horregatik, behar du haren oroimenaren aztarna ernarazi. Saldias ez dute abenturazale gisa ikusi behar, ez baitu Zalacainek bezala ekintza beharrak hausnarketa luzerik gabe aurrera egitera bultzatzen; aitzitik, bere baitan etengabe dihardu pentsaketan,

eta inguruko gertakariak eraginda baino gehiago, bere dedukzio pertsonalek eramango dute korapiloak askatzera bai eta, azkenean, espioi edo “gezurti” lanak uztera. Martin Saldias, Martin Zalacainen oinordeko zoritua da adinean ezezik idealismoan. Bere ideiangatik onartu du karlisten “gezurtia” izatea, lehen gerra karlista piztean; Zalacain aldiz, idealismo horren arrastorik gertatzen ez den garaian kokatzen da, mertzenario baten gisan, maisu izan duen Tella-gorrik entrenatu baitu horretarako: “Ni con los blancos ni con los negros. ¡Al comercio, Martin! ¡Al comercio! Venderás a los liberales y a los carlistas”.

Barojaren eta Atxagaren bi Martinen artean antzekotasunak adierazgarriak direnez, irakurketa intertestuala eskatzen dute interpretazioan. Antzekotasunek eta ezberdintasunek irakurketa osoagoa eginarazten diote irakurleari, gainerakoan suspentse narrazioa soilik izango litzatekeen honen inguruan. Horregatik, bi pertsonaien arteko aldeak interpretagarri gertatzen dira: adina, izakera eta jarrerak aldatzen dira, besteak beste. Zalacain abenturazale heroikoa mutil gazte sasoikoa da, Martin Saldias aldiz berrogeietan dago, ezkongabea da eta itsasgizon zaildua. Karlisten aldeko ideiak dituelako hartuko du betebeharrak arriskugarria, baina bizi esperientziak emandako ikuspuntu umoak gertakariak aztertzeke odol hotza izaten laguntzen dio.

Horregatik da bereziki adierazgarria narrazio laburraren amaiera: etsaiarekin borroka egin beharrean, Zalacainek eta Ohandok bezala hil ala biziko borrokan amaitu beharrean, Saldiasek eta bere etsaiak epika izpirik gabeko amaiera duina ematen diote gatazkari. Barrez militar misterioitsuak elkarriketa argigarrian hala esaten dio: “Gauzak hola, nire iritzirako bi aukera dauzkagu: edo gela honetan bertan borroka egin batek bestea garbitu arte, edota adostasun batera iritsi eta Irurtzundik alde egin”. Barrez-ek proposatzen duena irabazlerik eta galtzailerik gabeko irteera da, “tontoen paparra dotoretzeko baino balio ez duten leialtasunei itsu-itsuan” ez jarraitzea eskatzen du. Ez dezagun ahantz azkenik bukaerako kapituluak ere baduela ukitu barojari interesgarriak, ezkontza-eskea Martini Arenal kafeko ugazaba-andreak egiten baitio, Barojaren Don Juani bezala... baina intertestualitate hori zantzu ironikoa soilik da liburu honetan, begi-kliskara leuna barojazaleontzat.

Pirineotako bortuetan, Txomin Peillenek “*Frontières et mentalités en Pays Basque*” artikuluan aipatzen duen moduan<sup>32</sup> kontrabando eta espioitza pasarte ilunik ezagutu dira, baina heroien gertaleku mitikoa ere izan zen, II. Mundu

---

<sup>32</sup> M. Lafourcade (ed.), *La Frontière Franco-Espagnole: lieu de conflits interétatiques et de collaboration interrégionale*. Actes de la journée d'études du 16 novembre 1996, Biarritz: P. U. de Bordeaux, Peillen 1998:116-8).



gerran Europan jausitako pilotu ingelesei ihes egiten laguntzeko Kometa Sarean parte hartu zuten kontrabandisten ausardiari esker<sup>33</sup>. Fikziozko literaturan, aldiz, *oihan-zorrien* bizimodu misteriotsuak, zenbait pertsonaia literario sorrarazi zituen, Zalacainez gain; batzuetan, pertsonaia errealetan oinarrituz, hala nola, Makaiako Ganix, Ramunchoko Itxua edo Haritxabalet apeza eta hala, era bateko eta besteko mugez gaindiko pertsonaien ibileren irudi fikzionatua tinkatu da Pirineoei atxikiriko gure irudimenean, liburu baten poderioz, paisaia barojianoak bilakatu ziren haietan. Zalacain da haien paradigma nagusia, aurrekari erromantikoen artean erpina. Intertestualitate berezia moldatu du abenturazalearen mitoak ondoko pertsonaietan proiektatzen den irradiazio-itzal nabarmena dela bide, eta oinordeko errealistek tonu batez eta bestez berrelaboratu dute, irakurketa berrietara irekiz: Laxalten Nikolas tragikoa, Atxagaren Martin burutsua. Pirineotako kontrabandozaleen inguruko pertsonaietan testuartekotasun partziala iragarri badaiteke, Atxagaren pertsonaian aldiz, zehaztasunez sumatzen da intertestualitate orokorren artean sailkatzen dela. Horretarako bidea ematen dute pertsonaiaren izena eta kronotopoak, paralelotasun aktantzialak, nahiz genero eta gaiak, indarturiko testuartekotasun adierazgarria. Zalacain bezalako pertsonaiek entitate iraunkorra iritsi dute, asteasuarrak 1999ko hitzaurrean adierazi zuen moduan, literatura unibertso kolektiboan diraute leku eta denbora barojiarretan, beren ekimenez arrunkeiaren erdian eraiki duten mundu heroiko propioan.

---

<sup>33</sup> Kometa Sarea zeritzan 1941-1944 artean Belgikan eta Frantzia eroritako pilotoak gorde eta kanporatzeko organizazioa, Mantxako kanala gurutzatzea ezinezko egin zitzaizenean, Espainiatik Gibraltarrera eramaten hasi ziren. Pirineoak zeharkatzeko behar zituzten kontrabandistak, gero Ingalaterrako embaxadak laguntzen baitziren Donostiako Bernardo Arakamak abixua emandakoan. Mendi ibilaldi luzea egin behar zen zortzi edo bederatzir orduko, arriskutsua mendiaren gogortasunagatik, eguraldiagatik eta bi aldeetako mugazainengatik. Florentino Goikoetxea kontrabandista hernaniarra eta Gerra Zibilaz geroztik ihesi exiliatua bizi zenak eskaini zuen laguntzarik gehien. Orson Welles-ek ere jaso du horren berri "The basques land" erreportaian (1957).

# Erron (Nafarroan) aurkituriko testu bat: edizioa eta iruzkina<sup>1</sup>

ORREAGA IBARRA MURILLO

Nafarroako Unibertsitate Publiko  
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika saila

## 0. Sarrera

Erron (Erroibar-Nafarroa) aurkituriko testu bat daukagu eskuartean. Hau ere *Azarrea*<sup>2</sup> deitutako etxean agertu da, aitzineko bertze izkribu bat —*Exorto para el que ha de recibir el Smo Viático*— agertu zen toki berean (ik. Ibarra 1997). Egilea nor zen ez dakigu, badakigu herriko apaiz bat baino gehiago bizi izan zirela etxe honetan. On Pedro Espinal jauna izan zen azkena, eta etxe honetan egon zen 1870-1940 urte bitartean, azken berrogei urteetan herriko apaiza izan zelarik. Honen aitzinean, etxe bereko semea On Manuel Ripa egon zen, XIX. mende bukaeran, 1891 urteetako bataioko agiriak sinatzen baitzituen.

Nolanahi dela ere, Erroibarko hizkera islatzen dute biek. Hala ere, bi izkribuak xeheki begiratu ondoren, bi egile desberdin zirela uste dugu; letra nahiko desberdina dela ikusten baita. Eta ezaugarri dialektalei dagokienez, hainbat ezaugarritan bat datoz, baina, bertzeetan ez.

Kasu honetan, folio tamainako orrialde bakarra dugu eskuartean, ongi kontserbatua, goiko partean gurutzearen ikurra eta latinez idatziriko izenburua duena. Letra ulergarrian idatzia dago eta testuan zehar pare bat esaldi tartekatzen ditu latinez. Gure edizioan paragrafoak jarri ditugu, nahiz originalean dena jarraian idatzia agertzen den, kasu batzuetan puntu eta koma bereizirik. Edozein modutan, xeheki aztertu nahi duenak lan honen bukaeran, faksimil osoa aurkituko du, alegia, Isidro Murillok ikasminetz ekarritako testua.

---

<sup>1</sup> Lan hau MEC-eko FF12008-01844, ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da, *Origen y evolución de los dialectos vascos* izena duena.

<sup>2</sup> Nire eskerrik beroenak nire lehengusua den Isidro Murillori, izkribu hau berak aurkitu baitzuen etxea zaharberritze lanetan zebilela, apaiz honen bertze paper batzuen artean.

Gaiari dagokionez, erran behar da igande batean predikatzeko idatziriko sermoia dela, Jesukristoren erreksurekzioari buruzkoa, hain zuzen ere, Maria Magdalena eta bertze Mariak hilobira joan zireneko gertakaria kontatzen du.

Hitzen egiturari dagokionean, aditz nagusia + aditz laguntzailea edo izena + erakuslea, eta zenbait morfema (balin) aditzetatik bereizi ditugu aldaketa fonetikorik ez dagoenean. Horrela, gaurko modura egokitu dugu, gehienetan orijinalean itsasirik idatziak agertzen baitira. Honelakoetan, ez da testu oharretan ezer adierazi. Aitzitik, aldaketa fonetikoak suertatzekotan, dagoen dagoenean utzi ditugu. Bertzetik, ortografia iluna dagoenetan, eta horrelakoe-tan, orripeko oharren bidez zehaztu dira dagozkien iruzkinak.

Erabilitako ortografia garai horretan ohiz erabiltzen zena da. Alegia, <qu>, <c> herskari ahoskabea ordezkatzeko: *andiarequin, nuque, aurquitu, idiquicen, osoarequin, yguzquia*.

Bertzaldetik frikari bizkarkarien kasuan <c> dugu *e* eta *i* bokalekin: *aicen, juicioa, cergatic, ceñere, participante*. Usuen gertatzen denez, <c> grafemak herskari ahoskabea ordezkatzeko du silabaren bukaeran: *escuac, juicioac, illac, viciac*.

Gisa berean, <gu> herskari ahostunerako balio du: *ongui*. Azkenik, aipatu behar da zenbaitetan azentua erabiltzen duela: *Ó, besarcácen*. Nolanahi dela ere, xeheki aztertu nahi duenarendako, horra eranskin gisa, lan honen bukac-ran orrialdearen faksimila.

Afrikatuez den bezainbatean, gehienetan <c> grafema erabiltzen da gure <tz> ordezkatzeko <e, i> bokala duten silabetan: *besarcacen, salcen, dulcea, ainberce, vioceco, jarduquicen, juntacen, celebracen*. Eta <ch> sa-baikaria ordezkatzeko: *echeetan*. Gainerako bokalekin <z> ageri da: *ilenzat, lizayteque*. Bi kasutan, ordea, kasu gutitan bada ere, <tz> ageri da: *biotz, eta itzac*.

## 1. Fonetika-fonologia

1.1. Hurbileko bokal asimilazioarekin hasiko gara. Lehenengo eta behin erran behar da testu honetan ez dagoela ia asimilaziorik, alegia, *i* eta *u* bokalen ondoren *a > e* bilakatzen duen ezaugarriarik ez da ia ageri. Nahiz gaurko hizketan askoz ugariagoa den, lehen azterturiko hemengo testuetan ere adibide guti aurkitu genuen (cf. Ibarra 1997: 269), *mie* eta *dire* kasu bakarrak dira: *joaten dire, alegracen dire*. Gainerako kasuetan -a- dugu hitz barnean nahiz bukaeran:

*vicia, gloria, misericordia, andiarequin, yguzquia, illobia, habiatu, noticia, maia, infernua, mundua, mandamenduac, ainguiruac, crucifcaua, buruac, sanduan, escua.*

Azterturiko hemengo bertze testuetan ere ikusi dugu asimilazioa ez dela oso oparoa; aldiz, egungo Erroibarko gaurko hizketan —erabat sistematikoa ez bada ere— anitz ere ugariagoa da. Aipaturiko hau gertatzea nahiko fenomeno arrunta da dialektologian; litekeena da fenomeno hau berrikuntza izatea eta gero eta emankorragoa suertatzea azken urteotan, edota idazkiek duten jantzi kultoarengatik, fenomeno hau ez islatzea.

1.2. Bokal bilkurei dagokionez, *ea* taldea ongi gordetzen da kasu gehiengotan, hertsi gabe, morfema barruan nahiz kanpoan: *erredimicea, videa, aldean, andrea, caridadea, maitacea, iatea, edatea, artean, virtutearena*. Kasu bakar batean, *ea* > *ia* itxiera daukagu *azquenian* hitzean.

*Oa* bokal taldea ere bere horretan gorde da, ez da hersketarik sortzen: *Jaungoicoac, erredencioa, joaten, osoarequin, balsamoac, nazarenoa, discipuloac, amorioa, juicioa*. Horretan bat datoz ezaugarri hauek Erroko bertze testukoekin. Nolanahi dela ere, aldaera idatzietan forma jasoena islatzen da, nahiz gaurko hizketan ixteko joera nagusitu den.

*Au*-ren monoptongazioa eriden dugu adibide batean: *au* > *a*: *arquitu*.

Eta bokal ixketekin bukatzeko, *e* > *i* dugu hitz hasieran eta tartean hementxoak diren ohiko hitzetan, bietan asimilazioa *i-i* eginez: *iguzkia, idiquicen da*. Bertzaldetik, ondoko silabaren eraginez sortuak dira: *ainguiru* bezalako hitzak, eremu honetan arruntak direnak.

1.3. Jakina denez, sinkopatzera dagoen joera handi xamarra da eremu honetan, goinafarreran bezala. Hala ere, testu honetan adibide bat bertzerik ez dugu: *atra*.

1.4. Bertzaldetik, bokal protetikoak erakusten du honako lexemak: *ekendu*, gaurregun Erroibarren eta Aezkoan erabilia. Eta metatesiaren bidez sorturiko hitza ere badugu: *presuna* ‘pertsonea’, Erroko bertze testuetan ere agertzen zaiguna.

Kontsonantismoari joango gatzazkio oraingoan:

1.5. Errotazismoaz den bezainbatean, esperatzekoa denez, kontsonante dardakariak eta -rtz- taldea nagusi da, -st- txistukariz osatutakoaren ordeztu: *erran* eta *ainberce*.

1.6. Yodari dagokionez, <i> grafema dugu hitz hasieran: *iaten, iarriric, iarduquicen* igurzkari sabaikaria ordezkatzeko, baina <j> grafema ere agertzen zaigu, seguruenik belarea ordezkatzeko mailegu berrietan eta *joan* aditzean: *juntacea, jaungoicoac, Judas, Jesuchristo* eta *joaten dire*. Ohar bedi, *joan* aditza gaurregun ere belare bezala ahoskatzen dela, nahiz gainerakoetan igurzkaria nagusi den. Honenbertzez, belarearen eta igurzkariaren txandaketa *joan* lexeman ez da gaurko berrikuntza, aspaldiagoko kontua da, bistan denez.

Bertzaldetik, <x> grafema erabiltzen da posizio inplosiboan, kasu honetan belarea ordezkatzeko helburua du eta pertsonari egiten dio erreferentzia, gaztelaniazko *prójimo-ri*: *proximo laguna*.

1.7. *n/l*-ren arteko txandaketaren ondorioz *belaurico* aldaera daukagu, alegia dardarkariak txandakatzen dira ahoskune berbereko sudurkari eta albokariekin.

1.8. Palatalizazioari dagokionean, eremu honetan indar handirik ez duela badakigu, hala ere <ill> duten kasu ugari aurkitu dugu, *i* bokalaren eta bokaerdiaren ondoren: *illac, zoecillaric, illobia, eillegatu, illobia, cebillan*. Kasu gutxi batzuetan <il> erakusten duten adibide despalatalizatuak aurkitu ditugu: *bilatzzen, ilencat* eta *familiac*.

1.9. Era berean, <ñ> nahiko maiz agertzen zaigu *i* bokal osoa eta bokal erdiaren ondoren: *biña, gainñian, ceññere, baiño, ceññ*, eta kasu batzuetan bokal osoaren ondoren: *iññore*.

1.10. Txistukarien sailean <x> dugu igurzkari sabaikorako: *berexi*, eta <ss> grafemak ere soinu bera ordezkatzeko du: *aissquideac*.

1.11. Kontsonanteen bilkuretan, azpimarragarria suertatzen da aditz laguntzailearekin sorturiko kontsonante ahoskabea: *ez + d- > ezt-*: *eztaki, ezta licitoric*. Eta, bertzaldetik, hasierako herskarietan ahostuna nagusitzen da: *becatari, gorpuz*.

## 2. Izen morfologia

Deklinabidearekin hasiko gara:

2.1. Kasu genitiboan *-aren* > *-ain* bilakabidea gertatu da anitzetan: *salcen duenain escua, erresurecioain*, baina ez beti, izan ere kasu batzuetan bukaera osoak agertzen dira: *Jesuchristoren erresureccioa, virtutearen*. Etxe berean ager-

turiko bertze testuan ere gauza bera gertatzen da. Erroko elizako predikuetan, ordea, *-ain* bukaera da nagusi (cf. Ibarra 1997: 273).

Batzuetan, gainera, izena + izenlaguna hurrenkera idatzirik daukagu: *Izena birtutearena, obra Judasena*. Bukatzeko, genitiboan hemengo forma indartu bat ageri zaigu: *ceren* (= zeuen), *ceren burua eta juicioac*.

2.2. Leku genitiboan *-tako* mugagabea agertzen zaigu, *eskuin* hitzarekin: *escuñetaco*.

2.3. Harrigarria bada ere, *-rentzat* agertzen zaigu kasu destinatiboan: *ilentzat, sanduentzat, becatarientzat*, baina *-dako* ere ageri da: *dutenendaco*. Aldiz, Erron aurkituriko etxe bereko bertze testuetan *-dako* da nagusi, goinafarreraz eta Erroibarko gaurko hizketan ohikoa den bezala. Honenbertzez ezaugarri honetan aldentzen da eremu honetako bertze testuetatik (cf. Ibarra 1997: 274).

2.4. Kasu sozietiboan *-rekin* da morfema ohikoa: *biotz osoarequin, amorio andiarequin, Jesuchristorequin*. Bukaera hau ez dator bat etxe berean agerturiko bertze testuarekin, horretan *-reki* zen morfema. Zaila da, honenbertzez, egile berarenak izatea Erroko bi izkribu hauek, lehen eta orain agerturikoak, horrelako txandaketa erakutsiz gero (ik. Ibarra 1997: 274). Litekeena da, garai hartan *-n-dun* eta gabekoen arteko txandaketa izatea. Hala ere, testu batean txandaketari eustea, eta bertzean sistematikoki ez, harrigarria suertatzen da. Horrek adieraz dezake bi egile desberdinez ari garela.

2.5. Kasu datiboan, Erroko bertze testuetan gertatu bezala, *-ei, -eri* dira erabilitako morfemak: *elkarrei erraten zioten, bere discipuloeri*. Aipa, bideneabar, izkribu honetan ez dagoela *-er* morfemarik, gainerakoetan agertzen zen bezala. Hain zuzen ere, *elkar* izenordainarekin eraikitako esaldiak, arauak agindu bezala egituratzen dira, egungo hizketan hain entzunak ez badira ere.

2.6. Kasu instrumentalean *-z* dugu: *escuz, viocez, miez*. Etxe berean agerturiko bertze testuetan, ordea, *-s* da nagusi. Honenbertzez, ezaugarri honetan ere ez datoz bat lehen eta oraingo testuak. Litekeena da txandaketa aspaldikoa izatea. Xuarben agerturiko bertze testuetan, baina hemengotzat jotzen ditugunetan, txandaketa nagusi baitzen (Cf. Ibarra 2000a).

2.7. Kasu partitiboa agertzen da izenaren absolutiboaren morfema bezala: *amorioric andiena, becataric andiena* eta *ezta licitoric*.

2.8. Esperatzekoa denez, kasu ablatiboaren plurallean *-tarik* morfematik eratorriko formak ditugu, alegia, *-taik*: *alegrietaic eta consoluetaik berexic*. Forma hauek batera datoz Erroko bertze testuetan aurkiturikoekin.

2.9. Erakusleei dagokienez, lehen graduko erakusle pluralerako, bokalerdiaren kontsonantizazioaren bidez, *ebek, caritate evec* (= hauek) sortzen da, Erroibarren ohikoa den bezala.

2.10. Jakina denez, erakusleeetan eta izenordeetan iparraldeko euskalkiek hasperena duten bitartean, erronkarieraz *k-* izan ohi dugu: *kau, kori, kura* eta aezkera eta goinafarrerazko zenbait tokitan *g-*: *gau, goi, gura*. Horrela, Erroibarren lehen graduko erakusle singularrek eta beren deklinatuek hartzen dute *g-* kontsonantea hitz hasieran: *becatari gonec, virtute divino gau, egun gau, noticia gonequin, andre gonena, egun gontan*. Aipaturiko erakusle hauek izenki baten atzean gorde dira, ez balio anaforikoan.

2.11. Azpimarratzekoa suertatzen da *artean* adizlagunaren balioa: *uste ducie asqui dela elcarrequin iatea eta edatea ceren buruac eta juicioac galdu ar-tean; aste sanduan garbitu diciena ciquindu ar-tean*. Erranahia ‘arte eta bitarte’ da. Aldaera hau erabiltzen da hemen, nahiz egungo ahozko aldaera arrunta *artio* den: *sarri artio* (= gero arte).

### 3. Aditz morfologia

Aditz sailean honako fenomeno hauek suertatzen dira aipagarri:

3.1. *Egon* eta *izan*-en arteko lehia dela eta, *izan*-en adizkiak ugariagoak dira gure eremuan. Horrela da iparraldean ere, honenbertzez, *egon* aditzaren ordeztan *izan* dugu, horrela Erroibarko hizketa iparraldeko usadioekin lotuago agertzen zaigula erran dezakegu: *Jesuchristo nazarenao crucificatua, ezta emen. Ezta mundu ontan presunatic. Ezta inorere*.

3.2. *Eraman* aditzaren ordeztan, alde batetik *ereman* aldaera dugu eta bertzetik, *eman* eta harengandik eratorritako formak: *amorioac dama, caridadeac dama*.

3.3. Erroibarren Nork aditzaren pluraleko 2. pertsonaren morfema *-zie* da eta ez *-zue*, Ultzaman eta goinafarrerako eremu batzuetan ohi den bezala. Testu honetan ere aldaera hori nagusitzen da: *uste duzie, garbitu diciena, celebracen ducein* (sic). *Jakin* aditzarena ere morfema honekin osatzen da: *badaquicien*.

3.4. Nork-nor aditz sistemako laguntzaileak agertzen zaizkigu, nahiz eta egun erabat galduak dauden hizkera arruntean, eta nork-nori-nor aditz sistemakoak nagusi diren. Honatx testuko adibidea: *Ni entregatu beaninduen es-cua*. Erron azterturiko bertze testuetan ere nork-nor sistemakoak ugari dira (Ibarra 1997: 276).

3.5. Ezaguna da, gaurko hizketa arruntean Erroibarko aditz laguntzaileetan lehen aldiko aditzek *-n* galtzen dutela, aezkeraz eta goinafarrerako hizkera batzuetan bezala, nahiz Aezkoan nola Artzibarren eta Esteribarren dimorfismoa nagusi den. Testu honetan ez da, dena dela, horrelako adibiderik ageri, azterturiko Erroko bertze testuetan ere kasu batean bertzerik ez genuen eriden. Horrela, ageri diren aldaerak *-n*-dunak dira: *eguin zuen, ebaci zuen, icasi zuen, saldu bear zuen, acabatu zuen*.

Izan daiteke aldaera jasoak erabiltzen direlako forma idatzietan, eta *-n* gabekoak, aldaera arruntatzat hartzea. Izan ere, Erroibarko xx. mendeko hizketa arruntean joera galtzearen izan da, eta hori dela eta, garai honetako forma arruntak *nitze, zue* eta *nue* ziren.

3.6. Pluralgileaz den bezainbatean, *-it-* pluralgilea *t-* bihurtzen da, aferesiarren bidez adizkiaren aitzinean *edun*-en laguntzaileetan: *celebracen tucienaz*.

3.7. Zenbat eta ekialderago joan, aditz oinaren erabilera nagusitzen da aginterazko eta subjuntibo esaldietan: *alegra gaicen eta consola gaicen*, eta era laburtuak aditz laguntzaileetan: *gaitezen > gaizen*. Bertzaldetik, *joan* aditzean *zoezi* 'zihozen' azkeneko *-i-*duen forma agertzen zaigu: *zoecillaric*.

3.8. Nork-nori-nor aditz sisteman ez dago *-ako-*, *-akote-* morfemarik, arruntak direnak Erroibarko iparraldeko herrietan. 3. pertsonari dagozkion morfema horien ordeztu, *erran zion* bezalakoak ditugu. Azterturiko bertze Erroko testuetan ere ez dira aipaturiko morfema horiek agertzen (cf. Ibarra 2006: 276), nahiz egun Mezkitzen eta Artzibarko hainbat herritan arruntak diren.

3.9. *Behar* aditzak, laguntzailearekin elkartzerakoan, askatasun handia erakusten du eta aditza eskuinean lotzen ahal zaio *behar + izan* hurrenkera osatuz, goinafarreraz, aezkeraz eta ekialdeko bertze hizkeretan bezala. Honatx adibidea: *biozaz bear dire juntatu*. Gisa berean erabiltzen da *ari* + laguntzailea: *Judas aicen Jesuchristoren plateretic iaten*.

Bertzaldetik, *behar* aditzak, aditz laguntzailearekin elkartzerakoan, kontrakzioak sortzen ditu, *-r* galduz: *beaut, beaugu, entregatu beaninduen*. Hala ere, aldaera osotuak ere aurki ditzakegu: *bear zuen* eta *bear dire*.



3.10. *Jarduki* aditza nork sailekoekin loturik agertzen da: *iarduquicen dute aissquideac bezala*.

3.11. Aditz partizipioan ohikoa da *-rik* nagusitzea, ekialdeko eta erdialdeko hizkera askotan bezala, eta goinafarreraz iparraldekoan ez bezala (Sakanan salbu): *balsamoac erosiric, ill obia equenduric, belaurico iarriric*.

3.12. Aditz sailarekin bukatzeko, aginteran eta subjuntibo aldian *-o* agertzen da nori (hari) denean, nolabaiteko forma laburtua dugularik: *ereman zozute*. Horrela betetzen da bertze testuetan ere.

#### 4. Sintaxia

Azterketa dialektologikoetan urria da sintaxiaren aldakuntzak hartzen duen tokia. Hala ere, honako ezaugarri hauek suertatzen dira azpimarragarri:

4.1. Baldintzakoetan *baldin---ba* egitura duen esaldi bat dugu; alegia *baldin* partikula perpausaren aitzinean agertzen da, idatzizko testuetan ohikoa den bezala: *Baldin au asqui izan balitz*.

4.2. Datiboaren konmuztadura falta arrunta da kasu batzuetan, ondoko baztaneraz bezala: *Nik galdin nai nuque zuei*. Baina ez da beti horrela gertatzen, kasu honetan datiboaren morfema agertzen baita: *ereman zozute noticia gau bere discipuloeri*.

4.3. Denborazko esaldietan, *-larik > -laik* morfemak ordezkatu du *-nean*, funtzio guztietan goinafarrera hegoaldekoan ohikoa denez: *icusi tzuelaic, zoecillaric, eillegatu cirelaic*.

4.4. Osagarri zuzena genitiboan erabiltzea ekialdeko eta hegonafarraren ohiko egitura da. Testua oso luzea ez denez, ez dugu adibide anitz, dena den, agertutakoetan ez da gisa hortako eraikuntzarik ageri eta osagarri zuzena absolutiboan dugu idatzirik: *Jesuchristoren gorpuz illa untacera*.

4.5. Esaldi kausaletan *zergatik* egiturarekin hasitako perpausak ditugu: *cergatic egun gontan acabatu zuen bere obraric andiena; cergatic egun Jesuchristoren erresurecioain virtutearen medioz idiquicen da infernuu; cergatic dion bezala*. Bertzaldetik, *zertako* galdetzailea *zergatik* balioarekin erabiltzen da: *Zertaco negar eguiten duzu?*

4.6. Esaldi kontzesibo bat agertzen zaigu, aditz partizipioa + *gatic ere* egitura duena: *Ezta inõrere den becataric andiena izanagatic ere*. Egitura hau, gaurko hizketa arruntean ez da usu erabiltzen, idatziriko bertze testuetan, ordea, bai ageri da (ik. Ibarra 2000: 218).

4.7. *Zein ere baita* osagaiez eratutako egitura daukagu erlatibozko esaldietan, (cf. Ibarra 1997: 278) aitzinean azterturiko bertze testuetan agertzen den bezala: *cegatic egun gontan acabatu zuen bere obraric andiena, ceññere baita gure erredimicea*. Egun, ordea, ez da gisa hortako esaldirik agertzen.

## 5. Lexikoa

Lexiko arloan, eremu honetako aldaerak nagusitzen dira; batzuk azterturiko bertze testuetan ere ageri direnak, hala nola *presuna*, *proximo laguna*, eta gainerakoak Erroibarko erabilera arruntekoak dira:

*Ainguiru, aiskide, amorio, arquite, carrican, egun (= gaur), eillegatu, eken-du, ereman, galdin, goiztarrenik, ill obia, jarduqui, salutatu.*

Aztertutako honen ondorioztat erran dezakegu testu honek Erroibarko euskara islatzen duela. Hasieran genioenez, etxe honetan apaiz bat baino gehiago bizi izan zenez, izkribu hauek herri honetakoak direla eta kanpotik etortirako inork ez zuela idatzi pentsatzera eramaten gaituzte.

Dena dela, desberdintasun batzuk azpimarratu ditugu, egungo eta behialako hizkeren tartean. Batzuk diakronian zehar gertatu aldaketak dira, erraterako, Nork-nor-en erabilera lehen bai eta orain ez. Eta bertze batzuk, testu idatzietan erabiltzen diren aldaera kultoagoei erantzuten diete: *-ea* eta *-oa* bokal bilkurak nagusitzea testu idatzietan; edo *-ako*, *-akote* morfemarik ez agertzea; *-ain* eta *-aikin* genitibo eta sozietibo egituren urritasuna testu idatzietan, eta, azkenik, lehen aldiko aditzetan *-n* duten formak nagusitzea testu idatzietan, baina hizkera arruntean, ordea, maiz galtzea.

Eta bukatzeko, izkribu hau eta bertzea, Erroibarko aitzineko hizkera honen berezitasunak jakiteko erabat baliogarriak suertatzen dira, eta, hartaz, biak egungo euskararen egoerarekin parekatzeko lanabes baliogarriak gertatzen zaizkigu.

Nolanahi dela ere, bi eskuizkribuen grafia ikusirik bi egile desberdinek parte hartu zutela uste dugu. Grafia ez datoz bat, hainbat grafema < M-J-D-B...> era desberdinean idazten dira. Honenbertzez, bi testuek Erroibarko hiz-

kerak islatzen dute. Baina, bi apaiz ezberdinez ari garela erran dezakegu, hasieran genioenez bi apaiz bizi izan baitziren etxe honetan.

Dialektologia testu idatzien aitzinean dagoelarik, maiz ez daki izkribu horiek nork idatziak diren, ezta noiz ere, halako herritan agertu zirela baizik ez daki. Horrezaz gain, herri bereko ezaugarriekien batera, bertze ezaugarri arrotzak tartekatzen dira sarri, idazlearen eragin literarioak eta ezagutzak zein izan diren kontuan hartuta. Caminok, hau guztia ezaguturik, maisuki (Camino 2003: 45) sailkatu ditu Hego-nafarreran arreta handiz erabili beharko liratekeen idazle eta testuak.

Zaila da kontu horiek guztiak garbitzea, horregatik, ahalik eta zehaztapen gehien komenigarria da izatea egileari buruz. Kasu honetan prediku hau Erron agerturikoa dela eta etxe honetan herriko bi apaiz denbora luzean aritu zirela badakigu, bertze argazki eta objektuak atera baitira kajoietan horrekin batera. Hori dela eta, nahiko fidagarriak iruditzen zaizkigu izkribuak eta, honenbertzez, herri honetako hizkera jatorra nahiko leialki ordezkatzeko dutelakoan gaude.

## Resumen

*El objetivo de este artículo es analizar un texto escrito en euskera, encontrado en Erro (Valle de Erro, Navarra). A pesar de no estar fechado, creemos que puede corresponder a un texto del siglo XVIII. Se trata de un sermón que relata la Resurrección de Jesús. Analizamos las características dialectales del mismo comparándolos con otros textos aparecidos en mismo pueblo. Asimismo, lo cotejamos con el habla actual analizando las diferencias diacrónicas del euskera en este valle navarro.*

### **Hec est Dies, quam fecit Domus exubemus et letemus in ea:**

Au da eguna Jaungoicoac eguin zuena, alegra gaicen, eta consola gaicen egunontan: egun guciac eguin cituen Jaungoicoac, baiña egun gau eguin zuen guciengaiñan, cergatic egun gontan acabatu zuen bere obraric andiena, ceñere baita gure erredimicea erredimicea (gainean idatzita dago *errendencia*), ezta munduontan presunaric egungo alegrietan participante eztenic; egun alegracen dire ainguiruac eta guizonac, illac eta viciac, ceruac eta lurra, eta azquenan infernuak bera;

cergatic egun Jesuchristoren erresurecioain virtutearen medioz idiquicen da inferna, berricen da mundua, eta aguercen zaigu ceruraco videa.

Ezta iñorere den becataric andiena izanagatic ere egungo alegrietaic, eta consoluetaic berexic eta dagonic, cergatic dion bezala, Jesuchristoren erresurreccioa vicia da ilenzat, gloria sanduenzat eta barcamendua eta misericordia becatarienzat.

O cer eguna au Jesuchristo biotz osoarequin eta amorio andiarequin bilacen dutenendaco, goiztarrenic mugicen da duena, egun bada arguari orduco, yguzquia atra baiño len joaten dire balsamoac erosiric Jesuchristoren gorpuz illa untacera; zoecillaric elkarrei erraten cioten, baiña norc equenduco digu illobia; eillegatu cirelaic aurqitu zuten ill obia equenduric eta ainguru bat escuñetaco aldean iarriric, Maria Magdalena habiatu cen negarrez belaurico iarriric Jesuchristoren gorpuz illa obian icusi tzuelaic ustez norbaitec ebaci zuen eta Ainguiruac erran zion Andrea zertaco negar eguiten duzu, nor bilacen duzu? Jesuchristo nazarenoa crucificatua, ezta emen, erresucitatu zen, ereman zozute noticia gau bere discipuloeri;

Ó eta nola alegratu ciren noticia gonequin, iru Mariac eta discipuloac; eta Nola alegracen dira cristau onac; Jesuchristorequin erresucitatu direnac, becatutic atra direnac; Maria Madalenac bezala bilacen dutena; onec bezala perseberacenen dutenac; Ó cer amorioa, Ó cer caridadea andre gonena, amorioac dama, caridadeac dama arqitu baiño len Jesuchristoren billa;

Ó ceñ ongui icasi zuen andre becatari gonec virtute divino gau, maitacea Jaungoicoa gauza guciac biño gueiago, eta proximo laguna bere burua bezala, baita orai nic galdin nai nuque zuei, ainberce urte ontan celebracenen tucienaz guerostic caritateavec, ia badaquicien cer celebracenen ducein (sic); uste ducic asqui dela elcarrequin iatea eta edatea ceren buruac eta juicioac galdu artean, aste sanduan garbitu diciena ciquindu artean, ez ezta asqui au, eta ezta licitoric eta baldin au asqui izan baliz Judas etcen condenatuco;

adi zacie cer dion Jesuchistoc vioceco sentimentu andiarequin; *vezuntamos ecce manus tradentis me mecum est in mesa*. Ni entregatu beaninduen escua nerequin dago maian; Judasen escua, Judas aicen Jesuchistoren plateretic iaten, eta bioza cebillan nola Jesuchristo Saldu bear zuen; Ó eta cenbat alaco escu ote dire mundu ontan, cenbat juntacenen ote dire maian, besarcácenen dire elizan, eta echeetan, eta carrican, escuz, ez viocez, salutacenen dire, miez, ez biocez, *ecce manus tradentis*, ona salcenen duenain escua, icena virtuearena; obra Judasena; iarduquicen dute aissquideac bezala, itzac dulceac, eta biotzac odioz beteac, bada ala izatecoz obe lizateque batre ez juntacea, biozac bear dire juntatu, ez familiac,



**Bibliografia**

- Artola, K., 1992, “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (Hurbiltze-saiakera)”, *FLV* 60, 187-227.
- Camino, I., 1990, “Euskalki batzu hilzorian”, *Argia* 1990/ I / 14, 1275 zbk. 19-26.
- , 1991, “Aezkerazko testuak II: Orbarako dotrinak”, *ASJU* 25-3, 929-960.
- , 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- , (arg.) 1998, *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, Udako Euskal Unibertsitatea.
- , 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.
- Echaide, A., 1966, “Regresión del vascuence en el valle de Esteribar, Navarra”, *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas*, Pamplona, 257-259.
- , 1976, “Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas de “l” y de “n” debidas al contexto fónico en los dialectos vascos (...)”, *FLV* XXIII, 163-169.
- Euskaltzaindia, 1992, *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, *Agiriak* 1991-X-21/25, Bilbo, Iker 7.
- Ibarra, O., 1991, “Mezkirizko toponimiaz”, *FLV* 58, 301-357.
- , 1997a, “Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina”, *FLV* 75, 265-282.
- , 1997b, *Valle de Erro. Historia, lengua y costumbres*, Nafarroako Gobernua-Caja Rural de Navarra.
- , 2000a, “Xuarben aurkituriko testuak (II)”, *Huarte de San Juan* 5, 83-97.
- , 2000b, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- , 2006, *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Mendaur bilduma 4.
- Mitxelena, K., 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia.

- , 1976a, “Acentuación alto-navarra”, *FLV* 23, 147-162.
- Picabea, M.L., 1985, “Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro”, *Euskera* XXX (2. aldia), 227-232.
- Saragüeta, P., 1979a, “Trinidad Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)”, *FLV* 32, 333-338.
- , 1979b, “Nere oroimenak”, *FLV* 31, 171-175.
- , 1981, “Mezkiritz (Erroibar)”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, nº 3, 5-36, Príncipe de Viana, Pamplona.
- Satrustegi, J.M., 1985, “Perpetua Saragüeta anderearen euskal ipuiak”, *Egan*, Vol. XLIII, 131-139.
- , 1987, *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia, Iruñea.

**URRIAK 9 / 9 DE OCTUBRE**

---





# HIZKUNTZAK ETA GIZARTEAK

---

*Andoni Sagarna* (Argit./Edit.)



# Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan

MIKEL ZALBIDE

Euskaltzaindia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

## Sarrera gisa

Modan ez dagoen gai batez jardungo dugu gaurkoan. Oihartzun mugatua du gaiak hezkuntza-alorreko arduradunen, eragileen, profesionalen eta iritzi-sortzaileen artean. Hizkuntza-aldaeren<sup>1</sup> lekua eta eragina agenda eskolarretik kanpora dago. Ezer gutxi esaten da horretaz, ezer esaten bada, hezkuntza-mundua arautzen duten lege, dekretu eta aginduetan. Unibertsitate- edo ikerketa-alorreko aditu gutxik aztertzen du, bestalde, hizkuntza-eredu bateratuen eta aldaera jakinen arteko trataera eskolar egokiena zein den. Beste arazoez, eta arazo horiei aurre egiteko beste hurbilbide metodologikoez, dute pedagogoen artean lehentasuna. Gutxi dira, oro har, hizkuntza-aldaeren eskola-trataerari behar adina lan-denbora, emozio-ahalmen eta esfortzu intelektual eskaintzen diotenak.

Modan ez dagoen gauza batez jardutea ez da, berez, arbuigarri: zer aztertzen den, azterlana zer kalitatez eta zer dedikazioz egiten den eta,

---

<sup>1</sup> *Aldaera* zer den, eta zer ez, ez gara hemen zehatz-mehatz definitzen hasiko: auzo-hizkuntza nagusietako *variedad* (*lingüística*), *variété* (*linguistique*), *variety*, (*Sprach*)*varietät* direlakoan parekotzat ematen da hemen *aldaera* hitza, beti ere kontzeptu soziolinguistikoko horren adierasmultzo zabalena hobetsiz. Eskuaratean dugun xederako, *aldaerak* diogunean hiztun jakinaren errepertorio berbala, bere mintzaera-sorta, osatzen duten forma guztiak hartu nahi dira kontuan: bai lekuan lekuko mintzaerak, bai euskalki literarioak, bai nafar-lapurteraren edo gipuzkera osatuaren gisako estandar supradialektal baturanzkoak eta bai, azkenik, euskara batua bera. Baita euskara molde garbiak eta ez hain garbiak (euskara mordoiloa) ere, norbanakoaren ezaugarri puntual izatetik hiztun-talde jakinen mintzamolde zabal eta hein batean egonkor (eta horrenbestez, belaunez belauneko transmisio-gai) bihurturik dauden neurrian. Ez dugu hemen, sakontasun-maila berberaz bederen, egungo euskal hiztuneko edozein situaziotan eta edozein jardun-gunetan, rol-harreman jakinen arabera, ageri dituzten aldaera guzti-guztietz jardungo. Eskola-munduan era batera edo bestera presente dauden aldaerak izango ditugu aitzitik, unibertso zabal horretan, berariazko aztergai.

azkenik, lanketa horrek zer hobekuntza eragin dezakeen gizarte-bizitzan (kasu honetan hezkuntza-munduan), hori da benetan inporta duena. Modak moda izanik ere badago motibo sendorik, hizkuntza-aldaeren eskola-munduko lekuaz eta eraginaz geure buruari galdezka jarduteko. Gaiak badu garrantzirik, hasi berria dugun mende honetan ere: txostenean agertuko den zenbait datuk horren lekukotasuna eskaini nahi luke. Modernizazio-prozesuak, eta horren eskutik datozen mugikortasun geografikoak, hiritartzeak, ezkontzaz zein lanbidez lehen baino urrunagoko (askotan euskalki-mugez haraindiko) harreman-sare arruntak eratzeak, idatzizko jardunak eta ikus-entzunezko komunikabideen (oro har IKTen) leher-etzandak lausotu eta hutsaldu egin dute nabarmen, indartu ordez, hizkuntza-aldaeren (batez ere euskalkien) lekua eta eragina. Lehen ez bezalako oinarri demografiko, soziokultural, ekonotekniko eta politiko-operatiboak ditu hiztun-elkarteen bizibide berriak. Berrikuntza horrek gogor erasan ditu lekuan lekuko aldaeran oinarrituriko hizkera-molde informal eta intimo tradizionalak: aldaera arteko (ez aldaera bereko) solaskidez eratzten dira, gero eta maizago, euskaldunon arteko harreman-sareak eta jarduera-moldeak. Goazen bidetik goazela badago motiborik, ahultze-kontu horrek aurrera egingo duela uste izateko.

Jarduera soziokultural bat ahulduz eta gesalduz joatea gauza bat da ordea, eta zeharo desagertzea bestea. Ez da azken hori, oraingoz behintzat, begien bistan ageri. Aurrerago azalduko diren datuen argitan presente daude hizkuntza-aldaerak euskal hiztun askoren artean: baita irakasle askoren (batez ere etxetik euskaldun diren irakasle gehienek) errepertorio berbalean ere. Ez gara galtzeko zorian dagoen gertakari soziolinguistiko bitxi batez ari beraz, euskara bizirik dagoen ingurumen gehienetan eguneroko praxi arrunta den kontuaz baizik. Modan ez egon arren badu garrantzirik, horrexegatik, eskola-munduko zenbait adituk hizkuntza-aldaeren lekuaz eta eraginaz egi-ten duen gogoetak.

Nazioarteko perspektiba historikoa hor dago, bestalde. Orain ahazturik badugu ere garrantzi handia izana du hizkuntza-aldaeren eskola-trataerak Europan: kontinentearen iparrean, erdialdean eta mendebalean besteak beste<sup>2</sup>. Eskandinaviako hizkuntza-bilakaerak oro har, eta eskola-munduko aplikazio-moduak bereziki, argibide ugari emango liguke<sup>3</sup>. Norvegiera bien

<sup>2</sup> Ikus Anton M. Hagen-en 1987ko “Dialect Speaking and School Education in Western Europe”, in *Sociolinguistica* 1, 61-79.

<sup>3</sup> Ikus, hiru hizkuntza-esparru nagusietarako, Bengt Loman 1988: 209-31.

historiaz eta garapen-bideaz ezer gutxi dakigu. Dakigun neurri apalean argi ikusten da, halere, funtsezko puntua dutela dialekto kontutik harantzago doan bertako aldaera bien garapen konbergentea zein autonomiaranzko *Sprachpflege* edo *Ausbau*-lana. Aparteko garrantzia izana du mende luze batez, eta orain ere presente dago hainbatean, *bokmål* (lehengo *riksmål*) eta *nynorsk* (hasierako *landsmål*) aldaeren eskolaratze-bidearen eztabaida eta antolamendu instituzionala. Alemaniako hezkuntzaren historia soziokulturaz eta linguistikoaz dakigun apurrak ere kontuan hartzeko zerbait erakusten digu: aparteko garrantzia izana du bertan, bigarren mundu-gerrara bitartean bereziki, *Mundart* (iparraldeko *Plattdeutsch* eta hego-mendebaleko alemandialektoa bereziki) eta *Hochdeutsch* (batez ere *Allgemeine Schriftsprache*) di-relakoen arteko bereizkuntzak eta elkar hartuzko trataerak<sup>4</sup>. Lekuan lekuko aldaeren eta hizkuntza-eredu bateratuaren eskola-trataerak aparteko eragina du, orobat, Suitzan<sup>5</sup>, Luxemburgon<sup>6</sup> eta Flandrian<sup>7</sup>. Ele arteko zein ele barenko elebitasun-gune tradizionalak alde batera utziz, bestalde, Ingalaterrako bibliografia soziolinguistikoaren berri duenak ondo asko daki, Trudgill eta beste zenbait aditu gogoan izanik<sup>8</sup>, garrantzizko aztergaia dela orain ere kontu hori. Zer esanik ez Hong Kong moduko ingurumenetan, ingelesaren al-

<sup>4</sup> Ikus, beste askoren artean, R. Hildebrand 1867 eta V. Schirmunski 1930. Geroztik ere badu gaiak Alemanian, bibliografia teknikoaren argitan, bere garrantzia Ikus, adibidez, U. Ammon 1983, 1989 eta U. Ammon, (arg.) 1979; J. Macha 1981; L. G. Zehetner 1977.

<sup>5</sup> Ez frantses-hizkuntzako Suitzan, ia hilik baitira han bertako patois-hizkerak aspaldidantik. Bai ordea, partez, italiarazko zatian eta, aski era diferentean baina nabarmen, erretorroman-txezkoan eta, bereziki, aleman-hizkuntzako Suitzalde nagusian. Azken eskualde honi dagokionez, aleman batuaren eta aldaera suitzarren arteko uztardura aski ezaguna da. Ahozkoan bertako *Schwiizertütsch* (*Schwiizerdütsch*, *Schweizerdeutsch*) da jaun eta jabe jardun-gune eta rol-harreman gehienetan. Konkretuki, *Schwiizertütsch* horren aldaeraren bat. Lau mailatan sailkatu izan dira aldaerok (Ris, 1979, 51 hurr.): a) aldaera lokal-isolatuak, b) eskualdeko aldaerak (adib. Bernako *Oberland*-Goierrikoa), c) eskualdez gaindiko aldaera (adi. *Landberndeutsch*) eta d) orotariko aldaera, Schuchardt-en hitzez esanik *Ausgleichsdialekt* (adib. *Zürichdeutsch*). Idatzizkoan, berriz, hor dago aleman batu edo *Hochsprache* delakoa. Egia da azken hogeita hamar urteotan aldatzen hasiak direla kontu horiek ere. Eskuaratean dugun xederako aski da, ordea, R. Ris-en 1979ko azalpen klasikoarekin.

<sup>6</sup> *Letzeburgesch* delakoak idatzizko lanketa du Luxemburgoko eskoletan, alemanak (eta frantsesak) dutenaz gainera.

<sup>7</sup> Lekuan lekuko flamenko-aldaerek eta holandes batuak Flandrian (baita, partez, Holandan) oro har, eta hezkuntzan bereziki, duten banaketa soziofuntzionalaz eta trataera instituzionalaz ikus, adibidez, P. Van de Craen 1977, P. Van de Craen eta R. Willemyns (arg.) 1985 eta M. Verbruggen et al 1985.

<sup>8</sup> Ikus, adibidez, P. Trudgill-en 1975eko *Acent, dialect and school*, R. W. Shuy, (arg.)-ren 1964ko *Social dialects and language learning* eta W. A., Stewart, (arg.)-ren 1964ko *Non-standard speech and the teaching of English*.

daera bi, hiru edo gehiago<sup>9</sup> elkarren ondoan bizirik daudenetan. *Multilingual* eta, are, *multivariety setting* dira, sarri asko, horrelako ingurumenak.

Kontuok errazegi eman ohi ditugu gainditutzat. Euskararen eta erdararen (erdaren) arteko kontsiderazio interlinguistikoetan zentratzen gara sarri, azterbide intralinguistikoak (hizkuntzaren baitako aldaerei dagozkienak) alde batera utziz. Badago motiborik, nola ez, kontsiderazio interlinguistikoei atentzio berezia, are lehentasunezkoa, eskaintzeko. Guztia ez da ordea, urrundik ere, euskara-erdaren arteko auzia. Euskararen barneko gorabeherak, bere baitako aldaeren kontuak, hor daude orobat. Garrantzia dute kontsiderazio intralinguistiko horiek ere, hizkuntzaren osasuna baldin badugu gogoan. Ez dira beraz ahaztekoak. Ez, behintzat, hezkuntza-munduan. Pirinioetako hizkuntzen Kongresu batean bildurik gaudelarik, jakina, berariazko lekua du aldaeren traetaerak. Okzitania zabalean gaskoiak duen estatus linguistikoak, edota aragoieraren egungo izaerak, nekez aldaeren kontsiderazio teknikoetatik aparte behar bezalako perspektibarik eskura dezakete. Euskaldunok ere ondo bekokian iltzaturik daramagu hizkuntza-aldaeren arrastoa. Perspektiba historikotik ari bagara, jaio berria dugu euskara batua; aspaldi-aspaldiko gertakari soziohistoriko eta geografiko funtsezkoak ditugu, aldiz, euskalkiak.

Are gehiago: azterketa intralinguistikoaren kontua ez da euskara batuaren eta euskalkien edo lekuan lekuko aldaeren artekoa bakarrik. Halliday-ren eta abarren aspaldiko terminoen baliatuz<sup>10</sup>, jakin badakigu “users variety” horien ondoan “uses variety” direlakoak ere hor daudela. Eskola-esparruan osatuz eta zabalduz doan idazmolde formal-espositiboa, terminologiaz zein osaera morfosintaktikoz ikasle-irakasle gehienen eguneroko mintzamolde arruntetik harranzko hainbat nabardura dituena, oso kontuan hartu beharrekoa dugu egungo gertaeren berri zuzena izan nahi badugu: eskolako euskara “berezia” da hainbatean, eta berezitasun hori ez zaio soil-soilik batasun-ereduari zor. Hemendik kanpora ere teknolekto (edo teknolekto-sorta) modukoa eratzen dute, sarri, eskola-hizkerek: batez ere adin batetik gorako ikasleekin diharduten irakasleen hizkera- eta idazkera-moldeek<sup>11</sup>. Egungo euskara batuak bere bai-

<sup>9</sup> Hots, Ingalaterrako ingeles koloniala, II. mundu-gerraz geroztik gogor hedaturiko ingeles amerikarra, indiarra, eta australiarra.

<sup>10</sup> Ikus horretarako M. A. K. Halliday, Angus McIntosh eta Peter Strevens, 1964: *The Linguistic Sciences and Language Teaching*.

<sup>11</sup> Aldaera horren egiturazko ezaugarri orokorrak direla-eta ikus, adibidez, Zalbide 1993. Ikasmaterialen alorrean pausoz pauso osatzen ari den estilo-liburuak erakusten du ongien, teknolektozko aldaera horren hainbat zertzelada konkretu: interferentzien trataera, topo- eta antroponomastika eskolarra, eskola-munduko teknolektoen terminologia espezifikoak, ortotipo-

tan dituen aldaeren kontura garamatza horrek: aldaera estandar nagusiaren azpi-aldaeretera alegia. “Euskara batua” esaten dugularik, izan ere, aldaera finko, aldagaitz batez ari baikina jarduten dugu sarri; eredu bakar eta uniformizat hartzen dugu euskara batua. Eguneroko gizarte-bizitzan gauzak ez dira ordea horrela. Egia da euskara batuaren oinarritzko konfigurazioa aski eginik dagoela jadanik, diseinuari dagokionez<sup>12</sup>. Hori bezain egia da, ordea, batuaz diharduen hiztun- eta idazle-jendeak “egin behar lukeen hizkuntza”ri ez baina “benetan egiten duen”ari begiratzen bazaio<sup>13</sup> euskara batu bat baino ondotoz gehiago daudela gure artean. Motibo jakinak ditu aniztasun horrek: ama-hizkuntza euskara dugun ala erdara, etxetik euskaldun garenok umetan zer euskalki ikasia dugun, gaztetan jasotako prestaera akademiko-profesionala, azken urteotan non bizi garen eta norekin, zer lanbide dugun eta zer-nolako lankidez inguraturik gauden, hitzez ari garen ala idatziz, zertaz dihardugun eta norekin, ... Funtsezko parametroak dira horiek guztiak, gaur egun gure artean egiten diren “euskara batu” diferenteez jabetzeko<sup>14</sup>. Aniztasun zabala sortzen dute, praktikan, bereizbide horiek guztiak. Aniztasun edo malgutasun horri ez ikusia egiten saiatzeak ez gaitu jakitunago bihurtzen. Ez linguistika alorrean eta ez, bereziki, soziolinguistikaren sailean. Anlisi intralinguistikoa ere hizkuntza-soziologiaren aztergai da.

Hizkuntza barneko anlisi molde horri heldu nahi diogu gaurkoan, muga jakinei eutsiz. Hezkuntza-alorrean jardungo dugu batez ere, beste esparruak (produktzio eta kontsumo kulturala, administrazioa, komunikabi-deak eta abar) axal-axaletik landuz. Hezkuntza-mundua bera ere ez dugu osorik arakatuko. Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitate atarirainoko kontuez arduratuko gara, goi-mailako irakaskuntza alde batera utziz. Esparru fisiko-territorialari dagokionez, bestalde, EAEko egoera aztertuko dugu nagusiki: horkoak dira, hamarretik bederatzi, eskueran ditugun datuak; bibliografia teknikoaren aipamen gehienak ere bai. Perspektiba historikoari dagokionez eta egungo zenbait zertzeladatan, azkenik, Euskal Herri osoko ikuspegiari eutsiko diogu.

---

grafia eta beste hainbat esparru horren lekuko argi ditugu. Bere bidea egiten ari da, azken hamarkadotan, idazmolde (eta, horren eraginez, mintzamolde) espositibo-formaleko aldaera berezi hori. Urrun dago oraindik, ordea, luze-zabaleko erabilera bateratutik.

<sup>12</sup> Orduan ere gauza bat da euskara batu minimoa, eta beste bat maximoa. Ikus Alan King 1983 eta 1993.

<sup>13</sup> Begiratze-lan hori gabe alfer-alferrik ari gara corpus-plangintza gora eta corpus-plangintza behera: egiten dena esistitzen da gizarte-bizitzan, ez “egin behar litzatekeena”.

<sup>14</sup> Ikus Alan King ibid.



Gatozen beraz, besterik gabe, harira. Sei ataletan banatuko dugu gaurko azalpena: a) aurrekari historikoak; b) Euskaltzaindiaren ekarpena 1968tik 1978ra; c) Herri-aginte berrien posizio ofiziala 1979tik 1982ra; d) azken mende-laurdenean egindako saio praktikoa; e) saio horren balioespena, eta f) aurrera begirako zenbait gogoeta.

## I. Aurrekari historikoak

Bi aldi edo une har litezke gogoan, aztergaiaren sailkapen-irizpide hoberik ezean, hizkuntza/eskola bikotearen analisi intralinguistiko horri perspektiba historikotik heltzeko orduan: batetik menderik mendeko ibilera, 1900 ingurura artekoa; bestetik xx. mendearen lehen bi herenak. Euskaltzaindiaren ekarpena, 1968an Arantzazun egindako biltzarrekoa eta 1978ko azteraldikoa, ez dugu gaurkoan aurrekari historikotzat hartuko. Are gutxiago ekitaldi haien ondorena (azken hiru hamarkadak): gure aldia osatzen dute horiek, nolazpait esan.

### *I.1. Eskolako euskara moldea 1900 arte*

Leku meharra, mugatua eta subordinatua izan du euskarak eskolan, oro har, hainbat mendez. Hori da Euskal Herriko historia soziokulturalaren osagai nagusietako bat. Mehar-mugatu izanak ez du esan nahi, halere, ezereza edo hutsaren hurrengoa izan denik beti. Inoiz baino gehiagotan seinalatu denez, ikasbide eta ikasgai izana da euskara, mende joanetan<sup>15</sup>. Batean (ikasbide lanean) zein bestean (ikasgai gisa) trataera idatzia ere izan du euskarak eskolaketan horretan: ahozko jardunaren osagarri izan da gehienetan idazketa hori; ahozko jardun horren iturburu ere izana dugu, halere, zenbait kasutan<sup>16</sup>. Zer euskara moldez baliatu izan da eskola horrelakoetan? Euskarazko jardun mugatu horretan nola ari izan dira gure maisu-maistrak ahoz, eta nola irakurtze-idazte lanetan, 1900 arte? Zer mintzamoldez eta zer euskara-molde idatziz baliatu izan dira gela barruan, euskaraz jardun izan duten kasuetan?

Ahozko jardunari dagokionez, ez dugu dokumentazio landu handirik galdera horri zehazki erantzuteko. Badago zehar-argitasunik, ordea, uste izateko

---

<sup>15</sup> Ikasbide izateari dagokionez ikus, adibidez, Zalbide 1990. Ikasgai izateaz denaz bezainbatean ikus, adibidez, Zalbide eta Muñoa 2006.

<sup>16</sup> Batez ere dotrinetan.

lekuan lekuko hizkera-moldea edo, halakorik ez zenean, euskalki bereko beste aldaeraren bat izango zela maisu-maistren adierazpide eta, horrenbestez, ikasleei eskainitako euskararen eredu nagusi. XIX. mendearen lehen hereneko eskola-jarduerari dagokionez, esate baterako, badakigu irakasle berriak kontratazkeko orduan eskualde bereko kandidatuak izaten zirela gehienak eta, beraz, euskalki barneko muga-barrutian mugituko zela irakaslearen eta ikasleen arteko interakzio berbala, nagusiki<sup>17</sup>.

Antzera ibili izan dira gauzak, eta dokumentazio-oinarri seguruagoz hitz egin dezakegu kasu honetan, irakurtze-kontuei dagokienez. Euskarazko eskola-materialak euskalkiz (hainbatetan, azpieuskalkiz) prestatu izan dira denbora luzez<sup>18</sup>. 1600 ingurutik honanzko (batez ere 1900 ingurura arteko) dotrinen azterketa linguistiko-edukatibo ganorazkorik egin gabe daukagu tamalez, eta ezin dugu horren faltan ondorio zorrotzegirik atera<sup>19</sup>. Emaitza nagusiak bistan daude ordea: euskalkia, hainbatetan eskualde jakineko azpieuskalkia, ageri da dotrina horietan nabarmen. Egia da Larramendiz honanzkoetan (zenbaitetan bederen) *Ausbau*-asmozko hizkuntza-lanketa jakina ageri dela han-hemengo (batez ere hemengo) dotrinetan. Joera nagusia goian esandakoa da ordea: euskalkiz edo azpieuskalkiz idatzitako testuak dira nagusi<sup>20</sup>. Bistan da dotrinaren

<sup>17</sup> Ez da adibiderik falta, ordea, Gipuzkoako maisu-plaza bat betetzeko orduan plaza hutsaren jakinarazpena Iruñera arte hedatzen zenekoa. Ondorio interdialektalak ekarriko zituen horrek, ezinbestean, zenbait kasutan. Arau nagusia bestea zen ordea: eskualde (are herri) berekoa izan ohi zen askotan maisua. Are korrelazio estuagoa zegoen aldagai bi horien artean, nesken maistren kasuan.

<sup>18</sup> Euskarazko ikasmaterial zahar gehienak, 1900 artekoak, gaurkoz dakigun neurrian dotrina- edo erlijio-liburuak izanak dira hegoan zein iparraldean. Salbuespen dira, alde horretatik, gorago aipatu ditugun XIX. mendeko horiek. Egia da horien aurretik ere badela halakorik: Leizarragaren *ABCa* eta antzekoak alde batera utzita ere hor sartzekoak ditugu, esate baterako, aipatu berria dugun Kardaberazen *Euskeraren Berri Onak* edota, handik berrogei bat urtera, Baionan kaleratutako *abecea*. Garatek handik gutxira, 1811n, amets zituen orotariko testu-liburuak (Casenave-Harigile, 2006), unibertsitate mailaren aurrekoak baina halere aski teknikoak, ez ziren 1900 aurretik gure artean agertu: ez euskalkiz eta ez bestela. Iturriaga izan genuen horretan “teknikoena”, salbuespen bakanak agertzekotan, eta badakigu zein mailatako ikasleak zituen begiz joak.

<sup>19</sup> Dotrinen erroldarako ikus Eusko Legebiltzarra 1989. Euskal dotrinaren debeku-neurriez ikus Gorostidi 1902.

<sup>20</sup> Ikusteko dago, azterketa xehe batez, Ris-en 1979ko tipologiak zer neurritan balio lukeen euskalki horien izaera zehazteko: noraino gaude aldaera lokal-isolatuen aurrean? Zer neurritan dira dotrinetako testuok eskualdeko aldaera? Ez ote gara eskualdez gaindiko aldaerekin ari horrelakoetan? Ez ote dago tartean, are, orotariko aldaerarik (hots, Schuchardt-en *Ausgleichsdialekt* modukorik)? Txosten honen hasieran, 1. oin-oharrea, esandako tipifikazio-saio- ginderamazke azterketa horrek, nolana ere.

hizkera-moldea ez dela ezinbestean gela barruko irakurketa zehatzaren oinarri aldaezin. Badakigu XVIII. mendeera arte (baita beranduago ere, sarri) dotrina-irakurtzea nola egiten zen: buruz ikasten zuten ikasleek dotrinaren orrialde edo pasarte osoa; hots, orrialdea edo pasarte ez zuten letraz letra eta hitzez hitz<sup>21</sup> “irakurtzen”. Askatasun-marjina handia ematen zion irakurbide horrek maisuari, dotrinaren testua lekuan lekuko hizkera-moldera egokitzeko.

Antzera joan izan dira kontuak, batez ere 1800etik 1900era bitartean, dotrinaz aparteko eskola-liburuetan: bai euskara hutsezkoetan eta bai, nola ez, kopuruz eta salmentaz nagusi izanak diren ele bikoetan<sup>22</sup>. Astigarraga maisua-ren 1825eko eskola-liburua, ia hogeita hamar aldiz berrargitaratua, Goierri baino zabalagoko gipuzkeraz idatzia dago. Beste horrenbeste esan liteke, oraingoan Beterrira itzuliz begiak, Iturriagaren lan ezagunez. Halakoa da Eguren ikuskariak handik gutxira zabalduak argitalpena ere. Euskalki-oinarria dute, orobat, Hiriart-en 1840ko lanak eta Archu ikuskariaren 1848ko eta 1852ko argitalpenek. Pasabideko hezkuntza elebiduna edo *Transitional Bilingual Education* zuten testu-liburuok xede nagusia, bestelako albo-asmorik (eta, batez ere, albo-eraginik) falta izan ez bazen ere. Hori dela-eta, zentzu handirik ez zuen liburu-prestatzaile haientzat ikasleen euskarazko errepertorio linguistikoa gizarte zabalean aplikazio-aukerarik ez zuen, eta izateko asmo agiririk ere ez zegoen, aldaera jaso-formal supradialektal bateratuaz hornitzeko. Ez da egia, halere, lekuan lekuko aldaera hutsa jasotzen zutenik Astigarragak, Iturriagak, Egurennek eta bestek: ikus, bereziki, Eguren ikuskariaren liburu-sarrerako azalpenak. Euskalki batean oinarrituriko eredu landu eta zaindu bat ageri da horietan, sarri samar. Hizkuntzaren zaintze-ardura berezia agertutako beste zenbait idazlek ere, *Gramática Vascongada*-ren egile Lardizabalek esate baterako, lekuan lekuko hizkera itxira ez baina Larramendiren tradizioaz gezortiko hizkuntza-eredu elaboratuagoetara jo izan zuten: jokaera horren lekuko ditugu bai 1856ko bere *Gramática* eta haren parez pare prestatuturiko Testamentu-*Kondaira*<sup>23</sup>.

<sup>21</sup> Dotrinako orrialde edo pasarte bakoitzean zetorrena letraz letra eta hitzez hitz irakurri baino areago “PDF moduan” buruan gordetzen zuten ikasleek, eta hala zegokionean osorik berresaten (maiz asko “kantatzen”). Europako alfabetatze-bideen espezialistek argi esan dutena ez gara hemen laburbiltzen hasiko. Bestek perspektiba teorikoz azaldua gurean enpirikoki konprobatu nahi duenak aski luke Kardaberazekin hastea: bere umetako eskola-praxiaz (dotrina “irakurtzeaz” bereziki) ikus 1761eko *Eusqueraren Berri Onak* famatuan zer dioen. Perspektiba zabalago baterako ikus Viñao Frago 1997.

<sup>22</sup> Ikuspegi zabal baterako ikus, adibidez, Pauli Dávila 1997.

<sup>23</sup> Ikus Zalbide eta Muñoa, 2006.

Huts egiteko arrisku handiegirik gabe zera esan liteke hortaz: euskalkia edo lekuan lekuko berba-egikera aski presente egon izan dela eskola-material askotan. Aski hurbil oro har eta, zenbaitetan, barru-barruan iltzaturik. Hortik aurrera (nahiago bada, hortik gorantz) jo izan dute idazle batzuek, XIX. mendean bereziki, beren lanak prestatzerakoan. Gorantz bai, baina Euskal Herri osoan erabiltzeko hizkuntza-eredu bateratura iritsi gabe. Labur bilduz: dotrinaren eta horren inguruko irakaspenak, partez edo osoz euskaraz egiten zirenak, lekuan lekuko hizkeraz bideratu ohi ziren, hitzezko azalpenean. Lekuan lekukoan edota, une batetik aurrera (1820), maisu-maistren jatorrizko eskualdekoan<sup>24</sup>. Dotrinaz kanpoko eskola-testuetan ere begien bistan dago euskalkioinaria, nahiz eta horrelakoetan, XIX. mendeak aurrera egin ahala, bestelako *Ausbau*-saioek<sup>25</sup> gero eta leku zabalagoa eskuratu zuten.

### *I.2. Eskolako euskara moldea 1900etik 1968ra*

*Ausbau*-lanaz gainera, haren parez pare, saio handiak egin izan dira 1900 ingurutik 1968ra bitartean euskara eskola-esparruan (bir)txertatzeko eta, txertatze-lan hori erraztearren, euskara molde bateratu bat erabiltzeko. Iparraldeari dagokionez nafar-lapurterak eskuratu ahal izan zuen, 1890 ingurutik aurrera, lehen eskola-hizkera supradialektala bihurtzeko aukera objektiboa. Bazegoen hizkera-molde horren corpus-lanketarik<sup>26</sup>, baten hizkera horretaz baliatzen zen idazle-talde treberik eta, azkenik, hizkera-molde horretara jarritako irakurleak ere ugarituz joan ziren<sup>27</sup> 1900etik 1910 ingurura arte. Baziren hor oinarri objektiboak, beraz, hizkuntza-ereduaren aldetik. Hizkuntza-plangintzaren parterik erabakigarriena falta izan zen, ordea, kasu hartan: ez maisurik zegoen urte-garai haietan iparraldean, euskaraz irakasteko ohitura zuenik; ez hartarako luze-zabal antolatuturiko eske larririk zegoen gurasoen aldetik; eta ez, batez ere, hartarako baimenik txikiena emateko asmorik zegoen

<sup>24</sup> Gipuzkoari dagokionez, bederen, fetxa hori ez da ahaliriztira jarria. Jakin badakigu mugimendu handiko unek izan zirela eskola munduan, arrazoi bat baino gehiago zela medio (eskola-berrikuntza, errealdisten kargugabetzeak, ...), 1820 eta 25 artekoak.

<sup>25</sup> *Ausbau* kontuez bibliografia zabala dago eskueran: jatorrizko iturburura jo nahi duenak ikus beza Heinz Kloss 1952. Euskal definizio baterako ikus Zalbide eta Muñoaren 2006ko txostenaren amaieran eskaintzen den glosarioa.

<sup>26</sup> Ikus Ithurri 1895.

<sup>27</sup> Aski neurri ohargarrian gertatu zen irakurle-masaren ugaritze kontu hori, *Eskualduna* aldizkariaren salmenta-kopuruen bilakaera aintzakotzat hartu behar bada. Ez dago motiborik, gaur-gaurkoz, hala ez egiteko.

agintearen partetik<sup>28</sup>. Hiriart-Urrutiri kasu egin behar bazaio (ik., adibidez, *Eskualduna* 1897ko abuztua, in Alzibar 2004), eta balegoke hartarako motiborik aski, bistan da eskola eta *eskuara* mundu bi zirela une hartan: bai gobernamenduaren eskola publikoetan eta bai, Jean-en berariazko pena-dolorez, elizaren esparruko eskola giristinoetan, moja-serorenetan bereziki. Dotrinaren alorrean bertan zaildu egin ziren kontuak, erraztu ordez, 1902-03tik aurrera: orduan ezarritako debeku-zigorrek, ipar eta hego, okertu baizik ez zuten egin panorama bihurri hura. 1900etik aurrera aldakuntza txikia antzeman zen hor-taz iparraldean, kontu honi dagokionez. Nafar-lapurterazko idazkera zabalduz joan zen apurka-apurka, baina eskola eta euskara ezin uztartuzko elementuak bihurtu ziren iparraldean, aztergai dugun epean.

Gatozen hegoaldera. Iparraldean ez bezala aparteko saioa egin zen hemen, 1900 ingurutik 1968ra bitartean, eskola-mundurako egokia izan zitekeen euskara molde bat diseinatzen eta, batez ere, testu-liburuak laguntzaz eta irakasle saiatuen jardueraz, hizkera molde hori ikasgeletara zabaltzen. Gorabehera handiko epea izan zen hori, 1936ko gerrak eta gerraondoak aparteko etena ekarri zutelarik. Badu epealdi horrek halere, eten eta guzti, halako hari modu bat. Hari horri helduko diogu hemen. Azkueren “Pecado de Juventud” izandako *Euskal Izkinde*arekin esan liteke hasi zirela, 1890eko hamarkadan, esparru zabalagorako euskal metodoak eta bestelako testu-liburuak agertzen. Liburu baina ondotoxoz gehiago ere bazen *Izkinde* hura: urtetik urtera zabalduz zihoan Bilboko kale-giroan, gero eta etxetik erdaldunduago zetorren belaunaldi berriarentzat, diseinaturiko “euskara on” baten eredu elaboratua. Ohiko euskalki-aldaeratik nabarmen aldentzen zen hizkuntza-eredu berria, gizarte industrial berrirako amestua. Bekatuak bekatu, hasierako demasia batzuk azkar tenplatu ziren. Handik aurrera, morfologia-urak bere ildora itzulita, aski arrakasta eskuratu zuen horietariko zenbaitek: *Martin Txilibitu* eta *Xabierto* bat, arras gauza sinpleak badirudite ere egungo egunean, aurrerapen nabarmen izan ziren une hartan. Kasu ezagun horiek alde batera utzita azterketa berezia eskatuko lukete, ordea, 1913-36 epeko testu-liburuek. *Zenbakizti* famatuaren eta horren pareko beste zenbait giputz-testuren ondoan euskalkimuga zorrotzak gaingitzen saiatu ziren Bizkaiko Aldundiaren 1920 ingurukoak. Liburu horiek ezin esan liteke, inola ere, hizkuntza-eredu bateratua zerabiltenik. Euskalki hutsezkoak ere ez ziren ordea<sup>29</sup>. Garaiko purismo-irizpi-

<sup>28</sup> Agintaritzaren debeku horri inor gutxik egin zion aurre: fraideen eta seroren kristau-  
eskola gehienak, bereziki, aski bat zetozen irizpide horren korolariora praktikoarekin

<sup>29</sup> Eleizalderen eskua eta irizpide linguistikoak ez daude, itxura osoz, ikasmaterial haien  
osaera modutik urruti.

deak eta, oro har, hizkuntza “on”aren gaineko hainbat aurreiritzik nekez irakurtzekoak bihurtu zituen ikasmaterial asko. Nekez irakurtzekoak batzuk, eta ezin irakurrikoak beste zenbait. Neke-zailtasun bakarra ez zuten *aneuridin* eta antzeko hizperriek sortzen. Sabin baino sabindiarragoko corpus-plangintza baten berrikuntza-aukerak eta hizkuntza-eredu hori luze-zabal hedatzeko eragozpen-muga larriak argi agertu ziren testu haietarik hainbatetan. Zirkulaziotik kanpora ez ziren ordea, ezaguna denez, horregatik gelditu: bestelako bekatua zuten horiek berekin, euskara jakin gabe ere ondo asko ikus zitekeen bekatua nonbait.

Teorizazio-saiorik ez zen falta izan 1919tik aurrera, Euskaltzaindia sortzeaz bat, eskoletarako euskara-ereduaren gainean. Hizkuntzaren (neurri bateko) batasuna aldeztu zuen hainbat euskaltzalek edota euskalarik, Koldo Eizaldek adibidez<sup>30</sup>, eskolaren beharretan ikusten zuen hartarako motibo nagusietako bat. *Leitmotiv* ezaguna bihurtuko zen beharrian operatibo hori, handik aurrera. Hizkuntza bakarraren aldeko asmoa, eta euskarazko eskolagintza, elkarren eskutik joango ziren gero eta sarriago.

Aparteko urtea izan zen, alde horretatik, 1956koa: lehen Euskal Mundu Biltzarra ospatu zen Parisen, batetik, eta Euskaltzaleen Biltzarra eratu zuen Euskaltzaindiak Arantzazun, bestetik. Batean zein bestean bere lekua izan zuten euskal eskolak eta hizkuntzak, bai aldaeren moduan eta bai euskara baturako proiektu gisa<sup>31</sup>. Euskaltzaindiaren handik bizpahiru urterako jakinarazpena, maileguzko hitzei buruzkoa, funtsezkoa gertatu zen alde askotatik: eskola-liburuetarako terminologiak ez zeukan zergatik ilargira ihes egin. Kilometroari *kilometro* esatea aizu zen, eta begi onez ikusten zen euskaldun-jendeak bere hitz-altxorrera bilduak zituen kultura-erroak eta jakintza-hitzak bere horretan (beharrezko egokitzapen fonetiko-grafikoz) erabiltzea. Asmo mugatu-ñimiñoa izanik ere berez, ondorio zabalak ekarri zituen Euskaltzaindiaren jakinarazpen hark. Batetik, esan berri dena; bestetik, eta hori ere aintzakotzat hartzekoa da noski, gerra aurreko muga jakinak berekin zituen hizkuntza-moldea kuestionatzea eta, horrenbestez, euskara “berri” bat zilegiztatzea: bide berriaren onarpen diferentziala. Egin egin behar

<sup>30</sup> Ikus, orobat, Broussain Iparraldetik.

<sup>31</sup> Ikus bereziki: a) Parisko Kongresuan (1956ko irailaren 23tik urriaren 1era) Jokin Zaitegiren ekarpena eta Andoni Urrestarazu “Umandi”rena; gogoan izan, halere, Parisko Kongresu hartara aurkeztu ziren 44 txostenetatik 33k euskara mintzagai izan zutela, alde edo moldez. b) Euskaltzaleen Arantzazuko Biltzarrean (1956ko irailaren 14-15-16etan), Bilbokoan (1958ko abenduaren 13-14etan) eta Eibarkoan (1959ko azaroaren 6-7-8etan), era berean, aldi hartako euskalari eta euskaltzale gehien-gehien aztergai izan zen kontu hori.

zen bidea eta, halakoetan sarri gertatu ohi denez, bidegintza horretarako aski iritzi eta jokabide diferenteak plazaratu ziren. Bide batetik zebilkigun Manuel Lekuona euskaltzainburua, irakasle-gai euskaldunak prestatzeko Iruñean egindako prestaera-saioak hartzen badira oinarri. Nor bere bidetik zebiltzan, orobat, Elbira Zipitria eta Ambrosio Zatarain. Baita *Neurritziren* egile Luis Egia, filosofo zaharren lanak euskaratzen ziharduen Zaitegi eta Venezuelatik, aurreko horien erdibidean itxuraz, ziharduen Andima Ibiñagabeitia ere.

Ez zuten erabat asmatu, bistan da, egungo emaitza hartzen bada konparazio-gune<sup>32</sup>. Gauza asko zor diegu<sup>33</sup> ordea bidegile haiei: uste dugun baino ondotoxoz gauza gehiago, eskola-esparruko hizkuntza-ereduari dagokionez. Hizkera/idazkera formal-espositibo bat, jakintza-kontuak berariaz landu eta xehekiro adierazteko joskera-molde egituratu bat, eraikitzen saiatu ziren nabarmen, eta guztia ez zen alferlana gertatu.

Kontu larri batean huts egin zuten ordea: ez zuten konektatu hurrengo belaunaldiarekin. Ez zuten lortu handik gutxira benetako maisu-maistra bihurtuko ziren eta, hortaz, inplementazio-lana beren gain hartuko zuten euskaldun gazteen artean beren hazia ereitea. Etena sortu zen, hori dela medio, bidegile horien hizkuntza-ereduaren transmisio-bidean. Irakasle eta andereño gazteen egoera kulturala (euskarazko prestaera-maila bereziki) aurreko horien ez bezalakoa zen: hutsetik abiatu behar izan zuten euskaldun gazteok bat-batean, nork bere burua alfabetatuz. Horretarako, berriz, ez zuten goiko bidegile haien berri edo, halakorik baldin bazuten, euskara modu hura zailegia eta nolazpait “arrotza” gertatzen zitzaien. Zailegia, arrotz-airekoa eta, hainbatean, gogoz kontrakoa. Motibo bategatik edo bestegatik, kaleko mintzamolde informaletik hurbilago zegoen prosa moduak (gipuzkeratik baturanzkoak bereziki) hartu zuen aurrea, apurka-apurka, gazte-jendearen artean: nolabait esatearren *Zeruko Argiak*, *Anaitasunak*, *Jakinek*, *Lur editorialak* eta abarrek zabaltzen zuten prosa modua gailendu zen gazte horien artean. Horrela iritsi ziren kontuak, Arantzazuko biltzarrera.

<sup>32</sup> Asmatu izana edo ez, nolana ere, kontestuala da hainbatean. Ibon Sarasolak eman izan du, dakidan neurrian inork baino bortitzago, kontestuaren mendekotasun horren azalpen espresa. Ikus Sarasola 2005 (Ines Pagolaren tesi-liburuaren sarreran).

<sup>33</sup> “zeren”-makulurik gabeko joskera egituratua, mintzagaiari (estuegi jokatzu zenbaitean) leku-ordena jakina atxikitzen ziona, landu zuen idazle-multzo hark. Garbizaletasun lexikala eta bere baitariko terminologia-lanketa ez ziren izan, askotan hartara mugatzen badira ere gure aipamen kontuak, beren ezaugarri bakarrak. Ezaugarri nagusiak ere ez, apika.

## II. Euskaltzaindiaren ekarpena: Arantzazu eta Bergara

Sortu zenetik mende-erdira, eta horren oroigarri, aparteko biltzarra egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazun, 1968ko urriaren 3tik 5era. Aztergai nagusia zuen biltzar hark: euskararen batasuna. Hainbat irizpide-sorta aurkeztu zen bertan, eta horietariko bat (Mitxelenaren txostenean jaso) atera zen garaile. Handik hamar urtera, Arantzazuko irizpide nagusiek eta haien ildotik hartutako hainbat neurrik zer ondorio izan zuten aztertzeko, berariazko saioa egin zuen Hizkuntza Akademiak Bergaran. Banan-banan aztertuko ditugu biltzar eta biltzarrondo biak, gaurko gaiari dagozkion atalak bereziki azpimarratuz.

### II.1. Arantzazu: 1968ko biltzarra eta bere ondorena

Aparteko garrantzia izana du, Euskaltzaindiaren corpus-plangintzaren alorrean, Arantzazuko biltzarrak. Biltzar hura ez zen eskolarako hizkuntzaredua definitzeko eratu. Hori baino asmo zabalagoa zuen berez: euskararen batasuna arakatzea eta, ahal zen neurrian, finkatzea. Estandarizazio alorreko corpus-plangintza zen bere xedea, ez *acquisition*-plangintza eta ez *bilingual education planning* delakoa ere. Euskalkiak gaingiduz, guztiontzako eta orotarako (batez ere idatzizko jardunerako eta, bereziki, situazio formalei dagozkien eginbeharretarako) euskara estandar baten lehen oinarria definitu nahi izan zen bertan.

Begi onez eta ilusio handiz ikusten zuen batasun-bide hori hainbat euskaltzalek (batez ere euskaltzale gazte askok). Hizkuntza indarberritzeko lagungarri sendoa, are baldintza ezinbestekoa, iruditzen zitzairen euskara batasun bidean jartzea. Estandarizazioaren alde zeuden horiek: estandarizazioaren norainokoaz, eta hartara iristeko erritmo-lastertasunaz, bazuten beren artean iritzi diferenterik. Konforme zeuden, halere, gauza pare batean: behar-beharrezkoa zen batasun hori, eta hartarako langintza lehenbailehen jarri behar zen abian. Irabazia handiagoa zuen saioak, ondo eginez gero noski, galera baino. Euskaltzale guztiak ez ziren ordea hain baikor: bazen estandarizatzeko prozesua galeratzen hartzen zuenik ere. Euskaltzale zaharragoen artean, bereziki, ugariak ziren azken hauek. Ezinbesteko prozesua bai, baina galerazkoa iruditzen zitzairen batasun-bidea. Orduko euskaltzainburuaren (Manuel Lekuonaren) hitzetan esanik, “euskeraz biziko bada, batu egin bear (..) beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear (..) bizitza dezan, eta ugariago dezan” (Lekuona 1968: 141). Beso- eta hanka-bakartzea galera da noski, hemen eta nonahi. Batasunaren aldeko uholdea eragin zuen biltzarrak hainbat esparrutan: eskolan ere bai.



Eskolarako pentsatua ez izan arren, eragin handia izan zuen Arantzazuko biltzarrek irakasle(gai)en artean. “Arantzazuko espirituak” eragin zabala izan zuen eskola-giroko hizkuntza-aldaeren erabileran: biltzarreko erabaki konkretuek beraiek baino zabalagoa. Saio eta giro hartan erabaki zen, aski neurri ohargarrian, hurrengo 40 urteotako eskola-hizkuntzaren oinarri kontzeptuala. Oinarri horren beharra argudiatzeko orduan, hain zuzen, eskola agertu zen Arantzazun, aurren-aurreneko lerroan. Honela zioen Koldo Mitxelena Arantzazuko biltzar hartan, euskararen batasunerako prestatu zuen oinarri-txostenaren sarreran: “Ezinbestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea. Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea” (Mitxelena, 1968: 203)<sup>34</sup>. “Arantzazuko paradigma” deitu dezakeguna ez dabil esaldi horretatik oso urruti. Horra bere argudio-bidea: euskara indarberritu ahal izateko ezinbestekoa da eskola, eta eskolak behar-beharrezkoa du euskara batua edo bateratua; hil ala biziko kontua da, hortaz, batasun hori.

Langintza zabal baten hasiera izan zen, aurreko hamar urteetako hainbat aurrelanen osaera-gune gertatzeaz gain, Arantzazuko biltzar hura. Euskalkiez gainera eredu “berri” baten beharra bazegoela baieztatu zen Arantzazun, eta eredu horren moldaera-bide posiblea adierazi. Gezurra badirudi ere, arau kon-tuan ezer gutxi erabaki zen zehatzik Arantzazun. Ibili beharreko bidearen hainbat giltzarri planteatu ziren han, eta horiek ere aski era lazoan onartu. Eredu berria garatzeko lastertasun-premiaz ere ez zegoen adostasun handirik. Batzuek (itxuraz, gehienek) berehala egin nahi zuten batasun-bidea; zenbaitek nahiago zuen, ordea, batasun-bide hori astiroago eta lehendik (batez ere 1919tik 1956 ingurura artean) ezarria zegoen oinarriaren gainean egin<sup>35</sup>.

<sup>34</sup> Kontu hauetaz eta bestez jabetzeko garrantzi handiko argitalpena da Larresoro/Txillardegiren 1974ko *Euskara batua zertan den*. Funtsezkoa, une hartako batasun-bidearen informazioaz eta egingizun “ikusten” zen hainbat zehaztapenen orientazio-lan pertsonalaz. Gero benetan egin den bideari kontraste-puntua ezartzeko aski baliagarria, hortaz.

<sup>35</sup> “Arantzazuko galtzaile”ez, beren eredu hobetsiaz (hobetsiez) bereziki, ez dut uste behar bezalako analisirik egin denik inoiz. Balegoke motibo sendorik, halakorik egiten saiatzeko. Manuel Lekuonak eta Jokin Zaitegik, Ambrosio Zatarainek eta Elbira Zipitriak, Jesus Gaztañagak eta Urrestarazu “Umandi”-k bazuten noski alderik, beren euskara-eredu hobetsian. Amankomuneko lokarri sendorik ere bai ordea: gerra aurrean nagusituz joandako (eta gerraondo hurbilean inor gutxik auzitan jarritako) hizkuntza-ereduaren jarraitzaile eta garpeneragile izan genituen, ororen gain: ez ziren asmazio hutsean ari. Azkueren *gipuzkera osatuaren* ildotik-edo nagusituriko bidearen jarraitzaile eta aldeze ziren haiek, nagusiki. Tradizio haren jarraitzaile ikusten zuten beren burua eta, batez ere, ez zetozen bat Arantzazuko

Mitxelenaren Arantzazuko bidea aplikatu egin behar zen, benetako batasunik izango bazen egunen batean. Zehaztu eta garatu egin behar zen hizkuntza-eredu bateratua astekarietan, liburuetan, alfabetatze-lanetan eta, nola ez, hezkuntzan: perretxikoen gisa sortzen ari ziren ikastoletan lehenik eta, handik gutxira, ikastetxe publiko eta pribatuetan. Arantzazuko eredia kodetu, inplementatu eta osatzea eskatzen zuen horrek: hizkuntza-plangintzaren terminologia ortodoxora makurtuz, *kodifikazio*-lana (adituen hitzetan *graphization*, *grammatication* eta *lexication*) batetik eta *functional development* edo *elaboration* (*terminological modernization* eta *stylistic development*) bestetik<sup>36</sup>. Berehalako lanketa egin beharra sentitzen zen, bereziki, honako alor hauetan: ortografian (h letra bai/ez eta, baiezkotan, noiz-non), morfologian (aditza, deklinabidea, erakusleen trataera), hots-ebakeran (>j< nola ebaki) eta idazkeran (bustidurak, bereziki, nola islatu) eta lexiko-sorkuntzan eta ohiko hitz-altxorren berrikuntza-lanean<sup>37</sup>. Azken atalari dagokionez garai hartakoak ditugu, horrela, *Batasunaren Kutxa*, Gordailuren *Escola-hiztegia*, Xabier Kintanaren (eta abarren) *Hiztegia* eta Luis Mari Mujikarena<sup>38</sup>. Aditz batuaren lanketa izan zen, seguruenik, Euskaltzaindiak garai hartan egindako aplikazio-lanik handiena. Erabaki deigarriena bestea izan zen ordea: H letraren ortografia. Letra horren gaineko eztabaidak grafizazio-kontua baino sakon-zabalago tirabirak ekarri zituen urte haietan. Arantzazuko biltzarrondoak ekimen bizikoa izan zen, nolana ere, corpus-plangintzaren alor gehienetan: baita *code-selection* fasean ere.

---

bide-berritzearen zenbait ezaugarriekin: ortografia alorrean ez zuten begi onez ikusten ez h letraren erabilera oparua eta ez bustidurei emanikako irtenbide grafikoa. Morfologian eta hitz-altxorren trataeran ere bazuten joera berriarekiko alderik: iparralderanzko zenbait hurbilketa-saio ez zitzairen lehenesteko modukoa iruditzen. Eskolak hain berezkoa duen terminologia teknikoaren alorrean, azkenik, maileguzko hitzen uholdekako harrera errezeloz ikusten zuten eta hizkuntzaren barne-erabideetan (hitz-elkarketan, berrezarpen lexikalean, zabalkuntza semantikoan edota, zenbaitetan, neologiazko hizperrigintzan) oinarritu nahiago zuten lexiko-berrikuntzaren alor hori: Plazido Mujikaren hiztegia ez da lekurik okerrena, "Arantzazuko galtzaile" en joera gehienez jabetzeko.

<sup>36</sup> Terminologia tekniko horren zoko-mokoez jabetzen hasteko ikus, adibidez, Einar Haugen 1983: 275.

<sup>37</sup> Hitz-eraketarako sorbideen eztabaida zabala egin zen garai hartan. Gogoratu *-zio* atzizkiaren ordezkotza eratorpen-atzizkien fasea: *-pen* (*mobilizapen*, *aplikapen*, *transformapen*, *manifestapen*), *-keta* (*diktaketa*, *grabaketa*,...), *-kunde* (*koordinakunde*,...), *-kuntza* (*federakuntza*,...) eta abar. Baita maileguzko hitzen trataera zehatzagoa ere. Aplikazio-lan horietarako, eztabaida teorikoaren oinarri moduan, funtsezkoa gertatu zen, orain ahaztu samarrik badaukagu ere kontua, Luis Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas* liburuxka.

<sup>38</sup> Modernizazio-lanketari dagokionez handik gutxira abiatu zen *Elbuiyaren* ekarpena, *Jakinena* (Natur Zientzien hiztegiarekin) eta, aurreraxeago, *UZEI*ren garapen sistematikoa.

## a) Arantzazu ondoko ibilera eskola-munduan

Gatozen ordea gurera; zer aplikazio izan zuen Arantzazuko biltzarrak eskola-munduan? Handia: hizkuntza-ereduaren kontuan aurreko bide-urra-tzaileen ildotik gero eta nabarmenago apartatuz, Arantzazuko paradigmaren bidetik garatu zen euskarazko eskolagintza 70eko hamarkadan. Manuel Le-kuonak eta Jokin Zaitetik, Ambrosio Zatarainek eta Jesus Gaztañagak, Tene Mujikak eta Elbira Zipitriak gero eta erakarmen ahulagoa jaso zuten Aran-tzazu ondoko eskola-munduan. Bazen noski han-hemen, Gipuzkoan eta Bi-zkaian batez ere, bidegile horien hizkuntza moldeari gogoz eta konben-tzimendu osoz eusten zionik eskolan; baita eskola-liburuak (eta horien jira-bueltakoak) prestatzeko orduan ere. Eskola-eragile guztiek ez zuten, ale-gia, Arantzazutik irteerako eredu-arkitektura berria onartu. Are gutxiagok onartu zituzten batuzale batzuen garapen-saio konkretuak<sup>39</sup>. Eskola batek bai-no gehiagok, hori guztia zela medio, euskara batua alde batera utzi eta “herri-euskera”-tik jotzea hobetsi zuen. Kasu batzuetan, eskola berean ziharduten lanean euskara batuaren eta “herri-euskera”ren aldeko irakasleek. Bazen esko-larik, azkenik, gurasoak eta irakasleak bildu, irizpide bien aldeko aditu kuali-fikatuak gonbidatu, auzia aurrez aurre planteatu, aditu bien argudioak ent-zun, eztabaidatu beharrekoa eztabaidatu eta eskolarako euskara-aldaera egokiaren gaia bototara jarri zuenik<sup>40</sup>.

Kontua gordinago agertu zen Bizkaian: ikastolen hazkundea beranduxea-go hasia zen han, oro har; ondotoz pausatuago ere bai. Bertako ikastola ge-hienak Bilbon, bere inguruan eta Jaurerriko herriburuetan eraiki ziren gaine-ra, ez eskualde jakinetako herri txiki euskaldunenetan. Bazuen Bizkaiak, bestalde, gipuzkera osatuaren parez pareko tradizioirik: bai idatzizko zeregine-tan eta bai jendaurreko hizkera jasoan (predikuetan, esate baterako) erabiltzen zen *bizkaiera*, zenbaitek *Bizkaiko euskera* esan nahiago zuena eta geroztik, azken hamar bat urtean, hasierako zenbait formulazio eguneratuz eta *dot*-es-parru osora zabalduz *mendebaldeko euskara* ere deitu izan dena. Gipuzkoako kasuan Mitxelenak eta bestek azalduzko “faktore biologiko”aren pisua ez zen, gainera, Bizkaian hain nabarmen gertatu. Batua gazteekin eta “herri-euskera”

<sup>39</sup> *Arestiren Hiztegia, Batasunaren Kutxa* eta beste zenbait formulazio, *philosophia* moduko idazkera esate baterako.

<sup>40</sup> Horrela gertatu da, oker ez banago, Azpeitiko ikastolan: Patxi Altuna eta Jesus Gazta-ñaga izan ziren bertara deitutako adituak. Auzia euskara batuaren alde erabaki zen kasu hartan. Beste zenbaitetan, aldiz, gipuzkeraren edo “herri-euskera”ren bidetik jarraitu zuen ikastetxeak, urte luzez.

zaharrekin identifikatzera iritsi bazen Gipuzkoan, eta identifikazio horrek oinarri demografiko argirik izan baldin bazuen berekin, nahasiago gertatu ziren kontuak Jaurerrian. Euskaltzale eta hizkuntza-eragile gazteen artean ere ez ziren gutxi, bizkaierari beren beregiko lekua eman nahi ziotenak gizarte-bizitzan. Baita eskolan ere.

b) *Arantzazu ondoko ibilera* alfabetatze-alorrean

Euskara batuzko alfabetatzea gailendu zen Gipuzkoan, ia erabat, 1970etik aurrera. Alfabetatzea eta euskara batuan egiten (batez ere idazten) ikastea gauza bera bihurtu ziren ia. Estandar bat zekarren euskara batuak berekin: *pasa lez pasa* listoa ezartzeko balio ohi zuen estandarra. Euskaltzaindiak urte-inguru hartan sortutako “D titulua”k zurkaiztu eta indartu egin zuen joera hori. Euskaltzaindia zen euskara batuaren definitzaile eta osatzaile, eta gaitasun-agiri hura eskuratu ahal izateko euskara batuaren ezauguera (hasieran batez ere ortografia, gero morfologiako eta hiztegiko hainbat ezaugarri) eskatzen hasi zen. Agiri hori bere gizarte-balioa hartzen hasi zen. Horrek ere bere eragina izan zuen euskara batuzko alfabetatze-lanean. Aparteko eragina izan zuen, garai hartan, Euskaltzaindiaren babespean zebilen AEKk. Baita EUTGko euskalduntze-alfabetatze elkarteak batetik, eta Bergarako UNED sorberriak bestetik. Euskara batuaren hedatzaile gertatu ziren elkarte horiek guztiak, alde edo moldez.

Bizkaian ere antzeman zen euskara batuan alfabetatzeko (nabarmenago, euskalduntzeko edo alfabetatzeko) joera. Bai Euskaltzaindiaren “D titulua”k, bai AEKk eta bai (dakidan neurri mugatuan) Deustuko Unibertsitatearen Euskalduntze-atalak eragin bizia izan zuten esparru horretan. Ez ziren bakarrak, ordea, euskalduntze-alfabetatze esparruan. Bestelakorik ere bazen tartean: Labayru ikastegiak batetik, eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak bestetik, aparteko itzala zuten Bizkaian. Hizkuntza-ereduaren alorrean hurbilbide diferentea zuten azken biok: berariazko lekua, (hainbatean, lehentasuna) aitortzen zioten irakastegi horiek bizkaierazko alfabetatze-lanari. Bata zein bestea hizkuntzazko gaitasun-agirien emaila ziren horiek eta, horrenbestez, goi-mailara eramaten zuen agiri-emate horrek bertako eredu-bitasuna. Batzuek euskara batua hartzen zuten oinarri nagusi. Besteak bizkaieratik abiatzen ziren beren klase-emankizunean, oro har; hortik abiatzen ziren eta zenbaitetan (ez, inola ere, beti) hartara mugatzen zuten ikasleen prestaera.

## c) Arantzazu ondoko ibilera euskara(z) ikasteko liburuetan

Aurreko bi puntuetan esandakoa aski hurbiletik errepikatu zen ikasmaterialen alorrean. Euskara batuaz (baturanzkoaz edo gero eta batuagoaz) kalera-tu zen Patxi Altunaren *Euskera hire laguna*, garai hartako euskara-metodo zabalduenetako bat. Batu-asmo integralez prestatu zen, bestalde, Bizkaiko *Euskalduntzen* famatua. Tirada handiko eta argitaraldi ugari materialak izan ziren horiek. Euskara batuaren aplikazio-gune praktiko ere bilakatu ziren hainbatean: une hartako euskara batuak eskaintzen zituen egitura posible biren erakusleho. Izan ziren tartean, euskara batua utzi eta beste bidetik (gipuzkeraz edo, bereziki, bizkaieraz) jo zuten ikasmaterialak (metodoak, gramatikak eta abar). Ez ziren ezagunenak agian, kopuruz: presente zeuden ordea bertako merkatu kulturean, eta eragin ukaezina izan zuten gizarte-alor jakinetan.

Eskola-liburuei dagokienez ere inplementazio-lan argikoa izan zen Arantzazuko biltzarraren ondoko epea. Batuaren bidetik jo zuten, ezagunenak baizik ez aipatzearren, *Gordailu* etxeak eta *Ikastola Elkartearen* itzulpen-sortak. Euskara batuaren bidetik jo zuen, orobat, Bizkaiko *Saioka* proiektuak. Gipuzkerazko eta bizkaierazko ikasmaterialik ere agertu zen garai-inguru hartan. Zabalkunde mugatuagoa izan zuen horietariko askok gizarte-giro berrian. Gipuzkerazko ikasmaterialgintza urria izan zen oro har, eta eskola-munduan eratu zuzihoan merkatu sorberriarekin lotura handirik gabea. Aita Goenaren *Giza-soiñak* berak, ordura arteko lanik sistematikoena izan arren bere alorrean, ez zuen euskal mundu berriarekin indar betez konektatu. Bizkaian, aldiz, euskara batutik aski urrun zebiltzan irizpideetatik abiatuz hainbat ikasmaterial argitara eman zen une hartan<sup>41</sup>. Labur bilduz, batasun-asmoak bitasuna edo, agian, aniztasuna ageri zuen inplementazio-fase hartan. Zer pisu zuen, ordea, bitasun edo aniztasun horrek?

II.2. Bergara, 1978: *errepasoa eta birdefinizioa*

Berriazko biltzarra egin zuen Euskaltzaindiak Bergaran, 1978ko irailean. Arantzazuko bidea jorratuz corpus-plangintza trinkoa eragin nahi izan zuen, alde batetik, bigarren biltzar horrek. Saio ohargarria egin zen bertan, euskara

---

<sup>41</sup> Aztertu gabe dago, dakidalarik, euskalki-oinarriko eskola-argitalpen horiek zenbateko zirkulazioa eskuratu zuten. Hurrengo puntuan aztertzen dira kontuok, nolana ere, zenbaki-oinarri minimo batez.

batuaren hainbat ezaugarri morfologiko, lexikal eta fonetiko zehazteko<sup>42</sup>. Kodetze-lan horrezaz gainera beste xederik ere izan zuen ordea Bergarako biltzarrek: euskara batua hizkuntzaren esparru formal-idatzian zer hedadura hartzen ari ziren argitzea eta, bereziki, batuak eta euskalkiek aurrerantzean zer distribuzio soziofuntzional behar zuketean eztabaidatzea. Biltzar horrek xede bikoitzaz jokatu izana ez da inolako bitxikeria: mundu zabaleko corpus-plangintzaren tradizio klasikoan txerta liteke, alde horretatik, Bergarako biltzarra. Hizkuntza baten barne-osaera eta hizkuntza horren giza arteko erabilera moldea, kontzeptualki zorrotz bananduriko azter-eremuak izanik ere, elkarren eskutik joan ohi dira sarri. Corpus-plangintza (kasu honetan, estandarizazioa) ez da, urrundik ere, arau-emate hutsa. Hizkuntza arautzea baino eginbehar zabalagoa du plangintza horrek. Estandarizazio-lanaren lehenengo pausoa besterik ez da araugintza hori. Estandarizazioa benetakoa izango bada, hasierako pauso horrezaz gainera beste lau urrats hauek egin behar dira: zabal-kunde-lana, aldeko motibazioa, hartaz baliatzeko gai bihurtzea eta benetan erabiltzea<sup>43</sup>.

Laugarren pausoa eman arte, ezin esan liteke hizkuntza estandarizatu egin denik<sup>44</sup>. Aurreko hiru pausok garrantzitsuak dira, baina laugarrenak erabakitzen du estandarizazioa lortu den ala ez eta, lortu egin baldin bada,

---

<sup>42</sup> Ohargarriak dira, alde horretatik, honako hauek: a) H letra daramaten ohiko hitzak zehaztea, b) bustidura idatzizko jardunean nola islatu, eta c) erakusleen deklinabidea. Xehetasun gehiagotarako ikus *EUSKERA* 1978-2, eta 1979ko aparteko argitalpentxoak.

<sup>43</sup> Hona, labur bilduz, lau pauso horien adiera konkretua:

a) *Zabalkunde-lana*: jendeak (begiz jotako hiztun-multzoak) jakin egin behar du hizkuntza-eredu horren berri;

b) *Aldeko motibazioa*: arau hori ikasteko eta erabiltzeko interesa sentitu behar du. Arauzko eredu hori gustatu egin behar zaio hiztun-multzo horri edota, gustukoa ez baldin badu ere, horren beharra edo komenentzia praktikoa sentitu behar du;

c) *Hartaz baliatzeko gai bihurtzea*: arau hori ikasi egin behar du jendeak. Hartaz baliatzeko gai bihurtu behar du, sortzaile moduan (hitz eginez, idatziz) edo jasotzaile gisa (irakurriz, entzunez); eta

d) *Benetan erabiltzea*: begiz jotako hiztun-multzoak (multzo osoak, gehiengoak, zati ohargarri batek) erabili egin behar du hizkuntza-aldiera hori. Ez du ezinbestean hori bakarrik erabili behar. Hori ere erabili egin behar du, ordea. Beharrezkoa edo komenigarria gertatu behar zaio bere harreman-sarea biltzen duen espazio soziofuntzionalaren zenbait jardun-gune, rol-harreman eta situaziotan bederen.

<sup>44</sup> Lau urrats horiek ezin dira, erabat, inplikazio-eskala hutsean ezarri: bigarren urratsa ez da ezinbesteko aurrebaldintza, hirugarren eta laugarren pausok emateko. Egia da, aldez, lehenengo pausoa beste hiruren ezinbesteko aurrebaldintza dela eta, batez ere, laugarren pausoa emateko ezinbestekoa dela aldeaz aurretik, eta ordena horretan, lehen eta hirugarren urratsak egitea. Badago hor inplikazio-maila ohargarri bat, hortaz.

zer neurritan lortu den, zer jardun-gunetan (irakaskuntzan, literaturan, ...), zer rol-harremanetan eta zer situazioetan<sup>45</sup>. Ikuspegi horretan oinarritu zen Euskaltzaindia 1978an. Galdeketa-bidea erabili zuen luze-zabal, horretarako: batuak eta euskalki-aldaerek situazio formal-idatzizko zenbait jardun-gunetan ageri zuten erabilera-mailan zentratutako galdeketa. Euskaldunei ez zitzaien galdetu euskara batuaren berri ba al zuten, ez eta hizkuntza-eredu berri hori gustuko zuten ala ez; euskara batuan egiten ba al zekiten ere ez zitzaien galdetu. Besterik izan zen galdeketaren ardatz: euskaldunak (euskal idazleak, irakasleak, ikasliburugileak,..) zer aldaeraz (batuaz, euskalkiaz,..) baliatzen ziren 1978an, Arantzazu pasa eta handik hamar urtera, jardungune eta rol-harreman jakinetan.

### II.3. 1978ko ebaluazioa

1978an, Arantzazuko Biltzarraren hamargarren urteurrena zela-eta, aurrez aurreko erantzuna ematen saiatu zen Euskaltzaindia goiko galdera horri. Ondoko esparruok arakatu zituen horretarako, berariaz: euskal idazleak<sup>46</sup>, liburugintza<sup>47</sup>, irakaskuntza<sup>48</sup> eta helduen alfabetatze-euskalduntzea<sup>49</sup>. Kasu guztietan aurrez eginiko inkestak, eta inkesta horiei emaniko erantzunak, izan ziren aztergai. Labur-labur aipatuko dira azken hiru inkesta haien emaitza batzuk.

#### a) Liburugintza

1967tik (Arantzazuko biltzarra egin aurreko azken urtetik) 1977ra euskal liburugintzak izandako bilakaera aztertu zuen Joan Mari Torreldaik. Liburugintza horretan aldaera bakoitzak zer bizi-indar ageri zuen neurtua

<sup>45</sup> Hori da hizkuntza-soziologiaren ikuspegi klasikoa, gure artean errazegi ahaztu ohi duguna.

<sup>46</sup> Martin Ugaldereen kontu joan zen azterketa-zati horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 481-501 or.

<sup>47</sup> Joan Mari Torreldaik egin zuen azterketa-zati horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 503-522 or.

<sup>48</sup> Xabier Mendigurenen kontu joan zen azterketa horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 523-531 or.

<sup>49</sup> Andoni Sagarnak egin zuen azterketa-atal horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 535-555 or.

zuen Siadecok, Euskaltzaindiaren enkarguz, eta datu-neurketa horren emaitzak landu zituen berak. 1967-1977 hamarkadako liburugintzari buruz, konkretuki, ondoko emaitzok eskaini zituen Joan Mari Torreldaik:

Jakintza-gaia	Aldaera bakoitzaren %				
	Euskara batua	Gipuzkera	Bizkaiera	Ipar euskalkiak	Zehaztu gabe
Oro har	55,2	18,4	13,2	13,2	0
Literatura	41,8	27,6	16,4	11,9	2,3
Irakaskuntza	71,1	10,5	15,8		2,6
Natur zientziak	80,0	13,3			6,7

Bistan zegoen kontua: euskara batua nagusitzen ari zen oro har, baina euskalkiek (guztira, ez banaka) presentzia ohargarria zuten oraindik. Jardungune batetik bestera bazegoen alderik, nagusitze-erritmo horri zegokionez. Irakaskuntzan egin zuen euskara batuak aurrera, beste inon baino nabarmenago, hamarkada horretan<sup>50</sup>. Ikasmaterialen hiru laurden inguru euskara batuan argitaratu ziren hamarkada horretan. Literatura-lanetan, aldiz, pausatuago zihozen gauzak. Eredu bateratua zen hor ere nagusi (nagusitasun erlatiboaz, ez irakaskuntzan bezala absolutuz), baina gipuzkerak (eta, beste neurri batean, bizkaierak eta iparraldeko eredu osatuak) indar bizia ageri zuten oraindik. Urterik urteko bilakaera ikusiz, berriz, argi zegoen batez besteko joera: gero eta euskara batuaren aldera makurtuago zegoen liburugintza, kopuruz eta tiradaz.

## b) Irakaskuntza

Gauza bat zen, noski, testu-liburuak idazteko zer hizkuntza-eredu aukeratzzen zen. Bestea, aldiz, irakasleek ikasleekin (hitzez eta idatziz) nola egiten zuten. Berariazko galdeketa egin zitzaion, horretarako, hainbat maisu-maistrari. Irakasle horiei pasatako inkestaren emaitzak Xabier Mendigurenek landu eta aurkeztu zituen. Ahozko jardunari zegokionez ez zen argi esaten, Gipuzkoako irakasleak zer neurritan ari izaten ziren ikasgelan hizkuntza-aldaera batuan eta zer neurritan gipuzkeraz. Bizkaian, aldiz, ikasleen etxetikako aldae-

<sup>50</sup> Natur zientzien lerroa hor sartzekoa da, jakina.



ra aintzakotzat hartu beharraren kezka argia ageri zuten bertako irakasleek: “euskalkitik baturanzko pausuak pixkanaka eman beharra (..), haur euskaldunei dagokienean batik bat. Herriak darabilen euskara kontuan hartu beharra behin eta berriz azpimarkatzen da, bien galerarik gerta ez dadin” (Mendiguren, 1978: 529).

Ohar osagarriak egin zituen, bestalde, ikastetxeetako hainbat zuzendarik. Zuzendarien erantzun horietan, besteak beste, honako hau ageri zen: Haur euskaldunei batua irakastea hizkuntzak eragozpenik sortzen duen galdetean, zuzendari gehienek ez zuten ezer erantzun: informaziorik eza, kasu horretan, %55,6koa izan zen; baietz (hots, euskara batuak eskolan eragozpenik sortzen ziela) erantzun zutenak %22,2 izan ziren. Galdera horri ezetz erantzun ziotenak, azkenik, %18,5 izan ziren Bizkaian<sup>51</sup> (Mendiguren, 1978: 530). Ondorio argia atera zitekeen, hortaz, hitzezko eskola-erabilera idatzizko testu-erabilerarekin alderatuz. Errazago jotzen zen euskara batura irakurritzko jardunean, hitzezkoan baino. Bi mundu zeuden hor, kontuan hartu beharrekoak.

### c) Helduen alfabetatzea

Gauza bat zen haurrei euskara edo euskaraz irakastea, eta beste bat euskaldun helduak alfabetatzea. Amaitu berriko agintaldian ezinezkoa izana zen luzaz, hartarako debeku hertsia egitea, belaunaldi berriak era publiko eta masiboan euskaraz alfabetatzea. Bazegoen bestalde kontzientzia argia, xx. mende-amaierako eta Mendebal Europako kontestuan ezinezkoa zela euskarari bizirik eustea, hitzezko jardunari neurri batean edo bestean idatzizkoa erantsi gabe. Uste-sinesmen gotor horrek eraginik antolatutako ziren hamar bat urte lehenago, Rikardo Arregi bidegile nagusi eta Euskaltzaindia babesle ofizial izanik, alfabetatze-saioak. Aurrez aurre heldu zion beraz, esparru horri ere, Euskaltzaindiak bere galdeketa hartan. Andoni Sagarnak aurkeztu zituen langintza hartatik jasotako emaitzak. Bergarako jardunaldian berak aurkezturiko txostenetik jasoak dira ondoko datuok. Bazen hor ere, eskuartearen dugun konturako, berriaz aztertzea merezi duen punturik. Euskalkiz hitz egiten zutenei batua irakasteak zer eragozpen sortzen zituen galdetu zitzaielarik, argitasun nabaria eskuratu zen. Honako erantzuna eman zion emaitza-aurkezleak, konkretuki, goiko galdera horri:

<sup>51</sup> Aldaera batuak eragozpenik sortu sortzen zuela zioten zuzendariak zer lurraldetakoak edo zer euskalki-esparrutakoak ziren ez zen zehaztu azalpen hartan.

Zer eragozpen	%
Eragozpenik ez	25,9
Euskalkiarekiko diferentzia	20,0
Irakasleen ezaguera falta	3,5
Batuaren zailtasuna	7,0
Besterik	20,0
Erantzunik ez	20,0

Deigarria zen hor ere, jakina, %40k “besterik” edo “ezer ez” erantzutea. Euskalkiarekiko diferentzia hori eragozpen-iturri zela esan zutenak, berriz, hona zein lurraldetakoak ziren:

	Araban	Gipuzkoan	Nafarroan	Bizkaian
Euskalkia arazo, %	11,8	35,3	5,9	47,1

Bizkaikoak ziren gehienak, dudarik gabe. Kopuru ohargarria ageri zen ordea Gipuzkoan ere. Gipuzkoako emaitza altua interpretatzerakoan, ohar hau egin zuen txostengileak: “kontuan izan behar da Gipuzkoako mugen barnean bizkaiera erabiltzen duten eskualdeak badirela, beraz euskalki hau dutenentzat azaltzen da eragozpen hori” (Sagarna, 1978: 541). Labur bilduz, bizkaieratik euskara baturako jauzia lan nekezagoa zen, nabarmen, gipuzkeratik egin beharrekoa baino. Aparteko eragozpena zekarren eredu bateratu horrek *dot*-esparrura: bai eskola-umeen artean zabaltzeko orduan eta bai helduak alfabetatzeko. Hizkuntzaren batasun-bidea batez ere “arazo linguistikoa” zelako ustea, “filologoek eta hizkuntzalari adituek” konpontzekoa alegia, ustel ageri zen hor. Munduko bibliografia teknikoak aspaldidanik baztertua daukan ikuspegi ximple bezain okerra auzitan jarri ziguten bertako eskola-arduradunek eta alfabetatze-lanean ari ziren profesionalek.

#### *II.4. Iritziak eta jakinarazpena: Euskaltzaindiaren adierazpena*

Guztia ez zen, beraz, linguistika kontua euskararen batasun-bidean. Urterik urteko ibilia argi erakusten ari zen, gustatu ala ez, linguistikazko *expertise*

delakoa baino zerbait gehiago behar zela ganorazko corpus-plangintza diseinatu, aplikatu eta, batez ere, emaitza onik eskuratu ahal izateko. Halakorik ez zen Arantzazun berariaz landu. Pragako paradigmaman oinarritua zegoen Mitxelenaren txostena: ikuspegi linguistikoa zen han nagusi, nahiz eta zentzu handiko ohar soziolinguistikoz hornitua etorri txostena. *Estatus*-plangintzarik ez zen Arantzazun landu: are gutxiago *acquisition*-plangintza zehatzik. Heldu beharra zegoen ordea puntu horiei ere. Bigarrenari, hizkuntza-ereduaren eskola-esparruko plangintzari, berehala erantzun beharra zegoen batez ere: umeak pilatzen ari ziren ikastoletan, eta herri-ikastetxeen zein bestelakoen ordua ere hurbiltzen ari zen nabarmen. Ez zen horri buruzko iritzi-azalpenik falta izan, horrexegatik, euskararen batasun-bidearen hamargarren urteurren hartan.

Iritzi kontrajarriak, ugari eta bero, entzun ziren Bergaran 1978an. Ez zen, urrundik ere, adostasun-girorik lortu bertan. Datu enpirikoek garbi azaltzen zuten euskara batuak bere bidea egina zuela eta halako *locus* bat eskuratu zeukala jadanik. Aski leku zabala, gero eta nagusitasun handiagokoa, plano idatzi-formalean. Alor horretan egindako bidea onuragarria eta arrakastatsua izan zelako iritzia nagusitu zen argi Bergaran. Ahozkoan eta eskolaumeekiko jardunean, aldiz, ezer gutxi aurreratu ahal izan zen: iritziak ondotoxoz urrunago zeuden elkarrengandik, eta zail zen emaitza bateratu gotorrik azaldu ahal izatea: kasuak eta kasuak zeuden hor, *det/dot* esparruen banalerro.

Iritzi-batasun argirik lortu ez izanak ez du esan nahi, iritzi-molde batek edo bestek bere bidea egin ez zuenik. Mikel Zarateren testigantza eta ikuspegia izan zen, eskuartean dugun gaiaren aldetik, osatuena eta gerora begira pisuzkoena<sup>52</sup>. Lehenengo hamar urteetan euskara batuaren alde egindako lana aintzakotzat hartuz, baina hasierako helburuen iturrietara itzuliz, bestelako enfasia eta bestelako formulazio malgu orotarikoagoa ekarri zuen bere argudio-bideak. Erdibide baterako zenbait elementu konkretu eskaini zituen bertan. Gerora aski hurbiletik jarraitu diren zenbait elementu, hain zuzen: ortografia bakarra, euskal aditz batuaren ondoan *substandard* dialektal baturanzkoa<sup>53</sup> (bizkaieraren-

<sup>52</sup> Ikus *EUSKERA* 1978-2: 557-77 or.

<sup>53</sup> Hona Mikel Zarateren proposamena (Zarate, 1978: 567): “aditz *substandard* bat, baturanzako maila bat egitea eskatuko nuke bizkaitarrentzat eta lapurtar eta zuberotarrentzat ere bai agian, euskera bizitik euskara batu bizirantz goazelarik ahalbait arinen eta egokiro joateko”. Fishman-Lovas-en terminoa gurera egokituz oker handirik gabe esan liteke *Transitional bivarietal education* formularako definizio-saioa izan zela Zaraterena, funtsean. Gutxitan akordatzen bagara ere horretaz, Mitxelenaren Arantzazuko txostenak berak bazuen hartarako aurreikuspen espresa. Horra Erretereriako maisuaren hitzak: “ez letorke kalte handirik oraingoz,

tzat, zubererarentzat,..), euskara batua eta euskara bizia elkarrengandik bereiztearen arrisku benetakoa,.. Ez zen une hartan, esan bezala, erabateko adostasunik eskuratu puntu horretan. Garbi antzematen zen hori Bergarako Biltzarraren ondoren, handik gutxira, Euskaltzaindiak jakitera emandako adierazpenean. Honela zioen adierazpenaren 5. puntuak: “euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz”.<sup>54</sup> Bateragarria zen baieztapen hori Mikel Zarateren argudio nagusiekin. Axalean gelditzen zen, ordea, garapen-kontuei zegokienez. Biltzarreko gogo-giroa kontuan izanik ez zuen Akademiak, une hartan, zehaztapen handiagoetan sartzeko modurik ikusi.

Gauza bat zen ordea adierazpen akademiko-instituzional soltea, eta bestea gizarte-ekimena. Bigarren puntuari dagokionez bistan zegoen emaitza: mila eztabaida eta iritzi-banatzeren erdian bide handia eginik zen Arantzazuko biltzarraren ostean, 1968tik 78ra bitartean.

### III. Herri-aginte berrien posizio ofiziala, 1979tik 1982ra

Aldaketa instituzional ohargarria gertatu zen garai-inguru hartan: Eusko Kontseilu Nagusia sortu zen 1978an eta handik gutxira, 1980an, Konstituzioaren ildotik EAEko Autonomia Erkidegoa eratzearekin batera, Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza (bir)sortu ziren Gasteizen. Berrikuntza sakon horien ildotik bazen handik aurrera Hezkuntza Sail bat, kontu horiei aurrez aurre heldu ahal izango ziena. Pauso berriak emateko ordua zen. Nola eman ordea, eta zer norabidetan, pauso horiek? Zer leku eman euskara batuari, eta zer leku euskalki-aldareei, EAEko eskola-munduan?

Lakuako agintari berrien artean, batetik besterako alderik falta ez izan arren honetan edo hartan<sup>55</sup>, hizkuntzaren batasun-kontuei zegokienez aparte-

---

beste puntuetan bateratsu bagentoz, aditz laguntzaile molde bat baino gehiago usatzetik. Egizta bait daiteke aditz laguntzaile horiek isomorfoak edo direla euskalki bakoitzean, eta euskalki batetik bestera ere bai, beharrik” (*EUSKERA* XIII. 1968: 218, in Zarate 1978, 567).

<sup>54</sup> Ondoko bi arrazoibideok zerabiltzan Akademiak, baldintza bi horien ezarpenerako: a) Euskara hizkuntza bat dela eta ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan; b) Sarri gertatzen dela gaur hizkuntzaren barnean hesiak geroago eta gogorrago bihurtzea, elkarganatu beharrean bata bestetik urrunduz: a organikoaren erabilera, mugagabearena eta beste hainbat arau, horrela, bere jatortasunean mantentzea komeni da euskara batuan zein bizkaieran.

<sup>55</sup> Terminologia teknikoak osatzen eta bateratzen joateko bideari zegokionez, batez ere UZEIrekiko harreman-bide instituzionalaren alorrean, alderik antzeman zen inoiz Hezkuntza

ko pisua izan zuen irizpide honek: euskal munduak azken urteetan egindako bidetik jarraitzea komeni zen oro har: handik abiatu egin behar zen aurrera, ez saio hura ahaztuz edo zapuztuz. Ibiliko bidea gauza bat zen ordea, guztia-ekin ere, eta beste bat handik aurrera ibili beharrekoa. Iritzi-diferentziak aski nabarmen zirelarik zenbait esparrutan, erdibideko bateratze-saioa egin behar izan zuten EAEko herri-aginte sorberriek, gaiari irtenbide egoki bat emateko. Horretan saiatu ziren, 1981-82 epean bereziki, Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza (konkretuki, bertako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila). Orduko lan haien errepeaso xumea egingo da hemen, eta garai hartan hartutako zenbait erabakiren izaera eta aplikazio-ahalmena berariaz baloratuko.

### *III.1. Legebiltzarra: 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea*

Badu EEN legeak, eskola-munduarekin harreman zuzena duten puntuen ondoan, *corpus-* eta *acquisition-*plangintzekin aski harreman hurbila duen kontu bat: euskara batuaren eta euskalkien erabilera. Honela dio EEN legeak, horretaz ari delarik:

Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratu du, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komunenez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea gora behera<sup>56</sup>.

Eskola-esparruaz gainetik ari da hor legea, hitzez hitz hartuta: euskara batuaren eredu-finkapena du xede nagusia, batetik, eta lekuan lekuko aldaerei zor zaien begirunea zaintzea bestetik. Kontu horiek ezin dira ordea, praktikan, eskola-mundutik hain erraz disoziatu. Arauzko hizkuntza-ereduen finkapen hutsa ezer gutxitarako izaten da, hasteko, jendeak eredu hori ikasten eta, idatziz bederen, erabiltzen ez badu. Idazteredua ikasteko orduan, nahi eta nahi ez, hor dago eskola: ez da hartarako leku bakarra, baina bai beharrezkoa eta garrantzitsua. Leku egokia da hezkuntza, corpus-plangintzaren gai horri au-

---

eta Kultura Sailen artean. Aparteko azteraldi sakon eta zehatza beharko luke horrek, ordea; gaurkoan ez gara, beraz, azterbide horretan barrena abiatuko.

<sup>56</sup> Ez da hau jatorrizko euskal idazkera, garai hartako *EHAAn* ageri zena, Jaurlaritzaren Itzulpen Zerbitzu Ofizialean geroztik egin dena eta hainbatean kurrutzen duena baizik. Ez dut uste, azken “gora behera” horrek jatorrizko esangura oso zuzen ematen duenik. Ikuspegi nagusia, dena den, esaldi osoa irakurritz argi dagoela uste dut.

rrez aurre heltzeko. Hamalau bat urte (gutxienez) eskolan daudelarik ikasleak, aukera ederra legoke berez euskararen idazteredu bateratua erakutsi, landu eta erabiltzeko batetik, eta lekuan lekuko aldaera bizien ezaugarriak eta berezitasunak era egituratuan azaldu eta ikasleen erreperitorio linguistikoan mantendu edo erreperitorio linguistiko horretara hurbiltzen saiatzeko bestetik.

Badirudi helburu bikoitz hori duela legeak gogoan, 1968ko paradigmaren zordun izanik batasun-lanketa hartzen duelarik lehentasunezko helburu. Aski llaburra eta generikoa izanik ere, badu EEN legearen artikulua horrek bere eragina. Gauza bi zaintzera behartzen du Jaurlearitza: euskararen batasuna eta normalizazioa begiratu behar du, lehenik eta behin; kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea izan behar die, bestetik. Errazagoa da hori esaten, noski, egiten baino. Nola egin behar zuen hori Eusko Jaurlearitzak? Nola erantzun behar zion lege-agindu horri, batez ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak?

### *III.2. Eusko Jaurlearitza: Hezkuntza Sailaren Pastoral*

Jaurlearitzak bazuen motiborik, eskolan erabili beharreko euskara moldearen kontua geroke geroaren zain ez uzteko. Gogoia eta irrika, ametsa eta itxaropena, beldurra eta errezeloa askotarikoa zen gai horren inguruan: era batekoa eta bestekoa. Hori dela-eta 1981-82 kurtsoan bertan, Jaurlearitza hartara behartzen zuen EEN legea atera aurretik hortaz, ekin zitzaion lanari. Gauza jakina zen, bere azken fasean abiatua baitzen prozedura parlamentarioa, azalpen laburra emango zuela Legebiltzarrak puntu horren gainean: EAEko indar politikoen (Legebiltzarrerara joaten ziren herri-ordezkarien) artean ez zen antzematen askoz zehaztapen handiagotarako adostasun-girorik. Zegoenari heldu behar, beraz. Azkenean gertatu zen bezala, Jaurlearitzari eman zion Legebiltzarrak zezenari adarretatik heltzeko mandatua. Berari suertatu zitzaion, bestela esan, Legebiltzarrak ordurako begi onez ikusten zuen eta handik berehala jakinarazi zuen irizpide nagusia neurri konkretuen bidez gartztea. Hezkuntza Sailaren esku utzi zen garapen-ardura hori, nagusiki. Bertako Euskara Zerbitzuari gotzi zitzaion gaia teknikoki bideratzeko ardura<sup>57</sup>

---

<sup>57</sup> Hurbil samarretik heltzen dit, beraz, puntu jakin honek: aski aurre-aurreko frontean bizi izandakoa gaia dut. Norberak jakin dakiena eta sentitzen duena bereiztea ez da, halakoetan, nahi bezain erraza izaten. Distortsio-arrisku horretaz jabeturik, eta orduko dokumentua eskueran izanik, saiaturiko naiz kontu haiek ahalik eta txukunen laburbiltzen. Lan handia eta esker-

Eskola gizarte-gaitz guztien konponbide nagusi (zenbaitetan konponbide bakar) delako ikuspegia erabat etxeratua genuen. Horrezaz gainera, orain ez bezalako fedez heldu genion hainbatek, Hezkuntza Saitetik, kontuari: *fede itsuz* ere bai zenbaitetan, itsutasun hori hitzaren adierarik nobleenean hartuz, hala har baledi. Lan nagusi bi egin zituen Euskara Zerbitzuak 1981-82 ikasturtean, jasotako mandatua garaiz eta zuzen bete nahirik: a) galdeketa zabala egin zitzaian, batetik, Bizkaiko Eskolaurreko eta OHoko irakasleei<sup>58</sup>: bai herri-ikastetxeetakoei, bai ikastetxe pribatuetakoei eta bai ikastoletako andereño eta irakasleei; b) bestetik, berriz, ikastetxeentzako gomendio-oinarria, eskolan erabiltzeko aldaeraren barne-osaera nagusia eta, perspektiba zabalean, aurrera begirako lan-ildo instituzionala diseinatu ziren.

Lan handi samarra ekarri zuen galdeketak, prestaera-fasetik hasi eta azken ondorioen idazketaraino. Hori baino lan-karga handiagoa, delikatuagoa ere bai hainbatean, ekarri zuen ordea bigarren eginbeharrak. Ikastetxeentzako gomendio-oinarria, eskolan erabiltzeko bizkai-aldaera idatzizkoaren barne-osaera nagusia eta, perspektiba zabalean, aurrera begirako lan-ildo instituzionala diseinatzea bereziki lan bihurriak gertatu ziren zenbait aldiunetan. Horren inguruko zenbait joan-etorri azaldu nahi da hemen. Hiru atal izan zituen, nagusiki, bigarren lan horrek:

- a) batetik, estatus-plangintza fokalizatua: Bizkaiko ikastetxeetan, Haur-eskolan eta OHOn, aplikatu beharreko estatus-plangintzaren oinarriak jartzea (zer leku komeni zen euskara batuari atxikitzea, eta zer leku bizkai-euskarari?);
- b) bestetik, eskoletan aplikatzekoa zen bizkaiera horren corpus-plangintza (zer osaera izatekoa zuen bizkaiera horrek ortografia aldetik, hitz-altxor tradizionalen eta terminologia berriaren sailean, morfologian (batez ere aditz-forma dibergenteen alorrean) eta sintaxi-joskeran?);
- c) azkenik, zer eginbehar ezarri behar zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere buruari, corpus- eta estatus-plangintza horien inplementazio-mamikuntzari zegokionez?

---

tzekoa egin zuen alor horretan, batez ere 1981-82 ikasturtean, gero aski bestelako lan-alorrean diharduen Itziar Garaizarrek.

<sup>58</sup> Mila irakaslek baino gehiagok erantzun zion galdeketa hari, xehe-xehe, eta erantzun haietatik eratorritako emaitza-ondorioak berriazko txosten batean bildu, landu eta Sailaren esku jarri ziren ikasturtea amaitu aurretik. Diogun, labur beharrez, Euskaltzaindiak 1978an egindako galdeketaren ildotik ibili zirela emaitza-ondorio nagusiak. Aurrekoan ez bezalako xehetasun ugariak eskaintzen zituen, ordea, oraingo azteraldi honek.

Hiru atal horiek garaiz bideratu ahal izateko, aurre-pauso jakina eman zuen Sailak lehenik eta behin: aurrera eraman nahi zen planaren jakinaren gainean jarri zuen Euskaltzaindia (euskaltzainburua lehenik eta behin), tartean sor zitezkeen gaizkiulertuak eta ika-mikak aldez aurretik saihestearren. Solaskide autorizatuen bilaketa egin zen gero: nor izan zitezkeen, plano linguistikoa zein sozialean, honelako lan baten bide-urratzaile eta bermagarri egokienak? Norbanako eta talde-izaerako hainbat eragileri kontsulta egin zitzaion horretarako: aparteko garrantzia aitortu zitzaion haien guztien iritzia bildu eta egituratzeari. Lan handia ekarri zuen berekin, solaskide guztiekiko ideia-trukeak eta desadostasun nagusien identifikatze-lanak. Corpus-plangintzarako lan-taldea eratu zen, aldi berean: berariazko lan-taldea eratu zuen Sailak, bere emaitzak beti ere azken-azkenean Euskaltzaindiari aurkezteko eta bere hobekuntza-oharrak eta irizpen orokorra aintzakotzat hartzeko konpromiso espresaz. *Substandard* gisako bizkaiera bateratu horren morfosintaxia zehaztea, batez ere aditz-paradigma finkatzea, izan zen lan-taldearen lehenengo (eta, gerora, garrantzi handieneko) eginbearra. Denbora eskatu zuen horrek, baina bere bidea egin zuen lan-taldeak eta, azkenik, Euskaltzaindiak berariaz aztertu ondoan lan-taldearen proposamena, eta zenbait aldakuntza gomendaturik, bizkai-aditzaren (eta gaineratiko zertzeladen) sintesizko idazkuntza prestatu zen<sup>59</sup>.

Besterik zen, jakina, estatus-plangintzaren auzia eta horren ondoriozko konpromisoa, Sailak bere buruari ezarri beharrekoa. Dokumentu bakar batean bildu nahi ziren puntu biak, Euskararen Aholku Batzordean landu eta, bere gomendio-oharrak aintzakotzat hartuz, epe jakinean eskola-munduari eskaini. Hartarako erabakia aurrez hartua zuen Sailak. Bere denbora eskatu zuen horrek ere. Hainbat hezkuntza- eta kultura-eragilerekin bildu, kontuak zehaztu, han-hemengo bibliografia teknikoa bildu eta guztiarekin dokumentu-zirriborroa idaztea: hori izan zen Zerbitzuaren aldi hartako eginbear nagusia. Aurrera begirako asmo instituzionalen zirriborroa idatzi eta zirkulazioan jartzeak ere hilabeteetako lana zekarren. Kontu biak dokumentu berean jasotzea erabaki zuen Sailak, esan bezala. Azkenik, gaia aski zoriturik zegoela uste izan zenean, 1982ko udazkenean, Euskararen Aholku Batzordera eraman zen adierazpen-zirriborroa. Batzorde horretan aurkeztu, eztabaidatu eta adostu ondoan berariazko adierazpen gisa eman zuen Sailak argitara, eta Bizkaiko eskola guztietara zabaldu. 1982ko urriaren 22an onarturiko dokumentua da

---

<sup>59</sup> Ez zen lan erraza izan, Bizkaierazko aditz-jokoaren ikuspegi nagusi bi bateratzea. Formula eklektikoa hobetsi zuen azkenik Sailak: “hubiera o hubiese” moduko formula, halakorik esatea aizu balitzait.



hori. EEN legearen ia parekoa hortaz, kronologia aldetik. Hori da, labur beharrez, *pastoralaren* sorreraz<sup>60</sup> eta ibilbideaz gogoan dudana historia laburra.

Bizkaiera/batua bilakatu zen une batetik aurrera, hegoaldean<sup>61</sup>, eskola-esparrurako corpus-plangintzaren auzi-gai nagusietako bat<sup>62</sup>. Bizkaian izan zuen eztabaida hark eraginik biziena. Garbi ikusi ahal izan genuen orduan, horren berri zehatzik ez genuenok, corpus-plangintzaren azpian linguistika kontu hutsa baino ondotoz gehiago zegoela. Fishman-ek behin eta berriro esan izan duena<sup>63</sup> eguna baino argiago agertu zen orduan: corpus-plangintza ez dela, urrundik ere, hizkuntzalarien arteko kontu teknikoa, muga-baldintza soziokulturalerik eta hobespen ideologiko jakinez zorrotz inguraturiko prozedura

---

<sup>60</sup> Adostutako dokumentuari izen berezi hori jarri zion garai hartako Hezkuntza-sailburuordeak, gaur (2008an) Eusko Ikaskuntzaren buru lehen dugun Xabier Retegi jaunak: *Pastorala*. Handik aurrera, lautatik hirutan, hori izan zuen izengoitia eta, are, benetako deitura operatiboa: pasako al didazu *pastoralaren* ale bat, mesedez? Bitxitasun hutsa baino zerbait gehiago ere bada hori: Legebiltzarraren mandatua betetzeaz gainera, asmo-adierazpen haren bidez bakea egin nahi zen, batetik, eta erdibide eragingarri bat bilatu eta adostu, bestetik. Ez naiz eliza kontuetan aditu, eta ez dakit pastoralen xedeetako bat hori izan ohi den. Garai hartan hala iritzi zion hainbatek, ordea: kontuan hartzeko datua iruditzen zait, horregatik.

<sup>61</sup> Iparraldean ez zen une hartan, dakidan neurrian, halako eztabaidarik piztu. Euskarazko irakaskuntza hain mugatua izanik bertan kopuruz (orduan, bereziki), eta euskara batuaren (batez ere hasiera hartako) hainbat ezaugarri nafar-lapurteratik hurbil samar egonik, eztabaidarako motiboak nekez izan zitezkeen hegoaldean (bereziki *dot*-esparruan, eta are berezikiago Bizkaian) bezain larri. Egon bazen ordea, han ere, gai horretaz arduratzeko motiborik. Une batetik aurrera hegoaldeko hainbat testuri egin zitzaion egokitzapena edota Zuberoarako eskola-hiztegi berezitua ditugu, besteak beste, orduko zenbait arazoren testigu. Ikuspegi zabal eta eguneratuagoa eskuratzeko ikus Xole Aire, Margarita Errekarte, Marita Laco, Alazne Petuya eta Guillermo Etxebarria, 2001. Ondorio argigarriak eskainiko lituzke, orobat, Euskararen Erakunde Publikoaren eraginez azken aldirian prestatzen, argitaratzen eta zabaltzen diren testu-liburuen azterketa pausatua.

<sup>62</sup> Auzi-gai nagusietako bat, ez bakarra. Perspektiba zabalagoan, Bizkaian eta nonahi, mailaguzko hitzen trataera grafikoa berriazko auzigai bihurturik zegoen une hartan. Mitxelenaren UZEIrekiko iritzi-kontuak mahai gaineratzea eskatuko luke horrek, auziaren nondik norakoaz bere osoan jabetzeko. Ez da hori ordea txosten honen aztergai. Beste baterako utzi beharko da kontua, hortaz.

<sup>63</sup> Ikus, adibidez, bere 1983ko “modelling rationales in Corpus Planning: modernity and tradition in images of the *Good Corpus*”. Handik jasoak dira, esate baterako, ondoko esaldi hauek: “The tendency to view corpus planning as nothing special, as just one more technical skill that a linguist should be able to pull out of his bag of tricks, is a triple mistake. It reveals a misunderstanding of lexicons per se, of corpus planning as a whole, and of the societal nexus of language planning more generally. (...) It is a devastating mistake to assume that corpus planning merely requires the interplay and coordination of linguistic expertise and technological expertise” (Fishman 1983: 108-9).

konplexua baizik. Argi agertu zen orduan, alde batetik zein bestetik heltzen genion guzti-guztiok genituela geure ikusmolde eta amets-irrika diferentzialak: ortografia-aukera, lexiko-modu eta aditz-forma jakinen gainetik gure hiztun-herriaren (bere baitako hiztun-talde handienetariko baten) lehenaz, orainaz eta geroaz geniharduela han. Oso garbi ikusi zen, orobat, eskolaumeen trataera pedagogiko egokienaz gainera euskara batuak eta euskalkiek gizarte berrian (konkretuki, eskola-esparruan) eskuratu behar zuten *lekuaz* eta *zentraltasunaz* iritzi diferenteak genituela. Hots, corpus-plangintza hark bazuela estatus-agenda gordea: arazo linguistikoez gainera, eta arazo haien gainetik, hizkuntza-aldaeren dimentsio soziologikoa izan genuen guztiok, aldi hartan, benetako eztabaida-gai. Eztabaida soziologiko horren barruan, aparteko zentraltasuna aitortu zitzaizen ikuspegi sozioedukatihoi: zein hizkuntza-aldaerez baliatzea komeni zen Bizkaian, etxetik euskaldun ziren neska-mutilekin, euskarak auzo-giroan (gazte-gaztetxoan jolasean eta helduen lagunartean) bizi-indar propioa ageri zuen ingurumenetan bereziki?

### III.3. *Nondik nora jo behar da?*

Ez zegoen azken galdera-sorta horri ihes egiterik. Eztabaida linguistikoa hutsetik aparte, eta haren gainetik, eztabaida sozioedukatihoa, eta soziolinguistikoa oro har, erabakizun zeudela aitortu zuen, horregatik, adierazpenak. Ondoko bost puntu hauen inguruan mamitzen ziren eztabaida gehienak, bere ustez:

- a) Ahoz eta idatziz jokabide bera ala desberdina eramatea komeni da, Bizkaiko ikastetxeetan, euskara eta/edo euskaraz irakasterakoan?
- b) Jokabide berdinez ala berezituz jardutea komeni da Bizkaiko Lurralde desberdinetan.
- c) Bai bizkaieraz eta bai euskara batuaz jarduterakoan eskola-munduan, zer adinetan komeni da bizkaieraz jardutea, eta noiztik aurrera euskara batuaz?
- d) Etxetik erdaldun diren umeentzat zein jokabide hobesten da?
- e) “Bizkaiera” esaterakoan, batez ere idatzizko zereginetarako, zein eredu konkretuz ari gara: zein ortografiaz, zein arau morfosintaktikoz, etab...

Bost puntu horietatik azkena (bosgarrena) bakarrik zen, bistan denez, linguistikoa hutsa. Soziolinguistikoak edo sozioedukatihoak ziren lehenengo lauak: *acquisition-planning* edo *enrichment bilingual (bidialectal) education*

alorrekoak. Goraxeago ere jotzen zuen txostenak, bere marko nagusia ezar-  
tzerakoan: irakaskuntzak eskakizun desberdinei erantzun behar diela gogora-  
razten zuen; eztabaida guztia ezin izan zitekeen hizkuntza-aldaerek eskolan  
behar luketen pisuari buruzkoa. “Helburu nagusia beti ere ikasleen euskaldun-  
tze eta alfabetatzea” dela esanaz abiatzen zen, eta gerora kontzeptu soziolin-  
guistiko zentral bilakatu zaigun gogoeta dual hau kaleratzen zuen: “eskolau-  
mea bere bizi-giro eta gizarte-ingurune hurbilean egoki txertatzeko eta  
ingurune horrekin etenik ez sortzeko, bertako euskalkiaren erabilera erraz eta  
bizia segurtatu *behar zaio*; bestetik *euskara batua erakutsi behar zaio*, egungo  
eta bihar-etzietako euskal belaunaldi gazteen elkar ulerpenerako eta kultur  
dimentsio osoaz jabetzeko tresnarik egokiena berau izango delako”. Eskaki-  
zun biok oinarrizko euskalduntze- edo alfabetatze-prozedura horren bata-  
sunean eraman beharrekoak ikusten zituen Sailak. Egoera eta lehen asmoak  
zirriboratu ziren atal horretan. Aurrera begirako ezer egingo bazen, printzipio  
operatibo argiak behar ziren. Hamar puntutara bil daitezke, orduko doku-  
mentua berrirakurriz eta sintesi-saioa eginez, *Pastoralaren* printzipio haiek.

#### III.4. Hamar mandamentuak: HUISen irizpide nagusiak

*Hamar mandamentuen* izena, langintza hari dagokionez, orain asmatua  
da. Orduko *Pastoralaren* ildotik asmatua halere, ez hutsetik sortua. Honako  
hamar irizpideok hartu zituen txosten hark gidari, handik aurrera egin nahi  
zen aplikazio praktikoaren zimentarri:

- a) *Euskara hizkuntza bakarra, berezkoa eta ofiziala da.* Euskaltzaindiak  
argi aldarrikatua zeukan hizkuntza bakarraren kontu hori, eta bide ho-  
rri eutsi zitzaion Pastoralen ere. Horrezaz gainera, Autonomia Estatu-  
tuaren 6. artikulua aitortu berria zuen Euskal Herriaren berezko  
hizkuntza dela euskara eta, gaztelaniarekin batean, Autonomia Erkide-  
goan hizkuntza ofiziala. Hori ere bere horretan jaso zuen Pastoralak.
- b) Euskaldunok mendez mendez erabili ditugun *euskalkiek osatzen dute*,  
orain ere, euskal *hiztunon obiko hizkera-bide bizi* nagusia: bakarra den  
hizkuntza hori euskalki bidez ezpain-belarrietaratu ohi da, normalean,  
bizi-eremu arrunt eta ugarienetan. Euskalki horietariko nagusi bat, bil-  
tzen duen hiztun-kopuruaz eta bere baitan ageri dituen nortasun-ezau-  
garriez aski berezia, bizkaiera da.
- c) Euskaldunok badugu euskalkiez gainera, idatzizko zereginetarako ba-  
tik bat baina baita jendarteko adierazpide komun gisa ere, hizkuntza-

eredu bateratua: *euskara batua*. Euskalkiek enbor berekoa duten zati handi horretan oinarritua dagoenez, euskaldun guztion lanabes eta ondare da hizkuntza-eredu bateratu hori: hala zioen, bestalde, Hezkuntza Sailak.

- d) Euskara batua neurri handi batean erdialdeko euskalkietan oinarritua dagoenez, bizkaieratik eredu bateratu horretaraino dagoen tartea nabarmenki handiagoa da Autonomia Erkidegoko beste bi euskalkietatikoa (gipuzkera, nafarrera) baino. Hizkuntza-eredu horretaz jabetu ahal izateko zailtasun erantsi bat zegoen hor beraz, Hezkuntza Sailak inondik inora ere ahaztu ezinezkoa: bai etxetik bizkaiera zekiten eskolaumeentzat eta bai, oro har, bizkaierazko hitzun-eskualde sendotako ikasle erdaldunentzat, kontuan hartu beharreko gertakaria zen hori.
- e) Hezkuntza Sailak *berebiziko garrantzia* aitortzen dio, oro har, *euskarak indarra duen eskualde eta bizi-giroetako eskolaumeen* artean lehenengo eta behin *bertako hizkera-bidearen ezaguerara sendotu* eta hartaz baliatzeke mintzamina lantzeari. Badirudi, izan ere, eskolaumeari etxetik ikasiak edo erdi-ikasiak dakartzan hizkuntza-kodeak bat-batean “zuzendu”, “hobetu”, “osotu” edo antzekorik egin nahi izateak sarri baino sarriagotan inork desio ez duen hura eragiten duela: etxetik dakarren hizkuntza-gaitasuna ahuldu, indargetu eta, hainbatetan, bere euskaraz lotsaraztea.
- f) Hezkuntza Sailak ez du ahazten % 20ra ez direla iristen, *bizkaitar* guztien artean, *izatez euskaldun direnak*. Hitz egitez gutxiago, agian, hainbat arrazoi direla medio. Komunikabideak, garraio-sistemak eta gainerako gizarte-harremanak egunetik egunera indartzen ari dira bestalde, eta herrialde bateko eta besteko euskaldunon elkar-ezagutza eta harreman-tratuak ugartu baizik ezin egin daitezke horren ondorioz. Biztanle erdaldunen kopuru zabal horien nondik norakoa bideratzerakoan ezin era litezke hortaz eskualde mailako soluziobide apartekoak, elkarrekiko loturarik gabeak. Horrelakoetan, aitzitik, lekuan lekuko bizi-giro eta gizarte-ingurune hurbila oso kontuan hartzeaz gainera ezinbestekoa da Autonomia Erkidegorako euskalduntze-plan osatuak eratzea eta, horren arabera, bertako belaunaldi gazteei hizkuntza-eredu bateratuaren arrazoizko gaitasun-ezaguerak eskuetaritzen ahalegintzea.
- g) Hezkuntza Sailak ez deritzo zuzen euskara batua eta euskalkiak kontrajartzeari, bata bestearen ukatzaile eta are bateraezinak bailiran

aurkeztuz. Ez deritzo zuzen euskara batua bizkaieraren hiltzaile gisa azaltzeari: bizkaiera, gainerako euskalkiak eta, horrenbestez, euskara osoa hil ala biziko kinka larrian daukatenak auzo-erdarak dira nagusitasun osoz. Alboko erdal hizkuntza indartsuen ondoan ditugun indar apurrak elkartuz erdal erasoaldi latz horri ahalik eta era probe-txugarrienean aurre egiteko sortua da hain zuzen, ezertarako izateko-tan, euskara batua.

- h) *Kaltegarri iruditzen* zaio, orobat, *bizkaierazko azalpen-emankizunak arlotekeria, ezjakintasun eta gizarte-uren kontrako* grina itsuen seme bailiran *hartzeari*. Horrelako jokabideek badute, egileek begiz jotako gogo-asmoak gora-behera, aski ondorio txarrik ekartzeko arrisku bizi-rik: *hainbat euskaldun* etxetik dakien eta beharrezko jariakortasunez erabil dezakeen *hizkera-bide bakar horretaz lotsaraztea* eta, bere euskara besteena baino txarragoa dela iritziz, lehendik ere hartarako tentabide ugari falta ez zaionez, erdarara pasaraztea. Haurrari bere etxeko hizke-ra-bidearen harrotasuna bihurtu beharra dago, alde horretatik, hizkun-tza-trebetasun ororen muina osatzen duen mintzamina —lehendik ere zorigaiztoz aski kamustua— itxuratxarki ahuldu eta birrindu nahi ez bada.
- i) *Bizkaiko hizkuntza-egoera*, beste eskualdeetan bezalaxe, *oso desberdina* da leku batetik bestera. Konponbideak ere, hartaz, kasuan kasurako egokienak aurkitzen saiatu beharko da, helburu nagusia beti ere bertako eskolaumeen euskalduntzea edo alfabetatzea izanik. Kasu bakoi-tzerako egokienak lirakeen konponbide zehatzak ez daude gaur-gaurkoz, bestalde, hain garbi. Arrazoi asko daude, hartaraz gero, bide baten eta bestearen alde: jokabide desberdin horiek berekin dakar-tzaten *etekin-neurketa konparatuak*, ordea, *aski urriak* dira eta, inoiz baino gehiagotan, elkarren kontrakoak.
- j) Soluziobide egokienak begien bistakoak lirakeen kasuetan ere, irakaskuntza-sistema orok muga-baldintza zorrotzak izan ohi ditu sarri: hartarako irakasle-premia, ikasketa-programen oinarritzko muga-finkapena, gurasoen eskaerak, ... Ez da erraza, beraz, eskakizun horiei gauetik goizera erantzun ahal izatea. Guzti horregatik *Hezkuntza Saila ez da* honetan, beste hainbatetan bezala, erabateko *agindu zorrotzik ematearen aldeko*. Hobe deritzo, aitzitik, Bizkaian euskara edo euskaraz irakasten ari diren irakasleentzat eta ikasketa-munduarekin harreman-ik duten erakunde, elkarte eta norbanakoentzat bide-adierazle eta lagungarri gerta daitezkeen orientabideak eskaintzea.

Hamar mandamentu, hamar irizpide nagusi horien gainean eraiki zen 1982an, euskara batuari eta euskal aldaerei (konkretuki, bizkaierari) eskolan (Eskolaurrean eta OHOn) eman beharreko trataera soziolinguistikoaren posizio ofiziala. Posizio hori ez da geroztik, dakidan neurrian, errotik aldatu edo indargabetu.

### III.4.1. Orientabideak

Orientabideen (ez agindu esplizituen) hautua egin zuen, beraz, Hezkuntza Sailak. Ez zuen agindu zorrotzik eman nahi izan, eskoletan noiz batua eta noiz bizkaiera erabili behar zen zehaztuz. Eskolen (eta, zenbaitetan, irakasle jakinen) esku utzi zuen kasuan kasuko erabaki konkretua. Hori bai: hartarako gogoan izatea komeni zen orientabide-sorta eskaini zuen hezkuntza-administrazioak<sup>64</sup>.

a) ***Eskolaumeek euskara ondo ikas dezaten*** izan behar du beti ere, alor honi dagokionez, euskaraz diharduen irakasle ororen lehen helburu eta ***xede nagusia***. Batuaz nahiz bizkaieraz ari, euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ondo dakien eskolaumeak erraz lortuko du hizkuntza-eredu batetik bestera pasatzea; forma bat ondo ikasitakoan erraz ikasiko du bestea. Euskara jakitea da beraz, ikuspegi honetatik, garrantzitsuena; batuaren eta euskalkiaren arteko auzia helburu nagusi horren menpeko arazoa da, ez inola ere haren parekoa edo are gainetikoa.

b) ***Hartarako bideak desberdinak izan litezke***. Batak batuaz jardungo du nagusiki, besteak bizkaieraz; hurrengoak bizkaieratik baturantz joko du mailaz maila. Ez da kasurik ere falta, hasieratik beretik era nahasian dihardutenenik, ez eta ahoz batera eta idatziz bestera jokatzeko dutenenik. Jarduera

---

<sup>64</sup> Zergatik? Ez dago dokumentu jakinik, Pastoralaz beraz kanpora, horren argitasun bete eman dezakeenik. Hipotesi probable gisa bi motibo ikusten ditut nik: a) batetik, aginte-indarraren ahuldade-muga; Sailak ez zuen behar adinako indarrak antzematen, batetik, goitik behe-rako plan zorrotzik (geroko terminologian *top-down planning* deitu izan den modukorik) ezartzeko b) bestetik, segurtasun osorik eza, bide egokiaz: Saila ez zegoen batere seguru, hartarako baliabide guztiak eskuaren izanik ere hala jokatzeko komeni zenik. Aldagai gehiegi zeuden airean, gizarte-urak nora makurtuko ziren ikuskizun uzten zutenak. Hobe zeritzan Sailak, horregatik guztiagatik, jarduera sozioedukatioaren funtsezko puntuak azpimarratuko zituzten orientabideak emateari eta, horrekin batean, bizkaierazko irakaskuntzaren eragozgarri operati-boak (eredu baten falta, idatzizko zereginei zegokienez; irakasleen hizkuntza-prestaera integrala, giza baliabideen alorrean; eta bizkaierazko ikasmaterialen sorkuntza, baliabide materialen saillean) lehenbailehen baztertzeari.

horien artean aukeratzeko orduan badirudi **ondoko faktoreak** bederen ondo **kontuan hartzea komeni** dela:

- ikasgelatik kanpora eskolaumeak euskaraz jardun ahal izateko aurkituko duen lagunartea eta gizarte-ingurumena.
- ikasleen hizkuntza-gaitasuna: ikasgelako umeen artean % zenbat diren etxetik euskaldun?.
- irakasleen hizkuntza-gaitasuna: irakasle bakoitzak bere gelako ikasleekin, ahoz zein idatziz, bizkaieraz eta batuaz jarduteko duen benetako ahalmena.
- irakasmaila: batez ere ikasle euskaldunek, adinaren arabera, etxeko hizkera-bidetik urrunduagoko formetara pasatzeko daukaten aukera

Bide horietan barrena ibiltzerakoan, kontuan izan behar da ikastetxeak koherentzia minimoa behar duela, bai programazioan eta bai iraunkortasunean. Ikasleak ez luke kurtso batetik hurrengora hizkuntza-ereduz itsumustuka aldatzen ibili behar, bertako irakasleen uste-aburuak eta jokabideak bat ez datozelako edota ikastetxeak bat-batean hala erabaki dezakeelako.

c) **Bizkaieraz** jardutekotan, **eredu egokia** izan behar da kontuan. Ahozkoan askatasun handiagoz joka liteke, situazioaren arabera beren lekua eskainiz lekuan lekuko aldaerei. Ez, aldiz, idatzizkoan: *substandard* bakarraren aldeko apustua egin zuen horretan Sailak. Euskaltzaindiak VIII. Biltzarreko Adierazpenean azaldutakoan oinarriturik, ondoko ezaugarriok definitzen dute bizkaieraren idatzizko eredu hori:

- Ortografia, bere osotasunean, Euskaltzaindiak euskara baturako adierazitakoa.
- Morfosintaxiari dagokionez, batez ere aditz- eta izen-jokoetan, bertako forma jatorrak.
- Hiztegiak denaz bezainbatean, azkenik,
  - Ohiko hitz-ondareko formak, bizkaieraz
  - Irakaskuntzarako hitz bereziak, gai horiek lantzen dituzten ikasliburuetan nagusituz doazen formetara bildu oro har.

Hots, ortografian eta terminologia teknikoan euskara batuaren bidea aukeratu zen. Ohiko hitz-altxorrean eta morfosintaxian zentratu zen aldiz, batez ere, bizkaieraren lekua.

### III.4.2. Baliabideak

Gauza bat da noski *acquisition*-plangintzarako orientabide-sorta prestatu eta corpus-plangintzaren kodifikazioa egitea, eta beste bat aldaera biko hezkuntzarako laguntza-bide materialak jartzea. Hiru eginkizunok lehenetsi zituen Sailak, orientabide horietan esandako xede-helburuei erantzun praktikoa eman ahal izateko.

- a) *Ikasliburugintza indartzea, batuan zein bizkaieraz*. Hizkuntza-eredu bietako ikasmaterialen edukizko, hizkuntzazko eta pedagogiazko egokitasun-maila arazoizkoa sustatzeko konpromisoa hartu zuen Sailak.
- b) *Irakasleen hizkuntza-prestaera indartzea*. Jadanik lanean ziharduten irakasleei eta handik aurrerako irakasle-gaiei aukerabide ugari, egoki eta zabalak eskaini zizkien Sailak.
- c) *Ebaluazio-lana bultzatzea*. Bide bat edo beste hartuz zer baldintzatan zer emaitza ateratzen diren ikusi eta, horren arabera, hobekuntza-bideak planteatzea erabaki zen.

Eginkizun horien haritik mugitu izan da funtsean, mende-laurden batez, Sailaren jarduera nagusia. Sailaz kanpoko zenbait instantziak ere marko horren barnean jokatu du nagusiki, bere gogoeta- edo aplikazio-alorrean. Merezi du, nolana ere, mende-laurdeneko ibilbide horren zertzelada batzuk kontuan izatea.

## IV. Azken mende-laurdenean egindako saio praktikoa

Erabakimen handiko unea izan zen, dudarik gabe, 1981-82koa. Baita gogoeta-aldia ere. Ez gogoetaren hasiera, gorago azaldu denez, eta ez bukaera. Bai, ordea, “nondik nora jo behar genuke?” galderari erantzun konkretu eta operatiboa emateko une konkretua. Instituzio-marko berri baten abiaburua ezartzeko unea zen hura. Abiaburu hartan euskararen baitako aldaera-faktorea hezkuntza-agintarien agendan zegoela erakutsi zuen *Pastoralak*. Aplikazio-lanari ekin beharra zegoela adierazi zuen dokumentuak, inplizituki zenbaitetan eta esplizituki besteetan. Aplikazio horrek probetxu onik ekarriko bazuen, berriaz, gogoeta-bideari etengabe eutsi behar zitzaiola ematen zen aditzera, alde edo moldez.

Gertatu ere hala gertatu da, hein batean. Era askotako gogoeta-lana egin da geroztik ere, gai horren gainean. Ez kasualitatez: eskola-etekin linguistikoa



ez da, ezinbestean, ikasle-irakasleek gelan erabiltzen duten hizkuntza-aldarearekin loturarik gabea. Ez da edota, askoren ustean, ez du zertan izan. Eskola bidez lortuz doazen emaitzak diren bezalakoak direla ikusirik, aztertzaille batek baino gehiagok planteatu izan du, hizkuntzak berak (hots, hizkuntzaren dimentsio intralinguistikoak) ez ote duen loturaren bat emaitza horien zer-nolakoarekin. Hipotesi-lanketa eta deskribapen-saioa handiagoa izan da alor horretan ere, zoritxarrez, ikersaio esperimentalen aplikazio kontrastatua baino. Izan dira ordea, aukeran gutxitxo izanik ere, horretan saiatu direnak.

Kontua gogoeta edo ikerlan teknikoan eremura eraman da hainbatean, eta mesede egin dio horrek aztergaiari. Beste lasaitasun batez hitz egin liteke orain, *huntaz eta hartaz*. Badira oraindik talkadak<sup>65</sup>: ez dira ordea, dakidan neurrian, gero eta ugariago; gero eta mikatzago ere ez. Elkarren arrazioak gero eta errazago entzuten eta onartzen dira gure artean, alor honi dagozkionetan. Derioko ikastaroak eta, berrikitanago, Mendebalde elkarte funtsezko gertatu dira, seguruenik, gogoeta-lan patxadatsu horren garapenean. Aparteko aitormena zor zaiela uste dut, alde horretatik, batari zein besteari. Kontua ez da hor amaitzen ordea: EHUko zenbait fakultatetan eta Bizkaiko irakasle-eskoletan ari den hainbat irakasle adituk, orobat, ekarpen baliosik egina du azken urteotan. Hizkuntza-aldarek (batez ere euskara batuak eta bizkaierak) eskola-munduan behar luketen lekuaz azken mende-laurdenean egindako gogoeta-lanen zerrenda egitea ez da, horregatik, hain gauza erraza. Guztiak lerro-lerro emateak luze joko luke, eta ez dirudi gainera horren behar gorrian gaudenik. Honako hauek behintzat, hori bai, aski kontuan hartzekoak direla iruditzen zait<sup>66</sup>:

- a) Koldo Mitxelenaren 1982ko: “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”;
- b) Agirre, J. M., I. Eguzkitza, I. Idiazabal eta L. M. Larringan, 1985: *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian. Arazoak eta zenbait proposamen*;

---

<sup>65</sup> Demagun, eta ez naiz ezer asmatzen ari, honelatsu agertzen dela talkada modu bat: “eskolan bizkaieraz jardun nahi nuke, eta ez zait uzten”. Irakasle baten gogoari eskolako aginte-organo nagusien debekua kontrajartzen zaio, inoiz edo behin. Eskolako Zuzendaritzaren jokabide horrek ere badu bere argudio-oinarria: “irakasle bakoitza ezin da bere kontura ibili. Denen arteko ibilbide koordinatua antolatzea komeni da, beti ere ikastetxeko aukera posibleak baliatuz eta probetxurik hoberena aterez”. Kontrakorik ere gertatu izango zen agian. Ez da erraza, horrelakoetan, aplikazio jeneraleko arau bakar eta uniforme ematea.

<sup>66</sup> Lan bakoitzaren zehaztasun handiagorako ikus artikuluaen amaierako bibliografia-zerrenda.

- c) Koldo Zuazoren 1988ko *Euskararen batasuna*, 2000ko *Euskararen sendabelarrak eta* 2001eko “Ohar zenbait euskara normaltze aldera”;
- d) Juan Martin Elexpururen 1996ko “Herri-euskararen eremua”;
- e) Julian Maiaren 2000ko *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*, batetik, eta 2001eko hiru hauek bestetik: “*Euskara batua, euskalkia eta eskolako hizkera ereduaz*”; “*Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan*”, eta “*Eskola eta tokian tokiko hizkuntza aldaera*”;
- f) Juan Luis Goikoetxearen 1997ko “Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari” eta 2003ko *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*;
- g) Ane Barrusoren 2001eko “Eskolan: batua? Euskalkia? Biak?”; eta
- h) Agurtzane Elorduiren 2006ko “Eskolaren hizkuntza-eredua harreman-sareen trinkotzearen ikuspegitik”.

Guztia ez da ordea, gorago esan denez, gogoeta-lan hutsa izan. Aplikazio konkreturik ere egin da, aitzitik, esparru batean baino gehiagotan. Bizkaiko zenbait instantzia tekniko, publiko eta pribatu saiatu da batetik aplikaziolan horretan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak ere pauso jakinak eman izan ditu urteotan, bestetik. Gogoeta alorrean zein aplikazio konkretuen sailean benetan egin denaren berri eman nahi da, labur-labur, atal honetan.

#### *IV.1. Zenbait ekimen*

Eskola-esparruan ezagunenak-edo gertatu diren ekimen publiko eta pribatuak aipatuko dira hemen, gaingiroki. Horrezaz gainerako xehetasunaz jabetzeko lan monografikoetara jo bedi. Labayruk, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak, IRALEk, Ibaizabalek eta Unibertsitateak azken mende-laurdenean bizkaieraren alorrean egindakora mugatuko gara, beraz hurrengo pasarteotan.

- a) Irakasle-eskolak, Labayru, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala eta IRALE

Bizkaierak bere lekua izango bazuen hezkuntza-munduan, bizkaieraz dakiten irakasleak behar ziren. Alferrik ziren, bestela, asmo oneko hitzak. *Dot*-esparruko irakasle-eskolen partaidetza, alde horretatik, berariaz landu beha-

rrekoa zen noski. Hala zen orduan, orain dela hogeita bost urte inguru, eta hala izan da geroztik ere. Nola gertatu dira gauzak?

Labur beharrez, eta aurrerago esango direnak labur bilduz, argi-ilunezko panorama osatu du, mende-laurden honetan, irakasle-gaien eta lehendik lanean ari ziren irakasleen bizkaierazko prestakuntzak. Aurrera egin da, dudarik gabe, gero zehaztuko diren ekimen jakinei esker. Egin zitekeena hartzen bada erreferentzia moduan, aldiz, bistan da kostatzen ari dela hor egin litekeen guztiaz baliatzea.

b) Ikasmaterialgintza: *Ibaizabal*-en ekarpena

Bizkaieraz jardungo bada eskolan (idatziz jardungo bada konkretuki, eta ez hitzez bakarrik) aldaera horretan prestatutako materialak ere behar-beharrezkoak dira. Izan da etxerik, eta bada orain ere, hartan saiatzen denik: *Ibaizabal* etxea. Bizkaierazko ikasmaterialgintzan jardun izan du argitaletxe honek 1980 ingurutik hona. Hala egin du lehen eta hala dihardu orain, urterik urteko bere produkzio-bidean. Irla bakartia izan da bera, kasik, testugintzaren itsaso zabalean bizkaierazko produkzioari bere lekua eskaintzeko orduan. Aurrerago, azken urteotako produkzio idatziaren berri ematen den atalean, azalduko da xeheago bizkaierazko langintza horren zabala eta etengabeko izaera. Esan dezagun hemen, labur bilduz, euskara batuan eta bizkaieraz kaleratzen dituela bere ikasliburuak, dezakeen neurrian. Aparteko esfortzua egin du argitaldari horrek, gure hezkuntza-munduaren gero eta eskakizun konplexuagoak aldaera bitan prestatzen. Salmenta-kopuru txikiekin jarduteak eragozpen argiak ezartzen badizkio euskara batuko ikasliburugintzari, eragozpen horiek larriagotu egiten dira bizkaierazko kasuan, hartaz baliatu ohi den merkatuaren neurri-muga zorrotzagatik.

*IV.2. Gogoeta-lana: doktore-tesiak, ikerlanak eta bestelakoak*

Gero eta leku zabalagoa eskuratu du unibertsitateak (publikoak eta pribatuak), doktore-tesien eta garapenezko gogoeta-lanaren bidez bereziki, hizkuntza-aldaeren dimentsio sozioedukatiboaren alor honetan. Ia inolako laguntzarik gabe heldu behar izan zitzaion hasiera batean gogoeta-lan hari<sup>67</sup>; aski bestelakoa da egungo egoera. Denbora eta leku faltaz ezin detaile handietan

---

<sup>67</sup> Gogoan izatekoa da, dena den, Deustuko zenbait irakaslek (bereziki Alfontso Irigoienek eta Adolfo Arejitak aurrez aurre, eta Karmele Rotaetxek plano teorikoago batean) jorratzen

sar gaitzke hemen. Kontuan hartzekoak dira ordea, nolanahi ere, 1982tik honako gogoetak. Txosten honen lehen eranskinean eskaintzen da, era sinoptikoan, gogoeta-lan garrantzitsu batzuen (ustez gogoangarrienen) zerrenda. *Mendebalde Alkarteak* azken urteotan argitara ematen duen liburu-saila berriaz kontuan hartzekoa da alor honetan: liburuki guztiak ez daude eskola-munduan zentratuak. Asko bai, ordea<sup>68</sup>. Kontuan hartzekoa da, azkenik, Euskaltzaindiaren beraren 2003ko azalpena: bertakoa eta aski egin berria delarik, ez naiz bere xehetasunetan sartuko.

## V. Saioaren balioespena: zer lortu da, eta zer ez?

Inplementazio-neurri jakinak hartzeko eginbidea ezarri zion Hezkuntza Sailak bere buruari, 1982an. Bete al ditu bere buruari ezarritako xede operatibo haiek? Zer neurritan bete ditu? Ikus dezagun, gain-gainetik bada ere, hasierako bost eginkizun nagusiri hurrengo mende-laurden luzean emandako erantzun instituzionala.

### V.1. Bizkaieraz zein batuaz i(ra)kasteko aukera

Errespetatu al da aukera hori, lege aldetik? Zaindu al da eskubide hori, praktikan? Goazen pausoz pauso. Aukera bikoitz horretarako bidea zabalik dago lege aldetik, eskola mailan<sup>69</sup>. Hala egon da lehen eta hala dago orain ere. Dakidalarik, egon ez dago *Pastoralak* eskolari aitorturiko erabakimen hura indargabetu duen debeku zorrotzik. Onarpen espresik ere ez, ordea. Sailak ontzat eman izan du bizkaierazko irakaskuntza, lehen urteetan bereziki, eskolak hala egitea erabaki duen kasuetan. Alde honetatik, hasierako asmo hura hainbatean bete dela esan liteke. Ohar-ñabardura sendoa erantsi behar zaio, ordea, baieztapen horri. Gauza bat da bizkaieraz irakasteko aukera legala zabalik (ez, behintzat,

---

hasia zutela bertako hainbat esparru. Arejitak, konkretuki, aurrera egin du gero ere esparrulanketa horrekin (adib. 1997).

<sup>68</sup> Lehen obraren ordena kronologikoari etsiz ematen dira, konkretuki, erreferentzia hauek.

<sup>69</sup> Ez beti, aldiz, banakako irakaslearen jarduera-esparruan. Ulergarria ere bada hori, hainbatean: hizkuntza-proiektu bateratua antolatu behar izaten du eskola bakoitzak. Bateratze-maila horren barruan joan ohi da, hainbatean, ezinbesteko uniformetasuna ere. Beste zenbait kasutan, aldiz, badirudi posizionamendu linguistiko-ideologikoek beren pisua izan dutela irakasle jakinei jokabide hau edo hura ezartzeko orduan. Gai irristakorra da hori: inoiz edo behin berta samarretik bizi izatea suertatu izan zaionak baizik nekez uler dezakeen modukoa.

debekaturik) egotea, eta bestea eskola jakinak praktikan hala egin ahal izatea. Era askotako eragozpen praktikoak daude bidean, goiko aukera teoriko-legal hori benetan hezurmamitu ahal izateko. Eragozpen horiek ez dira normalean Sailak berariaz ezarriak, ingurumen-baldintzek erantsiak baizik.

Bizkaierazko ikasketa-bidea osorik eratu ahal izateko, oinarrizko uniformetasun-maila bat behar du ikasgelak eta, hainbatean, ikastetxeak berak. Haur guztiak euskaldun baldin badira, eta guztiak Zeanurikoak (esate baterako), askoz errazagoa da oinarrizko uniformetasun hori lortzea. Beraz, errazago lor liteke asmo hori Zeanurin, Durangon baino. Ondotxoaz haur gehiago bizi dira, ordea, Durangon eta Durango moduko herriburuetan. Kasu gehienetan zaila da beraz, uniformetasun faltaz, irakasbide teoriko hori praktikan aplikatzea: hor dago lehenengo eragozpena. Uniformetasun-falta horren iturriak, berriz, aski ezagunak dira. Horrela,

- a) Gero eta maizago gertatzen da, ikastetxearen antolamenduzko motiboengatik, etxetik euskaldun, erdaldun (are alofono-atzerritar) edo nolahalako elebidun diren haurrak gela berean sartu behar izatea. Haur-jaiotzen mende-laurden honetako kopuru-jaiste handiak (Europako handienak, antza denez) konplikatu egin du, erraztu ordez, gela-talde horiek haurren ama-hizkuntzaz, are ama-euskalkiz edo azpi-euskalkiz, antolatu ahal izatea. Ezinak eta nola edo hala irtenbideren bat bilatu beharrak eragindako bidea izan da hori, gehienetan. Ikastetxeak beraiek izan dira, sarri, bizkaierazko bidearen kontrako neurrien bultzatzaile.
- b) Irakasle aldaera-bidunak behar dira gainera, euskal-erdal elebidun izateaz gainera. Hori ere zaila da eskuratzea, sektore publikoan bereziki, eta are zailagoa indarrean mantentzea<sup>70</sup>. Herri-ikastetxeetan, hasteko, inoiz gutxitan hartu izan da euskalkian edo bertoko berbakera arruntean egiten jakin beharra ezinbesteko (edo, gutxienez, hobesteko) baldintza gisa. Ondorioz, ikasle-taldeak hartarako gai dituzten herri-ikastetxe guztiak ere ez daude praktikan, irakasle aldetik, asmo hori aurrera eraman ahal izateko behar bezala hornituak. Aldiz ikastetxe pribatu kontzertatuek errazago lukete, berez, lekuan lekuko edo bizkaierazko irakasle-gai berriak kontratatzea. Badakigu jakin hala jokatu izan duela zenbait ikastetxe pribatuk. Beste hainbatek, aldiz, bigarren mailan jarri izan du eskakizun hori. Hor ere ez daude gauzak, praktikan, teoriarik dirudien bezain erraz.

---

<sup>70</sup> Sektore publikoan, irakasle berriak kontratatzeko deialdiak “euskara” aipatzen du ezinbestean, Autonomia Erkidego osorako egin ohi denez.

- c) Gatozen beste eragozpen batera: ahal izatea gauza bat da; nahi izatea bestea. Nahi al dute ikastetxeek, ahal izanik ere, euskalkiaren gai horri aurrez aurre heldu? Erantzuna, aurrekoan bezala, argi-iluna da. Badira asmo hori begien aurrean izan duten ikastetxeak eta hartara iristeko neurri operatiboak hartu dituztenak. Gutxienak dira, ordea, halakoak. Gutxi izan dira lehen eta, azken datuen arabera (Ondarroa, Zornotza), gehitu ordez gutxitzen ari dira orain. Hala dira kontuak, hizkuntza idatziaren planoan bederen.

Zergatik da hori horrela? Hartarako aukera objektiboa (ikasle- eta irakasle-osaera egokia) duten ikastetxe gehiago zergatik ez da bide horretan barrena sartu? Erantzun bat baino gehiago ditu galdera honek. Horietariko bat honako hau da: optimizazio sozioedukatibozko gaitzat hartu ordez ideologiazko “arazo”tzat hartu izan da, hainbat kasutan, haurrak euskalki bidez (kasu honetan bizkaieraz) eskolatzea<sup>71</sup>. Irakasle asko, etxetik bizkaieraz ongi (samar) dakitenak tarteko, mesfidati agertu izan dira, *a priori*, saiakuntza horren aurrean. Ez da zaila horien burutik zer pentsamolde dabilen asmatzea: “beste lekuetan normala dena (irakaslanerako hizkuntza-eredu estandarrez jardutea) izan behar du hemen ere normal”. Hala ikusten-edo du irakasle eta eskola-arduradun askok kontua. Bide normaletik ateratzea bide “markatu” batean sartzea da, horientzat. Hor izan du bizkaieraren eskolaratzeak berariazko eragozpen subjektiboa, gorago esandako bi eragozpen objektiboez gainera.

Hori ere ez da harritzekoa: izan dute motiborik aski irakasle horiek, kontuak horrela direla uste izateko. Euskara batuak euskara salbatuko zueneko mistikaz gainera bazen bestelako uste-sinesmen sendorik gure artean, irakasle gehienak mesfidantzazko jarrera horretara eraman dituenik. Aspaldiko ustea da Europan, Frantzia-Espainietan bereziki, dialektoak (eta, bide batez, lekuan lekuko *state-building language* nagusiaz besteko albo-hizkuntzak) eragozpen sendoa direla “zibilizazioaren aurrerabiderako”<sup>72</sup>. Ideia zahar baten oihartzun

<sup>71</sup> Suabe esanik dago esaldi hori: “izan zaio” ordez hobe genuke, bostetik lauk-edo, “izan diogu” esan. Kostatu egin zaigu gehienoi, benetan, korrelato soziologiko posibleak alboratu eta ukatu beharrik gabe gaiari aurrez aurre eta termino soziolinguistiko garbietan heltzea. Egungo euskalkizale asko, oker handirik gabe, batuzale (eta, orduko termino korrelatiboetan, euskalki-eszeptiko) izana da/gara. “Bat ala beste”ko paradigmaz haziak eta heziak gara gutako gehienok, eta neke handiaz baizik ez dugu ikasi “bat eta beste” paradigmara pasatzen. Osorik burutu gabeko itzuli kopernikarra da hori, oker ez banago, gure artean. Baita soziolinguistika kontuetan bere burua zertxobait jantzizat dutenen artean ere.

<sup>72</sup> Ez da hori “Madrilgo” ikuspegi sozioedukatibo hutsa. Bertan ere erro zabalak izanak ditu, ordea, ikuspegi horrek: Eguren ikuskariaren 1867ko ikasliburua testigu. Ikus bere pasarte

eguneratua ageri da hor. Konturatzen ez badira ere eskuarki, Iraultza Handiko (1794ko) Grégoire abadearen eskutik dabilta irakasle horiek: berea da, noski, “Rapport sur la nécessité et les moyens d’anéantir les patois et d’universaliser l’usage de la langue française” (ikus Certeau, M et al 1975). Egia da bestelako tradizio sozio-eruditiborik ere badela Europan, Alemanian eta bere ingurumarian bereziki: Hildebrand-en 1867ko, eta haren ondorengo, filosofia pluri-zentriko hori gutxitan iritsi izan da ordea gugana. Horrelakoetan ere errazago elikatu izan gara Salamankatik, Leipzig-etik baino<sup>73</sup>.

Epai moduan, ikusitakoaren argitan honelako zerbait esango nuke: aldakuntza-giro bizioan murgildurik bizi izan da EAEko eskola-mundua, azken mende-laurdenean. Atxiki zaizkion eginkizun guztiak garaiz eta zuzen bete ezinik jardun izan du sarri. Gizarte-aldakuntza horiek, gainera, indartu ordeztu ahuldu egin dute, oro har, gai honen garrantzi-usaina. Gurasoak gero eta gutxiagotan dira biak euskalki (zer esanik ez azpieuskalki edo leku) berekoak. Euskal-erdal ezkontzak ere ugaritzen ari dira, bestetik. Plan horiek aurrera eramateko ingurumen egokienak, beste zenbait lanetan “euskal arnaguneak” esan izan diedanak, urritzen ari dira. Urrituz doaz oro har, eta nabarmen urritu dira Bizkaian. Demagun Mikel Zarateren orain dela hogeita hamar urteko esaldi gogoangarri hura: “Bermeoko kaleetan berez-berez eta bizi-bizi egiten den euskara, bermeotarrontzat komunikabide den euskara, ona da, jatorra, benetako komunikabide diren euskara guztiak bezala” (Zarate, 1978). Non dago gaur, Bermeoko kalean, mintzajardun bizi-aberats hura? Non dago bizi-tasun hura, batez ere, gaurko gazteen eta neska-mutilen kale-jardunean? Eskueran ditudan datuak oso oker ez baldin badaude asko aldatu dira gauzak Zarateren garai hartatik hona, eta ez onera. Bilakaerazko *Umgangssprache* biziaren gainbehera-kontestu horretan egin behar izan du lan, onean zein txarrean, eskola-munduak. Ingurumen-baldintza horiek eraginik, eta dialektoak eskola-tresna ez direlako usteari bere neurria hartu ezinik hainbatean, jardun dute gure ikastetxeek, mintegiek eta irakasleek. Kontestu horretan neurtu behar dira lortutako argi-itzalak. Dezakeena dezake eskolak, ez gehiago. Eman ezin duenik ez litzaioke eskatu behar. Eman dezakeenaren argitan, Sailaren zehaztapen oldarkorrago baten faltan eta irakasle askoren ikuspegi sozioeruditibo nagusiaren argitan hainbat pauso eman direla ondorioztatu behar da. Aurrerago ikusiko dugu zer pauso, non eta nola.

---

gogoangarria, honelatsu (buruz ari naiz) dioena: “si la Instrucción de la juventud ha de cumplir sus altos objetivos de civilización”.

<sup>73</sup> Italiako esperientzia ere, bere “italiano regionale” kontzeptuaz, arrotz gertatzen zaigu hainbatean.

V.2. “*Eskolak bizkaieraz ematekotan, idatzizkoan, arau jakinen arabera*”

Bizkaierazko *substandard* bat eratzea erabaki zuen Sailak, Mikel Zaratek bere garaian gomendaturiko bideetik, Bizkaiko eskola-munduan (aldaera horretaz oro har, eta idatziz bereziki) jardun nahi zuten ikasle-irakasleek erreferentzia egokia izan zezaten. Horretarako araudia lehenbailehen zehazteko konpromisoa hartu zuen Sailak. Zer egin izan da alor horretan? Hainbat gauza egin da alor horretan. Funtsezkoenak, ene iritziz, Saitetik bertatik egin ziren: berak babesturik edota, hainbatetan, berak gidaturik. IRALEko trataera integratuaz gainera eredu-finkapen hori izan da, dudarik gabe, Saitetik gehien landu eta argienik zaindu den alorra. *Substandard* bat eratu da bizkaierazko jarduera idatzirako, Euskaltzaindiaren oniritziz. Bere atal morfosintaktikoari atentziaz eusten zaio, bai Sailaren eta bai argialetxeen aldetik, testu-liburuen pretaerari dagokioneaz. Puntu horretan, beraz, hasieran begiz jotako xedea ongi samar bete (betetzen ari) dela esan liteke.

V.3. *Irakasleak prestatzea, euskara batuan zein bizkaieraz jardun ahal izateko*

Euskarazko irakasbideei dagokienez hizkuntza-eredu bateratua, euskara batua, izan da hasiera-hasieratik unibertsitate alorreko erregistro nagusia: askotan bakarra. Egia da, bestetik, leku berezia izan dutela irakasle-eskolek unibertsitate-esparruan; beraiei egokitu izan zaie haurren eta hamalau (orain hamabi) urte arteko neska-mutilen eskola-ardura (tartean hizkuntza-osaerazkoa) izango duten profesionalak prestatzeko eginkizuna. Oso hurbiletik dagokie, beraz, hizkuntza-aldaren kontu hau. Zer egin da mende-laurden honetan, irakasleen bizkaierazko pretaera alorrean? Labur erantzungo diogu galdera honi, aurreko atal batean (IV.1. puntuko a) pasartean) emana dugun erantzun sintetikoa zertxobait osatuz. Eman al diete Haur Hezkuntzako eta LMHko irakasle-gaien harrobi naturala diren unibertsitate-eskolak erantzun artezik beharizan honi? Eman al diete *dot*-esparruko irakasle-eskolek (hots: Bilbokoak, Deriokoak eta Eskoriatzakoak) beren ikasleei, bizkaierari buruzko ezagutza argirik? Halakorik ez zutenei (etxetik erdaldun direlako, *det*- edo *dut*-esparruko euskaldunak zirelako jaiotzaz) bizkaieraz jarduteko gaitasunik eskaini al diete?

Hiru irakasle-eskola horiek mende-laurden honetan aldaera kontuan egin dutenaz ezin dezaket gauza handirik esan, informazio zehatz eta metatuaren faltaz. Emaizta praktikoei begiratuta badirudi, nolnahi ere den, presentzia mugatua izan duela bizkaieraren kontuak, urte luzez, eskola horietan (denetan



edo gehienetan). Jakin badakit, aldiz, ekimen zabala eta esfortzu handia eginik dutela esparru horretan, hainbat urtez, Labayru ikastegiak eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak. Hogeita bost urteko (batez ere lehen hamabost urteko) perspektiban, Labayru ikastegia eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala izan dira irakasle-gaien bizkaierazko prestaerari atentzio eta esfortzu handiena eskaini izan diotenak. Beraiek izan dira, nire jakinaren gainean, ahozko aldaera horren eta bere eredu idatzi *substandard*-aren<sup>74</sup> bultzatzaile eta hedatzaile nagusiak.

Gauza bat zen halere irakasle-gai berriak bizkaieraz prestatzea, eta bestea lehendik lanean ari ziren irakasleak (erdaldunak, euskaraz alfabetatu gabeak, beren euskarazko hizkuntza-gaitasuna garatu nahi zutenak) bizkaieraren ezagutzaz hornitzea. Bigarren xede honi dagokionez, goiko bi instantzia horiek ez ziren bakarrak izan. IRALEk ere egin zuen bere ahalegina, eta hala dihardu orain ere. Mende-laurden osoa darama IRALEk, Bizkaiko irakastegietan<sup>75</sup> gaiari aurrez aurre helduz. Aspaldi batean, sortu ondoko lehen hamarkadan-edo, bertako aldaeraren berri ematea eginkizun berezkozat definitu zuen Bizkaiko IRALEk, liberaziozko ikasbide jeneralean<sup>76</sup>. Aski kontuan izan du eskakizun hori, gero ere, R300 ikastaroetan. Berariazko liberazio-aldi trimestrala eraturik dago, horrezaz guztiaz gainera, bizkaieraren ezaguera duina eskuratzeko beharrik handiena duten profesionalentzat<sup>77</sup>. Eta, azkenik, liberaziorik gabeko ikastaroetan ere presente dago bizkaieraren aukera, horren beharra edo gogoia duen irakasle ororentzat. Doan egiteko eskubidea du bizkaieraren lanketa hori, hala nahi duen Haur Hezkuntzako, LMHko, DBHko, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako edozein irakaslek.

Labur bilduz, bistan da aukera argirik galdu dela zenbait esparrutan. Hori bezain egia da, bestalde, aparteko eta berariazko saioak egin direla instantzia edukatibo jakinetan. Hobekuntza-bide batzuk nondik nora joan litezkeen argitzeko balio izan du horrek guztiak. Gure esku dago, hobekuntza-aukera horiek hezurramitzen saiatzea. Euskalkiak oro har, eta bizkaierak bereziki, aparteko bizi-indarra du egungo egunean ere etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean partez edo osoz euskaraz egiten den *dot*-eskualdeetan. “Ekarri

<sup>74</sup> Ikus goraxeago Mikel Zarateren *substandard*-aipamena.

<sup>75</sup> Hasieran Dolaretxen, gero Dolaretxen eta Artatzu-Goikon.

<sup>76</sup> Hori bakarrik ez: ikus-entzunezko material ugari ere bildu du IRALEk, eginbehar horren haritik.

<sup>77</sup> Batez ere Bizkaiko arnaguneetan diharduten eta etxetik bizkaieraz ez dakiten Hezkuntza Bereziko laguntzaileentzat diseinatu zen ikastaro hori, hasieran. Zabaldu egin da gero, hainbatean, xede-multzoa. Ikasketari-kopuru mugatukoa da, dena den.

dot” esanaz eskolaratzen diren milaka haurren trataera linguistikoaren mesedegarri da, dudarik gabe, irakasleak bizkaieraz trebatuak egotea.

#### V.4. Bizkaierazko ikasmaterialgintza indartzea

Bizkaierazko ikasliburugintza sendo, ugari eta beharizan desberdinen asebetegarria indartu beharra ikusi zuen Sailak 1982an. Hartan jardutea (hots, helburu hori lortzen saiatzea) zegokiola aitortu zuen *Pastoralean*. Zer egin da harrez gero, Sailean eta Sailetik kanpora, 1982ko xede hura lortzeko?

Gatozen Sailaren jardunera. Diruz lagundu ditu Sailak, urterik urte, bizkaierazko ikasmaterialak. Euskara batuzko materialgintza babesteko erabili diren deialdi eta irizpide nagusi berberak aplikatu dira kasu berezi honetan. Bizkaierazko bezeria potentzialaren kopuru mugatuak kontuan hartuz egin izan dira, hori bai, laguntza-kalkuluak: bestela nekez sartu ahal izango ziren argitalpen horietariko hainbat laguntza-deialdien oinarritzko markoan.

Gatozen Sailaz kanpoko eragileetara. Kasu puntualak alde batera uzten badira *Ibaizabal* etxea izan da mende-laurden honetan, gorago esan denez, alor horretan jardun duen bakarra. Bera espezializatu da, hainbatean, bizkaierazko ikasmaterialen esparru horretan. Aparteko esfortzua eskatu du bizkaierazko testugintzak, urte luzez. Aurrera begirako panorama ez da gainera, itxura osoz, gero eta alaigarriago. Salmenta-kopuru txikiekin jarduteak eragozpen larriak eransten dizkio bizkaierazko produkzioari. Neurri-muga zorrotzak ezartzen ditu, honetan ere, merkatuak. Ikus ditzagun neurri-muga horien zenbait ezaugarri.

a) Zenbat material euskara batuz, zenbat bizkaieraz?

Ikasmaterial gutxi argitara da EAEn, ordutik hona, bizkaieraz. Batuzko materialgintza diren ondoan, eta eskueran dugun informazioaren arabera, bizkaierazko materialgintza hori ez da %5era iristen. Zehaztapen numeriko erabatekoa ez da ematen erraza, garai bateko eskola-argitalpen askotxoren katalogioa amaitu gabeko lana delako oraindik<sup>78</sup>. Errazagoa da, aldiz, azken urteotako estatistika zehatz samarrak eskaintzea.

---

<sup>78</sup> EIMA programaren ildotik diharduen Eibarko katalogio-zentroa ari da lan horretan, aski era sistematikoan. Denbora beharko da oraindik, halere, argitalpen guztien errolda eta tipifikazioa amaiturik izateko.

b) Azken urteotako produkzioaren zenbait ezaugarri

Ikasmaterialen Eibarko Katalogazio-zentroak xeheago arakatu du azken urteetako ikasmaterialgintza: konkretuki, 2000-2008 epeari dagokiona. Aztersaio horretatik jasotako datuen emaitza xehakatuak eskaintzen dira atal honetan. Katalogazio-zentroak<sup>79</sup> egindako lanaz badakigu, halako hurbilketa batez, zein egoeratan dagoen bizkaierazko ikasmaterialgintza: bai erabat hariturik, zenbaki absolutuetan, eta bai batuarekiko proportzioan. Hona 2000-2008 tarteari dagokion datu xeheak:

<b>Zenbat ikasliburu BATUAZ, ikasmailen arabera</b>					
<b>Haur Hezk.</b>	<b>Lehen Hezk.</b>	<b>DBH</b>	<b>Batxilergoa</b>	<b>Lanbide Hezk.</b>	<b>Guztira</b>
243	1.072	632	256	334	2.537

<b>Zenbat ikasliburu BIZKAIERAZ, ikasmailen arabera</b>					
<b>Haur Hezk.</b>	<b>Lehen Hezk.</b>	<b>DBH</b>	<b>Batxilergoa</b>	<b>Lanbide Hezk.</b>	<b>Guztira</b>
3	47	1	0	0	51

<b>Ikasmaterialak BIZKAIERAZ, ikasgaien arabera</b>						
<b>Euskara</b>	<b>Mate- matika</b>	<b>Ing. ezagu.</b>	<b>Erljioa</b>	<b>Irakur- gaiak</b>	<b>Beste- lakoak</b>	<b>Guztira</b>
20	12	6	7	4	6	55

<b>Ikasmaterialak BIZKAIERAZ, material-motaren arabera</b>					
<b>Testulib</b>	<b>Lan- koadernoak</b>	<b>Ariketa- -karpetak</b>	<b>Irakur- gaiak</b>	<b>Gidali- buruak</b>	<b>Guztira</b>
28	18	2	5	4	55

<sup>79</sup> Fernando Berrizbeitia da, konkretuki, katalogazio-zentro horren arduraduna. Berak emandako datuak dira hemen eskaintzen direnak. Zenbaitetan, argi ikusten denez, ezin izan da material guzti-guztiak irizpide baten arabera tipifikatu. Hori dela-eta, batzuetan 55 material ageri dira guztira eta kasuren batean, aldiz, 51.

Ondorio batzuk argigarriak dira: kopuru kontua dago, batetik, eta kopuru hori ikasmalaka, jakintza-gaika eta material motaka nola banatzen den bestetik. Ikus ditzagun lau elementuok, hurrenez hurren.

- a) zenbaki absolutuetan, hasteko, produkzio mugatu baten aurrean gaudela ikusten da: 55 ikasliburu sortu dira 2000-2008 epean, eta kopuru hori aski txikia da batuaz produzitu diren materialekiko proportzioan: %2 inguruan dabil, oro har, portzentaje hori<sup>80</sup>.
- b) Bizkaierazko ikasmalaka gehien-gehienak (ia guztiak) Lehen Hezkuntzarakoak dira: hortik gorakoetan ez du bizkaierak, egungo egunean, idatzizko transmisio-bide formalik.
- c) Jakintza-gaikiak ere badu bere eragina, hirugarren taulak argi erakusten duenez. Bizkaierazko materialak oso ikasgai jakinetan kokaturik daude: batez ere Hizkuntzan (irakurgaiak barne), Matematikan, Erlijioan eta Ingurunearen ezagueran.
- d) Era berean, kontzentrazio nabarmena dago bizkaierazko ikasmalaketan, argitalpen motari dagokionez: testu-liburuak batetik, eta lan-koadernoak bestetik, horiek dira argitalpen ugariak. Hor ere bistan dago tirada kontua (merkatuaren eragozpen-muga, alegia) eragingarria dela: salmenta minimoa dutenak bakarrik produzitzen dira, azken batean.

Labur bilduz, honako emaitza hau jasotzen da goiko bilketa-lan horretatik. Ibaizabalen eragimenez kontuan izateko produkzioa lortu da bizkaieraz. Beharrezko neurriak jarri ditu Sailak, bere aldetik, bizkaierazko ikasmalaketan produkzio hori diru aldetik zein kalitatez (edukiz eta hizkuntza-osaeraz) egokia izan dadin. Kopuru aldetik eta ikasmalaz, ikasliburu motaz eta jakintza-gaien aldetik mugatua da, ordea, produkzio hori. Batua jaun eta jabe da Bizkaian (oro har *dot*-esparruan) ere, euskarazko ikasmalaketaz dagokionez.

### V.5. Ebaluazio-lana egitea

Ebaluazio-lana bultzatzeko konpromisoa hartu zuen Sailak. Hots, ikasbide bat zein beste harturik, eta ingurumen-baldintza jakinetan, zer

---

<sup>80</sup> Bizkaieraz dauden material gehienetan, nola edo hala zehaztuta dago “bizkaieraz” dagoela. Hala ere, baliteke materialen bat egotea, non, datu hori esplizitatu gabe egoteagatik, ez litzatekeena zenbaki hauetan agertuko. Dena den, era honetako material kopurua oso txikia izanik, desbideratze hori ez da adierazgarria.

emaitza ateratzen ziren ikusi eta, horren arabera, irakasle-jendea informatu eta hobekuntza-bideak planteatu ahal izatea. Egin al da halakorik? Erantzuna, nire ustez, erraza da kasu honetan: berariaz, luze-zabal eta dirubide publikoz ez du Sailak halakorik egin. Kontu hori geroko utzi zen hasiera hartan, aurreragoko lanik bazegoelako antza<sup>81</sup>. Gero, berriz, motibo bat edo beste zela medio alde batera utzi zen lan-esparru horren ebaluazio-bidea. Hala utzi zen eta hala jarraitzen du egungo egunean ere, ene ustez, faktore-analisizko ikuspegi global horri dagokionez. Euskal irakaskuntzaren alor ahulenetako bat dugu, dudarik gabe, ebaluazioarena: bai halako lan gutxi egin dugulako oro har, bai egindako lan batek baino gehiagok perspektiba mugatu samarra duelako lekuz, epez edo alde bietatik, eta bai ebaluazio horien zabalkundea aski mugatua izan delako oro har. Badago hor, dudarik gabe, hobekuntzarako gairik: gogoa, denbora, gaitasuna eta baliabideak behar; ez dira konbinazio ohikoena. Egia da, halere, hutsean ere ez gaudela. Horrela, eta besteak beste, analisi-bide intralinguistikoari ekin zaio berrikitan eta azterraldi horretan, beste hainbatetan ez bezala, aldaera kontuari aurrez aurre heldu zaio<sup>82</sup>.

## VI. Aurrera begirako zenbait gogoeta

Aurretik gertatuaz, azken urteotan ibilitako bidez eta bide horrek ekarri dituen ondorioez jardun dugu orain arte. Gerora begirako iritzi pare bat agertu gabe ez nuke, ordea, hain entzule prestuen artetik aldendu nahi. Puntu hauek dira, konkretuki, amaierako honetan agertu nahi ditudanak: bate-tik, euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria bilatu beharra; bestetik, burua jasotzen ari diren euskal aldaera berriak aurrez aurre aztertu beharra. Puntu biek dute, ene ustez, aparteko garrantzia: garrantzi akademikoa batetik, eta soziala bestetik. Ikus ditzagun biak, hurrenez hurren.

<sup>81</sup> Egia zen hori, funtsean, autonomia-aldiaren hasiera hartan: “dena” zegoen une hartan egiteko, eta premia gordinenek, ez ezinbestean luzera begirako garrantzitsueneke, kontsumitu izan zuten sarri une hartako hezkuntza-arduradunen denbora eta esfortzu gehiena. Baita baliabide operatibo, material eta ekonomiko handienak ere.

<sup>82</sup> Azkeneko saio ezagun hori berrikitan egin dugu: 2007-08 ikasturtean. Sailaren babesaz eta lankidetzaz Soziolinguistika Klusterrak aurrera daraman ARRUE ikerketa-lanaren barruan, eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertze orduan hainbat analisi egin dira, erregresio anizkoitzekoak barne. Ikerlan hori osatzerakoan berariazko zatia eskaini zaio analisi intralinguistikoari, Gipuzkoako eta Bizkaiko ikasleen aldaera-ezagutza eta aldaera-erabilera arakatuz. Donostiako IRALEko teknikari-taldea ibili da lan horretan, aski emaitza adierazgarriak eskuratuz.

### *VI.1. Batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria*

Euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria diseinatu, adostu eta aplikatzen saiatzea komeni zaigu euskaltzaleoi, hasi berria dugun mende honetan, gure hizkuntza ahula ganoraz indarberrituko badugu. Kontua ez da, jakina, “bat ala beste”-ko auzia: kostatu zaigu hori ulerzea (batuzaleok ez gara horretan behinolako euskalkizaleak baino malguago izan), baina gero eta errazago (errazago eta zabalago) onartzen da ikuspegi hori batzuen eta besteen artean. Kontuz ordea: “bat eta beste” ez da, huts-hutsean harturik, irtenbide arteza. Hori baino zehatzago jarduteko ordua iritsia zaigu, hizkuntzaren gizarte-dimentsioaz kezkatu gaudenoi. Areagoko zehaztasunak, bistan da, funtsezko galdera honi erantzuten saiatzea eskatzen du: nork-noiz-norekin-non-zertarako erabili behar luke euskara batua, eta nork-noiz-norekin-non-zertarako euskalkia? Behin eta birritan “non” diogunean, gure kasuan, eskola-esparrua dugu batez ere gogoan. Galdera ezin liteke ordea, eskolan zentratu egonik ere, jardun-gune horretara mugatu. Buru biko galdera horri erantzuten saiatzea, hori da nolana ere benetako erronka. Ihesbide antzua da gainerakoa. On izango da, horretarako, errepasso xume batetik abiatzea.

Euskara batuaren zabalkunde-lan ohargarria egin du eskolak, hogeita bost urteotan. Ez dago dudarik, hasteko, euskara batua eta eskola-mundua oso elkarren eskutik ibili direla, hasieratik. Gogoratu Koldo Mitxelena Aranztzuko txostenaren sarrerako esaldi ezaguna. Aparteko lekua izan du hezkuntzak, ikuspegi hori dela-eta, euskara batuaren sorreran eta zabalkundean. Orain ere halatsu da: euskara batuaz idazten dakiten profesional gehienak, askogatik, irakasleak dira. Irakasleak edo, nola edo hala, hezkuntzarekin lotura profesionala dutenak (liburu-prestatzaileak, argitaratzaileak,..). 23.000 irakasletik gora daude une honetan, EAEko irakasmila ez-unibertsitarioetan, HE2, EGA edo baliokideren bat dutenak. Horiek guztiek, normalean, kontaktu zuzena izan dute hizkuntzaren aldaera jaso, formal, idatziarekin. Eta kontaktu hori, hamarretik bederatzietan, euskara batuaren bidez edo euskara batua kontuan hartuz gertatu da. Eskola-liburuetan ere hedadura handia du euskara batuak. Pierre Broussain-en eta R. M. Azkueren garai bateko ametsa neurri zabalean bete da: badugu belaunaldi berri bat, etxeko edo eskualdeko hizkera-moldeaz gainera orotariko eta orotarako aldaera jaso-neutro-formala ikasi duena. Aldaera jaso berria ikasi duena eta, hainbatean, erabiltzen ere badakiena. Ez dira ikasle guztiak, urrundik ere, egoera horretara iristen. Milaka dira, ordea, eta kopurua emendatuz doa: 3.000 EGAdun berritik gora

sortzen dira urtero EAEn eta Nafarroan<sup>83</sup>. Horietariko gehienak, askogatik, 17 eta 25 urte arteko gazteak. Lehenengo aldia da gure historia ezagunean, halakorik gertatzen dena.

Guztia ez da txuri-gorritzko egoera ordea. Irabaziarekin batera, agian konaturatu ere gabe, asko ari gara galtzen. Eguneroko eta lagunarteko hizkera-molde fresko naturalak berekin izan ohi duen gatza eta piperra, sinpleziaren erakarmena eta lilura, “beti honela” entzundakoaren eta “beti horrela” esandakoaren bizitasuna eta zaporea, bihotz-hunkigarritzko berba-zartada eta arintasuna, indartu ordez ahultzen ari dira oro har. Galera handia da eguneroko eta lagunarteko hitz-aspertu xume, bizi eta zirragarrien etengabeko galera hori. Hori ez da konpontzen bina euroko hitz potoloak erantsiz han-hemen, hizkera-molde aseptikoaren erdian. Galera hori ez da berdintzen, orobat, orain gutxira arte hitz labur baina sarkorrez esan izan dena jira-buelta aspergarritz “dotoretuz”: hori ez da konpontzen “Durangon” esan ordez “Durango hiri bizkaitarrean” esanaz behar denean eta, bereziki, behar ez denean. Erakutsi egin beharko luke eskolak, hitzek eta hitzartek beren lekua dutela eta hitz-forma bakarra izatea (are gutxiago formarik konplikatuena hobestea) ez dela aberastasun-seinale.

Eskola leku zarpaila da ordea, inon zarpailik bada, aldaeren aberastasunaz jabearazteko, hizkera sinplearen abantailak nabarmentzeko eta berba-egikera gozoa indartzeko. Ikasgelan sortzen den jardunak, gaiak hartaraturik batetik eta irakasle-rolak bultzaturik bestetik, euskara jaso (edota, gutxienez, jaso ustekoa edo jaso-asmokoa) indartu ohi du sarrien: ikasleen arteko txutxu-mutxu bihurri eta bihozkorretik urrutien dagoen erregistroa. Ez da konpondu ezineko kontua, baina bai konpontzen zaila eta, dakidan neurrian, orain arte ahul atentitua.

Euskaltasunaren zatikatzailetzat hartu izan da euskalkia, ehun urte luzez. Euskalkiak gure erreperitorio linguistikoaren funtsezko osagai direla errazegi ahaztu dugu gehienok, zatikatze-arriskuaren beldur-sentiera horrek bultzaturik. Egia zentral hori ahaztu izanak, berriz, hobera ordez okerrera eraman du auzia. Asko gara horretan errudun: ez daukagu ezinbestean ezker-eskuin begira hasi beharrik. Kostatzen ari zaigu ententitzea, “bertako euskara”-z jarduteko erraztasunik ez duen gazteak gaztelaniaz kanalizatuko dituela hainbatean bere baitako ametsak eta gorrotoak<sup>84</sup>, ilusioak eta beldurrak. Eta hori

<sup>83</sup> Kopuru horri hizkuntza-eskola ofizialetakoak, administrazio alorreko hizkuntza-eskakizunak, HABErenak eta abar erantsi behar zaizkio.

<sup>84</sup> Hor daude Arrue ikerketaren lehen iradokizunak, bide horretara apuntatzen dutenak.

dena gaztelaniaz kanalizatzen duen gazteak, zertarako behar du euskara? Ruffiniren erregela buruz ikasi, azterketa-egunean nola edo hala azaldu eta lehenbailehen ahazteko? Horretarako behar al genuen euskal eskola?

Behar-beharrezkoa dute gazteek euskara batua, biharko egunerako. XXI. mendean ez du euskarak bizi-esperantza handirik, orotarako aldaera hori gabe. Lanean eta supermerkatuko etiketajeon, kultura-kontsumoan eta eguneroko albiste-emankizunetan, informatikako aplikazioetan eta errotulazio publikoan, dokumentazio idatzian eta ikerketa-lan etxekoan “denontzako” moduko aldaera bat ezinbestekoa dugu. Horrekin bakarrik jai du, ordea, euskarak: eguneroko mintzajardun xumeak, lekuan lekuko moldera egokituak, choten du hiztun-elkarteari belaunez belauneko etorkizun-aukera eskaintzen dion berba-sare posible bakarra. Horretaz jabetzen eta jabeazten jakin behar genuke guztiok, aspergarrizko produkzio “korrekto” bezain antzuan itoko ez bagara. Egia da garo- eta kresal-usaina galdu beharra zeukala euskarak, hainbatean. Egia da, orobat, bai azalpen-prosaren estilo-lanketan eta bai terminologia teknikoaren finkapenean aurrera egin dela oro har<sup>85</sup>. Garo-usainik eta kresal-zaporerik gabeko euskarak ez du ordea hiztun trebearen mihia nekatzen, ez eta hiztun-gai berriarena zorrotzen. Bata eta bestea, biak behar ditugu eta biegi lagundu behar lieke eskolak bidea egiten. Asko egin da, dudarik gabe, EEN legeak 30. artikuluan agindutakoaren bidetik. Baina asko dago egiteko: geure burua argitzea eta erreperitorio linguistikoen izaeraz eta garrantziaz jabetzea, hori dugu lehen eginkizuna. Beharrezkoa da, bai, euskara batua. Hizkuntza bera indarberritu egin dezake guztion arteko aldaera horrek, halako neurri baten. Egia horrek ez gaitu ordea itsutu behar: euskalkiak eta lekuan lekuko hizkera-moldeak ere hor egongo dira, euskara bizirik ateratzen badugu. Bakoi-tzari bere lekua bilatzen eta aitortzen ikasi behar dugu, euskaldunon erreperitorio berbal edo aldaera-sorta osoan.

Labur bilduz: euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria (elkarri ahalik eta itzal gutxien egingo diotenekoa) eskuratzea komeni zaigu hiztunoi. Eskueran ditugun aldaeren uztardura eta banaketa osagarria diseinatu, adostu eta aplikatzea eskatzen du horrek<sup>86</sup>. Eginkizun dago lan hori, bai ele arteko planoan (euskara-erdaren artean alegia) eta bai ele barnekoan (batuaren eta euskalkien artean bereziki). Euskara-erdaren artean

<sup>85</sup> Eskola-munduko terminologia teknikoaren kontuaz ikus, adibidez, Zalbide1993.

<sup>86</sup> Ez naiz, urrundik ere, hori esaten duen lehenengoa. Gogoratu Alan King-*ez* egindako aipamena eta gogoratu, bereziki, ahaztu samarrik (ahaztuegi ere bai, motibo hau edo beste dela medio) daukagun Txepetx: Ikus, bereziki, 1986ko bere artikulua 32. orrialdean “pugna entre el batua y los dialectos” kontuaz dioena.



(maila interlinguistikoan) eginkizun daukagun lanik handienetako horixe da, dudarik gabe. Hainbatera iritsi gabe ere eginkizun argia da lan hori ele barnean. Maila intralinguistikoan ere irabazian aterako ginateke, aldaera biak adostasun sozial zabalez uztartuko bagenu. Kontuan izan behar du hori eskolak: eskolak oro har, Euskal Herri osoan<sup>87</sup>, eta ez Bizkaiko edo *dot*-esparuko ikastetxeek bakarrik. Eskolaumeak etxetik dakarren euskarazko mintzagaitasuna, hitz-etorri erraza bereziki, trabatu eta behaztopatu ordez indartu eta zabaldu egin behar du irakasleak, zabalkuntza horrek euskara batuaz hornitzea dakarrelarik. Lan handia daukagu horretan guztiok eginkizun: irakasle eta eskola-arduradun, argitaldari eta irakasle-eskola, hizkuntzalari eta corpuszein, oso bereziki, estatus-plangintzako espezialista tekniko. Corpus-plangintzan xahutu ziren, 1978tik 1984ra bitartean, esfortzu intelektual, operatibo eta instituzional gehienak. Zuzendu beharreko jokaera da hori, *code-selection* eta *decision-making stage* direlakoei dagokienez. Euskalkia ez dugu korrejitzen (edo nola korrejitu esaten) ibili behar etengabe, euskalkiari eta batuari jardungune, rol-harreman eta situazio arrazoizkoenak zehazten eta inplementatzen saiatu baizik.

Lan zaila da hori, plano sozialean (ez indibidualean) eskuratu nahi badugu arrakasta-apurrik. Kontuan izan behar dugu, izan ere, ingelesaren gorabideko inpaktua alde batera utzita ere ikuspegi herrena dugula, funtsean, gure erreperitorio berbala (gure aldaera-sorta) euskara batura eta euskalkira mugatzen duena. Gaztelania (Iparraldean frantsesa) kontuan hartzen ez duen formulazioa herrena da hainbatean. Aldaera-bikoak gara euskaldun asko (bereziki, etxetik euskaldun garen gehienok; ez aldiz, hein berean bederen, euskaldunberriak). Aldiz, elebidun (eleaniztun) gara lauzpabost urtetik gorako euskaldun guztiak. Guzti-guztiak. Erdararen aldagaia ere lapiko berean sartu beharra daukagu hortaz, aldaera hiruko formulazioa eratuz eta hiru aldaera horietako bakoitzari (euskalkiari, euskara batuari eta erdarari/erdare) elkarren arteko uztardura eta banaketa osagarria diseinatzen, adosten eta aplikatzen saiatuz.

## VI.2. Euskara garbia eta mordoiloa: biak beharrezko?

### *Biak kontuan hartu behar*

Euskaldunon erreperitorio berbalaz, gure aldaera-sorta osoaz, jardun dugu gorago. Bi polo azaldu ditugu: euskara batua batetik, euskalkiak bes-

---

<sup>87</sup> Iparraldeko kezka-arazoez eta irtenbide posibleez ikus, adibidez, Xole Aire, Margarita Errekarte, Martta Laco, Alazne Petuya eta Guillermo Etxebarria, 2001.

tetik. Gure hiztun-elkartearen erreperitorioa ez da ordea bipolarra, multipolarra baizik. Ardatz bat definitzen dute batu/euskalki poloek, baina ez dira polo bakarrak. Erdara/euskara bikoteak berekin dakarren konpartimentazio-kontua (eta horko bi poloei dagokien ardatza) gaurkoan alde batera utzita ere<sup>88</sup>, bada beste ardatzik tartean: batetik euskara garbia hartzen badugu, eta bestetik euskara mordoiloa, horra hor bigarren ardatza. Euskara-erdaren kontaktuak, bere nolakoak eta zenbatekoak, aparteko aldaera gureganatu du: erdarak oso interferituriko eta *code switching* ugariko euskara-moldea<sup>89</sup>. Demagun bi ardatz horiek beregainak direla. Kasu horretan ondoko lau gelaxka hauek behar genituzke, situazio posibleen konbinatoria ondo irudikatzeko.

		Euskara	
		Batua	Euskalkia
Euskara	Garbia	A	B
	Mordoiloa	C	D

Ez dute bi ardatz eta lau gelaxka horiek, ondo pentsatzen jarrita, zergatik bakarrak izan: hizketan ari den hiztuna euskaldun zahar edo berri den kontuan hartuz, posible genuke hor ere zenbait bereizketa egitea. Hirugarren ardatza aterako genuke hortik. Eta posible genuke, nola ez, solaskidetzaren situazio soziolinguistikoa oinarri hartuz forma/informal bereizketa egitea, esate baterako. Ingurumeneko hizkuntza nagusia euskara den (Errezilen kasu), edo erdara (Euskal herri gehiengan), hori ere bereizketa-bide bihurtu ezinik ez genuke. Hizkuntzaren analisi intralinguistiko orokorraz ari garenez gaur, halere, aski dugu hasierako bi ardatz eta lau gelaxka horietatik hastea. Goiko lau

<sup>88</sup> Bi motibo ditugu nagusi, horrela jokatzeko: batetik, txosten hau ez dela analisi interlinguistikoaz ari, euskararen barruko aldaerez (hots, analisi intralinguistikoaz) baizik; bestetik, hiru ardatzeko formulazioak aparteko (gure artean aski ahul landutako) kontzeptualizazioa beharko lukeela aldeztu aurretik.

<sup>89</sup> Erdarak gogor erasandako euskara-moldeak ez dira fenomeno berria, aspaldi samarretik ondo dokumentaturiko gertakariak baizik, bai iparraldean (cf. Donibane Lohizuneko euskara “bastarta”, Julio Urkixok lokalizaturiko testu zaharrean argi deskribatua) eta bai hegoan (cf. Bilboko “tertium quid” delakoa, Koldo Mitxelenak zehatz aipatua). Fenomenoa bera zaharra izanik ere, “atzo egin *degu* parranda bat *de-la-ostia*” moduko euskara-moldea berri samarra da: azken 30 bat urtetik honakoa. Horretaz ari gara hemen.

gelaxka horien edukia aski argia da<sup>90</sup>. Ondoko zerrenda laukoitzak ematen digu horren berri:

A	Euskara batu garbia, erdal interferentzia askorik gabea
B	Euskalki garbia, erdal (eta batuaren) interferentzia handirik gabea
C	Euskara batu mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena
D	Euskalki mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena

Hiru faktoreen konbinatoriaz sortu dira lau kategoria (lau lerro) horiek: euskara batua (A), lekuan lekukoa ( $B_1, B_2, \dots, B_n$ ) eta erdararen ( $C_1$  gaztelanieren,  $C_2$  frantsesaren) interferentzia-inpaktua konbinatuz alegia.

Erraza da, formalki, A kategoria edo A lerroa irudikatzea: Patxi Altunaren jendaurreko azalpen akademiko dotoreak datozkit burura, lerro horren adibide praktiko bat jartzeko orduan. Euskara batu garbia, erdal interferentzia nabarmenik gabea, egiten zuen maiz Azpeitiko maisu handiak. Bazekien berak ere besterik egiten: Azpeitian, adibidez, aski beste erara egingo zuen etxekoekin eta aspaldiko lagun zaharrek. Jendaurrean, ordea, erdal interferentzia askorik gabeko euskara batu garbia egiten zuen eskuarki. Horren antzekoa da, adibide berrietara hurbilduz, ETBko Xabier Euzkitzeren esatari-lana. Euskara garbia du berak ere: garbia eta, aldi berean, Euskaltzaindiak emandako batasun-arauak zintzoki errespetatuz eraikitakoa. Bata zein bestea, nolahi ere, A kategoria horren erakuskari gailen ditugu. Zenbat ditugu ordea, egungo egunean eta hemen lurrean (ez zeruan), horrelako hitzunak? Ehuneko zenbat? Ez dut uste, % 5era iristen direnik. Situazio idealizatu batera hurbiltzen gara, A lerroaz dihardugunean.

Erraza da, era berean, B lerroa irudikatzea: oraindik indarrean ditugun arnaguneetan bizi diren euskaldun jator, normalean adin batetik gorako, erdararekin kontaktu handirik izan gabeak sar litezke hor, eskubide osoz; horiek edota, horien faltan, kale-giroan bizi izanik ere euskaldun garbiak direnak eta, hainbatetan, beren euskalkiari tinko eutsi diotenak eta hartaz baliatzen direnak eguneroko zeregin arrunt gehienetarako. Euskaltzainditik bertatik asko alden du beharrik ez geneukake, seguruenik, B lerroko mintzaira horiez ohar-

<sup>90</sup> Jakin badakigu, errealitatea ez dela sarri bai/ez modukoa, *continuum* batean hutsetik ehunera doan gradazio baten arabera baizik. Sinplifikazioa da, hortaz, goiko azalpen hori. Bere sinplifikazio eta guzti baliozkoa da ondoren esatera goazenak argitzeke.

tzeko. Zenbat dira ordea, oraingoan ere, horrela mintzo diren (eta horrela idazten duten) hiztunak? Kopuru zehatzik esatera ez naiz oraingoan ausartzen, hitzezko eta idatzizko bereizbideak ñabardura handiak eta azpimultzo are bihurriagoak egitea eskatuko bailuke horrek, seguruenik. Baina ez dira asko eta, bereziki, kopuruz beherantz doaz. Urteen joanari datxekion adin-banaketak bere legeak ditu horretan ere.

C eta D kategoriak edo lerroak datozkigu hurrena: lerro horiek lokalizatzen ere ez da oso zaila: euskalkia zein euskara batua izan abiaburu, erdal interferentzia nabarmeneko hizkera- eta idazkera-moldeak ugariak dira gure artean. Nork ez ditu halakoak ezker-eskuin ezagun? Urrutiagi begiratu beharrik ba ote daukagu, akaso, horretaz jabetzeko? Ez ote gaude gu geu ere, hainbatean, esparru horretan murgilduak? Nork esan dezake, nolana ere, horrela mintzo diren (edo horrela idazten duten) hiztunak gero eta gutxiago direnik gure artean? Nork esan dezake kategoria hori beherantz doanik kopuruz, are irakasle euskaldunen artean? Nik, behintzat, ez nuke halakorik esango.

Badakigu, jakina, era askotakoak izan litezkeela interferentziak: hots-ebakerazkoak, morfosintaktikoak eta semantikoak, besteak beste. Lehenengo multzoari (interferentzia fonetikoaren multzoari) helduz, horrela, *prozesu, zero, Zurich* edo *Zumalakarregi* moduko hitzetan hots-ebakera berria nagusitzen ari zaio orain puntura artekoari, eskola-munduan: zeharo nagusitzen ere, oso oker ez banago. Hori ez da *euskara batu* vs. *euskalki* kontua<sup>91</sup>: *euskara garbi/mordoilo* ardatzean gabilitza, gero eta sarriago, goiko bereizketa horiek egiterakoan. Euskararen aldaerak dira horiek ere, hiztun-talde zabaletara hedatzen eta, belaunez belauneko perspektiban transmititzen eta, horrenbestez, egonkortzen diren neurrian. Beste hitzetan esanik, euskararen aldaerez jardun nahi duenak gero eta kontuanago izan beharko ditu C eta D kategoriak.

Badira, azkenik, estabilizatze-itxura hartzen ari diren nahas-egoera batzuk ere. Hiztun askok egiten duena, *garbi/mordoilo* kontua alde batera utziaz une batez, ez da ez euskalkia eta ez batua: erdibideko zerbait da gero eta sarriago. Erdibideko nahas-egoera horri *garbi/mordoilo* dikotomia aplikatzen bazaio, bosgarren (E) eta seigarren (F) kategoriak edo lerroak erantsi behar dizkiogu hasierako zerrenda laukoitzari:

<sup>91</sup> Kontuz ordea, korrelazio-moduren bat aurkitzea ez bailitzateke seguruenik hain zaila.

A	Euskara batu garbia, erdal interferentzia askorik gabea
B	Euskalki garbia, erdal (eta batuaren) interferentzia handirik gabea
C	Euskara batu mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena
D	Euskalki mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena
E	Euskalki-batu nahasia, erdal interferentzia handirik gabea
F	Euskalki-batu nahasia, erdal interferentzia ugari duena

Nola azaldu E eta F kategorietako euskara moldeak? Ez erabat euskara batutik eta ez zeharo behialako euskalkitik edaten duten euskara modu nahasiak dira horiek. Guztion edo gehien-gehienon ezpain-lumetara hedatzen ari dira azken mende-laurdenean: baita eskola-munduan ere, nahiz eta fenomeno nabarmenagoa izan jardun-gune horretatik kanpora. E lerroaren kasuan, euskara *hibrido* hori aski ezaguna da irakasleen eta adin batetik gorako ikasleen artean: inoiz *gipuzkera dut-duna* deitu izan zaion eredu horrek bere bidea egin du. Aski zabaldua dago ikastetxeetan: antzeko neurrian ikastoletan eta gainerakoetan. Baita euskaldun kaletar (usaineko) gehienok biltzen gaituen zirkulu zabalagoan ere. Nork geure singladura pertsonala egin badugu ere erdibideko hizkera molde hori golkoratzeko, bistan da jardun-gune berrien (euskararentzat “berri”en) inpaktuak (ikasgela, euskarazko irrati-telebista, jendaurreko euskara idatzia,..) konpromisozko formuletara eramanez gaituela sarri, une eta neurri diferentean baneraturik dugun euskara batua etxetik genekien mintzamoldearekin uztartuz. Batez ere hizkera molde informalean, eguneroko mintzajardunaren bizkarrezur barrenkoi-intimoena osatzen duen horretan, ari da E kategoria izendatu dugun euskara modu nahasi hori zabaltzen.

Nabarmena izanik ere E lerroko euskara nahasi hori, are nabarmenagoa dugu, agian, F lerrokoa. E-ren ezaugarriak erdararen (hegoaldean gaztelaniaren) inpaktupean garaturiko berritasunak ditu F horrek berekin. Izen askotxo eman bazaio ere, *euskañol dut-duna* ez lebilke, agian, muinaren muinetik urrutien. E-ren ezaugarri askotxo ditu berekin, baina bereizgarriak ere bai: erdal erasan gogorra, bereziki. Goraxeago azaldu diren hots-ebakerazko interferentziez gainera posible da kasu horretan interferentzia lexikalak, morfosintaktikoak eta, are, *code switching* eta *code mixing* edo *metaphorical switching*<sup>92</sup> ugariak aurkitzea. Irakasleen eta adin batetik gorako ikasleen artean, esate baterako, erregis-

<sup>92</sup> Termino horren adieraz jabetzeko ikus, adibidez, Holmes 1992: 48-51.

tro formalaz kanpoko jardunean maiz entzuten dira honelako *code mixing* edo *metaphorical switching* kasuak. Gipuzkoako irakasle-munduan jasoak ditut, adibidez, ondoko esaldi hauek: “*a-tope* ari gera azterketak zuzentzen eta bukatu egin behar degu *por-pelotas*”, “zure proposamena *en-principio* ontzat emango degu”. Baita besteok ere: “datorren astean ez dela agertuko esan du Aitorrek, *komokienokierelakosa*”, edota “buruz argia dek, baina badik erabakirik ez harzkeko ohitura bat *kemetienefrito*”, eta horrelako beste asko<sup>93</sup>.

Badakit zer esango zaidan: “hori ez da euskara; ez, behintzat, euskaltzaleok eta euskaldun gehienok nahi genukeen euskara”. Bistan da goiko esaldi horiek ez direla hizkera- eta idazkera-molde jasoaren zuzentasun-eredu. Batak ez du ordea bestea kentzen: F-euskara hori ere hor dago. Eguneroko hizkera arrunt-informalean gero eta errotuago dago, gainera. Hizkuntzaren geroaz kezka bat dugunok (are gehiago hezkuntza-alorrean edo Euskaltzaindian ardura jakinik dugunok) ez genioke, hortaz, hizkera molde horri ez ikusiarena egin behar. Gustatu ala ez, zabaltzen ari da: azken aldian (batez ere euskarak kaleko hizkera gisa funtzionatzen duen arnasguneetan) gero eta usuago entzuten da. Bilakaera hori *kaltegarri* dela esatearekin ezer gutxi konpontzen da. Soluzio erraz-itxurakoek ere ez dute balio. Ezer gutxi balio du, konponbide bila hasirik, euskaldunak euskaltzale(ago)tzen hastea. “Ikas dezatela behingoz ondo hitz egiten, eta kitto!” esatearekin ere ez dira kontuok konpontzen. F-euskararen zabalkunde hori ez da, ezinbestean, hiztunen euskaltzaletasun-falta. Besterik da mekanismoa, hartaz baliatzen garamatzana. Hizkuntza-gaitasun mugatua izan liteke, jakina, alternantzia horren motibo nagusietako bat. Baina hori bakarrik ere ez da<sup>94</sup>: F-moldeaz baliatzen den euskaldunak, bere gaitasun-maila gorabehera, erdal makulu bixi-bortitzen gero eta behar (ez ezinbestean gogo) handiagoa sentitzen du, antza. Euskara-erdaren kontaktu-moldeak eta gure arteko *bilingual dominance configuration* nagusiak hartaraturik jotzen dugu maiz mintzaira horretara, eguneroko mintzajardun arruntean. *Bilingual dominance configuration* hori gizartean (ez banakako hiztunaren gogoan) aldatzen ez den artean, nekez desagertuko zaigu F-euskara hori.

Maileguzko hitzen esparru hutsetik arras urrunago doa F-ranzko joera hori, interferentzia modu guztiak (hotsezkoak, gramatikalak, semantikoak eta

<sup>93</sup> Ikusteko dago, esaldi-amaieran ez ote den *code-mixing* edo *metaphorical switching* delakoa hasieran edo tartean baino maizago agertzen gure artean, egungo egunean.

<sup>94</sup> Garbi baieztatua dago hori mundu zabaleko zenbait hiztun-herri elebidunetan (Holmes, 1992: 50), eta gurean ere garbi dagoela uste dut.

lexikalak: ikus U. Weinreich 1953) eta, bereziki, kode-alternantzia ugari bereganatuz. Garrantzi handiko fenomeno da beraz. Belaunez belauneko jarraipen-bideari dagokionez, bereziki, zentrala: eskola-esparruko azalpen jasoa baino maizago hizkera-molde arrunta izan ohi da gizartean zabaldu eta hurrengo belaunaldira transmititzen dena. Orain artekoan baino atentzio handiagoa eskaini beharko diogu hortaz aldaera berri “benetako” horri, euskara biziak eta euskararen biziak kezkatzen baldin bagaitu lehenik eta behin. Euskara molde hori gutxietsi eta ez ikusiarena egitea ez da bidea. Ia huts-hutsik eskola-giroan erabiliko litzatekeen eta onenean ere eskola bidez L2 gisa transmitituko genukeen euskara ederraren miresmenetan ito nahi ez badugu, Joan Argenter-ek (2000: 111) katalanari begira iradokia duen gisa, atentzio handiagoa zor diogu *euskañol* modu horri. Ez hobea delako, ez bereziki gogoko dugulako, ez hizkuntzaren menderik mendeko bizkarrezur morfosintaktiko eta hots-ebakera egoki zaintzen duelako, ez orain arteko kategoria semantikoak ongi errespetatzen dituelako eta ez, jakina, ohiko hitz-altxorren erabilera oparo eta indarbetezkoa segurtatzen duelako. Bai, ordea, hainbatentzat (hainbat gazterentzat eta, are, gazte izandako beste hainbatentzat) esistitzen den aldaera nagusia (zenbaitentzat, trebetasun produktiboei dagokienez, ia bakarra) horixe delako.

Aldaera horiei ere erreparatzen hasi beharko genuke hortaz, joko guztia karta bakarrera jokatzeko jarraitu ordez. Euskara batuak bere lekua irabazi du: horretan ez dago dudarik. Euskalkiak ere ez dira desagertu, orain dela berrogei urte baino ahulduago eta (bi lekutatik, erdarak eta euskara batuak eraginda) interbenituago badaude ere. Azkenik, bestelako aldaera berriak, zenbaitetan soziolekto itxura hartzen dutenak baina batez ere erdal interferentziaren kume ditugunak, zabalduz doaz oro har. Eskola-mundua, bereziki, aldaera horien guztien agerleku zabal eta nabarmena da. 1968an ez zen fenomeno horren aurreikuspen espresik egin: erraz egiterik ere ez zegoen, Pragako eskolaren paradigma zuenez euskara batuak oinarri eta euskal eskolaren emaitza handirik esistitu ere ia egiten ez zelako. 1978-79ko gogoeta-saioan ere alde batera utzi zen, funtsean, aniztasun horren kontua, eta gauza berbera egin genuen 1982an ere<sup>95</sup>. Azkenean “euskara batu bat eta (lekuan lekuko) euskalki bat”

---

<sup>95</sup> Mikel Zarate izan zen, inor izatekotan, gai horri hurbilenetik heldu ziona. Bereak dira, izan ere “euskara bizi”-aren aldeko argudio-azalpen jantzienak. Berea da, esate baterako, ondoko esaldi hau: “euskara batuaren sortzaile ta eragile gisa agertzen diren batzuk ere, euskara batu bizi jatorraren kontra doaz, gaurko euskaldunen euskarari jaramon handirik egin gabe (...). Konturatu edo konturatu barik, herriko hizkuntza bizi koloretsutik alde egin dugu gehienetan”.

izango genitueneko prognostikoa ez da bete. Euskara batuaz gainera hor daude euskalkiak, nahas- hizkuntzak eta, are, euskara mordoiloizko hizkerak. Horiek guztiek, ez lehenengoak bakarrik, osatzen dute egungo euskara.

Egon hor dago, bereziki, erdal inpaktu-erasan biziaren ondoriozko aldaera modu berria. Errealitate ukaezin hori balore-irizpen ezkorrez (*euskara txarra, ortopedikoa, artifiziala,..*) deskribatze hutsa ez dakit norainoko aurrerabide den. Euskara zuzena, egokia, garbia, aberats-joria behar-beharrezkoa dugu, kontestu formaleko hainbat situaziotarako eta euskalki-esparruaz haraindiko zabalkunde-lanerako. Hori gabe gaztelaniara, frantsesera (edo ingelesera) joko dugu bestela, normalean, euskararen erabilera-esparrua are meharragotuz. Kontua ez da, ordea, hori bakarrik. Euskara on, eder, zuzen, egokiaz (zehazkiago: egokiez) gainera besterik ere badabil gure artean, eta “beste” hori ez dirudi egun batetik bestera desagertzeraren doanik, ugaritzera baizik. *Bueno-baleko* euskara etxekotua daukagu euskaldun gehienok: geu ere gutxitan konturatzaren garen neurriraino etxekotua. *Oseake*-euskara hori da hizkera informal-intimoan hitzetik hortzera darabilguna eta hori da beraz, zeru-lurrak oso bestelakotzen ez badira bihar edo etzi, gure ondorengoei eskuratuko diegun euskal ondarearen osagaietako bat. Ez nolana hiko osagaia, gainera, jaio ondoko kontestu arruntetan lehenik eta behin eskuratuko dutena baizik. Hizkuntza formala, jaso, idatzizko jardunean garatua eta estilistikoki landua gero eskuratuko dute gazte horiek, kasurik onenean. Erdal makuluzko euskara informal-intimo hori da, hortaz, bihar-etziko euskararen oinarri ezinbestekoetako bat. Ez ote du merezi, hortaz, dagoeneko hain etxeraturik dugun fenomeno horri ere aurrez aurre<sup>96</sup> heltzea?

Labur bilduz: bistan da garai bateko ustea, azkenean euskaldun guztiok (euskaraz jarduterakoan) zeregin komunikatibo guztietarako euskara batuan egingo genuelakoa, gero eta egiatik urrunago gelditzen ari dela. Bestela esanik, dibertsifikatzen ari da euskaldunon erreperitorio linguistikoa hori, soildu ordez, azken mende-laurdenean. Ez zen hori, seguruenik, euskara batuaren sortzaileek eta garatzaileek buruan genuen txuri-gorritzko amets-eredua. Errazegi ahaztu genuen, antza, erreperitorio linguistikoa ez dela bitxitasuna, ezta hiztun-elkarte txiki-ahulen berariazko gaixotasuna ere. Hizkuntza-aldaeren mundua bizitasun-seinale ere bada, hein batean. Baina guztia ez da “nonahiko

---

<sup>96</sup> Aieka askotatik hel dakiok, berez, fenomeno horri: perspektiba linguistikoa da bat, psikolinguistikoa bestea eta soziolinguistikoa hirugarrena. Baliteke beste perspektibarik ere eskuratu behar edo komeni izatea. Baina ez legoke gaizki, goian esandako hiru horietatik bederen aztergaiari itxura batean heltzera iritsiko bagina inoiz.



lege orokor” baten isla. Gurean (eta gu bezalako hiztun-elkarte txiki-ahuldu askotxotan) emendiozko aniztasuna (hizkuntza “osasuntsu”etan baino ugaria-goa eta zorrotzagoa) sortzen da. Zerikusi argia dute horretan, besteak beste, honako bi faktoreok: a) batuaren eta euskalki(ar)en arteko egonezinak; b) euskaldun gehienon jarduera arruntean erdarak (hegoaldean gaztelaniak) eragiten duen interferentzia. Hizkuntza “osasuntsu”etan aski handia den erreperitorioa laburragoa da (eta hala izaten jarraituko du), alde batetik, erreperitorio horren oinarrian dauden jardun-guneetan, harreman-sareetan eta solaskideen artean leku txiki-meharra duelako euskarak; bestalde, ordea, hizkuntza “osasuntsu” horietan baino erreperitorio zabalagoa dugu begi-belarrietan, goiko hiru aldaera-hizkuntza horien arteko konpartimentazio soziofuntzional zehatz baten faltaz. Hala dugu orain eta hala izango dugu, seguruenik, datozen urteotan ere<sup>97</sup>. Nolanahi ere, gure arteko hizkuntza-aldaren aniztasunak bizirik iraungo du begien bistako etorkizunean, euskarazko jardun-guneek, harreman-sareek eta solasgaiek bizirik dirauten artean. Ez ote dugu hori aski motibo, hizkuntzalariek ez ezik soziolinguistek eta (biak bereizterik aizu banu) hizkuntza-soziologoek ere, euskal aldaera zahar-berrien kontuari azken aldian baino atentzio handixeagoa eskaintzeko? Hala iruditzen zait niri, eta hartarako gonbita izan nahi luke gaurko ekarpen honek.

## Bibliografia

- Agirre, J. M., Eguzkitza, I., Idiazabal, I. eta Larringan, L. M., 1985, *Euskara-zko irakaskuntza Bizkaian. Arazoak eta zenbait proposamen*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Aire, X., Errekarte, M., Laco, M., Petuya, A. eta Etxebarria, G., 2001, “Euskalkien trataera Iparraldeko ikastoletan”, in Mendebalde Kultur Elkarte (arg.), 2001: 29-43.
- Altzibar, X. (ed.), 2004, *Ni kazeta-egilea naiz; artikulua, berri, istorio*. Bilbo: Labayru.
- Ammon, U. (arg.), 1979, “Dialect and standard in highly industrialized societies”, in *IJSL* 21.

---

<sup>97</sup> Posible da noski euskal aldaera gutxiagotarako joera indartzea gure artean, hizkuntzaz baliatzen direnak hartarako aukera edo beharra dakarren gizarte-giroan murgildurik bizi diren neurrian. Hori ez da, ordea, hizkuntzaren teknikoek oso erraz bidera dezaketen neurria.

- , 1983, “Soziale Bewertung des Dialektsprechers: Vor- und Nachteile in Schule, Beruf und Gesellschaft”, in W. Besch et al (argk.) *Handbuch der Dialektologie* II, 1499-1508. Berlin: de Gruyter.
- , 1989, *Status and Function of Languages and Language Varieties*. Berlin/ New York: de Gruyter.
- Archu, J. B., 1848, *La Fontainaren aleghia berheziak*. La Reole: Pasquie.
- , 1852, *Uskara eta franzes gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina. Grammaire basque et française, à l’usage des écoles du pays basque*. Baiona: Foré et Lasserre. Bigarren argitaraldia 1853an, hirugarrena 1868an.
- Arejita, A., 1997, “Bizkai euskera idatziaren morfologia-eredurako zertzeladak”, in Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 1997: 133-158.
- Argenter, J. A., 2000, “Kodifikations- und Normalisierungsprozesse: Wechselverhältnisse und Widersprüche”, in *Grenzgänge* 14 (Thema: Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik), 96-115.
- Astigarraga, L., 1825, *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de la gramatica*. Donostia, Ignacio Ramon Barojaren imprenta.
- Azkue, R. M., 1891, *Euskal Izkindea*. Bilbo: Astui.
- Barruso, A., 2001, “Eskolan: batua? Euskalkia? Biak?”, in Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 2001: 11-27.
- Casenave-Harigile, J., 2006, “Dominique-Joseph Garaten Les recherches sur le peuple primitif de l’Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et français (1811). Transkripzioa eta oharrak”. In *Lapurdum* XI.
- Certeau, M., et al., 1975, *Une politique de la langue. La révolution française et les patois*. Paris: Gallimard.
- Cobarrubias, J. eta Fishman, J. A. (argk.), 1983, *Progress in Language Planning*. Berlin: Walter de Gruyter.
- Dávila, P., 1997, “Los libros escolares en euskera” in Escolano Benito, Agustín (ed.): *Historia Ilustrada del Libro Escolar en España. Del Antiguo Régimen a la Segunda República*. Madril, Fundación Germán Sánchez Ruipérez. 599-620.
- Egia, L., 1972, *Neurritzti*. Donostia: Kardaberaz.

- Eguren, J. M., 1867, *Método Práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Gasteiz, Semanario Católico Vasco-Navaroren inprenta.
- , 1876, *Diccionario vasco-castellano*. Donostia, Barojaren inprenta.
- Elexpuru, J. M., 1996, “Herri-euskararen eremua”, in *EUSKERA* 41. zkia, 523-9.
- Elordui, A., 2006, “Eskolaren hizkuntza-eredua harreman-sareen trinkotzearen ikuspegitik”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 60. zkia, 141-60.
- Euskaltzaindia, 1977, *El Libro Blanco del Euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1978, *Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra*. In *Euskera* XXIV (1978-2). Bilbo.
- , 1979a, *Bergarako biltzar ondoko Erabakiak*, in *EUSKERA*ren aparteko argitalpentxo. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1979b, “Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan”, *EUSKERA* 24, 1979-2, 103-6.
- Eusko Legebiltzarra, 1989, *Euskaraz idatzitako erlijio-liburuen errolda*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Fishman, J. A., 1983, “Modelling rationales in Corpus Planning: modernity and tradition in images of the Good Corpus”, in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman argk. 107-18.
- Fishman, J. A. eta Lovas, J., 1970, “Bilingual education in a sociolinguistic perspective”. *TESOL Quarterly*, 4, 215-222.
- Goikoetxea, J. L., 1997, “Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari”, in Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 1997: 93-9.
- , 2003, *Euskalkia eta bezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*. Iker 13. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gorostidi, M., 1902, “El Catecismo en las Escuelas” in *Euskal-Erria. Revista Vascongada*. XLVII. lib., 593-597.
- Hagen, A. M., 1987, “Dialect Speaking and School Education in Western Europe”, in *Sociolinguistica* 1, 61-79.
- Halliday, M. A. K., 1964, “The users and uses of language” in M. A. K. Halliday, Angus McIntosh eta Peter Strevens, *The Linguistic Sciences and Language Teaching*. London: Longmans. Erabilitako iturria: Joshua A.

- Fishman arg., *Readings in the Sociology of Language*, The Hague, Mouton, 1977, 139-69 or.
- Haugen, E., 1983, "The Implementation of Corpus Planning", in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (arg.) *Progress in Language Planning*, 269-89.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1982, *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Hildebrand, R., 1867, *Vom deutschen Sprachunterricht in der Schule und von deutscher Erziehung und Bildung überhaupt*. Leipzig.
- Hiriart, 1840, *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: V<sup>o</sup> Cluzeau.
- Hiriart-Urruti, 1897, ikus Altzibar 2004.
- Holmes, J., 1992, *An Introduction to Sociolinguistics*. London: Longman.
- Ithurry, L'abbé, 1895, *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. Baiona, A. Lamaignère inprimategia.
- Iturriaga, A. P., 1841, *Arte de aprender a hablar la lengua castellana*. Hernani.
- , 1842a, *Fabulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto gipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Donostia, Ignacio Ramon Barojaren moldiztegia.
- , 1842b, *Dialogos Basco-Castellanos para las Escuelas de Primeras Letras de Guipuzcoa (Hernani)*. Erabilitako iturria 1979koa. Donostia: Kriselu / Euskal Editoreen Elkarte.
- Kardaberaz, A., 1761, *Eusqueraren Berri Onac*. Iruñea, Antonio Castillaren etxea.
- King, A., 1983, "Batua bai, euskalkia ere bai!", in *Argia*, 1983-II-13.
- , 1993, *The Basque Language: a practical introduction*. Reno: University of Nevada Press.
- Kloss, H., 1952, *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München: Pohl.
- Lardizabal, F. I., 1856, *Gramática Vascongada*. Donostia, Ignacio Ramon Barojaren moldiztegia.

- Larramendi, M., 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Salamanca, Antonio Joseph Villagordo Alcaráz.
- , 1745, *Diccionario Trilingue del Castellano, Bascuence, y Latin*. Donostia, Bartholome Riesgo y Montero Gipuzkoako Probintziaren inprimatzailea.
- Larresoro, 1974, *Euskara batua zertan den*. Oñati: Jakin-Editorial Franciscana Aránzazu.
- Lekuona, M., 1968, Arantzazuko txostena, Euskararen batasuna zela-eta, in *EUSKERA*, 1968.
- Loman, B., 1988, “Sprachliche Standardisierungsprozesse in Skandinavien”, in *Sociolinguistica* 2, 209-31.
- Lopez, I., 1931, *Martin Txilibitu. Irakurbide laburra*. Tolosa: Lopez-Mendizabal.
- , 1932 (2. argitaraldia), *Xabiartxo*. Tolosa: Lopez-Mendizabal.
- Macha, J., 1981, *Dialekt-Hochsprache in der Grundschule. Ergebnisse einer Lehrerbefragung im südlichen Nordrhein-Westfalen*. Bonn.
- Maia, J., 2000, *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*. EHU. Doktore-tesi argitaragabea.
- , 2001a, “Euskara batua, euskalkia eta eskolako hizkera eredu”, in *Tantak* 126, 79-101.
- , 2001b, “Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan”, in *Revista de Psicodidáctica*, 11-12, 239-54.
- , 2001c, “Eskola eta tokian tokiko hizkuntza aldaera”.
- Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 1997, *Mendebaldeko euskara xx. mende goianean*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkartea.
- , 2001, *Euskalkia eta hezkuntza*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkartea.
- Mendiguren, X., 1978, “Euskara batua eta irakaskuntza”, in *EUSKERA* 1978-2, 523-531.
- Mitxelena, K., 1968, Arantzazuko batasun-txostena. In *EUSKERA* 1968 (Erabilitako iturria: Larresoro 1974).

- , 1982, “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”, in *Revista de Occidente*, 10-11. zkia., 55-75.
- Pagola, I., 2005, *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Bilbo: Euskaltzaindia Iker-18.
- Pastorala*: ikus Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1982ko *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan*.
- Ris, R., 1979, “Dialekte und Einheitssprache in der deutschen Schweiz”, in Ammon, U. (arg.), 1979, 41-69.
- Sagarna, A., 1978, “Alfabetatze-euskalduntze irakasleak”, in *EUSKERA* 1978-2, 535-555.
- Sánchez, J. M., 1986, “Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística”, in Jose Ignacio Ruiz de Olabuenaga eta J. Agustín Ozamiz (ed.), *Hizkuntza Minorizatuena Soziologia. Sociología de Lenguas Minorizadas*, Donostia, 19-49 or.
- Sarasola, I., 2005, Ines Pagolaren *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*-ko sarrera.
- Schirmunski, V., 1930, “Sprachgeschichte und Siedlungsmundarten”, in *Germanisch-Romanische Monatsschrift* 18, 171-88.
- Shuy, R. W. (arg.), 1964, *Social dialects and language learning*. Champaign, III.
- Stewart, W. A. (arg.), 1964, *Non-standard speech and the teaching of English*. Washington, D. C.
- Torrealdai, J. M., 1978, “1967-1977: liburuak eta batasuna”, in *EUSKERA* 1978-2, 503-522.
- Trudgill, P., 1975, *Accent, dialect and school*. London: Edward Arnold.
- Ugalde, M., 1978, “Idazleei egindako galderek izan duten erantzunen azterketa laburra”, in *EUSKERA* 1978-2, 481-501.
- Van de Craen, P., 1977, Invloed van dialect bij leesmoelijkheden, in *Handelingen van het XXXI<sup>e</sup> Vlaams Filologencongres*, Brussels 67-73.
- Van de Craen, P. eta R. Willemyns (arg.), 1985, *Standaardtaal & Dialekt op school, thuis en elders*. Brussels.
- Verbruggen, M., *et al.*, 1985, “Dialect in de klas”, in Van de Craen, P. eta R. Willemyns (arg.) 1985, 107-28.

- Villasante, Fr. L., 1974, *Palabras Vascas, compuestas y derivadas*. Oñati: Editorial Aranzazu.
- , 1979, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. argit. Oñati: Editorial Aranzazu.
- Viñao, A., 1997, “Aprender a leer en el Antiguo Régimen: cartillas, silabarios y catones” in Escolano, A. (ed.): *Historia Ilustrada del Libro Escolar en España. Del Antiguo Régimen a la Segunda República*. Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez. 149-192.
- Weinreich, U., 1953, *Languages in contact. Findings and problems*. New York: The Linguistic Circle of New York.
- Zalbide, M., 1990, “Euskal Eskola, asmo zahar bide berri”, in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 211-271). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- , 1993, “Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz”, in *Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean. XII Congreso de Estudios Vascos, 281-90*. Gasteiz: Eusko Ikaskuntza.
- Zalbide, M. eta Muñoa, A., 2006, “Lardizabal eta bere euskal gramatika, perspektiba soziolinguistikoan”, in Lardizabalen *Gramática Vascongada*. 1856koaren berrargitalpen osatua, 37-261.
- Zarate, M., 1978, “Euskara batua ta euskalkiak”, in *EUSKERA* 1978-2, 557-577.
- Zehetner, L. G., 1977, *Bairisch*. Dialekt/Hochsprache-Kontrastiv. Sprachhefte für den Deutschunterricht, (H. 2). Düsseldorf.
- Zuazo, K., 1988, *Euskararen batasuna*. Iker-5. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 2000, *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.
- , 2001, “Ohar zenbait euskara normaltze aldera”, in *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 40. zkia.

# Enseigner l'occitan au XXI<sup>e</sup> siècle. Défis et enjeux

MARIE JEANNE VERNY

Maitre de Conférences Occitan Université Paul Valéry  
Secrétaire de la Fédération des Enseignants de Langue et Culture d'Oc (FELCO)

Pour présenter cette question complexe à bien des égards, je procéderai en deux temps :

- une description de l'état de lieux
- une approche critique.

En ce qui concerne l'approche critique, je me fonderai sur les réflexions menées depuis plusieurs années par la FELCO — <http://www.felco-creo.org/> — et sur la documentation réunie par cette association qui fédère les associations académiques d'enseignants d'occitan de l'Éducation Nationale.

La FELCO est fédérée dans la FLAREP, Fédération des Langues Régionales dans l'Enseignement Public — <http://www.flarep.com/> —, et adhérente de l'APLV — <http://www.aplv-languesmodernes.org/> —, Association des Professeurs de Langues Vivantes, une des plus anciennes associations de spécialistes de France (plus de cent ans d'âge).

Par cette double appartenance, elle signifie :

- sa volonté de lutter pour l'enseignement des langues minorisées en synergie avec les autres domaines linguistiques. En cela, elle reprend une vieille tradition illustrée entre autres, côté occitan par Robert Lafont, côté breton par Armand Kervel, qui avaient créé dans les années 1950 le Mouvement Laïque des Cultures Régionales (MLCR) ;
- sa volonté de se placer comme association d'enseignants de langues vivantes, dans le cadre de l'APLV qui accorde une égale dignité à toutes les langues quel que soit leur « prestige », leur nombre de locuteurs, ou leur histoire et qui lutte pour la qualité pédagogique de l'enseignement des langues. Dans ce cadre, je suis rédactrice sur le site de l'APLV qui accorde une place conséquente aux langues de France dites régionales : <http://www.aplv-languesmodernes.org/spip.php?rubrique48>



## 1. L'espace occitan, un espace linguistique complexe

Des espaces linguistiques pyrénéens qui ont été évoqués au cours de ce congrès, aucun ne présente la complexité de l'espace occitan, parfois appelé « espace d'oc », ou « pays d'oc ».

Il nous faut ici placer quelques jalons historiques, que nous emprunterons à un ouvrage récemment paru auquel nous aurons plusieurs fois l'occasion de nous référer, le *Précis d'occitan et de catalan*, ouvrage collectif réalisé sous la direction de Christian Nique, Recteur de l'académie de Montpellier, 2006.

### 1.1. Un peu d'histoire

Au Moyen âge, la langue occitane n'est pas encore nommée de façon précise. En 1216, Raymond VI de Toulouse l'appelle tout simplement *nòstra lenga* (notre langue). Elle connaît cependant diverses dénominations au niveau littéraire (*romans, proensals, lemosi*). Tout comme pour le français, souvent désigné lui aussi par *roman*, il s'agit avant tout de distinguer du latin même la langue qui en est issue. L'adjectif *roman* finira par s'appliquer à toutes les langues qui se sont constituées à partir du latin populaire. Le nom de *lenga d'òc* apparaît plus tard, entre la fin du XIII<sup>e</sup> et le début du XIV<sup>e</sup> siècle à la fois dans l'usage administratif du Royaume et sous la plume de Dante qui distingue langue d'oc, langue d'oïl et langue de si à partir de la particule affirmative « oui » employée respectivement par les diverses langues (òc, oui, sì). Jusqu'au XV<sup>e</sup> siècle, la nécessité de distinguer français et occitan dans des documents officiels mènera parfois à la nécessaire opposition entre la *lingua gallica* et la *lingua occitana*.

Même si le latin reste employé durant tout le Moyen âge, l'occitan est devenu, en l'espace de quelques siècles, une langue à part entière, disposant de registres variés et occupant toutes les fonctions qu'une langue peut occuper dans la société. C'est d'abord bien évidemment la langue quotidienne de la population française méridionale qui permet aujourd'hui encore de définir l'Occitanie<sup>1</sup>, mais c'est aussi une langue écrite : un écrit littéraire de prestige (troubadours), un écrit littéraire plus fonctionnel (manuels didactiques, chro-

---

<sup>1</sup> Le terme « Occitanie » ne fait pas référence à un État politique ni à une région historique (il n'y a jamais eu d'État occitan, ni de région occitane au sens d'entité politique) mais sert à définir l'espace géographique dans lequel la population parle la langue occitane, de la même manière que le terme francophonie désigne l'ensemble des pays dans lequel le français à une place administrative, culturelle, voire minoritaire.

niques urbaines, textes religieux), un écrit social (chartes, administration, correspondances, actes notariés, etc.)<sup>2</sup>.

## 1.2. Définir un espace linguistique

L'espace linguistique occitan ne peut en aucune manière être corrélé, dans sa globalité, à un espace administratif, politique ou historique qui ferait consensus.

La seule réalité qui fasse l'unanimité — à quelques nuances près<sup>3</sup> — est celle d'un ensemble linguistique dont on admet qu'il est subdivisé en grandes formes dialectales. Les deux mouvements majoritaires que sont le Félibrige<sup>4</sup> d'un côté, le mouvement occitan de l'autre, s'accordent sur cette unité linguistique appelée pour le premier « langue d'oc », pour le second « occitan ».

Cependant, ces deux mouvements historiques, le premier né au XIX<sup>e</sup> siècle, le deuxième au XX<sup>e</sup>, ont abouti à la mise en circulation de deux graphies de l'occitan, l'une appelée « mistralienne », qui suit la tradition ouverte par *Mirèio*, le chef-d'œuvre mistralien, l'autre appelée « occitane » ou « classique », codifiée par rapport à deux références : la graphie des Troubadours et la normalisation catalane du XX<sup>e</sup> siècle.

Graphie mistralienne :

Cante uno chato de Prouvènço,  
 Dins lis amour de sa jouvènço,  
 A travès de la Crau, vers la mar, dins li bla,  
 Umble escoulan dóu grand Oumèro,  
 Léu la vole segui. Coume èro  
 Rèn qu'uno chato de la terro,  
 En foro de la Crau se n'es gaire parla.<sup>5</sup>

<sup>2</sup> *Précis d'occitan et de catalan*, sous la direction de Christian Nique, Recteur de l'académie de Montpellier, CRDP Montpellier, 2006, p. 17-18.

<sup>3</sup> Il existe, ça et là, dans l'espace occitan, quelques vellités localistes, refusant de reconnaître l'unité de la langue d'oc, se référant à « des langues d'oc », sur le modèle des langues d'oïl. Les tenants de ces positions sont cependant extrêmement minoritaires, en termes de reconnaissance populaire (même si leur influence est parfois sensible — tout en restant minoritaire — en Provence, Béarn ou Auvergne). L'immense majorité des universitaires, comme l'immense majorité des militants, y compris les tenants actuels de la graphie mistralienne, admet l'unité de la langue d'oc dans sa diversité dialectale.

<sup>4</sup> Le Félibrige a été fondé en 1854 par Frédéric Mistral.

<sup>5</sup> Première strophe de *Mirèio* de Frédéric Mistral.

Graphie occitane ou classique

Arle

Solèu uelh sensa parpèlas  
torres torres de dolor  
cèndre cèndre vènt terrau  
misèria d'òmes sensa raras  
Ròse Ròse mòrt dei velas  
cèu d'encèndi cremajorn  
Camarga flaca plana Crau  
sèrp de dobtança sèrp de l'ombra<sup>6</sup>

L'aura de Mistral, son génie littéraire a, par ailleurs, en Provence, entraîné l'adhésion d'une grande partie de la population à l'appellation de « provençal », que Mistral entendait parfois au sens général de « langue d'oc », et qui pour certains, se réfère à l'espace provençal *stricto sensu*.

Si, dans le cadre universitaire notamment ainsi que dans celui des concours de recrutement des enseignants, les deux graphies sont acceptées, c'est à la graphie dite « occitane » ou « classique » que je me référerai désormais, comme je me situerai, globalement, dans le cadre des analyses occitanistes.

La codification de l'occitan écrit obéit généralement à une double volonté :

- des principes communs à l'ensemble de l'espace
- une adaptation à chacun des grands ensembles dialectaux.

La carte de la page 411, qui suit, extraite du *Précis d'occitan et catalan*, permet de voir à la fois l'extension de l'espace linguistique occitan, situé essentiellement dans l'état français, avec quelques territoires côté espagnol et italien. Elle montre également les grandes variétés dialectales de l'occitan communément reconnues.

### 1.3. Une richesse culturelle et linguistique malgré des blocages persistants

Quelques précisions nous semblent devoir être apportées à ce schéma qui fige nécessairement une réalité beaucoup plus complexe.

---

<sup>6</sup> Extrait de « Cantata de la misèria dins Arle », Robert Lafont, *Dire*, 1957.



*Carte linguistique de l'occitan*

L'étendue de l'espace occitan est certes un atout, qui fait de la langue d'oc la première langue régionale de France par rapport au nombre d'élèves concernés. Cette étendue donne lieu à une richesse culturelle sans commune mesure, non seulement dans le domaine de la littérature, bien connu depuis les troubadours, mais aussi dans celui de la musique et de la chanson où on observe depuis une quinzaine d'années une explosion créatrice.

Pendant, cette étendue a pour corollaire négatif la difficulté, pour les militants, de trouver des interlocuteurs institutionnels qui répondent de cet espace sur un plan politico-administratif. L'espace occitan est en effet éclaté entre plusieurs Régions administratives et force est de constater qu'en dehors d'initiatives ponctuelles, les responsables de ces Régions ne sont guère portés à la collaboration interrégionale qui permettrait de donner une existence effective, même sur des projets limités, à cet espace occitan. Force est aussi de constater que, malgré un investissement général en croissance sensible, l'engagement financier de ces diverses régions en faveur de la langue et de la culture occitanes est très inégal<sup>7</sup>.

Par ailleurs, en l'absence d'une reconnaissance institutionnelle de la langue, en l'absence d'un territoire de légitimation historique, géographique, administratif, ou même simplement symbolique où elle soit reconnue de manière incontestable, la tendance des locuteurs naturels est à la non reconnaissance de la cohérence de cet ensemble linguistique. Les enquêtes sociolinguistiques livrent les mêmes clichés d'un bout à l'autre de l'ensemble occitan :

<sup>7</sup> Trois Régions sont fortement investies : Aquitaine, Languedoc-Roussillon, Midi-Pyrénées.

- Premier cliché : « le *patois* que je parle — ou que parlaient mes parents —, ce n'est pas le vrai occitan qui est pratiqué à Toulouse, ou Montpellier, ou par les professeurs... ».

L'auto dévalorisation portée par ce terme de « patois », très spécifiquement français, est évidente. Et la remarque d'ailleurs, peut être faite de la même manière par les locuteurs de Provence, par rapport au « vrai provençal » d'Avignon ou Arles, qui ne serait pas le « patois » que pense parler tel ou tel locuteur naturel.

- Deuxième cliché : « le patois d'ici, ce n'est pas le même que celui du village, ou de la vallée d'à côté ».

Ainsi, la raréfaction des lieux de rencontre où l'occitan était langue de communication naturelle entre locuteurs d'un bout à l'autre de l'ensemble de son espace linguistique, a-t-elle joué contre les mécanismes d'intercompréhension. L'aggravation de ce phénomène s'est produite au xx<sup>e</sup> siècle, à cause, notamment, d'une francisation brutale imposée par l'école en corrélation avec une dépréciation massive des langues régionales.

On aboutit donc à une situation que résume fort bien l'ouvrage coordonné par Christian Nique (Nique 2006) :

El criterio de centralidad busca una garantía de “no contaminación” al apartarse de la proximidad de áreas lingüísticas vecinas. Pero aquí se ha llegado a creer en un espejismo: el aragonés central. Todo el aragonés actual es área marginal, desde el punto de vista de la geografía lingüística. No hay en él nada de “central”. Desde luego, no hay un “centro” demográfico, histórico, social y cultural válido para su actual dominio lingüístico. Pero la zona que ocupa el centro de ese dominio tampoco constituye una sólo variedad referencial ni un dialecto literario. Sólo un conjunto de hablas que comparten, frente al resto de las hablas aragonesas, un reducido conjunto de isoglosas de fonética histórica. El belsetán y el tensino no comparten más isoglosas (desde luego, no en cuanto a tipos léxicos) que, por ejemplo, el belsetán y el chistabín.

A falta de una investigación más detallada<sup>3</sup>, el diasistema del aragonés se dividiría, en primer término en dos subsistemas, el occidental y el oriental, con una amplia zona de contacto entre los dos. Las soluciones “centrales”, en este planteamiento, son las que no se limitan a las áreas occidental u oriental, estrictamente sino que la desbordan e invaden esa amplia (¡y despoblada!) zona de transición. Se hallan en áreas laterales, contiguas entre sí, de los dos subdiasistemas: oriental y occidental.

---

<sup>2</sup> La Limba Sarda Comuna ha resultado ser una koiné de distancia casi mínima (Bolognesi 2008).


<sup>3</sup> Una primera aproximación ya en estas Actas (Sánchez, en prensa).

### 3.2.4. Otros criterios

Dejaremos para otra ocasión el comentario detallado de otros criterios (*sociolingüísticos, psicolingüísticos, de comparación con otras lenguas, prácticos, estéticos, etc.*)

### 3.3. Relación entre principios y criterios

Los criterios para proponer soluciones de codificación (y normativización, etc.), como herramientas heurísticas que son, no son todos totalmente “ortogonales” a los principios generales. En efecto, como ya se ha dicho, algunos de esos criterios optimizan el cumplimiento de algún principio sin afectar apenas o nada a los demás, como se ve en el siguiente cuadro en el que se valora —no binariamente (sí o no) sino de un modo gradual— la influencia de cada criterio en la evaluación de los diferentes principios:

 Academia de l'Aragonés	Hist.	Diasist.	Ident.	C. Paradig.	Func.
Sincrónicos	●			●	
Gram. Hist.		●	●	●	
Hª Lengua	●		●		
Glotométricos		●	●	●	
Sociolingüíst.			●		●
Demolingüíst.	●	●	●		●
Geolingüíst.	●		●		●
Psicolingüíst.			●		●
Contrastivos			●		●
Prácticos					●
Estéticos			●		●

## 4. Conclusiones

Las propuestas de codificación (y normativización) se extenderán a todos los aspectos de la lengua: grafía, léxico, morfología, sintaxis, incluso fonología; y

tendrán que resolver problemas de inventario de elementos lingüísticos, selección y depuración de dichos elementos y, por supuesto, variantes geográficas de ellos.

Aunque en la exposición oral de esta comunicación se comentó brevemente la problemática de la grafía, lo cierto es que ni se dispone aquí de espacio ni parece conveniente entrar, en un documento teórico y generalista como éste, a ejemplificar cada uno de estos ámbitos de codificación y, sería un tanto asimétrico hacerlo con uno solo de éstos como es la grafía.

Pasaré, pues, a exponer, a guisa de conclusiones, un listado de condiciones necesarias para el éxito del proceso de codificación normativa:

- Disponer de un marco teórico sólido.
- Aplicarlo de manera consistente y decidida.
- Contar con medios para dicha aplicación.
- Aprender de éxitos y errores (propios y ajenos).
- Tener la confianza de los usuarios (tradicionales y neohablantes).
- Contar con el respaldo de la administración.
- Establecer lazos de cooperación panrománicos.
- Asesorarse por expertos externos.
- Gozar de la solidaridad de otras lenguas minorizadas.
- Mantener apoyos en el mundo científico.
- Equilibrar lo posible con lo deseable.

Tras proponer a la reflexión de propios y extraños en qué medida se van cumpliendo, por ahora, estas condiciones, dejo en el aire una cuestión:

Estas condiciones son, sin duda, necesarias pero ¿serán suficientes?

## 5. Bibliografía

- AGAL, 1989, *Associaçom Galega da Língua (AGAL), Comissom Lingüística. Estudo crítico das Normas ortográficas e morfolóxicas do idioma galego (I.L.G.-R.A.G.) 1982' 2ª ed.* Associaçom Galega da Língua. A Coruña 1989.
- Alonso, S., 2006, *O proceso de codificación do galego moderno (1950-1980)*. Fundación Pedro Barrié de la Maza. Biblioteca Filolóxica Galega/Instituto da Lingua Galega. A Coruña 2006.



- Bolognesi, Roberto/Heeringa, Wilbert, 2008. Il rapporto tra Limba Sarda Comuna e le altre varietà del sardo. En (Chernova/Ibba 2008), pags. 13-64.
- Cabré, M.T., *et al.* (eds.), 2010, Actes del I Congrés Internacional de Neologia de les Llengües Romàniques. Institut Universitari de Lingüística Aplicada (IULA)-Universitat Pompeu Fraba Barcelona 2010.
- Cano, M. A., *et al.* (eds.), 1999, *Bescanvi i identitat: Interculturalitat i construcció de la llengua*. Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana. Alicante 1999.
- Carballo, R., 1981, *Problemas da Língua Galega*. Sá da Costa Editora. Lisboa 1981.
- Castellano, C., 2000, *Llengua, dialectes i estandardització*. Octaedro. Barcelona 2000.
- Chambers, J. K. y Trudgill, P., 1994, *La Dialectología*. Visor Libros. Madrid 1994.
- Chernova, Ekaterina/Ibba, Daniela, 2008, Actes de les primeres Jornades sobre Llengües Minoritàries. La Codificació. Universitat de Girona/Observatori de les Llengües d'Europa i de la Mediterrània. Girona 2008.
- Clua, E., 2004, “El mètode dialectomètric: aplicació de l’anàlisi multivariant a la classificació de les varietats del català”, en (Perea 2004: 59-87).
- Cooper, R. L., 1997, *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge University Press. Madrid 1997.
- Fasold, R., 1996, *La Sociolingüística de la Sociedad: Introducción a la Sociolingüística*. Visor libros. Madrid 1996.
- Fernández, F. y Santamarina, A., (eds.), 1999, *Estudios de sociolingüística románica: Linguae e variedades minorizadas*. Universidade de Santiago de Compostela 1999.
- Fishman, J., 1991, *Reversing Language Shift*. Multilingual Matters. Clevedon/Philadelphia/Adelaide 1991.
- , (ed.), 2001, *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters Ltd. Clevedon/Buffalo/Toronto/Sidney 2001.
- Ganzoni, G. P., 1983, *Grammatica ladina*. Ligia Romontscha/Lia Rumantscha. Samedan 1983.

- Gómez, X. M. y Rodríguez, A. (coords.), 2003, *Neoloxía e lingua galega: Teoría e práctica*. Universidade de Vigo 2003.
- Guillourel, H. et Sibille, J., 1993, *Langues, dialectes et écriture: Les langues romanes de France*. Institut d'Études Occitans-Institut de Politique Internationale et Européenne. Paris 1993.
- Joan i Marí, B., 2002, *Normalitat lingüística i llibertat nacional (Processos de normalització lingüística a l'Europa del segle XX)*. 314. Valencia 2002.
- Knecht, P. et Marzys, Z., 1993, *Écriture, langues communes et normes: Formation spontanée de koinés et standardisation dans la galloromania et son voisinage*. Librairie Droz. Genève 1993.
- Kremnitz, G., 1993, *Multilingüisme social*. Edicions 62. Barcelona 1993.
- Lamuela, X., 1987, *Català, occità, friülà: llengües subordinades i planificació lingüística*. Quaderns Crema. Barcelona 1987.
- , 1994, *Estandardització i establiment de les llengües*. Edicions 62. Barcelona 1994.
- , i Murgades, J., 1984, *Teoria de la llengua literaria segons Fabra*. Quaderns Crema. Barcelona 1984.
- Liver, R., 1991, *Manuel pratique de romanche (sursilvan-vallader)*. 2<sup>a</sup> ed. Lia Rumantscha/Ligia Romontscha. Cuiria 1991.
- Martínez, J., 1995, *Bilingüismo y enseñanza en Aragón*. Rolde de Estudios Aragoneses. Zaragoza 1995.
- Metzeltin, M., 2001, "Identidad y lengua: El caso de Aragón", en (Nagore 2001a, 15-21).
- , 2004, *Las lenguas románicas estándar*. Academia de la Llingua Asturiana. Oviedo 2004.
- Mollà, T., (ed.), 1997, *Política i planificació lingüístiques*. Edicions Bromera. Alzira 1997.
- , Palanca, C. i Viana, A., 1987-91, *Curs de sociolingüística (3 vols)*. Edicions Bromera. Alzira 1987-1989-1991.
- Nagore, F., 2001b, *Os territorios lingüísticos en Aragón*. Rolde de Estudios Aragoneses. Zaragoza 2001.

- , y Puig, P., (eds.), 1999, *Luengas menazatas y normalización [sic]: Actes du XVIII Congrès de l'A.I.D.L.C.M.* Consello d'a Fabla Aragonesa. Huesca 1999.
- , Rodés, F. y Vázquez, C. (eds.), 2001a, *Autas d'a II trobada d'estudios y rechiras arredol d'a luenga aragonesa y a suya literatura.* Instituto de Estudios Altoaragoneses-Consello d'a Fabla Aragonesa. Huesca 2001.
- , (ed.), 2004, *Autas d'a III trobada d'estudios y rechiras arredol d'a luenga aragonesa y a suya literatura.* Instituto de Estudios Altoaragoneses-Consello d'a Fabla Aragonesa. Huesca 2004.
- Perea, M<sup>a</sup> P., (ed.), 2004, *Dialectologia i recursos informàtics.* PPU Universitat de Barcelona. Barcelona 2004.
- Posner, R., 1996, *The Romance Languages.* Cambridge University Press 1996.
- Pradilla, M. À. (ed.), 2003, *Identitat lingüística i estandardització.* Cossetània Edicions. Valls 2003.
- , 2004a, *El laberint valencià.* Onada Edicions. Benicarló 2004.
- , (coord.), 2004b, *Calidoscopi lingüístic: Un debat entorn de les llengües de l'Estat.* Octaedro-EUB. Barcelona 2004.
- RAG 2004, Real Academia Galega. *Normas ortográficas e morfolóxicas do idioma galego.* R.A.G. Vigo 2004.
- RAG-ILG 1995, Real Academia Galega-Instituto da Lingua Galega. *Normas ortográficas e morfolóxicas do idioma galego.* R.A.G.-I.L.G. Vigo 1995.
- Rotaetxe, K., 1988, *Sociolingüística.* Ed Síntesis. Madrid 1988.
- Ruiz, F., Sanz, R., Solé, J., 2001, *Diccionari de sociolingüística.* Enciclopèdia Catalana. Barcelona 2001.
- Sánchez Pitarch, Fernando. [En prensa] Aproximación a la situación dialectal de l'Aragonés. En Actas del XVI Congreso Internacional de Euskaltzaindia.
- Saragossà, A., 1997, *Críteris de la normativa.* Saó Editorial. Valencia 1997.
- , 2000, *El valencià del futur: Una contribució ideològica.* Edicions Alambor. Benicarló 2000.
- , 2003, *Gramàtica valenciana raonada i popular. Els fonaments.* CEIC Alfons el Vell. Gandia 2003.

- , 2007, *Reivindicació del valencià. Una contribució*. Tabarca Llibres, València 2007.
- Segura Malagón, Juan José, 2010, El problema de la neología en una lengua (re)emergente: el caso del aragonés. En (Cabré 2010). Pags 519-533.
- Usón, C. R. e Tomás, C., 2004, *Bellas considerazions sobre criterios en a estandarización de l'aragonés*. En (Nagore 04), págs. 435-460.
- Viaplana, J., 1996, *Dialectologia*. Universitat de València 1996.
- , 1999, *Entre la dialectologia i la lingüística*. Publicacions de l'Abadia de Montserrat. Barcelona 1999.
- Weinreich, U., 1996, *Llengües en contacte*. Edicions Bromera. Alzira 1996 [la 1ª ed americana, de 1953].



# Euskara eta hizkuntza nazionalismo espainiarra

JUAN CARLOS MORENO CABRERA

Universidad Autónoma de Madrid

## 1. Sarrera

Artikulu honetan, hizkuntz ezberdintasuna justifikatzen duen ideologia aztertuko dut. Adierazi nahi dut, hurrengo orrialdeetan, ideologia horrek ez duela justifikaziorik hizkuntzalaritzaren ikuspegitik.

Hasi baino lehen, ideia garrantzitsu bat azpimarratu behar dut. Gaurko hizkuntzalaritzak frogatu du munduko hizkuntza guztiak baliokideak direla. Hizkuntzalari guztiak edo ia guztiak ados daude ideia honekin. Horregatik, gaurko gizarteetan dagoen hizkuntzen arteko desorekak faktore soziolinguistikoei leporatu behar dizkiegu:

“Aurreko puntukoak irakurri eta gero, argi dagoke honezkero ezinezkoa dela hizkuntza primitiboez hitz egitea, ezinezkoa den bezala hizkuntza modernoetz mintzatzea. Halako kalifikatzaileek ez daukate inongo edukirik. Edota daukatena hizkuntzatik kanpokoa da: ideologikoa.

Hizkuntza guztiak bat dira funtsean, egitura bereko giza garunen ekoizpen, alegia...” (Eguzkitza eta Etxebarria 2004: 37).

Hala eta guztiz ere, hizkuntzei buruzko aurreiritzi ugari nagusi dira gure gaurko gizarteetan. Hauen artean, hizkuntzen zailtasunezkoak oso hedatuta daude.

Jende askok esaten duenez, hizkuntza batzuk beste batzuk baino zailagoak dira. Baina, nire ustez, zailtasun honek ez du zerikusirik hizkuntzaren konplexutasunarekin. Munduko hizkuntza guztiak konplexutasunaren ikuspuntutik gutxi gorabehera berdinak direla frogatu du gaurko hizkuntzalaritzak. Badaude bi faktore nagusi egoera hau adierazteko. Alde batetik, hizkuntzak

gizonaren berezkotasun psiko-fisiologikoei egokitu behar zaizkie; bestetik, hizkuntza naturalak ikasgarriak gertatu behar zaizkie umeei.

Horregatio, askoren ustez, badaude hizkuntza zailak eta errazak. Iritzi hau oso hedatuta dago gaurko gizartean eta bigarren hizkuntza ikastearekin lotuta dagoela dirudi.

Beraz, helduaroan bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasten dutenei hizkuntzak zailak izan dakizkieke. Hizkuntzalariek uste dute zailtasun hau ama hizkuntzatiko urruntasun tipologikoaren menpean dagoela. Adibidez, neerlandez umetatik hitz egiten dutenei errusiera baino germaniera errazagoa zaie. Aitzitik, errusieraz umetatik hitz egiten dutenei germaniera baino poloniera errazagoa zaie. Poloniera eta germaniera ezin dira errazak eta zailak izan aldi berean, hau zentzugabekeria handia litzateke. Horregatik ezin dugu esan hizkuntzak zailak edo errazak direla ikuspuntu honetatik.

Oso garrantzitsua da konturatzea argudio hauek hizkuntza naturalei dagozkiela eta ez hizkuntza artifizialei. Nire ustez, idatzizko hizkuntzak ez dira hizkuntza naturalak, ez dira umeei naturalki eskuratzen dituzte hizkuntzak. Idatzizko hizkuntzak eskolan ikasi behar dira, zailak izan baitaitezke. Zenbat eta hizkuntza naturaletik urrutiagoak diren, orduan eta zailagoak dira idatzizko hizkuntzak. Adibidez, sanskrito eta latin klasikoa hizkuntza zailak dira dudarik gabe, baina ez dira hizkuntza naturalak, hizkuntza hauek eskolan edo unibertsitatean neke handiz ikasi behar baitira. Hizkuntza hauek inorentzat ez dira jaiotizkuntzak, haurrek ezin baitituzte naturalki eskuratu.

## 2. Hizkuntza nazionalismo espainiarraren topiko batzuk

Gaurko gizarteetan nagusi den hizkuntza-ezberdintasuna justifikatzen duen ideologiaren arabera, badaude hizkuntzen ezberdintasuna erakartzen duten ezaugarri linguistikoak. Adibidez, nazionalismo espainiarrean ikusi daitezke gaztelania goraiatzeko duten topiko linguistikoak.

“El español en el mundo” web gunean ikus dezakegu ezaugarri hauek dituen zerrenda. Hona hemen webgune honen orrialde nagusiaren zati bat:

“Podemos resumir en seis puntos las *características* de la lengua española, como sistema lingüístico y como vehículo de comunicación de una amplia comunidad:

1. El español es una *lengua de cultura de primer orden*; huelga todo comentario sobre la historia, la calidad y la riqueza de la literatura española e hispanoamericana.

2. El español es un *idioma relativamente uniforme que ofrece un riesgo reducido de fragmentación*. Esto es debido a la *simplicidad de su sistema vocálico* (5 elementos), la amplitud del sistema consonántico compartido por todo el mundo hispánico, la dimensión del léxico patrimonial compartido (léxico fundamental) y la comunidad de una sintaxis elemental.

3. Es asimismo una *lengua geográficamente compacta*: la mayor parte de los países hispanohablantes ocupa territorios contiguos, lo que convierte este dominio en una de las áreas lingüísticas más extensas del mundo.

4. El español es una *lengua en expansión*; el aumento del número de hablantes ha sido continuo desde la época de la colonización americana, si bien el mayor crecimiento demolingüístico se ha producido a lo largo del siglo xx.

5. El español es una *lengua internacional*; tiene un carácter oficial y vehicular en 21 países del mundo.

6. Aunque la zona geográfica correspondiente al mundo hispánico incluye grandes zonas bilingües o plurilingües, asegura un *índice de comunicabilidad muy alto* (el español sirve de medio de comunicación en toda la sociedad) y un *índice de diversidad bajo o mínimo* (probabilidad de encontrar dos hablantes elegidos al azar, que hablen lenguas diferentes), índices que cobran una importancia especial cuando se comparan con los de territorios no hispánicos.” (<http://www.cgcnet.org/nuestroidioma/hemeroteca/El%20espanol%20en%20el%20mundo.htm>)

Hona hemen webgune honetan dauden topiko linguistiko nagusiak:

1. Gaztelania lehen mailako kultur hizkuntza da.
2. Gaztelaniak ez du zatiketa arriskurik.
3. Gaztelania hizkuntza erraza da bost bokal baititu.
4. Gaztelania hizkuntza geografikoki trinkoa da.
5. Gaztelania hizkuntza hedakorra da.
6. Gaztelania hizkuntza nazioartekoa da.
7. Gaztelaniak komunikagarritasun maila altua eta aldakuntza maila baxua ditu.

Zazpi topiko linguistiko hauek laburki iruzkinduko ditut artikulu honetan.



### 3. Gaztelania lehen mailako kultur hizkuntza da

Ez da zilegi, nire ustez, kultura bat lehen mailakotzat jotzea. Antropologek badakite ez dagoela giza komunitate kulturagaberik. Horregatik, adituen ustez, giza elkarte guztiek kultura eta hizkuntza dauzkate eta horien arteko harremanak aberatsak dira kasu guztietan. Munduko kultura guztiak baliagarriak eta interesgarriak dira, duda barik. Palmer-ek esan duenez bere *Lingüística cultural* liburuaren azken kapituluan:

“Dados estos firmes cimientos, comunes a los seres humanos, de experiencia y repertorio de funciones cognitivas, los seres humanos han elaborado en todas partes lenguas y culturas ricas y diferenciadas, tan destacables por su tremenda diversidad como por los universales culturales.” (Palmer 2000: 342).

Hizkuntza guztiak kultur hizkuntzak dira. Horretaz gain, kulturak ezin dira sailkatu maila desberdinetan. Sailkapen hauek etnozentrismak izan ohi dira, sailkapena proposatzen duenaren kultura lehen mailan baitago beti; Fernándezek eta Ortiz de Urbinak diotenez:

“Hizkuntza guzti-guztiak dira hizkuntza gaitasunaren erakusgarriak, eta ondorioz, gaitasun horren ezaugarriak ezagutzen uzten dituzten islapenak. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, ez dago lehenengo edo bigarren mailako hizkuntzarik, berdin dela literatur tradizioa edo botere ekonomikoa izan ala ez. Denak dira lehenengo mailakoak. [...] Denek dute berebiziko garrantzia, biologian espezie guztiek duten bezalaxe.” (Fernández Fernández eta Ortiz de Urbina 2007: 33).

Kulturak mailetan sailkatzeko, ezaugarri batzuk hautatu behar dira. Eta, hain zuzen ere, kulturen sailkapenak proposatzen dituztenek, beren kultura lehen mailan jarrarazi duten ezaugarriak hautatzen dituzte; hau dela medio, beren kultura beti lehen mailan egongo da sailkapen guztietan. Horregatik kulturen sailkapenak etnozentrismak izan ohi dira. Beraz, honelako iritziak beti susmagarriak direla esan behar dugu.

Euskarari dagokionez, hizkuntza hau kulturaduna dela esan dezakegu, dudarik gabe. Eta euskal kultura gaztelaniazkoarena bezain aberatsa, interesgarria eta garrantzitsua izan da. Gaztelaniazko kultura ez da euskararena baino hobea.

Ikuspuntu etnozentrismek idatzizko kultura baino ez daukate kontuan, munduko hizkuntzen gehienak baztertzeke; baina munduko literaturaren

adituek badakite ahozko literatura oso garrantzitsua dela idazkera ezagutzen ez duten herri guztientzat. Eta ez dezakegu esan ahozko literatura baino idatzizko literatura aberatsagoa dela. Nigel Fabb-ek dioenez:

“Hay varias razones para agrupar estos tipos de práctica oral con una tradición literaria escrita. La primera razón es que si analizamos esos tipos de comportamiento verbal en su contexto cultural, podemos ver que las canciones en una cultura oral pueden desempeñar funciones muy similares a las de los poemas en una cultura letrada. En segundo lugar, cuando consideramos la explotación de la forma lingüística por la forma literaria nos damos cuenta de que en todas las culturas surgen prácticas y estrategias similares, tanto si tienen ‘literatura’ escrita como su equivalente oral, o si los textos se conservan sin cambios o cambian constantemente.” (Fabb 2005: 28-29).

Euskararen kasuan, ahozko literatura ere kontuan izan behar dugu euskal kulturaren aberastasuna ulertzeko.

#### **4. Gaztelania hizkuntza uniformea eta zatiketa arrisku txikia duena da**

Puntu hau frogatzeko lau ezaugarri linguistiko nagusi aipatu dira web gunean:

- Gaztelaniak bokal sistema erraza du, bost bokal (a, e, i, o, u) baititu.
- Salbuespen batzuk izan ezik, gaztelaniaren barietate guztiek kontsonante sistema bera dute.
- Badago gaztelaniaren barietateentzako ondare lexiko komuna.
- Gaztelaniak barietate guztiei dagokien sintaxi elementala du.

Puntu hauek ez dira gaztelaniarenak soilik; dudarik gabe, euskarak badauzka den-denak:

- Euskarak bost bokaleko sistema fonologikoa du.
- Euskalkiek sistema kontsonantiko bera dute, salbuespen batzuk izan ezik.
- Badago euskarazko ondare lexiko komuna.
- Euskarak euskalki guztiei dagokien sintaxi elementala du.

Hizkuntza nazionalismo espainiarrentzat bost bokaleko sistemak garrantzi handia du gaztelania goraitatzeko. Ezaugarri honek gaztelaniaren ikaskun-

tza eta hedakuntza errazten dituela, Menendez Pidal-ek eta besteek esaten dutenez. Baina, dirudienez, euskararen kasuan ezaugarri hau ez da garrantzitsua hizkuntza nazionalismo espainiarrentzat. Euskarari buruz hitz egiten dutenean, hizkuntz nazionalismoaren apostoluek ez dute ezaugarri hau aipatzen. Hauek esan ohi dute euskara hizkuntza zaila dela eta hau frogatzeko euskal aditzaren zailtasunari buruz hitz egiten dute. Baina, aditzaren ikuspuntutik, ezin esan da gaztelania euskara baino errazagoa denik. Beste hizkuntza erromantzeek bezala, gaztelaniak aditz irregular asko ditu, bostehun baino gehiago. Baina ezaugarri linguistiko hau ez da aipatzen gaztelaniaren propaganda karakterizazioetan. Horretaz gain, badakigu euskarak ez dituela bostehun aditz irregular.

Ikus dezakegu ezaugarri linguistikoen hautapena nahierarakoa dela. Hizkuntza nazionalismoak nahi duena gaztelaniaren inposaketa justifikatzea da, besterik ez.

Puntu hauei jarraiki, euskara hizkuntza uniforme dela eta zatiketa arrisku txikia duela esan dezakegu. Baina ideia hau ez da ohikoa Espainiako iritzi publikoan. Aitzitik, eskuarki esaten da euskara bariedade edo dialekto askotan zatituta dagoela.

Hizkuntza nazionalismo espainiarraren arabera, gaztelaniaren homogeneotasuna frogatzen duten ezaugarriak erabil daitezke euskararen zatiketa adierazteko. Hemen ikus ditzakegu argi eta garbi ideologia honek egiten dituen manipulazioak.

## **5. Gaztelania hizkuntza geografikoki trinkoa da**

Webguneak esaten du gaztelania geografikoki hizkuntza trinkoa dela; gaztelaniaz hitz egiten den lurralde guztiak ia albokoak direla. Badago, puntu honetan, salbuespen garrantzitsua: Espainian eta Amerikan hitz egiten duten gaztelania Ozeano Atlantikoak zatituta dago. Munduan zehar, hedadura handiko hizkuntzak ezin daitezke izan trinkoak geografiaren ikuspuntutik. Ez da egia gaztelaniaren lurralde guztiak edo ia guztiak albokoak direla. Adibidez, Mexiko eta Argentina ez dira mugakideak.

Baina euskara geografikoki gaztelera baino hizkuntza trinkoagoa da. Euskarazko lurralde guztiak gutxi gorabehera albokoak dira. Hurrengo irudian ikus dezakegu euskalkien hedadura. Honek frogatzen du euskara gaztelania baino trinkoagoa dela geografikoki:



## 6. Gaztelania hizkuntza hedakorra da

Gaztelania hizkuntza hedakorra dela esaten digu webguneak; hiztunen kopurua igotzen ari dela gaur egun, eransten du.

Baina euskara ere hedakorra da. Euskaldunen kopurua igotzen ari da poliki-poliki. Adibidez, *Europa Press*-ek esaten duenez, Euskaldunen kopurua 118.000 lagunetan igo zen Euskal Autonomia Erkidegoan 2001 eta 2006 artean. EAEn bizi direnen hamarretik sei euskara ulertu eta hitz egiteko gai dira, ongi edo ahaleginduz. Beraz, esan dezakegu euskaldunen kopurua igotzen ari dela gaur egun. ([http://216.239.59.104/search?q=cache:aVjgJAGce2gJ:es.noticias.yahoo.com/ep/20080723/tlc-euskadi-euskaldunen-kopurua-118-000-760ce4b\\_1.html+euskaldunen+kopurua+118.000+europa+press&hl=es&ct=clnk&cd=1&gl=es](http://216.239.59.104/search?q=cache:aVjgJAGce2gJ:es.noticias.yahoo.com/ep/20080723/tlc-euskadi-euskaldunen-kopurua-118-000-760ce4b_1.html+euskaldunen+kopurua+118.000+europa+press&hl=es&ct=clnk&cd=1&gl=es))

*El País*-ek dioenez: “Unibertsitateko ikasle euskaldunen kopurua bikoiztu egingo da 20 urtetan”.

([http://www.elpais.com/solotexto/articulo.html?xref=20011001elpvas\\_21&type=Tes&anchor=elpepiautopvs](http://www.elpais.com/solotexto/articulo.html?xref=20011001elpvas_21&type=Tes&anchor=elpepiautopvs))

Berria-k esan du: Hazi egin da euskaldunen kopurua, Araban eta Bizkaian batik bat ([http://www.berria.info/testua\\_ikusi.php?saila=harian&data=2008-07-24&corria=012&kont=006](http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=harian&data=2008-07-24&corria=012&kont=006))

Eta, azkenik, Juan Ignacio Perez Iglesiasek *Jakin* aldizkariaren artikulatu batean esan du:

“Hezkuntza sistemaren eraginari esker, batez ere, euskaldunen kopurua gora doa Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, euskaldunen %80 bizi garen eremuan. D ereduan matrikulaturiko haurren ehunekoei erreparatzen badiegu, erraz ikus daiteke haur eta gazte guztien %60 euskaldunak izango direla laster. Izugarrikoa da harrobi hori, baina zaindu beharra dago, harrobi guztien antzera.” (Pérez Iglesias 2003: 56).

## **7. Gaztelania hizkuntza nazioartekoa da**

Egia da gaztelania hizkuntza nazioartekoa da. Baina Europan zehar ez daude gaztelaniaz hitz egiten duten herriak Estatu espainolean izan ezik. Aitzitik, Europan euskara nazioartekoa da. Euskaraz hitz egiten dutenak Espainian eta Frantzian aurki ditzakegu. Euskara Frantzia eta Espainiaren arteko hizkuntza komun bat da. Gaztelaniak ez du ezaugarri hau. Nahiz eta euskara Frantzian ez den hizkuntza ofiziala, nazioartekoa dela esan dezakegu. Ikuspuntu honetatik euskara Europako hizkuntza nazioartekoa dela esan daiteke eta hau ezin liteke esan gaztelaniari buruz.

## **8. Gaztelaniak komunikagarritasun maila altua eta aldakuntza maila baxua ditu**

Ikusten ari garen webgunearen ustez, gaztelaniak komunikagarritasun maila altua eta aldakuntza maila baxua ditu. Baina euskara hizkuntza komunikagarria da Euskal Herrian, ingelesa baino komunikagarriagoa dudarik gabe.

Horretaz gain, gaztelaniak euskara baino barietate gehiago ditu. Espainian eta Amerikan zehar gaztelaniaren barietate ugari daude, berrogeita hamar baino gehiago (Moreno Cabrera 2003: 188-189). Euskarak ez ditu hainbeste euskalki, hiztunen kopurua gaztelaniarena baino askoz txikiagoa baita. Hor-taz, gaur egun euskararen aldakuntza maila gaztelaniarena baino baxuagoa dela esan dezakegu. Oro har, hizkuntzak zenbat eta hedatuagoak, orduan eta

aldakuntza gehiago dute. Gaztelaniak aldakuntza maila baxua badu, euskararenak ere baxua izan beharko du.

## 9. Ondorioak

Hizkuntza nazionalismo espainiarrak ezaugarri linguistiko batzuk hautatu ditu gaztelania goraipatzeko eta Espainiako beste hizkuntzak gutxiesteko. Baina, ikusi dugun bezala, euskara eta gaztelania ezaugarri hauen ikuspuntutik, maila berean jar ditzakegu. Hala ere, badaude Euskal Herrian desberdintasun garrantzitsuak bi hizkuntzen artean; dudarik gabe desberdintasun hauek sozial, politiko eta historikoetatik faktore eta ez linguistikoetatik etorri dira. Orain dela hogeita hamar urte Euskaltzaindiak hizkuntza aurreiritziak aipatu zituen euskararen egoera argitzeko:

“Gaztelaniak indar ekonomiko, politiko eta kulturalako egitura guztietatik hartu du laguntza, eta ‘garbitu’ egin du euskara euskal geografiako zona askotatik, bere azken arnasetara estutuz. Gero ikusiko dugu nola [...]”

Zerak aztertuko ditugu: [...] d) *mekanismo psiko-sozialak*, euskararen desbalorazio eta gaztelaniaren superbalorazioan parte izan dutenak, eta honekin batera joan diren aurreiritzi eta estereotipak; gogoan hartuz, noski, klitxe hauek suspertu dituzten multzo kolektiboak.” (Euskaltzaindia 1979: 40)

Artikulu honetan ikusi dugun bezala, gaztelania goraipatzen duten aurreiritzi hauek bizirik daude gure gaurko gizartean.

## Aipamenak

Eguzkitza, A. eta Etxebarria, M., 2004, *Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak*, EHU/UPV, Vitoria-Gasteiz.

Euskaltzaindia, 1979, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*, Ediciones Vascas, Bilbao.

Fernández, B. eta Ortiz, J., 2007, *Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Fabb, N., 2005, *Lingüística y Literatura. El lenguaje de las artes verbales del mundo*, Antonio Machado, Madrid.

Moreno, J. C., 2003, *El universo de las lenguas*, Castalia, Madrid.

Palmer, G. B., 2000, *Lingüística Cultural*, Madrid, Alianza.

Pérez, J. I., 2003, “Herri normal bateko herritarrak izango bagina...”, *Jakin*, 139, Euskal Kultura 2003, 52-58.

# Ahozkoaren corpusen emendioa literatura-eredurako<sup>1</sup>

ADOLFO AREJITA

*In memoriam*

Neure saiotxo hau Gotzon Garate irakaslearen gomutaz eskaini nahi nuke, atzo goizean jaso baikenuen bere heriotzearen berria, herenegun gauean gertatua. Batetik, mintzagai dudan gaia, berak batez ere azken hamarkadetan gehien landu dituen herri-literatura eta herri hizkeraren gaiei guztiz atxikia dagoelako: haren *Atsotitzak* bilduma, 30.000tik gora errefrau euskarazko barrenean biltzen dituen, haren *Erdarakadak* hiztegi aholkugilea, eta laster sarean ikusiko den *Esamolde* edota lokuzioen bilduma, gaixotu orduan amaiturik utzi duena. Bestetik, irakasle naizen Deustuko Unibertsitatean hasiera bertatik izan baitut lankide Letren Fakultateko Euskal Filologia adarrean, eta baita aholku-emaila on ere euskararen eta beste gai askoren gainean. Goian bego.

## 0. Hitzalditxo honen zioez

*Ahokotasuna* diot neure izenburuan, euskaraz gutxi erabiliriko hitza, nolabait inguru-erdaretan ‘oralidad, oralité, orality edo *das Mündliche*’ ohi denaren ordezkotza. Adjektiboa dugu ezagunago kontzeptu horretarako hurreko hizkuntzetan: *ahozkoa*, hau da, ‘oral, mündlich’. Hizkuntzari gagozkionean *ahozko hizkuntza / hizkera* darabiltzagu, eta ele ederrez mintzo garelarik, *ahozko literatura*. Kontzeptu honen garapen-hedapena, idatzizkoaren aurrez aurre gertatu da, haren antonimo edo aurrez aurreko zentzua edo arloa adierazi, bereizi eta zehazteko. Beste hitz bat ere usu

---

<sup>1</sup> Txosten hau, 2008aren urrian irakurri zenetik eta hona zenbait puntutan orraztu eta gehitua, eta batez ere harrezkeroko bibliografiaz osatua izan da.



erabilia da eremu beretsua adierazteko: herri-, batez ere herri-literaturaz dihardugunean.

Ahokotasuna, hizkuntzari datxikala, termino zabala da berez, artea dena eta ez dena ere barruan hartzeko modukoa, eta nolanahi ere literatura hitzak batez ere idatzizkoa gogorarazten digunez -ahozko literaturaz ere xx. mendearen hasieratsutik aurrera asko mintzatu eta ikertu den arren-, eta ahots edo mintzo bidez jalgitzen diren testuak neurri txikian baino literatura ez izaki, termino egokiagoa deritzagu *ahozkotasun* delako honi, guk gogoeta gai darabilgun arlorako.

Pirinioetako Hizkuntzei eskainiriko XVI. Biltzar honek antzinate zaharrean izan du abiapuntua, eta “Hizkuntzak eta gizarteak” deritzan hirugarren sail honetan, eratzaillei adiutu begitandu zaie ahokotasunaren ertz hau nik uki dezadan, harako Etxalarren iazko apirilean aurkeztu nuen ahozko ondarea biltzeko egitasmoaren kariatara.

Esanari men eginez, gogoeta apur batzuk, ahozko edukien corpusek euskal hizkuntzari oro har, baina euskara idatziari eta berariaz literatura barrutikoari ekar diezaizkiokeen onurez eta abantailez.

## 1. Ahozkoaren txertoa literaturaren ibilbidean

Gomutagarri gisa, esan dezadan euskal literatura osoak, lehen hasikineta-rik ondoko mendez mendeko joanean, bidelagun hurreko eta estua izan due-la ahozko hizkera, landu diren genero guztietan: dela hitz neurtuz, dela hitz lauz, dela antzerki generoko solas-autuetan. Baina ez da hau lekua, ahozko-idatzien arteko interakzio historikoez jarduteko. Bai hala ere baieztatu, orain-tsuko aurkikundea den Lazarragaren poesietarik edota Etxeparerenetatik hasi, erretrau-bildumetan, kantu-tipo zaharretan —amodiozko, epiko, erlijiozko edo ziri-bertso direla—, balada zaharretan, herri-teatroan, gutun-erian... eta azkenik gure oratoria erlijioso ugariagoan gairi, herri-hizkeraren geriza ez dabilela testu idatzietarik urrun, ondo-ondotxoan baino. Bestela esanda, tradizio landuari edo aurreko testu idatzien ereduari baino askoz gehiago zor dio gure literatura zaharrak, den generoa dela, inguruko ahozko espresioari eta estiloari.

Aurreko aldi luzeetan erakunde politiko egonkorrek eta bertokoak eta euskarari ageriko ezaguera onartuko ziotenak ez izanak baldintzatu du gure eredu literarioen ibilbide sakabanatua, edo bestela esanda, tokian tokiko eta

aldian aldiko izkribuak euren aurretikoen eredukoak edo ildokoak izatea. Horrela gertatu da gurean literatura idatzi etenez bete; aldian aldiko loraldi batzuk gorabehera, ilunaldiz zarratuago den historia, argialdiz baino. Eta hala, literatura tradizio baterako bidea urratu eta finkatzeko urratsak eman direnean ere, erauntsi politiko-sozialen zibi-zabuan erkinduz eta ahulduz joan da hurrengo aldian. Horrek behartu du, besteak beste, euskal literatura idatzia aldian aldiko ahozko hizkera eta erregistroetara adi jartzera, hartatik xurgatzera.

Elizak, batez ere Trentoko kontzilioaz geroz hedatu zuen doktrinagintza-ahalegina, izan da literatura idatzi klasikoaren habe eta sostengu. Eta dotrina-tze-lan horretarako finkatu den hizkerak, entzule eskolagabeen belarrietara ekantzeko modukoa behar zuen gehienetan; nahiz, denboran aurrera egin ahala, jende irakurri eta eskolatuari zuzentzen joan zen —batez ere elizgizon, eskribau, mediku eta beste goi-lanbidekoren batzuk, jende ikasia, baina ez euskararen trebatua— eta haietarikoak irakurtzeko eran ere ontzen hasi ziren izkribu-liburuak, idazkerak ere beste jaikitasun bat hartzen zuela. Herri-hizkeraren ekarria, hala ere, nagusi oro har.

Euskal teatro zaharrean, erdi eta sartaldeko adibide pare bat: Pedro Barrutia eskribauaren *Gabonetarako Ekinaldia* (*Acto para la Nochebuena*) eta Peñafloredaren *Mozkor burlaz hartua* (*El borracho burlado*) gaztelania-euskarazkoa adibide apalak dira izan, baina adierazgarriak. Idazle bata aramaioarra, bizi-moduz Mondragoera etorria; bigarrena, azkoitiarra, Azkoitiko Zalduntxoeren burua, bere antzerkitxoaren Bergaran ospatzekoak ziren jaietan jokatzeko ondu zuena. Zeinek bere hizkeran idatzi zuen; etxe-auzo-kaleetan ikasi eta entzuten zuten horretan. Kilometro gutxiren alde batetik bestera, baina ahozko erregistro eta euskalki banak, eta zeinek berea gidabide. Zenbateraino jarraitu zioten aurreko idazleen estiloari? Peñafloredaren kasuan ez da dudarik, gipuzkera literarioa artean loratzen hasia baitzen, ia belaunaldi bat lehenagotik,<sup>2</sup> eta batez ere euskarazko eliz oratoriatik, erantsiko nuke orain. Barrutiaren kasuan, ingurune mintzo-hizkeran ispilua askoz nabariagoa da, idatzizko ereduena baino. Edozela ere, batak eta besteak ezaguna zuten aurreko herri-literatura, kantuz eta agian paper bidez transmititzen zatekeena. Oraintsu agertu eta ezagutzera eman den gabon-kanta bat ere, *Enzun eguizu cer barri dogun* hasiera duena, Barrutia bizi izan zen inguru horretakoa eta bera baino lehenagokoa dateke —xviii. mendearen lehen herenekoa—, eta ez litzateke mira

<sup>2</sup> Peñafloredaren hizkeraz eta ereduez idatzia dut orain aspaldi *Euskera* aldizkarian (1999, 44. znb., 107-128. orr.).

egitekoa honek ezagutu izana. Izan ere, inprimatu edo ez, holako kopia-papera, endemas gabon girokoak, kantatu egiten baitziren eta buruz ikasi eta irakatsi.

Erljio-oratoria generoko beste adibide bat hurrengo mendekoa. XIX. mendearen hirugarren hamarkadako misiolari idazleetan, Zarauzko Kolegioko Misolariak nabarmendu ziren —jesulagunak artean Karlos III. erregeak jaurtiki Espainiako erreinutik kanporatu zituelarik— jende aurreko euskarazko predikuan Pirinioz beheko euskal lurraldean. Predikari-mintegi horretatik jalgiak dira P. Añibarro, J. M. Zabala, J. K. Etxeberria eta horren ezagun ez diren beste fraile predikarien multzo ugaria. Betiko oztopoaren aurrean zeuden: zer hizkera erabili pulpitan eliztar euskaldunei kristau mezua helarazteko? Larramendi izan zen horretan ere bidea erakutsi zuena. Berak lehenengo, Kardaberazek hurrengo, Mogekek, Añibarrok eta beste batzuek ondoren, ideia beruetsua damaigute: nori bere hizkeran irakatsi behar zaio elizaren dotrina.<sup>3</sup> Larramendik bere gramatika bizkaieraren morfologia-paradigmak ere ematen ditu gipuzkeraren ondoan, beti ez baina. Eta Hiztegi Hirueledunean (*Diccionario Trilingüe*) ere bizkai eta nafar erako hitz eta hitz-aldaerak lekukotzen saiatzen da, halakoen berri duenean behintzat.<sup>4</sup> Añibarro misiolariak, bere eginbideak eta hizkuntza-kezka eraginda, handik 70 eta gehiago urtera, zehaztasun askoz handiagoak jokatuko du, ahozko hitzak zein nongo eta norako diren finkatzeko orduan. Hiztegi edo *diccionario* izenik ere ez dio ematen bere lanari, baina bere helburuarekiko izenburu adierazgarria eransten dio: *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra*. Hitzak amankomunak direnean *c.* (común) markatzen ditu eta bereziak direnean *b* (bizkaiera), *g* (gipuzkera) eta *n* (nafarrera). Bereizkuntza horren atzean hiztegiak duen erreferentzia nagusia ahozko hizkerak dira dudatzeko.<sup>5</sup> Eta hiztegiaren helburua are argi eta zuzenago ematen du: *para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores bascongados*, dio izenburuan berean. Idazle predikariontzat, idaztea ahozko transmisioaren mendeko bitartekoa besterik ez da: predikari batek beste predikarientzat idazten du, hauek mintzoz helaraz dezaten entzuleen belarrietara. Horretarako baldintza batzuk bete behar ziren: lehe-

<sup>3</sup> Jakina da beti horrela jokatzen ez zena. Kardaberaz eta Mendibururen argitalpenek eragin erabakigarria izan zuten predikuan ere, eta bizkaiera eremuetan zein nafarretan gipuzkera predikatzeak halako dotore ospea irabazi zuen eliztar entzuleen artean. Bestela esanda, eredu idatziaren prestigioak ahozko jendeaurreko eredu ere eragin zuzena izan zuen.

<sup>4</sup> Ezin da beraz bete-betean sinetsi, kanpora begira, jakitun gaztelauen aurrean euskararen goi ahalbideak erakusteko ondu zuela hiztegia; barrura begira ere jokatu zuen, eta dialekto diferentetako erak erregistratu izana, eliz oratorian erabili beharreko ereduak zuzen loturik dago.

<sup>5</sup> Haren aurretiko idazle jesulagunen argitarazioak ahaztu gabe, jakina.

nik, hizkera ulergarria izan zedila; beraz, entzuleen hurreko erregistroa erabil zedila, bai hiztegian, bai morfologian eta bai hitz-ebakeran.

Oratoria sakratuaren esparruan, hizkuntza kontuan, euskal eremu guzti-etan berdintsu jokatu dute elizgizonek denboraren joanean. Ez da euskalkia bakarrik, gramatikaren morfologia bakarrik batetik bestera bereizten dena; lexikoa eta gainerako baliabideak ere bai. Idazleok beti edo ia beti jokatzen dute ahozko hizkeraren arrimuan.

Hizkera-barietateen arazoa, euskalki literario amankomun edo erdi amankomunen bidez konponduko da euskal literaturaren mende klasikoetan.

Bizkai-Gipuzkoen mugan bizi izan zen J. A. Mogelek, kasurako, eskolaz ondo hornitua eta idazte bokazio errimeko gizona izanik, euskaraz diharduela hizkuntza barietateen auzia, euskara eremuan hiru dialekto bereiziaz ebartziko du: bizkaiera, gipuzkera eta ‘vasco’ zeritzana, nafar-lapurtera, biak batean. Euskalki-bereizkuntza horrek, tradizio idatzian ere bai hein batean, baina ahozko hizkeran zuen oinarri nagusia. Zergatik darabiltza adizki trinkoak eurrez bizkaieraz diharduenean eta hain bakan gipuzkerazkoan? Lexiko erreper- torioa ere euskalkien arabera banatzen du. Hitzen ebakeran ere berdin joka- tzen du, nahiz berak bizkaierarako proposatua eta Añibarrorena bat ez datozen.

Hizkeren bereizkuntza honetan, euskalkiez urrunago ere heltzen dira tes- tu zaharrak, berariaz dotrina laburren kasuan. xvii. mendetik aurrera hainbat dotrina dira, Bonaparte baino askoz goiztiarragoak, halako herri edo lekurako onduriko euskal dotrinak. Mogelen aldikoa da, esaterako, Asteteren bertsio bat, Busturialdeko bikariarako argitaratua, eta seguruenik idazle markinarrak berberak erredaktatua. Baina aldi zaharragoetatik datoz halako beste hainbat —hiri edo herri baterako berariaz prestatuak izaki, gehientsuenak argitaratzen ere ez zirenak—, bertako elizgizon batek idatziak —hobeto esanda, toki ho- rretako hizkerara itzuli eta egokituak—<sup>6</sup>.

Peru eta Maisu Juanen berba-jardunetan idazleak beren-beregi aurrez aurre jartzen ditu herritar xehe baten ahozko jakituria eta kaletar eskolatuaren ikas-mina. Hizkuntza gaietan nekazari eta olagizonak izango dira bide-erakusle. Herri-altxor horren adigarriztat eskainiko ditu, ez bakarrik errefrau- atsotitzak edo herri-ipuin bat edo beste; herri-koplak ere bai, eta batez ere hiztegi-ondareko bitxiak, bakan edo askorentzat gutxi ezagun diren hitz eta

---

<sup>6</sup> Egia esan, tokiko hizkeraren berezitasunak hitzen ebakeratik haruntzago nekez doaz euskal dotrina hauetan, zeren tokirako bertsiook euskarazko besteren baten oinarrituak daude maiz.

esamoduak, bere *Nomenclatura* delakoan. Jakina, Wilhelm Humboldt prusiarrak Alemania aldeko lurretatik zekarren Erromantiko Giroko herri-arima edo popularen jitea ikertzeko ildoaren zurrunbiloan zebilen idazle markinarra ere, batez ere biek Markinan elkar ezagutu zutenetik.

Jose Antonio Uriarte Arrigorriagako semea, frantziskotar predikaria berau ere, eredu bikainenetarikoa dugu herri-literatura eta ahozko baliabideen eskuratze-ahaleginean. Herri-literatura generoetan, herri-poesia edo herri-idazleek eginiko poesia eta kantak bilduko ditu batetik, *Poesia Bascongada* delako hartan. Eta Bonaparte ikertzailearen lankide handi eta sendoenetarikoa bihurtuko da Pirinioz beheharian, bizkaieraren eta baita gipuzkeraren eremuetan batik batik. Hari bidalirik gutunek argi salatzen dute norainoko jakin-minaz ikasten zituen hiztunen ezpainetatik kontzeptu bera adierazteko leku batean edo bestean erabiltzen ziren hitz edo moduak.

Iztueta zaldibiarra eta lehen mendeetako beste askoren izenak ere on egitera datoz ahozko literaturaren hari mehe luze hori. Baina beude hor. Tradizio horrek, euskara hiztun onetatik ikasi behar delakoak, gaurdaino iraun du, eten gutxirekin, eta gaur ere, XXI. mendean sarturik, inoizkorik sendoen dago.

## 2. Ahozko corpusen ildoak

Era askotariko corpus bilketak ezagutu ditu herri-euskarak, XX. mendetik aurrerako aldiari soilik bagagozkio ere.

2.1. Lexikografia arlokoa izan da ekimenik gehien eta uztarik ugariena eman duena, historiaren aldetik. Mende zaharretarik datorren joera da euskararen kasuan ere, ahozko hitzen zerrendak, nolabait antolatua, taxutzekoa, eta maiz latin, frantses edo gaztelaniako hitz-zerrendak oinarri direla. Zertan esanik ez da, holakoetan metodologiak berak mugatu izan duela emaitzaren onurakortasuna. Landuchioren hiztegia, kasurako, XVI. mende goiztiarreko emaitza bitxia eta luzea dugu horietariko bat; euskarazko iturriak ahozkoak dira zeharo, baina emaitzak mugatuak; berri-emaileak ere ez ziren agian oparoenak, eta gaztelaniazko kontzeptu-izendapenetara makurtu beharra ere muga latza zen, bestalde. Baina zahar izateak, euskara galdua den eremu bateko hizkera jasotzeak, hitz edo aldaera soil-bakanak hor agertzeak eta batzu-batzuetan esaldi antzeko hitz-segida batzuk ematen diote interes aparta bilduma honi.

XIX. mendearen ondarrera jauzi eginez, Lore Jokoen berpizte aldiak sorra-razi zuen literatura, eta herri-literatura, emaitza guztiekin batera, hutsune bat

utzi zuen agerian: hizkera guztien hiztegi oso baten hutsune premiatsua zegoela, ez Larramendiren ez besteren hiztegiak betetzen ez zuena. Halaxe sortu zen Azkueren ekimena, herri-hizkeren eta literatura idatzien lexiko-katalogazio sistematiko bat emango zuen euskal hiztegia egitekoa: euskaratik abiatua, eta euskaraz sortu eta mamitzen zen hizkuntza-produkzioaren bilgune izango zena. Dialektoz ez ezik, herriz ere markatuak datoz ahozkotik erregistraturiko hitzak.

Berehalako eragina izango zuen literaturan. Adibide hurreko bat: ikusi baino ez dago, beraren lagun hur-hurreko izan zuen Domingo Agirrerren hizkera literarioak zernolako aldakuntza jasaten duen *Auñemendiko Lorea*, hiztegia argitara aurretik onduriko elaberritik, *Kresala* eta *Garoa*, haren ondorik atera zituen bietara. Ia mende oso bateko idazleak janariko ditu, zein gehiago zein gutxiago, Azkueren hiztegiak literatura produkzioarako. Badira idazleak, aldi batez euskalkiz idazten zutenak -Eusebio Erkiaga, Otxolua bizkaitarrak kasurako-, baina batasunaren ondorik morfologia estandarraz egin dutenak gehiago, euren idazkuntza beste euskalkietako hitzez ugaritu dutenak, bereziki kontzeptu berezietarako haietan aurkitzen zutelako hitz adiutua, edo egokitasun fonetikoa eskaintzen zuen hitza urrunagoko hitz batean idorotzen zutelako. Hitz-errepertorio ugaritze horretan harrobi hondargabea izan dute idazleek Azkueren hiztegian, eta bereziki hark ahozkotik jasoriko hitzetan. Hitz lauzkoan adina, poemagintzan ere oihartzun nabaria izan du hiztegi horrek. Lexiko-iturri bakarra ez zen izango seguruenik, baina bai nagusia xx. mendean barrena hurrengorik hurrengorako belaunaldientzat. Eta berriro diot, ahozkotasuna zetzan nagusiki horren guztiorren azpian.

Larramendiren eraginaz alderatzerik ere ez dago. Neurri apalean baino ez zituen jarraitzaile izan hark, bere belaunaldiko eta hurrengoko idazleak, gipuztarrak, bizkaitarrak zein nafarrak. Garai hartako idazle predikariak ondo ohartuak ziren, han, gaztelaniakoen ondoren ageri ziren euskal ordezkioak, asko behintzat, ez zirela hitzunek erabiliak, eta nahiago zuten, Mogelek *Peru Abarka*-ko abadearen ahoz zioenez, nekazariengandik ikasiez baliatu: “*Eta Jangoikuak naiba, emendi aurrera artuko dot ardura andi bat Baserritar ta beste nekezale erderabagakuetati euskeria ondo baño obeto ikasteko*” (PAb 122), aitortzen baitu guztien aurrean.

Iparraldeko hizkerari dagokienez, Pierre Lhanderen hiztegia (1926) dugu, *Basque-Français* delakoa, erreferentzia nagusia. Azkueren ondorik egina, eta hark bezala, idatzizko eta mintzairako iturriak bitzuk aintzat hartu eta baliatu dituen izaki, baditu, metodologiaz aparte, beste balio gehigarri batzuk ere:

Harriet, Iribarren, Foix eta beste eskuizkribuzko lexiko-iturriez baliatu da, eta bere kabuz ere ahozko bilketa ugariak egin.

Hegoaldeari dagokionez, badira Azkuez ostean, eta haren hurrengo be-laualdian, biltzaile handi bi, aparteko aipua merezi dutenak ahozkoaren ar-loari buruz, euren eragina berankorra eta ez hain indartsua gertatu den arren. Placido Muxika eta Justo M. Mokoroaz ari naiz. Euron lana hor dago, bata-rena paper-tomo marduletan, bestearena paperean eta batez ere sarean, bila dabilenaren lagungarri eroso, lehengoan, oraingoan zein gerokoen. Placido Muxikaren hiztegiak —1965eko *gaztelania-euskarakoa*, aurrerago (1973) la-burtuagorik atera zena eta 1981eko *euskara-gaztelaniakoa*— laguntzaile as-koren ahozko bilketez eta ekarriez onduak dira, eta iturrien aipurik ageri ez arren, fidagarriak oro har. Justo Maria Mokoroaren lokuzio-bilduma, *Reper-torio de locuciones* edo *Ortik eta Emendik* delakoa (1990), aspaldiko lana da izatez, edizioa oraintsu samar egina izan arren. Behar baino gutxiagotan aipa-tu edo zitatu izanagatik, idazle, itzultzaile eta irakasle askok jotzen zuten harrobi sakon horretara, batez ere sareko kontsulta bidez; bilaketak errazak baitira euskaratik zein gaztelaniatik. Lexikografo bion lanetan aukera ugari dira kontzeptu edo ideia askoren inguruan, zer nola beste era batera adierazi bilatzen duenarentzat.

Lino Akesoloren eskua dago batik bat *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* (DRAE) delakoaren atzean. Beronen akatsa eta muga, beranduegi argitara izana, eta ez egina izan zen garaian. Osorik argitaratu zenerako *Orotari-ko Euskal Hiztegia* argitaratzen hasia baitzegoen.

Ezin aipatu barik utzi, Gotzon Garate hilberriaren *Erdarakadak* lehenen-go eta *Euskal Atsotitzak* oraintsuagokoa bigarren. Ezta ere amaiturik utzi zuen eta sarean jartzekoa den *Esamolde* bilduma, edo berari sarriago entzuten ge-nion hitzaz, *lokuzioena*.

Tokian tokiko lexiko monografien artean, Toribio Etxebarriaren *Ei-barkoa*, eta Kandido Izagirrearen *Arantzazu-Oinatikoa* eta *Altsasukoa* dira bidea ireki dutenak, gerora hor-hemen, Euskal Herriko bazter askotan egin diren dialektologia ikuspegiko ikerketa eta bildumak egiteko. Eta horietan, grama-tikaz at, ugariak dira hitz-bildumak eta ahozko testu produkzioak.

2.2. Ahozko narrazioak aipatuko nituzke bigarren, arin eta zeharka aipa-tu ere, luze ez jotzeko. Narrazio-biltze tradizioari so eginez, Iparraldea dugu horretan ere aitzindari, kanpo-ikerlariak bide-erakusle direla. J. F. Cerquand frantziar eskola-inspektorea, kasurako, bere “*Legendes et récits populaires du Pays Basque*” bilduman atalik atal hainbat ipuin eta elezahar argitaratu zuena

*Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau* aldiazkariaren orrietan, 1874-1885 bitartean. W. Webster, bere “Basque legends” (1879) bildumarekin.

Guri gaur dagozkigun egitasmo eta helburuekin estu loturik dagoen narrazio eta kontuen transmisioa ahozkotasanaren bidetik doa gehiago idatzizkotik baino. Eta idatziz transmititu izan zaigunak balio gehiago du oralitatearen ikuspegitik, hitz-jarioaren transkripzio zehatza edo hurbila denean. Rudolf Trebitsch austriarrak 1913an Euskal Herrian gaindi grabatu zituenak dira eredu horretako lehenetarikoak, nahiz grabazio horiek ere ahotik harakoak ez diren; lehenik entzun, aditu batek paperean jaso eta ondoren leku-koak testua irakurri bi minutu barruan; holaxe eginda daude grabazioak. Euskal euskalki ia guztietakoak dira bilduman; guztiak ez balio berekoak, hala ere; banaka batzuk dira gure ustez balio etnografiko edo narratibo dezentea dutenak oralitatearen aldetik.

Mende hasiera horretakoak dira Azkueren biltze-saioak ere, bere *Diccionario* hartarako eduki lexikografikoak biltzen zituen aldi berean, herri-literatura esparruko denetariko gaiak biltzen baitzituen, kantu, ipuin-esaunda, errefrau, sineskera, igarkizun eta bestetariko. Baina *Euskalerraren Yakintza*-ko 2. liburukiko ipuin-testuak irakurri ahala, berehala ohartzen gara entzunetik idatzira dagoen jauzi nabariaz.

Joxe Migel Barandiaran-ek 1921etik aurrera, *Eusko-Folklore* urtekaria eta hileango orrien bidez garatzen duena da hurrengo jauzi kualitatiboa euskal oralitatearen eremuan. Metodologia zehatza aplikatzen die etnografo ataundarrak bere eta laguntzaileen bilketei: den-denean jaso behar dira testuak, ezpainenetik lumara; noiz, non, nori eta nork ere adierazi behar da, eta ezagunak diren gainerako zehaztasunak ere bai. Barandiaranen bilketok, gehienak 20garren hamarkadatik aurrerakoak dira, baina bere sorterrikoak xx. mendehasierakoak asko, beraren ama Maria Aierberi jasoak asko. Ipuin eta esaunden sorta hauek badute beste ezaugarri bat aparta: nekazari giroan eta euskara zaharra gorde izan den eremukoak dira asko: Ataun, Oñati, Kortezubi, Azkoitia... eta gaur euskara galdua den Arabako eremuetan ere jaso ditu lekukotza bikainak. Hala Zigoitiko Etxaguengo emakume bati jaso zion 1919an *Errana ta Amagiarraba* delakoa.<sup>7</sup>

Barandiaranen eta bere itzalpean 1970 aldera sortzen joan ziren Etniker taldeen lanaren bitartez gaurdaino heldu zaigu etnografo handiaren eragina.

<sup>7</sup> *Eusko-Folklore. Materiales y Cuestionarios*, colección Sara, 7\* znb., 465-466. orr.



Kasu adierazgarri bat da *Etniker Bizkaia* aldizkaria, hainbat etnotestoren gordailu.

Herri-ipuina eta bestelako narrazioak aldizkari askotan sakabanaturik ditugu, batez ere 50-60. hamarkadetatik honuntz. *Aranzazu, BAP, Egan, Euskera, FLV, ASJU, Idatz&Mintz* eta zerrenda luze bat. Dialektologiako monografia asko egin dira ondorik gure unibertsitateetan ere, batez ere euskal filologia adarrak abian jarri zirenetik, eta hauetariko askok dituzte erantsirik etnotesto bildumak. Ez dira ahaztekoak, bestalde, gudu aurrean zein ondoren erbesteko ikerlariak eginiko ekarria, bide-urratzaile gertatu baitziren honetan.

Gramatika lanek ahozkoari eskaini dioten arreta dago bestetik. Gaur egun tokian tokiko mintzaireri buruzko hainbeste ikerlan monografiko egiten den honetan, gogora beharrekoak dira, berariaz XX. mendearen lehen aldietatik aurrera ahozko hizkeren gramatika deskribatzeko egin diren saioak. Ez da gure arloa, Schuchardt, Uhlenbeck, Van Eys edo Rollo bezalako kanpo ikertzaileek aspaldisko eman zituzten aitzindari-urratsak hemen gogoratzea, aldiari aldiko metodologiarik aurreratuenak erabiliz. Baina zor dugu, hurbileko gramatikariek, barrurragotik, bertoko hizkerak deskribatzeko edo hizkera-baliabideak bildu eta sailkatzeko egin dituzten ahaleginak. Besteak beste, ekialdeko hizkerari dagokienez, P. Lafitten gramatika ahantzezina (1944), idatz tradizioaz batera ahozkoa erabilirik, nafar-lapurtar eredu finkatu zuena. Sartaldeari dagokienez, R. M. Azkueren gramatika goiztiarrak eta berariaz bere *Morfología Vasca*, neurri handiz ahozkoari atxikia, Seber Altube, bere *Erderismos* eta gainerako sintaxi-lanekin. Aipu apartekoa merezi du, ahozkoari gagozkiola, Pablo Zamarripa sondikarrak, batez ere *Manual del Vascófilo* (1913) delakoaz, eta baita ere, helburu didaktikoz egina den arren, *Gramática Vasca* obraz ere (1915, 1928), edizio ugariak izan zituen liburua, bestalde.

Gudu ondokoan artean, Holmer dugu kanpo-ikerlari goiztiarrenetarikoa. Etxekoan artean, Diego de Alzoren gramatikak berarizko aipua merezi du: *Estudio sobre el Euskera hablado* (Donostia 1961).

### 3. Ahozko corpusen mailak eta hautaketak

Begi bistakoa da, ahoz gauzatzen diren erregistro guztiak, ez asko, ez direla literaturaren ubidera zuzentzekoak. Ahozko produkzioa eta idatzizkoa ez baitira bat, eta zeinek bere bideak edo joerak baititu hitzak, esapideak, estilobaliabideak edo sintaxia hautatzerakoan.

Baina egia da halaber, ahozko emaitzen zimendu segurua barik, prosa edo poesia aberatsik ontzea nekeza dela; hura duela ongarria eta sendaria, hartaz janaritzen dela. Hartatik zer hautatu eta zer bazter utzi, horra idazlearen egitekoa; horretan du maisutasuna erakusten idazle on batek.

Behin baino sarriago esanak gara, gu eta beste, ahozko corpusak euren soilean gordinegiak ohi direla prosa literaria bere horretan isurtzeko, ahozkotik jasoriko baliabideak literaturgintzarako emankor bihur daitezten. Baina hori da helburua funtsean: ahozko hizkerak eutsi dien eta artean hitz lauzko barrutira urri bideratu diren baliabideok idatzizko ereduan txerta daitezten, eta azken finean, hizkera literarioa freskatu edo aberastuko duten emari bihur daitezten, alderdi formalean edo semantikoan.

Idazle arruntak —zentzu hertsian, sortzaile ez denak— bere kabuz nekez jotzen du etnotesto, hitz edo esaera bilduma eta halako lan gordinetara, nahiz teoriarantz hartu hura datekeela hizkera literarioarako humus aproposa.

Herri-hizkera baliabideen garraio hori errazago gertatzen da erdibideko testu eta idatziak direnean. Ereduek gisa har daitezke *Auspoa* bildumako hainbat libururik eta horien taiuko beste batzuk egin duten zubi-lana. Edota zenbait idazlek, herri-ipuinak, lehenik ahoz jasorikoak —aleman hizkuntzarako behinola Grimm anaiek egin zuten antzera— idatzirako egokitzeak egin duten ahalegina.

#### 4. Ahozkoaren estilo ezaugarri batzuk

Ahozko kontaezan badira zenbait estilo-ezaugarri, idatzizkoan bakanago ageri ohi direnak, eta neurri aplikaturik, dagokion hizkera-erregistroan guztiz gomendagarri bihur daitezkeenak. Ahozko baliabideon ezagutza zehatzak asko lagun diezaioke idazleari bere testuari bizia eta kolorea ematen. Ezagunak diren bat edo beste aipatuko ditut:

— *Elipsiaz* abiatuko gara: ahozkoan maiz gertatzen den ezaugarria, errepikak ere ohi diren bezala. Ahozkotik idatzirako jauzian estilo-aldeak nabarmenak dira puntu honetan, batez ere kontaera generoan, baina elkarrizketan ere ez gutxi. Hitzunaren joera ahozkoan, komunikazio-eraren beraren izatez, beti da elipsirakoa —hitzun batzuetan beste batzuetan baino gehiago, dena dela—, gauzak labur esatera, gainerako zehaztasunak kontestuak berak argitzen baititu.

Gramatika-puntu bat hautatu behar eta, aditz perifrasieta ohiko den elipsi-eredua aipatuko dut; laguntzailearen galera, hain zuzen, ipuin bitako txatalak bitarteko:

(1) “Gero, laiño bat Usabe gaiñen agertu ementzan eta apeza konjurua eitten *hasi*”. (Mari Muruko. *Eusko-Folklore*, II, 762).

(2) “Atxarte-errotako etxeoandrie uretan juen ei zan erre kara eta errekan, harri baten gaiñian, orrazi bat topau ei eban eta etxera *eruen*”. (*Eusko Folklore*, II, 752).

(3) “Batto arrunt abilla omentzen, eta bere xapela mintza-azten” (*Eusko Folklore*, II, 768).

(4) “In omentzuten Atarrabioren errana. Bela *etorri*, inguru-inguruka *ibili*, baina *ez ereman*.” (*Eusko Folklore*, II, 772).

Lehenengoan, lehen perpausa aditz laguntzaileaz markatu dena, bigarre-nean ez da egin. Bigarreanean, hiru perpausa segidan dituen horretan, lehen bietan aditz perfrasiak osorik datoz, baina hirugarrena aditz partizipio soilaz markatzen da. Narrazioaren ekintza-katean, elipsi bidez kontaera arindu eta adierazkortasun pitin batez hornitu ere egiten da, gramatika arauzkoa erabiliz gainera. Ezezka ere maiz jalgitzen dira holako segidak:

(5) Nik deiadar eta deiadar eta inork erantzuten ez!

(6) Jendearen ondo-ondotik igaro eta inork ikusi ez, ostera!

Idatzian, testu-generoen arabera, gehiago edo gutxiago jokatuko du idazleak elipsiaz. Baina ezin ukatu, narratiban —sorkuntzazkoa edo itzulia den berdin dio— baliabide guztiz aproposa gerta daitekeela, eta idazle batzuek maisukiro erabiltzen jakin dutena.<sup>8</sup>

— *Errepika*, aurrekoaren kontrakoa dugu beste baliabide ohiko bat.

“Irea ebagi behar; *irea ebagi eta irea ebagi*, zenbat besartekada!” (Ira-ebatea lehenago. Santi Elejalde)

---

<sup>8</sup> Ezaugarri hau ugari darabilten itzulpen-eredu bikain bi datozkit burura: bata, Justo M. Morokoak onduriko A. Campionen ipuin baten euskal bertsiola: *Erraondoko azken danielinteroa*; bestea, Orixe. Esaterako, *Urte guziko Meza-Bezperak* bertsiokoa.

Baina errepika gehiegizkoak gertatu ohi dira maizegi ahozko jarioan, idatzian saihestu beharrekoak. Hala, aditza perpausaren hasiera antzean ageri bada, ohartzeko azkenean ere aipatzea, eta beste horretariko asko.

— *Kontrajarpenaz* baliatzea. Sarritan, zerbait adierazkortasunez espresatu nahi denean, horren kontrakoa ukatzera jotzen du hiztunak. Zerbait ezezka adierazten da batzuetan kontrako zentzuari indar emateko, edo baiezkako perpaus markatuak erabiltzen dira alderantzizko mezua enfasiaraz adierazteko. Holako egiturak ohikoak dira mintzaeran, ez hainbeste idatziz, ezta dialogoetan ere, baina idatzirako ere baliagarri izan daitezke, batez ere literatur hizkeran, mezuren bat kolorez eta adierazkortasunez aditzera eman nahi denean. Hala:

(1) “Liburuak ere eroan banitu, *asko txarrago ez!*”

Hau da, “askoz hobe izango zen”. Edo:

(2) “*Hori baino hoberik bazegok!*”

Hau da, “hori ez da horren ona”.

— *Graduazio-markak* ugariak dira euskaraz ere, bai ahozko, bai idatzizko tradizioan: *guztiz*, *arras*, *txit...* eta ooren nagusi *oso* gaur egun. Baina mintzairan indarrean eta bizi dirauen egitura bat bada, bestalde idatziz ere ondo dokumentatua, genero batzuetan bereziki eta azken mende betekoetan areago nahiko hots eta sona duena. Errepika egituraz ari naiz, batez ere adjektibo (*txiki-txikia*), aditzondo (*geldiro-geldiro*, *kontuz-kontuz*) sarri ageri ohi dena. Errepika-egiturak idatziz, inola ere ez dira ahozkoan bezain ugariak

Iterazio-egituretan gutxiago antzematen da idatziz *ere/be* juntagailuz loturikoa. Hala, *antzina ere antzinakoa*, ‘aspaldi-aspaldikoa’ dela adierazteko:

“entzunda, entzunda ba zeozer bai, baia *antzina be antxinakoa*” (*Gorbeia* 300)

— Ezaguna dugu *-xe* atzizki adierazkorra, kategoria batzuekin *-txo* atzizkiaren balio gutxitzaille bertsua duena (*txikixea*, *gertuxe*) edo izan duena<sup>9</sup>; baina intentsitate-marka legez hedatuago eta ezagunago duguna, kategoria pronominalean berariaz: erakusleekin, (*hauxe*), adberbioekin (*oraintxe*, *orduantxe*,

<sup>9</sup> Ezagunak dira sartalde-euskarako testu zaharretan ere beronen lekukotasunak, hala nola Lazarragan, berariaz izen kategoriek: *goitixeago* (15r), *berbaxeok* (21v), *gauzaxe batek* (23v), *urtexe onau* (27r), *presentexeak* (28r), *dakidantxeau* (23v).

*hementxe*), eta pertsona-izenordainekin ere (*nihaurxe*, *nixeau*), mintzairan espreski, idatzizko testuek horretarako argi gehiegi ematen ez badigute ere. Hala ere Lazarragarenean oraintsu irakurri ahal izan ditugu honetarikoak:

“ene laztana solas daigun / *geurtxeok* biok bakarrik” (21r), “Oi, arrezkero Jaun zerukoak / *bertxeak* daki bakarrik” (20v), “Oi, bada bere bizi oi nax / (...) / ziudadetxo txikir batean, / *neurtxeau* bakar-bakarrik” (24r).

Baina Gipuzkoako esatari ezagun batek galdetzen zidan, Ataungo zahar bati kontu-kontari entzun ziola-eta, ea zer den *nitxeonek*. Ezin asmatu gizonak, artean irakurriak zituenen arabera hitz horren sekretua. *Neronek* entzutera eta irakurtzera ohitua bai, baina *nitxeonek* edo *neurtxeonek* erakoak, ez ostera.

— Asertzioaren neurgarriak

Perpauk edo esaldiaren egitasun-neurria markatzen duten adberbio edo perpauk-marken artean, guztiz zabal dabilta zenbait, ahoz nahiz idatziz. Hala: *noski*, *alegia*, *hain zuzen*, *agian*, *behar bada*, *nonbait* edo beste halatsukoak.

Badira, baina, beste batzuk, ahoz hizkuntza-eremu jakinetan zabal ibili arren, idatziz mehatz azaltzen direnak. Sartaldeko euskaratik abiatuta, haietarikoak dira *antza*, *ameneko*, *aurki* sartalde-hizkeretan, edota *dirudienez*, *agidanez*, *bide* bezalakoak erdi edo ekialde-hizkeretan. Haietarikoa dugu ere *itxurea* —batuz *itxura*—, idatziz bizkaieraz ere nekez irakurtzen dena, nahiz ahoz zabal dabilen marka izan. Hala:

“Bai, Anbototik Oizera joaten ei zan (...) beti sorginori. Gabaz edo, *itxurea*.” (Berriz, 581).

Badira asertzio mailako maileguzko markak ere, mintzairan garatu direnak eta idatziz arrakasta laburra edo harean eduki ez dutenak. Bat edo beste aipatzearren, *akaso* edo *igual*, askok uste baino hedatuago dabiltzanak hegoaldeko eremu zabaletan, ‘behar bada, agian’ sinonimoen eginkizun beretsurako.

— *Lokailu* eta bestelako testu-antolatzaile deritzegun horien aukera zabaletan ere, batzuk-batzuk gramatika-literaturetan usu ageri dira, halako lehenespene antzekoa dute esangura jakinetarako. Baina hizkera literarioak behar duen dibertsitateaz jokatu nahi duenak herri-hizkeraren harrobi agorrezin horretara jo beharko du, hizkerari freskotasuna eransteko. Kasu bat: *adibidez* dugu euskara landuan nagusi, erdaretan ‘por ejemplo, par exemple, for example, zum Beispiel’ diren antzera. Baina ezagunak dira, hala ere, berariaz ahoz, *kasurako*, *berbarako*, *konparaziotako* eta beste gehiago.

— *Denbora-marketan* ere, hau da, denbora-neurgarritzat erabilien artean, eman dezagun *bat-batekotasuna* adierazteko, badira adberbio-aditzondoetan mordoa. Mailegu zahar edo aspaldikoen artean hauta dezagun *agudo* (*l aguro*). Adberbio gisa sendo eta aspalditik lekukotua tradizio idatzian (*OEHI*, 316), baina gaur egungo literaturan ahantzixea, hala ere, duen mailegu-sundaren erruz seguruenik.

## 5. *Gramatika* eremuko zenbait baliabide

— *Mugatzaile hurbilen* erabilera da, sartalde-hizkeretan batik bat, baina erdi eta ekialderuntz ere maiz, mintzaira idatzizko estilotik dexente bereizten den puntu ageri bat. Narrazio erduetan, errepika kontestuetan markatzen dira izen-sintagmak maiz mugatzaile hurbilaz. Ahoz jasoriko kontraera edo narrazioak ditugu testurik adiutuenak, mugatzaile hurbilen inguruneak finkatzeke, idatzizkoetan maiz beste gramatika bat erabili izan baita, baita sartaldeko tradizioan berean ere. Begira Mendaron bilduriko sorgin ipuin ezagunaren bertsioan zenbat honetariko ageri diren:

“Ta tximinixatik bera etortze omen zitzakon bat. Ta estaki zer da baki ser da, berriketan jardute omen tzion andri *orri*, an bean, tximinixan bera sartzen zan arek. (...) Jarri da gison *oi*, berriz sea koruetan da ola, ta! atzo *ori* e etorri da berris tximiniko suluan bera (...) jo deu eskoba kertenakin, ta jo... kertenakin, jo deu da, eskuturrian jo, ta eskuturra ausi sorgin *orri*. Bixamonian andra *ori* azaldu zala eskuturra ausitxa”. (*EHHA*. Antologia 53).

— *Deklinabide* eremuko erabileren bat hautatzeko, inesibo mugagabera mugatuko gara. Ezaguna da *-tan* atzizki mugagabearen balio diferentean artean bat, guztiz ohikoa, ‘non sarturik, non murgildurik, zein giroren barruan’ dagoen norbait/zerbait adieraztea dela. Hala erabili ohi dira eguraldiaren eremuan *hotzetan ibili*, *epeletan egon*, *ohean berotan egon*, *freskotan*, *euritan*, *hai-zetan*, *uretari...* eta horien ildokoak. Bide berekoa den *gatzetan* ohi darabilte arrantza-girokoek, gatz. ‘(en) *salazón*’ termino tekniko adierazteko. Tradizio idatzian bakan ageri den arren, ahoz ohikoa dugu; halanda ze, gomendagarria.

— *Postposizio* kategoriako eredu bat edo bi emango ditugu ahozkotik aterata, idatziz bakan erabiliak diren marken adigarritzat. Noranzkoa adierazteko, ezagunak dira euskarari, batez ere idatzian, *-an zehar*, *-an barna*, *-an gaindi*, *-tik aitzinalatxina* legezko markak. Horien aldamenen, bada *-an barruna*, batez ere gipuzkeran ezaguna dena, eta tradizio idatzian ere ondo lekukotua,

nahiz eredu batu modernoan jera handirik egin ez beroni idazleek. Herri-hizkeran, aldiz, bizi-bizi dirau zenbait eskualdetan, besteak beste Getarian. Itsasoko arrain aldrak nondik norantz mugitzen diren azaltzean behin eta berriro darabil lekukoak:

Konpa(ra)zio (b)ateko antxua. Antxua sortzen da amen (...) nordestetik barru(r)a sartzen da antxua ta juten da oestian *barruna*. Da atunak eta oiek alrebes, oestetik etortzen di(r)a eta juten di(r)a estian *barruna*, ge(r)o nortian *barruna*.<sup>10</sup>

Gure iritzi apalean, estandarreko testuetan ere duen baino bultzada handiagoa behar luke.

— *Aditza* dela eta denbora-aspektuen puntuari helduko diogu soilik. Aditzaren aspektuak ekintza-prozesuaren egoeraz edo garapenaz xehetasun bereziak hartzen ditu, darabiltzagun egitura diferenteen arabera. Eta ahozko jarriotan, horretan ere, idatzizkoan bakanago irakurtzen diren aditz-egiturak entzuten dira; idatzizko eredu estuagoetatik urruntzen den dibertsitatea ageri du maiz, kontaeraren harian zertzelada edo matiz bereziak espresatzeko.

a) Kontalariak, esaterako, bere lehenagoko esperientzia jasoa gogora ekartzeko, behin baino gehiagotan entzunak edo ikusiak dituen gertaerak orainera ekarteko, sarri jotzen du honakoetara:

Nik *entzunda daukat* neska sorginduren bati juizioa egin eutsiela antxina han Salamancan edo.

Gauza jakina da *entzunda daukat* perifrasiak -edo ekialderagoko *entzuna dut*- aspektu markatuagoa ematen digula lehenean jazotakoari buruz, *entzun dut* eredu neutroaren ondoan. Laguntzaile iragangaitzaz ere berdin: *han egonda nago* ereduaren arabera. Txerria mazoaz jota hiltzeko ohitura ere bazela, honela kontatzen du Zestoako kontalari batek:

Ge(r)o mazeta hor gaiñian jota (e)re batzuk hiltze'zittuen. Jo ta kordia kendu. Neu (e)re *hilda n(ago)*.<sup>11</sup>

b) Iraganeko ohiturazko gertaerak espresatzeko *-ko* gerokoaz baliatzea ere ohikoa da. Erramu egunaren inguruko ohiturez diharduela lehenagoko oroitzapenak honetara dakartza gogora lekuko berak:

<sup>10</sup> Getaria: Arrainen mogimenduak. *EHHA. Antologia*, 62.

<sup>11</sup> Zestoa. Txerri-hiltzeko moduak. *EHHA. Antologia*, 60.

“Gure atte(k) beti Santa Krutzetan *ingo zittun* gurutzek ta soro bakoitzen makillekin bat *jartze zun*, urte guzi(r)ako”.

— *Mende-perpausen* arloan berdintsu: idatziz nekezago onartzen diren marka eta egitura asko testu mintzatuan aise erabiltzen dira, batez ere idazleak mailegu edo kalko kutsua hartzen dieten haiek, edozein mende-perpau mota dela ere.

Baina hizkuntza barruan garatu diren egiturak ere badira, eremu semantiko espeziifikoak betetzeko hizkera batzuetan sortu eta hedatu diren markak, baina beste batzuetan ez. Perpau konpletiboetan *-(e)la* marka orokorraren aldamenen garatu diren marka bereziagoena da diogunaren adigarri ona. Mendeko konpletibo tipo batzuetan *-(e)na* atzikia erabiltzea *-(e)la* erabili ordez fenomeno ezaguna da euskararen sartaldeko hizkeretan, batik bat bizkaieran, baina gipuzkeran ere oso barrena sartzen dena, eta nafar hizkera batzuetan ere ezaguna. Hara Urretxuko hizkeran, Santa Kruz apaizaren gaineko kontaeraren lekukoak esana:

Santa Kruz abadia Ipiñarrietan ixkuta. (...) Ba emen tzekien an ixtau *zana*, ta jun di(r)a.<sup>12</sup>

6. *Lexiko-semantika* alderdira jotzen badugu, hizkuntzaren beste esparru batzuetan baino aiseago eta gehixeago idoroko ditugu, idatzizko corpusetan bakan erregistratzen diren kontzeptuak eta hitz-formak. Besteak beste, gure literatura idatziak jorratu dituen eremu semantikoak askoz murriztagoak direlako, euskal hiztunen bizimoduari, historiari eta pentsaera-munduari dagozkienak baino.

Hitzen morfologiari gagozkiola, hitz-erroak eurak edo hitz-erro ezagunen eratorriak edo erro ezagun biren konbinazio edo konposaketaz eraikiak, “berri” edo ezezagun samar gertatzen zaizkigu maiz, idatzizkoan erreferentzia garbirik ez dutelako edo ez dutelakoan —lokuzioen eremuan hainbat ugariagoa da fenomeno hau—. Lexiko “berritasunok” agian artean jasorik daude hiztegi, glosario edo herriren bateko corpusen baten —guretan ia beti kontesturik gabe edo urriaz—, baina literatura mailan lekukotasunik ez edo bakan izan dutelako, ez dute itzalik egiten hizkuntza idatziari buruz. Zorionez, gure lexikografoei esker —hitzen bilketa izan baita tradizioz gure euskarafiloen afizio oparoenatarikoa—, idatziaz haratagoko hitz (euren aldaerekin) eta esapide

<sup>12</sup> Urretxu: Santa Kruz apaiza ihesi. *EHHA. Antologia*, 56.



asko jaso izan dira, eta ahalegin horri esker ageri dira OEH/DGV delakoan jasorik. Besteak beste, Mogel, Añibarro, J. Mateo Zabala, Izueta eta artera-gokoetara joan barik, hurbilagokoa dugu horretan gure erreferente nagusia: goian aipatuak diren R. M. Azkue —hiztegia eta *EY* bilduma ezinbesteko erreferentziak ditugu alde horretatik—, M. Harriet, P. Lhande, Placido Muxika, Justo M. Mokoroa eta Lino Akesolo, besteak beste, Euskaltzaindiaren ardurapean eta Mitxelenaren aitzindaritzaz abiatu zen orotariko hiztegi horretara arte.<sup>13</sup>

Literatura idatziak bere bidea egin du mendez mende eta belaunik belau, jakina denez, eta emeki-emeki idatziz erabili beharreko lexikoa ere hautatzen eta finkatzen joan da, errio, ibai eta erreketako urek harri koskorrak zein bere tankeran lantzen eta biribiltzen dituzten antzera.

Hitzen eta aldaeren hautatze-prozesu horretan, joera nagusia beti da tradizio idatzirik indartsuena edo aberatsena duten eremuetako erak nagusi irte-tea; hau da, haietako hitz-aukerak hobestea beste sinonimo batzuen ondoan, edo haietako aldaerak beste batzuetakoen aldean. Hala gertatu da gurean ere idazte eta literatura prozesuan. Baina alderdi makur bat ere badu joera horrek: galtzaile gertatzen direla, literatura apalagoa, ahulagoa izan duten eremuk. Labur esanda, erdiguneak atera dira irabazle eta bazterrak galtzaile. Liburu eta aldizkarien sorgune edo bilgune izan diren tokietako hizkerek garatze osasuntsuagoa ezagutu dute gainerako eremuen ondoan. Soro bazterretako artolandaerak ere endekatuagoak izaten baitira. Prozesu hori beti ez doa hiztun kopuruari atxikirik, prestigioari eta erabilera idatziaren bidez finkatu den tradizioari eta ohiturari baino.

Ahozko hizkeren ondareaz baliatzea diogunean, gure asmoa ez da inolaz ere joera unibertsal horri kontra erasotzea, ez galga jartzea. Bai ordea, nolabait elementu osagarriez aberastea, edo freskatzeko bideak irekitzea, hala gerta dadin; hizkera literarioari kolore eta konnotazio ugariagoak ematen bidea erraztu. Eta hori lexikografia alorrean.

Gorago esan bezala, euskal lexikografia-lanak, hasieratik gehiago, askoz obenduago egon dira ahozko erregistroak jasotzera, idatzizkoetan arakatzera baino, orohar; joera horrek ere bere akatsak baititu. Denbora oso modernoetan jo da idatzizko corpusen bilketa sistematikoak egitera, ooren buru delako *OEH* dugularik.

---

<sup>13</sup> Zerrenda hau, azken hamarkadetan, asko luza daiteke, dialektologia ikerketen kariatara herri anitzetan egin diren monografia-lanetara etorritz gero.

Ahozkoaren bidez jasoak izan dira, aldiz, ahalegin nagusiak, eta Larramendiz gerokoak bereziki; are gehiago Pirinioz beheitikoak.<sup>14</sup> Azkuek halako oreka antzeko bat bilatuko du bere *Dicc* nagusian, baina berezko jitek eroango du ahozkoari ardura handiagoa hartzera, alderdi horretatik hutsune handiagoa eta zer bildu gehiago ikusten zuelako, dudatzeke. Haren ondorik jardun duten hiztegi-gileek ere ahozko lexiko-ondareari buruz gehiago saiatu izan dira. Batetik tradizio bat egina zelako ildo horretan, eta bestetik, hor idoro uste zuten altxorra testu idatzietan aurki zitekeenik uste ez zutelako.<sup>15</sup> Azken hamarkada hauetan lan monografiko asko egin dira lurralde osoko bazter euskaldunetan, batez ere Euskal Filologia adarreko ikertzaile eta ikasleen aldetik, ondorenez aurretiko corpusak ugaritzera material asko bildu delarik, besteak beste lexikografia eremuan.<sup>16</sup>

Ahazkotasunaren iturria, izan ere, agortzen ez da erraza eta usterik gutxien denean beti ageri da, han ez bada hemen, ezusteko hitzik edo lokuziorik. Hitz-sarrera berriak, aurreko lexikografia-zerrendetan lekukotu gabekoak, ez dira agian ugariegiak izango, baldin mailegu-hitzak ez bada, eta batez ere aurrerakuntza modernoei atxikiak; maileguak beti susmopean egon baitira gure lexikografoentzat eta maiz saihetsean utzi dira. Baina ahozkoaren emaria urrunagora ailegatzen da; eta zenbat eta aztergai zehatzagoetara jo, hainbat eta ugariagoa da: lanbideak direla, jolasak, erritoak, usadioak... eta beste. Hitza bera ezaguna eta finkatua izan arren, aldaeraren bat azalduko da. Hitz horren esangura finkatuak hau eta bestea badira, hirugarren bat azalduko da, artean modu sistematzatuz jaso gabea. Eta urruntxoago bagoaz, hitz horrekin hiztunek eginiko eraikuntza finkoak, kolokazioak, lokuzioak... mundu ezezagunago batera eroango gaituzte oraindik. Lexikografiaren eremua —hain bizi izaki berez eta hiztun gizarteen ezpain mugikorretan— nekez eman daiteke agortutzat, beti hil ez bada hizkuntza bat; beti erregistratuko da berria edo artean egin gabea han edo hor.

Non dira bete edo hornitu beharreko hutsuneak, eta ahozkoak zertan lagun dezake horretan?

6.1. *Hitz eta morfologia* bakanak azaleratzen dira noizbehinka mintzaira bidez, eta batzuetan kontzeptu bana-banakoien adierazle direnak. *Pitz/pitza*

<sup>14</sup> J. A. Mogel, P. A. Añibarro eta J. M. Zabala bizkaitarrak horren lekuko garbiak ditugu, esaterako, ez bakarrik euren biltze-jardunean, baita metodologia horren argudiatzean ere.

<sup>15</sup> xx. mendean, Azkuek gero, etengabeko emaria dugu ahozkoan oinarritua: Lhande, Placido Muxika, Diccionario Retana, Justo M<sup>a</sup> Mokoroa... eta tokian tokiko bilduma monografikoetan, Toribio Etxebarria (Eibar), Candido Izagirre (Arantzazu-Oñati) eta ondoren etorriko den lerrokada luzea.

<sup>16</sup> Hauen zerrenda zehatzik egiteko asmorik ez dugu, nolnahi ere luzea irtengo bailuke.

hitzaren kasua da bat. *Pitzatu* aditza ezaguna den moduan, *pitz(a)* gutxi ageri da idatzizko corpusetan. Ahoz Ataunen aspaldi jaso zuen Gerard Bähr-ek Ataunen, Barandiarani bidali zion esaunda baten barruan:

“Eta esan zion txara (txaga) bat atarín zutik sartzêko, eta aren punta *pitzau* eta orrazik paratzeko. Eta zetorrenên esateko txaran puntan an zerela ta artu zitzela. Ta ala eaman zittûn. Txara ure bi *pitz* einda utzi emen zôn.” (*Eusko-Folklore. Mat. y Cuest.*, II, 828).

6.2. Hitzik ezagunenekin ere gertatzen da inoiz, euren inguruko esapide eta esanahiak, ahoz aitorten osoa dutenak, idatziz aitorten eskasarekin izatea. Adibidetzat jo dezagun *meza* hitza. *Meza* hitzaren ildoko konposatu, lokuzio eta eratorriak ugariak dira (cf. *OEH*, XII, 297-304). Hala ere, *mezadun* eta *mezadun izan* —bata eratorria, bestea aditz lokuzioa— hitzez informazio urria damaigute corpus-hiztegiek. Azkuek Plentzian jasoriko adiera, zehatzena: “asistir a funerales y encargar misa pro difunto” (*EY*, III, 294). Ildo beretik, *EHHA. Antologia*-n biltzen den Azkoitiko etnotestu batek argibide ugariagoak eskaintzen ditu *mezadun izan* aditz lokuzioaz; ez bakarrik esangura zehatzaz, baita hiletan inguruko errituez.

“Emen oitura aundixe zan (...) entierue da gaur. Zeiñena? Alakona, ta *mezadun gaure*. (...) *Mezadun gaure*. Mezia emateko obligazixuakin. (...) Da meza dirue ematen zeben ba, jeneral, familiartekuk, ‘*mezadun gatxebek* eta! Jun in berko diau entierroa, *mezadun gatxebek* eta!’, obligazixo bat bezala zan aure.” (*EHHA. O.E.M. Antologia*, 55. orr.).

6.3. *Hitz elkarketaren* eremua da ahozkotik idatzirakoan emankor gerta daitekeen bat. Hitz-elkarketa bideak, euskaraz ere, joera horretako beste hizkuntza batzuetan bezala, nekez agortzen dira, hizkuntza bera osasuntsu den neurrian behintzat. Eta gogoan ditudanak ez dira inola ere hitz elkartu finko ihartu edo erdi ihartuak. Lexikalizazio osora heldu gabeko *elkarketa libre* horiez ari naiz, hiztunak —berezko euskara sendoa duen hiztuna, esan nahi dut— hitz jarioan, berba ekarrian modu automatikoz sortzen dituen horiez ari naiz. Hitzaren elkarketarako sistema, batez ere izen, aditza eta partizipioena, indarrean eta bizirik dago. Ahozkoan gehiago, agian, hiztun onen kasuan: hizkera emankorra gertatzen da, sistemak zilegi egiten duen neurrian, marka gabeko izen kateen sorkuntzan. Eta emankor izate horri sorkuntza ahalmena gehituko nioke nik. Analogiarako joerak eta mundu figuratiboak paper trinkoa jokatzen dute honetan. Ondorioz, ahozko erregistroak laguntza estimagarria eman dezake holakoak bilatu eta katalogatzen, hiztegi corpusetara eroanez.

— /Izen + Izen/ egitura dugu emankorrena duda barik. Batzuetan konposatuok eginagoak dira, finkoagoak; beste batzuetan kontestuaren arabera hitzunik automatikoki sortzen dakizkienak. Eguraldiaren eremukoa dugu ondokoa: *harri-erauntsia hasi* “comenzar a caer el pedrisco” (*Eusko Folklore* II, 762), itxura baten konposatu guztiz finkatua.

Laminen mundu mitologikoaren erakusgarri den esaunda baten, ondoko mehatxuzko errezitatu pareatua zuzentzen dio, maingire edo izara ostu dion Gorozikako Munagurengo etxeoandreaki: *Munagurengo atso banderea / Ekarri egidana nire ondra-izarea*. Formula egina herri-literaturan, atsoitz baten antzera, esan dezagun. Lehen elkarketa-eredua /Izen + Adjektibo/ ereduokoa dugu: *atso bandera*, hitz gaitzesgarri biz osatua: *atso* deitzen dio etxeoandreaki eta *bandera* kalifikatiboa eransten dio. Gaur ere ahozkoan, emakume fardel oldarkorrei buruzko ezaguna den formula. Bigarren elkarketa-eredua /Izen + Izen/ ereduokoa, finkatua da: *ondra-izara*. Beste leku batzuetan *anda-izara* edo beste aukeraren bat duena; beti ere konposizioaren lehen osagaia aldatzen dela.

— Har dezagun *zorri* hitza, lehen adieran gazt. ‘piojo’ zomorro tipia adierazten duen izena, baina kualitate hedapenez adjektibo legez ere adierazkortasun handiko esangura-eremua duena —beste abere-piztia asko ere giza-kualitate adierazle izaten baitira hizkera arruntean—<sup>17</sup> ‘tipi, erkin, ezerez’ zentzua adierazteko, eta gaitzespen kutsu batez gainera. *Zorri hil biztuak* diren antzera, *aberats zorriak* ere sortu dira, eta bide beretsutik *ume zorri bat* edo *etxe zorri bat* garatu ditu. Ildo beretik garatu dira /Iz + Adj/ egiturako konposatuak, hala nola *lapazorri* (E.Barrutia, J. Enzunza 142), itsasaldean ‘lapa txikia’, beste konposatu askoz ezagunago batzuekin batera.

— Elkarketa-eredu berekoak ditugu /aho + adj/ eraikuntzak ere, herri-hizkeran katenbegi batzuk badituena: *ahozabal* eta *ahobero* (gehiegi, neurritz gora hitz egiten duena), *ahozikin* eta *ahobeltz* (gaizki, deungaro hitz egiten duena) —bigarrena ez hain hedatua—, *ahozuri* (lausengari) eta beste. *Aho* hitz berorrez eihoriko hitz-segida dugu *ahotik hortzera (esan)* (*Sakana*, 322) ere, *hitzetik hortzera* lokuzioaren anaia bikia —hau askoz ere finkatuagoa bada ere idatziz—.

— Bada beste eredu bat, *ate-joka* edo *gari-jotzen* erakoena, /Izen + Aditzizen/ egiturakoa, idatziz baino askoz emankorrago gertatzen dena maila min-

<sup>17</sup> Animalien esparruko bat edo beste aipatzeko: *azeria / lukia* (maltzurra), *otsoa* (jatuna), *txakurra* (gaizto traidorea), *satorra* (azpitik jokatzen duena), *sapoa*, *txerria*, *lupua*, *ganbelua*, *arraina*...

tzatuan, hiltun onen erreperitorioa biltzen badugu. Idatziz beti ere gramatika purura jotzen baitugu, *garia jotzen* formulatzera egiten dute idazlerik gehienek, hiltunek berezkoa duten labur beharrezko joerak konposizio-egituretara duten jitarene kontra. Barandiaranek jasoriko lamina-ipuinetarik jaso ditugu bi:

(a) “Gabien lamiña etorri *ate-joten*, eta andriek bildurrez onien emon bier bentanatik” (Eusko Folklore II, 748).

(b) “Usansoloko auzo baten ebiltzen ei zien lamiñak *erropa garbituten* kante-tan” (Eusko Folklore II, 746).

— Hiru osagaiko elkarketak ere maiz antzematen dira ahozkoan, idatziz erlazio-markak erabiltzeko joera dugun kasuetan ere. Erreparatu, adibidez, Ezkio-Itsasoko lekuko bati etxegintzaren inguruan jasoriko honi:

“argiñek a(r)i di(r)en denboran, beste a(r)otz mordo bat eoten da etxe ortaako egurre, zurajerie, egurre preparatzen, eta baita itzaiek e(re) *egur trongo karreoan*”. (Ezkio-Itsaso. Etxegintza. EHHA. Antologia, 59).

6.4. *Eratopen* eta *Postposizioen* eremuan ere badira erabilera ohargarriak. Euskara bezalako hizkuntza atzekarrietan baliakizun emankorra ohi da atzizki eta postposizio bidezko hitz-sorkuntza, eta arlo horretantxe gertatzen dira hizkera mailan, idatzian mehatz ageri diren edota idatzira nekezago erroten diren egiturak. Hiltunak, batez ere analogiak eskaintzen dituen errazbideak baliatuz, malgutasunez eta irudimenez jokatzen daki maiz, hizkuntzari ustiakuntza berriak irekitzeko.

6.4.1. Aurizki gutxi dugun arren, *ez* negazio-marka eta *des-* mailegu-aurrizkia ditugu euskarazko hitz-sorkuntzan ekarkor azaldu direnak, nahiz literatura-corpusetan emankortasun horrek ber neurririk hartu ez.

*Des-* horren zerrendan, liteatura-isladarik ez edo gutxi duten eratorrien artean aipa daitezke *deskonortatu*<sup>18</sup>, *despuztu*<sup>19</sup> edo *destaiuan*<sup>20</sup>. Eta *ez-*

<sup>18</sup> Añibarrok (*Voces*) “quedar sin sentido” esamoldearen euskarazko ordezkoen artean *deskonortadu* jaso zuen, *konorte bago geratu* eta antzekoekin batera, eta gaur egun ere ezaguna da gutxienez *deskonortauta egon*, “estar destemplado” zentzu figuratiboaz. (Morgan hala darabilgu, gutxienez).

<sup>19</sup> Bizkaiko Meñakan jasoriko hitz arrunta, ‘putza galdu, *desinflarse*’ adierazteko.

<sup>20</sup> *Destaiuan* (edo *destajuan*), *abasberuan* sinonimo duela ageri da sartaldeko klasiko bazu-tzetan (Frai Bartolome, Pedro Astarloa), eta *albastoan* duela J. M. Zabalaren sermoietan.

horrekikoetan: *eze(d)uki*<sup>21</sup>, *ezleku*<sup>22</sup> edo *ezamarren* gogora ditzakegu. *Ezamarrena*, *hamarrena* (diezmo) zerga zaharraren antonimo modukoa da, Joxe Migel Barandiaranek mitologia-ipuinetariko baten jaso duena:

“Lamiñek, *ez-amarrenakaz* bixiten ziriala esakerea da. *Ez-amarrena*, amarrenak egon ta eztagozala esatia da” (*Eusko-Folklore, Mater. y Cuestion.*, II, 734).

#### 6.4.2. Eratorpen-atzizkietako adigarri bat edo beste ere jasoko ditugu.

— Mailegu-jatorrikoen, eta berariaz erromantzetikoen kasu bat edo bi hartuko ditugu aipuan. Bata, *-ero/-eru*, herri-hizkeran emankor eta indartsu ageri dena, baina idatz-ereduan bide hertsia goa ohi duena, idazleek galbahe zarratu-trinkoagoa darabiltelako susmopeko eratorri bidea baimendu orduan, maiz eragotzia izaten baitute. Lanbide eremuan, arrantzuaren, *ezaguna* da *lebatzeru* (*Plentzia*, 143), ‘legatsetan dabilen ontzia’, nahiz gure hiztegiaren nekez ageri den. Beste eratorri askotan gertatzen den legez, *lebatz/legatz* izen zaharraren gainean eraikia da *-eru/-ero* ofizio-atzizkia. Izenondo eremuan ere *gezurtero* eta ildokoak badira.

Hor dugu ere *-(k)azo* ere, eskualde batzuetan *-kada* atzizkiaren zentzu-eremu berean jokatzeko duena, ‘golpe, takada’ adieraz. Hala: *adarkazo* dugu *adarkada* adierazteko, *aitzurkazo*, *aitzurkada*-ren lekuan, edo *aizkorazo*, *aizkorakada*-ren ordean (*Sakana*, 4, 10, 11), Zeberio aldean ere *atxurkazu*, *atxurkazue*. Hauetarikoak apal ageri dira idatziz, are gutxiago erdal sunda hori aldean izanda, baina hala ere herri-literatura deritzagun genero apal horretan bai noiz edo noiz<sup>23</sup>. Ezin ukatu ostera, esangura aldetik konnotazio bitxia eransten diola holako mailegu-atzizki batek erro-hitzak adierazitako lanabesaz ematen den kolpe edo takada horri.

---

Arterago Añibarrok jaso zuen *VocesBase* bilduman. Eta kontua da gaur Ibarrangelun Domingo Zuluagak erregistratua: “*Destaiuan* dabil berbetan (sin ton ni son, sin tener conocimiento)” (*Ibarrangelu*, 244).

<sup>21</sup> *Eze(d)ukia* izenondo modura entzuten da batez ere gaur egun, *e(d)ukitsu* edo *aberatsa* denaren antonimo legez. Baina izen kategoriaz, ‘eztasuna, txirotasuna’ esanguraz ere lekukotua dago: “Zein beste erara aurkituten dan Gaztela, zorigaistoko ta *ezeukira* biurtuba” (*Bizkaiko Batzar Nagusiak*, 1854. J. A. Uriarteren itzulpena).

<sup>22</sup> *Ezleku*, ‘bere lekutik kanpora, leku desegokian’ dagoenean zerbait, *ezlekuan* dagoela esan ohi da. Corpusetan ugarixeago lekukotua beste honetariko batzuk baino. cfr. *OEHI/DGV*.

<sup>23</sup> Antonio Zabalak aterariko *Euskal jokoak bertsotan* (II) liburuan lekukotua (Donostia, 1984).

Har dezagun *-ante* atzizkia. Atzizki hori mailegu oso diren *estudiante tunante* bezalako segida finkotetan guztiz ezagun egin denez, batez ere *Salaman-kara* kantuaren bidez, beste herri-hizkerako eratorri batzuetan ere badirau. Mogelen *Peru Abarka*-ko erabilera aipatuko dut anekdota gisa, hark ere hizkera jaso eta herrikoaren arteko tirabira barruan sentitu baitzuen. Gaitzesgarri zen Mogel ikasiarentzat atzizki hori, erdal usain argia medio zela, jakina. Horregatik *irakurlari* hobetsiko du Peru nekazariaren ezpainetan ezarriaz, hiztunen artean erabilia zatekeen *irakurlante* baztertzeko. Hitz hau Juan barberu kaletarraren ahoan ipiniko du (*PAb* 33)<sup>24</sup>, baina askoz aurrerago (*PAb* 100) ohartzeko —edo agian ohartuta—, Peru herri-hizkeraren eredu garbiaren ahotan berriro: herri-hizkeran ezagun-erabilia zen seinalea.

— Har dezagun *-tza* atzizkia, besteak beste ugaritasun edo multzotasun balioa ohi duena *basatza*, *elurtzaledurtza* legezko eratorrietan. Baina hiztunak, adierazkortasun-indarraren premian denean, tradizioak nekez on egiten dituen eratorriak ere garatzen badaki. Hala sortzen dira *urtzak*, uholde baten ondorioz bideetan gerta daitezkeenak. Edo *haizetza*, haize zakar-bortitza egoki adieraz dezakeena, nahiz gure idatzi eta hiztegieta aztarren gutxi idoro eratorri horrek; *haizete*-k baino gutxiago nolana ere.

— Eratorpenekotzat ditugun atzizkiak badira, lexiko-sorkuntzaz haratago gramatika mailan, edo syntaxian, eginkizun zuzena hartzen dutenak, hizkuntza mintzatu idatzizko eruedetatik urrunago garatu direlako.

Har dezagun *-lel-ile* atzizkia aditz zaharren erroen gainean. *Joaille* izenak ipar hizkeretan *joaiten den* erlatibo perpausaren kideko gramatika du<sup>25</sup>. Sartaldeko tradizio idatzian nekez dakusagu halakorik. Baina Markinan, *-taille-tzaille* atzizkiekin antzeko egiturak jasoak ditu ahozkotik J. Kalzakortak. Hala: *hori mezetara jutaille izen da (mezatara joatailea)* edo: *bere buru zaintzaillie da hori*, edo: *ez da bere gauzak esataillie* (bere gauzak esaten dituen).<sup>26</sup>

Har dezagun *-ginen* ekintzazko atzizki adberbiala. Idatzizko corpusa ez da horren ugaria. Errefrau zaharretan bada Garibairen bat: *Nok bere gogoaz*

<sup>24</sup> Ikus *Peru Abarka*-n: *Peru*: “Eta dinozu gero *irakurlari* ederra zariala?” (ms 21). *Maixu Juan*: “Nik ezin dot *irakurlante* andija izanda bere” (ms 33).

<sup>25</sup> Hala *Intxauspeko alaba dendaria* kantuaren 1. ahapaldiko 2. lerroan esaten da: *goizian goiz josterat joailia*. Edo: *uso airean joiale propio*. (J.K.?)

<sup>26</sup> Jabier Kalzakortarengandik jasoriko lekukotasunak. Hark bere amari eta haren lagunei batuak. Gramatika hori adin batetik gorako markinarretan oraindino ere indarrean dagoen ezaugarri.

*etsaginen* (B 33) edo Barrutiaren beste hau: *Beti zaode, Jauna, faboreginen* (Acto 15). Baina mintzairan, sartaldeko eskualde batzuetan berariaz, atzizki gramatikalak bezain emankor nabari da batzuetan. Mendaron jasoriko ipuin batean, sorgin bategatik esaten da: *Baña erroskilla inen da biskotxo inen earki sakixan arek* (EHHA, *Antologia*, 53)<sup>27</sup>.

Ildo beretsutik garatuak dira: *belarriak apalik (joan da)* erakoak ere.

6.5. *Fraseologia* alorrean murgiltzen bagara, gure lexikografiak oraintsura arte gutxi landuriko eremu agorrezina topatuko dugu, lehen aipatu hitz-kolokazio eta lokuzioen sailean bereziki. Horretan ditugu oraindino hutsunerik agerienak, azken aldion monografia-lan eroapentsu, zehatz eta metodologia ziurragokoen bidez, eta informatzaile fidagarrien laguntzaz, hornitzen doazenak apur-apurka.

Lexikografia sail horretako zenbait ertz aipatuko ditugu, ikuspegi ezberdinetatik, horretarako etnotestu, lexiko-bilduma edota osterantzeko ahozko hizkera erregistroak aztergaitzat darabiltzadala. Behinola Mogelek Peru Abarka euskara-maisu hautatu zuen modura, aipatu lanotara joko dugu guk ere emari bila; eskola gutxiko eta euskara oneko informatzaileak izango ditugu bide-erakusle.

Beizamako lekuko batek bere osabaren Erromara bidaia kontatzean bi-hiru aldiz darabilen esapide bat, han inor ez zuela ezagutzen adierazteko, hau da: *ezaunik inor etzun / ezaunik inor ez / jesuita bat bertatik jundakua, ezauna zuna*.<sup>28</sup> Egitura diferenteak dira hizkuntza barruan kontzeptu hori adierazteko, baina adierazgarria da guztiz, hiztun horrek lau aldiz beti egitura berbera erabiltzea. Nolanahi ere, kalkoa izatetik urrunago, edo inguru-gaztelaniatik aldenduago, gaur idatziz gehienok darabilguna baino.

Kontaera bereborean isuri duen beste esaldi bat: *Andik aurre(r)a ez emen tzun inon bearrik izan*. Ez baita gauza bera, matiz zeheetan sartuz gero, *ez dut inor behar* edo *ez dut inoren beharrik*.

*Lokuzioak*, esamoldeen barietatea eta ugaritasuna da ahozko generoen beste ezaugarri agerienetako bat. Gure hiztegi eta corpusetan asko eta asko jasorik daude, eta idatziz heldu zaizkigunetariko asko *DGV-EHO* bilduman ageri dira. Justo Maria Mokoroa izan zen, besteak beste, gudu aurretxoko al-dian jada, hizkuntza baten barruko sena, hizkuntzaren berezko jitea bere

<sup>27</sup> EHHA (1999): *EHHA. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*. Euskaltzaindia, Bilbao.

<sup>28</sup> Beizama: Euskaldun baten komeriak Erroman. *EHHA. Antologia*, 63.



esaseretan, esamoldeetan zela ezagun azpimarratu zuena; *Genio y Lengua* saioan garandu zituen bere intuizio-aburuak, eta gerraoste luze ilunean eroapen handiz eta ekin etengabe osatu zuen *Repertorio de Locuciones* (1990). *Ortik eta emendik* bilduman benetako bihurtu zituen bere aburuok. Eta bide bertsutik ekin diote aspaldion beste batzuek, hiztegegileak eurak ere barne direla.<sup>29</sup>

Ahozko erregistroetan lokuzioak aurkitzeak ez du corpus baten sailkaturik idorotzearen balio bera. Kontaera barruan txertaturik ageri izanak plus balioa du berekin. Ahozko jarioak horretan ere abantaila du, endemas hiztun on-seguru baten ezpainei darienean.

Adibide gutxi batzuk diogunaren argigarritzat:

— *Inon diren(ak)* aditz erlatibo egitura, hizketa jarioan, ‘asko, ugari, sekulako pila’ adieraz erabiltzen da adierazkortasun-gradu handia eman nahi zaionean, osterantzeko adjektibo edo zenbatzaile neutroago bat erabili ordez. Hala: *Kontuak atera egizuz zelango tertuliak armetan ziran hainbesteren artean, eta gero (...)* iñon diran *kontuak eta kontetan ziran, sorginenak edo lamiñenak edo dana dalakoarenak* (Gorbeie, 299).

— *Inori ikutu*, edo *ikuturik egin ez*, gazt. ‘meterse con alguien’ adierazteko. Emazte jada gogaitu batek esaten zion behin bere senar, hari ekiten gelditu barik ziharduenari: *Horrek aguantau niri ikutu barik? Bai zera!* Baina ipuin-kontatzaile busturiar gernikartu bati Aita Villasantek jasoriko batean, laminen izaera zela-ta, ipuin-amaiera hau entzun zion: *(Lamiñek) Iñok eureri ikutu ezik ezetan, ez eben kalterik egiten.* (*Eusko Folklore* II, 748). Idatzizko sorkuntzan mehatzago ageri ohi dira honetarikoak, zertan esanik ez.

— Etxalarko kontalari bati entzuniko istorioan, “Ardi bila joan eta bidean lo gelditu” delakoan, honako aditz perifrasiak darabiltza. Bata, *loakin gaintu*, ‘lo gogorrak hartu’; duda gabe, inguru horretako hizkeran ohikoa, baina idatzizko corpusetan bakan samarra. Berdin beste hau: *errista eman*, ‘agiraka egin’: *Etzazula, Antonio, etzazula erristik eman semeari, zure semea agitz nekatua dabila eta loakin gaintu du, eta ez da deus ere.*

— “Ikaraz | beldur handiaz egon” adierazteko lokuzio mordoia dira. *Lau dardan egon* edo *laborrian* | *lau orrian* egon. Zegaman *lau gorrian* era dugu:

<sup>29</sup> Espreski aipatu nahi nituzke mendebal hizkeretarako eredugarri gertatu diren lan bi: aspalditxoko Toribio Etxebarriaren *El Lexicón eibarrés* (*Euskera*, 1965-66) eta oraintsuagoko *Labayru Hiztegia* (Bilbao 2003), herri-esapideen aldeko ahalegin berezi bezala.

“Jangoikoa, bota jende oni inpernusko sue!. San Martiñek txingar danak batea bota zitun zuloti. Elizan jendea *lau gorrin tzeon*” (*Zegamako euskara*, 136).<sup>30</sup>

6.6. *Atsotitz-errefrauen* eremua ere aipatu barik ez nuke utzi nahi. Mintzairari, ahozko tradizioari bete-betea atxikia den literatura-generoa. Idatzizko bildumek zerrenda aberatsa osatzen dute, hasi zaharrenetarik, idazle klasikoenetatik eta batez ere, Azkueren ondorik, xx. mendetik honunzkoek. Bilduma luzeak izendatuak badira ere, zerrenda mugatuak ugariak, lantzean herri, eskualde edo gune baten jasoak. Idatziz guganatu badira ere, ahoz entzunenatetik transkribatuak ohi dira ia beti. Ahaztu gabe, badirela beste hizkuntza batzuetakoen itzulpen edo egokitzenak.

Baina ezin ukatu hitzezko jardunean ohi duela errefraua bere kontestu naturala. Arrazoi, argudio edo iritzi bat on egiteko edo sendotzeko, errefraua jotzen du maiz hiztunak. Atsotitzak berbazko argumentazio baten barruan ohi du bere lekua, eraztunak erian bezala. Eta ahozko generoari dagokionez, etengabe biziberritzen ari den generoa da; batzuk betiko galtzen, beste batzuk sortzen, eta gehiengotan aldatzen eta giro berrietara egokitzen edo leku bateko hizkerara moldatzen.

Euskal errefrau erabilirik gehien-gehienak bilduma-zerrendaren baten jasorik aurki badaitezke ere, ahozko erregistroan beti ohi dira nobedadeak, berrikuntzak; gutxi batzuetan kontzeptu edo ideiarenean aldetik, sarriagotan aldaeraren edo hizkeraren aldetik.

Etxalarko lekuko bati jasoriko *istorio txiki* batetik hautatua dugu ondoko pasarte<sup>31</sup>:

“Egunez nekatua ibiltzen nintzen eta jetsitzeko faltak [ardiak] utzitzen nintzen egunean, biharamun goizean izeba hasitzen zitzaizkidan ohiuka: ‘Jabier, joan hadi jeistera’ eta ni, puf! pereza eta... Ez lehenbizikoan, ez bigarrenean eta kasi hirugarrenean ere ez nintzen jeikitzen. Eta hartua nuen boz bat, oldarkor erraiten zuen: ‘Ai Jabier, Jabier! *Bertzearen buztanarekin eulia kendu behar duenak, maiz euliekin egon beharko du*’. Hura aditzearekin jeiki eta martxa!”

7. Arlo semantikoa aipatuz amaitu nahi nuke. Joera jakina da hizkuntzan, bai hiztunetan, bai eredu jasoan, polisemiatik alde egitekoa, eta ahal dela, hitz bakoitzak esangura nagusi bat izatea, besteak erdi-izkutatzen direla; edota alderantziz, esangura zehatz baterako hitz bat hobestea, gainerakoak bazterretsiz.

<sup>30</sup> Azurmendi, Joxe Migel (1998). *Zegamako euskara*, Lazkao. VII. Gerriko ikerlan-sariketa.

<sup>31</sup> Euskaltzaindiaren ATHC egitasmoko Corpusetik hautaturiko txatala. Etxalarko lekuko. Biltzailea: Aritz Abaroa.

— *Irakurri* hitzaren aritik abiatuko naiz. Herri-hizkeran nork ez ditu ezagun *leitulleidu* aldaerak? *Irakurri* garbiagoak hartu dio, halabeharrez, leku guztia aurrekoari. Eta alderantziz, idatziz aditz honen erabilera izkribuei loturik dago, eta ez ahozko tradizioz oso hedaturik dagoen ‘aletu, garandu, ‘desgranar’ adierari, nahiz hegoaldeko euskalki guztietan ondo lekukotua izan balio hori: *gaztainak iakurri* (Altsasu), *liñaberia euzkitan irakurten* (Arantzazu-Oinati). Mogelek Peru Abarkaren berba-jardunen hitzaurrean irudimen handiz elkarkidetzen ditu adiera biok, nahiz etimologia kontuan ustel egin:

“Asi, *Eracurri*, significa, *urritu eraguin*; y el que lee va disminuyendo, o desgranando las letras. Se dice *artaburubac iracurri*, o *garandu*; y los bascongados lo han aplicado a la lectura.” (*Prol PerAb*, XXXI).

— *Erantsi / eratsi* aditzak lexiko-testuetan ohi duen adiera nagusia ‘adherir, unirse’ zentzu orokorra da. Beste hitz askotan bezala, batez ere ahozkoan —edo bateko edo besteko lekuan ere esan nezake— adiera bereziak hartzen dituzte, tradizio literarioan bakan ageri direnak, baina aldi berean guztiz ustiagarri lireratekeenak, era ona etorritz gero. *Era(n)tsia* beste leku batzuetan maileguz ere adierazten da: hainbat *etxera inkaua*, *arrimaua* (inkatua, arrimatua), odolekoa ez dena, etxeko seme edo alabarekin etxera ezkondua. Lamina-ipuina batean, orrazia ostu diotenaren horretan, zemaia honela zuzentzen dio laminak etxeko andre erantsiari: *Intxusko eratsiye / Ekazu neure orraziye / Ezpabere kenduko tsut / Kortako bei nagosiye* (Bermeo. *Eusko Folklore* II, 751).

— Har dezagun *ezbai* hitza. Tradizio idatzian, seguruen, ‘duda’ adiera izango da nagusi. Baina bizkaieraren sartaldean badu ‘eztabaida, tema, ikamika’ adiera ere, *Lab* hiztegiak 2. adiera legez jasorik dakarrena. Baina auzi edo pleitu gai-eremuan ezaguna da adiera hori: “*lehenago be Zeberion jente inportantea egongo zan, araña joateko juizioa egiten edo ezbaiari indarra emoten!*” (*Gorbeie*, 300). *Ezbaiari indarra eman*, hori da hitzaren ingurune zehatza hor, gazt. ‘avivar, incentivar el pleito’.

— Itsas arrantzaren alorra har dezagun. Euskal hiztunek tradizioz euskaraz ezagutu duten lanbide horretan hitz berezi bitxiak badira, proiektzio zabalagoa merezi luketenak.

*Troinu*, ‘korapilo, marapilo’ adierazteko, Uribe-kostaldean arrunta den hitza, bai itsas, baina nekazal, bai osteango jardunbideetan, eta guztiz ezezaguna adiera horrekin beste leku gehienetan. Interes aparta du, besteak beste, berez *tornu* mailegu ezagunagoaren aldaera delako, Detxeparek euskararen kantuan darabilen *thornuia* berbera sakonean, baina batez ere Mikoleta bilbo-

tarrak dakarren esangura beragaz dirauelako gaur ere, itxura-aldatzea gorabehera: “Nudo, *tornua*” (Mic 8r.).

*Uri* hitza Uribe-kostan bildurik ageri da, itsas portuko edo itsas inguruko sakonera adierazteko, gazt. ‘calado’.<sup>32</sup>

— Atal apartekoa eskatuko luke mailegu-hitzen fenomenoak, ahozkotasunaz dihardugula. Gorago ere zenbait puntutan aipatu dugu. Joera orokorra da, eta aldioro arrapizten dena Pirinioz beheko euskal literaturan —eta Ifarraldekoan ere bai, batez ere xx. mendez geroz— hitz garbien hautua, maileguzkoen kaltetan. Larramendi eta ondokoetan sustrai zaharrak dituen fenomenoak dugu hori, bereziki literatura landuan —edo jaikian esango ahal dugu!— errotua.

Ahozko baliabideen ekarria hemen ere, lexiko objektibo eta neutroan baino gehiago, konnotazio bereziz markaturiko hitzetan bilatu behar da. *Lastima gorria!* zerez ordezkia genezake? Edo Sakana aldean jasoriko *Lastima ez dek burube bertan hausten!* (Ojala...!) (*Sakana*, 188).

— Aditz kategoriako hitz batzuk ere aipatu nahi ditut.

Batetik, hitz maileguzkoak: agian mailegu izateagatik, agian hedadura urrikoak izateagatik —eta seguru, idazleek susmopean hartu izan dituztelako— literatura munduan bazter gertatu dira hauetarikoak, beste hitz-kategoria batzuetakoak bezala.

Bizkai sartaldean guztiz hedaturik dago *koiu* edo *koxi* aditza —gatzelania-ko partizipiotik beregandua, *kojidu*—. Herri-tradizioaz landa arrakasta murritza eduki du testuetan, nahiz eremu semantiko bereziak izan *hartu*, *arrapatu* eta *koiu* aditzek maiz.<sup>33</sup>

8. Ondorio arin batzuk, ahozko produkzio hautatuen bilketak egiten ekitearen alde.

Orain arte biltze aldera egin dena gutxi ez izanik ere, gaur egungo ahalbide teknikoek lehen baino askoz gehiago errazten dute biltze-lana: baldintza onetan eta kalitate hobez egin daiteke lehengo aldietan baino.

<sup>32</sup> Janire Enzunza (2008): *Plentziako portua. Arrantzaleen euskararen ikerketa etno-lexikoa*. Tesina. Deustuko Unibertsitatean 2008ko irailean aurkeztua.

<sup>33</sup> Errefrau ezaguna da Txorierri aldean ondokoa: “Derio, Zamudio, Sondike ta Loiu, asko erein da gitxi *koiu*”. Azkuek *Eusk. Yakintza*-n, 1514. zenbakiaz beste era bi hauetara dakarrena: “Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, arto erein ta gari *koiu*” eta “Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, ahaleginak egin arren, arto gitxi *koiu*”.

Ditugun aukera berriok batetik, eta dugun hizkuntzaren gizarte-egoera kontuan izanik, seinale garbiak daude asko eta gehiago aldatzen joango dela aurrerantzean, eta denbora galtzen utzi barik, geure ahozko ondarea hazten eta mardultzen eroan behar dela garbi ikusten dugu.

a) Ahozko hizkera belaunez belaun asko aldatzen ari dela, hizkuntza egonkor eta sendoetan ohi den baino askoz abiada handiagoz; belaunaldi-aldatzeaz tokian tokiko hizkerak ere aldaera nabariak jasaten dituztela, eta hainbat kasutan galtze-, endekatze- edo pobretze prozesu garbian daudela.

b) Sokorru larririk jotzeko asmo barik ere baina, ahozko hizkuntza produkzioak, ahozko testuak biltzen jarraitzea guztiz komenigarri dela, —premia biziko ere esan nezake—, baldin langintza hori baldintza egokiz egiten bada: informatzaile egoki eta kualifikatuak batetik; euskalki eta hizkera guzti-etakoak modu orekatsuan ahal dela; galde-sorta berezi, kasuan kasurako antolatua erabiliz, eta bitarteko tekniko aurreratuenak eskuan direla.

c) Bildu corpus horiek erabilgarri gertatuko diren eran sailkatu eta katalogatu behar direla, horretara euskal hizkuntza ondare sendoago baten jabe izan dadin. Katalogatze-jardunean testu-unitateak interesaren arabera markatu behar direla ere.

d) Interesik gehieneko testu-atalak transkribaturik edukitzera jo behar dela, horretara ondoren datozkeen era guztietako ikerkuntzetara bidea errazturik gerta dadin.

e) Material horren ustiakuntza alderdi askotatik egin daiteke, baina ez gutxien lexikografiatik, gramatika eta morfosintaxiaren aldetik, estilo-baliabide diferenteen aldetik, edo urrunago jota, etnografia, historia edo beste ikas adar batzuetatik.

Esan dut. Eskerrik asko.

## **Bibliografia**

EHHA, 1999, *EHHA. Obiko euskal mintzamoldeen antologia*. Bilbao, Euskaltzaindia.

Etxebarria, J. M., 1995, *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*. Bilbao, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa.

*Eusko-Folklore. Materiales y Cuestionarios / José Miguel de Barandiaran. I, II* liburukiak. Colección Sara, 7. Ataun, Barandiaran Fundazioa, 2006.

Gerrenabarrena, M. & Kamiruaga, A., 2008: *Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak*. Laratz, Labayru Ikastegia. Bilbao.

Urrutia, A. (zuz.), 2003, *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877: euskarazko testuen bilduma eta azterketa*. Bilbo, Bizkaiko Batzar Nagusiak.



# Euskaltzaindia: “Etxeberri Egitasmoa (EHS)” Euskararen historia sozialerako proiektua

JOSEBA INTXAUSTI, MIKEL ZALBIDE eta NIKOLAS GARDNER

Euskaltzaindia

Eskuartearen dugun eta abiarazten ari garen “Etxeberri Egitasmoa” aurkezteko eskatu digute Biltzar honetako antolatzaileek<sup>1</sup>. Zeregin honetan gabiltzanonez izenean eskerrak eman behar dizkiet arduradunei aukera hau eskaini digutelako. Mahaian gauden hiru lagunon artean aurkeztuko dizuegu Proiektuaren asmoa bere orokorrean ez ezik azken urte eta erdian egin ditugun lan funtsezkoenak ere aipatuz.

Lehenik, neure egitekoa izango da Euskararen Historia Sozialerako abian den egitasmoa bere lerro nagusietan aurkeztea; ondoren, Mikel Zalbide euskaltzain eta Egitasmoko aholkulariak emango digu Metodologia-Ereduaren berri, hain zuzen Egitasmoan sortu nahi diren materialen Ereduarena (oraingoz probatan duguna); Zalbide jauna izan da hautatutako bidea proposatu diguna, eta berarekin dihardugu besteok, Eredua osatu eta hobetzen. Eredu horrek edukien gardentasun soziolinguistikoa, fidagarritasun historikoa eta iker-erabilgarritasuna segurtatu nahi ditu; ildo beretik, Nikolas Gardner gure teknikaria arduratu da eredu horri euskarri egokia emateaz. Gardner jaunak emango digu berorren berri.

Eta natorren nirera.

## 1. *Etxeberri* Egitasmoaren xede eta ezaugarriak

### 1.1. Zer eta zertarako da Euskaltzaindiaren “Etxeberri Egitasmoa”

Etxalarko barne-biltzarrean, 2007ko apirilaren 21ean eman zuen ontzat Euskaltzaindiak Egitasmo hau, berehalako bi urteetan abiarazi zedin eta or-

---

<sup>1</sup> Sarako Joanes Etxeberri (1668-1749) euskal idazlearen oroimenez eman diogu izen hau Egitasmoari (ik. *Euskerak*. 52, 2007-1, 240).



duan onartutako lanak buru genitzan. Harez gero horretan dihardugu Mikel Zalbide, N. Gardner eta hirurok. Aurrerago esango dut Egitasmoak udazken honetatik aurrera zein lan-antolamendu izango duen.

Proiektuaren nondik norakoak eta zertzeladak (hasiera hartan zehatz zitezkeen neurrian, noski) Egitasmo-aurreko txostenean azalduta daude, eta Akademiaren *Euskera* aldizkarian daude argitara emanda<sup>2</sup>. Ez naiz han esandakoak errepikatzen hasiko, baina esandakoa gogoan dudala eta hangoa osatuz, gaurko goeratik hitz egingo dut.

Euskaltzaindiaren lanetan beti egon da bizirik euskararen iragan soziala ezagutzeko grina, eta hainbat euskaltzainen idazlanek ongi erakusten dute hori. Ez da falta izan, gainera, *Euskararen liburu zuria* bezalakorik, hats handiagoko ahalegin instituzionalen bat edo beste. Hori horrela, hala ere hizkuntzaren gizarteko bizitzaz ez da egon iker-plangintza orokor eta jarraiturik. Hutsune horixe da, bada, oraingo honek bete nahiko lukeena.

Egitasmoak Euskaltzaindian eta, neurri batean, Euskal Herrian ere, ahaztuegia izan den iker-lerro bati bidea samurtu nahi dio. Zorionez, arrunki ezagutzen dena baino gehiago da iker-eremu horretan lehendik egindakoa, eta berorren berri ematea izango da Egitasmoaren eginkizunetako bat; baina, euskararen historia sozialari gure ikertzaileek eskaini dizkioten ikerlanen ondoan, badago gaur egun hizkuntzekiko zientzietan berritasunik franko, EHSerako baliagarri izan behar duenik.

Azkeneko hogeita hamar urteetan Euskaltzaindiak berak sustatu dituen lan handiak daude, batez ere hizkuntzaren barne-baliabideak (*corpus*-a deitzen dugun hori) ikertu eta hizkuntzaren tradizioa ezagutarazi eta araubide finkatuago bat proposatzeko baliozkoak izan direnak. Hor daude, adibidez, Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) eta argitaratzear dagoen Atlas linguistikoa. Hiztegi eta gramatikatan premia larrienak estaltzeko lan franko egin du, bada, Euskaltzaindiak, eta hori guretzat ere baliagarria da.

Bestalde, erbestetik ikasi eta gurean lur ona aurkitzen ari diren hizkuntzaren beste zientzia teoriko eta aplikatuak daude: soziolinguistika, psikolinguistika, glotodidaktika, etab. Hizkuntzen historia soziala lehen urratsak ematen modu egitarautuagoan hasi zenetik (gogora gurean ere 1970. eta ahalgin haiek), historialariok soziolinguistikarekin egin genuen topo: metodo eta kon-

---

<sup>2</sup> Intxausti Rekondo, J. (2007). "Joanes Etxeberri Egitasmoa (2007-2008). Euskararen Historia Sozialerako Proiektua. EHS" in: *Euskera*. 52, 2007-1, 239-267.

tzeptu berriekin zetorren, egunean eguneko hizkuntza-egoera sozialak aztertzera, eta noizbehinka baita iraganeko egoera aztergarriak iradokitzen ere.

Laster ikusi zen zein mundu zabal eta interesgarria irekitzen zигun Soziolinguistikak historialariorioi: historia soziolinguistiko edo soziala esparru zabaleko mundua zen, neurri handi batean birjina ageri zena, historiografiak gutxitxo begiratua, diziplina ezberdinetatik ekarpenak bilduz osatu beharko zena, historia sozial eta instituzionalek, ekonomiko eta kulturek, ideologiko eta erlijiosoen, politiko eta juridikoen, denek batera, argitu beharko zutena. Azkeneko hamarkadak erakutsi du zenbatekoa zen iker-eremu horren beharra, soziolinguisten ikerlanetatik eta jada historialariak (eta hizkuntzalariak ere) tartean direla.

Gure *Euskararen liburu zuria* 30 urte betetzera doan honetan (1978-2008), erbestetik ere orduko asmoei segida emateko laguntza berriak ditugu orain nazioarteko komunitate akademikoan. Zer da, ordea, EHS hau, eta zer Etxeberri Egitasmoak aztertu nahi duena?

Gure hizkuntzaren historia sozialak euskararen (eta egokia den bakoitzean ondoko hizkuntzen) gizarteko bizitza aztertu eta ezagutzera eman nahi du, hizkuntzaren gizartekotasun horren alde historikoa ikergai duela: besterik ez, baina hori zabaltasun osoan, erabilera mintzatu eta idatzi guztiak aintzakotzat hartzen dituela hizkuntzaren lurralde osoan, hemen eta kanpoan, aro eta garai ezberdinetan, funtzio eta maila ezberdinetan, barruko eta kanpoko hizkuntzarteko ukipen-harremanetan.

Proposamen-txostenean, Soziolinguistika edo Hizkuntzen Soziologia mugatzeko Fishman-en hitzekin esaten zena errepika daiteke hemen, betiere definizioari gure iker-esparruko denbora historikoaren dimentsioa ere gehitzen diogula:

Hizkuntzaren —hizkuntza mintzatu, hizkuntza idatzi eta inprimatuaren— ohizko erabiltzaile bezala gizakia gainerako mintzatzailerekin jokabide-arau partekatuek loturik dago beti. Hizketaren soziologiak giza portaeraren bi alde hauen arteko intereragina aztertzen du: hizkuntzaren erabilpena eta burubide sozialaren antolakuntza. Laburki esanda, hizketaren soziologia burubide linguistikoaren antolara sozialarekin zerikusia duten gaien alde guztiez arduratzen da, eta ez bakarrik berezko (*per se*) erabilpen linguistikoaz, baizik eta era berean hizkuntzarekiko eta hiztunekiko berariazko jarrerak eta jokaerak ere ikertuz.

Hizkuntza eta hiztunen egoera/erabilera, gaitasuna eta *corpus* “historiko-soziala”, alde batetik, eta horiek guztiekiko iritzi, jarrera eta jokabideak —denak ere beren izaera eta aldakortasun sozialean begiraturata— ikertzea izanen da

Egitasmo honen zeregina. Azken finean, euskararen gizarteko bizitza historikoa ezagutu eta ezagutzera ematea, alegia.

Lan horrek diziplinartekotasun nabaria eta zaindua eskatuko du: adibidez, Hizkuntzalaritzari ere galdetu beharko diogu zer dakien iragan sozial horretaz (gogora dialektologiako lanak, Atlas linguistikoak egingo dizkigun ekarpenak, onomastika eta toponomastika historikoen esan dezaketena, hizkuntzen arteko ukipen-historia, etab.). Halatsu, bestelako Hizkuntza-zientziei ere entzun beharko diegu: Geolinguistika, Demolinguistika, Zuzenbidea, Etnografia eta abar.

Jada bereziki gogoan ditugu begiratu beharreko lehenengo alor batzuk. Adibidez, maila ezberdinetako euskal Erakundeetan ageri diren jarrera, arau eta jokabideak ikusi behar dira; hizkuntzaren bizitza soziala arautu edo baztertzeko emandako Legeak zeintzuk izan diren jakin; kristau Elizek izan dituzten politika linguistikoak argitan jarri, Eliza Katolikoarenak bezala Eliza Erreformatu protestanteenak ere; hizkuntzen inguruko mentalitate eta pentsa-moldeak beti egon dira hiztunen gizartean, eta gurean herritar arrunten baitan ez ezik apologistika idatziarekin ere. Eta beste adibideren bat gehitzeko, esan beharrik ez dago, hizkuntzarenak nolako presentzia/ausentzia izan duen Hezkuntzan eta Irakaskuntzan, alfabetatzeik hasi eta goi-ikasketetaraino. Eta musikaren edo bertsolaritzaren munduan izango da zer jaso aipatutako jarrera eta jokabideak ezagutzeko.

Hainbat iturritan entresaka arretatsu bat egin beharra dago, sarritan zaila eta oso zaila ere izango dena, izan ere bidebatezko albisteak izango baitira, edozein hizkuntzatan datozkigunak, gutxien espero genuen xokoetan agertuko zaizkigunak. Iker-lanaren ekonomia begiratu beharra izango dugu, eta bilaketa-lehentasunak metodo onez eraman aurrera, luzeegi ibiliz bide motzegia egin ez dezagun.

Artxibo eta bibliografietan ditugu bila-lekuak, eta, modu emankorrean eskueran izan ditzaun, ikertzaileentzako gidaliburuak sortzea izango da Egitasmoko lehen urratsetako bat. Batetik, bilaketa horretan euskal adituak lankidetzaz egitasmoratu nahi dugu, eta bestetik, ikertzaile gazteei erraztasun hobekak eskaini gura dizkiegu, denon artean albiste-aitxor aberats eta erabilgarria eratzeko.

Horregatik, Euskaltzaindiak proiektu estrategiko bezala ikusten du Etxeberri Egitasmoa, epe ertain eta luzekoa izan daitekeena, Akademia barneko indarrekin eta euskal historialari eta soziolinguistekin (eta ez horiekin bakarrik) pausuz pausu aitzina eraman beharko dena.

Itxuraz, logika historiko guztien kontra biziraun du euskarak, baina era berean gutxienez Aro Modernotik hona bere lurraldea murriztuz joan zaio, eta zailtasunak izan ditu funtzio sozial berriak bereganatzeko. Zer gertatu da mi-

laka urteko ibilera historiko horretan? Galdera horri erantzuteko albiste argigarriak bildu nahi ditu Etxeberri Egitasmoak.

Horretarako Euskal Herriko eta inguruko hizkuntzen iragan konplexua, euskarari ere dagozkionetan bederen, osorik besarkatu nahi du proiektu honek. Ez da hori erraza izango, mundu idatzian hain isildua izan den gure kasu honetan, baina premiazkoa ikusten dugu, latina eta erromantzeak gogoan izatea, oro har, Biltzar honetan egiten den bezala. Euskal lurraldeko hizkuntzen ukipen-leku, aldi eta gizarte-guneak aztertzea, ez da alfer-lana izango guretzat.

Jarduera horrek guztiak izan dezakeen konplexutasunagatik, baliabide teknologikoak erabiltzea ezinbestekoa da. Alde batetik, teknologia berriak erabiliz garatuko diren datu-baseak izango ditugu: oraingoz, agiri-testuena da bat eta bibliografikoa bestea. Horrela, ikerkuntzarako langai testualak eta lanabes bibliografikoak eskuratzeko erraztasun berriak sortuko ditugu. Etxeberri Egitasmoko zutabeak izango dira horiek.

Lantegi honek guztiak ezingo du ahaztu esparru honetan diharduen be-lau heldua: ikertzaile horietan dago bilduta orain arte dakiguna, eta berak dira lehen giza abiapuntua. Euskararen Historia Sozialeko ikertzaileen arteko lankidetzeta eta elkarrizketa sustatzea beharrezkoa izango da Egitasmo honetan. Egitasmoa irekita egongo da bere baliabideak ikertzaileei eskaintzeko, eta beroriek modu arautu eta publiko batez arduratuen eskueran jartzeko.

Guztiak aurrera egin dezan, banakako ikertzaileena ez ezik iker-taldeen eta Erakundeek ekarpena ere eskatu nahi du Euskaltzaindiak Etxeberri Egitasmo honetarako. Euskal Herri osoko eta erbesteko jakitunen idazlanak gisa arautu baten barruan eskatuko dira, EHSeko eremu honetan onenek behintzat erosotasun sustagarri bat izan dezaten.

### *1.2. Nola lan egingo du Egitasmoak?*

Egitasmoak Euskaltzaindiaren barruko lantalde berezitu bat izango du, oraingoz *Bulegoa* deitzen diogun lantegian ariko dena, datozen bi urteetan-edo Donostian egongo dena. Egunero eta ordutegi jakin batekin egingo da lan bertan, orain-oraingoz Bulegoak batez ere datu-baseei emango die lehentasun nabaria.

Bulego honek Bulego-burua, kodetze-burua (*kodetzaila*), informatikaria eta hiru markatzaile izango ditu langile finko eta kontratatu bezala. Bulegoak egin edo gidatuko dituen bertako eta kanpoko lanen azken-aurreko ardura Egitasmoaren Zuzendariak izango du eta berorrek batera Aholkulariak bere

mailan. "Azken-aurrekoa", diot, zeren Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren eta Egitasmoko arduradunen artean bitariko jarraipen-taldea eratuko baita, betiere Euskaltzaindia Egitasmoko jardueraz jakinaren gain egon dadin, eta behar delarik erabakiak har ditzan. Oro har, Egitasmoak eta berorren Bulegoak Euskaltzaindiko egitura orokorraren barnean lan egingo dute.

Euskal Herrian bertan eta inguruetan ditugun baliabide dokumental eta bibliografikoak identifikatu eta lekuan lekukoen berriak jasoko ditu Egitasmoak. Agiritegi eta liburutegiak izango dira gure laneko harrobi: herrialde historikoetako artxibategiak (gogora *Irargi*-k guztion mesedetan egin digun lana), gure liburutegirik onenak (adibidez, eredugarria dugu HABEkoa gure esparru honetan). Hor dago, orobat, Donostiako *Doctor Camino* liburutegia, bertako (eta inguruko) hizkuntza-historiaz, eta horren gertaera-kideez, jabetzeko aparteko iturburu. Unibertsitateetako liburutegiek, edo zenbait Fundaziok eta bestelako hainbat erakundek, eskain ditzaketen albiste-bildumak ere ez dira utziko alhora; esaterako, Aldundietako Liburutegiek (J. Urkixo-rena bereziki aipatzekoa izango litzateke), *Sancho el Sabio*-ren liburutegi eta digitalizazioak, Azkue Bibliotekako altxorrak, edo *Armiarma* eta beste hainbat lan aurreratutako baliozkoak izan beharko lukete Egitasmo honetarako, betiere egiteke dugun Euskararen Historia Soziala onduz joateko. Bilaketa berriak egiteaz gain, Egitasmoak honelako lankide-ekarpenak adostu, hitzartu eta bildu beharko ditu.

Euskaltzaindiko ikertzaileen zerbitzuan jardungo du Egitasmoak lehenik, eta lehen heldutasun-puntura iritsi orduko, kanpoko ikertzaileetara ere irekiko ditu eskuetan dituen iker-albistegiak, batzuetan argitalpen inprimatu bidez eta, bestetan, Internet eta teknologia berriez baliaturik.

Izan ere, Egitasmoko lanabes arrunta izan beharko dute teknologia horiek, eta hasieratik bertatik Egitasmoan egon da Euskaltzaindiko IKTez baliatuz jardutea. (= Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia)<sup>3</sup>. Eta horretarako funtsezko bi arrazoi, behintzat, izan ditugu: teknologia horiek ezinbestekoak dira gure datu-baseen garapena ahalbidetzeko, eta bigarren urrats batean pentsa ezina da teknologia horiek gabe jardun nahi izatea. Euskal gizartean, noski, eta nazioartean, hedapen-sistema berrien aukera ezingo dugu galdu. Honetan, izan ditzakegun eskaintza eta egingo zaizkigun eskeetara moldatu beharko dugu Egitasmoa.

Horrek guztiak, batez ere Metodologia-Ereduaren araberrako datu-baseak sortu eta hedatzeko balioko du, baina ez da ahaztu behar adituek bestelako idazlan

---

<sup>3</sup> Sagarna, A. (2007): "Informazioaren eta komunikazioaren Teknologia eta Euskaltzaindiaren edukiak" in: *Euskera*. 52, 2007-1, 229-237.

testualak sortzeko gai direla, bai Egitasmoak eskatuko dielako, bai beren kabuz burututako hainbat lan ere Egitasmoan baliagarri izango delako (proiektuko lanak egitean ez ezik, beste gabe, ikerlanei merezikiko duten hedapena emateko ere).

Dena den, Ereduaren araberrako lanetan bezala testu libreagoetan ere, Egitasmoak lehentasunez mugatu eta eraturako egitarau bati erantzun beharko dio. Horretarako premiazko irizpideak ere landu beharko dira: albisteen oinarritzotasuna, historian iker-alorrek izandako garrantzia, aditu prestatuen eskuertatutakoa, iker-itxaropenaren eta kostu ekonomikoaren arteko arazoizko oreka, etab.

Iker-diziplinartekotasunak (eremu ezberdinetako lankidetzak, alegia) sinergia metagarriak eman beharko dizkio Etxeberri Egitasmoari. Lanaren ibil-lan beti begiraturaz joan beharko dugun zerbait da hori.

Proiektuaren nazioartekotasunak ez du hemen garrantzi kaskarra. Euskararen Historia hori erbesteko ikertzaile eta interesatuen eskuetan jartzeko, noski, baina zergatik ez, gure antzeko edo tamainako beste hizkuntzetan zer egin daitekeen erakusteko ere. Teknologia berriek ere horretarako erraztasun handiak emango dizkigute. Hedapen-asmo hau ez dugu utziko geroko baterako, eta ahal bada, datorren udaberrietik aitzina Interneteko gure leihoa irekita izan beharko dugu, Euskaltzaindiko *web*-aren barnean.

Nazioartekotasun-xede hori ahazteke, iturrien izaeratik bertatik hasita aurkituko gara eleaniztasun baten aurrean: berriak jasotzeko hizkuntzak behar ditugu (grekoa, latina, gaztelania, frantsesa, gaskoia, etab.), esan bezala gure ikerbideetan hizkuntzekin topo egingo dugu, eta gure hedapen-ahaleginetan ere hizkuntzak aukeratu egin beharko dira.

Bide tarte luzea da guztia. Metodologia-Eredua eskuetan dugula eta bes-telako lanak abiarazten ditugun bitartean hilabete on batzuk bederen proba-epea izango dira guretzat.

### *1.3. Berehalako urratsak zeintzuk izango dira?*

Bukatzeko, gogoan ditugun baina berehala denak batera abiarazi ezingo ditugun zeregin batzuk aipaturaz bukatuko dut Etxeberri Egitasmoaren azalpen labur hau.

Esandako Bulegoaren eraketa azken aste hauetantxe ari gara burutzen. Era berean, bertako langile-taldea osatu dugu, eta guztion prestakuntza teknikoari ekingo diogu, zaindu nahi dugun Metodologia-Eredua berria baita eta norberaren aurreprestakuntzaren gain gaitasun berria eskatzen duena.

Jada gurekin ari da uztailaz gero Lionel Joly soziolinguista eta kodetze-buruaren ardura hartu duena; informatikaren premia azpimarratu dut, eta dagoeneko Iñaki Kareaga Euskaltzaindiko IKTeke kudeatzaileak gure informatikari Alazne Gorrotxategi-rekin dihardu Egitasmoko lehen lanetarako programak aukeratzen eta lanerako egokitzen. Testuak metadatuz hornitzeko ditugun markatzaileen berariazko prestakuntza izango da orain gure zeregina.

Unibertsitateetan Hizkuntzen Historia Sozialaz arduratu izan direnekin harremanetan gaude, eta berehala aztertuko dira asmo berriak. Era berean, han-hemen dabiltzala ere, iker-esparru honetan ezagunak ditugun ikertzaileen lankidetzaz-moduak begiratzera goaz ondoko hilabeteetan.

Interneteko hedapen-arazoari aste gutxi barru heldu nahi diogu, eta jada informatikarien eskuetan ere badago gure eske hau, Euskaltzaindiak orokorki dituen asmoen barruan (Euskaltzaindiaren *web*-ean, alegia).

Argitalpenen artean (edozein euskarritan direla ere), lehentasuna emango zaio ikerkuntzarako tresnak sortzeari (artxiboetarako gidaliburuei edo lehen ikersaioei, adibidez), gure aditu ezagunen idazlanei irtenbide berriak eskaintzen dizkiegun bitartean.

Une egokia iristen denean, ikertzaile gazteentzako Mintegiak edo ikastaro laburrak eratu ahal izango dira, 2009ko gure egitarauan egongo da hori ere.

Aurkezpen orokor honen ondoren, Zalbide eta Gardner jaunek dute hitza, Egitasmoko Eredu metodologikoa eta *Thesaurus* bidezko kontsultalanabesa aurkezteko. (J.I.)

## 2. Metodologia-eredua

### 2.1. Lanerako dekalogoia

1. Han-hemen bildurik dauden datuetan oinarrituko da egitasmoa. Datuetan, ez hipotesietan edo dedukzioetan. Azken horiek ere beharko ditugu, eta ez hain gutxitan. Datuak izango dira, ordea, bere lehengai eta argudio-oinarri. Datu asko, fidagarritasunez ahalik eta kontrastatu eta egiaztatuenak, ondorio-ahalmenez ahalik eta sakon-zabalenak eta ikuspegi metodologikoz ahalik eta dibertsifikatuenak. Hori da Joanes Etxeberri egitasmoaren, EHS proiektuaren, abiaburu ezin utzizkoa.

2. Ateratzen ditugun ondorioak behin-behinekoak izango dira beti. Badakigu zientziaren aurrerabidea probisionaltasun horretan oinarritua dagoela,

eta beraz ezer gutxi ari garela esaten berririk. Hala da. Baina ez gara horretaz bakarrik hizketan ari. Joanes Etxeberri edo EHS proiektuak berariazko probisionaltasuna izango du berekin, ohikoaz gain. Argi azaltzea komeni da hori. Sarean zintzilik jartzen diren ondorio-azalpenak ere, horrexegatik eguneratu ahal eta eguneratu behar izango dira, gutxi asko, datu berririk agertu, eskuratu, analizatu, baloratu, aplikatu eta interpretatu ahala.

3. Ikersaio konkretuak izango ditu, beti, Joanes Etxeberri oinarri. Iker-saio konkretuak denbora aldetik, espazio fisiko-territorialaren aldetik eta espazio sozio-funtzionalaren aldetik. Metodologia-ereduaren muina: gelaxkak.

4. Ikersaio asko behar ditugu egin, panorama itxurazko bat eskuratzeko. Argazki bakarreko formularen kontrakoa aukeratu da EHS edo Joanes Etxeberri proiekturako. Ez goaz kolpean euskararen historia soziala eraikitzaera, hartarako oinarri sendo (beti probisional, baina gero eta sendoago) diren ebidentzia dokumentalak espazio fisiko, tenporal eta soziofuntzional jakinetan kokatzera baizik. Hots argazki puntual, ongi delimitatu asko (ahalik eta gehien, beti ere ahal denaren barnean) eskuratuz panorama zabal-aberatsagora bidean jarri nahi dugu proiektua.

5. Bertako hizkuntzak aztertuko dira, beti eta ezinbestean, euskararen kokaera zehatza egiteko. Oinarrizko eta ezin itzurizko puntua da hori. Donostian 1761ean zer hizkuntza egiten ziren jakin gabe, ezin ondo esplika liteke urte eta leku hartan euskarak zer leku okupatzen zuen garai hartako donostiarren bizitzan.

6. Une eta leku jakin batean hizkuntza batek edo gehiagok zer-nolako erabilera duten aztertuko dugu lehenik eta behin, bai plano kolektiboan (hori da ikerketaren asmo nagusia) eta bai, hartarako lagungarri izan litekeen neurrian, plano indibidualean. Hizkuntzaren beraren zenbait barne-ezaugarri ere kontuan hartu ahal izango da, erabilera horren adierazle edo zehaztapen-iturri den neurrian. Neurri horretan bakarrik, ordea. Hizkuntzaren erabileran, eza-gutzan eta horiei buruzko iritzi-jarreretan oinarritzen da Joanes Etxeberri. Al-diune historiko eta leku fisiko batean erabili izan den hizkuntzaren gibel-arraiak aztertzea ez da gure eginkizun.

7. Aparteko enfasia egingo da EHS proiektua hizkuntzak plano idatzian (literaturan, erlijio-liburuetan eta, bereziki, plano jaso-formalean) izan duen presentziara ez mugatzen. Ez hartara mugatzen eta ez, are, hartan zentratzen. Hitzezko jarduna da hizkuntza ororen oinarri. Hitzezko jarduna dokumentatu behar da, beraz, idatzizkoa baino lehen eta haren gaineratik. Ez dugu esaten idatzizkoa baztertu egin behar denik: idatzizkoaren datu-modu guztiak jaso-



tzea komeni da, eta ongi egituraturik interpretatu eta ondorio-txostenean txukun azaltzea. Ez daukagu idatzizko datuen kontrako prebentziorik txikiena: oso alderantziz, eskuratu ahal izango ditugun datuak soportean idatzian iritsiko zaizkigu ia beti, eta horrekin lan egin beharko dugu, jakina. Ez gara hori esaten ari, beste hau baizik: leku eta une jakin batean giza multzo jakin baten mintzajardunak zer gizarte-moldaera duen aztertu nahi dugula lehenik, eta horrek oso-oso kontuan izan behar duela hitzezko jarduna.

8. Aparteko garrantzia aitortuko zaie, horregatik, bertso-lanei, kantuei, atsotitzei eta antzeko dokumentuei; hitzezko jardunaren ispilu hurbileko diren neurrian, aparteko atentzioa dedikatuko zaie. Garai eta leku jakineko mintzajardun espontaneo, normalean giza artean konpartitu, hainbatetan L mailako jokabideen ispilu dira iturri horiek, eta aparteko begirunea zor zaie horregatik.

9. Argazki puntual, ongi delimitatu asko (ahalik eta gehien, beti ere ahal denaren barnean) egin nahi direla esan da. Ahal denaren muga dokumentazioak (esistitzen denak eta, bereziki, gaurkoz eskuratu eta erabili litekeenak) zehaztuko du batetik; ikersaio jakina aurrera ateratzeko gai den eta prest dagoen ikertaldeak (batez ere ikerburuak), denborak eta baliabide-aukerak (giza baliabideak, dirubideak, baliabide materialak) bestetik.

10. Ez goaz, oraingoz behintzat, aspaldi-aspaldiko epoketan saiatzera. Dokumentu urri dago garai haietaz oso, eta iturri haien fidagarritasuna eta zehaztasuna ere ez dira askotan nahi bezain handiak. XVI. mendetik honako epealdiak arakatuko ditugu, oraingoz, sarrien. Azken muga gisa 1980 jarri dugu. Handik honakorik ez da oraingoz, oro har, ikersaioetan aintzakotzat hartuko.

## *2.2. Metodologia-ereduaren muina: gelaxkak*

Ez gara hutsetik abiatuko: aurrez prestatuturiko metodologia-eredu bat izango dugu abiaburu.

Metodologia-eredu horrek, oraingo bertsioan, lau dimentsio ditu: erabile-ra, hizkuntza-gaitasuna, hiztunen hizkeraren ezaugarriak eta, azkenik, iritziak, jarrerak eta jokabideak.

Metodologia-ereduak bost azterbide ditu: deskriptiboa, zinetikoa, dinamikoa, prospektiboa eta preskriptiboa.

Metodologiaren lau dimentsioak eta bost azterbideak honela konbinatzen dira, hogeitaz gelaxkako taula emanez.

1. taula: Dimentsioen eta azterbideen konbinazio-taula

		LAU DIMENTSIOAK			
		<b>A</b> Erabilera	<b>B</b> Hizkuntza-gaitasuna	<b>C</b> Hiztunen hizkeraren ezaugarriak	<b>D</b> Iritziak, jarrerak, jokabideak
B O S T  A Z T E R B I D E A K	1 Deskriptiboa Aldiune eta leku jakineko egoera	1A Hizkuntzen erabilera Nork norekin zertaz zer hizkuntza darabilen	1B Hiztunen hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza batean eta bestean	1C Hiztunen hizkeraren ezaugarriak, hizkuntzen eta hiztunen gizarte-egoera argitzekoak	1D Han-hemengo hiztunen iritzi-jarrerak, -hizkuntzen izaeraz -hizkuntzen erabileraz -hiztunez
	2 Zinetikoa Egoeraren une eta leku jakineko bilakaera	2A Hizkuntzen erabileraren bilakaera	2B Hiztunen hizkuntza-gaitasunaren bilakaera	2C Hiztunen hizkeraren ezaugarri horietan agerituen bilakaera	2D Hizkuntzei eta hiztunei buruzko iritzi-jarreraren bilakaera
	3 Dinamikoa Bilakaera hori zergatik?	3A Zerk esplika dezake erabileraren bilakaera hori?	3B Zerk esplika dezake hizkuntza-gaitasunaren bilakaera hori ?	3C Zerk esplika dezake hizkuntza-ezaugarrien bilakaera hori?	3D Zerk esplika dezake iritzi-jarreraren bilakaera hori?
	4 Prospektiboa Zer gertatuko da azkenean?	4A Zer gertatuko da erabilerarekin?	4B Zer gertatuko da hizkuntza-gaitasunarekin?	4C Zer gertatuko da hizkuntza-ezaugarriekin?	4D Zer gertatuko da iritzi-jarrerarekin?
	5 Preskriptiboa Zer egin, helburua lortzeko?	5A Status Planning	5B Acquisition planning	5C Corpus Planning	5D Identity Planning

### 2.3. Lan-isuria

Laneko dekalogoia eta metodologia-eredua kontuan harturik, nolako izango da lan-isuria? Hona hemen, laburbildurik, eman behar diren urratsak:

- ikerburuarekin adostu ikersaioaren gaia;
- ikerburuak aztermaterialak (arakatu beharreko liburuak, artikulua, artxibategiko dokumentuak...) definitu;
- EHSk adierazitako aztermaterialak lanerako prestatu: jatorrizkoak eskuratu, testua eskaneatu, dokumentuari dagozkion datu bibliografikoak jasoz;
- EHSk aipuak aukeratu eta gelaxketan sailkatu; EHSk aipuak etiketatu;
- EHSk ikerburuari gelaxken eta, hala legokiokeen neurrian, azpigelaxken arabera sailkatutako materiala eskuratu;
- ikerburuak, eskuratu zaizkion datuetan eta bere ezagupenetan oinarriturik, ikersaioa idatzi. (M.Z.)

## 3. Ereduari euskarria ematen

### 3.1. Sarrera

Azken atal honen gaia aski estu markatuta datorkigu: Joseba Intxausti zuzendariak azaldu duen proiektuaren markoan Mikel Zalbide aholkulariak deskribatu digun metodologia-eredua nola gauzatuko dugu eguneroko praktikan? Lankide horiek jadanik praktika horren hainbat ezaugarri gainetik aipatu dizkigute: datu soziolinguistikoa, thesaurus, euskarri informatikoa. Zertan gauzatzen dira elementu horiek eta nola uztartzen?

Halako erronkaren aurrean lehenengo erreakzioa izan ohi da bestek halakorik egin al duen galdetzea, erreferentzia-puntuaren bila. Erantzuna gure kasuan ezezkia izan da. Badaude han-hemenka hainbat hizkuntzaren historia sozialak. Kasu guztiz egokia, hainbat parametroren arabera euskararen egoeratik aski hurbiltzat jo daitekeen galeserarena izan daiteke: bere historia sozialaz azken urteotan hainbat liburu mardul argitara eman dira (Jenkins (ed.) 1998, 2000, 2001; Jenkins & Williams (ed.) 2000; Jones 1998; Williams & Parry (ed.) 1999), baina ez daude oraingo proiektu honen jokabide-irizpideen arabera eginda. Galesko horretan ikerlari bakoitzak bere lana egin du, metodologia bateraturik adostu gabe eta datutegi baterabildurik izan gabe. Zentzu ho-

rretan EHSk proposatzen duen jokabidea berria da, itxura osoz: 2007an izandako lehen mintegian parte hartu zuten aditu atzerritarrek ezin izan ziguten nazioarteko beste adibide soziolinguistikorik proposatu. Ondorioz, bere garrantzia izango du EHSk lor ditzakeen aurrerapenen eta emaitzen berri era egokian nazioartekotzeak.

Utz dezagun, oraingoz, balizko emaitza horien zabalkundea albo batera eta jo dezagun arestian zerrendatutako hiru elementu horiek, datuak, thesaurusa eta euskarri informatikoa, argitzera.

### 3.2. *Datu soziolinguistikoak*

Linguistikan askoz errazagoa da ikerketarako lehengaiak definitzea: testuak hor daude eta filologoen eta hizkuntzalariek luzera desberdineko testu-zatiak hartzen dituzte aztergai. Gramatika-elementu jakin baten funtzionamendua aztertu nahi bada, adibidez, hura agertzen den testu-sorta biltzen da, gaur egun normalean euskarri informatikoan, eta testu horien gainean hainbat kontaketa- eta konparazio-eragiketa burutzen dira, interpretazio-lanari eutsi aurretik.

Soziolinguistikan, ordea, material erabilgarririk txikiena, EHSren hizkeran *aipua*, zer den ez da hain argi zehazten: aipua aukeratze soilean interpretazio-puntu bat ere egon daiteke. Aipuaren abiapuntuzko definizioa erraz eman dezakegu: euskararen historia soziala osatu ahal izateko metodologia-ereduaren araberrako informazioa ematen digun testu-zatirik txikiena, baina definizio horrek sor ditzakeen arazoak ere berehala ikusten ditugu: ez dago luzera estandarrik, ez dago ezinbestean soziolinguista desberdinen artean aukeraketari buruzko adostasunik eta ez, aukeraketa adostea lortzen badute ere, aukera horien esanahiari buruzko adostasunik. Azkenean, aipuei dagokienez jokabide pragmatiko zabalaz jokatu behar dugu: aurrez ikusten badugu gure lurraldeetako hizkuntzen historia soziala aztertzen ari den ikerlari bati aipu jakin bat erabilgarri gerta dakiokeela, huraxe bera jaso behar dugu.

### 3.3. *Thesaurusa*

Behin aipua zein den erabakiz gero, hura nola sailkatu erabaki behar dugu. Mikel Zalbidek hogeitaz gelaxken oinarritzko ereduaz azaldu berri dugu, baina hura baino sailkapen indartsuagoa, sakonagoa, eskaintzen du jadanik atontzen

ari den metodologia-eredu osoak. EHSk gai jakin bati buruz, demagun eliza katolikoak XIX. mendean euskararekiko zuen jokabideaz edo Markinan edo Saran mendeetan zehar izan diren hizkuntzen erabileraz, dituen aipu guztiak berreskuratu nahi baditu ikerlari batek, aipu guzti-guztiak egoki sailkatu, etiketatu edo markatu behar ditugu aldez aurretik, bilaketa-lanak errazteko.

Lehen urte-pare honetan aurrean dugun lan zailenetariko bat da hain zuzen ere etiketa- edo, informatikariet esango luketen bezala, metadatu-sorta egoki eta koherentea finkatzea.<sup>4</sup> Begi-bistan daude sorta horrek bete behar dituen baldintza batzuk: edozein ikerlarik erabili nahi izan ditzakeen kategoriak islatu behar ditu; markatze-lana egiten duten langileek maneiatzeko modukoa izan behar du; azter-eremu osoa estali behar du; xehetasun-maila egokia behar du; etiketek islatzen dituzten kategoriek diskretoak izan behar dute; azkenik, aipuek elkarren artean dituzten hainbat lotura eta harreman islatu behar dira.

Zenbaitetan elkarren artean talka egiteko arriskua agertuko zaigu:

- Horrela, ikerlariet gero eta kontzeptualizazio-maila trinkoagora jo ohi dute, ikerketa-lanean aurrera ahala: eskolako eratzunari buruzko datuak bilatu ordez agian eskoletako sari- (eta zigor-)sistemari buruzko datuak bilatu nahi izango dituzte, horiet gizarte mailako sari-zigorrekin lotu ahal izateko. Ondorioz, hainbat gutxiengo etnikok ezagutu duten zigor konkretu baten azterketatik Fishmanek<sup>5</sup> landutako kontzeptualizazio zabalagora pasatzen gara: sari negatibo puntualetik sistemara. Markatzaileek, ordea, lana azkar eta ugari egingo badute, erraz aplikatzeko kontzeptualizazio apaleko sistema beharko lukete.
- Bestetik, aipuetan ager daitezkeen gai soziolinguistiko guztiak islatu nahi dira, baina ezin da sistema xehegia montatu: etiketatzea ez da inoiz bukatuko bestela.
- Aipuen arteko loturei gagozkielarik, azkenik, garrantzitsua da, jakina, iturri bibliografikoa islatzea.

Etiketaz zerrendatzeko aukeratu den formatua thesaurusa da: formatu horiet etiketa bera eta definizioa jasotzeaz gain, etiketen arteko harreman-sarea islatzen du, beste hainbat datuarekin batera. Thesaurusa idazteko badago nazioarteko estandar bat (ANSI/NISO 2005) eta ingelesezko hura, *mutatis mutandis*, EHSren thesaurusa osatzeko gidari hartu da. Bistan dago, dena den,

<sup>4</sup> Lantaldearen partaide izan denetik, Lionel Jolyk ere ahalegin horretan parte hartu du.

<sup>5</sup> Ikus, adibidez, Fishman 1990: 188 eskolarekin lotutako sari-sistemaz.

thesaurusik egokiena ez dela lortuko hura hainbat dokumentutan, edo, zehatzago esanda, dokumentu horien aipuetan, aplikatu eta probatu arte.

EHSren thesaurusak oraindik bere itxura definitiboa lortu ez duela jakinda, ikus dezagun, hala ere, adibide bat, horren ideia egiteko. Har dezagun, beraz, *behetik gorako saioa* kontzeptua eta thesaurusak horretaz zer informazio jasotzen duen ikus:

2. taula: Thesaurusaren adibide bat

Ezaugarria	Edukia
Terminoa	behetik gorako saioa
Honen orde z erabili	bottom-up planning
Erabili	[Ez da EHSren thesaurus honetan erabiliko, baina hiztegi batuan berbideratzaile hau Euskaltzaindiak berak erabiltzen du.]
Erabilera-esparrua	Hizkuntza baten edo gehiagoren status-aldaketa gauzatzeko aginte-esparruan ez daudenek bultzatutako saioa. Adibidez: Arrasateko AEDren ahaleginak; Korrika; oro har, euskararen erabileraren aldeko eta kontrako GKEak. <i>Goitik beherako saioekin</i> kontrajarrita edo elkarlanean egon daitezke saio hauek.
Termino zabalagoa	saio-mota [termino zabalagoei zuhaitzean gora jarraikirik, Mikel Zalbideren metodologia-ereduaren 5A gelaxkan, status plangintzarenean, gaudela jakin ahal izango dugu.]
Termino estuagoa	[kasu honetan ez da thesaurusean termino estuagorik sartu. Halakorik asmatzea, ordea, ez litzateke kasu honetan zaila: agian, <i>banan banako saioa</i> eta <i>talde-saioa</i> bereizi beharra egon liteke. Oraingo z, dena den, ez da xehetasun gehiagoren beharrik ikusi.]
Lotutako terminoa	[Termino-aukeraketa egitean termino honekin nahas litekeen bestelako terminoak.]
Autoritatea	Kaplan & Baldauf (1997) [Terminoa zein idazlek sortu duen.]
Kodea	[Terminoak thesaurusean duen kasuan kasuko kodea.]
Noiz sortua	[Zein datatan sortu zen terminoa.]
Ontzat emana	[Proiektuko nork eman duen ontzat.]
Historia-oharra	[Terminoak proiektuan zehar izan duen ibilbidea: lehenagoko termino bat ordezkatzan duen; geroztik baztertu den...]

Lehenengo zortzi ezaugarriek, beraz, terminoaren mamiarekin dute zerikusirik; azken laurak, ordea, termino horren kudeaketa egokia ahalbidetzekoak dira.

### 3.4. Euskarri informatikoa

Nola uztartu behar dira, azkenik, soziolinguisten behar horiek, aipua zedarritzatzea eta aipuei etiketak eranstea hain zuzen ere, gaur egun ezinbestekotzat jotzen dugun euskarri informatikoarekin? Erantzuna tentuz osatzen ari gara: atal honetan izandako eztabaidak eta erabakitako jokabide nagusiak zerrendatuko ditugu.

#### 3.4.1. Berariazko aplikazio edo soluzio estandarra?

Halako proiektuetan bide tradizionala berariazko aplikazio bat sortzea izan da, gaiaren berezitasun guztiak kontuan hartuko dituen. EHSko arduradunak eta arduradun-aholkulari informatikariak<sup>6</sup> berehala konturatu ziren jokabide horrek ez zela erabiltzaileen beharrei egoki erantzuten, hainbat arrazoiengatik:

- Halako sistema bat eraiki ahal izateko informatikariak erabiltzaileen eskakizun zehatzak hasieratik jakin behar dituzte; erabiltzaileok, ordea, ezin ditugu eskakizunak erabat zehaztu nolabaiteko praktika-epa bukatu arte.
- Datu-base handien kasuan datuen garraigarritasuna oso da kontuan hartzekoa. Ikus Bird & Stevens (2003) kontzeptu honen azterketa zabalera.<sup>7</sup> Labur-labur azalduta, informatikaren garapen azkarrari esker, bai *hardware* bai *software*-ren aldetik, datuak gordetzeko sistema jakin

---

<sup>6</sup> Ezin aipatu gabe utzi Iñaki Kareagaren eta Andoni Sagarnaren ekarpenak: ikus, besteren artean, Kareaga 2007, 2008; Sagarna 2008. Horren guztiaren garapen praktikokoan ezinbestekoa izan da 2008ko erdialdetik aurrera Alazne Gorrotxategi EHSren informatikariaren laguntza. Azpimarratzekoa da noraino bat datozen Euskaltzaindiaren interes informatiko orokorrak zaindu behar dituzten lankideen eta EHS proiektuaren partaideen behar informatiko bereziak: bi aldeek EHSrentzat bilatzen den soluzioa Euskaltzaindiaren jokabide estandarretan egoki integraturik izatea nahi dute.

<sup>7</sup> Beren azalpenak dokumentuazio linguistikoari begira idatzita badaude ere, horiek, behar denean egokiturik eta beste batzuetan bere hartan, egokitu gabe, dokumentazio soziolinguistikorako ere balio dute sarritan.

baten balioa azkar iraungitzen da eta hurrengoarekin bateraezin gertatzeko arriskua dago. Arazo hau larriagoa da berariaz eraikitako aplikazioetan. Estandar bihurtu diren aplikazioek, ordea, hurrengoarekin bateragarriak izateko aukera gehiago dute, oro har: beren garrantzia eta bolumenarengatik hurrengo dispositibo- eta software-belaunaldiak ezinbestean kontuan hartu ohi ditu.<sup>8</sup>

- Kostuetan, azkenik, badago aldea: berariazko aplikazioa sortzeak gastu handiagoa dakar berarekin soluzio estandarren batez baliatzeak baino.

Aski goiz erabaki zen, beraz, soluzio estandar batera jotzea, gaur egun aski ezagunak diren pdf luzapeneko fitxategiak erabiltzen dituen Adobe Acrobat Pro-ra hain zuzen ere. Dokumentuak gordetzeko nazioarteko estandar aski zabaldua bihurtzen ari den neurrian EHSri aukera egokia iruditu zaio.

### 3.4.2. Nola islatu aipua?

Lankideek aipu jakin bat datu soziolinguistiko baliagarriren bat duelako jaso nahi dutenean nola islatuko da hori informatikoki? Aski luze eztabaidatu ondoren eta irtenbide bat baino gehiago probatu ondoren aukeratutako irtenbidea honako hau izan da: aipu bakoitzeko pdf orri edo, aipuaren luzerak edo orrialdeen arteko banaketak hala eskatzen badu, orri-multzo bat sortzea, nahiz eta horretarako zenbaitetan pdf-orri berberaren kopia bat baino gehiago egin behar izan. Horrela, orrialde horrekin lotzen diren etiketa guztiak aipu bakar bati egokituko zaizkio. Bestetik, pdf-orri bakoitzean aipua nondik norakoa den argitzeko tresna informatikoak testua nabarmentzeko ematen dituen funtzioez baliatuko gara.

---

<sup>8</sup> Hona hemen Bird & Stevens-ek (2003: 575) puntu honetaz diotena:

“6.2. Formatua.

(4) Irekitasuna.

(a) Gorde hizkuntza-dokumentazioa eta deskribapena irekiak diren formatuetan (hots, beren espezifikazioak argitara eman diren eta jabe baten menpekoak ez direnetan).

(b) Hornitzaile antzengandik lor daitezkeen software-tresnak sostengatzen dituzten formatuei lehentasuna eman.

(c) Tresna libreak dituzten formatuak lehenetsi, tresna komertzialak soilik dituztenen aurrean.

(d) Argitara emandako formatu jabedunei (adibidez, Adoberen Dokumentu Garraiaagarriaren Formatuari (PDF) eta MPEG-1 Entzutezko Geruza 3 (MP3)) eman lehentasuna, isilpeko formatu jabedunen aurrean (adibidez, Microsoft-en formatuak).”



### 3.4.3. Metadatuak zein formatutan gorde?

Azken eztabaidaleku nagusia etiketak gordetzeari dagokio. Behin-behineko izaera duen jokabidea azaltzen da ondoko lerrootan.

Bi mailatako metadatuak bereizi dira proiektu honetan: dokumentu (liburu, artikulu, hiruorriko...) jakin oso bati dagozkion datu bibliografikoak eta, bestetik, dokumentu horren aipuei dagozkien sailkapen soziolinguistikoenak, thesaurusean jasotakoak hain zuzen ere.

Bi maila horiek islatzeko bi jokabide desberdin aukeratu dira. Horrela, lehenengoetarako Dublin Core izeneko estandarren metadatuak erabili nahi dira; bigarrenetarako, ordea, arestian deskribatutako thesaurusean oinarritutako etiketa-sistema erabiliko da. Argi dezagun, jarraian, aukera bakoitzaren zergatia.

Datu bibliografikoez hitz egiten dugunean badago, gaur egun, estandar bat baino gehiago eskueran. Horien artean MARC21 Euskal Herrian aski ezaguna da eta estandar horretan oinarritzen da, hain zuzen ere, bertako hainbat liburutegitan erabiltzen den ABSYS katalogo-aplikazioa. Dena den, MARC21ek duen helburua eta EHSrena desberdinak dira: MARC21ek liburu fisikoaren xehetasun handiko katalogazio osoa ahalbidetu nahi du; EHSn ez da hainbeste egiteko asmorik, sarritan baliabide fisikoa ez baita EHSren esku egongo.

Bigarren aukera bat BibTex estandarra da, LaTeX estandar informatikoaren arabera bibliografiari begira egindako garapen espezializatua. Bibtex estandarra erabiltzen duten aplikazio aukera zabala dago gaur egun merkatuan, adibidez JabRef. MARC21en ondoan BibTex-en helburua apalagoa da, agian EHSren beharretarako apalegia: katalogatzeko baino gehiago, oinarri-zko erreferentzia bibliografiko hutsak egiteko balio du.


Azkenik, Dublin Core (ANSI/NISO 2007; ISO 2003) aukeratu da. Nahiz eta berez euskarri elektronikoko baliabideak etiketatzeko asmatu, EHSk dituen beharretarako, MARC21ek erantzuten dienak baino apalagoak eta BibTexek erantzuten dienak baino apur bat zabalagoak diren horietarako, egoki jo da; gainera, pdf-ren estandarrek Dublin Core-en arabera jasotako datuei euskarria berez eskaintzen die.

Bigarren kontua da zergatik berariazko etiketa-sistema sortu dugun, estandarren bat erabili ordez. Badaude datu linguistikoak etiketatzeko eta gordetzeko jokabide estandarizatuak, jakina: ikus, adibide gisa, Gippert *et al.*

(2006); eta interneten: Dokumentation Bedrohter Sprachen; ISLE MetaData Initiative; Open Language Archive Community. EHSk asmatutako sailkapen soziolinguistikoa, ordea, berria da; nazioartean oraindik, guk dakigula, antzekorik ez dago. Datu bibliografikoetan ez bezala, beraz, ezin izan dugu nazioarteko estandar batera jo.

Zorionez, pdf estandarrak badu halako etiketa-sistema propioa kontuan hartzeko modua, RDFren bidez. Hona EHSk nola jokatzeko asmoa duen<sup>9</sup>: EHSko soziolinguistek aipu jakin bati dagozkion metadatu soziolinguistikoak dokumentu batean XML hizkuntzan jasoko dituzte; etiketatze-akatsak gutxitzen laguntzeko horiek egiten dituzten aukerak DTD fitxategi baten edo, bestela esanda, XML eskema baten kontra balidatuko dira; balidatutako XML fitxategi horri XSLT bihurgailua aplikatuko zaio, XMLko datu horiek RDF hizkuntzan berridazteko; berridatzitako RDF datu horiek kasuan kasuko pdf fitxategian txertatuko dira; geroztikako zuzenketak errazteko, XML fitxategiak ere gordeko dira.

#### 1. irudia: berriazko metadatuaren trataera



Baten batek agian galdetuko du zergatik hainbesteko konplikazioa, zergatik informatika-hizkuntza batean idatzi eta gero beste batera bihurtu. Eran-

<sup>9</sup> Bird & Stevens-ek (2003: 575) proposatutakoari aski hurbildik jarraitzen dio, berririo ere, EHSk:

- (6) Etiketatzea.
  - a. Etiketatze deskribatzailea lehenetsi, aurkezpeneko etiketatzearen aurrean.
  - b. DTD edo eskema laguntzaile duela, XML lehenetsi, etiketatze deskribatzaileko beste-lako sistemen aurrean.
  - c. XMLren DTD edo eskema ez bada lehendik artxiboratutako estandar bat, artxibora ezazu. Aldaera bakoitzari eman identifikatzaile esklusiboa.
  - d. ...

tzuna aski erraza da, ordea: XML hizkuntza hizkuntza naturaletik aski hurbil dago eta erraz ikasten da; RDF maneiatzeko berariazko prestakuntza behar da eta erabiltzeko orduan kontu handiagoz ibili behar da. Markatzaileei RDFn zuzenean idaztea eskatzea ez litzateke arrazoizko eskakizuna izango.

Azaldutakotik ikusten denez ezin da oraindik esan EHSk bere behar informatikoetarako behin betiko konponbide heldua topatu duenik, baina hasierako planteamendu sinplistetatik aski urrundu da EHS honez gero eta hainbat oinarri finkatu ditu. Hurrengo fase honetan behin-behineko soluzio hauekin lan egin behar du EHSk, gero eskarmentuaren arabera epe luzerako sistemaren ezaugarriak finkatu ahal izateko: epe luzeko jokabide informatiko horrek, gainera, EHSz kanpoko jendeak, berezilariek zein kaleko interesdunek, metatutako materialen artean lagundutako bilaketak egitea ahalbidetu beharko ditu, web-interfaze egoki baten bidez. (N.G.)

## Bibliografia

### *Paperezko euskarrian dauden testuak*

- Bird, S. eta Simons, G., 2003, "Seven Dimensions of Portability for Language Documentation and Description", *Language*, 79. liburukia, 3: 557-582.
- Fishman, J., 1990, "Eskolaren Mugak Hizkuntza Biziberritzeko saioan" in: *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*.
- Gippert, J., Himmelmann, N. P. eta Mosel, U. (ed.), 2006, *Essentials of Language Documentation*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter. [Azalpen hau prestatzeko erabilitako gaztelaniazko bertsioa: Haviland, J.B. eta Flores, J. A. (koordinatzaileak) (2007) *Bases de la documentación lingüística*. México D. F.: Instituto Nacional de Lenguas Indígenas.]
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1990, *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. 1. tomoa: ponentziak eta komunikazioak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Jenkins, G. H. (ed.), 1998, *Language and Community in the Nineteenth Century*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- , 2000, *The Welsh Language and its Social Domains, 1801-1911*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.

- , 2001, *The Welsh Language before the Industrial Revolution*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Jenkins, G. H. eta Williams, M. A. (ed.), 2000, *'Let's do our best for the ancient tongue': The Welsh Language in the Twentieth Century*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Jones, D., 1998, *Statistical Evidence Relating to the Welsh Language*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Kaplan, R. B. eta Baldauf, R. B., 1997, *Language Planning: From Practice to Theory*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Kareaga, I., 2007, "EHS mintegia. Ondorioak: IKTen ikuspuntua." Argitaratua gabea.
- , 2008, "Proiektu-plana EHS lantalderako azpiegitura informatikoa ezartzea." Argitaratua gabea.
- Sagarna, A., 2008, "EHS egitasmoaren jakintza-basea." Argitaratua gabea.
- Williams, M. A. eta Parry, G. (ed.), 1999, *The Welsh Language and the 1891 Census*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.

### *Euskarri informatikoan dauden testuak*

- ANSI/NISO, 2005, "Guidelines for the Construction, Format, and Management of Monolingual Controlled Vocabularies (Z39.19-2005)." <http://www.niso.org/standards/resources/Z39-19-2005.pdf>.
- , 2007, "The Dublin Core Metadata Element Set (Z39.85-2007)." <http://www.niso.org/standards/resources/Z39-85-2007.pdf>.
Bastantes autores hacen una valoración positiva, en general, del proceso de normativización del aragonés: Fernández Rei 1999; Gallmüller 2004; García Grau 1997; Gargallo 1999, 2006; López Susín 2000, 2006; Metzeltin 2001, 2004; Nagore 1999b, 2005; Quintana 1990, 1999, 2002; Sistac 2006. No obstante, también se encuentran algunas posiciones críticas (entre otras: López García 2003, Mott 2002) e incluso contrarias no solamente al proceso de estandarización sino también al reconocimiento oficial (Martín Zorraquino 2003, Martín Zorraquino / Enguita 2000).

Un quinto punto que nombra Metzeltin (2004: 31) en el proceso de estandarización es la oficialización mediante una legislación apropiada. Este aspecto quedaría dentro de lo que los sociolingüistas llaman “planificación del estatus” (frente a los anteriores, que estarían dentro de la llamada “planificación del corpus”). En relación con esto, cabe recordar que desde 1982 Aragón dispone de un Estatuto de Autonomía. El art. 7 del Estatuto (reforma de 2007) habla de “las lenguas y modalidades lingüísticas propias de Aragón” (no del aragonés ni del catalán) y de una Ley de Lenguas de Aragón que deberá aprobarse para regular su régimen jurídico, promoción y uso. En 1998 y 2001 se redactaron anteproyectos de Ley de Lenguas (en base a la reforma del Estatuto de 1996), que no llegaron a presentarse en las Cortes. Hay una serie de leyes aprobadas por las Cortes en que se nombra la lengua (aunque apenas se aplican): todas ellas deberían coordinarse mediante la citada Ley de Lenguas, (López Susín, 2000; Nagore, 2004b).

En junio de 2009 el grupo parlamentario del PSOE (no el Gobierno de Aragón, pues el otro socio, el PAR, se opuso) remitió un proyecto de Ley de Lenguas a las Cortes de Aragón. Tras su tramitación fue aprobado con un texto muy corregido y ampliado, en el pleno de las Cortes de Aragón de 17 de diciembre de 2009 y publicado con el título de *Ley 10/2009, de 22 de diciembre, de uso, protección y promoción de las lenguas propias de Aragón* en el Boletín

---

<sup>20</sup> Un ejemplo en el que esto puede verse es el libro de C. Alcover (coord.): *Un nombre para ti. Índice de nombres propios*, Zaragoza, Gobierno de Aragón, 2005.

Oficial de Aragón de 30 de diciembre de 2009, entrando en vigor un mes después.

El artículo 2 de dicha ley especifica que “el castellano es la lengua oficial en Aragón” y que “el aragonés y el catalán son lenguas propias originales e históricas de nuestra Comunidad Autónoma”.

El artículo 7 establece varias zonas: a) la de utilización histórica predominante del aragonés; b) id. del catalán; c) una zona de uso exclusivo del castellano; d) zonas de transición-recepción. Pero no quedan delimitados estos territorios, sino que se señala el procedimiento para declarar los municipios de cada zona.

El artículo 10 crea el Consejo Superior de las Lenguas de Aragón, órgano consultivo, y el artículo 15 la Academia de la Lengua Aragonesa y la Academia Aragonesa del Catalán, como autoridad lingüística encargada de establecer las normas referidas al uso correcto de cada lengua.

La ley contiene además capítulos dedicados al patrimonio lingüístico aragonés, a la enseñanza de las lenguas propias (cuyo aprendizaje será siempre voluntario), al uso de estas en las Administraciones Públicas (los órganos competentes traducirán cualquier escrito presentado al castellano), etc. Se trata de una ley de mínimos: para que tenga resultados efectivos habrá de aplicarse de manera muy generosa. Un reciente y completísimo estudio sobre esta ley es el de López Susín/Soro (2010).

Por último, un sexto punto sería el de la medialización (Metzeltin, 2001: 20), es decir, enseñanza, medios de comunicación, etc., aspectos en donde la introducción del aragonés es muy precaria, apenas testimonial: cuatro profesores (cinco a partir del curso 2010-2011) en centros oficiales de enseñanza en todo el Alto Aragón, algunos cursillos para adultos, alguna revista, algún programa esporádico en radios no comerciales,... Los medios de comunicación y la enseñanza son fundamentales para la difusión de la norma. Pero para que el aragonés se emplee en aquellos y en esta hace falta una política lingüística clara y decidida a favor de la conservación y promoción del aragonés, apoyada en la norma jurídica que facilite esa acción política, la Ley 10/2009, de 22 de diciembre, de uso, protección y promoción de las lenguas propias de Aragón, herramienta necesaria, pero quizá no suficiente.

En resumen, en cuanto a la planificación del estatus, las instituciones no han tomado la decisión fundamental de declarar cooficiales ni el aragonés ni el catalán. La Ley de Lenguas afirma solamente que son lenguas propias de

Aragón. En la planificación del corpus no ha habido ninguna decisión por parte del Gobierno de Aragón (GA). La Ley de Lenguas atribuye el establecimiento de las normas para el aragonés a la Academia de la Lengua Aragonesa, que es de suponer que tenga en cuenta todo el proceso de normativización desarrollado en los últimos decenios. Cabe prever, que el proceso de normativización vaya avanzando también a través de la literatura y por medio de la actividad de asesoramiento (*Consello Asesor de l'Aragonés*). Ahora bien, para que ese proceso se consolide es necesaria la difusión de la norma y su progresiva aceptación social. El uso del aragonés común por particulares, aun dentro de sus evidentes limitaciones, puede ir produciendo una cierta normalización. Pero una verdadera estandarización no será posible sin un uso amplio del aragonés común en la enseñanza, en la administración y en los medios de comunicación.

## Bibliografía

- Alcover, M<sup>a</sup> del Carme (coord.), 2005, *Un nombre para ti. Índice de nombres propios / Un nombre ta tu. Endize de nombres propios / Un nom per a tu. Índex de noms propis*. Zaragoza: Departamento de Educación, Cultura y Deporte del Gobierno de Aragón.
- Alcover, C. / Quintana, A., 2000, *Plans reguladors d'ensenyament de l'aragonés i el català a l'Aragó*. Zaragoza, Publicaciones del Rolde de Estudios Aragoneses.
- Aliaga, J. L., 1998, "Documentos lexicográficos del Estudio de Filología de Aragón (I)", *Archivo de Filología Aragonesa*, 54-55 (1998), pp. 369-422.
- , 1999-2000, "Documentos lexicográficos del Estudio de Filología de Aragón (II)", *Archivo de Filología Aragonesa*, 56 (1998), pp. 337-442.
- Aliaga, J. L. / Arnal, M. L., 1999, *Textos lexicográficos de Benito Coll (1902-1903) presentados al estudio de Filología de Aragón. Edición y estudio*. Zaragoza, Libros Pórtico.
- Alvar, M. / Buesa, T. / Llorente, A., 1979-1983, *Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*. 12 tomos, Madrid / Zaragoza, Seminario de Geografía Lingüística del C.S.I.C. / Institución "Fernando el Católico", 1979-1983.

- Andolz, R., 1977, 1992, *Diccionario aragonés. Aragonés-castellano / castellano-aragonés*. Zaragoza, Librería General, 1977; cuarta edición corregida y aumentada, Zaragoza, Mira editores, 1992.
- Arizón, I. / Plateuw, M. / Rodés, F. / Vallés, F. / Vidaller, R., 1996, *Bocabulario aragonés d'abes d'Uropa*. Uesca, Publicazions d'o Consello d'a Fabla Aragonesa (Colección "Puens enta ra parola", 6).
- Arnal, P., 1953, *Refranes, dichos, mazadas... en el Somontano y montaña oscense*. Zaragoza, Institución "Fernando el Católico", 1953. [Reimpr.: PRAMES, 1997].
- Arnal, M<sup>a</sup> L. / Giralt, J. (eds.), 2003, *Actas del II Encuentro "Villa de Benasque" sobre Lenguas y Culturas Pirenaicas* [Benasque, Huesca, 1-4 de septiembre de 1998], Zaragoza: Diputación General de Aragón.
- Bal, S., 2002, *Dizionario breu de a luenga aragonesa*. Zaragoza, Diputación General de Aragón, Departamento de Educación y Ciencia.
- Bernal, C. / Nagore, F. (eds.), 1999, *Diccionario aragonés* [anónimo de h. 1805-1815]. Zaragoza, Edizions de l'Astral (Publicaciones del Rolde de Estudios Aragoneses).
- Borao, J., *Diccionario de voces aragonesas*. Zaragoza, 1859; 2<sup>a</sup> edición: 1908.
- Coll y Altabás, B., 1918-1920, *Colección de voces aragonesas. Tomo I* [1918-1920], en Aliaga / Arnal, 1999, pp. 47-85.
- , 1921-1923, *Colección de voces aragonesas. Tomo II* [1921-1923], en Aliaga / Arnal, 1999, pp. 86-175.
- EBA, 1999, = *Endize de bocables de l'aragonés, seguntes os repertorios lesicos de lugars y redoladas de l'Alto Aragón* (F. Nagore, dir.). 4 tomos, Uesca, Instituto de Estudios Altoaragoneses, 1999. 1912 pp.
- Fernández, F., 1999, "El aragonés, lengua románica (re)emergente". En Nagore / Rodés / Vázquez (eds.) 1999, pp. 43-74.
- Gallmüller, T., 2004, "Encuesta sociolingüística sobre actitudes y valoraciones de los jóvenes de Huesca capital hacia el aragonés", en Nagore (ed.) 2004, pp. 297-328.
- Garcés, A., 2002, *Fraseología de habla popular aragonesa*. Edición a cargo de F. Nagore. Uesca, Publicazions d'o Consello d'a Fabla Aragonesa (Colección "Puens enta ra parola", 13), 2002; 2<sup>a</sup> edición, 2005.



- García, M., 1997, “El cas d’un idioma (encara més) minoritzat dins l’Estat Espanyol, vist sota el prisma sociolingüístic: la fabla aragonesa”, en: *Polítiques (i) lingüístiques*, Barcelona: Publicacions de l’Abadia de Montserrat, pp. 159-178.
- Gargallo, J. E., 1999, “El aragonés en su contexto romance”, en Nagore / Rodés / Vázquez (eds.), 1999, pp. 11-29.
- , 2006, “D’un temps, d’un romanç. L’aragonès en la seua història recent”, en *La configuració social de la norma lingüística a l’Europa llatina*, Edició a cura d’Antoni Ferrando i Miquel Nicolás, Alacant: Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana (col·lecció “Symposia Philologica”, 14), 2006, pp. 375-398.
- Kuhn, A., 1935, “Der Hocharagonesische Dialekt”, *Revue de Linguistique Romane*, XI (1935), pp. 1-312.
- Latas, Ó. / Quintana, A., 2004, “A contrebuzión de Jean-Joseph Saroïhandy á ro conoximiento de l’aragonés”, en Nagore, F. (ed.), 2004, pp. 149-164.
- López, Á., 2003, “Sobre una posible ley de normalización lingüística de Aragón”, en Arnal / Giralt (eds.) 2003, pp. 139-150.
- López, J. I., 2000, *El régimen jurídico del multilingüismo en Aragón*, Zaragoza: Diputación General de Aragón / Caja de Ahorros de la Inmaculada, 2000.
- , 2006, *Léxico del Derecho aragonés*. Zaragoza, El Justicia de Aragón.
- López Susín, J.I. / Soro, J.L., 2010, *Estatuto jurídico de las lenguas propias de Aragón. La Ley 10/2009, de 22 de diciembre*, Zaragoza: El Justicia de Aragón.
- Martín, M<sup>a</sup> A., 2003, “Lenguas minoritarias y política lingüística en Aragón”, en Arnal / Giralt (eds.) 2003, pp. 11-39.
- Martín, M<sup>a</sup> A. / Enguita, J. M<sup>a</sup>, 2000, *Las lenguas de Aragón*. Zaragoza, CAI.
- Martínez, A., 1997, *Vocabulario básico bilingüe aragonés-castellano y castellano-aragonés*. Uesca, 1997; 2<sup>a</sup> edición, corregida y ampliada, Uesca, 2002; 3<sup>a</sup> edición ampliada, Uesca, 2008.
- Menéndez, R., 1903, “Trabajos sobre el aragonés”, *Revista de Aragón*, II (1903), pp. 242-248. [Reproducido en: *Luenga & fablas*, 7 (2003), pp. 123-127].

- Metzeltin, M., 2001, “Identidad y lengua: el caso de Aragón”, en Nagore / Rodés / Vázquez (eds.), 2001, pp. 15-21.
- , 2004, *Las lenguas románicas estándar. Historia de su formación y de su uso*. Oviedo, Academia de la Llingua Asturiana.
- Moneva y Puyol, J., 2004 [1924]. *Vocabulario de Aragón*. Edición y estudio de José Luis Aliaga Jiménez. Zaragoza, Prensas Universitarias de Zaragoza / Institución “Fernando el Católico” / Xordica editorial.
- Mott, B., 2002, “Aragonese: the Problem of Standardization”, en: M. Aurnague et M. Roché, *Hommage à Jacques Allières, Romania et Vasconia. 1. Domaines basque et pyrénéen*, Anglet: Atlantica, pp. 195-204.
- Nagore, F., 1977, 1989, *Gramática de la lengua aragonesa*. Zaragoza, Librería General, 1977; quinta edición, revisada y muy aumentada, Zaragoza, Mira editores, 1989.
- , 1990, “O *Indice* (1641) de Blancas, primer vocabulario aragonés —castellano conoxito”, *Fuellas*, 77 (mayo-chunio 1990), pp. 15-23.
- , 1999a, “Bentizinco añadas de libros en aragonés (1971-1995)”, en Nagore / Rodés / Vázquez (eds.), 1999: 395-419.
- , 1999b, “O prozeso de normalización de l’aragonés”, en: Nagore / Puig, 1999: 45-51.
- , 2003, “Os libros en aragonés en os años 1996-2000”, en *Luenga & fablas*, 7 (2003), pp. 93-108.
- , 2004a, “La llengua aragonesa entre l’extinció i la normativització”, en Pradilla Cardona, Miquel-Àngel (coord.), *Calidoscopi lingüístic. Un debat entorn de les llengües de l’Estat*, Barcelona, Octaedro — Ediciones Universitarias de Barcelona, 2004, pp. 215-244.
- , 2004b, “La situación legal de las lenguas en Aragón con especial referencia al aragonés”, *Quo Vadis Romania — Zeitschrift für eine aktuelle Romanistik*, 23 (2004), pp. 72-91.
- , 2005, “Peldaños en la normalización del aragonés entre 1974 y 2004: codificación, uso público, estatuto jurídico”, *Revista de Gestión Pública y Privada*, 10, pp. 165-197.

- Nagore, F. (ed.), 2004, *Estudios e rechiras arredol d'a luenga aragonesa e a suya literatura. Autas d'a III Trobada [2001]*, Huesca, Instituto de Estudios Altoaragoneses.
- Nagore, F. y Puig, P. (eds.), 1999, *Luengas menazatas y normalización*, Huesca, Publicacions d'o Consello d'a Fabla Aragonesa.
- Nagore, F. / Rodés, F. y Vázquez, C. (eds.), 1999, *Estudios y rechiras arredol d'a luenga aragonesa y a suya literatura, Autas d'a I Trobada [1997]*, Huesca, Instituto de Estudios Altoaragoneses.
- Pardo, J., 1938, *Nuevo diccionario etimológico aragonés*. Zaragoza, 1938.
- Peralta, M., 1836, *Ensayo de un diccionario aragonés-castellano*. Zaragoza, Imprenta Real, 1836; reimpresión: Palma de Mallorca, Pedro José Gelabert, 1853. Reproducción facsímil de esta última: Zaragoza, Ediciones Moncayo, 1986.
- Pottier, B., 1952, "L'évolution de la langue aragonaise à la fin du moyen âge", *Bulletin Hispanique*, 54 (1952), pp. 184-199.
- Quintana, A., 1989, "El Fons Joseph Saroïhandy de la biblioteca interuniversitaria de Burdeus", *Rolde*, 41-42 (1989), pp. 69-70.
- , 1990, "Die kodifizierung der neuaragonesischen Schriftsprache", en W. Dahmen / O. Gsell / G. Holtus / J. Kramer / M. Metzeltin / O. Winkelmann (coord.), *Zum Stand der Kodifizierung romanischer Kleinsprachen. Romanistisches Kolloquium V*, Tübingen, Gunter Narr Verlag, 1990, pp. 199-215.
- , 1999, "Chenesis y carauteristicas de l'aragonés común", en Nagore / Rodés / Vázquez (eds.), 1999, pp. 31-42.
- , 2002, "Bellas consideracions sobre o prozesos de normatibización de l'aragonés", *Caplletra*, 32, pp. 81-84.
- Saroïhandy, J.-J., 2005, *Misión lingüística en el Alto Aragón*. Edición y estudio de Óscar Latas Alegre. Zaragoza, Prensas Universitarias de Zaragoza / Xordica editorial, 2005.
- Sieso de Bolea, J., 2008 [1715-1724]. *Borrador de un diccionario de voces aragonesas*. Edición y estudio de José Luis Aliaga Jiménez. Zaragoza, Institución "Fernando el Católico" / Gara d'Edizions, 2008.

- Sistac, R., 2006, “Bases per a una política lingüística democràtica a l’Aragó”, en: Moret, Hèctor (ed.), *Batec a Batec. Miscel·lania de treballs oferts en honor de Josep Galan i Castany Calaceite*, Institut d’Estudis del Baix Cinca-IEA / Associació Cultural del Matarranya, 2006, pp. 125-132.
- Vidaller, R., 1989, *Dizionario sobre espeziez animals y bexetals en o bocabulario altoaragonés*. Uesca, Instituto de Estudios Altoaragoneses,
- , 2004, *Libro de as matas y os animals. Dizionario aragonés d’espezies animals y bechetals*. Zaragoza, Consejo de Protección de la Naturaleza de Aragón.



**URRIAK 7 / 7 DE OCTUBRE**

---



HISTORIA ETA DIALEKTOLOGIA

---

*Joseba A. Lakarra* (Argit. / Edit.)





# Aitzineuskararen berreraiketaz: egindakoaz eta eginkizunez

JOSEBA A. LAKARRA

UPV/EHU — JUMI, Euskaltzain osoa

## 0. Laburpena<sup>1</sup>

1. Aitzinhizkuntzen natura eta egitekoaz; 2. Metodo konparatuarekiko ustezko alternatibez; 3. Aitzineuskararen berreraiketa estandarraz; 4. Berreraiketa berri baterantz; 5. AE-ren egungo berreraiketaren zenbait alderdi: I. Fonologia; 6. AE-ren egungo berreraiketaren zenbait alderdi: II. Morfosintaxia; 7. AE-ren egungo berreraiketaren zenbait alderdi: III. Lexikoa; 8. Gogoe-tak kronologiaz; 9. Ondorioak; 10. Bibliografia; 11. Eranskina.

## 1. Aitzinhizkuntzen natura eta egitekoaz

Oraindik orain irakurketa bikaina du berreraikitzaileak —edo horretarako zaletasunik duen edozeinek— Koldo Mitxelena-ren *Lenguas y protolenguas*, duela 45 urte lehendabizikoz argitaratu zen arren. Bertan aitzinhizkuntzen propietateak eta ikerketak aurkeztu zailtasunak inon baino argiago ikusi ahalko ditu, baita pisatuak eta azalduak ere zailtasun horiek, egilearen irakurketa, gogoeta eta jardun luze eta sakonei eskerrak.<sup>2</sup>

Aitzinhizkuntzak dira guretzat duela bi edo bost mila urte, honako edo harako tokitan, hitzegiten ziren eta gero denbora eta bilakabide larri edo arin, luze edo labur (baina etengabeen) bitartez, testu urri edo ugaritan aspaldi edo

---

<sup>1</sup> Lan hau Madrilgo Ministeritzak lagundutako “Monumenta Linguae Vasconum III” (FFI2008-04516) Ikerketa-Egitasmoaren eta Eusko Jaurlaritzako GIC.IT486-10 Ikerketa Taldearen emaitzetarik da.

<sup>2</sup> Ez da inoiz aski markatuko *Fonética histórica vasca*-kin (1961) eta *Sobre el pasado de la lengua vasca*-kin (1964), euskararen diakroniaren bi gailurrak aipatzearen, *LyPL*-ek (1963) duen lotura.

atzo bertan lekukotu, geografia zahar berean edo handik urruti, hiztun asko edo gutxiko tradizioetan, hizkera, dialekto eta hizkuntza multzo bilakatutako zerak. Alabaina, “aitzinhizkuntza” deitzen ditugu, orobat, ondoko hizkuntzak (oro har, bat baino gehiago izan ohi baitira) eta hauetako lekukotasunak oinarri hartuaz, gehi metodologia ezagun eta orokorra erabiliaz —metodo konparatua, alegia— berreraiki ohi ditugunak.

Halabeharrez, hauek besteen ordeaz ere erabili ohi ditugu usu gure lanean, berreraiketaren segurtasunaren arabera, noski, baina komeni da ez nahastea, inoiz bere osotasunean berreskuratuko ez duguna —beste edozein giza-hizkuntza bezain oso bere egitura guztietan zena— eta gure ahaleginen, lanabesen, trebeziaren, teoriaren sendotasunaren eta, zergatik ez, zortearen arabera berreskuratutako irudi kamuts eta ilaun baina ezinutzizkoa; ni bigarren honeztaz arituko naizenez soilik (ez naiz bestetarako gai), komeni da behingoa gogoan izatea esandakoa hitzaldian zehar.

Dakigunez, nekez izango da ezer berreraiketarako aitzinerromantzea baino egoera hobean eta abantaila gehiagorekin, dela lekukotasunei, dela iker-tzaileen maila eta kopuru erraldoiari, dela aitzinhizkuntza horretatik sortu-tako ondoko hizkuntzen historia aberats eta hornituari dagokionez... Baina, hala ere, inor ez da gauza izan aitzinerromantzearen hamar bokalak eskuratzeko, bederatzi baizik, edota deklinabide markak edo aditz-joko aberatsak berregiteko erromantze hutsen lekukotasunaren bitartez.<sup>3</sup>

Hau ikusirik ez da zer harritu AE-ren kasuan gure ezagutzak eta emaitzak are apalagoak badira: guk ez dugu latinak oinordekotzat utzi familia zabala, ezta familia horretako hizkuntza anitzek duen lekukotasun zahar eta berritako zerrenda handi-oparoa ere; ez dugu, azkenik, hainbat hamarkadatan eta ia mende t’erdi luze eta eraginkorretan aritutako ikertzaile trebe samaldarik eta sarri ez dugu onuragarri izango genituzkeen ikerketen berri ere... Gauzak diren bezala dira eta gertakariok nik bezain gogoz kontrako badituzue ere, ezin saihestu ondoren aurkeztua epaitzerakoan.

Zailtasunak zailtasun —eta gehienenak bezain larri edo ago gureak—, komeni da argi uztea hizkuntzalaritza historikoan ezin pasa gaitzkeela aitzinhizkuntzarik gabe eta, beraz, ezta AE gabe ere, euskalaritzan eta hortik kanpo zenbait korrante ustez alternatibok aldarrikatu legez; ik. Lakarra (1997b, 1999) eta hemen §3. Eta hori zergatik? Batetik, berreraikitako aitzinhizkun-

<sup>3</sup> Aski argia da Mitxelena (1963); geroztik ikus litezke beste askoren artean Dardel (1996) edo Herman-en lanak (1990-2006) eta haietako bibliografia.

tzak direlako benetan lekukotasunik gabeko hizkuntza mintzatuetara edo garai jakin bateko lekukorik gabeko hizkeretara iristeko bide bakarrak. Bestetik, berreraiketak eurak (aitzinhizkuntzak) ez zaizkigulako berez edo hutsean axola, anekdotazaleak eta amateurak kenduta bederen, haien bitartez lor genezakeenagatik baizik. Eta zer da lor genezakeen hori? Bada, familiak direnean, ez da ahaide-izaera horren froga garbiagorik lege fonetikoak ezartzea —eta horien bitartez ahaidetasuna segurutzat eman ondoren— aitzinhizkuntza, zeinetarik sortu ziren ondoko hizkuntza guztiak, berreraikitzea baino.

Aitzinhizkuntza berreraikira (aitzineuskarara) irits gaitzenez ere (horrelakorik tajuz inoiz lor bagenez),<sup>4</sup> ez hori baizik eta harako garai eta leku hartan mintzatua genuke gure irispide eta helburu nagusi, eta hau, gainera, familia zabalako nahiz laburrekoetan edota are bakarrekoetan ere, berreraiketa ez baita norabide bakoitzeko jardun edo jolasa: ez dira, soilik, jatorri harrapagaitzak gure eginkizun, alegia. Diakronistak historia, bilakabidea, du burutan eta aitzinhizkuntza ondoko garai ezberdinetako aldaketa, irregularitate eta ezaugarri ulergaitz asko ezin antzeman ere litezke aitzinhizkuntza bera sakon eta zabal ezagutu gabe.

Euskararen kanpoko historiari edo konparazio amaitezinei gaur ez diedanez lerro erdi ere emango (ikus Mitxelena 1964, Trask 1997, Gorrotxategi & Lakarra 2001), esan dezadan ikerketa historiko, arkeologiko, antropologiko edo genetikoetarik segurtasun minimo batez atera litekeen ezer gutxi dela interesgarririk hizkuntzan; bestetik, norbait zakar irudituko bide zaion arren, ez dut gogoan —eta gustora aldatuko nuke iritzi ezjakin hori norbait horrek kontrakoa erakuts baliezait—, inongo aurrerapenik, ez txikirik ez handirik, AE-ren egituran eta horren historiaurreko bilakabidean zein euskara historikoaren egituran gure hizkuntza orain honekin eta gero harekin, beti urliari edo sandiari hobekien letorkiokeenarekin, ahaidetasun genetikoak bilatzeko konparatu izan dutenen lanetik (ik. Lakarra 1999, 2006a, 2009a).<sup>5</sup> Zorionez

<sup>4</sup> Indoeuopera berreraikian fabulak eta guzti idatzi dira jakina denez; ikusi egin behar zer gelditzen den gaur aurreko ikertzaile belaunaldiek garaian garaiko berreraiketa paradigmaten arabera emandakotik. Bitxia da euskalaritzaren tradizioan horrelakorik ez izatea, beste zer bait baitira Andramendiko idazkiak, Hannibalen kantua edo Veleiako ostrakak.

<sup>5</sup> Lehenago ere izan da honelakoak gogoko izan ez duenik, jakina:

(...) estoy plenamente convencido ahora [30/XI/1954] de que una parte muy considerable de sus paralelos es errónea, y que esto puede demostrarse, que otra gran parte es absolutamente problemática, e incluso, que si alguna vez cierta, le ocurre esto por completa casualidad y a pesar de sus mejores esfuerzos para no conseguirlo. En una palabra, él no investiga nada; se limita simplemente a tratar de demostrar, como sea, una idea preconcebida. Comprendo que le va mucho en ello, puesto que en esto parece haber cifrado el

edo zorigaitzez, hori da, —azalpen diakronikoa—, hizkuntz familia garatu guztien egitekoa eta ederki burutzen dute egiteko hori, istorio eta ipuintxoetan norberaren eta inoren astia galtzen eta galarazten saiatu gabe:

If we want to say, with Greenberg, that demonstrating genetic relationship does not require any kind of reconstruction, then I think it's appropriate to ask what the purpose of our genetic classification is. I believe that most historical linguists value the classifications because they help us find out about the histories of the languages in a family. We reconstruct parts of their common protolanguage and then use those reconstructions to study and compare the changes that have occurred in the various daughter languages. In other words, *to be useful to a historical linguist, a hypothesis of genetic relationship must be fruitful: a valid genetic grouping will permit reconstruction and thus lead to a better understanding of the member languages and their histories. If a genetic hypothesis does not lead to new insights of these kinds, then it is sterile and, within linguistics, useless* (Thomason 1993: 494; etzana neurea).

Esan gabe doa hizkuntza isolatueta ere argudiaketa berbera litzatekeela. Ez bide letorkiguke gaizki, bada, gu baino aitzinatuagoen jokamoduari lotzea.

## 2. Metodo konparatuaren ustezko alternatibez<sup>6</sup>

2.1. Ezagun denez, II. Mundu Gerra ondoren M. Swadesh eta beste zenbait hizkuntza amerindiarren berezilaria batzuek glotokronologia landu nahi izan zuten metodo konparatu klasikoaren alternatibatzat, honek nahi adinako laguntzarik beren esparruan ematen ez baitzien. Euskalerrira metodo berri horren oihartzunak (Tovar *et al.* 1961) hor zehar metodoa gainbehera zihoalarik iritsi ziren enparatuetaiko antzeko saioetan bezala (cf. Mitxelena 1954b), zenbait hizkuntza kaukasiar eta beste hainbat hamitiko-semitiko euskararekin (eta eurak euren artean!) erkatuaz.<sup>7</sup> Emaitzarik hoberenak —euskara eta Rif eta Sus-eko hizkuntza bereberren erkaketenak— ez ziren erabatekoak: %6-%9,67 eta %7,38-%10,86 bitartekoak, hurrenez hurren; horrenbestez Swadeshek presta-

---

éxito o fracaso de su obra científica, pero esto no es razón para que los demás vayamos a aceptar sus argumentos cuando, como ocurre tan frecuentemente, son completamente forzados y contrarios a todo lo que podemos saber sobre la historia de las palabras y de los sonidos vascos” (Mitxelenak Boudaz Holmer-i; *apud* Satrustegi 1998: 325-326).

<sup>6</sup> Atal honetaz ikus zabalago Lakarra (1997b) eta (1999).

<sup>7</sup> Ikus 10. oharreko Dixonen aipua. Izan zen Txillardegiren beste saio —zorionez— ezezagunago bat ia hogeita hamar urte beranduago (¡); honetaz esateko guztia esana utzi zuen Mitxelenak (1979b)-n.

tuak zituen gordekinen portzentaien araberako aitzinhizkuntzaren (\*aitzin-euskara-berebereraren) etenaren data duela 80-95 edo 70-90 mendekoa omen. Ez da soilik antzekotasun urriegiak eta (ondorioz) denbora kopuru zabalegiak direla; ez da, gainera, (aski eta sobera izaki) portzentai horiekin ez dakigula zer egin edo zer pisu eman, usu esan denez, ez baitugu segurtasunik beren aldaketa iraunkorraz edota erabilitako erkagaien egokitasun semantiko edo kulturalaz.

Lehenagoko eta oinarrizkoago aitzakiarik bada glotokronologiari dagokionez: hainbat formalizazio-saio gora-behera (cf. Bender 1969, batez ere) ez da modurik erabakitzeko —ikertzailearen usnakea trebeziaz landa— hartu edo baztertu diren kognadoak edo kognadotzakoak onak edo okerrak diren.<sup>8</sup> Izan ere, horrelako ezertarako lege fonetiko ahalik eta hertsienak genituzke beharrezko, horien gainean —gehi hainbat lan filologiko lagungarriarenean— baieztza bailiteke bi morfema jatorri bereko edo beren (“begiko” nahiz “sudurreko”) axaleko antzekotasun edo urruntasunak (cf. eusk. *etxe* [eçe] : fr. *chez* [še] vs. lat. *duo* : arm. *erku*) gora-behera. Tovarren erkaketa seguruenak hartu baino ez da ohartzeko lillura hutsera ere ez direla hurbiltzen, are Bender eta gainerakoen gutxieneko CVC-ra ere iritsi gabe:<sup>9</sup>

(1) E *ni* : SB *nekk(i)*, *nekki:n*; RB *nes*, *nis* oso ahula da: *-i* dugularik 2. pertsonan ere (eta *-u* pluraleko lehen bietan) *n-* hutsa gelditzen zaigu; VC genuke \**en-* batekin arituaz (cf. *ene*, *eni*)... *e-* hori zer den bageneki.

(2) E *i* : SB *kiyin*, *kiy* ezerezean gelditzen da (1)en iruzkinaren ondoren: \**khi* batetik abiatuaz ere soilik C- genuke.

(4) E *gu* : BS *nekn*, f. *nkweni* kognado segurutzat izatea harrigarria da; aurreko sarreretan esandakoaz gainera, nabarmena da (cf. 1) berebereraz singularraren gainean eratua dela.

(24) E *au* : BS *guad*; BR *wa. haur*-etik (< \**kaur*) abiatu behar dugu, honela CVV edo genukeelarik. Alabaina *-ur* amaiera berezi ahalko bagenu CV baino gutxiago geldituko litzaiguke.

(34) E *itzuli* : BR *emgulii*, itxuraz hobetu egiten da \**e-* batetik abiatuaz, baina hori aurrizki bat dugu; VC (*-ul*) baino ez zaigu erroan gelditzen. Euskarazkoa \**atze-(e)dul-i*-tik badator —gogora ing. *go back*— are okerrago.

<sup>8</sup> Ikus Campbell (1973) non Benderren lege fonetikorik gabeko *matching*-aren formalizazio-saio hori ere (aurkeztutako bikainena) ez dela asebetekoa erakusten den; Benderren irizpidiak hertsiro beteaz bi hizkuntza ahaidetasunik gabekoen (katxikelaren eta suomieraren) eta beste bi ahaide ezagunen (ingelesaren eta hindiaren) ustezko antzekotasunak ezin dira metodoaren bitartez tajuz bereizirik agertu eta ez da, horrenbestez, haren baliagarritasunaz asko erantsi beharrik. Antzeko saio baterako ikus Peter (1992).

<sup>9</sup> E = euskara, SB = Sus-eko bereberera, RB = Rif-eko bereberera.

(39) E *etzan* : BR *zen*. CC garbi garbia genuke euskarazkoaren bigarren silabako bokalismoak (*-in, -un*) forma luzeagoa eskatuko ez balu.

(81) E *izar* : BS *agris*, BR *izri* CC (txist.-dardark.) itxuraz.

(119) E *emakume* : BS *tamgart*, BR *tamgart, tamettut, tisedent* euskarazkoa konposatua izateaz landa, *eme-* mailegua bide dugu.

(120) E *aur* : BS *arrau*. VVC dugu; *haur*-etik abiatuaz ez da ulertzen berebereraz zergatik galduko zen hasierako leherkari edo hasperena.

(121) E *gizon* : BS *argüz*, BR *argaz*. CC (leherk.-txist.) itxuraz.

(165) E *negar egin* : BR *segoi*. VC genuke berebereraz bokalak kontuan hartu ahal balira ere.

(168) E *beltz* : BR *abersan*. Ia CCC (*b-l/r*-txist.) dirudien arren euskarazko txistukaria atzizkia da; CVC genuke *l = r* onartuaz.

(172) E *ori* : BS *aurag*, BR *awereg*. C edo ia VC, gehienez ere; kontua da kognadoa desagertzen dela euskarazkoa *hor*-etik bereizi ezin delarik.

(173) E *zaar* : BS *asser*, BR *awessar*. *zahar*-etik abiatuaz gauzak zaildu egingo bide lirateke (cf. 120), batez ere *\*zanar < \*zan-or* edo balitz (cf. *azkar < haz(i)-gor*).

(174) E *legor* : BS *gar*. Oso ahula, euskarazkoan bokalarteko herskaria be-rankorra baita beste askotan legez eta mailegua, beharbada.

(191) E *ama* : BS *gimmi*. Ez dirudi oso erabilgarri inongo konparaketatarako eta are gutxiago euskaraz bere *-m-* horrekin; bidenabar C bakarra dugu eta bokalismoak ere ez dirudi egokiegi.

(195) E *soka* : BS *iziker, asgun*. Mailegua, euskaraz bederen.

(207) E *izen* : BS *isem*, BR *isem*. Orain berebereraz da mailegu argi; euskaraz, bestalde, bada *uzen* ere eta, horrenbestez, *\*eu-* edo *\*eCo-* batetik letorke (cf. *urten/ irten < egorten*).

Mailegu, berrikuntza, mozketak eta analisi gaiztoak... dozena t'erditik dozenerdira edo laurdenera jaisten dira kognadotzakakoak eta era berean handitzen ustezko jatorrizko etena beren arteko aitzinhizkuntzetan; eta hori soilik euskararen aldetiko akatsak kontuan harturik —hots, berebereraren aldetik izan litezkeenak ezertarako ere gogoan hartu gabe— eta BS nahiz BR (ez bata *ala* bestea) erabiliaz kognado bila.

Aintzin-AE-bereberera noizkoa zen aztertzea —izan zela aurretiaz eta beste frogarik gabe onartuaz, alegia— egiantzekoena omen zelarik ez da zer esa-

nik gainerako AE-enparatuez.<sup>10</sup> Izan ere, ez da ohiko metodo konparatuaren eta barneberreraiketaren alternatibarik aurkitzea hizkuntzalaritza historikoaren jardunean; ez hizkuntzak (edo hizkuntza aldaerak) erkatzeko ez horretarako eta haien historia eraikitzeko ezinbesteko den berreraiketarentzako:

En conclusion, la glottochronologie nous paraît être une technique mal fondée, fause et même théoriquement absurde. Et de par sa facilité même —et superficialité— elle nous paraît représenter un danger pour la linguistique contemporaine. Un danger encore plus grave que ne l’est la glottochronologie en elle-même: c’est celui qu’implique la quantification de ce qui n’est pas quantifiable, la prétention de remplacer la méthode comparative et l’histoire par les mathématiques et le calcul. On a souvent l’impression qu’en employant des symboles et des chiffres, l’on est exact et cohérent. Mais l’exactitude réside en réalité dans la pensée et dans sa correspondance aux faits, et non pas dans les symboles et les chiffres, qui sont de simples instruments, parfois commodes, pour l’expression de la pensée. Si la pensée est fausse ou absurde, les symboles et les chiffres ne nous permettent pas de la rendre exacte et cohérente en elle-même: ils nous permettent seulement d’être d’une fausseté et d’une absurdité mathématiquement parfaites (Coseriu 1972 [1965]: 452).<sup>11</sup>

**2.2.** Zaleren batzuek besterik uste arren, ofiziokoen artean hizkuntzen erkaketa eta sailkapen genetikoak ez dira iritzi hutsetara mugatzen; egia da baieztapen ugari aurkitu ohi direla honako edo harako hizkuntzaren familiaren (edo etorkiaren) inguruan baina horiek nekez zaizkie asebetegarri iruditzen ofiziokoei; ikus, bestela Campbell (1998: 312-313) “makrokonparaketen zerrenda beltza”, esaterako: euskara bitan (“Basque-Caucasian” eta “Basque-Sino-Tibetan-Na-Dene”) agertzen da mundu mailan diren hiru bat dozena proposamen “berretsigabe” famatuenen —hots, ofiziokoek kontuan hartzen ez dituztenen— artean; dozenaka direlarik mundu mailan euskara bezala isolatutako hizkuntzak (cf. Campbell 2007) eta ehundaka izterlehengusurik gabeko bizpahiru kideko hizkuntza familiak... ez da zalantzarik: euskara oso gora da modu merke eta oinarririk gabea sailkapen genetikoetan erabilitako hizkuntzen talde hitsean.

<sup>10</sup> Metodoa bera ez litzateke guztiz onartezina dialektoen arteko konparaketan hor AE-tik datozela eta lege fonetikoak ezagunak bailituzkete, bederen; besterik litzateke, jakina, onartzea aldaketa kopuru bera dela edozein denbora zatitan, hizkuntzaren edozein alderditan nahiz edozein hizkuntzatan.

<sup>11</sup> Cf. “Lexicostatistics and glottochronology are still practised in a few odd corners of the world (including Russia, where these methods were introduced in the 1980s, twenty years after being discarded by serious linguists in the West). I am sorry to have to report that one of these corners is in Australia” (Dixon 1997: 36, 5. oh.). Zorigaitzez, Euskal Herrian ere —hizkuntzalarari afizionatuen artean bederen (cf. Lakarra 1997b, 1999)— glotokronologiak izan du oihartzunen bat edo beste.



Nichols-ek ofizioko ez direnek —berak “nonlinguists” dio, optimismo larregixorekin— metodo konparatuaren bitartez eta bestela eraikitako hizkuntz sailkapen genetikoak bereizten ez dakitela dio; adibide gisa Cavalli-Sforza —Itsaso Bareko eta Ameriketako hizkuntzez egindako zenbait saio ura-likoaren edo IEren pare jarriaz— edo Renfrew dakartza. Ofiziokoentzat, ordea, metodo konparatuaz landako saioen ondorioak “probabilistic or speculative or even fanciful” (Nichols 1996: 39) dira eta Durie-k eta Ross-ek (1996: 4-9) metodo konparatuaren ordeztu Greenberg-ek (1987) eta bestek “multilateral comparison”, edo “mass comparison” delakoa erabiltzea salatzen dute, bere erakargarritasuna gora behera, begi-bistakoa baita duen oinarrizko ahulezia ere.

Euskararen jatorriaren kontua, zaletuen artean zaratatsua izan den arren —eta zarata horien oihartzunak ez dira erabat amaitu, noski— ez da ia garatu ofiziokoen artean, hots, hizkuntzalaritza historikoan trebatu eta aditu-aren artean, ez behintzat tajuzko ezer esan ahal izateko moduan. Ez da soilik (ez da gutxi!) ia edozein alde eta eratako hizkuntza eta hizkuntza familiarekin<sup>12</sup> erkatu izan dela gurea, Guinness liburuan goitik garelarik; are gutxi-eneko trebakuntza edo ospeko hizkuntzalariek bilatu dizkiguten ahaide-etzakoak ere (Kaukasokoa, hamito-semitikoa) ahulak eta egiantz urrikoak dira oso eta, batez ere, agorrrak guztiz gure hizkuntzaren edozein alderdi argitzeko orduan.

Duela hogeit bat urte Greenbergekin eta bere segiziokoekin ziotenez gora behera, hizkuntzalaritza historikoan sailkapen hutsa ez da, berez, helburu. Izatekotan ere, modu jakin batean egindako sailkapenek baino ez dute balio historikorik —ohiko metodo konparatuaren araberrakoei, alegia— eta, orduan ere, ez da hor agortzen ez amaitzen hizkuntzalari historikoaren egitekoa.<sup>13</sup> Fun- tsean Bopp-ekin familia linguistikoa IEa osatua zen, geroztik armeniera, hitite- ra eta tokarierak gehitu arren; hizkuntzalaritza IEak, ordea, Verner, Brug- mann, Saussure, Meillet, Benveniste, Kurylowicz eta beste izar askoren bitartez izan zuen aitzinamendurik bere egiteko nagusietan: hots, aitzin- hizkuntzaren berreraiketari, horren zatiketa eta ondorengo aldaketen ikerke- tan eta —azkenik baina ez gutxienean— familiako hizkuntza bakoitzaren egi-

<sup>12</sup> Cf. Vovin (1994) japonieraren etorkiez; Vovinek deritzenez japonierak omen du mundu osoko hizkuntzen artean jatorriei esandako kirtenkerietan erpina; ez jakin euskal tradizioa ezagutu baleza iritzi berari eutsiko liokeen.

<sup>13</sup> Ikus Campbell (1988), (1997) eta (1998), Matisoff (1990), Baldik (1990) bildutako lanak, McMahon & McMahon (1995), etab.; laburpen baterako bertoko adibideak tarteko, Lakarra (1997b) eta (1999).

turan eta bilakabidean diren eta zein bere aldetik nekez uler zitezkeen irregulartasun eta zertzeladen azalpenetan.<sup>14</sup>

Euskara (E) hizkuntza askorekin “ahaidetu” bai baina erkatu ez da egin, metodo gonbaratuaren usuko legeak jarraiki, bederen. Non da E-uralo-altaikoaren,<sup>15</sup> E-kaukasikoaren, E-na-denearen edo E-hamitikoaren fonetika edo morfologia gonbaraturik edo horretarako bidean lehen, behin-behineko, urratsik? Lafonek bere garaian Kaukasoko *hizkuntza gutxi batzuekin* (kartveliarrekin) lortu uste zituen korrespondentziaz esatekoak aspaldi esan zituen Mixtelenak, baita Boudarenez ere (ikus Lakarra 2007: §4.3, 2009e: §2).<sup>16</sup>

Ez da azaldu beharrik IE-ren, austronesioaren, uralikoaren zein beste edozein familiarren eta hizkuntzaren azterketan diakronian ez bezalako —erabat kontrako— jokamolde hauek erabiliak ez diola ezer onik ekarri euskal linguistika diakronikoari: ez dut ezagutzen ameskeria “konparatista” (genetikoek)<sup>17</sup> argitutako euskararen ezer baina edozeinek bila litzake neke handirik gabe sanskritoarekiko erkaketak grekerari dakarzkionak, latinarekikoak zeltikoari emanak, edota aitzin-zeltak eta hizkuntza zeltiko “osoen” zatikazkoentzako (dela galoa, dela zeltiberierarentzako) emendioak. Alabaina, erkaketa legeak betetzeko gogoaz landa, enparatuko hizkuntz erkaketetan aztertu ororentzat diren emendioak gurearentzat ez diren bitartean, “zuri eta niri zer, andrea?” esan beharko genuke harako hartan Orixek itzuli bezala.<sup>18</sup>

<sup>14</sup> Esana dugu aitzinhizkuntzak “berez” (anekdota-iturri den aldetik) ez duela aparteko interesik hizkuntzalariarentzat: \**ardano* zen, seguruenik, ‘vinum’ AE-n esateko modua; ederki, eta? Interes gehixeago du hizkuntzalariarentzat bokalarteko *-n- > h/ø* egiten dela (baldintza ezagunetan) euskaraz, *ballena* edo *ohore*-ren kasuan bezala, eta, hortaz, \**enazur*-ek \**ehazur* (> *hezur*, *azur*) eta \**enaeltz*-ek \**ehaeltz* (> *haitz*) baina *anaia* ezin litekeela \**anaia*-tik etorri (nahiz VnV- batetik), edota *anoa* \**anoa*-tik ere. Bide beretik, jakin liteke zergatik *harea* (< *arena*) edo *bodei* (< \**e-don-i*) eta *herio* (< \**elino*) izan arren ez dugun \*\**hardao*, \*\**hario* edo \*\**harrotz*-ik eta bai *ardao*, *jario* eta *arrotz*.

<sup>15</sup> Ez naiz hemen arituko azaltzen eta justifikatzen ofiziokoentzat zergatik ez den aspaldian (duela mende bat edo) familia uralo-altaikorik eta ezta altaikorik ere (hau duela menderdi edo, cf. Campbell 1998 gehi Vovin 2005), baina bai uralikoa, jakina (cf. de Alonso 2007). Hor zehar bada makrofamilia zaharkitu horretan sinistez landa euskarara bertan kokatua edo hari loturik ikusten duen doktore bat ere; pena hizkuntza horiei buruzko bibliografia berezitueta (ikus, esaterako, Abondolo 1998) inork kasu ez aipurik txikiena ez egitea delako jaun horri. Marcantonio (2002) bitxian ere —ikus de Alonso (2007), besteren artean— ez da gure Morvanen arrastorik.

<sup>16</sup> Hor bertan badira Vennemanni eta Morvani buruzko zenbait ohar lehen Lakarra (1996a)-n eta Gorrotxategi-Lakarra (2001)-ean esandakoaz landa.

<sup>17</sup> Hots, ez tipologiak lagunduta euskarazko benetako datuen azterketak.

<sup>18</sup> Noski, ez da gure arazoa (zeinek bere hildakoak zaintzea aski baitu) (A)E-ren sasi-eredu bat eskuan bestelako hizkuntzak (dela iberiera, dela europa zaharra...) berreraiki nahi duenik

### 3. Aitzineuskararen berreraiketa estandarraz<sup>19</sup>

Esateko moduan *aitzinhizkuntza* oso berba modernoa da eta modernoak dira, orobat bere kideak ingelesez eta inguruotan gehien erabili erdaretan ere. Horrelakorik ez duzue erraz aurkituko XIX. mendearen amaieran ez XX.aren hasieran euskalaritzan. Gero ere, Gavelen liburuan (1920) demagun, sistema fonologikoaren taularik ez bilatu; azkenik, *aitzineuskara* hitza bera ez da batere usuko Uhlenbeck edo Tovarren lanetan, ez halaberharrez, ordea (cf. Lakarra 2008b).

Martinet da *Word* aldizkarian 1950ean euskaroaren leherkariak aztertzean latinaurreko hizkuntzaren sistemaz arduratzen lehena: *pace*-k, *pice*-k eta beste hainbatek *p*- (edo *t*-, *k*-) ematea erromantzez eta *b*- (*d*- > *l*-, *g*-) euskaraz —eta, halere, bokalar-tean ahoskabeak bere horretan gordetzea inguruko erromantzeek ez bezala—, baldin eta bietan ahostun/ahoskabe izan balitz oposaketa nagusia ezinezko iritziarik, ondorioztatuko du bortitz/ahul sistema zela latina-rekin kontaktuan sartu aurreko euskararena. Hurrengo urtean Donostiako aldizkari batean, handik seira Martineten Omenaldian eta bere *FHV*-an (1961) Mitxelena dugu leherkarietako haren bortitz/ahul oposaketa sendotu eta ozen eta txistukarietara ere hedatu zuena:

bortitzak	( )	T	C	Ć	K	N	L	R	(gehi <i>h</i> ) <sup>20</sup>
ahulak	p	t	s	ś	k	n	l	r	5 V

Sistema horretatik landa gelditu ziren *m* eta sabaikariak (*n*, *ll*, *tx*, *x*, *tt* eta *dd*) (eta Martinetek proposatu *mb* eta *nd*) gramatika konparatuaren oinarritzko legea beteaz: hots, ez da berreraikiko horretarako arrastorik utzi ez duen soinu-rik (*mb*, *nd*), ezta kognadoak azaltzeko beharrezko ez den ezer ere (gainerakoak).<sup>21</sup>

---

hor zehar izatea: bejondeiela (cf. Lakarra 1996a eta 2010d). Guretat aski da ofizioko hizkuntzarien artean ezagutzea jolastxo horiek ezinezko direla Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* eta beste hainbat lanen ondoren.

<sup>19</sup> Atal honetaz ikus liteke Lakarra (2008b) eta lehenago (1997b); esanguratsua iruditzen zitzaidalarik (2009e: §4-n) jaso ditut Touratier-en hitz batzuek Martinetek eta Mitxelenak barne-berreraiketaren sorreran —hots, ez euskararenean, metodo orokorrarenean baizik— izan zuten garrantziak; beste ezerk baino hobeki argi lezakete eskuartearen dugun gaiaren eboluzio historiografikoa.

<sup>20</sup> Hor da /h/ esplizitoki markatua fonema gisa, gero (1997an) Traskek azentuaren menpeko subproduktu gisa azaltzean egin zuenaren aurka, hain juxtu; baita Gavelek (1920) defendatuaz erabat bestelakoa ere (ikus Lakarra 2009d).

<sup>21</sup> Horretarako maileguetako latin eta erromantzeko geminatu eta multzoak (1), [f]-ren bilakabidea (2) eta akitanierako eta erdiaroko lekukotasunetako grafia (3) erabili zituen; be-

Geroztik bi hipotesi alternatibo aurkeztu izan dira, funtsean, AE-ren sistema fonologikoaren inguruan edo, zehatzago, horko leherkari sailarenean: 1985eko Traskena lehen eta 1997ko Hualderena, ondoren. Labur, aldeko gutxi eta kontrako arrazoi asko dute batak eta besteak; Traskek, gainera, 1997an atzera egin eta Mitxelenaren sistema estandarrena jo zuen esplizituki (hasperenaz botatako ez landa, bederen): batak eta besteak soilik leherkariak dituzte aipu, ez txistukari eta ozenak eta ez Traskek ez Hualdek ez du Mitxelenak azaldugabeko ezer azaltzen; bereziki —"bere fruituetarik ezagutuko dituzu"— ez dute etimologia berri bakar bat ere ematen.<sup>22</sup> Gainera, AE-ko sistema estandarren kritika eta beraienaren justifikazioa ez K.a.ko hizkuntzaren ezaugarrien edo berreraiketa berrien bitartez, baizik eta K.o.ko VIII-X. mendeaz geroztiko berrikuntzen bitartez —inoiz XVII. mendeaz geroztikoez!— egiten da: *errege* + *bide* > *erret-bide* > *errepide*, *ez* + *dator* > *eztator*, *menditik* + *dator* > *menditator* eta horrelakoak dira [bortitz]-[ahul] oposaketaren aurka aurkeztuak (Lakarra 2008b). Gutxi da hor —ezer bada— AE-ri dagokionik.

Ia beste edozein familia eta hizkuntzetan legez, gurean ere berreraiketa atzeratua edo atzeratuago dabil morfosintaxian. Ez dugu Mitxelenaren "Las antiguas consonantes vascas"-ekin edo *FHV*-rekin erka litekeen ezer horietan (ikus Gorrotxategi & Lakarra 1996); badakigu garai modernoetako izen- eta aditz-morfologiak ez direla zaharregiak, —lehendabizikoaren oinarrian den artikulua ere moderno den bezala, adibidez—<sup>23</sup> baina ez noizkoak, ezta lehen zer zen horien tokian, horrela hitzegiterik badugu.

Morfologia diakronikoan Schuchardten eta Lafonen izenak ezinbestean aipatzekoak dira, jakina, nahiz eta lehendabizikoaren kasuan hots-aldaketa legez zituen ikuspegi eta jokabide bereziek euskalaritzarako Mitxelenak behin baino

---

harbada arrazoiketa horretan egiten den [f]-aren erabilera orain berrikusi behar genuke, ez baitirudi hots hori eta fortis/lenis sistema garaikideak direnik (ikus Hualde 1997a eta Lakarra 2009d). Azentuaz ikus §5.5.

<sup>22</sup> Gogora Watkinsek esana: "The study of etymology represents a pivotal dimension of the response of the science of linguistics to the empirical fact of language change" (Watkins 1990: 167).

<sup>23</sup> Cf. "Es creencia general que el artículo determinado, o mejor el sistema de artículos, mencionado arriba, §7,b, y lo mismo cabe decir del indeterminado *bat* / *batzu*, ha nacido a la par que el románico y el de otras lenguas occidentales (germánico, céltico)" (Mitxelena 1981: 305). Lapesak (1961) VIII. mendean jartzen du artikuluaen sorrera —inolaz ere ez hedadura orokorra, kontaezinetara eta bestetara askoz beranduago jazo, demagun— Hispaniako erromantzeetan. Bidenabar, Mitxelenaren artikulua berean "En la medida en que la flexión de los artículos da testimonio de la de los demostrativos, de los cuales no constituyen en principio más que variantes enclíticas..." irakur liteke (302), dagoeneko ia mundu mailako unibertsal baten adibide erantsi gisa (cf. Greenberg 1981) azalduaz euskarazko 3. graduko erakusle > 3. graduko artikulua bilakaera.

usuago ktritikatutako ondorio gaiztoak izan.<sup>24</sup> Hain ezagun izan ez arren, badira Uhlenbecken 1942 eta 1947ko bi lan euskal lexikoaren sailkapena helburu (praktikoa) dutenak.<sup>25</sup> Esan dezadan berea dela oraintsu arte izan dugun euskal erroen sailkapenik hoberena edo bakarra (ikus Lakarra 1998a eta 2007).<sup>26</sup> Mitxelena baditu han-hemen morfologiari buruzko ohar interesgarriak, atzizkien formaz edo postposizioez, demagun; horren lekuko da “Toponimia, léxico y gramática” (1971) bikaina, edo 1977ko “Verbos compuestos vascos”. Alabaina, ene gustuko, Trasken 1977ko aditzaren egituraren eta sintaxis historiari buruzko lana izan liteke garrantzizkoena azken 60 urtean.<sup>27</sup> Hor, ikusi nahi duenarentzat, argi gelditu zen *d-* (hobe, \**da-*) noizbait ez zela ez pertsona- ez aldi marka, aspektuarena baizik; marka hori ezker zela, ez eskubi, eta, beraz, ez hizkuntza eransleei dagokien SOV egituraren baizik eta oso bestelako VO baten alde mintzo dela, egoera zaharra gordetzen duen neurrian, bederen.<sup>28</sup> Horrezaz landa, Trasken artikuluan datiboaren berankortasuna eta ergatiboaren jatorri-aukerak ere argitzen dira, ondorengo edozein morfosintaxi lanen abiapuntu bilakatuaz.

Berreraiketa fonologikoan erraz antzematen den partaideen arteko lotura eta antolamendua nekez aurki genezake morfosintaxian, eta fonologian ere garai ezberdinetako osagaiak atera bazaizkigu, zer esan urrutitik ere horrelako barneko batasunik ezin izan dezaketen deribazio-atzizkiez,<sup>29</sup> aditzaren plural<sup>29b</sup> markez (cf. *gaitean*, *gara* vs *gatoz*, *gabiltza*) edota deklinabidearen 1. zein

<sup>24</sup> Beti bezala, ezinutzizkoak dira Mitxelena hainbat lan, berariaz morfologiakoak izan ez arren, *FHV* eta *Apellidos Vascos*, tartean; hor dira, gainera toponimiako zenbait edo *RS-i* buruzko oharrek ere.

<sup>25</sup> Horren zergatiak —hizkuntza ororen eta, beraz, baita euskararen poligenesia ere iker-tzea— ez zaizkit orain axola, ezta hor aldarrikatu bizkaiera eta gainerako euskalkien arteko sortzezko ezberdintasun, ustez, erabat ezabatu gabea (ikus Mitxelena 1964 eta Lakarra 1986b).

<sup>26</sup> Lafonek (1950) horren laburpen laburregia egiten du, gero bere helburuetara (euskara familia kaukasikokoa dela frogatzera) eramateko asmoz; helburu hau ez zuela erdietsi berak aitortzen du 1951-1952ko lanean euskarak eta beste hizkuntzek —eta hauek beren artean, gehi genezake— oso eite ezberdina dutela markatzean, hizkuntza kamito-semitikoekin (beren artean, alegia), gertatzen omen denaren aurka.

<sup>27</sup> Pena da hainbatek behar bezainbat ez irakurria eta egileak berak ondoko mende laurdenean gehiago ez aitzinatua eta are atzera egina; erka bitez 1997ko testu nagusia eta 1998ko artikulua, batetik, eta 1977ko artikulua eta 1997ko liburuko gramatikazko ataltxo “espekulatiboa”, bestetik.

<sup>28</sup> Antzera gertatzen da beste zenbait hizkuntza eransletan ere; cf. “Stem + tense +  $\emptyset$  agreement > Stem +  $\emptyset$  tense + agreement” (Kuznetsova 2004: 155).

<sup>29</sup> Nabarmena da eratorpenaren hedadura fenomeno berantiarra dela, eta literatur euskararena neurri handi batean: ikus Lakarra (1997a), Sarasola (1997) edo Bueno (2004).

<sup>29b</sup> Pluralaren kategoriaz ikus Martínez Areta (2009b) eta aspaldiko Castaños (1979b); nago badela oraindik hainbat zehaztasun egiteko.

2. mailako osagaiez eta horien konbinaketaz. Sintaxiaz, hitz edo osagaien hurrenkera hutsera mugatuta ere, ez da asko aurki genezakeena berreraikien segurtasun minimo batez; ez gaitzen nahas, ordea: edozeinek daki urrunago joateko dugun ezintasun (edo alperkeriak) ez dakarrela azken 7000 mila urtean gure hizkuntzaren egituran aldaketa larri askorik ez izatea. Uste dut diodanaren aldeko zenbait arrazoi bildu dudala beste lan batzuetan (ik. Lakarra 2006a, 2008a) eta hemen bertan beherago ere (§6.2). Guk ez dakusguna edo ez dazaguna ez dela edo ez dela izan pentsatzea, harrokeria, ezjakintasun eta ofizio falta jasanezinaz landa, “une illusion de la reconstruction” edo litzateke formula klasiko bat erabiliaz (ikus Mitxelena 1963 eta Gorrotxategi 2007).

#### 4. Berreraiketa berri baterantz

4.1. Arbelaizen (1978) liburuan Mitxelenaren 1200-1400 bat etimologia aurkitu ahal duzue; zalantzarik gabe, hori da oraingoz dugun euskal hiztegi etimologiko hoberena eta are jendaurrean aurkezteko moduko bakarra.<sup>30</sup> Horri gehitzen badiozue *FHV, Sobre el pasado de la lengua vasca* eta egilearen beste hainbat lan (1974ko “El elemento latino-románico” tartean), begibistakoa da egileak euskararen historiaurrearen eta historiaren azterketa bikain baten sintesia lortu zuela. Horrela aitortu dute diakronista guztiak azken 50 urteotan eta oraindik ere hori da paradigma estandarra AE-z, euskararen historiaurreaz eta are beranduagoko bilakabide fonologikoaz. Alabaina, lehendik ziren paradigmaren hutsune eta behar edo akats ezagun zenbaiti, berri batzuk erantsi ahal dizkiogu orain eta, beraz (cf. Haas 1969: 45), berreraiketa aldatu beharra dugu, zuzendu, osatu eta sakondu beharra, alegia.

Har ditzagun Mitxelenaren etimologiak (cf. Arbelaiz 1978); era askotako formak aurkitu ahal dira bertan: bisilaboak, monosilaboak, polisilaboak, V-z hasiak, C batez edo gehiagoz amaituak, kontsonante taldeak edo hiatoak dituztenak barruan, etab. Antzeko ikuspegia zuen Uhlenbeckek 1942ean euskal erroak sailkatzerakoan: monosilaboak —bokalez, diptongoz, kontsonantez, afrikatuz amaituak (ia antzera hasierei dagokienez), forma erreduplikatuak—, erro bisilaboak —ohikoenak: VCV eta CVCV, VCVC eta CVCVC, VCCV eta CVCCV, VCCVC eta CVCCVC, diptongoarekin, etab.— erro trisila-

<sup>30</sup> Geroztik Traskena (2008), Morvanena (2009) eta Forni delako batena (gutxienez!) zabaldu dira sarean. Pena da lehenbizikoa egileak ia hasi baino ezin egina; beste biak hain dira barregarri eta baldar non hemen aipatze hutsa aski eta sobera den. [Orain, ikus Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.) 2011, errazago eta oparoago da Mitxelenaren etimologiaren uzta horko hainbat aurkibide aberatsen bitartez].

boak (arraroak); cf. Lakarra (1998a), etab. Hara, ordea, Benvenisteren duela 75 urteko tesiko ondoko pasartea; hor berak aurreko IE hizkuntza berreraikitzen zutenei aurpegiratua, ez ote dagokio, halaber, Arbelaizek Mitxelenaren etimologiekkin bildu corpus horri?

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance. [...] On serait en peine de justifier et même d'énumérer complètement tous les types de racines qui sont attribués à l'indo-européen. Il y a ici un abus de mots qui trahit une doctrine indécise. On n'obtient pas de l'indo-européen en additionnant les diverses formes indo-européennes d'un thème verbal ni en projetant dans la préhistoire des particularités d'un état de langue historique. Il faut essayer, par de larges comparaisons, de retrouver le système initial sous sa forme la plus simple, puis de voir quels principes en modifient l'économie (Benveniste 1935: 147-148); zabalago ikus Lakarra (2007: §2)-n.

**4.2.** “Silaba = (C)V(W)(R)(S)(T)” zen Mitxelenak (1979) iberikoarentzat eta euskara zahararentzat proposatu silaba egitura baldintza. Hau da, silaba batek sei osagai *izan zitzakeen* [edozein C + V + jod/wau + ozena + txistukaria + leherkaria] eta *izatekotan* hurrenkera horretan eta sail bakoitzean bana; alabaina, aski da bokal bakarrarekin silaba bat egiteko eta, hortaz, bat eta sei bitarteko hainbat konbinaketa zilegi dira: *a-ma*, *e-re*, *i-zu* (V)-(CV), *gor*, *bil*, *han* (CVR), *hots*, *gaz-te* (CVS), *bat*, *duk* (CVT), *bart*, *nork* (CVRT)... Zer esan honetaz? Aski bide da egileak berak aitortua: “beharbada, ez da inoiz zulo guztiak betetzen zuen horrelako silabarik izan”. Hots, eredu zabalegia da, eta ia zehaztasun oro falta duena, parentesi horien guztien bitartez ematen dituen aukera ia amaigabeak kontuan hartuaz; edozein gogora liteke Chomskyk 1957an ez soilik hainbat esaldi ezin azaldua baizik eta, halaber, beste hainbat —hots, hizkuntzarenak ez ziren eta haren egituraren aurka zihoazen esaldiak— beren gramatikek auresatea eta “zilegiztatzea” aurpegiratu zela bloomfieldarrei eta gainerakoei. Hemen ere nago antzeko zerbait esan genezakeen, bada, eta aski genuke Artiagoitiak (1990) proposatu zuen CVC egitura silabikoarekin datu guztien berri emateko.<sup>31</sup>

Hitzez, Mitxelenak funtsean bisilaboak direla eta konposizio-oinarriak ere orobat bisilaboak direla diosku lan horretan eta bestetan ere (1977b-n, esate-rako). Ordea, ezin manten genezake bisilaboa zela erro soilen forma kanonikoa AE-n. Hara Lakarra (1995)ean emandako frogaz zenbait:

<sup>31</sup> Are gehiago; lehen C- hitz hasieran edozein ezin izan zitekeela genekien moduan, orain -C akabukoan (edozein silabatan) -T (leherkariak) ezin izan litezkeela gehi genezake.

- 1) \*\*CV, \*\*VC gertatzen da monosilabo modernoetan;
- 2) \*\*-T ez da aurreko silabarena, ondokoarena baizik (*dut* < \**duda-*, *bart* < *barda...*),
- 3) \*\*TVTV erro bisilabiko soiletan; hots, izan badira *bake*, *bide*, *gabe*, *begi*, *pupu*, *kuku*, etab., baina mailegu, konposatu edo fonosinbolismo ditugu.

Azken hau oso bitxia da eta ezin izan liteke anekdota hutsa; izan ere leherkariak eta bokalak ditugu hots ugarietak euskaraz eta silaba irekiak naturalenak eta unibertsal bakarrak; hortaz, erro soilak bisilabikoak baziren (eta balira) Mitxelenak eta Uhlenbeckek esan bezala, TVTV ez litzateke bakarrik erro ereductarik bat, baizik eta erro eredu nagusia ere, seguruenik. Ez da horrelakorik, ordea: euskara historikoan izan litezkeen 900 erroetarik (6 x 5 x 6 x 5) lekukotuak ez dira ez zientoak ez dozenak, ezta eskutada gutxi batzuk ere eta, okerrena, diren TVTV guztiak edo maileguak (*bake*, *gudu*, *katu*, *bike*, etab.) edo konposatu-eratorriak (*b-egi*, *ba-da*, etab.) edo fonosinbolismoak. Honenbestez, nekez pentsa genezake erro eredu hori zaharra denik euskaraz. 1995ean datu eta murriztapen berri hauek azaltzeko zera proposatu nuen, AE-z (AEZean, behintzat) ez zela ez TVTV eta ez gainerako erro soil bisilabotatik eta erroa CVC monosilaboa zela.<sup>32</sup> Baieztapen honek berehalako ondorioak ekarri zituen, dela erro berrien ezagutzan, dela mailegu berriengan, nahiz gramatika zaharreko zenbait prozesu historikoki ezezagun edo atzunduranean:

- a) hasteko ondoko azterketek erro monosilabiko berrietara eraman dituzte (\**bel*, \**han*, \**ger*, etab.), azaleratuaz barnean zituzten lehenagoko hainbat bisilabo eta polisilabotan (*ubel*, *ahuntz*, *akher*, etab.);
- b) erro berriez landa, morfema berriak —edo zaharrak baina lehen ezagutzen ez genituen konbinaketa edo sareetan— agertu zaizkigu: *hortz* eta *beltz* ez dira CVC hertsia-hertsian eta komeni da gehiegizko *-tz* horren

<sup>32</sup> Cf. Lakarra (2009c) eta (2007). Honek berehalakoan ateratzen ditu goiko ahapaldiko (1) eta (2) erro monosilabiko historikoekikoak; horiek eta (3) azaltzeaz landa, ikusiko denez, erroa CVC izateak berarekin dakar aurrizkiak atzizkiak baino zaharrago izatea eta baita erro eredu bisilabikoetan, oro har, bigarren silaban koda dutenak ezen ez gainerakoak.

Ikus Eranskinen H eta M taulak: bertan CVC eta 48 erro eredu bisilabiko sailkatu ditut Lakarra (2002a) eta (2004a)-ko analisiak oinarri harturik; geroztik azterketa etimologikoan izandako aurrerapenak eta abian diren lanetakoak (Lakarra prest.-1) Lakarra (prest.-4)-n bilduko dira. Nolanahi ere, ezinbestean, azterketa berriek bisilaboetako 5. saileko etimologiaga-beak urritzea —(1)eko maileguen eta (3)-ko eratorri-konposatuen alde— eta monosilaboetako L[ekukotuen] eta (5) eta H[ondarren] gehiketa larria dakarte.



bekatutxoaz ez barkatzea: hortaz, soilik eratorri edo mailegu izan litezke (cf. goiko *-bel* eta *hor* arkaikoa);

- c) *pertz* ere ez da CVC, baina honakoan ezin zatika genezake *\*\*per-tz*; horrenbestez, haren hasierako ahoskabea, hitzaren aldaerak, denok ezagutzen dugun etimologia eta beste kontuan hartu gabe ere, *pertz* soilik mailegutzat jo genezake, AE-z eta euskara zaharrean -CC ezi-nezkoa eginik.
- d) Gramatika zaharragoaren zantzuak agertu zaizkigu, dela erreduplikazioak, dela aurrizkiak:
- d1) Erreduplikazioak: *go-gor*, *\*da-dar* (> *adar*), *\*da-dats* (> *adats*), *\*de-der* (> *eder*), *\*do-dol* (> *odol*), *\*ze-zen* (> *zezen*), etab.;
- d2) Aurrizki berriak: *\*sa-*, *\*gi-*, *\*la-*: *sa-bel*, *sa-hets*, *sa-mur*, *gi-bel*, *gi-zen*, *gi-har*, *la-bur*, *la-gun*, *la-bar*, etab.

Azkenokin aspaldiko lanetan (Lakarra 1998a, Gorrotxategi & Lakarra 2001, adibidez) izan nuen ez [aurrizki + erro], baizik eta [erro + erro] azaltzeko tentazioa. Ez da horrelakorik, ordea: ezkerretako osagaiak ez dute semantika propiorik, ezin joan litezke soilik (ez dute autonomiarik ez burujabetzarik) eta ezin ager litezke erro ezagunen eskubitara ere. Hori guztia aski ez balitz, ez dira erroei eskatu CVC egiturara ere iristen, eta ezin esan lehen CVC osoak eta beteak zirela eta ondoren eskubiko kontsonantea galdu egin zutela AE-n, horrelako fenomenoak ez hor eta ez akitanieran ez baitira jazotzen, 1000 bat urte beranduago baizen. Erroak ez diren eta horien ezker baino ezin ager litezkeen elementu gramatikalizatuei ez deritze erro, aurrizki baizik.<sup>33</sup>

## 5. Aintzineuskararen egungo berreraiketaren zenbait alderdi:

### I. Fonologia

#### 5.1. Hitz hasierako bokalez

Schuchardtek lehen eta Vennemannek (1994) eta Traskek (1997) gero, aldarrikatu zuten euskarak bokalez hasitako hitz ugari duela. Komeni da uste-keta eta baieztapenen zergatiak ideiarenekin bat izatea, batez ere lehen bien kasuan: lehenarentzat V- ugari izatea ederki zetorren garai batez defendatu zuen

<sup>33</sup> Honek ez du kentzen beranduago aurrizki → atzizki aldaketa zenbait izana (ik. Lakarra 2006c eta 2009e), munda hizkuntzetan edo Australiako zenbaitetan gertatu bezalatsu.

euskara-hamitikoaren teoria sustengatzeko; bigarrenarentzat ere ez zetorkeen gaizki *Vasconic* handinahi hura *à la indoeuropeen* (laringala- > ø eta C- > ø askoren bitartez) azaltzeko. Egia esan, ez bataren euskara-hamitikoak ez bestearen *Vasconic* horrek ez dute egungo egunean jarraitzaile ugari (ofizioen artean, bederen) eta alde horretatik lasai bizi gintezke V- eta C- kontaketa orduak eman gabe. Alabaina, 1996ko lan batean (cf. 2009e ere) bururatu zitzaidan kontaketa hori egitea, horretarako Azkueren eta Sarasolaren hiztegiak erabili eta bokalez eta kontsonantez hasitako orrialdeak zenbatuaz. Lehenik eta behin, bokal-zaleen kontuak zuzentze-aldera, *h-* gorde duten euskalkietako *hV-* kendu nizkien haien “bokalez hasitakoei”, ez baitzen arrazoirik horiek hor izateko /h/ etimologikotzat dugun aldetik (§§5.6-5.7). Are gehiago: aditz zaharretako \**e-* aurrizkiak *e-* / *i-* / *j-* eman duelarik, asko da *e-* eta *i-* letretako zerrendetan kendu behar duguna ere, (*j-* letra erabat, jakina), ugari baitira hor gorde diren aditz zaharrak.<sup>34</sup>

Kenketa hauek eginik arrut apaldurik (%30etik behera) genuke V-z hasitakoen multzoa. Ez da aski, ordea, AE-n benetan izan genitzakeenak zenbat ziren susmatzeko edota, hobe, AE-tik datozenen artean V-dunak ugari ziren erabakitzeko. Hots, ez ote mailegurik euskara historikoan V-z hasten direnen artean? Zer esan *ollo*, *arima*, *eskola*, *erbi*, *eme*, *izu*, *ezain*, *eskatu*, *olde*, *esker*, *okela*, *aterri*, *alu*, *urde*, *orein* eta beste askori buruz?<sup>35</sup> Dakidala, ez da egin V-z hasitako maileguen zerrenda baina, egin baledi, ez da zer pentsa laburra litzatekeenik. Alderantziz, T ahoskabez hasietan *kalte* eta *koipe* gutxienez ez dira mailegutzat hartzekoak, ezta *fan* eta *pekorotz*-en lehen zatia, bederen. Batzuk eta besteak finkatu bitartean ez da kontuak zehazterik, baina %10etik gertuago bide dira %20tik baino V-z hasitako ondare zaharrekoak eta, beharbada (cf. §4), noizbait %0,00tik hurbil ziren V- erroak.

Kontuak uste baino zailxeagoak (eta Schuchardtek eta Vennemannek nahi zutenetik urrutixeago) zirela ohartzeko —eta euskara historikoaren eta AE-ren egoeraren arteko alde gaitzaz jabetzeko—, bada argitu beharreko beste puntu bat ere: C-z hasiak urri eta V-z hasiak ugari direla esateko, zenbat V eta zenbat C dugu gogoan AE-ko inbentariarako? Bokalen kopuruak erantzun

<sup>34</sup> Orain *edo* (eta eratorriak) bezalako hitz gramatikal zenbait ere ezabatuko nuke, hortik eratorriak izaki (ik. Lakarra prest-1). *Ala*, *eta*, *ezin* eta gainerakoak morfologikoki konplexuak bide dira orobat; *bestalde*, *unain*, *urgatzi*, *arrain* eta beste hainbatetan ere badira aurrizkiak —bana baino gehiago ere— eta ezin esan V-z hasitako erroak zirenik.

<sup>35</sup> Zenbait lehendik dira ezagun; besteentzat ikus aurreko oharrean aipatu lana eta hemen §7.

erraxa du, itxuraz,<sup>36</sup> baina eta kontsonanteenak? Euskara modernoan hamairu, sei leherkari, bi sudurkari, alboko bat, bi txistukari, /f/ eta /h/ beharko genituzke euskalki gehienetan kontaktu, sabaikariak beren berezitasun ezagunengatik kanpoan utziaz. Alabaina, euskara zaharrerako —AE klasikorako, demagun— ez dugu lau leherkari baizik kokagune horretan (\*\**p-* eta \**d-* > *l-*, adizkietarik kanpo),<sup>37</sup> eta ez da ozenik /n/-z landa (eta hori urri, cf. §5.3), ezta /m/-rik, ez /f/rik. Soilik /h/ eta bi txistukari behar ditugu gehitu. Zortzi C eta bost V-rekin gauzak agian beste modu batez ikus litezke;<sup>38</sup> nolana ere, altxor zaharrean V-z hasitako erroen ugaritasuna ez da hor zehar alperkeriaz errepikatu ohi den adinakoa euskara historikoan eta, batez ere, hutsaren hurrengo bide zen AE-n.<sup>39</sup>

Lakarra (2006a)-n erakutsi genuen dravidieraren bilakabidean ere hitz hasiera bokalikoak asko ugaltzen direla; baliteke fenomeno hauek hizkuntza eransle guztiena edo gehienena izatea eta horrenbestez AEZ-etik euskara historikoa bitartean garatuaz joatea.

Abian den lan zenbaitetan hitz hasierako *w-* eta *k-* > *ø-* erregelaren hainbat adibide bildu dut, *FHV*-koak asko ugaltuz. Nabarmena da galera honek hainbat V- hasierako eta horien gorakada azaltzen duela neurri batean:

<i>uertere</i>	>	<i>atertu</i> , <sup>40</sup>	<i>uoluntate</i>	>	<i>olde</i> ,
<i>uescor</i>	>	<i>eskatu</i> ,	<i>uoster</i>	>	<i>esker</i> ,

<sup>36</sup> Noizbait agian gehiago ziren: munda hizkuntzek modernoki laupabost bokal dute baina aitzin-mundak hamalau, zazpi luze eta zazpi labur (cf. Donegan 1993); alabaina, orainoz ez dugu eriden gure hizkuntzaren bilakabidean horrelako aldaketaren arrastorik. Interesgarria da kontrako deriba pairatu zuten hizkuntza monkhmerretan aitzin-monkhmerrak bokal asko izanik, hizkuntza modernoek areagotu egin zituztela (hiru bat dozena dituzte Doneganek aipatu lanean dioskunez.

<sup>37</sup> Honetaz Lakarra (2006c); ohar baita *X-da / d-* > *l-* asimetriari; cf. *letorke / litzate*).

<sup>38</sup> Hots bokalikoaren inbentarioa, aldiz, murriztu baino ez da egiten (ikus bi ohar gorago munda hizkuntzez).

<sup>39</sup> Aitor dezadan CVC proposatzen dudalarik erro bezala edo V- aurrizkiak edo C- > *ø-* erorketak (edo biak) behar ditudala, are jatorrizko lexikoan ere; alabaina, hipotesi horiek ez dira asmakeria maltzurzat gelditzen ikerketa etimologikoa aitzinatu ahala eta badira horien frogak, Mitxelena dagoeneko aipatuz landa: \**dVC* eta \**nVC*-ren erreduplikazioak (*odol*, *adar*, *ohol*, *ahal*) eta Grassmannen legeak (\**hV(C)hVC* > *V(C)hVC*) azal litzake beste hainbat (*abuntz*, *aho*, *ohe*, *ohi*...); ikus beherago §§5.6-5.7. V- aurrizkiei dagokienez, ezagunena aditzeko \**e-* eta horren alomorfoak ditugu, noski; ez bedi ahantz, ordea, badirela aditzetik jalgi diren izen eta partikulak ere.

<sup>40</sup> Aldaketa hau erromantze zaharreko *w-* > *b-* baino lehenagokoa da zalantzarik gabe, euskarazko maileguez jasotako lehendabiziko aldaketetarik, seguruenik.

*caninu* > \**â.ihû* (> *hagin*)      \**ceruu-oin* > *orein*<sup>41</sup>

Horrezaz landa, badira *b-* >  $\emptyset$ -ren adibide gehiago ere:

\**bits-baso* > *itsaso*<sup>42</sup>  
 \**beh(i)-sen(i)-edabe* > *esne*,<sup>43</sup>      \**bor-geni* > \**ogeni* > *hoge*<sup>44</sup>  
 \**berna-zur* > \**enazur* (> *bezur*),      \**e-burr-i* > \**eurri* > *urri* (cf. *utzi*).

## 5.2. Diptongoez

AE klasikoan Mitxelenak sei diptongo onartu zituen: *ai*, *ei*, *oi*, *ui*, *au*, *eu*. Egia esan, *ui* ia soilik morfema bakarrean *oi*-ren aldaera bezala (*-dui* topon.) aurkezten da eta, beharbada, *oi* berari buruz antzeko zerbait esan beharko genuke, lehenik *lohi*, *-doi* > *-di* Mitxelenak eta gero *hedoi* / *hodei*, *goi(z)* eta beste \**don(i)* egituretara eramán ditzakegun neurrian. *FHV*-n garbi asko azaltzen da bokalarteko herskari ahostun ahulek eta *-n*-ak duten galtzeko isuria euskaraz, ondotik lehen ezker eta eskubi ziren bokalak, hiatoan une batez izan eta diptongo berriak osatuaz usuenik. Egia da enparatuko diptongo asko (*au* gainerrakoak baino urriago) ez sortu baizik eta galdu ere egin dela bide ezberdinez, silabaren kodaren arintze bilakabideen bitartez, demagun; baina hauek berankor eta dialektalago dira, funtsean.

Berreraiketak aitzinatu-ahala diptongo gutxiagoren beharra dugu garai zaharretarako, hainbat non erroren batean diptongoa denean,<sup>45</sup> delako erro horren mailegu- edo eratorri-konposatu baten kontrakzio “berankor” baten aztarna izan ohi dugun (besteak beste): cf. *hoge* < \*(*b*)*o(r)*-gen-*i*; *sei* < *sehi*, *hedoi* < \**e-don-i*, *alai* < *alaja*, *zema* < *menaza* (§7), etab.<sup>46</sup> Erro monosilabo historikoetan aurkitua interesgarri dugu: *gau*, *haur* (‘ume’), *sei*, *bai*, *gai*,

<sup>41</sup> Nozbait *caecu* > *tseku* > \**ketsu* > \**etsu* > *itsu* izan dut gogoan baina, Ricardo Gómezek ohartu bezala, leherkariak bizkarkari bilakatu beharko luke mailegu zahar guztietan legez, ez apikari.

<sup>42</sup> Honetan Lakarra (2002b)-n esandakotik aldentzen naiz.

<sup>43</sup> Mitxelena \**eseNe*-ra iristen da.

<sup>44</sup> Hemen bada hots-aldaketen kronologiarako lanabesik; ikus beherago §8.

<sup>45</sup> Nekez bi edo gehiago; zergatik ote? Erro monosilaboaren teorian erraza litzateke (zehatzago, bakar bat ere ez bide zen AE zaharrean); alabaina, ez dirudi ez euskara zaharraren eta ez euskara modernoaren berezitasuna denik.

<sup>46</sup> Markagarria da aditz zaharretako erroetako diptongo lagina: *eusi*, *jautsi*, *utzi*, *jaijo*, *irauli*, etab.; ikus Lakarra (2006b) eta (2006c) (C)V- aurrizkia + (C)VC erroaren bilakabideaz.

*goi(z)* eta gainerako gehienak edo mailegu edo forma bisilaboen kontrakzioak ditugu, oraingoz menderatu ez ditugun *haur* (erak.), *hautsi* eta hiruzpailau gehiago gelditzen direlarik soilik ustezko diptongo “zaharren” azken hondar gisa.

### 5.3. Hasierako hortzetako eta ozenak

Mitxelenak iradoki zuen *d-* > *l-* bilakabidearen bitartez azal genezakeela lehenagoko (AE zaharreko) hortzetako kontsonante ahularekin gertatutakoa. Arestiko lan batzutan (Lakarra 2006b eta hh) eman ditut aldaketa horren hainbat froga eta artean ezezagun ziren erro, familia (2009e) eta aurrizki-atzizkien jatorririk ere:

\**dar* : cf. *adar* (erreduplikazioz); *jarri* (< \**e-daR-i*); *larr-i*; *in-dar*.

\**den* : cf. *eden* / *etete-*, *erein* < \**eleni* [*\*d-* > *l-*, VIV > VrV],

\**din* : cf. \**edin* > *jin*; *herio*, *jario* [*\*d-* > *l-*, VIV > VrV],

\**don* : cf. *lohi* / *-doi*, *hedoi* (< \**e-don-i*), *hidoi* (\**hur* + *don-i*),

\**dul* : cf. *beztul*; *ilki* < \**e-dul-gi*; *jaulki*, *jalgi* < \**e-da-dul-gi*; *iltze/untze* < \**edadul-tze*,

\**dur* : cf. *andur* < \**han-dur* (cf. *ahari* < \**han-ari*); *lur* < \**dur*; *iraurri* < \**era-dur-i*; (tx)*inaurri* < \**e-dara-durr-i*;

\**duz* : *utzi* < *e-(d)utzi*; *luze* < \**duz-e* (cf. *aurre*, *atze*); *jauzi* < \**e-da-duz-i*; *erauzi* < \**e-ra-duz-i*.

Mitxelenak aipatu *l-*z eta, batez ere, *n-*z hasi bisilabo eta polisilaboen kasu urriak are urriago bilakatu dira, *neska*, *negu*, eta *nigar* mailegu gisa eta *labur*, *lehen*, *nagusi* (eta, seguruenik, *lagun*, *laino* eta *nafar*) eratorri bezala azaltzean (ik. Lakarra 2010a).

*d-* eta *t-* erro ereduaren azterketaren emaitzak (Lakarra 2010a) erakusten du euskara historikoan hotsok ez zirela morfema horien formarik zaharrenetan ez AE-n eta ezta beranduago ere. 1.etan mailegu eta fonosinbolismoz josiak ditugu erro-ereduok, usuenik oso eremu urrian lekukoturik guztiak ere, *dollar* (cf. Corominas-Pascual, s.u. *tollo-II*) bezalako salbuespen bakanen batekin.

*l-*ri dagokionez, iragazki geografikoak ezartzean askoz gehiago dira haietan baino iragazkia gainditzen dutenak: *lahar*, *labur*, *lagin*, *lakar*, *lapar*, *laster*, *laz-*

*tan, legatz, lehen, leber, legar, lehor, likits, lipar, listor, litxar, lizar, lizun, lokots*;<sup>47</sup> hots, ia haiek halako 20 aldiz gehiago. Markagarri iruditzen zait kasu guztiak CVCCVC eta CVCVC eredukoak direla, ez IVCV edo IVCCV-ko. Ez da halaberra, aurrizkiak (CV-) eta elkarketa (CVC-CVC) baitziren euskara zaharrean hitz berriak sortzeko bide nagusiak.<sup>48</sup>

Ondokoak dira AE-ko *n*-erro bisilabiko izateko aukeraren bat dutenak: *naka, negu, nazka, nafar, nabar, nakan, nakar, negal, negar, nekots, neska, noxal*. Bi CVCV eta CVCCV bat —eredu hauek biek ez dute zahartasun handirik—, zortzi CVCVC (hau zaharragoa da, zalantzarik gabe) eta CVC bikoitzetik letorkeen CVCCVC-ko bat ere ez. Horietarik guztietarik *negu* CVCV-n, *neska* CVCCV-n eta *nafar, nabar, negal, negar* CVCVC-n dira iragazki geografikoa gainditzen dutenak; *negu, negar* eta *neska* mailegu badira eta *nafar, nabar* eratorri... ez da zer pentsatu *n*-z hasi erro bisilabikorik zenik AE.<sup>49</sup>

#### 5.4. Txistukari eta ozen bortitzen historiaurreaz

Erro teoriak eta, zehatzago, noizbait hizkuntzak izan bide zuen erro-egitura monosilabikoak, baduke seguruenik oraindik miatu ez den ondoriorik AE zaharraren eta ondorengo garaien berreraiketarako. Horien artean dugu egitura monosilabikoan kontsonantetzat soilik bi kokagune izanik —hasierakoa eta amaierakoa, hain zuzen— nola uler genezakeen bertan gero hiru kokagune edo gehiagorekin (bokalartekoa barne, noski) bortitz/ahul sistema txistukari eta ozenetan. AE-ren sistema klasikoan (cf. Mitxelena 1957, *FHV*) txistukari eta ozenetan oposaketa nagusi hori neutraldu egiten da hitzaren ertzetan, —ahularen alde (ezker), bortitzaren alde (eskubi)— eta soilik gordetzen da bere indar osoan hitz barnean edo, hobe, bokalarlean. Bokalarleko hori delarik, hain zuzen, AEZean falta zaiguna, nekez gorde ziezaigukeen hor inongo opo-

<sup>47</sup> Eta *laino* bezalako diptongodunak legez. Ustez, baita *lander* ere, baina, ene ustez, Corominasek aipatu arabierazko formatik letorke, baldin eta bere familia erromanikoa balitz hain zabal non egiantzekoa litzatekeen euskarak hartu eta bertan irautea.

<sup>48</sup> Horko datuak erro teoria baino lehenagokoak edo sortu-berritakoak dira: aurki berrikusi beharko dira (cf. Lakarra prest.-1/3/4) *labur, lagin, lakar, lehen* gutxienez eratorritzat, *laster* komposatutzat, *lizar leizar*-en aldaeratzat, *leber, lehor, legatz* mailegu gisa... hortik kanpo geldituko dira. Halere, *l*-erroen antzinatasuna *d*- eta *t*-erroekiko horrela ere ez da zalantzan jarri ahal.

<sup>49</sup> Bai, aldiz, hainbat monosilabiko erreduplikaziotik atera genezakeenez: *\*nal > ahal*, *\*nan > aban-tz*, *\*nin > ihin-tz*, *\*nol > obol*; erreduplikaziotik kanpo ere aurkitzen dugu *\*nan* (cf. *nabi*) edo *\*nar* (cf. *narria* eta oroi *âr*), etab. Ikus Lakarra (2006c).

saketarik, eta mantendu nahi badugu bortitz/ahul zela AEZean ere nagusi, onartu beharko distribuzio osagarrian zirela (batzuk C<sub>1</sub>-ean, C<sub>2</sub>-an enparatuak) txistukari eta ozen. Alabaina, antz gaiztoa luke horrelako proposamen batek, ez fonema beregainak baizik eta alofono hutsak baitira distribuzio osagarrian ohi direnak; alegia, lau S eta dozenerdi R bortitz/ahul oposaketaren bitartez bereiztea baino datuek gehiago lagunduko lukete bi S eta hiru R, artikulazio puntuaren arabera bereziak (/s/, /s/, /l/, /r/, /n/) eta S-etan bestetan baino argiago alofono frikari eta afrikatuak zituztelarik.

Martinez Aretak (2006b) ozen eta txistukarietarako bortitzen jatorria azaldu nahi izan du, Mitxelenak dagoeneko aipatu C + C taldeen bitartez, nahiz eta oso adibide gutxiarekin. Beste lan batean (Lakarra 2008c), eman ditut hark aipatu gabeko -R- bortitzari dagozkion hainbat kasu, legezkiekeen etimologiekien:<sup>50</sup> *arrain*, *arrano* < \**e-da-ra-don-i l-no*, *arraultza* < \**e-da-ra-dul-tza*,<sup>51</sup> (*h*)*erro* < \**e-ra-don*, *jarrain* < \**e-da-ra-din*, etab. Azalpena -R- guztietara hedatu ahalko balitz (gehienetara bai, nik uste), -R bukaeran izan den fortizio eta neutralizazio berankor eta erabat orokortu gabearen bitartez azalduaz, bortitz/ahul oposaketa C-talde/C-soil oposaketara eramanez ahalko litzateke dardarkarietan beste inon baino errazago eta, bidebatez, oso egiantzeko eginaz azalpen bera gainerako ozenentzat.

AEZera atzeraka egin gabe ere susma liteke bortitz/ahul oposaketa ozen eta txistukarietan ez zela ez ugari ez zaharregi, are bere bokalarteko gotorleku horretan. VCV egitura hartzen badugu *atso*, *atzo*, *atzi(tu)*, *etzi*, *etsi*, *utzi*, *otso*, *etse* eta *ase*, *oso*, *aza* eta isuri zaidan besteren bat baino ez dugu; dozena bat izan zitezkeen ehunetik (5 x 4 x 5) ez da asko, baino are okerrago da VSV egiturarentzat horko asko erro “modernoak” izatea: -i atzikia dute, edo -e paragogikoa, edo nolabaiteko morfologia zaharra,<sup>52</sup> eta beste zenbaitek mailegu izateko aukera. Hortaz, horko afrikatuak —jatorrizko lexemekin ari garenean— ezkerreko morfemako txistukariak dira, azken C-ri zorko litzaioken fortizioa pairatu dutenak, alegia.

<sup>50</sup> Trasken (1997) *erran*-ez kontsonante multzoa > soila proposatzen du baina zehaztu gabe hura nondik datorren [hiztegian ezin esan aurrerago doanik]; nireak guztiak dira ezkerretako -d- bat -n- bilakatu eta hau eskubira joatean han zen -r- batekin osatutako taldeetarik.

<sup>51</sup> Mitxelenaren (FHV) \**erro* + *-kuntza*-k arazoak ditu atzizkiari dagokionez eta ez du kontuan hartzen hitz hasieran lehenagoko aurrizkien bilakabidearekin gertatua, honi eta beste-ri banakako aterabideak proposatuaz; ikus §6.5.

<sup>52</sup> *otso*-k esaterako: \**hor-tz-so*; (2002b)-n \**hor-so* soila eman banuen ere, uste dut hortik ezin dela *otso*-ra iritsi, gehienez ere \*(*h*)*oso*-ra baizik; orobat, *etse* (eta *hetsi*-ren familia) seguruenik *hertz*-eraino eramanez liteke (cf. *herzte*, bide batez).

Ozenetan ere bortitz/ahul oposaketak etekin urria izateaz landa —nekez aurkituko ditugu VRV egiturako izan zitezkeen 150 kideak— bada aztarnarik berezkoa eta AEZekoa ez dela izan pentsatzeko. Badira, batetik, zenbait hitz mailegutzat har ditzakegunak (*alu*, adibidez); beste batzuk, beharbada, talde kontsonantiko batetik bide dute beren ozen bortitza (cf. Lakarra 2007), Mitxelenak (1957) aukeratzen onartu bezala: cf. *baino* (< \**ba-dadin-no*) / *baina*, *baia* (< \**ba-dadin-a*), *arrano* (< \**arran-no*) / *arra(n)* (< \**arran-i*), *bele* (< \**bel-le*) / *beratz*; badira, oraindik, egitura handiagoen kontrakzioak direlarik ozena atzizkian dutenak (*ile/lule*) eta ez erroan. Honi guztioni gehitu behar zaio /R/ C<sub>2</sub>-an fortizio batetik datorrela eta C<sub>1</sub>-ean (non ez litzatekeen agertu behar, gainerako ozenak bezala)<sup>53</sup> aditzetako aurrizki defuntzionalizatu baten itxuraldaketatik: \**arran-* < \**e-da-ra-don*, *jarrain* < \**e-da-ra-din*, *arraul* < \**e-da-ra-dul*, *arbin* < \**e-da-ra-bin*, \**ardano* < \**e-da-ra-dan-o*, etab.<sup>54</sup>

Bost leherkari, gehi /h/, hiru ozen eta bi txistukarik hamaika kontsonante egiten dute; ez da asko, baina ez bedi pentsa gutxiagokorik ez denik, hawaieraren kasu ezagunaz landa ere. Baliteke beste nonbaitetik kontsonante (edo bokal) gehiago proposatu behar izatea aurki edo beranduago; nolana ere, berreraiketak soilik lekukotasun aski edo (antzemateko lain) aztarna aski utzi dutenekin baino ezin du jardun.

### 5.5. Azentu zaharraz

Jakina denez, Martinetek (1.a) eta Mitxelenak (2.a) AE-ren azentuaren zat kokagune ezberdina aurreikusi zuten, batak eta besteak helburu ezberdinak bilatuaz —azentu demarkatiboa eta hasperenaren distribuzioa, hurrenez hurren—. Bi helburuak direlarik garrantzitsu eta emankor euskarazko morfemen bilakabidea aztertzeke, interesgarri izan liteke bi teoria horiek uztartzea, horretarako biderik balitz. Hertsi-hertsian hartuaz, Martineten teoriak ezingo luke hainbat datu garrantzitsu azal: bada hasperen ugari 2. silaban (eta are hortik atzera ere nozbait), ez soilik 1.an, baina hasperena azentuaren eskubitara ezinezko delarik, ezingo litzateke hasperena 1.an baino izan azentua hark nahi bezala ezker muturrean balitz.<sup>55</sup> Mitxelenari aski zaio 2.ean edo eskubira-

<sup>53</sup> Ikus aurreko ataletako bibliografia gehi *FHV*/n/-ri dagokionez.

<sup>54</sup> Bantuan antzekoa CAUS + APLIC kasuan; ikus hemen §6.5.

<sup>55</sup> Arraroa litzateke, bestalde, hitzaren lehen silaba izatea berreraiketarako zailena (hor gertatzen diren asimilazio, disimilazio, gehiketa, erorketa eta bestelako fenomenoengatik) Mitxe-



go izatea azentua, hasperena ez soilik 1.an, baizik eta (bisilaboetan) 2.enean eta polisilaboetan (inoiz) are eskubirago izan zedin.

Bada bi proposamen horiek nahi legez bateratzerik, hitzaren autonomia —gehi hasiera eta barneko bilakabide ezberdinak— eta hasperenaren bilakabidea lortuaz: honetarako azentua akabuan zela proposatu, hots, esaldiaren akabuan ezarri azentu nagusia eta unitate prosodiko bisilaboetan (ez erro bisilabikoetan) 2. silaban unitate horri dagokion azentua. Aldezten dugun jokabide honek, jakina —cf., dagoeneko, Lakarra (1996a) eta Igartua (2002)—, morfemen edo unitate prosodikoen tamainari edo forma kanonikoari kasu egitea eskatzen du beti ere, Martinetek eta Mitxelenak egindakoaren aurka, hain zuzen.

Hitzen azken silaban izanik azentua, eratorri edo konposatuetako erro monosilabikoan, alegia,<sup>56</sup> Donegan eta Stamperen sistemaren barnean ez Mitxelenak ez bestek lehenago aurreikus ezin zitzakeen ondorioak ateratzen ahal ditugu orain (ikus §6.2), Martinetek eta hark bilatutako hitzen azentu demarkatiboa eta hasperenaren distribuzioaz, landa. Hau da, sistema horretan bisilaboen hondar azentuak (eta esaldiaren hondarrekoak) berarekin dakartza aurrizkiak, VO ordena, etab., kontrakoak, hitzaren lehendabiziko silabako eta esaldi hasierakoak, atzizki ugaritasuna, OV eta beste leharrelarik.<sup>57</sup>

### 5.6. $*h_3 > h_1$ , $*h_2 > h_1$

Arestiko zenbait lanetan (Lakarra 2009b, 2009d) arrazoigabekotzat jo diren hitz hasierako *h*- batzu azaltzen saiatu naiz. /h/-aren balio etimologikoaren kontrako argudio nagusietarik izan dira mailegu latin-erromantzetiko zenbaitetan euskaraz ageri diren /h/-ak. *Ohore*, *ahate*, *harma*, *harea*-k eta gainerakoek hasperena dute (*merkhátu*-k baina ez *mérke*-k, *nekhátu*-k baina ez *néke*-k bezala) eta beren jatorrian horrelakorik ez zutenez, euskal fonologiarena behar du “erruak”. Alabaina, horrelako /h/-ak bitan banatzen dira funtsean: bokalarte-

---

lenak *FHV*-n erakutsi bezala, baldin eta hor balitz azentua, honek silabari eman ohi dion indar eta tinkotasuna kontuan izanik; cf. Lakarra (2009e).

<sup>56</sup> Erroan eraman ohi du hitzak azentu nagusia eta ez hizkietan (cf. Donegan 1993).

<sup>57</sup> Ondorio hauetariko zenbait Lakarra (2005 eta 2006a)-n garatu dira; alabaina, eredu honen barnean (tipologia holistikoa delarik) diren inplikazio eta lotura larri eta askotarikoak batetik eta azentuak duen oinarritzko izaera gogoan hartuaz, bestetik, ez da erraz jakiten azentuaren kokagune zahararen berreraiketak noraino eraman gaitzakeen. Gogora §5.1en esana bokal eta kontsonante ugaritasunaz.

koak eta hitz hasierakoak. Bokalartekoei dagokienez, aspaldi erakutsi zuen Mitxelena *-n-* ahuletarik datozela maileguetakook, jatorrizko lexikoan dituzten beste hainbat kide bezala: *ihintz*, *ahal*, *ohol*, *leben*, *zuhur*, etab.; ikus §5.7.<sup>58</sup>

Hitz hasierako “/h/ etimologiagabeak” gelditzen zitzaizkigun, bada; horietarik bat edo beste Mitxelena berak azaldua zuen gurutzaketa gisa: *harroka* = *harri* x *roca*, *hezkabia* = *hatz* x *scabia*. Badira, halere, azaltzeke dirautenak (*harma*, *hautatu*, *hogen*, *harea*), nahiz eta ez ugari, *h-* guztien %1-2 edo, agian.

Kontua, gainera, aski desbideratua dago; zertarako balio du zenbait mailegutuan “*h-* gehiketa” bat proposatzeak horien egitura zehaztu gabe? Hots, berdin ote *h-*dun mailegu horiek barneko \**n-* (edo \**x-* > \**n-*) izan ala ez, dagoeneko \**h*<sub>2</sub> > *h*<sub>1</sub> ezaguna edo onartua denean? Cf. *hezur* < \**enazur*, *haitz* < \**enaelitz* FHV-n, adibidez.<sup>59</sup> Are larriago iruditzen zait “*h-* erantsi” hauen kontua eta pisua jatorrizko lexikoaz gogoeta handirik egin gabe erabaki nahia: hots, ba ote hor “*h-* erantsirik” horrelakoak hain ugari badira mailegutuan? Zein heinetan? Jatorrizko *h-*ak aztertzeak lagundu, gaitzetsi edo osatu egiten du dozenardi edo dozenaxka mailegu horien istorioa? Lakarra (2009b)-n erakutsi denez, jatorrizko lexikoan badira hainbat kasu zeinetan argudia litekeen barneko (bokal arteko) /n/ bat /h/ bilakatu eta ezkerretara joan dela: *herio*, *hodei*, *hoge*, *haran*, *herro*, *hego*, etab.; batzuk 3. silaba-buruan zen \**n-* batetik sortu dira (goiko *harea* legez), gainerakoak 2.enekotik (*hezur* eta *heuskara* bezala).<sup>60</sup>

Zalantzarik gabe, prosodiak lagundu egin du *h-* eransketa hitz hasieran.<sup>61</sup> Bere laburrean, mailegatutako “*h-* ez etimologikoak” bilakabide zabal eta garrantzitsu baten parte dira, erroaren hedaduraren —monosilabotik bisilabo eta trisilaboetarako bidearen— lekuko, aurrizki eta atzizki zaharren defuntzionalizazioaren eta antzinako enborren mugen higaduraren bitartez, alegia (cf. Lakarra 2009c). Alabaina, *h-* horiek (gehienak bederen) ez dira “arrazoi gabe”, etimologikoak baizik, guztiz ortodoxoak Mitxelena beraren *h* etimologikoekiko irizpidei hertsituz lotuaz. Hots, *-n-* > *-h-* bilakabidearen bidez sortu dira eta gertatu dena zera da, *h* horiek sortu diren lekutik mugitu egin direla, seguruenik

<sup>58</sup> Orain Igartuak (2010) hobeki azaldu du *-n-* > *-h-* bilakabidea.

<sup>59</sup> *Hezur* ez zuen mailegutzat, jakina; gero Irigoyenek *heuskara* \**enau*-tik ateratu zuen. Azkenari dagokionez, hobe, beharbada, *enutsi* < \**enontsi* < \**e-non-tz-i* (cf. Lakarra 2006c).

<sup>60</sup> Inoiz azalpen berriak lehen ezagutzen ez genuen mailegu berriren bat agertu digu (*hagin* < *caninu*, kasuko) edota artean gaizki azalduakoren bat zorrotzago azaltzen lagundu: zer gertatzen zen *offendere*-ren 3. silabarekin *hogen/hoben* eman ahal zezan?

<sup>61</sup> Eta hedatu, jatorrian *-n-* barneko pizgarririk ez zutenetara: hau genduke *harma* eta besteren kasua.

hertsia ego egin direnean azentuaren kokaguneari buruzko baldintzak (hori 1.ko eta 2. silabara mugatuaz), horrenbestez, azentu ondoko *hh* guztiak, 3. silabatik aurrerakoak, alegia, erortzeko arriskutan geldituaz. Ezkerrera kokatzeko gune egokia behar zuten, jakina: cf. *harea* < \**areha* baina *balea* < \**baLeha* (ez \*\**balhea*) edo *herio* < \**elino* baina *jario* < \**edalino* (ez \*\**hedario*).

Bilakabide honen neurri eta baldintzak jatorrizko lexikoan baino ezin kausi genitzake, ordea. Nabarmena da jatorrizko lexikoan (cf. *hoge*, *herro*, etab.) aditzetako \**e*- aurrizkien aurretik direla \**h*<sub>3</sub> > *h*<sub>1</sub> gehienak eta baita zenbait \**h*<sub>2</sub> > *h*<sub>1</sub> ere. Aldiz, ez da hor \**h*<sub>3</sub> > *h*<sub>2</sub> *lehoi* maileguan legez; bestalde, *hoge* lortzeko *b*- > *ø*- \**h*<sub>3</sub> > *h*<sub>1</sub> baino lehenagokoa izan behar eta baita *k*- > *ø*- \**h*<sub>2</sub> > *h*<sub>1</sub> baino ere. Horiei \**h*...*h* > *ø*...*h* aldaketa erantsiaz, argi ikus liteke badela hemen ezker parteko kronologia eta egitura ezberdinak ikertzeko interesekorik (§8).<sup>62</sup>

### 5.7. /h/ gehiago

Lakarra (2009d)-n batez ere hitz barneko /h/-ez aritu naiz, ez /ozen + h/ taldeez edota leherkari hasperenduez, demagun.<sup>63</sup> Hainbat arrazoi bildu dira hor /h/ bestelako (ez “gainerako”) kontsonante epentetikoekin —bereziki /-g/-rekin— berdintzearen aurka, fonotaktikoki, kronologia zein geografiahedadurari dagozkienak; orobat, -VVhV- hots segidetan (*saihets*, *oiher*, *aiher*, *eiher*, *aihotz*...) FHV-n agertutako susmoaren aurka, ez -h- baizik eta -i- dela sortu eta hedatu dena baieztatu ahal dugu, Mitxelenak (zein enparatuek) ez bezala, ondorio hori laguntzen duen zenbait etimologia bildurik. *Saihets/sahe*-*ts*-en kasuan etimologia lehendik (Lakarra 2002b) genuen: *sa*- (cf. *samur*, *sabel*, *samin*, *sakon*, *sabai*...) eta goraxeago aipatu *her-tz* > -*hets*. Orain gaineraoetan -*Vih*- lehengo -*VñV*- erromantzetik dator gehienetan eta inoiz (*aihotz*, esaterako, cf. gask. *housse* eta bere familia) euskararen bertan sortu da bestelako oinarririk gabe.<sup>64</sup>

<sup>62</sup> Lakarra (2009c)-n forma kanonikoaren aldaketaren aztarna gisa erabili izan dut fenomeno hau. Bidenabar, \**hur*-etik datoz *ibar*, *idor*, *hibai* eta *hidoi*; lehen biek *h*-rik ez dutelarik inoiz, hots hori eskubitatik (\**Vñi*-) baino ezin jin zitekeen azken bietan. Hortaz, \**hur-bar*, \**hur-dor*, \**hur-ban-i* eta \**hur-don-i* berreraiki behar ditugu eta gero -*r* > -*h* /\_C, \**h*...*h* > *ø*...*h* eta \**h*<sub>3</sub> > *h*<sub>1</sub> (\**h*<sub>3</sub> < -*n*- dugula, jakina) ezarri, hurrenez hurren.

<sup>63</sup> Bidenabar, *harotz/arroztz* eta *herio/jario* bikoteetako ezberdintasunaz eta *fan* eta *farre*-ren garapenean den ia hasierako *h*-ez gehi *hire/eure* bikotean Mitxelenak faltan boteaz landa ere mintzatu naiz.

<sup>64</sup> Oinarria izan bada, noski, VVC- > VC- prozesuetan zeinen bihurteta bide den; cf. *handi*, *laster* / *haundi*, *laister-lauster*, etab.

Halaber, Hualdek (1997a) proposatu  $f < w.h$  bilakaerak beste zenbait /-h/-ren balio etimologikoa indartzeko duen interesa erakutsi dut, hark erabilitako Mitxelenaren etimologiak harago eramanaz eta berriak erantsiaz: cf. *afari* < *gau* + *hari*,<sup>65</sup> *ifini* < \**edun* + *heben-i*, etab. Honi lotuta, *auben* zergatik ez den \*\**afen* bilakatu azaltzen dugu —diptongoa euskarazkoa da, metatesi baten ondorio—<sup>66</sup> eta baita *alfer*-ekin batera zergatik *auber* eta *auger* ere aurkitzen ditugun: Hualderen hipotesia indartzen da, batetik, eta baita *w.h* taldearen kronologia ikertu beharra ere, bestetik.<sup>67</sup>

Egia esan, /h/aren balio etimologikoaren auziaren zergatia —horren aurkako jarrera, alegia— inoiz baino ilunago eta ahulago begitantzen zait, are lan horretan ekarri ditugun aldeko etimologiaren bidezko frogaren positiboak konfiantza hartu baino lehen ere.<sup>68</sup> Bildu ditudan adabakiek bata-besteak sendotzen dute /h/aren balio horri etsiaz, baina artean ere bazen kontrako dossierrean hainbat pitzadura larri, haren pisua erabat arintzen zutenak:

a) ez da halabeharra fonema horren hedadura bat ez etortzea /g/, /r/ edo bestelako hiato-aurkako kontsonanteekin, ezta hauek bokalarteko /h/-dun oso hitz gutxiren (eskutada baten?) alomorfoetan agertzea ere, eta, areago dena, honelakorik inoiz ez gertatzea /h/-a historikoki gorde duten euskalkietan. Zergatik /h/ gainerakoekin kide bada (*FHV*, 221);<sup>69</sup> Orain arte genekiena aski zen esateko ezin dela bokal arteko /h/ horietarik bakar bat ere —dela *-h-* : *-ø-*, dela *-h-* : *-g-* alternantzetakoa— segurtasunaz hiato-hausle bezala sailka eta /g/ eta gainerakoekin berdindu. /g/ hiato-hausle ezagun eta berri frango bai, baina ez dugu bokal arteko /h/ ez-etimologiko garbirik kausitu. Honenbestez, aski argi iruditzen zait, distribuzio geografikoarengatik zein balio etimologikoarengatik, oso diferenteak eta diakronikoki nahiz kronologikoki bateraezinak direla /h/ eta /g/. Labur, 1) -VhV- > -VøV- xiv. mendez geroz Hegoaldean (nahiz -VCV- > -VøV- Euskal Herri osoan) eta 2) -VøV- > -VgV-

<sup>65</sup> Atzizki hau ez bide da latineko ezaguna, euskarazko *-hari* (cf. *hari*, *haritu*, *hartu*, *ari izan*) baizik; hortik inoiz *-h-* gordea, /k/gogortua edo /f/ bilakatu dagokion testuinguruetan.

<sup>66</sup> Metatesiaz dihardu Ander Martínez Egurceguik (2010) bere UPV/EHU-ko Mastergo tesian, lehendabizikoz gure artean hedadura eta sakontasun horrekin.

<sup>67</sup> Mitxelenaren /h/ etimologikoaren lau sailei bostgarren bat erantsi behar ote zaien galde liteke datu berrien arabera (ik. Lakarra 2009d: 83. oh. eta Lakarra prest.-8).

<sup>68</sup> Ez dut kontrako argudiorik ezagutzen; lan horretan esan bezala, Mitxelenak ez du etimologia bakar bat /h/ hiato-hausle gisa, ezta berak susmatu \**ViV* > *VihV* prozesuaren alde ere.

<sup>69</sup> Aspalditik dator eta Schuchardtek sortu ez bazuen berak zabaldu zuen etimologia eta konparaketan hain ondorio gaiztoak izan dituen ustekizuna. Ikus Mitxelenak (1950a) Boudari bokal geminazioaz emandako egurra; /h/ tartekatzearena inoiz gertatu ez den bilakabide horren bidelagun da, jakina.

horietako eta enparatuko batzutan, nahiz Ipar (*nagusi*), nahiz Hego (*zagar*, *arate*, *bigun*).

b) Ez da ahazteko DhV eredueta /h/ Iparralde osoan eta “kontraesanik” gabe azaltzea, hots, /h/ historikoki gorde izan den eremu guztian; ez ote “orokortze” perfektuegia? Bidenabar, horrelakoetan halabeharrez ere ez /g/, ez /r/ ez besterik ez da lekukotzen. Zergatik ez da -*Vig*- talderik (\*\**leigor*, \*\**saigets*, \*\**eigar*...) /h/ gabeko euskalkietan baldin eta /g/ = /h/, nahiz eta Iparraldean *leihor* (baita *lehor* ere), *saihets* (eta *sahets*) edo *eihar* (zein *ihar*) lekukotu? Ez ote berdintasun hori ez delako hainbestekoa eta -*i*- delako, Ipar nahiz Hego, (hizkera batzuetan) zabaldu dena? Lakarra (2009b) eta (2009d)-n irudititu zitzaidan ez zela oso egiantzekoa Mitxelenaren (*FHV* 215 eta 175-176) -*ViV*- > -*VihV*- erregelara. Hor ez zaie kasurik egiten /h/-ei, berritza baititu itxuraz, kontua \**V* ala \**Vi* den zaharra erabakitzea duelarik. Alabaina, ez da aipatutako hitz dozenaren etimologia bakar bat ere ematen, “egitura arrazoiak”, prosodikoak-edo, dira gogoan.

c) Akitania, Lerga eta bestelako lekukotasun zaharretarik hasita agertzen diren bokalarteko /h/-en artean zergatik ez da antihiatiko seguru bakar bat ere? Lehen nahiz orain zergatik ez zaigu aurkezten horrelako /h/ bakar baten etimologia ezagunik (eta bai -*i*- eta -*g*-dunen asko)? Zergatik lehen eta orain hainbat *n* (edo *f*) > *h*?

Ez dut, alabaina, ukatu nahi hitz barnean badela arrazoi segmentalik ez duen hasperen alerik, hots, aitzineuskarako inongo fonemaren jarraipen ez denik, dela Mitxelenak lehen eta Hualdek gero aipatu arrazoi morfologikoenatik (*on-herran*, *on-heritzi*, *larre-hederra*),<sup>70</sup> dela bestelako arrazoi prosodikoengatik edo analogia-motaren baten ondorioz —hots, jatorrizko lexikoak izandako bilakabideen eredura— sortuak.

Trasken (1997: 158)-ko hitzei aldaketa txiki baina erabatekoarekin “With just a tiny handful of possible exceptions, the Basque aspiration is etymological” esan ahal dugu bide hori emankor gertatzen baita euskal fonologia, morfologia eta lexikoaren ikerketan. Kontrakoa pentsatzea —arrazoi ez-segmentalengatik (morfologikoak edo bestelakoak) sortu eta hedatu direla hitz barneko /h/-ak (guztiak, gehienak nahiz zaharrenak)— faltua eta antzua da euskararen historia nahiz historiaurrea berreraikitzerakotan.

<sup>70</sup> Lehen bietan ohar *hon-* dugula, hasierako hasperenarekin. *Deihadar* ez da, *pace* Mitxelena, *dei* + *adar*, gehi delako -*h*- hori; ikus Lakarra (2009d)-ko argudiaketa.

## 5.8. AE-tik EBZ-ra eta bortitz/ahularen historiaurreaz

Nekez onar liteke, Trasken (1998) pentsatzen zuenaren kontra, euskal fonologia goitik behera inguruko hizkuntzen eraginez aldatu zela, morfosintaxian, aldiz, horrelako eraginak hizkuntzaren eredu jatorrari zirkinik ere egiten ez ziola eta, funtsean, euskara modernoa eredu morfosintaktikoari dagokionez AE-ren hurbileko dela, fonologia eta lexikoa erdarek suntsitzen eta zilipurdikatzen zuten bitartean. Komeniko da lan gehiena AE-z eta euskararen historiaurreaz alderdi honetan egin bada ere, berriro bihurtzea noizbait AE-ren egitura fonologikoaren, horren jatorriaren eta horrek pairatu aldaketen azterketara.

Esaterako, Martinetengandik dator bortitz/ahul oposaketa ahostun/ahoskabe bilakatzea inguruko hizkuntzen eragin larriaren bitartez azaldu behar delako ideia. Bakoitzean harrigarriago egiten zait ustekizuna batez ere harengandik etorririk. Ez dirudi leherkarietan bortitz/ahul sistema karratutik berehalakoan igaro zenik ahoskabe/ahostun sistema karratu berrira, tarteko zenbait bilakabide eta hainbat urteren bitartez baizik. Hor nonbait dugu —EBZean edo— Gavelek eta gero Mitxelenak azaldu duten triangelua, ahostun soilarekin hasieran eta ahostun/ahoskabearekin barnean. Bestalde, ez dirudi hirugarren sistema moderno honetako ahoskabez hasitako morfemen eta AE-ko leherkari bortitzen eta Erdi Aroko ahoskabeen bitartean jarraipenik denik, ahulen eta ahostunekin gertatzen denaren aurka. Egia da badirela *koipe* edo *kalte* bezalakoak lexiko zaharrean baina gutxienak dira, bortitz zaharrak erortzen zirelarik, edo hobe, hasperen bilakatuaz leherkarien sistematik ateratzen zirelarik. Bilakabide zabal eta luze honetan ez dakust zer laguntza eman dezaketen edo zer bortxa egin hizkuntza erromantzeek; gehienez ere, momentu batetik aurrera —hainbat mende igaro ondoren— lehen ahulen (= ahostunen) bitartez euskal lexikoian biltzen ziren maileguetarik batzuk (ahoskabez hasiak) jatorrizko ahoskabe hasperengabea gordetzen hasi ziren.<sup>71</sup>

<sup>71</sup> Martinetek eta Mitxelenak karratua dute aldarrikatzen AE-ko leherkarietan baina ez du horrelakorik egiten Mitxelenak txistukari eta ozenetan. Leherkarietarako dagokienez, bere erronboa ez da zaharrena, karratuaren beranduagoko aldaketa baizik. Batetik bestera iristeko zenbait gauza gertatu behar dira, gauza larriak guretzat, eta ulerterrazak Martineten sistemaren barnean... ez bera eta ez beste oharu arren, dirudienez: hain gogoko zuen (eta hainbat lanetan erabili zuen) hiperkarakterizazio batez, bortitzak bortitzago eta ahulak ahulago egin ziren hitz hasieran. Bortiztasuna hor hasperenaren bitartez gauzatzen zelarik, are hasperendunago egin ziren, hainbat non leherkaritasuna bera galdu zuten. Besterik gabe, bilakabide honekin berarekin, ez dugu etorkizunean bi leherkari sail positio horretan, bakarra baizik. Bestalde, ahulta-

Aldaketa hauek sortzen duten sistema hain da ezberdina inguruko hizkuntzetarik eta hain da markatua hitz hasiera (hots-sail bakarra eta bera ahostuna!) non ez den harritzekoa handik gutxira soinu eta fonema ahoskabe berriak sortzea hor garai modernoetako ahostun/ahoskabe sistemaren oinarriak ezarriaz:<sup>72</sup> *p-, t-, k- / b-, d-, g- : -p-, -t-, -k- / -b-, -d-, -g-*. Ohar bedi, halere, ez dela kanpoko hizkuntzen eragin larri (?) soila aldaketa honen errudun: badira *koipe*, *kalte* bezalakoak jatorrizko lexikoan eta mailegu ugariez landa, badira fonosinbolismo frango ere ahoskabeak etxekotzen lagundu ahal zutenak puntu horretan.<sup>73</sup> Ez ahaztu, gainera, 400 edo 600 urte lehenago maileguetako ahoskabeek ez zutela inongo arazorik *in masse* euskarazko ahuletara joateko eta, beraz, historikoki ahostun agertzeko: aldaketaren arrazoi nagusiak hizkuntzaren barnekoak izan bide ziren.

*p-, t-, k-*z hasitako hitzen azterketak (Lakarra prest.-2) erakusten digu hots horiek ez direla, soilik, mailegu modernoetan ematen (cf. §5.1); are gehiago: gutxienak dira bakarrik horrelako aldaerak dituzten maileguak eta asko *bakel/pake* bezalakoak, non lehenago ahostuna asimilazioz ahoskabe egin den, oro har, EBZaren zatiketaz geroztik. Berrienak dira, seguruenik Erdiarotik aurrera zabalduak, azkenik, soilik aldaera ahoskabea dutenak. Bestalde, bertakotze-bide ezberdin hauei fonosinbolismoena gehitu behar zaie. T- erro erduei so eginaz, fonosinbolismo eta onomatopeien artean nagusi ditugu ahoskabez ha-  
siak:

TVRV (4) *burra, gale, gili, giri, guru, kara, kili, kirri, kuru, kurri, pirra, pirri, tala-tala, tana, tirri-tirri, tita, tarra* (12/17),

TVSV (4) *putxe, putxi* (2/2),

TVTIV (4) *babi, babo, baka, bebe, bibi, bobo, buba, butu, dapa, dithi, goga, kada, kaka, kika, koko, kubi, kuku, papa, pipi, pupu, patta, pito, popa, pupa, pupu, purra, tada, tago, taka-taka, tapa-tapa, tata, tato, tipi, toto, tupa, tutu* (25/36)

---

sunas hasperen faltaz gauzatzen zelarik, ahulek izan zezaketen hasperen urria galduaz ahostun bilakatzen zirelarik, angelu edo erronbo bailiran.

<sup>72</sup> Baina gogora bedi ahoskabe modernoak (gehienak bederen, cf. Gavel 1920 eta *FHV*) ez datozela AE-ko bortitzetarik, bortitz horiek desagertu eta hasperena eta/edo zero bilakatu baitziren.

<sup>73</sup> Hau Mitxelenak inoiz markatu zuen (/m/-z eta ezpainkarietz hitzegiterakoan, demagun) baina gaia ez da aski ikertu. Nabarmena da beren eskasiak ematen ziela, hain zuzen, aparteko balioa; ugaltzerakoan kontsonante horiek “normaldu” egin dira, garai modernoetan gainerakoetarik ezin bereiz litezkeelarik. Fenomeno bertsua da bizkaieraz sabaikariekin jazotakoa: palatalizazio automatikoa inon baino gehiago hedatu delarik, Azkueren “palatalizazio semantikoak” historikoki bere lehenago indar guztia galdu du. Ondorioz, ez da sabaikarien eta ozen, txistukari zein leherkarien artean lehenagoko (eta oraindik hainbat euskalkitako) ezberdintasunik.

Modu sistematiko batean ikertzea merezi lukeen fenomeno orokorrago baten zati baino ez bide da leherkari ahoskabeen hitz hasierako hedadura (berantiarra); hizkuntzaren eransletasunerako deribaz ari naiz, alegia (cf. Lakarra 2006a). Turkoz, japonieraz edo dravidikoz bezala, ahostun/ahoskabe opo-saketa berantiarra da, hizkuntza eredu aldaketa horretan aurreratua zenekoa. Orobat, bide beretik azaldu behar dela dirudi kontsonante inbentarioan izandako gehiketa esanguratsua: teluguz eta beste hizkuntza dravidiko modernoetan hiru bat dozena kontsonante aurkitzen dugu (cf. Rao 1994), aitzindravidikoz ziren hamaseietarik. Euskara modernoan gehiketa ez da hainbestekoa izan, baina AE modernoko hamaseietarik —5 leherkari, 4 txistukari, 6 ozen eta /h/— bi dozenetara edo iritsi da hainbat hizkeratan: lapurteraz, esaterako, /p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/, /h/, /l/, /l'/, /n/, /n'/, /r/, /R/, /m/, /f/, /s/, /s'/, /ç/, /ç'/, /š/, /š'/, /t'/, /d'/, /j/.<sup>74</sup> Aldaketa honetan —hertsian ez baita soilik gehiketa (gogora leherkari eta ozen bortitzak)— partez baino ez da “errudun” inguruko hizkuntzen eragina; beste zati handi batean sabaikariak sistema orokorrean normaltzeak eta ezin utzi aipatzeke sabaikaritzeaz landako fonosinbolismoa: lehen aipatu /p/, [t-], [k-] eta baita /f/<sup>75</sup> eta /m/ ere, noski.<sup>76</sup>

## 6. Aitzineuskararen egungo berraraiketaren zenbait alderdi: II. Morfosintaxia

### 6.1. Erro monosilabikoa

1995ean argitaratu lanean markatutako erro-hertsapen baten (\*\*TVTV) formulaz eta horren hurbileko eta urrutiagoko etorkiez eta ondokoez aipatu dugu dagoeneko (§3). Izan ere, ez dirudi azalpenik ez zehaztasunik gabe utz genezakeenik munduko hizkuntzen artean hain arrunt eta usuko dugun bi

<sup>74</sup> Bi kendu behar txistukarietan B-z eta G-ren zati on batean, baita pare bat sabaikari ere (/t'/, /d'); hauetan, aldiz, /x/ bertakotua da. Z-z badira pare bat txistukari ahostun (maileguetan, funtsean) eta bi dardarkariak neutraldu egin dira... Xehetasunak xehetasun, nabarmena da gehiketa eta baita gutxiena dela bertan mailegatua.

<sup>75</sup> Honetaz lehen §5.7ko oharra; orain Mitxelenaren 1957ko argudioetarik bat ezingo litzateke erabili fortis/lenis oposaketaren alde?

<sup>76</sup> Lan horretan bokal sudurkariaren garapena (berantiarra) ere ematen nuen deriba eta sistema fonologikoaren aldaketaren arteko erlazioa erakutsiaz Doneganen austroasiatikoaren inguruko lana eta Houis (1970)-en eta beste zenbait afrikanistarenak jarraiki.



silaba irekitako segida hori.<sup>77</sup> 1995ean erro-eredu honen falta lehenagoko erro bisilabo (eta gainerako polisilabo) guztienarekin lotu nuen, euskal erro zaharrak gehienbat bisilaboak zirela zioen aspaldiko ustearen aurka. Geroztik ez dut ikusten arrazoirik azken ondorio hau aldatzeko AE zaharrenarentzat: etimologia-lanak hasixeak baino ez badira ere, lehen bisilabotzat edo polisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bitartez (*\*sa-mur*, *\*gi-bel*, *\*(d)a-dar*, *\*ze-zen...*) edo mailegu gisa (*\*enazur*, *\*organa*) azaldu ahal ditugu; ez dira guztiak, jakina, baina erro eta morfemen forma kanonikoaren inguruan lehen ez genuen ikerbide emankorra garatuaz joan dela deritzot eta, hobeagoa dena, teoria berriak hainbat galdera eta hedadura berri sortzen dituela, garapen habororen iturri.

Australiako zenbait hizkuntzatan (cf. Dixon 2002) gertatuaren aurka, euskaraz inork ez du deskribatu bisilabo > monosilabo aldaketa prozesu orokor zahar eta zabalik.<sup>78</sup> Halaber, leherkariak dituzte amaieran monosilabo moderno batzuk baina zalantzarik gabe (cf. Artiagoitia 1990) -T ezinezko genuen AE-n, eta baita askoz beranduago ere. Ez dirudi *ke* ~ *eke* eta antzeko zenbait bikotek ere bisilaboen lehentasuna ezartzen lagun gaitzakeenik: kasuak gutxi dira, esparru are laburragoak eta azentu mota jakin bati lotuak (cf. *FHV* 157). Ustezko forma kanoniko bisilabikoaren monosilabikoranzko lerradura deuseztatzeko hori guztia aski ez balitz, bide beretik doa esparru-eskasia eta berankortasuna *torri*, *kusi* eta gainerako hirusilabo ohikoen azalpena: ezin, bada, bisilabo ~ monosilabo alternantziatzat aurkeztu, are gutxiago euskalki guztiak edo gehienak ukitzen dituen aldaketa orokortzat.<sup>79</sup>

Azterketa berriek 1995ean aipatuez landa hertsapen eta orokortasun gehi-ago ekarri dute. Hasteko, TVTV-ren aitzineuskarako (eta geroztiko) ezintasuna guztizko bilakatzeko euskara modernoan azken bi mila urteotako bilakabideen ondorio diren eta Lakarra (1995)-ean aztertu ez ziren /f/ eta /m/ nahiz T- ahos-

<sup>77</sup> Gonbara bedi uralikoaren eta Australiako hizkuntzen egoera (cf. Bakrò-Nagy 1992 eta Dixon 2002).

<sup>78</sup> Badira *bart* < *barda*, *bat* < *\*badV*, *dut* < *\*duda* eta beste zenbait, baina gutxiegi eta garbiegi eta, beraz, modernoegi ezertarako itxura guztien arabera: gogora, halaber, *daminda* eta *dikeada* (-*da*-rekin) oraindik RS-en aurki litezkeela. Bada, polisilabo > bisilabo bilakabiderik indonesioz eta bezala (cf. Gonda 1949-1951) baina horiek forma kanoniko bisilabikoaren aldekoak eta hein batean berankorrek ditugu (cf. Lakarra 2009c eta hemen §3ko oharra).

<sup>79</sup> Besterik da, oraindik-orain ere hitzaren lehen kokagunea zailenatarikoa izatea ikertzaileentzat. Horrela gertatzen da tibeto-burmeraz eta Asia-Ekialdeko hainbat hizkuntzatan ere; beharbada, hemen aurrizki zaharren aldeko argudio berri bat dugu, fonologia hutseko azalpenaren aurka (cf. Lakarra 2004c), Sagartek (cf. 1999) aitzintxinerarako erakutsi duen bezala. Ikus orain Lakarra (2009e).

kabeak hartu ditugu kontuan euskara modernoko egoerarako. Lakarra (2002a)-n \*\*TVTV hertsapena sendotzeko ikertutako erro-sail guztiez landa, CVCV-ko ororen azterketa orokorra burutu genuen pausu legez; \*\*TVTV azaltzeko “\*\*bisilabo eta polisilabo” hertsapenak proposatzeak berarekin zekarren \*\*CVCV eta baita (cf. Lakarra 2004a) \*\*CV(C)CV(C) ere. Bildutako datuek gure aurreikuspenen alde egin dute: zehatzago, RVRV, RVSV, RVTV, SVRV, SVSV, SVTV, TVRV eta TVSV \*\*TVTV-ren lagunak eta are hVRV, hVSV, hVTV eta RVhV, SVhV, TVhV ere ezin ditugu AEZeko —ezta AE berriko nahiz beranduagoko (cf. Lakarra 2009c)— forma kanoniko bisilabadunekoaren oinarritzat hartu. Erro-eredu horietan “(5)” sailean batu diren etimologia ezezaguneko hondarrak monosilaboetakoekin erkatzean oso urri agertzen dira, hainbat non nekez izan litezkeen forma kanoniko monosilabikoak baino zaharrago; alderantziz, hainbat dira erro-eredu bisilabiko horietan berrikuntza gisa —mailegu, aldaera zein eratorpen-konposatu— azaldu ahal direnak eta gehiago ere izango dira horretara jarritz gero erro horietarik ezabatuko ditugun (5)eko kideak.

CVC zen, beraz, eta dirudienez hertsia-hertsian gainera, AEZ-aren erro kanonikoa, ez IEz edo, batez ere, kartvelieraz legez (cf. Lakarra 1998b) C-, -V- zein -C horien aldaera eta ugalketa ugarirekin.<sup>80</sup>

## 6.2. Aldaketa tipologikoa

Austerlitzek (1976) zuzen eta garbi eta beste askok inplizituki onartzen dutenez —cf. Post (2006), (2009) azkenen artean—, hizkuntza monosilabikoak ez dira eransle eta, alderantziz, hizkuntza eransleek erro bisilabikoak dituzte. Austerlitzek Europa eta Asia iparraldekoak aipatzen ditu (uralikoak, turkikoak, mongoliera, mantxuera, koreera, japoniera) baina beste asko —mundak, Australiako gehienak...— gehitu ahal dira. Horrezaz landa, a-uralikoaren edota a.-finougrioren hiztegi etimologikoek erakusten digute eransleetan erro bisilaboak ia %100 direla; zehazki, badirudi (cf. Bakrò-Nagy 1992) 500 erro berreraikitatik guztiak direla bisilabikoak, salbu eta dozenerdi partikula eta morfema gramatikal. Alabaina, hauek, dakigunez, ez dute kontaktzen edo, hobe, asko kontaktzen dute, hizkuntza eta hizkuntz-familia gehienetan lexemen “ispilu-irudi” baitira: cf. Gamkrelidze & Ivanov (1984) IE-rako eta euskaraz *eta, edo, ni, gu...*, etab.

<sup>80</sup> AE zaharreko CVC erro-ereduaren aldeko froga gehiago eta horren aldaketa eta hazkundera hasperenaren bilakabidearenarekin erkatuz aurki liteke Igartua (2002)-n; lan honetaz eta forma kanonikoaren bestelako alderdiez ikus Lakarra (2009c).

Aspalditik zabaldua da etxean eta kanpoan —ikus Trask (1998) adibide garbi baterako— euskararen egituraz honela labur litekeen dotrina bat: 1) euskara eranslea da, 2) SOV hurrenkera du, 3) oso aditz aberatsa du, 4) hizkuntza ergatiboa da, 5) atzizki ugari ditu aditzean zein izenean, 6) ez du aurrizki eta preposiziorik...; esan gabe doa, ezaugarri hauek guztiak ez direla askeak eta loturagabeak beren artean. Bistan da, funtsean, gauzak horrela direla lekukotasunik dugunetik; alabaina, eta lehenago? Euskarak azken bi mila ez eze azken bost mila urteetan aldaketa aipagarriarik gabe iraun duela onartu behar dugu, beste inongo hizkuntza bizitan ez bezala? Honelakoetan mintza bitez datuak eta azalpenak eta isil bitez aurreiritzi eta alper-jardunak.

Traskek (1977) “euskara zaharra” SVO zela proposatu zuen, aditz aurrizkiak, “dative-flags” direlakoak eta beste zenbait kontugatik. Gómezek (1994) eta Gómez eta Sainzek (1995) urrutiago jo eta VSO proposatu zuten, aditzaren bilakabidea zeltarenaren antzera azalduaz. Kasu batean zein bestean, eredu aldaketarako proposatzen ziren arrazoiak oso garrantzitsuak izanik, ez zen froga material handirik eredu berriaren alde eta euskara historikoaren ezaugarriak bata zein besteari zegozkionetarik urruti zela ziruditen. Esate baterako, zer gertatu zen horrelako hizkuntzek aditzean ez eze izenean ere izan ohi dituzten aurrizki eta preposizioekin (cf. Tovar 1997: 98-99)? Nolanahi ere, bi bidetarik abia gaitezke goian aipatutako euskararen “egitura kanoniko” horrek diakronikoki duen balioa aztertzerakoan eta, kasua balitz, aurreragoko egitura zaharragoaren berreraiketan:

- 1) batetik aipatu bai, baina ez aztertu ez berreraiketan erabili diren zenbait irregularitate aztertuz eta erabiliaz eta are orain arte ezagun ez diren gainerako mordoa plazaratuaz (ikus Lakarra 2005: §§5-19);
- 2) barne berreraiketa tipologia holistikoki diakronikoarekin osatuaz.

Aurreko lan batean (cf. Lakarra 2006a) bildu nituen euskararen ohiko irudiarekin nekez batera litezkeen zenbait ezaugarri zahar, CVC erro monosilabikoaz gainera; esan gabe doa euskara historikoan irregularitate edo *fase sparingita* huts diren hauek AE-rako berreraiketan kontrako ezaugarriek baino auke-  
ra gehiago dutela:

-Adjektiboa Izenaren eskubitara (“aditza-aitzin” duten hizkuntzetan bezala) eta Adjektibo-sail itxia, hots formalki berezi gabeko kategoriarekin; -Izen-Erlatibo ordena zaharra (testuetan eta toponimian), orobat genitibo lokatiboak; -Postposizio eta atzizki gutxi, konparatiboki, eta berankorrek; -IS-eko aurrizki zahar ezezagunak eta AS-rako beste zenbait lehen ezagutzen zirenez gainera; -Silaba irekirako joera modernoa, lehenagoko erroko silaba itxiaren aurka, bokal sudurkarien gara-

pena Erdi Aroan; -Hasierako bokalen gehiketa eta kontsonante inbentarioaren hedadura baina sistema bokalikoaren iraunkortasuna; -Lehenago aditz estatiboak ziren adjektiboen ugaritasuna, dravidikoz bezala eta tibeto-burmeraren alderantziz; -Aditz jokatuaren izaera berankor eta laburra; -Ergatibo markaren jatorria lokatibo bizidunetako *-ga* postposizioan; -Marka gehiketaren bitartezko kasu lokatiboen espezializazio progresiboa dravidikoz legez, lehenago kasuok orokorrago zirelarik tibeto-burmeraz bezala; -azentua azken silaban AEZ-en, etab.

Askok, agian guztiek, arazo ugari izan lezake eta baita ñabardura gehiago behar ere, baina uste dut are azken 500 urteotan eta, oraindik argiago, azken 2000 hauetako hizkuntzan ere badirela zantzu eta aztarna garbiak adierazten dutenak lehenagoko euskara historian zehar ezagunen dugunaz oso bestelakoa zela.<sup>81</sup>

Tipologia ezaugarri solteen anabasa loturagabe gisa ez —gogora ergatiboaren markarekin gertatua—, baizik eta modulo ezberdinetako (fonologiako, morfologiako eta sintaxiko) ezaugarri nagusien sare bezala ulertzeak sinkronian garrantzia badu, diakronian berebiziko laguntza eman liezaiguke berreraiketa zabal eta sendoagoa egiteko orduan eta baita aldaketa kateak aurreikus eta azaltzekoan. Horrelakoa da, esaterako, Donegan eta Stampek (1983, 2004) hizkuntza munda eta monkhmerren artean egindako erkaketa: erakutsi dutenez, aitzin-austroasiatikoaren bi azpitaldeok ez dira soilik diferenteak, nahiz arrunt diferenteak ere: kontua da zehatz eta sistematikoki kontrajarriak direla, fonologia, morfologia eta sintaxiko puntu nagusienetan, Donegan eta Stamperen ustez horien guztien oinarrian den azentuaren kokapenean kontrako joerak hartu dituztelako batzuk eta bestek. Tipologia diakronikoa horrelako kontrakotasunak eta deribak azaltzeko eta modulo guztien arteko loturak zehazteko gai den unetik, asko da aitzina genezakeena berreraiketa konparatu klasikoa nahiz barneberreraiketa modernoagoa gidatzeko orduan.

Horrenbestez, baldin eta mundaren bisilabismoa, bokal inbentarioaren murriztapena eta kontsonantikoaren hedadura, SOV ordena, atzizkien garapena eta aurritzien galera, aditz-multzoaren emendatzea eta beste hainbat berrikuntza lotuak badira beren artean eta “azentua azken” → “a. lehen”, sako-

---

<sup>81</sup> Zerrenda horri, jakina, kronologia falta zaio eta komeni da erlatiboa nahiz absolutoa eraikitzen edo eraikitzeko bidean jartzea. Halere, hainbat ezaugarri ez dira ez Mitxelenaren AE-rako ez akitanierako seguruenik, eta besteren bat —eratorpen atzizkiak, demagun: cf. Lakarra (1997a), Sarasola (1997) eta Bueno (2004)— atzo goizekoak, euskara idatzitik kanpo eta are bertan ere. Ikus Lakarra (2009c) forma kanonikoaren aldaketari buruzko zenbait goetatarako.

neko aldaketa garrantzitsuenari, orduan euskarak harekin amankomunean dituelarik hainbat eta hainbat ezaugarri, pentsatu beharko genuke noizbait AE-k ere “azentua azken” izan zezakeela monkhmerrak legez (= Mitxelena) eta ez “azentua lehen” (Martinetek nahi bezala), munda modernoak legez. Jakina, kasu horretan —eta hasperenaren azterketak horren alde hitzegiten du— euskara zaharrak atzizki eta postposizio gutxi, aditz sistema sinplea, analitikoa, erro monosilaboak, VO ordena, aurrizkiak eta preposizioak, V gehiago eta C gutxiago inbentarioan, etab., behar zukeen izan... eta, izan ere, berreraiketak aurrera egin ahala horrelako zerbait erakusten digu (cf. Lakarra 1996a, 2006a).

Egia da forma kanonikoaren azterketa hutsak ez gintuzkeela soil-soilik eta zuzen-zuzenean ondorio honetara ekarriko baina, nabarmenki, monosilabismoak euskara historikoaz oso bestelako hizkuntza berreraikitza garamatza, pankronistek eta ofiziorik gabeko hizkuntz-historialari amateurrek kontrako-rik baderitzote ere (cf. Gorrotxategi 2007 eta 2009ko oharra).

### 6.3. Artikulua eta perifrasiak

Azken urteotan, 1990az geroz, demagun, morfologia diakronikoaren ikerketan aipagarrien egiten zaizkidan lanak (Julen Manterola eta Céline Mounolerenak)<sup>82</sup> ez dira AE-ri buruzkoak, hainbat mende edo milurtekoren bat beranduagoko fenomenoekikoak baizik. Alabaina, ezinutzizkoa da hemen haien aipu laburra, berehalakoan antzematen baita gure gaia zedarriztatzeko joateko duten garrantzia.<sup>83</sup>

Jakin nahi zuenak bazekien (cf. Mitxelena 1981) AE-k ez eze akitanierak eta euskara zaharrak ere ez zuela artikulurik, latinak edo germaniko zaharrak ere ez zuen moduan eta erromantze zein hizkuntza germaniko modernoek eta are XX. mendean geroztiko suomierak —baina ez XIX.ekoak— duten legez.<sup>84</sup>

<sup>82</sup> Trask (1977)-z aritu naiz lehen (§3) eta Gómez (1994), Gómez & Sainz (1995) bezala, astiroago erabili eta inoiz ezatabaidatu dut Lakarra (2006a) eta ondoko lanetan. Martínez Areta (2008) oso interesgarria da baina arazoak ditu lege fonetikoaren kronologiarekin eta AE-kotzat jotzen dituen zenbait fenomeno AE baino dexentez beranduagoak bide dira. Ikus Lakarra (2009c) eta (2007)-ko oharra.

<sup>83</sup> Berrikuntza gutxi da —bai, aldiz, eskolarako bilketa-lan erabilgarririk— Azkarate & Altuna (2001)-en; pena da, halaber, liburu horretan tipologia sinkronikoari nahiz diakronikoari eta gainerako hizkuntzetako ereduaren laguntzari hain toki laburra emana.

<sup>84</sup> Bazekikeen \**har* > -*a* ere (cf. B *a* 'ERAK.' / -*a* 'ARTIK.'). Orain, *har* horretatik *har* 'har(i)tu'-ra iristeko ikus Lord (1993) Ginea Golkoko eta enparatuetako multzo aditz honen gramatikalizazio adibideekin.

Manterolak (2006, 2008) argitu du erakusletik artikulura bidean zen zenbait zalantza —zergatik *lurr-e-ko*, *-e-an*, *-e-tik*, baina *mendi-ko*, *-an*, *-tik*?— eta baita kasu eta pluralen eransketa, beharbada, erakuslean bertan egin zela eta horren emaitza (ez atal bakoitza bere aldetik) erantsi zitzaiola enborrari, eta kontrakzioak ere ez zirela hemen gertatu uste genuen bezala, aurretiaz baizik. Ikuspegi berriak azentuaren edo banaketa dialektalean dituzkeen ondorioak agortzeko dira; cf. Martínez Areta (2009), Hualderen hainbat lan eta Elordieta (2008). Baina aipatutako lehen lanaren eranskin labur batean artikulua kronologiarekin lotu dituelarik Donemiliagako (1025) Reja ezaguneari ageri diren *-ha* (gehi *-hea*-ren bat) ugariak,<sup>85</sup> hirugarren gradukoaren gramatikalizazioaren *post-quem* data I. milurtekoaren azken-azkenera atzeratu du.<sup>86</sup>

Céline Mounolek baditu dagoeneko hainbat lan garrantzitsu, abian den tesiaz landa, euskarazko aditz-perifrasien jatorri eta bilakabideaz. Asko da aipagarriarik eurretan baina gaurkoz aski izan bedi honako hau: hor argiro erakusten denez, ez da inongo arrazoirik uste izateko euskarazko hiru perifrasi nagusiak —(1) *-il-tu* + *\*edun/izan*, (2) A.Nag- $\emptyset$  + A.Lag. Irreal, (3) A.Nag. *-t(z)en* + *\*edun/izan*— garaikide direnik, eta ezta jatorri bereko (dela latinetikoz zein bestelako) ere. Honenbestez —eta eredu falta ere gogoan— ahaztuaz joan beharko aspaldiko lillura, hots, euskarak nozbait perifrasiarik ez zuela eta historikoki dituenak latin-erromantzeen kutsu gaiztotik datozkiola. Areago; ez da arrazoirik pentsatzeko kutsu gaizto horren bigarren ondorio denik AEko aditz sintetiko ustez unibertsal eta aberastasunez josiek pairatu omen zuten higadura ere.<sup>86b</sup>

<sup>85</sup> Egia da, dakidanez, euskalari guztiak onartu dutela *\*-har* > *-a* eta, beraz, *\*-ha* behar zuela tarteko; orain, zorionez, ez dugu izartxoren beharrik Manterolaren lanaz geroz. Bideabar, lehen ere *-zaba* atzizkia ezin izan zitekela soila antzematen edozeinentzat, are erro monosilabikoaren teoria baino lehen ere.

<sup>86</sup> Ikus 22. oharra. Bitxia benetan Veleian 2004-2005 urteetan “aurkitu” omen III-VI. mendeetako ustezko euskal testuetako artikulua ugariak —A. Picaud-ek ia mila urte beranduago artikulua gabe zekartzanetan eta guzti— dagoeneko guztiak *h*-gabeak izatea.

<sup>86b</sup> Cf. ez hain aspaldiko bestelako baieztapena:

Contact, first with Latin and then with the Romance languages, must have at least promoted and accelerated the rapid development and expansion of the system of periphrastic forms, *if it did not in fact give rise to it*. It is no clear whether in Roman times the system of synthetic forms was productive [...] The problem would be how to explain that, among the huge number of verbs which were borrowed during those periods, only two, at most, entered the synthetic conjugations (Gómez & Sainz 1995: 238; etzana neurea da [J.A.L.]).

6.4. Aditzaren historiaurreaz

Duela laupabost urte hasi nintzen aditz zaharren erroak aztertzen (ikus Lakarra 2006b-c). Helburua Lafonek (1943: 420-421) eta bestek aldarrikatu aniztasun eta polimorfismo ia mugagabea, benetakoa ote zen ala ikerketa desgokiaren edo ikerketa faltaren ondorio. Aski garbia da hor ere badela forma kanonikoa eta are forma kanoniko horretara eramán litezkeela bestelako alo-morfo eta irregulartate asko, gehienak eta ia are guztiak teoria morfologiko egokiago eta aski sinple baten bitartez; forma kanoniko hori, gainera, aurreko lanetan (Lakarra 1995hh) izen-adjektiboetan kausitu CVC bera da, funtsean.

Paradigmak begiratuaz ohartzen gara CVC-tik benetan lekukotu enboren artean hiru eratako bilakabideak eta diferentziak kausitzen direla: a) formula horren aldaketak, kontrakzioak gehienbat; b) CVC horren hedadurak aurrizkien bitartez eta c) a + b.

Dagoeneko *-ra-* hedadura ezaguna genuen. Geroztik, bigarren hedadura bat —adizkietako *da* (Trask 1977) bera— forma jokatugabeetan ere aurkitu dugu (cf. *jagon, jazarri, jakin, jautsi*, etab.) bizpahiru dozenatan, —semantika eta geografia diferenteeekin—. Beraz, *e-/ja-* ezberdintasuna ezin har liteke halabehar edo lilluratzat, ezta arrazoi apartekorik gabeko aldaketa fonetiko hutstzat ere, Mitxelenak inoiz egin bezala (cf. Lakarra 2006b-c). Gainera, Lakarra (2008c)-n Mitxelena (1977b)-ko pasarte bat berraztertuz, *jardun, jaretsi, jarein* eta beste zenbaitetan ez *\*jar* “izen ezezaguna” + *-edun, -egin, -etsi* eta enparatutako aditz arinak baizik eta *\*da-ra-*, bi aurrizkien (edo hiruren) erabileraren arrastoak ere badirela erakutsi uste dut:

<i>jardun</i>	< * <i>e-da-ra-dun</i>	<i>*ardano</i>	< * <i>e-da-ra-dan-o</i>
<i>inarrosi</i>	< * <i>e-da-ra-non-ts-i</i>	<i>urgatzi</i>	< * <i>e-da-ra-gotz-i</i>
<i>jarrain</i>	< * <i>e-da-ra-din</i>	...	< ... <sup>87</sup>

Honelako hedadurak aditzean ez ziren, noski, halabeharrez gertatzen eta beste hizkuntza batzuetan legez (kutxitikoetan eta bantuetan, demagun) bazuten eta badute beren egitekoa eta are jatorri eta bilakabide amankomuna ere. Horrela izanak, lagun gaitzake zalantzarik gabe, menderen mendetan fosildurik diren egiturak aztertzen; nahi nuke honen adibideren bat eman segidan.

<sup>87</sup> Markagarria da bantuan azken emaitza morfemen berezko fonologiaren arabera espero dugunetik aski urruntzen dela, are han euskaraz aspaldi gertatu desfuntzionalizazio eta lexikalizaziorik ez izan arren (cf. Good 2005); guztiz logikoa dugu, bada, amalgamon desitxuraketa euskaraz.

Aitzinbantuaren ispilu-irudia eredutzat erabil bageneza *urgatzi* eta *\*ardan-o* bezalako aditz zaharren egitura aztertzeko honelatsu genituzke:

1. aitzinbantua: ERROA — KAUS — APLIK — “AKABUKO BOK.”  
 2. aitzineuskara: “AITZIN BOK.” APLIK. KAUS. ERROA [ATZIZKIA]  
                   \*e-           \**da-*       *ra-*       *-gotz-*       *-i*  
                   \*e-           \**da-*       *ra-*       *-dan-*       *-o*<sup>87b</sup>

Good-ek (2005) erakutsi legez, hasiera batean aitzinbantuan hiru aditz nagusi genituen (CVC egiturakoak gainera), ez aditz bakarra eta bi morfema eta azalpen argirik gabeko bukaerako bokala, historikoki bezala; ondoren, lehenik errotik hurbilen den kausatiboa eta geroago aplikatiboa gramatikalizatu ziren, hots, autonomia, semantika eta tamaina galdu zuten, eta funtzio batzuk hartu: CVC-V-CVC-V-CVC-V > CVC-VC-V-CVC-V eta gero CVCVCVC-V. Honenbestez, AE-z ere, horrelako zerbait ahalko genuke proposatu: \*e-CVC-e-CVC-e-CVC, gero e-CVC-e-[CV-CVC] eta, azkenik e-[CV-CV-CVC].

Kausatiboa eta aplikatiboa bezala, euskara historikoaren aditz sintetikoan badira lehenagoko perifrasien hondarrak, dela aditz laguntzaile zaharrak, dela multzo-aditz asimetriko gramatikalizatuak (cf. Aikhenvald 2006). Horietarik dira arestiko lan batean azaldu bezala (Lakarra 2008a) ‘sit’, ‘finish’ eta ‘give’-en oinordekoak (cf. Newman 2002). Beste hainbat hizkuntzatan legez, gurean ere esanahi horiek zituzten aditzok gramatikalizatu egin dira, lehendabizi multzo aditz, gero inoiz laguntzaile eta aditz nagusiaren morfema bilakatuaz: aspektu burutugabearen marka lehena, iraganekoa bigarrena eta datiboa hirugarrena; *la-* aurrizki (< preposizio) eta IS-ko datibo edo partitiboan ere bada aditz zaharron arrastorik. Ez dira bakarrak, noski: \**den* erro berak (cf. Zavala 2006 olultec hizkuntzaz) azaltzen ahal ditu plural zenbait (*-del-te* adizki eta izenetan, *-te* aditz izenaz landa)<sup>88</sup> eta *etzan* ‘lie’-k beste hainbat, aditz izena (*-tze*) edo prolatiboaz (*-tza(t)*) gainera. Beste hainbat prozesu ere multzo aditzen gramatikalizazioarekin lotuak bide dira: “until” (*-raino*), konparatiboak (*ago*, *baino/baina*) mozio aditzetatik, “take”-tik sortutako \**har* 3. graduko erakuslea, *-tza(t)* prolatiboa, plurala eta *-tze* aditz izena (< *-tz(a)*) “lie”-tik...

<sup>87b</sup> Aditzon eta beste hainbat kideren bilakabiderako —gogora aurreko oharrean esana— ikus Lakarra (2008a) eta, batez ere, Lakarra (2008c).

<sup>88</sup> Aditz izenaz ikus Urgell (2006), zinetan *-tel-tzel-tzaitel-(k)eta...*-ren hedadura eta kronologiaz Trask (1995)-i buruz aitzinamendu handia aurki genezakeen.



Aurreko ataletan ikusiaren ondoren, errazago sinestuko bide da AE-n aditz sintetiko gutxi eta urriak zirela —bidenabar, gorago ikusi tipologiak eskatu beza-laxe— eta baita adizkiak forma jokaturgabeak baino modernoagoak direla ere.<sup>89</sup>

Gauza jakina da sei bat dozena aditz sintetikotik dozena bat edo dozena t'erdira igaro dela hizkuntza azken bost mendeetan (cf. Lafon 1943).<sup>90</sup> Gertakari honengatik eta aditz mota honek askori eman ohi dion lilluragatik edo, uste izan da zenbat eta atzerago jo hizkuntzaren iraganean, orduan eta aditz sintetiko gehi-ago genukeela eta, beharbada, AE-n guztiak sintetiko eta perifrasiarik gabeko izango ziratekeela.<sup>90b</sup> Ustekizun honek ez zuen eta ez du oinarri sendoegirik: amaieratik hasita, munduko hizkuntza guztiek eta momentu orotan badute perifrasiarik (eta baita euskara zaharrak ere, cf. Anderson 2006), baina ez, ordea, aditz sintetiko unibertsalik. Horrezaz landa, bagenekien *saldu* eta *batu* bezalakoeak, hots, \**e*-aurrizkirik gabeko aditzek, *ez* zutela inongo aukerarik sintetiko gisa jokaturik aurkitzeko, ez orain ez inoiz, eta *ni nager* edo *zuk djazu* bezalako monstrooak zein gurasorenak diren edozeinek asma (jakin, hobe) lezake. *OEH* hartzen badugu ez dira 240ra iristen \**e*-aditzak izan zitezkeenak, 200etik hurbilago, seguruenik (cf. Lakarra 2008c). Bestalde, horien artean gehienak *ilki* / *jaulki* / *irauli* / *arraultza*, *ifini* / *jafini* / *irabio* / *arbin*, *jin* / *jaio* / *eriden* / *jarraiki*, \**edun* / *jaun* / *eradun* / *jar-dun*... familiadunak ditugu. Hots, erro jokatu ezberdinak, familia zabalagokoen oinarri direnak bi dozena edo bi eta erdi ditugu: \**bil*, \**din*, \**dun*, \**khar*, \**khus*, \**gin*, \**gon*, \**zan*, \**zun*, eta gutxi batzuk gehiago. Inguruko eta are urrutiagoko hizkuntzekin erkaketarik eginez gero, zail da antzekorik aurkitzen: zenbat dira frantsesaren edo gainerako hizkuntza erromantzeen erro jokatuak? Eta alemaniarrenak, grekerarenak edo beste edozein hizkuntza IErenak? Ez jakin, ehundaka eta milaka, noski, hizkuntza horietako aditz guzti-guztiak, funtsean; sail irekia da horiena, alegia, euskara historikoaren eta —itxura guztien arabera— AE-ren aditzarena ez bezala.<sup>91</sup> Nolanahi ere, bada aditz-sail mugatu eta are euskara baino

<sup>89</sup> Kontrakoa uste duenak azaldu beharko du, bai zergatik diren erroaz landako morfema fosilduak *dihardut*-en edota nola alda zitezkeen —zein bere aldetik, noski— \**DA-RA-DUN-DA*, \**DA-RA-DUN-GA*... > *dihardut*, *diharduk*... edo \**NI-DA-NON*, \**HI-DA-NON*... > *noa*, *hoa*..., etab. Trasken Omenaldiko lanean eman ditut forma sintetikoen jokaturgabeekiko berankortasun erlatiboaren aldeko argudio gehiago ere.

<sup>90</sup> Orain Lazarragak hainbat adizki sintetiko bitxi du (baita laguntzaile ezezagunik ere!), batzuk ezagun eta besteak ez hainbeste: *jafindazu*, *nirteanean* eta beste; cf. Lakarra (2004b), Mounole (2007b) eta Lakarra & Mounole (2010).

<sup>90b</sup> Antzeko proposamen batez bantu ikasketetan, cf. Nurse (2007: alde) eta Hyman (2007: aurka).

<sup>91</sup> Klase itxiaren ideia lehenagotik da ezagun adjektiboai dagokienez (cf. Dixon 1982); ikus Lakarra (2006a)-n AE ere era horretakoa izan zitekeela pentsatzeko zenbait argudio.

laburragoko hizkuntzarik munduan zehar, batez ere Ginea Berrian eta Australia osoan eta Ipar-Ameriketean (cf. Garrett 2004, Pawley 2006, etab.).

In northern Australia many languages have a closed class of inflecting verbs. Some languages have as few as five to a dozen such verbs, others up to about 250. Jaminjung represents a type in which most inflecting verbs function as independent verbs and have not been strongly grammaticised (Schultze-Berndt 2000). In New Guinea a number of languages of the Trans New Guinea family have between 60 and 150 inflecting verbs (...). Kalam, which has about 130 verb roots, is the best described (...) (Pawley 2006).<sup>92</sup>

### 7. Aitzineuskararen egungo berreraiketaren zenbait alderdi: III. Lexikoa

Ez da berariazko lan ugari ez urririk AE-ren lexikoaz, ezin bailiteke horrelakotzat hartu inoiz edo behin, hiztegi etimologikoetan bildurik (Agud-Tovar) edo ohar solte gisa —batez ere onomastikaz— (Irigoyen) aurki genezakeena.<sup>93</sup> Zalantzarik gabe, Trasken 1997ko liburuko lexikoaren historiako atala gera liteke horrelako egitasmo batetik hurbilen; urruti, hala ere, gehienbat —inoren, Mitxelena edo inoiz lehenagokoren baten— etimologia sailen bilketa eta iruzkin baitugu. Labur, beharbada laburregi, esateko historiarik ez —edo gutxiegi, filologia ez zen Trasken alderdirik sendoena—<sup>94</sup> eta egiturarik ere ez duen lexiko hautatuaren azterketa dugu, funtsean. Apostua eta liskarra oso gureak direlako —edota “gure” gaian kanpotarrek ere besterik egin ez dutelako— izan dira eta badira oraindik ere iritzi sendoak ustezko ardura nagusiaz, atzerriko hizkuntzek gurean utzi duten arrasto eta orbanaz, alegia. Askoren edo gehienen ustez handia delarik, erraz da aurkitzen (Lafitte esateko) euskal hitz altxorrean

<sup>92</sup> Cf. “In some productively serializing languages, verbs form a largish but closed class—this is the case in Kalam and Kobon, both Papuan. Kalam has under 125 verbs, of which only about twenty-five are commonly used (Pawley 1993; Pawley and Lane 1998). Dumo (under B) in § 1 of Chapter 9) also has a closed set of basic verb roots, with around 100 members. There are a number of verbs with very general semantics, and these ‘generic’ verbs are combined together with more specific verbs to provide a precise description of an event. The wealth of SVCs in these three languages ‘compensates’ for having a smallish closed verb class and verbs with highly generic semantics” (Aikhenvald 2006: 55).

Multzo-aditzen eta aditz urriko hizkuntzen artean lotura kasu gehiago balitz ulertzekoa litzateke bietarik azaltzea euskara zaharraren azterketan isolatzaile > eransle deriba izan badu (cf. Lakarra 2006a eta §6.2). Erants bitez Stassen-en generalizazioak “X-ekin Y” egituren eta aditz jokatu eta deklinabide faltaz (ikus Lakarra 2008d-ko eranskina).

<sup>93</sup> Ikus 29. oharra Trask eta Morvanen hiztegiez.

<sup>94</sup> Ikus Gorrotxategi & Lakarra (2001) onomastikako buruaren kritika baterako.

bi heren edo gehiago kanpotik hartua dela bota duenik; Traskek berak garai modernoetan %51tik gora edo izan litekeela uste zuen eta hortik askoz beherago eramango luketenak ez dira hainbeste edo hain zaratatsu.<sup>95</sup>

Mitxelena behin baino sarriago (1964, 1984, etab.) gaztigatu zuenez, kontua ez da nahi genukeen bezain erraz pisatzen eta erabakitzen; hasteko, kalkuluak inoiz egiten balira —usuenik usteketa edo aburu huts izan ohi baitira, bakoitzaren sinesgarritasunaren araberakoak gehienez ere—, zeren gainean egingo lirarteke? *OEH*-ren gainean? Axularren hiztegiarenean? \*Atxagarenean? Kalkuluotarako gure irizpide eta aurrelanak garatuak ote, bestalde? Azkenik; *x* izan edo *y* erabakitako portzentaia, zer? Hitz guztiek ote pisu bera altxorrean eta corpusean?

Bakeak egitearren edo juxtu kontrakoagatik, ez dut ukatuko, mailegaketaren neurriaren gaiak ikertzea merezi duenik, seguru bainaiz zenbait ustekabez gain, lexikoaren historiak eta euskal lexikoaren egiturak ere mesederen bat baino gehiago izango lukeela ondorioz. Norbaitek besterik usteko duen arren, etimologia zientifikoa ez da euskalaritzan arlo landuegia, batez ere azken lau hamarkadetan.<sup>96</sup> Zalantzarik gabe, honetan erru edo eragin handia du etimologiaren oinarrian edo gailurrean den hizkuntzalaritza historikoak aparteko arrakastarik ez izanak: goian ikusi dugunez, ez da gauza bera —usu guztiz kontrakoak dira— jatorriez eta ahaideez iritziak botatzea eta hizkuntzaren diakronia eraikitzea. Alabaina, etimologia ezinbestekoa da hizkuntzalaritza historikoan (cf. Watkins 1990 eta Lakarra 2008b), ez anekdota-bilduma gisa baizik eta azalpen diakronikoaren oinarritzako istoriotzat hartuaz, bederen. “Beren fruituetarik ezagutuko dituzu” eta, beraz, etimologia berririk ez duten teoria eta, batez ere, berreiriketa berriek gehienez ere egiantza dutela esan ohi dugu, ez lehengo teoria eta berreraiketak ordezkatu dituztenik edo ordezkatzeko hurbil direnik ere.<sup>97</sup>

Etimologia-lana beharrezko eta ezinbesteko dugu berreraiketan eta, batez ere, lexikoaren berreraiketan, noski, eta are gehiago aitzinlexikoarenean. Gai-

<sup>95</sup> Bikainak dira Zawiszewski (2001) eta Etchebarne (2006) euskalkien arteko urruntasun lexikoaren eta mailegaketaren alor irristakorretan aitzinatuz; berritzailea da Madariaga (2001) ere alor semantiko jakin baten bilakabidea beste hizkuntza batzuetan aurkitutakoarekiko erlaketaren bidez aztertuz.

<sup>96</sup> Berreraiketarekiko parekotasunean, ezinbestean. Bada [bazen: 2011] jaun armeniar bat —Euskal Herrian armenologoaren artean baino ezagunago?— armeniera ez dela IE hizkuntza uste duena. Kontsolatzeko edo andere arkeologo ezagun batek armeniera eta euskararen arteko loturak lurralde bateko eta besteko triku-harrietan oinarrituz ere komentzitu nahi izan gaitu inoiz...

<sup>97</sup> Ikus Lakarra (2008b) Martinet nahiz Hualde eta Trasken proposamenen kritikarako alderdi honetatik.

nera, egia da definizioz maileguak (latinertikoak eta erromantzetikoak edo geroztikoak)<sup>98</sup> ez direla AE-n sartzen ahal baina Pernandoren egiak ez digu balio mailegu guztiak ezagutzeko eta banatzeko gai ez garen bitartean; gero ere, ezingo ginatke horrekin asetu berrikuntzetan, duela 2200-2500 bat urte-takoak eta geroztikoak bereizten ez dakigun bitartean.

Mitxelena (1957, *FHV*) delarik AE-ren sistema fonologikoaren berreraiketa estandarra azken mende erdian, hainbeste jazotzen da etimologia lanarekin ere: bere 1977 artekoetak jasoaz —*Apellidos Vascos* eta, batez ere, *FHV*-tik— Arbelaizek (1978) 1200 edo 1400 bat etimologia bildu zituen.<sup>99</sup> Mitxelena etimologia —bere historia lan osoa bezala— momentuan eskura zitekeen filologia eta hizkuntza teoriarik hoberenari lotua dugu, berreraikitzaileek (cf. Pulleyblank 1992 txinerarekin) beti eskatu bezala: batetik fonologia diakroniko orduan berri-berria (pragarrak eta, batez ere, Martinet); bestetik, Urquijok aurretiaz hasitako lana, findu eta hedatua, zuberera nahiz bizkaiera zaharrarekin, artean ezezagun zen araberekin, hizkera modernoenkin zein hainbat lexikorekin (Landuchio, Pouvreau, Larramendi...).<sup>100</sup> Iker-tzaile bera da *Fonética histórica* eta *Lenguas y protolenguas* zein *Textos arcaicos* eta *Fuentes del diccionario de Azkue*-ren egile, bakoitza bere aldetik hartuaz ez dutelarik parekorik zeinek bere generoan.

Nago Mitxelena lan etimologikoaren %1 ez dela aldatu beharrik izan, are Tovar eta Aguden *Materiales* zabala argitaratu ondoren ere.<sup>101</sup> Ohi bezala, horren oinarriak berreraiketa paradigma batetik abiatuaz baino ezin kritika zitezkeen. 1995ea geroz erro teoria monosilabikoa garatuaz joan den neurrian ikusi izan da (cf. Lakarra 2008b) Mitxelena jardun etimologikoan akats eta hutsune zenbait. Erro teoriak hainbat aldaketa ekarri zituen hasiera batetik. Lehenik, CVC egiturako zenbait erro fosildu, artean ezezagun: \**ger*, \**dul*, \**bur*, \**zen*, etab; honekin batera, lehendik ezagun ziren beste batzuen familiak zabaltzea: \**bel*, \**bin*, etab.; are, AE-ren hitz-eraketa bide fosilduak, zela erre-duplikazioa (\**dol* > *odol*, \**der* > *eder*, \**zen* > *zezen*), zela aurrizkien erabilera: \**sa-bel*, \**sa-bin*, \**sa-bur*, \**gi-bel*, \**gi-zen* (ikus §3).

<sup>98</sup> Gogora Mitxelena (1964) geruza latino-erromanikoak zeltikoa nola estal zezakeen oharretako.

<sup>99</sup> Geroztik 1987 artekoetan, legokiokeen %25 edo baino askozaz gutxiago bide dira. Mezezi luke osatzea eta zuzentzea (batez ere Arbelaizek falta duen *FHV*-ren 2. argitalpeneko eranskinari dagokiona); egungo egunean aurkibide on batzuk ere ezinbesteko lirateke, jakina. Mitxelena lan etimologikoaz atera litekeen etekina areagotu egin da orain haren Lan Guztiak argitaratzean (ikus Lakarra & Ruiz Arzalluz 2011).

<sup>100</sup> Ikus Urgell (1997) eta (2001).

<sup>101</sup> Ez bakarrik *oilo*-raino baino iristen ez delako; ez naiz hemen lan horretaz arituko baina bada zenbait ohar Lakarra (2008b)-n.

Etimologiak gehituaz eta ugalduez joan dira azken urteotan, 600era edo iritsiaz egungo egunean (ikus Lakarra prest.-1) beti ere forma kanonikoa oinarri hartuaz: CVC badira erroak, orduan *hortz* edo *beltz* erroa baino zerbait gehiago ere izan behar;<sup>102</sup> *adar* berba, bestalde, *eder*, *odol* nahiz *adats*-en pareko delarik —hots, erreduplikazio-sarean kokatua izanik—,<sup>103</sup> hor nekez ikus genezake mailegu zeltiko bat, *jarri* eta *larri*-n ere aurkitzen dugun \**dar*-en erreduplikazioa baizik; *etxe* (< *etse*) VCV delarik, ezin AE-kotzat har: horrenbestez, beharbada, *-e* gabeko (cf. *Paris-eko*, *atz-eko*) eta C- galduren baten jabe bide zen lehenago (cf. §5.4)... Forma kanonikotik abiatuturiko analisiak ez dakartza soilik, noski, eratorri eta konposatuak (cf. Mitxelena 1963): *zema* ere nekez eraman genezake CVC-ra eta, bestalde, *-m-* eta amaierako diptongo horrek ere (cf. §5.2) mailegu usairik badakarte (< gazt. zah. *menaza*, metatesiz); antzeko zerbait gertatzen da *labe*-rekin ere: CVCV bat eta *l-* batekin gainera (gehi *-b* C<sub>2</sub> bezala), nekez atera zitekeen AE-n CVC erro batetik.<sup>104</sup>

“Erro-ereduen etimologiatik hitzen etimologjara”; horrela dei genezake hein batean azken urteotako hurbilketa. Har dezagun edozein erro eredu; bere kideak bost sail nagusitan sailka ditzakegu: (1) maileguak, (2) aldaerak, (3) eratorri-konposatuak, (4) fonosinbolismo eta onomatopeiak, eta (5) jatorri ezezagunekoak (ikus Lakarra 2002a, 2004a). Sailkapenean bada asimetriarik bost sail hauen artean: (1)-(4) sailak oker handirik ezean hazi baino ezin egin litezke eta horrela joan dira haziaz gure ikerketa aitzinatu ahala (Lakarra 2009c). (5), aldiz, soilik apaldu egin liteke eta noiz asko (*l/-z* hasitako eredueta, demagun), noiz gutxi horrela egin da, “jatorri ezezagun” horiek argituaz zihoazen neurrian. (5)eko kideen sailkapena behin-behinekoa da, beraz, eta ez da inolaz ere uste izan behar horko guztiak AE-ko erro soilen altxor lexikoan ziren; (1)-(4)koek halakotan ez zirela segurutzat ere eman behar da.

AE-ko seguru ez baina egiantzeko izan litezkeela baieztatzeko badira gu-xtienez bi iragazki gainditu beharreko: (a) fonotaktikoa, (b) geografikoa. Lehendabizikoari dagokionez, edozeinek uler lezake *p-*, *t-*, *k-*, *m-* edo *d-*z hasiak, demagun, ezin izan zitezkeela garai hartako, era horretan bederen.<sup>105</sup> Bigarre-

<sup>102</sup> *Hor-tz* egiteko *can-ino*-k ere laguntzen zuen, jakina; *bor-tz*-entzat cf. *quin-que*, *pen-kwe*, etab. (ikus Lakarra 2010b).

<sup>103</sup> Ikus Galand (1984) erro-egitura konplexuak berebereraz nola mailegaketak oztopatzen duen ohartzeko.

<sup>104</sup> Inoiz lehenago Mitxelenaren hipotesi formalen bat zehaztu ahal izan da: *dollar*-i buruz ikus §5.3.

<sup>105</sup> *Kalte*, *koipe* eta beste (D...T... > T...T...) salbuespen ezagunak aipatu dira §5.8an.

naz ere, ez da asko azaldu beharrik;<sup>106</sup> har, esaterako, ondoko hitzok eta Azkueren oharrak bakoitzaren hedaduraz:

*basi* (B-mu-tx)

*liki* (B-o)

*aho* (AN, B, G, R, BN, L, S)

*labe* (AN, BN, G, L, R, S)<sup>107</sup>

Berehalakoan ohar gaitezke ezkerrekoen aukerak zahar izateko oso exkax direla eta eskubikoena —hainbatetik hainbatean— ia erabatekoak. Esku zabaltasun handienarekin jokatu arren —bi euskalki mugakide ez direnetan agertzen direnak ontzat hartu ditugu, are euskalki horietan herrixka soil banatan lekukotuak direnean ere—,<sup>108</sup> irizpideon eragina handia da eta (5)-eko kideak ia hustu egin ohi dira eredu bisilaboetan (ikus Lakarra 2008b).<sup>109</sup> (5)-eko kideek —“hondarrek”— baino ez dutelarik AE-ko izateko aukeraren bat, ez da azalpenetan luzatu beharrik zein erro-eredu den zaharrena erabakitzeko: CVC monosilaboena, noski.

Iragazkiok ezarri ondorengo emaitzak erabiliaz, batez ere hauek esanguratsuak direnean adibide kopuruaren edota datuen sailkapen argiagatik, erro-ereduen etimologia horiek oraindik sailkatu gabe direnak egiteko edota aurreko sailkapenak testatzeko balia litezke. Adibide pareta emateko: VCV-n mailegu asko eta eratorri-jatorrizko gutxi bada, merezi du galdeztzeak *alu* edo *otu* ez ote diren mailegu izango, batez ere, *otso* edo *etse*-rentzat bezala horiei, hizkuntzaren barnean bestelako azalpenik aurkitzen ez zaiznean (cf. *ualuu* eta *uotu*; ikus §5.1). VCCV ere ez da oso bestelako eta, hortaz, *eske*, *urde* nahiz *olde* susmagarriak dira, *asko* (\**hats-ko*, cf. *aski*), *alde* (<\**Cal-de*, cf. *atal*) edo *ardi-ri* legez (cf. *idi*, *zaldi*) hizkuntza barnean familiarik aurkitu ezin diegularik.<sup>110</sup> Ikerketa bide hau oraindik bere hasikinetan da eta agortzeko arrisku handirik gabe; cf. Lakarra (prest.-1).

<sup>106</sup> Besterik da zehaztasun osora iristea irizpide honetan zeren gainean —euskalki modernoan, alegia— (cf. Lakarra & Urgell 2008 eta hemen §8-ren akabuan) oinarritua den ikusirik.

<sup>107</sup> Eskubikootan, gainera, are euskalki gehiago erants litezke errazki aldaeretara (*ago*, *laba*, adibidez) joaz. Halere (ikus testuan atal honen akabuan) *labe* mailegua dugu; arazo eta zailtasun gehiago dela iruditzen zait iragazki geografikoa maileguaei ezartzean gainerako sailletarikoei baino.

<sup>108</sup> Gauzak muturreraino eramanez, honek esan nahi du, demagun, Bermeo eta Ondarribian lekukotutako hitz bat orokortzat har genezakeela, lehenak B osoa eta bigarrenak GN osoa estalduko balu bezalaxe, eta kasu honetan hizkera horien artean itsaso-bidezko kontakturik inoiz izan ez balitz legez, gainera.

<sup>109</sup> Eredutik monosilaboan ez da horrelakorik, adibide gehienak euskalki askotan edo guztietan lekukotzen baitira.

<sup>110</sup> *Eske* cf. *uescor* ‘se nourrir’ eta ‘par extension de sens “se régaler de’, ainsi par suite, ‘jouir de, user de’” (Ernout-Meillet, s.u.); *urde* cf. *turpis* (leherkari metatesia eta *b-* > *ø*-rekin)

Zeregin anitz dateke erro-ereduen bilakabidearen azterketan. Eranskineko H taulan CVC ereduak enparatuko guztien gainetik duen nagusigoa ezin argiagoa da, hurrengoak (aCVC) halako lauko multzoa duelarik. Are gehiago, tauletan aurkeztutako 48 azpiero du bisilabikoetarik 40tan (%83,33) hondarrek ez dira iristen bakoitzean izan zitekeenaren %1era ere eta, beraz, ez AE-ko benetako erro-eredu baizik eta esangura funtzional handirik gabeko hots konbinaketa halabeharrekokoak ditugu.<sup>111</sup> Areago dena; gogoratuaz aztergaiaren corpusa osatzerakoan monosilaboetan erro askeak baino ez ditugula kontuan izan, konposizio edo deribazioen ekoizpenetatik berreskura bagenitza fosildutako gainerako erro zaharrak ia beste hainbeste izango genituzke lan handirik gabe. Monosilaboen antzera eredu bisilaboetako hondarren zerrendak hazterik ez da,<sup>112</sup> bai, aldiz, urritzerik eta, seguruenik, CVC-k ez soilik aCVC-k baina gainerakoek (ikus 110. oh.) halako lau baizik eta zortzi edo hamar ere izan lezake berreraiketa aitzina-ahala.

M taulako maileguei dagokienez, ezer baino lehen SVSV eta uCCVC-ren uestzko lehentasunaren ahuleziak beharko genuke jabetu: izan ere, mailegu bakar bat ez izatea ez da azpieroetako kideen ezaugarri nagusia. Ohartzen bagatzaizkie lekukotasunen kopuru benetan urriei —13 eta 23, hurrenez hurren, CVC-ko 152en aurrean— eta izan zitezkeen ororen aurreko horien apaltasunari (200 eta 1075, %6,5 eta %2,13), aitortu beharko dugu halabehar hutsa dela lekukotutako erro horien artean bakar bat ere mailegu ez izatea (edo guk horrela ez ezagutzea), batez ere SVSV-ren kasuan.<sup>113</sup> Halaber, alderdi hori hobeki pisatzeko hemen ere gogoratzekoa da CVC-n erro askeak baino ez direla erabili, eta —erro lotuak kontuan hartuz geroz— hondarrak arrunt hazteaz landa, kopuru orokorrek ere aski den adina haziko lirakekeela. Maileguen sailean, aldiz, gutxi lirakeke (baten bat bai?) CVC-n erantsion artean eta, beraz, %7,89 hori %4ra edo are zifra apalagoetara jaitsiko litzateke altxor zaharreko hondar berriak gehitzean.

---

“difforme, défiguré, laid (...) qui est laid ou qui enlaidit; sens physique (...) et moral (...) L’adjectif a dû designer à l’origine un défaut physique précis (...) ‘Etymologie inconnue, comme il est attendu pour un adjectif de ce genre’ (Ernout-Meillet, s.u.); *olde* < *uoluntate* (cf. §5.1).

<sup>111</sup> Eta gainerako zortzien artean soilik aCVC ereduak ditu bospasei kide baino gehiago (15 zehatzago) H sailean, hots, etimologia ezezaguna eta iragazki geografikoa gainditzen ditueenez hornituan.

<sup>112</sup> Bai teorian, baina *\*ardano*, *herio* edo *hezur* zatitzea lortzen dugunean beti altxor zaharreko monosilaboak edo mailegu bisilaboak (nahiz biak batera) aurkitzen ditugu: cf. *\*e-da-ra-dan-o*, *\*e-lin-o*, *\*berna-zur*, etab.

<sup>113</sup> Gogora bedi Lakarra (2004a)-ko datuak darabiltzagula. Bidenabar, eredu bakoitzean pare bat erro mailegu gisa noizbait bersailka balitez CVC-k orain duen %7,89 baino portzentai larriagoak hartuko litzukete biek ere.

Ohar bedi eredu kodagabe gehienak taularen akaburantz biltzen direla: hots, zerrenda honetako azken 19ek ez dute kontsonanterik bigarren silabako kodan eta gutxik lehendabizikoan ere (azken 9.a lehen). Lehen kodabikoitza (aCCVC) azken hogeigarrena dugu eta horietarik dira goiko partean nagusi, baina ez hori eta ez beste kodadun asko ez dira iristen %10era izan zitezkeen erro lekukotuen multzoan.<sup>114</sup> Bestela esan, bigarren silaba kodagabea duten erro eredu askoren zahartasunaz zalantzak izan litezke maileguren irizpidearen aldetik ere; badirudi CVC monosilaboetan bestelako eredu batzuetarako ( $V_1$ - $V_1$  bisilaboetarako) Uhlenbeckek gogotan zuen aukerak<sup>115</sup> egiantz osoa duela, baina ez, aldiz, CVCV (eta, beharbada, CVCCV) gehienetan: hauetan maileguren porzentaia hain da handia non dirudien ereduak eurak izan direla mailegatuak.<sup>116</sup>

Aitzineuskararen eta —noiz arte ez jakin arren— euskara zaharrean erroen inguruan eratorpen eta konposaketa mota ezberdinen bitartez gero itxurazko loturarik gabe aurkitzen ditugun hitz familiak izan zirela dirudi: cf. *\*e-dutz-i* : *luz-e*, *\*dar* : *adar* : *jarri* : *larri*, *\*dats* : *adats* : *jatsi* : *lats*, *\*der* : *eder* : *ler*, *\*dul* : *ilki* (< *\*e-dul-ki*) : (*(h)ez*)-*tul*, *\*den* : *leben* : *-en* : *ezten*, etab. Ikus familia horien egitura, loturen hedadura, bilakabide fonologiko eta morfologikoak zehaztea eta hortik AE-ko hitz eraketaz, morfologiaz eta lexikoaz atera litezkeen hainbat ondorio ez dira oraindik garatuak neurri handi batean.<sup>117</sup> Zerbait egin da ikusi dugunez (cf. §§3 eta 6.5), aditz enborren eredu aniztasuna mugatu nahi izan denean: aditz zaharretako erro eredu horiek salbuespen gutxirekin —izen eta adjektiboak lehenago bezala— eraman ahal dira CVC-ra, dela zenbait kontrakzio ezagun onartuaz (*utz-i*, *jan*, *il-ki*) dela —guretzat interesgarriago dena— antzina enbor horiek egitura nabarragoa zutela (*\*da*- eta *\*da-ra*- aurrizkiak, *ra-landa*) onartuaz. “Erro hedadurak” —ikus Hyman, Schuh eta beste Afrikako zenbait hizkuntzarentzat— ditugu, bada, lehenagoko aurrizki + CVC erro egituratik eta hauek multzo-aditzetarik edo, honenbestez, orain *e-*, *i-* eta *j-* letren pean kokatzen ditugun dozenaka eta ehundaka aditz zahar (hauetara muga-

<sup>114</sup> Beste lan batzuetan (cf. Lakarra 2004a eta, datu berrituekin, prest.-4-n) horietaz aritzen naizelarik, ez dut hemen ondorio gehiago aterako baina nabarmena da beren lekukotasun porzentaia apalek ez dutela zahartasuna laguntzen, ez morfema soil gisa eta ezta konposatu legez ere.

<sup>115</sup> Lehenagotik jatorrizko lexikoan zen arren maileguez (gutxik halere!) hornitzea erro eredua, alegia..

<sup>116</sup> (C)VCVC-k bai CVCV eta baita (C)VCCV eta (C)VCCVC baino zaharrago dirudi; hau frogatuko balitz, monosilabo zaharraren hazkundera hasiera batean ez atzizkien (-(C)V) bitartez eta ez konposatuaren ildotik (CVC + CVC) baizik eta aurrizki eta zatikako erreduplikazioarenetik izan zela ondorioztatatu beharko bide genuke.

<sup>117</sup> Txinerarako cf. Sagart (1999) eta haren bibliografia; ikus Lakarra (2009e, 2007) zenbait oharretarako.



tzearren), 25-30 erro CVC-tara eta horien eratorpen sare zaharrera eramán ditzakegu (ikus Lakarra 2008c) orain aditz gisa sailkatuko ez genituzkeen *herro*, *\*ardano*, *errain*, *(tx)ilar*, *arrano*, *arrain*, *arraultza*, *inaurri* eta, seguruenik, *arrats*, *arre-ba*, *jorratu*, *urratu* familia honetakoak ditugu aditz “arrunt” gisa ezagutzen ditugun *urgatzi*, *arbin*, *jarrain*, *inarrosi*, *jarauntsi* edo *eroan/eraman* bezalaxe.

Lexikoarekin amaituaz joateko hurbilketa osoaren oinarrian den forma kanonikoaren aldaketak miatzeak esparru honen azterketan izan dezakeen eraginaz gogoetaren bat egin nahi nuke; oraindik orain ia urratu gabeko alderdia da (ikus Lakarra 2009c) eta esandakoa har bedi susmo gisa, enseiukarrean. Enparatuko hizkuntza batzuetan bezala (cf. txinera, munda, tania...) euskara zaharrak ere bere forma kanonikoa aldatu du, ez jakin zenbat milurtekotan zehar; ezin bestela uler, demagun, Uhlenbeck nahiz Mitxelenak bisilaboak aurkituaz nagusi euskara historikoan eredu hori proposatzea hizkuntzaren historiaurrerako ere.<sup>118</sup>

Har ditzagun *herio* (< *\*e-lin-o*) eta *hidoi* (< *\*hur-don-i*): lehendabizikoan erro monosilabiko zaharra trisilabikoa bihurtu da euskara modernoan, bokalarteko *-h-* hitz hasierara igaro eta aurrizkia (*\*e-*) zein atzizkia (*\*-o*) defuntzionalizatu eta, erroarekiko etenaren ikonizitatea galtzean, haren barnean txertatu direnean. Antzekoa dugu bigarrena ere: hemen bisilaboa da emaitza eta lehen hiatoa bazen *\*-h-* zaharraren abiapuntuaren arrastoa, orain diptongoa (cf. *-do.i / lohí*) dugu susmagarri (§5.2); hasieran estali dena ere ez da aurrizkia orain konposatuaren lehen osagaia baizik (cf. *i-dor*, *i-bon*, etab.). *Haragi* eta *haran* hartzen baditugu, funtsean aurreko fenomenoak kausituko ditugu baina hemen “iluntasuna” —hots, erro berri zabalagoaren uniformitatearen aldeko prozesua— areagotu egin da: ez da *-n* horren arrastorik itxuraz, esku-bitara eta, gainera, lehen silabako *-a-* bokalismo horrek (cf. *\*ardano*, *arbin*, *arraultza*...) zaildu egiten du lehengo aditz zaharraren egitura antzematea.

Asimilazioak,<sup>119</sup> era askotako metatesiak, *h*-aren ezkerreratzeak,  $C_1$  eta aurrizkietako kontsonante erorketak, hiatoak, diptongoak, *-R-*  $C_1$ -en eta bestelako fenomenoak ditugu lehengo CVC erroaren hedaduraren eta aurreko morfologiaren fonologizazioaren lekuko (ik. Lakarra 2007). Erro ereduaren aldaketen azterketen interesa lexikoarentzat, morfologiarentzat zein kronologiarentzat begibistakoa dugu. Bada, ordea, aski markatu ez den beste interes-bide bat, mailegu zahar ezezagunen ikerketarena, alegia. Aspaldi

<sup>118</sup> Ikus §5.ean Igartuak (2002) /h/-aren eboluzioa eta erroarena elkartuaz emandako azalbide bikaina.

<sup>119</sup> Baita kontsonantikoak ere: cf. Mitxelenak markatu Etxepareren *zin-hets-i*, geroko [sin-hets]i, *solaz* < *solas* eta *sasoi* < *sazón* ezagunen aldamenen.

Mitxelenak *biao meridiano*-ra edo *bariku abari-bagako-egun*-era eraman zituelarik —ikus, hurrenez hurren, (1964) eta (1971b)—, ohartu gintuen hitzen, kasu batean mailegu, bestean altxor zaharreko,<sup>120</sup> formaren aldaketaren larriaz. Beharbada, hori bide da arrazoa —formaren azterketa zehatza euskalarien lehentasunetatik urruti izateaz landa—, hainbat mailegu orain arte euskal hitz zahar-jator gisa ibiltzeko. Egia da *bazter* edo *beldur*-ek CVC + CVC gehiketarik lezkeen bikoteen itxura dutela... baina soilik itxura dugu, ene ustez (zer dira hor eta zein kiderekin \**baz*, \**d/ter*, \**bel*, \**dur*?); orobat, oso “gureak” ditugu *esker* (ona zein txarra), *urde*, *arin*, *olde*, *ezain*, *eskatu*, *alu*, *hagin*, *izu*, *negar*, *neska*, *aterri*, *labe*, *sorbalda*, *hezur*, *erdi*, *guzti*... baina nago *uoster*, *turpis*, *labil*, *uoluntate*, *uexanu*, *uescor*, *ualuu*, *caninu*, *uitiu*, (*la*)*crima*, *nisca*, *uertere*, LAPP- (v. Corominas-Pascual, s.u. *lapa*-4), *-balda*, *berna-*, *tertiu*, *totiu*... ez direla horien jatorrietarik urrun. Izan ere, euskara modernoko beren VCCVC, VCCV, VCVC, VCDC, VCV... erro-eredu horiek ez zieten aukera handirik ematen AE-ko izan zitezen. Baina ez ote pixkanaka edo arunt azkar pairatu dituzten aldaketak —jatorriko egituratik urrunduaz eta euskara modernoaren egiturotara hurbilduaz— iker-tzaileak eta zaleak desbideratu dituena, betidanik, (AE-tik bederen) hizkuntzan zirela sinetsiaraziz? Baliteke mailegu zahar ezkutu hauen bilketak oraindik lanik ematea; zalantzarik gabe, euskararen bilakabideak aztertze-ko atzo goizeko oinarri eta egiantzekotasunik gabeko anekdoten ikerketa baino aberatsago bide dirateke nolnahi ere.

## 8. Kronologiaz<sup>121</sup>

Benvenistek zioenez, konparatista baten egiteko nagusia kronologia eraikitzea litzateke; harentzako eta Meilletentzako konparatista “hizkuntzalari historiko”-ren sinonimo zenez, ezin inork egiteko horretatik ihes egin, artean euskalaritzan ahalegin handirik alor honetan izan ez arren.<sup>122</sup>

<sup>120</sup> Zahartasuna beti erlatiboa denez —batez ere orain diptongo eta bisilaboez dakigunaz—, baldin eta *abari* < *gau* (< *cadu*) + *hari* ez bada, noski.

<sup>121</sup> Periodizazioaz idatzi nuen (Lakarra 1997a)-n eta gero Gorrotxategi-Lakarra (2001)-en; batean eta bestean historia eta protohistoriaz ari nintzen, ez historiaurreaz. Horrenbestez, falta zen eta falta da berreraikitakoaren periodizazioa (AEZ, AEB, EBZ, gutxienez)... baita horretarako aurrelanak ere.

<sup>122</sup> Ez da asko Guiter (1989) geroztik duguna; alabaina, aipatu beharrekoak dira Múgica-ren (1996) eta (2000), Trask (2000) eta arestiko Reguero (2010). Behar baino arreta gutxiago erdietsi duelakoan nago Chambon & Greub (2002)-k.

Traskek (1997: 178-179) erro monosilabikoaren garaiak (izatekotan) Mitxelenaren Era aurrekotik “long-long before” behar zuela zioen, zehaztasun gehiagorik gabe. Donegan eta Stampek ere aitzin-austroasiatiko munda hizkuntzetara gertatutako bilakabideak (*drift*) zenbait milurteko beharrezko izan zituela dioskute, kontrako bidetik denean —hots, sintetikotik analitikora— baino arrunt gehiago (cf. Hyman 2004 kwa hizkuntzez). Definizioz AEZ bada berreraiki genezakeen azken garaia, hortik aurrera behar ditugu kokatu hainbat eta hainbat aldaketa, AE modernoa, akitaniera eta Pirineoetako euskara zaharra EBZa eta euskara historikoa bitarte, ustez, ezagutzen dugun egitura batera ekarriaz.

Kokapen horretarako, zorigaitzez, oso gutxi dira data absolutuak dituzten gertakariak eta gutxi beren artean zuzen trenkatzen eta arilkatzen direnak, bata lehen eta bestea gero. Ikusi dugu, adibidez, euskararen historiaurrearekin ez datorrela batere gaizki tipologia holistikoak hizkuntza monosilabiko isolatzaileentzat ikusten duen aditz txiki, analitiko, inpersonala eta fonologia eta morfologiarik hertsienean oinarrituriko berreraiketa (ik. Lakarra 2006a). Orobat, aditzaren eta izen morfologiaren gramatikalizazioaren azterketa konparatuak eskein diezaiguke laguntza ederrik historiaurre ilun edo aukera mugagabeen artean ibiltzen eta hautatzen, batez ere fonetika historikoak kontrolen bat izan lezakeen garaietan:<sup>123</sup> gogora perifrasi progresiboetarako gramatikalizazioen jatorria edo datiboena nahiz iraganeko marka (cf. Lakarra 2006c, 2008a eta hemen §6).

Har dezagun *\*e-* ondoko eta gainerako aurrizki gabeko erroen lehen konsonantearen kasua: /b/, /g/ eta /d/ aurkitzen dugu hor eta baita /th/ eta /kh/ ere (ez /p(h)/ arrazoi ezagunengatik); *ebili*, *\*edin*, *\*edun*, *ethorri*, *ikhusi*, *ekharri*, etab. Bide batez, ez da /l/ ez /n/ —,<sup>124</sup> baina bai /r/ eta /rr/: *eroan*, *irudi*, *errun*, *erran*, etab.<sup>125</sup> Ez da —*ebo*-ren salbuespen bakarrarekin— /h/-rik ere.<sup>126</sup>

<sup>123</sup> Mitxelenak AE-ren sisteman /d/-rik proposatzen ez duelarik, *\*d- > l-* AEB baino lehenagoko ez definizioz; halaber, bilakabide hori jazo baino lehen agortu bide zen erreduplikazioa, da baitugu *\*\*IVVC*-rik (< *\*IVC* < *\*dVC*-tik). Horiekin lotu beharra dugu *\*d...d... > ø...d...* ere.

<sup>124</sup> Logikoa *-l > -r-* eta *-n > -θ-* modernotzat edo modernoagotzat hartzea.

<sup>125</sup> Ikus §5.4. Noiz lexikalizatu ziren *\*e-da-ra-CVC* enborrak eta hortik sortu adizki jokatuen paradigmak?

<sup>126</sup> *Ehun*<sub>1</sub> ‘oihala egiteko zera’ horren aldaera dugu, *errun erro*-rena den bezala. Lakarra (2002b)-n *ehun*<sub>2</sub> ‘100’ < *\*hen-hun* azaldu nuen eta fonetikoki eta semantikoki arazorik ez den arren (morfologikoki kontrako ordena espero genuke), beharbada errazago eta ekonomikoago da *ehun*<sub>1</sub> = *ehun*<sub>2</sub> pentsatzea; gogora bedi *bost*, *hamaita*, *ehun* eta *mila*-ren bigarren (edo lehen) esanahia ‘asko, ezin kontaahala’ dela.

Zer atera aurreko datu hauetarik? Bada, ene usteko, \**e*- hori erro horiei erantsi zitzaizenean leherkari hasperendunak zirela erro hasieran, Mitxelena eta Martineten bortitzak, eta aurrizki hori hartzeak ekarri zuela hitz barnean gelditzen zen \**T*- > *h*- ez bihurtzea; bestalde, *d*- ere hor zenez (cf. *edan, edeki, idoki*, eta baita *utzi, ilki, jin...*)<sup>127</sup> \**d*- > *l*- burutugabea genuen: Mitxelenaren AE baino zaharragoa izan behar zuen aurrizki horren eransketaren hasierak eta berarekin zetorren aditz-enborraren sorrerak.

*/r-/* eta */rr-/* sortzeko edo betidaniko zirela uste ez badugu —nik ez deritzot horrela— eginkizun eta ondorio garrantzitsu bana ateratzen zaigu: eginkizuna horiek azaltzea, noski; ondorioa, \**-l-* > *-r-* erregelara iritsi zirela —EBZean edo beranduago— */l-/z* hasitako aditzak. Beraz, \**dVC* > \**lVC* → \**e-lVC* > *erVC*: cf. *herio* < \**erino* < \**e-lin-o* < \**lin* < \**din*.<sup>128</sup> */rr/* erro hasieran Trasken *erran*-entzat ireki zuen bidetik azal genezake, hots, ez bezeko, kontsonante taldearen emaitza gisa baizik, bidebatez euskarazko usitezko “rotazismo” kasu eskas eta ahulak gutxiuaz. Hark \**esran* > *erran* egiten zuen, */rs/* taldearekin; baina *e-* aurrizkia izanik, nondik *srVC* erro bat? Guk *-rn-* talde batetik *arraultza, arrano, jarrain, inarrosi*, eta beste (\**ardano, arbin*) atera genituen (§5.3). Batak zein besteak talde horretarako erro hutsaren aurretik eta *e-* orokorraren ondotik bestelako aurrizkiak behar ditugu, funtsean kausatiboak baina baita aplikatiboak ere: *nr/sr* > */R/* aski erregela berankorra eta erroaren eta \**e-* bitartean ziren beste aurrizkien arteko fenomeno delarik, ez digu balio \**e-* noizdanik ez den eransten ikeritzeko, bai aurrizkiek (\**da-*, \**ra-*) AE baino beranduago ere ihartu gabe zirautea lekukotzeko (Lakarra 2008c).

*th-*, *kh-* > *h-* (eta, batzutan, *θ-* gero) erregelak ematen digu laguntza habero. Hots, *eho* (< \**e-non*) delarik *h-*-dun bakarra, esan ahal dugu \**th-*, \**kh-* > *h-* egin baino lehen \**e-* eranstea amaitua zela zeren, bestela, \*\**eharri*, \*\**ehusi*, \*\**ehorri* eta abar genituzke, benetan aurkitzen ditugun *ekharri, ekhusi, ethorri* delakoen orde edo gutxienez haien aldamenen (\**e-lVC* \**e-dVC*-renean lege); ez da horrelakoren alerik, ordea. Akitanieraz T-/H- alternantziaren bat delarik (cf. *Talsco/Halsco*), demagun II.-III. mendeez geroztik —baina ez askozaz beranduago— burutu zela delako aldaketa. Hala bada, akitanieraren ondoren baina EBZ-a (v.-vi. m.; cf. Mitxelena 1981) baino lehen \**e-* aurrizkiaren

<sup>127</sup> \**-d-* > *-θ-* askoz beranduago jazo zen erroan, ez hainbeste aurrizkian; cf. Lakarra (2009b).

<sup>128</sup> Ez naiz sartzten *-o* atzikiaren jatorriarekin, ezta *-n* > *-θ* erregelarekin ere; bigarrenak aski berankor behar du *ediro* (< \**eradin / eriden*), *igaro* (< *iragan*), *iramo* (< \**iraman*), *jo* (cf. *jaiten*) eta beste ukitzen baititu.

bitartezko aditz zaharren taldearen ugalketa amaituko zen eta baita horren azpiatala den sintetikoaren sailarena ere, lehen txikia eta urria bazen, geroztik agor bilakatuko (cf. Lakarra 2006c)<sup>129, 130</sup>.

Iruditu zait euskararen historiaurrearen kronologia eta periodizazioaz ari garelarik harrigarri baino ezin gerta dakizkigukeen zenbait gertakari aipatzeke ezin utz nezakeela gaurko jarduna dagoeneko luzetxo joan arren (ikus Lakarra & Urgell 2008 zabalago). Badira 27 urte dagoeneko Mitxelenaen “Lengua común y dialectos vascos” argitaratu zenetik —eta irakurtzeko aukera baino lehen, miraz entzutekoa ere zenbaitek izan genue-larik—, aitortu behar dut aipagarri egiten zaidala hainbat orain-bereon has-tea ohartzen artikulu horrek hizkuntzaren periodizaziorako edo dialektali-zazio prozesurako duen garrantzia erabatekoaz. Gauzak labur esanda, dialekto modernoak (zeinahi ere diren) ez dira AE-ren dialekto, ezta euskal tribu zaharrei legozkiekeenak ere, hori baino zortzi edo hamar bat mende beranduagoko Euskara Batu Zahar horrenak baizik, *izatekotan ere*.<sup>131</sup> Zer-bait aurreratu dugu, gutxienez, oso salbuespen gutxiarekin euskalari askoren ikusmolde dialektologikoak luzaz ezer gutxi bereizi baitira kaleko jendearen ikusmoldeetatik (cf. Camino 2008), hots, zeharo pankronikoa izan baita: hizkuntzaren beraren mugak salbu, jakina, usu badirudi ezer gutxi aldatu dela antzinako euskaratik hona (dela AE-tik, dela EBZ-etik); ez euskalkiak berak, ezta hauen arteko mugak ere (cf. Mitxelena 1964, Lakarra 1986b).<sup>132</sup>

<sup>129</sup> Hortik ez da jarraitzen *-ra* eta *-da*-ren bitartez sintetiko gehiago ez sortzea; baina ohar bedi *din* : *dadin* : *radin* : *rrain* nahiz *dun* : *dadun* : *radun* : *inardun* lau enbor baina erro bera direla bitzuek. Bestalde, ezaguna da sintetiko guztiek \**e*- zutela, baina alderantziz ez da frogarik *e*-dun guztiak sintetikoak zirenik. Nozbait amalgamatuak eta barneko egitura galdurik ziren batzuk (*jardun*, *jarraiki*, etab.) jokatu bilakatu ziren baina ez dirudi erro berri gehiago erantsi zenik zerrenda horretara; Lazarragaren *nirteanean* edo *RS*-eko *diratan* salbuespen baztergarriak baino gehiago forma isolatuak bide dira.

<sup>130</sup> Ikus Lakarra (2009b) eta (2009d) eta hemengo §5.6-ko laburpenean zehaztasun gehi-ago /h/-arekin lotutako hainbat bilakabideren kronologia erlatiboaz.


<sup>131</sup> Beste hitzez esateko, AE ez da EBZa, ez kronologian ez izaeran: bata berreraikitze-  
rakoan euskararen egoerarik zaharrena berreskuratu nahi dugu; bestea egitekoan, banaketa dia-  
lektalaren aurreko garairik modernoena. Ez naiz hemen horretaz gehiago arituko, baina 8-10  
mendeko etena dugu tartean eta Mitxelena zehaztu ez arren, fonologian zein morfologian bi-  
lakabide nabarmenak ere bai: *bortitz* - *ahul* > /h/ -/D/ > /T/ - /D/, artikuluaurren sorrera, peri-  
frasi perfektiboarena, *egin* laguntzailea...

<sup>132</sup> Horrela uler liteke, esaterako, Urkixok *RS*-en jatorria bilatzean Arrasatera jotzea  
1596an argitaratutako testu horretan hizkuntzalariek ikusten zuten dialekto nahasketa xx.  
mendearen hasieran Arrasaten berak ikusi uste zuenarekin berdinduz. Aurreiritzia hain ekan-  
dua zen non Garibai, testu horren arrasatear garaikidearekin erkatzea —B bildumako erre-

Gutxiri bururatu zaio, agidanez, bizkaierak eta gipuzkerak, esate baterako, kronologia ezberdinak izan ditzaketela —beren artean eta haietako edozeinek zubererarekin erkatuaz, demagun—; hau da, argiro esanik, balitekeela XII. mendeko egoera linguistikoak (are XVI. mendekoak ere, agian) ez modurik ematea “gipuzkera” delakoa dialektotzat hartzeko eta horrezaz landa, beharbada bizkaierak eta Arabako euakarak ez dutela *-gaz* betidanik, ez gipuzkerak *zera*, nahiz (are gutxiago) *duzute*, ez zubererak ere *ü* (cf. orain Oñederra 2009)...

Ez dut gehiagotarako astirik hemen eta aski izan bedi dialektologia diakronikoaren oinarri-oinarrizko puntu hau poxin bat argitzeko zeharbidez ukitzea. Arestian Blazek-ek (2007) bildu eta erkatu ditu II. Mundu Gerraz geroztiko IE hizkuntzen sailkapenak; labur esateko ez da hor aurkitzen Bonaparteren nahiz Zuazoren zortzi edo sei adarreko (nahi Mitxelenaren hamabiko) baina adabegi bakarreko zuhaitzik. Antzera Ringeek ere:


1. Figura: IEraren zuhaitza (Ringe 2006: 5)



frauekin, demagun— ez zitzaion bururatu (ez berari ez besteri) eta bai hangoa behar zuela izan (eta Garibairena prezeski!) proposatzea, 70 urtetan edo hainbatek Urkixok berak baino fede gehiagorekin sinistea lortuaz, gainera (cf. Lakarra 1986a, 1996b, 2002c).

Antzera genuke austronesioaren zuhaitzarekin ere:

2. Figura: Austronesieraren zuhaitza (Lynch, Ross & Cowley 2002: 4)



Hots, zenbat dialekto hainbat eten dira enborrerekiko eta etenok inoiz ere ez dira altuera berean jazoak: beste hitzez esateko, IE hizkuntzalaritzan (eta austronesioan, semitikoan, bantuan, uralikoan...) adarreztatze bikoitza aurkitzen dugu, ez zortzikoitza, seikoitza edo n-koitza. Hemendik jarraitzen da dialektoek zeinek bere data duela eta bik —are gutxiago gehiagok edo guztiek— ez dutela halabeharrez ere data bera. Aski urruti dirudi euskal dialektologiaren usadioetarik; alabaina, iruditzen zait tradizio garatuagoetako ohiturak hemen ere zabal balitez ez ginatkeela galduan aterako diakronistak: gure iraganari buruzko ustekizun eta lillura zenbait ezabatzeaz landa, historiaurrearen berre-raiketarako lanabes finduagoak bide genituzke, batez ere Meilletek (eta Mitxelena) hainbatetan eskatzen zuten *philologie de précision* harekin elkarlanean arituaz. Baina honetaz eta hemen kanpoan utziaz hurrengo batean beharko.<sup>133</sup>

<sup>133</sup> Txineraren esparruan ikus lehenago ere aipatu Pulleyblank (1992). Hori bera esan liteke, noski, filologiatik letorkigukeenaz: lekukotasunak ikertzea eta ikertzeko moduan eskura jartzea komenigarriago bide da diru publikoa baliatuz testuak faltsutzea edo desitxuratzea baino... eta ez naiz soilik Iruña-Veleiakoez ari, badaezpada ere.

## 9. Ondorioak

Ezin esan liteke aitzineuskararen berreraiketarena gai jorratuegi denik euskalaritzan. Euskal linguistika diakroniko zientifikoa bera bezala urria eta berankorra dugu eta usu honen natura eta egitekoak ezezagunak dira, are inongo tradizio garatutan hura gabe nekez pasa ahalko luketen ikertzaile eta zaletu konparatzaileen artean ere (§1). 1950eko hamarkadan André Martinek hasi eta Koldo Mitxelenak sendotu, zabaldu eta garatu zuen K.a. azken mendeetako (euskara latinarekin kontaktuan sartu aurreko) hizkuntzaren —hots, AE modernoaren— sistema fonologikoaren berreraiketa; saio horiek (eta *Fonética histórica vasca*-ri lotuek) ekarri zuten ehundaka morfema eta hitzen berreraiketa eta, horien historiaren bitartez, euskararen historiaurrearen eta historiaren zati handiak argitzea (§2).

AE-ren eta euskararen historiaurrearen azterketan gure alorrean azken mende erdian estandarra den Mitxelenaren teoria osatzeko, aurreko orrialdeotan berreraiketa hori berraztertzeke diren arrazoi eta bitartekoak aurkeztuaz abiatu (§3) eta 1995az geroz landuaz doan erro monosilabikoaren teoriak (§4) egiteko horretarako erakutsi duen zenbait ideia, datu eta lanabes ekarri nahi izan dugu, AE-rekiko ikerketak ukitu dituen hainbat gai ikuskatuaz, fonologian (§5), morfologian (§6) eta lexikoan (§7). Horrela, hitz hasierako bokalak eta toki berean gertatutako zenbait C- erorketa (§5.1), diptongo modernoak (§5.2), hitz hasierako hortzetakoak eta ozenak (§5.3), ozenen eta txistukarien sistema AEZ-ean (§5.4), azentuera zaharra (§5.5) edo hitz hasierako eta barneko (§§5.6-5.7) ustezko “/h/ etimologiagabekoak”. Atalaren akabuan AE-tik EBZ-era bitartean izandako aldaketak eta AE klasikoa baino lehenagoko konsonantismoa nolakoa izan zitekeen ukitzen da (§5.8).

Antzeman litezkeen aldaketa morfosintaktikoak eta AE-ko edo historiaurreko euskarak alderdi horretatik izan zitezkeen ezaugarri batzuk aipatzen dira §6-n: CVC erro-eredu monosilabikoa (§6.1), aldaketa tipologikoa (§6.2), aditz zaharretako erro eredu bakarraren aldaerak eta hedadurak, aditz sintetikoen “sail itxiko” izaera, multzo aditz zenbaiten gramatikalizazioak... (§6.3).

Lexikoan (§7), forma kanonikoaren laguntzak etimologia formalerako ematen digun aukera markatu nahi izan dut batez ere: aurkitutako hainbat erro fosildu ezezagun eta horien laguntzaz berreraiki litezkeen hitz-familiez landa, beste zenbait dozena mailegu zahar berri ere agertu dizkigu hark. Alabaina, erro-ereduen ezagutzak hitzen banakako azterketak —eta ahaiderik gabeko zein lekukotasun urriko hizkuntzak— falta dituen oinarri eta hatsarri mezprezaezinak dituela azaleratu nahi izan dut bereziki. Azkenik, eginkizun



zail baina beharrezko dugun historiaurrearen kronologia eta periodizaziorako adabaki fonologiko eta morfologiko zenbait harilkatzen saiatu naiz (8), etorkizunerako oinarri-oinarrizko egitasmoaren adibide gisa.

AE-ren azterketaren azken urteotako emaitzak aberatsagoak dira alderdi batzutan enparatuetan baino irakurlea bere kabuz ohartu bide denez; nik bakarra aipatzekotan zera markatuko nuke, ikerketa hauek ezin nabarmenago bistaratu digutela euskara —azken 2000 urteotakoa nahiz lehenagokoa— etengabe aldatuaz joan dela fonologian, morfologian, syntaxian nahiz lexikoan. Honen ondorioz, zenbat eta gehiago sakondu eta zenbat eta gehiago zehaztu AE-ren berreraiketa, euskara historikoaren egitura nagusietarik hainbat eta urrutiago kokatzen da hura, are oso bestelako bihurtzen ere. Ez da esan beharrik, AE-ren ikuspegi oso eta beterik ematea oraindik ezinezko dugula, baina nago duela zenbait urte baino egokiera hobean garena astiro-astiro gehituaz doazen ekarpenek<sup>134</sup> eta lehenagotik ezagutu baina egokiro pisatu gabeko lanabesen ulerpen berriek aitzinatzen laguntzen diguten neurrian.

Euskara genetikoki erkatzeko eta, beraz, kanpoko berreraiketarako haurri-deak aurkitzeko esperantzak aspaldi uxatu zirenetik, soilik filologia eta teoria hoberenaz osatutako barne berreraiketak eraman gaitzake gure hizkuntzaren historiaurreko sinkronia ezberdinak eta aitzineuskara bera (dela “klasikoa”, dela “zaharra”) eskuratzerara (ik. Lakarra 1997b). Bidea ez da laburra ez erraxa eta emaitzak, seguruenik, ez dirateke inoiz ere asebetekoak beren buruei helburu jasoeziak ezartzen dizkietenentzat —Neolitikoko Europa edo Paleolitikoko Eurasiako hizkuntza, kultura, gizartea eta ekonomia Goierriko edo Beterriko hizkeraren batetik abiatuaz berreraikitzea, demagun— (cf. Lakarra 1999). Hainbeste gabe konforma litezkeenentzat aitzineuskararen azterketak eman ditu, eta batez ere emango, hainbat gauza jakingarri gure hizkuntzaren egitura diakronikoki ulertzeko eta azaltzeko.

## 10. Bibliografia

Abondolo, D. M., 1998, (arg.), *The Uralic languages*, Routledge.

Agud, M. & Tovar, A., 1988-1995, *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca: A-orloi*. ASJU-ren Gehigarriak: Donostia, 7 liburuki.

---

<sup>134</sup> Biltzar honetan bertan dira, esaterako, Elordieta, Igartua edo Martínez Aretaren lan interesgarriak.

- Aikhenvald, A. Y., 2006, "Serial verb constructions in typological perspective" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 1-68.
- , & R. M. W. Dixon, (arg.), 2006, *Serial verb constructions. A cross-linguistic typology*. Oxford U. P.
- de Alonso, A., 2007, "Noticias sobre lingüística histórica (I)", *ASJU* 41, 337-395. (337-350 = Angela Marcantonio (2002), *The Uralic language family: Facts, myths and statistics* [iruzkina]; 350-361 = Jan Braun (2001), *Sumerian and Tibeto-Burman* [iruzkina]; 362-373 = Jan Braun (1998), *Euskaro Caucasic. Historical and comparative studies on Kartvelian and Basque* [iruzkina]).
- Ameka, F., 2009, "Verb extensions in Lipke (Sekpele)", *Journal of West African Languages* 36, 139-157.
- Anderson, G. D. S., 2006, *Auxiliary Verb Constructions*. Oxford U.P.
- Arbelaiz, J. J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Tolosa, Kardaberatz.
- Ariztimuño, B., 2011, *Antzinateko euskal idazkunak eta aitzineuskararen berreraiketa: corpusa, analisisa eta ondorioak*. UPV-EHUko Hizkuntzalaritza Programako Master Tesia.
- & A. Martínez Egurcegui, 2011, "Enarak, elaiak eta testuinguruaren garrantzia". *ASJU*-rako inprimategian.
- Artiagoitia, X., 1990, "Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos", *ASJU* 24, 327-349.
- , P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for R. P. G. de Rijk*, *ASJU*-ren Gehigarriak XLIV, Bilbo.
- , & J. A. Lakarra (arg.), 2008, *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagari Omenaldia*. *ASJU*-ren Gehigarriak LI, Bilbo.
- Austerlitz, R., [1970] 1976, "L'aglutination dans les langues de l'Eurasie septentrionale", *Études finno-ougriennes* 13, 7-12.
- Azkarate, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*. Deustuko Unibertsitatea-EUTG, Donostia.
- , & P. Altuna, 2001, *Euskal morfologiaren historia*. Mundaiz, Donostia.
- Azkue, R. M<sup>a</sup>, 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo [Berrarg. eranskin batekin, 1969], LGEV.

- , 1923-25, *Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera)*, I-III, Bilbo. 2. arg. 1969, LGEV.
- Bakrò-Nagy, M. Sz., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system*. Studia Uralica 5, Harrassowitz Verlag.
- Baldi, Ph., 1990, (arg.), *Patterns of change, change of patterns. Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-NY.
- & B. R. Page, 2006, "(Iruzkina) Theo Vennemann. *Europa Vasconica-Europa Semitica*", *Lingua* 117, 2183-2220.
- Bender, M. L., 1969, "Chance CVC correspondences in unrelated languages", *Language* 45: 3, 519-531.
- Benveniste, E., 1935, *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisonneuve.
- , 1969, *Le vocabulaire des institutions indo-européennes. I. Économie, parenté, société; II. Pouvoir, droit, religion*. Les Éditions de Minuit, Paris.
- , 1974, *Problemas de lingüística general*. Siglo XXI, México. 2 lib. (1966ko jatorrizko frantsesaren itzulpena).
- Bhat, D. N. S., 2000, "Dravidian and Tibeto-Burman: a typological comparison", *International Journal of Dravidian Linguistics* 29, 9-40.
- Blazek, J., 2007, "From August Schleicher to Sergei Starostin: On the development of the tree-diagram models of the Indo-European languages", *Journal of Indo-European Studies* 35, 82-110.
- Bueno, A., 2004, *Nominalizazio atzizki deitutakoen azterketa historikoa eta morfologikoa*. Doktoregoko ikerketa lana. UPV/EHU-Gasteiz.
- Camino, I., 2008, "Dialektologiaren alderdi kronologikoa", *FLV* 40, 209-247.
- Campbell, L., 1973, "Distant genetic relationships and the Maya-Chipaya hypothesis", *Anthropological Linguistics* 15, 113-135.
- , 1988, "(Iruzkina) *Language in the Americas* by J. H. Greenberg", *Language* 64: 591-615.
- , 1997, *American Indian languages*. Oxford U. P., New York-Oxford.
- , 1998, *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U.P.
- , 2007, "La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?". Inprimategian in Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.).

- Castaños, F., 1979a, *El euzkera y otras lenguas*. Bilbo.
- , 1979b, *La formación del plural en la lengua vasca*. Bilbo.
- Chambon, J.-P. & Greub Y., 2002, “Note sur l’âge du (proto)gascon”, *Revue de Linguistique Romane* 66, 473-495.
- Coromines, J. & Pascual, J. A., 1980-91, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos.
- Coseriu, E., 1965, “Critique de la glottochronologie appliquée aux langues romanes”. Berrarg. in J. M. Anderson & J. A. Creore, 1972, (arg.), *Readings in Romance linguistics*, La Haya, Mouton: 445-454.
- Dardel, R. de, 1996, *À la recherche du protoroman*, Tübingen, Niemeyer.
- Dixon, R. M., 1982, “Where have all adjectives gone?” In *Where have all adjectives gone? And other essays in semantic and syntax*. Berlin: Mouton, 1-62.
- Lehen bertsioa 1977koa da.
- , 1997, *The rise and fall of languages*. Cambridge U.P., Cambridge.
- , 2002, *Australian languages*. “Cambridge language surveys”, Cambridge.
- Donegan, P., 1993, “Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer”, *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 16, 1-43.
- & D. Stampe, 1983, “Rhythm and the holistic organization of language structure” in J. Richardson *et al.* (arg.), *Papers from the Parasession of phonology, morphology and syntax*. CLS, 337-353.
- , 2004, “Rhythm and the synthetic drift of Munda”, *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*, de Gruyter (Berlin-NY), 3-36.
- Durie, M. & Ross, M., 1996, arg., *The comparative method revisited. Regularity and irregularity in language change*. Oxford, Oxford U.P.
- Elordieta, G., 2008, Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarreko txostena. Liburu honetan.
- Ernout, A., & Meillet, A., 1979, *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. 4. arg., Paris, Klincksieck.
- Etchebarne, M., 2003, “Les dialectes basques: homogénéité ou dispersion?” *Lapurdum* 8, 139-166.

- , 2006, “L'emprunt lexicale d'origine latino-romane en basque: une approche lexico-statistique”. *Artxiker*.
- Fernández, B. & I. Laka (arg.), 2006, *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. UPV/EHU, Bilbo.
- Fox, A., 1995, *Linguistic reconstruction. An introduction to theory and method*. Oxford U.P.
- Galand, L., 1984, “Le comportement des schèmes et des racines dans l'évolution de la langue: exemples touaregs” in J. Bynon (arg.), *Current Progress in Afro-Asiatic Linguistics: Papers from the Third International Hamito-Semitic Congress* (Amsterdam: J. Benjamins): 305-315.
- Gamkrelidze, T. V. & V. V. Ivanov, 1984, *Indo-European and the Indo-Europeans*. J. Nichol森 errusieratiko itzulpena. Mouton de Gruyter, Berlin & New York 1995.
- Garrett, A., 2004, “The evolution of Algic verbal stem structure: new evidence from Yurok”, eskuizk, UCB.
- Gavel, H., 1920, *Éléments de phonétique basque* (= RIEB 12), Paris.
- Gómez, R., 1994, “Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra” in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Izpegi, Baigorri: 93-114.
- , & K. Sainz, 1995, “On the origin of the finite forms of the Basque verb”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 235-274.
- Gonda, J., 1949-51, “The functions of word duplication in Indonesian languages”, *Lingua* 2, 170-197.
- Good, J., 2005, “Reconstructing morpheme order in Bantu. The case of causativization and applicativization”, *Diachronica* 22, 3-57.
- Gorrotxategi, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo, UPV/EHU.
- , 1987, “Vasco-céltica”, *ASJU* 21, 951-959.
- , 2001, “Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara”, *XV Congreso de Estudios Vascos*, Donostia: 103-114.
- , 2007, “Las armas de la filología”. In Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.). *Inprimategian*.

- , 2007-2008, “Lenguas y genes: aplicaciones a la prehistoria de la lengua vasca”, *Veleia* 24-25 (= J. Fdez Eraso & J. Santos, arg., *Homenaje a Ignacio Barandiaran Maestu*), 1185-1202.
- , 2008, “Dictamen de Joaquín Gorrochategui a la Comisión Asesora de la Diputación Foral de Alava sobre los hallazgos epigráficos de Iruña-Veleia (Campañas 2005 y 2006)”. Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratua.
- , 2009, “Vasco antiguo: algunas cuestiones de geografía e historia lingüísticas”, *Palaeohispanica* 9, 539-555.
- , & J. A. Lakarra, 1996, “Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco”, in Villar, F. & J. D. Encarnaçao (arg.), *La Hispania prerromana. VI Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*. U. Salamanca & U. Coimbra. Salamanca: 101-145.
- , 2001, “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in F. Villar & M<sup>a</sup> P. Fdez Alvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*. Universidad, Salamanca: 407-438.
- Greenberg, J., 1981, “Nilo-Saharan moveable *k*- as a stage III article (with a Penutian typological parallel)”, *Journal of African Languages and Linguistics* 3, 105-112.
- , 1987, *Language in the Americas*. Stanford, California, Stanford U.P.
- , 1990, *On language: selected writings of J. H. Greenberg*. Stanford, California, U.P.
- , 2000, *Indo-European and its closest relatives. The Eurasiatic language family. I. Grammar*. Stanford U.P.
- Guiter, H., 1989, “Elementos de cronología fonética del vascuence”, *ASJU* 23, 797-800.
- Haas, M., 1969, *The prehistory of languages*. Mouton.
- Henderson, E. J. A., 1951, “The phonology of loan-words in some South-East Asian languages”, *Transactions of the Philological Society* 131-158.
- , 1976, “Vestiges of morphology in some Tibeto-Burman languages” in *South-East Asian Linguistic Studies* 2 (Nguyen Dang Liem arg.), “Pacific Linguistic Series C”, nº 42, 1-17.

- Herman, J., 1990-2006, *Du latin aux langues romanes: I. Études de linguistique historique; II. Nouvelles études de linguistique historique*. Niemeyer: Tübinga.
- Holmer, N., 1970a, "A historic-comparative analysis of the structure of the Basque language", *FLV* 2, 5-40.
- , 1970b, "The principal linguistic types", *FLV* 2, 41-47.
- Houis, M., 1970, "Reflexion sur une double correlation typologique", *Journal of West African Languages* 7, 59-68.
- Hoz, J. de, 2009, "El problema de los límites de la lengua ibérica como lengua vernácula", *Palaeohispanica* 9, 413-433.
- Hualde, J. I., 1993, "On the historical origin of Basque accentuation", *Diachronica* 10: 1, 13-50.
- , 1997a, "Aitzineuskararen leherkariak", *ASJU* 31: 2, 411-424.
- , 1997b, *Euskararen azentuerak*. *ASJU*-ren Gehigarriak 42, Bilbo-Donostia.
- , 2006, "Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera" in Fernández & Laka (arg.), 497-511.
- , 2009, "Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca", *Oihenart* 23, 199-217.
- , J. A. Lakarra & L. Trask, (arg.), 1995, *Towards a history of Basque language*. John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.
- Hurch, B., 1988, "Is Basque a syllable-timed language?", *ASJU* 22, 813-825.
- , 1991, "Sobre la reconstrucción del protovasco: observaciones a Trask" in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU*-ren Gehigarriak 14, 607-613.
- , et al. (arg.), 2005, *Reduplication*, de Gruyter, Berlin-New York.
- Hyman, L., 2004, "How to become a "Kwa" verb", *Journal of West African Languages* 30, 69-88.
- , 2007a, "Niger-Congo verb extensions: Overview and discussion". *Selected Proceedings of the 37th Annual Conference on African Linguistics*. D.L. Payne & L. Peña (arg.), 149-163. Somerville.

- , 2007b, “Reconstructing the Proto-Bantu verbal unit: Internal evidence”. *SOAS Working Papers in Linguistics* 15, 201-211.
- Igartua, I., 2002, “Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik”. In Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 366-389.
- , 2006, “Del origen de la aspiración como elemento morfológico en vasco”. In Lakarra & Hualde (arg.), 519-530.
- , 2008, “Historia abreviada de la aspiración en las lenguas circumpirenaicas”. *Liburu honetan*.
- , 2010, “La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de rhinoglottophilia”, *ASJU* 42, (2008), 171-189. [Inprimategian “Algún paralelo tipológico más para la *h* vasca de origen nasal”, *ASJU* 42/2 (2008)].
- Irigoyen, A., 1977, “Geure hizkuntzari euskaldunok deritzagun izenaz”, *Euskera* 22: 2, 513-538.
- , 1981, “*Haur ola ziriola*. Elementos deícticos en la lengua vasca”, *Iker* 1: *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*, Bilbo, 365-403.
- , 1985, *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*, Bilbo.
- , 1987hh, *De re philologica linguae vasconum*, Bilbo.
- Jauregi, O., 2007, *Silaba euskaraz: egitura eta historia*. Tesi argitaragabea, UPV/EHU.
- Kitson, P. R., 1996, “British and European river-names”, *Transactions of the Philological Society* 94: 2, 73-118.
- , 1997, “Reconstruction, typology, and the “original homeland” of the Indo-Europeans” in J. Fisiak (arg.), *Linguistic reconstruction and typology*. Mouton de Gruyter, Berlin-New York: 183-239.
- Kuznetsova, N. G., 2004, «Morphological reanalysis in the Selkup verb» in E. J. Vajda (arg.), *Languages and prehistory of central Siberia*, John Benjamins, Amsterdam: 151-156.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au xvième siècle*. 2. arg. Elkar, Donostia, 1980.
- , 1950, “Remarques sur le racine en basque”, *BAP* 6: 4, 303-308.
- , 1951-52, “Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiques”, *Word* 7, 227-244 eta 8, 80-94.



- , 1999, *Vasconiana*, Iker 11, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Lakarra, J. A., 1986a, “xvi. mendeko bizkaierazko errefracuz: I. Garibairen bildumak”, *ASJU* 20, 31-66.
- , 1986b, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20, 639-682.
- , 1991, “(Iruzkina) Roman del Cerro, *El desciframiento de la lengua ibérica en ‘La ofrenda de los Pueblos’*”, *ASJU* 25: 3, 1001-1004.
- , 1995, “Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque” in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- , 1996a, “Sobre el europeo antiguo y la reconstrucción del protovasco”, *ASJU* 30, 1-70.
- , 1996b, *Refranes y Sentencias: ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia-Bizkaiko Diputazioa.
- , 1997a, “Euskararen historia eta filologia arazo zahar, bide berri”, *ASJU* 31, 447-536.
- , 1997b, “Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa”, *ASJU* 31, 537-616.
- , 1998a, “Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa”, *Uztaro* 25, 47-110.
- , 1998b, “Gure izterlehengusuek eta guk erro bera? Gogoetak erroaz aitzinkartvelikoz eta aitzineuskaraz”. In I. Turrez *et al.* (arg.), *Studia Philologica in honorem Alfonso Irigoien*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo: 125-150.
- , 1999, “Ná-De-Ná”, *Uztaro* 31, 15-84.
- , 2002a, “Ez zirenez: \*\*TVTV eta haren lagunez: I. So bat erro disilabiko kodagabeez”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , 2002b, “Etymologiae (proto)uasconicae LXV”, in Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 425-442.
- , 2002c, “*Refranes y Sentencias*: arazoak eta lekukotasunak bizkaiera zahararen azterketarako” in A. Arejita *et al.* (arg.), *Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza gunea*. Deustuko Unib., Deustu: 17-77.
- , 2004a, “Bisílabos (¿proto?)vascos”. Eskuiz., UPV/EHU.

- , 2004b, “Juan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua (xvi. mendea). Lehen hurbilketa”) in Gipuzkoako Foru Aldundia, *Lazarragakoaren eskuizkribua*, Edilán-Ars Libris, Madril.
- , 2004c, “Cuernos, pellejos, caballos y otras anécdotas: Notas sobre la reconstrucción de algunas C- y V- iniciales y sobre gramática y morfonología protovasca antigua”. *Eskuizkribu argitaragabea*.
- , 2005, “Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco”, *Palaeohispanica* 5, 407-470.
- , 2006a, “Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica”, *Oihenart* 21, 299-322.
- , 2006b, “*Jaun eta jabe, jaio eta herio, jin eta joan...* etimologiaz eta aditz zaharraz”. In Fernández & Laka (arg.), 575-611.
- , 2006c, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco”, in Lakarra & Hualde (arg.), 561-621.
- , 2007, “Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio”. “*Koldo Mitxelena*” *Katedraren II. Biltzarreko (Gasteiz, 2007/X) hitzaldia*. Inprimategian, *FLV* 113, [2010] 173-282.
- , 2008a, “Aitzineuskararen gramatikanantz malkar eta osinetan zehar”. In Artiagoitia & Lakarra (arg.), 451-490.
- , 2008b, “Forma canónica, etimología y reconstrucción en el campo vasco”, *ASJU* 37 [2003], 261-391.
- , 2008c, “Para la reconstrucción del verbo vasco: Nuevas irregularidades radicales y antiguas extensiones a la izquierda”. Inprimategian *ASJU*-rako.
- , 2008d, “*Vida con/y libertad*”: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de “Urthubiako Alhaba”, *ASJU* 42, 83-100.
- , 2009a, “Temas para un prólogo: forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco”. *Oihenart* 23, 277-347.
- , 2009b, “ $*h_3 > h_1$ ,  $*h_2 > h_1$  eta horiei datzekien zenbait fenomeno”. Baionako CNRS-ek (2008ko abenduaren 12-13an) antolatu biltzarreko komunikazioa. Inprimategian *Lapurdum*-eko ale berezi batean.
- , 2009c, “Forma canónica y cambios en la forma canónica en la prehistoria de la lengua vasca”. *X. Congreso de Lenguas y Culturas Paleohispánicas*, *Palaeohispanica* 9, 557-609.

- , 2009d, “Adabakiak /h/-aren balio etimologikoaz”, *ASJU* 43, 565-596.
- , 2009e, “Aitzineuskara berreraikiaz: Zergatik ezkerria”, *Euskera* 54, 17-98.
- , 2010a, “Más sobre dentales iniciales”. Inprimategian *ASJU*-rako.
- , 2010b, “Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica (con un apéndice sobre *hiri* y otro sobre *bat-bi*)”, *Veleia* 27, 191-238.
- , 2010c, “RS-eko lexikoaz ohar dozena”. In S. Gómez Seibane & J. L. Ramírez Luengo (arg.), *Maestra en mucho. Estudios filológicos en homenaje a Carmen Isasi Martínez*. Voces del Sur, Buenos Aires: 159-179.
- , inprimategian, *Raíz y reconstrucción del protovasco*. *ASJU*-ren Gehigarriak L, Donostia.
- , prest.-1, “600 etimologías y subiendo. Materiales para un diccionario etimológico vasco”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , prest.-2, “Antiguas y nuevas iniciales en (proto)vasco”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , prest.-3, “V-, CV-, -VC, -C, -V, -CV: fragmentos y forma canónica en (proto)vasco”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , prest.-4, “Monosilaboak eta bisilaboak denboran eta espazioan”. UPV/EHU-ko eskuizk.
- , prest.-5, “Vocales y diptongos en bisílabos y en monosílabos: análisis sincrónico y diacrónico”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , prest.-6, “Modelos radicales y fonosimbolismo”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , prest.-7, “Para la prehistoria del consonantismo protovasco”. Eskuiz., UPV/EHU.
- , prest.-8, “Bostgarren /h/ eta beste zenbait hasperen”. Eskuiz. UPV/EHU.
- , J. Gorrotxategi & B. Urgell, (arg.), 2007, *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, 2007/X/8-11)*. *Aktak*. Inprimategian.
- & J. I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (= *ASJU* XL, 1-2), UPV/EHU, Bilbo.

- & C. Mounole, 2010, “Lazarragaren hizkeraz”. UPV/EHU-ko Udako Ikastaroetako hitzaldia.
- & I. Ruiz Arzalluz (arg.), 2011, *Obras Completas de Luis Michelena. Edición al cuidado de* \_\_; 15 liburuki, ASJU-ren Gehigarriak, Bilbo-Donostia.
- & B. Urgell, 2008, “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz”. Baionako CNRS-ren Biltzarreko (XII/12-13) hitzaldia. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- Lapesa, R., 1961, “Del demostrativo al artículo”. Berrarg. in id., *Estudios de morfosintaxis histórica del español*, R. Cano eta M. Echenique (arg.), Gredos: Madril 2000: 360-387.
- Lichtenberk, F., 1985, “Syntactic-category change in Oceanic languages”, *Oceanic Linguistics* 24, 1-85.
- Lord, C., 1993, *Historical change in serial verb constructions*. Amsterdam: John Benjamins.
- Lynch, J., Ross, M. & T. Crowley, 2002, *The Oceanic Languages*. Curzon: Surrey.
- Madariaga, N., 2001, “Datos para una tipología del cambio lingüístico en los términos referidos al cuerpo humano”, *ASJU* 35, 385-443.
- Malkiel, Y., 1954, “Etymology and the structure of word families”, *Word* 10, 265-274.
- Manterola, J., 2006, “-a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar”. In Lakarra & Hualde (arg.), 651-676.
- , 2008, “Is Basque an agglutinative language?”. Santa Barbarako Unibertsitateko hitzaldia.
- Marcantonio, A., 2002, *The Uralic language family*. Blackwell.
- Martinet, A., 1950, “De la sonorisation des occlusives initiales en basque”, *Word* 6, 224-233.
- , 1955, “La reconstruction structurale: les occlusives du basque”. In *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*. Francke, Berne: 370-388. Gazt. itzul. Madril, 1974.

- Martinez Areta, M., 2006a, “Adjektiboa aitzineuskaraz”. In Lakarra & Hualde (arg.), 687-722.
- , 2006b, *El consonantismo protovasco*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- , 2008, “Hitz-konposakera euskaraz eta aitzineuskaraz”, *ASJU* 37, 1-84.
- , 2009a, “El acento protovasco”, *ASJU* 38, 135-206.
- , 2009b, “The category of number in Basque: I. Synchronic and historical aspects; II. Prehistorical and typological aspects”, *FLV* 41, 63-98 eta 249-280.
- Martínez Egurcegui, A., 2010, *Metatesia euskaraz*. DEA-ko lana, UPV/EHU (Gasteiz). *ASJU*-rako inprimategian.
- Matisoff, J., 1990, “On megalocomparison”, *Language* 66, 106-120.
- McMahon, A. M. S. & McMahon, R., 1995, “Linguistics, genetics and archaeology: internal and external evidence in the Amerind controversy”, *Transactions of the Philological Society* 93: 2, 125-225.
- Meillet, A., 1921-36, *Linguistique historique et linguistique générale*. 2 lib. Klincksieck, Paris.
- , 1925, *La méthode comparative en linguistique historique*, Paris. Berrarg. 1970. (= *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*, (‘Koldo Mitxelena’ Katedraren Argitalpenak 2), UPV/EHU, Bilbo 2001. Ma<sup>a</sup> Jose Kerejeta eta Blanca Urgellen itzulpena.
- Melena, J. L., (arg.), 1985, *Symbolae Ludovico Mitxelena Septvagenario Oblatae*. Gasteiz, UPV/EHU, 2 lib.
- Mitxelena, K., 1950a, “De etimología vasca”. Berrarg. *SHLV*, 439-444.
- , 1950b, “De fonética vasca I: La aspiración intervocálica”. Berrarg., *SHLV*, 190-202.
- , 1951a, “De fonética vasca II: La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas”. Berrarg., *SHLV*, 212-219.
- , 1951b, “La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet”. Berrarg., *SHLV*, 203-211.
- , 1954a, “De onomastica aquitana”, Berrarg., *LH*, 409-445.

- , 1954b, “Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca”. Berrarg., *SHLV*, 630-644.
- , 1954c, “Notas sobre algunos pasajes de los *RS* de 1596”. Berrarg., *SHLV*, 792-798.
- , 1954-57, “Diccionario crítico-etimológicos de la lengua castellana [iruzkina]”. Berrarg., *SHLV*, 467-491.
- , 1956, “La lengua vasca como medio de conocimiento histórico”, *Zumarraga* 6, 49-70.
- , 1957, “Las antiguas consonantes vascas”. Berrarg., *SHLV*, 166-189.
- , 1958, “Introducción” [Landucciren *Dictionarium Linguae Cantabrigae* (1562)-ren argitalpenari]. Berrarg. *SHLV*, 762-782.
- , 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg., *ASJU*-ren Gehigarriak 20, Donostia 1990.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berrarg., *SHLV*, 1-73.
- , 1970, “Nombre y verbo en la etimología vasca”. Berrarg., *PT*, 283-309.
- , 1971a, “Toponimia, léxico y gramática”. Berrarg., *PT*, 141-167.
- , 1971b, “Egunak eta egun-izenak”. Berrarg., *PT*, 269-282.
- , 1972a, “Etimología y transformación”. Berrarg., *LH*, 296-308.
- , 1972b, “Léxico vasco y etimología”. Berrarg., *PT*, 337-348.
- , 1973, *Apellidos vascos*. 3. arg., Donostia.
- , 1974, “El elemento latino-románico en la lengua vasca”. Berrarg., *PT*, 195-219.
- , 1977a [1961], *Fonética histórica vasca*, 2. arg. zuzendu eta emendatua, *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Donostia.
- , 1977b, “Notas sobre compuestos verbales vascos”. Berrarg., *PT*, 311-335.
- , 1978-79, “Miscelanea filológica vasca (I-IV)”. Berrarg., *PT*, 363-463.
- , 1979a, “La langue ibère”. Berrarg., *LH*, 341-356.
- , 1979b, “Euskararen izterlengusuak direla eta”. Berrarg., *PT*, 57-58.
- , 1981, “Lengua común y dialectos vascos”. Berrarg., *PT*, 35-55.

- , 1984, “Aurkezpena” in Sarasola (1984-95). Berrarg., *SHLV*, 349-360.
- , 1985, *Lengua e Historia*, [LH], Paraninfo, Madril.
- , 1987a, *Palabras y Textos*, [PT], J. Gorrotxategi (arg.), UPV/EHU, Bilbo.
- , 1987b, *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- Morvan, M., 1992, *Les origines linguistiques du basque: l'ouralo-altaïque*. Tesi argitaragabea, Bordele.
- , 1997, “Problèmes de substrat (suite)”, *Lapurdum* 2, 23-27.
- , 2009, *Dictionnaire étymologique basque-français-espagnol*, Internet/Lexilogos.
- Mounole, C., 2006, “Quelques remarques à propos de l’histoire des périphrases basques”. In Lakarra & Hualde (arg.), 723-738.
- , 2007, “Perifrazi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantitatiboa eta proposamen berria”, *ASJU* 41, 67-138.
- , 2008, “Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfekziozko perifrasiaren sorreraz”. In Artiagoitia & Lakarra (arg.), 585-604.
- , 2009, “Aditzaren mailegaketa euskararen diakronian: prozesu morfologiko eta sintaktikoak”, *Oihenart* 23, 415-436.
- Múgica, M., 1996, “Notas de fonética histórica y toponimia: I. Sobre cronología de los cambios fonéticos”, *ASJU* 30, 219-238.
- , 2000, “Notas de fonética histórica y toponimia: II. Finales en *-iano*, *\*(i)one*, *-ina*”, *ASJU* 34, 397-412.
- Newman, J., (arg.), 2002, *The linguistics of sitting, standing and lying*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Nichols, J., 1996, “The comparative method as a heuristic” in Durie & Ross, (arg.), 39-71.
- Núñez, L., 2003, *El euskera arcaico. Extensión y parentescos*. Txalaparta, Tafalla.
- Nurse, D., 2007, “Did the Proto Bantu verb have a synthetic or an analytic structure?”. *SOAS Working Papers in linguistics* 15, 239-256.
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal palatalizazioa*. Bilbo, UPV/EHU.

- , 2009, “Ohar batzuk bokal batez: zubereraren [y]”, in Lakarra & Hualde (arg.), 663-678.
- Oregi, J., 1974, “Euskal-aditzaz zenbait gogoeta”, *FLV* 17.265-283.
- Pawley, A., 2006, “Where have all the verbs gone? Remarks on the organisation of languages with closed verb classes”. Rice University; argitaragabea.
- Pensado, C., 1983, *El orden histórico de los procesos fonológicos*. Salamanca, Ed. Universidad.
- , 1984, *Cronología relativa del castellano*. Salamanca, Ed. Universidad de Salamanca.
- Peter, S., 1992, “All in the family: Greenberg’s method of mass comparison and the genetic classification of languages” in Davis, G. W. & G. K. Iverson, (arg.), *Explanation in historical linguistics*. Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 329-342.
- Post, M. W., 2006, “Compounding and the structure of the Tani lexicon”, *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 29, 40-60.
- , 2009, “Prosodic and typological drift in Austroasiatic and Tibeto-Burman: against “Sinosphere” and “Indosphere”. 42nd International Conference on Sino-Tibetan Languages and Linguistics, Chiang Mai, Thailand, Payap University (2nd - 4th November 2009). Argitaragabea, The Cairns Institute, James Cook University.
- Pulleyblank, E. G., 1992, “How do we reconstruct Old Chinese?”, *Journal of African and Oriental Studies* 112, 365-382.
- Rao, J. P., 1992, “Status of aspirated sounds and directions of evolution in the reconstruction of Telugu sound system”, *International Journal of Dravidian Linguistics* 22, 60-67.
- Reguero, U., 2010, “Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko hurbilketa”. UPV-EHU-ko eskuizkribua.
- de Rijk, R. P. G., 1969, “Is Basque a SOV language?”. Berrarg. in 1998, 13-38.
- , 1981, “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera” in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101. Berrarg., 1998, 211-224.
- , 1992, ““Nunc” Vasconice”. Berrarg. in 1998, 347-376.



- , 1998, *De lingua uasconum. Selected writings*. ASJU-ren Gehigarriak, Donostia.
- Ringe, D., 2006, *From Proto-Indo-European to Proto-Germanic*. Oxford, U.P.
- Sagart, L., 1999, *The roots of Old Chinese*. John Benjamins: Amsterdam — Philadelphia.
- Sarasola, I., 1984-95, *Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- , 1997, “Euskal hitz altxorraz”, *ASJU* 31, 617-642.
- Satrustegi, J. M., 1997-99, “Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1951), (1952), (1953-54), (1955-56), (1959-61), (1962-63), (1964-66), (1967-76)”, *FLV* 29, 241-264; 29, 77-96; 30, 297-328; 30, 429-468; 31, 109-134, 459-482; 32, 81-109, 441-466; 34, 323-352.
- Schmidt, K. H., 1987, “The two Ancient Iberias from the linguistic point of view”, *Veleia* 2-3, 105-121.
- , 1989, “Principios y problemas de etimología kartvélica”, *ASJU* 23: 3, 757-768.
- , 1992, “Contributions from new data to the reconstruction of the proto-language” in E. C. Polomé & Winter, W., (arg.), *Reconstructing languages and cultures*. Mouton de Gruyter, Berlin & New York: 35-62.
- Schuchardt, H., 1906, “Vascuence y romance”-ren alemanetiko itzulpena, *BAP* 13 (1957), 463-487, 15 (1959), 181-205, 16 (1960), 339-363.
- , 1972, “Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco”, *BAP* 28, 217-337.
- Schuh, R. G., 2002, “Finding cognates in West Chadic”. Eskuiz., UCLA.
- , 2003, “West Chadic verb classes”. Eskuiz., UCLA.
- , u.g., “A comparative study of West Chadic verb suffixes” Eskuiz., UCLA.
- Segura, S. & J. M. Etxebarria, 1996, *Del latín al euskara. Latinetik euskarara*. Deustuko Unibertsitatea.
- Straka, G., 1951-54, “Observations sur la chronologie et les dates de quelques modifications phonétiques en roman et en français pré-littéraires”, *Revue des Langues Romanes* 71, 247-307.

- , 1956, “La dislocation linguistique de la Romania et la formation des langues romanes à la lumière de la chronologie relative des changements phonétiques”, *Revue de Linguistique Romane* 20, 249-267.
- Szemerényi, O., 1962, «Principles of etymological research in the IE languages». Berrarg. 1987, 41-77.
- , 1967, «The new look of Indo-European: reconstruction and typology». Berrarg. 1987, 123-157.
- , 1987, *Scripta Minora*. J. P. Considine & J. T. Hooker (arg.), Innsbruck.
- Thomason, S. G., 1993, “Copying with partial information in historical linguistics” in Aertsen, H. & R. J. Jeffers (arg.), *Historical linguistics 1989: Papers from the Ninth International Conference on Historical Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins, 485-496.
- Touratier, Ch., 1990, (arg.), *Linguistique comparée (Méthode et résultats)*, Travaux 8, Cercle linguistique d’Aix-en-Provence, Université, Aix-en-Provence.
- Tovar, A., 1997, *Estudios de tipología lingüística. Sobre el euskera, el español y otras lenguas del Viejo y el Nuevo Mundo*. J. Bustamante (arg.), Istmo, Madrid.
- , *et al.*, 1961, “El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence”, *BAP* 17, 249-281.
- Trask, L. R., 1977, “Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses”, in W. Douglass *et al.* (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217.
- , 1985, “On the reconstruction of Pre-Basque phonology”, in Melena (arg.), II, 885-891.
- , 1995, “On the history of the non-finite verb forms in Basque”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 207-234.
- , 1997, *The history of Basque*. Londres, Routledge.
- , 1998, “The typological position of Basque: then and now”, *Language Sciences* 20, 313-324.
- , 2000, “Some issues in relative chronology”, in C. Renfrew, A. McMahon & L. Trask (arg.), *Time depth in historical linguistics*. 2 lib. The McDonald Institute for Archaeological Research, Cambridge: 45-58.

- , 2008, *Etymological dictionary of Basque, edited for web publication by M. W. Wheeler*. University of Sussex.
- Uhlenbeck, C. C., 1942, “Les couches anciennes du vocabulaire basque”, *Eusko-Jakintza* 1 [1947], 543-581. Nederlanderazko orijinalaren itzulpena (G. Lacombe).
- , 1947, “La langue basque et la linguistique générale”, *Lingua* 1, 59-76.
- Urgell, B., 1997, “Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca”, *ASJU* 31, 643-685.
- , 2001, *Euskal lexikografiaren historia*. Titularitate txosten argitaragabea. UPV/EHU.
- , 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco” in Lakarra & Hualde (arg.), 921-948.
- Vennemann, Th., 1994, “Linguistic reconstruction in the context of European Prehistory”, *Transactions of the Philological Society* 92, 215-284.
- , 1998, “Etymology and phonotactics: Latin *grandis* vs. Basque *handi* ‘big’ and similar problems”, *Journal of Indo-European Studies* 26: 3/4, 345-390.
- , 2003, *Europa Vasconica — Europa Semitica*. Mouton de Gruyter, New York-Berlin.
- Vovin, A., 1994, (Art-iruzkina) “Long distance relationships, reconstruction methodology and the origins of Japanese”, *Diachronica* 11: 1, 95-114.
- , 2005, “The End of the Altaic controversy”, *Central Asiatic Journal* 49, 71-132.
- & S. Georg, 2003, “From mass-comparison to mesh comparison: Greenberg’s *Indoeuropean and its closest relatives*”, *Diachronica* 20, 331-362.
- , 2005, “Review of *Indoeuropean and its closest relatives: The Euroasiatic language family. Volume 2: Lexicon*”, *Diachronica* 22, 184-190.
- Watkins, C., 1984, “L’apport d’Emile Benveniste à la grammaire comparée” in G. Serbat (arg.), *E. Benveniste aujourd’hui. Actes du Colloque international du CNRS*, Peeters, Louvain, I, 3-11.
- , 1990, “Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgment”. In Baldi (arg.), 289-304.

- Wedekind, K. & A. Musa, 2006-07, “Beja (Bidharawyeet). The verb system”, *Afrika und Übersee* 89, 1-108.
- Zavala, R., 2006, “Serial verbs in Olutec (Mixean)” in Aikhenvald & Dixon (arg.), 273-300.
- Zawiszewski, A., 2001, “Vocabulario básico y préstamos en vascuence vizcaíno y otras lenguas”, *ASJU* 35, 789-891.
- Zimmer, S., 1990, “Dating the loanwords: Latin suffixes in Welsh (and their Celtic congeners)” in Bammesberger, A. & A. Wollmann (arg.), *Britain 400-600. Language and history*. Heidelberg: Carl Winter & Universitätsverlag; 263-281.

## 11. Eranskina

(Tauletakoa legenda: E. ere. = erro eredua, Iz.zit = izan zitezkeen formak, Leku. = lekukotutako formak, Ezez. = Etimologia ezezagunekoak, %-1 = x : Leku., %-2 = x : Iz.zit., Hond = Ezez. Iragazki fonetikoa eta geografikoa ezarri ondoren; Mail. = Maileguak).

Datuak Lakarra (2004a)-koak dira eta orain —testuan aurreratu denez—, ikerketa etimologikoaren eta berreraiketa-jardunaren arabera berritzerakoan zenbait aldaketa txiki baina larri egin behar lirateke: CVC ereduan, erro isolatu berriak erabiliaz ia beste hainbat “hondar” genuke eta % hori 25-30era igoko litzateke; hein berean, maileguen %a gutxituko litzateke. Eredubisilabiko gehienetan, alderantziz, “hondar” gutxiago (inoiz zifra absolutoetan 0-ra iritsiaz) eta mailegu gehiago izango litzateke, horien berankortasuna eta CVC-rekiko urruntasuna berretsiaz.

H Taula

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2
CVC	325	152	46,76	70	46,05	21,53	48	31,18	<b>14,76</b>
oCV:	85	29	34,11	07	24,13	08,23	06	20,68	<b>07,05</b>
aCVC	425	110	25,88	33	30,00	07,76	15	13,63	<b>03,52</b>
oCCV:	215	39	18,13	08	20,53	03,72	06	15,37	<b>02,79</b>
aCV:	85	64	75,29	04	06,66	04,70	02	03,12	<b>02,35</b>
uCV:	85	44	51,75	05	11,36	05,83	02	04,54	<b>02,35</b>

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2
aCCV	215	82	38,13	12	14,64	05,58	04	04,87	<b>01,85</b>
SVTV:	300	75	25,00	13	17,33	04,33	04	05,33	<b>01,33</b>
oCVC:	425	47	11,05	07	14,59	01,64	05	10,63	<b>01,17</b>
TVRV:	600	195	32,50	25	13,07	04,33	04	02,05	<b>00,66</b>
CVhV:	300	29	09,66	04	13,79	01,33	02	06,89	<b>00,66</b>
zVCVC:	2125	106	04,98	34	32,07	01,60	13	12,26	<b>00,61</b>
IVCVC:	2125	66	03,10	33	50,00	01,50	13	19,59	<b>00,61</b>
TVSV:	600	95	15,85	14	14,73	02,33	03	03,15	<b>00,50</b>
SVRV:	200	71	35,50	05	07,04	02,50	01	01,40	<b>00,50</b>
SVSV:	200	13	06,50	01	07,69	00,50	01	07,69	<b>00,50</b>
hVCV:	425	54	12,47	18	33,33	04,23	02	03,70	<b>00,47</b>
hVCVC:	2125	31	01,45	09	29,32	00,42	08	25,80	<b>00,37</b>
sVCCV	1075	63	05,86	10	15,87	00,93	04	06,34	<b>00,37</b>
bVCVC	2125	115	05,40	25	21,73	01,17	07	06,08	<b>00,32</b>
gVCVC:	2125	68	03,20	13	19,11	00,61	06	08,82	<b>00,28</b>
bVCCV	1075	96	08,93	19	19,79	01,76	03	03,12	<b>00,27</b>
uCCVC:	1075	23	02,13	07	30,43	00,65	03	13,04	<b>00,27</b>
uCVC:	425	54	12,70	05	09,25	01,17	01	01,85	<b>00,23</b>
nVCVC:	2125	24	01,12	08	33,33	00,37	04	16,66	<b>00,18</b>
zVCCV:	1075	92	08,55	12	13,04	01,11	02	02,06	<b>00,18</b>
hVCCV:	1075	60	05,58	09	15,00	00,83	02	03,33	<b>00,18</b>
gVCCV:	1075	84	07,81	06	07,14	00,55	02	02,38	<b>00,18</b>
sVCVC:	2125	62	02,91	14	22,58	00,65	03	04,83	<b>00,14</b>
aCCVC	1075	90	08,37	15	16,66	01,39	01	01,11	<b>00,09</b>
IVCCVC:	5375	31	00,57	06	19,35	00,11	03	09,67	<b>00,05</b>
bVCCVC	5375	77	01,43	10	12,98	00,18	02	02,59	<b>00,03</b>
zVCCVC:	5375	80	01,48	10	12,50	00,01	02	02,25	<b>00,03</b>
RVTV:	300	69	23,00	09	13,04	03,00	01	01,44	<b>00,03</b>
mVCV:	425	94	22,10	12	12,76	02,82	00	00,00	<b>00,00</b>
TVT	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	<b>00,00</b>
uCCV	215	45	20,93	06	13,33	02,78	00	00,00	<b>00,00</b>
RVRV:	200	41	20,50	02	04,87	01,00	00	00,00	<b>00,00</b>

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2
CV <sub>m</sub> V:	325	49	15,07	09	18,35	02,76	00	00,00	<b>00,00</b>
RVS <sub>V</sub> :	200	24	12,00	00	00,00	00,00	00	00,00	<b>00,00</b>
nVCCV:	1075	09	08,40	01	11,11	00,09	00	00,00	<b>00,00</b>
fVCV:	425	30	07,05	06	20,00	01,41	00	00,00	<b>00,00</b>
IVCCV	1075	53	04,93	09	16,98	00,83	00	00,00	<b>00,00</b>
CVfV:	325	10	03,07	01	10,00	00,33	00	00,00	<b>00,00</b>
oCCVC:	1075	25	02,32	01	04,00	00,09	00	00,00	<b>00,00</b>
gVCCVC:	5375	65	01,20	02	03,07	00,03	00	00,00	<b>00,00</b>
sVCCVC:	5375	48	00,89	11	22,91	00,20	00	00,00	<b>00,00</b>
hVCCVC:	5375	23	00,42	00	00,00	00,00	00	00,00	<b>00,00</b>
nVCCVC:	5375	07	00,13	00	00,00	00,00	00	00,00	<b>00,00</b>

## M Taula

EE	IZ	L	%	M	%-1	%-2	O	%-1	%-2
CVC	325	152	46,76	12	<b>07,89</b>	03,69	30	19,73	09,23
uCCVC:	1075	23	02,13	00	<b>00,00</b>	00,00	00	00,00	00,00
nVCCVC:	5375	07	00,13	00	<b>00,00</b>	00,00	02	28,57	00,03
S <sub>V</sub> S <sub>V</sub> :	200	13	06,50	00	<b>00,00</b>	00,00	02	15,38	01,00
oCCVC:	1075	25	02,32	00	<b>00,00</b>	00,00	00	00,00	00,00
zVCCVC:	5375	80	01,48	05	<b>06,25</b>	00,09	08	10,00	00,14
zVCVC:	2125	106	04,98	07	<b>06,60</b>	00,32	06	05,66	00,28
hVCCVC:	5375	23	00,42	02	<b>08,69</b>	00,03	00	00,00	00,00
uCVC:	425	54	12,70	05	<b>09,25</b>	01,17	01	01,85	00,23
hVCVC:	2125	31	01,45	03	<b>09,67</b>	00,14	00	00,00	00,00
nVCVC:	2125	24	01,12	03	<b>12,50</b>	00,14	00	00,00	00,00
oCVC:	425	47	11,05	06	<b>12,76</b>	01,41	01	02,12	00,23
hVCV:	425	54	12,47	07	<b>12,96</b>	01,64	04	09,25	00,94
bVCVC:	2125	115	05,40	15	<b>13,04</b>	00,70	04	03,47	00,18
aCVC:	425	110	25,85	16	<b>14,54</b>	03,76	06	05,45	01,41
gVCVC:	2125	68	03,20	10	<b>14,70</b>	00,47	00	00,00	00,00
uCV:	85	44	51,75	07	<b>15,90</b>	08,23	08	18,18	09,41

EE	IZ	L	%	M	%-1	%-2	O	%-1	%-2
sVCVC:	2125	62	02,91	10	<b>16,12</b>	00,47	00	00,00	00,00
gVCCVC:	5375	65	01,20	11	<b>16,92</b>	00,20	05	07,69	00,09
CVhV:	300	29	09,66	05	<b>17,24</b>	01,66	00	00,00	00,00
uCCV	215	45	20,93	08	<b>17,77</b>	03,72	03	06,66	01,39
IVCVC:	2125	66	03,10	12	<b>18,18</b>	00,56	00	00,00	00,00
aCCV	215	82	38,13	15	<b>18,30</b>	06,97	03	03,65	01,39
sVCCVC:	5375	48	00,89	09	<b>18,75</b>	00,16	01	02,08	00,89
IVCCVC:	5375	31	00,57	06	<b>19,35</b>	00,11	00	00,00	00,00
bVCCVC:	5375	77	01,43	16	<b>20,77</b>	00,29	09	11,68	00,16
hVCCV:	1075	60	05,58	13	<b>21,66</b>	01,20	00	00,00	00,00
aCV:	85	64	75,29	14	<b>21,87</b>	16,46	10	15,62	11,70
nVCCV:	1075	09	08,40	02	<b>22,22</b>	00,18	00	00,00	00,00
aCCVC:	1075	90	08,37	20	<b>22,22</b>	01,86	03	03,33	00,27
oCV:	85	29	34,11	07	<b>24,13</b>	08,23	03	10,34	03,52
oCCV:	215	39	18,13	10	<b>25,63</b>	04,65	00	00,00	00,00
sVCCV	1075	63	05,86	19	<b>30,14</b>	01,76	03	04,76	00,27
zVCCV:	1075	92	08,55	30	<b>32,50</b>	02,79	19	20,65	10,76
RVRV:	200	41	20,50	14	<b>34,14</b>	07,00	06	14,63	03,00
IVCCV	1075	53	04,93	19	<b>35,84</b>	01,76	01	01,88	00,09
SVTV:	300	75	25,00	28	<b>37,33</b>	09,33	03	04,00	01,00
SVRV:	200	71	35,50	27	<b>38,02</b>	13,50	03	04,22	01,50
gVCCV:	1075	84	07,81	35	<b>41,66</b>	03,25	00	00,00	00,00
TVT	900	190	21,11	80	<b>42,10</b>	08,88	36	18,94	04,00
bVCCV	1075	96	08,93	43	<b>44,78</b>	04,00	02	02,08	00,18
CVmV:	325	49	15,07	22	<b>44,88</b>	06,77	07	14,24	02,15
TVRV:	600	195	32,50	95	<b>48,71</b>	15,83	16	08,20	02,66
TVSV:	600	95	15,85	47	<b>49,47</b>	07,83	02	02,10	00,33
mVCV:	425	94	22,10	47	<b>50,00</b>	11,05	16	17,02	03,76
fVCV:	425	30	07,05	15	<b>50,00</b>	03,52	04	13,33	00,91
RVTV:	300	69	23,00	36	<b>52,17</b>	12,00	00	00,00	00,00
CVfV:	325	10	03,07	06	<b>60,00</b>	01,84	03	30,00	00,92
RVS	200	24	12,00	15	<b>62,50</b>	07,50	00	00,00	00,00

# Euskara zaharra

JOAKIN GORROTXATEGI

UPV/EHU

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Ezer baino lehen, “euskara zaharra” izenburu honen azpian ulertzen duguna, ez da erabilera oso zabal batean uler daitekeen gaur eguneko ez den edozein euskara zahar; nahiz eta XVI. mendeko euskara ‘zaharra’ izan, hemen hitza Antzinatean kokatzen diren lekukoei ezartzen zaie zuzenki.

Baina bestalde, ez naiz mugatuko bakarrik euskara zaharra izan zitekeenaren berri ematera; Pirinioetako hizkuntza egoera osoa izango dut hitzpide, puntu askotan gauzak ezin direlako erraz bereiztu eta batez ere, garrantzi handiago duena, euskara zaharraren berri emateko testuingurua ezagutzea behar beharrezkoa delako.

Gainera, Pirinioetako hizkuntzez hitz egiterakoan pentsatzen dut ez dela hizkuntzarik, bertako kontsidera ahal izateko, euskarak baino eskubide gehiago duenik. Gauzak ez dira beti horrela ikusi. Gure zaharrek, Oihenarte eta Larramendi tartean zirela, uste zuten euskara Hispaniako baskoien hizkuntza zela, soilik, gero Erdi Aroaren hasieran, VI. eta VII. mendeetan, iparraldera inbasioen bidez zabaldu zena. XIX. mendean Luchaire eta beste ikerlari batzuren lanei esker, garbi asko azaldu zenean Akitaniako, eta batez ere, Ipar Pirinioetako hizkuntza zaharra —Zesarren eta Estrabonen hitzetan inguruko galiar hizkuntzatik bereizten zena— euskararen leinukoa zela, hizkuntzaren kokagunearen pisua hegoaldeetik iparraldera igarotzen hasi zen. Batzuk mugimendu hau azken muturreraino eraman nahi izan dute, euskararen jatorria eta kokagunea Iparraldean jarritz, handik alderantzizko inbasioen bidez hego Euskalherriarantz zabaltzen zelarik Antzinate berantiarrean. Lekukoei arretaz

---

<sup>1</sup> Idazlan hau Hezkuntza eta Unibertsitate Ministerioak finantziatutako HUM-2006-13424-C04-03 Ikerketa Projektuaren barruan egin da.



begiratzen badiegu, ordea, uste dut, zentzuzkoena euskara zaharra Pirinioetako alde bietako maldetan bizi zela pentsatzea dela.

Beraz, Lakarra jauna maisutasun osoz aintzineuskaraz mintzatu bada, hau da, leku eta toki ezagun gabeko protohizkuntzaren ezaugarriak azaltzen jardun badu, niri, ordea, espiritu puruen erresumatik jaitsiz lekukoen errealitatearekin lotuta dauden aldeak azaltzea tokatzen zait: eta hori bi ikuspuntu ezberdinetatik, barnetik zein kanpotik. Alde batetik lekukoei galdetuko diegu hizkuntzaren beraren gainean eman dezaketen informazioaz, bestetik hizkuntzaren zabalguneari eta inguruko hizkuntzekin izan dituzten harremanez arduratuko gara.

## 2. Lekukoak

Betidanik kezkatu nau antzinateko informazioa erabiltzeko orduan lekuko horiei buruz daukagun fidagarritasuna zenbaterainokoa den jakiteak. Kontuan izan behar dugu Antzinateatik bertatik zuzenean heldu zaigun informazioa, urria eta pobrea izateaz gain, gehienetan isolatua dela, testuinguru gabekoa. Zer esanik ez, informazioa zeharkakoa denean, iturri klasikoen bitartez ezagutua, greziar eta erromatarren kultura edo hizkuntza galbahetik igarotakoa denean. Gehitu horri guztiari toki izen horiek testu transmisioan jasan ditzaketen itxuraldatzeak eta ez zaigu ulertzen zail egingo tentuz jokatu behar izatea Antzinateatik datorkigun lekukoen aurrean.

### *Pirinioetako bi aldeak*

Lekuko zuzenei dagokienean, ezaguna da Pirinioak bi zati arras diferentetan banatzen direla:

1. ekialdean, Andorreatik Mediterraneora bitartean, nahikotxo dira bertako hizkuntza zaharrea idatzirik heldu zaizkigun idazkiak: hauen artean, Zerdainako haranean, arkaitzetan grabaturik agertu diren inskripzioak nabarmentzen dira. Kokagune inguruagatik eta funtzioaren aldetik nahiko bereziak badira ere, parekotasun guti dutelarik gainontzeko iberiar testuen artean, hizkuntzaren aldetik ematen du iberieraz daudela idatzita, Kataluinan eta Narbona inguruko lurraldean K. a. iv mendetik aurrera ezagutzen diren testuak bezalaxe. Zerdainako idatziez gain, oso ugariak dira Narbona inguruko zenbait hiri eta gotorlekutan aurkitutako idatzkiak: Ensérune-n esaterako

375 inguru agertu dira, berunezko xafletan idatzitako testu luzeak barne. Ugartitasun horretara heldu gabe, inportanteak dira beste toki batzutan agertutakoak ere: Pech Maho-ko berunak, Elne eta Perpignaneko idatziak (ik. Untermann 1980).

Narbonaldeko iberiar testuak, batez ere K. a. III. mendetik aurrera idatzi zirenak, oso esanguratsuak dira beste arrazoi batengatik: bertan grabatu ziren izen propioek garbi erakusten dute, iberiarrak ez ezik galiar leinuko populazioa ere bizi zela. Izenak besterik ez dira, baina **asetile**, **auetifíís**, **touto**, **katuré** bezalako pertsona izenek garbi erakusten dute galiar populazioaren presentzia. Uste dugu galiaraz hitz egiten zutela, nahiz eta galiaraz idazteko gai ez izan: euren hizkuntzan mintzatzen ziren arren, beste batean soilik, alegia iberieraz, egiten zituzten idatziak.

Noiztik dauden lurralde horietan galiar leinuko populazioak ez da gauza erraza jakiten. Beti lotu izan da galiarren etorrera, iturri klasikoan arabera, Tolosako *Volcae Tectosages* izeneko populuaren etorrerarekin K. a. III mendean.

Baina, azken urteotan zenbait arkeologoren teoriari erreparatzen badiegu (Garcia 2004), ikusiko dugu zeltiarren presentzia (agian ez zuzenean galiar leinukoa) lehenagokoa izan zitekeela Galia hegoaldean.

Kontu iluna da, bestalde, hirugarren motako populuaren presentzia, hau da, ez iberiarra ez galiarra dena, baina nolabait bertakoa edo dei genezakeenarena. Honen berri lehenengo aldiz eman zuena J. Untermann (1969) ikerlaria izan zen, testuek berek erakusten duten zenbait zatiri erreparatu ondoren. Konturatu zen lurralde honetako testu askotan (Ipar Kataluinakoak barne), —gainontzeko testuetan ere agertzen ziren— iberiar izenez gain, eta galiarrak ere kenduz, bazirela beste batzu paralelo garbirik gabe gelditzen zirenak. Uste izan zuen izen horiek bertako populazio eta hizkuntzaren isla zirela; izen propio horiek Ligurian geroago erromatarren garaian<sup>2</sup> dokumentatuko diren izen propio batzuren antza dutela ikusita, ligur hizkuntzaren eta ligurtarren presentzia proposatu zuen.

Zer esan euskararen presentziaz ekialdeko Pirinioetan? Tovar (1959), Lafon (1973), Corominas (1972) aldekoak ziren, lehenengoa Tossa de Mar-eko mosaikoan agertzen den *Iturissa* izenaz baliatuz eta azkena toponimia mordo bat euskararen edo, hobeto esanda, euskararekin azaleko zerikusia duten ele-

<sup>2</sup> Erromatarren garaiko Liguria Galiako hegoalde eta Italia iparraldeko lurraldeetan kokatzen zen.

mentu batzuren bitartez azalduz. Baina, testuak kontsideratzen baditugu, ezin da aurkitu material guztiaren artean ia ezer ere euskal ikuspuntutik azal daitekeenik. Ia ezer, esan dut, eze Ensérunekeo bi grafito zahar desberdinetan honako testu hau irakur daiteke: **anaiosarenmí**, zeinetan **anaios** pertsona izena antzeman daitekeen. Untermannek Ligurian geroago dokumentatzen diren *Annaeus*-en familiakoa dela uste zuen; baina euskararen ikuspuntutik begiratzeko badugu, ez da zaila hor akitanierazko *Hanna*, *Hannaco* eta antzekoen ordaina ikustea: hau da *Atta* formatik *Attaio*- erakartzen bada, (*h*)*anna*-tik *anaio*- atera daiteke. Dena dela, hipotetikoa izateaz gain, kasu bakarra da, eta ezin dugu hortik ekialdeko Pirinioetan euskararen presentzia ziurtatu. Nire ustez aipatu froga guztiak (bai Corominasen toponimiako argudioak, zein lekuko bakan horiek ekar dezaketena) oso ahulak dira, Pirinioetako erdialde eta mendebaldean euskarak erakusten duen indarra eta bizitasunaren aldean.

Ekialdean, Hispaniako leku gehienetan bezalaxe, iberierazko testuak Augusto-ren garaira arte heltzen dira, guti gora-behera. Baina beste toki askotan ez bezalaxe, iberierazko testuei latinezkoek lekua hartzen dietenean, batbatean amaitzen da iberierazko izen propioen lekukotasuna; hizkuntzaren usadioa galtzarekin batera galtzen da aldi berean iberiarren pertsona izenen tradizioa. Ez da hori gertatzen Zeltiberian, esaterako, eta ezta ere Narbonaldean bertan galciar izen propioekin.

2. Pirinioetako bigarren zatia, erdialde eta mendebaldeko zatia hain zuzen, oso diferentea da gauza askotan. Hasteko, testuen lekukotasunaren aldetik, eremu antzua da, mapa batean hutsunea erakutsiko lukeena. Dena dela, azken urteotan agertu egin dira Nafarroan bi testu inportante, lehenagotik ezagutzen genuen Landeetako Aubagnan herrixkan agertutakoari gehitu behar zaizkionak: bata Arangureneko brontze hondatua eta bestea Andeloko mosaikoa.

Aubagnan-go bi inskripzioen zati puskak, dauden egoera txarragatik batez ere, oso zailak dira irakurtzen; hala eta guztiz ere, uste dut testu horiek ez zirela aurkitu izan diren tokian bertan ekoiztu, aldiz Mediterraneoeko lekuren batetik ekarriak zirela. Ezin dugu pentsatu, beraz, Untermannek pieza hauek editatu zituenean uste zuen bezala (MLH II, B 10), bertako hizkuntzan, akitanieraz edo euskara zaharrez, alegia, idatziak direnik: iberieraz idatziak dira eta arrazoi arkeologikoengatik Tivissa (Tarragona) inguruko lantegietako batean egin ziren, idatzi eta guzti.

Beste kontu bat da Andeloko mosaikoa, zer esan asko eman duena. Testua iberierazko idazkera garbian konposatua da eta Teruel probintziako Camin-

real herrian aurkitutako beste mosaiko baten antza du. Baina interesgarri dena zera da, testu biren egitura (eta, behar bada, funtzioa) berdina izanik, badirela aldaera interesgarriak; esaterako Caminrealeko testuak **ekiar** dakar, gainontzeko iberiar testuetan erruz agertzen den bezala, Andelokoak haren orde **ekien** duen bitartean. Jende gehienak pentsatzen duena onartzen bada, hau da mosaiko hauetan idatzita dena artisauaren sinadura edo dela, orduan **ekien** euskarazko ‘egien’ bezala azalduko litzateke eragozpen handirik gabe. Egia da, perpaus horrek, euskara historikoaren ikuspuntutik, ez daramala ergatibo markarik, eta beste bi hitzak ere ez direla ondo ulertzen, baina, nire ustez, ez lirateke erabateko eragozpenak izango. Javier Velazaren esanetan, euskara zaharreko testu baten aurrean aurkituko ginateke. Erkaketa hau onartuko bagenu, hau da, Andeloko **ekien** forma euskarazko *zegien* formaren kognatotzat joko bagenu, ondorio batzu aterako lirateke euskal dialektologia historikoarentzat: Mitxelenak uste zuenaren kontra, bizkaierazko *egien* forma izango litzateke zaharrena, eta gainontzeko euskalkietako *zegien*, forma berritua. Dena den, iberierak berak, **ekien** forma eduki ez arren, erakusten ditu beste forma batzu, —antza denez aditz formak direnak—, egituraren aldetik **ekien** forma azal dezaketenak. Baina, hemen ere, ikusten denez, kasu bakar batengatik ezin da batera edo bestera erabaki.

Ez da testu gehiago, txanponetako izenak salbu. Ikusi ditugun lekuko urriak iberierazko idazkeran daude, eta gero, latin alfabetoa bertako idazkera epikorikoaren lekua hartuz hedatzen denean, agertzen diren testu guztiak latinez idatzita daude: ez da gure artean dokumentatzen, beraz, Zeltiberian bezala, latin alfabetoan idatziriko euskarazko testurik.<sup>3</sup> Latinezko inskripzioetan transmititu diren izen propioek —gehienbat pertsona eta jainko izenak— osatzen dute zeharkako material guztia.

### 3. Izen propioak

Izen propioek (onomastikak) ematen duten informazioa, baliagarria izan arren, ez da beti behar bezain garbi, argi edo unibokoa izaten. Izen zahar hauek, bakan batzuk salbu, ez dute berez Antzinateko hizkuntzen egoera azaltzeko edota orduko euskararen egitura deskribatzeko indarrik, ez baldin badira lehenago hizkuntzalaritza konparatuaren ikuspuntutik sailkatzen eta argi-

<sup>3</sup> Iruña-Veleiako testuei buruz, ik. beheago, § 5.

tzen. Puntu honetaz luze jardun nuen Bilboko azken Biltzarrean (Gorrotxategi 2008) eta horrexegatik ez naiz hemen luzatuko. Bakarrik oroitaraziko dut:

- a) Izen propioek, izen arruntek ez bezala, ez dute zentzurik, bakarrik erreferentzia. Zentzuak ematen duen kontrolik gabe, hitzen arteko konparazioa azaleko itxurara mugatzen denean, sortzen diren berdinketak kontaezinak dira.<sup>4</sup>
- b) Horrexegatik dira izen propioak hain labainkor hizkuntza konparaketa lanetan, azaleko berdinketarako duten erraztasuna ez baldin bazaie nolabait mugatzen kanpo eskakizun batzurekin: esaterako, zatien edo elementuen errepikapena, morfema konbinaketan koherentzia, adierazten duten erreferentziarekiko adostasuna (hau, pertsona izenen banaketa sexuaren arabera), leku eta denbora koordenadetako koherentzia, e.a.

Gauza jakina da, Akitania eta Ipar Pirinioetako lurraldeak, antzuak izan arren bertoko hizkuntzan idatziriko testuak eskuratzeko orduan, oso emankorrak direla pertsona eta jainko izenak latindar epigrafeetan idazterakoan. Izen multzo aberats horretatik atera izan da hizkuntzaren zabalguneari buruz zein hizkuntzaren beraren egituraren gainean dakigun guztia, dakigun hori gehiago hilbanetan hari sendoaz josia baino baldin badago ere.

Izen propioen eta latindar epigrafeen zabalgunea ikusiz, nabari da Akitania bera ere bi zatitan bereiz daitekeela: ekialdeko zatian, Garona ibaiaren isurialdeko lurretan, epigrafeak oso ugariak dira, eta ondorioz aukera handia da bertako onomastika ager dadin; mendebaldekoan, Aturri-Errobiko lurrak, Landak eta Euskal Herria batzen duen zati honetan, ordea, epigrafeak hiri-buruetan agertzen dira ia bakarrik, hala nola Akizen, Aire-sur-Adourren, Mont-de-Marsan-en, e.a., izen propio guztiak latindarrak izanik. Diferentzia hau harrigarri egin zitzaidan nire ikerketarekin hasi nintzenean (Gorrotxategi 1985), eta ez nuen banaketa honen antzeko kiderik aurkitu ... oraintsu arte.

Philippe Gardes arkeologoa, Akitaniako indusketetan agertutako zeramika puska asko erkatu ondoren, konturatu zen Ekialdeko Akitanian klase batekoak agertzen zirela (tornuan egindako barniz beltzeko zeramika) Mendebaldean beste klase diferente batekoak ziren bitartean (eskuz egindako zeramika). Zatiketa hori beste zenbait gauzatan ere antzeman daiteke: esaterako,

---

<sup>4</sup> Kognatuak onartzerakoan, edozein hitzek dituen bi aldeak hartu behar dira kontuan: azaleko forma alde batetik eta zentzua bestetik; korrespondentziak edo egokitasunak eremu bietan eman behar dira aldi berean kognatutzat onartu ahal izateko.

Italiatik inportatutako ardo anforen distribuzioan: ekialdeko partean askoz ere ugariagoak dira hondarrak mendebaldean baino (Gardes 2002). Honek guztiak aditzera ematen du Erdialdeko Pirinio eta Gaskuinako lurraldeetan, Antzinateko *Convenae* et *Ausci* herrien eremuetan, alegia, mediterraniar kulturaren eragina askoz ere nabariagoa dela ozeanoaren inguruan ziren herrietan baino. Eta mediterraniar kulturaren ezaugarrien artean bada bat erromatarrek bere gailurreraino eraman zutena, idazteko gaitasuna eta grina, alegia.

Batzuk uste izan dute epigrafeen aberastasuna marmola eskuratzeko erraztasunean zetzala, eta ez beste inongo arrazoi kulturaletan, baina marmolaren ugaritasunak ez du azaltzen izen propioei buruz Akitaniako bi aldeetan ematen den banaketa: Ekialdean, oso ugariak izateaz gain, lurralde guztian zabaldurik aurkitzen diren epigrafeek bertako izen propio asko lekukotzen dute; Mendebaldean, berriz, bakarrik hiriburuetan konzentratzen diren epigrafeek, latindar izenak soilik transmititzen dituzte. Hau da, bigarren mailako edo zeharkako materialari buruz ere, Ozeanora begira den Akitania lurralde antzua suertatzen zaigu, mapan hutsunea erakusten duelarik.<sup>5</sup>

Honekin guztiarekin esan nahi dudana zera da, idazteko ohitura askoz ere zabalduagoa zela jendearen artean Akitaniako ekialdean mendebaldean baino, han hiriburutik urruti bizi zen jende xumea, artean erromatarren eskubide politiko eta horrekin oso lotua zen denominazio latindar ofizialetatik kanpo gelditzen zena, latinez idaztera —edo testuak idazteko agintzera— ohitu egin baitzen: ez ziren erromatar hiritarrak, ez zuten latindar izenik, baina hala eta

---

<sup>5</sup> Datu zehatzagoak ematarren, hona hemen —azken aurkikuntzak gora-behera— duela urte batzu egin nituen kalkuluak.

*Lugdunum*-eko hirian aurkitzen dugun banaketa: 105 izen latindar eta 55 latindar ez direnak (hau da bertokoak edo indigenak). Pixka bat mendebalderago den Neste haranean bi multzoen arteko proportzioa berdindu egiten da: 20 izen latindar / 18 indigena.

Bagnères de Luchon-en gertatzen dena apur bat kurioa da, eze izen latindarren proportzioa oso altua da (35 izen) bertakoen aldean (3-4), baina inguruetako bailara eta haranetan, batez ere Oueil eta Larboust-eko haranetan, alderantziz gertatzen da: gehiago dira bertako izen indigenak (26) latindarrak baino (22).

Mendebaldeko hiriburuetan, ostera, esan dudana bezala, guztiak dira greko-latindarrak; baina bada oraindik nabarmendu nahi dudana beste kontu bat: latindarrak izateaz gain, erromatar hiritarren izenak dira, eta ez eskubide politikoak ez zituzten jende xumearenak. Akizen lekukotzen diren 12 pertsonetatik 11 hiritar erromatarrek —*cives romani*— dira, Antonii, Valerii eta Cornelii familiakoak, gelditzen den bakarra *Chrysantus* izeneko esklabua delarik. Berdintsu gertatzen da Aire-sur-Adourreko lekukoekin: bi pertsonen kasuak salbu, beste guztiak hiritarrak dira, Artii et Claudii familiakoak. Azken hauek, *Tiberius Claudius* izena daramatenak, Tiberio edo Klaudio enperadoreen garaian esklabu izatetik liberto izatera pasatu zirenen ondorengoak dira seguru asko. Bertakoak edo kanpotik etorritakoak? Hori ezin jakin.

gutziz ere erromatarrek oso gogoko zuten ohitura bat bereganatu zuten: euren izenak hilarri edo jainko bati eskainitako aldare batean jartzea.

#### 4. Izen akitaniarrak eta galiarrak

Eta Akitaniako onomastika ez-latindar honek zer esaten digu bertako hizkuntzei buruz? Aspalditik dakigun gauza bat: jatorria kontuan harturik bi multzotan bana daitekeela: batzu galiarrak dira, Galiako gainerako tokietan lekukotzen direnen antzekoak, eta beste batzu, ordea, bertokoak, euskararen ikuspuntutik azal daitezkeenak. Zatiketa teorian sinplea da, baina askotan sailkapena egitea ez da batere erraza. Pare bat arrazoi daude hortarako.

a) Izen batzuk etimologia garbia erakusten duten bitartean, beste batzu ilunak dira ia ezer gutirekin erka daitezkeenak. Lehenengoan artean bi multzotako adibideak ditugu: *Toutannorigis* (gen) edo *Cintugnati* (gen) bezalako izenek galiar ezaugarri guztiak dituzte bere gain, *Sembeco* edo *Gisonten* bezalakoak akitanierazko multzoaren ordezkari bikainak diren moduan. Baina *Sillex* emakume izena edo *Xuban* jainko izena, bi adibide besterik ez aipatzearren, azalpen garbirik gabe gelditzen dira. Kasu hauetan, ikertzailearen gustuak edo ezaguerak pisu handia dute sailkapenean batera edo bestera egiteko momentuan. Neuk etimologia ezaguna ez duten izen askoren aurrean bigarren mailako irizpideak erabili ditut sailkapenerako lagungarri izan daitezkeelakoan, esaterako morfemen egitura edo eta fonema / grafia berezien presentzia. Ez dut asmatu zerekin lot daitekeen *Ulohoxo* (dat) izena, baina bokalen arteko aspirazio horrek eta desinentzia aurretik idazten den X letrak eskubide gehiago ematen dit akitanierazko multzoan sailkatzeko beste inon baino.

b) Izen batzuk anbiguoak dira jatorriaren aldetik, hau da, bi hizkuntzen aldetik azal daitezke. *Senius* bezalako izen bati, adibidez, bai akitanieraz bai galieraz aurki diezaiokegu azalpen zuzena, kasu batean euskarazko *sehi*, *sein* hitzekin lotuz (eta horien protoforma den \**seni*-rekin), eta beste kasuan galierazko *seno*- 'zahar' elementuarekin erkatuz. Ikertzaileen gustu edo ezagueren arabera, denetik izan da. Mitxelenari (1954) zor diogu sailkapen arazo honetan irizpide formal garbi bat ekarri izana, galiar hitza *-o* enborrekoa den bitartean euskal hitza *-i* enborrekoa dela, alegia; hori kontuan harturik, *Seni-cco*, *Seni-tennis* (gen) eta antzeko izenak akitanierazko zakuan sartu behar dira, dudarik gabe. Baina zer egin *Senius* bezalako izen batekin? Akitaniarra izan daiteke, jatorrizko *seni*- formari latinezko *-us* desinentzia gehitu ondoren sortu dena, eta badira beste adibide batzu bide hau sustatzen dutenak, baina, bestal-

de, oso normalak ziren indieuropar hizkuntza guztietan, galiera eta latina bane, *-io-* atzikiaren bitartez moldatutako eratorriak. Zenbait kasutan ez dira izango irizpide linguistiko hertsia, testuingurua baizik, kontua alde batera edo bestera erabakiko dutenak. Esaterako, Saint-Gaudens inguruko inskripzio batean (CIL 174) agertzen den testuan [*Aherbelste deo Senius et Hanna Procul(i f?)*] = Aherbelste jainkoari, Seni eta Hanna Prokulo(ren semeak)?], jainkoaren izenak zein bigarren gizonezkoaren izenak sailkatzen dute gure izena akitanieraren esparruan. Bramevaquen aurkitutako inskripzioan [*I.O.M. Senius Conditus Congi f.v.s.*], ordea, giroa arras diferentea da: kasu honetan Jupiterri eskeintza egin dionak, II. mendetik geroagoko erromatar hiritar bati zegokion denominazio formula erabili du, hau da *nomen* (abizena) + *cognomen* (goitizena) + aitaren izena. Ikusirik goitizena zein, batez ere, aitaren izena galiarrak direla, pentsa daiteke *Senius* galierazko *senos*-en gainean moldatutako erromatar *nomen*-a dela.

c) **Errazagoa da dudarik gabe, horrenbeste lan eta buruhauste hartu beharrean, Akitaniako izen guztiak zeltiar leinukotzat jotzea eta, euskararen presentziari eta Aintzinateko idazleek esan zutenari jaramonik egin gabe, etimologia guztiak galiera edo zeltiar hizkuntzen bitartez azaltzea.** Horixe egiten du, hain zuzen ere, X. Delamarre ikerlariak latindar inskripzioetako pertsona izen zeltiarrak batzen dituen liburu batean (Delamarre 2007). *Andero* eta eratorriak (hala nola *Anderexo*, *Anderex*) *Anderex(us)* forma maskulino baten azpian sailkatzen ditu, konturatu gabe gure izen hauek emakumezkoenak direla. *Andosto* bezalako izen bat *\*ando-sth-o-* etimologiaren bitartez azaltzen du, *Andos*, *Andossus*, *Andosten* eta *Andoxpon-* izenekin duen lotura zuzena argitu gabe. *Gisonten* eta *Cissonbon cissi-*, *cisso-* elementua daukan edozein izenen ondoan sailkatzen ditu, eta hala ia izen guztiekin. Hitzaurrean Evans (1967) eta Schmidt-en (1957) lan klasikoak izenen azalbiderako kontuan hartuko dituela esan arren, lan honek ez du zer ikusirik, punto honetan behintzat, Schmidtek erakutsi zuen joerarekin.<sup>6</sup>

Akitaniako pertsona izenek, beraz, hizkuntza egoera konplexua edo nahasia erakusten digute: alde batetik latina, denbora pasa ahala leku gehienetan indartuz joango dena; beste aldetik akitaniera eta galiera, elkarren lehian. Oso

<sup>6</sup> Guri hemen interesatzen zaigun sailkapenean, testuetan zehar ezagutzen dugun euskara historikoak emango digu behar dugun laguntza. Esparru horretara mugatzen dugu, printzipioz, euskal etimologia. Honek esan nahi du, akitanierazko *Andero*, *Neskato* eta *Andossus* euskal jatorrizkotzat ematen ditugula, euren azken etimologia zelta hizkuntzetan edo gainerako tokietan egotea posible bada ere, *Zaldua* eta *Muxika* euskal izen kontsideratzen ditugun bezalaxe, azken iturria latinean duten arren.



zaila da jakitea, ahal izatekotan ere, nolakoa zen hizkuntza bakoitzaren esparrua, indarra, erabilera modua. Zenbait datu interesgarri nabarmendu baino ezin da egin.

1. Orokorrean esan daiteke zenbat eta ekialderago orduan eta galiar izenen kopurua handiagoa dela.

2. Gauza zaila izanik ere, eta neurri batean pixka bat aprioristikoa ere bai, antzematen da jatorriz galiarazko diren izen batzu akitanieraren baldintzetara makurtu direla; esaterako, *Versego*- izen galiarra B- batez idatzi da.

3. Inskrizio batzuk hizkuntza tradizio nahasketa familiaren beraren barruan erakusten dute: aita galiar izenekoa (*Cintugnatus*), ama akitaniarra (*Edunxe*) eta semea latindar izenekoa (*Titullus*), Arnesp, Valentine ondoko inskripzio batean irakur daitekeenez. Saint-Girons-eko beste batean joera berdina ikusten dugu: gurasoek daramazkiten izenek tradizio desberdineko direla adierazten duten bitartean, interesgarria da ikustea nola semeen belaunaldi-rako aztarna hori galdu den eta izen latindar garbiak atera diren garaile: *Rufus Sembexonis f.* aitarena, *Pussilla Trocci f.* amarena; eta *Rufinus Rufi f.*; *Primulus Rufi f.* semeenak. Adibide hauek bertako tradizio onomastikoaren galera nabarmen uzten dute.

4. Dena den, ematen du akitaniera nahiko indartsu mantendu zela bere esparruan inguruko bi hizkuntza hauen aurrean. Eta bizitasun hori dela eta, ez du zerikusirik Narbonaldean egiten zen iberieraren egoerarekin; oroit gaitetzen, han lehendabizi galiarak eta gero askoz ere indar gehiagorekin latinak iberiera bera ez ezik iberierazko pertsona izenen arrastoa ere desagertarazi zutela. Akitanian, zenbait epigrafe alderezko joera erakusten dute. Esaterako, Martres-Tolosane-ko epigrafe batean (*Annius Dunohoxsis f. Calva Cassilli f. uxor Andere filia*) ikusi daiteke nola amaren izena latindarra eta amaren aitarena galiarra izan arren, alabari izen akitaniar garbia jarri zioten. Berdin Caubous-eko harri batean, non *Condannossus* galiar izeneko batek alaba *Andere* deitu zuen, edo Saint-Bertrand-de-Comminges-ko batean, non *Silex* izeneko emakume batek, aitaren izenagatik (*Eppamaigi f.*) familia galiarreko zenak bere lau semeak akitaniar izenekin deitu zituen: (*Odox(us)*, *Lohitton*, *Andosten* eta *Andossus*).

5. Akitaniar onomastikaren iraunkortasuna Hagenbach-eko xaflek ere probatzen dutela uste dut. Idatzita dauden artean 29 pertsona dokumentatzen dira; eta hauetarik 13 pertsonak (hau da %45ak) bere izenak eta bere aitarenak adierazteko ez dituzte latindar izenak erabili. Gainera, galiarrak urriak dira, gehiengo nabaria akitaniarrek osatzen dutelarik. Ezin da seguru egon

xafla hauen datazioaz, baina bi datu kontuan hartu behar dira: a) aurkikuntzaren testuinguruaren arabera III. mendearen bigarren zatian, 270. urtearen inguruan, eman ziren germanoen razzien garaian kokatu behar dira (beraz, hori da *terminus ante quem*), eta b) xafla guztiak hain homogeneousak dira estilo eta itxuraren aldetik, non zaila den pentsatzea urte askotako produkzioaren ondorioak direnik. Orduan, honek esan nahi du, Saint-Bertrand-etik ez urrun, III. mendearen erdialdean akitaniera indartsu bizi zela jende xumearen artean.

6. Ildo beretik jarraituz, oso esanguratsu egin zait J. L. Schenck-David arkeologoak erdialdeko Pirinioetako hiru mendi tontorretan kokatzen diren santutegiei eskeini dien lan eder batean (2005) dioena. La Coume de Arés-eko santutegian agertutako aldare guztiak dira anepigrafoak, bat izan ezik, *Sembus* izeneko batek *Ageio* jainkoari eskaintzen diona, hain zuzen. Santutegi honen datazioa aztertzerakoan, agertu diren txanpon eta zeramika pusketen arabera, Schenck-Davidek ateratzen duen ondorioa zera da: santutegia III. mendean hasi eta v. mendera arte egongo zela funtzionamenduan.

## 5. Hegoaldea

Behin baino gehiagotan idatzi dut Pirinioetako Hegoaldean, eta Hego Euskalherrian bereziki, euskararen presentzia ez dela leku guztietan antzematen, eta lekukoak agertzen direnean ere ez direla iparraldean ikusi dugun bezain ugari. Gauza jakina da urte askoan normaltzat eman den Euskal probintzietako eta Nafarroako euskalduntasun zaharra Gómez Morenok zalantzan jarri zuela lehenbizikoz. Izen propioak kontuan hartuz, hain zuzen, pentsatu izan zuen hiru probintziak eta Lizarra inguruko lurraldea zelta leinukoak zirela, geroago Erdi Aroaren hasieran euskaldundu zirenak baskoien inbasioei esker. (Gómez Morenorentzat baskoiak iberiar leinukoak ziren). Hirurogeitarren hamarkadaz geroztik hasi ziren Nafarroako zenbait lekutan euskara zaharraren lekuko izan zitezkeen izen batzu agertzen; guztien artean nabarienak Lergako hilarrikoak dira: *Ummesahar*, *Narhunges* eta *Abinsunhar*. Baina ez dira bakarrak: harrezkero bai Cinco Villas inguruan, bai mendebaldeko Lizarra inguruan ere agertu dira euskal ezaugarriak erakusten dituzten pertsona zein jainko izen berriak, hala nola, *Serhuhoris*, *Loxsa*, *Larrabe*, *Selatse*, *Itsacurrinne*, e.a. (Gorrotxategi 2002b).

Lizarra aldeko lekukoek planteatzen duten arazoa interesgarria da, Gomez Morenoren segiziokoek lurralde hori, Araba bezala, zeltiar hizkuntzen ere-

muan sartzen dutelako. Pertsona izenei erreparatzen badiegu soilik, ezin da ukatu gehienak, guztiak ez badira, indieuroparrak direla. Gasteiz ondoko Iruñatik zetorren harri galdu batean nekez irakur zitekeen *Ilunna* izena salbu, ez dago Araban indieuropar ez den izenik San Roman-en duela guti agertu zen *Lutbelscottio* ez bada.

Baina jainko izenak beste kontu bat dira: Lizarra aldean agertu diren guztiak (lehen aipatutako *Loxa*, *Selatse*, e.a.) eta Arabako bakarra, *Helasse*, errazagoak dira baskoien hizkuntzatik azaltzen zeltiar hizkuntzetatik baino. Orduan, jainkoen izenen eta debotoen izenen arteko erkaketa egiten badugu, ikusten duguna zera da: Lizarra aldean, esaterako, debotoek zeltiar izenekoak izan arren, euskal jatorrizko jainkoei eskaintzen dizkietela aldareak. Horrexegatik uste izan dut jainko izenek geruza edo estrato linguistiko zaharrago baten ordezkari direla eta pertsona izenak berriago batenak. Bada, gainera, hipotesi honen alde beste argudio bat. Baskoien auzoko ziren zeltiberiarrek, beren nortasuna aditzera emateko orduan, zeltiar jatorrizko izenak erabiliaz gain, familia izena erabiltzea ere derrigorrezkoa zuten. Arabako karistiar eta barduloen lurraldetan, eta Lizarra aldean ez da familia izenen erabilera somatzen.<sup>7</sup> (Gorrotxategi 2002d).

Francisco Villarrek, ostera, ez dio argudio honi pisu handirik aitortzen, edo onartu arren, uste du antzinatasun hierarkia batean toponimoak jainko izenak baino gorago daudela. Laster hitz egingo dut toponimoei buruz.

Aipatu besterik ez dut egingo Soria partean, Cidacos ibaiburuan, azken urteotan agertu den zenbait izen. Uste dut, eta halaxe idatzi nuen Euskaltzaindiaren azken biltzarreko agirietan (Gorrotxategi 2008), *Sesenco* bezalako izen bat Lergako *Ummesahar* bezain argia dela euskararen aldetik. Are gehiago, *Onse* andere izenaren eta *Onso* gizezkoaren arteko erlazioak azaleko antza baino gehiago erakusten dute: sexoarekin lotuta dagoen atzizki txandaketa, Akitaniako zenbait izenetan ematen den berbera, *-(x)so* atzizkia batez ere gizezkoetan eta *-se* bakarrik andrazkoetan.

Ez dut uste euskal munduan eta batez ere euskaren historian interesatuta dagoen edonork dagoeneko Veleia-Iruñako grafitoen berri entzun ez duenik. Aurkikuntza egin zuten arkeologoen arabera, euskal hitzak eta testu laburrak dakarzkiten grafitoak III-V. mendeen bitartean kokatu behar dira. Arkeologoen esaten dutena egia balitz, euskara zaharraren presentziaren eztabaida betiko erabakita gelditzeaz gain, euskalariak sekulako aukera izango genuke ezagutzen duguna baino mila urte aurreragoko euskara baten egitura azter-

<sup>7</sup> Iruñako hilarri bateko kasu bakarra salbu.

tzeko. Ez da, beraz, txantxetako kontua. Baina hori guztia, grafitoak, edo nahiago dudan hitz bat erabili, ostrakak egiazkoak balira; zoritxarrez beldur naiz den dena iruzur penagarri bezain lotsagarri bat besterik ez dela. Jakina denez, kontua auzitan dago eta espero dut epe laburrean erabaki ofizial bat ematea.<sup>8</sup> Bitartean, harik eta ostraken egiazkotasuna frogatu arte, uste dut ezin direla argudio gisa ezertarako erabili.

## 6. Zeharkako materiala eta bereziki toponimia

Hauxe da, nire iritziz, antzinateko lekuko zuzenetik atera dezakegun irudia. Baina, bada zeharkako materiala deitu dudan horren barnean erakargarritasun handiko materiala, leku izen edo toponimoak, hain zuzen. Betidanik erabili izan dira Hispaniako hizkuntza egoera zaharra argitzeko, Poza lizenziatua edo Humboldtengandik hasi eta gaur egun arte. Ez ditut konparatuko gure apologisten metodoak eta oraingo hizkuntzalariek erabiltzen dituztenak, baina zenbaiten lanak ikusi ondoren begitandu egiten zait pare bat gauzatan ez dabilzala elkarrengandik hain urrun: bata, lurralde zabal baino zabalagoetako toponimia azaltzeko duten grina, eta bestea azalbide gisa erabiltzen duten hizkuntza bat eta bakarra izatea. Jakina da gure apologistek euskararen bitartez azaltzen zutela Espainiako edozein toponimo; oraingo toponimista batzuke ere, modu berean, hizkuntza baten bitartez saiatzen dira Europako toponimia zaharrena azaltzen: Vennemannek euskara du gogoko, Villarrek indieuropa zaharra duen bezalaxe.

Villar, duela guti argitaratutako liburu batean (Villar & Prosper 2005) Espainiako Finisterretik Indiako Ganges alderainoko toponimo zahar asko azaltzen saiatzen da indieuperaren bitartez. Haren ustez, eremu zabal horretako toponimo asko bi eredu indieuperar ezberdinetan sailka daitezke, bere distribuzioarengatik iturburu diferentetik sortuak: A eredukoak Ekialde Erdian dute sorlekua eta neolito garaian Europa eta Asian zehar zabaldu ziren; B eredukoak ostera Iberian pilatzen dira eta hemendik, agian azken glaziazioaren ondoren, Mendebaldeko Europan zehar hedatu ziren. Ez dut orain hipotesi guzti honen kritika egiteko abagunerik.<sup>9</sup> Baina Villarrek bere hipotesi oroko-

<sup>8</sup> Azaroaren 19an Arabako Foru Aldundiak sortutako Batzorde Zientifikoak erabaki zuen Iruñan 2005 eta 2006ko kanpainetan agertutako ostraka “ezohikoak” faltsuak zirela. Ideia nagusiak (Gorrotxategi 2007, prentsan) lanean aurreratu nituen.

<sup>9</sup> Ignacio Barandiarani eskaintako omenaldian jardun izan dut hortaz: (Gorrotxategi 2007-8).

rraren barruan Hego Euskalherriko toponimia zaharra tratatzen duenez gero, pare bat puntu ikutuko ditut.

Villarrek uste du euskara ez zela Hispaniako hizkuntza izan, soilik Akitaniakoa baino, handik pasatu zelarik hegoaldera garai ezezagun batean: ematen du K. a. i. mendean oso emeki hasi zen mugimendu hori guztiz indartu zela Antzinate berantiarrean, hau da VI.-VII. mendeetan. Villarentzat lehen aipatu ditugun pertsona izenek ez dute asko balio, Soriako muturrean agertu arren, zeren etorkin batzuren izentzat azal omen daitezkeen. Leku izenen artean, bakarrik *Pompaelo*-n aurkitzen den *-elo* zatiari aitortzen dio euskal jatorria. Gainera, toponimo horrekin zerikusi zuzena duten batzu, *Andelo* eta *Iluberitani*, hain zuzen, indieuropa zaharrekotzat hartzen ditu, saiakeran sekulako bihurrikeriak eginaz.<sup>10</sup>

Saikera osoan ahalegintzen da bere teoriaren mesederako diren etimologia paleoindieroparrak asmatzen, horretarako askozaz ere sinpleagoak diren iberiarrak edo eta zeltiarrak baztertuaz. Nire ustez, ez da batere arazorik *Deva*, *Tullonium*, *Nerva* eta beste toponimo zahar asko<sup>11</sup> zeltiar hizkuntzen aldetik azaltzeko, baina Villarren gustorako zeltiar hizkuntzak ez dira, itxuraz, berak nahiko lukeen bezain zaharrak. Operazio honen bidez bi helburu lortu nahi ditu aldi berean: batetik Euskadi eta Nafarroako toponimia zahar gehiena antzinasun handiko paleo-indieuropartzat jotzea, eta bestetik, genetista gehienek hipotesiak onartuz, azken Izotzaldiko euskal babesgunetik abiatutako kolonizazioaz baliatzea, B ereduko izen indieuroparrak Europan zehar barreiatzeko.

Hipotesi honek baditu nire ustez, filologiaren muina osatzen duten detailak aparte utzita, puntu ahul batzu:

a) euskara hegoaldetik uxatu eta soilik iparraldera mugatzeko erabili dituen argudio berberak erabil daitezke, guti gora-behera, euskara iparraldetik ere uxatzeko, eze hango toponimia aztertuko bagenu —pertsona izenak albo batera utziz— antzeko zailtasunak izango genituzke toponimo zahar gehienek euskalduntasuna frogatzeko. Gainera *-os* atzizkiz bukatzen diren toponimo ugariak, Rohlfsen garaitik akitanierazko eremuaren adierazle direnak, eta —gehienbat iparraldean kokatzen direnez gero bere hipotesiaren lagungarri izan

<sup>10</sup> Harrigarria da, gainera, irakurtzea Iruñearen fundazio urtea (hau da K. a. 75. urtea) euskaldunen presentzia neurtzeko orduan *terminus post quem* gisa harzen duela (509. or.), edozeinek *ante quem* modura hartuko lukeenean.

<sup>11</sup> Toki izen modernoan artean *Ulzama* den bezalaxe.

ditzaketenak—, horiek ere arbiatu egiten ditu latinezko jatorria dutela esanez, *-osus* atzizkia, hain zuzen. Harritzekoa Rohlfs, erromanisten artean maisua zena, Villarren azalpen sinple hortaz ez jabetu izana! Xehetasun txiki batek eragozten zion, ordea: latinezko atzizkia, *-ō-* luzeduna izanik, ezin da gaskoierazko *-os* irekiaren eta aragoierazko *-ués* diptongoaren jatorria izan.<sup>12</sup>

b) Pirinioak ez dira inoiz igaroezineko muga izan. Mugaz bestaldeko jendea, Ipar Euskalherrikoa, Biarnokoa, Bigorrakoa eta haruntzagokoa, azken Izotzaldiaren bukaeran babesgune berbereko biztanle ziren, beraz hegoaldekoek bezala eskuhartuko zuten, gauzak hala izan balira, genetistek proposatzen duten kolonizazio horretan. Villarren argudioaren logikari jarraituz, ikusirik iparraldeko toponimia zaharra bera ez dela bereziki euskalduna eta Europan zehar barreiatutakoa indieuroparra dela, atera behar den ondorioa zera da: euskara Pirinioetan indieuroparra baino beranduagokoa dela, ez dakigula noiz eta nola beste nonbaitetik hona ekarritakoa.

Nire ustez hobe dugu lekukotasun zaharretatik hurbilago dauden hizkuntzekin moldatzea, antzinatasun handiko ur sakon eta ilun horietan murgiltzea baino.

Toponimiako gaiekin bukatzeko, bi puntu:

Por su parte J. M<sup>a</sup> Lacarra (1953) considera que la repoblación de San Sebastián con gascones no tuvo nada que ver con la revuelta de los gascones contra el poder inglés instalado en Bayona en 1152, o el asentamiento de bayoneses en San Sebastián en 1204, como resultado de la política matrimonial entre Alfonso VIII y Leonor de Aquitania, sino que fue el resultado de la política de Sancho VI el Sabio, quien fundó San Sebastián en 1181 con gascones bayoneses y con un propósito muy concreto, la creación de un puerto para su reino.

A pesar del largo espacio de tiempo de su permanencia en la villa donostiarra, son pocos los testimonios escritos redactados en gascón que nos han quedado. El Dr. Camino, que llegó a conocer el *Libro Becerro de San Sebastián* antes del incendio del Archivo en 1813, nos dice en su *Historia de San Sebastián*, que en dicho *Libro* había un documento de 1309 escrito en gascón, que trataba de la Ordenanza sobre el consumo de vino y sidra, así como otros varios del s. xv con sentencias pronunciadas por jueces nombrados por San Sebastián, Pasajes y Bayona.

Conocemos dos documentos más, redactados por el notario de San Sebastián, Johan de Bassessarri, en 1301 y 1304 y un tratado de paz de 1328 entre los marinos de Bayona y los de San Sebastián, redactado igualmente en gascón y copiado en el *Livre des Etablissements de la Ville de Bayonne*. En el proceso contra las brujas de Fuenterrabía de 1611, estudiado por Juan Arzadún (*RIEV*, 8, 1918) se cita entre los testigos a Isabel García, la cual estando en presencia del *aker*, le oyó que llamaba a los de San Sebastián y Pasajes en gascón y a los de Irún y Hendaya en euskera. Ello permite pensar que en el s. xvii la pobla-

<sup>5</sup> Cf. su aportación al *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, II. Madrid 1802, pp. 320-321.

ción de San Sebastián debía ser trilingüe, ya que sus gentes se expresarían en euskera y gascón como lenguas populares y en castellano como lengua culta.

H. Gavel (1918) refiriéndose a ciertos manuscritos de L.-L. Bonaparte depositados en la Diputación de Guipúzcoa, dice que en 1918 localizó una nota relativa a Pasajes, titulada *Des gascons á Pasaje*. En dicha nota se decía que en Pasajes de San Juan había varias familias que hablaban gascón. Según G. Lacombe (1919) se trata de pescadores gascones que se habían establecido en Pasajes a causa de las dificultades de navegación que presentaba el Adur por los bancos de arena en su desembocadura. Por esta causa se habrían afincado en el Puerto de Pasajes de calado más seguro, llegando a formar sociedades vasco-gasconas dedicadas a la pesca de ballenas y bacalao. Según H. Gavel el gascón desapareció en San Sebastián en 1918, siendo de habla castellana la mayoría de su población, quedando el euskera recluido a algunos barrios. Por el contrario en Pasajes el euskera fue general al perderse el gascón.

S. Múgica en el trabajo citado recogió en 1918 frases en gascón en Pasajes a gentes ya mayores, como: “Vespeyat avetz?” (“¿habéis merendado?”), “Supat avetz?” (“¿habéis almorzado?”), “Minchat avetz?” (“¿habéis comido?”). Entre los topónimos de origen gascón cita: *Monte Urgull* (San Sebastián, del gasc. *urgull* ‘altanero’), *Cabo Higuier* (Fuenterrabía, del gasc. *higuier* ‘higuera’), *Molinao* (Pasajes, del gasc. *Moli nau* ‘molino nuevo’). Asimismo cita varios nombres de calles donostiarra como *Narrica*, del gasc. *na* ‘señora’; *Enbertrán*, del gasc. *en* ‘señor’.

Estos testimonios y otros, incontestablemente gascones, se explicarían por la presencia de pequeñas colonias gasconas de pescadores afincadas entre San Sebastián y el Bidasoa desde la Edad Media hasta comienzos del s. xx, al borde del mar.

## Bibliografía

- Alvar, M., 1969, “Mercaderes y soldados: los francos en Aragón”, en *Variiedad y unidad del Español*, Madrid, Prensa Española, pp. 97-128.
- Berthe, M., 1995, “Relectura histórica de *La Guerra de Navarra*”, en *La Guerra de Navarra de Guilhem Anelier de Tolosa*, vol. II, Pamplona, Gobierno de Navarra, p. 79.

- Cierbide, R., 1981, *Estudio lingüístico de la documentación medieval en lengua occitana de Navarra*. Bilbao, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- , 1993, *Censo de población de Baja Navarra (1350-1353 y 1412)*. Max Niemeyer Verlag, Tübingen.
- , 1994, *Le Censier Gothique de Soule*. Edit. Izpegi.
- , 1997, “Encuesta cuatrilingüe de 1249 y el occitano en la Chancillería de Navarra”, *Príncipe de Viana*, LVIII, 521-555.
- , & Santano, J., 1990-95, *Colección diplomática de documentos gascones de la Baja Navarra* (siglos XIV y XV), vols. I y II. Fuentes documentales del País Vasco, San Sebastián.
- Colomina, J., 1994, “Aspectes de morfología verbal en l’occità sud-pirinenç”, en *Actes du IV Congrès International d’Études Occitanes*, vol II. Vitoria, pp. 715-737.
- Corominas, J., 1973, “Du nouveau sur la toponymie occitane”, *Beiträge zur Namenforschungen*, 8.
- García Larragueta, S., 1976, *Archivo Parroquial de San Cernía de Pamplona*. Pamplona, p. 13.
- Gavel, H., 1918, “Note sur d’anciennes colonies gasconnes en Pays Basque”, *RIEV*, 9, XX-XX.
- González Ollé, F., 1990a, “Romance navarro” en *Gran Enciclopedia de Navarra*, t. IX, Pamplona, Caja de Ahorros de Navarra, p. 493 y ss.
- , 1990b, “Occitano”, *Gran Enciclopedia de Navarra*, vol. VIII, p. 163. Pamplona, Caja de Ahorros de Navarra.
- Grosclaude, M., 1995, *La Coutume de Soule*. Edit. Izpegi, 1995.
- Higounet, Ch., 1943, “Mouvements de population dans le Midi de la France du XI au XIV siècle”, *Annales de Midi* 8, 1-24.
- Holmer, G., 1963, *El Fuero de Estella según el manuscrito 994 de la Biblioteca de Palacio de Madrid*. Karlshamm.
- Lacarra, J. M<sup>a</sup>, 1941, “Para el estudio del municipio navarro medieval”, *Príncipe de Viana*.

- , 1949, “La repoblación de Zaragoza por Alfonso el Batallador”, en *Estudios de Historia social de España* I, pp. 205-223.
- , 1951, “Repoblación del valle del Ebro”, en *Reconquista española y repoblación del país*. Zaragoza, CSIC, pp. 65-83.
- , 1953, “A propos de la colonisation “franca” en Navarre et en Aragon”, en *Annales du Midi* 65, 331-342.
- , 1957, *Vasconia Medieval*. Publicaciones del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, San Sebastián, p. 19.
- , 1968, “Los franceses en la reconquista y repoblación del valle del Ebro en tiempo de Alfonso el Batallador”, en *Cuadernos de Historia* II, 65-80.
- , 1972, *Historia política del reino de Navarra*, vol. I, Pamplona, Editorial Aranzadi, p. 341.
- Lacombe, G., 1919, “Un document sur les gascons de Pasajes”, *RIEV* 10.
- Michelena, L., 1971, “Notas sobre las lenguas en la Navarra medieval”, en *Homenaje a J. Esteban Uranga*. Pamplona: p. 212.
- Molho, M., 1963, *El Fuero de Jaca. Fuentes para la Historia del Pirineo*. Pamplona.
- , 1978, “Collection diplomatique de Jaca: Chartes occitanes (1255-1309)”, *Archivo de Filología Aragonesa* XXII-XXIII, 193-250.
- Múgica, S., 1914, “El obispado de Bayona en relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis”, *RIEV* 8.
- , 1928, “Los gascones en Guipúzcoa”, en *Homenaje a D. Carlos de Echeagaray*. San Sebastián.

# Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak

IÑAKI CAMINO

UPV/EHU

## 1. Atarian<sup>1</sup>

Lerrootan euskal ekialde linguistikoa aurkezten dugu, mintzoen arteko loturen eta etenen dinamika erakutsirik: artean gaiaz genekiena sintesi eran dakargu, batasun ikuspegi orokorrean; ez dago beldurrik gaia agortzeko, guk aipatuko ez dugun hamaika zehaztasun eskain baitaiteke mintzo bakoitzaz. Euskaldunon hizkuntza-ekialdeaz ideia eta ezaugarri nagusienak aurkeztuko ditugu eta lekurik ezaz, hainbat tasun estalgunean utziko; eskualdeetako jendeek aspalditik izan dituzten hartu-eman sozio-historikoen berri ere badakargu.

Baliatuko ditugun ezaugarrien artean batzuk bateratzaileak dira, tasun supradialektalak, dialektoen mugen gainetik Ipar Euskal Herrian hedadura handia dutenak; 8. atalean aurkeztu ditugu. Badira ezaugarri banatzaileak ere, dialektoak finkatu eta elkarrengandik bereizi dituztenak; tasunok euskal hizkuntza-ekialdea eratu dute, Zuberoako euskara bereziki, inoiz ondoko ibarretako mintzoetara hedatu badira ere: 9ko azpiataletan dakartzagu; aipagarri dira zubererari nortasuna ematen dioten ezaugarri zahar gordeak ere; cf. 9.3. §. Azpi-dialektoak edo mintzoak itxuratu dituzten tasunak ere anitz dira: 10, 11, 12, 13 eta 14 ataletan datoz.<sup>2</sup>

---

<sup>1</sup> Artikulu hau ontzean ikerketa garatzeko laguntzok izan ditugu: Espainiako *Ministerio de Educación y Ciencia*-tik, *Origen y evolución de los dialectos vascos* egitasmoan (2009-2011), FFI2008-01844; Nafarroako Gobernuo *Euskarabide*-tik, *Nafarroako euskararen periferiak (II)* egitasmoan (2009), 440002 44200 4812 334100.

<sup>2</sup> Eman ditzagun adibide batzuk zatiketaren erakusgarri: esaterako, \*-*ani* zaharretik datozen hitzetan ez dago batasunik ibarren artean: erronkariarrek *artzañ* egiten zuten, sudurkaritasuna gorderik, baina zaraitzuarrek *artzai*, Nafarroa Garaiko euskaldun gehienek bezala; aldiz, zuberotarrek *artzañ* egiten dute eta amikuztarrek *artzain* & *artzaña*; periferian, aetzen *artzei* eta baigorriarren *artzain* aldaerak ditugu; hondarreko erak baztandarren *artzain* & *artzañ* —baina

Zernahi ere den, aipatzen ari garen ezaugarri guztiak sail geografiko finko eta zurruntara sailkatzea ez da aise, ñabardura gramatikal edo geografiko ugarri egin beharko dugu.

Zehaztasunak eman behar ditugu baliatuko dugun corpusaz ere: guhauerek edo bestek bildutako ahozko lekukotasunak dakartzagu hona, hainbat ikerketa-saiotarik ateratakoen landa; ez dugu ahantzi ekialdeko idazleek ondu duten literatura.<sup>3</sup>

## 2. Pirinioak eta ekialdea

Nafarroa Behereko ipar-ekialdean, Amikuze ibarreko Ilharre herria dugu, ondoan, Bizkai, Erreiti, Burgue eta beste herri kaskoin batzuk dituen. Herriko plazatik goiti abiatuz, Ilharreko gainetik Pirinioak ikus daitezke, Euskal

---

Baztango Basaburuan *artzai*— dakarkigu gogora. Badira eskualde bati baizik ez dagozkion berrikuntza gehiago, baina ez dira ekialde guztikoak. Erronkarikoa baizik ez da bokalarteko honako palatalizazioa, hitz hasierako \*j- > x- bilakabidea gogorarazten diguna: *anaxe* ‘anaia’, *baitixatu* ‘bataiatu’, *exar* ‘lehorra’, *lexo* ‘leihoa’, *oxan* ‘oihana’, *oxezki* ‘laiotza’, *texu* ‘likitsa’; ez da gertatzen morfemaren mugan: *aiezka*, *aiezez*, *gaia* ‘gaua’, *goien*. Berebat, *ĭ* eta txistukari bizkarkaria elkartzean bilakabide iduria dugu zenbait adibidetan, Mariano Mendigatxa bidankoztarra lekuko: *goxez* ‘goizez’, *goxan* ‘goizean’ —Izaban *góix* eta *goxóro* dakartza Kandido Izagirrek (1961: 403)—, *gatxetik* ‘gaitzetik’, *aretx* ‘haritza’; hurrengoetan *zi-* iduri du bustitzen dela: *xek* ‘ziek = zuek’, *xaurien* ‘zeuen’, non \**ziaurien* egon bailiteke. Honelakoak genituen Izaban ere: *xengána* ‘zuengana’ (1961: 406-7), *xená* ‘zuena dena’ (Mitxelena *et al.*, 1953: 507). Zaraitzukoa baizik ez da absolutiboko mugatu singularreko honako bilakabidea: *alabara* ‘alaba’, *arrebara* ‘arreba’, *gaztura* ‘gazta’. Ekialdeko eremu zabalean Amikuzekoa baizik ez da etorkizuneko aditzetan ageri den *u-*ren palatalizazioa: *baliatiko*, *gelditiko*, *hartiko*... Zuberoako ipar-mendebale-raino ere hedatu da; guk Domintxainen, Olhaibin, Oihergin, Sarrikotapean eta Pagolan entzun dugu.

<sup>3</sup> Aurkeztuko ditugun ekialdeko egungo ezaugarriak biltzeko lehenik Zuberoako euskara-ra jo dugu: hainbat datu guhaurek herrietan bildu ditugu eta beste hainbat idatzizko testuetarik. Hegoalde menditsuan dagoen Ligiko Allande Elixagararen istorioetarik franko adibide hartu ditugu (Peillen 1986a), baina ez guztiak: *EAEL*-ko etnotestuak (1990) ere baliatu ditugu; *EAEL* izenaren ondoan zenbaki bat ageri denean, ez bedi orrialde zenbakitzat har, zein etnotestu den adierazten du. Erronkariko bilakabideak aurkezteko, Mitxelenak, Belokik, Elosegik eta Sansineneak —Mitxelenak eta bestek— 1953an Izaban eta Uztarrozen bildu lanabesak, Kandido Izagirrek bi herrietan hartuak (1959, 1961) eta Koldo Artolarenak (1977, 1980, 1991, 2000) baliatu ditugu. Mendigatxaren idazkiak ere erabili ditugu (Estornés Lasa 1984). Zaraitzuko datuez ari bagara, guhaurek bilduak ez direnean, Koldo Artola da biltzailea; 2004. urtean argitaratu zituen Otsagikoak eta 2005.ean Espartzakoak. Labur beharrez, inoiz ikerlanen argitaratze urteak aipatuko ditugu soilik.

Herriko beste alderdi batzuetan *Ansoko Bortuak* ere deitu ohi direnak: zutik diraute mendi horiek eta gu Ilharreko gainetik haiei so gaude. Zernahi gisaz, haratekaldean Pirinioak baldin badaude, Ilharre ez dago Pirinioetan; Okzitaniaren ondoan, Baxenabarreko muga-mugan, Euskal Herriko saihetsean dago, leku zelaian, artasoroen eskualdean. Ilharreko gainetik Pirinioei so egiten badiegu, mendien artean, eskuin, Baigorriko mendiak ikusiko ditugu eta ulertuko, ibar hori Pirinioen altzoan kokaturik dagoela.

Era euklidearrean mintzatzen bagara, Euskal Herrian ekialde geografiko bat dago; badago ekialde linguistiko bat ere, alderdi sozio-historiko eta ekonomiko zehatz batzuen arabera eta orografia lagun, hizkuntza-ezaugarrien hedadura jakin bat kanporat gauzatu duena. Filologiako azterketetan frankotan nahasi izan dira Euskal Herriko ekialdeko mintzoak eta Pirinioak, beharbada, Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzu Pirinioen ardatzari josirik ageri zaizkigulako gertatu da hori, baina ezin identifika ditzakegu zuzenki Pirinioak eta Euskal Herriko ekialdeko euskara. Esate baterako, Baigorri ibarra Pirinioetan dago, baina bertan ia ez da euskal ekialdeko ezaugarri linguistikoen islarik sumatzen eta aldiz, arestian aipatu dugun Ilharren, bai. Euskararen ekialde linguistikoa eta Pirinioak ez dira ber gauza.

Pirinioak itsasaldean berean hasten direla entzun izan dugu usu; Hondarribitik Baztaneraino doan eskualdea hizkuntzaren aldetik aztertu berri du Edu Zelaietak; saio honetan gu ez gara Lapurdi saihetseko eta Baztan-Bidasoa alderdietako mintzoaz arduratuko, horren berri nahi duenak Zelaietaren lanera jo dezake (2008).

Berebat, egungo ekialdeko mugetarik harat, iraganean Huescako Pirinioetan mintzatu zatekeen euskararen gaiaz ere ez gara arduratuko, ez baitugu ezagutzen, ez dakigu mintzo hark nolako ezaugarriak zituen; nolahi ere den, Juan Karlos Lopez-Mugartzak Ansoko toponimiaz esanetara jo dezake orain irakurleak (2008). Lopez-Mugartzak Anso ibarreko toponimoak bildu ditu: Ansoko euskal toponimoen zerrendako izen gehienak, XVI eta XVII. mendeetako dokumentuetan ageri dira; izan ere, honelako lanetan, gero alderatze historikoak egin ahal izateko, denbora guztiz garrantzizko gaia da hizkuntzan. Aipatu Ansoko toponimootan ez da Erronkariko mintzoa hain ezagun bihurtu duten berrikuntza berexien moduko ezaugarriarik sumatzen (2008: 346-348). Erronkariko euskararen ageri diren berrikuntza nagusien kronologiaz aritzea konplexua da, jakina, eta guk ez dugu saio llabur honetan ildo hori irekiko. Esaterako, 1569ko Burgiko sorgin auzian euskaraz ageri dena guti da, lekukotasun horretako aldaera bakan horiek ia ez dute *post quem* eta *ante quem* erlatiboen jokorako aukerarik ematen.



### 3. Gizartearen espazioa

Dialektoen errealitatearen pean, espazioaren izaera dinamiko eta biziberri-tzailea ezkututzen da; hizkuntza-datuak lagun, ikertzaileak espazioaren arau eraikitzaile eta historikoak aurkitu behar ditu. Espazioaren bilakabidea gizartearen baitako gakoan arabera ulertu behar da, espazioa ez dago betiko finkaturik, garapen eta bilakabide egoeran baizik. Espazioa ez da euklidearra soilik, ez da distantziaren oinarri fisikoan bakarrik funtsatzen: leku jakin bat ez da espazioko puntu bat soilik, gizarte-elkarrekintza jakin batzuen kokagunea da (Gregory & Urry 1985: 7).

Geografiaren eta dialektologiaren arteko harremana emeki-emeki aldatuz joan da; lehenik interesgunea geografia fisikoan zetzan, baina xx. mendeko ikuspegi berriek galdera nagusiak giza-geografiaren alorrera bideratu dituzte. Hizkuntzarentzat benetako behaztopa direnak ez dira batasun geologikoen eta topografikoen hausturak, batasun ekonomikoaren haustura eta giza-geografiaren hainbat fenomenoren hausturak baizik. Jende taldeek —eta beraz gizarteak— ekoizten duten espazioa da dialektologialariaren ardura.

Allan Pred-ek dioen bezala, segurtasun ontologikoa bermatzen dion aldetik, hemen eta nonahi gizakiak gauza beharra du errutinizazioa, zeina espazioan gaindi gauzatzen baita. Jendeen eguneroko elkarrekintzen eta jokabideen geografia errutinizatu espazioan gauzatzen da. Hizkuntzara etorririk, norbanako batek edo gizatalde jakin batek darabilen mintzoaren berriazetasunean edo gordetze-mailan, errutinizazioak eragiten du. Errutinen eta gizarteko sareen geografiak ikertzen baldin baditugu, ikusiko dugu espazialitateak —zentzu fisiko, sozial eta oharmenezkoan— eremu funtzionalak sortzen laguntzen duela, jarduera-erkidegoak eraikitzen dituela (Britain 2004: 612).

Gizarteko taldekatzeak egituratzen diren dimentsioa baino gehiago ere bada espazioa: elkarrengandik hurbilago edo urrunago geografian gaindi hedaturik dauden gizataldeen edo ibarretako jendeen arteko elkarrengarigite-sistemak eraikitzeko lan sortzaile horretan, espazioari duen garrantzia eta eragina aitortu behar zaio (Britain 2004: 604, Anthony Giddens aipatuz). Leonard Bloomfield hizkuntzalariak zioen bezala, mintzo-erkidego baten barreneko komunikazio-maiztasunaren desberdintasunak ez dira norbanakoaren arabekoak bakarrik: erkidegoa bera azpitaldeen sistema batzuetan banaturik dago. Esate batera, azpitalde jakin bateko pertsonak, anitzez gehiago mintzatzen dira bigarren azpitalde jakin bateko pertsonekin, beste hirugarren azpitalde jakin bateko pertsonak baino (Moulton 1987: 140).

#### 4. Gizartearen eta erkidegoen iragana

Euskal Herriko ekialdeko zenbait eskualde edo ibarretan, bizigune nagusi batzuk egon behar izan dute, zeinetan hizkuntza-ezaugarri berri batzuk sortu edo gauzatu baitira eta gerora nagusitu; nolana ere den, ondoko eskualdeetako jendeek ezaugarri berri horiek beren mintzoei erantsi dizkiete, gune-gunearen ondoko eskualdeetako hitzunek berrikuntzok kopiatu eta beren mintzoei erantsi dizkiete. Ekonomia mailako harreman-gune edo bizileku nagusi horietarik hedaturikako hizkuntza-ezaugarriek izan duten irispideak, hedadura-eremu edo eragin-eremu geografiko jakin bat eratu du; ekialde horretako jendeek historikoki gizarte-sare jakin batzuk eraiki dituzte, mendez mende gizarte-errutinizazio bat eratu edo josi dute.

Garai batean eremu indartsua zen Ekialdea, bertatik hizkuntza-berrikuntza ugari hedatu zen. Hizkuntzak aitortzen digunez, Ekialde linguistiko horren errutinizazioan, Bardoze herria eta Amikuze, Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzu ibarrak, gizartearen aldetik egun dauden baino lotuago zeuden; saihets batetik bestera, katearen gisan, bitarteko eskualdeen arteko hartu-eman zuzena zegoen, eremuko saihets guztietako herrien edo jendeen arteko hartu-eman zuzenik ez bazegoen ere. Ekialde hori, bere baitara egun dagoen baino bilduago zegoen orduan; ondoko ibarrak Zuberoari begira zeudela ematen du, baina egun ez da honela gertatzen. Ekialdeko hizkuntza-eragin hori, Aturrialdeko herrietako mintzoan, Oztibarren, Garazin, Aezkoan, Baigorriin edo Baztanen kausituko dugu inoizka, baina ezaugarri bakan batzuetan, ez inola ere, arestiko beste eskualdeetan bezainbat.

Elkarren ondoko ibarrek hartu-eman usua eduki dutela pentsatzera jotzen dugu intuizioz; abelgorria Bordeleko Landetara eramán izanak eta artzaintzak —neguan ardiekin Erriberara joanik—, goi mendietako bizimoduak eta mendi ustiapenak, ibaian gaindi almadiak Aragoi aldera eramán izanak, Erronkari eta Zaraitzu ibarrak elkartu dituela entzun ohi dugu, baina hartu-emanaren sakontasun hori eta beraren kalitatea erlatiboa izan ohi da beti; Koldo Mitxelena eta besteri zaraitzuarrekin hartu-eman guti zutela esan zieten hiru emazteki izabarrek (Mitxelena *et al.*, 1953: 512); ibar bateko eta besteko gizonen, ordea, lotura hertsia goa izan dutela entzun ohi dugu usu: Salvador Karrika artzain eaurtarra zenari, esate batera. Zernahi ere den, euskara ulertzearen aldetik, zaraitzuarrek zioten ez zutela arazorik Erronkariko mintzoa ulertzeko eta Aezkoakoa baino hurbilago sentitzen zutela. Erronkariko euskara Zuberoakoaren gisakoa zekusan Doroteo de Miguel berriemaile uztarroztarrak: *es que viene mucho de Mauleón aquí* (Artola 1980: 61). Teofilo Etseberri

otsagiarrak zioskunez, Zuberoako *Larreñekora idurixka* zen beren euskara, baina Garaziko Donibanekoa *iduriago*. Salvador Karrika eurtarrak 1995ean zioskunez, *por el estilo ken* [hemen] *eta autxak*.<sup>4</sup> Abaurregainera ezkondu Raimunda Urralburu Migelena jaurrietarrak 1995ean zioskunez, Zaraitzuko euskaratik Aezkoakora *ezta igual mintzoa*, aldea dago, *como de la noche al día*. Orbaizetako Juanperitzeneko Valeriano Zabaltza Urrutiak zioskunez, *iduriario* [zen] *Aezkoaeki Luzaide eta Doniane, etzeike konprenditu Otxagabiakoa*.

Mauleko eta Atharratzeko lantegiak aipatzen dira euskal ekialde linguitikoko gizarte-erakargune indartsu gisa; Mendigatxak, esaterako, *badu ogei edo obro urte gente biardunen neskato guziuak faiten dra Frantziara negu guzuko espartinan trabajatra* ziotson Azkueri, eta halaxe joaten zen ezkondu baino lehen Eugenia Baraze izabarra, Mitxelenari eta besteri ziotsezen: *Mauliónen bóst úrtez, espartiña(k) xóstan* (1953: 505). Zuberoan espartingintzan aritu ziren emazteki erronkariar anitzek maskaradetako dantzak ikasi bide zituzten.

Halaz guztiz ere, lanbide hori XIX. mendeari dagokio, ez du aitzineko garaia azaltzen; gizarte-harremanen gaineko berriak eta lehenagoko bilguneak ere ezagutu behar ditugu ekialdeko euskararen hedadura eta eragin-eremuak ulertzeko eta interpretatzeko:<sup>5</sup>

a) Historian zehar ugari izan dira erronkariar, zaraitzuar eta zuberotar jendeen arteko hartu-emanak, eta iraganeko eta oraingo adibideak eman daitezke: lehen-lehenik ezkontzak aipa daitezke, erronkariarrak edo zaraitzuarrak zuberotarrekin ezkontzea gauza arrunta izan baita historian zehar; ezagutzen ditugu, esaterako, jaurrietarrak, Maulen ahaideak dituztenak. Koldo Artolari Doroteo de Miguel uztarrotarrak 1971n ziotson sarri Mauletik etorriko ziztaion anaia espero zuela (1980: 57); Liboria Contín otsagiarrak Atharratzen bizi zen alabarenean zenbait egonaldi egiten zuen (Artola 2004: 10). Ezkondu gabeko gazteen arteko hautsi-mautsiak ere izan dira zuberotar eta erronkariarren arteko auzietan: esaterako, Juan Hualt izeneko hauztar batek, Maria Ederra izeneko izabarra haurdun utzi zuen 1612an (Lopez-Mugartza 2008: 108). Hona, bestalde, hartu-emanen eragile gehiago: Otsagabiko ermitara, Muskil-dara, menderen mende joan izan da beilaz, baita mugaz iparraldeko euskaldu-

<sup>4</sup> Frantziako jendea da *autxa* Zaraitzu eta Erronkariko euskararen, Ipar Euskal Herriko euskaldunak barne. Mitxelenak hitz honen oinarrian *Ausci* egon daitekeela zioen (1954: 133).

<sup>5</sup> Lehen ere bagenuen ekialdeko ibar euskaldunen iraganeko hainbat berri, baina oraintsu argitaratu den Juan Karlos Lopez-Mugartzaren doktorego tesiak (2008), eskuleku ziur eta aberats gehiago eskaini dizkigu. Berebat, Jose Etxegoienek ikerketek (2009), Pirinioetako erkidegoen gaineko berri ezezagunak dakartzate.

nak ere. Zaraitzuko Espartzako San Tirso ermitara ere jotzen zuten mugaz bestaldetik olioarekin, gero hezueria artatzekotan. XVI. mendeko beste adibide bat eman daiteke: Lukuzeko Charles jaun katolikoak Mauleko gazteluaren agintea zuen protestanteak jazarri zitzaizkionean; 1587an emaztearekin eta zenbait laguntzaileekin ihes egin behar izan zuen eta Otsagin erbesteraturik egon ziren, harik eta 1593an Zuberoara itzuli ziren arte (Xamar 2006: 100). Bestalde, gauza arrunta da deitura bera Pirinioez alde banatako ibarrean agertzea, edo alde batean herria edo eskualdea dena, bestean oikonimoa izatea: Otsagin *Garax* etxe izena dugu eta Eaurtan *Lukux*. Baxenabarreko Ezterenzubiko Erdi Aroko hiru etxeetarik batek *Orbara* izena zuen (Etxegoien 2009); Aezkoako herri baten izena da Orbara.

b) Egin diren bilduma etnografikoetan, bestalde, uztarroztar edo izabar eta santagraztarren arteko gertakari ugari ageri dira; Txomin Peillenek dakarrenez, erronkariarren ahaide hurbilenak santagraztarrak dira (Lopez-Mugartza 2008: xiii). Udan izabarrek Santa Grazira jo ohi zuten baxoerdi bat edatera; Santa Graziko errepidea, bestalde, arras berandukoa da eta bertakoek Belaguako Arrakoko bentara jo ohi zuten hainbat gairen bila. Francisco Karrera uztarroztarrak Mitxelenari eta besteri 1953an ziotsenez, *bi oren bide dizu Sant'Engráziara mugátik* (1953: 535); Carmen Drona uztarroztarrak kantu zuberotar bat eman zien biltzaileei (528) eta Simona Anaut izabarrak adierazi zien beren *ño* hitza *txipi* esaten zela *Franzian*, hau da, Zuberoan (521). Izabarrak ohi zutenegiz ilargia *goikua* deitzen zuen emazteki batek zioen, uztarroztarrek zuberotarren gisa ilargia *argizari* izendatzen dutela (1953: 520).

c) Santa Graziko eliza Leireko monasterioari loturik egon da 1085 urtetik, *Santa Engracia de Sumoportu* zeritzon: zuberotar, erronkariar eta zaraitzuarrak ageri dira lekuko garai hartako eliz-idazki batean zin egiten; administrazioaren aldetik Nafarroa Garaiarekin lotura izan du Santa Grazik eta garai batean herri hau Zuberoako batasunetik kanpo egon zen; erronkariarrak bezala, santagraztarrak ere *kallesak* izendatu ohi dira. Bere gisa ibili zen Santa Grazi, Zuberoako eta Nafarroako legeditik kanpo; salgaiak Atharratzeko eta Mauleko azoketara eramaten bazituzten ere, Izabako azokara usu jotzen zuten eta baita Erriberako bazkalekuetara ere. Errepidea ez zen Santa Graziko elizaraino 1930 arte iritsi (Lopez-Mugartza 2008: 139). Dena den, gaztelarrek Nafarroa Garaia konkistatu zutenetik honat, Leirerekiko hartu-emanaren etenik izan du eliza honek.

d) Lekukotasunak daude, esaterako 1637koak, erakusten dutenak, Espainiatik mugako herrietan erronkariarrei galerazi nahi zitzaizela etxean zuberotarrak har zitzen edota hauekin salerosgoan ari zitezen; erronkariarrek saldu

garia zeramaten zuberotarrak harrapatu zituzten 1628an zeukatena kentzeko; halaber, mugazainek neskato izabarrak harrapatu zituzten 1595ean, zeramaten garia zuberotarrei saltzeko zelakoan (Lopez-Mugartza 2008: 81, 107). Gau-lanaren bidez Garazitik gatza zekarten Aezkoako bi abaurrepetar zigortu behar izan zituen Aezkoa ibarreko alkateak 1805ean (Etxegoien 2009: 95). xx. mendearen hasierako Otsagiko emaztekiek Zuberoako Larrainerat jotzen zuten artile saltzera eta Erronkarira sagar saltzera.

e) Zuberotarren eta goi-nafarren arteko truke harremanak aspaldikoak dira: xiv. mendean, esaterako, zuberotarrek ez bide zuten nekazaritza handirik eta ondorioz, ardo eta garia Nafarroa Garaitik ekarri behar zituzten, bertara trukean zerriak eta gazta eramanik. Zuberotarrak historian gaindi Zaraitzu-Erronkarira gazta egitera joan ohi dira. Zoilo Moso otsagabiarrak 1972an zioen entzun zuela gazta egiten erakustera Otsagira “frantsek” jo ohi zutela (Estornés Lasa 1985: 37). xx. mendearen hasierako urzainkiarrak artzain zuberotarrekin euskaraz moldatzen ziren; hauek bordak eraikitzen eta gazta egitera jo ohi zuten Erronkarira; zuberotarrek *uskara* galdu izana kargu hartzen omen zieten kallesei (Urzainqui 1975: 55).

f) Bilguneei dagokienez, Donapaleuko, Mauleko, Atharratzeko edo Otsagabiko merkatuak aipa daitezke; bestalde, Otsagabiko Abodi mendian abere-feria egin ohi zen; orobat, Eraizeko lepoan, Santa Graziko mugan, zuberotarrak, erronkariarrak eta biarnesak bilarazten zituen abere-feria egin ohi zen urteoro. Eraizen berean du elkarren arteko bazkaleku edo fazeria Erronkarik Zuberoarekin (Fairén Guillén 1955: 521); abereak direla eta, Zuberoako basabürütarrak Belagua alderdiko bazkaguneetan erronkariarrekin gizarte hartu-emanan izan dute. Ansorekin ere fazeria du Erronkarik; Zaraitzuk Zuberoarekin Malgorra Txikina izeneko alderdian dauka eta Garazirekin Iratison; Aezkoa eta Erronkari ibarrekin ere baditu fazeriak Zaraitzuk. Aezkoak Zuberoarekin Zabaleta-Lizaroia edo *La Cuestión* oihanaren inguruan fazeria eduki zuen: aetzak aziendaren bila Zuberoako zein herritaraino sar zitezkeen eta zuberotarrek Aezkoako zein herritaraino jo zezaketen zehazten du itun idatzi batek. Aetz eta zuberotarren artean salerosgoa ere haizu dela dio 1536ko idatzi batek: garai bateko euskal auzoen arteko interes partekatutak eta ohiturak agerian uzten ditu (Etxegoien 2009: 140).

g) Nafarroako Erriberara uzta biltzera ere joan izan dira zuberotarrak eta baita artzain ere: 1598an azienda auzi batean Graçian Esart santagraztarra eta Ene<ç>o Arrondo ipartarra ageri zaizkigu (Lopez-Mugartza 2008: 113); erriberaneseekin batean, zuberotarrak, zaraitzuarrak eta erronkariarrak elkartzen zituen artzaintzak.

h) xiv. menderako dagoeneko lekukotasuna bada, Zuberoako behi saldoak Bordeleko landetara joaten zirela dioena; landok Hendaiaraino iristen ziren; Aturri ibaian gaindi joaten ote ziren abereok, beharbada, edateko ura izateko? Aturri ibaiaren ertzeko herri euskaldunetako mintzoan Zuberoan ere badiren ezaugarri franko ageri dira. Erronkari eta Zaraitzuko behiak ere joaten ziren Bordeleko landetara.

i) xvii. mendea arte, Erronkari-Zaraitzuetako ardi saldoetarik ekoizten zen ilea Donibane-Lohizunetik eta Baionatik itsasoratzen zen; bestalde, Casas Torres-ek eta Abascal-ek diotenez (1948: 21), xx. mendearen hasiera arte, Uztarrozeko eta Izabako artilea Zuberoako Larüntzeraino eraman ohi zuten zamari-jendearen gainean.

## 5. Oraingo berri

Frantses Iraultzaz gero, Ipar Euskal Herria Baionako eta Mauleko barrutietan zatitu zen: Maulekoan Zuberoa eta Nafarroa Behereko hainbat eskualde zeuden, baina 1926an, Mauleko barrutia desegin eta Atharratzeko eta Mauleko eskualdeak Oloroeko barrutiari eranstea, Zuberoa Biarnoari areago atxiki zitzaion; Biarnoaren ondoan egonik, hainbat arlotan harekin batean jardun izana ez da berria Zuberoan, baina zuberotarren eta gainerako euskaldunen arteko urruntzea areagotu da geroztik, eta Zuberoako euskararen izaera berexiagoa bilakatu.

Egun Euskal Herriko ekialdeko eremu honen hizkuntza-erakarpena ahulagoa da baxenabartarrentzat: Euskal Herriko erdigune zabaleko tasun linguistikokoak ekialderat datoz, Lapurdin, Arberoan, Garazi-Oztibarren edo Amikuzen gaindi, lehen baino hein handiagoan, joera horri ekialde honek hizkuntzaren aldetik ez diolako lehen bezainbat aurre egiten ahal; izan ere, jendez, lanez, biziz eta *uskaraz* husten ari da egun ekialde hau, ez du bilgune gisa edo baturik jokatzeko indarrik eta eraginik, zaturik dago: Baiona, Donapaleu, Oloroe, Pabe edo Iruñea dira bilgune ekonomiaren aldetik; lehengo aldean, Maulek indar ekonomikoa galdu du eta Zuberoak indar demografikoa.

Mauleko lantegien emana ahuldurik dago, husturik, gazteek ia ez dute lanik bertan; ez dira negutik udaberrira bitarte espartingintzara Maulera joaten behialako *ainhera* erronkariar eta zaraitzuarrak; Nafarroa Garaiko bi ibarrok gizartearen eta ekonomiaren aldetik errepara joan dira, demografikoki ahul daude; garai bateko artzaintza gainbehera latzean sarturik dago; ez da

sozik irabazten eta gazteek ez dute artzain egon nahi. Esaterako artzain aetzek Zuberoara jotzen zuten neguan —Arüe, Ündüreine, Mithikile, Bildoze-Onizepia, Maule izan dira beren bizileku bospasei hilabetez—<sup>6</sup>, baina orain ez da inor joaten, ezta Baxenabarrera ere. Maulera bezala Amikuze aldera ere jo dezakete egun mendebaleko zuberotarrek, Donapaleu ez baitago Maule baino urrunago; bertan zerbitzu anitz aurkituko dute: saltegietan, aisialdian, osasungintzan, tresnerian, *Lur Berri* laborantxa kooperatiban. Dena den, Donapaleun edo Amikuzen euskara ez dago indarrean: xx. mendeko hondarreko bi herenetan ez da gizarte aldetik batere sendo ibili.

## 6. Ondoko hizkuntzen eragina: maileguak

Zuberoaren kasuan gauza beharra da beste hizkuntzen eraginaz zerbait aipatzea: probentzal edo okzitaniera izendatzen den hizkuntzaren dialektoa den gaskoiak, zehazki honen barrenekoa den mintzo biarnesak, eragin handia izan du Zuberoako euskaran;<sup>7</sup> biarnesa herrialdearen mugetan egin ohi da, Zuberoako iparraldean eta ekialdean; Zuberoako Erribareita, Jeztaze eta Ozaraine herriak biarnesez mintzo dira eta Montorin ere indar handia ukan du hizkuntza honek.

Hainbat kasutan ez da aise izaten zubererari ageri den mailegu erromaniko baten iturria gaskoia ala gaztelera den jakitea, hizkuntzok aspalditik beren artean elkarki hitzak mailegatzen ibili direnez. Bestalde, mailegu hauek usu euskal jatorrizko hitzaren lehiakide dira, ez dute guztiz baztertu edo ordezkatu, gehienek euskal sinonimoa dute: garai batean *tribailla* & *trabailla* mailegua zegoen, *lan* hitza ere baliatzen zelarik; xviii. mendetik honat euskal hitza da dirauena (Peillen 1994: 269). xiv. mendetik gaskoia Zuberoako hizkuntza ofiziala izan zen, xvi. mendean frantsesak Euskal Herrian lekua hartu zuen arte; ondokotasunak eragin hartu-emanen dagokie, bestalde, xx. mendea arte hiztun zuberotar anitz elebidunak izatea, euskara eta biarnesa emateko gai; Pettarrean hurbil izan dute hizkuntza hori eta Euskal Herritik kanpo gaskoia ikasi dute hango morrontza lanetan edo merkatu harremanetan; ekialdeko

<sup>6</sup> Kondeko Xabino Egurtze artzain orbaizetarrak Orionen duen etxolan eman digu honen berri.

<sup>7</sup> Okzitanierak hiru aldaki ditu: iparrekoan Limoges, Auvergne eta Alpeetako mintzoak daude; hegoan probentzera (Marsella) eta langedokera (Tolosa) mintzatzen dira; hirugarren aldakia gaskoia da (Pabe, Bordele, Baiona).

zuberotarrek ere biarnesarekin hartu-emana izan dute. Pastoral zaharretan ere biarnesezko mailegu eta esaerak ageri zaizkigu.

Ondoko gaskoiaren estatusak eta erkidegoen arteko hartu-eman etengabeek eragin dituzkete Zuberoako euskaran ageri diren ahoskera berezi batzuk, gainerako euskal herrialdeetan ezezagunak direnak, baina Zuberoako sistema fonikoan ageri zaizkigun aldaketa eta berrikuntza guztiak ez ditu biarnesarekiko ukipen-egoerak eragin. Ondoko jendeekiko harremanak eragin mailegu lexikoak ugari dira: *ganu* ‘gogoa, joera’, *hardit* ‘ausarta’, *xiflet* ‘belarrondokoa’ erako leak erruz entzuten dira zuberotarrengandik. Maskaradetako txantxa egoeretan maileguak entzun ohi dira eta beltzak biarnesez mintzo dira: Zuberoan irri eginarazteko baliatzen da gaskoi biarnesa; berebat, psikofisiologiaren aldetik peioratiboak diren ezaugarriak adierazteko ere gaskoira jo ohi da. Psikologiazkoak diren mailegu gaskoiak ugari dira (Peillen 1981).<sup>8</sup>

Hitzak eta atzizkiak mailegatu direnez, hitz elkarketa eta eratorpena eragin dute.<sup>9</sup> Jean-Baptiste Coyos-ek zubereran ageri diren mailegu okzitaniarrak eremu kontzeptualen arabera sailkatu ditu (2006); lehenago Peillen zifrak ematera ausartu zen (1992a: 270): sentimenduak, erdeinuzko nahiz bestelako kalifikatzaileak, ekintza-izenak, aditzak eta eguneroko tresnak adierazteko hitz gaskoi anitz hartu du Zuberoako euskarak, baina familiaren, erlijioaren, denboraren edo espazioaren eremu semantikoetarako ia ez da biarnes mailegurik bildu.

Peillenek dakarrenez (1981: 407), Zuberoako egungo gazteek mailegu biarnes ugari ez dituzte ulertzen eta zubererara ez dira gehiago mailegu biarnesak iristen:<sup>10</sup> egungo maileguak frantsesetik, euskara batutik edo ondoko euskal mintzotik hartzen dira.

<sup>8</sup> Hona sorta bat: *aillart* ‘bizkor, erne’, *arraheñ* ‘erdotza, garbia’, *abill* ‘iaioa’, *adret* ‘antzetsua’, *funts* ‘izate’; gaitzespen hitzetan ere biarnesa ageri da: *arrunt* erdal ‘vulgar / vulgaire’, *arrabuhin* ‘gogo txarrekoa’, *aujame* ‘jenio itsusia’, *bahest* ‘moldegaitza’, *briu* ‘mozkorra’, *debeatü* ‘aspertu, nozitu’, *gornant* ‘jale handia’, *greügarri* ‘nazkagarria’, *kauke* ‘beti eske, bizkarroia’, *injeminas* ‘odol gaitzekoa’, *malet* ‘maltzurra’, *mali* ‘zozoa’, *menüx* ‘buru mehea’, *perfüdius* ‘aharria, borrokaria’, *pergüt* ‘oinazez betea’, *pek* ‘eroa’, *talabahüt* ‘zarata egilea, urduria’.

<sup>9</sup> Hona sail bat: *adarpalet* ‘abereak adarrak kanporat uzta itxuran izatea’, *desoropila* ‘korpilota askatzea’, *ematxot* ‘emazteki txikia’ zentzu txarrean, *eskümantxu* ‘eskularria’, *faizuzü* ‘fazointsua, erak exageratzen dituen’, *kuntrexilo* ‘kontrazintzur irenstea’, *menstü* ‘xoratzea, burua galtzea, zozotzea’, *moskofi* ‘jatekoan mokofina’, *ogendant* ‘erruduna’, *pintukari* ‘ardoa maite duena’...

<sup>10</sup> Galduz joan den bizimodu bati edo egun baliatzen ez diren nekazaritza edo eskulangintza teknikei dagozkien maileguok; egun ez da gauza arrunta zuberotarrek biarnesa baliatzea,



Gaztelera-zko maileguak Zuberoan zaharrak baitira, ongi sustraiturik dau-  
de hizkuntzan. Halaber, aldi lanak Nafarroa Garaiko eremu erdalduetan  
egin dituztenez, gizonak eraman duten gaztelaniak aspalditik eragina izan du  
Zuberoako Basabürüan.<sup>11</sup> Erljioko hitzetarako ere gaztelertatik mailegatu du  
Zuberoak eta baita administrazio eta lege kontuetarako ere.<sup>12</sup>

## 7. Laneko hizkuntza-ezaugarriak hautatzeko baldintzak

7.1. Artikulu honetan batez ere ekialdeko ezaugarri eskusiboak aipatuko  
ditugu, Amikuze, Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzun baliatzen direnak; Bardo-  
zen ere ageri dira horietarik batzuk. Tasunok ez dira, beraz, Zuberoakoak  
bakarrik, ondoko ibar edo eskualdeetan ere baliatzen dira, horietatik eratzen  
dute ekialdeko euskara, Zuberoatik harat hedatzen dena, baina Nafarroa Be-  
hereko edo Lapurdiko bazter guztietara iritsi gabe; Nafarroa Garaiko ekialde-  
ko saihetsetan ere aurkituko ditugu ezaugarriok, baina ekialdeko ibar nafarro-  
tarik ezkerretatik ez dute hedaturarik.<sup>13</sup>

Tasunok ekialdeko eremu honetan guztian baliatzen diren ezaugarri berri  
sistematikoak balira, euskalki bakarra genuke Euskal Herriko ekialdean,  
“ekialdeko euskalkia” dei litekeena, baina gauzak ez dira honela; Zuberoak  
berezko euskalkia du, baina Amikuze, Zuberoako euskararen eragina duelarik  
ere, Nafarroa Behereko gainerako eskualdeei ere biziki loturik dago; Erronka-  
rik ere lotura zinez sakona eduki du Zuberoako euskararekin, baina badira  
beste ezaugarri batzuk, Nafarroa Garaiko kutsua dutenak, Erronkari eta Zarai-  
tzu lotu dituztenak eta Zuberoako euskaratik berezi dituztenak. Zaraitzuek ere

---

Biarnoan ere frantsesa nagusitu baita. Gazte zuberotarrek ez dakite *arrosta* ‘ardo botatzen  
zaion zopa’ denik edo *kaxa* ‘ferratako ura hartzeko zalia’ denik.

<sup>11</sup> Egun, esaterako, gaizkia eta gaitziritzia adierazteko baliatzen da; birao eta ele gaixtoak  
gaztelaniaz egin ohi dira: *la virgen, la puta...*; gehiegikeriak adierazteko ere baliatzen da gaztela-  
nia (Peillen 1992: 251). Gaztelera indarkeriarekin identifikatu ohi denez, biziki haserretzea  
“españultzea” da Zuberoan eta haserretzeko joera duen laguna *españulót* deitu ohi da (Peillen  
1986b: 111). Xarles Videgainek kontatu digu Garazin ezterenzubiarrek ortotsa “Iriberriko  
mandazaina” deitzen dutela: herri horretako mandazain aetz bat beti biraoka eta oihuz aritzen  
bide zen.

<sup>12</sup> Peillenek maileguen zerrenda luzea osatu du, kasu guztietan iturria gaztelera izan dela  
ziurtatzea zail bada ere (1986b): *akabátü, apárte, atabál, azóte, benéno, enfadátü, entsaláda,*  
*fálsü, flákü, jünto, kárga, káusa, khabío, khüña, korrále, kozína, óbra, ofizio, péra, pláza, prezio,*  
*primál, sáltsa, siésta, solaménte, soldáta, tónto, trágo, trípa, zerrátü, zurrátü...*

<sup>13</sup> Ikuspegi hau bera ageri da Koldo Zuazoren 1989ko saioan.

baditu ekialdekoak baizik ez diren ezaugarri ugari, Erronkarik baino gutiago, egia esan, baina Nafarroa Garaiko hainbat joera, Zaraitzuraino ere iristen zirenak ez dira Zuberoan baliatzen.

7.2. Ezaugarrien izaeraz ere ohar bat egitea komeni da: gramatikan sakontasunez gauzatzen diren tasunak baliatu beharko ditugu lanerako, sistematikoki gertatu diren bilakabide fonikoen emaitza direnak, edota gramatikaren hainbat arlotan errepikatzen diren morfema edo egitura morfologikoak, eta baita sistematikoki ageri zaizkigun egitura sintaktikoak ere. Ikuspegi edo erabaki honetatik ez da jarraitzen, ordea, guztizko sistematikotasunik ez duten ezaugarriak baztertuko ditugunik; izan ere, ezaugarri hauek dialektologian beren etekina ematen baitute.<sup>14</sup>

7.3. Ezaugarrien garaiaz ohikoa esan daiteke: dialektologian tasun berriak dira interesgarrienak, hauexek erakusten digute historian zehar zein mintzo beste zein mintzorekin batera ibili diren, gainerakoetarik bereizirik ibili ere; hauexek frogatzen dute hobekienik hizkuntzaren barrenean gainerakoetarik zein erkidego bereizi diren eta gizatalde berritzaile horiek zein geografia-eremutan kokatu diren; ezaugarri berri batzuk partekatzen dituztelako ikusten ditugu azpimultzo linguistiko batzuk beste gainerakoetarik bereiz, beste mintzoez ezaugarri berri horiek falta baitituzte. Ezaugarri berrietan aspaldiagoko berrikuntzak eta azken garaiko berrikuntzak ere bereiz daitezke, jakina, baina beti ez da gauza erraza izaten ezaugarri bakoitzaren ñabardura kronologikoen jakitun izatea.

<sup>14</sup> Esaterako, zubereraren nortasuna bermatzen duen ezaugarri berrietarik bat ez da guztiz sistematiko horietarik, baina eskusiboa eta bateratzailea da: berranalisi zenbaiten bidez edo, *-xe* atzizki hanpatzaileari *-k* erantsi zaio eta moduzko *-xek* ageri zaigu Zuberoan: *hortxek, hantxek...* Basabürüan, Arbailan eta Pettarrean baliatzen da, *-xe* lehiakide zaharra itzalpera eraman ez badu ere. Baxenabarren, Erronkarin eta Zaraitzun *-xet* egiten da; ez dakigu honekin loturarik ote duen 1770eko “Antiokiako San Julian” pastoraleko *hortcheto* aldaerak (Loidi 2004: 93). Beste atzizki bat bada, *-ñí* txikigarria, funtsean Zuberoan baliatua, itxuraz emankorra dena: *aitañi, amañi, amiñi bat, etxiñi, gazteñi, txipiñi & ttipiñi, Pierrañi...* Erronkarin *aitañi* eta *amañi* bildu dira (1953) eta Amikuzen ere berdin: *aitañi, amañi* edo *amiñi bat* bildu ditugu bertan; halaz ere, bi ibarrotan atzizkia lexikalizaturik dago, ez da autonomoa, hitz horietan baizik ez da ageri. Nafarroa Beherean, Amikuze barne, *-ño* atzizkia emankorra da, nagusi dabil; Erronkarin ere baliatzen zen: *aurñó* ‘haurtxoa’ Uztarrozen eta *alabañoa* Izaban. Zuberoan izan ezik, Nafarroa Beherean, Erronkarin eta Amikuzen *-ño* ageri baldin bada eta Zuberoan *-ñí* baliatzen bada, Zuberoan gauzatu den *-ñí* aldaera hori berrikuntza dela proposa lezake nornahik; hartara, Amikuzeren eta Erronkariren arteko batetortzea, elkarren arteko berrikuntza bati baino gehiago, morfemaren iraganeko hedadurari legokioke eta uler liteke garai batean Zuberoan ere bazegoekela *-ño* atzizki hau; susmo hau edukitzeko arrazoi geografiko objektiboak daude eta pentsa liteke, *-ñóa* > *-ñúa* gertatu zenez, *-ñí* berranalizatu zela atzizkia Zuberoan.

7.4. Hizkuntza-ezaugarri zaharrak ez dira egokiak mintzoak taldekatzeko: ez digute erakusten hizkuntza komuna zatitzen hasi zen garaitik hona, zein eskualdek eratu dituzten erkidego hurbilenak edo lotuenak, arkaismoak ez dira erkidegoaren frogatzaile egokiak, baina halaz ere, arkaismoak mintzo edo eremu bakar bateko eskusiboak direnean eta berrikuntza eskusibo batzuen eremuarekiko koherente direnean, erkidego izanaren frogatzaile ez izate hori ez dago horren garbi, eta honelako kasuetan bederen, arkaismook aipa litezkeela uste dugu.

7.5. Badira mintzoetan galbidean edo ia galdurik dauden ezaugarriak ere.<sup>15</sup>

7.6. Eremu batekoak baizik ez badira, “hautuak = desberdintasunak” diren ezaugarriak, ingelesez *divergences* izendatu ohi diren horiek, mintzoen bereizgarri direlako saio honetara aipagai ekarri ditugu.

## 8. Ekialde zabaleko ezaugarriak

8.1. Atal honek Zuberoara eta beraren ezkerretara hedatzen diren ezaugarriez dihardu; euskal ekialde linguistikoaren gune-gunean Zuberoa ikusi ohi dugu, bertan ageri da ekialdean geografia-eremu hedatuena duten ezaugarrien konbinazio sendoena, baina tasun horietarik batzuk ondoko ibarretan ere ibiltzen dira. Halaz ere, ekialdeko ezaugarri gehienak Zuberoan batera agertzeak ez du zertan adierazi, berrikuntza horiek guztiak, denak Zuberoan sortu direnik edo bertatik hedatu direnik. Juzku sendoagoak eduki ahal izateko, hizkuntza-berrikuntzak banaka aztertu beharko genituzke, ardatz historiko-geografikoaren arabera.

8.2. Alderdi fonikoan, kontsonante taldeak diren *nh*, *lh*, *rh* ohikoez landa, herskari hasperenduetan *ph*, *th*, *kh* aipa daitezke; herskari hasperenduok Amikuzen ere baliatzen dira eta Baxenebarren hiztun zaharrenek ahos-

---

<sup>15</sup> Eman dezagun adibide bat: Zuberoan eta Erronkarin *nahibada* partikula kontzesiboa baliatu da aspaldi honetan; Etxahunena da adibide hau: *hanitz mintzatü nüzü enetsaien kontre / nahibada gezürrik ez erran batere* (Haritschelhar 1970: 82); bertso honen beste bertsio batean *nahiz* ageri da: *hanits minçatu nuçu, exayen kontre / nahis estudan erran, gueçurric batere* (112). Agosti Xahok ere baliatzen zituen honelako egiturak: *Errege Filiperen aitzinean ez nintzan isiltü ez ikaratü, nahi bada haren aldekoak aküsätü nüütian heriotze eta krimo izigarri batez* (Davant 2009: 46-47). Erronkarin ere *naibeda* baliatzen zen, Mendigarxak dakar: *orai xa eztaud isartan obro, naibeda ezakiola balio bakotxa re* (Estornés Lasa 1984: 66). Egungo Zuberoan guk ez dugu *nahibada* entzun.

katu ohi dituzte; gauza jakina da iraganean Ipar Euskal Herrian hedadura zabala zutela.<sup>16</sup>

8.3. Aurkez ditzagun izenaren morfologiako ezaugarri batzuk: datibo plurala *-er* atzizkiak adierazten du eta Zuberoatik Lapurdiraino iristen da; hegoaldean, berriz, Zaraitzuraino; Aezkoan *-ei* egiten da. Adlatiboan *-ala(t)* era baliatzen da leku izen arruntekin: *gaierdiko meزالat [ʒ]unik* (Ainharbe), *alhorrilat* (Ainharbe). Zaraitzun *pátakala*, *aziendála* edo *bordála* bildu genituen Otsagabian (1982); ordea, Aezkoara orduko *-ra* dago. Ekialdean baino bakanago izanik eta ñabardurak dituelarik, Baxenabarren eta Lapurdin ere baliatzen da *-la(t)* aldaera. Soziatiboan, besteren artean, *-kilan* baliatzen da Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin; *-ki* aldaera zaharra ere ibiltzen da ekialdean, bereziki Zuberoan, baina hein batez beste ibar batzuetan ere iraun du: Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan edo Erroibarren; ibar horietarik mendebalerago ere baliatzen da: Sakanan, esaterako. Pluraleko erakusleen hirugarren mailan (*h)ek* baliatzen da Euskal Herriko ekialdean eta haratagoko eskualde anitzetan, Baztan-Bidasoa alderdia barne. Zenbatzaile zehaztugabeetan, *zunbat*, *zunbeit* eta *zuñ* aldaera berriak Zuberoakoak eta Amikuzeko alderdi batekoak dira; *zonbat*, *zonbait*, *zoin* saila, berriz, Erronkarin, Zaraitzun eta Ipar Euskal Herriko eskualde aski zabalean baliatzen da; dena den, Zuberoan ere bada *zo-*: *zonbaitek* bildu dugu Ainharben eta *zonbait* Arüen. Ipar Euskal Herriko erdigunean eta ekialdean *bat* zenbatzailearen lekuzko kasuak mugagabeen jokatu ohi dira: *batetan*, *bateta(r)ik*, *bateta(r) a(t)*, baina egun Lapurdin eta Nafarroa Beherean *batean* edo *batetik* aldaerak baliatzen dira gehienik.

8.4. Iragatea, ibilera edo itinerarioa adierazten duten aditzekin, aski hedaturik dago *-n gáindi* Ipar Euskal Herrian eta ondoko ibar batzuetan; Zuberoan *-n gainti* dugu, Pagolako adibidea lekuko: *nik behar nizün etxekuk lagün-tü ta [šoža] in eta heben gainti in eta...* Erronkariko Uztarrozen *-n gaintik* ageri da: *áxuriak kiñuetan gáintik eta artzáiak pelota xókian* (1959: 285). Zaraitzuko Espartzan ere bildu zen, baina adlatiboa baliaturik: *fanèn níz bai, karréterara gáindi* (2005: 222). Norabidea adierazten du *-(r)i bü(r)üz* posposizioak: *sonia hasi delaik, ordian gü re gotortzen ai, hemezortzi urtheer büüz edo, joiten, ttuku-ttuku* (Olhaibi).

<sup>16</sup> Céline Mounolek Zuberoako Lorraine herriko ikerketan dakarrenez, herskari hasperenduek ahots abiatze unea “esanguratsuki luzeagoa” dute hasperenik gabekoe bano (2004: 241); adierazgarri da Larrasketek ahoskera jarrai eta lagunartekoan inoiz *bh*, *dh*, *gh* ere entzuten zituela (1934: 28); Coyosek, berriz, *bh* baizik ez du entzun, “bai” hitza hanpaturik ahoskatzen deanean (1999: 62).

8.5. Ekialdeko eremu zabalean zuketa alokutiboa baliatzen da: *aitetamak hunat ezkündü zützün... eta geoztik heen gützü* (Arüe). Hona Erronkarin tratamenduak nola baliatzen ziren: kanpotar bati, mintzo neutroa, eztabada deitu ohi dena; lagunartean edo anai-arreben artean, toketan edo noketan; hurbiltasun egoeran edo adinean aitzinatua den adiskide bati mintzatzean, zuketa alokutiboan (1953: 514). Beroriketa ere egiten zen: *berori* eta (*k*)*ori* ziren ize-nordainak.

8.6. Aditz nagusi iragankorren ondoan *ükhen* baliatzen da Zuberoan aspektu burutua adierazteko: *bena bat[ützü] bai gaztiak, ützi behar ükhen beittüte lana* (Pagola); Erronkarin *ekun* baliatzen zen eta ekialdetik ezker *uk(h)an* baliatzen da orain ere. Ahaleko adizkiak eratzeko *\*iron* oinarria baliatzen da: *gük [z]an gintiouk, ogiaikin delakoz* (Urdiñarbe); Amikuzeko Oragarren bildu dugu etsenplu hau: *karga liote orga*. Adizki laguntzaileetan *niz, hiz, nu, gitu* monoptongazioak gertatu dira Nor eta Nor Nork aditz sistemetan. Zuberoan “nahi” aditz bereziaren ondotik datorren aditz iragangaitza “izan” saileko laguntzaileekin baliatzen da, bertan du maiztasunik handiena ezaugarri honen: *etxen enündia egon nahi, anaia ezkuntüik beitzen* (Urdiñarbe). Dena den, mendebalerago ere ager daiteke: *joan nahi bazen?* (EHHA, Izturitze). Hirugarren pertsonaren datiboko marka morfologikoa saihestea gauza arrunta da Zuberoan eta Euskal Herriko arras ekialde zabalean; hona Sohütako adibidea: *hüa entzün düit urde (e)häiten xahár eli báti* (Alvarez Enparantza 1980: 35).

8.7. Erlatibozko perpausetan, aditz nagusia inolako atzizkirik ez adizki laguntzailerik gabe joan daiteke gertakari burutueta; hona Pagolako adibidea: *bena etsamina ez gүнizün iaiten ikhasi lekhin, voilà, uai iaiten dizie ikhasi lekhin*; Baxenabarren eta Aezkoan ere ezaguna da joera hau. Bai/ez galderetan *-a* morfema ibiltzen da: *ene ama, hua lasterkaazi züten bai nunbait, hiria re ba..., hiria re doi eskapi edo etzena?* (Olhaibi). Zaraitzuko Espartzan bildu genuen beste hau (1982): *orai, ikasten diea dotrinarik?* Zehargalderetan *-ez* atzizkia ageri da: *bai ebats, etzü bethi [z]ien ebaztlia gio, ükheiten bauzü ti[r]o’at üzkila, ikhusiko uzü e, ü[ž]ü [z]ien tzienez* (Arüe); Erronkarin, *-ez* nahiz *-etz* bildu dira: *eztakiár káusiten duránetz ‘ez dakit asmatuko dudán’* (1961: 395). Zaraitzuko Espartzan bildu genuen honakoa (1982): *gero Aezkoan eztakixut badaonez*. Galderazko perpausetan *ot(h)e* partikula extraposizioan erabili ohi da Arberoan, Amikuzen, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun; hona Zuberoako adibide bat, Altzürüküko Grégoire Eppherrerena (1929-1974): *Bazakiana ote de la Villeheliok ere bildü zütüala zazpi kantore horik?* (Davant 2009: 131); *Baztangoizan eztuzu ote izein penik?* dakar N’Diayek (1970: 231), baina P. Rekalde filologo amaiurtarrak dioskunez, egitura hau egun ez da arrunta Baztanen.

8.8. Konpletiboko perpausetan *baizik (eta) & baieziz* partikula sarrerezalea baliatzen da: *emazte batek pleinta ekharri zia baieziz gizun batek kotapian eskia iragan z(i)ola* (Elixagarai, 166); Aezkoan *baezik eta* baliatzen da eta Baxenabarren *baizik eta*; Lapurdiko Makean ere bildu da. Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun eta Nafarroa Beherean baliatzen da *-en ber* konjuntzioa moduzko perpausetan, “-en aldetik” edo “-enez” adieran; guk Larrainen *besta den ber* adibidea bildu dugu; hona Mendigatxaren beste bat: *aren eskutik xin dein ber, izan deila komeni dena* (62). Denboran muga bat ezarririk aditza jokatzenean, *-(i)no* atzikia baliatzen da: *eta phausa amiño at, erretretan gieno bear dizi profitatü* (Arüe). Hanpadura adierazteko galdegaia aditz multzoaren aitzinean eta adizki laguntzailea aditz nagusiaren aitzinean kokatzen da perpausetan: *an suaxant senk dügü ükhen güik elektrika* (Olhaibi); egitura mendebalerat hedatzen da, guk Heletan bildu genuen (1985): *hortako dauzut erten ene arabasoen denborakoa zela*. Ez dugu ezagutzen honelako adibiderik Zaraitzu-Erronkarietan edo Aezkoan.<sup>17</sup> 1857ko Lesakako prediku batean adibideak ditugu; Anastasio Etxeberri apez elizondoarra du egile, aita aetzaren semea: *Yru ejemplo famosuaq ttut causitzen Escritura Sagradan* (Satrustegi 1987: 257); *eta verze guziyeq ziren itto ubeldecu uretan* (257); *guziyeq zuten pasatu Ytsaso gorriya* (258).

8.9. Alderdi lexikoari dagokionez, hona hemen, Euskal Herriko ekialdean baliatuak izanik ere, mendebalerat, Ipar Euskal Herriko erdialderat hedatzen diren hitz multso bat, Arberoko Armendaritzen edo Mehainen bilduak.<sup>18</sup>

<sup>17</sup> Aezkoan behin *baizik* ez dugu entzun era hau, Hiriberrin: *gorrek du balio!* (1998). Alkeizareneko Mariana Bidart Reka andere enamoragarriak esan zigun; haren euskara Aezkoako fidagarria zen, baina aita iholdiarra zuen; hiru urterekin Hiriberrira bizitzera eraman zuten emazteki honek, urteoroz ikusaldiak egiten zizkien Iholdiko ahaidei.

<sup>18</sup> *a(b)antxu & antxuno* ‘ia, kasik’, *agorri* ‘abuztua’, *abarra* ‘gatazka’, *aizina* ‘astia’, *al(h)atu* ‘bazkatu’, *alta* aurkaritza balioa duen partikula; hitz hau ez da Zuberoan ageri, Erronkarin eta Zaraitzun *baizik*, *apairu* ‘janaldia’ —Erronkarin *apario*—, *ardura* ‘anitzetan, usu’, *argizaitte* ‘ilargi aldaketa, ilargi xuria’, *arralleria* ‘umorea’, *askaldu* ‘bazkaria edo afaria baino lehen egiten den otordua’, *askari*, *atzeman*, *aurride* —Zuberoan *aurhide*— ‘anaiarriba’, *ausarki* ‘ugaritasunez’, *begiatu* ‘gorde’, *beitharte* ‘aurpegia’ —Zaraitzun *betárte*—, *behorzori* —Zuberoan *bohortsxi* eta Erronkarin *beurtxori*; erdaraz ‘étourneau / estornino’ deritzan txoria, behorraren ongarririan ibiltzen dena—, *bilo* ‘ilea’, *biziki*, *bizpalau*, *bort(h)a* ‘atea’, *bortxaz*, *bultta at* ‘une bat, denbora aldi bat’, *dailu* ‘sega’, *dendari* ‘jostuna’, *ebatsi* ‘lapurtu’, *eihartu* ‘lehortu’, *eibera* ‘errota’, *el(h)e* ‘hitza’, *emazte* ‘emakumea’, *errekeitu* ‘hornidura, jatekoa’, *ezko* ‘argizaria’, *eztei* ‘ezkontza’, *gauinhara* ‘saguzaharra’, *goha* ‘bero tzarra, haizerik gabea’ —Zuberoan *gohan & gohain* aldaerak ditugu—, *gune* ‘lekua’ —Erronkarin *gunian* ‘orduan’—, *haindi* ‘haraindi, harako aldean’ —Zuberoan *hainti*—, *haizu* ‘zilegi’, *higitu* ‘mugitu’, *iatzartu* ‘esnatu’ —Zuberoan *ira-*

8.10. Honako aldaerak Zuberoan eta handik ezkerreko Ipar Euskal Herriko ibar batzuetan baliatzen dira: *hunki* & *hunkitu* ‘ukitu’, *itze* ‘iltzea’, *k(h)ario* ‘garesti’, *orai* ‘orain’, *pe* ‘behereko alderdia’, *urzo* ‘usoa’, *uzker* ‘puzke-rra’, *xahako* ‘zahatoa’ —Zaraitzun *xáko*—.

8.11. Ekialdean eta Ipar Euskal Herriko erdigunean baliatzen diren honako atzizkiak aipa ditzakegu: errepikaldia adierazteko *arra-* aurrizkia, Zuberoan, Amikuzen eta Arberoan bederen. Bilakuntza adierazteko *-ka-* *onddoka joana da* adibidean Armendaritzen, baina gainerako erabileretan Nafarroa Behereko hegoaldeko *-keta* egiten dute herri honetan. Bestalde, *-kal* ere aipa daiteke, leku guztietan nabardura berberak ez baditu ere: *zunbat irabazten düzü gizonkal?* (Elixagarai, 134); Zuberoaz landa, Erronkarin, Nafarroa Beherean eta Aezkoan ere baliatzen da eta erdialderago, Nafarroa Garaiko Eguesibarren nahiz Larraunen; dena den, Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ez da baliatzen. Aldaera banakaria *-ra* da: *bedera parte*, *birana*, *launa*, *bosna*, *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *beatzira*, *amarna* (Mehaine). Emaztekiaren generoa *-sa* atzizkiak adierazten du: Zuberoan arras baliatua da, baina Arberoan ere hitz multxo baterako eman digute: *eskualduntsak* (Meh, Arm), *artzaintsa* (Meh), *errientsa* (Meh). Kantitatearen adierazle dugu *-tara-* *saskitara*. Zuhaitz izenen eratzaila da *-tze-* *gaztenatzia*, *geezitzia*, *saartzia* (Meh). Zuberoan, Amikuzen, Erronkarin eta Aezkoan baliatzen da; berebat, Zaraitzun *gaztaiñatze* dugu.

---

*tzarri* & *eatzarri*—, *ikhara* ‘dardara’, *ikhertu* ‘aztertu’, *ikhuzi* ‘garbitu’, *jín* ‘etorri’, *joan-jín* ‘joan-etorria’, *kalaka* ‘mintzatze ekintza iraunkorra’, *kharroin* ‘izotza’ —Zuberoan *kharrü*, Erronkarin *karroï*—, *kausitu* ‘lortu’, *kokozaika ari* —Zuberoan *kokodaxez*, Erronkarin *kakaraka*— ‘kakara eginez ari’, *kontent* ‘pozik’, *khotxo* ‘arra’, *kukula* ‘zerbaiten gain-gaineko alderdia’, esaterako artoarena edo oilarrarena, *larrazken* ‘udazkena’, *lili* ‘lorea’, *lotsatu* ‘izutu’, *mehar* ‘argala’, *menturaz* ‘agian, beharbada’, *miise* ‘maindirea’, *norbera* ‘bakoitza, pertsonekin baliatua’, *ordoki* ‘leku zelaia’, *oren* ‘ordua’ —Erronkarin eta Zaraitzun *oron*—, *orobat* ‘era berean’, *osa(g)arri* ‘osasuna’ —Erronkarin eta Baigorri bezala, baina Zaraitzuko Otsagabian eta Espartzan *osasin* bildu genuen—, *othoi* ‘mesedez, erregutzen dizut’, *pathar* ‘aldapa’, *pot* ‘musua, apa’, *sabai* ‘belar biltzeko lekua’, *sasoi* ‘sasoina, garaia’, *sobera* ‘gehiegi’, *trufatu* ‘iseka egin’, *xahatu* ‘garbitu’, *xanpaz* & *xanpaka* ‘zaunkaka’ —Zuberoan *txanpa* aldaera du—, *xekhatu* ‘bilatu’ —Zuberoan *txerkhatü* dago—, *uhar* ‘eurialdi bortitza’ —Zuberoan *üharre* & *üharri* uholdea adierazteko baliatzen da—, *ukha(r)ai* ‘eskumuturra’ —baina ‘ukabila’ adiera ere badu Erronkarin (Izagirre 1959: 312); Jean-Baptiste Arxu altzürükütarraren gramatikaren hiztegian ere (1979 [1868]: 202), *ukharaia* eta *ukhamila*, biak ‘le poing’ dira, baina ez dirudi Zuberoan erabilera hau nagusi denik—, *ur andi* ‘ibaia’ —Erronkarin Urzainkin dakar Mitxelenak (1954: 143) eta *OEH*-k Izaban; Zaraitzun eta Aezkoan *ugalde* baliatzen da—, *urrats* —Zuberoan *urhats*— ‘pausoa’, *urtharri*, *xorta* ‘tanta’ edo ‘likido baten kantitate ttipia’ —Zuberoan *txorta* baliatzen da eta bada *xurta* Amikuzeko Zohotan—, *zamari* ‘laneko zaldi zikiratua’, *zare* ‘saski giderduna’, *zeinhu* ‘kanpaia’.

## 9. Zuberera euskalkia

Ezagun du badagoela Zuberoako euskara salatzen duen hizkuntza-tasunen multso bat; zubereraren ezaugarri eskusiboek nahiz semiesklusiboek osatzen dute eta herrialde guztian edo gehiengan gaindi entzuten dira; batzuetan este-reotipaturik egon ohi dira, markatzaileak dira ondoko ibarretako hitzunen-tzat. Egiazki, Zuberoako ezaugarri batzuk semi-esklusiboak dira, Zuberoa guztian eta Amikuzeko hainbat alderditan ageri dira; bereziki Zuberoako mugaren ondoan kokaturik dauden Amikuzeko herrietan baliatzen dira, ez dira Donapaleuko kantonamenduko eskualdearen hegoaldean edo mendebalean ageri. Amikuzeko mintzoa aurkeztean, Zuberoakoak ere badiren bereizgarri gehiago agertuko zaizkigu 10. §-n.

### 9.1. Zubereraren berrikuntzak

9.1.1. Lehenik bokalei dagozkien berrikuntzak aurkeztuko ditugu. Itxuraz gaskoietik mailegaturik, euskal hitzetan *ü* fonema dago Zuberoan, Amikuzen eta Bardozen; aldiz, Miren Lourdes Oñederrak diptongazioaren azalpena eman du: *u > uw > iw > ü* (2009). Agerpenaren baldintza fonikoak ez dira eskualde guztietan berdinak; esaterako, Zuberoan *ük* sekuentzia egiten da, baina Amikuzen *uk* dago, ez da palatalizatzen. Peillenek dakarrenez (1992a: 252), badirudi xvi. menderako Zuberoan palatalizazio hau bazela. Bestalde, ondotik kontsonante sudurkaria duen *o* bokala hainbat hitzetan *u* bilakatu da euskal mintzoetan, baina Zuberoan du gertakari honek indarrik gehien; bilakabide hau ezezaguna da Erronkarin. Peillenek xviii. mendean kokatzen du *o > u* bilakabidea nagusitzea (1992a: 253). Hitz bukaeran *-ú* sudurkaria eman dute maileguetako *-(i)on(e)* bukaera zaharrak eta *-on* bukaera berriagoak: *arrathú*, *arrazú*, *sasú*; baita *kamiú* ‘kamioia’, *lehú* ‘lehoia’, *xabú* ‘xaboia’ itxuraz berriagoak ere. Euskal hitzetan ere bada bukaera hori: [khaṛú] ‘karroina’, [haskú] ‘azkona’, hondarreko bokal sudurkarian azentua dutela. Berebat, *i-u > u-u = ü-ü* asimilazioa Erronkari eta Zuberoakoa da eta baita Amikuzekoa ere. Peillenek dioenez, xiv. mendeko oikonimo idatzietan, *Ithurriague*, *Itturrialdea*, *Ichurie* edo *Iturraltea* aldaera gordetzailak ageri dira (1992a: 256). Hainbat ingurunetan *au > ai* palatalizazioa dago Zuberoan eta Erronkarin: *gaiza*, *gai*, *hait* ‘haut’..., baina *gaur*, *haur*, *hautse* ‘hautsi’, *aurthen* adibideek dioskute ez dela *au* oro aldatu.

9.1.2. Kontsonanteetan *j*-ren [ʒ] ahoskera ozena dago Zuberoan hitzaren hasieran: [ʒ]akiten, [ʒ]ateko, [ʒ]erraikitzen, [ʒ]in, [ʒ]oiten, [ʒ]osten, [ʒ]uiten



(Ainharbe). Bestalde, txistukari ozenak garatu dira bokal artean Ipar Euskal Herriko ekialdeko bazterretan eta Zuberoan; ugariago dira igurzariak afrikatuak baino: *bede*[z]i ‘sendagilea’, *u*[ž]u ‘usu’, *ai*[ž]a ‘aise’, *fri*[z]itu ‘frijitu’; afrikatuak dira *e*[dž]amina ‘azterketa’ eta *é*[dž]énplü ‘adibidea’. Coyosek afrikatu sabaiareko ahostunak aipatu ditu: [jádžá] ‘irainja, laranja’, [ládžéa] ‘lanjera, arriskua’, [édžóyi] ‘enjogi, joera duena’ (1999: 63). Berebat, hitz hasiera bokalikoaren aitzinean ageri den hitz bukaerako txistukari igurzkaria ahostundu daiteke Zuberoan: *üskaa*[z] ai, *besteñe*[z] edo (Urđinarbe); *ardi*[z] edo, *e*[z] ootai*k e*, *gük e*[z] ikhu[ž]iko (Sarrikotapea); *etxe*[z] *etxe*, *Ahüz-kia büü*[z] eta (Ainharbe), *hanitxe*[z] e (Pagola), *eskü*[z] ai, *eskü*[z] eta (Olhaibi). Gainerakoan, Zuberoako euskararen bokal arteko -r- fonema XIX. mendean galdu zen, sistematikoki galdu ere; estrukturalki, ondotik gertatu dateke dardarkaria soildu izana eta honela, Etxarrin bildu ditugun *eran* ‘erran’, *haurrik* ‘haurrik’, *hería* ‘herria’ erako emaitzak sortu dira.

9.1.3. Hitz arruntetan Zuberoa-Erronkarietan azentu nagusia hitzaren azkenareko silaban doa flexiorik gabeko formetan. Mugatu pluralean bi mintzoetan kolumnala da, azken silaban kokatzen da: *mithilé*k**, *mithilé*z**, *mithilé*r** dugu Zuberoan eta *gizoné*k**, *morroié*n** Erronkarin.<sup>19</sup>

9.1.4. Izenaren morfologian, Zuberoan *hu(a)k* eta Zaraitzu-Erronkarietan *kurak* erakusle analogiko berriak ditugu: *bena onduak*, *orro aitzürrez*, eta *nik huk in tit etxekuekin* (Pagola).

9.1.5. Hiketako iraganeko adizkiek -n falta dute Zuberoan eta Erronkarin; Sohütan, esaterako, *nündia* eta *nündiña* baliatzen dira maskulino eta femeninoan. Uztarrozen bi generoetarako *nundia* eta *gundia* bildu zituen 1. perts. sing. eta pluralean XX. mendearen bukaeran Artolak, -n-rik gabe.<sup>20</sup> Bestelakoan, datiboko lehen pertsonaren morfema adizkian errepikatzeke aukera dago Zuberoan: *eta alhabák erran tzeitadan “zü*k* xantza dü*k*ezü”* (Pagola), non -ta- eta -da- 1. pertsonari dagozkion morfemak baitira; hurranen adibidean,

<sup>19</sup> Aldiz, mugatu singularrean ez doaz bi mintzoak batera: Erronkarin mugatu singularra kolumnala da: *mít*ila** edo *sémeak*, *sémeari*, *sémearen*, *sémeareki*; Zuberoan azentua silaba bat aitzinatzen da: *míthil*, baina mugatu singularrean *míthila*; *ét*x*e*, baina *etxia*; *lékhü*, baina *lekhía*... Bestalde, berezko -a duten hitzetan, mugagabeko hitza eta mugatu singularrekoa berdin bereizten dira bi ibarrotan: determinatu gabea *arrólla* edo *néska* da eta mugatu singularra *arrollá* edo *neská*, azentua bukaeran duelarik.

<sup>20</sup> Halaz ere, Zuberoako herri batzuetan inoiz bada -n hori; esaterako, Muskildin *nündian* & *nündia* edo *güntian* & *güntia* baliatzen dira maskulinoan; aldiz, Garindainen -n-dunak dira iraganeko hiketako adizki guztiak: *nündian* eta *güntian* (biak maskulinoak). Guk bietarik entzun dizkiogu hiztun urđinarbetar bati, adizki -n-dunak eta gabeak.

*-ta-* eta *-t* dira: *üdüi zitazüt* ‘iduritzen zait’ (Ainharbe), *tormentüz min egin ditaziet* ‘didate’ (Elixagarai, 119).<sup>21</sup>

Jarraian berrikuntza ez hain sistematikoen zerrenda bat dakargu:

9.1.6. Zuberoan, Erronkarin eta Amikuzen hitz batzuetan *-i > -u* berranalisia egin da. Bestalde, hitz guti batzuetan Zuberoan *r → ll* bustidura gertatu da: *bello, ello, holli, hüllan & hüllen* ‘hurran’; ondoko ibarretan ere bada: Erronkarin *alliko* ‘harilkoa’ edo *bella & bellatu* ‘beraztu’ adibideak ditugu; Zaraitzuko Espartzan ere *belló* zegoen (2005: 230). Zenbait mailegu erromanikotan bustidura dago Zuberoan: *atxeidü* ‘altzairua’, *khüütxe* ‘gurutzea’, *zerbütxü* ‘zerbitzua’, *zethatxü* ‘bahe ez fina’; hauetarik batzuk, Amikuzen, Erronkarin —*akabantxa, atxeiru, krutxe, zerbutxatu, zetatxo*— edo Zaraitzun ere badaude.

9.1.7. Adizlagunetan *-xe* indargarriari *-k* erantsi zaio Zuberoan: *hebetsek* (Sohüta-Hoki).

9.1.8. Aditz nagusi mailegatuen partizipioko aldaeretan era berriak sortu dira Zuberoan:<sup>22</sup> *akabi zioa* (Elixagarai, 81), *esprabi* ‘frogatu’, *esteki nizie* (118), *nia erremarki* ‘ohartu ninduan’ (185), *desaloki* ‘dislokatu’ (185). Amikuzeko Bithiriñan *espa(a)kiik* ‘eskaturik’ bildu dugu, Olhaibin *eskapi* eta Sarrikotapean *enplegi*. Berebat, singularraren analogiaz, \**ezan*-en pluraleko adizkietan *e-* dago hala subjuntiboan nola agintezko formetan; esaterako, urdiñarbetar batengandik [z]an *etzak gaztañak* entzun dugu.<sup>23</sup> Gainerakoan, aditzen joko trinko batzuk galdu ondoko egoera berria dago ekialdean: *horra zira* ‘zatoz’, *jiten niz* ‘nator’, *joaiten zelarik* ‘zihoalarik’ erako adizki puntukari baina perifrastikoak baliatzen dira Zuberoan.<sup>24</sup>

9.1.9. Zuberoako aldaera espezifikoak dakartzagu orain: zuberotarren aldaera berri batzuk falta dira, Amikuzeko alderdi zenbaitetan ere baliatzen direnak; 10. 5. §-n ikus daitezke: *agi* ‘haragia’, *aihaltü* ‘afaldu’ —Erronkarin

<sup>21</sup> Erronkarikoak dira *zaitad* ‘zait’, *zitzeitadan* ‘zitzaidan’, *zaitadan* ‘zidan’, *zitzaikugula* ‘zitzaigula’, *daikugei* ‘digute’, Bonaparteren garaian *daikugei* zena.

<sup>22</sup> Ez dakigu analogia biarneseko aditzek ala euskal *-i* erako partizipioek eragin duten; biek batera ote?

<sup>23</sup> XVIII. mendean *itz-* erakoak ditugu, baina XIX.ean *itz-* eta *etz-* txandaketan dakartza Intxauspek.

<sup>24</sup> Aldiz, egoera zaharra gorde izanaren erakusle ditugu “jaugin” aditzaren Zuberoako erak: *dagün igantian* (Elixagarai, 114); Erronkarin *degun bedäiserarèino* dakar Izabako kantu batek (1953: 512). Azkuek Zaraitzun *aurten aurrak andi, dagun urtean lanak egin* esaera bildu zuen; cf. *Euskalerraren Yakintza* III, 1660. esaldia.

*aigaltu*, Zaraitzun *abaldu*—, *aihari* ‘afaria’ —Erronkarin *aigari*, Zaraitzun *abari*—, *algar* & *alkhar* ‘elkar’, *anaie* ‘anaia’ —baina *anaia* ere bildu dugu Urdiñarben—, *añharba*<sup>25</sup> ‘armiarma’, *aphezküpu* ‘apezpikua’, *argizagi* ‘ilargia’ —Arberoan *argizari* aldaera bildu dugu—, *arrathü* ‘arratoia’, *arrazü* ‘arrazioa’, *aurhide*,<sup>26</sup> *axkolta* ‘aizkolkkoa, aizkora txikia’, *azüzkülü* ‘azkazala’, *bakhatü* & *pakhatü* ‘ordaindu’, *bedaka* ‘belarka, belar biltzea edo moztea’, *bederatzü*<sup>27</sup> ‘bederatz’, *begar* ‘ur eramateko ontzia’ —baita *pegar* ere—, *belhainko* ‘belauniko’ —Belapeirek *belhariko* dakar; Erronkarin *belairuko* zegoen eta Zaraitzun *belauriko*—, *belharikatü* ‘belaunikatu’, *berekatü* ‘ferekatu’, *berset* & *breset* ‘bertsoa’, *bestelan*<sup>28</sup> ‘bestela’, *biha(ra)men* ‘biharamuna’ —Erronkarin *biramen*—, *bilaizi* ‘biluztu’, *bohor* ‘behorra’, *boogatü* ‘frogatu’ —Larrasketek ‘eskuen bidez hautematea’ dela dio; badakar *probatü* ere—, *bortha alaze* ‘atalasea, borta alartzea’, *botxü* & *botxe* ‘harkaitza, amildegia’, *boztaio* ‘bozkarioa’, *bunka* & *unka* & *onka* ‘likidoen neurria, lau dekalitro’, *bürhau* ‘biraoa’, *bürüz-pikho* ‘buruz beheiti’, *busta* “busti”-ren aditzoia,<sup>29</sup> *debetü* ‘debekua’, *dihãü* ‘dirua’ —Erronkarin *deiru* eta *deuri*—, *e[ʒ]er*<sup>30</sup> ‘ederra’, *egürüki*<sup>31</sup> ‘zain egon’, *egüzaita* ‘aita pontekoa’, *egüzama* ‘amabitxia, amandrea’, *elger* ‘ergela’, *elhestatü* ‘mintzatu’ —Erronkarin *elerran* baliatzen zen eta Zuberoan ere bada *elhe erran* & *elherran*—, *elkhi* ‘irten, atera’ —Erronkarin eta Zaraitzun *erkin*—, *ellho* & *ertzo* ‘eroa’ —Belapeirek *erho*—, *eraitsi* ‘jaitsi’ —bai Nor sailean bai Nor Nork sailean ere—, *erre[ʒ]ent* ‘maisua’, *erri* ‘irria’, *erxe* ‘esteak’, *eskele* ‘eskalea’ —Pagolan *eskelai* bildu dugu—, *esnaur* & *esñaur* ‘hausnarra’, *espaan-txa* ‘itxaropena’, *etxano* & *etxanot* & *etxenot* ‘etxetxoa’, *etxeiki* ‘atxiki’, *ezne*

<sup>25</sup> OEH-k Amikuzen kokatzen du; ibar horretan guk *tartaña* bildu dugu (Martxüeta Amendüze), baina EI-k Arbaratzen *abaña* dakar eta EAEL-k Amendüzen *amaña*; Domintxainen eta Etxarrin ere *abaña* dakar EAEL-k.

<sup>26</sup> Dagoeneko Olhaibin *aurhide* ageri zaigu.

<sup>27</sup> Aldaera zaharra ez bada, *axeru*, *eguzku*, *zubu* saileko berrikuntzak eragin dituen berranlisiaren ondorio bada.

<sup>28</sup> Belapeirek *bestela* dakar, baina aldaera berria, Basabürüan, Arbailan eta Pettarrean baliatzen da egun; Maisterren 1757ko itzulpen lanean, dagoeneko *gagneran* aldaera ageri da (385).

<sup>29</sup> Zuberoara mugaturik dago; dena dela, Leizarragak badu adibide bat eta Ibarrolako Salaberriren Nafarroa Behereko hiztegiak ere *busta* & *busti* dakartza; Leizarraga: *busta deçan*, baina “busti” ere badarabil; Bela, Zalgize, Oihenart, Tartas: *busti* / Maister: *boustatcia* (377); Egiategik eta Intxauspek ere badarabilte *bustatzen*, baina Etxahunek eta Arxuk *busti*; Larrasketek *busta* & *busti* dakartza. Erronkariko Izaban *bústatako* ‘bustitzeko’ bildu zen.

<sup>30</sup> Aldiz, Belapeirek *eder* dakar; egungo Zuberoan bezala, Erronkarin ere *exer* bildu da Izaban (Artola 1977: 92) eta Uztarrozen (Izagirre 1961: 394).

<sup>31</sup> Dagoeneko Belapeirek *ügürüki* dakar, baina baita *egürükite* ere; bestalde, Erronkarin oro har *orkitu* zegoen, baina Uztarrozen *éulki[tu]* dakar Izagirrek (1961: 394) eta Izaban *éurkitu* (403).

‘esnea’ —Erronkarin eta Zaraitzun bezala—, *exabaki* & *ezabaki*<sup>32</sup> ‘gordeka’, *ferrü* ‘faruxa, pagotxa’, *galthatü* ‘galdetu, eskatu’, *galtho* ‘eskaera, galdera’, *gazna* —Erronkarin *gázta*—, *gorozüma* & *goroxima* ‘garizuma’ —Erronkarin *goroxima*—, *haitx* ‘haritza’, *hanitx* ‘anitz’, *herroka* ‘lerroa’ —baita Zuberoakoa baino hedadura handiagoa duen *herreka* ere—, *hüllan*, *hunk* ‘hunki’ aditzoina, *iga(r)en* & *iga(r)an* ‘iragan’ —Erronkarin *igari* & *igaran* eta Zaraitzun *igari* & *igare*—, *igeixkatü* ‘igeri egin’, *inkhatz* ‘ikatz’, *ise(i)atü* ‘saiatu’ & *ise(i)ü* ‘saioa’, *isuki* ‘hozka egin’, *ixker* & *exker* ‘ezkerra’, *kaidea*<sup>33</sup> ‘aulkia’, *khaldü* ‘ukaldia’, *khanbaa* & *khanbea* ‘gela’, *khanto(r)e* ‘abestia’, *khiisti*<sup>34</sup> ‘kristaua’, *kobesatü* ‘aitortu’, *khorpitz* ‘gorputza’, *khoxü bat* ‘apur bat’, *khozatü* ‘kutsatu’ & *khözü* ‘kutsua’, *khümit(ü)* ‘gonbidapena’, *khünte* ‘mota, espeziea’, *kürübillo* ‘inguruka eta indarrez dabilen haizea, zurrunbiloa’, *kurrunkaz* ‘zurrunka’, *khüütxe* ‘gurutzea’, *lapi* & *llapi* & *llepei* ‘untxia’, *lexar* ‘lizarra’ —Zaraitzun *lizar*—, *losko* ‘putzu txikia’, *lothü*<sup>35</sup> ‘lo egin, lokartu’, *marhüga* ‘masusta’, *maxela* ‘matela’, *milgor* ‘bilkorra’, *mintzaje* ‘hizkuntza, mintzamoldea’, *mithil* ‘mutila, morroia’, *mithi(r)i* ‘mutiri’, *mothiko* ‘mutikoa’, *musa* ‘moltsa’, *nahar* ‘sasia’, *neskatxuna* ‘neskatxa, neskatua’, *noiztarik noiztara* ‘noizean behin’, *ollaltegi* & *ollautegi* ‘oilategia’, *opilatü* ‘korapilatu’, *ostikata* ‘ostikada’, *ozadar* ‘ortzadarra’, *phentekoste* & *phentakoste* & *phintakoste* ‘mendekoste’, *pintu* & *pinto* ‘ardo neurri bat’, *pipiñi* ‘ttipittoa’, *pot(t)iko* ‘mutikoa’ —hedadura zabalagoa du *putiko* aldaerak—, *profeitü* ‘probetxua’, *sanka* ‘abereen kexua’, *sentotü*<sup>36</sup> ‘sendatu’, *süskandea* ‘sugandila’, *süsker* ‘muskerra’, *tahalla* ‘mahaiko oihala’, *taharna* ‘ostatua’, *tharta* ‘darte, sastraka’, *thipil* ‘soildurik, zuriturik, biluzirik’ & *thipiltü* 1) ‘zuritu, lumatu’, 2) ‘azaldu, esplikatu’, *thipiña* ‘tupina, burdinazko ontzi handia’, *txainkhü* ‘maingua’, *txeste* & *txestatü* ‘dastatu’ —Amikuzen *jeste* dago eta Erronkarin *testatu*—, *txinker* & *txinkar* ‘eri txikerra’, *(t)xinkor* ‘zingarra’, *txortola* ‘tanta’, *txostaka* ‘dibertimendua’ & *txostakatü* ‘dibertitu’, *txostatü* ‘jostatu’ —Erronkarin *tostatü*—, *txüti* ‘zutik’ —Larrasketek *xüti* ere badakar—, *ühaxx* & *ühaitz* ‘ibaia’ —Erronkarin *uqatx*, *eguatx* & *egatx*—, *ükhen* ‘ukan’ —Erronkarin *ekun*—, *ükhübil* & *(ü)khümüllü*<sup>37</sup> ‘ukabila’, *ükhül*

<sup>32</sup> Oztibarreko Iutsin ere bildu dugu *ezabeki*, baina dioskutenez, lehenago erabiliagoa zen hitz hau.

<sup>33</sup> Erronkarin *katreda* & *katrera*, Zaraitzun *katedra* eta Aezkoan *katedra* & *katreda*.

<sup>34</sup> Belapeirek *kristi* dakar; Erronkarin *kristiāñ*, Zaraitzun eta Aezkoan *kristio*.

<sup>35</sup> Erronkarin bezala; lo egiteko agindua *ló adi* da Izaban; Artolak *lotu* partizipioa dakar Fidela Bernat uztarrozarrarengandik bildu datuetan (2000: 509). Aezkoan kantu batean agertu da, baina egun ez da baliatzen.

<sup>36</sup> Erronkarin *sontotu* & *sentotu* zegoen.

<sup>37</sup> Guk Larrainen *khübili* aldaera bildu dugu.

‘okila’, *ülhain* ‘unaia, bereziki udan bortuan’, *üñhürri* & *üñhürri* ‘inurria’, *ürrieta* ‘urria’, *urthuki* & *urthiki* ‘jaurtiki’, *ürsañ* & *ürxañ* ‘urtzintza, doministikua’, *ürxantx* ‘urtxintxa, katagorria’, *üskaa* ‘euskara’, *üsküñaso* & *esküñaso* ‘ipar-belea, eskilaso, oskilaso’, *usuki* & *üsüki* ‘hozka egin’, *üzkü* ‘ipurdia’, *xoten* ‘zotina’, *zalhe* ‘bizkor, arin’, *ze(r)entako* ‘zergatik’, *zibi* ‘zubia’ & *zügü*, *zipha*<sup>38</sup> ‘hipa, negar zotina’, *zühaiñ* ‘zuhaitza’.

9.1.10. Nafarroa Behereko aldaerak ez bezalakoak dira Zuberoako hauek: *ardü* ‘ardoa’ —Erronkarin *ardäu* dena—, *besta* ‘jaia’, *ebi* ‘euria’, *eraman*, *hamazortzi*, *hoge*, zeinak Baxenabarren, *ano*, *phesta*, *euri*, *ereman*, *hemzortzi* eta *hogo*i esaten baitira.

9.1.11. Aldaera berezia duten atzizkiak ere baditugu Zuberoan; izenak sortzen ditu *-ka* atzizkiak: *aseka* ‘asealdia’, *komünianka* ‘jaunartzeko jaia’; bestalde, *-xkót* txikigarria dugu, zentzu gaitzesgarria ere izan dezakeena: *aizexkot*, *alhorxkot*, *emaztexkot*, *haxexkot*, *lanxkot*, *mothikoxkot*, *ogixkot*, *saldoxkot*, *soroxkot* adibideak aipa daitezke. Bestalde, Lapurdi-Baxenabarretan *-os* egiten dena *-us* ageri da Zuberoan: *amurus*, *balius*, *handius*, *serius*, *phenus*.

## 9.2. Zubereraren hautuak

9.2.1. Izenaren morfologiari dagokionez, ablatiboan leku izen bereziatarako *-(r)ik* eta arruntetarako *-ti(k)* bereiztea, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun egin da.<sup>39</sup> Bestalde, aitzinean inesiboa dutelarik jokutzen dira Zuberoan *gañen* eta *barnen* posposizioak. Berebat, Zuberoan *-z gañen* posposizioa ondorio adieretarako baliatzen da, beste alderdietako “-z gero” ezagunaren ordain; Sarrikotapean [ʒ]in *tzienez gañen* bildu dugu. Ekialdeko mintzoetan, partitiboko atzizkia dutelarik joka daitezke polaritate negatiborik gabeko sintagmak: *Jinkuak egün hunik hanitx deizüla* dakar Etxahunek (Haritschelhar 1970: 280). Zaraitzuko Espartzan bildu genituen hauek 1982an: *oroan* [orduan] *beltx eder nu(e)n bai, onen gisa, onen gisa beltzik nuen biloa / aurten negua egin du, egin dixu anitz, anitz onik*.

9.2.2. Etorkizun aditzetan, bai Zuberoan eta bai ondoko eskualde ba-tzetan, *-(r)en* atzizkia ez da *-n-z* bukatzen diren aditz nagusietara mugatzen: Peillenek Basabürüan honakoak bildu zituen (1985): *ibiliko*, *phiztüko* / *erre-*

<sup>38</sup> *OEH*-k Amikuzen ere badakar, baina guk oraino ez dugu entzun; esaterako, Zohotan *nigarrez hipaka* bildu dugu.

<sup>39</sup> Uztarrozen *xuan dun éterik* bildu zuen Izagirrek (1959: 297).

*ren, ikhusiren, nahasiren, orbitüren, sendotüren*. Zaraitzuko Jaurrietan *xóren* ‘joko’, *erósien* ‘erosiko’ eta *berótren* ‘berotuko’ bildu genituen 1995.ean. Bes-telakoan, iraganeko Nor Nori sailean, “izan” aditzean Zuberoan ez da *-za-*erroa ageri: *zeitan* ‘zitzaidan’, *zeion* ‘zitzaion’, *zeikün* ‘zitzaigun’, *zeizün* ‘zitzaizun’. Berebat, datiboa duten adizkietan pluralgilea *z* edo *tz* da Zuberoan: *ordian treinetako bi emplegatü hüllantü ziztada* ‘zitzaizkidan’ (Elixagarai, 187); *galthoak eginen ditzot* ‘dizkiot’ (59). Aditzaren bidez modua adieraztean, Zuberoan instrumentala ez zaio partizipioari atxikitzen, aditz izenari baizik: *amaekilan eta amaen ahizpa batekilan* [z]uiten *üthürrila, bide buzi bat beitzen, tripaen xãhãtzea eta erraitez süia etxeke lezen artin* (Urđiñarbe).

9.2.3. Konparazio perpausetan *bezainbeste* baliatzen da Zuberoan eta Amikuzen; Baxenabarren *bezanbat* egin ohi da, Aezkoan bezala; Zaraitzun *bezainbat* & *bezamat* bildu dira eta Erronkarin *bikainbat* & *bekinbat*.

9.2.4. Zuberoakoak dira honako ele hauek: *akhodiña* ‘eginkizunak, esaterako etxeako ardurak’, *aments* 1) ‘bederen’, 2) galdera zentzua indartzeko partikula, *a(r)an* ‘oihartzuna’, *ardall* & *arradail* ‘bigarren aldiz mozten den urteko belarra’, *arramaiaz* ‘ekaina’, *arrasti(r)i* & *arrest(i)r* ‘arratsaldea, arren’<sup>40</sup> ‘beraz’, *arres* ‘ardia’, *athe* ‘multzoa’ & *atheka* ‘metaka’, *baranthail* ‘otsaila’, *barbalot* ‘zomorroa’, *bedatse* ‘udaberria’, *bede[z]i* ‘sendagilea’, *belhagile*<sup>41</sup> ‘sorgina, aztia’, *belar* ‘kopeta’, *boonte* ‘kopeta’ —Zaraitzun *boronde*—, *buzi* & *buxi* ‘puska’, *düünda* ‘ortzantza, trumoiá’, *düündü* —Zuberoan ‘iluna’ adiera du eta Erronkarin *dundu* ‘urdina’ da—, *eden* 1) ‘kabitú, barrenean hartu’, 2) ‘lasaitu’, *egari*<sup>42</sup> ‘jasan, pairatu, eutsi’ —Zaraitzun eta Erronkarin bezala—, *eho* & *ehaiten* ‘hil & hiltzen’, *ekhürü* & *ekhüratü*<sup>43</sup> ‘geldirik, bare & baretu’, *eli bat* ‘sorta bat, batzuk, pare bat’ —Erronkarin *oski eli bat* ‘zapata pare bat’ zen adieraz eta *lüneta lodi-lodi eli at* bildu dugu urđiñarbetar batengandik—, *emüts* & *e(r)emüts* ‘txiroa’, *enjogi izan* ‘zaletasuna izan, joera izan’, *engoxatü* & *ingo(a)xatü* ‘alditxartu, konortea galdu’, *eñheik izatea* ‘nekatu izatea’, *e(r)etz(e)*<sup>44</sup> ‘alderdia’, *estiapen* & *eziapen* ‘ilbehera, beherapena’, *etxau* ‘leku

<sup>40</sup> Iraganeko garaietan mendebaleragoko idazle zenbaitek ere baliatzen zuten, baina ekialdeko mintzoetan etengabeko erabilera izan du eta du; esaterako, guk Zaraitzuko Jaurrietan bildu genuen.

<sup>41</sup> Erronkarin *belagin*, *beragin* & *bedegin*, baina baita *belagile* ere.

<sup>42</sup> Etxeparek eta Leizarragak ere badakarte.

<sup>43</sup> Baita *ükhüratü* ere; Erronkarin *ekuri* (Estornés Lasa 1984: 66) eta *ekurik* (118) dakartzu Mendigatxak; Uztarrozen *ekuru* bildu da (Izagirre 1959: 298).

<sup>44</sup> Aurki liteke Zuberoan kanpoko idazle zenbaitengan, baina egun funtsean Zuberoan baliatzen da.

baztertuetako etxe edo baserria', *etxit* 'ez guztiz, ez osoki', *glask*<sup>45</sup> 'hozkada', *godallet* 'edalontzia', *gritx* 'matxinsaltoa', *hapatakaz* & *haputikaz* 'arrapaladan, lauhazka', *hardit* 'ausarta', *harzara*<sup>46</sup> 'berriz ere' —Erronkarin *astra* eta *artsa*—, *heltübada* 'agian, beharbada', *herots* & *ehots* 'zarata', *idoki*<sup>47</sup> 'atera, erauzi', *ih* 'erraz', *in̄har bat* 'pixka bat', *in̄hazi* 'oinaztargia, tximistargia', *itxes* 'triskan-tza', *jesan* 'mailegatu', *jokü* 'apustua', *kaminet* & *kamenet* 'armairua', *khantü* 'ondoko aldea', *kehella* & *kihilla* 'xehela, xeila, ataka' —Pettarrean *xehela*—, *kheestatü* 'abere bat zikiratu', *kota* 'gona' —baita Zaraitzu-Erronkarietan ere—, *kukuxkan* 'zeletan, barrandan', *khüpüs* & *khüpüx* 'konkorturik', *khüpüs-tü* 'makurtu', *latsün*<sup>48</sup> 'gisua', *legar* 'zerga', *leñhürü* 'argi izpia', *manex* 'zuberotarra ez dena, bereziki baxenabartarra edo lapurtarra', *ments izan* 'falta izatea', *mixkandi* 'sehia, zerbitzaria', *montüra* 'zaldi jendea, zaldi, asto eta mandoen kategoria', *neskenegün*<sup>49</sup> 'larunbata', *net* 'guztiz', *nunebeita* 'ziur aski', *nika* 'keinua' —Erronkarin bezala, baina 'begirada' adiera ere badu ibar honetan—, *oithian* 1) 'beraz, bada', 2) galderan harridura adierazteko ere baliatzen da, *paket(a)* 'anitz', *partü* 'bidean gurutzatu', *pastetx* 'taloa', *pea* 'udarea', *pikarrai* 'biluzirik', *prefosta* 'zalantzarik gabe', *prunki* 'ugari, ausarki', *phü(r)ü* 1) 'behintzat', 2) 'guztiz', *seteme(r)* 'iraila', *thai gabe* & *thei gabe* 'gelditu gabe', *theiü* 'zikina', *therrix(k)ot(a)* 'lurrezko ontzia, katilua', *txinka* 'pindarra, txinparta', *tzüstotü* & *thüstatü* 'usteldu' —Erronkarin *tustatu*—, *ühülgü* 'ortzantza', *ülhaintxa* & *ilhantxa* 'mirua', *uñhu* 'tipula', *ürgaitzi*<sup>50</sup> 'lagundu' —Belapeirek *ürgatzi*—, *ürrhentü* 'bukatu', *ürrüphe*a 'eremu laua', *xiflet* 'belarondokoa', *ziunta* & *zuinta* 'lastertasuna', *zotükatü* 'higitzea' & *zotükü* 'higidura, konbultsioa'. Nafarroa Behereko hitza ez bezalakoa da Zuberoako *giltz*, zeina Baxenabarren *gak(h)o* baita.

9.2.5. Euskal Herriko bazter ugaritan *-de* morfemak plural iragangaitzak eratzeko balio izan du, baina ekialdean adibide pleonastikoak ditugu; Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzu ibarretan, XVIII-XIX. mendeetako testuetan ezauga-

<sup>45</sup> Gamereko adibidean: *galtatzea hora non den, ez beita goxo ixustean glaska baten ükeitea* (Otsibar 2003: 18).

<sup>46</sup> Etxeparek eta Leizarragak baliatu zuten, baina geroztik idazle zuberotarrek.

<sup>47</sup> Zuberoan dago hitz honen erabilera, baina idazle zahar batzuek ere baliatu zuten: Leizarraga, Oihenart, Tartas, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Duvoisin. Ez diogu 'kendu' adiera erantsi, Amikuzen ezaguna baita.

<sup>48</sup> Zaraitzuko Otsagabian ere baliatzen zen; Erronkarin *gisu* dakar Bernardo Estornes Lasak, baina galdera ikurra du.

<sup>49</sup> Nafarroa Garaiko mendialdean ere kokatu da *neskenegun* edo *neskegun* hitzaren erabilera; cf. Caro Baroja (1984 [1971]: 240).

<sup>50</sup> Arkaismoa dirudi.

rri hau ageri da eta irau du gerora ere Zuberoan: *haurrak oro kürius beitrade* (Elixagarai, 129).

### 9.3. Zubereraren ezaugarri zaharrak

9.3.1. Euskal Herriko gainerateko eskualdeetan galdurik dauden franko hizkuntza-ezaugarri fonikok irau duite ekialdean, Zuberoan eta ondoko ibarretan: *lt, nt, nk, lk* kontsonante taldeak Zuberoan eta Erronkarin gorde dira; bi ibarrotan hitz batzuetan *-rz-* eta *-rs-* kontsonante taldeek afrikatu gabe diraute; polaritate negatiboa duten izenordain zehaztugabe zaharretan, Erronkari ibarrean Azkuek *eũr* eta *eunr* ‘inor’ bildu zituen Uztarrozen; Bi-dankozen, berriz, *ñor* aldaera ageri da; aldiz, Zuberoan, *ĩhũr, ĩhũntik, ĩhũrat* erakoak ditugu.

9.3.2. Gatozen izenaren morfologiako ezaugarrietara. Euskal Herriko ekialdean izen sintagmak mugagabeen artikulurik gabe jokatzea gauza arrunta da<sup>51</sup>; instrumentalean *-(t)zaz* gorde da mugagabe eta pluraletan Zuberoako Basabürüan, Arbailan eta Petarreko bazter batzuetan; Erronkari, Zaraitzu edo Aezkoan bezala, destinatiborako edute genitibo hutsa baliatzeko aukera dago Zuberoan: *mithilak etzila deu[ž] egiten, etzia nahi a[ž]uantzaik pakhatü haen* ‘harentzat’ eta *ordin hek ützi zieia bea* (Urđiñarbe); inesibo zaharreko adibideak gorde dira ekialdean: *gio ku[ž]ia beüt hor gañen* (Olhaibi); *etxen ükhen tü haurrak* (Ainharbe); Erronkariko Uztarrozen *arratsen* bildu zuten Mitxelena eta bestek (1953: 530); ablatiboan Zuberoan *-ti* zaharra gorde da; zenbait hiztun xiberutarrek egiletza adierazteko kasu instrumentala baliatu ohi dute;<sup>52</sup> *alde & alte* hitzak osagarria eskuinean darama Zuberoan.

9.3.3. Aditz batzuetan *e-* aurizki zaharrari eutsi zaio Zuberoan: *ebili, egorri, egüriki & egürüki, ekusi*. Erronkarin ere honela dakartza Mendigatxak: *ekusi, ebiltzen*. Zaraitzukoak dira *ebli* ‘ibili’, *egorri* eta *ekusi* ere, baina Aezkoara helduz gero, *ibili, igorri, ikusi* erakoak ditugu. Aditz nagusi ez irrealak partizipioko

<sup>51</sup> Arbailan *ógia badít* eta *ógi badít* ederki bereizten dira, *har ezazü ogia* eta *har ezazü ogi* bezala (Coyos 1999: 117, 119): lehen kasuan ogi hori determinatua da. Galdetzean ere berdin: *ógi badéa?* (204). Interes berezia du Julen Manterolak gai honetaz egin ikerlanak (2009).

<sup>52</sup> Hona Sarrikotapean bildu dugun adibide bat: *ez solamente alemanez atzamanik izan behar*. Beharbada maiztasun bakanagoa duelarik, baina badirudi mendebalera ere irau duela; Baxenabarren, Arberoako Armendaritzen honakoak bildu ditugu: *denetaz bazter utzia; aitzaz bazertia; haurride batez bazertia*; cf. Beñat Karrikaren liburuko adibidea (1990: 45): *denetaz debalde utzia*.



atzizkirik gabe balia daitezke Zuberoan, Amikuzen, Erronkarin edo Zaraitzun: *gük [z]an gintiouk ogiaikin delakoz, ogia ezpadie maite, bena ordin de[z]a zomai-tek etzieia maite, ordin ni kuntent nündia erdia üzten balima zien, komitatin sar eta han [z]aten nian* (Urdirarbe); hona Amikuzeko Arrüetako adibidea: *esküz bil eta esküz karga*. Etorkizuna adierazteko *-te* morfema arras baliatua da aditzetan Zuberoan: *bihar, beharbada, aphaalago hizate* (Elixagarai, 174).

9.3.4. Nafarroa Behere, Nafarroa Garai eta Lapurdi gehienez ez bezala, lexikoan aldaera gordetzailerik zenbait ageri da Zuberoan eta ekialdeko eskualde zenbaitetan: *eitzi* ‘utzi’, *haur & kaur* ‘hau’, *heben*<sup>53</sup> ‘hemen’, *hirur, laur, bakhatü & pakhatü* ‘ordaindu’, *zelü* ‘zerua’.

9.3.5. Badira ezaugarri zahar gehiago ekialdean, baina ezagunak ziren antzina Euskal Herriko alderdi gehiagotan ere: bokal sudurkariak Zuberoan ditugu egun<sup>54</sup> —Larrasketek *ardü, ähäte, ihärdetsi, ihärrausi* eta *ihütz* hitzetan dakar, esaterako— eta Erronkarin ere baliatzen ziren, baina Zaraitzun ez.<sup>55</sup> Gainerakoan, *etxenko egürra* (Ainharbe) adibideko atzizki lokatiboak inesiboaren arrastoak gordetzea ekialdekoa da egun, *goizanko bedeatzü oenetan zabaltzen tützü* adibideak bezala (Sarrikotapea), baina literatura zaharrean *barruangoak* dugu Euskal Herriko mendebalean, edo baita *Bengoa* forma bera ere; bestalde, *-i* aditz partizipioari dagozkion aditz izenetan *-ten* zaharra egiten da ekialdean —*ebilten, erortera, ezartez, igorten, ixurtera, jarten...*—, baina ezagunak dira Bizkaialdeko *etorten* edo *ekarten* aldaera zaharrak ere. Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun, pluraleko 3. pertsonaren Nork morfema *-e* da, Baxenabarren *-te* berriagoa dago, baina hedadura handia du *-e* honek Euskal Herriko mendebal-erdiguneetan.

9.3.6. XIX. menderako galdurik egon zitezkeen Zuberoako euskara mintzatuan *ailitz, aileza, ainintz* erako botiboak, Xahok, Intxauspek, Gèzek edo Bonapartek zubererakotzat aurkezten bazuten ere; alta, Albert Constantinek (1873-1957) badarabil: *aitzinte helt, beste hainbeste honki egitera* (Davant 2009: 81); *ailekigü balia* (85); Philippe Etxegorriren arabera, Biarnoko Jeruntzen bada adibide ihartu zenbait: *ailedi jin!* (2003: 270); cf. honetaz Oihartzabal (1997: 56).

<sup>53</sup> Beñat Etxeparek eta Nafarroa Behereko ekialdeko idazkiek bezala.

<sup>54</sup> Peillenek dioenez, Pettarrean ozenki ahoskatzen dira (1992: 254). Coyosek bokal sudurkariak eta ez sudurkariak pare minimo bakan batzuk dakartza (1999: 64).

<sup>55</sup> Mitxelenak, esaterako, Izaban *kō* ‘kerua, usain txarra’, *zīatu* ‘koipe gatzatua’ eta *zī* ‘ezkurra’ bildu zituen eta Uztarroren *gāzta* edo *ūr* ‘urra’ (1953); Izagirrek Uztarroren hauek dakartza: *gānzta* (1961: 394), *zunr* ‘zuhurra’ (397), *änkarrak* ‘ahakarrak, haserreak’ (398), *ānzpareki* ‘ahizparekin’ (399), *ünra* ‘urra’ (1959: 294), *änra* ‘harra’ (297). Guk Amikuzen ale batzuk entzun ditugu, bakan zenbait.

## 10. Amikuzeko mintzoa

10.1. Egoera larrian dago Amikuzeko *eskuara*: guti mintzatzen da eta transmisioaren katea etenik ageri da franko herri eta etxetan; bertako jendeek diotenez, hondarreko hamarkadan zinez behera egin du euskararen erabilera eskualde zabal honetan. Euskaraz mintzatzen dakiten gazteak badira, baina hauetarik anitz makeski mintzo dira eta ez dute ohiturarik, gehienik frantsesez usatu dira.

10.2. Nafarroa Behereko euskararen dinamikari loturik dago Amikuze eskualdea, ibarraren hegoaldea bereziki, esaterako Uhartehiri herria, baina oro har, Amikuzeko euskarak Zuberoakoarekin ere lotura eduki du. Uler litekeen, eskualde zabala da Amikuze eta ibarreko euskararen ez dago guztizko bata-sunik. Ez dira guztiz berdinak, esaterako, Oragarreko mintzoa —Lapurdikoa eta Arberoakoa hurbil dituen— eta Zuberoako erak hurbilago dituen Zohotako *eskuara*; hegoaldean, berriz, Uhartehirik Baxenabarreko era orokorragoetara jotzen du. Berebat, Zuberoako ipar-mendebaleko herrietako euskarak Amikuzeko eretara jotzen du, ez da guztizko zuberera: Domintxaine, Berroeta, Ithorrotze, Olhaibi, Etxarri, Arüe edo Lohitzüneko euskara, ez da Ligiko, Barkoxeko edo Altzürüküko mintzo bera, manexen erak franko ageri dira Zuberoako ipar-mendebaleko herri horietan. Pagolako euskara ere, baliteke lehenago zuberotarragoa izatea orain den baino. Gai hauetaz beste bi artikulutan sakonago jardun dugu.<sup>56</sup>

10.3. Amikuzeko euskararen Baxenabarreko ezaugarri orokor anitz baliatzen da, baina Zuberoakotzat jotzen ditugun tasun zenbait ere ageri dira; hona zein diren: *ü* fonema palatalizatua ibarraren iparreko herrietan, *-oin* > *-uin* & *-uñ* bilakabidea, *i-u* > *ü-ü* asimilazioa, bokalarteko *r* kontsonantearen galera —Amikuzen Baxenabarreko gainerako ibarretan baino azkarragoa eta Zuberoan baino ahulagoa dena—, *etxengo* ‘etxe’ lokatiboa, *bañotek* ‘bakar batek’ erako *-ot* atzizki txikigarria, *ot(h)e* partikularen extraposizioa —Arberoan ere badena—, konparazio perpausetako *bezainbeste* zenbatzailea, moduzko perpausetan partizipio burutua beharrean burutugabea baliatzea: *uai libertitzez ai zizte lanian* ‘orain dibertituz ari zarete lanean’ (Zohota)... Badiara, gainera, gramatika edo sisteman hain emankor ez diren Amikuzeko beste ezaugarri edo aldaera batzuk, Zuberoa gogora dakarkigutenak: *aigü*

<sup>56</sup> Cf. 2009ko gure lana eta “Hizkuntza-aldakortasunari Amiküzetik so”, 2008ko abenduan CNRS-ko Iker erakundeak Baionan antolatutako nazioarteko mintegira aurkeztua; txostenak *Lapurdum* aldizkarian argitaratuko dira.

‘hator’, *daigün urthian* ‘datorren urtean’, *dain astian* ‘datorren astean’, *horra duzu* ‘dator’, *ohit nüzü* ‘oroitzen naiz’; baita datiboko morfema bikoiztua ere: *zindatazün* ‘zenidan’.

10.4. Zuberoan bezalako hitzak ere ugari dira Amikuzen, ekialdeko herrietan bereziki.<sup>57</sup> Hona sorta bat: *adret* ‘antzetsua’, *agrada izan* ‘gogoko izan’ —Zuberoatik landa Ipar Euskal Herriko aspaldiko idazle zenbaitek erabili zuten; egungo ahozko mintzoan nagusiki Zuberoan ageri da—, *aidürü* ‘zain’ & *aiduru*,<sup>58</sup> *amiñi bat* ‘pixka bat’,<sup>59</sup> *azkazi* ‘ahaidea’ & *askazi*, *ekhi* ‘eguzkia’, *elge* ‘alor landua’, *eontsi* ‘erauntsi, jardun’, *erdiro* ‘arraildura’, *gei* ‘nahia, asmoa eta itxaropena adierazten du hein batean’ —Uhartehirin, Laphizketan eta Zohotan entzun dugu, baina Ilharren ezezaguntzat eman digute—, *gozaita* ‘eguzaita, aitapontekoa’, *haboro* ‘gehiago’ & *haboo* & *abooxia* & *haooxia* —Erronkarin *ob(o)ro*—, *herexa* ‘hatza’, *idoki* ‘kendu’, *iüükatiü* ‘igurikatu’ & *iüükutzen* —Mehainen *idurikatu* bildu dugu eta Armendaritzeko Beñat Karririkak ere badakar (1990: 23, 51)—, *lo(b)iro* & *lobiu* & *lohiru* ‘etxe aintzina, samatsa, basakurtea’, *mainkhatu*<sup>60</sup> ‘min hartu’, *ñago* ‘arbia’ —Zuberoan Larrasketek *ñabo* dakar—, *oro* ‘guztiak’ & *oo*, *oski* ‘oinetakoak’ —baina Zuberoako Olhaibin *huñetakuak* entzun dugu; dena den, 1596ko Bizkaiko *RS* atsotitz bildumak ere badakar *oski*—, *pharte hun*.<sup>61</sup>, *solamente*<sup>62</sup> ‘bakarrik’, *thiñi* ‘gailurra, muturra’ —Ibarrolako Salaberrik badakar—. Aldiz, Zuberoako *ãhãte ez*, Erronkarin bezala, *gita* baliatzen da Amikuzen.

10.5. Ekialdeko aldaerak dira hurrengoak, Amikuzen bildu ditugunak: *aatze* ‘ahantzi’ —Zuberoan *ãhãtze*, Erronkarin *a(n)tze*, Zaraitzun *atze*,

<sup>57</sup> 10.4. eta 10.5. §-etako hitz eta aldaerak zein herritan bildu ditugun 2009ko artikuluan dakargu zehaztasunez.

<sup>58</sup> Beñat Karrrika armendariztarrak badakar liburuan (1990), baina Armendaritzen hitza Amikuzekotzat eman digute.

<sup>59</sup> Dena den, *amiño* ere baliatzen da Bithiriñan; Erronkarin, Zaraitzun eta Nafarroa Behean ere *amiño bat* esan ohi da eta egun ere honelaxe baliatzen da Zuberoa saihetseko Olhaibin edo Arüen.

<sup>60</sup> Arberoan dioskutenez, ‘min hartzea’ adierazteko *maikhatu* baliatzen da Amikuzen. Zuberoan *mankhatü* ‘min hartzea’ eta ‘huts egitea’ da.

<sup>61</sup> Martxüetan eta Amendüzen formula balioa du, agur bati erantzuten dio, baina ez da lagunartekoa, etorri dena agurtu nahi dela argi uzten du, ezezagun baten aitzinean edo: *Egün hun / Bai zuri ere pharte hun!* Zuberoan Ithorrotzen lehen agur gisa entzun dugu, guri halaxe esan baitigute etxe batera agertzean; bestalde, *EHHA*-k Domintxainen dakar; halaber, Larrasketek Barkoxeko Larraja auzoan.

<sup>62</sup> Zibozeko Madeleine Jauregiberri: *ordian, ez da phena solamente mintzairiaren galtzia* (de Rijk 1999: 160).

Aezkoan *atzendu*—, *ai[ž]et* ‘erraza’ —*lan ai[ž]ia* era ere bada, Zohotan eman digute; Armendaritzen *ai[ž]it* bildu dugu, baina Mehainen *ai[ž]et*—, *aita-ñ<sup>63</sup>* ‘aitona’ & *amañi* ‘amona’, *aizo* ‘auzoa’, *arraga* ‘marrubia’, *bardin<sup>64</sup>* ‘berdin’, *ber* aldaera *ber gauza* bezalako sintagmetan, *ephantxi<sup>65</sup>* ‘oztopoa’, *ezkuntu* ‘ezkondu’, *galdo* ‘eskaera’, *gorde* & *gordatze*, (*h*)*atsarre* ‘hasiera’, *hautse*, *ñ<sup>66</sup>izin* ‘ehizean’, *ñ<sup>66</sup>ztari* ‘ehiztaria’, *jelki* ‘irten, atera’ —Zuberoan *jelkhi* baliatzen da—, *jeste<sup>66</sup>* ‘dastatu’, *juiten* ‘joa(i)ten’, *kaloia* ‘kaiola’, *kuntre* ‘kontra’, *küxkandela* ‘surangila’, —Zuberoako aldaera nagusia *süskande(l)a* izanik ere—, *mezperak<sup>67</sup>* ‘igande arratsaldeko elizkizunak’, *muztü* ‘moztu’, *nahiant* ‘nahi duena’, *ordari<sup>68</sup>* ‘ordaina’, *phe(r)ediki<sup>69</sup>* ‘predikua, sermoia’, *prau*e ‘pobrea’, *sendoti<sup>70</sup>* ‘sendatu’ —Berroeta herri zuberotarrean ere bai—, *ülü<sup>71</sup>* ‘eulia’, *xakola* ‘sakela’ —Bithiriñan bildu dugu, baina Uhartehirin eta Zohotan *sakela*—, *xerbitxi* ‘zerbitzu’ & *xerbüxi*, *xilintxau* & *zilintxau* ‘zintzilik’ —Zuberoan *txilintxau* dago eta Erronkarin eta Zaraitzun *tilinton*—.

Beste adibide batzuetan denbora iragan izanak aldetak eragin ahal izan dituela dirudi: esaterako, guk Zohotan *zerü* bildu dugu eta *zeria* dakar *EAEL*-k Amendüzen, baina Domintxainen eta Etxarrin *zelü* ageri da; iraganean *zelü* eta *zerü*, biak ditugu Donapaleuko XIX. mendeko katiximan, *zelü*-k maiztasun

<sup>63</sup> Mugaturik ere bai, Zuberoako Jauregiberriren adibide hau lekuko: *eta aitañia mintzo holax* (de Rijk 1999: 160).

<sup>64</sup> Zuberoan ohikoa da, baina Ipar Euskal Herriko idazle zaharrek bazerabilten: Etxeparek, Leizarragak, Oihenartek, Tartasek, Lopezek eta Cazenaveren Garaziko eta Iribarnegarainen Baigorriko ebanjelioek ere halaxe dakarte; hegoaldean, berriz, Erronkari-Zaraitzuetan, Aezkoan eta Eguesibarren bederen ageri da.

<sup>65</sup> Leizarragak eta Etxeberri Ziburukoak *enpatxu* dakarte; Lopezen itzulpenean, berriz, *epa(i)ntxu* ageri da.

<sup>66</sup> Zohotan *jeste diat* era, *jestatü diat* edo *jesta zak* bildu ditugu; Trebitsch-ek *jastatu* dakar Amortzen 1913an.

<sup>67</sup> Arberoako Armendaritze eta Mehainen *bezperak* esaten da; Etxarrin eta Sarrikotapean *mezpera* bildu dugu eta baita urdiñarbeter batengandik ere; Basabürüko Gameren *mezpera* dakar Otsibarrek (2003: 68); aldiz, Belapeirek bezala, Larrasketek *bezpera* dakar (1939).

<sup>68</sup> Amikuzeko Zohotan *ordaritan* era bildu dugu; Zuberoan bi adiera ditu: ‘ordaina’ eta baita ‘ordezko pertsona’ ere.

<sup>69</sup> Zuberoan badu ‘errierta’ adiera ere (Larrasket); Amikuzeko adibidea dugu Trebitsch-ek Amortzen bildu zuena: [*Amikuzeko xoko huntako eskuara*] *aphezek berek pheedikietan uzten dutela bazterrean* (Etxebarria 1994: 65).

<sup>70</sup> Etxeparek ere baliatu zuen, baina Zuberoan du aldaera honek erabilera nagusia, *nd / nt* aldea gora behera. Amikuzeko bestaldean *sendatu* bildu zuen Trebitsch-ek Behauzen 1913an.

<sup>71</sup> Zohotan *ülütza* bildu dugu; 1913an Trebitsch-ek Behauzen *ülü* bildu zuen; *EAEL*-k *ulia* dakar Amendüzen. Ez da aldaera bakarra *ülü* Zuberoan, *illi* ere badakar *EAEL*-k Altzain, Eskiulan, Larrainen eta Santa Grazin.

handiagoa duelarik: *hain egiazki eta errealki nola zelian beito* (245) / *obit gïten zerian egoiten denaz* (233). Erronkarin bestela ziren gauzak.<sup>72</sup>

Beste aldaera batzuetan Amikuze biderdi gelditu da: Baxenabarren *moltsa* dugu, Zuberoan *musa* eta Amikuzen *moltsa* (Zohota), nahiz hego Amikuzeko Uhartehirin *moltsa* bildu dugun.

Berebat, Zuberoako euskara bezala, Ipar Euskal Herriko eta Baxenabarre gehieneko berrikuntza batzuekiko immune gelditu da Amikuze: *hogeï*.

10.6. Hona Euskal Herriko ekialdean eta Amikuzen baliatzen diren hiru atzizki berriztatu: *-gerren* ordinala; *-kan* jarduerazkoa: *aniz denbora pasatu die soldadokan* (Behauze), baina Bithiriñan *kartaka edo killaka* entzun ditugu; Arberoako Mehainen, ez da *-kan* baliatzen, *killetan* eta *pilotan* egiten da;<sup>73</sup> *-ot* atzizkia aipa daiteke txikigarrietan, gaskoiaren mailegu dena: *bañot* erako adibideak eragin ditu Amikuzen, baina Ipar Euskal Herrian hedadura zabala du; Zuberoan Larrasketek *labürrot* dakar; *etxano* dagoen legez bada *etxanot* ere. Jean-Pierre Otsibarrek *txipitot* dakar (Davant 2009: 89). Atzizki zaharretan *-tarzün* ageri da Amikuzen.

10.7. Atal honetako ezaugarriak Zuberoan nagusi dira, baina hiztun amikuztarren ahotik bildu ditugu, Amikuzekoak dira. Ordea, alderantziz ere gertatzen da, hau da, Nafarroa Beherean edo Amikuzen nagusi diren ezaugarri batzuk, Zuberoako ipar-mendebaleko herrietan ageri zaizkigu: esaterako, *bit* ‘bait’ partikula azaltzailea, Amikuze barne Baxenabarren aski hedadura duena, Zuberoako Domintxainen, Olhaibin, Lohitzünen edo Oihergin bildu dugu, baina behin Ainharbera helduz gero, *beit* baliatzen dela ikusi dugu, Arüen eta Sarrikotapean bezala.

10.8. Dialekto mugaren inguruko bitasun eta txandaketak entzun daitezke eskualde honetako hiztunen artean: Pagolako hiztunengandik *gaia* eta *gaua* bildu ditugu, eta baita *-tasün*, *-tarsun* eta *-tarzün* aldaerak ere. Oihergin ere bietara entzun daiteke: *baakite*, *düte*, *nüte*, *züten* adizkiak baliatzen dira, baina baita *die*, *nie*, *zien* ere; Ainharben ere *-e* & *-te* bikoizketa dago; Nor Nori

<sup>72</sup> Erronkarin *zeuru*, *zeiru* & *zeuri* zeuden, baina Zaraitzun *zeru*. Ikus FHV 100 or. eta Gómez (1991: 403).

<sup>73</sup> Zuberoako Olhaibin *kartakan* bildu dugu eta Ainharben *pelotakan ai* entzunik gaude. Zuberoako Basabürüan ere baliatzen da: Santa Grazin *ibili dük bai andrekan* bildu da (Peillen 1985: 24); Jauregiberrik *jokükan* ‘apustuka’ darabil (de Rijk 1999: 161) eta Gamereko Otsibarrek *pelotakan* (2003: 68). Larrainen EHHA-k *latsakan* bildu du; Oiherntek *auzikan* eta *azikan* dakartza 513. atsotitzean.

Nork-en *erran nakon* ‘nion’ *ginakon* ‘genion’ eta *zakokan* ‘zioan’ bildu ditugu Oihergin, baina Artolak *nion* & *non*, *ginion* & *ginon* dakartza (Irizar 2002: 175); Nor-Nori sailean *zakok* ‘zaiok’ eta *hiltzakon* ‘hil zitzaion’ bildu ditugu Oihergin, Baxenabarren bezala, baina Zuberoako gisan *zoo* ‘zaiok’ ere bildu dugu eta Artolak *zion* ‘zitzaion’ dakar (Irizar 2002: 170). Alderdi lexikoan Zuberoakoak ez bezalakoak eta Baxenabarre gehienekoak dira Oihergin bildu ditugun honako adibideok: *atsalde*, *eakoitza* ‘larunbata’, *primadea*; Baxenabarreko aldaera lexiko orokorrak dira Oihergin bildu ditugun *be(de)atzi*, *ederrago*, *elgar*, *ga[ʒ]na* ere. Baina Oihergi zubereraren muga herria da, Zuberoako beste adibide hauek guztiak ere bertan bildu ditugu: *bedatsia* eta *neskenegüna* hitzak eta *alkhar*, *ei[ʒ]erra* & *ei[ʒ]erki* eta *ga[z]na* aldaerak.

## 11. Baigorriko mintzoa

11.1. Baigorri ibarra aipatu dugu artikulu honen hasieran; izan ere, hizkuntzaren aldetik interesgarria da Baigorri: Pirinioetan dago, baina mintzoaren aldetik ez doa ekialdearekin eta ezaugarri batzuetan ezta gainerako Nafarroa Behereko eskualdeekin ere.<sup>74</sup> Ibarren iraganak bertako hizkuntza-ezaugarrien izaeraz argitasuna eskaini beharko luke; berebat, Baigorriko hizkuntza-ezaugarriek bertako erkidegoaren iragana eta historia zertxobait argitu beharko lukete.

Baigorri ibarrak Nafarroa Garaiko Erroibar, Esteribar eta Baztanekin lotura sozio-geografikoa eta ekonomikoa izan du. Bestalde, Iruñeak behar zuen haragiaren hainbesteko bat Baigorriin ekoizten zen: honelako jardunek hartumana eragin ohi dute. Ezaguna da, berebat, baztandar ugarik ezkontza hartumana izan dutela baigorriarrek; entzun dugu Aritzakungo emazteki anitz Baigorriara ezkondu direla. Honezaz landa, Luzaide, Erroibar, Esteribar eta Baztango euskaldunekin bazkalekuak partekatu dituzte baigorriarrek.<sup>75</sup> Ho-

<sup>74</sup> Jean Haritschelhar euskaltzain baigorriarrek bi adibide dakartza (1963: 61, 63): Iholdi aldeko *aubari* & *aubaldu* beharrean, Lapurdin eta Nafarroa Garai gehienez bezala *afari* & *afaldu* baliatzen dira Baigorriin —dena den, guk 2009an Iholdi ondoko Armendaritzen *afari* aldaera bildu dugu—. Nafarroa Beherean nagusi den *phesta* beharrean, Lapurdin eta Nafarroa Garaiko ondoko ibarretan bezala, *besta* baliatzen da Baigorriin.

<sup>75</sup> Baigorri hegoaldeko Kintoa eskualdea, Frantziaren eta Espainiaren administraziopeko eremu zatitugabea izan da; elizaz Urepelera jotzen du, baina bertako zortzi etxeetarik zazpi Baztani dagozkio eta bat Erroibarri. Ez da ahanzi behar, gainera, Baigorri Nafarroako Erresumaren atala izan zela XVI. mendea arte; orobat, Aldude, luzaz administratiboki Nafarroa Garaia izan da: bertako Baillia etxean “Esta casa es de Val de Erro” idatziz ageri da.

nek guztiak iradokiko liguke Baigorriko euskarak Nafarroa Garaiko ibarro-tako mintzoaren eragina menderen mende bildu dukeela; gaztelaniatiko mai-leguak aipatzen ditu Haritschelharrek (1963: 59-61).

11.2. Baionak edo Lapurdik behar zuten ardoa Irulegin ontzen zen eta Baigorriko mendietan bazkatzen ziren Baionak behar zuen haragia emanen zuten abereak ere; hartu-emana eragin du honek guztiak, jakina. Bestalde, geografikoki Lapurdira sarbide naturala du Baigorrik; Lapurdiren ondoan egoteak ibar honetako euskara ekialdeko mintzoetarik bereizi du, baina ez dugu adierazi nahi ekialdeko euskaldunek baliatzen duten berrikuntzarik bature Baigorriara iritsi ez denik: esaterako, soziatiboan *-kılan* atzizkia baliatzen zen Baigorriin aitzineko belaunaldietan, orain galtzear bada ere: *adin batera heltzeakılan* (Barandiaran 1982-83: 19).

11.3. Inolaz ere, Baigorriko mintzoaren izaera eta egitura aurkeztea interes betekoa da. Baigorri eta gainerateko Baxenabarre ez daude grabitazio-indar linguistiko beren pean, eskualde bateko mintzotik bestekora bada alde; ekialdeko nahiz Baxenabarreko ezaugarri berri zenbait falta du Baigorriko euskarak: ez du zuketa alokutiboa baliatzen; bestalde, ekialderago ageri den *-xet* aldaera itxuraz berranalizatua ere ez da ibarrean ibiltzen; hala nola, *bit* ‘bait’ monoptongazio Baxenabarren orokorra ez da bertan geratu. Bestalde, Baxenabarreko beste ibar batzuen aldean, Baigorriko mintzoak beste hautu batzuk egin ditu: bilatzeko ekintza adierazteko ez du *-ka* atzizkia baliatzen, *-keta* baizik, Lapurdin bezala: *gizon bat eurketa juan tzen zaldiaikin oihaneat* (Lacombe 1971-72: 35); hain zuzen ere, *-ketara* da Baztanen baliatzen den aldaera. Baxenabartar gehienek ez bezala, ez darabil “izan” aditzean *\*\*ginden*, *\*\*zinden* erako adizkirik. Ezaugarri zahar ekialdekoak ere falta ditu Baigorriko euskarak: *\*\*erorten* erakoen ordain *erortzen* erako egitura berria baliatzen du; *\*\*etxen* ez, *etxean* egiten da Baigorriin; adlatiboan ez da *\*\*la(t)* morfema egiten, *-ra(t)* baizik; berebat, *han* eta *hemen* leku adizlagunetan *-nd-* kontsonante taldea entzuten da, ez dago *\*\*hantik* & *\*\*heentik* aldaerarik.

11.4. Euskal Herriko erdialdeko eragina biltzen du Baigorrik eta Lapurdiko mintzoaren eragina ere nabarmena da bertan; esaterako, kontsonante ozenen palatalizazio maila apala dute Lapurdiko erdigune-ekialdeak, Baigorri alderdiak eta Baztangoizak; bestalde, *rtz/st* kontsonante taldearen txandaketari dagokionez, Baigorriin lehen taldea gehiago baliatzen da *st* baino; gauza ezaguna da Lapurdin eta Baztangoizan ere *rtz* baliatzen dela. Destinatioaren atzizkian, Nafarroa Beherean nagusi den *-tako* beharrean, Lapurdin bezala *-tzat* baliatzen da Baigorriin; halaber, XIX. mendeko kristau ikasbideetan pro-

latiboan *-tako* dago Nafarroa Behere gehiengan, baina Iribarnegarairen Baigorriko idazkiak *-tzat* dakar.

11.5. Baigorriko euskarak ezaugarri zenbaitetan mugaz bestaldeko Baztango, Esteribarko eta Erroibarko mintzoak kide ditu; aferesietan, esaterako: *karri, kusi, man, mazte, purdi, zarri, zautu* bildu dira Alduden. Etorkizuna adierazten duen *-tuko* morfemen loturan gertatu den bokal palatalizazioan ere bai: *hartiko* (1971-72: 32, 44), *inganatiko* (44), *suketatiko* (34), hiru adibideak Georges Lacombe Alduden bilduak (1911-1912). Nafarroa Garaian ez bezala, Ipar Euskal Herrian ez dira Nor Nori Nork saileko adizkiak Nor Nork-eko adizkien ordain baliatzen; halaz ere, Erroibar, Esteribar eta Baztanen bezala, Baigorri nahasten dira eta XIX. mendean ere bazegoen nahasketa hau: *nuzu / daazu, nu / daut & daat, nuzii / daazi, nute / daate* dakartza Irizarrek XIX eta XX. mendeetarako (1999: 64). Berebat, Baztango *gan* ‘joan’ dakarkigu gogora Aldudeko *ban, baiten, baiteko* aldaerak (Lacombe 1971-72: 32-33).

11.6. Beste ezaugarri berezi batzuetan, eskuin dituen ibarren dinamikaz bestela, bere-berezkoak diren berrikuntza batzuk garatu ditu Baigorri ibarrak: ez da ahantzi behar ibar hau mendi garaien beheko aldean dagoela, eta mendebelean bederen, halako alderdi bakartu eta menditsua duela, nahiz Bidarrai edo Orzaize ez dauden mendi artean bakarturik; adibide gisa, 3. pertsonaren datibo morfema aipa dezakegu, hiketan “(k)e”-ra edo “(k)i”-ra aldatzen dena: Baigorriko ipuin bateko *zakian* ‘zioan’ adizkia (Haritschelhar 1963: 52), *zakean* aldaeraren kide da, Baigorriko era berezia: *dakot* ‘diot’ dugu eskualdean, baina hiketan *diakeat* ‘zioat’ (Aldude) eta *dakeat* (Urepele), *zakeat & zakenat* ‘zioat & zionat’ (Bidarrai); berebat, *dazkou* ‘dizkiogu’, baina *dazkeauk & dazkenaun* ‘zizkioagu & zizkionagu’ (Orzaize), “(k)e” da datiboaren morfema; *ginakon* da ‘genion’ Baigorri, baina *ginakean & ginakenan* ‘genioan & genionan’ dira hiketan.

11.7. Baigorriko euskarari dagokionez, etorkizuneko ikerketek gure ezagutzaren arlora argitasun gehiago ekarri beharko dutela adieraz daiteke.

## 12. Erronkariko mintzoa

12.1. XX. mendearen hondarreko hamarkadan itzali zen Erronkariko berreko *uskara*, geroztik ez dago ibarreko mintzoa egiten dakien hiztunik. Egiazki, aberatsa zen Erronkariko *uskara* ezaugarrien jatorrian; zail da mintzo hau sailkatzea, itxura ñabar eta aberatsa baitu zinez; eragile ugarik ematen digute beraren izaera ñabarraren arrazoiak:



12.2. Saihetsean dago eta erdiguneko euskal mintzoekin ez du harreman zuzen handirik eduki; erdiguneko mintzoen ukidurarik eta literaturaren edo idatzizkoaren galgarik ez du jasan eta ondorioz, lekuko hizkuntza-bilakabide sakonak beren gisa garatu dira ibarrean, bere-bereak dituen berrikuntzak garatu ditu: esate batera, *eburni* ‘infernua’ berrikuntza sortu da, *eburne* eta *iburni* aldaerez landa, Erronkarikoa baizik ez den bilakabidea. Hona ibar hone-takoak baizik ez diren berrikuntza edo aldaera gehiago: *amandér* ‘amabitxia’, *atziri* & *atzide* ‘atze’, *belainzi* ‘biluztu’ —Zaraitzun *bilozik* (Artola 2004: 8) eta Aezkoan *biluxírik*, *biluzírik* eta *buluxkórrian* & *biluzkórrian*; aditza *biluxi* & *buluxi*—, *bustegi* ‘buruzagia’, *ellu* ‘eulia’, *eréteku* ‘erakutsi’ —XVIII. mende-ko Erronkariko idazki zahar batean *eratsuku* dagoela dirudi (Gómez 1991: 385)—, *kaxal* ‘azala’, *kikoso* ‘kukusoa’, *lotetu* ‘lotu, estekatu’, *ñardetsi* ‘ihardetsi’, *túpla* ‘tipula’, *urdu* ‘iduri’, *xatetu* & *xatatu* ‘xahatu, garbitu’, *zeuru* & *zeiru* ‘zerua’. Berebat, Izaban *úduku* ‘eduki’ bildu zuen Izagirrek (1961: 405) eta Uztarrozen *ekuntu* ‘ukan’ (1959: 292); bestalde, *-garna* atzizki ordinal sinkopatu eta artikuludunaren analogiaz, ordinalaren *-garnen* aldaera berria sortu da Bidankozen.

12.3. Erronkarin beste inon baliatzen ez diren hitzak ageri dira: *bordaltu* ‘ezkondu’, esaterako, ezezaguna da ondoko ibarretan, *ño* ‘txikia’ elea edo *banak* ‘batzuk’ zenbatzailea bezala; aldiz, *eraugi* ‘ekarri’, Zaraitzu-Erronkarietako hitza da, kallesen artean *eragi* & *eragu* aldaerak ere badituena; *bapana* ‘bakoi-tza’ izenordaina ere bi ibarretan baliatzen zen,<sup>76</sup> eta baita jende frantsesak *autx* hitzaren bidez izendatzea ere.

12.4. Saihetsean eta bakarturik egonik arkaismo ugari gorde du, batzuk bere-bereak dituenak: Erronkarikoak dira *burar* ‘bularra’ edo *zirar* ‘zilarra’ aldaera zaharrak eta baita, esate batera, *dud* ‘dut’, *dakad* ‘daukat’, *yaid* ‘haut’ adizkietako bukaerako *-d* ere, behialako *-da* morfema gogorarazten diguna; Mitxelenak adiskide batzuekin egin bilduman Izaban eta Uztarrozen *-r* entzun uste izan zuen (1953: 502); aldiz, Izagirrek *badakid* garbia dakar (1959: 285). Berebat, Eugenia Baraze Algarrak, 1953an 84 urte zituen izabarrak, ia beti izenak mugagabeen ematen zituen eta aditzez galdetzean, aditzoinak ematen zituen (1953: 503); Izagirrek, esaterako, *kau dun ón* bildu zuen Izaban (1959: 309). Bestalde, Zaraitzuekin batean *etse* aldaera zaharra gorde du Erronkarik.

12.5. Ikusi dugu 9.3. atalean, Erronkarik Zuberoarekin batera arkaismo nabarmenak partekatzen zituela eta harekin batean berrikuntza ugari eta

<sup>76</sup> Cf. *da bere bat banac oroitcea* Elizondoko kristau ikasbide batean (Salaburu 1987: 470).

garrantzizkoak garatu zituela; cf. 8. eta 9.1. §; hautu sail ederra ere partekatzen zuten; cf. 9.2. §.

12.6. Huescako mintzo erromanikoen ondoan gertatu delarik, sintaxian eta fonologian erdal eragina ageri da Erronkarin: *nik elerraitan diár óbeki ézik ik* erako konparazio perpauzak arruntak ziren ibarrean (Izagirre 1959: 311); esaterako, hurbiltasuna adierazteko *amáno*, *amaño* & *abaño* baliatzen zen, erdal “a mano”-tik sarturik.

12.7. Nafarroa Garaiko joerak ere bertaraino iritsi dira, mintzo piriniotar honi halako ukitu nafarra ere erantsiz: Zaraitzuko euskararekin batean, aditzetako bigarren pertsona singularreko *y*- morfema garatu du Erronkarik. Hego Euskal Herriko mintzoekin beroriketa partekatzen du: *ori zer da?* ‘¿usted qué es?’ eta *orik dra ón* ‘ustedes son buenos’ perpauzak bildu zituen Izagirrek Izaban (1959: 311).

12.8. Nafarroa Garaiko joerak Erronkariraino iritsi direla adierazi badugu ere, ez da pentsatu behar berrikuntza nafar guztiak ibarrera iritsi direnik; esaterako, mintzo nafarren ezaugarri den instrumentaleko *-s* apikaria ez, *-z* bizkarkaria da Erronkarin baliatzen zena: *erstuz* (Mendigatxa, 81), *gídatuz* (99); izan ere, Nafarroa Garaiko saihetsean egoteak eta mugaz bestaldera txistukari bizkarkaria zerabilten euskaldunekiko harreman hertsia izateak, berrikuntza Erronkariraino iritsi ez izana azal lezake. Berebat, Nafarroako *noaie* ‘noa’, *goaie* ‘hoa’ aldaera berranalizatu hedatuak ez, *doa*, *yoa* erako aldaera zaharragoak baliatu izan dira Erronkarin; cf. Izagirre (1959: 288, 314). Berrogeita hamarretik goitiko zenbaki sisteman Zuberoa Ipar Euskal Herriko gainerateko mintzoekin batera *doa* berrikuntzan eta Erronkari, aldiz, gordeztaile gertatu da: Mendigatxak *iror ogei ta zortzi* dakar, baina Xiberuan *hirutan hogeita* era baliatzen da, *hirutan hogeita hamar*, *lauetan hogeita hamar*...; aldiz, *EDEL*-k Erronkariko Uztarrozen *irorógei*, *irorogeitámar*, *laurógei*, *laurogeitámar* sistema dakar. Zaraitzuk Nafarroa Garaiko joeraren nahiz lege zaharraren arabera jokatzeko du, bietara, eta *iruretan ogei* dakar *irurogei*-rekin batera; berebat, *lauretan ogei* nahiz *laurugei* darabiltza. Aezkoan sistema berria baliatzen da, honetan ez da gordetztaile: *iruetan oi*, *iruetan oitamar*, *laroetan oi*, *laroetan oitamar*.

12.9. Garai batean Zuberoak eta Erronkarik euskalki bera zutela adierazi zuen Mitxelenak (1961-62): “el roncalés y el suletino fueron un dialecto único en tiempos no demasiado alejados”; cf. *LH* (1985: 457); Bonaparte printzeak ere batera zekuskien Erronkariko eta Zuberoako euskara, biak zubereraren barrenean sartu zituen, baina Azkuek ez zekusan desberdintasun gutiago

Zuberoatik Erronkarira, Gipuzkoatik Lapurdira egon daitekeen baino (1931: 207). Mitxelenarena bezalako baieztapen ausartaren oinarria eta frogak aurkitzeko eskatzea aise da gure aldetik, baina zertan esanik ez, zailago da horiek biltzea. Zernahi ere den, eta Zuberoako eta Erronkariko mintzoek elkarrekin duten antz handia ukatzeko inolako borondaterik gabe, zerbait adieraz liteke honetaz: azken garaian iduri luke bi mintzoak elkarrengandik zertxobait urrundu direla, baina iraganean, baterago zebiltzan garai hartan zenbateko berdintasuna zuten zehazki jakiteko, ez dugu testurik.

Izan ere, Zuberoa ez da Zuberoatik higitu, ezta Erronkari Erronkaritik ere. Hiztunak diren pertsonak aldizka ibar batetik bestera ibili dira historian gaindi, bizibideak, lanbideak eta familiarteko hartu-emanek hala eraginik: abeltzaintzak egungoa baino lotura hertsia goa eragin du bi ibarren artean aspaldian. Honek guztiak hizkuntza-lotura hertsia eragin ditu, baina ez dugu iragan zaharreko berri handirik eta ez dakigu xuxen erkidego bakoitza nondik eta noiztik datorren; XI. menderako gutienez, Erronkari erkidego berezi bat zen; alta, kalles eta xiberutar elkarrengandik hurbilsko egon direla salatzen du hizkuntzak. Komunikabideen iraultza gertatu artean, Iruñea hiriburua zinez urrun zegoen Erronkaritik eta Belaguan gaindi Zuberoako Santa Grazirat jo zezaketen kallesek. Nabarmendu behar da, halaz ere, Erronkari eta Zuberoa bi ibar direla eta izan direla, mendi garaiek bereziak gainera. Erdi Aroko idazkietarik honat bakoitzak bere geografia-eremua eta bere erakundeak eduki ditu.

Bi ibarretako mintzoek dialekto bakarra osatzen ote zuten ala aspalditik ibar bakoitzean hizkuntza-berezitasun nabarrak garatu diren jakiteko, orain eskas ditugun lekukotasun idatzi zaharrak beharko genituzke.<sup>77</sup> Zenbateko antza eta zenbateko aldea zuten, denbora iraganaren balizko zenbatekotasunaren jokoan gainera, era guztietako hipotesiak egin litezke, baina datu gehiago gabe zail da emaitzen sendotasuna lortzea, neke da iritzi eta hipotesietarik harat jotzea.

12.10. Aldaketa fonikoek desberdintasuna eratu dute axalean bi mintzoetan, baina halaz guztiz ere, morfemetan eta egitura sintaktikoetan batasun handia izan dute Erronkariko eta Zuberoako euskarak; aldaera lexiko ugaritan ere, sakoneko berdintasuna gorde dute. Ordea, fonemen *inventarium*-ean aldea dago Erronkari eta Zuberoako mintzoen artean: hasperena, kontsonante

---

<sup>77</sup> Euskarazko ezer izkiriaturik ote zegoen ez dakigu, baina Erronkari ibarreko lekukotasun idatziak Izabako elizan gordetzen ziren eta suteetan galdu dira; 1427ko irailaren 27an Izaba eta bertako elizako artxibo guztiak erre ziren eta 1523an ere ibarreko agiri guztiak erre ziren Izabako elizan; ikus Lopez-Mugartza (2008: 53 eta 62).

hasperenduak, \*j- > [ʒ-] eta gainerako txistukari ozenak daude Zuberoan, baina Erronkarin ez; ibar honetan \*j- > [ʃ-] eta hainbat mailegutako [x] konsonante igurzkarri belarea ditugu. Mitxelenak uste zuenez (1954: 157), biarnesak eragina izan duke *ü* bokal palatalizatua Zuberoan garatu izanean; Erronkarin garatu ez izanean ere, ondoko aragoiera-gaztelaniak eragina izan dukeela idatzi zuen. Erronkariko fonemen *inventarium*-a Zaraitzukoa bezalakoa da, biek baliatu dituzten sinkopak barne, baina ezagutzen dugun Zaraitzuko euskaran ez zen Erronkari-Zuberoan bezala bokal sudurkaririk gordezten; jakina da, ordea, bokal sudurkariak euskarak aspaldi garatutako berrikuntza direla eta egungo begiekin ikusirik, bokal sudurkarietara euste hori ezaugarri zahar eta gordetzaila dela; euskara orokorraren ezaugarria izan da, gainera, bokal sudurkariak gorde izana, ez Pirinioetako mintzoena bakarrik.

### 13. Zaraitzuko mintzoa

13.1. Urraulgoitiko berezko euskara xx. mendean galdu zen eta Zaraitzuko mintzo berezia xxi.aren hasieran. 1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Mitxelenak, Izagirrek eta Artolak Erronkarin egin bezala, guk ere hondarreko hiztun zaraitzuarren euskara ezagutu eta aztertu genuen 1980ko eta 1990eko hamarkadetan;<sup>78</sup> gure doktoretza tesiko bosgarren atalean Aezkoako eta Zaraitzuko mintzoak alderatu genituen (Camino 1997: 153-209).

13.2. Hizkuntzari dagokionez, ekialdeko eragin-eremua da hein handian Zaraitzu eta ezaugarriek ezagun dute; halaz ere, Zaraitzuko euskaran ez dira ageri Zuberoako eta Erronkariko euskaran baliatzen diren hainbat ezaugarri; tasun horietara dagokionez, ezker dituen Aezkoako edo Urraulgoitiko euskararen eitea du Zaraitzukoak. Honako ezaugarrietan Erronkarikotik bereiz da Zaraitzuko *uskara*: azentueran, *i-u* > *u-u* asimilatu ez izanean, *au* diptongoari eutsi izanean, *arrai*, *usai*, *artzai*, *ardo* edo *kristio* erako hitzetan arrasto su-

<sup>78</sup> Espartzan (Zubialdeko Dionisia Garate Otxoarekin 1982ko martxoan), Jaurrietan (Eskuxuriko Salvador Karrika Karrikarekin 1982ko uztailan eta 1995eko otsailan; Eskuxuriko haren arreba Isabel Etseberri Karrikarekin 1997ko otsailan; Bilbaoko Raimunda Urralburu Migelenarekin 1995eko otsailan) eta Otsagin (Etsarteko Basilisa Adot Larrearekin 1982ko abuztuan; Xandalioko Teofilo Etseberri Continekin 90eko hamarkadan). Aitor Aranek Antonia Gartzia Loperena espartzarrarekin lan lexiko zinez bikaina egin zuen 2000-2001 urteetan; emazteki hau 2002ko otsailan hil zen. 2002-2006 urteen artean argitaratu da Artolaren lan mirezgarria: Eaurta, Otsagi, Ezkaroze, Orontze, Espartza eta Ibiztako atalak bildu ditu *FLV* aldizkarian, 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetan grabatu bandak transkribaturik.

durkaririk ez edukitzean, *gaitz* edo *goiz* erako aldaerak busti ez izanean, *axkon*, *xabon* edo *sason* hitzetan hitz bukaerako kontsonante sudurkariari eutsi izanean eta bestalde, *abendu*, *boronde*, *sandu*, *ongi*, *zango* erako kontsonante taldean herskari ahostuna izatean; ezaugarri hauetarik gehienetan, kallesak eta xiberutarrak batera zihoazen.

Hainbat hitz edo aldaera adierazgarritan ere, Zaraitzu ez bezala, Zuberoa eta Erronkari batera ditugu: Zaraitzun *edoki* & *iduki* / Erronkarin *ekun* eta Zuberoan *ukben*; Zaraitzun *korputz* / Erronkarin eta Zuberoan *k(h)orpi(t)z*; Zaraitzun *anitz* / Erronkarin eta Zuberoan *(h)anitz*, eta franko heda liteke zerrenda. Aldiz, sudurkari aitzineko *o* bokalaren izaerari eutsi izanean —*konek* ‘honek’ vs. *hunek*— edo hitz hasierako *\*j-* > *x-* bilakabidean, Zuberoako eren aurka Erronkariarekin batean doa Zaraitzu ibarreko *uskarara*.

13.3. Bestalde, ezaugarri zaharrak ditugu Zaraitzun, Euskal Herriko mintzo gehienetan berriztatuz joan direnak; esaterako, perpaus konparatiboetan morfema genitiboago ageri da: *óri da txípi, máрта ta kóyen beño txípiago* (Artola 2004: 8, Otsagi) eta baita *-a bezala* egitura ere: *denboras faten gintzana bezala* ‘garai batean joaten ginen bezala’, Espartzan 1982an bildu genuena. Berebat, *barren* hitzak toponimian bezala, ‘peko alderdia’ adieraz dezake (Artola 2004: 7); mailegutan *natibitate* ‘eguberriak’ aipa daiteke, Erronkarin eta Zuberoan bezala. Erakusle eta aditzondoetan, itxuraz zaharra den *k-* bat partekatzen du erronkariarekin, hain zuzen ere hego-nafarreran *g-* dena: *kau*, *kori*, *kura*, *kemen*, *kor*, *kan*, *kola*, *kala*; ondoko ibarretako hiztunentzat arras nabarmena da *k-* hori, *marker* bat, eta zaraitzuarrak berak ere jabeturik daude honetaz. Beste *marker* bat da, baina berria, *-turik* > *-trik* sinkopa; Orbaizetako Juanperitzeneko Valeriano Zabaltza Urrutia zenak zioskunez, zaraitzuarrak beti *rik-rik-rik* ari dira.

13.4. Jokabide berezia da —hegoaldeko Pirinioetako euskaran ohikoa izanik ere—, ablatiboko morfema balio lokatiboarekin baliatzea: *nik amañuen kandik, Otsairik, eta gero, pues klaro, tiratzen nuen, familia guzia faten gintzan kara, Otsaira* (1982an guk Espartzan bildua); Jaurrietan *Iruñarik da* entzun genuen 1995ean; ondoko Aezkoan *etxinat nondi diren* ‘ez zakinat nongoak diren’ bildu genuen Hiriberrin. Berrikuntza nabarmena da sinkoparena ere: *gra* ‘gira’, *zra* ‘zira’, *xra* ‘xira’, *zraie* ‘zirate’, *dra* ‘dira’ adizkiekin batean, *tan* ‘dutan’, *tala* ‘dutala’ edo *gámintara* ‘ganibeta + -a’ erako laburdurak baliatu dira Zaraitzun.

13.5. Hego-nafarrera ez bezala, gordetzaille da *eu* diptongoari dagokionez eta bestalde, *rz* kontsonante taldeari eutsi dio. Bestalde, adibide lexikalizatuak

izanik ere, plural hurbila nabarmenago ageri du hego-nafarrerak baino: *be-reon*, *oraiko aldeon*, *goizion*. Aezkoako euskararekin eta hego-nafarrera guztia-rekin batera duen tasun berezia da Zaraitzun ere baliatu den metatesi bat: *arratio* ‘arratoia’, *arrazio* ‘arrazioa’, *matio* ‘matoia’, *sario* ‘sarioa’; \**ezan*-en adizkietan pluralgilea *-it-* izatetik *-zki-* izatera iragan izanean ere, Zaraitzuko euskara, Aezkoakoa eta gainerako hego-nafarrera batera doaz, baina honetan Nafarroa Behereko eta Lapurdiko mintzo batzuk bidelagun dituzte.

13.6. Zaraitzun Nafarroa Garaiko ezaugarri ugari ageri da, baina ibarra urrun dago Iruñerrietik, erdigune nafar horretako berrikuntza ugari ez da Zaraitzuraino iritsi. Ibar honetako hegoaldeko euskararen, Itzalleko kristau ikasbideak erakusten du, Urraulgoitiko hego-nafarreratik zaraitzuerara dagoen jauzian halako elkargune edo bateratzea gertatu zela eta Itzallen ezaugarri mixto edo hibrido batzuk ageri direla, Zaraitzuko iparrean, Otsagabia batean, esaterako, ageri ez direnak. Aipatu dotrina Benito Gilek 1727an idatzi zuen, ez da atzo goizekoa eta behin baizik ez da argitara eman.<sup>79</sup>

#### 14. Aezkoako mintzoa

14.1. Aezkoa ibarreko *uskara* galbidean da egun, herri gutitan gordetzen da bertako mintzoa; adineko jendeak dira ongi mintzatzen dakitenak: Abaurregainean, Arian eta Hiriberrin hitzunak gelditzen dira; ale bakan baizik ez Garraldan. Ez dago literatura idatzirik Aezkoako euskararen eta dagoen ahozko apurra, gainbehera, galera eta ahanzkortasun kolektiboaren azken arrastoa da, ia ez da kantu edo koplarik gorde, xahar bakan batzuek baizik ez dituzte go-goan; iraganeko berri jakiteko, XVIII-XIX. mendeetako kristau ikasbideetara jo behar dugu, ez dago besterik; XX. mendearen hasieran Azkuek bildu ipuin zenbait ere badugu (1927), baina ezin hartuko dugu corpus hori zahartzat.

14.2. Mintzo honen sailkapena auzibide izan da gurean. Aingeru Irigarai euskaltzainari iruditzen zitzaionez “el aezcoano [es] en efecto, rama de origen vasco-francés bajo-navarro”; cf. Julio Caro Baroja (1946: 21). Bonapartek ere mendebaleko behe-nafarreraren barranean kokatu zuen ibar menditsu honetako mintzoa. Gure ustean, ordea, Aezkoako euskararen egitura osotasunean aintzat hartuz gero, Estellerritik Abaurregaineraino hainbat ezaugarri bateratzaile darabiltza hego-nafarrerak, eta Aezkoa azpidialekto horren saihetsean

<sup>79</sup> Cf. R. M. Pagola, I. Iribar, J. J. Iribar (1997); *Izal* ikustean, *Izal[zu]* dela pentsaturik, argitaratzaileek Zaraitzuko Itzalle herria Itzaltzu bilakatu dute makur.

kokatzen da; saihetsean, bai, baina barrenean. Hego-nafarrera deitzen dugun azpidialekto horretan, Oltza-Goñerritik ezker eta Eguesibartik eskuin bi azpidialektal handi sumatzen ditugu guk.

14.3. Aezkoa ibarra Ipar Euskal Herritik hurbil dagoenez eta gizarte-errutinizazio jakin batzuk garatu eta bizi izan dituelako, hainbat aipamen egin daitezke mintzo honetaz:

14.4. Berezko ezaugarri guti ditu eta dituen guti horiek banatzaileak dira, ez dira Aezkoaren osotasunean baliatzen: iraganeko adizkietan *-e* morfema garatu du analogiaz eta *nakoe* ‘nion’, *zakoe* ‘zion’ edo *zaugue* ‘zigun’ erakoak eragin, baina bilakabidea ez da nagusitu; Aria herri koxkorrean berranalisia dugu *sugei* ‘suge’, *iztartei* ‘iztarte’, *gaztei* ‘gazte’ adibideetan. Berebat, Azkuek xx. mendearen hasieran aurkezten zuen *au* > *ou* aldaketa estigmatizatua ere aipa daiteke, egun ere gramatikako azpiatal batzuetan eta herri batzuetako hiztun batzuegan dirauena, baina herri guztietan ez, funtsean Hiriberrin.

14.5. Ipar Euskal Herrian sortu diren ezaugarri berri zenbait Aezkoaraino iritsi dira, baina ez dira Aezkoatik ezkererat dauden ibarretako euskararen ageri: bada despalatalizazioaren aztarna zenbait adibide jakin batzuetan Aezkoan, baina hauek ez dira Erroibarra iritsi; bestalde, Hego Euskal Herriko eskualde ia gehienetan ez bezala, Aezkoan xuketan egiten da, alokutiboa ez den xuketan: *xu xira* edo *xuk duxu* aise entzunen dugu, baina ez dugu *\*\*dioxu* ‘diagoxu’ edo *\*\*diaxu* ‘doaxu’ erako adizkirik entzunen; berebat, *naiz* > *niz*, *nau* > *nu* erako monoptongazioak, jatorria Ipar Euskal Herrian dutenak, azken mendeetan Aezkoan baliatu direla dakigu, xviii eta xix. mendeetako erlijiozko idazkiak lekuko, baina ezaugarri honetaz ez dugu lehenagoko berririk.

14.6. Hegoaldeko Pirinioetako hiru ibarretako berrikuntza zenbait ageri dira Aezkoan, baina ez dute emankortasun handirik gramatikan, ez dira salbuespenik gabeko bilakabide sistematikoak: *-ara* adlatiboa *iduzkiára* ‘eguzkitan’ edo *itzalára* ‘itzalean’ erabileran; *-ari egon* esaera eguraldi gaiegan: *aizeari dao* ‘eguraldi haitzetsua dago’, Zaraitzun jarraipena duena: *eu-riari diok* bildu genuen Jaurrietan 1995ean; *laronbata* erako *u* > *o* aldaketa ageri da adibide sorta llabur batean eta halako dinamika txandakatzailea sortu du *u* eta *o* bokalen artean: *burtzinda* & *bortzinda* ‘gortxinga’, *giltzurrun* & *biltzurrun*, *etxukandre* & *txokandre* ‘etxeakoandrea’, *burrusta* & *borrusta*, *komuski* & *komoski* ‘komunzki’; *arranta* ‘arranta’;<sup>80</sup> *oi* > *ei* disimi-

<sup>80</sup> Erronkarin ere baziren *u* eta *o* arteko nahasketak: *xardoki* ‘jardun’, *eroki* ‘eduki’, *bizpor* ‘bizpahiru’ (Mendiatxa, 63), *iror* & *irorgarnen* ‘hiru & hirugarren’; Ricardo Gomezek xviii.

lazioa ere bada hitz batzuetan:<sup>81</sup> *eino* ‘oraino’, *Jangeiko*, *Ordeikoa* ‘Ordo-(k)ikoa’; *-n* pleonastikoa gertatu da nokako adizki batzuetan: *nagun* ‘dinagu’, *xakarranoun* ‘zekarrenagu’.

14.7. Nafarroa Garaiko erdigune euskaldunean hedadura zabala erdietsi duten zenbait berrikuntza badira, ekialdeko saihetsetara iritsi ez direnak; Erronkariri eta Zaraitzuri gertatu bezala, erdigune horretarik kanpo gelditu da Aezkoa ibarra ere, honako ezaugarriak falta baititu: ez dago goiko bokalek eragin *-a*-ren asimilaziorik; Erroibarren eta erdiguneko Nafarroan hedatu den *erte* ‘arte’ aldaera asimilatua falta da, ez da bertan ageri; berebat, \*\**iyán* edo \*\**iyande* bezalako hitz jakin batzuetan kontsonante belar igurzkarian Nafarroa Garaiko erdigunean gertatu den palatalizazioa falta du Aezkoako mintzoak.

14.8. Honek guztiak ez du adierazten ez litzatekeela interesgarri Aezkoako lexikoa eta Baxenabarrekoa alderatzea eta ikertzea; fauna eta flora alderdi semantikoetako franko izen, zeinetarik anitzek zaharrak izan behar baitute, mendiz bi aldeetan ageri zaigu; hain segur, balizko ikerketa saio horrek, Pirinioez bi alderdietara dauden ibar hauen arteko iragan aski zaharreko hizkuntza-erlazio eta lotura zenbait erakutsiko lituzke eta euskal lexikologia urrats bat aitzinera ekarriko; dena den, Orpustan (2006)koa baino eginahal handiagoa beharko du izan.

## 15. Ondorioak

Aurkeztu berri dugun panorama honek, Euskal Herriko ekialdeko geografian gaindi frankotan errepikatzen diren erlazio eta ezaugarrien konbinazioak erakutsi dizkigu:

- Ez dago ekialdeko ibar guztietara iristen den ezaugarri berri eta sistematiko ugariaren konbinazio sendo bat, “ekialdeko euskalkia” justifika lezakeenik; balizko eredu panekialdeko horri bestelako konstelazio ba-

---

mendekotzat jotzen duen katixima batean, *irur* & *iror* txandaketa ageri da (1991: 419). Ez dakigu ondoko adizkiok bilakabide honen zaku berera ekar ote daitezkeen: *nai noke* ‘nahi nuke’ (71), *ál banoke* ‘ahal banu’ (79); \**edun* erroaren bokala beharrean, iduri luke \**iron*-en bokala iragazi dela. Aldiz, “alor” orokorra *alur* egiten zen Erronkarin eta inoizka Zaraitzun; Mitxelelak *lur*-en gurutzaketaren aukera aipatu zuen (1954: 130).

<sup>81</sup> Erronkari ibarreko Burgiko auzi batean *Janguycoaz* ageri da, baina “-oi-” duen adibiderik ez da falta; Erronkariri dagokionez, *oĭ* > *eĭ* bilakabidearekiko 1596 urtea *terminus ante quem* joko genuke.



tzuk nagusitzen zaizkio, ibar geografikoekin ertsi loturik daudenak, eta horietan eratu dituzte atalak artikulu honetan.

- Zuberoako tasun bateratzaile anitzek ibarreko mugak gainditzen dituzte: esaterako, 8. atalean ezaugarri ugari daude, Zuberoa eta haren ezkerreko edo peko ibarretara hedatzen direnak; hogeita hamasei tasun zenbatu ditugu, baina ez dugu saila agortu.
- Hizkuntzaren aldetik ekialdeko gunegunean dago Zuberoa eta ekialdean hedadura zabalean duten ezaugarriak, Xiberura elkarrekin biltzen dira beti: ekialde zabalean jo ditugun 8. ataleko tasunak, ez dira Zuberoa, Amikuze, Erronkari eta Zaraitzu ibarretara denak batera biltzen, Zuberoara baizik ez dira guztiak batera biltzen eta hartara, ezaugarriok ondoko ibarretara ere barreiatu izanak ez du Zuberoak erkidego gisa izan duen nortasuna eta batasuna estalgunean uzten, izan ere, 8. ataleko tasun horiekin batera, 9. atalean aurkeztu ditugun ezaugarri xiberutar eskusiboak ere bateratzaile dira, Zuberoa guztikoak baitira, eta *zuberera* dialektoaren estatusa eta hierarkia bermatzen dute: tasun horien guztien konbinazio jori horrek *zuberera* euskalkiaren batasuna bermatzen du.
- Baxenabarre orokorrarekin ez doanean, Zuberoarekin batean doa Amikuze.
- Zaraitzu ibarreko mintzoa nafarrera orokorrarekin ez doanean, ekialde-bera begira dago eta Erronkarin baliatzen diren hainbat ezaugarri partekatzen ditu; hainbat tasunetan Zuberoa ere kide dute bi ibar hauek.
- Erronkari hein batez Zaraitzuri loturik dago, baina Zuberoako mintzoarekin ere ezaugarri anitz partekatzen du: bai arkaismoak, bai hau-tuak, baita berrikuntza zaharrak ere.
- Badira Erronkarik eta Zuberoak partekatzen dituzten hainbat berrikuntza eta hautu, amikuztarrek ere ibiltzen dituztenak, baina Zaraitzun baliatzen ez direnak. Errealitate hau ez da inolaz ere kontraesana, historia kiribildu, bihurri eta aberatsaren emaitza konplexua baizik; gainera, ez da ahortzi behar hein batez Nafarroa Garaiko erdigunetik Zaraitzu Erronkari baino hurbilago dagoela.
- Erronkarik, Zaraitzuk eta Aezkoak berrikuntza eskusibo guti partekatzen dituzte.
- Aurkeztu dugun ekialdeko hizkuntza-gune nagusi horretarik kanpo gelditzen dira Aezkoa eta Baigorri ibarrak ezaugarri gehienetan. Baigorriko mintzoak Lapurdi aldekoa jotzen du eta Aezkoak hego-nafarre-

rari loturik dago, baina Baxenabarretik hedatu diren zenbait ezaugarri berri Aezkoan baliatzen dira.

- Konbinazio gehiago ere egonen da, baina datu eta ikerkuntza gehiago beharko litzateke sumatu ahal izateko, ahalaz hizkuntza-ezaugarrien izaera kronologikoaz ere arduraturik.

Hona ekarri ditugun datu eta adibide franko lehen ere ezagunak dira, baina ekarri dugu gauza berririk ere. Saio honen helburua, eskualde zabal honen guztiaren hizkuntza-ikuspegi orokor eta bateratua eskaintzea izan da. Alta, datu, emaitza, argibide eta ikerketa berriek, ikusmira finago, sakonago, abstraktuago eta sintetizatuagoa ekarriko digute.

## Bibliografia

Agirre, P., 1996, *Athanase Belapeire: Catechima laburra (1996). Autorearen garaia, nortasuna eta idazlanak. Grafiak eta fonologia. Edizio kritikoa eta hiztegia*, UPV/EHUko tesi argitaragabea.

Alvarez, J. L., 1977, “L’emploi de l’indéfini en souletin (à travers l’oeuvre du poète Etxahun)”, *FLV* 25, 29-55.

—, 1980, “Zubererazko transkribaketa bat”, *FLV* 34, 29-36.

Arana, A., 2001, *Zaraitzuko hiztegia. Zaraitzuera - Euskara batua. Euskara batua - Zaraitzuera*, Nafarroako Gobernua & Hiria, Iruñea & Alegia.

Aranzadi Zientzia Elkarte, 1990, *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa [EAEL]*, Aranzadi, Donostia.

Artola, K., 1977, “Erronkariko uskararen azken hatsak... eino’re!!”, *FLV* 25, 75-107.

—, 1980, “Erronkariko «uskara»ren azken hatsak... oraino’re!”, *FLV* 34, 49-85.

—, 1991, 2000, “Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra”, *FLV* 58, 247-281; 85, 487-512.

—, 2002-06, “Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak”, Eaurta, Otsagi, Ezkaroze, Orontze, Espartza eta Ibiztako transkribapenak hamar ataletan, *FLV*.

Arxu, J.-B., 1979 [1868], *Bi mihiren gramatika. Uskara eta frantsesa*, Hordago, Donostia.

- Azkue, R. M., 1927, “Aezkera edo Petiribeño inguruetakoko mintzaera”, *Euskera* 8, 179-300.
- , 1931, “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera* 12, 207-406.
- Barandiaran, J. M., 1982-83, “Materiales para un estudio etnográfico del pueblo vasco en Urepel. Año 1948”, *Anuario de Eusko Folklore* 31, 9-30.
- Britain, D., 2004 [2002], “Space and spatial diffusion”, in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change*, Blackwell, Malden, MA-Oxford, 603-637.
- Bynon, Th., 1981 [1977], *Lingüística histórica*, Gredos, Madril.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2004, “Nafarroa Behereko euskara”, *FLV* 97, 445-486.
- , 2008, “Nafarroa Behereko euskara zaharra”, *ASJU* 42/1, 101-169.
- , 2009, “Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan”, *FLV* 111, 153-218.
- , argitaratzeko, “Hizkuntza-aldakortasunari Amiküzetik so”, *Lapurdum*.
- Caro, J., 1946, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca.
- , 1984 [1971], *Los vascos*, Istmo, Madril.
- Casas, J. M. & Abascal, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Nafarroako Gobernua & CSIC, Zaragoza.
- Coyos, J. B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité*, L'Harmattan, Paris.
- , 2001, “A propos de *Les emprunts de la Langue Basque à L'occitan de Gascogne*”, *Lapurdum* 6, 391-419.
- , 2006, “L'apport lexical de l'occitan gascon béarnais au basque souletin: recherche des champs conceptuels”, *BMB*, hors série, 201-223.
- Davant, J.-L., 2009, *Zuberoako literaturaz. Antologia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Esarte, P., 1983, *Alduide, corazón de Navarra*, Iruñea.

- Estornés, J., 1984, "Mendigatxak Azkueri kartak 1902-1916 eta Erronkariko uskaratik utzulpen ta goarpenak", *FLV* 43, 55-127.
- , 1985, "Zoilo' ren uzta. La cosecha de Zoilo", *FLV* 45, 31-93.
- Estornés, B., 1997, *Diccionario español - uskara roncalés. Erronkariko uskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Etxebarria, J. M., 1994, "Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental", *Mundaiz* 47, 45-75.
- Etxegoien, J., 2009, *Privilegios y fueros del valle y universidad de Aezkoa en el reyno de Navarra. 1169-1229-1782-2009*, Irati Bortuak Elkarte & Aezkoa Kultur Elkarte.
- Etxegorri, Ph., 2003, "Jeruntzeko üskara. Ekialdeko euskara", *FLV* 93, 247-286.
- Fairén, V., 1955, "Sobre las facerías internacionales en Navarra", *PV* 61, 507-524.
- Gaminde, I., 1995, "Zubereraren azentuaz", *Uztaro* 13, 107-128.
- Gèze, L., 1979 [1873], *Éléments de grammaire basque*, Hordago, Donostia.
- Gómez, R., 1991, "Erronkariko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa", in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum, ASJU-ren gehigarriak* 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 375-426.
- Gregory, D. & Urry, J. (arg.), 1985, *Social relations and spatial structures*, Macmillan, Hong Kong.
- , 1985, "Introduction", in D. Gregory & J. Urry (arg.), 1-8.
- Haritschelhar, J., 1963, "Textes folkloriques de la vallée de Baigorry", in *Actas del tercer congreso internacional de estudios pirenaicos*, Girona, 1958, Instituto de Estudios Pirenaicos & CSIC, 51-73.
- , 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Hualde, J. I., 1993, "Topics in Souletin Phonology", in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 289-327.
- , 1998, *Euskararen azentuerak, ASJU-ren gehigarriak* 42, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo & Donostia.

- Irizar, P., 1992, *Morfología del verbo auxiliar roncalés*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2002, *Morfología del verbo auxiliar suletino*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- Izagirre, K., 1959, 1961, “Erronkariko euskal-ondakin batzuk”, *BAP* 15, 279-314; 17, 391-407.
- Karrika, B., 1990, *Armendaritze haur begiez*, Auspoa, Tolosa.
- Lacombe, G., 1971-72, “Notes sur le basque des Aldudes. Noms de maisons, mots et récits populaires”, J. M. Barandiaran (arg.), *Archivo de Eusko Folklore* 24, 25-44.
- Larrasket, J., 1934, *Le Basque Souletin Nord-Oriental*, Maisonneuve, Paris.
- , 1939, *Le basque de la Basse-Soule orientale*, Klincksieck, Paris.
- Loidi, A., 2004, “Antiokiako San Julianen pastoralara (1770)”, *ASJU* 38/1, 1-133.
- Lopez-Mugartza, J. K., 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- Maister, M., 1758, *Jesu-Kristen imitacionia*, T. Kempisen lanaren itzulpena, Dugue & Desbaratz, Pabe.
- Manterola, J., 2009, “-a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan”, [artxiker.ccsd.cnrs.fr](http://artxiker.ccsd.cnrs.fr)
- Mitxelena, K., 1954, “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”, *Via Domitia* 1, 123-157. Ikus orain *SHLV*, 273-297.
- , 1961-62, “Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)”, *PV* 82-83, 65-74. Ikus orain *LH*, 446-457.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia. Ikus orain *SHLV*, 1-73.
- , 1967, “Notas fonológicas sobre el salacenco”, *ASJU* 1, 163-177. Ikus orain *PT*, 221-234.

- , 1985, *Lengua e Historia* [= *LH*], Paraninfo, Madril.
- , 1987, *Palabras y textos* [= *PT*], UPV/EHU, Leioa.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca* [= *SHLV*], *ASJU*-ren gehigarriak 10, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , *et al.*, 1953, “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”, *BAP* 9, 499-536.
- Moulton, W. G., 1987, “Bloomfield as dialectologist”, in R. A. Hall, Jr. (arg.), *Leonard Bloomfield. Essays on his Life and Work*, Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 139-154.
- Mounole, C., 2004, “Zubererazko herskarien azterketa akustikoa”, *ASJU* 38/1, 207-248.
- Oihartzabal, B., 1997, “Hiru aditz aurrizki zahar 16. mendeko testuetan”, *Lapurdum* 2, 45-62.
- Oihenart, A., 2003, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*, P. Altuna & J. A. Mujika (arg.), Iker 15, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Oñederra, M. L., 2009, “Diacronía y explicación fonética”, in F. Sánchez Miret (arg.), *Romanística sin complejos. Homenaje a Carmen Pensado*, Peter Lang, Berna, 47-67.
- Orpustan, J.-B., 2006, “Noms basques des plantes, champignons et animaux d'Irati. Iratiko landare, onddo eta ihizien izenak euskaraz”, *BMB*, hors série, 139-162.
- Otsibar, K., 2003, *Lehenago Gamere*, Sü Azia, Maule.
- Pagola, R. M., Iribar, I. & Iribar, J. J., 1997, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Zaraitzera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Peillen, Tx., 1979, “Expression de la connotation ironique au niveau phonologique dans le basque de la Haute Soule”, *FLV* 32, 237-241.
- , 1981, “Zuberoako gobernu hizkuntzak eta gure herri hortako euskalkiaren erdal maileguak”, in *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker 1, Euskaltzaindia, Bilbo, 405-411.
- , 1984, “Zuberoako euskalkiaren, Basaburuko motaz, ohar batzu”, *Euskera* 29/1, 249-254.
- , 1985, *Animismua Zuberoan*, Haranburu editorea, Donostia.

- , 1986a, *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak*, Haranburu editorea, Donostia.
- , 1986b, “El castellano y lo español en la provincia de Sola o Zuberoa”, *FLV* 47, 99-114.
- , 1992a, “Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk”, in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 247-272.
- , 1992b, “Aintzinako zubereraren aztarna batzu”, *FLV* 59, 97-117.
- , 1994, “Les langues de la Soule”, in P. Bidart (biltz.), *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 259-274.
- , 1998, *Les Emprunts de la Langue Basque à L’occitan de Gascogne*, Uned, Madril.
- Pred, A., 1985, “The social becomes the spatial, the spatial becomes the social: enclosures, social change and the becoming of places in Scåne”, in Gregory & Urry (arg.), 337-365.
- de Rijk, R., 1999, “Zuberoa Garaiko mintzaeraren eredu bat”, *FLV* 80, 155-163.
- Salaburu, P. 1987, “Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat”, *ASJU* 21/2, 453-473.
- Satrustegi, J. M., 1987, *Euskal testu zaharrak I*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- Urzainqui, T., 1975, “Aplicación de la encuesta etnológica en la villa de Urzainqui (Valle de Roncal)”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 19, 51-82; 20, 183-222.
- Xamar, 2006, *Euskara jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*, Pamiela, Iruñea.
- Zelaieta, E., 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, Bilbo & Iruñea.
- Zuazo, K., 1989, “Zubereraren sailkapenerako”, *ASJU* 23/2, 609-650.
- , 1999, “Baigorriko euskara kokatzeari buruz”, *Lapurdum* 4, 247-277.

# Els dialectes dels Pirineus centrals i la qüestió de les relacions interlingüístiques

JORDI SUÏLS

Universitat de Lleida

## 0. Introducció

La lingüística diacrònica en els estudis romànics s'ha ocupat preferentment dels trets definidors de les varietats com a entitats separades, què els ha conferit caràcter diferenciat, en quin moment podem situar-ne el “naixement”, de quan daten els primers documents escrits que els podem atribuir, etc. La facilitació que suposa el coneixement que tenim del llatí ha marcat un camí clar en el sentit que hi havia un punt d'origen i múltiples vies de diferenciació, i secundàriament s'ha fet atenció a les subagrupacions, en una discussió que, en deixar l'àmbit de les varietats individuals, prenía un enfocament “macro” no exempt de factors aliens a la disciplina i que ha pogut dur a afirmacions que entraven en controvèrsia amb el nivell anterior. Per exemple, hom ha pogut defensar l'existència d'una certa frontera entre Romània oriental i occidental (el conegut feix d'isoglosses entre La Spezia i Rimini) sense contradicció aparent amb el fet que en una i altra banda d'aquella línia s'hi parlés una mateixa llengua; sembla, doncs, que la dialectologia és la font que aporta dades per a un cert nivell d'anàlisi, però amb aquest nivell no sempre s'hi acorda la visió filològica, que a vegades parteix d'una concepció ben diferent del que és la llengua. Semblantment, hom s'ha ocupat de comparar llengües diferents per tal de constatar-ne el grau de semblança o de divergència, però l'operació s'ha fet sovint sobre les respectives varietats literàries, la qual cosa resulta en una certa parcialitat. Això es fa sentir especialment en les varietats minoritzades, com ara les que són encara vives en l'àmbit pirinenc, i ho podem constatar en el cas de l'occità i del català. No cal ací recordar el debat sobre la filiació del català, bé amb un cert grup iberoromànic, bé amb un altre de gal·loromànic, o com a pont o “embrancament” entre tots dos àmbits. Aquest debat ha fet la seua aportació, però ara per ara es pot considerar esgotat (algunes referències es poden trobar a Sanchis Guarner 1980: 18 i seg.).



Hom havia sostingut, en altres moments, les remarcables semblances entre català i occità, i doncs havia estat suggerida una hipòtesi en el sentit que serien quasi dominis dialectals d'una sola llengua. Aquesta idea no va tindre veritable ressò més enllà del debat que apuntàvem més amunt, entre uns filòlegs més ocupats a aprofitar les pobres possibilitats reals de dignificació de la llengua, possibilitats que passaven per veure'n reconegut el caràcter autònom.

Tanmateix, en un sentit sincrònic no ha deixat de despertar interès la recerca de coincidències entre català i occità, i de fet no queda ben resolta encara la qüestió de la gènesi, més o menys compartida, d'una i altra llengua. Les connexions entre ambdós dominis no deixen de ser defensables en un hipotètic període constitutiu, on l'àmbit territorial de formació del català s'havia de situar en l'àrea septentrional de l'actual domini. Hom para esment a les remarcables semblances que avui trobem entre el català septentrional i les varietats occitanes veïnes, tal com exposa sumàriament Sanchis Guarner (1980: 2 i seg.) a partir de les evidències que assenyanla Guiter (1966). En essència, la frontera més clara entre un i altre domini ve assenyalada per l'extensió de /y/ (corresponent a Ū llatina) per a l'occità, absent en català, i per l'extensió de /λ/ corresponent a L llatina inicial per al català, absent en occità. Altres trets són menys determinants, i ho vull indicar a partir del llistat que Sanchis Guarner mateix n'aporta, on s'esmenten fenòmens de fonètica històrica que caracteritzarien l'occità i que serien absents en català:

1. No reducció de AI i AU llatins (occità *mais, fait, lait, aur, gaug, pauc*; català *més, fet, llet, or, goig, poc*) i manteniment del diftong -ièr provinent de -ARIU (occità *prunièr, febrièr, figuèra*, català *pruner, febrer, figuera*);
2. Estadi diferent en la diftongació condicionada de Ě i Ŏ llatines (occità *liech, mieg, sièis, uelh, luenh, puèg*, català *llit, mig, sis, ull, lluny, puig*);
3. Conservació de sibilant sonora resultat de -C(+E, I)- i -TĪ- llatins intervocàlics (occità *vesin, cosina, rason, tison*, català *vei, cuina, raó, tió*);
4. Caiguda de -D (occità *pè, véser, ríser*, català *peu, veure, riure*);
5. Resultat -tz (amb realitzacions fricatives o africades) de les finals -C(+E, I), -TĪ i la desinència verbal -TIS (occità *patz, dètz, crotz, prètz, disetz, avetz*, català *pau, deu, creu, preu, dieu, haveu*);
6. Conservació de -n (occità *cançon, vin, camin*, català *cançó, vi, camí*);
7. Desgeminació de LL i NN sense palatalització (occità *bela, caval, castel, cana, cabana, an*, català *bella, cavall, castell, canya, cabanya, any*);

8. Conservació de -MB- i -ND- (occità *comba, colomba, lomb, benda, mandar, onda*, català *coma, coloma, llom, bena, manar, ona*);
9. Resultat regular -ir- de -TR- intervocàlic (occità *pèira, laire, veire, paire, Peire*, català *pedra, lladre, vidre, pare, Pere*);
10. *Pèrdua* de -/w/ darrere velar (*quatre, gardar*, pronunciats [ˈkatre] i [garˈda] en occità, [ˈkwatre] i [gwarˈda] en català).

D'entrada, notem que el procediment tradicional ha estat el contrast en base a trets fonètics, més fàcilment tractables en una projecció diacrònica, mentre que morfologia i sintaxi han estat menys observades i el lèxic és de més mal sistematitzar i més donat al préstec interlingüístic (tot i això, cal tindre ben presents aportacions diverses: la part dedicada a lèxic de Rohlfs 1977; Schmitt 1934; Winkelmann & Egert 1986; o altres de més puntuals com Gargallo 1989). Aquest punt també té les seues excepcions: Allières (1989) fa una comparació entre les morfologies verbals catalana i occitana, però tanmateix no deixa de ser un exemple de com el fet de partir de varietats literàries (diguem-ho així) du a una conclusió excessivament simple; Colon (1978) i Veny (1980) mostren la necessitat de tindre en compte l'occità en observar el català, tant pel que fa a gramàtica històrica com a geolingüística; Martínez Arrieta & Sumien (2006) apunten més explícitament que la consideració del contrast entre àrees innovadores centrals i àrees conservadores perifèriques adquireix una significació nova si es prenen occità i català conjuntament.

Dels deu trets, només alguns es poden atribuir a tot el domini, occità o català, és a dir que, en àrees importants d'aquells dominis, el contrast es donaria només per a una part del llistat. Si, a més a més, per a l'occità diferenciem entre llenguadocià i gascó, el contrast és encara menys generalitzable:

	<b>Occità llenguadocià</b>	<b>Occità gascó</b>	<b>Català</b>
1a	FAIT	HÈT	FET
1b	PAUC	PAUC	POC
1c	FEBRIÈR	HEURÈR	FEBRER
2a	VIÈLH	VIÈLH	VELL
2b	UÈLH	UÈLH	ULL
3	VESIN	VESIN	VEÍ
4	PÈ	PÈ	PEU
5	PATZ	PATZ	PAU

	Occità llenguadocià	Occità gascó	Català
6	CAMI(N)	CAMI(N)	CAMÍ
7a	BÈLA	BÈRA	BELLA
7b	BÈL	BÈTH	BELL
7c	CABANA	CABANA	CABANA/CABANYA
8a	CAMBA	CAMA	CAMA
8b	DEMANDAR	DEMANAR	DEMANAR
9	PÈIRA	PÈIRA	PEDRA
10	GARDAR	GUARDAR	GUARDAR

Kasu horretan zubererak, bakarra bada ere bere euskal eta biarnes auzoen artean, biarneraren gehiengoak bezala jokatzten du.<sup>13</sup>

— Metatesiak

Zubererak biarneraren metatesiak hartu ditu.

‘pobre’, lat. *pauper*, biarn. *praube* [práwbɔ], [práwbə], [práwba], zub. *prau(b)e* [práwe].

‘samur’, lat. *tendere*, biarn. *trende* [tr’ède], zub. *trende* [tr’ède].

Halere lat. *camera* ‘logela’ hitzarekin metatesirik ez da: biarn. *crampa*, Olorue [krámbɔ], mendiak [krámpa], Escòs [krámpə], zub. *kanbera* [k<sup>h</sup>ábéa]. Zubererak hitz hori biarnesari ez diola mailegatu ageri da.

<sup>13</sup> Jacques Allièresek fenomeno hori ‘*fonction ethno-démarcative*’ delakoaren bidez esplikatzen zuen, zuberotarrek beren auzoetatik bereizi nahi zutela esanez (1975: 177). Zubereraz *kanbera* ‘logela’ [k<sup>h</sup>ábéa] ahoskatzen da, silaba atonoa delarik.



## 5. Maileguen ahoskatzearen ereduak: latinetik biarnerara zubereraraino

Sortu eta baliatu dudan corpora eranskin baten emana da. Metodologiari dagokionez, ondorio batzuk ateratzeko nahian oraiko gauzatze fonetikoak konparatzen ditut, sinkronian. Hizkuntza batek, euskarak, beste bati, biarnerari, duela mende batzuk mailegatu zizkion hitz batzuen gaur egungo ahoskera eta hizkuntza emaile horren hitzen gaur egungo ahoskera parekatzen ditut. Halere, bilakaera diakronikoa kontuan hartzen dut ere, latinetik biarnerara pasatuz eta gero azken honetatik zubereraraino, ikerketa ezagutuenak baliatuz (Rohlf, Allières, Grosclaude).

### 5.1. Biarneratik zubererara: soinuen arteko korrespondentzia batzuk

#### 5.1.1. Bokalak

—  $[-\acute{\epsilon}] > -[\acute{e}]$  azentuduna hitzaren amaiera absolutuan<sup>14</sup>

Biarn. [menyzé], [murté] > zub. [menyzé] ‘zurgin’, [murté] ‘almaidz’, zubererak /ε/ fonema ez baitu onartzen.

Silaba itxia denean, alderantzia da: biarn. [pałét], zub. [pałét] ‘arno gorri’.

—  $[-\acute{i}], [-\acute{u}]$  azentudun begiratuak hitzaren amaiera absolutuan Zubererak ahoskera biarnesa begiratzen du eta ondorioz hitza oxitonoa da. Biarn. [kukí], zub. [kokí] *koki* ‘frikun’; biarn. *medecin* [medesí], zub. [bedezí] *bedezi* ‘mediku’. Biarn. *rason* [razú], zub. [arazú] *arrazu* ‘arrazoi’; biarn. [sabłú], zub. [jabú] *xabu* ‘xaboi’.<sup>15</sup>

—  $[-a]$  postoniko begiratuak hitzaren amaiera absolutuan

Latinaren  $[-a]$  postonikoa hitzaren amaiera absolutuan  $[-a]$  ahoskatzen da Biarnoko mendiko ibarretan zubereran bezala. Beraz Oloruen  $[-\text{ɔ}]$ , Escòsen  $[-\text{ə}]$ , mendietan  $[-a]$  badugu. Adibidez: biarn. *vaishèra* ‘baxera’, Olorue [baʃérɔ], Escòs [baʃérə], Aspeko eta Barétouseko ibarrak [baʃéra] eta Zubereroa [baʃéja]; biarn. *taula*, Olorue [táwlɔ], Escòs [táwlə], Aspeko eta Barétouseko ibarrak eta Zubereroa [táwla].

<sup>14</sup> Zubereraren azentu oxitonoaren jatorri desberdinez ikus Coyos (1999: 82-84).

<sup>15</sup> Zuberotar batzuentzat  $[-\acute{u}]$ -rekiko sudurkaritasuna ez da desagertua:  $[-\acute{u}]$ , [arrazŭ], [jabŭ].

Hau da Barétouseko, Aspeko ibarretako biarneraren eta zubereraren arteko beste hurbiltasun ezaugarri bat, Val d'Aranecko ibar arte hedatzen dena (Rohlf 1977: 5).

### 5.1.2. Kontsonanteak

#### Herskariak

— [p-] > [p<sup>h</sup>-] edo [p-] Adib.: zub. *pausada* [p<sup>h</sup>awʂáda] ‘atsedenaldi’, biarn. *pausa*, *pausesta*; zub. *pixontzi* [p<sup>h</sup>iʃũ'tsi].

— [t-] > [t<sup>h</sup>-] edo [t-] Adib.: zub. *zartan* [sart<sup>h</sup>án] ‘gartzainak erretzeko tresna’, biarn. *sartan*, *sartana*.

— [k-] > [k<sup>h</sup>-] edo [k-] Adib.: zub. *bokata* [buk<sup>h</sup>áta] ‘musuzapi’, biarn. *bugada*.

#### Frikariak

— [s] > [ʂ] edo [z]

Zubereraz [s] kontsonante frikari apiko-albeolar ahoskabea [ʂ] erretroflexu ahoskabea bilakatzen da kontsonante aurrean eta amaiera absolutuan, [z] erretroflexu ahostuna bilakatzen da bokal artean. Adib. kontsonante aurrean: biarn. *desplaser* [dɛʂplazé], zub. *desplazer* [dɛʂplazé]; biarn. *francés* [frantsés], zub. *frantses* [frantʂés]. Amaiera absolutuan: zub. *baiones* [bajunéʂ] ‘baionar’, *irus* [ijúʂ] ‘zoriontsu’. Bokal artean [-s-] > [-z<sub>ɾ</sub>-]: zub. *desonest* [dezunéʂt] ‘ohoin’.

— [-z-] > [-z<sub>ɾ</sub>-]

Bokal artean: biarn. *desencusa* [dezɛkúʂa] (Narioo), zub. *desenküsa* [dezɛkúʂa] ‘estakuru’.

## 5.2. Eratorpena: latinetik biarnerara, biarneratik zubererara

### 5.2.1. Atzizkiak<sup>16</sup>

— Lat. *-ālem*, gask. *-au* (Grosclaude).

Biarn. *-[áw]*: *espitau* [ɛspitáw] ‘ospitale’, *portau* [purtáw] ‘portale’.

<sup>16</sup> Allières (2001: 166-170); Grosclaude (2000: 43-47).

Zub. -[ále]: *ospitale* [oʃpitále], *portale* [pɔrtále].

Hemen, zuberera, beste euskalkiak bezala, biarnera baino kontserbado-reagoa da.

— Lat. *-ante*, ok. *-ant(a)* (Allières).

Biarn. -[án]: *-ant*, *-dant*, *-lant*: *franchimand* [franʃimán].

Zub. -[’át]: *arraileilant* [araʎeʎ’át] ‘erri eginarazten duena’, *frantzimant* [frántsím’át], *tratülant* [tratyl’át] / [tratal’át] ‘tratulari’.

Hemen zubererak azken silabaren amaiera absolutuan den kontsonantea begiratu du, atonoa bilakatu da biarneran. Era berean ikus beherago lat. *-ente*, ok. *-ent(a)*.

— Lat. *-āriūm*, *-āriām*, gask. *-èr*, *-èra* (Grosclaude).

Biarn. -[é]: *cautèr* [kawté] ‘galdaragile’, *menüsèr* [menyzé] ‘zurgin’.

Zub. -[é]: *kauter* [kawté], *menüser* [menyzé]. Hemen [é] biarnesa [é] bilakatzen da zubereran, silaba irekian.<sup>17</sup>

— Lat. *-āiŕcum*, *-āiŕcam*, gask. *-atge*, *-atja* (Grosclaude)

Biarn. -[ádʒe]: *coratge* [kurádʒe] ‘adoretsu’, *viatge* [bijádʒe] ‘bidaia’.

Zub. -[áze]: *bidaje* [bidáze], *kuraje* [kuáze], *mintzaje* [mintsáze] ‘hizkuntza’, eratorri mistoa (ikus 5.3.1.)

Zubererak atzizkia aldatu du pixka bat, t- kenduz bi kontsonante segidan ez izateko.

— Lat. *-ātiōne*, ok. *-ason* (Allières)

Biarn.: *rason* ‘arrazoi’, Olorue [razú], Escòs [rezũ’]; *sason* ‘urtaro’, Olorue [sazú], Escòs [sezũ’].

Zub. *arrazu* [arrazú/ũ’], *sasu* [ʃazú/ũ’].

Markatua zen sudurkaritze hori galtzen da Zuberoan.<sup>18</sup>

<sup>17</sup> *-sa* atzizki femininoaren aurrean, *-r-* ez da desagertzen, amaiera absolutuan ez baitago orduan: *ostaler* [oʃtalé] ‘aterpekide’, [oʃtalérʃa] ‘aterpekide den emakumea’.

<sup>18</sup> T. E.-E. berriemaileak, adibidez, sudurkaritzetik gabeko formak nahiago ditu: *arrazu* [arrazú], *xabu* [jabú], etab.

— Lat. *-ātu -a*, ok. *-at, -ada* (Allières),

Biarn.: Oloruen -[ádɔ], Escòsen -[ádə], ibarretan -[áda] zubereran bezala. Adib. zub. [buháda] *buhada* ‘haizekada’, [p<sup>h</sup>awšáda] *pausada* ‘atsedenaldi’, *taulada* [tawláda] ‘zola’.

Barétouseko, Aspeko ibarretako biarneraren eta zubereraren arteko hurbiltasun hori 5.1.1. lerroaldean aipatu dugu.

— Lat. *-ëllum -ëllam*, gask. *-èth, -èra* (Grosclaude, txikigarri)

Biarn. *-èth* Olure [ét], Escòs [ét], mendietako ibarrak [étʃ], zub. [étʃ]

Biarn. *mantèth* ‘eskuare’, Olorue [mátét], Aspeko ibarra eta Zuberoa [mátétʃ] ; *pastèth* ‘talo’, Olure [pastét], ibarrak [pastétʃ], zub. [paštétʃ], etab.

Barétouseko, Aspeko ibarretako biarneraren eta zubereraren arteko hurbiltasuna hor ere agertzen zaigu. Noizbehinka zuberera kontserbadoreagoa da: ‘mailu’, lat. arrunta *martellus*, zub. *marteilü* [martély], biarn. *martèth* [martét].

— Lat. *ē(n)se*, ok. *-és -esa* (Allières).

Biarn. -[és]: *baionés* [bajunés] ‘Baionar’, *francés* [frantsés].

Zub. -[éʃ]: *baiones* [bajunéʃ], *frantses* [frantšéʃ].

Hemen -[és] biarnesa -[éʃ] bilakatzen da. Bokala eta kontsonantea aldatzen dira silaba itxian.

— Lat. *-ente*, ok. *-ent(a)* (Allières).

Biarn. -[én]: *pendent* [pědén] ‘belarritako’, *regent* [rezén] ‘erakasle’.

Zub. -[ént]: [pědént] *pendent*, *errejent* [erez’ět].

Zubererak azken silabaren amaiera absolutuan den kontsonantea begiratu du, biarnerak ez.

— Lat. *-īnu -a*, ok. *-in -a* (Allières).

Biarn. *coquin* [kukí] ‘frikun’, *medecin* [medesí] ‘mediku’.

Zub. [í]: *koki* [koki], *bedezi* [bedezi].

Sudurkaritasuna desagertu da zubereran, biarneran bezala.

— Lat. *-ōsu -a*, ok. *-ós -osa* (Allières).

Biarn. -[ús]: *urós* ‘zoriontsu’, Olorue [yrús], Aspe [irús]; *coratjós* [kuradzús] ‘adoretsu’; *malurós* [malyrús] ‘zoriongabe’.

Zub. -[úš]: *irus* [ijúš], *kurajus* [kuazúš], *malerus* [maleúš].

Azentua oxitonoa gelditzen da, baina -[s] -[š] bilakatzen da, berriz.

— Lat. *-tōřium*, *-tōřiam*, gask. *-der*, *-dera* (Grosclaude, tresnentszat).

Biarn.: *bohader* [buhadé] ‘hauspo’, *eishugader* [éjygadé] ‘eskuoihal’.

Zub.: *buhader* [buhadé], *txükader* [tjykadé] ‘eskuoihal’.

Hemen atzizkiaren ahoskera aldatzen ez da.

— Lat. *-ūra*, ok. *-ura-* (Allières).

Biarn.: *frescura* [frɛskýrɔ] ‘freskura’.

Zub.: *abiadüra* [abjadýa] ‘abiadura’, *fresküra* [frɛškýa].

Ahoskera ez da aldatzen, baina zubereraren bokalarteko -[r]- bakuna mutu da.

— Lat. *-ūtu -a*, ok. *-ut -uda* (Allières).

Biarn.: *perdüt* [pɛrgýt] edo [pɛrdýt] ‘galdu’; zub.: *perdüt* [pɛrdýt]. Ahoskera ez da aldatzen.

— Aurreko lat. *-ottu -a*, ok. *-òt(a)* txikigarria (Allières 2000: 183).

Biarn.: *coquinòt* [kokin’òt], *plaçòta* [plasòtɔ].

Zub. *-ot*: *kokilot* [kokiλ’òt] ‘frikun txiki’, *plaxot* [plax’òt] ‘plaza txiki’, *tripot* [trip’òt] « odolki ».

Ahoskera ez da aldatzen.

### 5.2.2. Aurrizkiak (Allières 2001: 190)

— Lat. *dis-*, ok. *des-*, izen, aditz eta adjektiboentzat.

Biarn.: [dɛs]-, [dez]-; zub. [dɛš]-, [dez]-: [dézobedj’èt] *desobedient* ‘desobeditzaile’, [dézunéšt] *desonest* ‘ohoin’.

Noiztenka Olorueko hizkeran *mal-* [maw] aurrizkia gerta daiteke *des-* horren orde zubereraren. Zub. [dézunéšt] eta ez Olorueko [mawawnéste] *mauauñeste*, edo alderantzia, zub. [maleštrýk] *malestrük* ‘trakets’ eta ez Olorueko [dezɛstrýk] *desestruc*.

— Lat. *male-*, ok. *mal-*,

Biarn.: [maw]- ; zub. kontserbadorea [mal]-: [maleŝtrýk] *malestrük*.

### 5.3. Zubereraren eratorpenaren eta hitz-elkarketaren adibide batzuk

#### 5.3.1. Eratorpena: aurrizkiaren edo atzizkiaren mailegatzea bakarrik

[bidáze] *bidaje* ‘bidaia’: *bide* euskal izena + *-atge* ekintza-atzizki gaskoia; [mintsáze] *mintzaje* ‘mintzaira, hizkuntza’: *mintza-tü* euskal aditza + *-atge* atzizki gaskoia.

[dezopilatý] *desoropilatü* ‘deskorapilatu’: *des-* aurkako edo ezeztapen aurrizki gaskoia + *oropila* ‘korapilatu’ euskal aditza aurkako aditza egiteko.

[ematʃɔt] *ematxot* ‘emakume txiki’: *emazte* ‘emakume’ euskal izena + *-òt* atzizki txikigarri gaskoia, [hawr'ɔt] *haurrot* ‘haur txiki (peioratibo)’: *haur* euskal izena + *-òt* atzizkia

[gesyrter] *gezürter* ‘gezurti’: *gezür* « gezur » euskal izena + *-ter* atzizki ez ezaguna.

[ogënd'át] *ogendant* ‘ogendun’: *ogen* euskal izena + *-dant* atzizki gaskoia.

#### 5.3.2. Eratorpena: euskal atzizkia hitz mailegatuarekin

[arnegári] *arnegarri* ‘aspergarri’: *arnegar* ‘irain egin, uko egin’ aditz gaskoia + *-garri* euskal atzizkia, adjektibo bat konposatzeko ; *xarmagarri* ‘liluragarri’.

[fajsúsy] *faizuzü* ‘manière’: *faizu* ‘molde, era’ hitz gaskoia + *-zü* oparotasun euskal atzizkia, adjektibo bat konposatzeko ; [ped'ɔltsy] *pedoiltzü* ‘zorritsu’: *pedolh* ‘zorri’ hitz gaskoia + *-zü* oparotasun euskal atzizkia, adjektibo bat konposatzeko.

[muŝurkátý] *musurkatü* ‘muturrekin miatu (txerri)’: *mus* ‘mutur’ hitz gaskoia + *-ka* euskal ekintza atzizkia, aditz bat egiteko.

[ménŝty] *menstü* ‘ergeldu, zozo’: *ments* ‘eskas, gutxi’ hitz gaskoia + *-tü* euskal amaierazko aditz-atzizkia, aditz bat egiteko.

[pītukáj] *pintukari* ‘ardoziale’: *pintu* ‘pinta, txopin’ hitz gaskoia + *-kari* euskal atzizkia, izen bat konposatzeko.

## 5.3.3. Hitz-elkarketa bi hizkuntzen hitzak baliatuz

[p<sup>h</sup>iʃũ'tsi] *pixontzi* 'pixontzi': *pixa* euskal izen edo gaskoia + *ontzi* euskal izena; [p<sup>h</sup>iʃap'ɔt] *pixapot* 'kalakari' zentzu eratorria, *pixa* + *pòt* izen gaskoia.

[móʂkofí] *moskofi* 'mokofin': *mosko* 'moko' euskal izena + *fi* 'fin' adjektibo gaskoia; [mýt<sup>h</sup>yrfí] *mütürfi* 'mokofin' ere bai, *mütür* 'mutur' euskal izena + *fi* « fin ».

[kũ(n)treʃílo] *kuntrexilo* 'oker (irentsi)': *kuntre* 'aurka' preposizio gaskoia + *xilo* / *zilo* 'zulo' euskal izena.

[ádarpalét] *adarpalet* 'adar saihestuekiko behi': *adar* euskal izena + *palét* 'adar zapalduekiko behi' biarnes izena (Simin Palayen hiztegia 1932-1934).

[eʂkymátʃú] *eskümantxo* 'eskularru': *eskü* « esku » euskal izena + *mantxo* 'zorro' biarnes izena.

## 6. Ondorioak

Zubererak bi aurkako jarrera izan dituela esan dezakegu, biarnerari, gaskoiari mailegatu dizkion hitzekin. Alde batetik hartu dituen hitzak bere fonologiari moldatu ditu: [p<sup>h</sup>], [t<sup>h</sup>], [k<sup>h</sup>] herskari hasperendunak, /ʃ/ eta /z/ apikorhorkari erretroflexuak baliatuz, adibidez. Bestetik ezagutzen ez zituen beste ezaugarri fonetikoak ziren bezala hartu ditu: mailegatu zituen biarneraren azentu oxitonekiko hitzak oxitonoak gelditu dira, halaber mailegatu zituen atzizki oxitonoak eta metatesiak. Baina [ɛ] amaiera absolutuan ez du onartu, adibidez, halaber [ɔ] edo [ə].

Ikerketa honen beste ekarpen garrantzitsu bat da Aspeko edo Barétouseko ibarretako biarnera Biarnoko hizkeretatik hurbilena zaiola zubererari: [ʒ]-ren erabiltea [j]-ren ordeztu, [-tʃ] afrikaria hitzaren amaiera absolutuan [-t]-ren edo [-tʃ]-ren ordeztu, latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan begiratzeari, etab. Noiztenka, hurbiltasun hori Ossau eta Pirinio Garaietako ibarretako hizkerari hedatzen zaie. Hurbiltasun hori ikerketa sakon baten bidez ikerzteko litzateke.

Dena den hurbiltasuna ez da baizik geografiari lotua, zeren eta ez da agertzen Zuberoa ukitzen duen zelaiko Biarnoan. Orotara euskararen eragina, alde batetik substratu gisa eta bestetik ukipen-hizkuntza gisa, susma dezakegu Biarnoko ibar horietan.

## Eranskina

## 1. Latin klasikoari, latin arruntari edo erromantzeari ustezko lexiko mailegatua : zuberera « kontserbadore / kontserbadoreago »

Latina <sup>1</sup>	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa <sup>2</sup>
<i>angelu</i>	<i>aingeru</i>	[aŋgý] <i>aingürü</i>	[ándzu]	/ándu/ <sup>3</sup>	<i>anjo</i>	<i>ange</i>
<i>aprilis</i>	<i>apiril</i>	[ap <sup>h</sup> íl] <i>apiril</i>	[abríu]		<i>abriu</i>	<i>avril</i>
<i>rastellu</i>	<i>eskuare</i>	[araštély] <i>arrastelü</i>	[arrastét]	/aRestét/	<i>(ar)rastèth</i>	<i>râteau</i>
<i>fäba</i>	<i>baba</i>	[bába] <i>baba</i>	[hábo] <sup>4</sup>	/hábo/	<i>hava</i>	<i>fève</i>
<i>fagus</i>	<i>pago</i>	[bágo] <i>bago</i>	[hak]	/hak/	<i>hac</i>	<i>hêtre</i>
<i>fiesta</i>	<i>jai</i>	[béšta] <i>besta</i>	[héstɔ]		<i>hèsta</i>	<i>fête</i>
<i>voce</i>	<i>ahots</i>	[bɔts] <i>botz</i>	[buts]	/buts/	<i>votz</i>	<i>voix</i>
<i>cælum</i>	<i>zeru</i>	[sély] <i>zelü</i>	[sɛw]	/sɛw/	<i>cèu</i>	<i>ciel</i>
<i>camera</i>	<i>ganbera</i>	[k <sup>h</sup> ábéa] <i>kanbera</i>	[kránbo]	/krámpə/	<i>crampa</i>	<i>chambre</i>

<sup>1</sup> Hitz latino lau iturriren arabera emana da eta hoi en artean korrespondantziarik ez dago beti: M. Grosclaude (2008), Hourquebie (1982) eta Pinque (1982), urriago Félix Gaffiot (1964) bokal labur eta luze aipatzen dituen eta Laroussen *Dictionnaire de la langue française Lexis*.

<sup>2</sup> Euskara batuan eta frantsesean emana den adiera da zubererarena edo hurbilena, eta ez latinena edo biarnerarena.

<sup>3</sup> Escòseko hizkeraren kasuan Hourquebie-Pinquen transkripzio fonologikoa ematen dugu eta ez ahoskera, // artean beraz.

<sup>4</sup> Bokal hori amaiera absolutuan dena [ɔ] itxi bat da ; beraz [ɔ] puntu batekin azpian egiazko zeinua litzateke. Lourdiosen (Aspeko ibarra) [hába] da Olorueko berriemaileen arabera. Biarnoko mendietan -[a] badugu -[ɔ] edo -[ə]-n ordez. Allièresek [o] ematen du *langedocien*-entzat.



Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>cappellus</i>	<i>txapel</i>	[tʃápɛl] <i>txapel</i>	[kapétʃ] <sup>5</sup>	/ʃapɛw/	<i>capèth</i>	<i>chapeau</i>
<i>circūlum</i>	<i>zirkulu</i>	[kyrkýʎy] <i>kürküülü</i>	[sérkle]	/sérklə/	<i>cerc</i>	<i>cercle</i>
<i>clārus</i>	<i>argi</i>	[klar] <i>klar</i>	[kla]	/kla/	<i>clar</i>	<i>clair</i>
<i>colōre</i>	<i>kolore</i>	[kolóe] <i>kolore</i>	[kulú]		<i>color</i>	<i>couleur</i>
<i>spātha</i>	<i>ezpata</i>	[ɛspáta] <i>ezpata</i>	[ɛspádɔ]		<i>espada</i>	<i>épée</i>
<i>spāthūla</i>	<i>sorbalda</i>	[ɛʃpálda] <i>espalda</i>	[ɛspáɔ]	/ɛspálə/	<i>espatla</i>	<i>épaule</i>
<i>spart-anēam</i>	<i>espartin</i>	[ɛʃpartíʎa] <i>espartina</i>	[ɛspartéɲɔ]		<i>espartenha</i>	<i>espadrille</i>
<i>cattus</i>	<i>katu</i>	[gátʰy] <i>gatü</i>	[gat]	/gat/	<i>gat</i>	<i>chat</i>
<i>castellum</i>	<i>gaztelu</i>	[gastély] <i>gaztelü</i>	[kastét]		<i>castèth</i>	<i>château</i>
<i>causa</i>	<i>gauza</i>	[gájsa] <i>gaüza</i>	[káwzɔ]	/káwzə/	<i>causa</i>	<i>chose</i>
<i>corpus</i>	<i>gorputz</i>	[kʰórpits] <i>korpitz</i>	[kɔs]		<i>còs</i>	<i>corps</i>
<i>crux, crucis</i>	<i>gurutze</i>	[kýtʃe] <i>kürütxe</i>	[kruts]	/kruts/	<i>crotz</i>	<i>croix</i>
<i>ecclesia</i>	<i>eliza</i>	[elísa] <i>eliza</i>	[gléjzɔ]	/gléjzi/	<i>glèisa</i>	<i>église</i>
<i>fidem</i>	<i>fede</i>	[féde] <i>fede</i>	[fe]	/fe/	<i>fe</i>	<i>foi</i>
<i>flaccus</i>	<i>flako, ahul</i>	[fláky] <i>flakü</i>	[flak]		<i>flac</i>	<i>faible</i>
<i>fructu</i>	<i>fruta</i>	[frýtʃy] <i>frütü</i>	[fryt]	/fryt/	<i>fruta</i>	<i>fruit</i>
<i>hospitale</i>	<i>ospitale</i>	[ɔʃpitále] <i>ospitale</i>	[ɛspitáw]		<i>espitau</i>	<i>hôpital</i>

<sup>5</sup> Olorueko berriemaileek [kapétʃ] forma nahiago dute [kapét] baino, -[tʃ]-ekikoa mendikoa izanik ere.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>infernu</i>	<i>infernu</i>	[iférny] <i>ifernü</i>	[ihér]	/ihéχ/	<i>in-hèrn</i>	<i>enfer</i>
<i>jocare</i>	<i>jokatu</i>	[ʒókʰa] <i>joka-tü</i>	[ʒugá]	/jugá/	<i>jogar</i>	<i>jouer, parier</i>
<i>jocus</i>	<i>joko</i>	[ʒóky] <i>jokü</i>	[ʒɔk]	/jok/	<i>jòc</i>	<i>jeu</i>
<i>largus</i>	<i>zabal</i>	[lárgo] <i>largo</i> <sup>6</sup>	[láɾʒe]	/láɾjə/	<i>larg(a)</i>	<i>large</i>
<i>locus</i>	<i>leku</i>	[lékʰy] <i>lekü</i>	[lɔk]	/lok/	<i>lòc</i> <sup>7</sup>	<i>lieu</i>
<i>lex, legis</i>	<i>lege</i>	[lége] <i>lege</i>	[leɟ]	/leɟ/	<i>lei</i>	<i>loi</i>
<i>librum</i>	<i>liburu</i>	[líbrɣ] <i>libürü</i>	[líbe]	/líwrə/	<i>lib(r)e</i>	<i>livre</i>
<i>maxilla</i>	<i>masail</i>	[maféla] <i>maxela</i>	[maférɔ]	/maférə/	<i>mashèira</i>	<i>joue</i>
<i>martellus</i>	<i>mailu</i>	[martély] <i>marteilü</i>	[martét]	/martétɥ/	<i>martèth</i>	<i>marteau</i>
<i>miraculum</i>	<i>mirakulu</i>	[miakýly] <i>mirakülü</i>	[mirákle]		<i>miracle</i>	<i>miracle</i>
<i>pacare</i>	<i>pagatu</i>	[pʰáka] <sup>8</sup> <i>paka-tü</i>	[pagá]		<i>pagar</i>	<i>payer</i>
<i>pacem</i>	<i>bake</i>	[báke] <i>bake</i>	[pats]		<i>patz</i>	<i>paix</i>
<i>pāla</i>	<i>pala</i>	[pʰála] <i>pala</i> <sup>9</sup>	[pálɔ]		<i>pala</i>	<i>pelle</i>
<i>partem</i>	<i>zati</i>	[pʰárte] <i>parte</i>	[par]		<i>part</i>	<i>part</i>

<sup>6</sup> *Zabal* ere aski erabilia da.

<sup>7</sup> Alde batetik, biarnera kontserbadoreagoa da [o] lehen bokal gisa begiratu baitu.

<sup>8</sup> Lehen herskaria hasperenduna da zubereran eta bigarrena ozenkabea egon da.

<sup>9</sup> Peillenek biarnerari mailegutzat ematen du (1998: 104), baina herskaria hasperenduna da zubereran eta azken silaba kontserbatua da.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>peccatum</i>	<i>pagatu</i>	[bek <sup>h</sup> áty] <i>bekatü</i>	[pekát]		<i>pecat</i>	<i>péché</i>
<i>lat. ar. *pullitra</i>	<i>habe</i>	[pitrále] <i>pitrale</i>	[piteráw]		<i>piterau</i>	<i>poutre</i>
<i>pīlus</i>	<i>ile</i> <sup>10</sup>	[bíl <sup>h</sup> o] <i>bilo</i>	[péu]		<i>peu</i>	<i>poil</i>
<i>pīnus</i>	<i>pinu</i>	[p <sup>h</sup> íno] <i>pino</i>	[pi]		<i>pin</i>	<i>pin</i>
<i>plumbum</i>	<i>berun</i>	[plómy] <i>plomü</i>	[plum]		<i>plom(b)</i>	<i>plomb</i>
<i>populum</i>	<i>herri</i>	[popýly] <i>popülü</i>	[p'ɔble]		<i>pòble</i>	<i>peuple</i>
<i>porrum</i>	<i>porru</i>	[p <sup>h</sup> áka] <sup>11</sup> <i>porrü</i>	[purét]		<i>pòr</i>	<i>poireau</i>
<i>port(am)+ālem</i>	<i>portale</i>	[pɔrtále] <i>portale</i>	[purtáw]		<i>portau</i>	<i>portail</i>
<i>punctu</i>	<i>puntu</i>	[pŷ'ty] <i>püntü</i>	[pyn]	/pyn/	<i>punt</i>	<i>point</i>
<i>pūtēus</i>	<i>putzu</i>	[p <sup>h</sup> ýtzy] <i>pützü</i>	[pyts]	/pyts/	<i>putz</i>	<i>puits</i>
<i>regere</i>	<i>errege</i>	[erége] <i>errege</i>	[rɛj]		<i>rei</i>	<i>roi</i>
<i>rota</i>	<i>gurpil</i>	[eróta] <i>errota</i>	[ar'ɔdɔ]		<i>(ar)ròda</i>	<i>roue</i>
<i>salvare</i>	<i>salbatu</i>	[şálba] <i>salba-tü</i>	[sawbá]		<i>sauvar</i>	<i>sauver</i>
<i>salsam</i>	<i>saltsa</i>	[şáltşa] <i>saltsa</i>	[sáwso]	/sáwsə/	<i>saussa</i>	<i>sauce</i>
<i>sartāgīnem</i>	<i>zartagin</i>	[sart <sup>h</sup> egíŋa] <i>zartegina</i>	<i>ez</i> [padérɔ]		<i>sartana</i> <sup>12</sup>	<i>poële à frīre</i>

<sup>10</sup> Zubereraz [í<sup>h</sup>e] erabilia da, baina animalientzat.

<sup>11</sup> Peillenek biarnerari mailgutzat ematen du (1998: 106).

<sup>12</sup> Olorueko berriemaileen arabera gaztainen erretzeko tresna, Zuberoan bezala.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>sæta, sēta</i>	<i>zeta</i>	[séta] <i>zeta</i>	[séðɔ]	/séðə/	<i>seda</i>	<i>soie</i>
<i>tempūs, tempōra</i>	<i>denbora</i>	[débóa] <i>denbora</i>	[tɛms]	/tɛms/	<i>temps</i>	<i>temps</i>
<i>vespera</i>	<i>bezpera</i>	[mɛspéa] <i>b/mezpera</i>	[brɛspe]		<i>vrɛspe</i> <sup>13</sup>	<i>veille</i>

## 2. Gaskoiari ustezko lexiko mailegatua

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
	<i>abiadura</i>	[abjadýa] <i>abiadüra</i>	[abjádɔ] <sup>4</sup>		<i>aviada</i>	<i>vitesse, démarrage</i>
<i>dextru</i>	<i>trebe</i>	[adrét] <i>adret</i>	[adrét]	/adrét/	<i>adret</i>	<i>adroit</i>
<i>rasus</i>	<i>motz</i>	[eráš] <i>a/erras</i>	[arás]		<i>arràs</i>	<i>ras</i>
	<i>ingeles</i>	[íglɛʃ] <i>ingles</i>	[ãglɛʃ]		<i>anglés</i>	<i>Anglais</i>
<i>fraga</i>	<i>marrubi</i>	[arága] <i>arraga</i>	[arrágɔ]	/aRágə/	<i>ahraga</i>	<i>fraise</i>
<i>lat. ar. vascella</i>	<i>baxera</i>	[baʃéja] <i>baxera</i>	[baʃérɔ]	/baʃérə/	<i>vaishèra</i>	<i>vaisselle</i>
<i>vestire</i>	<i>jantzi</i>	[bésti] <i>beztī-tü</i>	[bestí]	/bestí/	<i>vestir</i>	<i>(se) vêtir</i>
<i>ital. brigante</i>	<i>gaizkile</i>	[brig'ät] <i>brigant</i>	[brigán]		<i>brigand</i>	<i>brigand</i>
<i>buffare</i>	<i>ufatu</i>	[búha] <i>buha-tü</i>	[buhá]	/buhá/	<i>bohar</i>	<i>souffler</i>

<sup>13</sup> « Arratsalde » adierarekin.

<sup>14</sup> Oloruen ez erabilia.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>uffare+??</i>	<i>haizekada</i>	[buháda] <i>buhada</i>	[buhádɔ]		<i>bohada</i>	<i>rafale</i>
<i>uffare+??</i>	<i>hauspo</i>	[buhadé] <i>buhader</i>	[buhadé]		<i>bohader</i>	<i>soufflet</i>
	<i>baionar</i>	[bajunés] <i>baiones</i>	[bajunés]		<i>baionés</i>	<i>Bayonnais</i>
	<i>biarnes</i>	[biarnés] <i>biarnes</i>	[biarnés]		<i>bearnés</i>	<i>Béarnais</i>
* <i>bordam</i> <sup>15</sup>	<i>borda</i>	[b'ɔrda] <i>borda</i>	[b'ɔrdɔ]		<i>bòrda</i>	<i>grange</i>
* <i>buk(on)+atam</i> <sup>16</sup>	<i>musuzapi</i>	[buk <sup>h</sup> áta] <i>bokata</i>	[bugádɔ]		<i>bugada</i>	<i>lessive</i>
<i>cathedra</i>	<i>aulki</i>	[kajdéa] <i>kaidera</i>	[kadjérɔ]		<i>cadièra</i>	<i>chaise</i>
		[kaminét] <i>kam/binet</i>	[kabinét]	[kabinét] <sup>17</sup>	<i>cabinet</i>	<i>armoire</i>
	<i>kailu</i>	[katʃ] <i>katx</i>	[katʃ]		<i>cath</i>	<i>cal</i>
<i>caldarium</i>	<i>galdaragile</i>	[kawté] <i>kauter</i>	[kawté]		<i>cautèr</i>	<i>chaudronnier</i>
<i>circare</i>	<i>bilatu</i>	[tʃérk <sup>h</sup> a] <i>txerka</i>	[sɛrká]	/serká/	<i>cercar</i>	<i>chercher</i>
<i>frq *kotta</i>	<i>gona</i>	[kóta] <i>kota</i>	ez [ráwe]		<i>còta</i>	<i>jupe</i>
	<i>adore</i>	[kuázɛ] <i>koraje</i>	[kurádɛ]		<i>coratje</i>	<i>courage</i>
	<i>adoretsu</i>	[kuazús] <i>korajus</i>	[kuradzús]		<i>coratjós</i>	<i>courageux</i>
<i>lat. ar. *cutinna</i>	<i>(xerri) kailu</i>	[gotájna] <i>g/kota/eina</i>	[kútjɔ]		<i>coden(h)a</i>	<i>couenne</i>

<sup>15</sup> Germanikoari mailegatua M. Grosclauden arabera (2000: 55).

<sup>16</sup> Germanikoari mailegatua M. Grosclauden arabera (2000: 55). Hourquebiek eta Pinquek *bucatu* latina ematen dute (1982: 59).

<sup>17</sup> Mako [ ] artean diren ahoskerak Escòsekoak ez dira, baina bai Gilbert Narioo Valensunekoarenak (Orteze ondoan).

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
	<i>kunder</i>	[kũ(n)dé] <i>kunder(a)</i>	[kunté]		<i>condèr</i>	<i>chapelet</i>
<i>curiosus</i>	<i>begiluze</i>	[kyjúʂ] <i>kürius</i>	[kyrjúʂ]		<i>curiòs</i>	<i>curieux</i>
	<i>frikun</i>	[kokĩ] <i>koki</i>	[kukĩ]		<i>coquin</i>	<i>coquin</i>
	<i>frikun txiki</i>	[kokiʎ'ɔt] <i>kokillot</i>	[kokin'ɔt]		<i>coquinòt</i>	<i>coquin (dim.)</i>
<i>cosina</i>	<i>lehengusu</i>	[kysýɲa] <i>küzüña</i>	[kuz'tjɔ] /kuz'tjə/		<i>cosia</i>	<i>cousine</i>
<i>daculam</i> <sup>18</sup>	<i>sega</i>	[dáʎy] <i>dailü</i>	[dáʎɔ] /dáʎə/		<i>dalha</i>	<i>faux (outil)</i>
<i>duplus</i>	<i>bikoitz</i>	[dóble] <i>doble</i>	[dúble]		<i>doble</i>	<i>double</i>
	<i>estakuru</i>	[dezēkýza] <i>desenküsa</i>	[dezēkýzɔ] [dezēkýzə]		<i>desencusa</i>	<i>prétexte</i>
<i>dēs + honestus</i>	<i>ohoin</i>	[dezunést] <i>desonest</i>	[mawawnéste]		<i>desaunéste</i>	<i>malhonnéte</i>
<i>placere</i>	<i>desplazer</i>	[desplazé] <i>desplazer</i>	[desplazé]		<i>desplaser</i>	<i>déplaisir</i>
	<i>erakasle</i>	[erez'ět] <i>errejent</i>	[rezén]		<i>(ar)regent</i>	<i>instituteur</i>
<i>spongia</i>	<i>belaki</i>	[espu'dza] <i>esponje</i>	[espu'ndzɔ] [espu'ndzə]		<i>esponja</i>	<i>éponge</i>
<i>sposare</i>	<i>ezkondu</i>	[espu'za] <i>esposa-tü</i>	[espuzá] <sup>19</sup> /espuzá/		<i>esposar</i>	<i>épouser</i>
<i>scālā, ærum</i>	<i>eskailera</i>	[eskelé] <i>eskeler</i>	[eskalé] /eskálə/		<i>escalèrs</i>	<i>escalier</i>
<i>fine</i>	<i>fin</i>	[fi] <i>fi</i>	[fi] /fi/		<i>fin</i>	<i>fin</i>
	<i>larruzko</i>	[foradýa] <i>forradüra</i>	ez		<i>forradura</i>	<i>fourrure, doublure</i>

<sup>18</sup> Zelta M. Grosclauden arabera (2000: 59).

<sup>19</sup> Gutxi edo ez erabilia Olorueko berriemaileen arabera.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
	<i>frantses</i>	[frantsɛ́s] <i>frantses</i>	[frantsés]		<i>francés</i>	<i>Français</i>
	<i>frantzimant</i>	[frantsim'át] <i>frantzimant</i>	[franʃimán]		<i>franchimand</i>	<i>qui mime le français</i>
<i>frigus, frigida</i>	<i>fresko</i>	[frɛʃk] <i>fresk</i>	[frɛsk]	/frɛsk/	<i>fresc</i>	<i>frais</i>
	<i>freskura</i>	[frɛʃk'ýa] <i>fresküra</i>	[frɛsk'ýrɔ]		<i>frescura</i>	<i>fraicheur (temps)</i>
<i>bas latin faluppa</i>	<i>barrabas</i>	[fripú] <i>fripu</i>	[fripú]	[fripú']	<i>fripon</i>	<i>fripon</i>
<i>germ *witan</i>	<i>kirten</i>	[gidér] <i>gider</i>	ez		<i>guidar</i> <sup>20</sup>	<i>petit manche</i>
	<i>burruntzali</i>	[gáhe] <i>gahe</i>	[gáħɔ] <sup>21</sup>	[gáħə]	<i>gaha</i>	<i>cuiller à pot</i>
<i>vastare</i>	<i>gastatu</i>	[gáʃta] <i>gasta-tü</i>	[gwastá]	/gwastá/	<i>g(u)astar</i>	<i>gâter</i>
<i>graneriu</i>	<i>bihitegi</i>	[grané] <sup>22</sup> <i>graner</i>	[graé]	/graé/	<i>gra(nh)èr</i>	<i>grenier</i>
<i>frq. *hardjan</i>	<i>ausart</i>	[hardít] <i>hardit</i>	[hardít]		<i>hardit</i>	<i>hardi</i>
	<i>zoriontsu</i>	[ijúʃ] <i>irus</i>	[yrús]	[irús] <sup>23</sup>	<i>urós</i>	<i>heureux</i>
<i>jumpare</i>	<i>zabundu</i>	[zũ'pa] <i>junpa-tü</i>	[zỹpá]	/jumpá/	<i>junpar</i>	<i>balancer</i>
<i>glōrīōsa</i>	<i>harropuztu</i>	[lorjúʃ] <i>lorius</i>	[glurjúʃ]		<i>gloriós</i>	<i>vaniteux</i>
	<i>zoriongabe</i>	[maleúʃ] <i>malerus</i>	[malyrús]		<i>malurós</i>	<i>malheureux</i>

<sup>20</sup> Olorueko berriemaileek forma hori ez dute ezagutzen; biarnerari mailegu bat ote da ?

<sup>21</sup> « Zali » Olorueko berriemaileen arabera.

<sup>22</sup> Zubererak bokal arteko -n- begiratu du, baina azentua azken silaban da. [garné] metatesia badugu ere.

<sup>23</sup> Aspeko ibarran [irús] Olorueko berriemaileen arabera.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
	<i>trakets</i>	[maleʃtrýk] <i>malestrük</i>	[dezeʃtrýk] <sup>24</sup>		<i>desestruc</i>	<i>maladroit</i>
<i>mālitiōsus</i>	<i>jostalari</i>	[malesjúʃ] <i>malezius</i>	[malisjúʃ]		<i>maliciós</i>	<i>malicieux</i>
<i>mantellum</i>	<i>eskuare</i>	[mātétʃ] <i>mantetx</i>	[mātét] <sup>25</sup>		<i>mantèth</i>	<i>manteau (cheminée)</i>
		[man(e)úʃ] <i>manus</i>	[maɲús]		<i>manhós</i>	<i>maniéré, couvé</i>
<i>medecina, medicus</i>	<i>mediku</i>	[bedezí] <i>bedezi</i>	[medesí]		<i>medecin</i>	<i>médecin</i>
<i>minus</i>	<i>gutiago</i>	[mentʃ] <i>ments</i>	[menʃ] [mens] <sup>26</sup>		<i>mens(h)</i>	<i>moins</i>
	<i>zurgin</i>	[menyzé] <i>menüser</i>	[menyzé]		<i>menüsèr</i>	<i>menuisier</i>
<i>mixtūra</i>	<i>mestura</i>	[meʃtýa] <i>mestüra</i>	[mestýrɔ] /mestýrə/		<i>mestura</i>	<i>méture</i>
<i>mixtūra</i>	<i>neurtu</i>	[mezýa] <i>mesüra-tü</i>	[mezýrá] /mezurá/		<i>mesurar</i>	<i>mesurer</i>
	<i>ozpin</i>	[minágre] <i>minagre</i>	[binágre]		<i>vinagre</i>	<i>vinaigre</i>
	<i>ispilu</i>	[míaʎ] <i>mirail</i>	[miráj]		<i>miralh</i>	<i>miroir</i>
<i>muccare</i>	<i>musuzapi</i>	[mukanáʃ] <i>m/bukanas</i>	[mukadé] <sup>27</sup>		<i>mocanàs</i>	<i>mouchoir</i>
	<i>almaiz</i>	[murté] <i>murter</i>	[murté] [murté]		<i>mortèr</i>	<i>mortier</i>
<i>nōdus</i>	<i>korapilo</i>	[nyt] <i>nüt</i> <sup>28</sup>	[nyt] <sup>29</sup> /nut/		<i>nod</i>	<i>noeud</i>

<sup>24</sup> Olorueko berriemaileen arabera. Per Noste *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)* hiztegiak *malestruc* ematen du.

<sup>25</sup> J. Bonnemasonek [mātétʃ] aipatzen du Aspe ibarrean (2005: 75), Olorueko berriemaileek baieztatzen dute.

<sup>26</sup> Robert L.-k lehen forma eta Nathalie M.-k bigarrena.

<sup>27</sup> *Mocader* Olorueko berriemaileentzat. Per Noste-n *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)* hiztegiak bi formak ematen ditu.

<sup>28</sup> Zubererak *oropilo* ere bai badu, desegiteko zaila delarik.

<sup>29</sup> Olorueko berriemaileetarik batek: [nyt] (N. M.), besteak : [nut] (R. L.).



Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>oboedire+??</i>	<i>obeditzaile</i>	[obedj'èt] <i>obedient</i>	ez <sup>30</sup>		<i>aubedissent</i>	<i>obéissant</i>
<i>honestus</i>	<i>zintzo</i>	[unéʂt] <i>onest</i>	[awnéste]		<i>o/aunèste</i>	<i>honnête</i>
<i>hos(pi) tal(em)+arium</i>	<i>aterpekide</i>	[oʂtalé] <i>ostaler</i>	[ustalé] <sup>31</sup>		<i>ostalèr</i>	<i>aubergiste</i>
	<i>ardo gorri</i>	[pa lét] <i>paillet</i>	[pa lét]    [pa lét]		<i>palhet</i>	<i>vin rosé</i>
<i>behe-lat. parochia</i>	<i>parrokia</i>	[pa ropí(j)a] <i>parropia</i>	[pa rókɔ]		<i>parròpia</i>	<i>paroisse</i>
<i>pastillum</i>	<i>talo</i>	[paʂtétʃ] <i>pastetx</i>	[pa stét] <sup>32</sup>		<i>pastèth</i>	<i>galette de maïs</i>
<i>pausa</i>	<i>atsedenaldi</i>	[pʰawʂáda] <i>pausada</i>	[páwɔ]    [pawzádə]		<i>pausada</i> <sup>33</sup>	<i>pause</i>
<i>pauper</i>	<i>pobre</i>	[práwe] <i>prau(b)e</i>	[práwbɔ]    /práwbə/		<i>praube</i>	<i>pauvre</i>
	<i>belarritako</i>	[pédént] <i>pendent</i>	[pédén]    [péd'èts] <sup>34</sup>		<i>pendent</i>	<i>boucle d'oreille</i>
		[peʎ'ɔt] <i>peilot</i>	[peg'ɔt]		<i>pegòt</i>	<i>niais, nigaud</i>
<i>perdere</i>	<i>galdu</i>	[perdýt] <i>perdü</i>	[pergýt] <sup>35</sup>		<i>perdut</i>	<i>perdu, triste personne</i>
<i>pira</i>	<i>madari</i>	[péa] <i>pera</i>	[pérɔ]    /péə/		<i>pera</i>	<i>poire</i>

<sup>30</sup> Olorueko berriemaileek ez dute erabilten Per Noste-n *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)* hiztegiak ematen duen *aubedissent* forma.

<sup>31</sup> Olorueko berriemaileek ez dute erabilten. Per Noste-n *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)* hiztegiak « aterpekide » adiera ematen du.

<sup>32</sup> J. Bonnemasonek dio: « La prononciation basque est celle de la montagne » (2005: 77), [pa stétʃ] beraz.

<sup>33</sup> Gilbert Nariook emana. Per Nosten *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)* hiztegian ez dago.

<sup>34</sup> Pluralean Gilbert Nariooren arabera.

<sup>35</sup> -g-ekin Olorueko berriemaileen arabera.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>pietatis</i> <sup>36</sup>	<i>urrikalmen</i>	[pjetáte] <i>pietate</i>	[pjetát]	[pjetát]	<i>pietat</i>	<i>pitié</i>
<i>plangere</i>	<i>deitoratu</i>	[pláni] <i>plañi-tü</i>	[pláne]	/pláne/	<i>plànher</i>	<i>plaindre</i>
<i>placere</i>	<i>atsegin</i>	[plazé] <i>plazer</i>	[plazé]	/plazé/	<i>plaser</i>	<i>plaisir</i>
	<i>plaza txiki</i>	[pla.j'ɔt] <i>plaxot</i>	[plasótɔ]	[pla.j'ɔtə]	<i>plaxot</i>	<i>petite place</i>
<i>plicare</i>	<i>plegatu</i>	[pléga] <i>plega-tü</i>	[plegá]		<i>plegar</i>	<i>plier</i>
<i>præstare</i>	<i>prestatu</i>	[présta] <i>presta-tü</i>	[prestá]	/prestá/	<i>prestar</i>	<i>prêter, préparer</i>
<i>prēhensio</i>	<i>preso</i>	[prezuné] <i>presuner</i>	[prezuné]		<i>presonèr</i>	<i>prisonnier</i>
<i>porcus</i>	<i>txerrikume</i>	[pujk'ɔt] <i>puikot</i>	[purk'ɔt]	[purk'ɔt]	<i>pourcòt</i>	<i>cochon, saligaud</i>
<i>putere + nasus</i>	<i>zimitz</i>	[pyrnáf] <i>pürmax(a)</i>	[pyrnáfɔ]	[pyrnáfə]	<i>purnaisha</i>	<i>punaise</i>
	<i>ukabil</i>	[pynét] <i>püinet</i>	[pynét]	[pynét]	<i>punhet</i> <sup>37</sup>	<i>poing</i>
<i>ridere</i>		[áraΛeΛ'ät] <i>arraileilant</i>	[aridulén]		<i>arridolent</i>	<i>qui a de l'humour</i>
<i>rātīōnis</i>	<i>arrazoi</i>	[arrazū'] <sup>38</sup> <i>arrazu</i>	[razú]	/rezū'/	<i>rason</i>	<i>raison</i>
<i>sapone</i> <sup>39</sup>	<i>xaboi</i>	[jabū'] <i>xabu</i>	[sablú]	/sablū'/	<i>sab(l)on</i>	<i>savon</i>
<i>sartāginem</i>	<i>zartagin</i> <sup>40</sup>	[sart <sup>h</sup> án] <i>zartan</i>	[sartánɔ]		<i>sartana</i>	<i>grilloir à châtaignes</i>

<sup>36</sup> Latinari eta ez gaskoiari mailegatua behar bada, gaztelaniaren *piedad* hurrunagoa delarik.

<sup>37</sup> « Eskumutur » adiera.

<sup>38</sup> T. E.-E.k sudurkaritzetik gabeko formak nahiago ditu : [arrazú], [jabú] etab.

<sup>39</sup> Germanikoaren \**saipon*-etik.

<sup>40</sup> Gaztainak erretzeko tresna.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
<i>sātīōnis</i>	<i>urtaro</i>	[ʃazũ'] <i>sasu</i>	[sazú]	/sezú/	<i>sason</i>	<i>saison</i>
<i>secare</i>	<i>zerratu</i>	[ʃéga] <i>sega-tü</i>	[segá]	/segá/	<i>segar</i>	<i>scier</i>
<i>sequere</i>	<i>segitu</i>	[ʃégi] <i>segi-tü</i>	[segí]	/segí/	<i>seguir</i>	<i>suire</i>
<i>securu</i>	<i>segur</i>	[ʃegÿr] <i>segür</i>	[segÿ]	/segÿ/	<i>segur</i>	<i>sûr</i>
<i>september</i>	<i>irail</i>	[ʃeteme] <i>seteme</i>	[setéme]		<i>seteme</i>	<i>septembre</i>
<i>serius, seriusus</i>	<i>serio</i>	[ʃejúʃ] <i>serius</i>	[serjúʃ]		<i>seriós</i>	<i>sérieux</i>
<i>sōrdīdīus</i>	<i>areago</i>	[ʃɔrdéj] <i>sordei(s)</i>	[surdéj]		<i>sordeis</i>	<i>pire</i>
<i>tabulam</i>	<i>taula</i>	[táwla] <i>taula</i>	[táwla]	/táwla/	<i>taula</i>	<i>planche</i>
<i>tabulam+??</i>	<i>zola</i>	[tawláda] <i>taulada</i>	[tawládɔ] <sup>41</sup>		<i>(en)taulada</i>	<i>plancher</i>
		[trabatétj] <sup>42</sup> <i>trabatetx</i>	[trabatét]		<i>travatèth</i>	<i>chevron de comble</i>
	<i>tratulari</i>	[tratyl'át] <sup>43</sup> <i>tratülant</i>	ez		<i>maquinhon</i>	<i>maquignon</i>
<i>tendere</i>	<i>samur</i>	[tr'ēde] <i>trende</i>	[tr'ēde]		<i>trende</i>	<i>tendre</i>
	<i>odolki</i>	[trip'ɔt] <i>tripot</i>	[trip] [tripú]		<i>trip, tripon</i>	<i>boudin</i>

<sup>41</sup> « Mahaitara » Olorueko berriemaileen arabera.

<sup>42</sup> Peillenek emana, Lhandek *trabatexa*. T. E.-E.k ez du ezagutzen.

<sup>43</sup> [tratal'át] T. E.-E.ren arabera.

Latina	Batua	Zuberera	Olorue	Escòs	Gaskoia	Frantsesa
	<i>ezkai</i>	[tʃarp'ɔtʃ] <sup>44</sup> <i>txarpoil/tx</i>	ez		<i>sarpoth</i> <sup>45</sup>	<i>thym</i>
<i>exsuccare</i>	<i>eskuoihal</i>	[tʃykadé] <i>txükader</i>	[éʃyɡadé]		<i>eishugader</i>	<i>torchon</i>
	<i>hezetsu</i>	[ými] <i>ümi</i>	[ymíde]		<i>umide</i>	<i>humide</i>
		[siflét] <sup>46</sup> <i>z/xiflet</i>	ez [sīkét] [kuhát]		<i>estiflat</i>	<i>gifle</i>

<sup>44</sup> [tʃarp'ɔtʃ] T. E.-E.ren arabera.

<sup>45</sup> « Sarpoil » biarneraz eta ez « ezkai ».

<sup>46</sup> P. Lhandek *zifleta* ematen du (*Dictionnaire basque-français et français-basque...*).

## Bibliografia laburra

- Allières, J., 1975, “La fonction ethno-démarcative en linguistique”, *Actes du IIe Colloque international de linguistique fonctionnelle* (Clermont-Ferrand, 1975/07/22-27), C.R.D.P., Clermont-Ferrand, 173-180.
- , 2001, *Manuel de linguistique romane*, Paris, Honoré Champion.
- Bonnemason, J., 2005, *Interférences linguistiques entre basque & gascon (béarnais)*, Pyrémone / Princi Negue, Monein/Monenh.
- Coyos, J.-B., 1999, “Aperçu de la phonétique, de la phonologie et de la morphologie”, in *Le parler basque souletin des Arbailles — Une approche de l’ergativité*, L’Harmattan, Paris: 57-93.
- , 2001, “A propos de *Les emprunts de la langue basque à l’occitan de Gascogne de Txomin Peillen*”, *Lapurdum* 6, 391-419.
- , 2006, “L’apport lexical de l’occitan gascon béarnais au basque souletin”, *Bulletin du Musée basque*, hors série, 201-223.
- , 2010, “De l’apport lexical du basque souletin”, *L’apport de Gerhard Rohlf s à la connaissance des langues pyrénéennes*, Oloron-Sainte-Marie (Biarno), 2007/02/02-03.
- Davant, J.-L., 2008, *Xiberoko jauna*. Pastoral.
- Gaffiot, F., 1964 (1937), *Dictionnaire illustré Latin-Français*, Librairie Hachette, Paris.
- Grosclaude, M., 2000, *70 clés pour la formation de l’occitan de Gascogne*, Per Noste — La Civada, Pau.
- , 2006 (2<sup>e</sup> édition), *Dictionnaire Toponymique des Communes Béarn*, éditions Cairn et éditions Reclams, Pau / Serres-Castet.
- Haase, M., 1990, “Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz”, *Euskera* XXXV, 2, 405-415.
- , 2002, “Basque et gascon en Basse-Navarre”, *Bulletin du Musée basque*, 201-223.
- Hourquebie, F.; Pinque M., 1982, *Phonologie synchronique et phonétique historique du parler d’Escos (Béarn)*, Giovanna Madoniaren gidaritzapean, Université René Descartes, Paris, polikopia.

- Lafon, R., 1937, "Tendance à la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du Nord-Est", *Revue de Linguistique Romane* XIII.
- , 1962, "Sur la voyelle *ü* en basque", 57.
- Peillen, T., 1992, "Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk", *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, Iker, 7, Euskaltzaindia, Bilbo: 247-272.
- , 1998, *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, Estudios de la UNED, Madril.
- Per Noste, 2005, *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)*, 2 liburuxka, Orthez/Ortese, Per Noste.
- Rohlf's, G., 1977 (1935), 3. edizio emendatua, *Le Gascon Etudes de philologie pyrénéenne*, Max Niemeyer Verlag - Mairimpouey Jeune, Tübingen - Pau.



# Erreduplikazioa euskal lexikoan. Ohar tipologiko eta diakroniko zenbait

MIKEL MARTÍNEZ ARETA

UPV/EHU

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Euskara historikoan, erreduplikazioa adjektiboak eta adberbioak erartortzeko baliabide emankorra dugu (ik. Azkarate 1990: 420). Oro har, erreduplikazioak aldaera ez erreduplikatua biziagotu egiten du: *gorri* > *gorri-gorri*, *txiki* > *txiki-txiki*, *arin* > *arin-arin*... Kasu batzuetan, adberbio bat egitura erreduplikatu batetik lexikalizatu da eta ez da aldaera ez erreduplikatuaren aldaera markatu bat, forma burujabe bat baizik: *bat-batean* (< *bat-bat-*), *behin-behinik* (< *behin-*). Bereziki emankorrak ditugu erreduplikazio onomatopeikoak: *barra-barra*, *bolo-bolo*, *pil-pilean*, *bor-bor*...; bai eta *m-z* (edo beste ezpainkari batez) hasitako bigarren osagaia duten hone-lako beste batzuk (*ikusimakusi*, *erran-merranak*, *txitean-pitean*) eta bokalismo txandaketa duten erreduplikazioak ere (*dinbili-danbala*, *tipi-tapa*, *dingilin-dangolo*).

Orokorrean, badirudi autore zaharren lanetan erreduplikazioaren garrantzia egungoa baino handixeagoa dela. Ik. ondoko adibideak: Etx.. *hala hala*, *begiz begi*; Oih. *ardur' arduratuz*, *beti bet'*, *hel-helez*; Tart. *inguru-inguru*, *hala hala*, *ardura-ardura*, *heda-heda*, *bedera-berdera*, *espos-esposaren*, *handiric-handiric*; Mik. *garra garra*.

Bestalde, euskal lexikoan bertan oso garai zaharretako erreduplikazioaren erabilera lexikalizatua ageri da. Batetik, senidetasunaren inguruko terminolo-

---

<sup>1</sup> Lan hau bi Ikerketa Proiektu kolektiboren esparruan egin da: 1) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzatutako "Fundamentos para unos Monumenta Linguae Vasconum II: historia, crítica y edición de textos vascos" (HUM2005-08047) izenburuko bat; eta 2) Eusko Jaurlaritzak finantzatutako "Lingüística histórica e historia de la lengua vasca" izenburuko beste bat. Bi kasuetan, parte-hartzaileak UPV/EHUko Letren Fakultateko ikertzaileak dira, Joseba Lakarra Andrinua Katedraduna ikertzaile nagusia delarik.



gian: *aitite* < \**aita-aita*, *amama* < \**ama-ama*, kasu hauetan erreduplikazioak forma ez erreduplikatuari argi eta garbi “belaunaldi bat gorago” adiera gehitzen diolarik.

## 2. Erreduplikazioa aitzin-euskaraz

Euskararen bertako oinarri disilabikoei bagagozkie, zenbait izen disilabikoren atzean erreduplikazioa dago, inolako zalantzarik gabe: *zo-zo*, *ze-zen*, *go-go*, *go-gor*... Joseba Lakarraren (1995) lanetik, jatorriz erreduplikazioaz eraturako izen disilabikook askoz gehiago zirela proposatu da, garapen fonetikoak jatorrizko egitura erreduplikatua desitxuratu duelarik. Azken urteotan berak proposaturikoak edo bere azterbidetik proposa daitzkeenak honakoak dira (ik., besteak beste, Lakarra 1995, 2002, 2006a, 2006b, 2008):<sup>2</sup>

<i>adar</i> < * <i>da-dar</i>	<i>gogo</i> < <i>go-go</i>	<i>azal</i> < * <i>za-zal</i>	<i>ahal</i> < * <i>na-nal</i>
<i>adats</i> < * <i>da-dats</i>	<i>gogor</i> < <i>go-gor</i>	<i>zezen</i> < <i>ze-zen</i>	<i>har</i> < * <i>na-nar</i>
<i>eder</i> < * <i>de-der</i>		<i>zozo</i> < <i>zo-zo</i>	<i>ahardi</i> < * <i>na-nar-di</i>
<i>odol</i> < * <i>do-dol</i>			<i>ahantzi</i> < * <i>na-nan-tzi</i>
<i>idi</i> < * <i>di-di</i>			<i>ohol</i> < * <i>no-nol</i>
			<i>ohoin</i> < * <i>no-non-i</i>
			<i>ohostu</i> < * <i>no-non-tz-</i>
			<i>ihi</i> < * <i>ni-ni</i>
			<i>ihintz</i> < * <i>ni-nin-tz</i>

Batzuk besteak baino espekulatiboagoak izan arren, orokorrean behintzat hauetariko batzuk jatorriz erreduplikazioak izan diren hipotesiari aski sinesgarria deritzogu. Hauetaz gain, *kokots* (< *ko-kots* (?)) bezalako beste batzuetan oinarrituz, *akats* (< \**ka-kats*), *atal* (< \**ta-tal*) eta jatorriz leherkari ahoskabeez hasitako beste zenbait ere proposa genitzake, baina hauetan ez da hain ziurra galdutako kontsonantea zein den (egiatan galdu bada). Hortaz, euren semantikatik orokorpenen bat ateratze aldera, momentuz 19 hauekin moldatuko gara.

Datuon behaketatik (eta gainontzeko lexikoarekiko erketatik) atera dezakegun ondorio aski finko bat hauxe da: erreduplikazioa izen-erroetan gertatzen bide da, baina ez aditz-erroetan. Aztergai ditugun 19 kasuok izen-erroak

<sup>2</sup> *Har* < \**na-nar* (erk. erronk. *ār*, bizk. *haar*) gurea da (ik. Martínez Areta 2007: 252-253). Gainontzekoak, Lakarrarenak.

diren bitartean, ez dugu inongo \*e-CVC-i egituraren CVC-aren erreduplikazioerik inon aurkitzen. Adibidez, ez da *e-karr-i* >> \*\**e-ka(r)-karr-i* moduko prozesurik inon ageri. Erreduplikazioa izenei soilik, eta ez aditzei, dagokien fenomenoa izatea tipologikoki bitxi samarra da.

Formaren ikuspegitik, besteak beste bi ezaugarri nabari dira datuotan: 1) ez dago inongo IV(C) errotan (hots, *l-z* hasitako inongo CV(C) errotan) oinarritutako erreduplikazioerik (adib., \*\**lo-lots*, \*\**li-lin*, \*\**la-lar*...);<sup>3</sup> eta 2) ez bide dago inongo Cu(C) errotan (hots, *u* bokala duen inongo CV(C) errotan) oinarritutako erreduplikazioerik (\**du-duts*, \*\**su-sur*, \*\**zu-zul*...).<sup>4</sup> Lehenari dagokionez, arrazoa izan daiteke *l*-oro \**d*-tik datorrela (ik. adib. Lakarra 2006a), eta \**d*- > *l*- aldaketa erreduplikazioak emankorrak ziren garaia baino berriagoa dela. Bigarrenak arazo fonotaktikoetara bideratuko gintuzke, eta haietan sakontzea espekulatiboegi gerta liteke. Dena den, badirudi Ci(C) eta Ce(C) erroak ere ez direla maiz oinarritzko silabak; bestela esan, badirudi erroaren bokalak *o* eta *a* izateko joera duela.<sup>5</sup>

Bestetik, antza denez erreduplikazio zahar hau ezkererantz eta zatikakoa zen (*gor* >> *go-gor*). Hau ez dator bat tipologiak eskaintzen dizkigun datuekin, Moravcsik-en (1978: 328) iritziz. Tipologo honen arabera, hizkuntza batek zatikako erreduplikazioa baldin badauka, orduan erabatekoa ere badauka. Hau horrela izanez gero, euskararen fenomenoak orokorpen honekin lotzeko bururatzeko zaizkigun bi konponbideak honakoak dira: a) *go-gor* motako erreduplikazioaz landara *gor-gor* motako beste bat existitu izana, zeinen zantzu guztiak galdu diren; edo b) erregela bat gauzatu da, zeinen arabera oinarri disilabiko zaharretan coda berdinen disimilazioa gauzatzen zen: \**gor-gor* > *go-gor*.<sup>6</sup> Dena den, ez dago esan beharrik Moravcsik oker ibil daitekeela eta *gor* >> *go-gor* motako erreduplikazioa mota bakarra izatea hizkuntzaren faseren ba-

<sup>3</sup> Era berean, ez dago inongo rV(C) errotan oinarritutako erreduplikazioerik (\*\**ra-ral*...), baina hau hitz-hasierako *r*-rik ezaren berehalako ondorioa besterik ez da.

<sup>4</sup> Behintzat, ziurtzat jo dezakegunik. Norbaitek \**nu-nur* proposa lezake, > *hur*, erronk. *ūr*, baina ohar bedi honek ez duela \**na-nar*-ek adinako oinarri. Honek erronk. *ār*-ez landa badu bizk. *haar* (non ziurrenik geminazioa mantendu den) eta *narras*-ekiko erkaketa.

<sup>5</sup> Hemen egin beharreko beste oharpen bat da erreduplikatzen diren erroen artean CVC nahiz CV motakoak dakuskigula, azken hauek Lakarraren iritziz berez lexemak edo erro lexematikoak ez direlarik. Oro har, bere planteamenduak ondo funtzionatzen du (adibidez, aditz-erroen artean ez dago CV motakorik), baina CV-CV egiturako erreduplikazioak daudela, eta hauek behintzat garai historikoetan esanahi lexematikokoak direla, ukaezina dirudi.

<sup>6</sup> Erreduplikazioen lekukotasuna, berez, bikoitza da auzi hau ebazteko, bi aukerek (\**gor-gor*-ek zein \**go-gor*-ek) ematen baitigute lortutako emaitza (> *go-gor*). Baina bada beste etimologiarik, non elementu ezberdinetakoa oinarri disilabiko zahar batean lehen coda, bigarrena beza-

tean.<sup>7</sup> Izan ere, esan bezala bi hipotesiek (jatorrizko zatikako erreduplikazioarenak zein jatorrizko erabateko erreduplikazioarenak) emaitza berera garamatzatelarik, konpondu ezinezko arazotzat joko dugu hemen erreduplikazioa jatorriz zatikakoa ala erabatakoa den.

Are gutxiago espekula daiteke esanahiaz, hau diakronikoki oso labainkorrak delarik. Edozein kasutan, ez zaigu ausartegia iruditzen haien artean animalien agerpena nabarmena dela iradokitzea. Honexek garamatza, hain zuzen, 4. atalean aurkeztuko dugun hausnarketara, baina ikus dezagun, horra jo aurretik, munduko hizkuntzetan barrena erreduplikazio fenomenoetan ageri diren zenbait gorabehera.

### 3. Erreduplikazioa eta haren funtzioak

Aitzin-euskarak erreduplikazioaren baliabide morfologikoa zuela eta hau emankorra zela onartzen badugu, oso galdera interesgarria planteatzen zaigu: jatorrizko egoeran, zein funtzio zuen erreduplikazioak?

Moravcsik-en (1978: 316-325) ikerketa klasikoan, erreduplikazio gramatikalizatua duten hizkuntzen artean, besteak beste erreduplikazioaren honako funtziook aipatzen dira. Izenetan, adiera handigarria eta/edo txikigarria izan dezake, bai eta txera eta/edo erdeinua ere. Kasu hauetan, hizkuntza berean erreduplikazioak adigai kontrajarriak adieraz ditzake. Euskaran bertan erreduplikazioaren erabilpen hau ageri zaigu. Beste adiera bat pluraltasuneko da (adib. *tini* ‘aho’ / *tiitini* ‘ahoak’, papago-z), edo honekin lotuak, orobatasuneko (*ren* ‘gizon’ / *renren* “gizon guztiak”, mandarin txineraz) edo banakaria kasu (*čors* ‘lau’ / *čors čors kalel* “ilaran launaka joan”, turkieraz). Beste kasu batzuetan, galderazko izenordain baten erreduplikazioaren bidez zehazgabeko adiera hartzen du oinarritzko formak (*saba* ‘nor?’ / *sahasaba* ‘nornahi’, sundaneraz).

Beste adiera batzuk —kontuan har bedi egiten ari garen zerrendaketa hau ez dela osoa— gainontzeko kategoria lexikoei ere erasan diezaiekete. Hala

---

lakoia izaki, galdu ahal izan den. Adibidez, Lakarrak (2002) berriki proposaturiko *oker* < \**or-ker*, non *or- oin*-en pareko elementu bat litzatekeen (erk. *or-po*).

<sup>7</sup> Gainera, ikerketa sakonik burutu ez badugu ere, erabateko erreduplikazioaren gramatikalizazioaren muga aski lausoa delako susmoa dugu. Argi dago ez gramatikalizatutako nola edo halako erreduplikazioak hizkuntza guztiak izango dituztela (*lan eta lan aritu nintzen*). Moravcsik-ek ez du xeheki zehazten zer esan nahi duen erabateko erreduplikazioak hizkuntza orotan daudela dioskunean, hau da, hemen erreduplikazio ez gramatikalizatuak ere sartzen diren ala ez.

nola, energia- edo intentsitate-kantitatea adieraz dezake edozein kategoria lexikotan (*dolu* ‘beteta’ / *dopdolu* “aski beteta”, turkieraz; *hayay* ‘nahi’ / *hayayhayay* “sutsuki nahi”, sundaneraz; *dána* ‘zahar’ / *dádána* “oso zahar”, agtaz), bai eta txikitasuna edo arintzea (*wer* ‘erreka’ / *walawer* “erreka txiki”, agtaz; *maji* ‘bustita’ / *maji-maji* “busti samar”, swahiliz). Hemen sar genezakeen azken adiera bat “X-en antzekoa” edo “X-en plantak egin” da (*ηən* ‘zilar, diru’ / *ηəηəη* “dirua eta horrelakoa”, thai-z; *biq* “lo egin” / *táq qámbiq biq* “loak hartuarena egin”). Nolabait, adieron esparru semantikoen mugak aurrekoenak (pluraltasunarena eta beste) baino zehaztugabeagoak izaten dira; hortaz, espero dezakegu kasuotan erabilpen gramatikalizatua eta erabilpen ‘perifrasitkoaren’ arteko mugak ere ez izatea oso zehatzak.

Aditzetan, erreduplikazioak akzio-moduaren (*Aktionsart*) inguruko zehaztapen bat gehitzen dio, usu, oinarrizko formari. Zehaztapen hau iteratiboa edo jarraikorra izan daiteke (*-pik* “leunki ikutu” / *-pikpik* “etengabe leunki ikutu”, tzeltal-*ez*), edo ohikotasuneko (*leume* ‘etorri’ / *leleume* “sarritan, ohiz etorri”, rotumanez). Hauexek dira adierarik tipikoenak. Dena den, zenbait indoeuropar hizkuntzatan adiera perfektiboa omen dauka erreduplikazioak (*pendeo* “zintzilikatuta nago” / *pependi* “zintzilikatuta egon naiz”, latinez).

Hauxe da Moravcsik-en sintesia. Ez dugu ahaztu behar maiz hizkuntza baten erreduplikazioak zenbait adiera bil ditzakeela, Anagbogu-k (1995) igbo hizkuntzaz ari dela dioskun legez. Hizkuntza honetan, erreduplikazioak funtzio ugari izan ditzake, eta baliabide izugarri emankorra da kategoria lexiko gehienetan. Aditzean, akzio jarraikorra (*o ná-èbe akwā* “negarrez ari da” / *o ná-èbe akwa ākwa* “negarrez ari da etengabe”) edo ohikoa (*o ná-èwo iwo* “haserre dago” / *o ná-èwo iwo īwo* “ohiz haserre dago”).<sup>8</sup> Beste aditz-egitura batzuetan, erreduplikazioak zaporea edo usaina adierazten du: *o ná-ato jii ji* “ñame zaporea du”, *o ná-eshi anwūlu anwūlu* “ke usaina dario”.<sup>9</sup> Gure (europarron) ikuspegitik, esanahia ez litzateke markatua, baina deigarria da Anagbogu-ren datuen arabera egiturei legezkiekeen forma ez erreduplikatuak posible ez izatea. Dirudienez, hauek egitura finkatuak dira. Antzerako zerbait dakusagu koloreen eremuan (Anagbogu 1995: 46-48).

Kantitatezko eta tamainazko erreduplikazioak ere badira igboz (Anagbogu 1995: 46-48), baina euskarari begira interesgarriagoa izan daiteke zehazgabe ko pluraltasuneko erreduplikazioa. Igboz, plural supletibo batzuk izan ezik

<sup>8</sup> *Èbe* “negar egin” eta *èwo* ‘haserretu’ aditzak dira *ná-* akzio-moduaren marka; *akwa* ‘negar’ eta *iwo* ‘haserre’, ordea, izenak dira. Erreduplikazioaren egitura, beraz, V + N >> V + N + N da.

<sup>9</sup> Hemen ere, *ji* ‘ñame’ eta *anwūlu* ‘ke’ izenak dira. Beraz, egitura V + N + N da.

(adib. *nwa* ‘ume (sg.)’ / *um̃u* ‘ume (pl.)’), ez dago ez izenen ez aditz-formen plurala markatzeko baliabide formalik. Anagbogu-k (1995: 50) ohartarazten duen legez: “A word can express either a singular or a plural meaning. Plurality is usually specified in one of the following ways: by numerals, by context, or by reduplication. But, whereas numerals are specific, reduplication is vague and non-specific”. Hortaz, zenbait kasutan erreduplikazioak gehitzen duen pluraltasuna semantikoki bikoitza da; zehazgabeko pluraltasuna adierazten du, baina baita elementu erreduplikatuaren eksklusibotasuna ere. Adibidez: *o nwèlù ji nà be yā* “berak ñameak ditu bere etxean”; *o nwèlù jii ji nà be yā* esaldiak ordea, non *ji* erreduplikatu den, bi gauza adierazten ditu: 1) “berak ñame ugari ditu bere etxean”, eta 2) “berak ñameak eta hori besterik ez du bere etxean”. Zehazgabeko pluraltasuna eta banaketaren (*ise* ‘bost’ > *ise īse* ‘bost-naka’) adierak ere gehi ditzake erreduplikazioak, besteak beste.

Fenomeno berdintsuak nabari dira quechuaz (ik. Adelaar & Muysken 2004: 232-233). Hizkuntza honetan, erro-erreduplikazioaren zenbait mota daude aditza zein izenaren eremuan. Tarma quechuan, aditz-erreduplikazioaren mota ezberdinek akzio simulatua (“-arena egin”), asmo zapuztua (“alferrik saiatu”), artegatasuna (“ezin itxaron gauza bat egiteko”), emaitzako izatea eta abar adieraz ditzakete. Izen-erreduplikazioak, bere aldetik, elementu saka-banatuak, kualitate banatuak, pluraltasuna (izenordainetan) eta berriro emaitzako izatea adieraz ditzake. Azken adiera hau ondoko adibidean dakuskegu: *rakta* ‘lodi’ >> *rakta-y=rakta-y-ta-m xagu-ra-ya-* “bero-ki (adb.) jantzi naiz”. Aymaran gertatzen dena berdintsua da (ik. Adelaar & Muysken: 295-296).

Arawak familiako hizkuntza frankotan (ik. Aikhenvald 1999: 65-106) errohasieraren CV- nahiz CVCV- erreduplikazioa, bai eta erro-amaieraren -V nahiz -CV erreduplikazioa, gerta daitezke. Hau aditzei aplikatzen zaie batik-bat. Adiera intentsitatekoa, errepikapenekoa, akzio jarraikorra, parte-hartzaileen pluraltasuna, eta abarrekoa izan daiteke. Macro-Jê-z (ik. Rodrigues 1999: 183-184), erreduplikazioa aditzen subjektuaren pluraltasuna markatzeko baliabideetako bat da: *kojũn* “zimeltzen da” >> *kojũnũn* “zimeltzen dira”.

Adibide gehiago jar genitzake, baina oro har aurkeztu ditugun adibideak erreduplikazioaren erabilpen ohikoenen adierazgarriak direla uste dugu.

#### 4. Euskararen erreduplikazioaren funtzioa

Ez da batere erraza euskararen erreduplikazioaren jatorrizko funtzioa zein izan zitekeen zehaztea. 2. ataleko datuek erreduplikazioa noizbait —antza de-

nez oso garai zahar batean— hitzak eratortzeko baliabideetariko bat izan zela iradokitzen dute, baina datuak urriegiak dira xehetasunetan sartu eta berauei buruz espekulazioa ez den ezer esateko. Dena den, euskalariok topatzen dugun egoera hau izaki, honen guztiaren inguruan egin daitezkeen espekulazioen taxonomia bat egin beste eginkizunik geratzen ez zaigulakoan gaude. Saia gaitezen, beraz, datuek baieztza diezazkiguketzen zenbait gertakari agertzen eta horrekin planteatzen zaigun eszenatokia marraztaten. Jarraian euskararen erreduplikazio zaharraren inguruko bi posibilitate aurkeztuko ditugu, baina hauei ekin aurretik, esan dezagun zertxobait aditz-erreduplikazio gramatikalizaturik ezaz.

Erreduplikazioaren inguruko era guztietako deskribapenak irakurriz gero, azaleratzen den fenomeno nabarmen bat hauxe da: erreduplikazio gramatikalizatua duten hizkuntza gehienetan, hau izenean zein aditzean gertatzen da. Ez da hau kantitatezko ikerketa egiteko abagune egokia. Gainera, ez dugu izena eta aditza sistematikoki bereizten dituen erreduplikazioari buruzko lanik aurkitu, ez eta izen- eta aditz-erreduplikazioak munduko zenbait hizkuntzatan zehazten duenik ere. Alabaina, euskararen aditz-erreduplikazio gramatikalizaturik ezak nolabaiteko azalpena, edo iruzkina behinik behin, behar duela uste dugu. Argi dago euskararen aditz-morfologia zaharrean e-CVC-i egiturako aditzetan ezin dela erroa erreduplikatu. Baina Lakarrak (2006b, 2008) oraintsu iradoki du e-ra-CVC egiturek ez ote zituzten izango, jatorriz, halako bikote morfologikoak. Berak jarritako adibide batzuk honakoak dira (Lakarra 2008: 457-458):

<i>*ardan-</i> < <i>*e-da-ra-dan</i>	<i>jarauntsi</i> < <i>*e-da-ra-dun-tz-i</i>
<i>jarrain</i> < <i>*e-da-ra-din</i>	<i>urgatzi</i> < <i>*e-da-ra-gotz-i</i>
<i>*arran-</i> < <i>*e-da-ra-don</i>	<i>eroan</i> < <i>*e-da-ra-non</i>
<i>*arraul-</i> < <i>*e-da-ra-dul</i>	

Bi morfemak *da-* aurrizkiaren jatorri formal berekoak lirateke. Bestetik, baliteke, Lakarrak (2008: 459) proposatu legez, CV hauek CVC egitura bateatik etortzea (adib., *\*dar* erroatik, erk. *jarri* < *\*e-darr-i*). Baina berehalako, agerianago dagoen fase honetan geratzen bagara, espekula genezake *\*da-* artizkiaren erreduplikatzeak kausatibotasuna indartzen zuela, edo iteratibotasuna gehitzen ziola. Kasu honetan deigarria litzateke erreparatzea izen-morfologian CVC erroak erreduplika daitezkeen bitartean, aditz-morfologian CVC erroak ezin erreduplika daitezkeela, baina CV egiturako morfemak bai. Nolanahi ere, lexiko hau izugarri labainkorra izateaz landara, haren inguruko lana hasiberrian dago. Hortaz, egin berri dugun arazoaren planteamendu honetara mugatuko gara oraingoz.

Bada, izen-morfologia dela eta, uste dugu *ze-zen* moduko erreduplikazioen funtziorik probableena —eta hauxe dugu aurkeztu nahi genituen bi posibilitateetarikoa lehena— plurala edo nolabaiteko pluraltasuna markatzea dela. Hau bat letorke berreraiketa morfologikoak argi eta garbi erakusten duen zenbaki gramatikaren kategoriarik ezarekin. Gaztelaniaz eta ingelesez ez bezala, zeinetan erro hutsa formalki singularra den, igboz eta txineraz, esaterako —hauetariko lehena aurreko atalean ikusi dugu—, erro lexematiko hutsa ez dagokio zenbaki kategoriaren inongo zehaztapeni. Balio sg. edo pl.-a testuinguruak edo bestelako faktore pragmatiko batzuk eman ohi diote. Hauetariko kasu frankotan, erreduplikazioa plurala agerian (*overtly*) markatzeko baliabidea da. Baliteke euskararen erreduplikazioaren jatorrizko eginkizuna hauxe izatea. Printzipioz suposa dezakegu adiera hau (plurala) item lexiko zenbakarriei egoki dakiekeela hobeto. Agian animalien izen erreduplikatuek haien pluraltasuna adierazten zuten, hain zuzen. Beste kasu batzuetan, *\*do-dol* > *odol* eta *\*no-nol* > *ohol* kasu, erreduplikazioak ugaritasuna edo antzerako ezaugarriak adieraz zitzaizkeen. Bestetik, *\*na-nan-tz-i* > *ahantzi* eta *\*na-nal* > *ahal* bezalakoetan, jatorrizko zentzua zeharo ilun gertatzen zaigu. Garai historikoetan aditz arrunt edo aditz modal bihurtu badira ere, haien egitura morfologikoak —CVC erroaren erreduplikazioaz eta *\*e-rik* ezaz ari gara— jatorriz aditzak ez zirela iradokitzen dute. Item erreduplikatuek halabeharrez pairatu duten desemantizazioak xehetasun sakonagoetan sartzea eragozten digu.

Goazen orain bigarren posibilitatera. Martínez Areta (2003) artikuluan monosilabismotik disilabismorako garapenaren interpretazio semantiko bat egin dugu. Haren bidez fenomeno batzuk azaltzen saiatu gara. Laburbilduz, bertan dioguna honako era honetan laburbil daiteke. Hizkuntzaren oso garai zahar batean, honetan zeuden elementu monosilabiko ugari bikotetan taldekatzen hasi ziren. Adibidez, ziurrenik hizkuntzak *\*han* elementu bat izan zuen noizpait, ‘animalia’ edo antzerako esanahia zuena. Beranduago, *\*ker* (agian ‘gaizto’) epitetoarekin elkartu zen eta loturatik *\*ha(n)-kér* sintagma bat sortu zen, lexikalizatu ondoren oinarri disilabiko, hots (*h*)*akér*, bihurtu zena. Prozesua honelaxe irudikatu dugu: [ \_ - \_ ’ ] > [ \_ \_ ’ ]. Leku berean esan dugu prozesu honen ondoren monosilabiko geratu ziren oinarrien eta disilabiko bihurtu zirenen arteko erkaketa semantikoa txit interesgarri gerta daitekeela. Gure hausnarketa zen lehenengoan artean ia ez dagoela esanahi singulatibo argia duen eta erabateko ziurtasunez zahartzat jo dezakegun hitzik (‘begi’, ‘hortz’,<sup>10</sup> ‘izar’, ‘mendi’...).

<sup>10</sup> Hau monosilabikoa da baina ez CVC egiturakoa, *-tz* luzapena duelarik.

Lehenago esan bezala deigarri suertatzen zaigu euskarazko animalien izenen artean (aitzin-hizkuntzarako berreraiki daitezkeenez ari gara) ia oinarri monosilabikorik ez aurkitzea, eta galdera jaurti nahi genuke, ez ote duen honek zerikusirik izango aztergai ditugun 19 (ustezko) erreduplikazioen artean animalien 5 izen egotearekin.

Bigarren posibilitate honen enuntzaiatua beraz, honakoa litzateke: erreduplikazioa oinarri monosilabiko batetik beste disilabiko bat lortzeko prozedura formala zen, inongo esanahirik (pluralekorik, txikigarrik, intentsitatekorik...) ez zuelarik. Era honetan, \**zen* oinarri monosilabikotik *ze-zén* oinarri disilabikoa sortzen zen. Seguru asko, baliabide hau bat oinarri disilabikoak sortzeko beste batzuen artean izango zen. Beste bat epitetizazioa izan zitekeen (\**zen* >> *ze(n)-kór*) edo atzizkien eransketa (\**har* >> *harr-i*).

Honen paralelo bat mandarin txinera modernoan daukagu. Hizkuntza honetan (ik. Li & Thompson 1990: 818-824), jatorriz monosilabiko ziren zenbait elementu, *zhuō*, *bēi*, *yǐ* eta *píng* kasu, disilabiko bihurtu dira *-zi* atzizkiaren eransketaren bidez. Atzizki honek ez du deus adierazten —etimologikoki atzizki txikigarria da—, baina erroari atxikita hau oinarri disilabiko bihurtzen du: > *zhuōzi* ‘mahai’, *bēizi* ‘kopa’, *yǐzi* ‘aulki’ y *píngzi* ‘botila’. Beste bi batzuk, non *-zi* atzizkia desemantizatu den, *érzi* ‘seme’ eta *háizi* ‘ume’. Disilabikoak eratzeko beste baliabide bat oinarri disilabiko baten erreduplikazioa da: *gēge* “anaia handiago”, *dìdì* “anaia txikiago”, *jiějie* “ahizpa handiago”, *mèimei* “ahizpa txikiago”. Elementu monosilabiko bat beste monosilabiko batekin konbinatuz disilabiko bihurtzen denean, orduan ez *-zi* atzizkiaren eransketa ez erreduplikazioa ez dira beharrezkoak: *shūzhuō* ‘idazmahai’ (*shū* ‘liburu’), *yuánzhuō* “mahai borobil” (*yuán* ‘borobil’), *jiǔbēi* “ardo botila” (*jiǔ* ‘alkohol’), *dàgē* “anaia handiena” (*dà* ‘haiz, handi’), *dàjiě* “ahizpa handiena”.

Planteamendu honi zenbait eragozpen osterak dakizkioke. Batetik, euskarazko animalien izen oro monosilabikoa den baieztapenaren salbuespen bat behinik behin, badago, antza: *hor*. Joera, baina, nabarmenegia iruditzen zaigu kontuan ez hartzeko.<sup>11</sup> Bestetik, *urgatzi* < \**e-da-ra-gotz-i* (hots, \**e-da-da-gotz-i*) moduko eraikuntzak —hauek zinez erreduplikazioak badira jatorriz— azaltzeko uzten ditu. Haatik, hipotesi honen bidez agian gertakari batzuk azal-

<sup>11</sup> Eta *hor*-en bertan ere kontuan hartu behar dugu haren erreduplikaziotik irtego litzazukeen forma \*\**ho-hor* litzatekeela. /h/, /t/ zein /k/-z hasitako erroen gainean eraturako erreduplikaziorik ez bide dagoenez, *hor*-en erreduplikazioa ezinezkoa litzateke edozein kasutan.



pena eskura dezakete. Hala nola, guri bitxi samar gertatzen zaigu hemen zuzentzat edo probabletzat jotzen ari garen 19 erreduplikazioetarik, *go-gor* izan ezik gainontzekoen aldaera ez erreduplikatuek lexiko historikoan inongo zantzurik utzi ez izana. Hau da, dirudienez *\*der*, *\*zen*, *\*zal* edo *\*nol* bezalako erroek erreduplikazioak (*\*de-der* > *e-der*, *ze-zen*, *\*za-zal* > *a-zal*, *\*no-nol* > *o-hol*) edo bestelako egitura sintagmatiko disilabikoak (*ze(n)-kor*, *zal-di...*) era ditzakete, baina ezin ager daitezke posizio isolatuan: *\*\*der* (> *\*\*ler*), *\*\*zen*, *\*\*zal*, *\*\*nol*. Plurala erreduplikazioaren bidez markatzen duten eta aztergai izan ditugun hizkuntzetan, forma erreduplikatu markatuaren pare-parean dagokion oinarriko forma ez erreduplikatua (pluraleko adierarik gabea) bada: mand. txin. *ren* ‘gizon’ / *renren* ‘gizon guztiak’. Zergatik ez da gauza bera euskaraz gertatzen? Azalpen bat izan liteke, esan dugunez, erreduplikazioak ez zuela jatorriz ezein semantiarik gehitzen, eta egitura disilabikoa sortzeko baliabide formala besterik ez zela.

Halaber, bigarren posibilitate honek aditz-erreduplikaziorik eza ere azal dezake, ausaz. Honela, agian *\*e-CVC* egiturako CVC erroak ez ziren erreduplikatzen *e-* erantsita bazirelako jadanik disilabikoak. Honek, baina, zenbait aditz-erro azaltzeke utziko lituzke, *sor-tu*, *sar-tu*, *har-tu*, *bil-du* edo *ken-du* kasu.

Azkenik, markatu nahi genuke zenbait kasutan erreduplikazioari atzizki bat erantsi zaiola: *\*na-nar-di* > *ahardi*, *\*na-nan-tzi-i* > *ahantzi*, *\*no-non-i* > *ohoin*, *\*no-non-tz* > *ohostu*, *\*ni-nin-tz* > *ihintz*. Hau ez da, halabeharrez, ezein teoriaren aldeko zantzua. Erreduplikazio arruntak, behin eratuta, oinarri disilabiko arrunt baten moduan funtziona zezakeen. Eta kontuan hartzen badugu zantzu argiak daudela hizkuntzaren historia berrian atzizkiak gehiagotuz joan direla susmatzeko (ik. Lakarra 2006a, 2006b, 2008), *-di*, *-tz* eta *-i* atzizkiak beranduago atxikitu direla suposa dezakegu.

## 5. Amaierakoa

Lan honetan euskararen bertako lexiko zaharrean erro-erreduplikazioa hitzak eratortzeko baliabidea dela egiaztatu dugu. Gure aztergaia 2. atalekoen moduko erreduplikazioetara mugatuz, uste dugu formaren ikuspegitik *go-gor* bezalako erreduplikazioak jatorriz zatikakoak nahiz erabatekoak (< *\*gor-gor*) izan ahal izan dela, bi hipotesiek datu historikoetara eramanez gaitzaketaririk.

Erreduplikazioaren jatorrizko funtzioari begira, bi posibilitate onartu ditugu: 1) oinarri ez erreduplikatuari pluraltasuneko, ugaritasuneko edo honen

antzerako adiera bat gehitzen zion; 2) ez zion oinarri ez erreduplikatuari inongo adierarik gehitzen, eta erro monosilabiko bat disilabiko bihurtzeko baliabide formal hutsa zen. Lehen hipotesiak paralelo tipologiko gehiago ditu eta bat dator euskara zaharrerako berreraiki daitekeen zenbaki gramatikalaren kategoriarik ezarekin. Bigarrenak, ordea, erreduplikazioei legezkiekeen oinarri ez erreduplikatuen izaterik eza azal lezake.

Gure irudiko, bi hipotesiek alde onak eta txarrak dituzte, eta datozen urteotan euskal hizkuntzalaritzak ikertu beharreko gai berriak planteatzen dituzte. Nolanahi ere, euskal erreduplikazio zaharraren gaiari ekiten dion edozein euskalarik edo tipologok azaldu beharko duen galdekizun bat aditz-erreduplikaziorik eza da. Gainera, berriki artizkien erreduplikazioaren posibilitatea planteatu denez (adib., *jarauntsi* < \**e-da-ra-dun-tz-i*), dirudienez elementu berriak sar daitezke auzian.

### Erreferentziak

- Adelaar, W. F. H. & Muysken, P. C., 2004, *The Languages of the Andes*, Cambridge U.P.
- Aikhenvald, A. Y., 1999, "The Arawak language familiy", in Dixon & Aikhenvald (arg.), 65-106.
- Anagbogu, P. N., 1995, "The Semantics of Reduplication in Igbo", *Journal of West African Languages* 25, 43-52.
- Azkarate, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Donostia, Unibertsitate Saila (E.U.T.G. - Mundaiz).
- Dixon, R. M. W. & Aikhenvald, A. Y. (arg.), 1999, *The Amazonian Languages*, Cambridge U.P.
- Heine, B. & Nurse, D. (arg.), 2000, *African Languages. An Introduction*, Cambridge U.P.
- Hualde, J. I., Lakarra, J. A., Trask, R. L. (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam, John Benjamins.
- Lakarra, J. A., 1995, "Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root", in Hualde, Lakarra, Trask (arg.), 189-206.

- , 2002, “Etymologiae (proto)uasconicae LXV”, in Artiagoitia, X., Goenaga, P., Lakarra, J. A. (arg.), *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. De Rijk* (ASJU-ren Gehigarriak, 44), Bilbao, UPV/EHU, 425-442.
- , 2006a, “Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica”, *Oihenart* 21, 299-322.
- , 2006b, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco”, in Lakarra, J. A., Hualde, J. I. (arg.), *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (ASJU-ren Gehigarriak, 40), Donostia/Bilbao, UPV/EHU, 561-621.
- , 2008, “Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)”, in Artiagoitia, X., Lakarra, J. A. (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez* (ASJU-ren Gehigarriak, 51), Donostia/Bilbao, UPV/EHU, 451-490.
- Li, C. N. & Thompson, S. A., 1990, “Chinese”, in Comrie (arg.), *The World's Major Languages*, Oxford U.P., 811-833.
- Martínez, M., 2003, “Hitz-konposakera euskaraz eta aitzin-euskaraz”, *ASJU* 27, 1-84.
- , 2007, *El consonantismo proto-vasco*, UPV/EHU-ko argitalpen zerbitzua.
- Moravcsik, E. A., 1978, “Reduplicative constructions”, in J. Greenberg *et al.* (arg.), *Universals of human language, III*, Stanford, U. P., 297-334.
- Rodrigues, A. D., 1999, “Macro-jê”, in Dixon & Aikhenvald (arg.), 165-206.
- Trask, R. L., 1997, *The History of Basque*, Londres, Routledge.

# Akitaniar *HARBELEX*. Hitz-elkarketako arau morfo-fonologiak ikuspegi diakronikotik

MIKEL MARTÍNEZ ARETA

UPV/EHU

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Ezaguna denez (ik. Mitxelena 1997 [1953]: 24-33, Mujika 1982, Trask 1997: 183-192), elkarketan euskarazko hitzek zenbait aldaketa morfo-fonologiko jasotzen dituzte. Elkartuaren lehen osagaia bi silabakoa bada, orduan, hau *i-z* amaitzen bada, hau desagertzen da (*ardi-* + *-talde* > *artalde*); *e-z*, *a-z* edo *o-z* amaitzen bada, bokal hauek *a* bihurtzen dira (*etxe-* + *-gain* > *etxagain*, *aza-* + *-lore* > *azalore*, *baso-* + *-jaun* > *basajaun*); azkenik, *u-z* amaitzen baldin bada, emaitza desagertzea nahiz *a* bilakatzea izan daiteke (*buru-* + *hezur* > *burezur*, baina *katu-* + *larru* > *katanarru*). Lehen osagaia hiru edo silaba gehiagokoa bada, berriz, ohiko emaitza bokalaren galera da, honen tinbrea zein-nahi delarik ere (*iturri-* + *-buru* > *iturburu*, *txapela-* + *-dun* > *txapeldun*, *eliza-* + *-koi* > *elizkoi*, *itsaso-* + *-gizon* > *itsasgizon*). Batzuetan, azken bokalaren aurreko kontsonanteak ere aldaketak jasaten ditu. Hala nola, *-g-* > *-t-* edo *-r-* > *-l-* (*begi-* + *-azal* > *betazal*, *abere-* + *-zain* > *abeltzain*). Bestalde, lehen osagaia kontsonantez bukatzen bada, hau *r* izanez gero eror daiteke (*adar-* + *-begi* > *adabegi*), eta *n* izanez gero *r*-rekiko txandaketa era dezake (*egun-* + *-aldi* > *eguraldi*) edo erori eta aurreko bokalak ohiko aldaketa jasan dezake (*gizon-* + *-ki* > *gizaki*).

---

<sup>1</sup> Lan hau bi Ikerketa Proiektu kolektiboren esparruan egin da: 1) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzaturako “Fundamentos para unos Monumenta Linguae Vasconum II: historia, crítica y edición de textos vascos” (HUM2005-08047) izenburuko bat; eta 2) Eusko Jaurlaritzak finantzaturako “Lingüística histórica e historia de la lengua vasca” izenburuko beste bat. Bi kasuetan, parte-hartzaileak UPV/EHUko Letren Fakultateko ikertzaileak dira, Joseba Lakarra Andrinua katedraduna ikertzaile nagusia delarik.

## 2. Elkarketako fenomenoek alderdi diakronikoak

Txandaketok euskalki orotan ageri dira eta dirudienez gertakari zaharra da. Erdi Aroko agerietan (aurrerantzean, EA), prozesua erabat burututa dago (ik. Mitxelena 1964): *Arburua* (1284, Roncesv.; < *harri*-), *Larraburu* (1284, Roncesv.; < *larre*-), *Lamiturri* (CSM 36; < *lamina*-), *Erretzubi* (1125, Alf. I; < *errege*-), *erret bide* (XII. m., F.G.Nav.; < *errege*-), *echaiaun* (XII. m., F.G.Nav.; < *etxe*-), *echandra* (XII. m., F.G.Nav.; < *etxe*-)... Abizenetan eta toponimoetan ere ageri dira (ik. Mitxelena 1997 [1953]: 24-33): *Arregi* (< *harri*-), *Larramendi* (< *larre*-), *Sorazabal* (< *soro*-), *Iturbe* (*iturri*-), *Oiharzabal* (< *oihan*-), *Akesolo* (< *aker*-)... Nolanahi ere, hemen Mitxelenaren (1997 [1953]: 24) oharpena hartu behar dugu kontuan. Abizenez ari dela, beronek diosku: “De que se observe o no este fenómeno podrían obtenerse indicaciones acerca de la distinta edad o carácter de los sufijos, pues con algunos es prácticamente normal, mientras que con otros es excepcional”. Beraz, elkarketaren baliabideak bi elementuen arteko fenomeno batzuk sorrarazten ditu, baina beti ere bi zedarritzapen dituelarik:

1) bat, hizkuntzan bertan. Bi elementu hitz elkartu batean elkartzen direnean, ikusi ditugun prozesu morfo-fonologikoak gertatzen dira, baina horrek ez du esan nahi bi elementu horiek ezin daitezkeenik bereiz mantentzea, alegia, ezin dezaketenik sintagma bat osa hitz elkartua izateke. Hala nola, *bide*- + *-aurre* elementuen elkarketatik *Bidaurre* abizena sortzen da, baina honen parean *bide aurre* sintagmak izaten jarrai dezake. Normalean, elkartuek dagozkienez sintagmek baino adiera zehatzagoa, erreferentzialagoa izango dute (ik. Martínez Areta 2003).

2) bestea, denboran zehar. Zentzuduna dirudi elkarketaren prozesua garai jakin batean izan zela emankorren pentsatzea. Garai honen ondoren, eratu diren hitz elkartuek ez bide dituzte ohiko aldaketak jaso.

Ez da erraza *Arr-egi* / *Arri-egi* eta *Sora-zabal* / *Soro-zabal* bezalako bikoitek hauetariko zein zedarritzapenengatik azal litezkeen jakitea, hau da, garai bereko emaitza ezberdinak edo garai ezberdinetako emaitzak diren. Baina kasu batean zein bestean ondorioa berdintsua litzateke: hitz-elkarketa eta haren erregela morfo-fonologikoak ez dira elkarketaren emaitza bakarra eta nahitaezkoa.

*Elementuak* diogunean jatorrizko egoeraz ari gara. Egungo ikuspegitik ikusita, *-egi*, *-ola*, *-be*, *-dun* eta honelako beste batzuk atzizkiak baino ez dira, baina elkarketan ohiko erregela morfo-fonologikoak pairatzen dituzte. Horrek adie-

razten du noizpait nola edo hala elementu lexematikoak izan direla, *-zabal*, *-soro*, *-buru* eta honelakoak gaur ere diren bezalaxe. Aitzitik, *-aga* eta *-eta* beti izan dira atzizkiak (deklinabideko atzizkiak, alegia), eta horren ondorio bide da aipatu erregela morfo-fonologikoak inoiz ez aurkeztea, Mitxelena (1971: 142) adierazi legez. Erkatu (*H*)*arri-aga*, (*H*)*arri-eta* vs. *Arr-egi*, *Ar-bea*, *Ar-dui*.

### 3. Auziaren planteamendua

Gauzak ilunxeago bihurtzen dira Erdi Arotik akitaniar inskripzioen garaira leheneratzen garenean. Hauek urriak dira eta beren interpretazioa ez da zentzubakarrekoa. *AXTOVRI* eta *LVRGORRI* (- mod. *lugorri*) kasuetan (lehen kasuaren interpretazio semantikoa zein-nahi delarik ere), badirudi ez dagoela txandaketa morfo-fonologikorik, baina ez dago ziurtasunez jakiterik hauek elkartuak ala lotura sintagmatikoak ziren. Auziaren gakoa akit. *HAR-BELEX*-en ezarri da: *harri-* + *bel(e)tz* loturatik al dator, edo *har-*etik (inolako luzapenik gabe), zeini *bel(e)tz* atxiki zaion?<sup>2</sup>

Arazo hau Mitxelena (1954: 438) eztabaidaratu zuen duela mende erdi baino gehixeago eta oraindik ez dago adostasunik datuak interpretatzeko orduan. Haren esanak (aipatu lekuan) errepikatzea merezi du:

Para expresar francamente mi opinión, no creo que el material de que disponemos, dada la inseguridad de las etimologías, permita una decisión tajante, pero me inclino a pensar que faltan pruebas de que tal estado de cosas fuera ya aquitana. Lo malo es que, en último término, la decisión está basada en las etimologías y éstas a su vez dependen de la opinión que tengamos sobre esta cuestión, con lo que estamos encerrados en un círculo vicioso.

Beraz, Mitxelena ez da behin-betiko irizpenik ezartzera ausartzen, baina bere irudiko fenomenoak akitaniar datuetan ez dela ageri aditzera ematen du. Jarraian hauetariko zenbait aipatzen ditu, non erregela morfo-fonologikoak ez diren gauzatzen: akit. *CISON-TEN* - mod. *gizon* / *giza-* (*giza-seme*, top. *Giza-*

<sup>2</sup> Akitaniar inskripzioekin ia beti gertatzen den bezala, ondorio irmorik ezin atera dezakegula onartzea dugu kasu guztietan aukerarik onena. Hauxe bera gertatzen zaigu *HARBELEX*-ekin ere. Ondoko orrialdeotako arrazoibidea *HAR-BELEX* < *harr(i)-* 'harri' + *beletz* 'beltz' eratorpenean oinarritzen da. Baina ez dago behin-betiko argudiorik *HAR-BELEX*-en lehen elementua eusk. 'hartz' delako hipotesia baztertzeko (kontuan har, gainera, inskripzio berean *HAR-BELEX*-en aita *HARS-I* —*I* gen. sg.-eko atzizkia delarik— dela zehazten zaigula; Gorrochategui 1984: 218, 220-221).

*buruaga*, *Giz-irudiaga*), akit. *LOHI-TTON* ~ mod. *lohi* / *lo(h)*-, *lot*- (*Sauguis locoroça*, < \**lot-gorotza*), akit. *SEMBE-TEN* ~ mod. *seme* / *sema*-, akit. *SENI-CO* ~ *sen*- (*sen-ide*, *sehi* < \**sen-i*).<sup>3</sup> Gainera, ageri zaigun *BELEX* izena mod. *belatz*-i balegokio, hau froga biribila izango genuke, garai historikoetako hitz eratorriaren eta oinarritzkoaren bokalismoak (*belatz* baina *bele*) ezberdinak baitira (erkatu, halaber, *aberats* baina *abere*).

Ildo beretik darraio Gorrochategui, akit. *BELEXCONIS*-ez ari dela dioenean (1984: 159-160): “Si la relación aquit. *Belex-co-(nis)*: vasc. *Berasco(iz)* es exacta, nos indica al mismo tiempo que el frecuente cambio de timbre de la última vocal del tema en composición es posterior al estadio de lengua atestiguado en las inscripciones aquitanas”. Beste leku batean, grekoz idatzita dagoen *ΑΠΡΑΣΩΝΙ*-z hitz egiten du. Honekin batera beste bi *LARRASONI* daude, latinez idatziak, eta hirurak Aude-ko frantziar departamentuan daude. Lafonek *larre*-rekiko lotura proposatu zuen. Mod. *larre* / *Larra-zabal* (abiz.) txandaketa historikoa kontuan hartuta, inskripzio hau txandaketa morfo-fonologikoaren lekukoa dela iradoki liteke, baina Gorrochateguik (1984: 342) Lafoni osteratzen dion legez:

De todas formas no creo que se pueda basar en una etimología dudosa, de un nombre de divinidad muy alejado de la zona vasca actual y de la zona aquitana de época romana, afirmaciones tan generales como las expuestas, sobre todo si en el repertorio de antr. aquit. no encontramos nada parecido a \**Gis(s)a*- frente a *Cisson-* de *Cissonbonnis*, y si a un med. *Velasco* le corresponde un aquit. *Belexco(nis)*.

Inskripziook, akitanian eskualdetik hain urrun izaki, *larre/larra*- motako txandaketa morfo-fonologiko bat irudikatzen duela proposatzea oso espekulatioa delako eragozpenarekin, bat gatoz.<sup>4</sup> Baina akit. *BELEXCONIS* eta EA.

<sup>3</sup> Kontrako adibide bat *SEN-TARRI* (~ *SENI-CCO*, *SENI-PONNIS*...) izan liteke, baina dagokion inskripzioa irakurketa zailekoa izaki (ik. Gorrochategui 1984: 267), ez zaigu komeni gure burua balizko posibilitateetan behar baino gehiago nahaspilatzea.

<sup>4</sup> Gorrochateguiren lanaz geroztik *LARRAHE* teonimoa agertu da Nafarroan (Gorrochategui 1995: 205), baina hau ere ez da erraza etimologizatzen. Hau da, bertan eusk. *larre*-daukagula erreserbarik gabe onartuko bagenu ere, ez dago erabat argi —gure irudiko behinik behin— hitz-elkarketan espero genukeen *larra*-aldaearen aurrean gauden. *LARRA*-hauetaz landara, Ptolomeok eta *Itinerarium Antonini* delakoak *Ιτροπία* eta *Iturissa* lekukotasunak erakusten dituzte, hurrenez hurren. Nafarroako Pirinioetan kokatu ohi da (Gorrochategui 1995: 204). Tovar-ek ez bezala, hizkuntzalari honek ez du uste Gerona aldeko mosaiko batean aurkitutako *Turissa* (ziurrenik > EA. *Tursa*, *Torsa*, > mod. *Tussia*, *Tossa*, toponimoa) Nafarroako toponimoarekin pareka daitekeenik; mod. *Iturri*-ekin, ordea, argi dago baietz. Norbaitek esan lezake Ptol. It.Ant. *Itur-i-ssa* hau arau morfo-fonologikorik ezaren aldeko zantzua dela, baina mod. *Iturri-za*-rekiko erkaketak Antzinateko lekukotasuna anbiguo bihurtzen du, arau ez

*Velasco*-ren arteko erkaketari datxekionean oso zuhur aritu behar dugulakoan gaude. Batetik, *-co(n)* edo *-cco(n)* atzizki bat ageri zaigula, bistan da (ik. Mitxelena 1954: 414). Beraz, erkaketaren formulazioa akit. *BELEX- / EA. Velasbinomiora* mugatu beharko genuke, eta honenbestez akit. *BELEX / mod. belatz* bikotera itzultzen gara. Honela, *belatz* ‘bele- + -tz’ loturatik letorke. Akitanieraren garaian lehen osagaiaren azken bokala mantenduko litzateke, baina EA.-tik ageri den hitz historikoan txandaketa burutua legoke.

Nolanahi ere, egokitzapen honek gutxienez eragozpen formal bat eta beste semantiko bat dauka. Formala, jakina, *BELEX-* > *\*\*beretz* (edo *\*\*beratz*) espero genukeela da.<sup>5</sup> Semantikoa, *BELEX*-en ‘belatz’ esanahia ez litzatekeela *HARBELEX*-en batera ulergarri. Honetan *-BELEX* ‘beltz’ ikusteari askoz zentzudunagoa deritzogu, batez ere kontuan hartuta “harri beltz” interpretazioak (- mod. *arbel*) zuzena izateko probabilitate handia duela.<sup>6</sup> Tarteko konponbide bat, Mitxelenak berak (1954: 429)<sup>7</sup> defenditua, biak etimo beretik eratoritzea da. Azken finean, ‘beltz’ belatzaren epitetoa izan daiteke, batik bat belearen paraleloa (zalantza izpirik gabe ‘beltz’ esanahiarekiko nola edo halako harreman etimologikoan) hain gertu dugularik. Honen atzean legokeen irudipen inplizitua litzateke *BELEXCONIS*-en jatorrizko etimoaren ‘belatz’ esanahia, *HARBELEX*-en ordea jatorrizko etimoaren ‘beltz’ esanahia, mantenduko ziratekeela.

---

baita gauzatu. Izan ere, mod. *Iturri-z-a* vs. *Elor-za* (< *\*elorri-za*)-ren arteko erkaketak erakusten du arauaren gauzatea ez dela erabat zorrotza. Esanguratsua deritzogu *Turza* errioxar toponimoari, xvi. mendean *Iturza* formapean lekukotzen delarik (ik. Gorrochategui 1995: 204), baina ez Ptol. It.Ant. *Itur-i-ssa* > xvi. mend. *Iturza* egokitzapena erabakigarritzat jotzeko bezainbeste. Horretarako, hori bezalako kasu gehiago (eta emaitza pan-dialektalak erakutsi ditzenak) beharko genuzke.

<sup>5</sup> Honek zenbait azalpen izan litzake. *Velasco* garapen erromanikoa bide da. Izan ere, euskal antroponimian badugu *Berascoiz* abizena (non *\*-l-* > *-r-* eta *\*-n-* > *-Ø-*; erk. akit. *BELEXCONIS*). *Belatz* hitza arazotsuxeagoa litzateke.

<sup>6</sup> Dena den, esanahia “hartz X” balitz ere, X-ren adierarik gomendagarriena ‘beltz’ litzateke. Mitxelenak (1954: 438) dio: “Esto es lo que aceptan tácitamente quienes proponen etimologías como *HARBELEX* de *\*(h)arri-beltz* ‘piedra negra’ o ib. *Arbiscar* TS de *\*(h)arri-bizkar*”. Esan hauetatik guk interpretatzen duguna da etimologia honetan Mitxelenari bitxi suertatzen zaiona *-i-*ren mantentzea dela, besterik ez. Izan ere, Mitxelenak berak (1958: 237-238) *HARBELEX*-en *BELEX* mod. *beltz*-ekin parekatzen du. Bestalde, iberierazko datuak epaitzeko gai ez garenez, *Arbiscar* eta beste (ik. Mitxelena 1954 non-nahi eta Gorrochategui 1984, batez ere hemen guri dagozkigun sarreretan) albo batera utziko ditugu hemen.

<sup>7</sup> “La identificación de aquit. *Belex*, etc. con vasc. *beltz*, *baltz* ‘negro’ o con *belatz*, *belatz* ‘gavilán’ ‘corneja’ (de *bele* ‘cuervo’), que según la opinión generalmente compartida forman parte del mismo grupo etimológico, es razonablemente segura [...]”.



Baina, akit. *BELEX*(*CONIS*) > EA. *Velas*(*co*) egokitzapena ontzat hartuta ere, txandaketa bi garaien arteko tartean gertatu dela baieztatzeko xehetasunak zehaztu beharko genituzke. EA. *Velas*(*co*)-n eta mod. *belatz*-en txandaketa izanez gero, hau *bele*-rekin izango zen, eta prozesuak horrelako zerbaiz izan beharko zuen: /*bele-* + *-tz*/ > akit. *BELEX* > EA. *Velas-*. Hipotesi honen arabera, *belatz bele*-tik eratorri beharko genuke.<sup>8</sup> Honek aldi berean bi arazo konpontzea ahalbidetuko liguke, *bele*-ren albokaria *fortis* batetik baitator (< \**beLe*), eta EA. *Velasco* / mod. *belatz* formen albokaria azalduta geratuko litzateke.<sup>9</sup> Honen arazoa, berriro ere, *HARBELEX*-en legoke, bai eta gainontzeko akitaniar itemetan, non *BELEX*-en esanahia ‘beltz’-etik hurbilago dagoen. Hautan, *BELEX* < *bele-* + *-tz* baletor ere, erroa fosilduta ageri da, eta hori horrela izanda nekez uler daiteke *beletz* > *belatz* ondorengo garapena, txandaketa morfo-fonologikook beti lehen osagaiaren eskuineko ertzean —eta lexemen/morfemen arteko bereizkuntzak bizirik dirauela— gauzatzen direlarik.

Azken eragozpen honi aski esanguratsua deritzogu, baina —auzia are gehiago korapilatuzko— ez dugu ahaztu behar akit. *SILEX* ere badugula, hau ere antza erro lexikalizatua izaki, zeinetarako Mitxelenak (1970: 106) Ek. *sirats* ‘nerbio’-rekiko erkaketa proposatu zuen, erreserba handiz. Orotarikoak (XIV, 763) Ek. ‘hado, suerte, destino’ ere ematen du. *BELEX*-ekiko paraleloa ezin estuagoa da.<sup>10</sup> Galdekizuna: akit. *BELEX* > mod. *belatz* eta (hau zuzena izatekotan) akit. *SILEX* > Ek. *sirats* garapenak, txandaketa morfo-fonologikoen barne ulertu behar ditugu, ala lexema barneko aldaketa gisa interpretatu behar ditugu? Guk ez dugu behin-betiko erantzunik; auziaren behar bezalako planteamenduaz beste helbururik ez dugu hemen.

#### 4. -n/-r- txandaketa

Akit. *HARBELEX* hitz elkartuan *-i-* bat galdu den ala ez, ez dago jakiterik. Era berean, \*\**GISA-TTEN* moduko formarik ez agertzea ez da txandaketa morfo-fonologikoen eraginkortasunaren aurkako behin-betiko froga. Eta akit. *BE-*

<sup>8</sup> Gorrochateguik (1984: 158) mod. *bera* / mod. *beratz* paraleloa aipatzen du, besteak beste.

<sup>9</sup> Kasu honetan, *Berazcoiz* litzateke azaldu beharrekoa.

<sup>10</sup> Beste bikote interesgarri bat akit. *BERHAXSIS* - mod. *beratz* dugu (ik. Gorrochategui 1984: 269). Egokizapenak, zuzena izanez gero eta akit. *BELEXONIS* - mod. *belatz* (< /*bele-* + *-tz*/ ?) bikotearekin alderatuz, gutxi diosku ustezko txandaketa bati buruz, mod. *bera* eta *beratz* formen artean ez baitago *bele* / *belatz* motako txandaketa bokalikorik (gogoratu: /*aza-* + *-lore*/ > *azalore*). Hortaz, hemen prozesu morfo-fonologikorik balego ere, kasu honetan ez litzateke formalki azaleratuko.

*LEXCONIS* > EA. *Velasconis*, mod. *belatz* egokitzapenak txandaketen prozesua akitaniar garaia ondoren garatu zela frogatzen duelako baieztapenari, ikusi dugu nola jar dakizkiokeen zenbait zehaztapen (hipotesi zentzuduna dela ukatzeko). Aitzitik, *-n/-r-*ren arteko txandaketa akitanieraz jadanik eraginkorra zela, ukazina da. Ikus bitez honako txandaketok: akit. *ILV-N*, *ILLV-N-A* (?); *ILV-NN-OSI*, *ILV-NN-O*, *ILV-M-BER*[ vs. *ILV-R-ONI*, *ILV-R-BERRIXO*, *ILV-R-BERRIXON*]. ‘*-n* hitz sinpleetan vs. *-r-* elkarketan’ egokitzapena erabatekoa ez bada ere (espero genituzkeen emaitzak ez ditugu lortzen ez *ILV-M-BER*[-en ez *ILV-R-ONI*-n], argi dago behintzat item lexiko hau batzuetan *n-z*, beste batzuetan *r-z* bukatzen dela. Eta gogora bedi hitz elkartu batean txandaketa morfo-fonologikorik ez aurkitzeak ez duela halabeharrez adierazten garai horretan txandaketa ez denik eraginkorra. Gerta liteke eraginkorra izatea baina kasu horretan ez gauzatzea. Hauxe bera gertatzen bide da *ILV-M-BER*[-en, alboan duen *ILV-R-BERRIXO*-n gertatzen dena ikusita.<sup>11</sup>

Bada, inskripzioen hizkuntzan *-n/-r-* txandaketa eraginkorra dela, inolako zalantzarik gabe baiezta dezakegu. Hortik aurrera, arazoa da txandaketa morfo-fonologikoen multzoa prozesu unitario baten moduan interpretatu behar dugun ala ez. Baiezko kasuan, *-n/-r-* txandaketa akitaniar datuetan agertzea garai hartan gainontzeko txandaketa morfo-fonologikoak ere (*-i* > *-Ø-*; *-e*, *-a*, *-o* > *-a-*; *-u* > *-Ø-*, *-a-*; *-g* > *-t-*; *-r* > *-l-*; *-r* > *-Ø-*; eta abar) eraginkorrak izatearen aldeko zantzua litzateke. Honek, jakina, ez du halabeharrez honela izan behar, eta ziurrenik ez da. Baliteke txandaketak kronologia ezberdinetako prozesuen emaitzak izatea. Adibidez, bistan da *-l/-r-* txandaketa (*erdal-dun* / *erdara*) \**-l* > *-r-* aldaketaren ondorioz sortzen dela, eta aldaketa hori akitaniar garaia baino askoz berantiarra da.

Baina, era berean, ezin uka daiteke txandaketa morfo-fonologiko orotan erabide formala berbera dela: hitz elkartuaren lehen osagaiak amaieran nola baiteko aldaketa bat pairatzen du. *ILV-N* vs. *ILV-R-BERRIXON*[ inskripzioen garaian *ardi* vs. *ar(t)-kume* motako txandaketarik ez bazen, behintzat hizkuntzan bertan hura sortzeko motibazioa eta eredu baziren.

## 5. Ondorioak

Auzia, beraz, honako puntuotan laburbilduko genuke:

<sup>11</sup> Hemen ere, iberierazko (eta toponimiako) datuak bereiz aztertu beharko genituzke, akitanierazko datuekiko lotura hipotesi hutsa delarik. Ik. Gorrochategui (1984) ikerketan *ILVN* / *ILVR*-formadun sarrerak.

1) Akitaniar inskripzioetan ez dago behar beste datu txandaketa morfofonologikoen prozesua bere osotasunean garai hartan jadanik eraginkorra zen ala ez ziurtasunez erabakitzeke.

2) Dena den, akit. *ILV-N* vs. *ILV-R-BERRIXON*[ ikusita, ziurra da behin-behin *-n/-r-* txandaketa jadanik eraginkorra zela.

3) Ikertzaile batzuen arabera (Mitxelena eta Gorrochategui kasu), auziaz behin-betiko irizpenik ezarri ezin badezakegu ere, txandaketen prozesua eraginkorra izanez gero espero genituzkeen *\*\*CISSA-TTEN*, *\*\*LO-TTON*, *\*\*SEMA-TTEN* bezalako formarik ez izatea txandaketarik (batez ere bokalen galerak edo tinbre-aldaketak pairatzen dituen txandaketarik) ezaren aldeko zantzua litzateke.

4) Autore berberen arabera, akit. *BELEXCONIS* vs. EA. *Velasco*, mod. *belatz* erkaketa *-el-a-* txandaketa bi garaien artean (akitaniar garaiaren ondoren, beraz) sortua delako hipotesiaren aldeko zantzua izan daiteke. Ikusi ditugun arrazoiengatik, planteamendu honek zenbait arazori aurre egin beharko lieke, hala nola, zehaztu beharko luke zein den garapen horren atzean datzan egitura morfematikoa, eta hau /bele- + -tz/ baldin bada, nola azal daitezkeen akit. *BELEX* elementua, argi eta garbi 'beltz' zentzuaz, duten inskripzioak.

5) Akit. *HARBELEX*-en *-i-* bat galdu den ala ez, ez da erraza zehazten. Baietzkoaren aldeko zantzu bat egitura bera izan liteke: *harri-béletz*-etik abiatuz, azentuaren kokalekuak *-i--*ren galera zein *beletz*-en ondorengo sinkopa (> *beltz*) azal litzake. Ezezkoaren aldeko zantzu bat gainontzeko akitaniar dautetan antzeko bokal-galeraren paralelorik eza da.

Amaierako hausnarketa moduan, epaiketa hertsien aurka azaldu nahi genuke. Segur asko, txandaketa morfofonologikoon prozesuaren barnean era eta kronologia ezberdinetako fenomenoak metatzen dira. Orobat, txandaketa bakoitza ez zen zabalduko egun batetik bestera denboran eta espazioan zehar, zabalkuntza prozesu luze baten ondorioz baizik. Hartara, agian ez du zentzu handirik prozesuaren sorrera akitanieraren aurretik ala akitanieraren ondoren gertatu ote den eztabaidatzen ibiltzeak. Bi txandaketetarik, zeinen sorreraren kronologia akitaniar garaiarekin aldera dezakegun, bat (*-n/-r-* txandaketa) akitanieraren aurrekoa da eta bestea, berriz (*-l/-r-* txandaketa), akitanieraren ondorengoa. Gauzak honela, bideragarriago suertatzen zaigu pentsatzea akitaniar garaia ez dela txandaketen sorreraren ez aurrekoa, ez ondorengoa, harekin konkomitantea baizik. Hala balitz, akitaniar inskripzioak grabatu ziren mendeetan txandaketa morfofonologikoen prozesua zabaltzen arituko zen, zein neurritan garatua zen jakin ezin dezakegularik.

Enigma nagusia tinbre bokalikoaren aldaketak inplikatzan dituzten txandaketena da. Hemen ere, baliteke inskripzioen garaian prozesua hasia baina ez garatua izatea. Espekulazioari lasa ematen badiogu, usna genezake *HARBE-LEX* \**harri-béletz*-etik datorrela eta prozesua burutua dela hartan lehen osagaia-  
ren azken bokalaren galera gauzatzeko baldintza egokiak daudelako: lexema-  
lexema egitura du, bokal hori *-i-* da eta kokaleku aurre-tonikoan dago. Beste  
batzuetan, berriz (*CISON-TEN*, *CISSON-BONN-IS*, *LOHI-TTON*, *SEMBE-  
TEN*, *SENI-CO*, *OMBE-CCO*, *VM.ME.SA.HAR...*), agian ez ziren oraindik  
bokal-galerarako edo tinbre-aldaketarako hainbeste baldintza biltzen.

### Erreferentziak

Azkarate, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Donostia, Unibertsitate Saila  
(E.U.T.G. - Mundaiz).

Euskaltzaindia, 2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia.

Gorrochategui, J., 1984, *Estudios sobre la onomástica indígena de Aquitania*,  
Bilbo, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

—, 1995, “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia* 12,  
181-234.

Martínez, M., 2003, “Hitz-konposakera euskaraz eta aitzin-euskaraz”, *ASJU*  
37, 1-84.

Mitxelena, K., 1997 [1. arg.: 1953], *Apellidos vascos*, Donostia, Txertoa.

—, 1954, “De onomástica aquitana”, in *Lengua e Historia* (1985), Madril,  
Paraninfo, 409-445.

—, 1958, “A propos de l’accent basque”, in *Sobre historia de la lengua vasca*.  
*I* (1988), Donostia, Anejos de ASJU, 220-239.

—, 1964, *Textos arcaicos vascos*, Madril, Minotauro.

—, 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azcúe*, Bilbo, RSVAP.

—, 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, in *Palabras y textos* (1987),  
Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

Mujika, L. M., 1982, *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika*, Donostia,  
Ediciones Vascas.

Trask, R. L., 1997, *The History of Basque*, Londres, Routledge.



# Bokal sudurkariak tentatzen

IRANTZU EPELDE & OROITZ JAUREGI

Euskal Herriko Unibertsitatea

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Egungo euskarazko fonologia sistema bost bokal ahokarik osatzen dutela esan ohi da (Michelena 1990 [1961], Hualde 1991, Oñederra 2001 eta 2004b) zuberera ez beste gainerako euskal hizkerak kontuan hartuta, eta oro har bokal sudurkaririk ez dagoela, zubereraz izan ezik. Jakina da lehenago bazterreko euskalkietan balio fonologikoa zutela: erronkarian gertatzen ziren bokal eta diptongo sudurkariak, eta duela zenbait mende baita bizkaiera zaharrean ere (hamaseigarren mendean dokumentatuta dago, Madariagaren *Honra de Escriuanos* horren lekuko).<sup>2</sup>

Gure azterketaren abiapuntua izan da mugaz bestaldeko hizkeretan bokal sudurkari berriak agertzen ari diren hipotesia, orain arte ahokari ahoskatzen ziren inguruneetan. Hipotesia da frantsesarekiko hizkuntza ukipenaren ondorioz sortu dela berrikuntza hau.<sup>3</sup> Izan ere, frantsesak bere oinarritzko hots biltegian bi bokal motak ditu, eta, ondorioz, frantses hiztunak gai dira berariaz bokal ahokariak nahiz sudurkariak erabiltzeko, egungo frantsesean azken horiek galtzeko joera dagoen arren (Durand *et al.*, 2002).

---

<sup>1</sup> Gure esker ona azaldu nahi diegu esperimentuan parte hartu duten berriemaileei eta emaitzak papereratzekoan aholkatu eta lagundu gaituzten lankideei: Anne Bereau-Ibarra, Honorine Chipy, Henri Duhau, Louis Ithourria, Lourdes Oñederra, Beñat Oyharçabal, Joana Pochelu eta Jasone Salaberria.

<sup>2</sup> Madariaga arratiarra zen, eta honela idatzi zuen arestian aipatu 1565eko lan horretan: «La N algunas veces se pronuncia escondida en las narices, como en *oracioa*, *Ardaoa*, y para denotar aquella *n* se deue sobre poner una cifra de esta manera a modo de nariz ^ ».

<sup>3</sup> Lan honetan ez gara arituko forma ez mailegatuen ahoskeraz, maileguen ahoskeran erabiltzen diren unitateez baizik. Guk fonologia sistemaren aukerak nola aldatzen diren ikusi nahi izan dugu hemen, [bokal → ahokari edo sudurkari] sistema baten alde lapurteraz behintzat (lehenago ez bezala, [bokal → ahokari] baitzen aukera bakarra hizkera honetan eta beste euskal hizkera gehienetan).

Azken urteetan Lapurdin egindako alor lanean belarriz hauteman duguna tresnabidez neurtu nahi izan dugu hemen, eta horretarako hiztun lapurtarren jokamoldeari erreparatu diogu. Oraingoan lapurterazko datuetara mugatzea erabaki dugu, eta Lapurdi barruan Senpereko berriemaileak hautatu ditugu. Lapurteraz bokal sudurkariak zenbateraino ebakitzen diren berez erakutsi nahi izan dugu honela, datu akustikoak erabiliz.

Gure argudioetarako kontuan hartu beharreko ezinbesteko datua da lapurterako hiztun guztiak elebidunak direla. Hiztun elebidunak —elebidun goiztiarra bada—, bere erkidegoko bi hizkuntzen sistema fonologikoak menderatzen ditu (euskara eta frantsesa, gure kasuan). Aipatu dugu frantsesak, euskarak ez bezala, bokal sudurkariak dituela sistema fonologikoan.<sup>4</sup> Beraz, elebidun goiztiarrak bokal ahokariak nahiz sudurkariak fisikoki ekoizten eta hautematen ikasten du. Besterik da hizkuntza bakoitzean bata edo bestea erabiltzea.

Arestian esanda bezala, orain arteko alor lanean belarriz hautemandakoa tresnabidez frogatu nahi izan dugu: hizkera lapurtar honetako hiztunak, euskaraz ari denean eta frantsesezko maileguak erabiltzen dituenen, bokal sudurkariak ekoizten ote ditu? Horrek berez bezala ekarriko luke lapurterazko euskara-frantsesa elebidun goiztiarrak [bokalak → ahokari] egiten dituen bilakabide unibertsala gainditua duela baieztatzea, eta horren arabera hiztuna gai litzateke bi bokal motak berariaz ekoizteko, nahiz gero zein noiz egin aukeratzeko gaitasun osoa izan.

Fonologia Naturala oinarri hartuta, aztergai izan dugun herrian —eremu osoki elebidun bati dagokio— bokal sudurkariak nahita (alegia, fonemikoki) egiteko zailtasunik ez dutela argudiatuko dugu ondorengo atalean. Jarraian, egungo hiztunen ekoizpen grabatuak erabiliz, datu akustikoen bidez ikusiko dugu lapurteraz bokal sudurkariak unitate fonemiko gisa egiten diren edo ez. Horretarako, frantsesetik maileguetan gertatzen diren bokal sudurkariak (ŷ inguruneak) eta euskarazko hitzetan gertatzen diren sudurkaritzeak (ŷn inguruneak) akustikoki neurtuko ditugu.

## 2. Joera edo bilakabide natural unibertsalak gaindituz

Fonologia Naturalak eskaintzen duen marko teorikoa —batez ere bilakabideen erabilera— ezinbesteko lanabesa iruditu zaigu, bokal ahokarien eta sudurkarien afera muin-muinetik heltzen duelako.

<sup>4</sup> Sudurkariak frantsesaren historian izan duten bilakaeraz ik. Martinet (1965).

Gure hizkuntza natiboaren fonologia sistema da bilakabideen sistema unibertsal baten ondorioa. Bilakabide hauek haurraren hizkuntza-“xalotasun”<sup>5</sup> garaian (edo, bestela esanda, hizkuntza ezagutzarik ez duen aldian) nabarmen diren baldintza edo muga fonetikoak islatzen dituzte. Pixkanaka, joera edo bilakabide natural unibertsal batzuk mugatuz joaten gara eta beste batzuk gaindituz, gure sistema fonologikoa osatu arte. Ondoren Fonologia Naturalen bilakabideak nola ulertzen diren azalduko dugu.

Bilakabidea, berez, zailtasun fonetikoei erantzuten dien eragiketa mentala da. Bilakabidean hots edo hots-bilkura batek zerbaitegatik zailagoa den beste bat ordezkatzeko du, hots baten ordezkari beste bat ahoskatzen da eta ordezkatzearren arrazoa fonetikoa da. Hizketaren izaera fisikoak bilakabideak gertarazten ditu: hizketaren ezaugarri neuro-fisiologikoei, morfologikoei,<sup>6</sup> mekanikoei, denborazkoek eta akustikoei. Ezaugarri hauek sortzen dituzten zailtasunen erantzun dira bilakabideak. Stamperen hitzak erabiliz (1979: 1): “A phonological process is a mental operation that applies in speech to substitute, for a class of sounds or sound sequences presenting a common difficulty to the speech capacity of the individual, an alternative class identical but lacking the difficult property”.

Nahiz eta hots ordezkatzekoak mentalak izan, teleologikoki fisikoak dira; hau da, helburu, jomuga fisikoa daukate. Beraien helburua da, hainbatetik hainbatetan, hizketaren oharren ezaugarriak ahalik eta eraginkorrenak izatea eta zailtasun artikulatarioa, berriz, ahalik eta txikiena. Horregatik, bilakabideak hots ordezkatzekoak dira, eta hots ordezkatzearren azalpena sinkronikoki fonetikak eman dezake, fonetikoki azal daiteke.

Bilakabideekin jarraituz, esan behar da izan daitezkeela ingurunedunak edo ingurunez landakoak. Hau da, hots ordezkatzekoan inguruneak zeresana badu, orduan inguruneduna izango da (guk lan honetan ez ditugu mota honetakoak azalduko). Aldiz, bilakabidea ingurunez landakoa izango da inguruko hotsen eraginik eta erreferentziarik gabe gertatzen denean, ingurune gabeko eremuan gertatzen denean, hau da, gure hotsen memorian. Bilakabide ingurunez landakoen emaitza dena delako hizkuntzaren hots-unitateak edo fonemak dira. Hau da, [bokalak → ahokari] bilakabidean ez dago ingurunerik bilakabide hori eragiten duenik. Fonologia Naturalaren ekarpena izan da oinarritzko unitateen zio fonetikoak euskarri izatea, edo, beste era batera esanda, fonema sistemaren edo paradigmaten arrazoi fonetikoak bilatzea, eta arrazoi fonetikoan oinarritzea.

<sup>5</sup> *Language-innocent state* litzateke ingelesezko terminoa, hau da, haurrak hizkuntzarekin eskarmenturik ez dueneko garaia.

<sup>6</sup> Zentzu ez-gramatikalean.



Gure gaia muin-muinetik ukitzen duen bilakabide batek bokal guztiak ahokari egiten ditu. Oharmenaren eta ahoskagarritasunaren aldetik hoberena bokalak ahokari izatea da. Hizketarako biriketarik datorren airea ahotik kanporatzea errazagoa da sudurretik ere kanporatzea baino, sudurretik kanporatzeak zailtasuna baitakar. Gertaera hau unibertetsala da. Ahasabai bigunak eta haren luzakin haragitsuak, aho-gingilak, sudurrerako bidea irekita uzten dutenean ahotsa ateratzen bada orduan hots sudurkariak ekoizten dira (Oñederra 2004b: 142). Hona hemen Ohala & Ohalak hots sudurkariak fisikoki nola gertatzen diren adierazteko ematen duten azalpena:

Physiologically a nasal speech sound is quite simple: it just involves lowering of the soft palate to a degree sufficient to couple the oral and nasal cavities acoustically. With a concomitant oral closure, a nasal consonant is produced; without it, a nasal vowel. Nevertheless, this simple gesture has major and complex phonological consequences due to the interconnectedness of all parts of the vocal tract. (Ohala & Ohala 1993: 225)

Egileek aitortzen dute hots sudurkaria ekoiztea sinplea dela; hala ere, azalpen fisiologikoa sinplea izan arren, bokal sudurkariak ekoiztea bokal ahokariak ekoiztea baino konplexuagoa da fisikoki. Ahotsa sudurretik kanporatzeko aho-gingilak lan egin behar du sudurbide irekia bokaltasunarekin batera gerta dadin. Zailtasun hori gainditzeak ematen dio gaitasuna hiztunari bokal sudurkariak nahita ebakitzeko.<sup>7</sup>

Egungo euskaraz, oro har, bokal guztiak ahokari egiten dituen bilakabidea indarrean dago eta bokalak ahokariak ditugu euskaraz (zubereraz izan ezik). Frantsesak zailtasun fonetiko hori gainditua duenez, bokal ahokariez gain bokal sudurkariak ere baditu fonemikoki. Bilakabideari amore emateak esan nahi du paradigmaren unitate gehiago edukitzea. Frantsesa ikasi behar duen haur batek [bokal → ahokari] bilakabidea gainditu beharko du, bilakabide hori egokitu egin beharko du. Bokal sudurkariak egiteak sortarazten duen zailtasuna da gainditu beharko duena eta bokalak —ahokariak nahiz sudurkariak— nahita ekoizten eta erabiltzen ikasi beharko du. Behin zailtasun hori gaindituta, frantses hiztunak gai dira berariaz bokal ahokariak nahiz sudurkariak erabiltzeko. Gauza bera esan daiteke Iparraldeko elebidun goiztiarrez ere.

---

<sup>7</sup> Romaine-k baieztatzen du hiztunek aski aise alda dezaketela, esate baterako, beraien pragmatika, baina nahita egindako aldaketak fonetikan sartzea nekezago dela (1996: 111). Hiztunek beraien hizkeran nahita egiten dituzten aldaketez, ik. Thomason (2007).

Hizketan hotsak bata bestearekin kateatzean nahitaez koartikulazioa (ing. *coarticulation*) gertatzen da, hau da, hotsak batak bestearekin kateatzea eta askotan ezaugarriak teoriarik ditugunak bezain finko eta bereziak ez izatea. Halaxe gertatzen da sudurkaritzearekin ere:

A nasal consonant is produced with a velopharyngeal opening but with a complete closure of the main vocal tract at some point within the oral cavity. (...) When a nasal consonant occurs adjacent to a vowel, there is usually some opening of the velopharyngeal port and hence some nasalization in at least part of the vowel adjacent to a consonant. (Stevens 1998: 305)

Izan ere, bokala ingurune sudurkarian sudurkaritu egin ohi da; neurri handiagoan edo txikiagoan, baina sudurkaritzea gertatzen da. Kasu honetan hiztunak ez du nahita egiten sudurkaritzea, inguruneak eraginda baizik, eta bere inbentarioan ez badago bokal sudurkaririk, ez da gai ez hots hori haute-mateko, ezta nahita egiteko ere, baina ekoitzi egiten du, inguruneak eraginda. Orduan sudurkaritasun *alofonikoa* dela esaten da. Hurbilketa honetako azterketa akustikoan kasu horiek ere neurtu ditugu, ikusteko, alde batetik, euskarazko hitzetan sudurkaritzea gertatzen ote den, eta, bestetik, bi unitate (bokala eta sudurkaria) edo bakarra ekoizten ote den.

Sudurkaritze testuinguruari begiratzen badiegu, bokalaren sudurkaritasuna gertatzeko ingurune errazena da silaba amaieran kontsonante sudurkaria dagoenean (berezi hitzaren azken silaba bada) eta kontsonante sudurkari horren aurretik bokala dagoenean.<sup>8</sup> Coda (silaba-azkeneko kontsonanteak) ahulagoa da ekina baino.

### 3. Esperimentua

Ikerketa akustikoa egiteko 2 hiztun hautatu ditugu,<sup>9</sup> biak Senperekoak eta adinekoak (80 eta 89 urte).<sup>10</sup> Grabaketak hiztunen etxeetan egin genituen

<sup>8</sup> Dirudienez, gaztelan sudurkaritze mota horretan bokala sudurkariago izan ohi da adibidez frantsesez baino. Frantsesezko bokal sistemak bokal ahokariak eta sudurkariak ditu eta gaztelan bokal ahokariak bakarrik. Frantsesez sintagmatikoki gertatzen den sudurkaritze bilakabidean bi bokal mota horiek nolabait bereizi egiten dira, eta beste zenbait hizkuntzatan gertatzen den sudurkaritze maila baino apalagoa antzeman daiteke.

<sup>9</sup> Hirugarren hiztun bat ere baliatu dugu datuak egiaztatzeko, baina haren ekoizpenen uhinik ez dugu erabili.

<sup>10</sup> Galdeketa osoagoa izateko berriemaile gehiago eta adinean aniztasun handiagoa beharko litzateke, baina mementoan hurbilketa bat egin asmo genuen esperimantu honekin. Era

2008ko udan, Sony MD Walkman eta Sony ECM-717 mikrofono aparailuekin. Grabatutako seinalea ordenagailura M-Audio-ren bidez pasatu eta gero, neurketak PRAAT programarekin egin ditugu. Azterketa akustikoa egiteko hots uhina eta espektrograma erabili ditugu.

Galdeketa egiteko, bina hitz zerrenda aurkeztu genien hiztunei: i) zerrenda bana frantsesezko hamar hitzekin, horiek euskaraz eman zitzaten (euskaraz ohikoak dira hitz horiek guztiak), eta ii) euskarazko 10 hitzeko zerrenda bana, horiek ozenki esan zitzaten. Euskarazko hitz guztietan (C)VN.<sup>11</sup> bilkura lehenengo silaban dago, ez dago bat ere hitz amaieran duenik. Frantsesetiko hitzetan ere agertzen da bokal sudurkaria lehenengo silaban, adibidez *ambulance*, *invitation* eta *symphonie* hitzetan; amaieran dutenek askotan beste kontsonante bat ere badute jarraian, adibidez *science*, *lampe*, *pompe*, *bombe*. Sudurkaria bukaera absolutuan ez zegoenean zer zegoen ikusi nahi genuen honela. Hurrengo galdeketa eta neurketetarako utziko dugu aldaera hauek guztiak kontuan hartzea.

Kontrol hitzak ere aztertu ditugu, eta horiek lortzeko hizketa librea erabili dugu. Aztertu beharreko hitzak grabatu ondoren, hiztunen hizketaldi libreak grabatu genituen, eta bat-bateko molde horretatik hautatu dira kontrol hitzak. Beraz, hiztun bakoitzeko 20 item izango ditugu, guztira 40 item, eta horien ondoan kontrol hitzak (5 hiztun bakoitzeko).

Frantsesetiko mailegutan bokal sudurkariak badaudela ikusi dugunez, horien ezaugarri akustikoak aztertu eta neurtu ditugu, frantsesezko bokal sudurkariak euskarazko jardunean nola ekoizten diren ikusteko. Frantsesez eta beste zenbait hizkuntzatan (portugesez, kasu) (C)VN. testuinguruan kontsonante sudurkaria aurreko bokala sudurkaritu ondoren desagertu egiten da. Gertaera hori diakronikoki eta etengabe gertatzeak bokal sudurkariak sortzea ekarri du.

Euskarazko hitzetan, ingurune sudurkarian gertatzen diren sudurkarietza izango dira aztergaia, eta bi unitate (bokala eta kontsonante sudurkaria) edo bakarra (bokal sudurkari edo sudurkaritua) egiten den ikusiko dugu.

---

berean, sudurkaritasuna neurtzeko sudurretik ateratzen den airea («nasal flow») neurtzea erabat lagungarria izango litzateke, baina horretarako Fonetika Laborategian gauzatu beharko litzateke datu bilketa (hiztunen adina kontuan hartuta ez da erraza), eta, horrez gain, sudurretik datorren airea neurtzeko aparailu berezi bat beharko litzateke (UPV/EHUko Letren Fakultateko Fonetika Laborategian oraingoz ez da halako tresnarik).


<sup>11</sup> Silaba bukaerako kontsonante sudurkaria adierazi nahi dugu N honekin, eta, zeinuak silaba muga adierazi nahi du.

#### 4. Emaitzak

Ondoren gure datuetan oinarritutako emaitzak aurkeztuko ditugu. Laburki esateko, 20 kasuetatik 13tan, hau da, %65etan bokal sudurkariak ekointzi dituzte hitzuneak. Ikus ditzagun xehetasunak:

**4.1.** Euskarazko hogeit hamar itemei dagokienez, ia kasu guztietan bi unitate gertatzen zirela erakutsi dute espektrogramek: bokala (sudurkaritze puntu batekin, hori handiagoa edo txikiagoa izan) eta kontsonante sudurkaria. Adibidez: *kanbiatu*, *kankaila* ‘kankailua’, *kanpotiarra*, *ganbara* ‘gela’, *kanta*. Bartzuetan lehen silabako CVN. testuinguruan bi unitate osatzen zuten nabarmen lehenengo *a* bokalak eta haren segidan datorren kontsonante sudurkariak. Gauza bera gainerako bokalez osatutako adibideetan ere (*ikus* 1.irudia). Euskarazko hitzak aztertzean, hortaz, eta teoriak esaten duena baieztatuz, bokalen sudurkaritzea antzeman daiteke ia kasu guztietan, baina gehienetan bi unitate —bokala eta sudurkaria— garbi antzematen dira espektrograman. Horren garbi antzematen ez denean, bokala sudurkaritu egiten dela esan daiteke.<sup>12</sup>

1. irudia: Euskarazko *konpota* hitzaren espektrograma irudia.




**4.2.** Frantsesezko 20 itemak euskaraz esan ohi dituzten bezala ahoskatzeko eskatzerako, jakitun ginen galdetegian hitzak frantsesez idatzita ikusteak zekarren alderdi txarraz. Dena dela, hizketa librean egiaztatu ahal izan dugu adibideon ohiko ahoskera, eta bat zetorren hitz zerrenden grabazioetan jasotakoarekin.

<sup>12</sup> Azterketa sakonagoak egin beharko lirateke euskarazko hitzen gainean.

4.2.1. Kontuan hartu behar dugu erreferentziatzat hartu ditugun frantsesezko hiru bokal sudurkariak zein izan diren: [ã], [Ē] eta [ɔ].<sup>13</sup>


2. irudia: *Enfeksione* maileguaren espektrograma irudia (fr. *infection*).



[ã] ahoskatu dituzte *banka*<sup>14</sup> ‘bankua’ (fr. *banque*), *antretenu* ‘mantendu, zaindu’ (fr. *entretenir*) edo *tanzionia* ‘tentsioa’ (fr. *tension*) bezalako hitzak, eta uhinetan unitate bakar moduan agertzen dira.

[Ē] sudurkariak ebaki dituzte beste batzuk, adibidez *enternet* (fr. *internet*), *enfeksione* ‘infekzioa’ (fr. *infection*) edo *zenfonia* ‘sinfonia’ (fr. *symphonie*) (ik. 2. eta 3. irudiak).

3. irudia: *Zenfonia* maileguaren espektrograma irudia (fr. *symphonie*).



<sup>13</sup> [œ] ez dugu kontuan hartu gure azterketan.


<sup>14</sup> Frantsesezko maileguak aipatzean transkripzio ortografikoa erabiliko dugu. Ondoren jarriko ditugu euskara batuko ordaina eta mailegua frantsesez.

Aldiz, zenbait hitzekin tarteko bilakaera bat ikusi dugu. Kasu honetan, adibidez, bokalaren sudurkaritzea ez da bururaino eraman: *zendikata* ‘sindikatu’ (fr. *syndicat*) ahoskatu du berriemaileak baina lehen silabako bokala sudurkaritzera iritsi gabe, hau da, bi unitate gordez. Frantsesezko *impôt* ‘zerga’ hitzean, ordea, *in-* espero genuen hitz hasieran,<sup>15</sup> baina berriemaileak *enposak* ahoskatu du lehen silaban frantsesezko [ɛ̃] bokal sudurkaria gordez.


Azkenik, [ɔ̃] ebakera izan da, esaterako, honako adibide honetan: *ponpierrak* ‘suhiltzaileak’ (fr. *pompier*).

4.2.2. Azkenik, bi unitate eginez [euskal sistemako bokala (neurri handiagoan edo txikiagoan sudurkaritua) + kontsonante sudurkaria] ebaki dituzte, uhin espektrografikoen arabera, beste zenbait adibide (20tik 7): *lanpa* ‘lanpara’ (fr. *lampe*), *anpronta* ‘mailegua’ (fr. *emprunt*) hitzeko lehen silaba, *manta* ‘menta’ (fr. *menthe*) (ik. 4. irudia), *zantimetra* ‘zentimetroa’ (fr. *centimètre*), *intresak* ‘interesak’ (fr. *intérêt*), *bonba* ‘lehergailua’ (fr. *bombe*) eta *arrunda* ‘biribila’ (fr. *rond*). Azken adibidean, gainera, ikus daiteke nola egokitu den mailegua euskararen arauen arabera, hitz hasierako bokal protesiaz gain ekialdeko hizkeretan ohikoa den bilakaera bat gertatu baita: *o* > *u* ixtea kontsonante sudurkariaren aurretik. Mailegu egokitzearen aldetik berezia da *intresak* ere (fr. *intérêt*) (ik. 5. irudia), *impôt* hitzean bezala euskaraz kontsonante txistukaria agerian duelako (mailegu zaharrak dira bata zein bestea).

4. irudia: *Manta* ‘menta’ maileguaren espektrograma irudia (fr. *menthe*).



<sup>15</sup> *Inposak* da lapurteraz (hirugarren silabako txistukaria agerian gelditzen da mailegu zaharretan bezala).

5. irudia: *Intresak* ‘interesak’ maileguaren espektrograma irudia.

Bestalde, aipatu behar da aldakortasuna oso kontuan hartu beharreko datua dela, hiztun beraren barne aldakortasuna zenbaitetan —ez baita ezinezkoa hiztun batek hitz bera euskal sistemaren arabera ebakitzea memento batean eta frantses sistemaren arabera geroago, edo alderantziz— eta hiztun batetik bestera ere gertatzen direla halakoak, nahiz eta herri berekoak eta adintsukoak izan. Hala, *ānvelopa* erdiko bokal ireki sudurkariarekin eta igurzkari ezpainhorzkari ahostunarekin ahoskatu zuen gure berriemaileak, baina beste hiztun batzuen ahotik entzun izan dugu euskararen arauen arabera egokituta mailegu hori: *enbelopa*, aitzineko bokal erdi-irekiarekin, igurzkari ezpainhorzkari ahostuna ahoskabe bilakatuz eta are *emelopa* ebakiz, askotan sudurkariak asimilatzen duelako ondoko herskaria <mb> eta <nd> taldeetan: *lemiziko* ‘lehenbiziko’, *demora* ‘denbora’, *zomait* ‘zenbait’, *zomat* ‘zenbat’, *amertze* ‘hainbertze’... *Imitorio* ‘inbentarioa’ mailegu zaharrea ere aurki dezakegu *nb > m* idazle klasikoetan (ik. *OEH*, *imitorio* sarrera), baina gaurko joera nagusia frantsesez bezala ahoskatzea da: *envantera* (fr. *inventaire*) ahoskatu du gure berriemaileak.

Maileguaren ahoskera lotuta dago hura euskal sistema fonologikoaren bidez iragazi izanarekin edo ez izanarekin. Oro har, mailegu zaharretan euskararen fonologia arauen arabera egokitu dira hotsak, *intresak* mailegu zaharrea<sup>16</sup> ikusi dugun bezala. *Linja* (fr. *linge*) eta *xinplea* (fr. *simple*) ildo bereko adibi-deak izango lirarteke (ez dira sudurkaritzen eta unitate bakarretan biltzen). Bes-

<sup>16</sup> XVI-XVII. mendeetan *interes* erabiltzen zen Iparraldean, baina XVIII.etik aurrera *intres* indar handiagoz zabaldu da (ik. *OEH*, *interes* sarrera).

talde, gaineratu daiteke joera zaharra izan daitekeela lehenengo silabako bokala, hau da, frantsesezko [ɛ̃] euskaraz [i] goiko aitzineko bokal gisa hautematea.

## 5. Hizkuntza ukipenaren ondorioak Iparraldeko ahoskeran

Ukipen egoeretan gertatzen diren bilakaerak aztertzeko egoera ona dugu Euskal Herrian, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean. Lehenean, gaztelaniazko maileguak euskarak fonologikoki nola egokitzen dituen ikertu izan dute zenbait euskalarik —adibidez, Hualde (2000) eta Oñederra (agertzeko)—, eta euskarak Hegoaldeko elebidunen gaztelaniazko fonologian nolako eragina duen ere aztertu izan da (Echaide 1966, Oñederra 2001 eta 2004a). Gai honen inguruan ikerketa gutxi egin izan da Iparraldeko hizkerari dagokienez (Epelde, agertzeko).

Guk frantsesa-euskara ukipen egoera hartu dugu lan honetan, eta eraginaren nondik norakoak ikusteko muga inguruko hizkera bat hautatu dugu. Frantsesezko hitz maileguak oso ugariak dira Senpereko mintzoan (eta Iparraldean, oro har). Hiztegian arreta jarritz gero, ikusiko dugu maileguak egokitzerakoan hiztun tradizionalak segitzen zituzten urratsak askotan ez dituztela betetzen gaurkoek, eta mailegu horiek euskal arauen arabera egokitu ordez bere horretan uzten dituztela maiz. Bilakabideen bidez honi zentzu fonologikoa ematen saiatu gara. Askotan frantsesezko maileguak aurkitzen ditugu euskararen hiztegian dagoeneko baziren hitzen ordainetan. Baina hizkuntza batek besteari —nagusiak pekoari— pasatzen diona lexikoa baino gehiago da. Hemen aztergai dugun fonologiako berrikuntza oraintxe gertatzen ari da, aldaketa «bizia» da (Labov 2001: 498-500), eta hizkuntza aldaketa egonkor baten sorburua izan daiteke.

Hizkuntza batetik bestera zer iragaten den eta zer ez asko eztabaidatu izan da hizkuntza kontaktuaren gaineko literaturan. Aditu batzuen ustez (Weinreich 1974, Givón 1979, Bickerton 1981 eta Silva-Corvalán 1992, beste batzuen artean), hizkuntza hartzailean gertatzen diren aldaketek azaleko egiturari eragiten diote soilik, ez dira iristen barne egiturara. Guri dagokigun adibide bat jartzeagatik, eman dezagun Iparraldean dardarkariarekin gertatzen dena: berezko ebakera hobikariaren ordez ebakera ubularra nagusitu da ia erabat gaur egungo hiztun elebidunen artean euskarazko hitzetan ere (adin handiko zenbait hiztunetan ez beste guztietan), eta beraz lerratze nabarmena izan da hor, jadanik euskararen hots sisteman bazen hots bati zuzenean eragiten diona. Ahoskera hori ubularrera lerratzearekin batera hots bat (dardarkari ho-



bikaria) “galdu” da Iparraldeko euskaran (esan bezala, adin handiko hiztun batzuetan izan ezik), eta beste bat “irabazi” (dardarkari ubularra). Sapir-en tesia da (1921) muturreko egoera soziolinguistiko berezietan ez bada, hizkuntza batetik bestera pasatzen dena azalekoa izaten dela (hitzen ordena, mailegu lexikoak, kalkoak eta abar), eta hizkuntza hartzaileak hura egokitze baliabideak moldatzen dituela. Ordea, esperimentu honen emaitzek erakutsi digutenaren arabera bokal sudurkariak horko euskararen hots sisteman sartzen ari badira,<sup>17</sup> orduan aldaketa beste norabide batean gertatzen ariko litzateke, orain arteko euskararen hots biltegian ez zeuden fonema berriak *sartzen* ariko liratekeenez gero.

Jakinean egonik ere lan hauetan maileguen egokitzea eta euskarazko hitzen ahoskera bereizi beharreko bi kasu direla, lehenari erreparatuz ikas genezake fonologia sistemaren aukerak nola aldatzen ari diren, zer bilakaeraren alde egiten duen euskarak hots arrotzak ebaki behar dituenen, eta zenbateraino moldatzen dituen bere arau propioen arabera. Uste dugu Heinek eta Kutevak gramatika kategorietarako azaldu izan duten fenomenoaren antzekoa gerta litekeela hemen fonologiaren alorrean:

Contact situations, except for cases of attrition, tend to lead not to the reduction and loss of existing grammatical categories, but rather to diversification and to the creation of new grammatical categories in one language on the model of another language. (Heine & Kuteva 2005: 258)

Era berriko maileguen ugaltzeak hots batzuk ahultzea ekar dezake, baina berez eragin fonologikoak hotsak desagerrarazi baino gehiago hotsak *sarrarazi* egiten ditu. Hotsak desagertzen baino gehiago berriak agertzen ari dira aztergai dugun hizkeran. Elementu berria da oraingo hiztun guztiak elebidunak direla eta txikitatik ikasi dutela frantsesa; ondorioz, erabateko gaitasuna dute frantsesetikako lexikoak eskatu hotsak ebakitzeko.

## 6. Ondorioak

Hitz eta elementu arrotzak ahoskatzeko garaian ikertzen badugu hizkuntza hartzaileek nola jokatu ohi duten, ikusiko dugu hitzok mailegatzeak haien nolabaiteko egokitze fonetikoa ekartzen duela, hizkuntza edozein dela ere. Beti egongo dira hots arrotzak edo hartuko dituen hizkuntzak ez dituen bes-

---

<sup>17</sup> Zehaztu behar da maileguetan ikusten den gertakaria dela.

telako berezitasunak. Kontua da nola gertatzen den hori. Izan ere, berrikuntzak hartzerakoan erabakigarria izan daiteke peko hizkuntzak —gure kasuan, euskara lapurtarrak— nagusiaren (frantsesaren) aldean daukan indar eskasia. Sapir-ek (1921) erakutsi zuen zein uzkur ager daitekeen hizkuntza bat maileguak fonetikoki itxuraldatzeko garaian, baina frantsesetik ingelese mailegatutako adibide baten bidez: *camouflage*. Azaldu zuen izen hori ingeles ahoskera arauen arabera ebakitzen dela ingelesez (hitz hasierako herskari ahoskabea hasperenez ahoskatuz, eta abar), nahiz eta frantsesean izan jatorria. Baina, jakina, hizkuntza hartzailearen egoera eta indarra euskararena ez bezalakoa da kasu horretan. Nola gertatzen da euskara lapurtarrean?

Oso aurrean izan behar dugu zenbateraino aldatu den aztergai dugun erkidegoko egoera soziolinguistikoa eta zein den oraingo elementu berria: elebidun goiztiarren erabateko ugaltzea. Bi hizkuntzak batera ikasten dituenak bi mintzaira horiek eskatzen dituen bilakabideak gaingitu beharko ditu, bai frantsesarenak eta bai euskararenak. Euskarak frantsesak baino bilakabide oinarrizkoagoak ditu; beste hitz batzuekin esanda, frantsesak baino unitate gutxiago ditu hots biltegian. Bi hizkuntzak batera ikastean — areago oraindik lehendabizi euskara eta gero frantsesa ikasten duenak— frantsesak gaingitu dituen euskararen bilakabideak gaingitzeaz gain frantsesarenak ere gaingitu behar ditu, beharrezkoa du aldaketa hori, frantsesetikako hitz maileguak egoki ahoskatuko baditu. Horrek eragiten du nahitaez aldatzea beste hizkuntzaren (euskararen) sistema fonologikoa (ik. Oñederra, agertzeko).

Berrikuntzek hitzunen solasean zenbaterainoko indarra eta hedadura hartzen duten beste gai bat da, hizkuntza jarrerekin-eta lotuta dagoena, baina maileguak jatorrizko hizkuntzaren ahoskera arauen arabera ahoskatzeko berrikuntza automatikoki hartuko du hitzunenak. Berrikuntza horiek pisu handikoak izan daitezke, euskararen igurzkari eta afrikatuen ezaugarriak aldatzerainokoak. Eman dezagun adibide bat: euskararen ezaugarrietako bat da [trabari → ahoskabe] aukera. Ordea, sudurkariekin bezalatsu, ikusten dugu frantsesaren eraginez maileguetan igurzkari ahostunak ere badirela.<sup>18</sup> Fonologiako berrikuntza hori hiztegian erabat zabal liteke hizkuntzaren erabilerak horretara eramanez gero eta oraingo maileguak lexikaldu ahala.

Era berean, orain arteko euskal hizkera gehienek ezaugarria bada bost unitate bokaliko izatea eta orain maileguen bitartez seigarren bat sartzen ari dela —edo sartu dela— frogatuko bagenu (*ü* [y]), baieztatuko litzateke frantsesaren

<sup>18</sup> Hitzunen jardun libreak entzunez iritsi gara ondorio honetara, ez dugu hori frogatzeko analisi zehatzik ez espektrografikorik egin.

eraginez hor ere euskararen berezko ezaugarri bat (bost bokal izatea) aldatu den hipotesia. Mailegurik izango ez balitz hori ez litzateke antzemango, hiztunak ez lukeelako hots horiek ekoitzi beharrik izango. Baina maileguak hor dituen ez eta beharrezko dituen ez agerian gelditzen dira hots berri horiek. Noiz gertatzen da, ordea, hori? Badirudi elebidunetan nerabezaroa mugarría dela bi hizkuntzez osoki jabetzeko prozesuan:

Gradually we constrain those processes which are not also applicable in the mature language (...). From adolescence usually there is little further change, and the residual processes have become the limits of our phonological universe, governing our pronunciation and perception even of foreign, invented, and spoonerized words, imposing a 'substratum' accent on languages we subsequently learn, and labeling us as to national, regional, and social origins. (Donegan & Stampe 1979: 126-127)

Gaur egun, ama hizkuntza euskara duen edozein hiztun frantsesaz ere nerabezaroa baino lehen jabetzen da Iparraldean, Hegoaldean gaztelaniarekin gertatzen den bezala. Haurrak txikitatik ikasten du frantsesezko hotsak fisiko-ki ekoizten, hots horien tasun konbinaketaz jabetu da hasieratik eta ez dauka haiek ekoizteko eragozpenik. Hala esplikatu liteke, gure ustez, bokal sudurkariaren berrikuntza hau ere.

## 7. Bibliografia

- Bickerton, D., 1981, *Roots of Language*, Ann Arbor: Karoma.
- Donegan, P., 1985, *On the Natural Phonology of Vowels*, New York: Garland.
- , & Stampe, D., 1979, "The Study of Natural Phonology", *Current Approaches to Phonological Theory*, Daniel A. Dinnsen (arg.), Bloomington: Indiana U. P., 126-173.
- Durand, J. & Laks, B. & Lyche, C., 2002, *Phonologie du français contemporain: usages, variétés et structure (PFC)*. [Interneten: <http://www.projet-pfc.net>].
- Echaide, A. M., 1966, "Castellano y vasco en contacto: tendencias fonéticas vascas en el castellano de los vascohablantes bilingües", *Boletín de la Real Academia Española* 46, 513-523.
- Epelde, I., agertzeko, "Impacto fonológico del contacto entre lenguas: francés y vasco en contacto", AESLA-ren 26. Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa, Almeriako Unibertsitatea, 2008ko apirilaren 3a.

- Givón, T., 1979, “Prolegomena to any sane creology”, *Readings in Creole Studies*, Ian F. Hancock (arg.), Ghent: Story Scientia.
- Heine, B. & Kuteva, T., 2005, *Language Contact and Grammatical Change*, Cambridge: Cambridge U.P.
- Hualde, J. I., 1991, *Basque phonology*, London: Routledge.
- , 2000, “Patterns of correspondence in the adaptation of Spanish borrowings in Basque”. *General Session and Parasession on Loan Word Phenomena: Proceedings of Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 1999ko otsailaren 12-15, Steve S. Chang, Lily Liaw & Josef Ruppenhofer (arg.), Berkeley: Berkeley Linguistic Society, 348-358.
- Huffman, M. & Krakow, R. (arg.), 1993, *Nasals, Nasalization, and the Velum*, San Diego / London: Academic Press.
- Labov, W., 2001, *Principles of Linguistic Change*, 2. liburukia: *Social Factors*. Oxford: Blackwell.
- Madariaga, P., 1565, *Honra de Escrivanos*. Valencia.
- Martinet, A., 1965, “Les voyelles nasales du français”, *La linguistique*, 2. fasz., 117-122.
- Michelena, L. 1990 [1961], *Fonética histórica vasca*, San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Ohala, J. & Ohala, M., 1993, “The Phonetics of Nasal Phonology: Theorems and Data”, Huffman, M. / R. Krakow (arg.), 1993, 225-244.
- Oñederra, M. L., 2001, “La cabeza es para andar: sobre el español hablado en zona vasca”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*, Madrid: Gredos, 263-273.
- , 2003, “Palatalization revisited: bustidura adierazgarriaren estatusaz ohar batzuk”, *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, X. Artiagoitia & P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 499-511 (ASJU-ren gehigarriak XLIV).
- , 2004a, “El español en contacto con otras lenguas: español-vasco”. In *Historia de la Lengua Española*. Barcelona: Ariel, 1103-1115.
- , 2004b, *Fonetika-fonologia hitzez hitz*, Bilbo: UPV/EHU.

- , agertzeko, “Early bilingualism as a source of morphonological rules for the adaptation of loanwords: Spanish loanwords in Basque”, J. Gorrochategui, J. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Bilzarrean aurkeztutako komunikazioa* (Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 8-11).
- Romaine, S., 1996, “The status of sociological models and categories in explaining language variation”, *Toward a critical sociolinguistics*, R. Singh (arg.), Amsterdam: John Benjamins.
- Sapir, E., 1921, *Language: An Introduction to the Study of Speech*, New York: Harcourt Brace Jovanovich.
- Silva-Corvalán, C., 1992, “On the permeability of grammars: Evidence from Spanish and English contact”, *Linguistic Perspectives on the Romance Languages*, W. Sabih & M. Mithun & G. Perissinotto & E. Raposo (arg.), Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins, 19-43.
- Stampe, D., 1979, *A Dissertation on Natural Phonology*, New York: Garland Publishing Co.
- Stevens, K. N., 1998, *Acoustic Phonetics*, Cambridge / London: MIT.
- Thomason, S., 2007, “Language Contact and Deliberate Change”, *Journal of Language Contact* 1: 41-62.
- Weinreich, U., 1974, *Languages in Contact: Problems and Findings*, The Hague: Mouton [1. argitalpena: Linguistic Circle of New York, 1953].

# Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak<sup>1</sup>

GORKA ELORDIETA

Euskal Herriko Unibertsitatea

## 1. Sarrera

Euskara zaharrerako, edo aitzineuskararako ere, Mitxelenak (1958, 1972, 1977) azentua bigarren silaban zegoela argudiatu zuen, eta Martinetek (1950, 1955, 1981), aldiz, lehen silaban zegoela. Hualderentzat (1993, 1995, 1997, 2003a, 2006, 2007) lehengo euskal azentu eredia gaur egun Bizkaiko iparraldean ikusten den sistemaren antzekoa zen: azentua talde prosodikoaren azken silaban ezartzen zen. Baina zein hipotesi da zuzena? Eta baldin badago modurik jakiteko zein izan zitekeen hipotesirik zuzenena, beste hipotesiek euskararen beste garai batzuetako azentu patrioiak deskribatzen dituzte. Baina ba al dago modurik bilakaera nola izan zen jakiteko? Lan honetan galdera hauek erantzuten saiatuko gara. Hasperenaren distribuzioa kontutan izanik, Mitxelenak proposatutako eredia zaharrena dela iradoki daiteke, baina bigarren silabako azentua erroaren edo hitzaren azken silabakoa zela argudiatzen dut. Martinetek proposatutako lehen silabako azentua beranduagoko garaikoa izango litzateke, eta azalpen fonetikoak eta fonologikoak ematen ditut bilakaera hau nola edo zergatik gertatu zen azaltzeko. Sinkronikoki zaharrena den osagai edo talde mailako azentua (Hualdek aitzineuskararentzako proposatutakoa) beranduagokoa izango litzateke, eta hitz hasierako azentu batetik sistema honetara nola pasatu ginen ere azaltzen saiatzen naiz. Hitz markatuen azentuak kontutan izanik, alabaina, hitz hasierako azentua baztertzeko arrazoiak plazaratzen ditut, eta hitz

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiet Arantzazu Elordieta, Aitor Iglesias, Aritz Irurtzun, José Ignacio Hualde, Joseba Lakarra eta Mikel Martinez Aretari lan honen aurreko bertsio bateko atal desberdinei egindako zuzenketa eta oharrengatik, edo azentuaren bilakaerari buruzko iritziak emateagatik. Bestalde, lan hau Espainiako Hezkuntza eta Zientziako Ministeritzako Consolider-Ingenio 2010 (CSD2007-00012) eta Eusko Jaurlaritzako IT-210-07 eta HM-2008-1-10 dirulaguntzen babesean burutu da.

bukaerako azentutik osagai edo talde bukaerako azenturanzko bilakaera in-tonazionala proposatzen dut.

## 2. Aitzineuskararen azentu eredu: hipotesiak

Martinetek (1950, 1955, 1981) aitzineuskaraz azentua lehen silaban zegoela proposatu zuen. Bere arrazoi nagusia hauxe zen: bi herskari ahoskabe daudenean hitz baten lehen bi silabetan, lehenak hartzen edo mantentzen duela aspirazioa (adibidez, *phika* eta *phintakoste*), eta inoiz ez bigarrenak. Hau da, TVTV sekuentziarekin hasten diren hitzetan (non T = herskari ahoskabe, eta V = edozein bokal), ThVTV da aurkitzen dena, eta ez \*\*TVThV (h = aspirazioa). Martinetek aspirazioa eta fortis/lenis kontrasta lotzen ditu; konsonante fortisak edo gogorak hitz hasieran kokatzen dira, azentuarekin, danieraz bezala.

Mitxelenak (1958, 1972, 1977), aldiz, azentua hitzaren bigarren silaban zegoela adierazi zuen. Ikerlari honek ere aspirazioarekin lotu zuen azentuaren kokapena. Mitxelena aspirazioa lehen eta bigarren silabetan agertzen zela ohartu zen, inoiz ez hirugarrenean. Kontsonante sudurkariak ere aspiratu egin ziren bigarren silaban baldin bazeuden, baina ez hirugarrenean bazeuden (adib., Lat. (*h*)*onóre* > *ohóre* baina *ballaena* > *balea*). Mitxelenak (1977) gales zaharrenekin aurkitu zuen antzekotasuna; hizkuntza horretan, azentua azken silabatik azkenaurrekora aldatu zenean, azken silabako *h* guztiak galdu egin ziren. Fonetikoki, bada lotura bat aspirazioa eta indar espiratorioaren artean; silaba azentudunean biriketatik datorren airea indartsuago ateratzen da, eta aspirazioa sortzeko indar espiratorioa behar da. Bestalde, lehen silaban bokala edo herskari ahostunak zituzten hitzak zaharragoak ziren aspirazioa lehen silaban zutenak baino (adib., *behar*, *akher*, *bikhe*, *bekhatu*, *gathe* zaharragoak dira *pharka(tü)*, *khorpuz*, *khate* edo *phiper* baino). Arrazoi hauengatik, Mitxelenak aitzineuskararako azentua hitzaren bigarren silaban kokatzen zela argudiatu zuen. Hitz konposatuetan, aldiz, bigarren kidearen lehen silaban kokatzen zuen azentua, bigarren kidearen lehen silabak eta lehen kidearen lehen silabak aspirazioa baldin bazuten lehen kidearen aspirazioa galdu egiten zelako eta bigarrenarenak irauten zuelako: *hil* + *herri* > *il-herri*, *hur* + *hentu* > *ürhentu*. Hitz bakoitzean aspirazio bat bakarrik onartzen bazen (indiera zaharrean eta grekera klasikoan gertatzen zen bezala, edo hizkuntza amerindioetan konsonante laringalekin gertatzen diren murriztapenen antzera, i.e., Grassmannen Legea), bigarren kidearen lehen silabaren sendotasuna azentua silaba horretan egotearen seinale izan daiteke.

Igartuak (2001, 2002) azpimarratzen duenez, Martineten adibideak ez dira Mitxelena-ren hipotesiak azaltzen dituen bezain zaharrak, maileguak baizik. Beraz, Mitxelena-ren proposamenak zuzena dirudi garai zaharrago baten-tzako.

Hualdek (1995, 1997, 2003a, 2006, 2007) beste iritzi bat du. Ikerlari honen ustez, Mitxelena-k proposatzen duen bigarren silabako azentuazioa ezin da patroi-rik zaharrena izan. Bere argudioa da Bizkaiko iparraldeko hizkeren azentu eredia zaharragoa dela, konplexuagoa baita: alde batetik, euskal jator-ritzko erroez eta mugagabezko edo singularreko atzizki gehienekin osatutako hitzek ez dute inolako hitz mailako nagusitasun prosodikorik (i.e., azenturik) islatzen. Bakarrik aditzaren aurrean edo soltean ahoskatzen direnean hartzen dute azentua. Adibidez, hurrengo esaldian *lagunak* hitzak ez du azenturik, eta berez ez dago banaketa prosodikorik hurrengo hitzarekiko. Bi hitzak unitate intonazional berberean ahoskatzen dira (ikus Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994, Elordieta 1997, 1998, 2003, Elordieta eta Hualde agertzeke, besteak beste). *Ardaua* hitzak, ordea, azken silaban hartzen du azentua. Alderantziz gertatzen da hitz hurrenkera aldatuz (cf. (2)):

- (1) lagunak ardauá edan dau
- (2) ardaua lagunák edan dau

(1) eta (2)-ko esaldietako bezalako hitzak “ez markatuak” deitu izan dira azentuaren aldetik, euskal jatorritzko lexikoitik erro eta atzizkirik gehienak honelakoak direlako eta berez ez dute hitzean inolako azentuzko markarik, ez badoaz aditzaren aurrean edo isolatuki ahoskatuta. Gero, badaude beste mota bateko hitzak, beti dutenak azentua, edozein kokagunetan:

- (3) lengúsuek ardauá edan dau
- (4) ardaua lengúsuek edan dau

(3)ko esaldian, *lengúsuek* hitzak azentua dauka (azkenaurreko silaban), nahiz eta aditzaren aurrean ez egon. (4)ko adibidean, (2)koan bezala, *ardaua* hitza azenturik gabe doa, ez dagoelako aditzaren aurre-aurrean. Honelako hitz gehienak konposatuak edo maileguak dira, edo pluraleko atzizkiez osatuta daude. Lexikoki markatuta daude, beraz, eta horregatik deitzen dira hitz “markatuak” azentuaren aldetik.

Bestalde, Bizkaiko iparraldeko hizkera gehienetan azentua atzizki marka-tuaren aurreko silaban ezartzen da: *lagun+’ak* (abs./erg.pl.) > *lagúnek* (abs./erg.pl.); *seme+en+’ari* (dat.pl.) > *semiénari* (*semearenei*). Era orokor batean, lehen morfema markatuak erabakitzen du azentuaren kokagunea (Hualde



1989: 280, 1993: 19, 1997: 179): *seme+’en+’ari* (gen.pl+dat.pl) > *semienari* (*semeeni*). Bestaldetik, Lekeition eta Ondarroan azentua ezartzeko araua sinplifikatu egin da, eta azentua beti erortzen da hitzaren azkenaurreko silaban, erroa zein atzizki bat markatua izan, edo biak. Adibidez, Lekeition: *buru+a+’gas* > *buruágas*, *’kanpo+ko+a* > *kanpokúa*, *’lengusu+’ak* (abs./erg.pl.) > *lengusúak* (abs./erg.pl.). Markinan azkenbigarren silaban erortzen da (Hualde 2000).

Hualdek dioenez, euskarazko erdialdeko eta ekialdeko azentu ereduak sinpleagoak dira prosodikoki, hor ez baitago hitz azentugabe eta azentudunen arteko desberdintasunik, edota erro eta atzizki markatugabe eta markatuen arteko halako desberdintasunik; hitz guztiek jaso dezakete azentua, printzipioz. Bizkaiko iparraldeko hizkeretan, aldiz, hitz markatugabe batek ezta galdegai estua denean ere ezin du azenturik jasan:

- (5) noren dirua galdu dozu?  
 (6) lagun<sup>en</sup> diruá galdu dot (\*lagunén)

Gainera, nahiz eta erdialdeko eta ekialdeko hizkera batzutan desberdintasun lexikal batzuk gorde daitezken azentuaren kokapenaren arabera, hizkera horietan ere kontraste hauek ezabatzen ari dira eta geroago eta nabariagoa da azentua bigarren silaban kokatzen dela ia kasu guztietan, erregulartasun osoz. Arrazoi hauengatik, Hualdek ondorioztatzen du Bizkaiko iparraldeko azentu sistema, konplexuagoa izanik, zaharragoa izan behar dela. Oso zaila da azaltzea nola pasa gaitezkeen azentua oso modu orokorrean ezartzen duen sistema batetik lexikoi aldetik eta azentuaren kokapen aldetik ere desberdintasun lexikalak mantentzen dituen sistema batera. Aldiz, bigarren silabako azentu eredu Bizkaiko iparraldeko sistemaren sinplifikazio baten bitartez sortu zela errazago proposatu dezakegu: Bizkaiko iparraldean hitz azentudunek zein azentugabeek badute tonu gorakada bat bigarren silaban, azentuarekin zerikusirik ez duena, baizik eta talde prosodiko baten hasiera adierazteko intonaziozko markarekin (Azentuzko Osagaia, Elordietaren 1997, 1998 eta Jun & Elordietaren hitzetan). Beste hizkera batzuetan, halaber, azentutzat berrinterpretatu da tonu gorakada hau, seguruenik gaztelaniaren eraginez (hizkuntza honetan azentua tonu gorakadarekin gauzatzen baita). Hipotesi hau Hualdek (1997: 228-233, 2003a) proposatu zuen, eta Elordietaren & Hualdek (2003) frogatu egin zuten oharren test batzuen bitartez.

Bestalde, Larramendik (1729) gipuzkerarako edo agian bere jaioterriko (i.e., Andoaingo) hizkeraren azentu ereduaren testigantza uzten digu, eta deskribatzen duen azentu eredu honakoxea da: mugagabea eta singularrean, azentua hitzaren azken silaban erortzen da (*egún*, *escú*, *arrí*, *guizonác*, *guizona-*

*ri, echeán*); pluralean, erroaren azken silaban doa azentua (*guizónac, guizónai, echéetan*). Deribatuetan, erroaren azkenaurreko silaban doa azentua, singularra eta plurala bereiztu gabe (*beguiratzálle, begiratzálleari, begiratzálleac*). Hualdek (1991) ohartarazi zuenez, eredu hau ez da gehiegi aldentzen Bizkaiko iparraldeko tonu-azentuzko hizkeretatik. Errenteriako hizkerarako ere Mitxelena hitz azentugabe eta azentudunen arteko bereizketa deskribatu zuen (cf. Mitxelena 1988 [1958]: 103, 1987 [1972]: 236, 479-80, 1985 [1977]: 579, Echenique 1988). Bereizketa hau galdu dela ondoriozta dezakegu, Irurtzunen (2003) arabera.

Hualderentzat (1993, 1995, 1997, 2003a, 2006, 2007), beraz, aitzinako euskal azentu eredia gaur egun Bizkaiko iparraldean ikusten den sistemaren antzekoa zen (eta Arratian ere, mugagabeen dauden hitzekin osatutako talde prosodikoekin). Ikerlari honen ustez, enklitizazioek eta hitz konposatuek sortutako azentuak baino arinago (hau da, hitz azentudunik izan baino arinago), azentua talde prosodikoaren azken silaban ezartzen zen, taldeko edo osagaiako azentu bezala, gaur egungo frantsesaren antzera. (6)ko adibidean, *lagunen* eta *dirua* hitzek osatutako osagai sintaktikoaren bukaeran dago azentua edo nagusitasun prosodikoa.

Ikusi dugunez, hiru hipotesi daude aitzineuskararen azentu ereduaz: Mitxelenarena, Martinetena, eta Hualderena. Zein esan dezakegu zuzenena dela? Hurrengo atalean eztabaidatuko dugu hau.

### 3. Aitzineuskararen azentu ereduaren inguruko hipotesien konparaketa

Goian aipatu dugun bezala, badaude arrazoiak pentsatzeko Mitxelenak proposatutako azentu eredia Martinetek proposatutakoarena baino garai zaharrago baterako dela, edo gutxienez Martineten adibideak denak dira maileguak, Mitxelenak erabilitakoak ez bezala (ikus Igartua 2001, 2002, Martinez Areta 2004 eta Lakarra 2005, 2006). Hualdek hitz mailako azenturik edo nagusitasunik gabeko sistema bat proposatzen du, eta osagai edo talde mailako azentua zegoela defendatzen du. Mitxelenaren teoriak, halaber, baditu abantaila batzuk. Hualderen ereduak ez du loturarik egiten aspirazioa eta azentuaren artean; Mitxelenarenak bai, ordea, eta euskal fonologiaren bi gai garrantzitsu hauen artean erlazio bat azaleraztea garrantzitsua da.

Bestalde, badago beste argudio bat Mitxelenaren proposamenaren alde, aitzineuskararen erroen bilakaerena hain zuzen. Azken urteotan, Lakarrak (1995, 2002, 2005, 2006) aurrerapauso nabarmenak eskaini ditu ai-

tzineuskararen erroen forma eta bilakaerari buruz. Bere ustez, erroak monosilabikoak ziren garai horretan, CV(C) formarekin (C = kontsonante; V = bokal). Erreduplikazioaren bitartez, CV-CVC hitzak sortu ziren (adib. \*zen > ze-zen; \*gor > go-gor). Eztabaidagarria da zuzenean CV moldea hartu zuen erreduplikazioak ala \*CVC- forma zuen hasiera batean eta gero kodako kontsonantea erori zen (i.e., \*zen-zen > ze-zen, \*gor-gor > go-gor), baina argi dago ez zela erroaren kopia osoa bezala geratu, eta beraz forma ahulagoa zeukala (berdin \*gi, \*la eta \*sa partikulekin, *vid.* Lakarra 2005: 427-8). Bestalde, erroaren hasierako kontsonantea \*d bazen, kontsonante hau erori egiten zen erreduplikatzen zen partean: \*dol > do(l)-dol > o-dol, \*dar > \*da(r)-dar > a-dar. Argi dago, beraz, kopia fonologikoki ahulagoa zela erroa baino, eta honek erroak azentua zeramala pentsarazten du, silaba azentudunak sendoagoak baitira oro har hizkuntzetan zehar, ahultze eta asimilazio prozesuek zailago harrapatzen dutenak. Eta erroa hitzaren bigarren (eta azken) silaba zenez, garai honetan azentua hitzaren bigarren eta azken silaban zihon.

Lakarrak (2005, 2006) aurrizkiak eta ezkerralderanzko erreduplikazioak zeudela defendatzen du aitzineuskararako. Honekin batera, tradizionalki adostasun osoz onartu diren ezaugarri tipologikoetatik urrun dauden ezaugarriak proposatzen ditu Lakarrak aitzineuskararako: Aditza-Subjektua-Objektua (VSO) hitz hurrenkera, preposizioak, erlatibozko perpausak izenaren atzean, eta aurrizkiak, goian esan bezala. Are gehiago, aintzineuskara ez zela hizkuntza eranskaria aldarrikatzen du. Horretarako, Lakarrak hainbat froga eta argudio ditu, nahiz eta oraindik tentuz ibili behar den. Antzeko aldaketa tipologiko bat aipatzen du Lakarrak, protomundatik eratorri diren munda eta mon-khmer hizkuntzek erakutsi dutena (ikus Donegan eta Stampe 1983, 2004, eta Donegan 1993). Besteak beste, munda hizkuntzek Objektua-Aditza (OV) hurrenkera dute eta atzizkiak, postposizioak eta erroaren osteko kasu markak dituzte, eta mon-khmer hizkuntzek, aldiz, Aditza-Objektua (VO) ordena eta aurrizkiak eta preposizioak dituzte (ez da gure asmoa konparaketa osoa egitea hemen; detaile gehiagorako, jo beza irakurleak goian aipatutako iturrietara). Donegan eta Stampek (1983, 2004) eta Doneganek (1993) azentuarekin edo erritmoarekin erlazionatzen dute proto-mundatik sortutako bi hizkuntz familien aldea: munda hizkuntzek azentua hitz hasieran dute, eta mon-khmer hizkuntzek, aldiz, hitz bukaeran. Ikertzaile hauen ideia da azentua erroan doala modu orokorrean, eta hitz hasierako azentua bateragarriago dela hitzaren ezkerraldeko erro batekin, hitz bukaerako erro batekin baino. Hau da, alde batetik, munda hizkuntzetan azentua hitzaren ezkerraldean dago, eta hizkuntza hauetan atzizkiak eta postposizioak ditugu, eta bestaldek, mon-khmer hizkuntzetan azentua eskuinean dago eta aurrizkiak eta

preposizioak dituzte. Donegan eta Stamperen ustez, azentuaren eta ezaugarri morfologiko eta sintaktikoen korrelazioa ez da kasualitate hutsa; azentua edo azentu ereduak da ezaugarri tipologiko guztiak baldintzatzen dituena. Lakarrak antzeko ideia iradokitzen du aitzineuskararen VSO hurrenkerara eta aurrizki eta preposizioetatik gaur egun ikusten dugun SOV hurrenkerara eta atzizki eta postposizioetara pasatzearen arrazoia aurkitzeko. Hau da, aitzineuskararen erreplikazioekin eta aurrizkiekin sortutako hitz bisilabadunek azentua bigarren silaban zuten (i.e., erroaren eta hitzaren azken silaban), baina munda hizkuntzek bezala, garai batean azentu edo erritmo aldaketa gertatu zen eta lehen silabara pasatu zen azentua, horren ondorioz atzizkiak eta postposizioak eta kasu markak hitzaren eskuinaldean agertaraziz. Ez dago momentuz frogarik hori horrela izan zenik ziurtatzeko, beraz posibilitate erakargarri bezala utzi behar da (ikus Jauregi 2007 ere ideia honen aldarrikapenerako).

Azentu aldaketa hori gertatu bazen aitzineuskaraz, euskal azenturako kronologia erlatiboa honela aurkez daiteke, era eskematiko batean ( $\sigma$  = silaba; silaba azentuduna ikur batekin idatzi dut; hitzek silaba bat bakarrik izan zezaketen, eta beste silaba posible guztiak  $\sigma^n$  notazioarekin adierazi ditut, non  $n \geq 0$ ). Lakarraren (2005, 2006) ustez, II. garaia ezin da latinarekin kontaktua baino askoz arinagokoa izan:

- (7) I.  $[\sigma^n \acute{\sigma}]$   
 II.  $[\acute{\sigma} \sigma^n]$

Bi garai hauek Mitxelena eta Martinetek proposatutako azentu ereduak dituzte, orden kronologiko horretan. Beraz, nahiz eta Martineten argudioak ahulak izan, Lakarrak berreskuratu egiten du proposamena beste ildo batetik (Jauregi 2007 aukera hau azalpengarritzat hartzen du eta erritmo aldaketekin lotzen du; Martinez Aretak 2004, ordea, baztertu egiten du Martineten hipotesia erabat eta bere ustez euskarak ez du inoiz hitz hasierako azenturik izan).

Esan bezala, Lakarrak aipatzen duen azentuaren lekualdatzearen teoria erakargarria da, ondorio sakonak dituelako, hain zuzen euskararen bilakaera tipologikoa argitzea. Puntu honetara helduta, merezi du aztertzea azentua bigarren silabatik lehenengora pasatzea ongi motibatuta dagoen fonetiko zein fonologikoki, alde batetik hipotesi horri indarra eman diezaiokeelako, eta bestetik hipotesi horren ondorioak urruneraino hel daitezkeelako.

Aitzineuskaraz hitzak silaba bakarrekoak edo bi silabakoak baziren, bigarren silaba hitzaren azken silaba ere bazen. Beraz, aitzineuskaraz, edo aitzineuskararen hasierako garaian ((7I)-koa), azken silabako azentua izango genuke. Hizkuntza askotan azken silabako azentua saihestu egiten da. Hizkuntza

batzuetan azentua hitzen azkenaurreko edo azken-hirugarren silaban ezarri daiteke, hau da, hitzaren eskuineko mugan, baina inoiz ez azken silaban. Murriztapen hau azaltzeko, fonologia sortzailean estrametrikalitatearen ideia erabili ohi da tresna bezala, hau da, kontsonante edo silaba bat kalkulu metrikotik kanpo geratzen dela. Hizkuntza askotan, beraz, azken silaba estrametrikala da, eta ez du inoiz azenturik hartzen. Azken silabaren estrametrikalitatearen ondorioak nabariagoak dira kantitatezko sistema metrikoetan, hots, azentua ezartzeko silabaren egitura kontuan hartzen duten sistemetan. Hizkuntza hauetan CVV edo CVC silabak CV silabak baino pisutsuagoak dira, eta azentua silaba pisutsuetan ezartzen da. Baina mota honetako hizkuntza askotan azentua ez da azken silaban ezartzen, nahiz eta hau CVV(C) edo CVC(C) izan, eta beste silaba batean kokatzen da. Hayes-en (1995) teoria metrikoari buruzko lanean honelako hainbat kantitatezko hizkuntza deskribatu edo aipatzen dira, familia desberdinetakoak: ingelesa (60-1), latina (91-92), erdiko sierra miwok (112-3), turkiera (113, 262), paamesiera (178-9), awadhi (179-80), gaztelania (181), rumaniera (181), alemaniera (181), Libanoko arabiera (181), klamath (181), hixkaryana (207-8), hindiren dialekto batzuk (276-8), klamath (279-81), eta axeninka (288-96). Kenstowicz-ek (1994) beste hauek aztertzen ditu: chukchee, aljutor, eta mari. Kantitatea edo pisu silabikoa kontuan hartzen ez duten hizkuntzen artean ere badira askotxo azken silaba estrametrikaltzat hartzen dutenak. Hayes-ek (1995) hauek aipatzen ditu: mazedoniera (58, 205), parnkalla (205), kela (205), mae (205), pirahá (285-7), eta kayuvava (309-14). Beste hizkuntza batzuk ere azken silabaren estrametrikalitatearen bidez aztertu dira, hala nola yawelmani (Archangeli 1984), chamorro (Chung 1983), warao (Halle eta Vergnaud 1987), edo swahili (Wald 1987), baina hauek ez dira hain kasu argiak, edo beste analisi batzuk onartzen dituzte, Hayes-ek (1995: 204) dioen bezala. Azken silabaren estrametrikalitatea honela irudikatuko litzateke eskematikoki, estrametrikalitatea <> ikurren bitartez adieraziz:

(8)  $\sigma. \sigma. <\sigma>$

Badira kantitatezko beste hizkuntza batzuk azken kontsonantea bakarrik uzten dutenak kalkulu metrikotik kanpo, hau da, azken kontsonantea estrimetrikala delarik: estoniera (Hayes 1995: 56-7, 316-29), Kairoko arabiera (Hayes 1995: 67-71), Palestinako arabiera (Hayes 1995: 125-130), chickasaw (Gordon 2000) eta klamath (Gordon 2000, Hayes-en 1995ko analisiaren alternatiba gisa). Azken kontsonantearen estrametrikalitatea honela irudikatuko litzateke eskematikoki, bi silabako CV.CVC egitura silabikoa duen hitz baterako:

(9)  $CV.CV <C>$

Estrametrikalitatea teoria metrikoaren tresna formal bat da, behaketa enpiriko bat formalizatzen duena. Gordon-ek (2000) azalpen interesgarri bat proposatzen du estrametrikalitatearentzat, hitz mailako azentuaren eta esaldi mailako edo intonaziozko muga tonuak azken silaban gauzatzeko zailtasuneari oinarritua. Hitz mailatik goragoko osagai prosodikoen bukaeran muga tonuak ezartzen dira, jarraipena edo bukaera adierazten dutenak. Osagai prosodikoak banatzen dituzten muga tonuak goranzkoak edo beheranzkoak izan daitezke, hiztunak esaldian adierazten ari den informazioa bukatu den ala ez aditzera emateko. Informazioak jarraitzen badu, goiko tonua erabiltzen da hizkuntza gehienetan, delako osagai prosodikoa goiko tonu mailan bukatzen duelarik, eta esaldia bukatu dela edo informaziorik garrantzitsuena ahoskatu dela adierazteko beheko tonua erabiltzen da, delako osagaiak edo esaldiak beheko tonu mailan bukatzen duelarik. Intonazioaren Teoria Metrikoan eta Autosegmentalean, osagai intonazionalen eskuineko mugak (bukaerak) markatzen dituzten goiko eta beheko muga tonuak H% eta L% ikurren bitartez adierazten dira. H- eta L- ikurrak ere erabiltzen dira, erdi-mailako osagai intonazionalen mugak markatzeko (ikus Pierrehumbert 1980, Pierrehumbert eta Beckman 1988, Ladd 2008 eta Teoria Metriko-Autosegmentaleko bibliografia luze bat. Sarrera baterako, ikus Hualde 2003b). Beraz, azentua azken silaban duen hitz batek osagai intonazional baten bukaerarekin bat egiten badu, azken silaban hitz mailako azentua eta intonazio mailaren muga tonua elkartuko dira. Azentua normalean oinarritzko maiztasunaren mugimendu batekin adierazten denez (iraupen eta intentsitatearekin batera gertatu zein ez), azentuaren tonu mugimendua eta osagaiaren bukaerako muga tonua desberdinak badira ez dago tokirik bi tonu mugimenduak argi gauzatzeko. Hau da, hizkuntza batean azentua goiko tonu batekin edo goranzko tonu konplexu batekin adierazten bada (H\* edo L+H\*, Teoria Metriko-Autosegmentalean) eta muga tonua beheko tonuarekin adierazten bada (L- edo L%), denbora behar da goitik beherako mugimendua burutzeko eta lortu nahi den mailara heltzeko goian eta behean. Silaba batek ez du denbora askorik uzten, batez ere silaba hau irekia edo arina bada (CV). Kontsonante batez bukatzeak ere (CVC) ez du laguntzen, kontsonanteak ez baitira gunerik onenak tonua gauzatzeko, ozenak izan ezik. Eskematikoki, honela adieraziko genuke tonuen pilaketaren argudioa azentuaren lekualdaketarako:

$$(10) \quad \begin{array}{ccc} H^* L\% & & H^* L\% \\ | & \diagdown & | \quad | \\ [\sigma \cdot \acute{\sigma}] & > & [\acute{\sigma} \cdot \sigma] \end{array}$$

Azentuaren tonua eta muga tonua biak behekoak edo goikoak izango balira (H\* eta H-/H%, edo L\* eta L-/L%) ez litzateke arazo fonetikorik egon

behar, eta hain zuzen ere Gordon-ek (2000) chickasaw hizkuntzan aurkitzen du honen adibide bat. Kantitatezko azentu sistema duen hizkuntza honetan, azken silaban CVC(C) egitura duten hitzek ez dute azentua azken silaban jasotzen azentua adierazteko tonua eta osagai bukaerako muga tonua desberdinak direnean (H\* eta L%), eta ezkerralderago agertzen da azentua. Azentuaren tonua eta osagaiaren muga tonua berdinak direnean (H\* eta H%), ordea, azentua azken silaban ezar daiteke. Osagai baten bukaeran gertatzen diren azentuaren lekualdatzeak osagai barruko hitzetara heda daitezke, orokortze prozesu baten bitartez. Horregatik, kantitatezko azentua duten hizkuntza askotan CVV bakarrik da azentua erakartzen duen silaba mota, eta ez CVC edo CVCC, nahiz eta hitz barnean hiru silaba mota hauek pisutsuak izan eta beraz azentu erakartzaileak. Hitz barnean ez dago intonaziozko muga tonurik eta beraz azentuaren tonua besterik ez da gauzatu behar.

Azken silabaren ahuleziak diakronikoki ikertu dituzten ikertzaile batzuek azken silaba berez ahula dela diote, bereziki azken silabaren azken unitatea (cf. Hock 1999, non azken silabaren ahuleziak aztertzen diren, azentuaren ezkerralderanzko lekualdaketak izan ezik). Dena den, badira hizkuntza asko zeinetan azken silaba ez den estrametrikala (ikus Hyman 1977 eta Gordon 2002 hone-lako hizkuntzen zerrendetarako). Sakonago ikertzeko gaia da ezbairik gabe. Baliteke Gordonek (2000) aldarrikatutako azalpenak batez ere azentua oinarritzko maiztasunaren gorabeherekin gauzatzen den hizkuntzetarako balio izatea, hau da, azentuaren ezaugarri fonetiko nagusiak edo bakarrak F0 mugimenduak (i.e., tonuak) direnean. Azentuaren ezaugarri garrantzitsua edo nabarmena iraupena edota intentsitatea direnean, batez ere lehena, agian azentua azken silabatik ezkerralderago mugitzeko motibazio gutxiago dago. Ideia hau Barnes-ek (2005: 114-160) iradokitzen du osagai prosodiko nagusien bukaerako azken silabaren ahulezi fonetikoari buruzko lan zabalago batean, hala nola azken bokalen ahoskabetzeak, glotalizazioak, erorketak, laburketak edo neutralizazioak. Barnes-ek dioenez, agian dena dago lotuta osagai prosodiko nagusi baten bukaeran gertatzen den presio azpiglotalaren jaitsierarekin. Azentuari dagokionez, fonetikoki ahula den bokal bat ez da aproposa tonua edo F0 mugimendua adierazteko, beraz azken silaba ez da gunerik aproposena azentua markatzeko. Gero, Gordon-en (2000) azalpenean bezala, pentsatu behar da osagai prosodikoen bukaerako ezaugarri hau hitz bukaerako silabetarra hedatu edo orokortu zela, hots, gramatikalizatu egin zela azken silabaren desegokitasuna azentuarentzako.

Aitzineuskaraz ere pentsa dezakegu Gordon-ek (2000) proposatutakoa gertatu zela. Lakarrari jarraituz, aitzineuskararen hitz bisilabikoen azken sila-

bak CVC forma zuela onartuko dugu, eta azentua silaba honetan ezartzen zela (hots, [CV.CVC] eritmoarekin, gorago adierazi bezala). Aitzineuskararako bokal luzeak proposatzeko ebidentziarik ez dagoenez, ez dirudi kantitatezko sistema bat zenik aitzineuskararena. Beraz, metrikoki, azentua oin ianbikoen bitartez ezarriko litzateke, azentua bi silabatik bigarrenak hartzen duelarik (ezkerretik hasita): (σ.ó). Eman dezagun azentua goiko tonuen bitartez gauzaten zela, H\* edo L+H\* tonuekin. Osagai prosodiko nagusien bukaeran, esaldiaren bukaeran adibidez, beheko tonua izango genuke ziurrenik (L%), ia hizkuntza guztietan gertatzen ohi den bezala. Testuinguru hauetan, azken silaban H\* eta L% gutxienez gauzatu behar baziren, gerta zitekeen azentua azken silabatik aurrekora pasatzea, edo gutxienez esaldi edo osagai intonazionalaren barnean baino ezkerreago. Honek azentua lehen silabara pasatuko luke, [CV.CVC], oin trokaiko silabiko baten eredura igaroz, i.e., (ó.σ). Esaldi edo osagai intonazional baten bukaerako eredu hau hitz bukaera guztietara hedatu baldin bazen, Gordonek proposatzen duenari jarraituz, azentuaren lekualdaketa gertatuko litzateke. Puntu honetan, zaila da esatea azken silaba estrametrikala bihurtu zen ala ez, hau da, sistema metrikotik at geratu zen ala ez. Bi silabako hitzetan, azken silaba estrametrikala bihurtzen bada, lehen silabak oin bat sortu behar du, baina sistema metrikoan oin “degeneratua” deitzen dena izango litzateke (oin bat unitate bakar batez osatuta dagoena), hizkuntza askok saihestu egiten dutena.

Edozein kasutan, azentuaren lekualdaketa bi silabako hitzetako (σ.ó) oin ianbiko batetik (ó.σ) oin trokaiko batera gertatu bazen, eta arrazoia goian aipatutakoa izan bazen, hots, osagai prosodikoen bukaerako muga tonuen presio fonetikoagatik, aldaketa hau bi silabako hitzekin gertatu behar zen, azken silabatik lehen silabara pasatzeko. Hiru silaba edo gehiagoko hitzekin zailagoa da azentu aldaketa azaltzea. Azentua azken silaban erortzen bazen, muga tonuen presioek azentua azkenurreko silabara pasatuko lukete, ez lehenera (muga tonua % ikurraren bitartez adierazten dut):

$$(11) \quad \begin{array}{ccc} & H^* & L\% \\ & | & / \\ [\sigma . \sigma . \acute{\sigma}]\% & & > & \begin{array}{ccc} & H^* & L\% \\ & | & | \\ [\sigma . \acute{\sigma} . \sigma]\% & & \end{array} \end{array}$$

Azentua azkenurreko silabatik lehenera pasatzeko beste arrazoi bat beharko genuke, eta ez dago batere argi zein izan daitekeen arrazoi hau.

Beste aukera logiko bat da pentsatzea aitzineuskarako azentuera benetan hitzaren bigarren silabakoa zela, Mitxelenak zioen bezala. Hau da, hiru silaba edo gehiagoko hitzetan patroia [σ.ó.σ] izatea. Orduan ere, azentua bigarren silabatik lehen silabara pasatzeko motibazioa ez da batere argia. Muga tonuen



presio fonetikoa ezin da erabili azalpen gisa. Beraz, aitzineuskaraz azentua bigarren/azken silaban erortzen bazen eta hau gero lehen silabara pasatu bazen, aldaketa hau motibazio sinesgarri edo natural batekin azaltzeko aukera bakarra da aldaketa hau hitzak bi silabakoak ziren garaian gertatu zela proposatzea.

Beraz, (7)-ko kronologia erlatiboan adierazi ditugun  $\sigma^n$  ikurrak  $\sigma$  soilak izan beharko lirateke, gutxienez aitzineuskararen eta baita ere II. garaiko hasieran:

(12) I. [ $\sigma \acute{\sigma}$ ]

II. [ $\acute{\sigma} \sigma$ ]

Nire ustez, egon daiteke beste argudio bat hitz hasierako azentu ereduaren alde. Ezaguna denez, hitz konposatueta lehen osagaiaren azken bokala erori edo ahuldu egin daiteke: *ardi + alde > artalde*, *oilo + ar > oilar*, *baso + katu > basakatu*. Erorketak eta ahultzeak ez dira bateragarriak bigarren silabaren azentu batekin, azentuak indartu edo gogortu egiten duelako silaba, silaba ahultze fenomenoaren aurka babestuz. Aldiz, garai horretarako azentua lehen silabara pasatuta baldin bazegoen, lehen osagaiaren azken bokala silaba ahulean egongo litzateke (hitz konposatuaren azentu nagusia lehen osagaiaren lehen silaban egon zein bigarren osagaiaren lehen silaban), eta errazago ulertuko genituzke bokal horien ahultze prozesuak. Are gehiago pentsatzen badugu konposatu horiek berez nahiko hitz askeekin osatuta daudela, eta agian elkartzen hasi zirenean lehen kidearen bigarren silaba bi silaba azentudunen artean kokatzen zela, eta horrek ahulezia nabarmendu egiten zuela. Datu hauek hitz konposatueta bigarren kidearen lehen silabak hartzen zuela proposatuz azaltzen zituen Mitxelenak (1958) (i.e., lehen kidearen bigarren bokala posizio ahulean egongo litzateke, pretonikoan kasu honetan), baina proposamen honen alde txarra konposatuentzako berezitasunak sartzea da. Gainera, konposatueta bigarren kidearen lehen silabako azentuerak askotan hitzaren hirugarren silaban jarriko luke azentua (goiko adibideetan, esate baterako). Hitz hasierako azentu eredu hau nahiko zaharra izan daiteke, zeren hitz konposatueta bokal erorketa horiek euskalki guztietan ikusten dira era berean, eta beraz euskalkien arteko banaketa sakonagoak gertatu baino arinagokoa izan zitekeen. Baina ikus Hualde (2006) hitz konposatueta bokal erorketen beste azalpen posible baterako.

Azkenik, Hualderen (1993, 1995, 1997: 228-233, 2003a, 2006, 2007) proposamena dugu. Ikertzaile honen ustez, aitzinako euskal azentu eredu gaur egun Bizkaiko iparraldean ikusten den sistemaren antzekoa zen. Hitz azentudunik izan baino arinago, azentua talde prosodikoaren azken silaban

ezartzen zen, taldeko edo osagaiko azentu bezala. Bizkaiko iparraldeko tonu-azentuzko hizkerak badute tonu gorakada bat bigarren silaban, azentuairekin zerikusirik ez duena, baizik eta talde prosodiko baten hasiera adierazteko in-tonaziozko markarekin (Azentuzko Osagaia edo *Accentual Phrase*, Elordietaren 1997, 1998 eta Jun & Elordietaren 1997 hitzetan. Lan hauetan Azentuzko Osagaiak prosodikoki eta sintaktikoki nola osatzen diren azaltzen da). Zer esanik ez, eredu hau Martinetenarekin konparatuta guztiz kontrakoa da, hitzaren kontrako ertzak aukeratzen dituztelako. Mitxelenaren hipotesiaren-gandik hurbilago dago, zeren azken finean aitzineuskaraz hitzak silaba bakarrekoak edo silaba bikoak baldin baziren, azentua bigarren silaban ezartzea (Mitxelenaren hipotesian) eta azken silaban ezartzea (Hualderenean) berdintzat jo dezakegu. Dena den, oraindik ere desberdintasun bat egongo litzateke, Hualdek taldeko edo osagaiko azentua proposatzen duelako, ez hitz bakoit-zerako, Mitxelenak bezala. Hitz guztiek azentua eramateak gehiago bultzatzen ditu azentuairekin estuki lotuta dauden aspirazioak eta erreduplikazioekin gertatzen diren ahultzeak, hau da, errazago sartzen dira sistema fonologikoan gertakari hauek hitzez hitz gertatzen badira, eta ez bakarrik talde bukaerako hitzetan. Beraz, gertakari hauen eta azentuairen arteko lotura onartzen badugu, Mitxelenaren proposamenak badu abantaila bat, agian Hualderen proposamenak baino sendotasun gehiagorekin azaltzen duela lotura hau. Bestalde, gogoratu dezagun hitz konposatueterako Mitxelenak bigarren kidearen lehen silaban kokatzen zuela azentua, kide biek aspirazioa baldin bazuten bigarren kidekoak irauten zuelako eta lehenarenak ez (*hil + herri* > *il-herri*, *hur + hentu* > *ürhentu*). Gertakari hau ere ezin du Hualderen hipotesiak azaldu.

Bestalde, konposatuetan lehen kidearen azken silaban gertatzen diren bokal erorketak eta ahultzeak (e.g., *ardi + alde* > *artalde*, *oilo + ar* > *oilar*, *baso + katu* > *basakatu*, etab.) euskalki guztietan ikusten dira, eta beraz sistema zaharrago baten adierazle izango lirateke. Hualderen azken silabako azentuek ezin ditu gertakari hauek azaldu. Hitz konposatueterako Hualdek (1993, 1995, 1997: 228-233, 2003a) lehen kidearen azken silabako azentua proposatzen du, seguruenik aitzineuskara baino garai berriago baterako, baina horrek are zailago egiten ditu juxtu silaba horretan gertatutako bokalen erorketak eta ahultzeak azaltzea. Gorago aipatu dugu datu hauek lehen silabako azentuairekin errazago direla azaltzen. Hualdek (2006) beste era batean azaltzen ditu hitz konposatueterako bokal erorketak eta ahultzeak: konposaketetan bi osagaien arteko muga morfologikoa glotalizazioaren bitartez markatzen zela, eta glotalizazioaren ondorioz lehen osagaiaren azken bokala ahoskabetu eta batzuetan galdu egiten zela.

Bigarren silabako azentua lehen silabako azentua baino zaharragoa dela onartzen badugu, eta baita ere bigarren silabako azentua zaharragoa dela talde edo osagaiko azken silabako azentua baino, lehen silabako azentua eta talde edo osagaiko azken silabako azentua geratzen zaigu euren artean kronologikoki kokatzeko. Gaur egun lehen silabako azentuaren aztarnarik ez dagoenez, ez bada gipuzkerako erdialdeko hizkera batzuetako hitz markatueta (silaba bakarreko erroak, pluraleko formak eta maileguak), eta goian esan bezala Bizkaiko iparraldean agertzen zaigun talde edo osagaiko azken silabaren azentua (hitz azentugabe edo ez markatueta) sinkronikoki zaharrena dela onartzen badugu, ematen du hitzaren lehen silabako azentua taldeko azken silabako azentua baino zaharragoa dela. Beraz, (7)n eta (12)-n adierazitako kronologia erlatibo honela osatuta geratuko litzateke (III. garaian talde prosodikoa dugu, eskematikoki bi hitzez osatutakoa):

- (13) I. [σ́ σ́]  
 II. [σ́ σ]  
 III. [[σ<sup>n</sup>] [σ<sup>n</sup> σ́]]

Orain, azaltzeko geratzen dena da prosodikoki zer nolako pausuak eman ziren garai batetik bestera. I. eta II. garaietako azentu ereduen artean silaba bakarreko aldea dagoela onartu dezakegu, kokapen aldetik. Baina zailagoa da, edo alde gehiago dago, II. eta III. garaiko azentu ereduen artean. Mutur batek bestera saltatzea prosodikoki nahiko bitxia edo zaila ematen du, pausu batean behintzat. Hurrengo atalean aldaketa horren bilakaera prosodikoaren hipotesi bat proposatzen saiatuko naiz, hurbilketa bezala gutxienez.

#### 4. Aitzineuskaratik Bizkaiko iparralderako bilakaera tonala

Azentuen ezaugarri fonetikorik argiena eta orokorra hizkuntzen artean oinarrizko maiztasuna da, i.e., *pitch*-a edo tonua (cf. Hyman 1977, Beckman 1986, besteak beste). Aitzineuskaraz azentua goiko tonu edo tonu gorakada baten bitartez adierazten zela pentsa dezakegu, hau da, H\* tonuaren bitartez, lehendabiziko silabak tonu baxua (L) zuelarik. Era ekonomikoagoan, protobantuerarako proposatu ohi den bezala (cf. Nash 1992, Kaji 1996), H tonua bakarrik fonologikoki espezifikatuta zegoela proposatu dezakegu, eta L tonua ez. L beranduago gauzatuko zen. Hitzen melodia tonala [0 H\*] izan zitekeen, beraz. Bi hitz jarraian ahoskatuz, tonuen sekuentzia honakoa litzateke:

- (14) [0 H\*] [0 H\*]

Hurrengo garaian (i.e., hitzaren lehen silabako azentuaren eremuan) hitzen melodia  $[H^* 0]$  izango litzateke. Bi hitz bisilabiko jarraian ahoskatuz,  $[H^* 0] [H^* 0]$ . Hitz luzeagoekin:  $[H^* 0^n] [H^* 0^n]$ , eta abar:

$$(15) [H^* 0^n] [H^* 0^n]$$

Orain azaldu behar da nola pasatzen den lehen silabako azentutik Bizkaiko iparraldeko talde prosodikoaren azken silabako sistemara. Tonalki, edo hobeki esanda intonazionalki (tonuak osagai edo esaldi mailako egitura kokatzen direnean intonazio mailan ari garelako), gaur egun Bizkaiko iparraldeko talde prosodikoen egitura intonazionala hau da:

$$(16) [L H^n H^*]$$

Hau da, lehen silabak tonu baxua du, eta bigarren silaban tonu gorakada bat dago, gorago aipatu bezala. Gorakada hau ez da azentuduna, berez, silaba hau ez bada taldeko azken silaba. Taldeko azken silaba hurrengo bada, azentua  $H^*$  (edo  $H^*+L$ ) denez, bi  $H$  tonu elkarren ondoan izango genituzke. Bigarren eta azken silabaren artean silaba bat edo gehiago baldin badaude (i.e., taldea lau silabaduna edo luzeagoa baldin bada), bigarren silabako  $H$  tonua taldeko azken silabako  $H^*$  tonuraino hedatzen da. Hori da Jun eta Elordietaren (1997) eta Elordietaren (1998) analisia. Intonazionalki, lau silabako talde prosodiko batek honelako eskema ikonikoa izango luke:

$$(17) [\underline{L}/\overline{H H H^*}]$$

Nola pasatzen gara II. garaiko  $[H^* 0^n] [H^* 0^n]$  hitzen eskema tonaletik III. garaiko  $[L H^n H^*]$  talde prosodikoen eskemara? Nire hipotesia hau da:  $[H^* 0^n] [H^* 0^n]$  moldean bitarteko tonurik gabeko silabek (0 tonuarekin markatu dugunak)  $H$  tonua hartuko lukete hitz hasierako  $H^*$  tonuen hedaduraz, nolabait hitzari edo taldeari batasuna emanaz. Esan behar da  $H$  tonuen eskubiranzko hedadurak sarritan gertatzen direla munduko hizkuntza tonal eta tonuazentuzkoetan, hizkuntza bantuetan eta japonieraz, adibidez. Orduan, hedaduraren ondorioz, II. garaitik  $[H^* H^n]$  melodiara pasatuko ginateke:

$$(18) [H^* 0^n] [H^* 0^n] > [H^* H^n] [H^* H^n]$$

Honekin, bi hitzen elkarreko  $H^n$  eta  $H^*$  tonuek hitzen muga tonalak ezabatu egingo lituzkete, eta hitzen melodietatik talde melodietara pasatuko ginateke. Hau da, geziaren eskuineko aldean talde bat dugu, hitz bat baino gehiago osaturikoa, gaur egungo Bizkaiko iparraldean bezala:

$$(19) [H^* H^n] [H^* H^n] > [H^* H^n]$$

Hualdek (1995) dioenez, posiblea litzateke onartzea azentua hasieran duten hitzek azken silaban ere bigarren mailako azentu bat izatea, eta denborarekin azentu hau nagusitzat hartzea. Alderantzizko fenomenoak ere gerta daitezke. Polonieraz azentua hitzaren azkenaurreko silaban erortzen da, baina lehen silaban badago bigarren mailako azentu bat. Lehen silabako azentu hau polonieratik oso gertu dagoen txekieraz azentu nagusia da. Eta Hualdek (1995) dioskunez, Quebec-eko frantsesez badago hitz edo talde prosodiko hasieran bigarren mailako azentu bat, bukaerako azentu nagusiaz aparte. Beraz, ez litzateke izango bitxikeria handiegia pentsatzea guk (13)<sup>n</sup> II. garaia deitu dugun garaian bazela bigarren mailako azentu bat hitz edo hitz talde bukaeran gero nagusi bihurtu zena. Hualdek iradokitzen duen nagusitasunaren toki aldaketa gertatu bazen, [H\* H<sup>n</sup>] melodia izango genuke:

$$(20) [H^* H^n] > [H^n H^*]$$

[H<sup>n</sup> H\*] sortuz, gero eta hurbilago gaude Bizkaiko iparraldeko [L H<sup>n</sup> H\*] melodiatik. Baina nola pasatzen gara eredu honetara? Beste era batera esanda, nola sortzen da talde hasierako L tonua? Nire hipotesia hau da: oro har, H tonuak fonetikoki gailurren bitartez gauzatzen dira, baina hizkuntza askotan ikusi ohi da gailur hauek oso sarritan silaba bukaerarekin edo hurrengo silaban hasieran gauzatzen direla (gaztelanian, adibidez). Honela, anbiguotasuna sortzen da eta H tonua hurrengo silaban antzeman daiteke, entzuleen oharrenaren aldetik, eta honen ondorioz, ekoizpen fonetikotik berrinterpretazio fonologiko bat gertatuko litzateke, H\* tonu bat hurrengo silabara pasatuz egitura fonologikoan (cf. Kingston 2003 hizkuntza bantuentzako). Euskaraz ere pentsa daiteke hitz edo talde hasierako H tonua bigarren silabara pasatu zela, eta lehen silaba tonurik gabe geratuko litzatekeela.


$$(21) [H^n H^*] > [0 H^n H^*]$$

Goian aipatu bezala, hizkuntza bantuentzako proposatu ohi den bezala, tonurik gabeko silabek L tonua hartzen dute. Beraz, euskaraz ere lehen silaba honek L tonua hartuko luke, Bizkaiko iparraldean oraindik [L H<sup>n</sup> H\*] ikusten den melodia emanez:

$$(22) [0 H^n H^*] > [L H^n H^*]$$

Azentuaren bilakaerarekin lotuta badira aipatu behar diren zenbait gai garrantzitsu. Ekialdeko euskalkietan azkenaurreko silabako azentua dugu nagusi, hala nola zubereraz, erronkieraz, zaraitzueraz, Baztanen, behe-nafarreraz eta Lapurdiko hainbat tokitan (cf. Hualde 1997, Gaminde 1998). Informazio iturri guztien arabera, euskalki hauetan ez zen Larramendiren garaian

mendebaldean zegoen azentu eredua. Euskalki eta azpieuskalki hauek proposatu dugun azentuaren kronologia erlatiboan II. garaitik igaro baziren (i.e., lehen silabako azentu eredutik), azaldu beharko litzateke nola pasatzen garen azkenaurreko silabako azentura. Bi silabako hitzekin, pentsatu beharko genuke lehen silabako azentua hitzaren azkenaurreko silaba balitz bezala berrinterpretatu zela hitz luzeagoekin. Hipotesi hau zuzena balitz, (13)-ko kronologia erlatiboa (23)-n agertzen den bezalaxe osatuko genuke: II. garaira heldu ondoren, azentuari dagokionez bi adar sortu ziren, bat mendebaldean (IIIa) eta beste bat ekialdean (IIIb). Mendebaldekoak azentua lehen silaban izango luke, eta ekialdekoak azkenaurrekoan. Beranduago, IIIa eredua osagai sintaktiko baten azken silabako azentura pasatuko litzateke (IV garaiko eredua), gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik entzuten dena baina duela bi menderraino edo gutxiago hedatuago zegoena Gipuzkoan ere. Eredu honetan, badago tonu igoera bat bigarren silaban, nik lehenagoko azentu baten aztarnatzat hartu dudana (bigarren silabara mugitutako azentuarena). Ekialdeko hizkeretan ez dago horrelakorik, horko ereduak arinago hasi zuelako bere bidea. IV. eredutik eratorriko lirateke gaur egun aurkitzen diren ereduak hainbat berrinterpretazioren ondoren, Hualderen (1993, 1995, 1997: 228-233, 2003a, 2006, 2007) teoria eta azalpen konbentzigarriari jarraituz. Orrialde-kopuruaren muga dela medio, ezin ditugu berrinterpretazio horiek hemen aurkeztu. Jo beza irakurleak aipatutako Hualderen lanetara.



Hipotesi honen arabera, ekialdeko hizkeretan goian aipatutako hitz konposatuen lehen osagaiaren azken bokalen erorketak edo ahultzeak hitz konposatuaren azkenaurreko silabetako azentuarekin azal daitezke. Bestalde, ekialdean ere I. eta II. garaietatik pasatzeak *behar*, *akher*, *bikhe*, *bekhatu*, *gathe* bezalako hitzak *pharka(tü)*, *khorpuz*, *khate* edo *phiper* baino zaharragoak izatea azalduko luke (haietako hainbat mailegu argiak badira ere). Azkenik, gogora dezagun hitz konposatueterako Mitxelenak bigarren kidearen lehen silabako azentua proposatzen zuela, bigarren kidearen lehen silabak eta lehen kidearen lehen silabak aspirazioa baldin bazuten lehen kidearen aspirazioa galdu egiten zelako eta bigarrenarenak irauten zuelako: *hil* + *herri* > *il-herri*, *hur* + *hentu* > *ürhentu*. Honelako hitzek azentua beti azkenaurreko silaban bazuten, ekialdeko arau orokorra jarraituko lukete.

Dena den, hitz markatuen azentua eztabaidatzeko geratzen da. Orain arte proposatutakoa azentu eredu ez-markatu edo orokorrei aplikatuko litzazieke, baina dakigunez, euskararen azentu eredu askotan badira hitz markatuak azentuaren aldetik, azentuera bereziak hartzen dituztenak, arau orokorra jarraitu beharrean beste patroï bat dutenak. Hitz markatuak dituzten hizkera guztietan, mailegu gehienak hitz markatuak dira (salbu jatorriz hitz oxitonoak direnak, Bizkaiko iparraldean). II. garaian (lehen silabako azentuarena) latina-rekin harreman linguistikoa egon zenez, mailegu zaharrenak garai honetakoak izango lirateke (*kipula*, *leku*, *liburu*, *denbora* bezalako hitzak). Mailegu zahar hauek markatuak dira erro markatuak dituzten hizkera guztietan. Gaur egun, erro markatuak dituzten hizkera guztietan, erro markatuek gutxienez hitz ez-markatuek baino silaba bat ezkerralderago daramate azentua (ikus Hualde 1997, azentu eredu desberdinetako hitz markatuen azentueterarako). Bizkaiko iparraldeko hizkera askotan edo gehienetan (Getxo-Gernika bezala ezagutzen dena, cf. Hualde 1997), erro markatuek erroaren silaba batean daramate azentua beti (adib., Gernikaldean *léku*, *lékuen*, *lékure*, *lékuetatik*), eta beste hizkera batzuetan (Lea-Artibain, batik bat) hitzaren azken silaba baino silaba bat edo bi ezkerralderago (i.e., erro + atzizkiz osatutako hitz osoa hartuz; Lekeition, adibidez, *lekuetátik*, *liburúa*, *kanpokúa*). Erdialdeko azentu ereduaren hizkeretan maileguez normalean azentua lehen silaban dute, nahiz eta arau orokorrak bigarren silaban egotea agindu (adib., *mákila*, *lib(u)rue*, *éscolea*). Baina II. garai hori existitu bazen euskaraz, hau da, garai horretan azentu arau orokorra lehen silabako azentua baldin bazen, sortzen den galdera da ea nola desberdintzen ziren hitz markatuak eta ez-markatuak. Nola ezarriko litzazieke azentua maileguei azentu orokorrak agintzen duena baino ezkerralderago, azentu orokorra lehen silaban baldin badago? Are gehiago dena, latinez azentua lehen silaban zuten erroak baldin baziren, batzuk bi silabadunak azentu paroxitonoarekin (*lócu* 'leku', *libru* 'liburu', *ténda* 'denda') eta beste batzuk hiru silabadunak azentu proparoxitonoarekin (*témpora* 'denbora', *cámara* 'ganbara')?, nola berezi ziren erro hauek azentu orokorra ere lehen silaban ezartzen bazen? Agian azentua barrurago (i.e., eskuinerago) esleitu zitzairen, gaur egungo patroïaren alderantzizko bidean, gero berriro ezkerralderago mugitzeko, gaur egungo patroïak erakusten duen bezala? Hau da, bi aldaketa jasoko al zuen erro hauen azentuak, norabide kontrajarrietan? Kontuan izan dezagun gainera erdialdeko hizkeretan maileguez hitz hasierako azentua dute-la, eta beraz, bi aldaketa hauen ostean erro horiek jatorrizko azentura helduko liratekeela. Nahiko korapilatsua dirudi aukera honek. Beste aukera da pentsatzea lehen silaban azentua zeukaten hitz markatuak eta markatugabeak doinu-azentuen bitartez bereizten zirela, H\* eta L+H\* doinu-azentuen bitartez.

Gero, hitz ez-markatuen azentua eskuinerago aldatu zenean, hitz markatuen azentua lehen silaban geratu zen besterik gabe, doinu-azentuen arteko berezitasuna galduz, gaur egun ez baita halakorik inon ikusten. Hau da, beti ere pentsatu beharko genuke [+markatu] bezalako tasun edo marka bat izango zutela erro hauek, eta sistema metrikoak era desberdinean ezartzen ziela azentua erro hauei. Azalpen posible honek daukan arazoa da gaur egun ez dugula doinu-azentu mota horien arrastorik ikusten.

Maileguk, beraz, arazoak sortzen diote (13)-n eta (23)-n proposatutako azentuaren bilakaeraren hipotesiari. Hurrengo atalean beste hipotesi bat aztertuko dugu.

## 5. Euskal azentuaren bilakaera sinpleago baten hipotesia

Azentuaren bilakaera tonala sinpleagoa izan zitekeen, hitz hasierako azenturik ez bazen inoiz existitu euskaraz, Martinez Aretak (2004) defendatzen duen bezala. Aitzineuskaraz hitzen melodia tonala 0 H\* bazen, bi hitz jarraian ahoskatuz, doinuen sekuentzia honakoa litzateke: [0 H\*] [0 H\*]. Talde sintaktikoen barruan, lehen hitzaren H doinua bigarren hitzaren lehen silabara hedatu zela erraz onartu dezakegu, nahiko naturala izan daitekeen asimilazio tonal beten bidez, H\* biren artean egoteagatik, [[0 H\*] [H H\*]] emanek (kanpoko kako zuzenek osagaiaren mugak adierazten ditu, eta barruko kako zuzenek hitzen mugak):

$$(24) [0 H^*] [0 H^*] > [[0 H^*] [H H^*]]$$

Gaur egun Bizkaiko iparraldean aurkitzen dugun sistemara pasatzeko, bi gauza bakarrik falta dira: osagai hasierako silabak L tonua hartzea (besteak beste hizkuntza bantuetan gertatu den bezala), eta osagai bukaerako H\* azentutzat interpretatzea, osagaiaren bigarren silabako H\* tonuak azentutasuna galduz. Azken pausu honek badu motibazioa. Bi azentu posibletik batekin bakarrik geratzeak kulminatibotasuna lortzen du, eta azken silabako azentuak demarkatibotasuna ere lortzen du (osagai prosodikoarena). Horrela, Bizkaiko iparraldeak oraindik erakusten duen sistemara heltzen gara, hots [L H<sup>n</sup> H\*]:


$$(25) [[0 H^*] [H H^*]] > [L H^n H^*]$$

Goian bezala, ez dugu zertan onartu eredu hauek mendebaldean ez ezik ekialdean ere sortu zirela. Aitzineuskarako [σ σ'] eredutik ekialdeko azentu paroxitonoaren sorrera azaltzeko (i.e., [σ<sup>n</sup> σ' σ]), bi iturri bateragarri egon zitezkeen: alde batetik, Mitxelenak zioenez, hitz konposatuetan azentua bigarren osagaiaren lehen silaban bazihoan, osagai hau bisilabaduna zenean hitz



osoaren azentua paroxitonoa izango litzateke. Bestalde, hitzak eskuinerantz luzatzen hasi baziren, atzizki edo postposizioen bitartez, nahikoa izango litzateke azentua erroaren azken silaban mantentzearekin azentu proparoxitonoa lortzeko (ikus Martinez Areta 2004 antzeko argudio baterako).

Hipotesi hau zuzena balitz, euskal azentuaren bilakaera honelakoa izan zitekeen, IIa mendebaldean eta IIb ekialdean. IIa sistema osagai mailako azken silabako azentua izango litzateke, eta IIb hitzaren (edo erroaren, erronkariaraz) azkenaurreko azentua izango litzateke. Gorago esan bezala, IIa eredia duela ez hainbesteraino hedatuen zegoen sistema izango litzateke, hitzak luzeagoak eginik ere, atzizki eta guzti. Hortik, berrinterpretazioen bitartez gaur egun ikusten ditugun beste ereduak ateratzen dira (cf. Hualde (1993, 1995, 1997:228-233, 2003a, 2006, 2007):



Martinez Aretak (2004) beste bilakaera bat proposatzen du. Aitzineuskararako guk I. garairako proposatu dugun azentua onartzen du. Hortik, hiru eredu sortu zirela argudiatzen du, Mitxelenaren (1972) sailkapena jarraituz:

(a) “Aitzinmendebaldekoa”, Mitxelenaren (1972) sailkapeneko I. mota dena, bizkaiera eta gipuzkera hartzen dituelarik. Mota hau gaur egungo Bizkaiko iparraldeko eredu anagoriko litzateke. Singularrean, hitzaren azken silaban egongo litzateke azentua, eta pluralean, pluraleko lehen atzizkiaren aurreko silaban (i.e., erroaren azken silaban). Hitzaren bigarren silaban tonu gorakada bat dago.

(b) “Aitzinerdikoa”, Mitxelenaren IV. mota dena (Bidaso harana eta Bortzirietakoa, eta baita ere kostaldeko lapurtera). Mota honetan azentua hitzaren bigarren silaban doa (azentu deuterotonikoa), singularrean zein pluralean. Martinez Aretaren ustetan, eredu honek aitzineuskararen patroia zuzenean jarraituko luke, aitzineuskararako azentua hitzaren bigarren silaban ezartzen zela interpretatzen duelako. Beraz, Martinez Aretarentzat mota hau da aitzineuskaratik zuzenean eratorriko zena, eta aitzinmendebaldekoa mota honetatik eratorriko litzateke. Hau Hualderen (1997: 228-233, 2003a) hipotesiaren kontrakoa da, hau da, azentu deuterotonikoa osagai sintaktikoaren azken silabako azentutik eratorritzen dela.

(c) “Aitzinekialdekoa”, Mitxelenaren II. mota dena (zuberera eta erronkariara). Mitxelenaren III. mota (Baztan eta Bortzirietatik hegoalderagoko goinafarrera) II. motatik aterako litzatekeela argudiatzen du Martinez Aretak.

Martinez Aretaren (2004) proposamenari ikusten diodan arazoa da “erdiko” edo “aitzinerdiko” azentu eredua “mendebaldekoa” edo “aitzinmendebaldekoa” baino zaharragoa dela defendatzen duela. Hau da, hitzaren bigarren silabako azentua osagai sintaktikoaren azken silabako azentua baino zaharragoa dela. Baina berak aitortzen duenez (Martinez Areta 2004: 198-204), oso zaila da horrelako bilakaerarik azaltzea. Hualdek (1993, 1995, 1997, 2003a, 2007) ongi argudiatu duen bezala, zaila edo sinesgaitza da singularra eta plurala edo hitz ez-markatu eta markatuen arteko desberdintasun morfofonologikorik egiten ez duen sistema batetik desberdintasun edo kontraste hori egiten duen sistema batera pasatzea. Gainera, azaldu egin behar da nola lortzen den osagai hasierako tonu gorakada hori, azentuarekin zerikusirik ez duena, baizik eta Azentuzko Osagaien intonazio mailako ezaugarriekin (ikus Elordietta 1998, Jun eta Elordietta 1997). Aldiz, beste norabideko bilakaera errazagoa da azaltzen, lan honetako 2. atalean aipatu dugun bezala: tonu gorakada hau azentutzat berrinterpretatu da gaur egun azentu deuterotonikoa duten hizkeretan, seguruenik gaztelaniaren eraginez (hizkuntza honetan azentua tonu gorakadarekin gauzatzen baita). Hipotesi hau Hualdek (1997: 228-233, 2003a) proposatu zuen, eta Elordietta eta Hualdek (2003) frogatu egin zuten oharren test batzuen bitartez. Azkenik, lan honetako bigarren atalean esan bezala, Larraemendiren (1729) eta Mitxelenaen (1985, 1987, 1988, [Echenique 1988]) testigantza dugu gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik gordetzen den eredu duela denbora gutxira arte gipuzkerara ere zabalduta zegoela frogatzen duena. Orrialde-kopuru mugak direla eta, ezin dugu hemen Martinez Aretaren (2004) lan bikainarekin funtsezko ideien konparazio bat egin baino, eta beste une baterako utzi beharko dugu gaiak merezi duen eztabaida luzeagoa eta zehatzagoa.

Sinpleagoa izateaz gain eta bide zuzenagoa eskaintzeaz gain, ikus dezagun orain hipotesi honek aurreko hipotesiak azentu markatuekin zituen arazoak saihesten dituen. Bilakaera honetan, latinezko erroen azentu paroxitonoa edo proparoxitonoa mantendu egingo litzateke IIa garaiko mailegutan, osagai mailako azken silabako azentuaren arau orokorretik bereiziz. Gazteleraz azentu oxitonoa ez duten mailegu berriagoekin ere horrelaxe egiten da, gaurko egunean ere (i.e., IIIa eta IIIb ereduetan, salbu IIIa eredukoak diren Lekeitioko eta Ondarroako hizkerak, non berrikuntza baten ondorioz, hitz markatuek azentua hitzaren azkenaurreko silaban duten). Erdialdeko hizkeretan, hau da, hitzaren bigarren silabako azentua dutenetan (IIIb), azentu markatua lehen silabakoa da. Arauak edo joerak desberdinak izan daitezke hizkeratik hizkerara (ikus Hualde 1997: 5. kapitulua), baina azentu markatua hasierako silaban doa. (26)-n proposatu dudana bilakaerarekin ez dago arazorik azentu

markatuaren bereizkuntza egiteko eta mantentzeko; azentu markatua beti dago arau orokorrak agintzen duena baino silaba bat ezkeralderago gutxienez. (23)-ko proposamenarekin, non azentua hitz hasieran zuen garai bat proposatzen den, arazoak daude, aurreko atalean ikusi dugun bezala. Beraz, ematen du (26)-ko hipotesia zuzenagoa dela.

## 6. Laburpena

Laburbilduz, lan honetan euskararen azentuaren bilakaera diakronikoa iradoki dut. Aitzineuskararen azenturako Mitxelenak, Martinetek eta Hualdek egindako proposamenak aztertu ditut, eta Hualde, Lakarra, Igartua eta Martinez Aretaren ikerketatik abiatuta, Mitxelenarena zuzenena izan daitekeela azaldu dut, hots, azentua erroaren azken silaban (i.e., bigarreanean) ezartzen zela proposatzen duena. Ondoren, aitzineuskaratik zer nolako bilakaera prosodiko izan dugun proposatzen saiatu naiz, bi aukera aztertuz. Lehenaren arabera, erroak edo hitzak oraindik silaba bakarrekoak edo bikoak zirenean azentua lehen silabara pasatu zen, hots, Martinetek proposatutako eredura. Hortik, osagai mailako azken silabako azentua sortuko litzateke, Hualdek argudiatu duen bezala, orain dela bi mendera arte gutxi gorabehera Bizkaian eta Gipuzkoan hedatuta zegoena. Azalpen fonetikoak iradoki ditut bilakaera hau nola eta zergatik gertatu zitekeen azaltzeko. Baina lehen aukera honek zailtasunak ditu azentu markatuaren kokapena azaltzeko, zeren hitz markatuek azentuaren patroik orokorrak agintzen duena baino silaba bat (gutxienez) ezkeralderago dute azentua, eta hitz hasierako azentuak ez luke tokirik utziko azentu markaturik izateko (maileguen kasuan, adibidez).

Bigarren aukera sinpleagoa da, hitz hasierako azenturik ez baitu proposatzen, baizik eta aitzineuskararen bigarren/azken silabako azentua osagai sintaktikoaren azken silabako azentura aldatu zela. Aldaketa hau intonazioaren bidez azaldu dugu, hizkuntza askotan gertatu ohi den goiko (H) tonuen hedaduraren bitartez. Gaur egun dauden beste azentu ereduak eredu honen berrinterpretazioen ondorioz sortzen dira (erdialdeko [+2], Urolaldeko [+3], Bergaraldeko [-2] eta Arratiako azentua; ikus Hualde 1997: 228-230). Bilakaera honek ez du lehenak dituen arazoak, zeren azken silabako azentuak tokia uzten baitu azentu markatua ezarri ahal izateko aurreko silabetan, eta beraz zuzenagoa izan daiteke. Oraindik ere, lan honetan badira zenbait puntu oso laburki aipatu edo eztabaidatu behar izan ditugunak, lan honen orri kopuruen mugak direla eta (Martinez Aretak proposatutako azentuaren bilakaera, edo hitz elkartu, eratorri eta flexiodunen azentu markatua, adibi-

dez). Beste gai batzuk ez ditugu batere landu, datu faltagatik (azentu ereduaren garaien datak, hain zuzen). Beste une baterako utzi beharko dugu gai hauen inguruko eztabaida aproposa.

## Aipamenak

Archangeli, D., 1984, "Extrametricity in Yawelmani", *The Linguistic Review* 4, 101-120.

Barnes, J., 2005, *Strength and weakness at the interface*, Mouton de Gruyter, Berlin.

Beckman, M., 1986, *Stress and non-stress accent*, Foris, Dordrecht.

Chung, S., 1983, "Transderivational relationships in Chamorro phonology", *Language* 59, 35-66.

Donegan, P., 1993, "Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer", *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 16, 1-43.

—, eta Stampe, D., 1983, "Rhythm and the holistic organization of language structure", in Richardson, J. *et al.* (arg.), *Papers from the Parasession of phonology, morphology and syntax*, Chicago Linguistics Society, 337-353.

—, 2004, "Rhythm and the synthetic drift of Munda", *The Yearbook of South Asian languages and linguistics 2004*, Mouton de Gruyter, Berlin eta Nueva York, 3-36.

Echenique, M. T., 1988, "Stress and pitch; Luis Mitxelena zenak utzitako langaia", *Euskera* 23-2, 495-521.

Elordieta, G., 1997, "Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque", in Martínez-Gil, F. eta Morales-Front, A. (arg.), *Issues in the phonology and morphology of the major Iberian languages*, Georgetown U.P., Washington, D.C., 1-78.

—, 1998, "Intonation in a pitch accent variety of Basque", *ASJU* 32, 511-669.

—, 2003, "Intonation", in Hualde, J. I. eta Ortiz de Urbina, J. (arg.), *A grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin, 72-112.

—, eta Hualde, J. I., 2003, "Tonal and durational correlates of accent in context of downstep in Lekeitio Basque", *Journal of the International Phonetic Association* 33, 195-209.

- , agertzeke, “Intonation in Basque”, in Jun, S.-A. (arg.), *Prosodic Typology II*, Oxford U. P., Oxford.
- Gaminde, I., 1998, *Euskaldunen azentuak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- Gordon, M., 2000, “The tonal basis of weight criteria in final position”, *Proceedings of the Chicago Linguistics Society* 36, 141-156.
- , 2002, “A factorial typology of quantity insensitive stress”, *Natural Language and Linguistic Theory* 20, 491-552.
- Halle, M. eta Vergnaud, J.-R., 1987, *An essay on stress*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Hayes, B., 1995, *Metrical stress theory: Principles and case studies*, University of Chicago Press, Chicago.
- Hock, H.-H., 1999, “Finality, prosody, and change”, in Fujimura, O., Joseph, B., eta Palek, B. (arg.), *Proceedings of LP’98: Item and order in language and speech*, Charles University Press, Praga, 15-30.
- Hualde, J. I., 1989, “Acentos vizcaínos”, *ASJU* 23, 275-325.
- , 1991, “Manuel de Larramendi y el acento vasco”, *ASJU* 25, 737-749.
- , 1993, “On the historical origin of Basque accentuation”, *Diachronica* 10, 13-50.
- , 1995, “Reconstructing the ancient Basque historical system: Evidence and hypotheses”, in Hualde, Lakarra eta Trask, 171-188.
- , 1997, *Euskararen azentuerak*, *ASJU*-ren Gehigarriak 42, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia eta Bilbo.
- , 2000, “On system-driven sound change: Accent shift in Markina Basque”, *Lingua* 110, 99-129.
- , 2003a, “From phrase-final to post-initial accent in Western Basque”, in Fikkert, P. eta Jacobs, H. (arg.), *Development in prosodic systems*, Mouton de Gruyter, Berlin, 249-281.
- , 2003b, “El modelo métrico y autosegmental”, in Prieto, P. (arg.), *Teorías de la entonación*, Ariel, Barcelona, 155-184.
- , 2006, “Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera”, in Fernández, B. eta Laka, I. (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, Bilbo, 497-511.

- , 2007, “Historical convergence and divergence in Basque accentuation”, in Gussenhoven, C. eta Riad, T. (arg.), *Tones and tunes*, Mouton de Gruyter, Berlin, 291-322.
- , Elordieta, G. eta Elordieta, A., 1994, *The Basque dialect of Lekeitio*, ASJU-ren Gehigarriak 34, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo eta Donostia.
- , Lakarra, J. A. eta Trask, R. L. (arg.), 1995, *Towards a history of the Basque language*, John Benjamins: Amsterdam.
- Hyman, L., 1977, “On the nature of linguistic stress”, in Hyman, L. (arg.), *Studies in stress and accent*, Southern California Occasional Papers in Linguistics 4, 37-82.
- Igartua, I., 2001, “La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico”, *ASJU* 35, 185-213.
- , 2002, “Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik”, in Artiagoitia, X., Goenaga, P. eta Lakarra, J. A. (arg.), *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJU-ren Gehigarriak 44, UPV/EHU, Bilbo, 367-389.
- Jauregi, O., 2007, *Euskararen silaba: Egitura eta historia*, Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Jun, S.-A., eta Elordieta, G., 1997, “Intonational Structure of Lekeitio Basque”, in Botinis, A., Kouroupetroglou, G. eta Carayiannis, G. (arg.), *Intonation: Theory, Models and Applications, Proceedings of an ESCA Workshop*, ESCA, Atenas, 193-196.
- Kaji, S., 1996, “Tone reversal in Tembo (Bantu J.57)”, *Journal of African Languages and Linguistics* 17, 1-26.
- Kenstowicz, M., 1994, *Phonology in generative grammar*, Blackwell, Oxford.
- Kingston, J., 2003, “Mechanisms of tone reversal”, in Kaji, S. (arg.), *Proceedings of the Symposium Cross-linguistic studies of tonal phenomena. Historical development, phonetics of tone, and descriptive studies*, Institute for Languages and Cultures of Asia and Africa, Tokyo, 57-120.
- Ladd, D. R., 2008, *Intonational phonology*, 2. ed., Cambridge, Cambridge U. P.
- Lakarra, J. A., 1995, “Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root”, in Hualde, Lakarra eta Trask, 189-206.

- , 2002, “Etymologiae (Proto)Uasconicae LXV”, en Artiagoitia, X., Goenaga, P., eta Lakarra, J. A. (arg.), *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJU-ren Gehigarriak 44, Bilbao, 425-442.
- , 2005, “Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco”, *Palaeohispanica* 5, 407-470.
- , 2006, “Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica”, *Oihenart* 21, 229-322.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*, Antonio Joseph Villagordo Alcaraz, Salamanca.
- Martinet, A., 1950, “De la sonorisation des occlusives initiales en basque”, *Word* 6, 224-233.
- , 1955, *Economie des changements phonétiques*, A. Franck, Berna.
- , 1981, “La phonologie synchronique et diachronique du basque”, in *Iker-1: Euskalariari nazioarteko jardunaldiak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 59-74.
- Martinez, J. M., 2004, “El acento proto-vasco”, *ASJU* 38, 135-206.
- Mitxelena, K., 1958, “À propos de l’accent basque”, *BSL* 53, 204-220. Berrag. haren *Sobre historia de la lengua vasca*, ASJU-ren Gehigarriak 10, I, Donostia 1988, 220-239.
- , 1972, “A note on Old Labourdin accentuation”, *ASJU* 6, 110-120. Berrag. haren *Palabras y textos*, UPV/EHU, Gasteiz, 1987, 235-244.
- , 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. ed., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia (3. ed. 1985, ASJU-ren Gehigarriak 4).
- Nash, J. A., 1992, “Underlying low tones in Ruwund”, *Studies in African Linguistics* 23, 223-278.
- Pierrehumbert, J., 1980, *The phonetics and phonology of English intonation*, Doktorego tesia, MIT.
- eta Beckman, M., 1988, *Japanese tone structure*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Wald, B., 1987, “Swahili and the Bantu languages”, in Comrie, B. (arg.), *The world’s major languages*, Oxford University Press, Oxford, 991-1014.

**URRIAK 10 / 10 DE OCTUBRE**

---





## TOPONIMIA

---

*Patxi Salaberri Zaratiegi* (Argit./Edit.)



# Pirinioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Euskaltzaindia

Lan ugari eta onak egin dira orain arte Pirinioetako toponimiaren inguruan, eta, jakina, denen berri izatea, denak ezagutzea biziki zaila eta nekeza da. Hitzaldi honetan ez naiz hasiko Pirinioetan euskarazkoak, hots, euskaratikakoak izan daitezkeen toponimo guztiak banan-banan aztertzen, denbora nahikorik ez dagoelako eta horretarako goitik beherako arakaketa egin behar nukeelako, hona baino lehen, euskal toponimoen bila. Oraingo nire helburua hurrengo hau da: hizkuntzalariek Pirinioetako euskal toponimoez hitz egiten dutenean euskal onomastikaren ikuspuntutik kontuan izan behar lituzketen puntuak azpimarratzea. Uste dut orain aipatuko ditudanak aintzat harturik baleko ondorioak irits ditzakegula Pirinioetako euskal toponimoez ihardukitzean. Ez dira beharbada aski, baina bai beharrezko, nire irudiko. Has nadin bada luzatu gabe:

## 1. Zuhurtziaren beharraz

Lehenik eta behin erran nahi dut zuhurtziaz ikusi eta ibili behar ditugula zenbait ikertzaile «baikorren» lanak. Hau bistakoa dela dirudi, baina ez dakit denendako hola den eta horregatik, balekibale, hona ekarri nahi nuen. Iragan mendearen erdialdean argitara emandako lanean honela zioen Alvar-ek (1951: 11) gai honen kariatara: “La toponimia es siempre terreno escurridizo —acaso esto la haga más apasionante— y debemos ser cautos sobremanera”. Guztiarekin, bera ere zenbait aldiz ez dabil, nire irudiko, bide zuzenetik, argibidez Pirinioetan agertzen diren *karri*, *arri* ‘harria’-ren eratorriak aipatzen dituenean. Azalpen etimologiko errazen etsenplutzat A. Grierak (1950: 239) *Andorra* dela-eta dioena ekarriko dut hona:

Hace muchos años en el *BDC*, IV (*Bulletí de Dialectologia Catalana*, oker ez banaiz) he sugerido la idea de que el nombre de *Andorra* podía derivar de *in*

*Orrea* (aurreko paragrafoan *horreu* ‘bihitegia’-z eta Pirinioetako garaiez dihar-du), etimología que no aceptan ni H. Schuchardt (*Ib. VIII*), ni Meyer-Lübke. Los dos eminentes romanistas le atribuyeron un origen prerromano. A pesar de esta atribución mis dudas no se han disipado: la presencia de *Dorri* (839 Dorria) en el valle de Tosas y la presencia de Nuria, con evolución de la *o* tónica a *u*, no eliminan mis dudas sobre el origen románico y pastoral de *Andorra*, *Dorri* y *Nuria*.

Baikortasunaren seinaleztat autore beraren beste hau ere eman daiteke: «Al hablar de *Euella* he hecho alusión a los nombres dobles, o sea que existen (sic) una serie de topónimos preromanos (resic) que tienen su traducción al lado» (ibid., 246). Ez legoke arazorik leku izenen etimologiez aritzen garenondako gauzak autore honek dioen bezala balira, baina, zorigaitzez, bakanka baizik ez ditugu aurkituko holakoak. Coromines hizkuntzalari bikaina ere baikorregi agertzen zait niri behin baino gehiagotan; 1961eko lanean, konparazio baterako, honela dio (113. or., etzana nirea da):

Dans le Haut Aragon et dans le N.-O. de la Catalogne ces noms (les noms à parenté basque) se trouvent en masse. C’est désormais vers ces contrées que nous allons nous tourner: Ribagorce, Pallars, Val d’Aran, Haut Urgel, Andorre, Cerdagne. Là et en Aragon *ces noms apparaissent dans des masses tellement grandes que cela nous fournit une sensation de grande sécurité, et des éléments de comparaison assez nombreux pour nous enlever souvent tous les doutes.*

Nik ez dut ukatzen Aragoian, Euskal Herritik hurbil eta menturaz haratago ere bai, euskal toponimo zenbait azaltzen direla, baina hortik kopuru handiez mintzatzeraz igarotzeraz bada bide. Corominesek dioena deigarria da, berak aitzinxeagoko beste lan batean (1955: 305) toponimian apaltasuna eta zuhurtzia handia behar-beharrezkoak direla garbi erraten duelako: “I en definitiva la nostra conclusió ha d’esser que en l’estudi dels noms de lloc s’imposa molta humilitat i modèstia, i una gran dosi de prudència”. Gogoeta hori berori egi-ten du urte bereko beste lan batean ere (1955b: 403-404).

Azalpenak beti eman daitezke, bikainak, onak, erdipurdikoak, txarrak edo arrunt txarrak, baina nik uste hobe dela gauzak garbi ez dakuskigunean ez dakigula erran eta planto egitea, inolako egiantzik ez duten azalpenetan tematu eta egoskortzea baino. Alderdi honetatik, uste dut Orpustan jauna bere 1990eko liburuan Iparraldeko herrien izenak azaltzeko tenorean, ardura, urrutiegi joaten dela, inora ez garamatzen irteerarik gabeko bide batetik. Puntu honetan notatzekoa iruditzen zait Meyer-Lübkeren jokabidea, 1923ko lanaren hastapenean honela erraten baitu (1): “Tot seguit entraré en l’exposició

del tema; però he de fer notar que, amb tot i procurar resoldre aquesta interessant qüestió filològica tant com em sigui possible, prou quedaran una munió d'enigmes la interpretació dels quals altres hauran d'empendre”.

Gogoan hartu behar da, bestalde, badirela euskal toponimian inola ere gardenak ez diren izenak, eta bestelako argitasunik erdiesten ez dugun bitartean alferrekoa izanen dela izen horiei, baitezpada, azalpena ematen saiatzea. Bistan denez, ez ditugu Pirinioetako leku izen ilun guztiak ulertzen, baina horregatik ez ditugu euskaratikakotzat hartu behar. Latinaren aurrekoak izan daitezke, euskararekin zerikusirik izan gabe ere.

## 2. Euskara jakitea edo gutxienez euskara ezagutzea ezinbesteko baldintza da euskal toponimia aztertzeko

Euskara jakitea edo euskara ezagutzea bederen garrantzi handikoa da, bai eta honen arau eta bilakaera fonetikoaren berri zehatza izatea ere. Bestela, jakina da, Fouchék (1947: 14) egiten duena egin dezake edonork: ikertzaile honek *Maladeta* mendi izena aztertzean (*Aneto*-tik hurbil dago eta ia hau bezain garaia da) *M\* L* oinarriaren hainbat aldaera aipatzen ditu Asia-Europetan, eta oronimo horren *Deta* ‘haitza’ bigarren osagaiaren jatorrian omen dagoen *T\* K* oinarriaren *toca* aldaera apelatiboa ere jasotzen du. Honekin zerikusia dutenen artean euskarazko *ataka* biltzen du eta *a-taka* zatitu behar dela erraten: «De même, le basque possède un mot *ataka*, qu’il faut sans doute décomposer en *a-taka* et dont l’une des significations données par Azkue est celle de “sitios pedregosos, endroits pierreux”». Edozein euskaldun ikasik daki *ataka ate*-ren txikigarria dela, *behoka*, adibidez, *behorra*-rena den bezala. Fouchéren kasuan ezjakinez landara ikuspegi interesatua ere bada, jasotzen duen Azkueren adiera lekeitiarrak ematen duen zazpigarrena delako, Zaraitzukoa, eta gainera ez du osorik biltzen, euskaltzainburu izan zenaren hiztegian «senderos, sitios pedregosos» baitago, segur aski zaraitzuarrek ibilitako (altxon)bideetako ataketatik igarotzen ziren bideak aski harriztuak zirelako. Nolanahi ere, Fouchék aurreko sei adierak —denak elkarrekin lotuak— alde batera uzten ditu, bai eta, berebat, *ataka*-rekin erlazionatutako gainerako sarrerak ere.

Caro Barojak (1995 [1949]: 61) bestek bestetan egin duen ildo beretik, erdal fonetika historikoaren ikuspuntutik hauta den azalpen etimologikoa ematen digu Gipuzkoako *Orexa* (*Oreja* gaztelaniaz) toponimoarendako: ikertzaile ezagunaren arabera, erromatarren ustiapena izanen zen aipatutako he-

rria, eta honen izenaren etorkia behialako (*villa*) *Aurelia*-ren moduko bat. Honek, erran bezala, ez du akatsik gaztelaniaren bilakaeraren ikuspuntutik, baina erabat akastuna da euskaratik begiratuta, bertakoak egun oraino ongi euskaldunak direlarik ez baita aise ulertzen nola bizi diren herriaren izenak erdararen bideak ibili dituen, euskararenak ibili beharrean. Gero, jakina, lan honetan aipatzen dugun «tradizio»aren arabera, oraingoan Caro Barojaren izenak eta omenak bultzaturik seguruenik, Lapesa bezalako autore batek bere egiten du (1972: 12) delako ustekaria.

Antzekoa da Menéndez Pidalek *Orígenes* (103) ezagunean egiten duena: *al* + *kontsonante* segidaren bilakaeraz ari delarik, *alba* ukitzen du eta dio Bizkaiko *Ova* (*Oba*, Dimako auzoa da) toponimoa etimo horretatik atera dela, euskaraz hori ezinezkoa dela ohartu gabe. Mitxelenak gutxienez bi lanetan (1954: 382-383, 1956: 183) arbuia zuen espainiar filologoaren azalpena, lehenik izena antzina *Oa* zelako eta bigarrenik euskaraz *Alba* > *Oba* bilakaera ohikoa ez delako. Coromines ere ez dabil fin (1955b: 415) *Les Oluges* eta *Olost*-erako *ol* ‘planché’ proposatzen duenean, euskaraz hitz hori *ohol* delako aurrena eta gure toponimian usaian azaltzen ez delako gero.

Beste etsenplu batzuk, ondoko puntuarekin lotura egiten dutenak, B. eta J.-J. Féniéren lanean azaltzen zaizkigunak dira. Ikertzaileok, zabalkunde liburu batean, \**kar-* / *gar* ‘pierre’ erroa aztertzean *Garos*, *Carrese*, *Le pic de Gar*, *Carcassonne* eta beste aipatzen dituzte (1992: 14), eta badaiteke hola izatea, hots, toponimo horien guztien oinarrian aipaturikako erroa egotea, baina gero erraten dute euskaraz horren aldaera *har* / *arr* dela eta *hari* (sic) hitzean eta *Arette*, *Aruddy* eta *Arres d’Anie*-n dagoela. Jakina, eta *Arette*-ri dagokionez, Grosclaudek (1991: 52) 1186ko *Areta*, 1440ko *Erete*, 1444ko *Aretha*, *Eretha* eta 1538ko *Hereta* biltzen ditu, eta Lopez-Mugartzak (2008: 143 eta hurr.) euskarazko aldaeratzat *Ereta* darabil. Autore honek dio Knörr-en arabera Grosclaudek proposatzen zuen *Arrieta* etimologia baztertzekoa dela, baina zirrikitu bat uzten dio hala ere, erranez *Arrieta* horretatik atera bada forma erromanizatuata datekeela *A(r)reta*. Zaila da, nire irudiz, dardarkari anizkuna ongi ebaki den alderdian hor *harri* ikustea, gurean, ondoan bokala badu, beti dardarkari horixe agertzen delako. *Arcachon* azaltzeko Féniétarrek (1992: 18), ziurtasun handirik gabe oraingoan, *aruka* ‘brèche, fente, crevasse’ ematen dute, baina hitz honen euskarazko forma *arruka* da, berriz ere dardarkari anizkunarekin.

Orain urte batzuk, *OEH* argitaratu aitzinetik zalantza gehiago izan zitezkeen hitzen inguruan, eta egun arazo guztiak argiturik ez badaude ere, tresna bikaina dugu esku artean etimologiaren munduan urrats seguruz abiatu nahi dugunerako. Terradok (1992: 104) bere egiten du Corominesek *Ovis* he-

rrikkaren izenaren gainean dioena, edo gutxienez honen oinarrian dagoen hitzaz dioena (*obe* ‘cleda’, ‘clos per tancar-hi bestiar’) eta bukaeran pluralitatea adierazten duen *-i(t)z* atzizkia dakusa. Azken hau alde bat utzirik, bistan da gurean *obe* oinarria ‘hobea’ ez bada *obe*-ren aldaera dela, baina ez, *OEH* ikusirik, aipatu berri dugun Coromines-Terradoren hori.

### 3. Datu fidagarriekin jokatu behar da

Euskal toponimia ahal den ongienik ezagutu behar da; maiz, zorigaitzez, honen berri handirik jakin gabe idatzi dira artikuluak. Adibidez, Menéndez Pidalek *Javier-Chábarri* buruzko lana egin zuenean (1948 eta 1949) aski eza-guera partziala zuela ikusten da, datuak, toponimoak handik eta hemendik hartzen zituela, autoreren batek argitara emandako lanen batean azaltzen zirenetarik, sistematikotasunik gabe betiere. Egia da Penintsula osoko eta kanpoko datu askoren ezagutza bazuela, baina, gureari datxekionez, sakontasuna eta aipatu sistematikotasuna eskas ditu.

### 4. Euskal onomastikaren funtzionamenduaren berri jakin behar da

Euskal onomastikaren funtzionamendu normala zein den eta nolakoa den jakitea ezinbestekoa da. Corominesek (1955: 302) Pirinioetako *Certascan*-ek eta *Tavascan*-ek euskarazko *azkan* ‘fi’, ‘final’ dutela erraten du; gehi dezadan garbi dioela (ibid., 301) Andorrako behialako euskara eta egungoa aski desberdinak diratekeela:

Cal afanyar-se a advertir que en aquesta qüestió cal anar amb peus de plom, perquè la llengua pre-romana dels nostres Pirineus, encara que tingué elements comuns amb el basc, devia ésser diferentíssima del basc modern tal com el coneixem avui, i àdhuc també força diferent del basc antic, pare del basc actual, tal com degué parlar-se a Bascònia en l'època romana. La semblança dels parlars de la Catalunya romana que podríem anomenar de tipus bascoide, amb el basc modern, no devia ésser més gran que la del nostre català amb el francès o el romanès.

Beranduagoko beste lan batean (1961: 114) baieztapen hau Ekialdeko eta Erdialdeko Pirinioetara zabaltzen du. Ez dakit ongi zertan oinarritzen den hau errateko, toponimian ez bada, eta orduan argudio zirkularra erabiltzen ari da, leku izenak aztertzean aipatutako ustekaria ezartzen ari baita.



Nik behinik behin ez dut sinesten, gure toponimia ikusirik, Andorrako leku izenean *azken* dugula, bereziki *azken* hori *atzen*-etik atera bide zelako eta hau, Mitxelenak nahi duen bezala (OEH III, 276-277), *hatz* ‘aztarna’-tik. Bilakaera *Arizteta* > \**Arizteta* (cf. *bertze* > \**berzte* > *beste*, *ortzegun* > \**orztegun* > *ostegun*) > *Arizketa*-n edo \*(G)*iputz* + -*oa* > \**Gipuztoa* > *Gipuzkoa*-n dugunaren parekoa da (cf. horzkarien eta belarren arteko nahasketarako, 1150eko *erret ihera* < \**errek ihera* < *errege ihera*). Beste oztopo bat, *azken* forma *atzen*-etik atera datekeela aintzat harturik, hau toponimia zaharrea ikusi nahi izatea da, normalki *gibela* agertzen delako, edo bestela, *oste* mendebaldean, oraingoan Ameskoagoiena ere barne dela. Egia da, hala ere, Mitxelenak FHV-n (70) *azken* / *azkan* pareaz ari delarik lehena komuna dela dioela eta bigarrena Bizkaikoa eta Erronkarikoa, eta lan horretan berean (219) *azken* forma *hatz*-etik atera delakoa ez dakusala erabat garbi: «Cf. *azken* ‘último’, acaso superlativo de or. *hatz* ‘rastro, huella’, occid. *atze* ‘parte posterior’». Guztiaz ere, *azken* hitza gure toponimia zaharrea ez da ohikoa.

Bestalde, *Certascan*-en oinarrian *zarta* ‘tany, vareta, branca’ dagoela uste du Corominesek; erranahia ‘final de la vegetació’ dateke. Horrek, gainera, autorearen irudiko betiere (1955: 302), Andorrako bereko *Certers* ere azalduko luke. Puntu honetan gogoan hartu behar da *zarta*, OEH-ren arabera, mendebaldekoa dela, Gipuzkoa-Bizkaietakoa, eta Andorran kausitzea franko bitxi iruditzen zait, honetan ezintasunik ez bada ere, menturaz. Beste etsenplu bat lan bereko *Arànsers* da (1955: 304); hau *Arans*, *Ransol*, *Arinsal* eta Pallarsko *Aransis*-ekin batean *arantze* edo *arantza* ‘planta espinosa’ hitzaren bidez azaltzen du, eta badaiteke hola izatea, tarteko pausoak eta benetak frogak eskas ditugula iruditzen bazait ere, baina *Arànsers* hori, IX mendean *Aranzar* zena, *Arantza-re*-tik eratortzeari, hots, *arantza* + *genitibo*-tik eratortzeari gehiegixko irizten diot. Zergatik ez zuen Corominesek, *Aranberri* ezaguna dela kontuan harturik, egiantz handiagoa duen *haran* + *zahar* proposatu, adibidez?

Beste adibide bat: Corominesek (1955: 304) *Canillo* eta *Ordino*, *Canillave* eta *Ordinavi* dokumentatzen direnez gero, euskarazko *-be* ‘sota’-rekin lotu nahi ditu (*Etxabe*, *Mendibe*, *Altube*-n dagoenarekin, maisu katalanaren erranetan), eta irudi luke hola jokatzeko zilegi dela. Zilegi ez dena, ordea, *Ordinavi* horretan *Urdin-a-be* ‘sota els grisos’ ikusi nahi izatea da, euskaraz *Urdinbe* izanen baikenuke usaian holakoetan, egun *mahaipean* edo *aulkipetik* erraten den era berean. Egia da zenbaitetan artikulua ihartua dagoela eta, konparazio-ne, *Astigarribiakoa* erraten bide dela, baina kasu horretan Corominesen azalpenak bestelakoa izan behar zukeen (‘sota Urdina’ adibidez).

Ondoren, lan berean ematen dituen azalpen etimologikoak ez dira, nire irudiko, batere ohikoak gure toponimian, eta lehen ere, dokumentuek erakusten diguten heinean, ez dira izan: “*Erts* = basc *ertz* ‘caire’, ‘vorera’ (d’acord amb la situació d’aquest llogaret prop del riu d’Arinsal); *Isórt* (*estany* i *coll d’*, dalt del Serrat) = basc *isurki* ‘vessant’ [...] *Sorteny* (vall a l’E. del Serrat) = basc *zorten* (també *surten*) ‘branqueta’ (o relacionat amb *zorta* ‘gota gran, petita quantitat de líquid’)”. Honelakorik ez da azaltzen gure toponimian, eta, beraz, azalpen etimologiko horiek ezin dira ontzat hartu. Gauza bera gertatzen da beste lan batzuetan; adibidez, Farrerako *Bescarga bizkar-ga* ‘sans sommets, sans collines’-tik eratortzen du, Cerdanya aldeko *Baltarga* menturaz *biltar-ga* «derivat privatiu de *bildar* ‘chose infime, grain de sable’» (1955b: 411) dela dio eta toponimo mordoxka batean *oia* ‘bercail’, ‘artegia’ ikusi nahi du (*Nauja* < *naba oia*, errate baterako). Euskal toponimia azterturik, ordea, ez dagoenean oinarritutako leku izenik badenetz ez dakit, baina izatekotz ere guti dirateke, eta *oia* horren lekukorik ez dago gure toponimian, nik dakidala (*saroi(a)* < *sare* + *obe* (+ *-a*) ote zuen gogoan maisu katalanak?).

Ezin ditut Corominesek bere lan ugarietan aipatzen dituen ustezko euskal toponimo guztiak iruzkindu; azpimarratu nahi dut, hala ere, egungo euskaran eta euskara historikoan bitxiak, are ezinezkoak diren itzuliak eta eraikuntzak ezin direla onartu Pallarsgoieneko edo Andorrako euskal toponimiaz mintzatzerakoan. Egia da drolekeriak ez direla gutxi gure leku izendegian, baina neurgailutat Euskal Herriko toponimia erabili behar dela zalantzarik ez dago, nahiz gero tokian tokiko ezaugarri bereziak onets daitezkeen, beharrezkoa denean. Ondorioa argia da: euskal toponimian aurkitu ohi duguna hartu behar da aintzat toponimoen euskalduntasunaz mintzatzeko denboran.

Puntu honetan nabarmendu nahi dut, kontu pisu handikoa delako, euskal toponimia, Erdi Aroko dokumentazioan, hasiera-hasieratik, azken mendetan eta egun dugunaren pare-parekoa dela, ez dela holako alderik antzinakoaren eta gaurkoaren artean. Honek, jakina, ez du erran nahi toponimo zahar guztiak iturriko ura bezain garbiak izanen direla: batzuetan atzizkia da ezaguna, beste zenbait aldiz oinarria edo toponimo osoa, inoiz adiera ilun zaigu baina leku izena, argiki, euskaratikakoa da... Gerta daiteke, jakina, euskaraz ibili izan diren toponimoen artean maileguak izatea, ondoko hizkuntzetarik hartutako hitzen bat agertzea; hau ez da estonatzeko, baina, erran bezala, egungoaren iruditsuko sistema baten, multzo trinko baten aitzinean gara. Adibidez, 1002an (Martín Duque, 1983, 14, 32. or.) *Ochambeta*, *Mutiloa*, *More Bilibilea* ditugu Iruñerrian, 1007an *Oyar Zaual* alderdi horretatik ez urruti (Goñi, 1997, 6, 27. or.), 1014an *Izurun*, *Anaizoz*, *Albizungo*, *Ançieta*,

*Zurzaiate*, *Bagoçu Larraburu*, *Loizta* eta *Zopite* Gipuzkoan (Martín Duque, 1983, 16, 36. or.), beranduxeago *Hodieta* (ibid., 1024, 22, 50. or.), *Zeia Zaharra* (ibid., 1032, 23, 52. or.), *Yçiçuloa* (ibid., 1034, 26, 57. or.), *Zalvrribar* (ibid., 1042, 32, 63. or.), *Ataburu* (ibid., 1049, 45, 78. or.) Nafarroan, eta aski izan bitez horiek, erakuskariak nahi bezainbeste luza baitaitezke.

Hau Corominesen interpretazio frankoren kontrako argudioa da, argi eta garbi, ez dakigulako garai bereko Pirinioetako beste leku batzuetan, toponimoak euskarazkoak baziren, zergatik ez diren aipatu dugun sistema horretan sartzen, zergatik diren desberdinak. Beste batzuetan zaila da hizkuntzalari katalanaren azalpen etimologikoei, baztertzeko moduan, kontra egitea, baina ni ez naute gogobetetzen, euskaraz ohikoak ez diren gauzak azaltzen dituelako; erraterako, haren arabera (1961: 115) Espainiako Cerdañako *Aja* antzina *Āginum* zen eta hau euskarazko *hagin* zuhaitz izenarekin lotu beharra da. Baliteke, nahiz gure toponimian biziki arraroa den *hagin* hutsa, beste gehigarririk gabe, kausitzea. Frantziako Cerdañako *Baiamide* behiala (829. urtean), *Baiamite* zen, eta ikertzaile katalanaren irudiko *Meiabide* ‘chemin de l’étroit, de la gorge’ formatik aterea da, metatesiz. Baliteke hola izatea, baina zaila irizten diot, erdiko *-a-* horrengatik, besteak beste. Huescako *Lasquarri* (< *Alascor(re)*, *Alasquar*) *aratz*-en eratorria izatea ere ez da erraza, ustezko *-r-* > *-l-* disimilazioa burutu gabeko aldaerarik ez dagoelako eta *aratz*, *arats* gure toponimian bigarren lekuan azaldu ohi delako, izenondoa izanik. Beraz, ‘(endroit d’un) rouge éclatant’ adiera hori ezin onztat hartu.

Tarteka Euskal Herriko toponimo batzuekiko esteka finkatzen du Corominesek (ibid., 115-116) (*Lavascort* < *Navascort*, *Navargüé* < *Nabar-coi* vs. *Navascués* / *Nabaskoze*), baina, kasu honetan, duda egiten du *naba* ‘basfond au milieu de montagnes’ edo *nabar* ‘tacheté, bigarré’ ote den. Inoizka (ibid., 117) dokumentatu gabeko oinarriak proposatzen ditu, erraterako *Lakörr* forma *Llaguarres* herri izenarendako (*Illacorre* 996an), Menéndez Pidalen *gorri* eta *legor* etimologiak arbuia eta ondoan. Oinarri horrek *pendant* egiten du, ikertzaile katalanaren arabera, euskarazko *lakar* ‘gravier’, ‘asperité du terrain’ delakoarekin, *malkor*-ek *malkar*-ekin egiten duen modu berberean.

Ravier-ek (1963: 71) lokatiboaren ezaugarri sudurkaria proposatzen du euskarazko *-en* inesiboa eta *-en* atzizki toponimikoa azaltzeko, baina, adibidez, aztertu behar genuke euskararen ikuspuntutik atzizkia *-en* den edo *-n* hutsa, *etsen*, *Bilbon* eta bestetan daukaguna alegia. Bestalde, egia da zenbait toponimo, dokumentazioan, inesiboan azaltzen direla, «berriemaile» deituko dugu-

nak hola eman zuelako eta eskribauak hola bildu, eta *-eta* atzizkiaren gaia ere hor da, baina, beste gisan, irudi du inesiboa toponimoetan ez dela finkatu, zenbait aztarna (*-ea* bukaera toponimikoa eta oikonimikoa, konparaziorako) utzi baditu ere. Euskararekin bat ez datorrena «pirenaiko»-tzat hartzen ahalko dugu, zahartzat, nahi duguntzat, baina ez euskalduntzat, ez baitugu horren frogarik izanen.

## 5. Tokian tokiko toponimia sakonki ezagutu behar da

Lekuan lekuko toponimia hagitz ongi ezagutu behar da, bestela gerta baitaiteke ikertzaileak zerrenda batean, mapa batean aztertzen ari den atzizkiaren, oinarriaren, izenaren antzeko beste bat aurkitzea eta bere lanean baliatzea, antzeko horren inguruan, hurbilean, dauden gainerako leku izenak kontuan izan gabe, eta, jakina, honela jokatzeko bizi arriskugarria da, handik eta hemendik hartutako toponimo horiek ikertzailea aztertzen ari den sailaz bestelako multzo batean sarturik egon daitezkeelako. Adibidez, eta ulertzeko moduan erranen dut, J. Velazak (1995: 213) *Lacubegi* teonimoak iberiar itxura duela dio, nahiz lehenago Castillok (1992: 124) latineko *lacu*-k eta euskarazko *begi*-k osatutako hibridoak ikusi eta *Lacu-* ‘erreka’, ‘urgunea’, ‘putzua’ adierazten dituzten toponimoetan ohikoa dela erran. Gorrotxategi (1995: 223-225) zalan-tzan dabil iberiartzat eman edo euskalduntzat; autore honen arabera lehen osagaiak paraleloak ditu Palamósoko *laku-arkis*-en eta Saguntoko *biu(r)-lakos*-en, baina honek ez du erran nahi iberiar estratuko izena dela; bigarren osagaia, aldiz, euskarako *begi*-rekin lot daitekeela iruditzen zaio, lehenago Castillori bezala, edo *behi*-rekin, harrian behi burua ageri dela kontuan edukita. Núñezek (2004: 174), berriz, aurreko ikertzaile horien datuetan oinarri harturik apika, eta seguruenik idazkunehizkuntzatik bestelako ondorioak atereaz, erraten du iberiera Uxue inguruan mintzatu zela.

Hemen gogoan hartu behar da *Lacubegi* hori *Laku* izeneko dermio urtsuan aurkitu zela, hau *Lakumulatu* zabalagoaren barnean dela, Uxuen berean *Lakubeli* izeneko aurkintza ere badela eta *laku* euskal toponimian aski ugaria dela. Castillok ongi dioen bezala, gurean leku urtsuak izendatzen ditu, ez erre-kak eta putzuak, baina hidronimoa da betiere.

Bistan da Pirinioetako, mendilerro osoko euskal toponimiaz mintzatzea, aurrekoa kontuan edukirik, txoil zaila dela, herri eta ibar bakoitzeko toponimia ongi aztertzeke denbora asko behar delako. Baina hola egin behar, beste gisan anitzetan itxurek engainatuko baikaituzte!

## 6. Toponimoa bere osotasunean aztertu beharra dago

Ravier-ek (1963) *-en* euskal inesiboa ikusi nahi du *-en* bukaera duten Piri-  
nioetako leku izenetan, oinarriak aztertu gabe ordea, *-un* toponimikoaren eta  
euskarazko (*g)une* ‘espace’ izenaren arteko esteka arbuiatu eta ondoan (ibid., 69):

Cette objection (*-otze* atzizki toponimikoan Menéndez Pidalek proposatzen  
zuen ‘hotza’ ikusi nahi ez izatea) [...] nous la ferons à propos de (*g)une*, ajoutant  
que conclure à la présence de ce terme dans des noms comme par ex. *Lescun*, *Orcun*  
équivalait à admettre l’invérifiable et nous engage sur le chemin de ce comparatisme  
purement formel et “externe” véhémentement dénoncé par Caro Baroja.

Nik uste dut oinarriak kasu guztietan aztertu behar direla, identifika dai-  
tekeen osagairik ageri ote den ikusteko, gure azalpenetan maingu ibiliko ez  
bagara. Erran nahi dut berrekailua ez ezik, oinarria ere identifikatu behar du-  
gula, edo saiatu segurik bai. Honek, jakina, euskarak orain duen edo inoiz izan  
duen altxor lexikoan agertu behar du; bestela toponimia ongi aztertu beharko  
dugu eta ikusi ea oinarri hori duten beste toponimoek halako errealite geogra-  
fiko jakin bat adierazten duten, ondorioa atera ahal izateko. Bestalde, *-un*  
bukaera duten toponimo horietan ez dugu gehienetan ‘gunea’ izanen, behar-  
bada, baina bistan da hau ezin baztertu daitekeen azter eta azalbidea dela.

## 7. Elkarlanaren premia

Zaila izanen da, bestalde, prestakuntza osoa, inplikaturik dauden hizkuntza  
guztiak eta berauen bilakaera eta jokaera ongi ezagutzen dituen aditurik aurkitzea:  
euskara, iberiera, hizkuntza zeltikoak, okzitaniera (gaskoia, biarnesa), frantsesa,  
gaztelania, aragoiera (Nafarroako erromantzea) eta katalana jakin beharko litzuzke  
hainak, latinaz landara. Corominesek (1955: 305) honela dio: “És absolutament  
indispensable, si es vol arribar en algun resultat segur, de posseir coneixements  
sòlids de moltes llengües i molt diverses, i aplicar-hi una tècnica tan difícil i deli-  
cada com la de la Lingüística”. Bistan da hori bera bezalako gutxi batzuen esku  
dagoela; beste irtenbide bat, hemen proposatzen dudana, elkarlanean aritzea da.

## 8. Antroponimia ezagutu behar da

Antroponimia —etorki guztietakoa— ongi ezagutu behar da, eta bereziki  
Euskal Herrikoa. Hemen ikerketa atzeraturik dabil; dokumentu bilduma

franko argitaratzen ari dira urte hauetan, baina horiek aztertu egin behar dira eta dauden datuak atera, eta denbora behar horretarako ere. Atzerapen honen ondorioa da, nik uste, eta adibidez, Rohlfsek (1952: 236) Lapurdiko *Brisous / Beraskoitze* (Caroren arabera, sic) *Verus*-etik ateratako *Veriscus*-etik erator-tzea, eta galierako *-isco* atzizkiarekin (*Lodiscus, Mariscus, Petriscus, Vertiscus*-en dagoenarekin) lotzea. Hau ez da zuzena, argi dagoelako *Velasco*-tik atera den *Berasko* ongi dokumentatua dagoela *Beraskoitz*-en oinarrian, Nafarroa Ga-raiko *Beraskoain*-en dagoen berbera.

## 9. Ikertzaile batzuen presa saihestu beharra

Presa, lehia ez da ona ikerketan. Azkar joan nahi izan dela azpimarratu nahi dut atalño honetan; ikertzaileek toponimo sailak hartu dituzte (ikus be-heitixego) eta goitik behera aztertu, baina nire irudituan lehenik prestalana egin behar da, monografia anitz behar ditugu, tokian tokiko ebakerak eta toponimoen lekukotasun historikoak ongi ezagutu behar dira ondorioak ateratzen hasi aitzinetik. Gorago adierazi bezala, toponimoa sarturik dagoen saila ere ezagutu beharra da, sailik bada behintzat, bai eta izendatzen duen errealityatea ere. Ez dut erran nahi dena argitaratu arte ezin dela deus idatzi, hola aurrera eginen ez genukeelako, baina ohartu behar dugu kasu frankotan gure azalpen etimologikoak behin-behinekoak direla, guk eraikitako etxeak zimen-du ahulak dituela, edo, gutxienez, ez dituela behar bezain zindo eta sendoak.

## 10. Dokumentazioaren garrantzia

Aitzineko atalñoarekin lotura eginez, nabarmendu nahi dut dokumentazioa ezagutzea arras garrantzitsua dela, bestela, izen baten egungo aldaera bes-terik ezagutzen ez dugunean, "... anem bastant a cegues i amb gran risc d'equivocar-nos del tot" (Coromines, 1955: 306; ikus, orobat, autore beraren 1958: 7). Jakintsu katalanaren arabera ondoko eskualdeetako toponimia ere ongi ezagutu behar da, alderaketak egin ahal izateko, leku izenak argitzea hel-buru. Nolanahi den, autore honek berak, sarerik gabeko itzulipurdi bat edo beste ere egiten du airean, bere ibilbide etimologiko luze eta jorian. Adibidez, Kataluniako *Salàs* herriaren izena azaltzeko tenorean zenbait euskal toponi-motan (*Sare, Zaldibar, Zaraitzu = Salazar*) ageri den *Sal*- erroa aipatzen du (1961: 113), baina *Salazar, Zaraitzu*-ren kasuan behintzat dardarkaria dugu zaharrena (*NHI*, 125), eta albokoa segurrenik disimilazioz sortua izanen da.

*Sare, Sara* euskaraz, beharbada albokodun aldaera batetik atera dateke, baina hori frogakizun dago oraino, aldaera dokumental zaharretan beti dardarkaria dagoelako, nik dakidala. *Zaldibar, Zaldibia* bezala, *zaldu*-tik atera izanen da, Mitxelenaren arabera (AV, 598), osagai hori dutenak *zaldi* dutenetarik bereizte aise ez bada ere.

Bestalde, zenbait lanetan erraten denaz batek ez daki zer pentsatu, lekukotasun dokumentalik ez agertzearekin azalpen etimologikoak lanbro tartean gelditzen direlako. Adibidez, Féniétarrek (1992: 63) Ossau ibarreko *Bagès* toponimoaz mintzatzean erraten dute latineko *fagus* duela etorki, euskarazko *bago*-ren bitartez, eta bukaera hizkuntza honetako *-etz* atzizki multzokaria dela. Nik atzizkiaren azalpena ez dakusat garbi, eta erroarena ere, agiri testigantzarik izan gabez, ilunxko zait. Beste anitzetan tarteko lekukotasunak falta dira, azalpen etimologikoa justifikatuko luketen aldaerak; erraterako, Corominesek (1955: 304) *Arinsal* (*Arensau* ere ageri da dokumentuetan) *Aranzadi*-tik eratorri nahi du, eta *Beixalis* eta *Bixesarri* euskarazko *basa* ‘desert’, ‘silvestre’, *baso* ‘bosc’ hitzaren txikigarria bide den *baxa, baxo*-tik. Badaiteke hau hola izatea, batik bat bigarrenaren kasuan, hor, agiriek lagunduko balute, beharbada *sarri* ikus bailiteke, baina dokumentazioko testigantzak falta dira.

## 11. Eremu zabaletako toponimiaz hitz egiteak duen arriskuaren gainean

Eskualde zabalak hartzeak dituen arriskuak ere nabarmentzekoak dira, hagitiz zaila delako eremu handi bateko leku izenak ongi ezagutzea. Adibidez Hubschmidek (1960: 471-472) Uxueko *Aristuriaga* biltzen du, *Aristuziaga* zuzenaren ordeaz, eta beste norbaitek —ez dut gogoan ikertzailearen izena— *Ergozena* aipatzen du, *Ergoiena*-ren ordainez.

Are arriskugarriago iruditzen zait Fouchék 1947ko lanean duen aritzeko modua, eskualde zabalak bakarrik ez, mundu erdia hartzen baitu, Asia eta Indiatik Iberiar Penintsularaino, Eskandinavian eta Italian barna igaroz, *M\*L* eta *T\*K* oinarriak (eta aldaera ugariak) aztertzean. Hain lurralde zabala denez gero, nik ez dakit zer pentsatu, edo, hobeki erran, gaitza zait holako eremu izugarrian mintzatzen diren eta mintzatu diratekeen hizkuntzetan holako bat-etortze harrigarriak —hau ere erlatibizatu beharra dago, mota askotariko hitzak azaltzen direlako— kausitzea. Aldaeretako bat da, adibidez, «dans la région cantabrique» dagoen *Monte Sayoa* delakoa, *\*Sagiona* batetik eratortzen duena. Nik ez dakit zer mendi den hori eta «eskualde kantauriar hori» zein den ere ez, baina susmoa dut Nafarroako *Saioa* mendiaz ari dela. Egia da

bokal arteko sudurkaria eror zitekeela, baina *-gi-* > *-j-* bihurtzea ez da euskararen hain erraz azaltzen, eta bestalde, dokumentaziorik erabili gabe jokutzen du, lasai ederrean. Aipatu behintzat ez du egiten. Jakina, holako eremu ikaragarri zabaleko toponimo guztien dokumentazioa aztertu behar izan balu galtzak bete lan izanen zukeen eta bizi osorako zeregina. Beste adibide bat (ibid., 18-19), beste «esteka» makur bat, *teka*, *deka* oronimoaren ahaidetako «*Cap de Socoa*, près de St.Jean-de-Luz» hartzea da.

Gure egunetatik hurbilago ere ematen dira holako edo antzeko azalpen ausartak; adibidez, Morvanek (2004: 30) *Juxue*-z dio *\*kuk* ‘hauteur’ hitzaren (batez ere Euskal Herriko) *\*juk* «aldaera ahuldutik» atera dela, eta baliteke hola izatea, baina toponimoaren dokumentazioak eta euskarazko aldaerak *Jutsue*-ra gakartzate, hots, afrikatua duen aldaerara (ikus Salaberri, 2004: 207). Bestalde, *Jokoberro*-n Siberiatik heldu omen den *\*kuk* hori ikusi nahi izatea soberaxko iruditzen zait, gure mikrotoponimian hainbeste *Balankaleku*, *Pilotajoko*, *Pilotaleku*, *Pilotasoro*... eta hainbeste *berro* izanda. Ideia, nolana ere, Rostaingengandik hartua du Morvanek, Orpustan (1990: 79-80) bidelagun, edo, hobeki erran, bide erakusle, duela.

## 12. Ikertzaileok aurreiritziak alde batera utzi beharraz

Denok ditugu holakoak, neke da saihestea. Arriskua da antzekoak diren toponimoak beti bide beretik azaltzea; erraterako, Caro Barojak *Materiales* ezagunean antroponimoen bidez azaltzen ditu direnak (gehienak) eta ez direnak (bakan zenbait). Zalantzazkoen artean *Aquiturraïn* edo *Aquiturriain* (1945: 68) eta *Larrain* (ibid., 73) aipa ditzakegu, eta antroponimikoak ez diren erakusgarritako *Echano* (ibid., 87). Rohlfsek ere badu holakoren bat *-ós / -ués / -oz, -otze* atzizkiaz diharduen 1952ko artikuluan. Adibidez, *Baretous*-en antroponimoa dakusa (*Baritto*), Lopez-Mugartzak erakutsi duen bezala (2008) *vallis*-en txikigarri bat besterik ez bada ere. Hizkuntzalari alemanak *Biskarosse*, *Biscarrosse*, *Biscarrués* euskarazko *bizkarra* ‘le dos’-en bidez azaltzen du (ibid., 235), eta honela galdegiten dio bere buruari: “Est-ce qu’on peut supposer l’existence d’un surnom *\*Biskarra?*”. Hemen egokiagoa da nire iritzian *-o(t)z* tokizko atzizkia ikustea, B. eta J.-J. Féniék (1992: 16) egiten duten moduan.

Orpustanek ere lekuzko adiera ematen dio aipatu atzizkiari (*Bardos / Bar-doze*, kasurako, “lieu de terre argileuse”, “lieu où abonde la terre argileuse” dela dio; 1990: 21), justifikatu gabe, ordea. Ikertzaile honek azalpen deskribatzaileak hobesten ditu antroponimikoen aldean, eta badaiteke batzuetan hiz-



pidean egotea, baina duen aurreiritziak urrunegi darama, garden-gardenak diren kasuetan ere deskripzio bidea lehenesten baitu (*Armendaritze* eta *Beskoi-tze* azaltzean, konparaziorako; *ibid.*, 97, 23). Bide bertsutik dabil, maisuaren urratsetan, Morvan jauna (2004).

### 13. Toponimo sailen gainean

Meyer-Lübkeren 1923ko lanetik aitzina, ziurtasunarekin jokatu ahal izateko, toponimo sailak xerkatzen dira, ez bakarturik daudenak. Honela dio suitzar ikertzaileak: “La determinació, però, dels noms originaris d’aquests pobles (iberiarrak edo euskaldunak eta zeltak) no s’ha de fer buscant-los en un diccionari basc o celta i traduint-los, sinó, principalment, reunint tipus, d’una manera especial sufixos, que es repeteixin moltes vegades, els quals són, potsèr, ja transmesos des de l’antigor” (2). Corominesek (1955: 302) eta Gorrotxategik (1997: 19, 22-23) ere onesten dute, jokamolde hau. Hizkuntzalari katalanaren arabera (1961: 111) sailak bukaerarekin, aurrizkiarekin edo adiera jakin batekin antola daitezke.

Orokortzeak, ordea, gorago ikusi dugun moduan, arrisku franko ditu; lurralde zabala hartzearekin segurtasuna irabazten da alde batetik, baina zehaztasuna galtzen bestetik, eremu handiak sakonki ezagutzea arrunt zaila delako. Adibidez, Rohlfsek (1952: 238) *Egiës*-en oinarrian beharbada *Egus* edo *Ecus* galiar izena dagoela dio, baina bistan da hori ezinezkoa dela, alemanaren ustea, hots, ð zahar batek diptongatu duelakoa, oraingoan, ustela delako erabat, dokumentazioan beti *Egues* azaltzen baita. Arrazoibidea hau izan da zenbaitendako: atzizkietan *-ós / -oz, -oze / -ués* parekotasuna dagoenez gero, *-ués*-dun leku izen guztiak haietatik atera behar dira. Hau arrazoinamendu makurra dela dudarik ez dago.

Seguyk dio (1951: 220) Espainian erdarazko izenen euskal baliokideen finkatzea ð diptongatzearen aurretik burutu dela, baina *-ués*-dun formak euskal eremuan *-oz*-dunen aldamenean azaltzen direla, mapetan behintzat (220); Rohlfsek (1952: 254, 1955: 9) *-ués*-dun horiek Iruñeraino iristen direla dio eta hemen euskarazko *-oz*-dunekin nahasten direla. Hau, ordea, ez da hola, edo ez osotara behinik behin, Menéndez Pidalek nahi duenaren kontra (1918: 233) *Egues*, *Garrues* eta *Sagues* toponimoen lekukotasun zaharrek garbi samar (ez kasu guztietan berdin) erakusten dutelako ez direla *Gallués / Galoze*, *Navascués / Nabaskoze*, *Nardués / Nardoze* eta irudiko pareen multzokoak. Izan

ere, azken bikote hauek berandu arte gorde dira eta gerok belarriz biltzeko aukera izan dugu.

Hemen, jakina, beste batzuetan bezala, itxurek engainatzen eta bide okerretik abiarazten gaituzte. Egia da, alabaina eta *Garrues*-i doakionez, Leireko XI. mendeko dokumentazioan *Garoiz*, *Garoix*, *Garros*, *Garruos* ere agertzen direla, *Garrues* ez ezik (ikus *NHI*, 140). Ez dakit zer neurritan diren jatorrizko formak *-o-*, *-oi-* duten horiek, alegia, zer neurritan ez diren *Vilatorra* “Villatuerta”-ren moduko latintzearen ondorio, honelakoak Leireko agirietan beretan ere azaltzen direnez gero. Aintzat hartu behar da, gainera, euskaraz, XVI. mendean *Garruesondoa* aurkitu dugula: «*Una p<sup>a</sup> (pieza) en el ter<sup>o</sup> (término) de eusa llamada Garrues ondoa [...] afrontada con Cam<sup>o</sup> (camino) real*» (Eusa, 1573, Atarrabiako protokoloak, 6, 11). Hau munta handikoa da, *Garrues*-en kasua Gaskuñako *-ós* / Aragoiko *-ués* / Euskal Herriko *-o(t)z* baliokide multzoan sartzen delako, hots, honetan (eta *Egüés*-en, *Sagüés*-en) oinarriturik *-ués*-dun toponimoak Iruñeraino iristen direla erran izan delako (Menéndez Pidalek aipatzen du lehen aldiz, 1918: 248, Rholfssek gero, goraxeago ikusi moduan), eta hemen *-oz*-dunekin nahasten direla.

Mikrotoponimia ikusirik badirudi *Egues* eta *Sagues* ere euskaraz erabili direla eta forma zaharrak direla: *Eguesbidea* (Alzutza, 1638, Uharteko proto., 60), *Eguesvidegañeoa* o *Celayacoa* (Urotz, 1833, Agoizko hipot., 2, 266); *Eguechalorra* (*Eguetsalorra* segur aski, Iheltz, 1860, *ibid.*, 6, 410), *Saguesgibela*, *Saguesgo sotoaldea* (Gazolatz, 1549; Lizarrako proto., 2). Gai hau hobeki aztertu beharko da, duen garrantziagatik, baina nik erranen nuke Séguyk eta Rholfssek jasotzen dituztenez beste gisakoak direla aipatu Iruñerriko hiru herri izen horiek. *Sagues*-en kasuan Jaka aldean beste *Sagüés* bat izateak (Menéndez Pidalek aipatzen du, 1918: 234) Iruñerriko toponimoan aldaera diphongatua ikustearen alde hitz egiten du, baina *NHI*-n ikusten den bezala (149. or.) XII-XIII. mendeetako dokumentazioan *Sagoes*, *Sagoys*, *Sagues*, *Çagues* azaltzen dira Nafarroan.

Orokortzearen beste etsenplu bat Menéndez Pidalen 1940ko lanean (27. or.) opatzen dugu: hor Espainian *-en* (*-iano*, *-enu* dateke jatorria) atzizkia duten toponimoen artean *Orcoyen* eta *Oreyen* aipatzen ditu espainiar filologoak eta dio oinarria antroponimikoa dela, *Orcuius* lehen kasuan eta *Oreius* bigarrean. Jakina den bezala, gurean ugariak dira *-ain* (< *-ani*) eta *-ao* (< *-ano*) duten jatorri antroponimikoko toponimoak, baina aipatu bi leku izenen azken bokala erortzea ez da aise azaltzen (*\*Orcoieno*-tik *\*Orkoieo*, *\*Orkoio* edo antzeko zerbaite gure euskaraz, eta *\*Oreieno*-tik *\*Oreieo*, *\*Oreio* edo), eta

bestalde, sail osoa ukitu nahi bazuen *Elduaïen* eta *Labaien* ere sartu behar zituzkeen, gutxieneko kontuan, eta ez du hola egin.

Gorago aipatutako leku guztiak ezagutzeko zailtasunagatik, nonbait, Rohlf (1952: 241) bezalako hizkuntzalari zehatzak ez du aipatzen Nafarroako *Irotz*, Bielsako *Irués*-ez mintzatzean, dudarik gabe bazela ohartu ez zelako, bestela, haren teoriaren barnean, arrunt egokia baita. Bestalde, Corominesek (1961: 136) *Arr*- duten Pirinioetako topononimo ugariak *arri* 'harria'-rekin lotzen ditu (*Àrreu*, *Arrós*, *Arróse*, *Àrres*, *Arro*, *Arrés*...), Rohlfsen eta besteren proposamen antroponimikoak aintzat hartu gabe.

#### 14. Toponimoak sail batean baino gehiagotan sar daitezke artetan

Zenbait aldiz leku izen batzuk toponimo sail batean sar ditzakegu, baina bestelako aukerak ere badira, beste multzo batean ematea, alegia. Kasu honetan dago aurreko puntuan bildu dudan *Irotz*, Nafarroa Garaiko Larraun ibarreko *Madotz* herria (< *Mandotz*) eta Jatsu Garaziko auzo baten izena den *Mandos*. Azken honendako Rohlfsek (1952: 243) proposatzen duen jatorri antroponimikoa dugu, baina baita deskribapenezkoa ere. Zaila da, hone-lakoetan, erabaki bat hartzea. *Madotz*, zernahi gisaz, *Mando* izeneko baten baserria-edo izan zitekeen hastean, eta gero herri izen bilakatu. Hemen, *Ilurdotz*-en gertatzen denaren antzera, latinetik ateratako genitiboa genuke, nahiz *Agoitz*, *Gasteiz* edo *Beraskoitz* toponimoetan ez bezala, bokal palatalik ez agertu bukaeran. Puntu honetan eztabaida *-tz* hori latinetik atera den edo Pirinioen inguruko atzizki zaharra, Mitxelenaren arabera *-otz* dena, dugun erabakitzea da. Segur aski biak izanen ditugu, zein toponimo batzuetan, zein besteetan, nahaste.

#### 15. Fonetikaren munta eztabaidagai

Fonetika garrantzizkoa dela inork ez du ukatzen ahal, baina toponimo baten euskalduntasuna horretan bakarrean finkatzea eztabaida daitekeen gauza da. Argibidez, Coromines (1955: 303) *Caborreu* euskaratikakoa dela errateko itxuran edo hotsean oinarritzen dela dirudi; gero, bide horretatik, *Cabó* (< *Caboet* < *Cabodez*) eta *Caborriu* ere etorki berekotzat jotzen ditu. *Andorra*-ren euskalduntasuna ere modu horretara frogatu nahi du, eta honekin batean Espainian barrena, bereziki Pirinioetan, haren antza duten beste zenbait toponimorena ere (ibid., 303), besteak beste Euskal Herriko *Undurein*-ena, zein

xiv. mendean *Andureinh* idazten baitzen. Egun aski garbi dago honen oinarrian, Nafarroako *Indurain*-en bezala, *Indura* pertsona izena dagoela, eta *-ain* atzizki ezaguna; ikus Irigoien (1990: 22).

## 16. Euskal dialektologiaren eta izen toponimikoen banaketa-eremuen rola

Dialektologian biziro ezaguna da arkaismoak bazter eremuetako hizkeretan atxiki direla dioen teoria, eta, hortaz, arras garbi dago, gurean, mendebaldean eta ekialdean hitz bera agertzen denean ele hori, salbuespenak salbuespen, zahartzat har daitekeela. Bestalde, beti eta bakarrik Euskal Herriko mendebaldean ageri zaizkigun berbak Andorrako edo inguru hartako toponimia azaltzeko erabiltzea justifikaturik egon daiteke dokumentuek laguntzen badute, baina, beste gisan, hobe litzateke, nik uste, Iparraldean eta Nafarroan ditugun hitzak ibiltzea, logikak horixe eskatzen duelako, hemen matematikaren zehaztasunetik urrun bagara ere.

Pallarsko toponimo baten ustezko *f > p*- bilakaera euskarari bizkarreratzea (*Pont de Pine*-ren bigarren osagaia latineko *finis*-etik datorke; Coromines, 1961: 129) gehiegixko iruditzen zait, gure hizkuntzaren barnean pauso hori erdi-mendebaldekoa ohi delako. Orobat, eta hau gai potoloa da, betearazi duen orrialde kopuruari so egiten badiogu behinik behin, *Bisòrre* eta *Bisaúrri* euskarazko *besa-urri* ‘village de précipices’ formatik atera dela kontu egitea (ibid., 133), edo *Besora* (< *Besaura*) jatorriz *basa uri-a* ‘la ville du bois’ dela pentsatzea ez zait onartzekoa iruditzen, gurean *urri* aski mendebaldekoa delako. Hau orain hobekixe ezagutzen dugun Euskal Herriko toponimiarekin ere lot daiteke, hots, Zaraitzu-Erronkarietan eta Zuberoa aldean azaltzen diren izen toponimikoek, teoriar behintzat eta alde zuretik, izanen dute aukera gehien Pirinioetako beste ibarretan agertzeko. Logikak erraten digu zailago dela Euskal Herriko erdialdean azaltzen direnak aurkitzea, hemen ere ezinik ez izanagatik.

Irigoienek (1986: 202) uste du *Arbeost* eta *-ost* duten toponimoek (*Bagüeste*, *Bagüesta*-k, *Binueste*-k...), Rohlfsek pentsatzen zuenaren kontra, ez dutela zerikusirik *-osse* (euskaraz *-otz* / *-oze*) dutenekin, haietan *-oste* ‘parte trasera, posterior’ dagoela. Egia da Erronkari aldean mendebaldeko itxura handia duten *atxa* ‘haitza’ eta *gatxa* ‘gaitza’ daudela (cf. *Mendigatxa* deitura), baina *ostere*na kontu lexikoa da, ez fonetikoa, eta lehen *-oste*-a Arabako muga-mugako Larragoan azaltzen dela jakinik, nekeza begitantzen zait niri *-ost* horretan Iri-

goienek nahi duena ikustea. Gogoan har, gainera, *-ost-*dunek usu holakorik ez duten eta antroponimoetan oinarriturik dauden bestelako toponimoekin egiten dutela *pendant*.

## 17. Toponimo bat azaltzeko bide bat baino gehiago izan daitezke

Zenbait aldiz toponimo bera azaltzeko bide bat baino gehiago daude, bata euskarazkoa eta deskribatzailea, bestea antroponimikoa (*Irotz*, *Urrotz*...). Inoiz, dena dela, aski garbi dago euskarazko azalpena beste gisakoa baino aise hobe eta egiantz handiagokoa dela, kasu guztietan erabat segurua ez izanik ere (*Acenarbe*, *Sobrarbe*, *Campodarbe*).

Alvar-ek dio (1949: 30-31), oraingo *Cenarbe* aztertzean (*Acenarbe* lehen lekukotasunetan, 1055, 1071, *Acenarbo* 1090ean), bigarren osagaia *arbe* dela, eta hau, Fouchéren lan batean oinarrituz, ‘ura’-rekin zerikusia duten Frantzia aldeko toponimoekin ematen du, Haute-Garonneko *Arbas*-ekin-eta batera. Alvar-ek hor *arvum* ‘larrea’ pirenaikoa dagoela uste du eta dio *-o* > *-e* aldaketa kanpoko eraginari zor zaiokeela; izen hori bera dakusa *Sobrarbe*-n eta *Campodarve*-n, eta ez zaio onartzekoa iruditzen *-be* ‘bajo’ dugula erratea. Elkarketa modua ez zaio arrotz, Erromanian anitz direlako bigarren osagaitzat *-villa* dutenak; oinarria beharbada *Acenar* antroponimoarekin loturik dagokeela gehitzen du. Bukatzeko *arve* ‘curso de agua’, *arvum* ‘prado’ biek elkarrekin urruneko erlazioa izan dezaketela adierazten du eta, etsenplutzat, ‘curso de agua’ izatetik ‘valle, campo’ izatera igaro den *ara* hitza paratzen du. Zernahi den, eta oin-oharrean baizik ez bada ere, erraten du *Sobrarbe* eta *Campo de Arbe*-ren azalpena beste bat izan daitekeela, *Arbe* mendi baten izena delako, mendialdea zelaietarik bereizten duena, «aunque el nuevo valor de ‘elevación’ pueda haberse adquirido desde cualquiera de las dos bases *arve* y *arvum*». (ibid., 31). *Cenarbe*-k «azaltzeko zailtasunak» dituela aitortzen du ondorioetan (ibid., 34).

## 18. Euskal toponimia: Euskal Herritik hurbilago eta aurkitzen errazago

Euskarazko toponimo multxo bat nonbait azaltzen bada pentsa daiteke inguru hartan noizbait euskara mintzatu zela eta hau galdu ondoan leku izenak besterik ez dela gelditu. Hau da, erraterako, Arabako eta Nafarroako eremu zabaletan gertatu dena, bai eta, beste neurri batean, Bizkaiko mendebaldean gertatu dena ere. Beste kontua da Euskal Herritik kanpoko lurretan

agitzen dena aztertzea; logikoa da pentsatzea Euskal Herriko inguruetan (Huescan, Biarnon...) aztarnak gelditu direla, Akitania zaharrea kasurako, alderdi honetan aurkitu idazkunei esker baitakigu behiala euskara, edo honen aldaera bat, mintzatu zela bertan. Arazoa da holako ziurtasunik ez dugun eremuetan euskarazko hitzak ikusi nahi izatea, toki izenetan.

Hor dago, adibidez, hain aipatua izan den *ili* / *hiri*-ren kasu ezaguna, edo, beste maila batean, Menéndez Pidalék (1949: 3-5) *etxe* eta *exe*-n oinarriturik jasotzen dituen Soria, Girona, Castelló eta Valentziako «euskal toponimo»-ena. Ikertzaile honek Espainia aldeko eta Narbonenseko *ili*-dun leku izenak aipatzen ditu eta, *berri* / *barri*-z ari delarik, bigarrena mendebaldekoa dela dio eta lehena ekialdekoa, nahiz gero *barri* Huescako alderdi batean ere (*Banabarrre*, *Isabarre*) ageri dela adierazi, *berri*-k inguratutako eremuan hain zuzen.

## 19. Alegiazko berrekailuen karietara

Toponimo sailak aztertzeko garaian atzizki «mamuak», hola mintza bannaiteke, ikusteko arriskua nabarmendu nahi dut. Grierak (1950), erraterako, Meyer-Lübkeri (1923) hartu dion mordoxka koxkor bat aipatzen du (*-abis* edo *abe*, *-bite*, *-egia*, *-rr-*, *-arre*, *-ll-*, *-ar-*, *-al*, *-il*, *-ice* *-en*, *-ir-*, *-asca*, *-ay*, *-avo*, *-ano*, *-ine*, *-one*), baina, agerian denez, denak ez dira atzizkiak.

Beste kontua da toponimia berrekailuen jatorria zein den argitzea, eta eginkizun honetan, oinarria antroponimikoa den edo toponimikoa. Zalan-tzazko egoera horretan dago, konparaziorako, hainbeste orri betearazi dituen *-ui* delakoa; irudi du autore gehienen arabera haren oinarria antroponimikoa dela, baina Corominesek bederik (1955b: 411) zenbaitetan antroponimoez bestelako oinarria ikusi nahi du: *Corroncui* < *kunkur(ra)* ‘joroba, bosse’, *Lles-sui* < *lezoi* ‘tranchée’ (eta Aran ibarreko *Lés*, euskarazko *leze* ‘sima’, ‘abîme’-tik)... Besterik da Pirinioetako hizkera arrunteko hitzetan aurkitzen ditugun bukaerak latinaren aurrekoak diren eta euskararekin lotu behar diren edo ez zehaztea. Honetaz Rohlfs (1931) ikus daiteke, besteak beste.

## 20. Errepikatzearen indarra: ustezkotasunetik ziurtasunera

Behin baino gehiagotan ikertzaile batek toponimian ageri den izenen baten, toponimoren baten adiera aurkitu uste izan du (ikus lehen puntuan *Maladeta*-z dioguna) eta geroko ikastunek, azterketa kritikorik egin gabe,

hots, lekua eta izenaren nondik norakoak aztertu gabe, ontzat eman dute, halako moduz non errepikatzearen bortxaz «tradizioa» sortu eta nire ustez (biziki) zalantzakotzat dena segurutzat ematen baitute. Etsenplu bat *\*urd* uszteko oinarriaren inguruan sortu dena da: Féniék eta Féniék (1992: 51) hone-la diote: «Quant à Urdos et Urdès (PA), l'étude récente de Michel Grosclaude les rattache à un radical aquitain *\*urd* (= plateau, replat)». Orpustanek (1990: 99), egin ohi duen bezala, izartxoak kentzen dio *\*urd* horri, eta are aurrerago doa, *Ortzaize* bere sorterriaren jatorria azaltzean *urd*-en *urz*- aldaeraz mintzo baita: «... c'est à dire qu'il faut très probablement y reconnaître la variante *urz*- de l'aquitain *urd*-, désignant des lieux plats et particulièrement des plateaux au pied des montagnes». Morvan oraingoan ere (2004: 45-46) Orpustanen bidetik dabil, gauza bera dio.

Baliteke hau hola izatea, baina zuhurtzia handiz jokatu behar da hone-lakoetan; nik, zenbait aldiz behinik behin, Séguyk (1949: 221) eta Rohlfsek (1952: 220) *Urdòs* eta *Urdués*-endako proposatzen duten azalbide antroponimikoa hobetsiko nuke, gauzak konplikatuak izanik bide bat baino gehiago ikus daitezkeen arren, baina betiere argudioak ongi arrazoituz, ez bestela. Corominesek (1955b: 411) *urde* ikusi nahiago du horren irudia den Kataluniako *Urdossa*-n (Montesclado, Lleida).

## 21. Pirinioetako euskal toponimoak

Hasmentan erran dudana bezala, ez da hau tokia Pirinioetan diratekeen euskal toponimoez banan-banan aztertzeari ekiteko, besteak beste horretarako ditudan baino aise ezagutza eta gaitasun handiagoak behar nituzkeelako eta neure burua huts egiteko arriskutan behin baino gehiagotan ezarriko nuke-elako. Gorago erran moduan, elkarrekiko lanaren beharra dakusat arlo honetan, lankidetzaz premia.

Lan hau apailatzeko Aragoigoieneko zenbait herritako mikrotoponimia jasotzen duen Elcocken 1949ko artikulua irakurri behar izan dut, eta gauzak sakonkiago eta polikiago aztertu behar baditut ere, bertan ez dut aurkitu argi eta garbi, ezbairik gabe euskalduna den toponimorik, adibidez egun Nafarroako Erdialdearen hegoaldean aurki daitezkeen erakorik. Badira ozen ondoan (*n*-ren ondoan bereziki) ahostuntzen diren herskari ahoskabeak eta bokal artean ahoskabe dirautenak, baina ez dut uste honengatik toponimo horiek euskarazkoak direla erran daitekeela (*Chungar, Sandicosa, El Pundarrón, As Alduras, A punta acuta...*). Gainera, eta hein handi batean, Pirinioe-

tako ibar horietan ibiltzen den eguneroko hizkerarekin loturik daude toponimoak, eta hemen onomastikatik ateratzen gara. Badaiteke ele horietako batzuk jatorriz euskarazkoak izatea, baina lur labain eta irristakorrean mugitzen gara arlo honetan eta, erran bezala, onomastikatik kanpo.

Besterik da Elcocken lan horretan aipatzen diren toponimo nagusiak, Corominesek ere (1961) ahotan hartu eta erabili dituenak: *Berroy*, *Basarán*, *Ascaso*, *Ayerbe*... Ikertzaile katalanak dioena (ibid., 120) eta Elcockek biltzen dituen datuak ez datoz bat, Corominesek Pallarsgoienean, aurkintza izenetan oraino herri izenetan baino ardurago, euskal jatorriko izenak dakuskielako: *Uribida*, *Urdossa*, *Urci*, *Uliviergo*, *Bescarga*, *Ausinsi* eta beste. Menéndez Pidalék, lehenago (1918), mordoxka aipatua zuen, noiz begi onez, noiz apika ez hain onez. Egia da hauetako batzuek belarrian «un air basque» dutela, baina ez dakit hau aski ote den euskalduntzat, euskaratikakotzat aitortzeko. Ez dirudi.

Corominesek aipatu lan horretan (1961: 119-120) ehunekoak ere ematen ditu herrien izenen kasuan, hots, ehuneko zenbat toponimo nagusi diren latinaren aurrekoak —ez denak, ezinbestean euskaldunak— zehazten du: Jakerrian etorki horretako 48 herri izen dakuski, denera % 67; Aragoigoieneko gainerako lurretan, Panticosatik Benasquera holako 155 kausitzen ditu, % 38. Ribagorzan % 35 dira, baina ekialderago, Pallarsgoienean, % 54ra igotzen da berriro ere kopurua, Jakerriko heineraino, euskal itxura desberdinxearekin hori bai, beste euskalki bat egiten zelako seinale, hizkuntzalari katalanaren aburuz: “Ils ont un air aussi basque que dans la zone aujourd’hui frontalière du basque, seulement c’est une physionomie basque un peu différente, un autre dialecte”. Ehuneko eta kopuru hauetarik guzietarik ateratzen duen ondorioa (ibid., 121) da Pallars eta mendiez haraindiko Aran ibarra, ezbairik gabe, euskal uharte linguistikoa izan direla, baita Aragoi gehiena erdararatua zen denboran ere.

Erdaratze modua ere azaltzen du Corominesek (ibid., 122) Nafarroan historian zehar euskara nola galdu den ikusirik: lehenik goi mailako jendeak erdaldunduko ziren, gero herrietako bizilagun xeheak, beranduago mendiko herrixkak eta auzoak, azkenik baserriak eta artzainak. Garaiak ere finkatzen ditu (ibid., 123): Pallarsen errekonkistaren lehen bi edo hiru mendeetan galduko zen gure hizkuntza, lehenbizi hegoaldean, ondoren gero eta iparerrago, Aran ibarreko erdialde eta goialdera iritsi arteraino. Hau gutxi bazen, toponimian oinarri harturik, aipatu ibarretako hiztegia nolatsukoa zen ere argitzen du, berriz ere egungo egoerari, euskarari, erreparaturik: Pallarsgoieneko hiztegiaren erdia euskaratikakoa zen eta beste erdia erdaratikakoa, baina bigarren zati honetako aleak euskal fonetikaren arabera moldatuak zira-



tekeen. Gai hauetaz honelako zehaztasunarekin mintzatzea labaina da nire irudiko, ausarta ez ezik.

- Villar, F., Prósper, B. M.<sup>a</sup>, 2005, *Vascos, Celtas e Indoeuropeos. Genes y lenguas*, Ediciones de la Universidad de Salamanca.

N° 1



**Légende**


Filiation d'une langue à une autre ou d'un groupe linguistique à un autre: **—————>**

Apports d'une langue à une autre ou d'un groupe linguistique à un autre: **—————>**

Apports bilatéraux d'une langue à une autre ou d'un groupe linguistique à un autre: **—————>**  
**—————<**


N° 2


Possibilité A



N° 3

Possibilité B





*Ilurberrixo* : théonyme aquitain (cf. Gorrochategui, 1984, n°s 563 et 564, p. 337-338).

# *Erizkizundi irukoitza* eta hego-uribeko euskara: azterketa dialektologorantz

KOLDO ULIBARRI ORUETA<sup>1</sup>

EHU/UPV

## 0. Atarikoak<sup>2</sup>

Euskaltzaindia sortu zenean, orain dela 90 urte, argi zeukan bere helburuetako bat euskara batzea izango zela; Euskal Herri guztiarentzat, idatziz behintzat, baliagarri izan zitekeen euskara bat proposatzea. Hala ere, hizkuntza batu hori euskaldunen erabileraren arabera egin nahi zuten, Menéndez Pidalek idatzitakoa gogoan: “Fácil relativamente es hacer en un libro para uso de unos cuantos escritores una combinación de guipuzcoano y labortano y proveerla de perfecciones de otros dialectos; pero ésa creo no llegará nunca a ser la lengua de un pueblo” (apud. Echaide 1984: 30).

Honela, Azkueri eskatu zioten *Erizkizundi Irukoitza* (hemendik aurrera *EI*) prestatzea, hiru ataletan banaturako galdeketa bat, harekin lortutako emaitzak batasunerako erabakien oinarri gisa erabiltzeko asmoz. Hala ere, dakigun bezala, tartean Gerra Zibila etorri zen eta honek dena gelditu zuenez, euskara batuaren sorrera ere atzeratu egin zen. Lan horri berriz ekin zitzaionean, euskalaritzan joera berriak nagusiturik, beste bide batetik heldu zioten batuaren arazoiari, eta *EI*ko datuak koaderno zaharretan geratu ziren.

Dena den, euskalariak ez ziren haietaz erabat ahaztu eta *Euskal Herriko Atlas Lingüistikoa* egin bitartean proposatu zen galdetegiak erabili ahal zirela Atlasaren ordeztan, neurri batean behintzat. Ideia honen jasotzaile da Echaideren aipu hau:

---

<sup>1</sup> Lan honek Eusko Jaurlaritzak ematen dituen doktorego aurreko beka baten laguntza jaso du.

<sup>2</sup> Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi nizkieke Iñaki Caminori eta Iñaki Gaminderi, artikulua honen lehenengo bertsioa irakurtzeagatik eta egindako ohar interesgarriengatik. Zorretan nago Blanca Urgellekin ere, neuri laguntzeko beti prest dagoelako. Esan gabe doa testuan zehar aurki daitezkeen akats guztiak sinatzen duenari egotzi behar zaizkiola.



Los datos recogidos en *E[rizkizundi] I[rukoitza]* presentan el estado de la lengua hablada en una fecha determinada (1922-25). Es, pues, el *EI* una fuente para el estudio de la lengua, en todos sus dialectos y variedades, al modo que suelen serlo los Atlas Lingüísticos. (Echaide 1984: 32).

Esan gabe doa urteotan egin diren dialektologia lanetan ere maiz erabili direla. Alabaina, gehienez ere lagungarri gisa erabili ohi dira, ikertzaileak bildutako datuak egiaztatzeko modu gisa, eta ez berezko balioa duten datuak balira bezala. Gure ustez, bada, oraindik ustiatu gabeko iturri aberats bat dugu eskuartean.

## 1. Gure lanaren esparru geografikoa eta corpusa

Gure beharrean aztertuko dugun lurraldea, izenburuan adierazi den bezala, Hego-Uribe da, eta zehazkiago Nerbioi ibaiak zeharkatzen dituen herriak: Laudio, Arrankudiaga, Ugao eta Bilboko Buia auzoa. Inoiz Orozkon bilduriko lau koadernoak ere izango ditugu hizketa gai, Nerbioi arroan egon ez arren, haran honek ere Hego-Uribe osatzen baitu. *EI*ko koadernoak gure corpusaren oinarri izango dira, aurreratu bezala, baina ez ditugu Nerbioi arroko gainerako lekukotasunak alde batera utziko, jakina.

Bonapartek Arrigorriagako hizkeraren barruan sartu zuen eremu hau, Orozko salbu, bertan egiten zen hizkerari azpi-euskalki izaera eman baitzion, askotan zalantzak izan arren ea ez ote zen Arratiakoarekin bildu behar. Printzearen ostean, eremu honetako euskara sailkatzen Koldo Zuazo arduratu da (2005).<sup>3</sup> Dialektologo honen arabera, Hego-Uribe euskara bi azpi-hizkeratan banatu behar da: hedaduraz handiena Nerbioi ibarrekoa litzateke, Bilbotik Ugaora dauden herriek osatzen dutena; bestea Arrankudiaga, Arakaldo eta Orozko osatuko lukete, eta hauen euskarak Arratiakoarekin bat egiten du. Hemen *Bilboko eremuaz* edo *Arrigorriagaz* hitz egingo dugu Zuazok aintzat hartutako Nerbioi ibarra adierazteko, eta *Laudio-Arrankudiaga* izena baliatuko dugu eremu horretatik kanpo gelditzen diren herrietarako (Laudio, Orozko, Arakaldo —ez zen herri honetan galdeketa egin *EI*erako— eta Arrankudiaga).

Erabiliko dugun corpusa, sarreran antzematen den bezala, *EI*ko koadernoak izango dira. Gure eremuko lau koaderno gordetzen dira: Bilboko Buia

---

<sup>3</sup> Esan behar dugu, hala ere, Zuazoren aurretik Nerbioi ibarreko euskarak (gehienbat ibaiaren behealdeko herrietakoa) berezitasuna bazeukala ondorioztatuta zutela zenbait ikerlarik, horretarako metodologia ezberdinak erabiliz: ik. Aurrekoetxea 1995 eta Gaminde 2002a.

auzokoa, Ugaokoa, Arrankudiagakoa eta Laudiokoa, eta lau hauek izango dira gure lanaren oinarria. Hala ere, behar dugunean inguruko herrietan egindako inkesten datuak ere erabiliko ditugu: Orozkoko lau koadernoak edo Zarata-mokoa, Zuazok azken hau ere Nerbioi ibarreko azpizhizkerarekin biltzen baitu.

## 2. Gure beharraz

Txostenaren izenburuan irakurtzen den bezala, azterketa dialektologiko bat osatzea da gure lana, edo gutxienez azterketa hau burutzeko lehendabiziko hurbiltzea egitea. Hala ere, euskalaritzan askotan pentsatu izan da azterketa dialektologikoa hizkera baten deskribapena baino ez dela. Hala ere, I. Caminoren hitz hauetan iradokitzen den bezala: “Deskribapena ez da bidearen eta lanaren lehen atala baizik: non eta ikuspegi atomista gainditurik dialektologia kontrastiboaren onura aitortzen ez dugun, ez gara deskribapenatarik haratago iritsiko” (Camino 2004: 70). Caminorekin batera, guk ere uste dugu dialektologia zerbait gehiago badela eta euskararenak ere ez luke deskribapen hutsera mugatu behar.

Gure beharra dialektologia historikoaren barruan kokatzen da; honegatik, hizkeren eta ezaugarri ezberdinen geografiaz baino, hauen ibilbide diakronikoaz gehiago kezkatuko gara; beraz, lehentasuna ez da isoglosak mapan marraztea, gaur egungo hizkerara heltzeko isoglosek (eta, ondorioz, hizkera zaharrek) egindako ibilbidearen aztarnak aurkitu eta ulertzea baizik, euskararen egiteke dugun lana baita,<sup>4</sup> Caminok pasarte honetan gaztigitzen duen bezala:

Gu ez gaude usaturik, ingelesak edo frantsesak bezala, edota Greziako aspaldiko hizkerez arduratzen direnak dauden moduan, Erdi Aroko nahiz are aspaldia-goko testuen arteko dialektologi alderaketak egitera, hizkuntz ezaugarri baten geografi eta kronologi hedadura zehatz-mehatz ikertzera, aldakuntza, berrikuntza edo dena delako baten iturri edo fokoa Iruñea, Donostia, edota zein geografi eremu izan datekeen geure buruari galdegitera (Camino 1997: 11).

Konparaketa diakroniko hau egiteko, lehenengo eta behin egoera deskribatuko dugu, batzuetan gaur egungo datuak erabiliz, beste batzuetan Bona-

---

<sup>4</sup> Gehiena egiteke egon arren, badauzkagu zenbait aurrekari: Castañosek 1957an bizkaieraren genitiboa aztertuz egindako lana dateke, dakigula, honelako lehenbiziko lana. Hone-lakoak lirareke, halaber, Lakarrak 1984an ablatiboaz egin zuena, bai eta Urgellen 2006ko lana ere. Hala ere, bakanak dira honelako lanak, eta gure ustez beharrezkoak euskalkien ikerketa historikoa egin nahi bada behintzat.

partek erakusten digun egoera aintzat hartuz. Gaur egungo datuetarako, eskualde honetan lanean aritu diren dialektologoek lanez baliatuko gara. Ostean, gaur egungo egoerara heltzeko nolako ibilbidea gertatu den ikusten saiatuko gara, *EI* bitartekotzat hartuz, Bonaparteren garairaino. Konparaketa gehienbat Bonaparteren garaiko eta gaur egungo hizkeren artean egingo da; hala ere, zenbaitetan badugu Bonaparte baino lehenagoko datuez baliatzea, eta, jakina, ez dugu aukera hori galduko azterketa osatzeko.

Txosten honetan erakutsi nahiko genuke honelako ikerketa bat nola egin daitekeen: hortaz, lanaren helburua Hego-Uribeko euskararen egoera zaharra osoki argitzea baino gehiago, argitze hori nola egin daitekeen probatzea da. Honela, ez dugu ikerketa txosten honetan agortzea nahi; Bonapartek jasotako ezaugarri gutxi batzuk hartuko ditugu, eta hauen ibilbide geografiko eta kronologikoa jarraituko. *EIk* dauzkan datu motak ikusita, ezaugarri gehienak fonologia arlokoak izango dira, eta hiatuetan gertatzen diren bokal aldaketek leku garrantzitsua izango dute. Hauek erabiltzea ezinbesteko dugu, Bonapartek bizkaieraren barruko hizkeren artean aurkitu zituen ezberdintasun aipagarrienak ziren eta (ik. Elordui 1995: 452); hala ere, erabiltzeko orduan ez ditugu ahaztuko hauei buruz Mitxelenak esandako hitz hauek:

Se tiene la impresión de que Bonaparte exageró, al menos en teoría, la importancia de estos últimos hechos. Porque, en primer lugar, se trata, según todas las apariencias, de fenómenos recientes; en segundo, porque, de acuerdo con esta presunción, difícilmente permiten diseñar áreas bien recortadas. Se tiene más bien la impresión de que, en la práctica, sólo sirvieron al Príncipe para separar variedades menores dentro de las regiones lingüísticas ya delimitadas (Mitxelena 1964[1988]: 10):

Hala ere, ezaugarri gehienak fonetikoak izan arren, beste alorretako batzuk ere izango ditugu adibidetzat.

### 3. Erizkizundi Irukoitzaren balioaz

Dena den, *EIk*ko datuak erabili aurretik, hauen baliagarritasunaz hitz egin behar dugu, kontuan hartu beharreko zenbait argigarri lortzeko asmoz. Mitxelena izan da, gure ustez, balio honetaz gehien eta hobekien hitz egin duena, bere lanetan zehar hainbat aipamen ikus baititzaiegu Erizkizundiaren gainean. Gure beharrerako aipamenik baliotsuena, honek zeuzkan (eta dauzkan) arazo nagusiez hitz egiten duenean aurkitzen da:

Si el fruto de esta encuesta [E] no ha sido mayor en el terreno de la geografía lingüística vasca, ello se debe sobre todo a dos causas. A la finalidad, en primer lugar, ya que el cuestionario se elaboró con destino a una especie de plebiscito o referéndum: con el fin de buscar un apoyo para las decisiones que habría de tomar la Academia en orden a la unificación de la lengua escrita, [...]. Por esta razón, figuran, entre las preguntas bastantes cuyo interés para la geografía lingüística es muy limitado, al paso que muchas otras de primera importancia desde este punto de vista no fueron tenidas en cuenta.

En segundo lugar, los datos recogidos sólo se publicaron, como ya se ha apuntado, de modo muy insuficiente, en resúmenes en los que muchas veces sólo se dan datos numéricos, bien o mal calculados, acompañados de indicaciones de lugar sumamente vagas. (Mitxelena 1981b: 137).

Dena dela, lan honetan ez gara arazo hauetaz kezkatuko; gehiago jakin nahi lukeenak jotzea du Echaideren edizioiko hitzaurre interesgarrira, bertan *E*ko arazo gehienak zehatz eta argi azaldu zituen, bai datuei dagozkienak, eta baita datuak lortzeko orduan tartekatu ziren aldagaiei dagozkienak ere: informatzaileak, inkestagilearen jarrera... (ikus bibliografian, Echaideren lanaz gain, Mitxelenaren 1981a, 1981b eta 1981c lanak).

Hala ere, arazoak arazo, datu hauek balio dialektologikoa badaukatela irizten diogu; ez xx. mende hasierako hizkuntzaren lekuko diren heinean bakarrik (Echaidetik aipatu eta guk gorago gogoratu bezala), baita “datu base” biren arteko zubi lana egiten dutelako ere: batetik, Bonapartek xix. mendean egindako bilketa lana eta, bestetik, gaur egunean Euskaltzaindiak *Euskal Herriko Atlas Linguistikoa* proiektuaren barruan batzen daragoiona. Balio honen adibide gisa, Orozkoko koadernoak aztertzean ikusi duguna ekarri nahiko genuke hona:

Bonapartek *o + a > -oba* epentesia<sup>5</sup> Orozkoko euskararen ezaugarritzat hartu zuen eta, 1868. urte inguruan egindako *Phonologie de la langue basque* delako eskuizkribuan, euskalkien eta azpieuskalkien banaketa egitean Orozkoko azpieuskalkia honen arabera ezberdintzen du (Baranbio ere azpieuskalki honen barruan kokatu zuen). Gaur egun, ordea, ez dago honen arrastorik Orozkoko hizkeran (ik. Euskaltzaindia 1999: 11).<sup>6</sup>

<sup>5</sup> Cf. Zabala 1848: 55: “Ultimamente los de Orozco y pueblos limítrofes usan de las mismas eufonías que los del centro, y á mas cuando la *o* roza con la *a* les hacen mediar una *b*, diciendo v. g. «doba» por «doa»”.

<sup>6</sup> Barrenengoak 1973an Baranbion egindako grabaketa batzuetan, ordea, ezaugarri hau jasotzeko aukera izan zuen; dakigularik, grabazio hauek dira epentesi mota hau entzuteko aukera bakarra (ik. Barrenengo 1988: 28).

*EI*ren galdetzaileak Orozkoko lau auzotan egon ziren galderak egiten eta bakoitzak bere koadernoan idatzi zuen, gaur egun oraindik Euskaltzaindiko bibliotekan gordetzen direnak: *Torrezar*, *Zubiaur*, *Olarte* eta *Ibarra*. Hala bada, lau koadernoetarik Zubiaurkoak baino ez du modu emankorrean *-oba* ezaugarria erabiltzen, bertan agertzen baita bai kopuruaz eta baita ere testuinguruaz forma gehien: *besoba*, *noba*, *eskube* (baina hau *eskuerekin* batera), *egunekoba*, *Miraballeskoba*,<sup>7</sup> *Lurdeskoba*, *zelangoba*, *banarobe*, *Aita Santube* eta *ugelatxube*. Beste koadernoetako informatzaileek, ordea, jadanik galdua zuten forma hori eta behin baino ez dute agertzen, eta beti testuinguru berean, *eroan* aditzaren forma jokatuan: *banarobe*. Honek pentsarazten digu 1935. urterako jadanik galtzen zihuan ezaugarria zela: Orozkoko erdialdean hala-hola gordetzen zen bitartean (gogora dezagun *b* gabeko formak ere badaudela), beste eremu euskaldunekin harremanetan zeudekeen auzoetan galdua zela eta fosildurik baino ez zela aurkitzen adizki batzuetan.<sup>8</sup> (Ulibarri -prestatzen)

Adibide honetan ikusten den bezala, *EI*ko datuak erabiliz gai izan gara herri batean Bonaparteren garaian egiten zen euskarak gaur egungo euskarara heltzeko egindako bidea erakusten. Horretaz gain, Orozkok daukan koaderno kopuruagatik (lau, auzoka banaturik), ezaugarria nola galdu zen antzematea lortu dugu.<sup>9</sup> Honegatik diogu galdetegiak oraindik badaukala zeresan ugari, eta hau litzateke gure txostenaren helburuetako bat: *EIn* dagokeen aberastasuna erakusten saiatzea eta gure ustez aberastasun hau aprobeztatzeko ditugun baliabideak erakustea.

## 4. Nerbioi Arroko euskara ezaugarritzen

### 4.1. Fonetika-Fonologia

\**j*-ren ahoskera izango da gure lehen gaia. Azkuek *EIn* galdera bereziak prestatu zituen honetarako eta oharretan argi asko azaldu zuen zein grafia erabili behar zuten hots bakoitza adierazteko. Bilbo inguruan, Gamindek esaten digunaren arabera, gaur egungo Buia eta Begoñan sabaikari ahostuna dago (/dz/ fonema, euskal tradizioan *dx*-z idatzia izan dena); eta hau berau

<sup>7</sup> Baina honekin batera *Irunekoa*, *emekoa*, *Madridekoa* eta *Eibarkoa* agertzen dira.

<sup>8</sup> Gamindek gure garai hauetan bilduriko adizkietan ez dugu honelako formarik topatu (Gaminde 1983).

<sup>9</sup> Kasu honetan, koaderno originalak ikustera joan behar izan gara, argitaraturiko emaitzetan ez baita zehazten zein koaderno den erantzun hori daukana.

agertzen da Nerbioiko beste herri batzuetan ere; zehazki, Basauritik Ugaora bitarteko herrietan (Gaminde 2007: 33). *En* jasotakoaren arabera, ordea, Buia auzoan garai haietan oraindik [ j ] hotsa mantentzen zen (*yan*, *yeien*, *yausi*), nahiz eta Azkuek oharretan adierazten duen *dx*-ra hurbiltzen zela; bestalde, bizkaierazko datibo eta alokutiboetan sortzen diren \**j*-ak jadanik *dx*-grafiaz adierazten ditu, aldaketa aurrera zihoala erakutsiz: *dxakik*, *dxat*. Beste herrietan, ordea, *y-z* (edo bere alofono afrikatuaren ikurra den *dd-z*) idatzita daude adibide guztiak. Honek adieraziko luke 1925ean txistukari ahostuna oraindik Nerbioi ibarrean zehar zabaltzen ari zela, garai horretan oraindik ez zelako heldu Ugaora. Bokal artean geratzen den *i*-rekin, ordea, gauzak bestelakoak dira, *-dx-* grafia aurkitzen baitugu beti: bai Buian, bai Ugaon, baita Arrankudiagan ere: *be(i)dxε* edo *e(i)dxo*. Honek erakutsiko luke, gure iritziz, aztergai dugun eremuan hotsak nola joan diren aldatuz: lehenengo bokal artean gertatu bide zen ‘sabaikari ahostun > txistukari ahostun’ aldaketa, eta honen ostean beste testuinguruetara hedatu.

Orozkon, gaur egun aurkitzen den [ x- ] ahoskera ([ j ]-rekin batera; Gaminde 2007: 33; cf. *FHV*: 169), 1925ean ere aurkitzen zela erakusten digu *Elk*, lau koadernoetatik hirutan aurkitzen baita / x /-dun aldaera: *jan*. Honi Bonapartek Le verbe basque lanean dioena gehitu diezaiokegu: “quant au ‘y’ indépendant de la loi de l’affinité, il se permute en [...] ‘J’ en guip., en bisc., en bisc. occ. d’Orozco...” (Bonaparte 1866: XXX; apud Elordui 1995: 454).<sup>10</sup> 1739ko otoitzak ikusita (Garigorta & Gaminde 1986), ezin dugu esan / x / hotsa XVIII. mendean bazegoenik, adibide bi baino ez baitugu: *jagole* eta *jacon*, biak *j-* grafiaz idatzirik. Hegoaldeko euskal tradizioan txertaturik zegoen < j > idaztea euskarazko / j / adierazteko; hala ere, XVIII. mende hasierarako *j-* grafiak frikari belarra ere adierazten zuen, Mitxelena Barrutiaren *Acto para la nochebuena* obran ikusi zuen bezala (Mitzelena 1978: 391).

Palataltasunari dagokionez; Gamindek adierazitakoaren arabera, Zuazok “Nerbioi ibarra” deitu duen eremu ia osoan indartsu aurkitzen da, bertan / t / eta / d / hotsak ere palatalizatzen baitira (Gaminde 2007: 38).<sup>11</sup> Palataltasun indartsuaren eremutik kanpo Ugao, Arrankudiaga, Arakaldo eta Orozko ditugu. *Elk* gauzak gaur egun bezala zeudela erakusten digu: Buiako datuen arabera,

<sup>10</sup> Uriartek egindako Orozkoko dotrinan ez dugu honen aztarrenik aurkitu, ostera, beti ere *yausten*, *yoaten* edo *yatsi* baitago (/ x / hotsa adierazteko *j* grafia darabil: *Jesus*, *Jaungoicoa*) (Pagola et al. 1992: 372).

<sup>11</sup> Jakina den bezala, palataltzea testuinguru hauetan gertatzen da:  $t \rightarrow tt \setminus i(n, l) \_ \_$  eta  $d \rightarrow dd \setminus in, l \_ \_$ .

/ t / beti bustitzen da: *aitte*,<sup>12</sup> *beitte*, *ereitten*, *deittu*, *maitti*, *iltten*, *loittu*... eta baita / d / ere: *egin ddot* eta *biilldu*. Beste koadernoetan (Ugao, Arrankudiaga eta Ludio, alegia), espero bezala, ez dago honelakorik. Damurik, ez dugu Arrigorriagako daturik, herri honetan baitago gaur egun muga; kontuan har dezakegu Uriartek Arrigorriagako dotrinan ez zuela honelako bustidurarik jaso.<sup>13</sup>

Hiatoetako bokal aldaketak ikusteko, gida legez, Bonaparteren *Phonologie de la langue Basque* eskuizkribua erabiliko dugu;

5. Orozco, Barambio: *éá, éá, ié, obá, ubé*

\_\_\_\_\_ Ergoien: *éá, éá, ié, omá-obá, ubé*

6. Arrigorriaga, Galdacano, Basauri, Miravalles, Baracaldo: *ié, ié, ixé, oá, ué*

\_\_\_\_\_ Llodio, Arrancudiaga: *iá, iá, ié, oá, ué*

(Bonaparte ca. 1868, ap. Elordui 1995: 443)

*-A + a > -ea > -ia > -ie* aldaketei dagokionez, Bonaparteren garaian zeuden eremu biak aurkitzen ditugu *El*ren garaian ere: Buian *-ie*, eta Arrankudiagan eta Ludioan *-ia*. Hala ere, Ugaoko koadernoan *-ia* aurkitzen dugu. Gure ustez, bada, Ugao eremu hauen arteko muga litzateke: Bonapartek forma bakarizat *-ie* eman arren, badirudi aukera biak egon zitezkeela Ugaon; agian Arrankudiagatik hurbilago zeuden auzuneez *-ia* forma mantendu zuten bitartean, Ugaoko beste auzo batzuek berrituko zuten jada Bonaparteren garairako.<sup>14</sup> Arrigorriagako dotrinan (Arretxe 1988), Uriartek *-ie* aldaera erabiltzen du beti: *sarrierie*, *Aitie*... Ugaoko gaur egungo euskaran, *-ie* eta *-ea* aukeran daude (Salazar 2001: 32). *-ie* bakarrik aurkitzeak adieraziko luke 1925ean prozesuan zegoen aldaketa burutu dela, baina *-ea* aurkitzeak berez *El*ko garaian zegoen egoeraren atzera pausoaren adibidea izango bailitzateke. Hala ere, Ugaok Zeberiorekin duen gertutasunak azal lezake egoera hau (bertan *-ea* dokumentatzen da, gutxienez gaur egun, ez baitugu aurkitu honen lekukotasunik Bonaparteren idazkietan; Etxebarria 1991: 88).<sup>15</sup>

*-E + a* hiatoan ere berdintsu: Buiak *-ie* eta Arrankudiagak eta Ludioak *-ia* egiten duten bitartean, Ugaon *-ia* da berriemaileak erantzuten duena: *luzia*,

<sup>12</sup> *Con sonido intermedio entre t y tt* oharra egiten digu Azkuek.

<sup>13</sup> Ezaugarri hau hedatuz joan dela ikusteko, Zaratamoko datuak hartzea baino ez daukagu. Gaminderen arabera herri honetan ere gertatzen da / t / eta / d / bustidura gaur egun (2007: 38); hala ere, herri honetako koadernoan palatalizatu gabeko formak dira nagusi: *beldur*, *aite*, *beite*...

<sup>14</sup> Hau frogatzeko *El*ko informatzaileen gaineko ikerketa biografiko bat beharko genuke: herriko zein auzotan bizi ziren, norgoa zuen senar-emaztea...

<sup>15</sup> Zaratamon ere, gaur egun *a + a > -ie* aurkitzen dugu (Gaminde 2007: 19), eta *El*ko berriemaileak ordurako *arrebie* erantzun zion galderari.

*egunian...*, tartean *-ie*-dun formak ere emanik: *gaubien*. Areago, Arrankudiagako koadernoan ere *e + a > ie* dago, Bonaparteren banaketa perfektua haurtsirik: *egunien*.

*-i + a* hiatoan, bi muturrak argi ditugu, Buia Bonaparteren Arrigorriagako hizkerarekin bat datorren bitartean, epentesiaz (*egidxe, lauorridxa...*), Laudion ez dago horrelakorik, beti *egieren* edo *beieren* tankerakoak bildu baitira han. Berriz, Ugao Buiarekin doan bitartean (espero bezala, Bonapartek dioskunarekin bat baitator), Arrankudiagako emaitzetan ere aurkitzen ditugu epentesidun aldaerak: *egiye*. Epentesi hau noiz sortu zen ez dakigu, baina Abandon bizi izandako J. P. Ulibarri idazleak jadanik egiten zuen (ca. 1820), Basauriko Astigarraga sermolariak bezala (ca. 1800) (J.P. Ulibarri 1823 eta Astigarraga 2007; cf. K. Ulibarri 2008a).

Amaitzeko, Gaminderen arabera Arrankudiagan eta Arakaldon ez dago *a + a > -ia* eta *e + a > ia* araurik, kasu bietan *-ea* emaitza izanik. Lehen begiratuan azaltzen zaila izan arren, lege fonetikoak atzeranzko bidea egitea litzatekeelako, baduke azalpenik: izan ere, gure ustez, hau eredu aldaketa bati zorko litzaioke; hau da, XIX. mendean bi herri horien eremu euskaldunik hurbilena Laudio zen bitartean (non *-ia* emaitzak aurkitu ditugun), XX.ean zehar Laudio erdalduntzearekin batera beste eredu (eredu prestigioduna?; cf. Arretxe 1994: 329) baten bila abiatu eta hurbil dauden Orozkon edo Zeberion aurkitu bide dute, non *-ea* emaitzak ditugun, hain zuzen.

#### 4.2. Izen sintagma

Erabilgarri dugu *-rantza* hurbiltze adlatiboaren *-rantx(a)* alomorfoa. Dialektologia lanetan ez da, dakigula, ezer idatzi honen gainean, baina *Elk* honako herri hauetan lekukotzen du: Eribe, Berango, Loiu, Orozko eta Laudio. Ostera, Nerbioi arroko beste herrietako koadernoetan (Buian, Arrankudiagan eta Ugaon) *-rantza* orokorra ageri zaigu. Nerbioi arrotik kanpoko lekukoetan ez dakigu, baina arro honetako testuetan erruz aurkitzen dira txistukari palataldun hurbiltze adlatibo hauek. Orozkoko 1739ko otoitzetan genuke lehen agerraldia: *gueugananch*, eta gero bai Uriartek itzultitako Orozkoko eta Arrigorriagako dotrinetan ere (*guganancha* eta *Jaungoicoagananchacoac*), baita Laudioko semea zen Ignacio Galindezek itzultitako *Ruthen liburuan* (1872) ere (*errirancha*) aurkitzen dugu.<sup>16</sup>

<sup>16</sup> Dena den, testu honetan bertan *erreinuranthza* ere aurkitzen da (cf. Ulibarri 2008b). Bestalde, *Viva Jesus* dotrinan ere *osterancheco* forma dago birritan, 1739ko data aurreratuko



Datibo pluralaren bereizketari dagokionez, Gamindek diosku Hego-Uribeko herri gehienek, azentuaren bidezko bereizketarik ez dutelako edo, datibo plurala bereiztea morfologikoki egiten dutela; hau da, *-airi* atzizkia erabiltzen dute plurala ezberdintzeko.<sup>17</sup> *Erizkizundiko* datuen arabera, atzizki hau Arrankudiagan, Laudion eta Orozkon erabiltzen dute gure eremutik landa dauden beste herri batzuekin batera, Ugaok eta Buiak *-ari* duten bitartean. Honela, hegoaldetik iparraldera ibilitako ezaugarria genuke honako hau, fonologian ez bezala, non berrikuntzak Buiatik Ugaora (hots iparretik hegora) doazen. Forma honen lehenengo agerraldia, dakigula, Orozkon dago, 1739ko otoitzean agertzen den *semeayri* hitzean. Dena den, formaz berdinak badira ere, esanahiz ezberdinak dira, XVIII. mendeko lekukotasunak singularreko adiera baitauka.<sup>18</sup>

## 5. Ondorioak

Lan honetan zehar, *Erizkizundi Irukoitzaren* datuez baliatuz, Nerbioi Arroko euskararen azterketa dialektologikoa egiteko lehenengo pausak ematen saiatu gara. Gure dialektologiaren ikuspegia diakronikoa izanik, isoglosak herri batetik bestera nola mugitu diren aztertzea genuen helburu. Honetarako, gehienbat ezaugarri fonetikoez baliatu gara, eta euren ibilbidea markatu dugu herririk herri. Esan gabe doa ondorio hauek behin behinekoak direla, lehen hurbilketa baten ondorio, bai ezaugarrietan, baita bestetan ere alde batera utzi ditugunak bai baitira, berehala aipatuko ditugun arazoez gainera.

Lehen ondorioa izan da Zuazok gaur egun Nerbioi ibarreko hizkeratzat jotzen duena Bonaparteren garaian oraindik osatzen zebilela egiaztatzea, ikusi

---

zukeena; hala ere, dotrina hau nongoa eta noizkoa den argi ez dakigun bitartean, nekez aterako dugu ondorio zehatzik bere datuetarik (hurbilpen baterako, ik. Lakarra 1997: 501).

<sup>17</sup> Hala ere, Salazarrek (2001: 42) ez du ezer esaten honi buruz Ugaoko euskara deskribatzean, eta bai singularrean, bai pluralean *-ari* forma bera erabiltzen dela dio. Arretzek (1994: 102), ordea, Basaurin lekukotzen du, erabiliena *-ari* dela esan arren.

<sup>18</sup> Gure ustez (baina oraindik ondo ikertu behar dugu) *-airi* pleonasmu bat da, *-ai* atzizkia (singular zein plural, genitiboan gertariko aldaketa berarekin, cf. Castaños 1957) berriz markaturik *-ri* zatiarekin. Honela, atzizki zaharra eta berria batera erabiliko ziren singular zein plural adieraziz, bereizketa azentuaren bidez gauzatzen baitzen, gaur egungo bizkaiera gehiengan bezala (Gaminde 1995). Hala ere, bereizketa hau galdu zenean (azentu bidezko bereizketarik ez duten herriak ikusteko, Gaminde 1995: 77) forma bakoitzak funtzio bat hartuko zuen, *-ai* atzizki zaharra singularraren balioa hartuz eta *-airi* berria pluralarena.

baitugu Bilbo (Buia) eta Arrigorriaga ingurutik xx. mendean zehar oraindik ere ezaugarri batzuk hedatuz joan direla beste herrietara; adibidez, / t / eta / d / hotsen palataltzea Zaratamora iritsi dela (?). Bonaparteren datuen zehaztasuna ere dudan jartzeko aukera izan dugu, berak burutuzat emandako berrikuntzak 1925ean oraindik burutu gabe baitzeuden Erizkizundiko datuen arabera, Ugaon  $a + a > ea > ia > ie$  bilakabidearen burutzea lekuko. Agian hegoaldeetik iparraldera joan zen ezaugarri bat ere aurkitu dugu (-airi atzizkia datibo plurala adierazteko), nahiz eta oraindik ez jakin esanahi dialektalik duen ala ez.

Honetaz gainera, berriemaileen hizkeraren kokapenerako zenbait hipotesi egitea lortu dugu, hauen erantzunen argitan. Dirudenez, Ugaoko berriemailearen euskarak aldaketa zenbait burutu gabe zeuzkan, Arrankudiagaren antzeko egoeran mantentzen ziren (linguistikoki Arrankudiagara begira zegoelako edo Bonaparteren garaian ere honelako bikoiztasunak aurkitzen zirelako). Arrankudiagako berriemaileari dagokionez, gaur egun bertako hizkeran aurkitzen ez diren berrikuntzak aurkitu ditugu (epentesia edo sabaikariaren txistukaritzea adibidez): gauza da ez dugula haren berri zehatzik, oso hiztun berritzailea ote zen, Arrigorriagaren inguruarekin erlazioak izateagatik, adibidez (adinak ere hipotesi honetara hurbil gaitzake, gainontzeko informatzaileek 70 urterik gora dituzten bitartean honek hogeituzet gutxiago baitauzka); edo Zollorantz begira dagoen baserri auzo batean bizi ote zen (Zollon gaur egun bai aurkitzen ditugu berrikuntza hauek; izan ere, Zollo ere, administrazioz Arrankudiagakoa izan arren, Zuazoren Nerbioi ibarreko euskararen barruan kokatzen da; Gaminde 2007: 19 eta 33 e. hh.).

Baina gure txosten honen ondorio garrantzitsuena —edo hala nahi genuke, behintzat—, 1925eko galdetegi honen erantzunekin oraindik zer-nolako lana egin dezakegun erakustea zen: altxor bat dugu, ez bakarrik gainerako ikerketa dialektologikoen osagarri gisa, haietan dauden hutsuneak osatzeko moduan, baita hizkerak denboran zehar jarraitzeko 1925eko lekukotasuna eskaintzen digulako ere, gaur egongo egoera eta Bonapartek bildu zuenaren artekoa, ezaugarrien bilakabide historikoa zehatzago ezagutzeko moduan. Honi laguntzeko, azpimarratu nahi genuke koadernoetan agertzen diren berriemaileen datuak ahaleginean osatu beharko lirатеkeela, baldin eta haien erantzunak hobeto ulertuko baditugu (zein auzotan bizi zen, nongoak ziren senar-emazteak)...

Lan honek Nerbioi ibarreko azterketa dialektologikorantz garamatza, baina oraindik bide asko geratzen zaigu egiteko, apurka-apurka jorratu beharre-

koa. Oraindik Hego-Uribeko herri askoren hizkeren deskribapenak falta zaizkigu, eta deskribapenekin batera arroko isoglosak bilatzea eta mugatzea; honela, hurrengo lanak isoglosa hauetaz baliatu ahalko lirateke, berriz ere deskribapeneko datuak interpretatzeko eta datu berriak bilatzeko. Oraindik behar asko dugu euskal dialektologian. Lan honek balio beza behar berrien eta hobeen akuilutzat.

## Bibliografia

- Arretxe, J., 1988, “Arrigorriagako Dotrina”, *Litterae Vasconicae* 4, 53-96.
- , 1994, *Basauriko euskara*, Basauriko udala: Basauri.
- Astigarraga, J. I., 2007, *Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854) sermoitegia* [Etxebarria & Apraizen edizioa], Labayru ikastegia (Jarein bilduma): Bilbo.
- Aurrekoetxea, G., 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, EHUKo argitalpen zerbitzua: Bilbo.
- Azkue, R. M<sup>a</sup>., 1905-06, *Diccionario Vasco-Español-Frances*, (= DVEF), [2. arg. faksimilean 1969], LGEV: Bilbo.
- , 1926, “Observaciones acerca de la obra *Langue basque et langues finnoises* del principe L. L. Bonaparte”, *Euskera* VII-3/4, 17-36.
- Barrenengoa, F., 1988, *Onomástica de la tierra de Ayala I —patronímica—*, Arabako Foru Aldundia: Vitoria-Gasteiz.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako gobernua: Iruñea.
- , 2004, “Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian”, *Euskera* 49, 67-102.
- Castaño, F., 1957, “El genitivo en vizcaíno antiguo”, *BAP* 13, 60-69.
- Echaide, A. M<sup>a</sup>., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*. *Iker* 3, euskaltzaindia: Bilbo.
- Elordui, A., 1995, “Bonapartek osaturiko bizkaieraren sailkapenak”, in Gomez & Lakarra, *Euskal dialektologiarako kongresua (Donostia 1991ko irailak 2-6)*, ASJUren gehigarriak 28, 433-463.
- Etxebarria, J. M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa Etno-linguistikoa*, Ibaizabal: Zornotza.

- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Obiko euskal mintzamoldeen antologia*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Gaminde, I., 1983, "Orozkoko aditzak", *FLV* 41/42, 37-93.
- , 1987, "Bilboko euskara aztertzeko materialak", *FLV* 50, 207-250.
- , 1990, *Bilbo berbaz berba*, Bilbo berreuskalduntzeko Koordinakundea, Bilbo.
- , 1994, *Bilboko Larraskituko euskaraz*, Bilboko Udala, Bilbo.
- , 2002a, "Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan", *Euskalingua* 1, [euskarri elektronikoa in [www.mendebalde.com](http://www.mendebalde.com)].
- , 2002b, "Gaurko Bilboko euskararen ezaugarriak" in *Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntza gunea. Sinposioa*, Deustuko unibertsitatea, Bilbo, 391-414.
- , 2007, *Bizkaian zehar. Euskararen ikuspegi orokorra*, Mendebalde kultura alkarte: Bilbo.
- Garigorta, J. R. & I. Gaminde, 1986, "xviii. mendeko otoitz batzu", *Enseiucarrean* 2, 61-65.
- Lakarra, J. A., 1983, "Oharrak zenbait arkaismoz", *ASJU* 17, 41-68.
- , 1984, "Bizkaiera zaharreko ablatiboaz", *ASJU* 18-1, 161-194.
- , 1986, "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* 20-3, 639-682.
- , 1996, *Refranes y Sentencias (1596) ikerketak eta edizioa*, (= RS), Euskaltzaindia: Bilbo.
- , 1997, "Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri", *ASJU* XXXI-2, 447-535.
- Mitxelena, K., 1958[1998], "Introduccion al diccionario de landuchio", berreg. in Knörr, & Zuazo, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko legebiltzarra: Gasteiz, 21-48.
- , 1964[1990], *Textos arcaicos vascos*, 2. arg. ASJU-ren gehigarriak 11: Donostia.
- , 1964[1988], *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 2. arg. in *SHLV*, 1-73.

- , 1977[1990], *Fonética Histórica Vasca*, (= FHV), ASJU-ren gehigarriak 4: Donostia.
- , 1978, “Miscelanea filológica vasca II”, *FLV* 10, orain *PT*, 387-410.
- , 1981a, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 291-313 orain *PT*, 35-55.
- , 1981b, “Encuestas lingüísticas en el País Vasco”, *Euskera* 26, 133-145.
- , 1981c, “Sobre las necesidades de una exploración lingüística de Euskal Herria”, *Euskera* 26, 873-881.
- , 1991, “De dialectología vasca”, *FLV* 58, 179-203.
- Pagola, R. M. *et al.*, 1992, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Bizkaiera* (3 Liburuki). Euskal ikaskuntzen institutua (Deustuko Unibertsitatea): Bilbo.
- Salazar, B., 2001, *Ugaoko euskara*, Ediciones beta III milenio: Bilbo.
- Ulibarri, J. P., 1823, *Gutunliburua*, eskuizkribu argitaratu gabea, [arg. faks.: Arabako Foru Aldundia: Gasteiz, 1975].
- Ulibarri, K., 2007, “Zenbait ohar J. P. Ulibarriren lexikografia lanez”, *Boletín de la Institución “Sancho el Sabio”* 26, 33-50.
- , 2008a, “xix. mendeko hiztegien azterketaz: J. P. Ulibarri Galindezen hiztegiaren kasua”, Koldo Mitxelena katedraren II. Biltzarreko aktetan agertzekoa.
- , 2008b, Ruth-en liburua (Ignacio Galindez). Edizioa eta azterketa, 2008an aurkezturiko master-lan argitaragabea.
- , prestatzen, “Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat”.
- Urgell, B., 1985, “Literatur bizkaieraz: Añibarroren Esku-liburua”, *ASJU* 19:1, 67-117.
- , 1987, “Añibarroren idazlanak I: Nekea arindurik”, *ASJU* 21:1, 211-263.
- , 1988, “Añibarroren idazlanak II: Lora Sorta Espirituala”, *ASJU* 22:1, 7-92.
- , 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *R.L. Trasken oroitzapenetan ikerketak Euskalaritzaz*

*eta Hizkuntzalaritza historikoz*, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, Donostia/Bilbo, 921-948.

Urkijo, N., 1994, Zenbait apunte Laudioko euskaraz, UEU: s.l.

Zabala, J. M., 1848, *El verbo regular vascongado*, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja: Donostia.

Zuazo, K., 2005, *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkarlanean: Donostia.



# Baztan-Bidasoko ohar lexiko zenbait: Pirinioetan gaindiko saio xume bat

EDU ZELAIETA ANTA

EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika

## 1. SARRERA<sup>1</sup>

Euskaltzaindiaren biltzar honetan Pirinioak eta hizkuntzak ardatza izan direla kontuan harturik, ezin dugu ahantzi Larun mendia (900 metro) dugula mendebaleko lehenbiziko pirinio ofiziala, Lapurdiko Sara eta Nafarroako Bera herrien tartean. Hori dela eta, Larundik ekialdera abiatu, Baztan-Bidasoko euskararen gaineko ohar lexiko xume batzuk egin nahi ditugu, mendebaleko Pirinioetan gaindi.

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak berak berriki argitaratu duten *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* izeneko gure tesi-lanari segida emanez (ikus bibliografian), zenbaitetan, linguistikoki nola lexikoki, Nafarroako Baztan-Bidasoak Ipar Euskal Herriarekin bat egiten duela ohartu gara, nabarmenago betiere Baztanek Bidasoaldeak baino; eta, bidenabarrekoan, mendebaleneko Pirinioek ez dituztela ezinbertzean bi alderdiak elkarrengandik aldendu erakutsirik.

Oraingoan, zehazkiago errate alde, tesian horrenbertzeko pisurik izan ez duen afera lexikalari ekin diogu. Izan ere, hala Baztanen nola Nafarroako Bidasoaldean ezin ukatuzkoak dira Ipar Euskal Herriatik jasotako eragin lexikalak. Hain zuzen, Baztan-Bidaso eta Ipar Euskal Herria elkarrekin lotzen dituzten solas zenbaitzuen gainean aritzeko asmoa dugu. Hitzok bereziak dira

---

<sup>1</sup> Hitzek hitz erantzuteagatik eskerrak eman nahi dizkiegu ondoko lagun hauei: Auxtin Zamora (Senpere), Beñardo Goietxe (Zugarramurdi), Bernadette Errandonea (Sara), Graxi Solorzano (Azkaine), Joseba Otondo (Elizondo-Baztangoiza), Maitane Maritorea (Baztango Basaburua), Markel Lizasoain (Basaburu Txikia-Malerreka), Paxkual Rekalde (Baztangoiza), Txomin Sagarzazu (Irun-Hondarribia) eta osaba dugun Joxe Mari Zelaietari (Bera). Bertze alde, Iñaki Camino irakasleari artikuluko honi ohar aberasgarriak egin izana eskertu nahi diogu. Halaber, artikuluan eskaintzen diren mapak Nagore García de Madinabeitiaren laguntzaz eginak dira.



Nafarroako ibar eta herri gehienetan falta direlako, ez, ordea, Baztan-Bidasoa ondoko eremu lapurtar eta baxenafarrear.

Baztan-Bidasoko euskararen berri laburbildua eman ondoan, Ipar eta Hego Euskal Herriaren mugalderako harremanen inguruko datu zenbait eskainiko ditugu, Pirinioetan gaindiko lotura linguistiko-kulturalak hobeki konprenitzeko asmoz.

## 2. BAZTAN-BIDASOKO HIZKERAK

Auza (1305 metro) mendiaren mazelan, Xorroxin izeneko alderdian sortzen da Baztan ibaia, Erratzun, Izpegi inguruan. Izen horrekin ezagutzen zaio Bertizaranara iritsi bitartean, Oiiregin berean Bidasoa izena hartzen baitu<sup>2</sup>; bai eta izen horrekin jarraitu Txingudiko Badian hiltzen den arte ere. Guztira 69 kilometroko bidea du; hauetako 59 Nafarroan eta 10 Gipuzkoaren eta Lapurdiren artean.

### Baztan-Bidasoa ibaia



<sup>2</sup> Jakin, badakigu Doneztebeko zubiak Baztanzubi duela izena, eta pentsatzekoa denez, baita izana ere iraganean. Hala aldarrikatzen du, bertzeak bertze, Bertizarana eta inguruak on-gixko ezagutzen dituen Eduardo Gil Bera idazleak (1994: 3-4). Kontuak kontu, haatik, egun, ibaia Oronoz-Mugairin aldatzen du izena, Baztango muga-hirian.

Hain zuzen, ibai honek Nafarroan ureztatzen dituen bazterretan barrena murgildu gara hondarreko urteotan, bertako hizkerek nondik norako mugak dituzten ikusteko asmoz. Urak bilarazi ditu aspalditik azter-eremuko jendeak eta herriak; ibaiak egituratu baititu bertako dinamika sozio-espazialak.

Dena den, errealitate hidrografiko bat eratzen duen Baztan-Bidasoa ibaiak bi izen eta bi izan hartzen ditu Nafarroan berean: *Baztan ugeldia* eta *Bidasoa erreka*. Merinok *El desarrollo económico de la cuenca del Bidasoa* doktorego-tesian “Regata” eta “Baztán” terminoak darabiltza (1983). Errealitate bikoitza ageri duen eremu baten aitzinean gaude, beraz: guk lanean eta euskaraz “Bidasoaldea” eta “Baztan” izendatuko ditugunak<sup>3</sup>.

### *Nafarroako Bidasoaldea*

Dialektologoak egin beharreko taxonomia-lanak direla eta, honako herri eta ibar hauek sartu beharrekotzat ditugu guk Nafarroako Bidasoaldearen multzoan: hegotik iparrera eta mendebaletik ekialdera zerrendatuta, Saldias, Beintza-Labaien, Malerreka, Sunbilla, Bortzerriak, Bertizarana eta, sail honen ertzetik hurbil samar, Baztango Oronoz-Mugairi.

Gure doktorego-tesiarenean arabera, Bidasoaldeko euskarak lau trantsizio-gune nagusi ditu: (i) Zubietan hasi eta bereziki Basaburu Txikiko ipar-ekialdean dagoen aldakuntza-giroa; (ii) (Bortzerrietan zerbaixko hasi eta bereziki) Gipuzkoako Bidasoaldean eta, apalago, Oiartzunen dagoena; (iii) Nafarroako Bidasoaldearen barreneko trantsizio apala den Sunbilla; (iv) Oiiregin hasi eta bereziki Oronoz-Mugairin dagoena.

### *Baztan*

Euskara nafar-lapurtarrak dituen ezaugarrietatik franko betetzen dira Baztanen. Dena den, Ipar Euskal Herrian ohikoak eta sistematikoak diren bereizgarri gehienak Baztanen gibelka eta indarge ageri dira gaur egunean: lotura hauek aspaldi eginak dira, hartu-emanak aldatu direlako seinale. Ibar honek Ipar Eus-

---

<sup>3</sup> Badira, dena den, Pio Barojaren “País del Bidasoa” izendapen (gure ustez) bukolikoaren tradizioaren jarraitzaileak, guk darabilgun Baztan-Bidasoa osoari errateko. *Diario de Noticias de Navarra* egunkarian gustura aski irakurtzen dugun kronikagile Lander Santamaría izan liteke etsenplu nabarmen bat (ikus, adibidez, Santamaría & Ondikol 2006: 10, 71 edo 290).

kal Herriarekin zituen loturak ahuldu ahala, Nafarroa Garaiarekikoak —Hego Euskal Herriarekikoak— indartu eta sendotu ditu. Ondorioz, XXI. mendearen hasiera honetan, Baztanen aditzen den euskal mintzoa, gazte(ago)ena bereziki, ez da trantsizio bete-betekoa, dagoeneko nafartuxea baita Baztango solasa; eta, denboraren poderioz, are nafarrago bihurtzera joko duela ematen du.

Nafarroako Bidasoaldean bezala, Baztango euskararen ere badira koloreak eta ñabardurak. Gure tesian Baztanen barreneko ezberdintasunak lau eremutan berezi ditugu: Bidasoaldetik hurbilago den (i) Oronoz-Mugairi, (ii) Basaburua, (iii) Baztangoiza eta (iv) *erdigunea* deitu duguna: Arraioz, Lekaroz, Gartzain, Irurita, Elizondo eta Elbete.

Hizkeren estatusaz den bezainbatean, Bidasoaldean euskara nafarraren azpieuskalki bat eta Baztanen euskara nafarraren bertze azpieuskalki bat ageri dira: Bidasoaldeari nortasun berezia ematen dioten tasunak ikusi ditugu gure tesian, baita Baztani nortasun berezia aitortzen diotenak ere. Eta, eremu bakoitza banatzen duten ezaugarriak ikusi baldin baditugu ere, mintzo bakoitzak erakusten duen barreneko batasunak azpieuskalkiaren maila ematen die. Beraz, Baztan-Bidasoan euskalki bereko bi eremu lektal nagusi dakuskigu gaur-gaurkoz: Nafarroako Bidasoaldea eta Baztan, biak gaurko euskara nafarrean. Edo, nahiago bada, XXI. mendeko nafarreraren bi azpieuskalki ditugu, euskara nafarrak egun bizien eta bizkorren dituenak.

### Bidasoaldeko eta Baztango azpieuskalkiak, gaurko euskara nafarrean



Halarik ere, Baztan-Bidasoko hizkerek erdialdea eta Ipar Euskal Herria ondoan dituztenez, bi eremuotako eragina sumatzen da: gehiago erdialdea Bidasoaldean eta nabarmenago Ipar Euskal Herria Baztanen. Hona hemen, beraz, kartografiaren bidez, Baztan-Bidasoako (eta inguruko) hizkeren egitura geolinguistikoa:

### Baztan-Bidasoko (eta inguruko) hizkeren egitura geolinguistikoa



### 3. MUGALDEKO HARREMANAK PIRINIOETAN GAINDI

Mendebaleko Pirinioez ari garen honetan, erran dezagun Baztan-Bidasoko lagunek harreman historikoak izanak dituztela Ipar Euskal Herriko jendearekin, bereziki muga egiten duten baztandarrek, beratarrek eta etxalartarrek (zer erranik ez, Otsondoz bertze aldeko urdazubiarrek eta zugarramurdiarrek). Azken batean, erran genezake inguru hauetako mendiak ez direla sobera oztopo gertatu bi aldeak elkarrengandik aparte ibiltzeko.

#### *Ferriak eta azokak*

Baztan-Bidasoan egiten diren azoka garrantzitsuenak Lesakan, Donezteben eta Elizondon izaten dira. Historiako lekukotasunen arabera, Elizondoko merkatura Ipar Euskal Herriko nekazariak ere joaten ziren. Gisa berean, Nafarroa Garaiko bizilagunak ere Ipar Euskal Herriko merkatuetara joan izan dira:

La encuesta verbal directa, ha permitido comprobar la concurrencia a los mercados de Hendaya, Bayona, San Juan de Luz, y San Juan de Pie de Puerto de los habi-

tantes de nuestras comarcas fronterizas (Cinco Villas, Santesteban, Baztán, Aezcoa). En el caso de Lesaca y Elizondo, incluso salía un autobus para San Juan de Luz y Bayona respectivamente el día de mercado, que en el primero tenía lugar los viernes, si bien era más importante quincenal que semanalmente (Casas & Abascal 1948: 20).

Gaur egunean, berriz, harremanok franko eten dira. Segur aski, landa giroko bizimodua goitik beheiti aldatu izanak ere ahuldu ditu salerosketarako guneok. Nolanahi ere, kontua da egun Bortzerrietako baserritar bakan batzuk soilik joaten direla Lapurdira, guk dakigula, batez ere Donibane-Lohizunera eta Azkainera. Baztandik ere jende gutixkok zeharkatzen omen du muga, nahiz eta oraindik zenbait baztandar ikusten diren Ezpeletan edo Garazin (Santamaría & Ondikol 2006: 30-32).

### *Baionako Elizbarrutia*

Elizaren lurralde-egituraketa historikoari dagokionez, badakigu Baztan-Bidasoa osoki (baita ere Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaide, Nafarroan; eta Gipuzkoan, Pasaiatik Irun-Hondarribiraino) Baionako Elizbarrutiaren barrenean zegoela. Egoera horrek iraun zuen Felipe II.a erregeak 1566an Baztan-Bidasoa Iruñeko Gotzaindegia lotu zion arte<sup>4</sup>.

### *Fazeriak*

Fazeriak bi herriren edo gehiagoren arteko mugako larre-lurra erabiltzeko ituna dira. Imanol Trebiñok bere lanean gaztigitzen digunez, Baztan eta Sara ditugu mugaldeko fazeriak direla eta idatzizko euskal agiri gehien eragin duten udalerrak, nahiz eta Berak eta Etxalarrek ere bertze zenbait izenpetuak dituzten (2000: 74-75).

### *Gau-lana*

Kontu jakina da kontrabandoak Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanak azkartu dituela. Kontrabandoaren edo *gau-lanaren* berri eman

---

<sup>4</sup> Nolanahi ere, Baionako apezpikuarekiko harremanak ez bide ziren bat-batean ezabatu: [...] existen pruebas en el archivo del castillo de Urtubia que demuestran claramente la continuidad de relaciones con Bayona. Se trata de un contrato de arrendamiento de los diezmos y otras rentas que el obispo de Bayona poseía en Cinco Villas y los valles de Baztán, San Esteban de Lerín y Bertiz (Uranzu 1955: 326).

diguten lagunak franko izan dira. Gure azter-eremuan sartzen ez diren Urdazubi eta Zugarramurdiz gainera, Baztan, Etxalar eta Bera ditugu harremanotako partaide nagusiak. *Gau-lanaren* sasoi indartsuena Bigarren Mundu Gerraz geroztik 70eko hamarkada bitartekoa da, nahiz eta aitzinetik eta ondotik ere ezaguna izan (cf. Douglass 1977, Perales 2004, Arburua 2005).

Beraz, mugaren inguruko herrien arteko harremanak nabarmenak izan direla ikusi dugu, eta ondorioz, konprenitzekoa da hizkeretan ere harreman horiek eragina izatea. Honela azal daiteke zergatik iritsi diren isoglosa batzuk Berara eta Etxalarrera, eta ez Lesakara, Arantzara edo Igantzira (adibidez, puntukaritasuna adierazteko balio duen *-ki* aditz adizkia: *ibilki naiz* ‘nabil’). Edota, nondik nora iritsi diren Baztangoizara zenbait hitz (*arno*, *botike* ‘denda’, *deliberatu*), eta ez Arraiozera edo Anizera.

#### 4. BAZTAN-BIDASOKO OHAR LEXIKO ZENBAIT: PIRINIOETAN GAINDIKO SAIO XUME BAT

Tamalez, oraindik alderdi lexikoaren azterketa dialektologiaren atalik antzuen gertatzen da maiz. Arras konplexua zaigu eremu batera jatorri ezberdina duten eragin lexikalak nondik eta noiz etorri diren zehaztea. Nafarreraz edo euskara nafarraz den bezainbatean, erraterako, zail da hagitz Sakana erdialdean, Arakilen, Ultzaman, Atetzen, Odietan, Txulapainen, Ezkabarten, Olaiarren, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan, Baztanen eta Bidasoaldean baliatuko den eta Nafarroakoa baizik ez den lexikoa harrapatzea. Dena den, ohartu garenez, ekialdekoa den hitz bat Ultzaman dagoenean, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan eta Artzibarren ere agertzen ohi da; nahiz eta Aezkoako guztia Baztanen ez kausitu edota, Orreaga Ibarrek ongi erakutsi zuenez (1995), Ultzamako guztia Imotzen ez egon<sup>5</sup>.

##### *Pirinioetan gaindiko saio xume bat*

Sarreran aipatu bezala, Baztan-Bidasoa eta Ipar Euskal Herria elkarrekin estuki lotzen dituzten solas zenbaitzuk aurkitu ditugu. Haatik, Baztan-Bi-

<sup>5</sup> Gure iduriko, haxe da egungo Euskal Dialektologiak egin beharreko galderetako bat: Zein da solas bat nafarreratzat hartzeko baldintza? Arazo honen gainean zenbait erantzun-asmo ikusi nahi duenak Caminoren hondar lanera (2009) nahiz gure tesira (Zelaieta 2008) jo dezake.

dasoak eta Ipar Euskal Herriak aise ezaugarri linguistiko gehiago partekatzeko dituztela ohartarazi nahi dugu; fonetika-fonologian nola morfosintaxian.

Gorago erakutsi denez, Baztan-Bidasoko hizkerak funtsean nafartzat baldin baditugu ere, Ipar Euskal Herriko euskararen —bizimoduaren— eragina sumatzen ahal da eskualdean. Kontua da, eta honetantxe datza bereziki saio hau, ondotik zerrendatuko ditugun item lexikalak Nafarroako ibar eta herri gehienetan falta direla, Baztan-Bidasoan ez bezala<sup>6</sup>. Hauxe izan da, hain zuzen, hitzak hautatzeko irizpide nagusia, Iparraldetik Baztan-Bidasoara isuritako eragin lexikal espezifikoa hobeki neurtzeko asmoz<sup>7</sup>.

Dena den, pentsatzekoa denez gero, ezaugarri lexiko hauen isoglosak ez dira beti Baztan-Bidasoko toki berean kokatzen, hots, ez dute hitz guztiek geografia-hedadura bera. Hori dela eta, isoglosa lexikalok zenbait multzotan sailkatu ditugu, non kokatzen diren hobeki jakiteko eta informazio xeheagoa emate alde. Lehenbiziko multzoan Baztan-Bidaso osoki besarkatzen duten eta Ipar Euskal Herriko euskararen usu aditzen diren solasak zerrendatu ditugu:

## 1. Baztan-Bidaso eta Ipar Euskal Herria

*abarrikatu* ‘suntsitu, txikitu’, *abre* ‘zaldi eta behor gisako azienda’, *aire gaizto* & *zimizta*, (*a*)*ixtur* ‘guraize’, *aldaira* (Bidasoaldea) & *aldaire* (Baztan) ‘etxe aldaketa, mudantza’, *andana* (Baztan) & *endana* (Bidasoaldea), *arraildu* ‘pitzatu nahiz arras mozortu’, *atsankatu* ‘arnasestuka’, *ausarki* (& *azkarki* & *bizkorki*) ‘ugari’, *a(u)tsiki* ‘kosk egin’, *banaz bertze*, *balekebale* & *balekabale*<sup>8</sup> ‘badaezpada’, *besta*, *Besta Berri* ‘Corpus Christi’, *dermio*, *estomaka*, *ogi* (& *gari*)<sup>9</sup>, *fier*<sup>10</sup> ‘azkar,

<sup>6</sup> Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duten Esteribarren eta Erroibarren nola Aezkoan ageri dira hitz hauetatik zenbait (Ibarra 2007, Camino 1997).

<sup>7</sup> Gure berriemaile eta laguntzaileez landara, Izetaren *Baztango hiztegia* (1996), Salaburu & Lakarren *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (2005) nahiz Salabururen “Hiztegi kon-tuak Baztan aldean” izeneko artikulua (2008) eskuartean izan ditugula adierazi nahi dugu.

<sup>8</sup> *Balekibale* aldaera atzeman dugu Luzaideko hiztegian (Kamino & Salaberri 2007).

<sup>9</sup> Izen bezala, *gari* gehiagotan erabiltzen da; baina, *ogilanda*, *ogiburu* erakoak gailen dira eskualdean.

<sup>10</sup> Hitz hau Esteribarren eta Erroibarren nahiz Aezkoan ezaguna da (Ibarra 2007, Camino 1997).

sendo', *laketu*<sup>11</sup> 'toki edo jarduera batean ohitu', *luzerna*<sup>12</sup> 'alpalpa', *kapable* 'kapaz', *koleratu* (Baztan) & *koletu* (Bidasoaldea) 'biziki haserretu', *landa* 'soro, alor', *piro* 'ahate', *porrakatu*<sup>13</sup> 'xehetu, txikitu', *propri*<sup>14</sup> 'ederra', *sainga* 'zaunka', *saki* & *sakaila* 'ebaki sakona', *serora*, *tirria* 'gogo bizi, irrika', *tolota*<sup>15</sup> 'ustela', *xulufrai* & *xulufrin* '(basa)krabelin', *zertaz* 'zergatik', *zipatu* 'blaitu, erabat busti', *zinaurri*, *zimiko* 'atximur', *zozo* 'ergel'.

39 item lexikal aurkeztu ditugu lehen multzo honetan. Beharbada, gehiago ere izanen dira geografia-hedaduraren baldintza bete eta, hortaz, sistematizatzen ahal direnak. Oraingoz, urrats tiki bat agertu dugu.

## 2. Baztan eta Ipar Euskal Herria

Bigarren zakutto batean antolatuta, Baztan eta Ipar Euskal Herria lotzen dituzten solasak bildu ditugu; honetan, beraz, Baztan Iparraldeari atxikiago ageri da Nafarroako Bidasoaldea baino. 14 hitz aurkitu ditugu Baztan osoan eta ondoko Lapurdin nola Nafarroa Beherean erabiltzen direnak:

*ai(z)katu* 'uxatu', *aiuta*<sup>16</sup>, *amultsu*, *be(h)atu*, *doike(be)*<sup>17</sup> "segur aski, dudarik gabe", *eskuzarta* 'txalo', *hemengo aldi*<sup>18</sup>, *ele*<sup>19</sup>, *enantzu*<sup>20</sup> '(lanerako) gaitasun, gogo', *hits*, *buxon* 'tapoi', *estekatu*, *zafla*, *zafra(tu)* 'egurtu'.

<sup>11</sup> Baztan-Bidasoan trantsitiboa da aditz hau. Aezkoan ere bada, Iñaki Caminok erran digunez.

<sup>12</sup> Frantsesez 'luzerne' den hau Ultzaman (Ibarra 1995), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2007) nahiz Aezkoan ere erabiltzen da.

<sup>13</sup> *Porroskatu* Luzaideko hiztegian (Kamino & Salaberri 2007).

<sup>14</sup> Frantsesez 'propre'.

<sup>15</sup> Erraterako, *arroltze tolota* aditzen da Baztanen eta *arroltze tola* sinkopatua Bidasoaldean. Orreaga Ibarrek *arro(l)tze torta* dakar Esteribar eta Erroibarrerako (2007), Aezkoan dagoen aldaera bera, Iñaki Caminok ohartarazi gaituenez.

<sup>16</sup> Salabururen erranetan hiru adiera ditu hitz honek: lastertasuna, gogor jotzea eta *urde aiuta* bezalako erramolde madarikaziozkoa (2008).

<sup>17</sup> Bidasoaldean *duikabe* aldaera aditzen ahal da, baina Baztanen baino aise gutiago. *De facto*, Baztango Euskara Elkarteak *Doike* du izena, ibar honetako hizkeraren ikur.

<sup>18</sup> Diosala zentzuan, sarrera gisa nahiz galdera gisa (cf. Salaburu 2008). Aezkoan ere ezaguna da, Caminok erran digunez.

<sup>19</sup> Ipar Euskal Herriarekin eta Baztanekin muga egiten duen Etxalar herrian ere bildua dugu *elezu* 'berritsu'.

<sup>20</sup> Ultzaman (Ibarra 1995) nahiz Aezkoan (Camino 1997) Baztango aldaera bera dago; Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2007), ordea, *enanzo*, eta Luzaiden (Kamino & Salaberri 2007), berriz, *ehantzu* hasperenduna.



### 3. Baztangoiza eta Ipar Euskal Herria

Halarik ere, zenbaitetan Ipar Euskal Herritik iritsitako eragin lexikalek ez dute Baztan osoa besarkatu eta (mugatik hurbilen den) Baztangoiza eskualde-  
ra bakarrik hedatu dira zenbait hitz. Guk honelako 10 zenbatu ditugu:

*a(a)lke* ‘lotsa’, *abantzu* ‘ia’, *akura* ‘errenta’, *arno*<sup>21</sup>, *botike* ‘denda’, *delibera-  
tu* ‘erabaki’, *ganbara* ‘logela’, *(i)kuzi* ‘garbitu’, *kuraia*, *urtarri*<sup>22</sup>, *zizerkora* ‘ka-  
zkabar’.

### 4. Bortzerriak, Baztan eta Ipar Euskal Herria

Ondotik emanen ditugun hitzak Bortzerrietan, Baztanen nahiz Ipar Eus-  
kal Herrian ohikoak dira. Hitz hauek muga gurutzatu baldin badute ere, ez  
dira Malerrekaraino iritsi. Bereizketa hau egiteari garrantzitsua deritzogu,  
arrunt guti baitakigu Bidasoaldeko diren Malerrekaren eta Bortzerrien arteko  
isoglosa banatzaileez.

Batzuetan, Bortzerrietan eta Baztanen baliatzen diren solasok Irun-Hon-  
darribian ere ohikoak dira edo, behintzat, ezagunak. Isoglosa hauek iparralde-  
tik heldu dira, horietako batzuk ez baitira Malerreka iritsi; bai, ordea, Irun-  
Hondarribira, Bortzerrietara eta Baztanera. Hitz hauen arabera, Bortzerriak,  
Lapurditik hurbilago ageri dira eta, Malerreka, gainerako mintzo nafarrei lo-  
tuxeago. Hona hemen, beraz, arestiko baldintza betetzen duten 12 hitz:

*afera*, *arros(e)la* ‘bixigu’, *agiyan (ere)* ‘desio eta konfiantza adierazteko’<sup>23</sup>,  
*antzi*<sup>24</sup> (vs. *atzendu*), *bizkar besta* (vs. *galdur besta*)<sup>25</sup>, *bokata* (vs. *lixiba*) ‘arropa-  
ren garbitzea’, *illar* (vs. *mallar & banabar*) ‘babarrun’, *illarbilla* (vs. *illar*) ‘ilar’,  
*kasalla* ‘kasaila, gatazka’, *kokin*<sup>26</sup> ‘aldarte txarreko’, *nardatu* (vs. *nazkatu*), *ze-  
rrakura* (vs. *itsindegi*) ‘hesitura’.

<sup>21</sup> Dena den, Hegoaldeko *ardo* nagusi da Baztangoizan berean.

<sup>22</sup> Baztan-Bidasoan eta eremu zabalagoan baliatzen den *ilbeltz* ere ezaguna da Baztangoizan.

<sup>23</sup> *Benitta berri bat paratu te Ibaridiñan, ya ongi ateitzen zayoten. Agiyan bai!* (Bera).

<sup>24</sup> Irun-Hondarribian ere ezaguna da, *aztu* nagusi baldin bada ere. Baztanen, berriz, *antzi*  
Baztangoizan erabiltzen da gehien.

<sup>25</sup> Banaketa garbia eskaintzen du Huartek bere tesian (2003: 149-150): *bizkar besta* Ipar  
Euskal Herrian, Esteribarren, Erroibarren, Baztanen, Urdazubi-Zugarramurdin eta Bor-  
tzerrietan; *galdur besta*, berriz, Anuen, Ultzaman, Bertizaranan, Malerrekan eta Basaburu  
Txikian.

<sup>26</sup> Frantsesez ‘coquin’. Ultzaman ere baliatzen da (Ibarra 1995).

## 5. Bera, Etxalar, Baztan eta Ipar Euskal Herria

Bortzerriak banatzen dituzten hitzak ere aurkitu ditugu, gutixko izanda ere. Multzo honetan, Bidasoari kasu eginez, bi azpisail eginen ditugu: 5.1. Bera eta Etxalar Bortzerrietako gainerako herrietatik aldentzen duten itemak eta 5.2. Etxalar bertze lau herrietatik urruntzen dutenak. Bidasoari kasu eginez genioen arestian, zeren eta ibaiak Bortzerrietako herriak banatzen ditu: alde batera, Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duten Bera eta Etxalar uzten ditu eta, bertze aldera, berriz, Arantza, Igantzi eta Lesaka:

5.1. Bera, Etxalar, Baztan eta Ipar Euskal Herria: *eya*<sup>27</sup> ‘ukuilua’; *gasna*, *ttu* (vs. *listu*), *zilo*.

5.2. Etxalar, Baztan eta Ipar Euskal Herria: *boneta* (vs. *zapela*); *fite*<sup>28</sup>, *manatu*<sup>29</sup>, *peterraba*<sup>30</sup> vs. *erremolatxa*.

Ikusi dugunez, iparraldetik heldu diren hainbat isoglosa ez dira Bidasoaren bertze aldera iragan, eta hauetako batzuek Etxalar bakarrik hartzen dute, Hego Euskal Herriko mintzorik gehienetatik urrutiratuz.

## 5. ONDORIOAK

Datu xume batzuk aurkeztu baditugu ere, ezin genezake erran ohar lexiko hauen argitan inolako ondoriorik ateratzerik ez denik. Adibidez, nahiz eta maizkara lan zaila suertatzen den, lexikoa geolinguistikoki antolatzeke aukera izan dugu. Bortz multzo *atera* zaizkigu, Ipar Euskal Herritik Hegoaldera mendebaleko Pirinioak gainditu dituzten eta muga-giro horretan gelditu diren 84 hitz kontuan hartuta.

Oro har, Baztan Ipar Euskal Herriari atxikiago ageri da Nafarroako Bidasoalde baina. Alabaina, gogoan izatekoa da maizago aurkitu dugula Baztan-Bidasoa elkartuta bananduta baino; beraz, lexikoaren alde horretatik, Baztango euskaratik Bidasoaldekoa jauzi handirik ez dagoela pentsatu behar dugu. Bertze alde, Baztan Ipar Euskal Herrira lotzen duten zenbait hitz ez dira ibar osooak, baizik eta Baztangoizakoak. Hortaz, Baztan ez da beti uste bezain monolitikoa.

<sup>27</sup> Irun-Hondarribian, Esteribarren, Erroibarren eta Ultzaman ezaguna.

<sup>28</sup> Bortzerrietako *abudo* ere erabiltzen da Etxalarren.

<sup>29</sup> *agindu* ere erraten da Etxalarren.

<sup>30</sup> Frantsesez ‘betterave’.

Bidasoaldeari dagokionez, aldiz, Bortzerriak Lapurditik hurbilago daude Malerreka baino; halaber, Bortzerrietan, Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duten Beran eta areago Etxalarren Iparraldeko eragina gehixeago sumatzen da.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Arburua, R., 2005, *Bortzirietako gaztiak (1940-1960)*. Alberdania & Kulturkari. Zarautz.
- Casas, J.M. & Abascal, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*. Institución Príncipe de Viana y Estación de Estudios Pirenaicos. Zaragoza.
- Douglass, W., 1977, “Borderland Influences in a Navarrese Village”, in Douglass, W., Etulain, R. & Jakobsen, J. (arg.) *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*. 135-145. Reno.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- , 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar. Donostia.
- Gil, E., 1994, “Introducción” in J. M. Lakoizketa. [1888] *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- Huarte, J. V., 2003, *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- Izeta, M., 1996, *Baztango hiztegia*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- , 2007, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*. Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia. Iruñea & Bilbo.
- Kamino, P. & Salaberri, P., 2007, *Luzaideko Euskararen Hiztegia*. Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia. Iruñea & Bilbo.
- Merino, F.J., 1983, *El desarrollo económico de la cuenca del Bidasoa*. EHUko tesi argitaragabea.
- Perales, J. A., 2004, *Fronteras y contrabando en el Pirineo Occidental*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.

- Salaburu, P. & Lakar, M. (lag.), 2005, *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia. Iruñea & Bilbo.
- Salaburu, P., 2008, “Hiztegi kontuak Baztan aldean” in X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.) *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez. ASJU-ren gehigarriak* 51. EHU. Bilbo. 743-752.
- Santamaría, L. & Ondikol, J. M., 2006, *Las cuatro estaciones en el valle de Baztan (y alrededores). Un almanaque personal e intransferible*. Diario de Noticias & Baztango Herri Unibertsitatea. Iruñea & Elizondo.
- Trebiño, I., 2000, *Euskarazko testu zibilak administrazioan*. Eusko Jaurlaritzza, HAAE/IVAP. Vitoria/Gasteiz.
- Uranzu, L., 1955, *Lo que el río vio: biografía del río Bidasoa*. Donostia.
- Zelaieta, E., 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua. Bilbo & Iruñea.



# Nafarroako ipar-mendebaleko lau ibarretako lexikoaren azterketa

AMAIA APALAUZA OLLO

Euskal Herriko Unibertsitateko doktoregaia

## 1. Sarrera

Azken urteotan, Nafarroako ipar-mendebaleko euskara aztertzen jardun dugu (cf. Apalauza 2008a, 2008b). 2007an, Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako lexikoaren gaineko azterketa sakona argitaratu genuen, eta azterketa haren ideia nagusiak laburbiltzeko asmoz osatu dugu saio hau (*ikus* bibliografia). Datu eta xehetasun ugari erakutsi eta aztertu genuen artikulu hartan, eta gure eskualdeko lau ibarretan indar dialektal ugari topo egiten dutela ondorioztatu. Hain zuzen, zenbait isoglosa lexikok gure eremua zatitzen dute, baina ez beti modu berean: isoglosa batzuek eremu zabalak banatzen dituzte, beste batzuek eremu txikiagoak, eta abar. Hori guztia behar bezala balioetsi behar da; alegia, ezin jarri ditugu maila berean Euskal Herria bitan zatitzen duen isoglosa bat eta Nafarroa Garaiko eskualde jakin bat zatitzen duen beste bat. Saio honetan, ezaugarri lexiko banatzaileak lehentetsiko ditugu; hots, gure eremuko hizkerak banatzen dituzten isoglosa lexikoei erreparatuko diegu, eta saioaren bukaeran laburbilduko dugu zein den isoglosa guztion hedadura geografikoa.

Txostena laburtzeko asmoz, atal bakoitzeko hitz eta aldaerak taulatan aurkeztuko ditugu, jakinik ere ñabardura eta xehetasun ugari galtzen dela datuak modu horretan emanda. Esate baterako, taulen bidez ezin adierazi dugu herri bakoitzean zein aldaera bildu dugun; alegia, *armiarma*, *ermiarma* edota *irmiarma* bildu ote dugun Goldaritzen, Uitzin edota Berueten. Gainera, taulak erabilia, ezin eman dugu salbuespenen berri zehatzik. Baina joera nagusiak zein diren erakusteko aukera ematen digute taulek, eta horixe erakutsi nahi dugu saio honen bidez. Xehetasun gehiago nahi duenak jo dezala Apalauza 2007 lanera.

## 2. Lexikoaren azterketa

Lexikoaren azterketa zazpi ataletan banatu dugu:

2.1. Atetz-Ultzama eta Imotz-Basaburu Nagusia elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.

2.2. Muskitz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa.

2.3. Goldaratz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa.

2.4. Imotz-Basaburu Nagusia eta Larraun elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.

2.5. Larraungo hego-ekialdea eta Larraungo ipar-mendebala elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.

2.6. Larraun eta Araitz-Betelu elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.

2.7. Araitz-Betelu eta Amezketak (Gipuzkoa) elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.

2.1. *Atetz-Ultzama eta Imotz-Basaburu Nagusia elkarrengandik banatzen dituen lexikoa*

Hitzak:

<b>Atetz eta Ultzama</b>	<b>Imotz eta Basaburu Nagusia</b>	
<i>aitatxi</i>	<i>attuna</i>	‘aitona’
<i>altzin</i>	<i>aurre</i>	‘aitzin, aurre’
<i>anitz</i>	<i>asko</i>	‘anitz, asko’
<i>ixola</i>	<i>txabola</i>	‘(artzain-) txabola’
<i>gabinario</i>	<i>sauxar</i>	‘saguzaharra’
<i>gibel</i>	<i>atze</i>	‘gibel, atze’
<i>katapultxintxe</i>	<i>katta(g)orri</i>	‘katagorria’
<i>legen</i>	<i>iel</i>	‘igela’
<i>neskato</i>	<i>neskame</i>	‘neskamea, zerbitzaria’

Aldaerak:

<b>Atetz eta Ultzama</b>	<b>Imotz eta Basaburu Nagusia</b>	
<i>bearri</i>	<i>belarri</i>	‘belarria’
<i>bide</i>	<i>bi</i>	‘bi’
<i>edeki</i>	<i>i(r)iki</i>	‘ireki’
<i>guti</i>	<i>gutxi</i>	‘gutxi’
<i>igen</i>	<i>io</i>	‘igo’
<i>ne(g)urtu &amp; ne(g)urri</i>	<i>leurrittu &amp; leurri</i>	‘neurtu & neurria’
<i>ogi</i>	<i>obi</i>	‘ogia’



2.2. *Muskitz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa*

Hitzak:

<b>Muskitz</b>	<b>Imotz</b>	
<i>amatxi (&amp; abuela)</i>	<i>amandre</i>	‘amona’
<i>are</i>	<i>landar</i>	‘area’
<i>armimau</i>	<i>armiarma</i>	‘armiarma’
<i>erreka</i>	<i>erreka &amp; ugalde</i>	‘erreka & ibaia’
<i>eskalapuiñ</i>	<i>xokle</i>	‘eskalapoa’
<i>iretze</i>	<i>iaztor</i>	‘iratzea’
<i>kaneita</i>	<i>la(b)an</i>	‘labana’
<i>kukuso</i>	<i>arkakoso</i>	‘arkakusoa’
<i>mandar</i>	<i>mantal</i>	‘(aurreko) mantala’
<i>martuxe</i>	<i>matxutx &amp; matust (Gol.)</i>	‘masusta’
<i>ooittu &amp; akordatu</i>	<i>akordatu</i>	‘oroitu, gogoratu’
<i>sobra</i>	<i>sobra &amp; geiei</i>	‘sobera, gehiegi’
<i>txilko</i>	<i>txilbor</i>	‘zilborra’
<i>urriñ</i>	<i>usai (&amp; urriñ)</i>	‘usaina’
<i>yautsi</i>	<i>je(i)tsi</i>	‘jaitsi’

Aldaerak:

<b>Muskitz</b>	<b>Imotz</b>	
<i>ameka</i>	<i>amika</i>	‘hamaika’
<i>bago</i>	<i>pago</i>	‘pagoa’
<i>deitxi</i>	<i>jetxi</i>	‘jetzi’
<i>erran (&amp; esan)</i>	<i>esan</i>	‘esan’
<i>gatzakoi</i>	<i>gatzari</i>	‘gatzagia’
<i>iruzki</i>	<i>euzki</i>	‘eguzkia’
<i>matel</i>	<i>matail</i>	‘masaila’

2.3. Goldaratz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa

Hitzak:

<b>Goldaratz</b>	<b>Imotz</b>	
<i>banaar</i>	<i>alubi</i>	‘banabarra, babarruna’
<i>errero</i>	<i>a(r)otz</i>	‘arotza, errementaria’
<i>iuntzi</i>	<i>soro</i>	‘belarrak egiteko lur-eremu itxi eta partikularra’
<i>ganbaa</i>	<i>sabai</i>	‘ganbara’
<i>mendi</i>	<i>oian</i>	‘mendia; gazt. monte’
<i>oñazture</i>	<i>tximiste</i>	‘tximista’
<i>ordueta</i>	<i>onbata</i>	‘ordubata’
<i>parra in</i>	<i>irri in</i>	‘barre egin’
<i>xongaatillo</i>	<i>txurmio</i>	‘orkatila’
<i>zirriku</i>	<i>erteka &amp; erte (Mus.)</i>	‘zirrikitua, zirritua’

Aldaerak:

<b>Goldaratz</b>	<b>Imotz</b>	
<i>azkezal</i>	<i>azazkal</i>	‘azkazala’
<i>geazi</i>	<i>geezi</i>	‘gerezia’
<i>illoa</i>	<i>illeba</i>	‘iloba’
<i>intxaur</i>	<i>eltxaur</i>	‘intxaurra’
<i>ire in</i>	<i>ingiri in</i>	‘igeri egin’
<i>izoa</i>	<i>izeba</i>	‘izeba’

2.4. *Imotz-Basaburu Nagusia eta Larraun elkarrengandik banatzen dituen lexikoa*

Hitzak:

<b>Imotz eta Basaburu Nagusia</b>	<b>Larraun</b>	
<i>aztatu (&amp; asematu)</i>	<i>as(e)matu</i>	‘asmatu’
<i>beitti (&amp; ukullu)</i>	<i>ukullu</i>	‘ukuilua’
<i>bota</i>	<i>eroi</i>	‘erori’
<i>ebatsi</i>	<i>ostu</i>	‘ebatsi, lapurtu’
<i>ertsi</i>	<i>itxi</i>	‘hetsi, itxi’
<i>jainkoan paxa</i>	<i>jainkoan gerriko</i>	‘ortzadarra’
<i>joale</i>	<i>zintzarri</i>	‘joarea, zintzarria’
<i>kalma</i>	<i>kalma &amp; odai</i>	‘hodeia’
<i>lankar</i>	<i>lankar &amp; lanbro</i>	‘euri xehea’
<i>maingi</i>	<i>makur</i>	‘maingua, herrena’
<i>malluke</i>	<i>mallu (&amp; malluke)</i>	‘mailua’
<i>pa(r)atu</i>	<i>jarri</i>	‘paratu, jarri’
<i>patxaon</i>	<i>tximillo</i>	‘basakarana’
<i>sartan</i>	<i>danbolin</i>	‘gaztainak erretzeko tresna’
<i>tripota</i>	<i>oolki</i>	‘odolkia’
<i>txirrin</i>	<i>enaa, iñaa</i>	‘enara’
<i>zarre</i>	<i>eskubere</i>	‘eskuarea’

Aldaerak:

<b>Imotz eta Basaburu Nagusia</b>	<b>Larraun</b>	
<i>altzur</i>	<i>aitzur</i>	‘aitzurra’
<i>bulkatu</i>	<i>bultzatu</i>	‘bultzatu’
<i>jauntzi, yauntzi</i>	<i>jantzi</i>	‘jantzi’
<i>konten</i>	<i>kontentu</i>	‘pozik’
<i>koopillo</i>	<i>koapillo</i>	‘korapiloa’
<i>lintsuse</i>	<i>intsuse</i>	‘intsusa lorea’
<i>malubi</i>	<i>ma(d)uri</i>	‘marrubia’
<i>o(g)ei</i>	<i>ogai</i>	‘hogei’
<i>ortots</i>	<i>ostots</i>	‘ostotsa, trumoia’

2.5. Larraungo hego-ekialdea eta Larraungo ipar-mendebala elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Hitzak:

<b>Larraungo hego-ekialdea</b>	<b>Larraungo ipar-mendebala</b>	
<i>aparte</i>	<i>urruti</i>	‘urruti’
<i>asenai</i>	<i>azkure</i>	‘hazkurea’
<i>atari</i>	<i>ate</i>	‘atea’
<i>aztal</i>	<i>opo</i>	‘orpoa’
<i>barruti</i>	<i>komunal, larre...</i>	‘herri-lurra’
<i>bigo</i>	<i>(zurezko) sarde</i>	‘bi puntako sardea’
<i>iratzarri</i>	<i>esnatu</i>	‘iratzarri, esnatu’
<i>kider</i>	<i>kirten</i>	‘kiderra, kirtena’
<i>lantxurde</i>	<i>antziar</i>	‘antzigarra’
<i>manatu</i>	<i>aindu</i>	‘manatu, agindu’
<i>mutil</i>	<i>morroi</i>	‘morroia’
<i>pitxera</i>	<i>txarro</i>	‘pitxera’
<i>piztu &amp; ixiki</i>	<i>piztu</i>	‘piztu’

Aldaerak:

<b>Larraungo hego-ekialdea</b>	<b>Larraungo ipar-mendebala</b>	
<i>ausin</i>	<i>osin</i>	‘asuna, osina’
<i>bakotx</i>	<i>bakoitz</i>	‘bakoitza’
<i>eke</i>	<i>kei</i>	‘kea’
<i>ezpata</i>	<i>ezpa(a)</i>	‘ezpara, beltzuntza’
<i>gae</i>	<i>bae</i>	‘gabe’
<i>lengusi</i>	<i>lengusu</i>	‘lehengusua & lehengusina’
<i>ooldio</i>	<i>gooldio</i>	‘goroldioa’
<i>solemu</i>	<i>solamu</i>	‘solomoa’

2.6. Larraun eta Araitz-Betelu elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Hitzak:

<b>Larraun</b>	<b>Araitz-Betelu</b>	
<i>aitagutxi, amagutxi</i>	<i>aita-ponteko, ama-ponteko</i>	‘aitabitxia, amabitxia’
<i>aitzurko</i>	<i>jorrai</i>	‘aitzur txikia’
<i>aizkoldo</i>	<i>aizko ttiki</i>	‘aizkora txikia’
<i>alor</i>	<i>soro</i>	‘lur landua’
<i>añar</i>	<i>txilar</i>	‘ainarra, txilarra’
<i>a(g)otz &amp; lasto</i>	<i>lasto</i>	‘agotza, lastoa’
<i>barne, barren</i>	<i>barrun</i>	‘barne’
<i>esperatu</i>	<i>itxoin</i>	‘itxoin’
<i>goraintzi</i>	<i>eskumin</i>	‘goraintzi(ak)’
<i>idin edo beien aurre</i>	<i>itzule</i>	‘itzul-lana’
<i>igande</i>	<i>jai</i>	‘igandea’
<i>iruetan ogei &amp; lauetan ogei</i>	<i>irurogei &amp; larogei</i>	‘hirurogei & laurogei’
<i>kalpar</i>	<i>ile</i>	‘ilea’
<i>kera</i>	<i>tankera</i>	‘antza’
<i>laka</i>	<i>lakari</i>	‘lakaria’
<i>latz</i>	<i>lakatz</i>	‘latza’
<i>meta</i>	<i>zuatz</i>	‘zuhatza’
<i>mixto</i>	<i>poxpolo</i>	‘pospoloa’
<i>plantatu</i>	<i>aldatu</i>	‘landatu’
<i>zakar</i>	<i>itsusi</i>	‘itsusia’

Aldaerak:

<b>Larraun</b>	<b>Araitz-Betelu</b>	
<i>aitz</i>	<i>araitz</i>	‘haritza’
<i>berant-</i>	<i>berand-</i>	‘berand-’
<i>berendu</i>	<i>merendu</i>	‘merendua, askaria’
<i>bi orduk</i>	<i>ordubik</i>	‘ordubiak’
<i>buuxik</i>	<i>goaizik</i>	‘guraizeak’
<i>erde</i>	<i>lerde</i>	‘lerdea’
<i>euri</i>	<i>ebi</i>	‘euria’
<i>ollatasi</i>	<i>ollategi</i>	‘oilategia’
<i>ore, orantza, ora-mai</i>	<i>orre, orrantza, orra-mai</i>	‘orea, orantza, ora-mahaia’
<i>prest</i>	<i>presto</i>	‘prest’
<i>tanta</i>	<i>tanto</i>	‘tanta’
<i>txopin</i>	<i>txotin</i>	‘zotina’
<i>uli</i>	<i>elbi</i>	‘eulia’

2.7. *Araitz-Betelu eta Amezketak (Gipuzkoa) elkarrengandik banatzen dituen lexikoa*

Hitzak:

<b>Araitz-Betelu</b>	<b>Amezketak</b>	
<i>atije</i>	<i>doministiku</i>	‘doministikua’
<i>atorra</i>	<i>alkandora</i>	‘alkandora’
<i>axuri</i>	<i>arkume</i>	‘arkumea’
<i>bearrik</i>	<i>eskerrak</i>	‘eskerrak’
<i>deus</i>	<i>ezer</i>	‘deus, ezer’
<i>eskuin</i>	<i>eskubi</i>	‘eskuina’
<i>galtzin</i>	<i>kare</i>	‘karea’
<i>iote</i>	<i>karnabal</i>	‘ihotea’
<i>jolasean (aritu)</i>	<i>izketan (aritu)</i>	‘solasean aritu’
<i>jostatu &amp; jostaketan ibili</i>	<i>jolastu</i>	‘jostatu’
<i>kisu &amp; kisuskille</i>	<i>igeltso &amp; igeltsero</i>	‘igeltsoa & igeltseroa’
<i>laister egin</i>	<i>korrika egin</i>	‘korrika egin’
<i>nekazari</i>	<i>baserritar</i>	‘nekazaria, baserritarra’
<i>oatze</i>	<i>oia</i>	‘ohea’
<i>ongarri</i>	<i>ximaur &amp; gootz</i>	‘ongarria, ximaurra’
<i>osatu</i>	<i>zikiratu</i>	‘osatu, zikiratu’
<i>pella</i>	<i>koniflora</i>	‘azalorea’
<i>urri</i>	<i>garoil &amp; irail</i>	‘iraila’
<i>zata</i>	<i>abarka</i>	‘abarka’
<i>zortziko</i>	<i>txakur txiki</i>	‘zortzikoa (txanpon zaharra)’
<i>zurgin</i>	<i>arotz</i>	‘zurgina’



Aldaerak:

<b>Araitz-Betelu</b>	<b>Amezketeta</b>	
<i>apez</i>	<i>apaiz</i>	‘apeza’
<i>bezala</i>	<i>bezela</i>	‘bezala’
<i>guzi</i>	<i>guzti</i>	‘guztia’
<i>ongi, obeki</i>	<i>ondo, obeto</i>	‘ongi, hobeki’
<i>piper</i>	<i>pipar</i>	‘piperra’

### 3. Ondorioak

Ekialdetik mendebalera, ezaugarri lexikoak aldatuz doaz, eta isoglosa bertikalak sortzen dira. Hala, zazpi isoglosa-gune identifikatu ditugu: Atetz-Ultzama ibarren eta Imotz-Basaburu Nagusia ibarren artean lehena, Muskitzen eta Imozko gainerako herrien artean bigarrena, Goldaratzen eta Imozko gainerako herrien artean hirugarrena, Imotz-Basaburu Nagusiaren eta Larraunen artean laugarrena, Larraungo hego-ekialdearen eta ipar-mendebalaren artean bosgarrena, Larraunen eta Araitz-Beteluren artean seigarrena, eta, azkenik, Araitz-Beteluren eta Gipuzkoako Amezketaren artean zazpigarrena.

Mendebalerantz egin ahala, jauzi lexikoa gero eta apalagoa dela ohartu gara: oro har, Larraun eta Araitz-Betelu aldean kokatu ditugun isoglosek garrantzi txikiagoa dute, eremu txikiagoak banatzen dituzten heinean. Badira, jakina, ale esanguratsuak ere, baina hedadura murriztagoko ezaugarriak dira batik bat.

Herriz herriko aldakortasuna graduala da, eta bost herrik islatzen dute hizkera batetik besterako trantsizioa: Muskitzek Atezko eta Ultzamako hizkerarantz egiten du nabarmen, baina ez guztiz, bai baititu Imotzen badauden baina Atetz-Ultzaman ez dauden ezaugarri asko ere; Imotz ibarraren beste ertzean, Goldaratzek Larraungo hizkerarako trantsizioa marrazten du; Berue-tek Basaburu Nagusiko eta Larraungo (eta Leitzako) hizkeren arteko zubi-lana egiten du; Albiasuk Larraungo hego-ekialdetik ipar-mendebalerantzko bidea erakusten du; eta, azkenik, Errazkin herri larraundarra Araitz-Betelura nabarmen lerraturik ageri da.

Alegia, ibarrak ez dira uniformeak ezaugarri lexikoei dagokienez: Imotzen, gainerako herrietatik nabarmen bereiz ageri dira ibarraren mutur banatan di-

ren Muskitz eta Goldaratz; Basaburu Nagusian, zatiketa ez da hain nabarmena, baina ekialdeko herriek (Erbiti, Gartzaron, Orokieta) badute Atetz-Ultzamaranzko isuria, eta Basaburu Txikiranzkoa iparraldekoek (Arrarats, Igoa, Beruete); Larraunen, hego-ekialdea eta ipar-mendebala bereizi ditugu. Araitz-Betelun, aitzitik, ez dago desberdintasun aipagarririk herrien artean.

Lanaren sarreran aipatu dugunez, isoglosa guztiek ez dute garrantzi bera. Alde batetik, gure eremuan aurkitu ditugun zenbait isoglosa lexikok eremu zabalak banatzen dituzte. Izan ere, gure eremuan dago Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko zati handi batean (Nafarroako ekialde, ipar-ekialde edota hego-nafarreraren eremua) ere badauden zenbait item lexikoren muga, hala nola *aitatxi*, *altzin*, *anitz*, *gibel*, *bearri*, *bida*, *guti*, *igen*, *amatxi*, *iratze*, *kanebita*, *kukuso*, *oroitu*, *ameka*, *bago*, *deitzi*, *erran*, *pentze*, *oian* ‘mendia’, *oronbata*, *sagarroi*, *irri* (*egin*), *ebatsi*, *ertsi*, *maingu*, *aztal*, *kider*, *manatu*, *bakotx*, *alor*, *bi orduk*, eta abar. Halako ezaugarriek garrantzi handia dute ikuspegi geolinguitikotik.

Bestetik, hedadura zabalekoak dira, halaber, Ipar Euskal Herrian ageri ez diren baina Nafarroako eremu zabalean (gure eremutik ekialderako hizkerak, hego-nafarrera, Nafarroako ipar-ekialdea, Sakana<sup>1</sup>) badauden hitz eta aldaera asko: *aitagutxi* & *amagutxi*, *altzur*, *agotz*, *asenai*, *atari* ‘atea’, *eke*, *erde*, *esperatu*, *ingiri in*, *mandar*, *martux* (& *martots*, *martxutx...*), *oñazture*, *ugalde*, eta abar.

Hedadura murriztagoko hitz eta aldaerak ere topatu ditugu gure aztereremuan. Batzuek gure eremu osoa harrapatzen dute, beste batzuk banatzaileak dira, badira gure eremuan eta Nafarroako beste eskualde askotan erabiltzen direnak, bai eta oso tokikoak direnak ere, eta abar. Ondorio gisa, gure eremuko herrietan erabiltzen diren hitz eta aldaerak ezagunak dira beste hizkera batzuetan ere; alegia, ez dago ale esklusiborik, ez bada arlo jakin bateko ale espezifikoren bat.

Bestalde, Euskal Herriko erdigunean erabiltzen diren zenbait ale lexiko ere badira gure eremuan. Ale horiek ez dira Euskal Herriko erdigunetik ekialdera edo mendebalera erabiltzen, eta berrikuntzak dira haietako asko. Hona adibide batzuk: *ama-ponteko* & *aita-ponteko*, *amona*, *antziar*, *attuna*, *babarrun*, *barru(n)*, *ebi*, *elbi*, *eskumin*, *esnatu*, *ganbara*, *garo*, *geiegi*, *itxoin*, *itzule*, *katagorri*, *lanbro* ‘langarra, euri xehea’, *lerde*, *mantal*, *masust*, *morroi*, *odolki*, *osin*, *poxpolo*, *tanto*, *triku*, *txilar*, *zilbor*, *zuatz...* Gogoan izan behar dugu aleo-

<sup>1</sup> Zenbaitetan, multzo horretatik kanpo dago Sakana, batez ere Irañetatik mendebalerako herriak.

tako batzuek beste batzuek baino hedadura zabalagoa dutela. Gure eremuari dagokionez, zenbat eta mendebalerago egin, agerikoagoa da erdiguneko hizkeren isuria (Larraungo ipar-mendebala, Araitz-Betelu). Aldaketa graduala da, ez bat-batekoa: zenbat eta ekialderago, orduan eta urriagoa da Gipuzkoa aldeko eta Euskal Herriko erdiguneko isuri hori.

Beraz, era askotako isoglosak biltzen dira gure eremuan. Alde batetik, gure eremuko hizkeretan badira ekialderagoko, hegoalderagoko eta iparralderagoko bereizgarri asko, eta, kasu askotan, ezaugarri horien muga gure eremuan berean dago. Gure eremuko hizkerek (zeinek bere neurrian) Ipar Euskal Herriarekin, Nafarroako ekialdearekin (Atetz, Ultzama, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Aezkoa), ipar-ekialdearekin (Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortzirriak), hegoalderagoko hizkerekin (Txulapain, Arakil, Sakana) edota hego-nafarrerarekin bat egiten dute maiz. Euskal Herriko erdiguneko eta Gipuzkoako zenbait ezaugarri ere badela ikusi dugu; Larraungo ipar-mendebaleko herrietan eta Araitz-Betelun, batik bat, baina baita Basaburu Nagusian eta Imotzen ere, hein txikiagoan betiere. Gorago ere esan dugunez, Araitz-Beteluk eta Larraunek (ipar-mendebaleko herriek batik bat) Gipuzkoatik eragin nabarmenagoa jaso dute gainerako hizkerek baino, eta Basaburu Nagusiak eta Imotzek, berriz, nabarmenago egiten dute Nafarroako beste eskualdeetarantz. Beste hitz batzuetan adierazita, ekialde, ipar-ekialde, hegoalde nahiz iparralderagoko isuria nabariagoa da Muskitzen, Imozko gainerako herrietan baino; Imotzen eta Basaburu Nagusian, Goldaratzen baino; Imotzen, Larraunen baino, eta abar. Halaber, Araitz-Betelu nabarmen lerratua da Gipuzkoako eta Euskal Herriko erdiguneko mintzoetara; Larraun ere bai, baina neurri apalagoan; Imotz ere bai, baina Larraun baino urriago, eta abar.

## Bibliografia

- Agirre, J., 1925, “Velle (sic) de Juslapeña”, *Anuario de la sociedad de Eusko-Folklore* 5, 131-140.
- Apalauza, A., 2007, “Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako lexikoaren azterketa”, *ASJU* XLI-1, 163-224.
- , 2008a, “Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu”, *FLV* 107, 63-104.
- , 2008b, *Imozko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.

- Apalauza, A. eta Lakar Iraizoz, M., 2005, *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Nafarroako Gobernua eta Malerrekako Mankomunitatea: Iruñea.
- Apalauza, A. eta Arraztio, K., 2007, *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma*, Nafarroako Gobernua eta Araizko eta Beteluko Udalak: Iruñea.
- Arana, A., 2001, *Zaraitzuko hiztegia*, Hiria eta Nafarroako Gobernua.
- , 2002, *Izarbeibarko hiztegia*, Hiria eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- , 2004, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera*, Hiria: Donostia.
- , 2006, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Txulapaingo aldaera. Hiztegia*, Hiria: Donostia.
- Aranzadi Zientzia Elkarte, 1984-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*, Donostia.
- Bähr, G., 1972 (1931), “El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa”, *RIEV* 22, 397-414.
- Bidador, J., 1992, “Noticias y restos del euskera de Val de Olo”, *FLV* 60, 277-295.
- Camino, I., 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- , 2005, “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna”, *FLV* 99, 265-286.
- Elexpuru, J. M., 2004, *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta*, Bergarako Udala.
- Erdozia, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- , 2004, *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- Etxaide, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza (EI)*, Iker 3, Euskaltzaindia: Bilbo.
- , 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza: Donostia.
- Hurtado, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*, IX. Gerriko Ikerlan Sariketa, Lazkao.

- Ibarra, O., 1995, *Utzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- , 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa: Iruñea.
- , 2006, “Lexikoaren hedapena goi-nafarreraren hiru ibarrotan: Erroibar, Esteribar eta Anue”, *ASJU* XL 1-2: 487-498.
- , 2007, *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea.
- Iribarren, J. M., 1984, *Vocabulario navarro*, Nafarroako Gobernua eta Principe de Viana erakundea: Iruñea.
- Izeta, M., 1996, *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Kamino, P. eta Salaberri, P., 2007, *Luzaidoko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- Mitxelena, K., 1977 (1961), *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- , 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Olano, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*, Nafarroako Gobernua, Aresoko eta Leitzako Udalak: Iruñea.
- , 2000, “Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzako paradoxa”, in *Dialektologia gaiak*, K. Zuazo (arg.), Arabako Foru Aldundia: Gasteiz, 121-147.
- Sánchez, J. M., 1974, “ESAN / ERRAN en el área lingüística altonavarra”, *FLV* 17, 261-264.
- Zelaieta, E., 2005, “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)”, *FLV* 99, 287-306.
- Zuazo, K., 1999, “Baigorriko euskara kokatzeari buruz”, *Lapurdum* 4, 247-277.

# EHHA-tik euskalkien mapa berrirantz

GOTZON AURREKOETXEA

UPV-EHU


EHHA-Euskaltzaindia

## 1. Sarrera

Euskalkien mapetan aberatsa da gure hizkuntza. Bi aipatzearren gehien eta gutxien baliatu direnak aipatuko ditut: lehena denok ezagutzen dugun L. L. Bonapartek egindakoa dugu. Garai hartan usatzen zen metodologia erabiliz burututakoak merezitako ospea hartu eta oso erabilgarri gertatu zaigu dialektologo zein bestelakoei.

Bigarrena Henri Guiterrek (1973) Sacaze bildumako datuak baliatuz erakitako Ipar Euskal Herriko euskalkien sailkapena da (ikus 1. mapa). Dialekto-

1. mapa: H. Guiter 1973, 103eko mapa koloreztatua  
Iparaldeko ohiko 3 euskalkien distribuzioari hurbiltzeko



logo askoren artean ere ezezaguna den arren, dialektometriari aritzen garenontzat zer ikasi asko daukan mapa da. Bertan ohiko bihurtu den euskalkien eremua kontuan hartzen bada, ohiko zuberera eta nafarrera behekeraren arteko muga argiki agertzen dela ikus daiteke, baina ez, ordea, nafarrera beheko euskalkiaren eta lapurteraren artekoa.

Hauek eta oihartzun handiago edo txikiagoa izan duten beste mapa batzuk argitaratu dira. Baina ez dezala inork pentsa euskalkien mapen karrera zoro batean sartua naizela. Ez, ez da hori lerro hauek idaztera bultzatu nauen zioa euskalkien mapa berria(k) egiteko oinarri sendoak ipini behar direlako lehenik. Horretarako nire ustez lau baldintza bete behar dira: datuen multzo handi eta eskuragarria (edonork egiaztatzeko modukoa) behar da lehenik; zenbat eta handiagoa hobe. Bestetik, datu horiek erkarriak izan behar dira eta sinkronikoak. Hirugarren, prozedura sailkatzaile kontrastatuak (hizkeren sailkapenetan nazioartean adituek onartuak) behar dira erabili. Eta azkenik agente desberdinen inplikazioa behar da; eta horietako bat Euskaltzaindia izan behar da, berak duelako datutegi handiena eta horrelako lan baterako egokituena.

Hemen aurkezten dudanak bestelako helburua du: zeregin horri lotu aitzin bidean aurkituko diren arazo batzuk plazaratu eta eztabaidatzea, alegia. 1992an hasi eta 1995, 1996 jarraitu dudan bidaiaren beste geltoki bat baino ez.

## **2. Dialektologia XXI. mendean**

Batek baino gehiagok dagoeneko itaunduko zuen: ba ote du zentzurik euskalkien sailkapenaz eta mapez aritzeak gaur egun, XXI. mendean bete-betean sarturik? Lehentasun osoa euskararen batasunak duenean eta IKTetan, Interneten, zientziaren alor desberdinetan, ekonomian, eta bizitza modernoan euskararen agerpena indartu behar den honetan, merezi ote du euskararen bariazioaz oraindik ere norbait aritzeak? Dialektologok nostalgiko hutsak ote gara?

Dialektologiaren ikusmolde berrizalea dugunontzat eta, arkeologia linguistikoa egin ordez, hizkuntzaren bariazioa ikergai dugunontzat, aldaera diatopikoez gain aldaera diastratiko zein diafasikoak ikertzeak berebiziko garrantzia du. Hizkuntzalari orok jada onartua du hizkuntzaren muin-muinean kokatzen dela bariazioa eta hizkuntza norantz doan zehazteko funtsezkoa dela hizkuntzaren aldaketetan ematen diren mekanismoak zein diren eta nola

funtzionatzen duten zehaztea. Bidenabar, ez ote da garrantzitsua hizkuntza norantz eta zein abiaduratan mugitzen ari den ikertzea? Eta ez ote da garrantzitsua halako une bateko sintesiko argazki bat izatea?

William A. Kretschmar-ek oso irakurria den “The future of Dialectology” (1999) artikuluan dialektologiaren etorkizunerako erronken artean teknologia berriak erabiltzea aipatzen du. Hark dioenaren haritik nazioartean proiektu asko ari dira garatzen hizkeren arteko desberdintasunak eta hizkuntza bariazioa oro har aztertzeke teknologia berriak erabiltzen. Gurean ere horretan ari gara azken urteotan prozedura desberdinak eta metodologia berriak aplikatzen euskal dialektologiari.

Ahalegin horretan inor nabarmendu beharko bagenu bi aipatuko nituzke: batetik, Euskaltzaindia egiten ari den “Euskararen Herri Hizkeren Atlasa” (aurrerantzean EHHA) dugu (Aurrekoetxea, G. & Videgain, X., 1993; Aurrekoetxea, G. & Videgain, X., 1994), inoiz amestu ez den geolinguistikako egitasmo erraldoiena; bestetik, maila apalago batean baina norabide berriak urratuz, UPV-EHUko “Eudia” ikerketa-taldea, projekzio luzea duten “Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa” (aurrerantzean EAS) (Aurrekoetxea, G. & J. L. Ormaetxea 2006) eta “Euskara dialektalaren ahozko corpusa” (aurrerantzean EDAK) (Aurrekoetxez, G. & Odriozola, I. & Sánchez, J., 2009) proiektuekin. Bata ala bestea teknologia berriak erabiliz datu-base eta testu-corpus eguneraturak sortuz, eta hizkeren arteko hizkuntza distantzia neurtu eta mapa estatistikosailkatzaileak eginez. Baina ez da dena egina, bidean gara; eta ustez, zuzenean.

### 3. Euskalkien konparaketa eta sailkapena

Zein da hizkeren sailkapena burutzeko metodologiarik egokiena? Egun nazioartean hizkeren sailkapen eta sintesi mapetan adituek darabilen metodologia ikusi esan daiteke gurean ere ezin dela hizkeren sailkapenik egiten hasi sistema kuantitatiboak kontuan hartu gabe. Jean Séguyren lanarekin (1973a, 1973b) abiatu ziren behin betikoz dialektologian azterketa kuantitatiboak, prozedura berriei izena emanaz: dialektometria. Ondoren etorri dira, H. Guiter, H. Goebel, J. Nerbonne eta bere taldea, F. Inoue eta beste hainbat eta hainbat dialektologo. Lorratz horiei jarraituz, dihardugu euskararen kasuan ere aspaldisko hasi ginen bidea egiten (Aurrekoetxea 1992, 1995, 2003, 2005, 2008, 2010; Aurrekoetxea & Videgain 2009).

Hizkuntza datuetatik sistema estatistiko-kuantitatiborako jauzia egitean sortzen diren arazoak plazaratu nahi ditut hemen.



Ez dugu eztabaidatuko dialektologook jasotzen dugun hori errealitatea den ala ez. Ildo honetan ados gaude W. A. Kretzschmar-ek “Methods XIII” biltzarrean (2008) dialektoak errealitatekin baino gehiago errealitatearen pertzeptiotik ezagutzen ditugula, hau da, dialektoak pertzeptzioaren oharpe-zenko artefakto gisa existitzen direla dioenarekin.

Inkesten bidez jasotzen dugun “hori” ikergai dugularik, dialektologo edo geolinguista batentzat lehen zeregina hizkerak konparatzea eta sailkatzea da, hizkeren arteko harremanak zertan gauzatzen diren zehaztea, alegia.

Hizkeren arteko desberdintasunez eta desberdintasun horiek hizkuntza irizpideak bakarrik hartuz nola neurtu behar diren zehazten ahaleginduko naiz, bada.

#### 4. Datuen prestaketa

Hizkuntza atlasek erakusten dituzten datuek prestatze lan bat jasan behar dute hizkeren arteko konparaketarako. Prestatze lan hauetan sortzen diren arazo desberdinak aztertuko ditugu, denak ahitu gabe, hala ere: erantzun anitzak, datuen hizkuntza prestakuntza, hizkuntza ezaugarri bat galdera desberdinetan dagoenean eta arau morfonologikoak.

##### 4.1. Erantzun anitzak

Ohiko hizkuntza atlasetan ez bezala, metodologia berriak erabiliz, EHHA egitasmoan herri batzuetan eta galdera batzuei erantzutean hitz bat baino gehiago jaso da maiz. Honi deitzen diogu “erantzun anitza”.

Zein funtzio betetzen dute kasu hauek hizkerak erkatzean edo nola konstatu behar dira hizkeren arteko desberdintasunak honelako kasuetan?

Ipin dezagun adibide bat: demagun gure datu-basean 6 inkesta leku ditugula eta 4 galdera egin direla; eta horietatik bi galderatan (2 eta 3) inkesta leku batean bi erantzun jaso direla (bigarren galderan “e” ta “f” eta hirugarrenean “h” eta “i”). Eta horrez gain, 2. galderan 4 inkesta-lekuan ez dela erantzunik jaso, ezta 3. galderan 5 inkesta-lekuan. Gainerako puntu guztietan erantzun bakarra jaso da. Egoera hau ondoko taulan irudikatu da (ikus 1. taula):

## 1. taula

G a l d e r a k	4	j	J	j	j	j	j
	3	h	h	h, i	i	ø	i
	2	e	e, f	f	ø	g	g
	1	a	a	a	b	c	d
		1	2	3	4	5	6
	Inkesta lekuak						

Zein jokabide hartu behar da erantzun bat baino gehiago dituzten kasuetan? Erantzun anitzen eragina garrantzizkoa da hizkerak erkatzean, hizkera batetik besterako jauzia leundu egiten baitute.

## 4.2. Datuen hizkuntza prestaketa

Bai lexikoan eta baita gramatika ezaugarrietan ere biltzen diren datuek egokitzapen bat behar dute hizkerak erkatzen hasi aurretik.

Eman dezagun valentzieraren hiru hizkera (variedad 1: Ontinyent; variedad 2: Sagunt; variedad 3: Elx) konparatzen ditugula 2. singularreko 'te' ize-nordain atonoaren arabera (Clua and Lloret 2004, 3; eta 2006, 38-39). Ondoko datuak genituzke (ikus 2. taula):

## 2. taula

		Variedad 1	Variedad 2	Variedad 3
a.	et parle	[ <b>et</b> párle]	[ <b>te</b> párle]	[ <b>te</b> párle]
b.	t'anime	[ <b>tan</b> íme]	[ <b>tan</b> íme]	[ <b>tan</b> íme]
c.	animant-te	[animá <b>nte</b> ]	[animá <b>nte</b> ]	[animá <b>nte</b> ]
d.	anima't	[aní <b>mat</b> ]	[aní <b>mat</b> ]	[aní <b>mate</b> ]

Ikusten denez, izenordaina aldaera ez silabiko batekin [t], eta bi silabiko-rekin [et] eta [te] azaltzen da bildutako datuetan.

Ikusmolde tradizionalaren arabera hizkera hauen arteko desberdintasun edo diferentziak hauek lirake: 1 eta 3 hizkerak bi kasutan bereizten dira (a) eta (d). Hizkera 2 hizkera 1-etik aldaera batean bereizten da (a); eta hizkera 3-tik beste batean (d). Baina hau ilusioa baino ez da, errepresentazio fonetikoak benetako hizkuntza egitura ezkutatu egiten duelako.

Eredu sortzailearen markoaren araberako hizkuntza analisisa eginez, eta egitura silabikoari dagozkion aspektuak kontuan izanik, 1 eta 2 hizkeretan izenordainaren sakoneko forma /t/ ez silabikoa litzateke; aurretik edo atzetik agertzen den [e] hori bokal epentetikoa baino ez litzateke. Bi hizkeren arteko desberdintasuna ondoko honetan datzake: hizkera 1-ean epentetikoa izenordainak eta aditzak osatzen duten taldearen periferian jartzen dela (1a [etpárle] vs. 1c [animánte]) eta 2 hizkeran beti leku finkoan, izenordainaren eskuinetan (2a [tepárle] vs. 2d [ánímante])

3 hizkera guztiz bestelakoa da (3dko [ánímante] aldaerako [e] ezin da justifikatu epentetiko gisa). Beraz, sakoneko forma /te/ da eta azken bokala galdu egiten du beste bokal baten aurrean agertzen denean.

Horrela litzateke barietate bakoitzaren egitura:

- a. Variedad 1: /t/ eta epentesia periferian
- b. Variedad 2: /t/ eta epentesia izenordainaren eskuinetan
- c. Variedad 3: /te/ eta kontaktoan diren bokalen galera

Eta hizkera bakoitzaren egitura kontuan hartuz hizkuntza distantzia desberdina lortzen da.

#### 4.3. *Ezaugarri bat galdera baten baino gehiagotan dagoenean*

Demagun hizkuntza ezaugarri bat aztertu nahi dela, adibidez, deklinabidean mugagabe / mugatu oposaketaren ezagutza dela aztertu nahi den ezaugarria. Eta horretarako 5 galdera desberdinetan bildu den informazioa erabili nahi dela; hain zuzen ere bokal desberdinez amaitutako bost inesibo mugagabe (ikus Aurrekoetxea 1995, 1996). Beraz, hizkuntzaren egiturazko ezaugarri bat aztertzeko 5 datu erabiliko lirakeke herri bakoitzean. Zer egin behar da 5 datu desberdin aldi berean aztertzeko? Kasu honetan ezaugarrien ezagutza kasu guztietan betetzetik behin ere ez betetzerainoko tartea dago.

Ezaugarri honen arabera 6 hizkera (H1, H2...) erkatzen badira ondoko taula edo antzekoa eraiki daiteke:

## 3. taula

	-atan	-etan	-itan	-otan	-utan
H1	+	+	+	+	+
H2	+	+	+	+	-
H3	+	+	+	-	-
H4	+	+	-	-	-
H5	+	-	-	-	-
H6	-	-	-	-	-


Taulak erakusten duen bezala H1 hizkeran kasu guztietan jaso da muga-bearen marka, baina H6 hizkeran behin ere ez; gainerakoek tarteko kasuak bildu dituzte. Hizkuntza errealitate hau kontuan izan behar da hizkerak erka-tzean.

## 4.4. Arau morfonologikoak

Azkenik, arau morfonologikoen arazoa aztertzen dugu. Eman dezagun “-a + a” dugula (hots, -a amaieradun hitzari artikulua erantsi zaiola), eta jaso diren erantzunen artean ondoko amaierak ditugula: *-aa*, *-a*, *-ea*, *-e*, *-ia*, *-ie* eta *-i*. Berauen arteko desberdintasuna arau morfonologiko desberdinak izatean da-tza. Arau guztiek balio berbera badute ere, hizkera batetik bestera ematen di-ren arauak desberdinak direnean edo arau kopurua desberdina denean bi-dezkoa litzateke desberdintasun linguistikoa ere desberdina izatea.

Arazo hau jada beste lan batean ere (Aurrekoetxea 1996) aztertua dut, baina irtenbiderik aurkitu gabe gelditu zen hartan.

Gurean dialektologian ari den askoren ustez beharbada nahikoa da *-aa*, *-ie* eta *-ea* formak desberdinak direla esatea. Baina hizkeren arteko hizkuntza distantziak neurtzerakoan distantzia berdina ote dago *-a* forma duen hizkera-tik *-ia* duenera edo *-i* formara? Desberdintasun horiek modu desberdinez kuantifikatu behar direlakoan gaude. Uste hau jokoan parte hartzen duten arau morfonologiko desberdinetan oinarriturik dago. Kasu honetan ematen diren arau morfonologikoak hierarkia batean sartuz ondoko egitura hartuko luke:



(“---” ez da araurik gauzatu; “1” lehen araua gauzatu da; “2” bigarren araua...)

Zuhaitz hierarkiko honetan ematen diren arau morfologikoak hauek dira:

- [1] a > e / \_\_\_ a #
- [2] e > i / \_\_\_ a #
- [3] a > e / (i, u) \_\_\_
- [4] V > V<sub>1</sub> / V<sub>1</sub> \_\_\_
- [5] V<sub>1</sub> > Ø / V<sub>1</sub> \_\_\_

Egitura honetan arau morfologikoak mailakatu egin dira. Maila bakoitzean arau bat agertzen da. Arauon hierarkia gauzatu da horrela. Zertarako? Batetik arauon hurrenkera bistaratzeko; bestetik kodaketa numerikoa errazteko.

## 5. Datuen kodaketa

Hizkuntza datuak nola aztertu eta egokitu behar diren ikusi ondoren datu hauei dagokien kodaketa erabaki behar da, hain zuzen ere programa estatistikotiko automatizatuek zenbakizko datuekin funtzionatzen dutelako.

Baina nolako kodaketa burutzen den halako desberdintasun linguistikoa lortzen denez, garrantzi handia du behar bezalako analisia egin eta behar bezalako kodaketa egiteak.

Aurreko arazoei irteerak proposatzeko hiru sistema erabiliko ditugu: sistema bitarra, sistema hamartarra eta binakaturikoa.

### 5.1. Erantzun anitzak

Dialektologia edo geolinguistikaren historian zehar oso gutxitan erabili izan dira erantzun anitzak hizkeren konparaketan. Horietako bat J. Séguy-ren saioa dugu (1973b). ALGko datuen azterketa dialektometrikoan, erantzun anitzei kodaketa bitarra erabiliz eman zien irteera.

#### 5.1.1. Sistema bitarra

Sistema bitarraren arabera ezaugarri baten ezagutza edo ezagutza-eza da kontuan hartzen dena. Erantzun anitzak daudenean, ostera, sistema bitarra erabiltzeko datu-taula eraldatu behar izaten da, erantzun bakoitza bakarka aztertzeko. Eraldaketa horretan erantzun mota bakoitzari lerro bat eskaintzen zaio eta inkesta-leku bakoitzean ezagutzen den ala ez markatzen da (ikus 4. taula).

## 4. irudia

G a l d e r a k	4	j	+	+	+	+	+	+
	3	i	-	-	+	+	-	+
		h	+	+	+	-	-	-
	2	g	-	-	-	-	+	+
		f	-	+	+	-	-	-
		e	+	+	-	-	-	-
	1	d	-	-	-	-	-	+
		c	-	-	-	-	+	-
		b	-	-	-	+	-	-
		a	+	+	+	-	-	-
			1	2	3	4	5	6
	Inkesta lekuak							

Taula honetan 4 galdera eta 6 inkesta leku irudikatu dira: lehen galderak 4 erantzun mota ditu (a, b, c eta d), bakoitzak lerro bat hartzen duelarik; inkesta-leku bakoitzean erantzun bat baino ez da jaso. Bigarren galderak 3 erantzun mota ditu, baina “2” zenbakia duen inkesta-lekuan 2 erantzun agertzen dira (e eta f); 3 erantzun mota daudenez gero, hiru lerrotan ezarri dira. Inkesta-leku batean ez denez erantzunik jaso, ezaugarri hori ez duela ezagutzen ulertuko da (-). Hirugarren galderan 2 erantzun mota jaso dira (h eta i), baina inkesta-leku batean (“3” inkesta lekuan) bi erantzunik jaso dira; bi erantzun mota daudenez bi lerrootan ezarri dira eta hemen ere inkesta-leku batean ez da erantzunik jaso. Laugarren galderak erantzun mota bakarra du (j). Ondorioz, lerro bakarra izango du.

Sistema honen arabera, bi erantzun jaso diren inkesta-lekuetan aukera dugu erantzun bakoitza modu independentez tratatzeko. Ikus dezagun 2. galdera: 2 inkesta-lekuan bi erantzun jaso dira (“e” eta “f”); bada “e” erantzunari dagokion lerroan inkesta-leku horretan “+” ezarri da eta “f”-ri dagokionean ere berdin.

Orain hizkeren arteko desberdintasunak neurtzeko moduan gaude (ikus 5. taula). Hizkerak binaka konparatzen baditugu ikus daiteke “1” inkesta-lekutik “2”-ra dagoen desberdintasuna “1” dela, ezaugarri batean baino ez dira desberdin.

5. taula

1						
2	1					
3	3	2				
4	5	6	4			
5	5	6	6	4		
6	6	7	5	3	3	
	1	2	3	4	5	6

Sistema bitarra J. Séguyk (1973b) erabili zuen lehen aldiz dialektologian. Berrikiago Hans Goebl-ek ere erabili du SEDeko datuekin (H. Goebl 1997; H. Goebl & G. Schiltz 1997).

### 5.1.2. Sistema hamartarra

Datuak berak izanik, baina sistema bitarra erabili ordez hamartarra erabiliko bagenu, galdera bakoitzak lerro bat hartuko luke eta bi hizkeren artean ezaugarri bera dagoenean ez litzateke desberdintasunik kontatuko (ikus 6. taula).

6. taula

1						
2	0					
3	1	0				
4	3	3	2			
5	3	3	3	3		
6	3	3	2	2	2	
	1	2	3	4	5	6

Taula honen arabeko hizkuntza distantziak desberdinak dira aurreko sistemaz lortutakoekin konparatuz gero. Ikus daitekeenez, hizkeren arteko desberdintasunak txikiagoak dira sistema hamartarrean bitarrean baino.



## 5.1.3. Sistema binakaturikoa

Kode bakar batean erantzun bakoitzean lortutako datu guztiak sartzen dira sistema honen arabera. Kodeak galdera baten erantzun gisa agertu diren hitz edo ezaugarri bezainbat digito izango ditu. Kodearen irakurketa bertikala egiten da eta ez horizontala. Konparatzen diren bi hizkeren artean digito bera denean ez da desberdintasunik kontatuko.

Sistema binakaturikoan galdera bateko erantzun guztiak ezartzen dira kode bakar batean: lehen galderan 4 erantzun daudenez (a, b, c, d) 4 digitotako kodaketa erabiliko litzateke: “a” erantzunaren kodea “1000” litzateke, “b”rena 0100, “c”rena 0010 eta “d”rena 0001. Bigarren galderan 3 erantzun daudenez (e, f, g), 3 digitotako kodea. Hirugarren galderan bi erantzun (h eta i) daude eta 2 digitotako kodea. Eta 4. galderan erantzun bakarra denez digito batekoa (ikus 7. taula). Honelako taula genuke:

7. taula

g a l d e r a k	4	1	1	1	1	1	1
	3	10	10	11	01	00	01
	2	100	110	010	000	001	001
	1	1000	1000	1000	0100	0010	0001
		1	2	3	4	5	6
	Inkesta lekuak						

Erantzun anitza duten inkesta-lekuetako kodeak bi digitotan “1” zenbakia izango dute eta erantzunik jaso ez denetan digito guztiak “0” izango dira.

Hizkuntza distantzia neurtzean ondokoak lortzen dira:

8. taula

1							
2	1						
3	3	2					
4	5	6	4				
5	5	6	6	4			
6	6	7	5	3	3		
	1	2	3	4	5	6	

Goragoko taulekin erkatuz ikus daitekeenez, sistema bitarrean lortzen diren desberdintasunekin bat dator sistema binakaturikoa. Sistema hamartarrean lortutakoak, aldiz, txikiagoak dira.

### 5.2. Datuen hizkuntza prestaketa

Gorago buruturako hizkuntza prestaketa aurreko eta ondorengo hizkuntza desberdintasun-kopurua aldatu egiten da. Hizkeren arteko diferentziak edo desberdintasun fonetiko eta fonogikoak hauek lirateke (Clua & Lloret 2006, 39):

Hizkuntza prestakuntza gabe hauek lirateke desberdintasunak:

9. taula

	Variedad 1	Variedad 2	Variedad 3
Variedad 1			
Variedad 2	1		
Variedad 3	3	3	

Baina hizkuntza prestakuntza eman ondoren hauek:

10. taula

	Variedad 1	Variedad 2	Variedad 3
Variedad 1			
Variedad 2	0		
Variedad 3	4	4	

Argi dago, beraz, datu linguistikoen hizkuntza analisisa egin behar dela hizkeren arteko konparaketa egin aurretik.

### 5.3. Hizkuntza ezaugarri bat galdera batean baino gehiagotan

Leku-denborazko kasuetan mugagabearen ezagutza (edo erabilera) aztertzean datu-baseko bost erregistrotako datuak erabili dira gorago.

Gorago aztertu den kasuistika guztia kontuan hartuko duen kodaketa eraikitzeko sistema desberdinak erabiliko dira.

### 5.3.1. Sistema bitarra

Sistema bitarra erabiliz hauek izango lirateke hizkeren arteko desberdintasunak:

11. taula

	H1	H2	H3	H4	H5	H6
H1						
H2	1					
H3	2	1				
H4	3	2	1			
H5	4	3	2	1		
H6	5	4	3	2	1	

Hizkeren arteko desberdintasun handiena 5 da (H1-H6); hau da, batean (H1) kasu guztietan mugagabea da, baina bestean (H6) behin ere ez. Gainerako hizkeren arteko konparaketan tarteko desberdintasunak lortzen dira.

### 5.3.2. Sistema hamartarra

Sistema hamartarrean hizkuntz datuek hartu duten egituratik abiatuz, multzo bakoitzari zenbaki bat ematen zaio. Eskuarlean diren aukera desberdinak honela eratu daitezke:

- a1) H1: mugagabeko morfema bost aukeretatik batean ere ez bada ezagutzen: "0" kodea;
- a2) H2: mugagabeko morfema behin agertzen bada: 1
- a3) H3: mugagabeko morfema bi aldiz agertuz: 2
- a4) H4: mugagabeko morfema hirutan jaso bada: 3

a5) H5: mugagabeko morfema lau bider ezagutzen bada: 4

a6) H6: denetan agertzen bada: 5

Datuak horrela kontatuz gero desberdintasunak sailkatzean aukera guztiak desberdintzat jotzen dira:

12. taula

	H1	H2	H3	H4	H5	H6
H1						
H2	1					
H3	1	1				
H4	1	1	1			
H5	1	1	1	1		
H6	1	1	1	1	1	

Hau da, talde batetik bestera distantzia bera izango da beti. Lortzen diren distantziak ikusita ondoko itauna egin daiteke: nahikoa ote da horrela kodatzea? Ez ote du kodaketa sistema honek benetako hizkuntz errealitatea ezkutatzen? Ez ote da informazioa galtzen? Ez ote dago a1) aukera a2)tik, a6)tik baino hurbilago?

### 5.3.3. Sistema binakaturikoa

Hizkeren desberdintasuna ezaugarri honi dagokionez bost datutan oinarritzen denez, bost digitotako kodaketa eraikiko litzateke: kasu bakoitzari kodaketaren gune edo posizio bat egokituko zaio eta bi aukera izango ditu (0 eta 1). Forma mugagabea lortu bada kodea “1” izango da eta ez bada “0”. Horrela, bost zeroko kodeak (“00000”) mugagabea behin ere ez dela jaso esan gura du eta “11111” kodeak oposaketa bost kasuetan egiten dela. Hona hemen adibide batzuk (lehenik kodaketa agertzen da eta ondoren bost amaierak):

— (H1) 11111: -atan, -etan, -itan, -otan, -utan

— (H2) 11110: -atan, -etan, -itan, -otan, -uan.

— (H3) 11100: -atan, -etan, -itan, -oan, -uan.

- (H4) 11000: -atan, -etan, -ian, -oan, -uan.
- (H5) 10000: -an, -ean, -ian, -oan, -utan.
- (H6) 00000: -an, -ean, -ian, -oan, -uan.
- ...

Bost digitoko kodeotan lehen zutabeak *-a* hizkiz amaitzen den deklinagaiaren datuak ordezkatzen ditu (*-an* denean “0” digitoa eta *-tan* denean “1”), bigarrenak *-e* hizkiz amaitutakoarenak, e. a.

Distantzien neurketan sistema hamartarretik urrundu egiten da guztiz sistema hau. Hartan desberdintasuna nabarmentzen zen, baina kuantifikatzeko zailtasunak genituen; honetan, aldiz, goitik beherako irakurketaren bidez desberdintasunak modu erraz batez kuantifika daitezke.

Nola zenbatu edo kuantifikatu desberdintasunak? Goitik beherako irakurketaren bidez digito desberdintasuna zenbatu egingo da zutabez zutabe. Adibidez “00000” aukeratik “10000” aukerara dagoen distantzia kuantitati-boa “1” izango da:

- 00000 (kasu guztietan forma mugatua jaso da)
- 10000 (lehenengoan forma mugagabea eta besteetan mugatua)

Hau da, lehen zutabeen baino ez dago desberdintasuna, beste guztietan digito bera agertzen baita. Ondorioz, distantzia “1” izango da.

Distantzia bera egongo da, halaber, 00000-tik 01000-ra nahiz 00001-ra: hau da, bigarren kodean bigarren digitoa da desberdina eta hirugarren kodean bosgarren digitoa; bietan ere behin baino ez da desberdinki gauzatu (*-a* amaieradun erantzunak hiru kodeotan mugatuak dira, *-e* amaieradunetan bitan forma mugatua jaso da, baina batean mugagabea, *-i* amaieradunetan hiru hizkeratan forma mugatua, *-o* amaieradunekin ere berdin, eta *-u* amaieradunetan bitan mugatua eta batean mugagabea). Hiru hizkerak binaka harturik digito batean baino ez dira desberdinak; beraz, euren arteko distantzia “1” izango da.

Aldiz, 00000-tik 00011-ra distantzia “2” izango da: lehenengo hizkeran ez da mugagabeko morfema bat bera ere agertu (horregatik dira digito guztiak “0”), baina bigarrenan bi kasutan agertzen da mugagabeko morfemari dago-kion digitoa. Kodeok bitan direnez desberdin distantzia “2” markatuko da.

Desberdintasun hauek hizkeretara eramanez gero, ondokoa genuke (13. taula):

13. taula

	H1	H2	H3	H4	H5	H6
H1						
H2	1					
H3	2	1				
H4	3	2	1			
H5	4	3	2	1		
H6	5	4	3	2	1	

Ikus daitekeenez, sistema bitarrean lortzen diren desberdintasunak eta binaturikoan lortzen direnak berdinak dira kasu honetan ere.

#### 5.4. Arau fonologikoen kodaketa numerikoa

Arau morfonologiko baten azaltzeko gorago eraikitako egitura (ikus 4.4. paragrafoa) erabiliz arau bakoitzaren gauzatzeari kodaketa bat eman dakiok. Honek arau bakoitza bereiz aztertzeko aukera ematen du eta kode sistema desberdinak ezartzea ahalbidetzen du.

##### 5.4.1. Sistema bitarra

Sistema bitarrean forma bakoitzaren agerrera “+” eta ezagutza-eza “-” kodatzen bada, kasu guztietan distantzia berdina izango da, “1” (ikus 14. taula):

14. taula

	H1	H2	H3	H4	H5	H6
H1						
H2	1					
H3	1	1				
H4	1	1	1			
H5	1	1	1	1		
H6	1	1	1	1	1	
H7	1	1	1	1	1	1

## 5.4.2. Sistema hamartarra

Sistema hamartarra erabiliz eta forma bakoitzari kode bat emanaz gero kode guztiak desberdinak izango dira; eta ondorioz, kasu honetan ere kasu guztietan distantzia bera emango du: “1”.

15. taula

	H1	H2	H3	H4	H5	H6
H1						
H2	1					
H3	1	1				
H4	1	1	1			
H5	1	1	1	1		
H6	1	1	1	1	1	
H7	1	1	1	1	1	1

## 5.4.3. Sistema binakaturikoa

Arau bakoitzari kodaketa numerikoa ezartzean, maila bakoitzean agertzen den arau morfonologikoaren ezagutza “1” kodearekin adieraziko da sistema binakaturikoan; ez ezagutza “0” kodearekin, aurreko kasuetan bezalaxe. Hizkerak ezaugarriekin lotuz gero, hau izan daiteke, adibidez, egoera:

- H1: *-aa* (arau morfonologikorik ez); hau da 00000
- H2: *-a* ([5] arau morfonologikoa); hau da, 00001
- H3: *-ea* ([1] arau morfonologikoa); hau da, 10000
- H4: *-ia* ([1], [2] arau morfonologikoak); hau da, 11000
- H5: *-ie* ([1], [2], [3] arau morfonologikoak); hau da, 11100
- H6: *-i* ([1], [2], [3], [4] eta [5] arau morfonologikoak); hau da, 11111

Ondorioz, hizkuntza desberdintasun edo distantziak hauek izango dira:

## 16. taula

	H1	H2	H3	H4	H5	H6
H1						
H2	1					
H3	1	2				
H4	2	3	1			
H5	3	4	2	1		
H6	5	4	4	3	2	

Sistema bitarrean eta hamartarrean baino distantzia edo desberdintasun linguistikoak modu zehatzago baten ordezkatzeko dira sistema binakaturikoan. Errepresentazio fonetikoaren azpian diren arau morfonologikoak hobeto islatzen dira kodaketa honen bidez.

## 6. Ondorioak

Honezkero argi dago datuen azterketa geolinguistikoa egin aurretik, bildutako datuen azterketa linguistikoa egin behar dela; ezinbestekoa dela erabiliko diren datuen hausnarketa egin eta hizkuntza sisteman duten funtzioaz galdetzea. Analisi honen bidez maiz ematen diren diakronia-sinkronia ikuspuntuaren nahasteak edota fonetika-fonologia ikuspuntuak, saihesten dira.

Bestalde, analisi kuantitatiboak erabiltzeko hizkeren sailkatze prozedura objektibizatu egiten du eta isoglosen gainean eraikitako hizkeren konparaketek duten subjektibotasuna gainditzen. Analisi kuantitatiboek dituzten ahuluneak kontuan izan behar dira, hala ere; horien artean kokatzen da oso garrantzitsua den datuen ordezkagarritasuna.

Hizkuntza aldagaiek analisi kuantitatibo-estatistikoetara eramateko kodatze-sistema desberdinak aurkeztu dira, eta euren arteko desberdintasunak zertan diren aztertu ondoren, gure helburuetarako egokienaz galdetzerara heldu gara, helburua hizkuntza distantzia neurtzeko izari finena lortzea baita.

Aztertu diren hiru kodaketa aukeretatik (hamartarra, bitarra eta binakaturikoa), lehena baztertu egiten da hizkuntza aldagaien xehetasunak ez di-



tuelako egokiro biltzen. Sistema bitar eta binakaturikoa aproposagoak dira (batez ere azken hau) eta hizkuntza datuek erakusten duten errealitatea ondoen islatzen dute.

## 7. Bibliografia

- Allières, J., 1994, “Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaz”, in R. Gómez eta J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua*, ASJUren gehigarriak XXVIII, Donostia, 45-58.
- , 1992, “Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa”, *Uztaro* 5, 59-109.
- , 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, EHU, Leioa.
- , 1996, “Hizkuntz datuen formalizazio numerikorantz”, *ASJU*, XXX-2, 455-467.
- , 2003, “Iparraldeko hizkeren sailkapena (1): lexikoa” (*ASJU*n argitaratzeko).
- , 2005, “Nafarroako euskararen sailkapenaz”, in P. Etxebarria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaió nun. Txillardegiri omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbao, 109-124.
- , 2008, “Different patterns of geolinguistic structure”, in *Miscellanea Prof. Hans Goebel*. Salzburgoko Unibertsitatea, Salzburgo.
- , 2010, “The correlation between lexical, phonological, morphological and syntactic parameters”, *XIII Methods in Dialectology* (Leeds 4-9 August, 2008), in B. Heselwood / Cl. Upton (arg.), *Proceeding of Methods XIII. Papers from the thirteenth International conference on Methods in Dialectology, 2008*, Peter Lang, 207-218.
- Aurrekoetxea, G. / Perea, M. P. “The Dialectal Survey: a Critical Revision of some Methodological Aspects”, *Dialectologia et Geolinguistica*, 17, 3-11.
- Aurrekoetxea, G. / I. Odriozola / J. Sánchez 2009, “EDAK: A Corpus to Analyse Linguistic Variation”, in P. Cantos Gómez / A. Sánchez Pérez (arg.), *A survey on Corpus-based Research Panorama de investigaciones basadas en Corpus*, Asociación Española de lingüística de corpus, 489-503.

- Aurrekoetxea, G. / Ormaetxea, J. L., 2006, "Research project - "Socio-geolinguistic atlas of the Basque language", *Euskalingua* 9, 157-163 (English version) [www.mendebalde.com).
- Aurrekoetxea, G. / Videgain, X., 1993, "Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: galdesorta / cuestionario / questionnaire", *Euskera* 38-3, 529-647.
- , 1994, "Historia y futuro del Atlas Lingüístico Vasco (EHHA)", in P. García Mouton (arg.), *Geolingüística. Trabajos europeos*, Biblioteca de Filología Hispánica, C.S.I.C., Madrid, 79-96.
- , 2009, "Le projet Bourciez: Traitement géolinguistique d'un corpus dialectal de 1895", *Dialectologia* 2 [www.plublicacions.ub.es/revistes/dialectologia2/], 81-111.
- Clua, E. & Lloret, M.-R., 2004, "Clasificación de variedades dialectales mediante técnicas de análisis multivariante, a partir de un corpus oral", *VI Congreso de Lingüística General (U. Santiago de Compostela)*-en aurkeztutako eskuizkribua.
- , 2006, "New Tendencies in Geographical Dialectology: The Catalan *Corpus Oral Dialectal* (COD)", in J-P. Montreuil (ed.), *New Perspectives on Romance Linguistics*, Amsterdam / Philadelphia, John Benjamins, 31-48.
- Goebl, H., 1997, "Some Dendrographic Classifications of the Data of CLAE 1 and CLAE 2", in W. Viereck & H. Ramisch (ed.), *The Computer Developed Linguistic Atlas of England 2*, Max Niemeyer Verlag, Tübingen, 23-32.
- Goebl, H. & Schiltz, G., 1997, "A Dialectometrical Compilation of CLAE 1 and CLAE 2. Isoglosses and Dialect Integration", in W. Viereck & H. Ramisch (ed.), *The Computer Developed Linguistic Atlas of England 2*, Max Niemeyer Verlag, Tübingen, 23-32.
- Guiter, H., 1973, "Atlas et frontières linguistiques", in G. Straka / P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux (col. de Strasbourg 1971)*, Paris, 61-109.
- Kretzschmar, W. A., 1999, "The Future of Dialectology", in *Dialectal Variation in English: Proceedings of the Harold Orton Centenary Conference 1998*. Leeds Studies in English New Series Vol. 30, [ed., with Katie Wales], 271-287.

- , 2008, in *The Thirteenth International Conference on Methods in Dialectology. Abstracts*, University of Leeds.
- Séguy, J., 1973a, “La dialectométrie dans l’Atlas linguistique de la Gascogne”, *RliR* 37, 1-24.
- , 1973b, *Atlas Linguistique de la Gascogne, vol VI + volume annexe + matrices dialectométriques (phonétique diachronique, phonologie, morpho-syntaxe, morphologie verbale, lexicque)*, CNRS, Paris, « Notice explicative ».
- , 1973c, *Atlas linguistique de la Gascogne. Complément du volume VI*, CNRS, Paris.

# Aragoiera eta euskara Ansoko Toponimian eta Onomastikan Erronkariko adibideen argitan

JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Denboran atzera egin ahala, euskalkiak gero eta antzekoagoak zirela ematen du, nolabaiteko euskara batu zahar baterantz hurbilduko balira bezala. Koldo Mitxelena (1981) izan zen, denok dakigun bezala, honetaz konturatu zen lehena; izan ere, *Lengua común y dialectos vascos* artikuluan proposatu zuen bezala, duela hamabost mende inguruko Euskal Herrian erabili zen hizkuntza<sup>1</sup> euskara batu antzeko bat izanen zen. Mitxelenaren iritziz, V. eta VI. mendeetan koine moduko bat sortu zen gure artean, aurreko euskalkien aniztasuna batuz. Arrazoi historikoak badirela dio Mitxelenak, alde batetik frankoen oldarraldia eta Toledoko erreinuarena, eta beste alde batetik Leovigildoren eta Astrovaldoren kanpainak. Mitxelenaren ustez, indar handia eta antolaketa aski eta sobera egonen zen orduan erasoei aurre egiteko, oldartzeko, garaitzeko eta, finean, gure hizkuntzaren eredu bakarra hedatzeko.

Menéndez Pidal (1950), *Orígenes del Español* liburuaren 3. argitalpenean, garai haietako egoera linguistikoa islatzen saiatu zen berak argitaraturiko mapa batean. Bertan erakusten zen bezala, VI. eta VII. mendeetan dialekto iberikoak Pirinioko borturik gorenetan zeuden barreiatuak, hasi egungo Euskal Herri-  
tik eta Kataluniako ipar-mendebalderaino. Beti ulertu ohi denez, Menéndez Pidak “dialekto iberikoak” esaten zuenean, finean “dialekto euskaldunak” esan nahi omen zuen. Beraz, lur hauek (edo, gutxienez, egungo Euskal Herri-  
tik oso hurbil dauden lurak) antzinako euskara batu horren zati zirela pentsa genezake.

Menéndez Pidak mapa hori marraztu baino urte gutxi batzuk lehenago, 1948ko abuztuan, Pirinioko toponimiari buruzko lehenengo jardunaldiak

---

<sup>1</sup> Mitxelenak ez du ‘protoeuskara’ edo ‘euskara arkaikoa’ kontzeptuekin nahasketarik sortu nahi.

Jakan antolatu zirelarik, artikulu garrantzitsu bat argitaratu zuen: “*Javier-Chabbarri*, dos dialectos ibéricos”. Bertan, aipatu maparen oinarriak ezarri zituen Pirinioko bi dialekto iberikoen teoria plazaratuz, kasu honetan ere beste mapa bat proposatuz. Egilearen iritziz, orduko euskal lurak bi euskalkitan banatzen ziren: sartaldeko euskalkikoak, zeinetan zenbait toponimoren izen elkarketan *etxa*- eta *barri* hitzak nagusi baitziren, eta ekialdekoak, non egoera berean *exa*- eta *berri* hitzak nagusi ziren.

Mitxelenaren intuizioa zuzena dela onartzen badugu, hots, garai hauean euskara batu antzeko bat zegoela onartzen badugu, Menéndez Pidak aipatzen dituen bi euskalki hauek orduko euskara batu haren lehenengo euskalkiak ziratekeen, eta horietako bat, ekialdekoa, Pirinioan zehar (edo Pirinioko zati zabal batean zehar) indar handiz barreiatu zena litzateke. Eta Pirinioko zati batez mintzo naiz, Pirinioan ziratekeen antzinako euskal lur guztiez hitz egitera ez bainaiz ausartzen. Izan ere, albo batera utzi beharko genuke Pallarsen kasua, bestelakoa izan baitaiteke. Alta, Corominasen (1965) teoria egiaztatuko balitz (eta aldiro kritikaren ikusmiran jartzen da), han ere euskararen hizkuntz familiaren mintzaira bat erabili zela ondorioztatu beharko genuke, baina, hizkera hori ez zatekeen batasunaren ondokoa, aurrekoa baizik, eta egungo euskararekin alderatuta, aski ziur, era-bat bestelakoa.

Dena dela, gaur egungo mugetatik kanpo euskara erabili dela frogatuta dago. Horretaz zalantzarik ez dago. Arazoak (zenbaitetan arazo larriak) sortzen zaizkigu euskara noraino iritsi zen zehazterakoan, zientzia eta mitologia, badena eta izatea gustatuko litzaigukeena nahasten baitzaizkigu. Hala eta guztiz ere, duda izpirik ez dago euskarak bere aztarnak utzi dituela Nafarroatik at, ekialdean, Aragoiko ipar-sartaldeko lurretan bederen. Erromanizazio prozesua berantiarra izan zen han, eta, hori dela eta, erromatarkuntzaren garaiko “dialekto iberiarrek” toponimian beren aztarnak uzteko denbora nahikoa izan zuten. Izan ere, Menéndez Pidalen iritziz, Aragoiko toponimo nagusi hauek guztiak biltzen dira ekialdeko euskalkiaren lurretara: *Javierregay*, *San Xavierre de Martes*, *Javierre de Olson*, *Javierre de Bielsa*, *Javierre del Obispo* (Biescas) eta *Javierre de Ara* (Ligüerre eta Berroy ondoan). Ikusten den bezala, *exa*- eta *berri* oinarrien ondorengoak guztiak.

Menéndez Pidalen senaz baliatuz, esan dezakegu ekialdeko euskalki honen lurreetan, *Exaberri* izenaren ondorengoez gainera (ik. Ubieto 1972, *Exaberri amartz*, *Xauieramartes* eta ondokoak), euskal itxurako beste toponimo anitz aurkitzen ahal ditugula; horra hor banaka batzuk: *Aran* (leku askotan: Boltaña, Broto, etab.), *Aratorés* (Castiello de Jaca), *Arbea* (Bolea), *Arriaga* (Ja-

varrella), *Atarri* (Boltaña), *Ayerbe* (top. nagusia), *Bisaurin* (Aragues), *Biscarrués* (top. nagusia), *Bizcarra* (Ruesta), *Castillo de Acher* (Echo), *Chapalanguarra* (Urries), *Escarra* (Tramacastilla), *Iguarda* (Villarreal de la Canal), *Igüés* (Sabiñanigo), *Isuerre* (Urries), *Izabal* (Binacua eta Santa Cilia de Jaca), *Izarbe* (Anzanigo), *La Raz* (Embun), *Larraga* (Bielsa), *Larraca* (Canfranc), *Larraz* (Panticosa), *Lizarraga* (Esplus), *Lubierre* (Borau eta Noves), *Olate* (Cartirana), *Punta Agüerri* (Echo), *Saraso* (Arres), *Savalza* (El Frago), *Txandri* (Zigoze), *Zunzurrunera* (Jaka), etab.

Jakina, *exaberri* oinarriaren ondorengo artean ere badaude Nafarroako herriak (*Javier* eta *Javerri* herrien kasu), baina egia da, oro har, ekialdeko euskalkiaren lur hauetara, Nafarroako ekialdeko herri anitzekin batera, Aragoiko Pirinioko herriak biltzen direla gehien bat, Anso ibarra bera ere, ekialdeko eremu honetan kokatzen baita.

Aingeru Irigarai ikertzailearentzat (Caro Baroja, 1945, 21-22 or.) ekialdeko dialektoaren lurak Aragoiko euskararen azpidialektoen kokaguneak ziren. Bestalde, eta egile honen beraren iritziz, azpidialekto hauek, Aragoian erabiltzen ziren mintzaira horiek, Erronkariko euskararekin nolabaiteko lotura izan behar zuten, era batera edo bestera, auzo hizkuntzak zirelako bederik, eta erlazio hori, egilearen aburuz, oso-oso estua zitekeen, aro garaikidean erronkariak zubererakin izan duena baina anitez ere estuagoaagian.

## 1. Anso eta Erronkari, inguru eleaniztuna

Jakina denez, Pirinioko ibar hauetan (Anson eta Erronkarin) eta ondokotan (Zaraitzun, Zuberoan, Baretosen, Aspen, Echon, etab.) hainbat hizkuntza erabili ohi dira. Herri hauetako biztanleek hizkuntza ezberdinak dituzten arren, antzeko bizimodua dute eta, ondorioz, antzeko beharrak, bai esparru komunikatiboan, bai eta kontzeptu semantikoen multzoan ere.

Hizkuntzak ezberdinak dira, bai, hizkuntzei loturiko mundu ikuskera eta nortasun ezaugarriak ere bai, baina argi dago alor amankomunak ere badituztela, eta gune partekatu hauek ez direla gutxi. Toponimiarena da hauetako bat: izan ere, hizkuntza batean leku izenak adierazteko kontzeptu batzuk erabiltzen badituzte, litekeena da ondoko hizkuntzetan ere kontzeptu horien antzekoak aurkitzea.

Pirinioz honaindiko lurretan nafar-aragoiera erromantzea izan da garrantzitsuena (zilegi bekit alde honetako ahozko mailan bederen bi erromantze

hauek batera hartzea nahiz eta idatzizko mailan -González Ollék (1970) mai-suki erakutsi bezala- bi erromantze ezberdinak izan). Ansok eta Erronkarik izan duten erlazio honen erakusgarri, nafar-aragoiera mintzaira erromaniko honen hitzak bi lurraldeetan aurkitzen ditugu maiz, harreman hori guztiz es-tua izan delako seinale. Izan ere, Anson eta Erronkarin, bietan, nafar-aragoie-raren ondoko hitz hauek erabiliak izan dira eguneroko mintzairan eta ibar hauetako leku izen erdaldunetan utzi dute beren arrastoa:

naf.-arag. *arrigo* (arag. “la simiente se arrigaba” Salbaterra Ezka; eusk. *erreka*, *ugatxa*, *egutxa*; gazt. *La Agua Mayor*, *El Río Mayor*; gask. *arrec*), naf.-arag. *buxo* (eusk. *ezpel*); naf.-arag. *castiello* (eusk. *gaztulu*; gask. *casteth*); naf.-arag. *cabezo*, *coro-na* (eusk. *buru*, *gain*; erronk. *kukula*; gask. *cap*), naf.-arag. *espelunga* (eusk. *leize*, *leze*; gazt. *cueva*), naf.-arag. *forado* (eusk. *zulo*; erronk. *zilo*; gask. *horat*), naf.-arag. *foya* (eusk. *hobi*; gazt. *hoya*), naf.-arag. *gorrillón*, *gurrillón* (eusk. *elurri*, *illurri*), naf.-arag. *paco* (erronk. *oxezki*, Burgi, top. *Opakua*, *Opakia*; gask. *ubàc*, *cap-bat*, *paguèro*), naf.-arag. *petra*, *pedra* (eusk. *harri*; gask. *peira*, *peire*), naf.-arag. *portillo* (Anso, *achar*, *achart*; erronk. *ate*, *atarte*; Izaba eta Santa Grazi arteko mugan, *portillua*; gask. *portalet*, *portau*); naf.-arag. *plano*, *plana* (1. eusk. *ordoki*, *zelai*, *zabal*, *naba*; gazt. *llano*, *llana*. 2. erronk. *xabalco*; gazt. *rellano*); naf.-arag. eta gazt. *solano*, *solana*, *carasol*, *sol saliente* (erronk. *ekialte*; gask. *solà*); naf.-arag. *yusano*, *-a* (eusk. *beiti*); naf.-arag. *susano*, *-a* (eusk. *goiti*); naf.-arag. *royo*, *roya* (eusk. *gorri*; gasc. *roi*, *arroi* / fem. *arroja*).

## 2. Hiru Erregeen Mahaia eta herri etimologia

Goiko hitz zerrenda honen azken adibideak (naf.-arag. *royo*, eusk. *gorri*, gask. *roi* “rouy” / *arroi* “arrouy”) esku ematen digu erlazio estu honen beste adierazle batez mintzatzeko, hizkuntzen ukipen eta nahasketa honek eragiten duen herri etimologiaz, hain zuzen ere. Baldin eta hizkuntza bat baino gehiago elkarren ondoan baditugu eta ulertzen ez dugun mintzaira baten elea gure hizkuntzan erabili behar badugu zer esaten ari garen jakin gabe, ohikoa da hitz hori gure hizkuntzara ekartzea eta gureganatzea gure mintzairan antzeko doinua duen beste kontzeptu baten esanahia hari atxikiz eta emanez, esaten ari garena ulertze aldera. Beste kasu batzuetan, berriz, hizkuntza ulertu arren, ja-torritzko izena desitxuratu delako edo hasierako esanahia ilundu egin zaigulako, gerta daiteke beste era batera ahoskatzea, zentzu osoko adiera berri bat sortuz.

Gure aldean bada, izan, guztiz deigarri gertatu zaidan adibide bat: *Hiru Erregeen Mahaia* mendiaren izenarena (mendi entzuna eta ospetsua, Euskal Herriko mendirik gorena berau, Auñamendiri ongi merezitako ohorea ken-tzen badiogu, zeren eta honen tontorra Biarnoko lurretan baitago, lehengo

Euskal Herriaren barnean, beti ere). Gaur egun oso aipatua eta ezaguna da Hiru Erregeen Mahaia mendi hau, milaka erreferentzia idatziak baditugu honi buruz. Hori dela eta, harrigarriagoa suertatzen da mendi honen berririk ez izatea artxibo historikoetan edo dokumentazio zaharrean. Badirudike izen hori gauetik goizera sortua izan dela gure artean, eta, bizkortasun handiz, zabaldu eta hedatu dela, bere bidea eginez.

Arazo honi irtenbidea eman ahal izateko, azter ditzagun epigrafe honen lehenengo paragrafoan aipatu ditudan hitzak. Euskaraz *gorri* hitzaren adiera nagusia kolorearekin loturik badago ere, toponimian izan ohi da: ‘belarrik gabeko lekua’, ‘belarrez biluzturik’ edo ‘leku soilduta’ (cf. gask. *arroish* ‘mal-kartsua, aldapatsua’). Kasu honetan euskal sustratoak ondoko erdarak eragin ditu eta bai nafar-aragoieraz, bai eta gaskoieraz ere, kolore gorria izendatzeko erabiltzen dituzten hitzek (naf.-arag. *royo*; gask. *rouye*, *rouy*), euskaraz duen bigarren esanahi hori bera ere atxiki dute eta, honela, gaskoieraz *Tabla d’eths Tro(i)s Roys, Rouys, Rouyes* edo *Roayes* zena, *Table des Trois Rois* bezala ulertu da frantsesaren bitartez<sup>2</sup>. Frantsesetik gaztelerara iragan da *Mesa de los Tres Reyes* eman ez eta gazteleratik euskarara itzuli da, egungo *Hiru Erregeen Mahaia* sortuz.

Aipatu segida horren hitzak azter ditzagun banan-banan: lehenik, *tabla*, ‘alorra, lur zatia’ (Urzainki, top. *Goientableta*) adierazten duena (batzuetan ‘aduaa’ edo ‘batzarra’: *Tablajero* Gardeko pertsona izena da); bigarrenik, gask. *tros* (“uno tros de s[e]uba per pasage”<sup>3</sup>, 1680 PADA), gaztelaniaz ‘trozo’ da eta Erronkarin oso erabilia izan da mendi baten alde, eremu edo ‘zati’ jakin bati izendatzeko; adibidez, Izaban Larra aldeko lur horiei guztiei *Los Trozos de Larra* deitzen zaie. Hiru Erregeen Mahaia mendia kokatua dagoen Budogia aurkintzako lur hura bera ere Larrako ‘zati’ bat da. Burgin ere hala erabiltzen

<sup>2</sup> Bestalde, *Trois Roys* (cf. Lèès-Athas, deit. *Pierre Roys*, 1860 PADA) grafia hura bera ere, gaskoiera historikoaren grafia aldakor eta finkatu gabekoari jarraikiz, [troš roiš] bezala irakur daiteke, frantsesaren laguntzaren beharrik izan gabe.

<sup>3</sup> Itzulp. “oihan *zati* bat iraganbide”. Jatorrizko testua (1680ko uztailaren 4a): “Et prosequin la ditte recounechense deu dit mailh advante de Cave la espelunga qui es debaig lou mailh dela mena et de la avant singla a singla entro a cap deu com et lou dit com demora comun per lapart de baix liñhe baten de ristre a ristre entro la pegne de maspetras Et tournan a lo mensar en lou cap de baix de la espelunga prenden tout Carras de debaig lespelunga deu cap deu com en auant a la hache barrade la qual demora ansi bien commun et de quy au cap debaig de lautre mailh Y de moran unos *tros* de suba per pasage et dequi avent al escaler de aige torte et prenen fi en la ditte crouzt la ditte recounechense deu port et montagnhe deustacs”. Pirinio Atlantikoetako Artxibo Departamental, Pau, sign. E.2172: *Relations internationales de la vallée d’Aspe avec L’Espagne: Bornage de montagnes entre la Vallée d’Anso et la vallée d’Aspe*.



da, izan ere, herri honetan bada leku bat *Zatiberri* deitzen dena, baina erdaraz *El Trozo Nuevo* deitzen dutena.

Bukatzeko, eta hirugarrenik, gaskoieraz *gorri* (edo ‘belarrik gabeko lur soildua’ adierazteko hitza. Dokumentazioan aldaera hauek jaso dira: gask. *roaye* (“un grand callau roaye”, 1680 PADA; ald. *rouyé<sup>s</sup>*, *rouge<sup>s</sup>*), *roi* (Lèès-Athas eta Laskun / Lesküine arteko mugan, top. *Mailh Roi*; Anso, Lhers eta Borza arteko mugan, *Pico Royo*, gask. *Pic Roi* edo *Rouge*) eta *rouy* (Lanne-en-Barétous, top. *Roy*; Aspeko Lèès-Athas eta Escot, top. *Mail Rouy*; orobat, Oloroeko Lurbe St-Christau herriko mendi baten izena da; bestalde, Aspe ibarreko Sarrantze herriko *Eth Turoun dous Aüreys* mendiari *Trône du Roy* izena ere ematen zaio; cf. IGN).

Beraz hiru errege ezezagunen mahai baten orde, hemen ziur aski duguna hauxe da: mendiko leku bat, alor bat, hots, “taula” bat, barnean lur zati bat duena belarrez biluztua. Mendi honen benetako izena “Pueyo de Nay” edo “Puerto de Nay” da, Ansoko Udal Artxiboko 1623ko agiri batean irakur daitekeen bezala.

### 3. Ansoko Sayéstico aurkintzaz

Ansoko mendi izenen artean beste kasu interesgarri bat dago: *Sayéstico* toponimoarena. Alde batetik, toponimo hau 1272ko agiri batean aipatzen da lehenengo aldiz gure dokumentazioan. Halaz ere, kopia batzuen bitartez iritsi da guregana. Kontua da kopiak egin dituzten notarioen irakurketaren arabera hainbat grafia ezberdin jaso direla. Dena den, argi dago kopia horietako ba-

---

<sup>4</sup> Jatorrizko testua (*loc. cit.*): “Et de laditte croutz trauesan enta la part de haut comme en la darrera et enuiron qrante pasades en une pegne *rouye* fou feita une croutz naue A punta de marteig que regarde auSeu laqualdittas partidas reconegon. (...) Et prosequin perloudit quoch acapus dret a dret enune lose rouye se fe un autre croutz apicq de marteig qui espia enta la ditte punta de arrj”.

<sup>5</sup> Jatorrizko testua (*loc. cit.*): “Et prosequin la ditte reconechense perdebaig la landera<sup>356</sup> a un barello defuis deu qual barelou Se trouba en une peire blange une croutz qui espice amiey Jour et pasan mey abant et trauesan Larrecq qui tonba delescale de aigetorte a siespas deu dit arrecq en une peire grande *rouge* y a une croutz qui espice aupoy de las grauetas et austanes Et heitte afason de un espeluncq Et pasan plus abant a un geit de peire pasat un arreqot se trouba un e croutz en une pegne *rouge* qui regarde louSeu Et aplus abant comme entau costat de ahut se trouba-defens un arrecq en une peire planera *rouge* une croutz qui espice loupoye deustacs las quales dittes croutz soun estades renouades a picq de marteig et reconegudas perlas dittes partidas qui diuidechen lous ditz termis et despuso la darrera croutz puyan dret per lou dit arrecq a la punta de gauedailh et de laa serra a serra entro la contenda de amandon et de la Contenda denauant tout la mey aige berten entro la lamardela ou feneix et acabe la ditte reconechense”.

tzuetan *-toki* atzikia oso garbi irakurri dutela, toponimoaren lehenengo osagaia irakurtzeko unean arazo handiagoak izan dituzten arren.

Honela bada, 1585ko lehenengo kopian *Sayestoqui* jaso du notarioak, bigarrenean *Soyestoqui* (aldaera akastuna dela nabaritzen da) eta 1637ko kopian, *Saiytoqui*. Baina beste kopia batzuetan *-toki* atzikiaren ordezt *-teko* eta *-tiko* aldaerak ditugu: *Sayesteco* (1586, 1593, 1596), *Saiesteco* (1593), *Saiestico* (1596), *Sayestico* (1645, 1651, 1652, 1656, 1658, 1664, 1665, 1666, 1667, 1668, 1699), *Puerto de Sayéstico* (1765).

Toponimo honek erakusten digunez, izenaren garapenean, mendeen joanean, hasierako egoera desitxuratu egiten dela, finean ez dakigula zein den jatorrizkoa eta zein eratorria, ez dakigula ezta biak ere ez ote diren beste leku batetik eratorriak, zeren eta *saihets-toki* batetik abiatuak (noizbait *sai-toki* bezala irakurria eta ulertua) *saihets(e)tiko* batera irits baitaiteke, eta alderantziz. Azkuek *saihetsetiko* hitza jaso zuen bere hiztegian ‘provenant du côté’ adierarekin. Izan ere, dokumentatu den aldaerarik zaharrena *Sayestoqui* den arren (kopia batean, beti ere), hiper-zuzenketaz sorturiko akatsa dateke.

Aldaera erakargarria bada ere (*saihets* eta *toki*, bi osagaiak ongi bereizturik) badirudi *Saihetsetiko* dela erabiliena eta, agian, jatorrizkoa dena, hauxe baita gehien dokumentatzen den aldaera eta gaur egun Santa-Grazin bizirik gorde den bakarra. Egiaz, notarioak 1637ko kopian *Saiytoqui* eta 1944koan berriz Jorge Puyok *Saystoqui* idatzi dute oinarrian eusk. *toki* hitza dagoela gogoratu nahiko balute bezala. Guztiarekin ere, herri etimologiak *saihetsetikoak*, *saihetekiak* eta *sai-tokiak* hitz hauek guztiak nahastea ez litzateke hain harrigarria, Uztarrozen *El Pico de los Buitres* eta Armentadoian *El Pico de Saymurua* (1593) mendiak baititugu.

#### 4. Nafarrak Anson sartu zirenekoa eta Urristiren kasua

##### 4.1. Urristi toponimoaz

Gure inguruetan “Urristi” izena duen toponimo bat badela esango baligute, edozeinek erantzungo luke hori euskara garbia dela eta toponimoaren esanahia garden-gardena dela ere bai, euskaraz pentsatzen zuten antzinako euskaldun batzuek sortua, hain zuzen ere; bai, eusk. *hurritz* oinarriarekin lotura duela dirudike. Bestalde, toponimoa kokatzeko eskatuko baligute ez genuke, jakina, ekialdean kokatuko, han *Urriztoia* espero izanen baitugu eta ez *Urrizti*, gauza ezaguna baita *-doi* atzikia dela alde honetako toponimian menderen mendetan

erabili ohi dena (cf. Santa Grazin top. *Ürrüstoia: Urrustoye*, 1914 PADA; Larrairen, *Urrustoy*, *Urrustoycocaparra*, *Urrustoypeco*, 1832 id.; Barkoxen, *Urrustoy*, IGN; Altzürükün, *Urrutchtoya*, id.; Eskiulan, *Urruztoya*, id.).

Beraz, “Urristi” Ansoko toponimo dela esango baligute, arras harriturik geldituko ginatke, eta, hala eta guztiz ere, halaxe da, Ansokoa da berau. Toponimo hau euskararen argitan guztiz etimologia argikoa dela iruditu arren, bitxia gertatzen da guztiz (cf. halere, Izaban, *Ukerdi* leku izena, \**urkidoi* toponimoaren aldaera datekeena). Izan ere, izen hau aurkitu dugu ez zegokion lekuan. Saia gaitezen, ahal bada, arazo honi irtenbide bat bilatzen eta, horretarako, azter ditzagun dokumentazioan aurkitu ditugun aldaerak, konponbideren bat eman nahi ote diguten ikustearren:

1. *Urristi*, puerto de la ralla de (1645 AUA); *Urristi*, la Ralla de (1652 id.); *Urristi* (1699 id.).

2. *Uriste*, el Puerto de la Ralla de (1641 AUA); *Uriste*, ralla de (1661 id.); *Uriste*, Puerto de (1765.09.04 AUA); ald. *Vuriste*, el Puerto llamado Ralla de (1653 AUA); ald. *Ouriste*: “d’Ouriste et dets Cristalles” (1860 PADA). Ohar bezala derradan bukaeran *e* bat izatea *i* baten ordean guztiz normala dela hemengo euskal toponimian (*Ezkaurri* / *Ezkaurre*), eta hemendik kanpokoan ere (*Artzi* / *Artze*). Honekin esan nahi dudana da *Urristi* eta *Uriste* izen bera ahoskatzeko bi era baizik ez direla.

Esanak esan, orain arte datu garrantzitsu bat izkutatu dut leku izen honi jite euskaldunago emate aldera. Aitor dezadan nire hobena: bada, izan, aldaera bat dokumentazioan zaharrena dena eta hitz hasieran *u* izan gabe *o* bat daukana:

### 3. *Orrist*, *Orriste*

Bai, eiki, XIII. mendeko dokumentazioan *Orrist* eta *Orist* aldaerak ditugu, baina XVII eta XVIII. mendeko agiri guztietan, bai Anson, bai eta Borzan ere beti *u* aurkitzen dugu kasu guztietan. Halabaina, XIX. mendeko agirietan agertzen da berrito eta, ondotik, horixe da dokumentazioan jasotzen den bakarra, zenbaitetan hasierako bokala bera ere ezabatuz, *o* artikulua aragoiarra delakoan (*Riste*, 1923 AUA; *Ladera de Risté*, SGE).

Izan ere, ansoarrek hasierako bokala artikulutzat hartu ohi dute (herri etimologiaz, berriz ere) eta egun *O Risté* deitzen diote. Dena den dokumentazioan behin eta berriz batera jaso ohi da (*Orriste*, 1859 AUA). Halaxe gertatzen da *Sayéstico* toponimoa iruzkintzean aipatu dugun 1272ko dokumentuaren atal garrantzitsu batzuetan. Jatorrizko agiria bi kopia gorde dira,

latinez idatzita biak, agiri bereko bi bertsio guztiz antzekoak direnak baina zenbait ezberdintasun txiki dituztenak (kopia batean *Sayestoqui* eta *Orrist* grafiak erabiltzen dira eta bestean, berriz, *Soyestoqui* eta *Orist*). Kopia zahar hauetaz gainera, bada beste bat gaztelaniara itzulia, kopia baten hasierako lerroen itzulpena dena. Latinez idatzitako kopia eta bere gaztelaniazko itzulpena interes handiko agiriak dira, zeren eta bietan, Gaztela eta Aragoiko erregeak Nafarroako erregeari gerra egin ziola aipatzeaz gainera, garai gatazkatsu haietan nafarrak Anson sartu zirela eta herria kiskali, erraustu eta suntsitu ondoren, inguruak jendez hustu zituztela aditzera ematen baita:

NOS PHILIPPVS Dei gratia, Rex Castellae, Aragonum... fuisset sigillo pendenti dicti domini Regis sigillatum quia tamen ratione *guerre præterite tunc existentis inter nos et Regem Navarrae tempore quo dictus locus de Anso et vallis eiusdem fuerunt de populati per Nauarros...* «Manifestum sit omnibus q. nos Jacobus Dei gra. Rex Aragonum et Regni Maioricarum Comes Barchinonae et Vrgelij ac Dominus Montispesulani Attendentes quod vos fideles nri. homines de Anso estis plurimis necessitatibus aggrauati et cetera quæ hic nonponuntur vsq. ad hanc clausulam Preterea damus vobis et uris successoribq. plenam licentiam et potestatem quod cum bestiarijs et ganatis vris intretis et pascatis in terminis de forcala et de Cabanyas et in sierra sancti Thomae vsq ad Sagarra sicut aque vertunt et reclusa, Allarat, estiuiella, tortiella, *Sayestoqui*, Pietraficha, el rigo de lo xarito con la yxardoya, Maqueran, Sabugar, el clamon de garrinyolar, el campo redonno, camon luengo, gorriça soroa, aguatorta, Astanes con yzarra, Aspe consu estiu vsq. ad aliuy guarrinza et *Orrist*, Ayenzal, Aunzate, cum montibq. costis Silvis, et cum omnibus alijs pertinentijs ad prædictos terminos et loca pertinentibus vel debentibus pertinere... Datj apud jaccam K.las nouembris era Millesima ducentesima septuagesima secunda. Testes huius rei sunt Infans Aragonum P. Cornelij maiordomus f. Aznarij, Vallesius de Berga Petrus Maça Sijnum Petri Joannis scriptoris hac scribi fecit, vnde licet dictum priuilegium sigillo... hominum Vniuersitatis loci de Anso

Felipe II.ak berresten du Jaime I.ak Anso ibarrari emandako erregalia Guarrinza, Aguatuerta, Estanes eta Esper bortuak gozatu ahal izateko. Monzonen emana, 1585eko azaroaren 29an. Paper sorta 223 / 2 (Felipe II.aren aurreko errege guztien berrespenak biltzen dira sorta honetara):

Manifestum sit omnibus quod nos Jacobq Dei gra. Rex Aragonum et Regni Maioricarum Comes Barchinonae et Vrgelli ac Dominus Montispesulani Attendentes quod vos fideles nri. homines de Anso estis plurimis necessitatibus aggrauati et coetera quae hic nonponuntur vsque ad hanc clausulam Praeterea damus vobis et uris successoribus plenam licentiam et potestatem quod cum

bestiariis et ganatis vris intretis et pascatis in terminis de forcala et de cabañas et in Sierra sancti Thomae vsq. ad Sagarra sicut aquae vertunt et reclusa Allarat et Estiviella Tortiella *Soyestoqui* Pietraficha el rigo de Loxarito con La yxandoya Maqueran Sabugar el clamon del Garrinyolar el Campo redonno camon luengo Gorriñça Soroa Aguatorta Astanes Conyzarra Aspeçoriza Estiua vsq. ad Aliuy Guarrinza et *Orrist* Ayensal, Aunzate cum montibus costis siluis et cum omnibus alijs pertinentijs ad prædictos terminos et loca pertinentibus vel debentibus pertinere quos præfatos terminos cum omnibus quæ ad eos pertinet habeatis possideatis et explectetis ad omnes vras. voluntates Ita quod nullus sit ausus prohibere vel vectare vobis vel vestris ganatis præfatos terminos nec impedire vel molestare vos in aliquo super ipsis et si forte aliquis sine voluntate vra. intrauerit in terminis supradictis accipiatis de vna quaque capana Decem Oues et Insuper perdat nram. gratiam et amorem et dabit nobis pro poena Mille morabatinos. Datts apud Jaccam Kas. Nouembris era Millesima ducentesimna septuagesima Secunda. Testes huius rei sunt Infans Aragonum P. Cornelij maiordomus f. Aznarij, Vallesius de Berga Petrus Maça Sijnum Petri Joannis scriptoris.

1272ko erregaliaren berrespena eta, orobat, Ansoko dermioari lur eremu zabala eman zaiolako agiriaren berrespena. Paper sorta 223 / 6.

Sea a todos manifesto que se presento a Nos Jaime por la gracia de Dios Rey de Aragon, Valencia, Cerdeña y Corcega y Conde de Barcelona por Vos nuestros fieles hombres de Anso y su valle cierto privilegio, por el Serenisimo Señor Jaime por la gracia de Dios Rey de Aragon de feliz recuerdo nuestro Abuelo concedido a los hombres de Ansó i cuyo favor esta mas abajo, y se nos espuso reverentemente que tenian el mismo privilegio certificado por vos con el sello pendiente del citado Señor Rey aunque ahora carezca del dicho sello, lo que aconteció por la causa y casualidad, a saber, *quando por la guerra de Aragon y Navarra*, viviendo el escelentisimo Señor Pedro de buen recuerdo nuestro Padre, *la referida Villa de Ansó fue abrasada y destruida por los Navarros*, de quienes vosotros despues el dicho privilegio sin sello recobrasteis.

Pedro IV.a Zeremoniatsua Erregeak Anso ibarraren alde Jaime I.ak eman-dako erregalia berresten du. 1338-1387 urteetako dokumentazioari dagokio, baina 1637an egindako kopia da eta, bertan, Ansok eta Fagok Frantzia eta Echorekin 1272an sinatu zuten konkordiaren beste kopia jaso da Ansoko Udal Artxiboan kontsultagai dagoena.

Aurreko testigantzak baliagarriak suertatu zaizkigu *Orrist* toponimoaren lehenengo agerraldiak ezagutzeko eta, orobat, nafarrok gerra garaian Anso-rekin izan dugun harremanaz konturatzeko. *Urristi* edo *Orrist* eztabaida irekita utziko dugu oraingoz, irtenbide garbirik ez baita ikusten zirt edo zart

egiteko. Hori bai, argi utzi behar da hitz hasierako *u* eta *o* bokalen alternantzia, hitz bukaerako *e* eta *i* bokalena bezain arrunta edota ohikoa dela, hots, aldaeren hitz hasierako lehenengo bokala *o* izan edo *u* izan ez dela oztopo fonetika historikoaren ikuspegitik, beti ere, oinarrian (*h*)urritz izan dezakegula; izan ere, *u* bokala *o* bezala garatzea, edo alderantziz, bilakaera ezaguna da gure aldean, ikus dezagun, bestela ere, Iزابako toponimoen ebakera On Justo Bake Salbotx jaunaren mintzoan: top. *Oxanea* [usanea], top. *Urdaite* [ordoiti].

Bestalde, *Urristi*, *Urriste* eta *Orrist* (cf. Nafarroan *Ori*, *Oritz* eta *Orritz*) toponimoak jasotzen dituzten agiriak aipatzen dute nafarrok gerra garaian zein bortizki jokatu genuen jakin ondoren (Anso kiskali eta deuseztatu baikeen), ikus dezagun orain nolakoa zen gure jokaera bake garaian.

#### 4.2. Nafarrak Anso aldean

Ansoko artxiboan den agiri batean *Onzatiello* (*Anzotiello*) eta *Laxerito* (*Lacherito*, *Acherito*) aldean lanean ari ziren nafar batzuei buruz mintzatzen da. Agirian ez da zehazten Nafarroako zein lekutakoak diren, eta, hortaz, ez dakigu ea erronkariarrak diren, zaraitzuarrak, edo nongoak izan ote daitezkeen; ez dakigu, agiriak ez du aipatzen. Hutsune hau dela eta, galdera bat datorkigu burura: izan ere, *lingua navarrorum* entzutean denok ‘euskaldunen hizkuntza’ ulertzen badugu, zilegi izanen ote da *nafarra* hitza entzutean ‘euskalduna’ ulertzea? Hala balitz, Laxerito aldean ziren lagun horiek nafarrak izan ordez, zuberotarrak izan zitezkeen, edo, Ansoko hitzun elebidunak apika (cf. Ansoko hiritik hurbil, top. *La Fuente de los Navarros*<sup>6</sup>). Bestalde, kontura gaitezen agiri honetan *Urriste* aldaera dokumentatzen dela (Anso, 1655eko maiatzaren 16a):

Prim.te riendan dichos ss. a dicho Domingo Lopez Gera los puertos de la Ralla de Urriste Foya de Santa Maria y Lagerito... rienda la Ralla de Urriste Foya de Santa Maria y Lagerito por los mojones acostumbrados y Arozquia y todos con sus baxantes. Item es condicion se han de guardar dichos puertos, o, sus yerbas por los mojones acostumbrados conforme lo dicen las demas Capitulaciones precnciando por encima del Paset de la Tajera peña peña y por la senda que

<sup>6</sup> Cfr. halaber, gure eremutik guztiz at, Torla (Huesca, Aragoi), top. *El Puente de los Navarros*, Ara ibaia zeharkatzen duen zubia, Ordesatik datorren *Arazas* erreka bokaletik oso hurbil.

viene de la Ralla que se junta en el Lomarron de la Tajera con el rendamiento del puerto de Lagerito y lomarron abaxo hasta los mojones q. se ha acostunbrado del puerto cerrado y baxando por el extremo de la Ynçea al barranco de Lizardoya y agua, agua al barranco quº baxa de Oncatiello y *mojones de los nabarros que estan en Onzatiello y en Laxerito* quedando comun las ferrerías hasta el barranco quº baxa del mallo de Pietra Ficha y agua agua hasta el barranco qº baxa del Paset de la Taxera y el puerto de Arozquia por los mojones acostumbrados y su retrox como se acostumbra.

Aguatuertako bizkarra eta La Rueba aurkintzei buruzko hitzarmen edo kapitulazioa. Ansoko Udal Artxiboa.

Nafarren eta ansoarren arteko harremanaz mintzatu nintzen Izabako Julio Uhalde jaunarekin, Iruñeko Aduana Zokoan zuen *Ciclos Hualde* dendan. Bere hitzetatik ondorio bat atera daiteke, ansoarrek erronkariarekin betidanik izan dutela harremana. Bestalde (hau ez da oso gauza jakina), altxonbide garrantzitsu bat hasten da Erronkarin eta Anso aldera jotzen du berehalaxe. Erronkariako artzainak euskaldunak ziren eta, garai batean, ez oso aspaldi, erraza litzateke euskara entzutea Anson, gutxienez hara joandako erronkariarren ahotan. Baten bat han geldituko zen bizitzera, beste batzuk ezkonduko ziren, ansoar anitzen aitak edo amak, edo biak, euskaldunak izanen ziren, aski ziur. Julio Uhalde jaunak ondoko gogoeta hauek egin zizkidan 1986ko apirilaren 4ko goiz hartan:

Yo no he oído nunca que ha habido malas relaciones; al contrario, los ganaderos se juntaban en las mugas, se trataban, buenas relaciones, y la ganadería del valle de Roncal iba mucho a Aragón. Salía de Garde, por Garde, la Virgen de Puyeta, Calveira. Ya en Ansó, Casa Sanz, caer a Berdún... Eso en la cañada. Pero bien. Eran como vecinos. O sea, no les parecía bien a los ganaderos ansotanos que fuéramos a rondar hierbas, porque les quitábamos los pastos de allí, pero nada más. De ahí no pasábamos. Decían: *¡Navarrina mala! ¡Esa navarrina! ¡Pero qué nubes de ganados salen de ise Navarra!* Ellos eran más pequeños, doscientas cuatrocientas, quinientas, generalmente, de aquí salían más, unas nubes de mil quinientas, dos mil cabezas que eso no lo veían muy bien, pero esa era la vida.

Ansoarren eta nafarren arteko erlazio hau oparoa izan da menderen menderetan, eta honen frogaz bezala, Ansoko onomastikan utzi duen arrastoa. Ondoko abizen hauek guztiak Ansoko Udal Artxibokoak dira eta hiri hartako biztanleei dagozkie; beraz, deitura ansoarrak dira; euskaldunak, bai, eiki, baina ansoarrak, Ansokoak: *Aroça* (1369), *Arreguy* (1646), *Belat* (1657) *Beleterria* eta *Bereterria* (1624), *Camargulea* (1369), *Carlos de Çiriça* (1563), *Chaberria*

(1656), *Charte* (1668), *Philipe Derra* (1647), *Duarte* (1669), *Echarri* (1656), *Echarte* (1668), *Gale* (1669), *Garces* (1369), *Gayarre* (1652), *Gimeno* (1369), *Gorria* (1859) eta *Gurria* (1691), *Guebara* (1650), *Hualde* (1661), *Ilaria* (1369), *Insausti* (1586), *Jimeno* (1691), *Laboraria* (egungo deitura), *Laruyegui* (1369), *Lope Enedroc alias Nagusi* (1369), *Lorea* (1647), *Mendiara* (hau ere, garaikidea), *Mendibe* (1859), *Navascues* (1663), *Olbara*, *Olvara* eta *Obrara* (1604), *Ollozcariqueta Beti y Martiniz* (1665), *Orradre* (1667), *Petrineta* (1650), *Sanz* (1369), *Sola* (1657), *Urdin* (1668).

## 5. Pirinioko alde honetako hizkuntzen zenbait ezaugarri berezko

Anso eta Erronkariko eremu honetan historikoki bi hizkuntza nagusi erabili ohi dira, nafar-aragoiera erromantzea eta euskara, hurrenez hurren eta, berariaz esan ez bada ere, bi hizkuntzok bi lekuetan batera ere bai. Izan ere, nafar-aragoiera izan da, euskararekin batera, Erronkariko berezko erromantzea (toponimian utzitako hatzak ukaezinak baitira) eta euskara, nafar-aragoiera erromantzearekin batera, Ansoko berezko hizkuntza ere bai.

Eremu hauek, Corominasek (1965, 119. or) Pallars Garaiko lurretarako eta Jakerriako ipar-mendebaldeko eremurako proposatzen duen bezala, elebidunak izan ziren denbora luzez. Erromatarrak Aragoiko Pirinioko borturik gorenetera (Somport, Boltaña, Benasque eta Rodara) iritsi ziren Kataluniako ipar-ekialdeko bortuetara eta Jakerriako aipatu ibarretara baino askoz lehenago.

Lur hauetan guztietan askoz ere beranduago hedatu ahal izan zuten beren eragina eta, Coromines iritiz, honek ahalbidetu zuen oso goiz erromatartu ziren goi haran horien bi aldeetan bi hiztun talde gelditzea oraindik beren hizkuntza prerromanikoa erabiltzeko gai zena. Corominesek teoria hau babesten dituen toponimo asko aipatzen ditu eta R. Menendez Pidak erromanizazioaz zuen ikuspegia zalantzan jartzen du, bere iritiz sinpleegia baitzen. Nola-bait esateko, ematen du latina iritsi zelarik edota erromantzea sortu zelarik den-denak hasi zirela latinez edo erromantzez hitz egiten, eta ez dirudi hala denik (cf. *loc. cit.*):

on semble croire que tout le monde s'est mis à parler latin ou roman tout à coup et en abandonnant la langue préromane pour de bon.

Elebitasunaren, hizkuntz ukipenaren eta euskal sustratoaren eraginaren-gatik, gure alde honetan erabiltzen diren hizkuntzek zenbait ezaugarri komun



dituzte. Jakina, nafar-aragoiera ez da alde honetan bizi izan den bakarra, gaskoiera du bizilagun. Muga zabala partekatzen du erromantze horrekin, izan ere, Anso eta Borza arteko lurren toponimia gaskoia da ehuneko handian. Gaskoierak indar handia izan du eta Erronkariko toponimian bertan nabaritzen da bere bizkortasuna (cfr. Uztarroze, top. *Landalonga*; Izaba, top. *Murlong*, *Camalonga*).

Hiru hizkuntza hauek estuki lotuta daude geografikoki, historikoki eta linguistikoki ere bai. Euskara izan da beste bien lurraldeetan haiek baino lehenago bizi izan dena eta honek ondorio nabariak izan ditu hizkuntza gazteen sorreran, jitean eta haien garapenetan ere bai. Grosclauderen (1977) eta Zierbideren (1980) lanak ezinbestekoak dira lotura honen neurria bere osotasunean ulertzeko. Dena den, eta llabur-llabur, hemengo hizkuntzen ezaugarri amankomun behinenak eta ezagunenak aipatuko ditut, gogoratzeko bada ere.

Gauza jakina da hiru hizkuntza hauek hitz hasierako dardarkaria arbuia du eta bokal protetiko bat eransten dutela; adibidez, lat. *rancor*, *-oris* hitzaren ondorengoetan aldaera hauek ditugu: naf.-arag. *arrancura* ('auhena, kexu') gask. *arrancurà* (id.) eusk. *arrenkura*, *arrangura* (id.); gaztelaraz eta frantsesez, berriz, protasirik ez da gertatzen (eta gainera esanahia bera ere aldatzen da): gazt. *rencor* ('aiherkundera, herra') fr. *rancœur* (id.).

Halere, gorago aipatu den adibide batean ikusi dugun bezala, badira zenbait salbuespen (izan ere, gask. *roy*, *rouy*, *roaye* hitza aipatu dugunean gure eremuan bokal protetikoa ez dela beti erabiltzen egiaztatu ahal izan dugu, nafar-aragoieraz bezala, *royo*, *roya* eta euskaraz mailegu askorekin gertatu ohi den bezala).

Hasperenketari dagokionez, jakin badakigu erromatarkuntzaren aurreko garaian Euskal Herri osoan, hots, orduko Euskal Herri osoan (oraingoa baino handiagoa baitzen), hedatuta zegoela. Behin baino gehiagotan, hizkuntzalariak hasperenketaz baliatu ohi dira izen bat euskal ondare historikokoa dela antzemateko. Hala eta guztiz ere, hasperenketaren jokabidea guztiz bitxia da gure eremuan: Pirinioz haraindian gorde eta Pirinioz honaindian galdu da. Iparreko herriek, euskaldunak izan, nahiz gaskoia izan, hasperenketari gordetzen jakin dute (gask. *hount*, *hounta* 'iturri'; eusk. b.-naf. *auhari*, zub. *aihári* 'afari'), hegoko herriek, berriz, galdu dute (naf.-arag. *fabla* 'mintzaira'; erronk. *aigári*, orok. *afari*). Kasu zehatz honetan, bai, iparhegoko ardatza hautsi dela dirudi eta bi jokaera ezberdin nabaritzen dira kontinentean eta penintsulan.

Sudurkariaren jokaera bera ere ezberdina da hemengo hizkuntzetan. Alde batetik, nafar-aragoieran bokalen arteko sudurkariak irauten du (lat. *fenestra* > naf.-arag. *finestra* ‘leihoa’) eta, aurreko paragrafoan ez bezala, oraingo honetan hegoaldeko eta iparraldeko euskalki guztiak bat datoz bokalen arteko sudurkaria eroraraztean (lat. *terminus* > eusk. *dermioa*). Kasu honetan euskarak eta gaskoierak jokaera bera dute, gaskoierak ere sudurkaria arbuizatzen baitu bokalen artean (gask. *hiestre* ‘leihoa’; *tèrme*, *tèrmi* ‘dermioa’).

Finean, derradan, gure aldeko hizkuntza guztietan, frantsesez izan ezik, *b* eta *v* nahastu egiten direla herskariaren mesedetan (gask. *baque* ‘behi’; Anso, *bacal* ‘behiaren larrua’, *bal* ‘ibarra’). Ildo beretik, euskaraz ere latineko *v* konsonantea *b* bezala garatzen da (lat. *virginem*, eusk. *birjina*).

## 6. Euskararen hatzak Anson eta nafar-aragoierarenak Erronkarin

Anso eta Erronkariko hizkuntzetan antzekotasunak eta ezberdintasun nabariak daudela erakutsi ondoren, azter dezagun orain hizkuntza horiek auzoko ibarretan izan duten eragina. Alde batetik, Ansoko erdaran oraindik bizirik dauden zenbait hitz euskaldun, mendietan irauten duten euskal izenak, eta, beste alde batetik, Erronkarin erabili den nafar-aragoieraren hatzak.

Lehenengo gaiari helduz, gogoratzekoa da ansotanerak euskal hitz batzuk gorde dituela. Vicén eta Moncayola (1991) egileen hiztegian ondoko hauek aipatzen dira, besteak beste: *dingolon dango* ‘poliki-poliki’, *bizcarrera* ‘goiko habea’; *borzarins* ‘elurretako oinetakoak’; *buga*, *bua* ‘muga’; *cascabillo* ‘aran txikia’; *chandra* ‘emakume alferra’; *chiquín* ‘txiki’ eta *gorrillón*, *gurrillón* ‘elorri zuria’.

Erronkarin erabili den nafar-aragoiera erromantzeari dagokionez, adibide asko aurki daitezke toponimiaren alorrean bereziki. Hona hemen zerrenda luzexka, baina behar-beharrezkoa eragin honen nolakotasuna ikusaratzeko:

*La Aisa de la Corsera* (Uzt), *El Arbejar* (Bur), *La Artiga* (Bur, Err, Gar, Izb, Urz), *Los Artigazos* (Gar), *El Asistiadero* (Gar).

*Las Bacías* (Bur, Err, Urz), *Las Bacibas* (Urz), *La Badina* (Bur, Izb), *El Bagüeso* (Err), *La Bal* (Gar, Bur, Urz), *Balderrey* (Err), *La Baleta* (Err), *La Balle Alta*, *La Balle Baxa* (Gar), *La Balletuela* (Uzt), *La Barbacana* (Izb), *El Barellón* (Bur), *La Barilla* (Bur), *La Baritica* (Err), *La Basa de Ollat* (Bur), *Basilipueyo* (Bur), *Las Saleras del Bastero* (Bur), *El Batán* (Gar, Izb), *Los Batanes del Batanar* (Urz), *El Bedado Boyaraz* (Gar), *El Bedado Casalenco* (Err, Urz), *La Belena* (Err, Izb), *El*

*Berguizal* (Urz), *La Bochasca* (Bur), *Los Boches* (Uzt), *La Bochuela* (Bur, Err), *El Bojacar* (Gar), *El Bojecar* (Izb), *El Bojeral* (Bur), *El Boquero* (Bur, Bid, Err), *El Boquero Francisco* (Bur), *El Boquete* (Bur), *El Bordial* (Bid, Bur, Err, Gar, Izb, Urz, Uzt), *El Bordar* (Izb), *El Borreguil* (Bur), *La Bua de La Cañada* (Izb), *La Buca* (Err), *La Buga* (Bur), *Las Bugas* (Izb).

*El Cabañizo* (Gar, Izb), *La Cabeza* (Gar), *La Cabezada* (Err), *El Cabezo* (Bid, Bur, Izb, Uzt), *El Cabo Alto* (Bur, Gar, Err), *Cabo Ardanbidea* (Bur), *El Cabo Bajo* (Bur), *Cabo Belza* (Uzt), *Cabo de Villa* (Izb), *Kabila* (Uzt), *El Calvario* (Bur, Uzt), *Calveira* (Err, Gar), *El Cantón dentre Garde* (Err), *La Cantonada* (Uzt), *El Cantalar de Arrakogoiti* (Izb), *La Cantarilla* (Bur, Err), *El Carasol* (orok.), *Cardonerat* (Err), *El Carretil* (Bid, Izb, Uzt), *El Casal* (Bid, Err, Gar, Izb, Uzt), *El Casalenco* (Bid, Bur, Err, Izb, Urz, Uzt), *Castelpintano* (Uzt), *Castiel Pintano* (Izb), *Castilpintano* (Gar), *El Pueyo de Castilpintano* (Bur), *El Castillo* (orok.), *El Caverro* (Err), *Los Caxecos* (Bur, 'quejigo, roble'), *La Cingla* (Izb, Urz), *La Clavería* (Err), *La Cochera* (Izb), *La Collada* (Bid, Bur, Izb), *La Coma* (Izb), *La Contienda de Ylurriaga* (Gar, 1615), *La Corona* (Bur, Err, Gar, Izb, Urz), *La Corredera* (Izb, Uzt), *La Corsera* (Bur, Gar, Err, Izb, Urz, Uzt), *Cortaplana* (Izb), *La Cosera* (Gar), *Las Coseras* (Bur, Uzt), *La Costalada* (Bur), *El Costalado* (Bur), *La Costera* (Bid, Bur, Izb, Uzt), *La Costerilla* (Bur), *El Costero* (Bur), *El Cubilar* (Bid, Bur, Gar, Izb, Uzt), *La Cuma* (Gar), *La Cuma de Ansú* (Izb), *El Pozo los Curas* (Bur), *La Chaparrilla* (Uzt), *La Foz del Chesó* (Bur), *La Chiminea* (Bur), *La Chimenea* (Izb), *La Corredera del Chocolatero* (Izb), *Los Chotos* (Bur), *La Chucarrada* (Bur).

*La Endrecera* (orok.), *La Endrecha* (Izb, Urz, Uzt), *El Gargaro de la Bochuela* (Err), *La Hoya* (Gar, Err, Izb, Urz, Uzt), *El Ibón* (Bur, Err, Izb), *La Landa* (Bur, Gar, Urz), *La Lapiza del Abetar* (Izb), *Las Lapizas* (Izb), *El Libón* (Bur, Izb), *El Lieco* (Bid, Bur, Izb), *La Majada* (Bur, Err, Izb, Uzt), *El Ordial* (Izb), *Peñablanca* (Err), *Peñaburua* (Gar), *Peñalisa* (Bur), *Peñarroya* (Urz), *El Portillo* (orok.), *El Portiello de Aurrenatea* (Bid), *El Pueyo* (orok.), *El Pueyo Raso* (Err, Urz), *La Queleta* (Bur, Err, Izb), *Los Quiñones* (orok.), *La Restrera* (Izb), *La Selva* (Bid, Gar, Izb, Urz, Uzt), *La Tosca* (Bid, Err, Izb, Urz), *El Trozo* (orok.), *El Vedado Casalenco* (Bur, Err, Uzt)

## 7. Erronkariko eta Ansoko euskal toponimiaren antzekotasunak

Erronkariko erdal toponimian Ansoko hizkuntza nagusiaren bizitasuna begien bistan utzi ondoren ikus dezagun orain ispiluaren beste aldean eta jakin dezagun Ansoko euskal toponimian Erronkariko hizkuntza nagusia izan zenaren presentzia norainokoa den egun.

Alde batetik, Ansoko zenbait toponimoren atzizkiak euskaldunak dira guztiz, zalantzarako leku handirik utzi gabe. Txostenak orri kopuru mugatua duenez, hona hemen nire iritziz garbienak eta argienak diren eratorpenaren atzizkiak, edo bestela esanda, Ansoko toponimiaren euskal atzizkiak:

*-aga: Lurriaga*<sup>7</sup> Anso (*Sagarraga* Bidankoze, *Armutilaga* Burgi, *Krutexelaga* Garde, *Barazeaga* Erronkari, *Aispilaga* Izaba, *Orriarriaga* Urzainki, *Amasunaga* Uztarroze).

*-ain, -aine: Zapataine* Anso (*Sansoain* Burgi, *Sansoain* Garde).

*-arte: Achart* Anso (*Atartea* Izaba, *Arrartea* Urzainki, *Burgiart* Uztarroze).

*-doi (-toi): Ezpildoya*<sup>8</sup> Anso (*Igadoia* Bidankoze, *Lexardoia* Burgi, *Lixardoia* Garde, *Lerdoia* Erronkari, *Idoia* Izaba, *Arandoia* Urzainki, *Mullidoia* Uztarroze, Uztarroze eta Larraine, *Ezpildoia*; Ligi-Atherei, *Ezpildoia*).

*-(e)-a inesibo zaharra: La Yñcea* Anso (*Kubilea* Bidankoze, *Zabalea* Burgi, *Aranea* Garde, *Urrutea* Erronkari, *Arizbakotxea* Urzainki, *Urrutea* Uztarroze).

*-egi (hegi): Cotdoguy, Maidogui* Anso (*Artarregiandia* Bidankoze, *Olegia* Burgi, *Zazugia* Erronkari, *Zetegia* Izaba, *Urralegi* Urzainki).

*-eta: Acaparreta, Zapparreta, Ornagueta, Luqueta* Anso (*Bidagaieta* Bidankoze, *Agorzeta* Burgi, *Iturzarreta* Garde, *Zabaleta* Erronkari, *Arrizibietia* Izaba, *Abaxueta* Urzainki, *Krutexeta* Uztarroze).

*-gi, (gu + a): Mozurgia* Anso (*Barrargia* Erronkari, *Bagargia* Izaba, *Moztrugia* Urzainki, *Landasargia* Uztarroze).

*-iri: Arandari* Anso (*Kartxiria* Bidankoze, *Arandari* Burgi, *Aranezkairia* Erronkari, *Belagoa Ibiria* Izaba, *Lapiziria* Urzainki).

*-ko (1. deklinabide atz.): Arracona* Anso (*Irasokoatea* Bidankoze, *Artekoegia* Burgi, *Artekolarra* Garde, *Agrakozokoa* Erronkari, *Mazekomurua* Izaba, *Agerakozokoa* Urzainki, *Artekopasia* Uztarroze).

<sup>7</sup> cf. Izaba, top. *Elurriaga* (1563 NPA).

<sup>8</sup> cf. Uztarroze eta Larraine, *Ezpildoia*; Ligi-Atherei, *Ezpildoia*.

*-ko* (2. eratorpenaren atz.): *Narancoa* ‘harankoa’ Anso (*Barako* Bidankoze, *Ibarkoa* Burgi, *Arankoa* Garde, *Xabalkoa* Izaba, *Amuluxanko* Urzainki, *Arankogatxa* Uztarroze).

*-pe*: *Lizapea* Anso (*Lurtepea* Bidankoze, *Biniesepea* Burgi, *Lezapea* Garde, *Lapizpea* Erronkari, *Bormapea* Izaba, *Korostipea* Urzainki, *Burgipea* Uztarroze).

*-(r)en / rn(e)*: *Bicharena*, *Ayerna*, *Usarna* Anso (*Elizarena* Bidankoze, *Abexarena* Burgi, *Axerarena* Garde, *Aluarena* Erronkari, *Trulluarena* Izaba, *Zaldunaren lezea* Urzainki).

*-rn(e)a*: *Ayerna* Anso (*Lengorna* Bidankoze, *Girarnea* Garde, *Gualderna* Erronkari).

*-to*: *Lexarito* Anso (*Baratxintoa* Erronkari, *Krutxettoa* Urzainki).

*-txo, -txu*: *Berricho*, *Berrechu* Anso (*Atxupea* Bidankoze, *Larretxoderreta* Burgi, *Amatxo* Urzainki).

*-(t)za*: *Guarrinza*, *Gorriñca* Anso (*Bizkarza* Garde, *Inzaga* Urzainki, *Soriza* Izaba).

Euskal atzizki hauekin batera, aipa daitezke patronimikan oso erabilia den *-iz* (gazt. *-ez*) atzizki genitiboa (cf. *Enekoitz* deitura, Urzainki, deit. *Nekotx*; *Mendigaitza* > *Mendigatxa*). Gure aldeko onomastikan eusk. *etxe* oinarritik eratorritako atzizkiarekin nahastera eta batzera iritsi da trinkotzeraino:

*-iz* (Anso, deit. *Martiniz*, *Sanchiz*, *Periz*, *Lopiz*, *Petriz*, *Aznariz*; Burgi, *Ezcaniz* [cf. *Etxaniz*]; Caparroso, *Gomiz*; Erronkari, *Xemeniz*; Itzalle, *Injguiz*; Izaba, Blasquiz; Nabaskoze, *Adamiz* [Aramitze, *Aramiz*, *Daramiz*]). || *-ez* (Erronkari, *Garchez*). || *-es* (Erronkari, *Garces*).

*-(e, i, o)ch* (Anso, *Zalboch*, *Zabalcoch*; Erronkari, *Bertich*, *Bortich*, *Galech*, *Garcech*, *Lopech*, *Lopicheguia*, *Martich*, *Marticha*, *Murducoch*, *Necoch*, *Salvoch Henecoch*). || Baina, eusk. *etxe*, grafs. *eche*, *etche* (Erronkari, *Garceche Necochea*; Urdatx-Santa Grazi *Barnetchia*; Barkoxe, *Barnetche*). || *-eix*<sup>9</sup> (Urdatx-Santa Grazi, Larraine, deit. *Barneix*, *Berterreix*). || *-ets*: *Barne-tsborra* (Larraine). || *-es* (Zangoza, *Barnes*). || *-ex* (Altzüruku, *Barnexborra*). || *-eis* (Anso, deit. *Beleis*).

<sup>9</sup> Kontuan har dezagun gaskoieraren *scripta* eredu zabalduenean *-is*, *-ix* taldeak *-x* adierazteko erabili ohi direla.

## 8. Ansoko toponimoetan erabiltzen diren euskal hitz eta lexemak

<i>agor</i>	<i>A Gorreta</i> , Mallo de (Anso). Cf. Aragoi, top. <i>Agüerri</i> (Bal d'Echo).
<i>(h)aitz</i>	<i>Aspe, Aspet, Aspa</i> (Anso).    <i>Achar, Achart</i> (Anso); <i>Chipeta</i> (Anso).
<i>akar, lakar</i>	<i>La Carreguia, A Carreguia</i> (Anso). Cf. Aragoi, top. <i>La Carroza</i> (Bal d'Echo).
<i>andere</i>	<i>Anderemaria</i> (Anso).
<i>(h)andi</i>	<i>Arandi</i> (Anso).
<i>(h)aran</i>	<i>Macaran, Arandi, Arana</i> (Anso).
<i>ardi</i>	<i>Arvidia</i> (Anso).
<i>(h)arri</i>	<i>Arguibela</i> (Anso).
<i>(h)artxintxa</i>	<i>Archincha</i> (Anso).
<i>Arra</i>	<i>Arracona</i> (Anso).
<i>arte</i>	<i>Achart, Achar</i> (Anso).
<i>ate</i>	<i>Ainzate, Atasín, Allarat</i> (Anso).
<i>abuntz</i>	<i>Aunzate, Ainzate</i> (Anso).
<i>azeri</i>	<i>Axirito, Laxirito</i> (Anso).
<i>barne</i>	<i>Chivarne</i> (Anso).
<i>belar</i>	<i>Velezcarra, Velordoqui, Belagaroa</i> (Anso); deit. <i>Belat</i> (Anso)
<i>berri</i>	<i>Berricho</i> (Anso).
<i>berro</i>	<i>Mondaverro</i> (Anso). Cf. deit. <i>Orcasberro</i> (Sobradíel).
<i>bide</i>	<i>Arvidia, Rospedea</i> (Anso).
<i>buru</i>	<i>Apaburua</i> (Anso).
<i>eder</i>	<i>Landaderra, La Andaderra</i> (Anso).
<i>(h)egi</i>	<i>La Carreguia</i> (Anso).
<i>elorri</i>	<i>Lurriaga</i> (Anso).
<i>(er)regi(n)a</i>	<i>Reguia</i> (Anso).
<i>(h)erri</i>	<i>Sansorria</i> (Anso).
<i>etxe</i>	<i>Echevarne, Chivarne</i> (Anso).
<i>ezpata</i>	(lat. < <i>spatha</i> ) Anso, top. errom. <i>La Loma de Espata</i> (1765).

<i>ezpel</i>	<i>Ezpildoya, Expildoya, Ezpela, Ezpelat</i> (Anso).
<i>gamo-, u-</i>	(< <i>ganbo</i> ) <i>Gamueta Chiquea, Gamoeta Chiquea</i> (Anso).
<i>garai</i>	<i>Couchet de Garay</i> o <i>La Mujer Muerta</i> (Anso).
<i>garate</i>	<i>Garatea</i> (Anso).
<i>gesal</i>	<i>Gesala</i> (Izaba eta Anso arteko mugan)
<i>gibel</i>	<i>Arguibela</i> (Anso).
<i>gorri</i>	<i>Gorriņa, Guarrinza</i> (Anso).
<i>ibar</i>	<i>Sanchiborra</i> (Anso).
<i>ib-</i>	<i>Ibón de Estanés, Olivón de Bernera</i> (Anso). Cf. <i>ib-</i> / <i>ip-</i> : <i>Ipas</i> (deit. Anso); <i>Canal de Izas y de Ip</i> (Villanúa);
<i>idoi</i>	<i>Idoya</i> (Anso).
<i>i(h)intza</i>	<i>Linza, La Ynça</i> (Anso).
<i>(i)turri,</i>	( <i>uturri,</i> ?) <i>Turrieta</i> (Anso).
<i>izar</i>	<i>Izarra</i> (Anso). Cf. <i>Canal de Izas y de Ip</i> (Villanúa).
<i>landa (lana)</i>	(jatorri zeltikoa) <i>Landaderra, La Andaderra</i> (Anso); naf.-arag. eta gask., <i>La Anadera, Laañadera</i> (Anso). Cf. Aragoi, top. <i>Lanazas</i> (Jaca), <i>Bordas de Lanazas</i> (Aisa);
<i>larre</i>	<i>Larrerria</i> (Anso).
<i>lats</i>	<i>Laxurik</i> (Anso).
<i>lizar</i>	( <i>lixar lexar</i> ), <i>La Yxardoya, Lajardoya, Ligardoya, Lizardoya</i> (Anso).
<i>leze</i>	<i>Lizapea</i> (Anso).
<i>lo(h)i</i>	<i>Loigrea, Luzola</i> (Anso).
<i>mendi</i>	<i>Romendia, Arromendia, Mendiver, Mendiara, Mendiba</i> (Anso).
<i>naba</i>	<i>Las Nabas de Forcala, Las Navas</i> (Anso).
<i>(h)obi</i>	<i>Vusobia</i> (Anso).
<i>(h)odi</i>	<i>Hezprodi</i> (Anso).
<i>(o)gi,</i>	(cf. <i>-(h)egi</i> ) ( <i>-(d)ogi, -gi</i> ) <i>Maridugui, Cotdoguy</i> (Anso).
<i>ola</i>	<i>Cubillarrola, Linzola</i> (Anso).
<i>ordoki</i>	<i>Belordoqui</i> (Ans).

<i>-(o)ski, -zki</i>	<i>Arruzquia</i> (Anso), <i>Sosqui</i> , <i>Soasqui</i> , <i>Suasqui</i> (Anso, Guarrinza). <i>Oncesquia</i> (1977 SGE, zaraitzuko espartza). <i>Herréarausquie</i> (IGN, Ligi). <i>Chahaski</i> (IGN, Beorlegi NB).
<i>otso</i>	<i>Osobia</i> (Anso)
<i>sagar</i>	<i>Sagarra</i> , ( <i>zehir?</i> ) <i>Segarra</i> (Anso).
<i>sai(h)ets</i>	<i>Sayéstico</i> , <i>Saiesteco</i> , <i>Saystoqui</i> (Anso); Oihenart, <i>saiheski</i> : “le champ qui est sis sur le coustaud”; Cf. <i>Soasqui</i> .
<i>saroi</i>	<i>Sayola</i> (Anso).
<i>soro</i>	<i>Guarrinza Soroa</i> , <i>El Barranco de Soro</i> (Anso).
<i>toki</i>	<i>Sayestoqui</i> , <i>Saystoqui</i> , <i>Saiytoqui</i> (Anso).
<i>txiker</i>	<i>Gamueta Chinquera</i> (Anso).
<i>txiki</i>	<i>Gamueta Chiquea</i> (Anso).
<i>ullin</i>	<i>Ullirreguia</i> (Anso). Cf. orok. <i>urrun</i>
<i>urz-</i>	<i>Urçucaca</i>
<i>urdin</i>	Anso deit. “Bartholome <i>Urdin</i> ” (1668). <i>Ordin</i> : “segunt vadit Beral usque ad rivum de <i>Ordin</i> ” (964, Lacasta, <i>Eusk. arag.</i> , 61).
<i>urri</i>	<i>Urriagueta</i> , <i>Ezcaurri</i> (Anso). <i>Bisaurri</i> , <i>Bisarrin</i> (Aragüés del Puerto)
<i>urritz</i>	<i>Urristi</i> (?), (Anso).
<i>zar</i>	<i>Linzarra</i> (Anso); cf. gorago, <i>izar</i>
<i>ze(h)e</i>	<i>Zeteyra</i> (Anso).
<i>zo(h)i</i>	<i>Zotalola</i> (Anso).
<i>zubi</i>	<i>Zuberria</i> , <i>Zoberria</i> , <i>Zaborria</i> , <i>Zaburria</i> (Anso).
<i>zuri</i>	<i>Zuriza</i> , <i>Zoriza</i> , <i>Soriza</i> (Anso).

## 9. Ansoko euskal toponimoen ezaugarri fonetiko batzuk

Bokalismoari dagokionez, badirudi bokal sudurkariak bazeudela (*Ásso Veral*, XVI AUA), bokalak itxi (*Ezpildoya*, Anso; cf. *Ezpildo*, Larraine eta *Ezpildoia*, Ligi) eta ireki (*Chaberria*, Anso; cf. Izaba, top. *Etxaberri*; dena den *Etxeberri* nagusi da oroz gainetik) egiten zirela ondoko euskalkien modura.

Asimilazioa gertatzen dela dirudi *Mozurguea*, *Muzurguea* (Ans), baina *i-u* / *u-u* asimilazioaren arrastorik ez da dokumentatu, sail honetan dugun



adibide bakarra aferesiak jota dagoelako: Anso, top. *Turrieta* (ansoarrek “to-rreta” hitzarekin lotzen dute, eremu horretan dorre bat dagoelako; dena den, hala balitz, ez dut ulertzen kasu honetan, eta honetan bakarrik, *-eta* atzizkia zergatik ireki den).

Sinkopa ohikoa da Anson: *Andre Dona Maria Urria* (Izabako muga, 1691); egun, *Entremaría*. Erronkari ibarrean ere, *Andregia* (Garde).

Bestalde, hitz bukaeran paragoea maiz gertatzen da eremu osoan, *-os* atzizkiaren ondorengoak Erronkarin *-oze* modura ebakitzeko joera bortitza dago. Ildo beretik, Anson txistukari baten atzean paragoea kausi daiteke: Anso, top. *Salboche* (1666); garapen ezaguna da inguruko ibarretan ere: Borza, top. *Lacarroche*, *Banasse*; Laskun / Lesküne, top. *Ourtasse*; Izaba, top. *Murducoche* (1662), *Baticoche* (1856); Garde, top. *Pantxarase*; Bidankoze, top. *Goldarase*, *Viñosse* (1561). Halaber, sudurkari baten atzean, Anso, top. *Zapataine*. Inguruko ibarretan, Borza, top. *Sansane*; Garde, top. *Sansoañe*, *Sansuañe*, *Sansoaine*: “Sansoayne” (1644 NPA); Larraine, ap. *Danduraine* (1832); Lèès-Athas, ap. *Allamane* (1914; también, *Allaman* 1838).

Diptongoei dagokionez, *au* > *ai* garapena gertatzen da, kasu honetan bai, erronkarieraren eta zubereraren modura: Anso top. *Aunzate* / *Ainzate* (1272 UA).

Hiatoei dagokienez, hitz bukaeran *-ea* hiatoak iraun dezakeen arren (*Garatea*), itxi daiteke (*Arvidia*). Erronkarin, Anson bezala, bi modutara jokatzen da. Zenbaitetan irauten du: *Altxumbidea* (Gar), *Auxpidea* (Izb), *Ardibidea* (Uzt). Beste batzuetan garatzen da (*-ea* > *-ia*): Burgi, top. *Bilitxia*; Bidankoze, top. *Kartxiria*. Baina, orobat, Bidankoze, top. *Bilitxea*, *Kartxerea*, *Kartxelea*. Zuberoan eta Biarnon, berriz, garatzen da kasu guztietan: *Bidepia*, *Lagapia*, *Luramagapia*, *Sagartzepia* (Lar), *Garatia*, *Utziapia*, *Errekaltia*, *Baratzia*, *Basagaitzpia* (Stg). Biarnon, Ereta, top. *Arpidia*; Lèès-Athas, top. *Las Lucies*, (*A*)*napia*.

*-ua* hiatoa garatzen da Erronkarin: Garde, top. *Iriburua* edo *Iriburia*; Uz-tarroze, top. *Basaxeinburua*, baina *Basaxein Uturburia*; Izaba, top. *Mazekomurua*, baina *Arrasargia*, *Bagargia*; Urzainki, top. *Bagargia*; Garde, top. *La Errebiroa*, eta sabaikaritzeko joera du ibarraren hegoaldean: Burgi, top. *Opakuia*. Anson bertan ere honelaxeok ere jaso ditugu: top. *Bua*, *Buya* “Vuya de Chipeta” 1662 (eusk. *muga* > *buga* > *bua*). Zuberoan, garatzen da: Santa Grazi, top. *Etxabüria*, *Aphezjauskagia*, *Üthürsorgia*; Larraine, top. *Bazkagia*, *Bagargia*, *Eihera Sargia*. Biarnon ere garatzen den arren, baina zenbait adibidetan kontserbatzaile xamar agertu da: Aramitze, top. *Arrec Cerraburia*; Landa, top. *Arrec d’Isiburie*; Ereta, top. *Belatch Paoussagia* (Santa Graziko muga), baina *Bagua* herri berean, eta Lourdiosen, top. *Baraqua*.

-oa hiatoaren kasuan, berriz, derradan Erronkariko ekialdean ezpainkari-tzeak usu gertatzen direla (Garde, top. *Poitondoba*; Burgi, top. *Izabarroba*, *Isabanoba*; Burgi, top. *Las Litoas*, *Las Litobas*). Orobat, jakina, sabaikaritzeak, bai Erronkarin (top. *Uturgastoiá*), bai eta Anson ere (*Narancoba*, *Picoya*).

Kontsonantismoari dagokionez, bi hitz ezpainkarien sailari buruz. Badirudi *sudurkaria* + *ezpainkaria* taldea hobekiago gorde dela Erronkarin Anson baino. Halere *nb* > *m* garapena gertatzen da usu: Burgi top. *Ganboa*: “la agua de benies e termino clamado ganboa” (1439), “el termino llamado *Gamboá*” (1441); Urzainki top. “el termino llamado *ganbulucandia*” (1574). Baina, *gamo-*, orok. *gamu-* (*nb* > *m*): Anso, top. *Gamoeta chiquea*, *Gamueta*, *Gamueta chiquea*, *Gamueta Carreria*, *Gamueta Chinebral*, *Vua de Gamueta*; Urzainki top. *Gamulucandia* (1573); Garde top. *Gamuluzea* (id.). Cf. Rohlfs (1977), top. nag. *Cambo* (bokal surdurkariak); Ereta, top. *Et Cambulat*; Aramitze, top. *Cambot*; Borza, top. *Cambon*.

Sudurkarien sailari dagokionez, eta, zehazki, *sudurkaria* + *horzkaria* talde kontsonatikoaz, derradan irauten duela euskal toponimian baina horzkaritatura galtzen duela bai gaskoieraz, bai eta nafar-aragoieraz ere: *Landaderra*, Anso, *Landazuria* Izaba. Baina, *La Lana llamada de La Contienda*, Anso; *Lannerres*, Izorra; eta top. nag. *Lanne-en-Barétous*, eusk. *Landa* (agian, esandakoaren adibiderik garbiena).

*Sudurkaria* + *belare ahoskabea* (*nk*) taldeak euskal toponimian irauten du (Anso, top. *Narancoa*, *Pesenca*, *Espelunca*; Garde, top. *Ezpelunkondoa*; lat. *spelunca*) eta ahostun bilakatzen da erromanikoan (Anso, top. *Espelunga*, *Espelunguera*; Borza, top. *Espelunga*; Lourdios, Sarrantze, top. *l’Espalungue*).

Igurzkarien sailari dagokionez, bokalen artean jod bat kausitzen denean, Badirudi igurzkari bilakatzeko joera dagoela eremu osoan, irtenbideak ezberdinak izan daitezkeen arren: *vju* > *vzv* (Anso, top. *Luzola* ‘lohi ola’; Erronkari, top. *Loizeta*; Echoko top. *La Selva de Oza* bera sail honetakoa izan liteke: \**ozá* < *oihan*); *vju* > *vzv* (Garde, top. *Oxanondoa*, *Oxanea*; Lorraine, top. *Loxea*, *Loxepeko büria*, *Loxibar*); *vju* > *vsu* (Ansó, top. *Usarna*; Izaba, top. *Osanea*, *Usanea*; eta ziur aski, Echo, top. *O Sea*, gazt. *El Sea*); *vju*, garatu gabe (Ereta, top. *Louya*).

Sabaikarien sailean, badirudi Anson, Erronkarin bezala goi hobietako kontsonante afrikatuak sabaikaritzeko joera dutela hauen aurrean *i* bokala du-

gun kasuetan: *-itz* > *-tx* / (*h*)*aitz-* > *atx-* > *tx-* (Anso, top. *Achar*<sup>10</sup>, *Achart*<sup>11</sup>, *Chipeta*; Bidankoze, top. *Atxupe*, *Atxpea*). Beste garapen ezaguna eremu osoan honako hau dugu: *-itz* > *s-*, *x-*, *z-* / (*h*)*aitz-* > *as-*, *ax-*, *az* (Anso, top. *Aspe*, *Aspa*, *Azpa*; Burgi, top. *Axpe*, *Aspea*, *Azpea*; Erronkari, top. *Axpea*, *Aspea*, *Azpea*; Uztarroze, top. *Axpia*, *Aspea*).

Azentuazioari dagokionez, nafar-aragoierak hitz proparoxitonoak arbuia-tzen ditu zubererak egiten duen modura (Salbaterra Ezka *parpádo*; Zigoze *parpáro*, *perúga*, *sabána*; cf. Alvar 1956-57). Kasu honetan, erronkaria ez dator bat bere auzokoeekin eta hitz asko ditu azentuazio mota honekin: *Bordé-berro*, *Arisbákotxa* (Urzainki), *Berrobákotxa* (Uztarroze). Izabako Antonia Anaut andreak berak (Artola 1980) erdaraz aritzean ere honelaxeko hitz proparoxitonoak erabili ohi zituen: *Ságarra*, *Zánkoza*, *Mánzana*. Dena den, honetan ere, Ansoko toponimia berezia da, *Sayéstico* (Félix Ipas jaunaren ebakeran) toponimoa Erronkariko toponimo batzuen modura ebaki baitute.

## 10. Eskerrik anitx, agur eta ohore maisuari

Txostenari azken puntua jartzeko unea iritsi den honetan, ezin bi hitz aipatu gabe utzi nire ikerketa ahalbidetu duen maisuaren itzala eta garrantzia. Ez litzateke zilegi izanen lan hau nire izenean eta nire izenean soilik argitaratzea aipatu gabe Henrike Knörri zor diodala ikerketa hau burutu izana.

Pirinioko hizkuntzak izan ditugu egun hauetan mintzagai eta hori On Henrike Knörr Euskaltzain osoa zenari zor diogu. Bera gabe biltzar hau ez zen izanen, ez genukeen antolatuko. Pirinioko hizkuntzak maite zituen eta horregatik zuzendu zuen nire tesia, berak zuzendu zuen bakarra: Pirinioko hizkuntzez ari zelako, Pirinioari maitasuna ziolako, hizkuntzei, euskarari berari.

Zeruan elkartu arte segi euskal ikerketak sostengatzen, Pirinioko hizkuntzak bultzatzen.

Ene jein ona, kunplitiagatik ñore hitza eta ez xakinez zer erran... Eskerrik anitx, maisu on bihotz oneko hori! Euskaldun oro jagoitkoz obligaturik gaudede zugana!

<sup>10</sup> Anso, top. *Achar*: “*Achar de Aguatuerta*” (1586 AUA), “*El Achar de Bernera*” (1586 id.), “*La Achar, Garganta o Combusto que es el principio de dicho termino... de la Achar Alta de Arazmalo*” (1765 id.).

<sup>11</sup> Anso eta Echo arteko mugan, top. *Achart*: “*las peñas más altas de Achart de la Forca*” (1514 id.).

Bego euskalduna  
begokie arbasoei leial,  
bedi haren ele maizkoena,  
bekie etxekoei maitekor,  
kanpotarrei atsegin-lagunkari,  
guztiekin auzolankoi.

Begi gogotsu lana...

Beude oihan, erreka, bide eta hormak oro  
garbi eta aratz  
guztion laket-zoragarri,  
arnasa bezain baitu gizakiak ederra nahitaezko

*Henrike Knörr*

## **Bibliografia**

- Alvar, M., 1956-57, "Notas lingüísticas sobre Salvatierra y Sigüés", *Archivo de Filología Aragonesa*, VIII-IX.
- , 1987, *Estudios sobre el aragonés*, I, Institución Fernando el Católico, Zaragoza.
- Artola, K., 1980, "Erronkariko 'uskara' ren azken hatsak... oraino're!", *FLV* XII, 49-85.
- , 1977, "Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!!", *FLV* IX, 75-107.
- , 1985, "Ezkabarteko euskara", *Aingeru Iriagayri omenaldia*, Zarautz, 97-112.
- Caro, J., 1946, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Acta Salmanticensia, I. Salamanca, 1945 (1946an argitaratua) [Txertoa, 1990; 1, arg. *La lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca 1945].
- Coromines, J., 1972, "De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos", *FLV*, 12, 1972, 299-319.
- , 1965-1970, *Estudis de toponímia catalana*, 2 liburuki, Barcino, Barzelona.
- , 1953, "Sobre els elements pre-romans del domini català", *Actas y memoria del VII CILR*, Barzelona, 401-417.

- , 1972, *Tópica Hespérica*. 2 liburuki, Gredos. Madril, 1972.
- González, F., 1970, “El romance navarro”, *RFE*, 61-65.
- Grosclaude, M., 1977, *Lo Gascon lèu e plan*, BBC / Omnivox, Paris.
- Menendez, R., 1950, *Orígenes del español*, Madril [Espasa-Calpe, 10. arg., 1986].
- , 1919, “Sobre las vocales ibéricas e y o en los nombres toponímicos”, *Revista de Filología Española (RFE) V*, Madril [RIEV, XI, 43-44].
- , 1949, “Javier-Chabbarri, dos dialectos ibéricos”, *Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica, Jaca, Agosto de 1948*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza, 1949.
- , 1968, *Toponimia Prerrománica Hispana*, Gredos, Madril.
- Mitxelena, K., 1987, 1. arg. 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, *Palabras y textos*, EHU / UPV, Gasteiz, 35-55. or.
- Rohlf, G., 1977, *Le gascon*, Niemeyer, Tübingen.
- Ubieto, A., 1972, *Toponimia aragonesa medieval*, Anubar, Valentzia.
- Vicén, A. C. eta Moncayola, S., 1991, *Bocabulario de l'ansotano*, Publicazións d'o Consello d'a Fabla Aragonesa, Huesca.
- Zierbide, R., 1980, “Toponimia navarra: historia y lengua”, *FLV, XII 34*, Iruña, 1980, 87-106.

### *Laburdurak*

AUA / Ansoko Udal Artxiboa

IGN / Institut Géographique National

NPA / Nafarroako Protokoloen Artxiboa

PADA / Pirinio Atlantikoak Departamentuko Artxiboa

SGE / Servicio Geográfico del Ejército

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa*

*Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzarra: Pirinioko hizkuntzak: lehena eta oraina*

Iruña, 2008ko urriaren 6a.

# Euskara dialektalaren ahozko corpusa (EDAK)

G. AURREKOETXEA & J. L. ORMAETXEA

UPV/EHU

## 1. Sarrera

Hasteko, corpus hitza diogunean zertaz dihardugun jakin dezagun, eman diren definizioen artean EAGLES (Expert Advisory Group on Language Engineering Standards) erakundeak emandako definizioa hartuko dugu (1996: 4): “Corpus: A collection of pieces of language that are selected and ordered according to explicit linguistic criteria in order to be used as a sample of the language”.

Helburuz eta egituraz Corpus tipologia handia dago (reference corpus, spoken corpus, sample corpus...). EDAK proiektua “spoken corpus”en barruan kokatzen da. Ahozkoa biltzen du, eta molde bitako informazioa biltzeko prestatu da:

- galdetegi baten bidez lortutako informazioa
- “testu libreetan” (elkarrizketak, deskribapenak, narrazioak...) lortutakoa.

Gure kasuan, euskararen fonotekaren proiektu partzialak badiren arren, oraindik ez dago euskararen barietate guztiak eta belaunaldi desberdinak hartzen dituen proiekturik. Ezta galdetegi bidez hainbeste herri hartzen dituenik ere.

EHUko EUDIA ikerketa-taldeak, euskara dialektalaren ahozko corpusa sortzean, helburu hauxe du: ahozko euskararen ahozko eta idatzizko corpus bat sortzea, multidialektala eta zenbait belaunaldi kontuan hartuko dituen. Hizkuntzaren hainbat alorretako informazioa bilduko du: izan dadin perpau-sari dagozkion osagaiena (fonologia, fonetika, morfologia, sintaxia zein lexikoa), izan dadin testuari dagokion informazioa. Azken batean, euskarari buruzko ikerketak sustatzeko datutegi erraldoi bat sortzea du helburu, zeinetatik edozein ikertzailek hartu ahal izango dituen bere ikerketarako behar dituen datuak, formulario baten bidez.

Proiektu hau sortu da Euskaltzaindiaren “Euskararen Herri Hizkeren Atlasa-EHHA” oso aurreratua dagoenean. EHHaren arduradun teknikoak (Gotzon Aurrekoetxea eta Charles Videgain), hain zuzen, proiektu berri honetako ikertzaile nagusi eta kide dira, hurrenez hurren.

Jada abian den proiektu berri honek bi alderdi hartzen ditu: alderdi geolinguistikoa, euskalki eta barietate guztien datuak eta testuak izango baititu, eta alderdi soziolinguistikoa, bi belaunaldiren (helduen eta gazteen) datuak jasoko baititu (hain zuzen ere, EHHA proiektuak datuak jasotzeko aukeratu dituen lekuko seme-alaben eta iloben belaunaldiak). Bestalde, soinu-materialez osatua izango da.

Corpusak datu anitz eta desberdinak jasotzen ditu. Horretarako, galdetegi bat erabili da. Eta herrien aukeraketa irizpide zehatz eta egokiak erabiliz egin da, sare homogeen eta orekatua osatzen dutela.

Inkestak bi belaunaldiri egiten ari zaizkie: helduen belaunaldiari (45-50 urte) eta gazteen belaunaldiari (20-25). Horrela, EHHaren datuak kontuan hartuz, euskara dialektalaren hiru belaunaldiren datuak izango lituzkete euskalariak. Aukera ederra hizkuntzaren barietateak zein mailatakoa izan den jakiteko.

Ikerketa-taldea unibertsitate artekoa da, izan ere, hartan parte hartzen baitute EHUko ikertzaileek eta Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA)-ekoek.

## 2. Proiektuaren xedea

Euskararen ahozko corpus dialektalaren gabezia arlo zientifiko honetako ikerketak zailtzen eta atzeratzen ari da. Euskara dialektalaren datu-banku bat ez izateak oro har euskal hizkuntzalaritzari buruzko ikerketak oztopatzen ditu, eta bereziki hizkuntza-aldagarritasunaren hainbat alderdiren ezagutza.

Euskarari buruzko ikerketetan aurreratzeko, behar-beharrezkoa da euskalki eta barietate guztien gaineko informazio homogeenoa emango duen ahozko corpus dialektal bat sortzea. Eta hainbat belaunaldiren informazioa bilduko duena.

Ikerketa-proiektu honen helburu nagusia, hortaz, zulo hori betetzea da, hots, *euskara dialektalaren ahozko corpusa* (EDAK) sortzea.

Eta *euskara dialektalaren ahozko corpusa* sortzearen xedea oinarritzko datutegi bat sortzea da, euskarari buruzko ikerketarako erreferentziazko datu-

bankua izateko asmotan. Alegia, lagunarteko euskara dialektalaren corpus bat, ahozkoa zein idatzizkoa, *ad hoc* egindako inkesten bidez bildua, euskararen aldagarritasuna eta hizkuntzaren dialekto eta barietate guztiak kontuan hartuko dituen herri-sare orekatu batez hornitua.

Corpus honek informazio geolinguistikoa eta belaunaldien artekoa jasoko du. Bere jarduera ez du mugatuko dialektologia tradizionalako ohiko berri-mailera, belaunaldi desberdinen datuak bilduko ditu, beti ere hizkuntza naturalaren barruan. Horren guztiaren ondorioz, corpus honen erabilerak aldagarritasun diatopikoa edo geolinguistikoa hartzen du, baina baita ere aldagarritasun diastratikoa edo soziolinguistikoa.

Aplikazioen artean, berehalako bat izango da euskara batuaren ezaugarriak hitzunen eguneroko hizkeran nola ari diren sartzan ikertzea. Orain arte ez dugu ezagutzen nibelazio-prozesua gure hizkuntzan (talde honek egindako lehen ikerketa batzuk salbu), eta ezagutza hori ezinbestekoa da hizkuntza-planifikazio egokia egin nahi bada. Kultura tradizionalaren desagertzeak eta euskara batu estandarren normalizazio eta hedatzeak beharrezko egiten dute era honetako proiektu bat.

Corpus hau sortuko da hainbat behar eta alderdi kontuan hartuz: fonologikoak, morfologikoak, sintaktikoak, lexikoak, prosodikoak, pragmatikoak... Hori lortzeko bidean hizkuntzaren alor desberdinetan ari diren ikertzaileekin harremanetan dago EUDIA taldea.

Informazio honek homogenea izan behar du, herri guztietan pasatuko den galdetegi baten bidez eta metodologia bera erabiliz jaso, horrela euskararen barietateen arteko distantzia ikertzeko gai izan gaitezten.

Ahozko corpus dialektala mota honetako corpusen nazioarteko arauak jarraituz sortuko da, gaur egun nazioartean erabiltzen diren estandarrek baliatuz, eta arreta berezia ipiniko da erabiltzailearentzako interfazeaz, ahalik eta ergonomikoena izan dadin.

### 3. Aurrekariak eta gaur egungo egoera

Gaur egun badira euskalaritzan zenbait proiektu orain aurkezten ari garen honekin nolabaiteko zerikusia dutenak: “Bizkaieraren Fonotekea” (<http://bizkaifon.ehu.es>), “Nafarroako Euskararen Mediateka” (<http://mediateka.fonoteka.com/>) (lehen “Nafarroako Fonoteka” <http://www.fonoteka.com/>) eta “Ahotsak” ([www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)).



Alabaina, fonoteka horien helburuak eta ezaugarri nagusiak ez dira proiektu honek dituen berberak.

- “Nafarroako Euskararen Mediateka”-ren helburua da Nafarroako euskalki desberdinetan ekoiztutako material grabatu guztia berreskuratzea eta sailkatzea, baina ahozko datuak etiketatu gabe.
- “Bizkaieraren Fonotekea” sortu zuen AHOLAB taldearen xedea aho-tsaren ezagutza da, hizketaren teknologiaren alorrean aplikaturiko ingeniaritza linguistikoa.
- Euskalki desberdinetako testuak (soinuak eta bideoak tartean) biltzea du helburu “Ahotsak” proiektuak, edozein gai delarik azaltzen dena. Ez galdetegi zehatz bat aplikatzea inkesta-leku desberdinetan. Kasu gehienetan jende zaharren ahotsak biltzen dira eta maizen NORM<sup>1</sup> gisako informazio-emaileak.

Guztiak hainbat muga dituzte:

a) Lurralde-mugak. Haien lan-eremua mugatua da. EHUko AHOLAB taldearen “Bizkaieraren Fonotekea”-k kokatua dagoen probintziako informazioa jasotzen du. Gauza bera gertatzen da “Nafarroako Euskararen Mediateka”-rekin, zenbait dialektologok Nafarroan jasotako grabazioekin elikatzen baita. “Ahotsak”-en eremua zabalagoa da, asmoa baitu Euskal Herri osoko grabazioak jasotzekoa (memento z landuenak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa dira).

b) Muga linguistikoak. Proiektu hauetan jasotako hizkuntza-materialak muga linguistiko larriak ditu: a) Alde batetik, berriemaileak 60 urtetik gorakoak dira. Dialektologia tradizionalan egiten zen datu-bilketaren emaitza dira; 2) Bestetik, bizkaieran izan ezik, hainbat ikertzailek eta hainbat proiektutan jasotako datuak biltzen dira; beraz, ondoko ikerketetarako baliagarri izateko beharrezko den homogeneotasuna falta zaie.

#### 4. Lan geolinguistikoak

Beste lan geolinguistiko eta datu-baseen artean, lehenik eta behin Euskaltzaindia burutzen ari den “Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)” aipatu behar da. Proiektu honek euskararen lurralde osoko 145 herri hartzen ditu,

---

<sup>1</sup> NORM: Nonmobile, older, rural males (Chambers J. K. / P. Trudgill, 1994 [1980], *La dialectología*, Madrid: Visor Libros, 56-59).

herri bakoitzean jende adindua erabiliz (60 urte baino gehiagokoa) eta bakoitzean 2.857 galdera eginez, 4.000 inkesta-ordu inguru grabatu dira. Hizkuntza-atlasen barruan sartzen da proiektu hau, eta ahozko corpus dialektala sortzea helburu nagusizat ez badu ere, bildu dituen materialak baliagarri izan daitezke ahozko eta idatzizko corpus dialektal bat eratzea nahi duen proiektu baterako. Esan behar da inoiz euskara dialektalari buruz egin den bilketarik handiena dela.

Bestalde, hemen aurkezten dugunak aurrekari garbia du “Euskararen atlas soziolinguistiko-dialektologikoa (1): Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako datuen bilketa eta azterketa” izeneko proiektuan. Proiektu hori EHUK babes-tua izan da eta ikerketa-talde berak burutu du. 2006ko urtarrilean hasi eta 2008ko maiatzean amaitu zen. Hor bildu diren datuak orain diseinatzen ari garen ahozko eta idatzizko corpusaren kimu dira. Horretarako, ikerketa-taldea EHHA egitasmorako eraikitako datu-baseaz hornitu da Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmen baten bidez, ondoko base baten ernamuina izango dena, eta geroko datu-base hori corpus linguistiko dialektalen arauen arabera egituratua izango da.

Aipatu dugun proiektu horretan fonologia, morfologia, sintaxi eta lexikoari buruzko 202 galderatako galdetegi bati dagozkion datuak jaso dira, eta Euskal Herriko 100 herritan.

Oraingo proiektu hau “Ahozko corpus dialektalen” filosofian kokatzen da. Beste hainbat hizkuntzatan badira horrelako corpusak sustatzen ari diren ikerketa-taldeak, hizkuntzalaritza eta informatika integratzen dutenak.

Hizkuntza batzuetara bakarrik mugatuz, eta guzti-guztiak zerrendatu gabe, horra aipa daitezkeen corpus batzuk:

1. *Corpus Oral y Sonoro del Español Rural (COSER)*, Inés Fernández-Ordóñez-ek zuzendua (<http://pidweb.ii.uam.es/coser/>).

2. *Corpus Oral Dialectal*, Bartzelonako Universitat-ekoa, eta Maria-Rosa Lloret-ek zuzendua. 2007an bukatu zen ikerketa-proiektu horretan Gotzon Aurrekoetxeak ere parte hartu zuen (<http://www.ub.es/linca/>).

3. *Arquivo do Galego Oral*, Francisco Fernández Rei-k eta Carme Herminida-k zuzendua (<http://www.consellodacultura.org/arquivos/asm/anosafala.php>).

4. *Português Falado: Variedades Geográficas e Sociais* (<http://www.instituto-camoes.pt/cvc/hlp/geografia/mapa06.html>)

5. *NECTE* (The Newcastle Electronic Corpus Of Tyneside English) (<http://www.ncl.ac.uk/necte/>)

6. *Thesaurus Occitan* (<http://thesaurus.unice.fr/>)

7. *VIVALDI* (<http://www2.hu-berlin.de/Vivaldi/index.php?id=0001&lang=it>)

Beste alde batetik, nahiko ezaguna da mundu hispaniarrean, besteren artean, Hiroto Ueda eta Antonio Ruiz Tinoco-ren VARILEX proiektua (<http://gamp.c.u-tokyo.ac.jp/~ueda/inv/chiri/diaurb.doc>).

Corpus hauek nahitaezko erreferentzia dira esparru iberiarrean ahozko corpus dialektal bat osatu nahi dutenentzat.

## 5. Metodologia eta lan-plana

### 5.1. Lan-plana

*Euskara dialektalaren ahozko corpusa* (EDAK) hainbat fasetan burutzen ari da.

Aurkezten den proiektuak hurrengo faseak izan ditu:

#### 5.1.1. Galdetegiaren eta herri-sarearen prestaketa

Ikerketa-proiektua abian jartzeko, ikertzaile nagusiak, taldeko zenbait kiderekin batera, proiektu honetarako galdera egokienak aukeratu ditu.

Proiektu honetako datuen bilketarako galdetegiak alderdi prosodikoak hartuko ditu, hots, barietate dialektalen azentuari eta intonazioari buruzko informazioa bilduko da.

Galdetegiak 201 galdera izan ditu. Horiek prestatzeko, ikerketa-taldeak proiektutik kanpoko kideen aholkularitza izan du: alde prosodikoari dagokionez, esaterako, Gorka Elordieta, Iñaki Gaminde eta Jose Ignacio Hualderen aholkularitzaz baliatu da.

Galderak egiteko era eta inkestaren metodologia galdetegiko zati bakoitzari egokitzen zaio.

Galdetegiaren 201 galderetatik 22 intonazioari dagozkio (adierazpenezko esaldiak, bai/ez galderazkoak eta NZ galderazkoak). Gainerako 179 galderak azentuari buruzkoak dira: aditzari buruzko galderetan silaba bakar, biko eta hiruko aditz-partzipioak, eta aspektu-marka desberdinak dituztela galdetzen dira; izenari buruzkoetan silaba bakarreko, biko eta hiruko izenak lantzen dira; eta deklinabide kasu desberdinak (bokalez eta kontsonantez amaituriko silaba-kopuru desberdineko hitzak, hitz markatuak).

Metodologiari dagokionez, intonazioari dagozkion galderak hiru aldiz egiten zaizkio berriemaileari (hasieran, erdialdean eta amaieran). Azentuari buruzko galderak behin baino ez.

Inkesta-lekuen aukeraketa: galdetegia euskararen lurralde osoko 100 herrian aplikatuko da, Iparraldean zein Hegoaldean. Herri hauek euskararen aurreko lan geolinguistikoetan agertzen direnen artetik hautatuko dira.

Berriemaileak: inkestatuak izango diren pertsonen ezaugarriei dagokienez, herri bakoitzean bi pertsona aukeratuko dira: bata heldua da (45-50 urte bitartekoa) eta bestea gaztea (20-25 urte bitartekoa). Proiektu honetan ez da zaharren materialik bilduko. 4. puntuan aipatutako Euskararen atlas soziolinguistiko-dialektologikoa (EAS) proiektuan bi berriemaileak gizonaizkoak izan ziren, eta oraingoan andrazkoak izango dira.

### 5.1.2. Datuen bilketa eta transkripzioa

Datu-biltzaile talde bat eratu da datuak biltzeko. Taldeari formazio be-zitua eman zaio, jakinik bilduko den informazioak beste alorretan biltzen denak baino zailtasun handiagoak dituela. Lehen bilketek erakusten dute ka-litate handiz ari dela biltzen.

Inkestak galdetegi itxiaren bidez eta zuzeneko inkesten metodologiarekin egiten ari dira.

Datu-bilketa ordenagailu eramangarriekin eta USB sarreradun mikro uni-direkzionalak erabiliz egiten da. USB sarrerak kalitate handiko grabaketak egitea ahalbidetzen du eta, ordenagailuak erabiliz, grabatutako soinuaren digi-talizazioa azkartu egiten da, alferreko denbora aurreztuz. Inkesta batzuk bi-deoz ere grabatzen dira. Oso interesgarria da inkestak bideoz grabatzea, da-tuak transkribatzerakoan baliagarri izaten delako; eta, bestalde, inkestagunean inkestagile eta informatzailearen arteko komunikazioan izaten diren aspektu estralinguistikoak aztertzeko ezinbesteko tresna bihurtzen da.

Transkripzioa inkesta burutu eta laster egiten du datuen biltzaileak. Frogtua dago transkripzioa egiteko une egokiena inkestaren datuak buruan dauden bitartean dela.

Datuak grabatu eta transkribatzeko merkatuan diren programak erabiltzen ari da lantaldea. Ez dugu programa berezirik sortu.

### 5.1.3. Datuen transkripzio-sistemak

Hizkuntza-corpusetan hainbat transkripzio mota erabiltzen dira: NERC, EAGLES... Gure kasuan Euskaltzaindiak EHHA egitasmorako erabakitako alfabeto fonetikoak (IPA egokitua) erabiltzen dugu, hain zuzen ere EHHA programa informatikoak barne hartzen duelako alfabeto hau.

Gainera, EHHA programa informatikoan UNICODE erabiltzen da, karaktereak kodetzeko nazioarteko estandarra, eta honek aukera handiak eskaintzen ditu noiznahi beste alfabeto batzuetara pasatzeko.

EHHA programa informatikoak alfabeto fonetikoz transkribatutako informazioa alfabeto fonotografikora pasatzen du automatikoki. Honek abantaila handia ematen du datuen ustiatze desberdinetarako: lexikografia, sintaxia...

### 5.1.4. Soinuaren markatzea eta etiketazioa

Informazioa transkribatuz gain, ikerketa-proiektu honetan audio-materialaren tratamendua ere egiten da: markatzea eta etiketazioa. Lan hauetarako Inma Hernáez-ek gidatzen duen Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko AHOLAB laborategiaren laguntza izan dugu. Eurek prestatu dituzte markatzeko eta etiketatzeko programak<sup>2</sup>.

Lan hauetan audio-fitxategian marka batzuk ezartzen dira nahi den informazioa akotatzeko. Eta ondoren marka horiek galdera-kodearekin, jasotako inkesta lekuaren kodearekin eta informatzailearekin lotzen dira.

---

<sup>2</sup> Soinua markatzeko SFSWin version 4.7 programa informatiko librea erabiltzen da (<http://www.phon.ucl.ac.uk/resource/sfs/>) eta etiketak txertatzeko AHOLAB-ek eskainitako scripta.

Lan hauek egin ondoren eta inkesta-lanak bukatzen direnean, material guztia prest egongo da datu horiek erabiliz atlas akustikoa egiteko.

Liburuaren izenburuan adierazten den bezala, P. Sandovalen helburua Iruñeko elizak 80. urtetik 1614. arte izan zituen apezpikuen historia azaltzea izan zen eta, horrekin batera, Nafarroak urtemuga horretara arte izan zituen erregeena ere. Egileak transkribatzen dituen latinezko testuak<sup>2</sup> dira lanaren oinarri eta, testu horien inguruan edota horietaz gain, berak gaztelaniaz gehitu

---

<sup>1</sup> Nire esker ona *Katalogo* honetan ageri den onomastika aberatsaz konturatuta, liburu eskura jarri zidan Joxe Aleman irakaskide ohiari.

<sup>2</sup> “Hago vn memorial de la dignidad sacra, ministros consagrados, Christos vngidos, dignos de memoria desta Santa Iglesia, que Dios, por ser quien es, me encomendò (si bien indigno de ser entre ellos contado.) Dirè con breuedad, lo que con certidumbre pudiere descubrir. Quedaràn muchos fuera deste Catalogo, que la gran antiguedad, mudança de Reynos, corriente de tiempos, han puesto en oluido. [...] Dirè de camino los reyes, que en vida de los Obispos Reynaron. No lo que hizieron, porque no huuo quien lo escriuiesse: ni lo que otros han escrito, sino lo que hallare mas memorable, y con puntualidad del tiempo. Sacado todo de sus escrituras. Con que se darà algun fabor à esta breue memoria Pontifical, y para adorno, real” (1 atz., 2). Aitzinago dio “Desde el año de 80. hasta el de 589. no hallo Obispo de Pamplona, ni memoria de Iglesia, mas de la que dirè, no porque la ciudad no los tuuiesse [...] sino porque no huuo quien los escriuiesse ni dexasse memoria dellos: ni tampoco porque en esta Prouincia tan estendida, desde los montes Pyreneos, hasta los de Oca, y



zituen azalpen eta iruzkinak. J. Goñi Gaztanbideren iritziz, liburuaren bene-tako egilea ez zen Sandoval izan. Honek transkribatuak aurkitu zituen latinezko testuei gaztelaniazko itzulpenak eta zenbait iruzkin gehitu eta bere ize-nean argitara eman zituela dio Goñik. Honela dio zehatz-mehatz:

«El catálogo, comenzando por el título, no es más que un plagio de un *Catalogus episcoparum ecclesiae Pampilonensis*, escrito poco después de 1573 por un canónigo de Pamplona, que hemos creído poder identificar con Francisco Cruzat y que Sandoval se cuida muy bien de no citar ni una sola vez. La aportación de Sandoval se limita en esta obra a poner en castellano defectuosamente lo que el *Catalogus* dice en latín, a las noticias de los reyes de Navarra, a las biografías posteriores a 1573 y a varios documentos citados por el *Catalogus*, que Sandoval reproduce literalmente»<sup>3</sup>.

Nolanahi ere, latinezko testuetako transkripzioen egiletasun kontua alde batera utzita, aberatsa da lan honetan azaltzen den onomastika, antroponimia nahiz toponimia. Uste dugu interesgarria dela ageri den toponimia nagusia batik bat, bai Nafarroakoa, bai inguruko probintzia batzuetakoa ere. Gainera, guk dakigula behintzat, orain arte argitaratu diren toponimia historikoaren lanetan, ez da liburu honen lekukotasunik eman. Bertan ageri diren toponimo batzuk dira, hain zuzen, txosten honetan aurkeztu nahi izan ditugunak, zenbait toponimoren euskal ordaina hobeki ezagutzeko edota lehendik ezagutzen direnak egiaztatzeko argigarri direlakoan.

Interesgarriak dira Goi Erdi Aroko (IX-XII mendeetako) latinezko testuetan ageri diren lekukotasunak eta adierazgarriak gaztelaniazko azalpenetan erabiltzen dituen zenbait herriren izendapenak. Latinezko testuak direla eta, kontuan izanik P. Sandovallek transkribatu zituen agiri franko J. Goñi Gaztanbidek 1997an argitara eman zuen *Colección diplomática de la Catedral de Pamplona 824-1243* liburuan ere ageri direla, jaso ditugun izen gehienetan bi egile hauen lekukotasunak erkatzen saiatu gara, eta egiaztatu ahal izan dugu ez dutela beti jatorrizko testuaren irakurketa bera egin, erraterako 1007ko agiritik *Verrio Zahar* jaso zuen Sandovallek eta *Berrio Zahar* Goñik. Bi egile hauen lekukotasune-kin batera, osagarri gisa, gure aldetik artxiboetako ikerketetan jaso ditugun ber-ze zenbait izenen berri ere eman dugu oin-oharreko azalpenetan.

Azkenik, Sandovalen liburuan ageri diren zenbait azalpen bitxi ere txertatu ditugu oin-oharretan, argigarriak iruditu zaizkigulako batzuetan eta bereziki bitxiak bertze batzuetan.

---

nacimiento del rio Hebro faltassen Chistianos, sino porque la persecucion terrible de los Emperadores Romanos, fue tan cruel y sangrienta que no dexaua lucir al nombre de Christo" (6).

<sup>3</sup> Goñi (1987: 249-250).

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea <sup>4</sup> eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Agoitz		<i>Aggoyz</i> , 1016, 22 <sup>5</sup> .	<i>Ahoiz</i> , 1093, 79 <sup>6</sup> ; <i>Aoyz Uidea</i> , 1241, 519 <sup>7</sup> .
Antzin		<i>Ancinz</i> , 1007, 30 <sup>8</sup> .	<i>Ancinç</i> , 1007, 28.
Araitz		<i>Araynz</i> , 1007, 30.	<i>Araynç</i> , 1007, 28 <sup>9</sup> .
Arrasate	<i>Arrasate</i> , 21 atz. <sup>10</sup> .		
Arre	<i>Arre</i> , 2 atz. <sup>11</sup> .		

<sup>4</sup> Agiriaren urte zehatza ageri ez denean, mendea jarri dugu parentesi artean.

<sup>5</sup> “... Senior Fortun Aggoyz de Pampilona [...]”. XI. mendean ageri zaigu euskaraz erabiltzen den formaren lekukoa, oraintsu arte *-g-* dun forma hori berri samarra dela uste izan bada ere. Hala dio, behintzat, Belaskok (1996: 73): “la forma *Agoi(t)z* es relativamente moderna” eta baieztapen horren lehenbiziko lekukotzat 1702ko *Agoiz bidea* ematen du.

<sup>6</sup> “... infra terminos [...] de Ahoiz [...]”.

<sup>7</sup> “Alia vinea est in termino de Aoyz Uidea [...]”.

<sup>8</sup> “... Monasterium Santi Christofori iuxta villam, quae dicitur Anzinz et Rigun de Ega cum omni sua pertinentia [...]”. 1007ko testua transkribatzean *-inz* amaierarekin jaso dute bai Sandovalak bai Goñik.

<sup>9</sup> 1007ko testua transkribatzean tarteko *-n-* jaso dute bi liburuetako egileek, baina Goñiren liburuko 213. orrialdean ageri den 1142-1159 urteen arteko testuan *Arayç* dator.

<sup>10</sup> (El rey don Sancho el Sabio) “... hizo vn fuerte Castillo en la Guipuzcoa llamado Arrasate, sobre el lugar que agora llaman Mondragon, y en aquel tiempo, era esta fuerza inexpugnable”. 1614an 924. urteko gertaerak aipatzen.

<sup>11</sup> “En el lugar de Arre, que es una legua de Pamplona, encima de Villaua, en vna cañada ò valle, donde fenecen las faldas de los montes Pyrineos, se hallaron vnas laminas de bronce muy bien labradas y escritas con letras Romanas grandes, que como mal aduertidos y poco curiosos, deshizieron”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Artzabaltzeta		<i>Arçaualceta</i> , 1007, 29 atz.; 1097, 74 atz.	<i>Arçaualceta</i> , 1007, 28 <sup>12</sup> ; <i>Arçaualçeta</i> , 1087, 68; 1205-1209, 396.
Asiain	<i>Assiayn</i> , 102 <sup>13</sup> .		
Atarrabia	la casa de <i>Atarrauia</i> , 132 <sup>14</sup> .		<i>Atarrauia</i> , 1226, 467 <sup>15</sup> .
Badoztain		<i>Vadozstayn</i> , 1007, 29 atz.	<i>Badoçtayn</i> , 1007, 27 <sup>16</sup> .
Baiakoa	<i>Bayacoa</i> , 26 atz <sup>17</sup> .		

<sup>12</sup> “Iuxta villam que dicitur Artzacoçt flumen Arga, monasterium quod dicitur Arçaualceta cum sua hereditate quam habet et deinceps habuerit, et cum ecclesis de Orindoyñ et de Artaçu”.

<sup>13</sup> “Don Migvel Sanchez de Assiayñ Obispo de Pamplona [...], natural de Assiayñ, pequeño y dichoso pueblo (como un Betleem), pues del salieron tan grandes varones”. Hala dio Sandovalak 1350. urteko gertaerak aipatzen ari denean.

<sup>14</sup> “... vino de Estella el dicho obispo (Don Antonio Manrique) a la casa de Atarrauia [...] el Cabildo fue à visitarlo à Villaua [...]”. 1575. urteaz ari den testu honek, argi uzten du Erdi Aroan ez ezik, geroago ere Atarrabia Villavako etxe bat zela.

<sup>15</sup> “... nos R., Dei gratia Pampilonensis episcopus, concedimus uobis S., priori hospitalis Rocideuallis, et omnibus fratribus eiusdem loci tam presentibus quam futuris, ut construatis oratorium in domo uestra de Atarrauia, saluis decimis et primitiis et omnibus aliis iuribus ecclesie Sancti Andree de Bilava, in cuius territorio predictum oratorium construetur [...]”.

<sup>16</sup> 1007ko testua transkribatzean ez datoz bat Sandoval eta Goñi. Azken honena zuzenagoa dela ematen du, *-doyz-* forma hori ez baita inoiz agertu Jimeno Juriok eta bertze zenbaitek herri honi buruz argitara eman ditzuzten lekukotasun zaharretan.

<sup>17</sup> XI. mendean Sancho Garcés eta doña Toda izeneko errege-erreginak Leireko monasterioari eman zioten “... en la valle de Ybargoiti, un Monasterio llamado Bayacoa [...]”. Patxi Salaberrik jasotako datuen arabera, *Bayaçoa* 1585ean eta *Baiacoa* 1827an Irunberrin kokatzen den toponimoa da.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Basabotz	<i>Basabotz</i> , 93 <sup>18</sup> ; <i>Bassabotz</i> , 95.		
Beasoain		<i>Verasoain</i> , 1044, 70 <sup>19</sup> .	<i>Beasoayn</i> , 1175, 303.
Berriozar		<i>Verrio Zaharr</i> , 1007, 29 atz. <sup>20</sup> .	<i>Berrio Zahar</i> , 1007, 27.
Bidasoa		<i>Vidaso</i> , 1007, 30 atz. <sup>21</sup> .	<i>Bidasso</i> , 1007, 29.
Bilbilis	<i>Viliuio</i> , 78 <sup>22</sup> .		

<sup>18</sup> “... termino de Basabotz, cercano à Nabardum [...]”.

<sup>19</sup> “... Lethe cum suis terminis, et de illa arca de Verasoain usque ad pelagum rotundum de Anoz [...]”. Kontuan izatekoa da XI. mendeko lekukotasun zaharren honek bokal arteko *-r-* daramala.

<sup>20</sup> Grafian bat ez badatoz ere, forma bera jaso dute Sandovalak eta Goñik.

<sup>21</sup> Bertze zenbaitetan bezala, hemen ere ez dira erabat berdinak bi egileen transkripzioak: “... usque ad flumen quod dicitur Vidaso et aliud flumen quod dicitur Deua [...]” (Sandoval), eta “... usque ad flumen quod dicitur Bidasso et aliud flumen quod appellatur Deua [...]” (Goñi). Bietan, ordea, argi ageri da ibai honen formarik zaharrenak ez daramala amaierako *-a*.

<sup>22</sup> “... Viliuio o Calatayud [...]”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Burdaspal <sup>23</sup>	<i>Vrdaspal</i> , 15 atz <sup>24</sup> ; <i>Hurdaspal</i> , 15 atz.; <i>Vrdaspalense</i> , 15 atz. <sup>25</sup> ; <i>Hurdaspal</i> , 16 <sup>26</sup> .		<i>Urdaspal</i> , 1178, 311.
Donostia (Ikus Izurun)	<i>S. Sebastian</i> de Guipuzcoa, 21 <sup>27</sup> , 166; <i>S. Sebastian</i> , 87, 140 atz. <sup>28</sup> .	<i>sanctum Sebastianum</i> , 1097, 142 <sup>29</sup> .	

<sup>23</sup> Horrela dago arautua *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanean. Lan horretan *Urdaspal* forma ez da ageri ez sarrera gisa ezta lekukotasunetan ere. Burgi herriko *Burdaspal* sarreran ematen den azalpen historikoan, ordea, honela dio: “Antiguo monasterio situado entre Burgui y Roncal, uno de los visitados por S. Eulogio a mediados del siglo IX [...]. Aparece también con la grafía Burdaspal”. (XIV: 40). Zer dela-eta “aparece también” azalpen hori? Ez dago ulertzerik ez bada egiaztatzen *Gran Enciclopedia de Navarra-n Udaspal* dela sarrera eta sarrera horretan ematen den azalpen historiko berbera letraz letra kopiatu dela. Ikusten ahal den bezala, Sandovalak ez du *Urdaspal* bertzerik erabiltzen, nahiz eta, ematen duenez, *Burdaspal* izan formarik zabalduena eta egun erabiltzen dena (Lopez-Mugartza 2008: 378).

<sup>24</sup> “Estaua este Monesterio Igalense en el lugar que agora se llama Igal, dos leguas de Vrdaspal y cerca de Vidangoz en Val de Salaçar [...]”.

<sup>25</sup> “... Dadilano Abad del Monesterio Vrdaspalense [...]”.

<sup>26</sup> “Otro (Monesterio) san Saluador de Hurdaspal, ya muy arruynado, en Valderoncal, cerca de la villa de Burgui [...]”. Horrela dio Nafarroak 851. urtean Pirinio aldean zituen monasterioen berri ematen ari delarik.

<sup>27</sup> La villa de S. Sebastian de Guipuzcoa (conquistada por Sancho Garcia), “... le dio los fueros que hoy día tiene, y el nombre en lengua Canabarra de Hizurum, que quiere decir tres agujeros, por las tres entradas que esta villa tiene para el mar. Tambien hizo vn fuerte Castillo en la Guipuzcoa llamado Arrasate, sobre el lugar que agora llaman Mondragon, y en aquel tiempo, era esta fuerça inexpugnable”.

<sup>28</sup> “En Guipuzcoa; en la villa de San Sebastian, el Monasterio de S. Bartolome, de Monjas Agustinas”.

<sup>29</sup> “... ad sanctum Sebastianum in Ripa maris”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Ejea	<i>Exea</i> , 78, 82.	<i>Exee</i> , 1155, 151 atz. <sup>30</sup> ; <i>Exce</i> , 1155, 152.	<i>Esseie</i> , 1086-1094, 63; <i>Exeia</i> , 1087, 67; 1129, 166; <i>Esseia</i> , 1103, 116; <i>Exseie</i> , 1121, 142; <i>Esscee</i> , 1144, 220; <i>Exee</i> , 1155, 250.
Elizaberria		<i>Liçabarriae</i> , 1143, 147 atz.; <i>Liçauerrie</i> , 1144, 149; <i>Liçaberria</i> , 1146, 150; 1155, 153; <i>Eliçaberria</i> , 1191, 160.	<i>Lizaberria</i> , 1148, 229 <sup>31</sup> .
Errezil		<i>Erretzil</i> , 1007, 30 <sup>32</sup> .	<i>Erretzil</i> , 1007, 28; <i>Errizil</i> , 1186-1193, 327.
Erriberri	<i>Olite</i> , 99, 102 atz., 107, 109, 112, 117; <i>Olit</i> , 117 atz.; <i>Olihb</i> 137 atz.		<i>Erriuerrria</i> , 1119, 137 <sup>33</sup> .

<sup>30</sup> “... Ecclesiam de Exee [...]”.

<sup>31</sup> “... dono et concedo Sancte Marie de Lizaberria et vobis, quod faciatis molinos in illo riuo de Iuero [...]”. Oltza zendeako Izkuere herrian aurkitzen zen Erdi Aroan *Elizaberria* monasterioa.

<sup>32</sup> Kontuan hartzekoa da 1007ko testuaren transkripzioan bi egileek *Erretzil* forma afrikatua jaso izana.

<sup>33</sup> “... carta donationis Sancte Marie de Erriuerrria, quam ego Lupus de Arrayz Deo et Sancte Marie de Pampilona dono quartam partem [...]”. Testuak ez du argi adierazten nongoa den Santa Maria “de Erriuerrria” hori. Dena dela, Garibaik eta Oihenartek XVI-XVII. mendeetan aipatzen duten *Erriberri* bera baldin bada, kontuan izatekoa da Goñik ematen digun lekukotasun honek XII. mendean kokatzen duela.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Errioxa	<i>la Rioxa</i> , 10 <sup>34</sup> , 24 atz., 25 atz., 26, 64, 65, 66 atz., 69 atz., 71 atz., 85, 87; <i>Rioxa</i> , 45, 95 atz.		
Erroibar <sup>35</sup>	<i>Valderro</i> , 117 atz., 138 atz.		
Erronkaribar	<i>Valderoncal</i> , 16.		
Ezkaba		<i>serra de Ezcaba</i> , 1007, 29; <i>Ezchaua</i> , 1007, 29.	<i>Ezcaua</i> , 1007, 27; <i>Ezchaua</i> , 1007, 27.
Ezkirotz	<i>Ezquiros</i> , 64 atz.; <i>Ezquiros</i> , 67 atz. <sup>36</sup> .	<i>Ezquiros</i> , 1144, 149; 1146, 150; 1155, 153; 1165, 155 atz.; 1188, 157.	<i>Ezquiros</i> , 1071, 50.
Fitero	<i>Hitero</i> , 87, 101 atz., 107 atz., <i>Ytero</i> 110 <sup>37</sup> .		

<sup>34</sup> “... el Monasterio de san Millan de la Cogolla en la Rioxa, que fue de los reyes de Nauarra, no fue asolado por los Moros, ni tampoco el de san Salvador de Leyre, que esta en este Reyno [...]”.

<sup>35</sup> Latinezko testuaten beti *Erro* edota *Vallis de Erro* ageri da. Gure aldetik, Nafarroako Artxibo Nagusian XVI. mendean dokumentatutako *Erroibar* euskal forma jaso ahal izan dugu: “Joanes gil de roybar, mulatero” (Doneztebeko Notarioen Protokoloak 39, 1587. urtea).

<sup>36</sup> Bai latinezko testuek bai gaztelaniazko erabilerak nahiko garbi adierazten dute oinarria *Ezquir-* dela, eta ez Belaskok (1996: 184) ematen duen *Esquir-*.

<sup>37</sup> Lekuko hauek adierazten dute herri izen honek hasierako *f* ez duela beti gorde.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Gares	<i>Puente de la Reyna</i> , 97 atz.; <i>Cares</i> (sic), 97 <sup>38</sup> ; <i>la Puente de la Reyna</i> , 100 atz., 101, 102 atz., 103 atz., 140 atz.; <i>la Puente</i> 101.		
Gasteiz	<i>Vitoria</i> , 21 <sup>39</sup> , 86, 87, 166 atz.; <i>Victoria</i> 85, 85 atz., 86, 100.		
Genevilla	<i>Vgeneuilla</i> , 109 <sup>40</sup> .		<i>Ussaniuila</i> , 1238, 511.
Gipuzkoa	<i>Guipuzcoa</i> , 16 atz., 24 atz., 64, 88, 95, 133 atz., 140 atz., 165; <i>Prouincia</i> 138 <sup>41</sup> .	<i>Ypuzcoa</i> , 1007, 30.	<i>Ypuçcoa</i> , 1007, 28; <i>Ypuza</i> , 1085, 63; <i>Ypuzcoa</i> , 1143, 215; 1237, 505; <i>Ipuçcoa</i> , 1149, 230; <i>Ypusca</i> , 1150, 235.

<sup>38</sup> (Doña Iuana, hija de don Henrique, hermano de Teobaldo) “... fue singular Princessa, fundo en Paris el Collegio de los Nauarros, dotandolo con magnificencia Real; reedifico la villa de Puente la Reyna llamada antes Cares (sic) riberas del rio Arga [...] falleció en 1305. Sepultaron su cuerpo en el monasterio de San Francisco de Paris”. Zalantzarik ez dago, Sandovalék erraten duen “llamada antes” hori hagitz antzinakoa zela, kontuan izanik behintzat R. Zierbidek 1244. urtean Erriberrin jasotako *C. J. Guaresco* aipua (Salaberri 2003: 125).

<sup>39</sup> “... la ciudad de Vitoria, que por auerla alcançado muy señalada (victoria) en sus campos, le dio este nombre [...] (el rey don Sancho Garcia)”.

<sup>40</sup> *Vgenevilla* dakar Sandovalék XVII. mendean, *Uxanavilla* zaharraren eta *Genevilla* berriaren tarteko forma.

<sup>41</sup> “... ay diez y nueue Arciprestazgos, ò partidos, que son los que siguen. La ciudad de Pamplona. La ciudad de Estella. El Arciprestazgo de la Prouincia. El de la Cuenca de Pamplona. El de la Valdonsella en Aragon. El de la Ribera [...]”.



Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Goiatz		<i>Goyaz</i> , 1007, 30 <sup>42</sup> .	<i>Goyaz</i> , 1007, 28 <sup>43</sup> .
Goizueta			<i>Goizuueta</i> , 1186-1193, 327 <sup>44</sup> .
Guardia	<i>la Guardia</i> , 87 <sup>45</sup> , 90 atz. <sup>46</sup> , 90 atz. <sup>47</sup> , 108 atz.; <i>Laguardia</i> , 107.	<i>La Garda</i> , 1144, 148 atz.	<i>Laguardiam</i> , 1214, 420.
Gulia		<i>Aulia</i> (sic) <sup>48</sup> , 1007, 30.	<i>Gulia</i> , 1007, 28; <i>Bulia</i> , 1105, 120.
Ibañeta	<i>Euañeta</i> , 60 <sup>49</sup> ; <i>Ybañeta</i> , 78 atz. <sup>50</sup> , 79.		

<sup>42</sup> Honek erakusten du *Goiatz* izenaren antzinatasuna. Jakina denez, azkenaldi honetan, herri honek Bidaniarekin bat egin du, eta elkarte berriri *Bidania-Goiatz* jarri beharrean *Bidegoian* izen asmatua jarri diote izen ofizialtzat, jatorrizko *Bidania* eta *Goiatz* izen historikoak alde batera utziz.

<sup>43</sup> Testuan *Goayz* (sic) dakar. Ematen du akatsa dela; gainera, liburuaren aurkibidean *Goyaz* baitator.

<sup>44</sup> Sandovalek aipatzen ez badu ere, egoki iruditu zaigu Goñiren testigantza urteen aipamenarekin jasotzea.

<sup>45</sup> (El rey don Sancho) “... en la Rioxa poblò la Guardia [...]”. Ikus Errioxa sarreran “la Rioxa” eta “Rioxa”, Gares sarreran “la Puente de la Reyna” eta “Puente de la Reyna” eta Lapoblacion sarreran “Población”. Ikus, halaber, herri honen *Guardia* euskal izenaz Euskaltzaindiaren irizpena (*Euskeria* 48, 41-43).

<sup>46</sup> “... Lupo de la Guardia [...]”. 1214. urteko aipua.

<sup>47</sup> “Ego Lupus de la Guardia Prior pro toto conuentu hoc signum facio”. 1214. urteko aipua.

<sup>48</sup> Pentsatzekoa da hasierako *A*- Sandovalek egindako irakurketa okerra izaten ahal dela, kontuan hartzekoa baita urte bereko lekukotasunak eta ezagutzen den zaharrenak *G*- duela hasieran. Goñiren lekukotasun honek alde batera uzten du 1105eko izenean oinarrituta “el nombre antiguo comenzaba por *b*” baieztapena (Belasko 1996: 222).

<sup>49</sup> “... el monasterio de San Salvador de Euañeta en el puerto, Auria, que es encima de Roncesualles”. Antza denez, hasierako *E*- irakurketa okerra da.

<sup>50</sup> “... el puerto de San Salvador de Ybañeta, camino de Santiago, donde segun la comun opinion, percieron infinitos Franceses en tiempo de Carlos Magno, y segun la tradicion de aquellas montañas, percian los peregrinos ahogados con la ventisca de las nieves; y otros despedaçados de infinitos lobos, que criaua la tierra”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Ibero		<i>Iuero</i> , 1137, 68 <sup>51</sup> .	<i>Iuero</i> , 1137, 186.
Ibiriku		<i>Ibericu</i> , 1143, 147 atz. <sup>52</sup> ; <i>Ibiricu</i> , 1144, 149; 1155, 153; <i>Iuiricu</i> , 1146, 150.	<i>Iuiricu</i> , 1144, 219; 1194, 350; <i>Ibiricu</i> , 1237, 504; <i>Yuiricu</i> , 1209, 407; 1202, 391.
Imotz		<i>Ymaoz</i> , 1007, 30 <sup>53</sup> .	<i>Imaoç</i> , 1007, 30.
Ingalaterra	<i>Ingalaterra</i> (sic), 85, 89 atz. (3 aldiz), 97 (2 aldiz), 102 atz., 127 <sup>54</sup> .	<i>Inglaterra</i> , 109 atz.	

<sup>51</sup> “... Ecclesias de Iuero eiusdem supradictis parentibus meis [...]”.

<sup>52</sup> Sandovalek ematen duen *Ibericu* lekukotasunik zaharrena bada ere, *-e-* duen forma bakarra da, segur aski oker jasoa.

<sup>53</sup> Bi egileek testu bera transkribatzen dute; grafian ez datoz bat, baina forman bai: *Imaoz*. Guk dakigula, hau da izen honen lekukotasunik zaharrena.

<sup>54</sup> Kontuan izatekoa da Sandovalek, latinezko testuan ez bezala, gaztelaniaz ari denean aldiro *Ingalaterra* forma erabiltzen duela, erraterako: “Doña Berenguela como su aguela, fue Reyna de Ingalaterra [...]”. (85); “El Conde de Champaña y Par de Francia, fue uno de los mayores señores, y mas llegados a las casas Reales de Francia y Ingalaterra”. (89 atz.); “La Infanta doña Ioana, que primero fue Duquesa de Bretaña, y despues Reyna de Ingalaterra”. (102 atz.); “... vemos Iglesias y monesterios asolados y profanados como en Ingalaterra [...]”. (127).

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Iruñea	<i>Iruñea</i> , 1 atz. <sup>55</sup> , 2 atz. <sup>56</sup> , 24 atz., 60, 164 <sup>57</sup> ; <i>Irunea</i> , 63 <sup>58</sup> , 77 <sup>59</sup> .	<i>Iruniensis</i> Episcopus, 1014, 33 atz.; <i>Iruniensis</i> sedis, 1022, 35; <i>Iruniensem</i> sedem, 1023, 36 atz.; 1070, 39; Ecclesia <i>Iruniensis</i> 37; sedi <i>Iruniensi</i> , 1070, 39 atz.; in <i>Irunia</i> , 1071, 64 atz.; in <i>Irunea</i> , 1071, 65; 1075, 66 atz.; 1111, 77; <i>Iruniensem</i> Ecclesiam, 1137, 68 atz.; in <i>Iruniense</i> sede, 1087, 74.	<sup>60</sup>
Iurreta	<i>Ihurrueta</i> , 66 atz. <sup>61</sup> .		

<sup>55</sup> “Tales fueron los Obispos de Pamplona (antigua Iruñea, antes de Pompeyo, ò de los Pompeyones) que desde el tiempos de los Apostoles hasta oy dia, se han continuado”.

<sup>56</sup> “Llamase Pamplona, en lengua Vascongada desta tierra, Iruñea, que quiere dezir buena villa, que siendo tan diferente del nombre de Pamplona. Y cierto que el Vascuence es la lengua original de los antiquissimos Españoles pobladores. Es argumento, que antes de Pamplona es Iruñea: y que no fueron Pompeyo, ni los Pompeyones, los que hecharon las piedras fundamentales desta Ciudad. Aumentola Pompeyo, ò cercola, ò hizo sobre lo hecho, alguna fortificacion, y obra nueua, con que se le añadió el nombre de Pamplona”.

<sup>57</sup> “Iruñea, villa buena, Pamplona llamada assi antes de Pompeyo [...]”.

<sup>58</sup> “... Era 1104, 1105, 1106. En todas las quales ay memoria del Obispo don Ioan, llamandose en vnas de Pamplona, en otras de Irunea [...]”.

<sup>59</sup> Kontuan hartzekoa da Sandovalék Nafarroako hiriburuaren euskal ordaina aipatzen duen aldiro *Iruñea* edo *Irunea* erabiltzen duela, inoiz ez \**Iruña*”.

<sup>60</sup> Goñi Gaztanbidek jasotako latinezko testuetan ugari dira *Iruniensis*, *Irunia*, *Iruina*, *Iruinia* aipuak.

<sup>61</sup> “... vn Monasterio de S. Martin en Vizcaya, cerca de Durango, en el lugar de *Ihurrueta* [...]”. Sandovalék 1072. urteko gertaerak 1614an gaztelaniaz kontatzean *Ihurrueta* erabili zuen.

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Izarbeibar		<i>valle de Itzarbe</i> , 1084, 72 atz. <sup>62</sup> .	
Izurum (Ikus Donostia)	<i>Hizurum</i> , 21 <sup>63</sup> , 32; <i>Yçurum</i> , 32 <sup>64</sup> .	<i>Yçurum</i> , 1014, 33.	<i>Içurun</i> , 1014, 25 <sup>65</sup> .
Jaitz		<i>Ianiz</i> , 1097, 76 <sup>66</sup> ; <i>Ianit</i> (sic), 1100, 146 atz. <sup>67</sup> ; <i>Iätz</i> (sic), 1144, 149.	
Jaunsarats		<i>Iansarras</i> , 1007, 30 <sup>68</sup> .	<i>Jansarass</i> , 1007, 28.

<sup>62</sup> “... cum valle de Orba et Zabalcetam, Ecclesiamque de Ouanos, cum valle de Itçarbe [...]”. -tz- afrikatuarekin ageri den lekuko bakarra baldin bada ere, pentsarazten du, Nafarroako *Itza*, *Itzagaondoa* eta abarretan bezala, ibar honen izen egokia ez ote litzatekeen *Itzarbeibar* izanen, *Izarbeibar* ordez.

<sup>63</sup> “... la villa de S. Sebastian de Guipuzcoa (conquistada por Sancho Garcia), y le dio los fueros que hoy dia tiene, y el nombre en lengua Cantabra de Hizurum, que quiere decir tres agujeros, por las tres entradas que esta villa tiene para el mar. Tambien hizo vn fuerte Castillo en la Guipuzcoa llamado Arrasate, sobre el lugar que agora llaman Mondragon, y en aquel tiempo, era esta fuerça inexpugnable”.

<sup>64</sup> “... el Monasterio de S. Sebastian, que estaua fundado cerca de Hernani, con mas la villa de Yçurum, y las Iglesias de Santa Maria, y S. Vicente [...] y el monasterio es de monjas, riberas del mar, y le llaman San Sebastian el viejo, a diferencia de la villa tan illustre y principal, y tan conocida en la Prouincia de Guipuzcoa, llamada San Sebastian, que esta dos tiros de vallesta del Monasterio”.

<sup>65</sup> “... in finibus Ernani ad litus maris monasterium unum quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochiam suam et illam uillam que antiqui dicebant Içurun cum ecclesiis suis, scilicet beate Marie et sancti martiris Vincentii [...]”.

<sup>66</sup> “... Salinis de Ianiz [...]”.

<sup>67</sup> “Villam de Ianit cum suis Salinis [...]”.

<sup>68</sup> Sandoval eta Goñi Gaztanbide ez datoz bat transkripzioan. Nolanahi ere, biak bat datoz hasierarekin: *Jan-*, ez *Jaun-*.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Lapoblación	<i>Poblacion</i> , 109 <sup>69</sup> .		
Larrea	<i>Larrea</i> , 17 atz. <sup>70</sup> .		
Larunbe	<i>Larumbe</i> , 19.	<i>Olarumbe</i> , 1007, 30 <sup>71</sup> .	<i>Olarumbe</i> , 1007, 28; <i>Larumbea</i> , 1105, 120.
Latsaga	<i>Laxaga</i> , 107 atz. <sup>72</sup> , 110.		
Leitza		<i>Leytza</i> , 1007, 30 <sup>73</sup> .	<i>Leitza</i> , 1007, 28.
Leotz		<i>Leioz</i> , 1144, 148 atz.; <i>Lioz</i> , 1146, 150; 1155, 153 <sup>74</sup> .	<i>Leioz</i> , 1144, 218; <i>Lioz</i> , 1156, 252; 1185, 322.

<sup>69</sup> Karlos Vianako printzeak 1423an egindakoaz ari dela, honela dio: “Incorporó con Viana debaxo deste titulo las villas delaGuardia, S. Vicente, Bernedo, Aguilar, Vgeneuilla, Poblacion, S. Pedro, Cabredo, Val de Campeço, Castillo de Marañon, Toro, Errara y Buradon, y otros lugares”. Kontuan izatekoa da *Poblacion* soilik ageri dela, artikulurik gabe, eta *laGuardia* herri izenak artikulua badarama ere, letra larria *Guardia* izenak duela, ez artikulua. Ikus *Guardia* sarrera.

<sup>70</sup> Yñigo Ximenez de Arista erregeak 839. urtean Ignacio de la Lane alferrezari egindako mesedea aipatzen du Sandovalak: “Hizole merced de vn valle, y montes que puso por nombre Larrea, y dize estan a la entrada de Alaba, desde el rio a la parte Mediodia, hasta la montaña de Guipuzcoa llamada Aruamendi (sic), con vna casa fuerte que el Rey alli auia fundado llamada la Torre”.

<sup>71</sup> Sandoval eta Goñi bat datoz 1007ko testuaren transkripzioan: *Olarumbe* diote biek, eta guk dakigula, hau da herri izen honen lekukotasunik zaharrena.

<sup>72</sup> “... don Pedro señor de Laxaga [...]” dio 1390. urteko berriak ematean.

<sup>73</sup> 1007ko dokumentuaren transkripzioan, bai Sandovalak bai Goñik egun ahoskatzen den *-tz-* afrikatuarekin jaso dute herri izen hau.

<sup>74</sup> Bi egile hauek jasotako dokumentuetan lekukotasun gehiago du *Lioz* formak.

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Leza	<i>Leza</i> , 66, 69 atz.	<i>Leça</i> , 1077, 61 atz. <sup>75</sup> ; <i>Lezna</i> , 1097, 75 atz. <sup>76</sup> .	
Lizarra	<i>Estella</i> , 77 atz. <sup>77</sup> , 100 atz. <sup>78</sup> .	<i>Liçarrara</i> , 1044, 70; <i>Stella</i> , 1137, 68 atz., 1145, 82 atz.; <i>Liçarraga</i> , 1144, 148 atz. <sup>79</sup> ; 1146, 150; 1155, 153; <i>Liçarra</i> , 1187, 85 atz. <sup>80</sup> .	
Los Arcos	Villa de <i>los Arcos</i> , 6; <i>Vranci</i> (sic), 66 atz. <sup>81</sup> .	<i>Vrranci</i> , 1007, 30; <i>Arcus</i> , 1143, 147 atz.; 1144, 149; <i>Archos</i> , 1146, 150; 1165, 155 atz.; <i>Arcos</i> , 1155, 153.	<i>Vrranci</i> , 1007, 28; 1075, 55.

<sup>75</sup> “... domino Ranimiro meo filio, Leça cum suas villas, Soto et Ciellas Alficero et Torreciella in Cambero [...]”.

<sup>76</sup> “... Sanctam Mariam de Lezna [...]”.

<sup>77</sup> “... y en el año de 1128 començò a poblarse la villa de Estella, que agora es ciudad de este Reyno [...]”.

<sup>78</sup> “... la ciudad de Estella es Estrella en la tierra, por la apacible ribera del rio, que dentro de ella corre: por la amenidad y hermosura de los campos que la cercan”.

<sup>79</sup> “... Sancto Dominico de Liçarraga, cum tota decimatione suae parroquiae [...]”.

<sup>80</sup> Santxo Gartzia erregeak Iratxe monasterioari emaitza hau egin zion: “Illam Ecclesiam Sancti Ioannis, quam facio fieri à praedictis monachis in populatione de Stella, quam populai ultra pontem Sancti Martini iuxta villam de Liçarra: et iuxta Rupem Sancti Michaelis in Parrale meo proprio”.

<sup>81</sup> “... estando en Najara el mesmo Rey (don Sancho) y Reyna Placencia, concedieron vna carta de libertad a los pobladores de Vranci [...]”. Patxi Ondarrak “Los Arcos-en euskal izena *Urantzia* ote?” artikuluan (*Euskera* 34, 723-724), hiru lekuko ematen ditu: 1) *Urantzia*. *Codex Calistinus*-en datoren “Urantia que dicitur Arcus”, 2) *Vrranci*, Prudencio Sandovalen 1614. urtean idatzitako *Catálogo de los obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona...* liburuaren 30. orrialdean transkribatzen duen Iruñeko Katedraleko 1007ko latinezko testua (urte batzuk geroago Goñi Gaztanbidek (1997: 26-29) argitaratutako aipu bera), 3) *Urranzi*, Joseph Moret-ek *Los anales del reyno de Navarra...* liburuan dakarrena. Baina Sandovalen

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Mónaco	<i>Monago</i> , 111 <sup>82</sup> .		
Monjardín (Ikus Santesteban de la Solana)	<i>Monjardin</i> , 11 <sup>83</sup> , 69 atz., 166 atz.		
Nafarroa Beherea	<i>Baxa Nauarra</i> , 87 atz.		
Nagitz		<i>Iaguilz</i> , 1007, 29 <sup>84</sup> .	<i>Naguilz</i> , 1007, 27.
Naiara <sup>85</sup>	<i>Najara</i> , 5, 11, 26, 43, 43 atz., 44, 45, 54 atz., 60, 64 atz., 65, 71 atz., 109 atz., 137; <i>Nagera</i> , 21 atz., 23 atz., 24 atz., 25, 25 atz., 31 atz., 32, 43, 45, 60, 63, 68 atz., 70 atz., 71, 80, 85 atz., 164, etab.	<i>Najarensis</i> , 1023, 38; 1044, 70; <i>Naielensis</i> Episcopus, 1028, 43; apud <i>Nayaram</i> , 1052, 47 atz.; <i>Najara</i> 1052, 48; 1077, 61 atz.; <i>Najara</i> , 1077, 61; 1060, 62; <i>Nayera</i> , 1077, 61 atz.; <i>Nayalensis</i> , 1060, 62.	

liburua aztertzean, Ondarrak nonbait ez zuen jarraitu 30. orrialdetik aitzina, ez baitzuen jaso 66. orrian datorren *Vranci* forma. Hau da, hain zuzen ere, Sandovalak gaztelaniaz azaltzen duen testua Sancho el Noble eta Placencia izeneko errege-erreginek XI. mendean egin zuten zenbait emaitza aipatzeko. Uste dugu lekukotasun hau ez dela garrantzirik gabeko datua, batik bat *Urantia* izena “unus testis” dela argudiatuz alde batera utzi dutenen aitzinean.

<sup>82</sup> (Don Miguel de Zalba, Obispo de Pamplona) “Muriò en vn lugar llamado Monago a 24 de Agosto, año 1406. Sepultaronle en vn Monasterio de San Francisco de Niza [...]”. Gaur egungo Mónaco hiriaz ari da.

<sup>83</sup> “... el Castillo de Santisteuan, que agora llaman Monjardin [...]”.

<sup>84</sup> Pentsatzekoa da hasierako *I*- Sandovalak egindako irakurketa okerra izanen dela. *Nagitz* da gaur egun bizirik dagoen forma. *Nágitz*, *Nagítz* *aldétik*, *Nágitz aldétik* bildu zuen Koldo Artolak (1985: 109). *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanean, ordea, *Nagiz* eta *Nagizaldea* dira jasotako formak (LIX: 38, 70, 86-87). Dena dela, Ezkabarteko toponimo honen bi lekukotasun zaharrenetan *-gilz* dugu amaieran.

<sup>85</sup> Latinezko testuetan modu anitzetara idatzia ageri da, baina gaztelaniazko aipu ugariak bi forma hauetara mugatzen dira: *Najara* eta *Nagera*.

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Najerilla	Rio <i>Najarilla</i> (sic), 45.		
Navarrería	<i>Nauarrería</i> , 4 atz. <sup>86</sup> , 63 <sup>87</sup> , 73, 88 atz., 93 atz., 95, 99 atz., 104, 110, 165, <i>Nouarrería</i> , 64 <sup>88</sup> .		

<sup>86</sup> “Llamose la primera y mayor poblacion della (de Pamplona) Nauarrería, de donde à mi entender tuuo el reyno nombre de Nauarra [...]”.

<sup>87</sup> “No se hallara escritura antigua, donde esta Prouincia se llame Nauarra, saluo la de don Iñigo de la Lane (don Iñigo Arista Rey de Nauarra zela dioena), y esta de la Era 1103, donde don Ioan se llama Obispo de los Nauarros, es vna de las primeras en que hallo este nombre. Se lo que adiuinando dizen algunos, sin acertar, y me parece, que como en muchas partes se llaman *Conuento Pampilonensium*, pueblos Pampilonenses, dando esta ciudad, como cabeça, nombre à toda la tierra, que assi del varrio, y primera y principal poblacion que en ella huuo, donde siempre estuuo la Iglesia Cathedral y se llamò Nauarrería, que de aqui tambien se llamaron Nauarros, y la Prouincia sugeta à Pamplona Nauarra. Y he visto papeles antiguos de hombres graues de este Reyno que dizen, que los primeros que poblaron esta tierra, entraron por los Pyrreos, y baxando dellos, llegaron a este suelo donde esta Pamplona y lebantaron vn altar a Dios, donde le ofrecieron sacrificio, dandole gracias por auerles dado tan buena tierra, y que esto fue en el sitio de la Nauarrería”. Eta honela azaltzen du Navarrería izenaren etimologia: “... por auer sido el primer altar diuino la llamaron *Noua Ara*, y corrompiendose el vocablo se dixo Nauarra, y Nauarrería la poblacion, y della toda esta Prouincia Nauarra [...] *Noua Ara* seria la parte mas alta, donde agora està la Iglesia Cathedral, y aquella que en tiempo de los Gentiles fue Ara dedicada à los Demonios, los Apostoles que aqui vinieron à predicar la Fe, la dedicaron à Dios”.

<sup>88</sup> “... en la lengua latina, que ya se hablaua, la llamaron *Noua Ara*, y en la Cantabra natural, corrompiendo el nombre Latino *Nouarrería*, por auerse hecho otras Iglesias, y gran población en el montecillo donde esta la Cathedral; como en Athenas tenian altar dedicado a Dios no conocido, así por la nouedad de la religion, y Dios tan diferente de los que los barbaros Gentiles aqui adoraban, llamaron nueuo el altar, nueuo el Dios, nueuo el sacrificio que se le hazia. Lo que me haze dificultad es, no hallar, el nombre de Nauarra [...] hasta estos tiempos en que el Obispo don Iuan se llama *Nauarrorum Rector*, y de aqui adelante Prouincia de Nauarra, y Reyes de Nauarra, que en la escritura de Iñigo de la Lane, que se llama Rey de Nauarra don Iñigo Arista [...]”. Ikus “Don Iuan Obispo de Pamplona”, 1050-1071 urteen bitartean. (Sandoval: 62 atz.-64 atz.).



Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Obanos		<i>Ouanos</i> , 1084, 72 atz., 74 atz.; 1155, 153; <i>Ouans</i> , 1100, 144; 1146, 150; 1188, 157; <i>Obanos</i> , 1100, 145 atz.; 1143, 147 atz.; 1165, 155 atz.; <i>Obans</i> , 1100, 146 atz.	<i>Ouanis</i> , 1086-1115, 65; <i>Ouanos</i> , 1087, 68; 1159, 255; <i>Ouans</i> , 1097, 80; 1100, 102; 1137, 187; 1144, 218; <i>Ouanus</i> , 1205, 396.
Ojacastro	<i>Ojacastro</i> , 54 atz.	<i>Olía Castro</i> , 1052, 48 atz.	
Orbaibar	<i>Baldorba</i> , 138 <sup>89</sup> .	<i>valle de Orba</i> , 1084, 72 atz <sup>90</sup> .	<i>Orbaiuar</i> , 1178, 310 <sup>91</sup> ; 1179, 359.
Ostitz	<i>Oztiz</i> , 118 <sup>92</sup> .	<i>Ostiz</i> , 1087, 74 atz.,	<i>Ostiz</i> , 1087, 68; 1090, 71; 1100, 100; 1177, 308.
Población	<i>la Poblacion</i> , 110 <sup>93</sup> .		

<sup>89</sup> “El (arciprestazgo) de la Baldorba”.

<sup>90</sup> “Dedi quoque Ecclesiam de Tafallia, sanctumque Romanum, cum valle de Orba et Zabalcetam, Ecclesiamque de Ouanos, cum valle de Itçarbe [...]”.

<sup>91</sup> (Ecclesia) “... de Sancto Thoma de Orbaiuar cum villa Sansomain”.

<sup>92</sup> “... Lope de Oztiz Prior de Velate [...]”. XVII. mendean *Oztiz* formaren erabilera egiaztatzen du.

<sup>93</sup> “... los de las tres partes de Pamplona, Nauarreria, el Burgo y la Población, que como se (sic) fueran tres pueblos diferentes estos tres barrios tenia cada vno su Alcalde y Jurados distintos, hasta que este Rey don Carlos (III, el Noble) hizo a todos vno”. Ikusten ahal den bezala, *la Población* izendapena Iruñeko auzoaz ari denean erabiltzen du, gaur egungo *Lapoblación* herriari, ordea, *Población* deitzen dio.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
San Adrián		<i>Almuneçera</i> , 1144, 149; <i>Almonaçer</i> , 1146, 150; <i>Almonozter</i> , 1155, 153; 1165, 155 atz.; <i>Sancto Adriano de Palma</i> , 1144, 149; 1146, 150; 1155, 153.	<i>Palma</i> , 1084, 61 <sup>94</sup> ; <i>Almunizer</i> , 1110, 131 <sup>95</sup> .
Sanmartinzar <sup>96</sup>	<i>San Martin de Zaharra</i> , 55.	<i>Sancto Martino de Zaharra</i> , 1052, 48 atz.	
Santesteban de la Solana / Solana (Ikus Monjardín)	<i>Santisteban</i> , 69 atz. <sup>97</sup> ; <i>Solana</i> , 103 <sup>98</sup> ; <i>Solana</i> , 126 atz. <sup>99</sup> ; <i>Solana</i> , 138 <sup>100</sup> .	Castro <i>S. Estephani</i> (XI), 69 atz.; <i>Castrum sancti Stephani</i> , 1097, 74 atz.; 1146, 150; 1155, 153.	<i>Castrum Sancti Stephani de Mont Iardin</i> , 1143, 217; <i>Castiello de Sant Esteuan de Mont Jardin</i> , 1223, 456.

<sup>94</sup> “... ecclesia Sancti Adriani martyris, que est sita in ripa que dicitur Palma iuxta Ibero flumine [...]”.

<sup>95</sup> “... facio testamentum tibi Iuliano de Almunizer, monasterii Sancti Adriani de Palma [...] et cum omni hereditate de Almunicer [...]”.

<sup>96</sup> Sanmartinzar Trebiñuko Tobera kuadrillako herria da. *Sancto Martino de Zaharra* 1025, *Sancti Martini de Zaharra* 1076, *Santo Martino de Zaharra* 1193. Bertze zenbait dokumentazio zaharretan ere ageri da (Sanchez: 177). Jatorri argikoa bada ere, Elena Martínez de Madinak Henrike Knörr zenaren 1970 hamarkadako artikulu bat gogora ekarri azaldu digun bezala, urte haietan, herri etimologia aplikatuz nonbait, herri honi *San Martin del Zar* forma erabat asmatua jarri zitzaion eta, gezurra badirudi ere, burugabeko izendapen hori oraindik ere egiaztatzen ahal da zenbait web gunetan.

<sup>97</sup> (Tuvo el Infante don Ramiro) “... el Castillo de Santisteban que agora llaman Monjardin”.

<sup>98</sup> “... don Ioan Ramirez de Arellano, señor de Solana y Arellano [...]”.

<sup>99</sup> “... el Arciprestado (sic) de la Solana [...]”.

<sup>100</sup> “El (arciprestazgo) de la Solana”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Sonsierra	<i>Sosierra</i> (sic), 54 atz. <sup>101</sup> .	<i>Subserra</i> , 1052, 48 <sup>102</sup> .	
Toloño	<i>Toloneo</i> , 54 atz. <sup>103</sup> .	<i>Tolonei</i> , 1052, 48 <sup>104</sup> .	
Tutera <sup>105</sup>	<i>Tudela</i> , 78, 78 atz., 80, 81, 81 atz., 82 atz., 85 atz., 87, 88 atz., 89, 91 atz., 92, 93 atz. 107, 108 atz., etab.	<i>Tutela</i> , 1052, 58; 1137, 68 atz.; 1118, 78 <sup>106</sup> ; 1143, 147 atz.; 1165, 155 atz.; <i>Tutella</i> , 1146, 150; 1155, 153; apud <i>Tutelam</i> , 1155, 152.	

<sup>101</sup> “En Sosierra, san Roman, con todo lo que le pertenece”. Hala dio Sandovalak Don Garcia izeneko erregearen 1052. urteko testamentuaren itzulpenean, latinez *Subserra* eta gaztelaniaz *Sosierra*, egun *Sonsierra* dena.

<sup>102</sup> “In Subserra Sanctum Romanum cum omni sua pertinentia”.

<sup>103</sup> “... la quarta parte del Toloneo del mercado de Najara [...]”.

<sup>104</sup> “... quartam partem Tolonei ex mercato eiusdem Nayeræ [...]”.

<sup>105</sup> Sandovalak gaztelaniaz beti *Tudela* aipatzen du, eta latinez, Goñik bezala, *Tutela* eta *Tutella*. Jakina da hiri honen euskal forma *Tutera* dela. Orain arte euskarazko izenaren lekukotasun zaharrenak XVII. mendekoak baldin baziren ere, hots, *Tutera camioa* (1614ko Ezkizozko toponimoa) eta *Tuterarena* (1637ko Iturengo etxea), azkenaldi honetan XVI. mendeko lekuko bat ere aurkitu ahal izan dugu: “joanes de çarandia alias tutera”, hots, Tuterarena etxeko jabeari zegokion aipamena hain zuzen, 1595ean eta 1604an ageri dena. (Nafarroako Artxibo Nagusiko Doneztebeko Protokoloetan jasoa lehenbizikoa eta Prozesuak deitutako saileko 13.368 zenbakia daraman prozesuan bigarrena).

<sup>106</sup> “... In obsidione [...] Tutelæ [...]”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Uharte	<i>Hugarte</i> , 129 atz. <sup>107</sup> .	<i>Uhart</i> , 1007, 30 atz.; <i>Huarte</i> <sup>108</sup> , 1070, 41 atz. <sup>109</sup> ; 1143, 147 atz.; <i>Huart</i> , (XI), 58; (XI), 70 atz.; 1100, 146 atz.; 1144, 149; 1146, 150; <i>Ufart</i> , 1097, 76 atz.; <i>Uart</i> , 1155, 153; <i>Vardt</i> , 1188, 157; <i>Varch</i> , 1191, 160.	<sup>110</sup>
Ultzama		<i>Uzama</i> , 1087, 76 atz. <sup>111</sup> .	<i>Utzama</i> , 1087, 70.

<sup>107</sup> (El obispo don Diego Ramirez, el año 1562) “... otro dia despues de Pentecostes al amanecer, partiò de Hugarte para Trento, donde entro atrauesando por Francia, y se hallò en el Concilio, asistiendo hasta quatro de Diziembre, del año 1563, en que se acabò”. Kontuan hartzekoa da, latinezko testu guztietan ez bezala, Sandovalak gaztelaniaz ematen duen herri honen aipamen bakarrean -g- tartekatzen duela, euskaraz nahiko arrunta izanen litzatekeen forma.

<sup>108</sup> “... Fortum Sanz de Huarte [...]”.

<sup>109</sup> “... Fortun Sanz de Huarte [...]”. *de Huarte* jartzen du latinezko testuaren transkripzioan. Seguru gaztelaniara jo zuela konturatu gabe, gainerako guztien *in Uhart*, *in Sos*, etab. ageri delako. Gainera, Goñik testu beraren transkripzioan *in Vharte* dio (49. or.).

<sup>110</sup> Goñiren liburuan ere Sandovalenean ageri diren forma berak azaltzen dira, bai eta bertze hauek ere: *Huart*, *Uarte*, *Vharte*, *Varte*, *Huartth* eta *Vatth*.

<sup>111</sup> XI. mendeko testu honen transkripzioa egitean, Sandovalak *Uzama* jaso zuen eta Goñik *Utzama*. XVI. mende arte ere ageri da *Uzama* forma, nahiz eta *Utzama* nagusitzen joan zen. Erraterako, Nafarroako Artxibo Nagusian Patxi Salaberrik *Ucama larrea* jaso zuen 1537. urteko ageri batean (Atarrabiako Protokoloak 1, 22) eta *Valdeuçama* neuk 1548. urtekoan (Doneztebeko Protokoloak, 19).

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Undués	<i>Undues</i> , 29 atz.	<i>Unduesse</i> , 1007, 29 atz.	<i>Vnduesse</i> , 1007, 28; <i>Vndues</i> , 1197, 359.
Usun	<i>Usum</i> , 11 <sup>112</sup> ; <i>S. Pedro de Vsum</i> , 17 atz., 127 atz., 165; <i>san Pedro y san Pablo de Usum</i> , 23; <i>san Pedro de Aufon</i> , que es <i>Vssum</i> 23; <i>Vssum</i> 114.	<i>Ausonii</i> , 934, 23 <sup>113</sup> ; <i>Ausoni</i> , 1007, 29 atz.; <i>Vssum</i> , 1007, 30 atz.; <i>Ossum</i> , 1214, 90 atz.; <i>Vsum</i> , 1144, 149; de <i>Euson</i> , 1146, 150; 1155, 153; 1188, 157; <i>Osun</i> , 1191, 160.	<i>Ausoni</i> , 924, 21 <sup>114</sup> ; <i>Usun</i> , 1144, 219 <sup>115</sup> ; <i>Oson</i> , 1196, 363 <sup>116</sup> .
Uxue	<i>Uxue</i> , 103 atz., 107 atz., 110, 111 atz. <sup>117</sup> .	<i>Vssue</i> , 1137, 68 <sup>118</sup> .	
Zaldiaran	<i>Çaldiaran</i> , 16 atz. <sup>119</sup> .		

<sup>112</sup> “... Monesterio de san Pedro y san Pablo de Usum, que agora es Arcidiano desta santa Iglesia” (de Pamplona).

<sup>113</sup> “... iuxta oppidum, quod dicitur Ausonii [...]”.

